Kristau Bidea

Nimegako Katekesi Institutua
Lurralde Beheretako Gotzainen ardurapean

Kristau Bidea

JAKIN, ARANTZAZU
OÑATI, 1975

Jakin Bide

Zuzendari: Joseba Intxausti

Jatorrizko edizioa

Egilea: Hoger Katechetisch Instituut

Izenburua: De Nieuwe Katechismus, geloofsverkondiging voor volwassenen

Itzulpenaren

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

Número de Registro: 1.692

Depósito Legal: S. S. 658/75

I S B N N.º 84-7240-087-5 (guaflex) 84-7240-088-3 (tela)

IZARRA IRARKOLA. — POLIGONO 36. — USURBIL (GUIPUZCOA)

Euskal itzulpena

Zuzendari:
Paulo Agirrebaltzategi

Zuzentzaile:
Dionisio Amundarain

Oharregileak:
Jean Hiriart-Urruty
Joxe A. Gandarias
Joseba Intxausti

Itzultzaileak:
Joxe A. Aduriz
Paulo Agirrebaltzategi
Ildefontso Alustiza
Pedro Aranguren
Mikel Arginarena
Florentino Arruti
Iñaki Bereziartua
Anastasio Esnaola
Juan Joxe Onaindia
Errupin Muxika
Enrike Zabala

Bibli zatiak:
Fernando Mendizabal

Maketagile:
Joxe A. Aduriz

Argitaldariaren oharra

KRISTAU BIDEA izena eman diogu liburu honi. «Holandako Kristau Ikasbidea»... «Helduentzako Kristau Ikasbide Berria»... Izen hauetaz ezagutu dugu azken urteotan, eztabaida askoren artean, Kristautasunaren alorrean sortu eta zabaldu den libururik jorienetako eta bizienetako hau.

Euskaldun gehienek haintzakotzat hartzen dute Nazareteko Jesus, bere irakatsien eta bere Elizaren bidez, mundu zabalean nahiz Euskal Herriaren historian, kultur mailan ukan duen eraginagatik; euskaldun askok maisutzat eta eredutzat ere hartzen du, giza mailan. Euskal fededunek, berriz, giza eredutzat ezezik, Jainkoaganatzeko jarraibidetzat daduka Kristo, eta jainkozko fede iturritzat Horren Ebanjelioa.

Denentzat da kristau pentsakera eta bizikera biltzen dituen liburu hau: kristautasuna kultura eta ideologia bezala hartzen dutenentzat, eta fede eta bizitza bezala hartzen dutenentzat; norberaren herritarren eta adiskideen kristau esperantza ulertu nahi duen gizaki kezkatuarentzat, eta Elizaren eta norberaren kristau aitorpena argitu nahi duen eliztar helduarentzat.

«Jakin Bide» liburu sailaren asmoen hildotik joan nahi du liburu honek ere. Euskal kulturan erlijio eta kristau gaiak izan dira euskaraz gehienbat landuak. Halere, oraindik ez dugu batu eta ez finkatu euskara alor honetan ere; eta euskal (euskarazko) teologia

oraindik hasi ere ez dugula egin esan genezake. KRISTAU BIDEA Eliza katolikoaren fede eta irakatsien bilduma delarik, bada teologiaren oinarrizko ikuspegi berri, gaurko eta orokor bat ere. Euskal Teologia berri eta indartsu batentzako eta bereziki Teologi hiztegirako bide batzu urratu eta landu nahi izan ditu, alor honetan ere euskara batua finkatuz joan dadin.

Urte batzu badira *Holandako Kristau Ikasbidea* argitara zela. Ondorengo gorabehera eta eztabaidek ez diote jatortasunik kendu, ez eta pasa diren urteek, gaurkotasunik. Beste hizkuntzetako kristauak liburu hau eskuratzeko hain lehiatuak ibili badira, euskal kristauok ere, edo kristautasunaz kezkatuok, geure eskuetan edukitzeko eskubidea genuen.

Eskubide horrixe erantzun nahi izan dio —hutsune bat betez— JAKIN Argitaldariak. Ohituretan eta istituzioetan mamitua aurkitu eta bizi izan du euskaldunak bere kristau fedea. Kezkatan eta larrialditan ari da, orain, norberaren fede sakonago baten bila. Kemenez eta esperantzaz begiratu nahi dio bere fede etorkizunari. Fede helduago baten bidetatik iritsi nahi du bere nortasuna eta euskalduntasuna. Bide honetan laguntzaile izan nahi du KRISTAU BIDEAk...

KRISTAU BIDEA ez da euskal Elizbarrutietako Kristau Ikasbide ofiziala. Ez du izaterik ere, zuzenzuzenean Holandako gizarte eta Eliz giroari begira egina delako; euskal kristauentzako Dotrinak, ordea, euskal Elizak sortua behar luke izan. Honetarako ere zirikatzaile izango ahal da Holandako Kristau Ikasbide Berriaren euskaralpen hau! Asmo hauei helduz eta historiazko hariari lotuz, Joxe Maria Rementeriak, liburu osoaren sarrera bezala ematen digu euskarazko Dotrinen historia.

Lan handia eta luzea eman du euskal argitalpena prestatzeak. Euskal Herri osorako eta euskaldun guztientzako eratu nahi izan dugu liburu hau. Lankideak ere Euskal Herri osokoak izan dira. Lehen itzulpenean beren lankidetza eman dutenak hauetxek izan dira: Mikel Arginarena, Florentino Arruti, Fernando Mendizabal, Paulo Agirrebaltzategi, Joan Joxe Onaindia, Iñaki Bereziartua, Anastasio Esnaola, Rufino Muxika, Pedro Aranguren, Enrike Zabala eta bereziki Ildefontso Alustiza.

Lehen itzulpen honen idazkera batzeko eta lantzeko, oso-osorik ikusi, aztertu eta zuzendu du Dionisio Amundarainek. Guztien lana eskertzekoa baldin ba-

da benetan, aipamen berezia merezi du Dionisiok, hain gogotsu eta kementsu saiatu bait da liburu honen euskaralpena prestatzen. Horrekin batera aipatu behar dugu halaber Joxe Antonio Aduriz, azken ikutuak ematen eta liburugaia inprimategirako prestatzen jarri duen arduragatik.

Euskaltzaindiaren bideei atxeki gatzaizkie, liburu hau Euskal Herri osorako euskara batuan emateko. Irakurle guztientzat irakurgarriago eta ulerterrazago gerta dadin, hitz zailenen kidekoak orrialde bakoitzeko oharretan ematen ditugu. Lapurtera-baxenafarreraren aldetik Joan Hiriart-Urruty, bizkaieraren aldetik Joxe Antonio Gandarias eta gipuzkera eta bizkaiera aldetik Joseba Intxausti: hiru hauek sakonki ikusi eta aztertu dute testua, bakoitzak bere euskalkiaren aldetik oharrak eginez. Honetaz gainera, Euskal Herriko Liturgi Batzordearen iritzia eta laguntza ere eskatu nahi izan ditugu, hiztegiari dagokionez batasun bat lortu nahian.

Liburuaren eraskin bezala ematen ditugu Erromako Kardinaleen Batzordearen aginduz, Holandako eta Erromako teologari batzuen artean eginiko testu aldaketak. Eraskin honen sarrera bezala, berriz, *Holandako Kristau Ikasbideak* sortu izan dituen eztabaiden eta ukan dituen gorabeheren berri ematen dugu.

Sarrera berezi, liburuaren euskaralpen, ohar, aurkibide eta guzti: ahal zenik erabilgarriena eta baliagarriena eman nahi izan dugu liburu hau. Honela, euskal kristau heldu guztiek beren fedea sakontzean eta argitzean, eta fede hezitzaileek beren katekesi, ikastaro eta hitzaldi lanetarako, laguntzaile bikaina izango dutela uste dugu KRISTAU BIDEA.

JAKIN

Nola erabil liburu hau XIV

Euskarazko «Kristau Ikasbideak» ... XVII

Aurkibide zabala XXV

Kristau Bidea

Gizakiaren izatea: Misterioa 1
Kristoganako bidea 27
Gizasemea 69
Kristoren bidea 203
Bide bururaino 479

«Kristau Bidea»ri eraskina 519

Hiztegia 565

Gaien aurkibidea 577

Aurkibide xehea 587

Nola erabil liburu hau

Kristau mezua beronen osotasun zabalean eskaini nahi dizu liburu honek. Baina horrekin batera galdekizun berezi askori ere erantzun bat eman nahi dio. Kapitulu bakoitzak du bere osotasuna eta bere batasuna. Honela, esan daiteke, *Kristau Ikasbide* hau ez dela liburu bakar bat, eta bai liburuxka bilduma bat; bakoitzak hiru horrialdetatik hogeitamarrera ditu, eta zuk ezagutu nahi zenukeen gai honi edo hari buruz erantzuna emango dizu. Liburu hau irakur daiteke, bada, edozein lekutatik hasita.

Orokorki hartuz, historiaren hariari atxekitzen zaio liburu honen egitura.

Liburu hau erabiltzean, berak barnean dituen laguntzaile hauk gogoan eduki behar dituzu:

1. **Zati eta kapituluen aurkibidea**: honek emango dizu liburuaren ikuspegi orokorra.
2. **Zati, kapitulu eta paragrafo guztien aurkibide** zabal eta xehea.
3. Liburuan aztertzen eta azaltzen diren **gai eta puntu nagusien aurkibidea**, zein paragrafotan aurki daitezkeen adiarazten delarik.
4. Liburu osoa paragrafoz-paragrafo zenbatua dago. Testu barruan **etzanda agertzen diren zenbakiek** paragrafo horietara bidaltzen zaituzte, horietan aurkituko bait duzu sakonago eta zabalago azalduta irakurtzen ari zaren gaia.

5. Hitz askok **izartto** bana darama. Horien kidekoa edo gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpena orrialdearen oinean aurkituko duzu.
6. Euskarazko argitalpen honetan ohar berezi batzu ere egiten ditugu, zenbaki txikien bidez; bi asmotakoak dira ohar hauk: batzuk, azken urteotan eman diren liturgiazko aldakuntzak adiarazten dituzte; beste batzuk, berriz, **Eraskinera** bidaltzen zaituzte.
7. Liburuaren azken orrialdeetan, erabili den **hiztegi** zabal bat ematen da, teologiazko hitz «teknikoak» hizki handiagoz nabarmen araziz.

Fedezko mezua liburu honetan baino bilduago aurkitu nahi lezanak, «Apostoluen Sinbolua» deritzanaren hamabi artikuluetara jo beharko du; edota Mezakoan esan ohi den Kredora —aurrekoa baino hedatuxeagoa beste hau—; biak dira, ordea, Elizaren aspaldiko fede aitorpenak. Baina era berean, liburu honen kapitulu sailak egoki emango dizu kristau sineskaien ikuspegi laburra.

Zure liburuen artean, Bibliaren ondoan egon beharko luke liburu honek; izan ere, Kristau Ikasbide honek Jainkoaren hitzaren agor ezineko iturrira eraman nahi du etengabe fededuna.

Gaiak aukeratzean, kristau heldu batentzat fedezko gogoeta egiteko egokiak izan zitezkeenak hartu dira kontutan. Hizkerari dagokionez, berriz, ahal den neurrian alde batetara utzi da erudizioa; honela alferrikako eragozpenak kendu nahi izan zaizkio gogoeta egin nahi duen fededunari.

Azkenik, ohar bat katoliko direnei nahiz ez direnei. Gizakiak jaulkitzen duen edozein hitzek okerreko adiera ukan dezake; liburu honek hainbeste hitz dituenez, mila okerreko adieratarako arriskua ematen du. Horregatik hauxe eskatuko genioke irakurleari: Liburu honetako esaldi bakoitza Berrion osoaren argitan irakur dezala. Orrialde bat irakurtzean, aurrekoetan eta atzekoetan esaten dena gogoan eduki behar da: hauetan argiago eta zabalago aurki daiteke sarritan, bestean ez dagoena. Liburu honek ez du gaia xehe-xeheki eman nahi, eta bai adiarazi ezineko den horretara hurbiltzen saiatu; horregatik, ezin daiteke inolako esaldirik, liburuaren osotik bereiz.

Mezu honen muina Bazkoaren berria da. Kristoren Berbizkundearen Albistea liburu honetatik kenduko bazenu, orrialde guztiek beren balio osoa galduko lukete.

Jesukristoren mezuarekiko fede sendoa eta Jainkoaren misterioa gure garaiko hizkeran emateko agindua: hona hemen *Kristau Ikasbide* hau idaztekoan gogoan ukan diren bi oinarri bateratuak.

Bibliako Liburuen aipamenak

Ab	— Abdia	Jn	— Joan
Ab Ed	— Abestirik Ederrena	1/2/3 Jn	— Joanen epistolak
Ag	— Ageo	Jon	— Jona
Am	— Amos	Jos	— Josue
Ap	— Apokalipsia	Jr	— Jeremia
Ap Eg	— Apostoluen Eginak	Koh	— Kohelet
Ba	— Baruk	Kol	— Kolosatarrak
Dn	— Daniel	Kor	— Korintotarrak
Dt	— Deuteronomioa	Kro	— Kronikak
Ef	— Efesotarrak	Lk	— Luka
Ep	— Epaileak	Ln	— Lantuak (Erostak)
Erg	— Erregeak	1/2 M	— Makabetarrak
Erm	— Erromatarrak	Mi	— Mikea
Es Za	— Esaera Zaharrak	Mk	— Marko
Esd	— Esdra	Ml	— Malakia
Est	— Ester	Mt	— Mateo
Ex	— Exodoa	Na	— Nahum
Ez	— Ezekiel	Ne	— Nehemia
Flp	— Filemon	Os	— Osea
Flm	— Filipotarrak	1/2 P	— Keparen epistolak
Ga	— Galaziarrak	S	— Samuel
Gn	— Genesia	Sal	— Salmuak
Ha	— Habakuk	Si	— Sirak
Heb	— Hebertarrak	So	— Sofonia
Is	— Isaia	Tb	— Tobia
Jak	— Jakue	Tm	— Timoteo
Jb	— Job	Ts	— Tesalonikatarrak
Jdt	— Judit	Tt	— Tito
Jk	— Jakinduria	Za	— Zakaria
Jl	— Joel	Zenb	— Zenbakiak

Euskal «Kristau Ikasbideen» historia laburra

«Berria» da Kristau Ikasbide hau, eta Holandarrentzat egina. Euskaraz ematean, kristau euskaldunona ere bihurtu nahi dugu. Horregatik egokia da euskal Dotrina «zaharragoen» historia gogoratzea eta biltzea.

Jakin Argitaldariak eskaturik, euskal irakurleoi historia horren ikuspegitxo bat *ematen saiatuko naiz laburki bada ere.*

1. Aspaldiko Gotzainen kostituzioak

«Kristau Ikasbidea» beti hartu izan da Elizaren fede eta irakatsiaren bilduma bat legez. Horregatik, gehienetan, Gotzainen babespean edo, gutxienik, haien baimenagaz agertu izan dira; Gotzainak bait dira elizbarruti bakoitzean eliz-arduradun nagusiak, eta fede hezketa batez ere haien arazo bait da.

Katekesiaren historian hiru aldi aipatuko nituzke nik beren aparteko garrantziagatik:

— Elizaren lehen gizaldiak (hor daduzkagu, ageri legez, Itun Berriko liburuak eta Eliz Gurasoen idazkiak).

— *Trento-ko Kontzilioa eta ondorengo urteak (apezpiku eta apaizek erdi-ahantzia zedukaten fede hezketaren eginbeharra, Elizaren lehen zeregina bezala ematen du; eta lan hau aurera eramateko lagungarri legez, Kristau Ikasbide bat egitea agintzen).*

— Eta azken mende hau, bere berriztapen guztiekin.

Euskal Kristau Ikasbideen historia, bigarren une honetan —Trentoren inguruan— hasten dela esan genezake. Izan ere, Kontzilio honen erabakiak inon onartu badira, Euskal Herrian onartu dira. Euskal bizitzako alderdi behinenak kristau kutsuz janzten dira, *euskaldun, fededun* esateraino[1].

1. Si un hecho en la historia moderna ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el Concilio de Trento, cuyos efectos llegarorn a conformar de modo permanente casi todos los aspectos de la vida del país. Después de él y en su consecuencia va realizándose la identificación, luego familiar, de lo vasco con el catolicismo (Ik. MITXELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca.* Ed. Minotauro, Madrid, 1960, 59 or.).

Aitzinako gure Gotzainek Kontzilioaren erabakiak zein neurritan onartu zituzten jakiteko, Kalagurria-ko Sinodaletako liburua irakurri besterik ez dadukagu. Testu luze samarra eta erdaraz idatzia den arren, osorik aldatzen dut hona, jakingarri delakoan:

Que los prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en lenguaje acomodado a las Provincias.

CONSTITUCION X

Don Pedro Manso, en Logroño, año de 1600. Y porque es conveniente, que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impresa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorio de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Estatuimos. y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros Sucesores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según el uso de las dichas Provincias, para que los curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia: Porque Nos assi lo avemos començado à hazer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vazquence, tengan también la Doctrina en Romance[2].

Eta Gotzain honek dioena egiztatuz, hor dago bizkaieraz idatzirik guganaino heldu den lehen liburutxoa: Betolaza-ren Dotrina[3].

XVI. mende horren azkenaldian, beste Gotzain batek, Don Pedro Lepe-k, osatuko du Manso-ren agindua, ondoko hitzotan ikusten denez:

Dase forma de como se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas.

CONSTITUCION XI

Don Pedro Lepe, en Logroño, año de 1698. Es nuestro ánimo que la Constitución antecedente se observe como sana, y saludable, en quanto ser pueda. Mas aviendo mirado con atención todas las cosas que pueden ayudar a este santo intento en las Provincias Vazcongadas, hallamos que no es facil dar impresso texto, ò explicacion de Doctrina Christiana, que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este Idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquence de unos lugares à otros, según la mayor o menor distancia, que entre ellos ay, de la fuente, y origen de la lengua Vazquence: de donde nace, que en unos pueblos no se entiende aquella lengua perfectamente, la qual en otros es usual, y materna. Y para dar forma con que todos tengan explicación conveniente de la Doctrina Christiana: Ordenamos y mandamos, S.S.A. que se haga una breve explicación de ella, por persona docta, en cada una de aquellas partes, en donde es comun, y sin obice alguno el Idioma Vazquence; y esta se comunique a los Curas de aquella circunferencia, en donde se habla el Idioma, con aquel uso de voces. Lo qual encomendaremos a personas inteligentes, y de doctrina: que sin duda alguna las ay en el Vazquence. Y hablamos de experiencia, por haver encontrado en todas partes Sacerdotes con caudal de Sciencia, muy competente para enseñar a otros. Y

2. Ik. *Constituciones Synodales Antiguas y Modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada. Reconocidas, reformadas y aumentadas novísimamente por el Ilmo. Sr. D. Pedro Lepe.* Madrid, 1700, 126 or.
3. «*Doctrina Christiana en Romance y Basquence,* hecha por mandato de don Pedro Manso, Obispo de Calahorra y la Calzada, y del Consejo del Rey nuestro Señor, para las tierras Bascongadas de su Obispado, reducida por el doctor Betolaza, a lenguaje más común y más usado y que con más facilidad se entiende en todas ellas, para bien y utilidad de sus obejas de aquellas partes, que por largos años las apaciente y gobierne, a gloria y honra de Dios nuestro señor. Amen». Bilbao, 1596.

> el quaderno, que en cada parte se hiziere, facilmente se puede dar à la Imprenta, para la mayor facilidad en la comunicación[4].

Eta beste kostituzio batzutan, Kristau Ikasbide hori noiz eta zelan irakatsi aginduko dute: Igande eta Jaietako Meza Nagusitan, eskaintza aldian... eta ez dela aski buruz ikas araztea; baizik eta, denek ondo adi dezaten, azalpen egoki bat ere beharrezko dela; eta abar[5].

1862. urtean, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia elkartuz, elizbarruti berri bat sortzen da: Gasteizko Elizbarrutia. 1885.ean, bere lehen «Sinodoa» edo Batzar nagusia ospatuko du, eta, aurreko gizaldietan Kalagurrian egin ohi zenaren antzera, Berriona eta Kristau Ikasbidea batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan euskaraz azaltzeko erabakia hartzen da. Hona hemen ageri eder bat:

> Siendo un hecho indudable, gracias a Dios, según nos hemos informado en la Santa Pastoral Visita, que en la mayor parte de las poblaciones de Guipúzcoa y Vizcaya, y principalmente en los caseríos apenas se habla otro Idioma que el Vascuence, encargamos a los Párrocos y demás Sacerdotes que, en la predicación del Santo Evangelio y explicación de la Doctrina Cristiana, se valgan del Idioma usual en las respectivas localidades[6].

Ez goaz ageri gehiago aipatzera. Iruiñe eta Baionako elizbarrutietako kostituzioetan ere beste horrenbeste aurki genezake. Ezin uka gure aitzinako Gotzainek beren eginbeharra zintzo betetzen egin zuten ahalegina.

2. Kristau Ikasbideen ugaritasuna

Gotzainen ahaleginak gogoan ditugularik, eta Euskal Herriko euskalki guztiak begien aurrean ukanez gero, ez da harritzekoa Kristau Ikasbideak gure artean hain ugariak izatea. Ez dut uste Euskal Herriak aina Kristau Ikasbide argitaratu dituen beste herririk izango denik. XVI. mendean hasi eta gaur arte, Dotrinak eta Dotrinako gaien azalpen guztiak zenbatuz gero, ehundik gora agertu direla esan behar. Egia esan, denak ez dira balio berdinekoak: haien zabalkundea —bai urteetan zehar, eta bai herrietan barna— ez da berdina izan; batzu elizbarruti oso baterako eginak eta edozenbat bider argitaratuak; beste batzu, herrialde edo bailara baterako honen euskalki berezian eginak eta, bat edo beste, herri bakar baterako egina ere bai... eta, jakina, honen zabalkundeak askoz mugatuagoa izan behar.

Trento-ko Kontzilioaren erabakia baino lehenagokoa da gure lehen «dokumentua». Ez da guk Kristau Ikasbide izenez ezagutzen ditugun liburuetarikoa, beste baten zati bat baino; berton aurkitzen dugu sasoin hartan irakasten zen dotrinaren adiarazpen bat. Euskarazko lehen liburua aipatzen dihardut, Paris-en 1545. urtean argitara zen B. Dechepare-ren *Linguae Vasconum Primitiae* eta berton datorren *Doctrina Christiana*[7].

Euskal Bibliografietan esaten zaigunez, XVI. mendean, hiru dotrina argitara ziren euskaraz:

— Sancius de Elso-ren *Doctrina Christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos los estados, en Castellano y Vazquence* (Iruña, 1561). Aspaldidanik galdua, ez da inon aurkitzen.

— Betolaza-ren *Doctrina Christiana en Romance y Basquence* (Bilbao, 1596).

4. Loc. cit., 126-127 or.
5. Ik. liburu horretako 117-118 or.
6. Ik. *Decretos y Constituciones del Sínodo Diocesano celebrado en la S. I. C. de Vitoria por el Excmo. é Ilmo. Sr. Obispo de la misma Dr. D. Mariano Miguel Gómez.* Vitoria, 1885, 32-33 or.
7. BERNAT DECHEPARE, *Olerkiak.* Edili, Donostia, 1968, 22 orrialdetik aurrera.

— Eta Kalbino-ren irakatsiegaz, Joannes Leizarraga-ren *ABD, edo Christinoen instructionea, otoitz egiteco formarequin* (La Rochela, 1571). Ez da asko erabilia izan.

XVII. mendean, beste zazpi-zortzi agertzen dira gutxienez: Materre, Beriain, Kapanaga, «Viva Jesus», Pouvreau, Zubia, Belapeyre...

Lehen bi mende hauetan agertzen diren dotrinak, euskaraz eta erdaraz agertzen dira gehienetan; beste batzuk, ostera, nahiz eta euskara hutsean idatziak izan, beren titulua erdaraz dakarte, sasoin hartako beste liburuetan ere sarri ikusten dugun legez.

Behin XVIII. mendera sartuz gero, askoz ere ugariagoak dira, eta era askotakoak: Dotrina txikiak, fede egien laburpenak buruz ikasteko eran eginak, eta azalpen zabalagoak dituztenak; ume eta gaztetxoentzat egindakoak; lehen komuniora urreratzen direnentzat eta pertsona helduentzat ere; marinelentzat eta baserritarrentzat. Bailara baterako egindakoak eta elizbarruti osorakoak. Eta lehen, Dechepare-ren liburua aipatzean, ikusi dugunez, edozenbat debozio-liburutan ere agertzen da Kristau Ikasbidea, haien zati bat bezala; eta, alderantziz, Kristau Ikasbide asko debozionario batez osatua agertzen zaigu. Banan-banan, entzutetsuenak bakarrik aipatuko ditugu.

3. Kristau Ikasbide entzutetsuenak eta ezagunenak

Gure artean hain Kristau Ikasbide asko argitaratu bada, herri bakoitzak erabiltzen duen euskarari egokitzeko gurariak eraginda izan da, batez ere. Badago herri bat, aldi batez behintzat, bere dotrina ukan zuena[8]; eta bailarak, ugari[9].

Herriak inoiz ere erabili ez dituen Kristau Ikasbide batzu ere argitaratu izan dira; inguru batzuetan erabiltzen zen euskararen adiarazpen bat legez moldatuak: esate baterako, L. L. Bonaparte-k eta R. M. Azkue-k argitara zituztenak[10].

Beste batzu, eskuz idatzirik heldu dira guganaino. Inoiz, egileak argitaratzeko baimenik edo dirurik ez zuelako; gehiagotan, dotrina liburutxoa umeari ikasteko eman ordez, maisuak edo apaizak irakurri ahala, umea buruz ikasiz joaten zelako: horrela, ez zegoen argitaratu beharrik, nahikoa bait zen batek edukitzea. Baztan aldean, oraintsu arte, aurkitu izan dira eskuz idatzita zabalduriko Kristau Ikasbide batzu.

Azken gizaldiotan, Eliza osoan erabili diren Kristau Ikasbide gehienak 1566an agertu zen *Catechismus Romanus*-en oinarrituak izan dira. Baina Trento-ko Dotrina honen alderdi on asko —haren Bibli kutsua, irakatsi guztiak Kristoren inguruan eratzea, metodu aldetik ematen dituen argibideak...— guztiz alde batetara uzten dituztela. Dotrina hauen ardura guztia, herejeen aurka, fede egiak argi irakastea izango da.

Era honetakoak dira gure artean hain ugari ibili diren erdarazko bi hauk: Ripalda-ren *Catecismo de la doctrina cristiana con una exposición*

8. AGUSTIN DE BURGOA, *Eusquerazco dotriñie Otsandioaco*. Bilbao, 1849.
9. Oikiakoa, Baztangoa, Laudiokoa, Busturiakoa, eta beste asko.
10. L. L. BONAPARTE, *Doctrina cristiana en el vascuence de Llodio*. Londres, 1858. (Laudioko apaizenarekin ez du zerikusirik). ID., *La doctrina cristiana traducida al vascuence, dialecto vizcaino, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano*. Londres, 1862. (Jose Antonio Uriartek egina, zatitxo bat bakarrik argitaratu zen). ID., *Le petit Catéchisme espagnol de P. Astete, traduit en trois dialectes basques: Aezcoan... Salazarais... Roncalais...* Londres, 1869. (Inguru haietako apaiz batzuk euskaratua).
R. M. AZKUE, *Kristinauen ikasbide laburtua Baionako Elizterikoa, Lapurdiko euskeratik Bizkaikora biurtua. Doctrina Cristiana compendiada de la Diócesis de Bayona, traducida del Euskera de Laburdi al Castellano. Kristauen ikasbide laburtua Baionako Elizterikoa, Lapurdiko Euskeratik Gipuzkoakora itzulia*. Baiona, 1897.

breve (Burgos, 1591) eta Astete-ren *Catecismo de la doctrina cristiana* (Madrid, 1599). Bion artean, mila argitalpen baino gehiago ukan dituzte.

Trento-ko Kristau Ikasbidea ez da euskaratua izan. Baina, J. B. Aguirre-ren *Eracusaldiac* (Tolosa, 1850), Aita Bartolome-ren *Icasiquizunak* (Iruña, 1816-1819) eta P. Astarloa-ren *Urteco Domeca gustijetarako verbaldi icasbidecuac* (Bilbao, 1816-1818), gehienbatean liburu honetatik hartuak dagoz.

Ripalda eta Astete-renak, biak izan dira euskaratuak:

— 1609an, Martin Yañez de Arrieta-k Ripalda-ren itzulpen bat gertutu zuen Gipuzkoako euskaraz. Baina Iruiñeko Gotzainaren baimen guztiak ukan arren, diru aldetik sortu ziren eragozpenengatik edo, ez zen argitaratu[11].

— 1656an, Bilbon argitaratzen da Martin Ochoa de Capanaga-ren *Exposición breve de la Doctrina Christiana.* Liburu honi *Kapanagaren Dotriñea* deitzen zaio. Erdaraz eta euskaraz agertzen da; erdarazko testua Aita Ripaldarena da eta euskarazkoa Kapanagak egindako haren itzulpen bat.

Gure artean askoz ere onartuagoa izan da Asteterena. Hogei eta hamar aldiz baino gehiagotan euskaratu da eta euskalki guztietara gainera. Ezagutzen diren argitalpenei begiratuz gero, zabalkunderik gehien ukan duten Asteteren itzulpenak hauk dira:

XVIII. mendean:

— Juan Irazusta-ren *Doctrina Christiana* (Iruña, 1742). Gipuzkeraz. Hogei eta hamalau aldiz argitaratu da gutxienez; 1932-ko bat ezagutzen da.

— Agustin Cardaveraz-en *Christauaren doctrina* (Donostia, 1760). Gipuzkeraz. Eta *Doctrina Cristiana edo Cristinau dotrinea bizcaitarren eusqueraz* (Iruña, 1762). Bizkaieraz. Mogel-ena agertu arte, Bizkaian, gehienek erabiltzen ei zuten; Gipuzkoan, Irazustarena gehiago.

XIX. mendean:

— Busturiko Bikariakoa: *Cristinau Doctrinea bere Esplicacino laburragaz, itaune ta eranzueracaz. Aita Asteteren liburuchutic atarea bizcaitar barrucuentzat. Azquenean iminten dira Arimen Salvaciñoraco bear edo ondo direan gauzabatzuc. Busturico Vicariaco Abade Jaunen encarguz* (Gazteiz, 1802).

— Juan Antonio Mogel-en *Cristinaubaren jaquinvidea* (1805). Bizkaieraz. Markina ingurutik hasi eta Bizkaia osora zabaldua. Gutxienez hogei bat bider argitaratu da eta, Bizkaian, Gasteizko elizbarrutikoa agertu arte iraungo du.

— Laudiyokoa: *Aita Gaspar Asteten Cristinau Doctrinia, d. Gabriel Menendez Luarcac gauza asco erantzita atera ebana. Orain eusquerara biyortuta urteiten dau arguitara cerbait gueiyagoturic. Laudiyoco Abade Jaunen encarguz eta costuz* (Bilbao, 1828). XIX. mende barruan beste bospasei argitalpen ukan ditu.

— Baztangoa: *Cristau doctrina Aita Gaspar Astetec erdaraz escribitua eta orai Escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Valleco Parroco batec, cristau fielen instruccionearen deseyuz* (Iruña, 1826). Ehun urte geroago ere, Kristau Ikasbide hau ezaguna eta erabilia izan da Baztan aldean.

11. Ik. S. INSAUSTI, «El primer Catecismo en euskera guipuzcoano (?)», BRSVAP, 14 (1958), 78-83 or.

— Gipuzkoako Arziprestazgo Nagusikoa: *Cristauaren dotriña aita Astetec erderaz arguitara emana, eta Guipuzcoaco Arciprestazgo nagusico apaicen batzarre edo Congregacioac 1855-garren urtean erabaqui zuen becela, berriro eusquerara itzulia* (Gazteiz, 1867). Beste algitalpen batzu ukan ditu, baina zabalkunde lar ez zuen ukan.

Aipatu ditugun Kristau Ikasbide hauk Ripalda-ren eta Astete-renen itzulpenak diren arren, gehienak zerbait ikututa eta aldatuta agertu dira, euskaratzaileek beren zerbait ezarri diete.

Itzulpenok alde batetara utzita, XVIII. mendean zuzenean euskaraz idatzien artean, entzute gehien ukan duten Kristau Ikasbideak, hauetxek dira:

— Arzadun-en *Dotrina Cristianeen esplicacinoa eusqueraz* (Gazteiz, 1731). Aldakuntza batzukin XX. menderaino heldu da.

— Olaetxea-ren *Doctrina Cristianea. Don Bartolome Olaechea Laucarizco Cureac bere Elesatean Jai Domeca guztietan expliquetan dauena leguez* (Gazteiz, 1763). Bizkaian oso zabaldua.

Kristau Ikasbide hauk ez dira baztertuko mugaz honunzko Euskal Herrian, arik eta —XX. mende barruan— Gasteizko elizbarrutikoak eta nafarroakoak indar hartu arte.

XVIII. eta XIX. mendeetan, mugaz beste aldetik zabalkunde gehien ukan dutenak hauk izan direla esan genezake:

— Jacques de Maytie, *Catechima Oloroeco Diocesaren cerbutchuco* (Pau, 1706). Revol bertoko Gotzainak egina eta Maytie-k euskaratua.

— Lavieuxville, Baionako Gotzainarenak: *Guiristinoan doctrina laburra, haur-gaztei irachasteco* (Bayona, 1731). Eta *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima, lehenbicico Comunionea eguitera preparatcen diren Haurrençat* (Bayona, 1733). Edozenbat argitalpen ukan dituzte. Bigarren hau, bi aldiz argitara zen urte berean.

— Suarez de Aulan, Akize-ko (Dax) Gotzainaren aginduz, *Catichima edo Fediaren eta guiristino eguien esplicacione laburra* (Pau, 1745?).

— *Catichima edo Fedea laburzki* (Baiona, 1824). P.-T. David d'Astros, Baionako Gotzainaren aginduz egina, eta XX. mendearen lehen urteetan oraindik onartua eta erabilia.

Euskal Herriko euskalki guztiak eta bakoitzaren berezitasunak aztertu nahi dituenak, badu nahiko lan euskaraz argitaratu diren Kristau Ikasbide guztiak aztertzen. Baina ez da hau ugaritasun guztì honen balio bakarra, alderdi bakoitzak bere euskaraz bere Kristau Ikasbideak ukaitea, alegia. Katekesi aldetik ere balio izugarri bat agertzen da hemen: Kristau Mezua errazago aditua izan dadin, herri bakoitzaren hizkeran emateko Elizak egin duen ahalegin neurrigabekoa.

XX. mendean, batasun baten premia argi ikusten da. Hor-hemen edozenbat agertuko dira. Baina, laster, Elizbarruti bakoitzak bere Kristau Ikasbide Ofiziala ukanen du.

Gasteizko Elizbarruti osorako Kristau Ikasbide bakar bat egiten da, Asteterena oinarritzat harturik, baina asko hobetuz. Haren egilea, A. Pildain izan zen. Laster agertuko zen Gipuzkoako eta Bizkaiako euskaraz, M. Lekuonak eta J. B. Eguskitzak itzulirik:

— *Kristau Ikasbidea. Gotzai Jaunaren ardurapean Jaungoiko jakintzaren erakusle batzordeak antolatu du. Gipuzkoako euskeraz* (Iru maillatan. Gazteizko Eleizbarrutirako). (Gazteiz, 1921).

— *Kristiñau Ikasbidea. Gotzain Jaunaren ardurapean Jaungoiko jakintzaren erakusle batzordeak antolatu dau. Bizkaiko euskeraz.* (Iru maillatan. Gazteiz Eleizbarrutirako). (Zornotza, 1918?).

Nafarroan, Mateo Mujika jaunaren aginduz Damaso Inza-k egina (*Kristau Ikasbidea.* Iruña, 1927) izan da XX. mende honetan zabalkunderik handiena ukan duena.

Eta Baionan, *Baionako Diozesako Katichima Ttipia* (Tours, 1941). Eta 1948 urtean Frantzia osorako eratua onartzen eta euskaratzen da, Leon Albert Terrier, Baiona, Lescar eta Oloroeko Gotzainaren aginduz, *Baionako Diosesako Katichima* (Tours, 1948).

Gaurregun Baionako Elizbarrutian erabiltzen direnak hauk dira: *Jesu Kristori jarraikiz. En suivant Jésus-Christ* eta *Ene populua entzun. Ecoute ô mon peuple* (Baiona, 1968). Euskaraz eta frantsesez argitaratuak.

1950. urtean, Donostiako eta Bilboko elizbarrutiak sortzen dira, Gasteizkoa Arabagaz bakarrik gelditzen dela. 1958. urteraino elizbarruti berri biotan lehendik euskaratua zedukaten Gasteizko Kristau Ikasbideagaz jarraituko dute. Eta Nafarroan, Inzak egindakoagaz. Urte horretan agertzen dira Espainiako Elizbarrutietarako Kristau Ikasbide berriaren lehenengo eta bigarren mailak. Eta berehala euskaratuko dira:

— Bilbo-ko Eleizbarrutia, *Kristiñau Ikasbidea.* (Lenengo ta bigarren maillak. Gotzaiñen Irakaskintza-Batzordeak eratu ta Bilbo-ko Gotzain Yaunaren aginduz euskeratua). (Bilbao, 1958).

— Donosti-ko eleizbarrutia, *Kristau Ikasbidea.* (Lenengo ta bigarren maillak. Gotzaien Erakusle-Batzordeak eratu ta Donostiko Gotzai Jaunaren aginduz euskeratua. (Donostia, 1958).

1968. urtean, berriro, Espainiako Gotzainen aginduz, Kristau Ikasbideen berriztapenari hasera ematen zaio, eta gaztelerazko *Catecismos Escolares* agertzen dira. Gotzainen asmoa da, Oinarrizko irakaskintzako (EGBko) maila bakoitzak bere Kristau Ikasbidea ukan dezala. Lehen sei mailatakoak egiten dira. Hauetatik lau euskaraz jarriko dira, Euskal Herriko Elizbarrutietako Batzorde batek eraturik; eta *Kristau Ikasbidea* izenez argitaratzen 1., 2. eta 5. mailak, Madrilen, 1970-71 urteetan. Eta 4.a, Bilbon, 1974. urtean. Argitalpen bi egiten dira, gipuzkeraz bata, Nafarroa eta Gipuzkoarako; eta bizkaieraz bestea, Bilboko elizbarrutirako.

Laburpen hau bukatzeko, zera esan behar dela uste dut: Katekesiaren historian entzute gehien ukan duten Kristau Ikasbide gehienak euskaraz ere argitaratu direla, nahiz eta hauetariko batzuk zabalkunde handirik ukan ez duten gure herrian. Hona hemen, labur-labur, horien berri:

— Ripalda eta Asteterenak lehen aipatu ditugu.

— 1656. urtean, Parisen argitaratzen da Silvain Pouvreau-k euskaraturik, Richelieu Kardinalearen *L'Instruction du crestien, Guiristinoaren Dotrina* izenez.

— Juan Antonio Ubillos, *Cristau Dotriñ berri-ecarlea, Christauari dagozcan Egia-sinis-bearren berria dacarrena* (Tolosa, 1785). Beste bi aldiz behintzat argitara da, 1897 eta 1909 urteetan. Fleury-ren *Cathecisme historique* liburu entzutetsuaren itzulpen eratu bat da.

— 1812. urtean, Loison, Baionako Gotzainaren aginduz euskaratua izanen da «Napoleonen Dotriñea» legez ezagutzen dena: *Doctria Khiristia haurren instruccionetaco, idequirik hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati.*

Eta XX. mende honen barruan:

— I. Lopez Mendizabal-ek argitaratzen du, Tolosan 1907 urtean, *Aita Santu amargarren Pio-ren Dotriña laburra.*

— Urte askotako lanaren fruitu legez, 1955.ean agertzen da mundu guztian —eta gure artean ere— oso ezaguna den *Alemaniako Dotrina.* Honen balio nagusia, Kristau Mezuaren eta Salbazio Egintzaren azalpen egokia izatea. Haren itaun-erantzunak, Imanol Berriatuak euskaraturik, Zarautzen 1956. urtean argitaratutako liburuxka batetan daduzkagu: *Kristiñau Katezizmoa.*

— Eta, azkenik, gaur gaurkoa den beste Kristau Ikasbide bat. Gaurko munduan kristau izatea zertan datzan erakutsi nahi die umeei: *Isolottoko Katekima* (Bilbo, 1971).

Euskal Kristau Ikasbideen historia honetara sartzen da gaur *Holandako Kristau Ikasbide* hau. Gure herriko pertsona helduei kristau heldu izaten lagunduko dienaren itxaropenean.

Joxe M. Rementeria

Aurkibidea

ARGITALDARIAREN OHARRA ... IX
NOLA ERABIL LIBURU HAU ... XIV
EUSKAL «KRISTAU IKASBIDEEN» HISTORIA LABURRA ... XVII

KRISTAU BIDEA

Lehen zatia
Gizakiaren izatea: Misterioa ... 1

Gizakia bere buruari galdezka ... 3
Gizakiaren handitasuna eta mixeria ... 6
Munduaren eboluzioa ... 10
Ase ezineko egarria ... 14
Gure kontzientziaren deia ... 18
Mugagabearen deia ... 19
Gaitza munduan ... 20
Berak azaldu digun mezua ... 22

Bigarren zatia
Kristoganako bidea ... 27

A. Herrien bidea ... 29
Lehen erlijioak ... 29
Iraganeko zibilizazio nagusiak ... 30
Hinduismoa ... 32
Budismoa ... 33
Txinatar unibertsismoa ... 34
Islamismoa ... 35
Humanismoa eta marxismoa ... 36
Jainkoaren izpiritua mundu osoan ... 37
B. Israelen bidea ... 38
Jainkoak eginiko mirariak ... 39
Jainkoaren Hitza ... 42
Liburu Sainduak ... 49

Hirugarren zatia
Gizasemea ... 69

Argiaren aitor egin zuena ... 71
Jesusen jatorria ... 75

Bataioa eta tentaldia ... 95
Jainkoaren Erreinua ... 98
Ezagupideak ... 109
Jaunak otoitz egiten irakasten digu ... 116
Kristok, esaneko izanez, Aitaren nahia erakusten digu ... 126
Bere Eliza biltzen du Gantzutuak ... 139
Nor da Jesus hau? ... 147
Bazkoaruntz ... 158
Jerusalengo sarrera eta egonaldia ... 163
Azken afaria ... 165
Zintzoaren heriotza ... 172
Hildakoen erreinura jaitsia ... 177
Biztu naiz eta hona: zuekin nago ni oraino ... 179
Bazko jaia ... 187
Aita Jainkoaren eskuinaldean jarririk dagoena ... 192
Babeslea bidaliko dizuet ... 195

Laugarren zatia
Kristoren bidea ... 203

Eliza sor-berria ... 205
Elizaren historia ... 215
Predikuz dator fedea. Konbertsioa ... 239
Bataioa: ura eta hitza batera ... 244
Sakramenduak: Biziaren ezagugarri ... 256
Sendotza ... 261
Bekatuaren indarra ... 263
Birrerospena ... 275
Bizia oparo ukan dezatela ... 292
Fedea ... 295
Esperantza ... 303
Maitasuna ... 306
Kristauaren otoitza ... 311
Jaunaren eguna ... 327
Betiko bizitzako hitzak ... 329
Eukaristia ... 340
Jainko herriaren apaizgoa ... 355
Artzain apaizgoa ... 365
Bigarren agindua lehenaren antzeko da ... 380
Ezkontza eta Familia ... 391
Ebanjeliozko aholkuak ... 421
Eliza eta Estatua ... 428
Biziarekiko errespetua ... 432
Mundua eraikitzeko lana ... 438
Jabetza mundu honetan ... 442
Premian dena laguntzea ... 446
Elkarrekin bizitzeko atsegin hutsez ... 450
Egiaren bila ... 453
Kristauaren hutsegina. Bekatua ... 462
Barkapena ... 468

Bosgarren zatia
Bide bururaino ... 479

Azken jomuga ... 481
Jainkoa ... 503

«KRISTAU BIDEA»RI ERASKINA ... 519
HIZTEGIA ... 565
GAIEN AURKIBIDEA ... 577
AURKIBIDE XEHEA ... 587

Lehen zatia

Gizakiaren izatea: Misterioa

Gizakia bere buruari galdezka*

Kristautasunarekin lehenengoz topo egitean, zeintzu ote ziren gure herriko arbasoen* prolemak? Ez dakigu: kondairaren ilunpean aurkitzen da hori.

Hala eta guztiz ere, hau bai dela egia hutsa: erantzun, argi eta indar izan zen haientzat Jesusen mezua*.

Hauzi* hau argitzeko, bada kristautasunaren haserari buruzko kontakizun zahar bat germaniar herrietako batetan. VI. mendearen* azken aldean zen. Beneditar misiolariak bidali zituen Gregorio Handi Aita Sainduak Erromatik Ingalaterrara, Kristoren mezua bertan hotsegiteko* aginduz; inolako politik asmok horretara eragin gabe, ordea. Haietako bat, Paulino, Northumberland zokoraino heldu ahal izan zen, eta bertan agintean zegoen Edwin errege, oso uzkur* agertu zen haseran misiolarien dotrina berriarekiko*. Aldi batez, duda-mudan egon ondoren, ordea, jakintsuren batzar bat egitea erabaki zuen erregek. Aholkarietako* bat zutitu zen batzar honetan, eta horrela hitzegin: «Errege, zure handiki* eta menpekoekin mahainean jarrita zaudenean, bizi-bizi ari da sua sutegian, eta batzokia* bero dago; han, kanpoan, ordea, orroaka dabil nonahi hotza, euria eta elurra dakartzan neguko haizea. Bapatean, xoriño bat sartu da, eta batzokian jira-biraka hasi. Hemen dabil, ate batetik sartu eta bestetik irten. Babesean* sentitzen du bere burua barnean dagoen unetxoan; gure begietatik izkutatu* orduko, ordea, negu ilunera doa. Horixe gertatzen da —ene ustez— giza bizitzarekin ere. Lehen zer izan zen ez dakigu; ez eta gero datorrena ere ez dakigu. Dotrina berri honek horretaz segurantzaren bat ematen badu, merezi du berari jarrai gakizkion».

---

galdezka: itaunka. **arbaso:** gure aurreko. **mezua:** mensaje, message. **hauzi:** prolema. **mende:** gizaldi. **hotsegiteko:** iragartzeko. **uzkur:** zuhur. **berriarekiko:** berriaren aurrean. **aholkari:** kontseilu emaile. **handiki:** jauntxo. **batzokia:** bilkura lekua. **babes:** geriza. **izkutatu:** gorde.

Belaunaldi* bakoitza, gizaki bakoitza, behin eta berriz bere buruari galde* berdina egin beharrean aurkitzen da. Bizitzari etengabe galdezka ari den izakia dugu gizona.

Horregatik, geure izatearen esanahiari buruzko galdeaz hasten dugu liburu hau. Honek ez du esan nahi, kristaua ez den irizpidea* hartzen dugula hasera bertatik; bai, ordea, gu kristauok ere, geure buruari galdezka ari garenak garela. Behin eta berriz, geure izatearen galdekizunei* fedeak damaion erantzunaz jabetu nahi eta behar dugu.

Gauzak berenez* nabari* ez direnean 1

Haurra, gauzak bereizten hasi bezain laster, galde eta galde hasi ohi da. Lehenengo, hartzen dituen erantzunez lasai gelditzen dela dirudi; baina heldutasunera iristean lehenean darrai: galdezka. Eta orduan, ematen ahal zaion* erantzun ororen* gaineko galde baten aurrean aurkitzen da: Nor naiz ni? Zer da gizakia?

Zein da hegaztiño* hau? Hemen inguruan, egurats epel eta garbian hegaka* dabilen hau? Bai haseran eta bai bukaeran ezezaguna den bidera bultzatua izan den hegaztiño hau? Zein jobide du bizitza honek? Eta zein irtenbide mundu honek? Guk egun gure etxean, aitzinako germaniarrek oihanean* ezbezala egiten ditugu galde horik; ez ote da, halere, galde berbera?

Batzutan, baretasun alditan, gauzek beren egunoroko argitasuna galtzen dutenean, besterik gabe datorkigu horrelako galderik.

Gizakia biziki* bete dezake kezka horrek hamabi eta hogei urte bitartean, haurtzaroko kontzientziaren estalkia urratzean, eta bere burua eta mundua, lehenengo aldiz ikusiko balitu bezala, berri, zoragarri eta beldurgarri azaltzen zaizkionean.

Galdea ez da isiltzen, ez heltzaroan*, ez eta zahartzaroan ere; era berrian, behin eta berriz tankera berrian agertzen da. Esate baterako, ez diote erantzun berbera ematen bizitzaren esanahiari buruzko galdeari, harako aita gazte batek, haurrak han goian lotan dauden bitartean, egun osoko nekearen ondoren bere emaztearen ondoan atsedena hartzen ari denak; edo bestela, seme-alabek zapuztu egin duten eta, giza begiz ikusita, bere bizitza hutsegin duen beste aita horrek. Gauean

belaunaldi: gizaldi, jenerazio. **galde:** itaun. **irizpide:** kriterio. **galdekizun:** itaun. **berenez:** beren aldetik. **nabari:** ageri. **ematen ahal zaion:** eman lekiokeen. **ororen:** guztien. **hegaztiño:** hegaztitxo. **hegaka:** hegaldaka. **oihanean:** basoan. **biziki:** indar handiz. **heltzaro:** madurez, maturité.

berandu arte eztabaidan diharduen ikasleak, goiz izoztuaren isiltasunean autobusaren zain dagoen langileak ezbezala planteatzen du, noski, hauzi* hori. Emakumeak galde berbera egiten dio bere buruari: baina oinazetan ohean dagoenak era batera, eta eguzkitan etzanik kolorea hartzen ari denak oso bestela, jakina. Izakeraz, erlijio zalea denak, berez mundu honetako gauzetarako isuria* duenak ezbezala bilatzen du erantzuna; fedegabeak, fededunak ezbezala; bere barruak* agindu bezala bizitzen saiatzen denak batera, eta horrelako ahaleginik egin ez duenak bestera. XX. mendeko gizakiak, XIX. mendekoak ezbezala planteatzen du hauzia. Baina, hondo-hondoan, korapilo bat bera sortzen zaio gizakiari: askatzeko korapilo bat bera.

Halako hauzia aurkezten zaion hori ezin geldi daiteke axolagabe*; jokuan ipintzen duena, bere bizitzaren helburua* bera bait da, zoriona bera. Nora goaz? Egongela epel eta argian dabilen xoriñoak, nora jo* galdetzen dio bere buruari.

Ez ote da izango, ordea, alferrikako galdea? Astirik franko dutenentzat bakarrik? Izango ote da gero, amets zoro eta ustela, eta ez bizitzaren eskakizun* sendo eta egiazkoa? Bere eginkizunetan osorik eta zintzoki diharduenak*, bere lanari eta familiari emana bizi denak, badu, bai, beste zereginik* asko.

Egiten dugun eta ez dugun guztiak galde hori darama eta galde horrekiko erantzuna 2

Gure lanak, gure familiak, gure ihardun guztiak, atsegin nahiz neketsu, galdea darama bere baitan. Hain zabala eta hain sakona* da, non* geure eskuz eta geure bihotzez ere aurrean ezartzen bait dugu. Isilaldietan izan ohi ditugun gogoetak* ezezik, gure ihardunketa guztia da geure izateari* zuzenduriko galde isil, zorrotz eta etengabea. Bizitza hau zoriontsua izan dadila opa* dugu, zentzuren bat ukan dezala, bere zentzua ager diezagula egiaz.

Halere, gure egunoroko lanaren haria eta gure familia barruko bizitza, ez dira izateari etengabean eginiko galde huts. Erantzun ere badira. Gure esku hauei, gure maitasun honi, erantzun bat darie*. Amaituriko lana, osasuna, seme-alaba maiteak: hori guztia, geure bizitzari eskatzen diogun zentzu betea da. Zoriona, berez, zentzu osoa, betea, duen zerbait dugu.

---

hauzi: prolema. **isuria:** joera. **barruak:** barneak. **axolagabe:** kezkarik gabe. **helburua:** xedea. **jo:** abiatu. **eskakizun:** eskabide, exigencia, exigence. **diharduenak:** arj denak. **zereginik:** egitekorik. **sakona:** barna. **hain ... non:** tanto ... que. **gogoeta:** pentsamendu. **izateari:** esistentziari. **opa:** nahi. **darie:** ateratzen zaie.

Gizakiaren handitasuna eta mixeria

Geldi gaitezen apur bat, lur honetako gure bizitza hitz gutxitan emateko. Bizitzari funtsezko* zaizkion lau elementu aztertuko ditugu: 1. besterekin bizi gara; 2. munduan bizi gara; 3. munduaren zatitxo bat gara; 4. baina, askatasunez eta izpirituz horniturik* gaude. Lau osakai* hauk dira, batera, gure zorionaren zimentarriak.

Besterekin bizi gara 3

Ez gara bizi bata besteagandik aparte, baturik baizik. Egia gutxi da gure izatean hain sakon eta irmo* finkatua* denik. Lagunik gabe ezin bizi gintezke; gizaki bakar batek ezin lezake, ez pentsa, ez hitzegin, ez eta maita; oraindik areago, ezin daiteke sortua izan ere. Elkarren premia dugu; elkar maite dugu. Haurtxoak ez du ama, bera zaindu dezan bakarrik. Hau makinaren batez egingo da beharbada, egunen batean. Haurtxoak ezin utz alde batera bere ama, ama duenez. Gizarte osoa, adiskidetasunez, usteonez (maila guztietan: agintariari, taxistari, maisuari, kazetariari* dagokionez) eta maitasunez egindako ehodura* da. Elkarrekin bizitze hori, gure bizitzaren eta gure zorionaren zentzuaz sortzen zaigun galdeari buruzko erantzun handia da. Maitasuna eta elkar-bizitza, bizitzaren betea dira. Bulegoan* emandako egun luze eta osoak, baliteke, pertsona batengan helburu* hau besterik ez ukaitea*: arratsean bere emazte eta seme-alabekin etxean egotea; maite dituen horiekin bizitzea.

Munduan bizi gara 4

Horrelaxe doa gure bizitza, besterekin biziz. Baina, mundu honetako gauza, landare eta abereekin ere, bizi gara bizi. Geure lehen garratsiatik lur honekin harremanetan* jarri ginen, era askotan: ukituz, helduz*, xurgatuz*, jostatuz, aldatuz, landuz, eraikiz*, kalkulatuz, pentsatuz, miretsiz. Izan ere, gizakiak, bere bizitza bete, mundua aldatuz eta eraberrituz betetzen du (bai ontzi garbitzaileak, eta bai espaziorako koheteak* egiten dituenak). Ez da zentzurik gabeko bizitza. Eginkizun alaia da: senarrak bere emazteari bizitzekoa, etxea, eskuratzea, eta emazteak, bere aldetik, senarrari bizi-txoko beroa. Biek, elkarrekin, sehaska bat antolatzen dute: haurtxoarentzat leku seguru eta gozo. Seme-alaben bizileku, mundu berri bat taxutzen* dute bien artean.

---

funtsezko: oinarrizko. **horniturik:** jabeturik. **osakai:** elementu. **irmo:** gogor. **finkatua:** sustraitua. **kazetaria:** egunerokoan idazten duena. **ehodura:** sarea. **bulegoan:** ofizinan. **helburu:** xede. **ukaitea:** izatea (trans.). **harreman:** hartueman, erlazio. **helduz:** oratuz. **xurgatuz:** aprobetxatuz. **eraikiz:** jasoz. **koheteak:** fusées. **taxutzen:** eratzen, moldatzen.

Eta ez gauza txikietan bakarrik; herri mailan eta gizadi mailan ere, mundua bizileku gizatar egiten saiatzen gara, geure lanaz «eskumenpean jarri» nahiz. Horrela, mundu materiala ezezik, geure burua ere, gora daramagu. Geure lanari esker, hazi eta gizon egiten gara.

Munduaren zatitxo bat gara 5

Geure bizitzako hirugarren elementua, hauxe dugu: geurok ere, mundu material honen zati garela. Izan ere, inguratzen gaituen lur honen materia berberaz moldatuak* gaude. Hain barne-muineraino gara mundu honen zati, non*, mundu honen materiarik gabe, gure buruko zelulen prozesorik gabe, ez bait genuke izango pentsamendu bat ere, ez eta erabakirik hartzerik ere. Eta hori da gu makur arazteko eta txikiagotzeko. Horrelaxe gara, eta hori da, hain zuzen, gure handitasuna.

Askatasun gora* 6

Gure izatearen laugarren osakaia, gizakia bere gorputza baino gehiago izatean datza. Abere batek, bere usaimen eta ikusmenari esker, badu, dudarik gabe, inguratzen duten gauza eta izakien berri, baina ez da bere baitara bihurtzeko lain*. Horregatik, ezin kontura daiteke izan badenik. Haren erreazioak, seinale eta eragingarriei* lotuak daude. Ez du askatasunik. Gu ere, zentzumenezko eragingarri eta sustagarriz* mugiturik gabiltza; nor bere pentsamenduaz ere jabe daiteke, pentsamendu hori gogoetagai* egiten duelarik. Halakoa da gure «nerau»aren misterio bikain hau. Honetxek adiarazten digu geure buruaren jabe garela. Ez gaude erabat* eragingarri eta oharkabeko reflexoen menpean, abereak bezala; baizik eta, gauzekin aurrez-aurre jar gintezke nahi dugun bakoitzean. Munduaren zati gara, baina pentsatzaile eta bihozbera ere bai; haziz doan askatasunez horniturik, onera jotzeko gauza*: hori guztia ere, gure izatea betetzen duen gauza da, gure bizitzari zentzu bat ematen diona.

Gizakiaren* mixeria 7

Gure izatearen zehaztapen hori ez litzateke gauza serio eta egiazkoa izango, orain arte esandakoarekin geldituko bagina; gure zorionaren eta handitasunaren zimentarriak ere, mixeriaz barrenduak* bait daude.

---

moldatuak: eratuak. **hain ... non:** tan ... que. **gora:** creciente. **lain:** aina. **eragingarri:** estimulu. **sustagarriz:** ezitazioz. **gogoetagai:** pentsagai. **erabat:** arras: **gauza:** gai. **gizaki:** gizon eta emakume, guztiak. **zehaztapen:** adiarazketa. **barrenduak:** beteak.

Has gaitezen elkar-bizitzaz. Elkarri bizitza goza geniezaioke, baina baita mikaztu* ere. Eta bai garratza dela elkarrekiko usteonak huts egitea, erruz nahiz errugabe (nagusiaren aldetik, txoferraren edo senarraren aldetik)! Eta bai galtzen dela norberaren jatortasunik inorekin bizitze hutsaz! Urrezko ezteiak ospatzen zituen apaiz adiskide bati portu langile batek, behin batez, idazten zion bezala: «Gizaki gehienak norberaren nortasunez jaiotzen dira, eta gero inoren irudi izanez bukatu».

Eta maitasun gozoa, bai erraz bihurtzen dela grina, basakeria bilakatuz*! Andra-gizonek bizitza guztirako egiten duten elkargoa* ere, ez da halabehar honetatik kanpo gelditzen. Norainoko ezin-aditua, nolako etsimendua*, zein zauri sakonak sor daitezkeen elkarren artean; hain zuzen ere, bata besteagandik hain hurbil daudelako! Orobat* esan behar da guraso eta seme-alabez, bata besteagandik hain hurbil* daudelako. Senar-emazte gazte askok, haseran, erantzun argi eta garbirik eman zion bizitzari buruzko galdeari. Motz iraun zuen, ordea, erantzun harek.

Berez gozotasun iturri den lanaz ere, horixe bera gertatzen da munduan. Gizakia heldutasunera* eraman ohi du lanak; mugatu ere egiten du, ordea. Eta zein gogor, aspergarri eta zapaltzaile gerta daitekeen! Gizonaren gorputza bera ere, pertsona osoaren distira izanik, paregabeko grinaren jostailu izatera etor daiteke! Eta zein laster narriotzen* den! Eta nor, oinazea ikusi edo sumatzen duelarik, mintza daiteke oraino gorputzaren aintzaz? Eta horren hurrena, nekea!

Gizakiaren koroa izan, eta gizakia abere mailatik jasotzen duten haik ere, kontzientzia eta askatasuna alegia, zein ahalge*, zein ilun, zein kateaturik dauden guregan! Jakin, zer ote dakigu? Zenbateraino ote gara «eskuko*» geure oldarretan*? Eta okerrago dena, nola egin ote genezake jakinaren gainean eta ohartuki* geure ezaguerarik sakonenak, geure nahimenik hondokoenak galerazten dutena: nagikeria, gaiztakeria nerekoikeria*, errua? Zoriontasunaz egiten dugun galdeari bizitzak mila bider* *bai* erantzun arren, hor tartean *oraindik ez* eta *ez* hutsa ere entzuten da. Sekula ez dugu iristen gure egarrien betiko asetzea!

Gauza orok bere sasoia du 8

Bada, ordea, atsekabe sakonagorik ere. Hain zuzen, bizitzak baietz erantzuten digunean, orduantxe jabetzen da hura gutaz: lanak gizakia eta mundua egiaz gizatartzen* dituenean, maitasuna betea eta ona denean alegia. Benetan on denak,

mikaztu: garraztu. **bilakatuz:** bihurtuz. **elkargoa:** elkartea, bikotea. **etsimendu:** resignación, résignation. **orobat:** berdin. **hurbil:** gertu. **heldutasunera:** gizon heldua izatera. **narriotzen:** alferrik galtzen. **ahalge:** indarrik gabe. **eskuko:** autonomu. **oldar:** grina. **ohartuki:** konturatuz. **nerekoikeria:** nire egoismoa. **bider:** aldiz. **gizatartzen:** gizatar bihurtzen.

irautea eskatzen du. Ezerk ez du, ordea, irauten mundu honetan. Gauza bikainen bat egia bihurtzen denean, hain zuzen, badaki gizonak, hori ere igaro* egingo dela. Testamentu Zaharreko Kohelet liburuaren idazleak (*35*) sakonki esperimentatu zuen bere baitan egia hori, bere zorionik garaienean* hain zuzen, eta idatzirik utzi:

> Zernahik du bere sasoia,
> eta garai bat eman da zerupean edozer egiteko:
> Garai bat jaiotzeko, eta garai bat hiltzeko;
> garai bat landareak aldatzeko,
> eta garai bat landareak ateratzeko;
> garai bat hilarazteko
> eta garai bat sendatzeko;
> garai bat porrokatzeko
> eta garai bat eraikitzeko*.
> Garai bat negar egiteko,
> eta garai bat barra egiteko;
> garai bat triste egoteko,
> eta garai bat dantza egiteko.
> Garai bat harriak botatzeko,
> eta garai bat harria biltzeko;
> garai bat laztantzeko,
> eta garai bat laztanak uzteko.
> Garai bat bilatzeko,
> eta garai bat galtzeko;
> garai bat gordetzeko,
> eta garai bat jaurtikitzeko*.
> Garai bat urratzeko,
> eta garai bat josteko;
> garai bat isiltzeko,
> eta garai bat hitz egiteko.
> Garai bat maitatzeko,
> eta garai bat gorrotatzeko;
> garai bat gerrarako,
> eta garai bat bakerako.»
>
> (Koh 3,1-8)

Gure lanaren fruituak irauten du, bai; hilko ez diren artegintzak utz diezaizkioke gizakiak geroari, bai; gure jakiteak eta maitasunak seme-alaba eta ilobetan irauten dute, geroari irekia dagoen gizadian, bai. Halere, guzti honek eman ote diezaioke hilkor den gizakiari, bere bizitzak norako bat duelako esperantzarik? Haren kontzientzia, haren «nerau»a lurretik izkutatu egiten dira. Ikusteko dagoen bere bizitzaren amaiak* ba ote du, haren begietan, behar hainbat zentzu, haren lehengo ahaleginekin, egindako onarekin eta jasan* dituen bidegabekeriekin alderatuta*? Mugarik gabeko ametsak zituen «nerau» paregabe horrek, heriotze orduan hondatua dadinean, betea ote duke* guztiz bere izatearen zentzua?

Testamentu Zaharreko fededunak, galde horren erantzun bila saiatu ziren. Heriotzaz haruntzagokoaz ezer gutxi bide zekiten. Lur honetako izateari zentzuren bat zor zitzaion,

---

Igaro: iragan, pasatu. **garaienean:** handienean. **eraiki:** edificar. **jaurtiki:** bota. **amaiak:** bukaerak. **jasan:** sufritu. **alderatuta:** gonbaratuta. **duke:** du agian.

nahitaez. Eta zentzu hori, norberaren bizitza zoriontsuan eta ondorengo ugarian ikusi ohi zuten Hala ere, Itun Zaharrak ez zuen prolema hori erabat argitu ahal izan. Kohelet delako liburu osoa lekuko:

> Beraz, bat eta berdina da gizakumearen eta aberearen zortea.
>
> Hil egiten da bata, eta bestea ere bai. Arnasa berdina dute biok; eta gizona ez da ezertan aberea baino handiago. Hutsa da dena! Toki berdinera doaz biak. Hautsetatik datoz biak, eta hautsetara bihurtzen dira. Nork daki gizakumearen arnasa gora igotzen denik, eta abereen arnasa behera jaisten denik? (Koh 3,19-21).

Munduaren eboluzioa

Jarrai gakizkion geure azterketari. Zenbaitetan gauza baten esanahia berorren jatorriraino joz lortu ohi dugu. Nola hasi ote zen? Haren izateko zergatiaren eta zertarakoaren arrazoina argi dezake honek.

Nire jatorria* 9

Nola hasi ote zen nire bizitza? Nondik ote dator? Nire gurasoengandik. Urtetik urtera jakintsuak hobeto ezagutzen ari dira ernalbide* eta odoletiko jatorri eta ondoreak. Baina, oraino ezin genezake aldez aurretik esan, ez benetan jaiotzerik izango den ala ez, ez eta jaioko dena neskatoa ala mutikoa izango den; are gutxiago aurrez esan, haurtxoaren ariurria* nolakoa izango den. Baina, gai hauetan aurreratuz joango dela pentsa genezake. Hala eta guztiz, izaki berri baten jaiotzea, maitasun eta pentsamenduaren iturri berri baten sortzea, ez da guraso eta jakintsuen esku dagoen gauza. Gizaki berri bat, ezin berrituzko* zerbait da, erabat ezin adituzkoa*. Ni naizen guztia, ezin muga daiteke mikroskopioan iker genezakeen zelula sail batetara bakarrik. Gizaki berri bat sortzen den bakoitzean, pertsona berri batengana eramaten duen saltoa gertatzen da, ordurarte inola ere ez zen «nerau» baten jatorri eta hasera absolutua gertatzen dira.

Eta erabateko* hasera hau, jatorri hau, berez ilunpean bildua dago. Halere, hazi egiten da umea. Alde bati baino gehiagori datxekonez*, haren eboluzioak ez du beheraka egiten, goraka baizik. Halako gertaera moduak, beharbada, argibide bat ematen digu izatearen zentzuaz. Argitasun hau ez

---

jatorria: sortzea. **ernalbide:** generazio prozesoa. **ariurria:** izakera. **ezin berrituzko:** berriz egin ezineko. **ezin adituzko:** konpreni ezineko. **erabateko:** absolutu. **datxekonez:** dagokionez.

da, ordea, dudagabea eta garbia; izan ere, bestetik, zahartzen dena, alde askori begiratuta, beheraka daraman eboluzioari jarraitzen zaiola egia bait da.

Gure jatorria 10

Baina gizaki bakoitzaren jatorriak erantzunik ematen ez badu, *gizadia*-ren jatorriak emango ote du? Goazen iraganera, geure iraganera.

Gure gurasoak. Gure aiton-amonak. Zenbat eta atzerago, hainbat eta iluntzenago. Izen bat soilik, gertakizun bakar bat. Hala eta guztiz ere, laster asko —jenderik gehienentzat XIX. mendearen haseran— ilunpe osoa. Sendi «zahar» batzu Erdi Aroraino* igoko dira beren aurrekoetan; ez, ordea, haruntzago*. Gure herriaren kondaira, oro har, kondairaren argi-urratzean errotzen* da; orduan etorri edo gure lurrean bizi ziren leinuen* jatorria, ordea, behingoan* galtzen da ilunpean. Indiatik datozen eta Europako herri batzuen arteko halako hizkuntzazko ahaidetasun* batek nola-halako helpide bat seinalatzen du iraganaren gauean. Munduko leku batzuetan goraxeago doa kondaira: Ekialde Hurbilean*, Txinan; inon ez, ordea, bost mila urte baino gorago.

Oraindik gibelago*, badaiteke harkaitz margoturen* batzu aurkitzea, ernalduraren* iruditxoren bat, kanpamenturen baten su hondarrak*, lurpean izkutaturik. Azkenik, giza gorputz hondar gutxi batzu bakarrik, eta horietatik gatoz.

Eboluzioa 11

Guzti honek ez ote du erantzunen bat ematen? Zerbait esaten digu. Buru hezur eta gorputz hezurrak aurkitzeak lehen inork ez zekien gauza bat jarri digu argi eta garbi: zenbat eta sakonago iraganean murgildu*, hainbat eta lehenagoko eta eragabeagoko tankera nabari zaiola gizakiari.

Neanderthal gizakia, bekoki eta okotz sartuez, ezagutzen du jakintzak, *homo sapiens* (gaurko gizakia) baino lehen. Hura baino lehen —200.000 urtetaraino doa aro hau—, *anthropus* era batzu, aurpegi zoko oso hetsiarekin*, baina jadanik* tente dabiltzenak. Anthropus haiek harrizko tresna latzak erabiltzen zituzten; ihizean* egiten zuten, nola ez badakigu ere. Hirurehun mila urte atzerago jotzen badugu —hots, gure aroa baino miloi erdi bat urte atzerago— oraino lehenagoko eta itxuragabeagoko tankera bat, *australopithecus*-a, tximino antzekoa, gizonagandik gaurko tximinoak baino hurrenagokoa, ordea, nabari daiteke.

Erdi Aro: Edad Media; Moyen Age. **haruntzago:** haratago. **errotzen:** sustraitzen. **leinu:** linaje. **behingoan:** berehala. **ahaidetasun:** antzekotasun. **helpide:** dirección, adresse. **Ekialde Hurbila:** Próximo Oriente. **gibelago:** atzerago. **margoturen:** koloreturen. **ernaldura:** ernal prozesoa. **hondarrak:** resto, rest. **murgildu:** sartu. **hertsia:** hestua. **jadanik:** ordurako. **ihizean:** ehizean.

Horrela, bada, ia guztia bada-ezpadakoa* da: urteak eta aroak eta aldi* desberdinen arteko loturak. Hala eta guztiz ere, biziki ohartzen den arrasto bat agertzen da gero eta garbiago: oihanetan eta zelaietan bizi den abere mota bat doa goraka, eboluzio luzakorrean* gu-ganaino.

Nire baitan pilpiraka* ari den bizitza, beraz, abereagandik dator. Oso harrigarri zitzaion hau beste garai batez jendeari; eta, ez, beharbada, hainbeste, gauza desegokia zirudiolako; izan ere, Liburu Sainduek, askoz hutsago den zerbaitetik etor arazten dute, bai, gizakia: hautsetik alegia. Bibliak zioenarekin* zuen aldea izan zen, batez ere, harridura honen zergatia*. Garai haietan, gehiegi hartzen zen Biblia historia naturaleko liburu bat bezala.

Gaurregun, galdu egin da eragozpen hori, Liburu Sainduen adiarazpen* hobe bati esker. Lurrean egindako aurkikuntzak* ugaritzen ari dira gainera; gero eta hobeto ohartzen gara eboluzio ikusgarri eta handiaz: emeki-emeki* zuzenduz doa bizkar hezurra, neurriz eta mamiz handituz doa buru hezurrra, gizon bihurtu arte goraka doa aberea.

Guzti honek erantzun antzeko batetara jotzen duela dirudi. Helpide bat du bizitzak; dena dela, badu norako bat. Hau, ordea, ez da erantzun garbia. Gizadiaren jatorria gure oharpen mugetatik kanpora gelditzen da. Noiztik ote dugu gizakia? *Australopithecus* delakoa jadanik gutako bat ote zen? *Anthropopithecus* delakoa ote?

Jakina, gizadiak, egunen batetan, lehen gizakiren batzutan izaten hasi beharko zuen. Aldaketa, azalako begi-emate* baten aurrean, mailaka bezala gertatzen dela badirudi ere, gizontzeak* abereari datxekon ezbezalako izate modu arras* berri bat adiarazten digu: horregatik, nahitanahiez izan behar zuen une berezi bat, izaki bizidun batzu, *zerbait* izateari utzi eta *norbait* izaten hasi zirenekoa (*316*). Hasera hau izkutatu egin da betirako kondairaren ilunpean.

Munduaren eboluzioa 12

Gizakiaren historia baino lehen, beste bat, askoz luzeagoa, badela diosku* jakintzak: biziarena. Guretzat irisgaitz* den arora eramaten gaitu kondaira honek: ur, aire eta harrizko bola hoztu honen lekuren batetan, gaur oraindik ere materia bizidun guztien zelulen osagarri* den karbono konbinazioa sortu zenekora. Materia bizi hau, aldiaren joan-etorrian, oso urrutiratzen delarik ere, oso gaztea da, materia bizigabearekin alderatzeko; izan ere, bizia baino lehenagotik, irudika* ezinbesteko garai luzean galtzen bait da materia bizigabea,

bada-ezpadako: dudazko.. **aldi:** época. **luzakor:** geldi. **pilpiraka:** palpitando. **zioenarekin:** esaten zuenarekin. **zergatia:** arrazoina. **adiarazpen:** interpretazio. **aurkikuntza:** descubrimiento, recherche. **emeki-emeki:** polliki-polliki. **begi emate:** begirada. **gizontze:** hominización, hominisation. **arras:** oso, erabat. **diosku:** esaten digu. **irisgaitz:** ezagun ezineko. **osagarri:** elementu. **irudika:** irudikatu, irudimenera ekarri.

oraino mugarik aurkitu ez zaion unibertsoan galaxiak barreiatu* zireneko garaian alegia. Nondik ote dator materia? Zerbaitetik ba ote dator gero?

Guzti hau izan izateak eta haziz joateak, zer esan nahi ote du? Biziaren haztean zerikusi ikaragarria dute halabeharrak* eta berezketak*. Baina, esplikaziorik ba ote damaigute? Zein halabehar ote dugu, gero eta zoragarriago, etengabe goraka doan hori: izan, bizi, senti, pentsa? Zer esan nahi ote du horrek? Zentzuren bat ezagun ote genezake horretan?

Bestetik, ordea, bizi gorakari* honetan gizaki eta aberearen oinaze eta samina azaltzen direla ikus genezake, beldurra, murriztea* eta ahultzea. Bizkar hezurra zuzenduz eta buru hezurra handituz doazkion izaki saila ederra izanik ere, halako batetan eskeleto baten bizkar hezur eta kaskezur bilakatzen dira; eta gero eta ederrago den begizuloan ez da begirik begiratzeko. Zergatik hasi ote zen nire bizia? Xori «gizonak» ilunpetik ilunpera egiten ote du hegaka? Iraganak ez digu horretaz erantzun garbirik ematen. Emango ote digu agian geroak?

Gizakiaren geroa 13

Kondairaren bideari arretaz begiratzen badiogu, goraka doan eboluzioak berean jarraitzen duela dirudi. Gure arbasoek zekitena edo jakin beharrezko zutena baino askoz gehiago erakusten diegu gaur geure seme-alabei. Izurritearen* arriskua izkutatu egin da lurralde askotatik. Itxuraz ezin sendatuzko ziren gaitzak garaitu egin ditu midizinak. Lur honetako «astalarre eta arantzetara», neke eta bekokiko izerdi gutxiagoz makurtzen gara. Gero eta astirik handiagoa dugu, joan-etorritarako aukera gehiago, harreman gehiago. Izarrak hatzaparrez harrapatzeko gertu* gabiltzela dirudi...

Duela berrehun urte oraindik ziren gizonak bezain basati ere ez gara gu. Lehen, etsai eta hiltzaileei ematen zitzaien zigorrik ere (itsutzea, guztien aurrean hiltzea, oinaze-astoa), gaurregun ez da ezagutzen. Buruan ezin sarturiko gauzak zaizkigu zigor horik. Abereenganako urriki* handiagoa dugu orain, lehen gizonek elkarrekin zuten baino. Aurrerapen hau, ezin porrokatuzko* itxaropenez betea dago. Ume jaioberri batek itxaropen bizi berri bat darama bere baitan. Gerrate bakoitzaren ondorên, umerik izan da, hondakinetan* jostaketan ibiltzeko. Gure planetari begirada bat ematen badiogu, badi-

barreiatu: sakabanatu. **halabeharrak:** kasualitateak. **berezketak:** selekzioak, hautabideak. **gorakari:** goraka doan. **murrizte:** mozte, laburtze. **izurrite:** plaga, plage. **gertu:** prest. **urriki:** erruki. **porrokatuzko:** deseginezko. **hondakin:** ruina, ruine.

rudi, elkartasun aro berri baten aurrean garela: guztien ahaleginak bateratuz mundua bere gain hartzeko prest dagoen aro baten aurrean.

Halere, hainbat mendetako aurrerapen eta gizatartze* eta guzti, munduko herrialde zibilizatuenetan hain zuzen, historian barna inoiz ezbezalako jenderiaren hilketak gertatu dira. Eta heriotza atzeratzeko bideak asmatu ditugula egia bada ere, hiltzeko bideek ere aurrera egin dute neurri berean. Gure planetaren mugetatik harago* bidaltzen ditugu koheteak; baina planeta hau bera desegin lezakeenik ere egiten dugu. Bada-ezpadakoa da geroa.

Nirea ere bai. Ona ala gaiztoa izango ote naiz? Eta nire seme-alabak? Zer nolako joerak eramango ote ditu? Eta gero, berriz, heriotzaren ziurtasuna azaltzen da. Irrika* guztien arantza garratza da. Gizadiaren geroa zoriontsuagoa izango balitz ere, eta adiskidetasun eta askatasun erreinurik onena sortuko balitz ere, gizaki bakoitzak bakarka igaro beharreko heriotz ate iluna izanen luke zain: munduko erreinu hau dohatsuagoa* eta gizadia gizatarragoa, eta hainbatez oinaze handiagoz igaro beharko luke heriotz atea.

Bizitza oraindik oso luzeagotzeko, zientziak, egunen batetan, zerbait asmatuko balu ere, mundu honetan, beti eta une bakoitzean, edozer gauza gerta liteke. Ez gure bizitzaren, ez eta gure zorionaren segurantzarik ez dugu. Bizitzaren norakoa bada-ezpadakoa da.

Gizadiaren historia osoa —oraina, iragana eta geroa—, munduaren eboluzio guztia, bere oinaze eta larritasun, bere poz eta maitasun eta hondakin* guztiekin, zentzurik gabeko jolas* huts bat ote da beraz? Egun batetan hasi eta bestetan bukatu beharreko asmo zoro bat ote da, ala ez jatorririk* ez eta amairik ez lukeen kosmos baten harrotze-kizkurtze* mugimendu etengabea ote? Munduko ezerk ez dio erantzunik eman gure galdeari.

Ase ezineko egarria

Ba ote da ezer ase nazakeenik? 14

Baina, gure bizitza horrela bada, nola ez gara ohitzen? Nola ote gabiltza bizitzan zehar, aurkitzen dugun guztiaren gain dagoen zerbaiten bila? Nola botatzen ote ditugu bazterrera erantzun guztiak, egoki eta betegarri ez ditugulakoan?

gizatartze: gizonago izate. **harago:** haratago. **irrika:** nahi bizia. **dohatsuago:** zoriontsuago. **hondakin:** hondamendi, erauskin. **jolas:** josteta. **jatorririk:** haserarik. **harrotze-kizkurtze:** hedaketa-bilketa.

Lausorik* gabeko zoriona, maitasun iraunkorra, erabateko ziurtasuna* nahi du gure bihotzak. Egarri hau ez da benetan inoiz êre asetzen. Halere, geuregan dugu gure ekintza orotan. Berak determinatzen du erabat gure egunoroko bizitza.

Egunoroko eginkizunaren minuturik arruntena* ase gabeko desiraz beteta dago. Esate baterako (emakumeaz ari gara, jakina): Garbiketan ari naiz. Zera pentsatzen dut: hamar t'erdietan kafe bat hartu eta atseden hartuko dut. Hamar t'erdiak dira. Jarri eta arnasa hartzen dut. Guztiz patxadan nago, lasaitu naiz. Batere irrikarik gabe ote nago? Berehalaxe zera pentsatzen dut: Penagarria benetan, urlia nahiz sandia* ez etortzea, ihardunalditxo bat egiteko! Edo: lanari ekin behar diot. Laster dut, ordea, guztia zabaldua. Eta orduan hau datorkit burura: eguzkia irtengo balitz, laster litzateke guztia lehorturik! Edo honela pentsatzen dut: Egun* saio polit bat dago telebistan. Edo: Ez ote legoke erremediorik Joanek eskuetan dituen garatxoentzat*? Eta horrela eten gabe. Sekula ere ez diogu uzten irrikatzeari.

Ez ote da, horrez gero, unetxo bat ere guztiz asea naizenik? Baietz ematen du batzutan: oso-osorik gauza **batera** isurtzen* naizenean eta gero haretaz goza dezakedanean. Esate baterako, biziki egarri naiz estepan edo basamortuan. Gero eta egarri biziagoa. Ura eskatzen du nire gorputz osoak. garrasi batez. Orduan, «guztia» da niretzat ur. Azkenean, oasis batetan aurkitzen dut ur hori. Muturrez aurrera etzanik, edaten dut, eta une batez guztiz aserik nagoela dirudi, guztiz baketan. Berehalaxe, alabaina, beste desira batek zirikatzen nau. Oinak ditut minez. Bakarrik nago.

Ezin daiteke gauzetan *ezer*, nire «guztia» izan.

Baina, beharbada, *norbait* izan daiteke nire «guztia».

Guztiz bata bestearentzat izan, senar-emazte bezala; bata besteagan hustu eta zeure duzun eta bere zaituena beste inor ez opa izan.

Hori ote garaiago* ezina, geure irrikaren asekuntza*? Orduan ere, tarteka, Claudel-en antzerki batetan emakumeak bere andrazko zoragarritasunaz dioena datorkizu burura: «Beste bat ezineko agintza* naiz; horretan datza nire zoragarritasuna». Eta horrela, alde batetik eta bestetik, ametsak joan, eta ondoren gogoa galdu eta barnea beheratu eta kikildu egiten zaigu.

Alabaina, ustel atera diren ametsen zorigaitza baino harrigarriago, bata besteagan osaturik ikusteak ematen duen poza da. Poz betea ukan, êta, halaz guztiz, eta hain zuzen horretxegatik, esperientzia horrek areago bat eskatzen du. Zo-

lausorik: lainorik. **ziurtasuna:** segurtasuna. **arruntena:** normalena. **urlia nahiz sandia:** hau nahiz hura. **egun:** gaur. **garatxo:** berruga, verrue. **isurtzen:** lotzen. **garaiago:** handiago. **asekuntza:** betetzea. **agintza:** agintzaria.

rion sakon batek zorarazten gaituenean, badirudi, denbora berean gure baitan beste alderdi bat dardarazten duela; horrelako zerbait halabehar hutsez sentitzeko, ederregia dela sumatzen duzu. Halako gauza bikainak ez ote du eskatzen beste gauzaren bat arras seguru, on eta iraunkor litzatekeenik? Bikote gazte batek honela dihardu galdezka: «Nori zor ote diogu geure lehen maitasun hura, ezin ahaztuzko hura, maitemin bihurtzea? Uste genuen, geuk ematen geniola elkarri maitasuna; baina, batzutan, elkarri emanak garela uste izan beharrean gertatzen gara: ez da halabeharraren fruitu guk elkar maite izate hori, eta bai nahi izandako gauza. Nork nahi izanik?».

Halako unetan, badirudi, bizitzaren norakoak dagigun* galdeak berak, bere baitan daramala baiezko oihartzun bat: «Bai, bizitzak badu norako bat, asetzeko egina dago gure gogoa. Lur gaineko garaiena* baino garaigoa den zerbait dugu euskarri, lurreko maitatuena baino maitagarriago den zerbait». Gure mugak baino haruntzago*, gure bihotzarentzat, azkengabeko zerbait dagoelako susmoa da. Mila eratara adierazi du hori gizadiak. Horrela, ahalgetasunaz* eta, aldi berean, pertsonen arteko elkartasunaren esan-ezineko sakontasunaz ari zaigun poema honetan:

Inoiz, isiltzen haizenean
eta leihotik begira jartzen,
hire ederrez txorarazten nauk,
nerau bezain etsipen handiz,
nerau bezain etsipen zaharrez.
Ez da orduan atseginik,
hartatik libra nazakeenik,
ez eta musu bat ere,
ez eta hitz bat bakarrik.
Hi ikustera behartua egote honek
hiregandik bereizteko*, soilki, nere begiak izanik;
ene ondoan hi sumatze honek,
baina enegandik urrun haizelarik, ni gabe jaioa haizelarik,
erdiminez* urratzen zizkidak erraiak.
Isilik, leihotik begiratzen duk.
Haizeak, tarteka, ilea astintzen dik:
ur baretan, kainaberak bezala,
hire bekoki gainean emana.
Inoiz, hodei bat txirristatzen duk zeruan,
eta haren errainua dakusaat* hire aurpegian.
Orduan, betiraunea* haizela iruditzen zaidak,
eta une batez bakarrik bizi naitekeela hire ondoan,
neure aldikortasuna* bide dela.
Orduan aurpegia ematen didak,
eta hire irribarra ikusterat eman...

M. Vasalis,
XX. mendeko Holandako
olerkari emakumea.

---

dagigun: egiten dugun. **garaiena:** handiena. **haruntzago:** haratago. **ahalgetasunaz:** lotsaz. **bereizteko:** aldentzeko. **erdiminez:** haurgintza minez. **dakusaat:** ikusten haut. **betiraunea:** betikotasuna. **aldikortasun:** temporalidad, temporalidaté.

Bere emazte zenaz oroitzen den gizonaren gogoetek arras bestela jotzen dute. «Guztitara ere —aitortzen du—, ontasun bat ekarri dit ezkontzak: ezin sinetsi dut jadanik erlijioa gure irrika asegabe eta oharkabeetatik* datorrenik, ez eta sexu senaren* ordezko bat denik. Urte gutxi hauetan, harek eta nik, besta batetaz bezala, tankera eta era guztietara, gozatu dugu maitasunaz: jai ageri eta nagusietan eta gure harreman isiletan, ametsetan eta egiazki, batzutan ekaitz baten bizitasunez, beste batzutan patxadan eta suhartasunik* gabe, zapatatxo batzu jazten dituenaren antzera. Ez gure bihotzeko, ez eta gure gorputzeko zokorik, ez zen ase gabe gelditu. Jainkoa maitasunaren ordeko izango balitz, Harenganako interes guztia galdu eginen genuke. Nor kezka ote daiteke ordekoaz*, gauza berberaren jabe denean? Ez zen, ordea, horrela gertatu. Bagenekien biok, geuregandik kanpo, zerbait gehiagoren beharra genuela, premia guztiz diferente bati erantzuten zion beste zerbait oso diferente behar genuela. Maiteminduek, elkarren jabe diren bitartean, ez irakurri, ez jan, ez eta... arnasa hartzeko premiarik ere ez dutela sentitzen esan daiteke» (N. W. Clerk).

Sakontasun hau, mundua baino sakonago hau, kontzentrazio zelai batetan preso batek idatzitako honako poema honetan halaber* azaltzen da:

Zapitxoz agur dagiena**

Ene emaztea, gari soroa zehar, zapitxoa astinduz,
argitan doana da.
Maitasun azken agurra bidaltzen dit,
derrigorrez uzten nauen honetantxe.
Nork jakin noiz arte doan?
Bakarrik gelditzen naiz;
halere, poz-alaitasunak dardarazten du ene odola.
Jadanik ez dakusat preso nere burua;
nere ingurua haren eskuaren agurrez bete zait.
Ene Jainko, badakusazu, badakizu,
ez dudala inoiz neretzat ezer eskatu,
zuk eman guztia, eta asko zen,
esker onez hartu nuela.
Entzuidazu, gaurko eta bizitza enparauerako*,
dagizudan* erregu bakar hau:
Izan dadila ene andrea beti, zure maitasunaren ezagugarri,
bere zapitxoa astintzen* duena.
Haren eskuaren agurraz jabetzen naiz,
zure aingeru mezulariak*,
honela esatean, zekarren misterioaz:
«Agur, Maria, graziaz betea».
Izan ere, mugitzen den guztia,
dena hemen lurrean eta itsasoan,
nola zure aintzaz beteriko zeruan,
ez da arimari agur egitea baino,

oharkabe: konturatugabe. **sen:** instinto, instinct. **suhartasunik:** berotasunik. **ordekoaz:** zerbaiten ordez dagoenaz. **halaber:** berdin. **zapitxoz:** oihaltxoz. **dagiena:** egiten duena. **enparauerako:** gainerantzeko. **dagizudan:** egiten dizudan. **astintzen:** inarrosten. **mezulariak:** berri emaileak.

zure ontasunaren agur mezularia beste.
Jainkoa aditu nahi duenak,
arrazoinari ihes dagiona izaki,
begieman beza olatuen* eta izarren dantza,
eta esku maite baten agurra.
Nik sinetsi eta aitortu guztia,
lege honetara biltzen da, enetzat nagusienera:
bedi ene arima Jainkoari agur dagion esku;
ez dut ezagutzen otoitz bikainagorik.
Bedi zure graziaren urbizian kainabera bat bezala,
azken agurrez harea epeletan zabaltzen den olatu antzo,
udan haizearen arnasa sentitzen duen
eguzkipeko garisoroa bezala.
Ene arima iduri dakiola
zure jainkotiar agurra igortzen* didan emakumeari;
zure dohain dut hura, eta eskertsu nagokizu;
bizitza ona da.

Anton van Duinkerken,
XX. mendeko Holandako
olerkaria.

Nahiz zorionean nahiz oinazean, muga oroz haruntzagoko baten susmoa sor daiteke gure baitan. Ez dezagun arinki baztertera eman delako susmo hori, bere sinpletasunean hain sakon den hori; ez, ba, baztertu itxuraz argi den zenbait deklarazioz, inoiz ere galdearen mailara erabat heltzen ez denez. Geure gizabizitza eder, artega* eta mugatuaz aski izan behar dugunik ere ez dezagun esan, ez bait dugu benetan aski. Egiten dugun guztia, irrika harek eraginik egiten dugu, eta gogo honek susmo bat darama bere baitan: arras seguru, arras on, arras eder den bat gure mugatasunaz arduratu egiten dela.

Gure kontzientziaren deia

Gure zorion irrikaz hitzegin dugu. Mintza gaitezen orain geure *on izateko* irrikaz.

Gizakiak badaki, ezin dezakeela zoriona nolanahi merezi; orduan, hain zuzen, ez bait luke ukanen zorionik. *On* izan nahi du. Emakume batenganako maitasun gartsua senti dezake gizon batek; baina, horrela, senar bat eta lau haur zoritxarreko egin behar baditu, maitasun hori ezinezkoa da. Ontasuna jartzen du gizakiak maitasunaren gaindik; bestela, ez du erdietsiko* benetan zoriontsu izaterik. Horrela diosku geure kontzientziak.

Gizon orok, erlijiodun izan ala ez, badaki kontzientzia bat duela. Ahaleginak egin izan dira frankotan*, «kontzientziaren dei» hori gauza ulerterrazago egiten, esplika ahal izateko. Berezko «galgatzat*» hartua izan da. Bizi-nahiaren senak (heriotzarekiko beldurrak) gizakiari giza bizitzaren mugapean egonarazten dion bezala —horrelatsu

olatuen: uhinen. **igorri:** bidali. **artega:** urduri, kezkati. **erdietsiko:** iritsiko. **frankotan:** sarritan. **galgatzat:** eustagatzat.

zioen zenbaitek— era berean konporta zitekeen kontzientzia ere, nahiz hau beste maila batetako arazoa izan. Mila modutara hartu nahi izan da: nork bere buruaz duen on-iritziaz, zer esangoaren beldurraz, jatorrizko ohituraz, hezketaz eta norberaren ingurumariaz. Benetan zerbait argitzen eta adiarazten dute osagarri guzti hauek. Kontzientziaren era desberdinak adierazten dituzte: zergatik herri honek onaren eta gaitzaren arteko muga era honetan erabakitzen duen, eta beste harek, beste haretara; eta herri batetaz esaten dena, gizaki bakoitzaz esaten da. Izan ere, alde handia bait dago gizadian toki batetik bestera kontzientziak ontzat agindu edo txartzat galerazten duenean. Guztiok bat gatoz, halere, onaren eta okerraren arteko berezkuntza egitean: onuragarriaren* eta alferrezkoaren artekoa baino sakonagoa, atseginaren eta atsekabearen artekoa baino sakonagoa.

Dagidan gaitza inork ikusten ez badu ere, eta inori zuzenean kalterik egiten ez badiot ere, neure kontzientziak zirikatu egiten nau, salatu eta kezkarazi; baina, batez ere, zuzena eta ona egitera eragiten nau, eta horretarako bihotz ematen*. Gainerakoek lagun nazakete ona eta gaitza bereizten, bai; baina, erantzunbeharra*, lotsa, bihotz-zimikoak*, on izateko gogoa: hitz batetan esanik, ongi jokatu behar dudalako (edo jokatu behar nuelako) ustea neure gain datoz. Neure bakardadean sentitzen dut neure barrengo arra. Eta egoitza horretara, ama maitekorrena ere ezin daiteke hel bere laguntzaz. Hor beste ahots bat entzuten da. Neure buruarekiko errespetoa ote? Ez. Ez da neure buruaren epaile* delako ustea. Beste zerbait handiago sumatzen dugu. Agian, oharkabean, gizon osoaren begiak barruntatzen* ote ditugu? Ez. «Geure erruarekin gu geu bakarrik aurkitzearen» esperientzia da, dirudienez.

Kezka eta beldur sakonak sortzen ditu gure baitan kontzientziaren epaiak: gure bizitzaz xede egiazkoen eta hondokoenari ez erantzutearen beldurra; baina, batez ere, alaitasun garbi eta sakonaren iturri da kontzientzia: gure helburuarekin* eta xedearekin* bat etortzearen alaitasuna.

Ba ote du, beraz, helbururik eta zentzurik ene bizitzak? On izateko irrikatik ere, intuizio bezalako bat atera daiteke: nik, mugatua eta argala naizen honek, jomugarik badudalakoa, eta erabateko onera ordenatua naizelakoa.

Mugagabearen deia

Arrazoinez ezagutzekoa 15

Ontasun azkengabe bat eskatzen du gure ontasun mugatuak. Gure ahalgetasunak*, berriz, guztiahaltasuna. Jainko-

onuragarri: probetxuzko. **bihotz ematen:** bultzatzen. **erantzunbeharra:** errespontsabilitatea. **bihotz-zimiko:** kontzientzi kezka. **epaile:** juzgatzaile. **oharkabean:** konturatu gabe. **barruntatzen:** susmatzen. **helburua:** jomuga. **xede:** meta, but. **ahalgetasunak:** ahaleginak.

tasuna eskatzen du gure gizatasunak. Gure mugatasunaz jaberazten gaituena —hala dela ezaguarazten diguna— gure pentsamendu eta irriketan azaltzen den mugagabetasuna* da. Mundu osoa, gure bizitza osoa, zorakeria edo, hoberenean, jolas huts bat izango ez bada, mugagabea badela izan aitortu behar. Horregatik esan ahal izan zuen Paulo sainduak: «Ba, Jainko-izatearen ikusezina, haren betiko ahalmen eta Jainkotasuna, adimenak ezagutzeko moduan gelditu dira, munduaren sorreraz gero, harek egin dituen egiteetan» (Erm 1,20).

Bizitzari atxeki deia 16

Hemen apostoluak, dudarik gabe, gure bizitzan gure arrazoinari dagokion garrantzizko zeregina ikusarazten digu. Gainera, bereziki bekatua ematen du, garbi ikusten galerazten digun traba bezala. Baina, hain gauza handi eta berebizikoari baiezkoa ukatzean egiten den bekatua, beti pertsonala denik ez du esaten. Mugagabekora zaramatzan* argitasunera makurtzea, ia ezinezko egiten dute sarritan, dela bizitzako giroak, dela norberaren hezketak, dela norberaren psikologiazko egiturak. Bizitzak erakusten duenez, gehienetan, Jainkoarekin nabasitasunean* behar du izan gizonak fedez, halako zantzuei* men egin ahal izateko.

Ez du bere burua harrotu behar fededunak, giza izateari zentzua ematen diona ezagutu duelako; izan ere, ez bait du halako ezaguera bere trebetasunez eta buruz. Eman zaion dohaina* du.

Jakintsuek landu dezakete zientziazko froga bezala giza bihotzaren intuizioa; ez, ordea, matematikaz; izan ere, hemen ez bait dute zereginik matematikek. Kondaira bera ere, zientzia denez, ez dago matematik formuletara jartzerik; izan ere, bizitza osoa hartzen bait du. Are gutxiago eman litezke, sekula, formula edo esaera zehatzetan* izatearen arrazoinik sakonenak. Handiegiak dira, eta gizaki osoari lotuegiak. Baina, maila sakon honetan, metoduzko gogoeta, egiaz, zientzia da. Eta zientzia honek arrazoiketa bidez, egizta dezake, geure bizitzaz baieztatzen dugun guztietan Mugagabeaz ari garela, *egia* denez, *errealitatea* denez, *ontasuna* denez, *poza* denez.

Gaitza munduan

Mugatuak ezezik*, hauskor* ere bai 17

Baina, gizakia —gisa* ilunenean dela ere— bere bizitza eta pentsabidez jatorri azkengabe bat sumatzera hel daitekeelarik ere, eta filosofia sakon batek gure pentsamenduan eta

mugagabetasun: azkengabetasun, infinitud, infinitude. **zaramatzan:** eramaten zaituen. **nabasitasun:** elkartasun. **zantzuei:** arrastoei. **dohaina:** erregalia. **zehatzetan:** konkretuetan. **ezezik:** bakarrik ez. **hauskor:** puskatzen eta apurtzen erraz. **gisa:** tankera, modu.

mintzoan* azkengabearen* hondoa distiratzen* dela agertzen duelarik ere, gure gogoetari zirriztu bizi bat nabari zaio alderik alde. Zartadura* hori, munduko mixeria da. Lur gainean nagusi diren gaixotasuna, etsipena eta gaiztakeria nola elkartzen ote dira, neurri gabeki ona den jatorri* batekin? Ez gara mugatuak bakarrik —tasun honek berez mugagabea eskatzen du—, hautsiak eta sakailduak* ere bai. Erruak* eta heriotzak zeharkatzen* dute gure bizitza alderik alde.

Nondik ote hori? Geure gogoetaz aurkitu dugun Izaki handi eta erabateko horrek ez dio gure bizitzako zorakeriari, minari eta heriotzari erantzuten. Nola idurika, onari eta ederrari bezala zikinari eta higuingarriari* izatea lemaiokeen* Izaki mugagabe bat?

«Gauez, hezurrak zulatzen dizkit gaitzak,
hozka eta hozka nire zauriek ez dute atsedenik.
Izugarrizko indarrez heldu dit soinekotik
nire tunikaren lepokoan hestutuz.
Lokatzetara bota nau,
zaborra eta errautsaren antzeko naiz.
Dehadar egiten dizut, eta ez didazu erantzunik ematen;
aurrean jartzen natzaizu, eta ez-ikusi egiten duzu.
Bihozgabe bihurtu zara nirekin,
nire kontra jarri duzu zeure eskuaren indarra.
Hurtu eta haize erauntsiaren* bizkarrean naramazu,
trumoiaren danbatakoz astintzen nauzu.
Bai, badakit, heriotzara naramazu,
bizidun guztiak biltzen diren lekura.
Zer, ba, eskurik ezarri ote diot ba behartsuari,
bere premian laguntza eske hots egin zidanean?
Ez ote dut ba negar egin bizitzak gogor jotzen zituen [guztiengatik?
Eta behartsuarekin ez ote dut ba kupidarik izan?
Bai, zoriona itxaro nuen nik, eta zorigaitza etorri zait;
argia itxaro nuen nik: eta horra ilunpea.
Irakiten daduzkat erraiak gelditu gabe,
oinazea besterik ez dakarkit egun bakoitzak.
Aurpegi-ilun banoa, ez dut nork kontsolaturik,
bileran jaikitzen banaiz, garrasia egiten dut.
Txakalen senide bihurtu naiz,
eta saien* lagun.
Bel-beltz egin zait gainean azala,
sukarrak kiskaldu dizkit hezurrak».
(Jb 30, 17-30)

Eta heriotza da azkena:

«Bai, azkenean horratio, erori egiten bait da mendia bera ere,
eta harri mokorra bere tokitik askatu;
eta harriak ere jan egiten bait ditu urak,
eta euri zaparradek lurra eramaten bait dute;
zuk ere holaxe ez diozu gizonari itxaropenik uzten.
Lur jo arazten diozu betiko, eta alde egiten du berak;
itxuragabetzen duzu, eta han bidaltzen duzu gero.
(Jb 14, 18-20).

---

mintzoan: hizketan, berbaldian. **azkengabea:** mugagabea. **distiratzen:** ispilatzen. **zartadura:** haustura. **jatorri:** iturri, sorrera. **sakailduak:** birrinduak. **erruak:** hobenak. **zeharkatzen:** betetzen, zulatzen. **higuingarri:** nazkagarri. **lemaiokeen:** emango liokeen. **sai:** avestruz.

Absolutua bidera irtengo ahal zaigu! **18**

Hori zorakeria! Behin eta berriro erruaren eta heriotzaren harresiaren* kontra apurtzen den egundoko* irrika!

«Bai, gizonetan zozoena naiz ni inondik ere,
eta giza ezaguerarik ere ez dut.
Jakinduriarik ez dut ikasi
eta sainduen ezagutzarik ez dadukat.
Nor da zerura igo eta gero handik jaitsi denik?
Nork bildu du haizea bere ukabiletan?
Nork gorde ditu urak bere mantuan?
Nork finkatu ditu lurraren ertzak oro?
Nola du delako horrek izena? Eta nola horren semeak,
jakin badakizu behintzat?».
(Es Za 30, 1-4).

Hori da erantzuna erraz ikustea!, hotsegiten die jainkozaleei, bila dabilen eta erabakirik aurkitzera iristen ez den gizonak. Kreaziotik nola atera ote daiteke hain soilki*, goreneko izaki bat badelako ondorioa*? Agian, ezinezkoa da, azkengabe eta guztizko* kausarik gabeko mundu bat pentsatzea. Baina, nola lot daiteke hori guztia hainbeste oinaze eta mixeriarekin?

Ai, Mugagabea mintzo baledi! Ai, behingoz bidera irtengo balitzaigu! Ai ager baledi eta bere alde atera, Joben aurka, gu geuron aurka! Ai Berak azalduko baligu gure izate hain miresgarri eta hain samin honen zentzua!

Berak azaldu digun mezua

Jainkoaren Hitza **19**

Jainkoak, Mugagabeak, Nazareteko Jesusengan bere burua goiagertu* zuelako hotsa dabil munduan zehar:

«Haseratik bazena, guk geuk entzun duguna, geure begi-begiz ikusi duguna, geuk kontenplatu duguna, geure esku-eskuok ukitu dutena; bai, bizitzaren Hitza:
—zeren agertu egin bait da bizitza, agertu, eta geuk ikusi dugu, eta aitortu egiten dugu, eta zuei jakin arazten dizueguna ere horixe da, Aitaren baitan zegoen eta guri agertu zaigun betiko Bizitza horixe—;
geuk entzun eta ikusi duguna jakin arazten dizuegu ba, zuek ere gurekin elkartasunean izan zaitezten. Gure elkartasun hau, berriz, Aitarekin eta honen Seme Jesukristorekin da. Idatzi ere, berriz, gure poza bete-betea izan dadin idazten dizuegu. Hona ba, guk Hari entzun eta zuei jakin arazten dizuegun mezua: Argia dela Jainkoa eta Harengan ez dela iluntasunik batere».
(1 Jn 1, 1-5).

---

harresia: murua. **egundoko:** ikaragarri, handi. **soilki:** errazki. **ondorioa:** konklusioa. **guztizko:** erabateko, oso-oso. **goiagertu:** agertu; revelar; revéler.

Jesus da erantzuna. Gizakiak amets ahal izateko, erantzun aski harrigarria. Jainkoaren Semea bera dator gure mixeriara. Maitasun ezin handiagoa agertuz, Jainkoak berak sufritzen du gure artean. Horra nola maite duen Jainkoak mundua.

Ez da hau azkeneko «zergatia» argi diezagukeen erantzuna. Izatearen misterioa ez da horrenbestez argitzen. Baina, ez da dudarik, Kristorenganako fedeak garbi adierazten digula egia zein aldetara dagoen. Jainkoa ez da gelditzen gaitzari bide emate hutsean. Bihotz gogorra izatea litzateke hori. Gaitza ez dator Jainkoagandik. Aurka borrokatzen da Jainkoa, eta Bera gaitzean nahastua suertatu da. Gizadi ankerrak* ezagutzen duen heriotz zigorrik gogorrenean, gure salbatzaile bezala azaltzen da. Goitik behera egur bat, zeharretara* beste bat, eta haietan gizon bat josirik, eta honengan Jainkoa bera azaltzen zaigu. Gizaki bat beso zabalik bezala, alde guztietara begira dagoen gurutze hau, Jainkoaren misterio ulergaitzera zuzentzen den gezia* da. Misterioaren bihotza seinalatzen digu ilun antzean.

Gurutzean bere bihotza zabaldu du Jainkoak, bere misteriorik sakonena agertu du. Oparigaiekin* bat egiten da Jainkoa.

Aurrerago astiroago* ihardungo gara liburu honetan gaitzaren izateaz (*410-411*), eta geure ideien neurrira ebakitako jainko guztiahaldun bat eraikitzeko gure joeraz. Izan ere, sarriegi, Jainkoak «egin ahal zezakeena» edo «egin gabe utz ahal zezakeena» jakin uste dugu. Horrela, mixerian lasai uzten gaituen menperatzaile indartsu bat bilakatzen da gure begietarako. Jainkoaren guztiahaltasuna, ordea, zerbait sakonago, zerbait ezinesanago da, idurika genezakeen baino askoz desberdinagoa. Honetara etorri behar dugu gero eta gehiagotan: egiaz, Jesusengan bakarrik aurki eta ezagun genezakeela.

Jainkoari buruzko galde guztien erantzuna, bila dezagun Jesusengan. Honen bizitza guztiak zera adierazten digu: *sufrimenaren kontra, guk guztiahaltasunaz ditugun ideiez* pentsa dezakegun ezbezala borrokatzen dela egiazko Jainko guztiahalduna; gisa misteriotsuagoz, azkarragoz, konprometituagoz, «salbatzaileagoz» dihardu. Horrela garaitzen ditu betirako bekatua eta heriotza. Zergatik egiten duen horrela ez dakigu. Argi eta ontasun misterio bat dela, hori bai, badakigu. Jainkoak badu gauzak ikusteko modu bat. Honen berri zerbait badu Jesus sinesten duenak.

---

ankerrak: bihotz gogorrak. **zeharretara:** trabes. **gezi:** flecha, flèche. **oparigai:** víctima; victime. **astiroago:** luzekiago.

Kontraesango zaigu, ordea: Fede hau ez ote da bizitzari diogun beldurraren fruitu bat? Ez ote da gertatzen geure bizitzako mixeriaren kontra segurantza bilatzen dugula bakar-bakarrik, eta irrika hori «geure baitatik at*» proiektatzen dugula? (*23-25, 26*).

Gizakiak euskarria* bilatzen du; eta munduan aurkitzen duen hutsunea dela eta izularria* ere tartean sartzen zaio: baina horik ez doaz eskua eta segurantza damaizkigukeena badelakoaren aurka. Fedea determinatzen duen zergati bakarra izularria dela nahi izatea, arrazoiketa guztiz merkea litzateke gainera. Alderatze bat egin ote genezake? Gizataldean galduta dabilen mutil koxkorrak, ama bilatzen duenean, beldurrak eraginik dihardu. Amarik gabe ezin da konpondu. Baina, beldurragatik bakarrik bilatzen duela esan nahi ote du honek? Ez ote daiteke izan maite duelako ere? Izan ere, hala dela dirudi; pozaldietan ere azaltzen bait du nahi hori (*14*).

Baina, honekin ez da guztia esanik «proiezio» horretaz, «geuregandik kanpora botatzeaz». Izan ere, azkenaldi honetan egia nagusi bat aurkitu da, eta da: psikismoak, bizi giroak eta hezketak joan-etorri handiko zerikusia dutela gizakiak Jainkoaz taxutu* ohi duen ideiari buruz. Horrekin ez da deus* esaten azkengabea badelakoaz edo ez delakoaz. Hain zuzen, eman dezagun, egia dela gure «proietatze» hori; eta beraz, kanpoan, geuregandik aparte bizierazten dugula gure baitan bizi zena; jakin beharko litzateke orduan, gizakia bera den baino handiago ez ote den. Baietz erantzuten dio gure fedeak galde horri. Gizakiarengan, gizatasuna baino handiagorik ikusi izan du beti kristau dotrinak. «Zeuretzat egin gaituzu, eta gure bihotzak ez du atsedenik Zuregana bitartean» (Agustin saindua, *Aitorkizunak* liburuaren haseran).

Gure artean «proiezioak» izateak ere, Azkengabearen gure bilaketa argi dezake nola edo hala. Gure Jainkoaren atzetik ibiltzea, sarritan, itxura hutsa dela adiarazten digu, hain zuzen. Izkribu Sainduak sarritan mintzo dira puntu honetaz. Ez dugu, Jr 7 et Jn 16, 1-3 irakurri besterik. Horrela, Jainkoari geure asmakizun dudatsua den zerbait erasten diogu funtsik* gabe —batzutan ohartuago, bestetan oharkabeago—. Geure irudimenaren neurriko Jainko bat sortu, eta ez dagoen lekuan ikusi izan dugula garbi agertzean, gerta daiteke bapatean esku hutsik gertatzea. Ikusi uste genuen Jainkoa, izkutatu egiten da begien bistatik; hutsunea bakarrik gelditzen zaigu, garrasiz betetzen duguna: «Izan, ba ote zara ala ez, ene Jainko?».

Gure sasijainkoak erori* direnean, zer bide aurki ote genezake ilunpean? Giza errealitatearen esperientziaren froga pasatzen duena bakarrik, eta ez besterik; iheskeria litzatekeen bidea ez baino beroren izate sakonena biribiltzera, garaitzera daramana (*220-233*).

---

at: kanpora. **euskarria:** segurtasuna. **izularria:** larritasuna. **taxutu:** moldatu. **deus:** ezer. **funtsik:** arrazoinik. **erori:** jausi.

Nazareteko Jesus gizonaren baitan eskaintzen zaigu bide hori: hura —gizonaren semea— da gizona, eta horregatik, hain zuzen, Jainko biziarengana garamatzan* bidea.

> «Jainkorik ez du sekula inork ikusi. Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak, horretxek eman digu haren berri» (Jn 1,18).

Hurreagoko orrialdeetan egin dugun bezalaxe ibili gara hemen ere: urrutiko Ezezagunagandik hasirik, haren agerpenaren hurreraino etorri gara. Halakoa da Jesusen hitzaren egungo esangura:

> «Bete da garaia, eta hurbildu da Jainkoaren erreinua. Egizue penitentzia, eta sinets Berrionari» (Mk 1,15).

Ilunpetik Jainkoari dei egiten diogunean, hantxe dago Jesus, gure anaia, gure artean, «Etor eta zeuek ikusiko duzue» (Jn 1,39) guri esateko. Liburu guzti honek xede* bakarra du: hots, gizonak dei hau onartzea.

Jainko aintzaren agerpena giza aurrerapenaren barnean gertatzen denez, liburu honetan, kondairaren bideari jarraituko gatzaizkio, gure bizitzari ere toki berezia damaion kondairarena.

---

garamatzan: eramaten gaituen. **xede:** zertarako, helburu.

Bigarren zatia

Kristoganako bidea

A. — HERRIEN BIDEA

Lehen erlijioak

Giza familia iraganaren oskian* azaltzen den unean, elkar ezagutzen ez duten herri, leinu eta taldetan banaturik eta sakabanaturik agertzen da.

Artean landu gabeko lur azal gainean, oihan eta etzelarretan*, giza mintzoa hasi zen entzuten. Ez ziren sentipen edo irrika hutsa adieraz zezaketen garrasiak, minez nahiz sexu berotasunez diren animalienak bezalakoak. Soinuak errealitatea zehazkiro* adierazteko gisan ebakitzen ziren, hitz deitzen duguna bilakatzeraino. Errealitateaz gogoeta egiten zuen gizakiak, eta gauzei izena ipintzen; eta hori, ez beretzat bakarrik, bai besterentzat ere, ordea. Ez da on gizona bakarrik egon dadin.

Jakina, lehen elkar arteko pentsaketa eta mintzoa gauzarik hurbilenetara zuzendu ziren, zentzumenez hautematen* denera: gizakiak, animaliak, gorputz atalak, izadiko gauzak, egurats fenomenuak. Zentzumenez hauteman guztia, osotasun bezala biltzen zuen bere buruz. Doi-doi iristen ziren buruz gauzak bereztera, lotzera eta mugatzera. Halere, lehen teknika eta ekintzabidean, pentsaketa praktiko eta logiko batetaz jokatzen zen jadanik. Baita ere, badirudi, fenomenuen ondotik, kausak ere bilatzen zirela, eta gauzen eta gizakien jatorriaz hausnartzen zutela.

Azterketa hori mila bider eta mila lekutan berritu zuen gizakiak. Izularriaren eta segurantzaren artean, oinazearen eta pozaren artean eta —gizaki delakotz— onaren eta gaitzaren artean (nahiz berezketa horretan leinuaren pentsakerari

oskian: zeru ertzean, bazterrean. **etzelarretan:** landugabeko lurretan. **zehazkiro:** argi eta garbi. **hautematen:** hartzen.

arras lotuta egon), han zebilen gizakia, beti bila. Eta bilatu, adimenduz bakarrik ez, eta bai bere izate osoz ere bilatzen zuen.

Kreatzailearen lanari erantzuten hasi zen kreatura.

> «Berak erator arazi zuen bat bakarragandik gizadi osoa lurbiraren zabalero guztian bizi dadin... Jainkoa bila dezan, ea hazta-haztaka* Hura topatzen duten» (Ap Eg 17, 26-27).

Gauzen hondoan eta baitan, gutxi-asko izpiritu eta jainko bezala pertsonifikatu zituzten ahalmenak* ari zirela uste zuten. Aztikeriazko* rituz eta, baita, otoitz eta opariz ere, zentzumenaz gaindiko munduari eragin nahian hasi zen gizakia.

Heriotza ez da ia inoiz hartu izan gauzen berezko bideari dagokion gertaera bezala. Horregatik, gizaki osoari ez zegokion gauza bezala hartu izan zen. Pertsonarengan, zerbaitek bizirik gelditu behar zuen. Uste hau, nahiz eta era askotara, gizadi osoarena zen.

Jainko goreneko bakar bat sinestea ez da beti ageri; baina zibilizazio primitibuenetan ere aurkitzen da. Ez da lurralderik lur gainean, ez eta zibilizazio arorik, sineste hau ez duenik.

Gizakiaren azterketa eta bilaketa guztiak haren bizimoduaz hestu baldintzapetuak* zeuden. Egon ere, hain zegoen izadiaren gogora, non bizitzari eusteko* ihizea eta lurrean bil zezakeena besterik ez bait zedukan; horregatik, abereek aparteko zerikusia zuten harentzat. Horrela esplikatzen da, goi-izakiak, zenbaitetan, animalien jabe bezala eta, baita, animali itxuran, etab. idurikatu izatea. Horretatik dator goreneko izaki baten ideia, hain sarritan, batez ere jan-emaile bezala aurkitzea.

Zibilizazio aro aurreratuagoetan —nekazaritza kulturan, esate baterako—, izadiaren fenomenu nagusienak (eguzkia, ilargia, ekaitza bezala) jainko bezala pertsonifikatzen dira sarritan. Ernalketaren* rituak eta gizaki eta abereen opari odoltsuak azaltzen dira; goreneko Jainkoaren ideia noizbehinka bakarrik agertzen da.

Artzain herrietako erlijioetan, aldiz*, zeruko Jainko gorena beti nabariago agertzen da.

Iraganeko zibilizazio nagusiak

Denbora laburra da oraino —bost milaren bat urte— gizakiak kultura nagusi bat sortu zuela. Giza sail handi bat, ideologiazko oinarri batetan finkaturiko estatu batetan bildurik dago. Hartan, jadanik lan-banaketa bat ageri da, eta jende guztiaren indarra ez da egunoroko ogia ateratzen baka-

hazta-haztaka: a tientas, à tàtons. **ahalmenak:** Indarrak. **aztikeriazko:** magiazko. **baldintzapetu:** condicionado, conditionné. **eusteko:** ihardokitzeko. **ernalketaren:** generazioaren. **aldiz:** ostera, ordea.

rrik ari. Gobernu, kultu eta hezketa zentroak sortzen dira: lehen hiriak. Ageriko idaz-ikurretan* finkatzen* da hizkuntza: hona hemen lehen idazkera.

Prozeso hau Ekialde Erdian, Mesopotamian gertatua zen, Kristo baino 3000 urte inguru aurretik, sumeriar zibilizazioaren sehaska izan zen lekuan. Kristo aurreko 2.800. urte inguruan Nilo ertzean kultura indartsu bat sortu zen; 2.500 inguruan Indo hibai ondoan, eta 1.500 inguruan Txinan. Gero Mexikoko zibilizazioa dator, 1.000. urte inguruan, eta Perukoa 800. urte inguruan, Kristo aurretik. Lehen kultura hauk, iturburuan, elkarri loturik daudela esaten da eskuarki. Erlijio bizitza handikiro adierazten zen: eliza, irudi, kantu. Gehienetan, kultura nagusi horien berezgarria, politeismoa zen. Hau mila modutara sortu ahal izan zen: dela, esate baterako, tokiren batetan goi-goiko Jainkoaz zituzten alderdi edo iduripenak, denborarekin, jainko desberdin bilakatu direlako, dela goreneko jainko horren zerutar ondorengoak adoratu dituztelako, dela norberaren jainkoen ondoan menperaturiko leinuenak* hartu direlako. Gehienetan, jainko errege bat ezartzen da beste guztien gain. Genesi liburuaren 14. kapituluan, Melkisedek «Goi-goikoaren apaiz» da (*232*).

Filosofo ospetsuek koroatzen dute batzutan herrian den berezko erlijiotasuna; esate baterako, greziarren artean.

Beraz, haztamuka* eta bila jarraitzen zen gizadia. Nahiz bekatuarekin (nagusikeriarekin eta lizunkeriarekin, besteren artean) eta oker-iritziekin (fatalismo edo adurrarekin, esate baterako) nahasiak izan, erlijio horik izan ziren, miloika gizon-emakumeri beren bizitza bakarrean Jainkoaren misterioa sumatzeko bidea eman zietenak. Neke handiz, eta harrigarrizko lehiaz eta ukapenez, arras gizatar zen jakintza sakonaren bila ziharduen gizadiak. Eta etsirik* egon gintezke, erlijio haietan guztietan, bere Izpiritu Sainduaren bidez, betiko Hitza, Jesukristo gure jauna ari zela (*16*). Ez egun argitan, Jainkoak juduen artean mundu guztiarentzat agertu nahi izan zuen bezala; bai, ordea, egiaz eta sakonki.

Gaurregun, judaismo eta kristau agerpenarekin batera, hiru erlijio nagusi dira munduan, arras erakarle direnak: hinduismoa, budismoa eta islamismoa. Erlijio hauetaz mintzatzean, Txinako «unibertsismoaz» ere hitz batzu erantsiko ditugu.

---

ikur: signo; signe. **finkatzen:** fijar; fixer. **leinuenak:** tribuenak. **haztamuka:** azterka. **etsirik:** sinestuta.

Hinduismoa

Arioak Indiara heldu zirenean (K.a. 1.500. urte inguruan), nola garaileei hala garaituei hartutako elementuez osatuz joan zen erlijioa da hinduismo edo brahamanismoa (bi hitz hauk esanahi berean erabiltzen ditugu). Giza esperientziaz emeki-emeki eratuz joan zen fruitua dugu hinduismoa: Norberaren barne-hondoaren arakatzea*, etenik gabeko gogoetak, esperientziaren aberastasunetik deus gal ez dadin ardura.

«Hinduismoa —dio Gandhik— egiaren aspergabeko bilatzea da. Egiaren erlijioa da. Egia Jainko da, Jainkoaren ukatzea ezagutu dugu, egiaren ukatzerik ez». Hinduismoaren irekitasunak, malgutasunak* eta eroapenak* ez dute mugarik. Nola politeismo primitibuak, hala filosofiarik finenak badu tokirik Hinduismoan. Beraz, ezinezkoa da, jainko berezirik erlijio honen ezagugarritzat ematea.

Lurtar errealitatea, bizitza, alaitasuna, nortasuna, maitasuna: guzti hauk itxura liluragarri eta oinaze iturri dira haientzat. Buru ukapenaren eta barne-biltzearen (*Advaita-Vedanta*-ri jarraikiz) edota barne-biltzezko ariketa* jakinez (*Samkhya* eta *Yoga*-ri jarraikiz) bakarrik ihes eginen zaio oinazeari.

Norberaren «nerau»a (*Atman*-a) «guztiara» (*Brahaman*-agana) bihurtzean datza ihes egite hori; beste era batetara esanik, *Atman eta Brahaman berdinak* direla ohartzea —hobeto esan, ez ohartzea; izan ere, orduan kontzientzia oro ezereztua gelditzen da—. Oharpenik gabe, sentipenik gabe, maitasunik gabe eta nortasunik gabe, «guztia»rekin batasun osoosoan, izatearen gora-behera guztiak saihestu* egiten ditu gizakiak.

Hain gora igotzen ez denak, birjaio egin behar du bere heriotza ondoan, bere *Karma*-ren (bere bizitzako egintzen) arabera: bir-haragitze hori, apalagoa (animalia bilakatuz) edo garaiagoa (gizaki bikainago bilakatuz) izan daiteke. Kontuan hartzeko gauza da dotrina honetan, bide okerrari hel diezaiokeela gizonak, baina horrek ez daramala, berez, ez esker gaiztorik, ez eta maitasuna hausterik (*376*). Horrez gero, dotrina honek ez du ezagutzen, zuzen-zuzen, bekaturik.

Gizartearen kasta banaketa zorrotza (1. apaizak; 2. gudariak; 3. merkatari eta nekazariak; 4. menpekoak, eta oraindik beherago, kastaz kanpoko pariak) metenpsikosi dotrinan finkatzen da.

Harrigarria da, dotrina honetan izpiritua eta barne alderdiak hain erdipuntuan ezartzen direla ikustea.

---

arakatzea: aztertzea. **malgutasunak:** biguintasunak. **eroapenak:** jasankortasunak. **ariketa:** ejerzizio, ihardun. **saihestu:** baztertu.

Eroskundeaz* diharduen kapituluan, berriz mintzatuko gara hinduismoari buruz, halaber* bere printzipioen gaindi botatzen duen bere berezitasun batetaz ere (*221, 231*). Garbi dago, halako erlijio zahar eta nagusia ezin eman daitekeela, hemen egin dugun bezala, zenbait lerrotan (zer esanen genuke, norbaitek kristautasunaren berri honela eman nahi izango balu?). Halere, haren berezitasun nagusienak zirriborratu* ditugu.

Budismoa

Sailtxo probilejiatu bat bakarrik jarraitzen ahal litzaioke brahamanismoak eskatzen duen bizitza zorrotzari. Zapalketa gogorra zen hori gizatalde handienarentzat; batipat, behereneko kastentzat. K.a. 500. urtean jaio zen gizon bat, Sidharta Gautama izenekoa, Budha (argitua) ez-izenekoa*; bide egokiagoa aurkeztuko zuena. Gizakia askatuko duena, norberaren ukapen guztizkoa ez baino oreka edo ekilibrioa da: bizitzeko mainaren eta norberaren burua ukatzearen arteko oreka edo ekilibrioa. Baretasunera eta bakera darama horrek. Metenpsikosia (izaki batetik bestera arima aldatzea) eta nirbana (norberaren izatea bestearengan suntsitzea), elementu berdinak dituzte hinduismoak eta budismoak. Budismoa, ordea, guztiz praktikoa da: «Jarrai hakio bideari, eta badenaz haruntza oraino izan ez denaz ez ezak galdegin. Ihardun hadi bakarrik eta heure indar hutsez». Budismoa, *Karmana* edo bizitzako egintzetatik nork bere indarrez askapena lortzeko bidea da. Oinazeari ihes egitea du helburu. Bizitza bera oinaze da.

Budaren bizitzako lehen esperientzia handi bezala, haurtzarotik jauregietan eta lorategietan hazia izan zela dioskute, eta oinaze orotatik libro eduki zuten haietan; baina, bapatean, oinazeaz, zahartzaroaz eta heriotzaz pentsatzeari ekin ziola. Oinazea —Budak irakasten du—, bizitza eta zentzumen esperientziak grinatsuki bilatzetik sortzen da. Irrits hori itotzen saia hadi, eta munduaren eta gu geuron osakai diren gauza samingarri, iheskor eta funtsgabeen oldarrari* ihes eginen diokek. Horrela helduko haiz nirbanara, nortasungabeko izatera, oinaze kutsurik ez duenera. Hara daramaten zortzi bideek, Budaren dotrinaren jatortasuna erakusten dute. Ezaguera argia, hots, arestian* azalduriko ikusmoduaz jabetzea da lehendabizikoa. Bigarren bidea, ondo jokatzea da, hau da, inori minik eman nahi ez izatea, ezantsia* ukaitea eta borondate ona edukitzea. Horrela darraikio moral garai eta garbia

eroskundeaz: redención; redemption. **halaber:** berdin. **zirriborratu:** zehaztasunik gabe adierazi. **ez-izenekoa:** mote. **oldar:** impulso, élan. **arestian:** orain oraintxe, lehentxo. **ezantsia:** kezkarik eza.

azaltzeari. Norberaren indarrez lorturiko askapena agertzen duen dotrina honek, esperientzia egiztatuenean oinarrituriko bide soil eta baikorrak proposatzen ditu; alderdi honetatik hinduismoaren ukitu ritualista eta liturgikoaren buruz-buru* dago. Jainkoaz ez da deus esaten. Budak ez du puntu honetaz ez baiesten, ez eta ukatzen deus.

Bekatua eta maitasuna ez dira hemen ere, izatearen egiazko zuztar (*221, 376*). *Karma*, bizi-indarrak, nolarebait esateko, konportamendu praktikoz zuzendu behar dira, onerako izan daitezen. Damutasuna, guk aditzen dugun bezala, hau da, maitasuna zikindu dela uste izatea, ez da haintzakotzat hartzen dotrina honetan. Onginahia askabide da. Arazoa ez datza, ez besteren mixeriaz atsekabea sentitzean, ez eta Jainkoa eta lagun hurkoa zerbitzekotan norbere baitatik ateratzean, ez eta kristauek maitasun bezala hartzen duten horretan.

Halere, budismoaren funtsezko joera gaindituz, ideologia budista bat sortu zen: bere baitan maitasun dotrinaren ukituren bat edo beste hartu duena. Hau, *mahayana* delakoaren («bide nagusia», esan nahi du) budismoan gertatu zen. Luzeago hitz egingo dugu honetaz eroskundeaz mintzatzean (*231*). Japoi, Txina eta Tibet gaindi* hedatu* zen, batez ere, *mahayana* delako hori. Budismo tankera klasiko bat, zaharragoa, *hinayana* edo *bide txiki* deritzaiona, Asia hego-ekialdeaz jabetu zen. VII. gizaldiaz gero, Indiatik, emeki-emeki, izkutatuz joan zen budismoa; horrela, hinduismoa da Indian erlijiorik hedatuena. Baina, zenbait urtez gero, han ere, indartsuki hedatuz doa Budaren dotrina, paria horien artean batez ere.

Txinatar unibertsismoa

Txina zahar eta handian sortu ziren ideologiez ere esan ditzagun bi hitz. Haietako batzutan, jainko askorekiko kultua nabarmentzen da; beste batzu filosofikoak dira batez ere. Txinatar espekulazio guztien ezagugarri da honako hau: unibertsoaren armoniaz eta egituraz* teoria bat ukaitea. Hemendik dute, dudarik gabe, guztiekiko* izen hau: «txinatar unibertsismo» delakoa.

Oinarrizkoa da haretan, lehen batasuna bi indarretan banatu zelako dotrina: *Yang* (argi, bero, egile, sortzaile, ar) eta *Yin* (hartzaile, lasai, hotz, ilun, eme). Elkarren beharra dute bi indar hauek; eta berorien armoniari eta tirabirari darie den guztia. *Yang*-gandik, lehenengo, zerua sortzen da, eta *Yin*-

buruz-buru: aurrez-aurre. **gaindi:** zehar. **hedatu:** zabaldu. **egituraz:** estrukturaz. **guztiekiko:** jeneral.

-gandik lurra; gero, bietatik, batera, beste izakiak. Urte aroak, esate baterako, *Yang*-en garaipenari (uda), ala *Yin*-en garaipenari (negua) darizkie. Mundu ikuskera honek, haserako batasunetik unibertsoaren kreazioaraino 129.600 urte aldia ezartzen du; berriro lehen batasunera itzultzen da mundua, zikloa atzera hasiz, eta horrela azkenik gabe.

Guzti honi eragiten dion indarrak *Tao* (bidea) du izena. Bide hau lehen batasunaren barnean dago jadanik, eta kreazio osoari armonia ematen dio. *Tao* bilatzea, bizitzako bide zuzena bilatzea da.

K.a. 551. urtean jaio zen Konfuziok (Kung-Fu-Tse), usario zaharretan eta bere gogoetetan oinarriturik, tankera horretako jokabide bat adierazten du. Arbasoekiko* kultua, nor bere buruaz jabetzea, gizatasuna eta ontasuna dira, haretan, osakairik nagusienak. Praktikoa da oso dotrina hau, ekintzari emana.

Txinatar Unibertsismoaren beste tankerak, taoismoak, Lao-Tse pentsalari sakon bezain zaharra sortzailetzat dadukanak, kontenplazioa hobeto lantzen du, eta lasaitasuna irrikatzen*, eta, desira orotatik askatuz, gauzen lehen-lehenera murgildu nahi du. Lao-Tse, Konfuzioren aldi berekoa izan zen noski. Ezin esan daiteke, bi mundu ikuskera hauk egungo gizadiaren ideologia bizien arteko direnik. Txinatik kanpo ez dute, esateko, indarrik. Sorterrian, berriz, marxismoaren frogaldia* jasaiten ari dira urte hauetan, ez dakigu oraino zelako ondorioz.

Islamismoa

Ez da duda-mudarik islamismoak hedatzeko duen indarraz. Hinduismo eta budismoarekin batera, kristau ez diren munduko erlijio nagusienetako bat dugu. Ordurarte politeismoan bizi izan ziren arabiar leinu artean sortu zen (K.o. 600. urte inguruan) (*168*). Ordurako, haien mugetaraino heldua zen kristau fedea onartua zuten agian*; baina, urte inguru hauetan, Mahoma (Mohamed) «La Meka»n sortua, azaldu zen Arabian. Jainkoaren (Alah) berarengandik, hurbileko harkaitz zulo batetan, jaso zituen ikuskarietan* edan zuen Mahomak. «Igarleen silua» bera zela jakin arazi zioten haiek, Abrahanengandik hasi eta Jesusengana bitarteko Jainkoaren goiagerkundea erabat beteko zuena.

Haren dotrinaren guna*, Jainkoaren erabateko batasunean, bakartasunean eta ahalean datza. Bere goiagerkundeak

arbasoekiko: *gure aurretikoekiko.* **irrikatzen:** bilatzen. **frogaldia:** azterraldia. **agian:** beharbada. **ikuskari:** visión. **guna:** muina.

emanez idatzi zuen liburuak «Koran» du izena, eta hitzez-hitz Jainkoaren esanera idatzia bezala hartzen da.

Islamismoaren erlijio betebeharrak hauk dira: 1. Fede aitorpena eginez Alah onartzea; 2. «La Meka» alderuntz begira, egunean bostetan otoitz egitea; 3. Behartsuei limosna jakin bat ematea; 4. Ramadan hilean, eguzkiaren irteeratik sarrerara, barau egitea; 5. Bizitzan behin gutxienez «La Meka» -ra errumes joatea. Ostiraletan erlijio bilera bat ospatzen da mezkitan, gutxienik berrogei pertsona biltzen diren guztietan. Musika eta irudiak galeraziak daude kultuan. Gerra saindura joan beharra ez datxeko muslim* bakoitzari, elkarteari baizik, eta beharrezko denean. Egun, izpirituzko gerra bezala hartzen da, batez ere, gerra hori. Poligamia zilegi da. Gerra sainduan hiltzen dena, zuzen-zuzen paradisura doa. Gainerako gizaki onak, gizaldien hondarrean* doaz zerura. Ifernuan zigortuak dira gaiztoak. Munduaren azkena, Jesusen bigarren etorreraz iragarria* izango dela uste du askok.

Erlijio honetan gauza harrigarria, Jainkoaren ahalguztiari dioten begirunea da.

Dotrina eta betebeharrak garbi eta lau-lau dira. Horregatik, oso aisa zabal daiteke islamismoaren predikua. Mahomatarren kristau federa bihurtzea oso noizean-behingoa da egun ere. Eroskundeaz* mintzo den kapituluan, berriro ihardungo gara erlijio honetaz.

Humanismoa eta marxismoa

Egungo gizadiaren bi izpiritu joera nagusienak ez ditugu oraino aipatu: gure hirigizon*, hauzoko eta adiskide zenbaiten joerak, hain zuzen: humanismoa eta marxismoa (*223-224, 231-232, 241*). Bi joera nagusi hauk, ez bata eta ez bestea dira erlijio; halere, Absolutuaren aurrean har daitekeen jarrerari dagokion ikusmodua azaltzen digute biek.

Humanismoaren abiapuntua* hauxe da: Absolutua ez dela, edota ez zaigula agertzen gure bizitza harenganako fedean eraikitzeko moduko argitasunez. On egin, gizakiarengatik bakarrik egiten du humanistak. Bere moralean eta bizitzari buruzko bere jarreran, kristau elementu asko du humanismoak.

Marxismoak —egun arte bederen*—, argi eta garbi, Jainkorik ez dela aitortzen du. Kaltegarri zaiola gizakiari Jainkoarengan sinestea (*224, 231, 241*). Bere bihotza Absolutuaren-

muslim: Mahomaren jarraitzaile. **hondarrean:** azkenean. **iragarria:** hotsegina. **eroskunde:** redención; redemption. **hirigizon:** herritar. **abiapuntu:** pentsakeraren oinarria eta iturria. **eraikitzeko:** jasotzeko. **bederen:** behintzat.

gana zuzentzen duenak, bere buruaren zati bat bere baitatik kanpora proietatzen duela, bere nortasunaren zerbait galdu egiten duela, «besterenganatu» egiten duela. «Kreazio oinazetu baten intziria da erlijioa, bihozgabeko mundu baten arima, eta izpiritu gabeko gauzen egoeratik sortzen den izpiritua. Herriaren lo-belarra, opioa da» (*Marx*).

Fedea erdizka hartzen zen aro batetan sortu zen dotrina hau: fedea erdizka hartzeak, gizakiari, janari, jantzi eta etxebizitz banaketa zuzenaz benetan arduratzea galerazten zion aro batetan. Marxismoa, kristauentzat, barne-azterbide da: Kristoren mezuari buruz nola diharduten ikusteko bide.

Marxismoa, judu-kristau giroan sortu zen. Mundu hori arras gaitzesten* duen arren, elementu asko hartu dio. Adibidez, geroko mundu hobeago baten itxaropena, eta zapaldua eta «xumea*» ere salbaziobide izan daitekeelako ideia. Marxismoaren osakai hauk, askorentzat, kristautasun berri batetarako bide gerta daitezke.

Alderdi honetatik, zilegi zaigu, beharbada, marxismoa, kristautasunaren ondoko ezezik, kristautasunaren aurretikoa deitzea. Izan ere, liburu hau idazten dugunok sinesten dugunez, Jainkoak gizadiarekiko zituen asmoen betekuntza dugu Kristo. Horregatik, haren ondoren sortu diren ideologietan: islamismo, humanismo eta marxismoan, Kristoren irudi argiago eta garbiago baten oharkabeko ametsa eta haztamukazko* bilaketa nabari ditugu; kristauok hain sarritan iluntzen dugun irudiarenak.

Jainkoaren Izpiritua mundu osoan

Ezin hasi gara hemen, aipatutako mundu-ikuskera horiek dituzten bekatu, satanaskeria eta gaitz alderdi guztiak xehekiro ematen. Hinduismoak eta budismoak nirbanaruntz zuzentzen dute giza izpiritua; islamismoak, Jainkoa Aita deitu ezin duen dotrina bati lotzen dio gizona; humanismoak ez ditu gidatu nahi Jainkoarengana seme-alabak, eta marxismoak, sekula etorriko ez den gero baten lilurakeria aurkezten du; honetan guztian, bada giza ustelkeriarik eta gaiztakeriarik. Halere, inor alde batera uzten ez duen izpirituaren usteonez, mundu ikuskera horiek adierazten dituzten egiari eta ontasunari ezarri nahi dizkiogu gure begiak, guztien gain.

Guretzako ere, protxugarri izan daiteke hori. Beste pentsakeretan dakusan egiaren isladurak*, Jesusen dotrinak dituen benetasuna eta sakontasuna garbiago ikusten lagun die-

gaitzesten: kondenatzen, arbuiatzen. **xumea:** txikerra. **haztamuka:** a tientas, à tàtons. **isladurak:** distirak.

zaioke kristauari (*232*). Honela dio Tomas Sainduak XIII. mendean, IV. mendeko Anbrosio Sainduaren esana berrituz: «Izan ere, egia oro, edonork hotsegina delarik ere, Izpiritu Sainduagandik dator. Gizadiak Jainkoaren bila darabilen azterketan, gizakia bilatuz Jainkoa ari da aztertzen.

Israel herriarengan hasi zen Jainkoa, fedeak dioskunez, egiaren bilaketa hori garbiagotu eta argiagotzen (*406-408*). Herri horren baitan eskaini zion bere burua gizadi osoari, eta lotu honen zoriari, bere aintza gertutuz joateko; aintza hauxe alegia:

> Zeren maite ere, bere seme bakarra emateraino maite izan bait du Jainkoak mundua (Jn 3,16).

Osasun kondaira hau emeki-emeki hasi zen, ez ustekabez eta bapatean, ez eta gizonen gora-beheren eta giza historiatik kanpo ere. Aldiz, Jainkoak bere burua goiagertu zueneko herriak, Ekialde Zaharreko edozelako herri baten gorabeherak eta pentsakera bizi zituen. Baina, hain zuzen, honetantxe ageri da aparteko berezitasuna, sinesgabeentzat asmagaitz den jatortasuna; eta sinesdunentzat ere, Jainkoak herri honetan gizadia bereziki maite zuen ezagugarri da hori. «Indarkeriarik gabe eta ia ohartu ere gabe, jainkotiar bidelaguna gizadiari elkartu zitzaion honen histori bidean. Iritsi orduko, elkar hizketan hasi zen. Giza bizitzari norabide berri bat ezartzeko parte hartu zuen. Horrela, hasera berri bat gertatu zen, bere fruitua emeki-emeki ematen ari dena» (H. Renckens).

B. — ISRAELEN BIDEA

Nilo eta Eufrates arteko lekuren batetan, jendetza nomada bat bizi zen. Egiptotik, zibilizazio garai* bat zuen herri horretatik ihes eginak ziren; gizarte nahiz erlijio mailan ezinezko egin bait zieten bizitza. Zalapartaka ihes egin ondoren, inongo segurantzarik gabe, Kades-en bertakotu ziren, basamortuko bakardadean, eta leinu desberdinezko federazio bat eratuz*. Hauen Jainkoaren izena Jahve zen.

Premia gorriari loturik, bizi besterik ez zezaketen egin. Eta bi munduren arteko hutsune horretan, ez zuten izpirituzko pentsakera eta bizitza mardul eta sakonik nabari. Leinu haietan, batetik aurrera egiteko deia, eta bestetik «Egiptoko eltzeetarako» joera zuten haietan bilatu zuen Jainkoak gizakia.

---

garai: handi. **eratuz:** moldatuz.

«Herri guztien artetik nire sail hautatua izango zarete niretzat; nirea bait da lur osoa» (Gn 19,5). Goiagerkunde hau, Testamentu Zaharreko liburu guztietan ikus daiteke.

Testamentu Zaharreko hildo nagusienak bakarrik azalduko ditugu hemen; nork bere irakurketan lagun izan ditzakeenak. Ondotik datorren haria, ordena honi lotzen zaio: Jainkoaren goiagèrkundea, Israeli honela heltzen zaio: 1. gertakizunak zehar; 2. gertakizun horiei buruzko hitzez; 3. hitz horik idatzirik ezarriz.

Jainkoak eginiko mirariak

Hebertarren artzain aroa (K.a. 1800-1200 gutxi gorabehera) 21

Gertaerak berak dira hitzik gabeko Jainkoaren goiagerkunde. Hebertar artzain batzuk Egiptotik ihes egiten dute. Gorabehera guztiz gizatarretan (izatearen, janariaren, jantziaren, etxebizitzaren eta, labur esanik, segurantza soil-soilaren aldeko borrokaldian) burutzen da Jainkoaren agerkundea; hein batetan bederen ordurako eginik zegoen bizimoldean, eta, agian, Jainkoa adierazteko aurretik erabilitako izenen bat hartuz, gainera. Gertakizun horietan, zeregin berezi-berezia, Moiseri dagokio, karismaz (goi-dohainez) hornitu rikoari.

Lauren bat mende aurretik, isiltasuna duzu nagusi. Herri bat ari da hazten-hazten Egipton. Ez dakigu besterik.

Baina, K.a. 1700. urtean, Jordan eta Mediterraneo tartean, Israelek bere arbasotzat hartzen dituen artzain batzu bizi ziren Kanaan-en: patriarkak. Abrahan, Isaak eta Israel ere zeritzaion Jakob dira. Hauexengandik hasten da Jainkoa bere historia gizonèn historian egiten. Doi-doi irudika ere ditzakegu zehatz-mehatz Jainkoak haien artean egindakoak, guregandik hain urrun bait daude. Baina bada gauza xundigarri* bat: patriarka horiei buruzko kontakizunek kontatzen dituzten usario* eta izenak alde askotatik bat datoz arkeologo modernuek idazki kuneiformeetatik ateratzen dutenarekin.

Bertakotzearen* aroa (K.a. 1200-1000 gutxi gorabehera) 22

Zer gertatu zen Moiseren ondoren? Hebertar leinu ibilkariak Kanaango lur emankorrera sartu ziren, eta lurralde

xundigarri: harrigarri. **usario:** ohitura. **bertakotze:** lekukotze.

horietako hiri-biztanleen* eta haien artean gerratea sortu zen. Bibliak dioen baino gutxiago izan ziren, noski, hildakoak. Denborarekin menperatua izan zen lurraldea.

Mende hauetatik, izen batzu heldu zaizkigu: Josue eta, geroago, *epaileak*: esate baterako, Sanson, Gedeon eta Jefte. Kontakizun beraiei darienez, latzak ziren aldi haik (*41*).

Lurralde guztian hedatuak zeuden leinuak: Jerusalenen hego-aldean, Juda leinua (eta gerora galdu zen Simeon-ena); beste guztiak, ipar aldean. Oraindik ez zen menperatua izan Jerusalen. Bi lurraldeen artean burdin ziri bat bezala zen. Jahveren kultua zen guztiak elkarrekin batzen zituena.

Israel Kanaan-era sartzean, gauza guztiz nabarmen bat gertatu zen. Erlijio zientziak dioenez, herri ibilkari batek, Israeli gertatu zitzaion bezala, geldikor* eta leku bateko, hau da, nekazari eta abelzain bihurtzean, erlijioa ere aldatu egiten du. Leinuaren Jainko bakarraren ordez, tokiko landetako eta emankortasun* jainko saila hartu ohi du.

Gauza harrigarria, Israelen hori ez gertatzea izan zen. Noski, lurraldeko emankortasun jainkoak, Baal eta Astarte, onartzeko joerarik ez zitzaion falta Israeli; baina, herriak, herri bezala, ez zion men egin tentazio horri. Basamortuko goiagerkundeari zintzo eutsi zion lur langintzan. Ondoriorik ukan zuen horrek: indarra, batasuna eta bakea eman zizkion Jahvek.

Ekialdeko monarkia zaharraren aroa (K.a. 1000-587 inguruan) 23

Herria hurrengo kultur mailara sartzen denean, fenomenu bera nabari da. Horrela bada, 1000. urte inguruan jo zuen gaina bere bertakotze hartan: erreinu bihurtzen da. Dabid errege! Berau jabetu zen Jerusalenez. Eta Salomon errege tenploa jaso zuena!

Erlijioen eboluzio bideen arabera, estatu erlijio bilakatu behar zukeen orduan, Jainkoa, ezarririko agintearen pertsonifikazio izanen zukeena: zeru goietako itzal bezala. Estatuak nahia eginen eta esanen zukeena (*20*): halaxe zen Marduk, babiloniar jainkoa: Babiloniako erregeren gogoaren zeruko proiezio. Hori bera gertatuko ote zitzaion Israeli, Ekialde Zaharreko erreinuen antzeko bihurtzean?

Jahve, erregeren eta aberriaren Jainko bilakatu zen. Bizitzaren eta erlijioaren artean bazen batasun bat. Jahvismoa-

hiri-biztanle: hiritar. **geldikor:** sedentario, sédentaire. **emankortasun:** fecundidad, fecondité.

ren eguerdi nare eta beroa izan zen: ez zen gizarte bizitzaren eta erlijioaren, ugaritasunaren eta kulturaren arteko etsaigorik. Jahve, ordea, ez zen Estatuaren kreazio izan. Ez; inguruko herrietan gertatzen ez zen bezala, Jahve bera izan zen Estatua tankeratu zuena. Jahve Estatuaren esku-makila egiteko joerarik ez zen falta izan, jakina; baina, Jahve Jainko bizi zen. Erreinu zabalean zehar azaltzen diren profeten bidez, *garbi eutsi zion bere goiagerkundeari (26).*

Salomonen ondoren, gero eta gehiagoan erori zen erregedia* ekialdeko itxura berezia zuen despotismora; hainbat handiagoa izan zen aro honetan profeten eginkizuna, herrian Jahveren egiazko adoratzaile taldea sortuz: egiazko *hondarra** alegia. Erlijioa eta Estatua ez ziren berriz bateratu.

Herbestealdia (K.a. 587-539) 24

Eten* hori, Israelen mezuaren salbazioa izan zen; Estatua galdu egin bait zen, profetek aldez aurretik esan bezala. Erresuma, Salomon hiltzean bitan banatua, bi Estatu txiki eginik gelditu zen, Mesopotamia eta Egipto bi erresuma handikien tartean, eta azkenean horien hanpakera erori zen. Kristo aurreko 721. urtean, iparraldeko erresuma (Israel, Samaria hiriburu zuena) Asiriak gatibu eraman zuen; 587an, hegoaldeko erresuma (Juda, Jerusalen hiriburu zuela) Babiloniak eraman zuen.

Estatua itzaltzearekin —erlijio kondaira legeen arabera beti ere— naziotar Jainkoak ere itzali egin beharko zukeen. Baina Jahvek iraun egin zuen. Gatibualdiko* *eremu* berrian, berriro sumatua izan zen. Beste herrien artean, oraino ohartukiago ezagutzen du Israelek zeru-lurren egiletzat. Bere profeten esanera, *hondar* bat zuzentzen du aberrira, K.a. 539. urtean Babilonia pertsiarren menpera jausi* zenean.

Judaismo aroa (gutxi gorabehera, K.a. 500. urtetik) 25

Juda zaharreko bizilagunak izan ziren, batez ere, herriratu zirenak. Horregatik deritzaie ondorengo bost mendeei judaismo aroa. Jerusalen bir-eraiki zen; baina doi-doi ageri da aro horretan ekintza politiko handirik. Kristo aurreko II. gizaldian, Makabeitarren agintaritzapean, matxinada* bat izan zen greziar nagusigoaren aurka. 63an, berriz, erromatarren eskumendea* etorri zen.

---

erregedia: reino. **hondarra:** el resto, il reste. **eten:** haustura. **gatibualdi:** cautividad; captivité. **jausi:** erori. **matxinada:** errebolta. **eskumendea:** ocupación; occupation.

Herri honen indarra ez datza honen beregaintasun* politikoan. Jerusalen, mundu zahar guztian gaindi sakabanaturik, baina galdu gabe zebilen herri baten bihotza izatera heldu zen. *Diaspora* (sakabanaketa) izenaz, Palestinatik kanpora bizi diren juduak izendatzen dira. Gizaldi hauk zehar, gizaki xume, fede handiko asko bizi da herri honetan: beren eskasia ezagutu eta beren esperantza osoa Jainkoaren etorreran ipintzen dutenak dira (*48, 55*). «Jahveren behartsuak» deritzate (*47, 57, 67*). Egun batez —gizadi osoaren onerako— horien artean sortuko da Jesus, Jerusalendik hurbil (*284, 344*).

Hori da Testamentu Zaharreko kondaira; artzantza aroan, nekazaritza aroan eta nazio aroan banatua, eta han-hemen barreiaturiko izpiritu elkarte bilakatzeraino. Gutako nornahiren bizitzako gorabeherak bezalaxe, mundutar gertakizun arruntak* dira Kondaira hori osatzen dutenak. Horietan agertzen da Jainkoaren leialtasuna (*155*). (Jesusen biztuera ondorengo Israelekiko Jainkoaren leialtasunaz, ikus «Eliza sor-berria» delako kapitulua).

Jainkoaren Hitza

Agertzen duen hitza 26

Oraindainokoan, gertaera soilez mintzatzeari atxeki* gatzaizkio ahaleginean. Begieman dezagun orain haseratik Israelen ziharduen hitza.

Jaiegunetan, dantzatu, abestu, entzun egiten zen; liturgia hura, kantuz, otoitzez eta, batez ere, kontakizunez, egiten zen. Horrela hasi zen gertakizunen mamia garbi agertzen. Hitzaren bidez bakarrik bihurtzen da egiazko errealitate. Eta Jainkoaren egintza hau ager zedin, goiargituriko fededunen batek argitu behar zuen gertaeretan.

Iraganaren ilunpean izkutatu da gehienetan hitz mintzatuaren berehalako ondorioa. Halere, bada aro bat hobeto ezagutua, eta Israelen kondaira guztian hitzak ukan duen indarra nahiko argi ematen duena. Profeten aroa da, herriari Jahvez mintzo zitzaizkionena. Beren fede sakonaz, Jainkoaren asmoen arabera ibiltzen ziren.

Baina, Israelek ez zuen itsu-itsuan hartzen Jahveren izenean mintzoki* zetorkion edonor; bazen sasi-profetarik ere. Egiazko profetek beren mezuaz «egiztatzen*» zuten beren burua; mezu hori bat zetorren Jahverekiko fede garbiarekin, Jainkoak egiaz eta bereziki dakarren askapen esperientzia-

beregaintasun: autonomía. **arruntak:** ohikoak. **atxeki:** lotu. **mintzoki:** hitz eginez. **egiztatzen:** frogatzen.

rekin. Belaunez belaun*, Jainkoaren egia hori, beti tankera berrian, eta gero eta izpirituzkoagoan adiarazten da. Profeten hitza ez zitzaion erlijiotasun erraz eta alferrari egokitzen, ez eta erregeren eta herriaren ameskeriei ere. Sarri askotan, buru banaketa sortzen zuen hizkera gogorra zen. Bihotz garbi zenak antzematen* zion poz berriari; antzematen zion egiazko Israelen deiari.

Elkargoa (Ituna) 27

Bil ote daiteke hitz batetara Israeli emandako mezuaren mamia?

Beharbada, «elkargo» hitzaz. Elkargoak, elkarren arteko batasuna eta adiskidetasuna adiarazten ditu. Batasuna eta adiskidetasuna, herriaren beraren baitan, eta Jainkoaren eta herriaren artean. Ezin berez daitezke batasun era bi hauk (*229, 311-312*). Jahverekin bat-eginik egonez, bat ziren elkarren artean ere. Eta elkarren artean izanez, Jainkoarekin ere bat zen herria.

Elkargoaz dihardu beti predikuak. Honen egitekoa hauxe zen: nola historian hala gizaki bakoitzaren bizitzan, gauzarik sakonena, Jainkoak egiten digun bere adiskidetasunaren eta leialtasunaren eskaintza dela adieraztea (*395*); gauzarik sakonena, gizon-emakumeen arteko leialtasun eta adiskidetasuna dela adieraztea.

Jainkoaren hitzak, horrela eta bide batez, Israeli eta kristautasunari bereziki dagokien beste gauza bat agertzen zuen: bekatua (*225, 376, 388-389*). Bekatuak, hondo-hondoan, hauxe adierazten du: hutsegitea ez dela akats soil bat, gizakia ez dela kanpotik hatzematen* duen indar gaiztoren baten jostailu; ez; bekatua, desleialtasun pertsonal bat da, adiskidetasun pertsonal baten aurka doana. Gaitza beti gauza pertsonala da. Israeli, giza historia, maitasun historia bezala ageri zaio, eta horrez gero, zinez* hartu beharreko gauza bezala.

Hitza Israelen kondaira osoan *(32)* 28

Ez da erraza, patriarken aldian (*21*) hitza zer izan zen zehazki jakitea. Jainkoaren izen zaharrek, «Jakoben Indartsu» izenak, esate batetarako, zerbait adierazten digute. Jakoben eta Jainkoaren arteko elkargoa idarokitzen* du esaera horrek. Abrahan, Isaak eta Jakobekin hasten da elkargo hori. Mundu

belaunez-belaun: gizaldiz-gizaldi. **antzematen:** ezagutzen. **atzematen:** iristen, heltzen. **zinez:** benetan. **idarokitzen:** bururatzen.

eta Jainkoarekiko ikusmodu primitibu batekin nahasirik bazen ere, elkargo berezi hori sartu zen mundura. Abrahan, noski, gu ezbezala bizi izan zen, guk ezbezala pentsatzen zuen. Baina, Jainkoaz guk ditugun esperientziak, berak ere ukan zituen. Jainkoaren beraren adiskide gara. Zerbaitegatik deitzen dugu erdi basati zen gizon ibiltari hau gure fedearen aita.

Egiptotik atera zirenetik, leinuen federazioa egiten hasten den garaiko (*21*) formularik heldu zaigu: «hamar aginduak» esaterako. Lehenengo hirurak Jahverekiko harremanez mintzo dira; beste zazpiak, gure elkarren artekoez. Berriro hauxe ageri zaigu: bata bestearen arteko batasuna zein hestu datxekon guztion eta Jahveren artekoari.

Epaileen mendeetan, akordio, eresi eta kontakizun berriak sortu ziren, artean primitibua zen Elkargoa indartu eta finkatuz.

Lehen zeregina Elkargoari eustea zuen Dabiden erregealdian, besteren artean, «salmu» izeneko eresi liturgikoak sortu ziren. Orduan hasten da Profeten ahotsa ere (*26*). Esana dugunez, hots hori gero eta ozenago* egin da, erregedia aurrera joan ahala. Eta beltz agertzen du elkargoaren aurka doana: Jahverekiko desleialtasuna eta lagun hurkoarekiko bihotz gogorkeria. Bere senarra zapuzten duen, baina senarrak ezin ahantzi* duen emazte maitearen irudi negargarriz mintzo dira profetak Jahveren maitasunaz eta haserreaz, eta Jahvek, berè aldetik, elkargoa inoiz ere ez hausteko duen asmoaz.

Gatibualdiko atsekabe garaian, Jainkoaren agortu ezineko leialtasun hori, lehen mailan ageri da, gozagarri eta bizgarri bezala. Garai hartan, talde txiki bezala, aberririk eta tenplorik gabe, erlijio liluragarri eta erakarleren artean bizi behar izan zuen hartan, Jahverekiko bere elkargoaz bizikiago jabetu zen Israel.

Gatibualdi ondoko berriztapen eta barreiadura* garaian (*24-25*) eutsi egin zion jarrera horri. Jahverekiko leial irauteak, historia egitea eta etorkizunaren zain egotea esan nahi du. Fede hori mila eratara adierazten da.

Hastapen* garaien kontakizunak 29

Gatibualdi aurreko eta ondoko mendeetan, Israelen historiaren esanahia ezezik, gizadi osoaren historiarena ere, Jainkoaren argiaz argitu nahi izan zuen ahotsik izan zen (*209-211*). Hastapen garaietako kontakizuna, egun Bibliaren buruan

ozenago: argiago, biziago. **ahantzi:** ahaztu. **barreiadura:** sakabanatzea. **hastapen:** hasera.

agertzen dena (Gn 1-11: Adan eta Eba, Kain, Noe, Babel) orduantxe tankeratu zen. Beste toki batetan agertuko dugu kapitulu horien xedea: ez dute, alegia, egite historiko jakinik eman nahi, Jainkoaren eta Israelen artean gertatua, Jainkoaren eta gizadi osoaren artean gertatzen dela adierazi baizik: Jainkoak, bere aldetik egindako elkargo eskaintzari, gure bekatua ipintzen diogula buruz buru. Horixe da ahantzi ezineko kontakizun horien mezu sakona, guztioi dagokiguna.

Israelen hiru fenomenu bereziak 30

Mesianismoa

Jainkoaren leialtasunaren mezuak, munduan bakarra den fenomenua dakar Israelera: zerbait espero da Jainkoagandik. Noski, gizaki orok irrikatzen du salbazioa, eta erlijio oro da salbazio dotrina. Baina, Israelek bakarrik bizi du salbazio hori geure giza desleialtasunaren askapen, bekatuaren askapen dugulako uste bizia.

Gainera, Israelek bakarrik bizi du salbazioa historian betetzen delako ustea. *Jomuga** *bateruntz** doa mundua. Jomuga honek, Dabidengandik hasita, era konkretu bat hartzen du: Dabiden etxearekiko leialtasunari zintzo eutsiko dio Jainkoak, profeten ahotsak iragartzen duenez. Jahveren izenean salbazioa aginduko duen norbait sortuko da gerora Dabiden etxetik. Jahveren bidalia espero zuen Israelek: Mesia.

Kondairaren bidea

Jainko biziarekiko harreman hestuak dituelarik, historiaren norabidea jakin nahian dabil Israel (*33, 164*). Honetan ere, bakarra da Israel aitzinateko Ekialdean. Herri txiker* honek, bere inguruko erresuma handiek baino kultura askoz kaxkarragoa zuen honek, paregabeko historia gatzatu* zuen. Beste herri askotan ere aurkitzen dugu kronika eta kontakizunik ugari, bai, baina, Israelek bakarrik du ardurarik, gertaeren geroko ondoreaz eta elkarren arteko loturaz. Jainko bizia kondairan ari dela etsirik* dago Israel.

Monoteismoa

Mesiaren agintza eta kondairaren norabidea, Israelgo erlijioaren beste ezagugarri bati hestuki loturik doaz: Jainko bakarraren kultuari eta gurtzapenari.

Jomuga: helburu, xede. **bateruntz:** bati buruz. **txiker:** txiki. **gatzatu:** mamitu, burutu. **etsirik:** sinetsita.

Monoteismo beste tankerarik bada, noski, beste leku batzutan ere. Esate baterako, Egipton, Eknaton faraoiak eguzkia adoratzen zuen, eta beste erlijiotan beste jainko guztien artean garaiena bezala, Jainko bakar bat gurtu izan zen. Baina hauek sekula ez dute Israelen egiazko Jainkoak dituen indar, mami eta ondorenik agertu. Monoteismoa ez da Israelen lehenik zenbaki prolema. Zerbait osoago eta sakonago da, bizi-bizia den zerbait, hau da, bakarra dela. Bera, eragile eta salbatzaile paregabea (*220-233*). Garai haretako erlijioetan ez du parekorik, ez eta urrik eman ere, Jainkoaren ideia honek.

Jainkoaren hurbiltasunaren esperientzia
Jainkoa bere hitzez gertu dago 31

Hitza

Hitza zen Israelen Jainkoaren egintza egiazko argitan ipintzeko bidea. Baina, honexegatik zen, hain zuzen, zerbait handiago ere. Hitza bera ere agerkundea zen. Jahveren egintza zen. Izadiaren kreatzailea, begien aurrean agertzen zitzaion haren bidez zorigaiztoko gizakiari.

> «Belarra bezalaxe da haragi oro.
> Baina Jainkoaren hitzak beti dirau*» (Is 40,6-8).

Horrela kantatzen zuen «bigarren Isaiak» gatibualdi bukaeran. Eta orobat:

> «Euria eta elurra zerutik jaitsiz gero ez bait dira berriro hara itzultzen lurra busti, gizendu eta ernarazi gabe, eta ereileari hazia eta jateko ogia emateko eran lurra jarri gabe; berebat nire ahotik ateratzen den hitzik ere ez da berriz nireganatzen azken-onik gabe, nik nahi nuena eta bere egitekoa bete gabe» (Is 35,10-11).

Legea

Hitzaren bidez hurbiltzen da Jainkoa guregana. Guregandik hurbil dago, orobat*, hitz tankera berezi batez: herriaren kontzientzia erakusten duen *legeaz* (*306-310*). Legearen bidez *ukitzen* ahal zen Jainkoa.

> «Horrela agertuko zarete jakinduriaz eta zuhurtasunez herrien aurrean! Lege guztion berri jakin dezatenean, hala esanen dute: "Inor bai eta hauxe benetan herri jakintsu eta zuhurra, nazio handi hau!" Zein da beraz nazio handirik, bere jainkoak, deitzen dugun bakoitzean, guk gure Jainko Jahve bezain hurbil dituenik? Eta zein da nazio handirik, bere lege eta ohiturak, nik gaur aurkezten dizuedan Lege hau bezain zintzoak dituenik?» (Dt 4,6-8).

---

dirau: irauten du. **orobat:** berdin, baita ere.

Legearen Aginduak «ez daude zeruan zu esaka has zaitezen: Bai, eta nor igoko zaigu zerura Lege horren bila...? Zeure ondo-ondoan bait duzu Hitza; bai, zeure ahoan duzu eta zeure bihotzean...» (Dt 30,12-14).

Jakinduria

Badu oraino beste adierazpen bat Israelek Jainkoaren gertutasuna adierazteko: jakinduria. Berandu samarreko hitza da, esanahiz trinkoa, Jainkoaren presentzia adierazko erabilia:

«Jaunagandik dator jakinduria oro
eta haren baitan* dago beti-betiko.
Itsasoko hondarrak, euriaren tantak,
betikotasunaren egunak, nork konta ditzake?
Zeruaren goitasuna, lurraren zabaleroa,
itsasoaren sakona, nork neurtu?
Gauza guztien aurretik izan zen sortua Jakinduria;
adimenaren argia aspaldiaren aspaldienetik dator»
(Koh 1,1-5).

Geldiune bat egin dezagun jakinduri ideia hau sakontzeko. Has gaitezen geure mundu modernu honetatik.

Gauza xundigarria gerta daiteke, noski, elementu komikoen sailketa ikustea: letra eta zifra kuadro horretan gure lur hau osatzen duten elementu guztien izendegia aurki dezakezu. «Aldizkako sistima» deritzaiona da. Bai adimendu zorrotza behar izan dela halako sistima lantzeko! Halaz guztiz, asmazio hori, gauzen baitan jadanik* dagoen zerbaitetaz gogoetaka* aritzea besterik ez da; hasera-haseratik jakinduria batek pentsatua zuen zerbaitetaz pentsatzea besterik ez.

Hegazti pasaiak aztertu izan dira. Eta gizonarengan oharmen harrigarririk badela adierazi ere bai. Baina eta, zer esan, ahalmen kreatzaileaz, hegaztiei horrelako hegazkerarik eman dienaz?

Zoragarria benetan zenbait pertsonaren —etxekoandre edo ostalari baten, adiskide baten, maite baten— jakinduria: poza emateko gisako hitz doinu egoki eta hitz eztia ateratzen dituenarena. Eta zer esan, halako hitzak aurkitzeko, eta berdin, halako hitzak hartzeko gauza den bihotza asmatu duen hartaz.

Den guztiaren aurretik, jakinduria fin eta sarkor bat dago, munduan ordena, bizitza, ezaguera, jakinduria hazi arazten dituena. Jakinduria hori Jainkoagandik dator. Israelek, zenbaitetan, egina den errealitate bezala azaltzen eta gizon-emakumeon ardura duen Jainkoaren aurpegia da.

Jakinduria hau pertsona bezala azaltzen da askotan; horren handia da Israelen mirespena eta esker-ona! Ez, noski, pertsonatzat hartzen duelako; jakinduria irudikatzeko modu berezi bat da. Olerki* irudiz hona zer esan arazten zaion:

---

haren baitan: harengan. **jadanik:** aurretik. **gogoetaka:** pentsatzen. **olerki:** poesia.

Itsas leizeak izaterako sortua nintzen...
Zeruak finkatu zituenean, han nintzen ni.
Lurraren zimenduak jarri zituenean
haren ondoan nintzen ni arkitekto gisa...
lurbira osoan atseginduz...» (Es Za 8,24-31).

Jakinduria liburuan honela irakurtzen dugu:

«Badu horrek halako izpiritu zera bat zolia*, saindua,
bakar eta askotarikoa, fina,
arina, sarkorra, lohigabea, argia, minduezina, onbera,
zorrotza, ikaraezina, ongilea, gizonen laguna,
iraunkorra, ziurra, lasaia,
guztiahalduna, orozaintzailea,
izpiritu orori igertzen diona,
zoliari, garbiari nahiz finenari...
Jainko ahalmenaren hatsaldi bat bait da izan ere,
Guztiahaldunak duen gloriaren isuri garbi-garbi bat;
horregatik ez dezake ezer lohituk uki.
Betiko argiaren distira bat da,
Jainko ihardunaren ispilu orbangabea,
horren bikaintasunaren irudi bat». (Jk 7,22-23.25-26).

Jakintsu modernu batek hau ohar arazi du: etengabean aldatzen eta desegiten ari den materian, errealitate iraunkor eta aldakaitz bakarra naturaren legeak direla. Gonbaraziobidez, oharpen honek egoki lagun diezaguke, Israeli Jainkoaren jakinduria nola agertu zitzaion ulertzeko. Honela bait darrai* *Jakinduria* liburua:

«Bakarra izan arren, dena dezake;
bere baitatik irten gabe dena berritzen du» (Jk 7,27a).

Jakinduria honen agerpen garaiena gizonarengan dago. Ez adimenduan bakarrik, gizakiaren bizitza osoan baizik: ontasunean, saindutasunean.

Testua horrela jarraitzen da:

«Arima sainduetan isurtzen da gizaldietan zehar,
eta Jainkoaren adiskide eta profeta bihurtzen ditu» (Jk 7,27b).

Lurgainean den gauzarik bikainena da. Idazle sakratuak horrela dio aurreraxeago:

«Horixe izan dut maite, eta horixe irrika gaztetxo nintzenetik; ahaleginak egin nituen horixe emaztetzat nereganatzeko» (Jk 8,2).

Hitza, legea, jakinduria: gauza bat beraren adiarazpen* dira, hau da, Jainko bizia Israelekin eta munduarekin iharduteraino makurtu dela. *Jakinduria* astiroago* aztertu badugu, kontzetu hori predikuan doi-doi erabilia delako izan da. Baina, batez ere, honengatik luzatu gara azterketa horretan: *jakinduria, hitza* bezalaxe, Testamentu Berrian *norbait* bezala adierazia datorrelako. Paulo, Kristotaz, Testamentu Zaharrak jakinduriaz dakartzan hitz berdinez mintzo da: «Haren (Jainkoaren) aintzaren distira da» (Heb 1,3).

«Bera da Jainko ikusezinaren irudi... harengan izan bait ziren sortuak gauza guztiak zeruetan eta lurrean... Harengatik eta harentzat izan zen dena sortua. Bera da guztiaren aurretik eta harengan du guztiak iraupen» (Kol 1,15-17).

zolia: bizkorra, argia. **darrai:** jarraitzen zaio. **adierazpen:** ulerkera. **astiroago:** luzekiago.

Jainkoa, norbait konkretu bezala atera zaigu bidera: haragi egindako Haren Hitza bezala.

Hitzaren, legearen eta jakinduriaren bitartez ukan zuen Jainkoak bere lehen harremana gizadiarekin; harreman aski izkutua, noski: Hitzaren haragitzearen*, Jakinduriaren agerpenaren prestaera izan zen (*52*). Onuragarri gerta dakiguke, noiz edo noiz, gure gogoa Testamentu Zaharreko zehaztapen kosmiko horietara itzultzea; gero eta gehiago ikusiko genuke mundu honetako errealitate orotan zein sakon diharduen Kristok (*416*).

Liburu Sainduak

Israeli zuzendutako hitza haizeak eraman ote du? Gehiena bai, noski. Baina, zerbait, mamia hain zuzen, izkribuetan gelditu da. Hitza idatzi egin da. Hain gauza saindu hori geure artean dugu. Jainkoak basamortuan egindako agerkundea, geure liburutegiko apaletan dugu. Esku-aldatuz*, geureganatu egin dugu Jainkoaren hitza.

Idatziz noiz emana izan den? Zerbait Dabiden denboran gutxi gorabehera (K.a. 1000. urtean), eta gero, Israelen kondaira guztian zehar. Mila urtetako baino gehiagoko lana biltzen duen idazki sorta bat da Testamentu Zaharra. Askotan, liburu jakin bat bera ere ez da batean idatzia izan. Asko, piskana-piskana sortuz joan ziren, gizaldietan landuak izan diren katedralen antzera. *Exodo* liburua duzu adibide bat: Dabiden garaiko legeak, gatibualdi ondorengo beste batzuekin nahasten dira. Herri beraren arabera biribiltzen doan araudia. *Salmu* liburua ere, horrela joan zen handituz. Salmu zaharrenaren eta berrienaren artean, beharbada 800 urte iraganik izango dira. Herri baten bizitzaldi luzea distiratzen du Testamentu Zaharrak. Literatur lorategi batekin aldera* daiteke, haseratik gaurdainoko munduko literaturarik nagusiena lekarkikeen literatur lorategiarekin. Alde honekin ordea: Israelen literaturak, herri horren eragile denaren eragina jasaiten duela: Israel eta mundua salbatzeko Jainkoak duen ardura alegia. Eta horretxek ematen dio Testamentu Zaharrari egundoko* batasuna.

Nola sortu zen Biblia? 32

Hizkuntzaz eta idazkeraz egindako azterketei esker, gero eta zehatzago bereiz ditzakegu Bibli taxuketaren* aro bereiziak (*28,35*). Gai hau

haragitze: gizon egite. **esku-aldatu:** transmitir, transmettre. **aldera:** alderatu, gonbaratu. **egundoko:** handi. **taxuketa:** moldaketa.

gogoko dutenentzat, laburpena damagu berehala; horrela kapitulu honen prediku tankera eten egiten dela uste dutenei, berriz, adikortasun* piskat eskatu beharrean gara.

Lehen aroa, aitzinako erregealdiko (1000-750 inguruan) Jahvista eta elohista (Y eta E) autoreena da. Izen hori, talde bakoitzak Jainkoa adierazteko darabilen izenetik datorkie: Jahve ala Elohim. Beren garaiko historia damaigute. (Esate baterako: 2 Samuel 9tik 1 Erregeak 2ra doana, Bibliako zati garrantzitsuenetakoa da, eta klasiko bilakatu* da). Ingurumari horietan, gainera, aitzina taxutuak izan ziren eta ahoz-aho aldatzen ziren pasarteak ere finkatu egin ziren erabat. Puska zahar horietatik, aipa ditzagun hauk: hamar aginduak, 29. Salmua eta *Epaileak* liburuko 5. kapituluan *Deboraren* eresia. Paradisuaren kontakizuna ere (Gn 2 eta 3), jahvista eta elohista giroan idatziz eman izan ziren puska zaharretarikoa da. Esan daiteke, oro har, Pentateukoren (Testamentu Zaharreko lehen bost liburuen) oinarriak garai honetan ezarri zirela.

Bibli taxuketaren bigarren aroa, profeta mugimenduari datxekona* da. 750-500 urtealdi ingurukoa. Profeten liburu gehienak ezezik, *Josue* eta *Epaileak* izeneko liburuak ere, eta *Samuelen* lehendabizikoa eta bigarrena ere, eta *Erregeen* lehena eta bigarrena ere, aro honetakoak dira. Gainera, jadanik literatura bir-landu eta bildu egin zen. Etsenplu nabarmenena, legea profeta hizkeraz bir-idaztea izan zen: bigarren legea edo *Deuteronomioa* da. Horregatik, aro honetako literaturari deuteronomiko (D) eskola izena eman zaio.

Azkenik gatibualdi osteko* erlijio literatura ere aipatu behar da. Honen egileak apaizak izan ziren batez ere. Hortik, apaiz eskola izena (P = alemanez «Priester»). Eskola hau, judu herriaren historia idazteari darraikio *(Kronika* bi liburuak, *Esdra, Nehemia).* Garai honetan ematen zaie azken eskua ordurarteko liburuei (*Genesi* liburuko lehen kapituluan dagoen kreazio poema garai honetakoa da). Lege, salmu, esaera asko, idatzi egiten da aro honetan.

200. urte inguruan, Palestinatik kanpo bizi ziren fede biziko judu elkarteetan, Bibliaren greziar itzulpena azaltzen da. Itzulpen honi *Hirurogei eta hamarrena* deritzaio. Apostoluek hauxe erabili zuten gehienik.

Eskola horien idazketa desberdinak laburkiro erakutsi nahi bagenitu, Y eta E *jatorrak* direla esango genuke; D *beroa* dela, eta P *argia.* Biblia burutu duena, herri bizi eta osoa izan da.

Ez dugu pentsatu behar, idazten ari zirenek Liburu Sainduak idazten ari zirela uste zutenik. Beherago, Jainkoaren Izpirituaren izpirazioaz mintzatuko gara (*39*).

Beste lerro batzu orain, Liburu Sainduak kanoniko bezala, hots, ofizialki liburu sakratu bezala onartuak izateko behar izan ziren urratsez* (*160*). Badakigu, K.a. 450. urte inguruan, samariarrek, judu-

adikortasun: konprentsio. **bilakatu:** bihurtu. **datxekona:** dagokiona. **osteko:** ondorengo. **urratsez:** pausoez.

tarrengandik bereizi zirenean, *Pentateuko* (Legea) berekin eraman zutela. Horretatik atera daiteke, garai hartan, Pentateuko bakarrik zedukatela kanonikotzat.

Garbi frogatua dago, K.a. 300. urte inguruan, *Profetak* ere liburu kanonikotzat onartzen direla; orobat *Josue* eta honen ondorengoak, *Erregeen* liburuetaraino, hauk ere barne (sail hori guztia deitzen zuten juduek «*Profeta Izkribuak*»). Gainerako liburuak (juduen artean «izkribu» izen arruntaz ezagutzen zirenak) ez zituen Testamentu Zaharrak kanoniko bezala hartu. Biblia grezieraz eman zen garaian, beste liburu batzu erantsi zitzaizkion heberkerazko Bibliari; Diasporan (barreiaduran) bizi ziren fede zuzeneko Juduetarik zetozen. Hona zein ziren liburu hauk: *Tobia, Judit, Ester* liburuaren zenbait zati, *Makabeitarrak* bi liburuak, *Jakinduria, Ben Sirak* (edo Ikastuna, Ecclesiastico), *Baruk, Daniel* liburuaren zenbait zati.

Kristoren ondoko 200. urtera arte, Elizak ez zuen ukan inoren istilurik azken liburu horik onartzen zituela eta. Baina, Juduekiko eztabaidan baliogabe gertatu zitzaizkion; Kristo ondoko 100. urte inguruan, Juduak heberkerazko Bibliara itzuli bait ziren. Horrenbestez, konfliktobide gertatu zen arazo hori Elizaren haseran. Tradizio katolikoak gorde egin ditu bere Biblian; Kalbinotar Erreformak saihestu egin ditu; luterotar Elizek Bibliaren azkenean ematen dituzte, irakurgai jainkotiar bezala. Arazoa, ordea, ez da ematen duen bezain handia. Liburu horik —aski ederrak bestalde— Biblian ezartzeak ez du esan nahi besteek hainbateko garrantzirik dutenik. Eta Agerkundeari ez diote mezu berririk eransten.

Bibliako izenak idazterakoan, protestanteak eta katolikoak ez ziren bat etorri. *Hirurogei eta hamarren* itzulpenari jarraitu zitzaizkion katolikoak puntu honetan; beraz, Kristo aurreko 200. urte inguruan grezieraz eman zen idazkera hartu zuten. Protestanteek, berriz, lehen Erdi Aroan juduek finkatutako idazkera hartu zuten: heberkerazko hitzei bokalak ezarri zitzaizkien garaikoa (hebertarren hizkuntzak berez bokalik ez du). Hemen, gure inguruan erabiliena den idazkerari heltzen diogu.

Literatur motak. Noraino har hitzez-hitz Bibliako kontakizunak 33

Utz ditzagun horrenbestez Biblia aditzeko behar-beharrezko ez diren berri horik, eta itzul gaitezen Bibliako testuak ulertzeko premiazkoago den puntu honetara. Testamentu Zaharrean arazo honekin aurkitzen gara: «literatur mota» desberdinak daudela bertan (*115*). Arazo honi, une batez, atxeki* beharrean gara.

---

atxeki: heldu.

Zer aditzen da «literatur mota» hitzez? Hizkuntzaz baliatzeko era bat da «literatur mota». Horrela, lege nahiz etxagintzaz zehaztapenen bat emateko, poema bat idazteko ezbezalako hizkuntza erabiltzen duzu. Lehenengoan marrazketa ahalik zehatzena egiten duzu; bigarrenean, zerbait idarokitzea* duzu helburu. Nobela, eta ageri edo dokumentu bat literatur mota desberdinez baliatzen dira. Nobela, kontakizun bat da, bizitzako gauza bat adierazten du, «gizakia» adierazten du, baina ez da beharrezko kontatua den bezala gertatua izatea: dokumentu edo agerian, berriz, zehatz-mehatz, egiaz gertatua kontatzen da, gizakiaren egunoroko bizitza benetan ematen ez badu ere.

Geuk ere, horretaz ohartu gabe, sarritan erabiltzen ditugu literatur mota desberdinak, mintzatzean nahiz idaztean. Ixtripuren* batetan haur bat ikusi baduzu, poliziari ez diozu hildakoaren gurasoei bezala kontatuko, ez eta zeure emazteari ere; eta gertakizun bera delarik. Horra hiru mota: bakoitzean gauza berak desberdin kontatzen dira: batzu utzi, beste batzu atzekoz aurrera esan... Pertsona desberdinak, sarritan, «literatur mota» desberdinez baliatzen dira. Batek, zehatz-mehatz kontatzen du, gertatu den bezala, barne bizitasunik gabe, poliziaren lekuko*-ageria balitz bezala; bestek, gauzak piskat hanpatu* egiten ditu, gertatuaren biziaz bere kontakizuna bete nahirik. Mintzo dena ezagutzen ez baduzu, aisa* hutsegin dezakezu, gaizki ulertuz. Lehenengoan, mintzo* denari gertatua bost axola zaiola esanen duzu; bigarrenean, gezurra dioela. Egiaz, ordëa, bi hizkera desberdin dira.

Esaten eta idazten den guztia, zein bere literatur motaren arabera epaitu behar da. Bestela, oker ulertzea ezinbesteko* gauza da. Literatur mota, familien, gizarte sailen eta eskualdeen arabera bereiz daiteke. Hitz batek berak beste hitzen inguruaren, euskalkiaren eta autorearen arabera, ñabardura edo ukitu desberdinak ukan ditzake.

Arotik arora ere, literatur motak desberdinak izan daitezke. Orain 30 urteko esaldi luze-luze batek hainbateko sua, hitz labur batek ukan dezake gaur. Alde hauk begien aurrean edukitzen ez badira, esaten denaren adiera nahastea gauza erraza da.

Hain zuzen, Testamentu Zaharra interpretatzean, hutsegiterik gertatu da arrazoin horrengatik. Esaterako, mila eta berrehun kilometroren tarteak, edota hogei eta hamar urterenak, gauzak diren bezala ulertzeko zailtasuna sor badezake, arrisku handiagoa ukanen dugu Testamentu Zaharra oker

idarokitzea: burutaraztea, gogora ekartzea. **ixtripu:** accidente, accident, ezbehar. **lekuko:** testigu. **hanpatu:** harrotu, gehitu. **aisa:** erraz. **mintzo:** berbaegin, hitzegin. **ezinbesteko:** derrigorrezko.

hartzeko! Izan ere, munduko beste ertz* batetako arazoa bait da, eta orain dela bi edo hiru mila urtekoa!

Oker horik, batez ere, histori kontakizunei buruzkoak izan dira; eta jendearengan mespretxua sortu du honek; gutxi gorabehera hitzez-hitz hartu behar zirela uste zen: gertaerak zehatz-mehatz kontatzen dituen dokumentu bait liran. Baina, Bibliarèn literatur mota ez da beti honelakoa, ez eta urrutitik ere. Esate baterako, kreazio kontakizuna, bere sei egun eta guzti, poema bat da. Gauza oro Jainkoarengandik datorrela esan nahi du. Kontakizunaren tankera, irudimenezko obra bikain bat da; ez da, inola ère, txosten* edo lekuko-ageria. Besteren artean, XIII. mendean ere, Akinoko Tomak adierazi zuen hori.

Adanen eta Ebaren historia ere (*29*), ezin hartu da ageri edo dokumentu bat bezala; horretaz oraindik orain jabetu gara (*209*). Gizakiari buruz dihardu pasarte horrek. Hori, noski, ezaguna zen aitzina ere; baina, beste iturri faltaz, izenak eta zenbait xehetasun, historikotzat hartu ohi ziren. Esaterako, hori gertatu zen Genesi liburuko hasera guztiarekin (2tik 11ra bitarteko kapituluekin).

Genesiaren 12. kapitulutik aurrera, historiako gertakizunak kontatzen dira; baina hebertar herriari berezi-berezia zaion eran egiten du hori. Gertaeren bihotza zaio axola* Israeli. Eta zein da hori? Gorago esana dugu: Jainkoak eginiko Elkargoa, gizakiaren desleialtasuna, Jainkoak buruturiko salbazioa. Egunoroko gertaeretan bizi izan zituen Israelek gauza horik. Giza egintza nagusi oro* bezala, gertaera horik ere, barne-esperientzia horik ere, gertaerari dagozkionak dira. Gertaera, izèberg edo izotz mendi bat bezala da: bostetik bat ageri da ur gainean; bostetik lau ur azpian gelditzen zaio. Horrelaxe barne esperientziari buruz ere. Gertaeraren zatirik handiena barnè esperientziari dagokiona da. Talde txiki ibilkari edo nomada bat, zapaldurikoa, hankapeturikoa, bizirik ateratzen da, haizeak lehortu duen itsaso bat (Itsaso Gorriaren beso bat) igarorik*. Egundoko esperientzia: hebertar herria kontatzen aspertzen èz den esperientzia. Baina, orduan ez zen ezagutzen, esaterako, nobela modernuak barne-esperientzia adierazteko erabili ohi duen literatur mota. Ez zen, artean, horrelako literatur motarik.

Horrez gero, nola adieraz izotz-mendiaren bostetik lauak? Nola adieraz Jainkoak eskuhartu* zuelako uste bizia? Horretarako, èsperientzia handi-bikaina formulatzeko, kontakizun handi-bikain bat asmatzen da. Hebertarren literatur mota zen: esperientziaren paregabeko handitasunaren berri

ertz: bazter. **txosten:** informe, rapport. **axola:** ardura. **oro:** guztiak. **igarorik:** iraganik. **eskuhartu:** parte hartu.

ematekotan, agerian gertatua hanpatu egiten da. Horrela, ahantzi* ezineko kontakizunak sortzen dira; horrela, aho-handizka, dokumentu bidez baino mila bider egiazago agertzen zaigu gertatua.

Esate baterako, *Exodo* liburuan (17, 8-13), herriak amalezitarren aurka egin behar izan zuen gudua kontatzen zaigu. Mendi gailurrean zegoen Moise besoak zabalik. Besoak erortzen uzten bazituen, Israelek galdu egiten zuen; jasotzean*, Israelek garaitu. Arratsaldean bi gizonek lagundu behar izan zioten besoak goruntz edukitzen, hainbesteraino zegoen akiturik*. Bai egoki ematen dela hemen gertatua: Jainkoak ezarritako buruzagiak* garaipenera* zeraman herria! Kanpoko eta barneko esperientzia guztia besoak zabalik dagoen gizonaren irudian agertzen da.

Tankera honetako pasarte bikainez josia dago Testamentu Zaharra. Liburu hauk egiten, mendeak eta mendeak eman zirela esana dugu jadanik*. Horrela, askotan, egintza berbera bi eratara ematen da bata bestearen ondoan. Horrela, esate baterako, Itsaso Gorriko gertakizuna dakarren pasartean, ekialdeko haizeak itsas adarra lehorturik utzi zuela irakurtzen dugu (Ex 14,21). Ezaguna den berezko fenomenu batez baliatu zen Jainkoa. Gero etorri ziren salmugile eta kontatzaileek, ordea, esperientzia hura bera erakusten zuen beste datu bat aurkitu zuten: *ura eskuin-ezkerretan pilatu zen*, harresi* bat bezala. Esplikazio hau ere kontakizunean ezarri zen, eta aurrekoaren ondo-ondoan eman zen (Ex 14,22). Honela hanpaturiko kontakizunak, gertaera hura askapen edo salbazio ororen irudi bihurtu zuen.

Harritu egingo gara, beharbada, horrela idaztean zein askatasun handiz jokatzen zuten ikusteaz. Baina, hori orduko literatur mota zen, ez egungoa*. Askatasun hori, historiaren batasun zentzu biziari hestu* loturik dago. Idazlea etsi-etsirik zegoen, mementoan ihardunean ari zen Jainkoa bera ari izan zela iragan* garaian ere. Horretatik zuen bere esperientzia bera iragan garaiko kontakizunei ezartzeko ausardia. Herriaren basamortuko apostasia esate baterako, «urrezko zekorraren* jira-birako dantza» bezala eman zen. Horrelaxe hartzen zuen apostasia erregealdi garaiko idazleak: apostasia honentzat, Israelen zekorrari egindako gurtzapena zen. Ezin ager ziezaiekeen argiago basamortuko apostasia bere irakurleei. Eta horrela, apostasiaren sinbolu bat sortu zuen aro guztietarako.

Esan daiteke, beraz, oro har, ikusi dugunez, Israelen literatur motak joera hau duela: barne-esperientziak historia

---

ahantzi: ahaztu. **jasotzean:** altxatzean. **akiturik:** nekaturik. **buruzagiak:** gidariak, nagusiak. **garaipen:** victoria, victoire. **jadanik:** dagoeneko, honez gero. **harresi:** muru. **egungoa:** gaurkoa. **hestu:** estrecho, étroit. **iragan:** joandako. **zekorraren:** aratxearen.

konkretu egitekoa. Hona adibide bikain bat Samuelen deian. Gazte bat da; ez daki deitua den ala ez. Gogoetaka* ari da bere deiaz. Inoiz baietz, inoiz ezetz iruditzen zaio. Gauez ere gogaketan darrai*, larri. Besteri ere galdegiten dio. Prozeso guzti hau zehazki emanen luke gaurko idazle batek. Israelek, aldiz*, kontakizun goren* bezain sinple egin zuen (ikus 1 S 1, 3).

Israelen literatur mota kontua izan ezik, «Jainkoak esan zion» (Jeremiari, Moiseri, Abrahani) irakurtzen den bakoitzean, pentsatuko litzateke, Jainkoa egiaz hitzez mintzo* zela. Jakin behar da, ordea, Jainkoa ez dagoela giza hizkuntzara mugatua. Axola zaiguna, komunikatzen duen fedezko uste zindoa* da. Abrahan, fededun guztien aita da.

Gauzak honela agertzea ez ote da Jainkoak Israeli eginiko agerkundea txikitzea eta kaxkartzea? Izan ere, ikusi dugunez, mirariak ere, ongi begiraturik, uste baino arruntagoak dira. Eta Jainkoaren mintzoa, berriz, batipat barne-mintzoa dela esan dugu.

Baina, nola esan daiteke, hori agerkundea txikitzea dela? (*28-30*). Arras alderantzizkoa* dela uste dugu; izan ere, horrela, gure ikusmena erabat aske dugu Israelen mirari handi *hau* begiemateko*: Israelen *historia osoa* alegia. Miraria honetan datza: azalez herri guztiz arrunta, historia guztiz arrunta izan, eta funtsez* hain desberdin. Hor ageri da herriaren gidari den Jahveren eskua. Askapen kontakizunak eta mirariak, dirutza handia dakarkiguten txanponak dira.

Miraria ez datza Jainkoak Israeli aurretik moldaturiko esaldiz hitzegin izatean. Miraria, hauxe da: herri honen bitartez, mundu osoak entzun duela Jainkoaren ahotsa. Horixe esan nahi dute hainbat bider* Biblian datozen hitz hauek: «Jainkoak esan zion». Jainkoa *agertzen*, Berori Israelen historia eta ahotsean azaltzean, orduan dakusagu. Ez gaitezela engaina XIX. mendean egin ohi ziren Bibli historien apainduraz*, beren zeruko laino, tximista, triangelu eta guzti. Jainkoak, gizon-emakume bizien eginahal eta hitzetan ematen digu bere agerkundea.

Ez dezagun ahantz, batez ere, zera hau: axola zaiguna historia dela. Jainkoak gertaerez eta hitzez gidatu du Israel: historiazko gertakizuna da. Ez da mito bat, ez eta ipuina ere. *Genesi* liburuko munduaren hastapen kontakizun beraik, gertaera zehatzik ez badakarte ere, ibilki dabilen gizadiaz mintzo zaizkigu, bere historia egiten ari denaz (*28-30, 302, 157--159, 262*).

---

gogoetaka: pentsatzen. **darrai:** jarraitzen zaio. **aldiz:** ostera. **goren:** handi. **mintzo:** berba, hitz eginez. **zindoa:** gogorra, sendoa. **alderantzizko:** kontrako. **begiemateko:** ikusteko. **funtsez:** barrutik. **bider:** aldiz. **apainduraz:** edertasunez.

Testamentu Zaharra ireki orduko honako edo halako edesti* hura zein neurritan hartu behar den hitzez-hitz galdatzen dio irakurleak bere buruari.

Hirutara erantzun dakioke galde honi, erabat harturik:

Lehenik, Patriarken kondaira, egiaz bizi izan ziren pertsonez mintzo zaigu, eta ematen den puntu asko egiaz aro horretakoa da. Exodoari dagokionez hari nagusienak eta xehetasun asko, kontatzen den gertaeraren garaikoak dira. Hebertar herriaren historiaren segidari dagokionez, berriz, kontakizunaren hariak, erabat harturik, egiaz gertatu izan diren gertakizunak ematen ditu.

Hona bigarren erantzuna: Obra zientifikoetan, argibide sakonagorik aurki daiteke kontakizun bakoitzaren literatur zehaztasunaren eta historiatasun hestuaren* mailaz. Baina, zientziarik zorrotzenari ere dudabiderik gelditzen zaio. Izan ere, ez bait da posible, aitzinako literatur mota bat gaurko formulatan zehatz-mehatz ematea. Agian, orain berrogei eta hamar urte ziren joeren aldean, beste muturrera jotzen dugu egun, kontakizunen bati egiaz duen baino zehaztasun txikiagoa ezagutuz. Agian, guk uste baino ageriko gauza harrigarri gehiago gertatu zen (*74*). Zergatik gertatu behar du gauza harrigarririk gaurregun Lourdesen eta zergatik ez zuen gertatu behar aitzina Israelen? (*397*). Daitekeen gauza da, Jainkoa orduko gizon-emakumeei giza hizkuntzaz agertu izana; horrek, halako kontakizunak hitzez-hitz hartu beharra lekarke.

Eta hona hemen erantzunaren hirugarren elementua; ezinbestekoa: kontakizunean datozen gertakizunak zenbateraino diren objetibu zehatz-mehatz erakusteak ez du, egia esan, halako garrantzirik. Eman gakizkion kontakizunari, idatzita dagoenez hartuz (*157, 262*). Ireki gakizkion haren eragimenari*, gertaeraren mamia —izeberg-aren bostetik lauak— haren bitartez datorkigukeelako uste osoz. Kontakizun horietara murgiltzen denak, Israelen historia bizi du. Horregatik, hitzez-hitz hartuz, kontakizun askori buruz —paradisuko kontakizunari buruz, esate baterako— luzaroan egin izan den errua, ez da hain izugarria. Egun bezala atzo, mezua gertaturiko zerbait da, nahiz kreazioarena, nahiz bekatuarena, nahiz Babeleko dorrearena. Jainkoa Abrahani hitzez edo gabe zuzendu izanak, mezua* ez du ezertan aldarazten*. Kontakizunak hitzez-hitz hartzen dituenak ere badaki, arazoa ez datzala hondo-hondoan hitzez-hitz hartze horretan, Jainkoak gizakiari bihotzera egindako deian baizik.

---

edesti: historia, kondaira. **hestu:** estrecho, étroit. **eragimenari:** eragiteko indarrari. **mezua:** mensaje, message. **aldarazten:** aldatzen.

Hona beste galdekizun bat: azkena. Agertu dugu, Bibliaren hizkera moduak gure ezbezalako direla; alde handia dutela. Hau horrela izanik, esan ahal diezaioke ezer Bibliak egungo gizakiari? Benetan har ote daiteke egun hizkera modu hori?

Garbi nabari da honetan, Israel herriak historiaren batasunaz zuen zentzu biziaren alde ona. Gertaera zaharretatik gaurregunerako baliozko gertatzen dena ateratzeko gauza izan zen Israel: Jainkoaren ihardunbidea adierazi digu, iharduera horren hari nagusienak. Bibliako literatur motek, beraz, hauxe egin nahi dute: kontakizun bakoitzean edozein garaitako gizakiarentzat baliozko dena agerian ipini. Gizaki orok bere burua ezagutzen du hartan. Guk ere bai. Horra zergatik zaizkigun hain hurbileko kontakizun horik.

Gainera, sarritan, kontakizun bikain-bikain dira! Gizonak bere-berea duena daramate beren baitan, artegintza nagusiak erakusten duena! Egiptoko basamortuko faraoien giza irudi *tzarrak** bait liran. Haiek ere ez dituzte faraoiak ziren bezala irudikatzen; halere, giza irudi zahar horiek, Madame Tussaud-en argizarizko *panpin** zehatz-zehatzek baino hobekiago adieraztèn dute gizakia (eta faraoiak ere bai, beraz). Horrela Bibliako kontakizunek ere: hauek gizakia Jainkoari buruz hobekiago adierazten digute, egungo mila idazkik baino. Bestalde, Bibliak darabiltzan adierazpen eta sinboluak, *arras** sinpleak dira, eta gizatar. Gizakia gorputz arimatua deino*, ezingo dira zaharkitu. Leize, harkaitz, ur, argi, esku, belarri, heriotza, bizitza: zenbat hitz nola kosmonautari hala sukaldean ari den amari mintzo zaionik!

Testamentu Zaharreko liburuak 35

Ondoren, irakurleari laguntza bat emango diogun ustetan, Testamentu Zaharreko liburu zerrenda dakargu. Zenbait titulu, zenbait izen propio, arrotz eginen zaio gure belarriari. Guztiak batera jartzea lagungarri izan daiteke askorentzat. Liburuak, azken-azkenik duten ordenan ematen ditugu; jakin behar da, ez dela hori, ez argitara atera direneko ordena, ez eta kanon delakoan (legezko zerrendan) onartuak izan direnekoa; sailketa sistimatikoa besterik ez da (*32*).

Pentateukoa

Genesi liburuarekin, hau da, «hasera» liburuarekin hasten da Biblia. Lehenik, munduaren hastapen kontakizunak datoz; ondoren, Patriarken historia.

---

tzarrak: handiak. **panpin:** muñeca. **arras:** oso. **deino:** den bitartean.

Exodoa Moiseren deiaz hasten da, Egiptoko hamar izurriteez jarraitzeko; ondoren, «exodo» edo Egiptotik irtetzea delakoan, Sinaiko gertakizunak eta lege sail bat ematen dira.

Hurrengo liburuak, *Lebitikoak*, lebitarrei zor die bere izena: kultuan hain zeregin handia ukan zutenei. Biblia gogotik irakurtzen hasi izan den irakurle bat baino gehiago gelditu izan da liburu honetan planto eginik*; izan ere, Aaron eta honen semeei buruzko zenbait kontakizunen ondoren, kultuari buruzko mila arau bait dakar *Lebitiko* liburu honek. (Esan behar da, ez dela metodurik egokiena Biblia segidan irakurtzea. Liburutegi batetan ere ez zara hasten liburuak segidan irakurtzen).

Zenbakiak liburuari bere izena, bere orrietan daramatzan herriaren zenbaketatik datorkio. Herria basamortuan dabil. Liburuak, gainera, badakar zenbait gertaldi, eta lege sail bat ere bai.

Deuteronomioak, hau da, «bigarren legeak», legea eta exodoa biltzen ditu zenbait hitzaldi gartsutan. Erregeen garaian agerturiko liburu honi, profeten kutsua dario. Profeten antzera agertzen du Exodoa. Moiseren heriotzaz amaitzen da.

Tradizioz, bost liburu hauk (bostak batera *Lege* eta *Pentateuko* izenaz ezagutuak) Moisek idatziriko bezala eduki izan dira. Horrek ez du esan nahi autorea Moise izan zenik, baizik legegintza gatzatzen* hasi zen garaiko gizonik nagusiena Moise zela.

Kondaira liburuak

Kanaan harmazartu zeneko gorabeherak ematen dizkigu *Josueren* liburuak. Siken-en egin zuten leinuen federatzeaz amaitzen da.

Israelen erregerik ez zen garaiko kondaira dakar *Epaileak* delako liburuak. Larrialdian, epailari bat, askatzaile bat sortzen zen. Biblian ez da beste libururik, Israel Herriaren primitibismo eta basakeria argiago agertzen duenik. Halere, Jainkoak horretxekin nahi zuen harremanak ukan, eta poliki-poliki aldatuz joango da.

Epaileak liburuari *Rut*-ena darraio*. Dabiden heren-amona baten gaztaroko historia zoragarria dakar.

Samuel-en 1 eta 2 liburuek, monarkiaren hastapenak* kontatzen dizkigute.

Erregeen 1 eta 2 liburuak, ondorengo erregeez mintzo zaizkigu, Babiloniako gatibualdiraino.

Kronikak 1 eta 2 liburuek, berriro, Dabidengandik Babiloniako gatibualdirainoko historia kontatzen digute. Haseran, Adanen eta Dabiden bitarteko izen zerrenda dator. Liburuaren idazkera «zehatzagoa» da, baina Samuelenak eta Erregeenak baino indar eta bizitasun

planto eginik: geldi. **gatzatzen:** mamitzen. **darraio:** jarraitzen zaio. **hastapenak:** haserak.

txikiagokoa. Kultuaz bereziki arduratzen da. Liburua, gatibualdi ondoko apaiz giroan sortu zen.

Esdra-ren eta *Nehemia*-ren liburuak oso laburrak dira. Gatibuek Jerusalengo hondakinetan nola bir-eraiki zuten hiria eta nola bir-antolatu zuten elkartea: horixe da kontatzen digutena.

Ondoren, beste hiru liburu datoz, Jainkoak Israel salbatzeko nola eskuhartu duen kontatuz: *Tobia*-ren, *Judit*-en eta *Ester*-en liburuak dira.

Kondaira liburuen hondarrean, *Makabetarrak* 1. eta 2. liburuak datoz. Israel eskumendean duten siriarren aurka, K.a. II. mendean Makabetar anaiek egin zuten borroka dakarte.

Olerki eta jakinduri liburuak

Olerki eta jakinduri liburuak datoz orain Biblian.

Hasteko, poema handi bat dator, dramatikoa eta zirrarazlea*, giza oinazeaz eta Jainkoaren zuzentasun arazoaz diharduena: *Job*-en liburua (*17*).

Oinazea zergatik: hona hemen liburuak aurrean jartzen duen hauzia; denbora berean, zuzenean erantzuteko eskatzen dio Jainkoari; garraisi bat da. Eta Jainkoa naturaren handitasunean agertzen da: bere pentsabidea gure ahalmenaren gain duen Norbait bezala. Liburuak dakarren erantzuna, Kristoren aurretik ematen ahal zen ainakoa da.

Job-en liburuaren ondoren, *Salmuak* liburua dator (*256*). Gizadiaren olerki bilduma irakurriena. Ur tanta batek inguruko lurralde guztia distiratzen duen bezala, Salmutegiak Biblia guztia agertzen digu, otoitz eta abesti eran emanez. Testamentu Zaharreko gizakiaren bihotzaren irudi bezala dira. Salmu askoren autoretzat Dabid hartzen da. Baina, Moiseren eta Pentateukoaren arteko arazoaren antzekoa da hau ere. Literatur mota berri hau jaiotzean, Dabid da lehen gizona; horrela, gerora egindako salmuak ere berari egozten zaizkio. Dudarik gabe —ontzat emana dago—, zenbait Salmu Dabid berarenak dira, zeintzu ez dakigun arren. Lehen 40 Salmuen artean beharko genituzke bilatu horik, batipat. 18. salmua agian?

Dabid Salmurena eta Moise legerena bezala, Salomon esaera zuhur askoren autore bezala hartzen da. Esate baterako, Salmuei darraien *Esaera Zaharrak* liburuaren autore bezala. Liburu hau, bizitzarako diren esaeren bilduma da; esaera laburretan emana. Esaeren aurretik goratzarre bat eman ohi da, jakinduriaren jainkozko jatorria kontatuz.

Kohelet (Eclesiastes) liburua ere jakinduriazkoa da, baina laburragoa eta beste bizigiro batetakoa. Testamentu Zaharreko beste zenbait zatitan agertu ohi diren pentsakeren okerrak salatzen ditu. Testamentu Zaharraren porrokatzaile izena eman izan zaio; aski ezkor

---

zirrarazlea: Izugarria.

edo pesimista da; alderdi horretatik da Testamentu Berriaren gertuera.

Gero, «*Abestirik Ederrenak*» liburua dator (*244*). Poema harrigarri eta dardargarriren bilduma. Maitasuna kantatzen du (*323*).

Jakinduria liburua, Jainkoaren jakinduriaren eta Israelen historian egin duen egintzaren gorespena da.

Sirak liburua, jakinduria praktikoren esaera bilduma da; Jesus ben Sirak (Sirazida) delako batek, 200. urte inguruan idatzia. Gauza harrigarria! Jakinduria hori, hain soila eta praktikoa, arras gurea ezbezalako gizarte batetarako, gizarte patriarkal batetarako idatzia izan zena, egun ere mintzo bait zaigu.

Profetak

Testamentu Zaharrak duen liburu sorta suhar* eta biziena gelditzen da aipatzeko. Profeten liburuak dira (*26*). Bizi-bizirik, Jahveren leialtasunari eusten egindako borrokaren berri damaigute. Jerusalengo plaza eta kaleetan entzundako hitzen oihartzuna dakarkigute, eta gainera, idatzirik eman zen Jainkoaren hitza.

Lau «profeta nagusiak» datoz lehenik; deitura hori, beren liburuak luzeago dituztelako dute. *Isaia*, gatibualdia baino 150 urte lehenago bizi izan zen. Igerle jatorra, klasikoa da. Haren hitzak jo egiten du, eta poztu. 40. kapitulutik azkeneraino, poza eta adorea darizkio, eta horren autore, haren eskolako geroagoko ikasleek izan behar dute. 40-45 kapituluak (*Bigarren-Isaia* deritzaiona*), bereziki bikain dira.

Gero, *Jeremia*-ren liburua dator. Olerkari samurra*; landare, abere eta gizonekiko guztiz sentikor. Mezuaren samurtasun premia eta gogortasuna, bata bestearekin borrokan dabiltza. Jeremia, egundoko* larritasun garaian bizi izan zen: gatibualdi aitzin-aitzinean* eta haseran. Ondoren, *Erosta** edo Lantuak datoz (bost *Erosta*); seguraski, Jerusalengo hondakinen* aurrean ospatzeko liturgia. Ez dira Jeremia berarenak. Azkenik, Jeremiaren ikasle zen *Baruk*-i egozten* zaion profezia bat, eta Jeremiarena bezala eman ohi den, eta herbestetuei zuzendua den *Karta*; hau ere, Jeremiaren izenean dator. Azken hiru lan hauk Jeremiarenak bezala hartu izateak, Profeta nagusi honen oroipena bizirik gordetzen zela erakusten digu.

Ezekiel-ekin, Babiloniako gatibualdian aurkitzen gara bete-betean. Haren liburu trinkoa*, beti da gogoemateko* zerbait: egite sinbolikoak, ikuskariak*, xit* landuriko gonbaraketak. Aro berrien eta templo berriaren ikuskari itxaropentsuaz amaitzen* da.

Daniel, aurrekoak ezbezalakoa da guztiz. Lehen zatia, kontakizunez osatua dago: bigarrena, misteriozko irudipenetan emanik, historiaren indar eragile nagusienak aurkezten dituzten ikuskariz osatu-

suhar: bero, kementsu. **deritzaiona:** izenekoa. **samurra:** biguina. **egundoko:** ikaragarri, handi. **aitzin-aitzinean:** aurre-aurrean. **Erosta:** lamentaciones, ahieneak, deitoreak. **hondakin:** ruina, ruine. **egozten:** eransten. **trinkoa:** betea, mardula. **gogoemateko:** pentsarazteko. **ikuskari:** visiones, visions. **xit:** oso. **amaitzen:** burutzen, bukatzen.

rik dator. Eta berriro, kontakizunak datoz: Susanarena, eta Bel eta sugearena.

«Profeta nagusi» hauen ondoren, hamabi «txikiak» datoz. Deitura hori (profeta txikiak), beren izkribuak laburragoak dituztelako datorkie. *Osea*, bere emazteak zapuztu* duen senarra da. Bere ezkontza hautsiak, Jahveren eta Israelen arteko dramaz jaberazten* du. *Joel*, larrapoteen izurrite garaian mintzo da. *Amos*, ipar erresumako nekazaria da. Idazkera pikortsua du. Idazkiz ezagutzen ditugun igerleetan zaharrena. *Abdia*-k orrialde bakarra utzi digu, mendekua* dariona. Gainerako igerle mugimendutik saihestu ezinekoa da, halaz guztiz. *Jona*: Profeta txikien artean aurkitzen den liburua da, baina besteetarik desberdina. Alegiazko kontakizuna da. Mezu hau dakar: Jainkoak gizon-emakume guztien urrikia duela. *Mikea*, Isaiaren garai berekoa da. Belendik datorkeen eta halako batean Eroslea ekarriko duen Dabiden jatorriari dagozkion hitzak dakartza honen profeziak. *Nahun* oso labur mintzo da, Niniberen kontra. *Habakuk* ere oso labur; azkenean, abesti indartsu bat dakar. *Sofonia* Jahveren egunaz ari zaigu.

Gatibualdi ondorengo berriztapen garaiko hiru profeta badira, azkenik. Lehena, *Ageo* da. Gero, *Zakaria*; zaila baina aberatsa da honen igerletza; otzan* izango den eta astakume baten gainean joango den geroko Erosleaz* ere hitzegiten digu. Azkenik, *Malakia*-k, mixeria eta premia oro uxatzekotan, Jainkoa etorriko dela esaten digu.

Biblia ez da ereduzko* liburua 36

Gauza asko esan dugu oraindainokoan Testamentu Zaharraz. Baina aski da liburua bera irekitzea, horretaz eman ditugun pentsaketa eder eta landuak bertan behera lurrera erortzeko*. Liburua, bere edertasunaz, liluragarri zaigu, eta batera, mendi-ikuskizun bat bezain zakar.

Gure kordokaren* sustraia Testamentu Zaharra irakurtzean, honetan bide* dago: ereduzko liburu bat aurkitu uste genuela, egintza on-onak eta garbi-garbiak lekarzkeen liburu bat. Baina, patriarken arotik hasita, lasai-lasai, egite zakar, gogor eta, gure iritziz, inmoralak kontatzen zaizkigu. Jakin behar dugu. Biblia ez dela ereduzko liburu bat, eta bai bizitza den bezalakoaren distira. Jainkoa bidelagun, lehen gizadi primitibu batekin dabil. Denboraz bakarrik joanen dira ohiturak leunduz. Abrahanen historia irakurtzera ematean, ez zaigu eskatzen haren biziera geure egiteko, haren ihardunbidearen hildo* nagusienak gogoemateko baizik: hala nola zernahi gertatu* ere, Jahveri leial izan zitzaion. Ikuspen* za-

zapuztu: utzi. **jaberazten:** kontura arazten. **larrapote:** matxinsalto. **mendekua:** benganza. **otzan:** ezti. **Erosle:** Redentor, Redempteur. **ereduzko:** etsenpluzko. **erortzeko:** jausteko. **kordoka:** zalantza, kezka. **bide:** nonbait. **hildo:** bide. **gertatu:** jazo. **ikuspen:** *begirada.*

bala behar da Testamentu Zaharra ongi irakurtzeko. Gauzak gure artean diren ezbezala izan daitezkeela pentsatzeko gauza izan behar da.

Irakurketa ez da hain zaila izango, egiteak berariz* gaiztotzat ematen direnean, Sodomako bekatua bezala, edota soil-soil kontatu besterik egiten ez denean, Loten alaben iruzurraren* kasuan bezala. Baina, itxuraz, Jainkoak onirizten* dituenean? Honela, bere aitari, bedeinkapena lortzekotan, Jakobek sartzen dion ziria*, edota Kanaango jendearen suntsiketa*. Azken kasu honetan, suntsitzeko agindua Jahvek eman zuela bait dio Bibliak.

Halaz guztiz, kasu hauk ere, lehen gizakiaren akats bezala hartu behar dira. Jahveren kultua garbi gordetzeko, ez zekiten orduan gauza hoberik: aro hartako eta zibilizazio hartako metoduak erabili; agian, metodu horik beharrezkoak zituzten. Giza pentsakera ez zen artean Jainkoaren pentsakeraz aski kutsatua. Aski zuten Jahveren aurrean leial jokatzeaz.

Testamentu Zaharrean gauzak zein akasdun* eta gizatar (gizatarregi) ziren, kasu honetan ageri da: Jesusek bait dio, Testamentu Zaharrean, senarrak besterik gabe zapuzten ahal zuela* bere emaztea. Horretarako bidea, esaten die Jesusek, «zuen bihotz gogorkeriarengatik» eman izan zaizue. Jainkoaren egiazko asmoa besterik zen.

Orobat* esan behar da Josue liburuak kontatzen dizkigun hilketez. Bestalde, zenbakiek adierazi bezain ugari ez ziren izan noski (dena dela, Amerikako Estatu Batuetan indio suntsiketan egin zirenak baino gutxiago).

Ontasunean goraka *(180)* 37

Testamentu Zaharrean, zentzu morala gero eta gardenagotuz doala ikus daiteke. Jahveren izpiritua orea* harrotzen ari da. Harekiko harremana ez da sekula fruiturik gabe geratzen. Alderdi honi zor dio, hain zuzen, Testamentu Zaharrak bere erakarmena. Nora doan begiratzen jakin behar da. Zerbait ari da mamitzen, gero eta handiago, zabalago, garaiago.

Testamentu Zaharreko jendea oharturik zegoen horretaz. Israelen historia susmo handi honetaz kutsaturik dago: beti aurrera doala, Egun handiruntz (*30*). Horregatik, Jahveren izenean esandako hitza, sarritan, etorkizunaz mintzo dena da; zehaztugabea baina egiazkoa (*26*). Batez ere, Profetek zihar-

berariz: argi, nahita. **iruzurraren:** azpikeriaren. **onirizten:** onartzen. **ziria:** engaño, tromperie. **suntsiketa:** hilketa. **akasdun:** akats askoko. **zapuzten ahal zuela:** zapuztu zezakeela. **orobat:** berdintsu.

duten horrela: beren mezua agertzean, zigorra eta madarikazioa hotsegiten zituztelarik, etorkizunaz ere mintzo ziren. Horretatik dator noski fenomenu hau: berez «gauzak adierazten dituena» esan nahi duen «profeta» hitzak, gure artean «etorkizuna asmatzen edo igertzen duena» (igerle) esan nahi izatea. Jainkoaren hitza «hotsegitea», Israelentzat, hauxe zen: askapena, Jahverep eguna etorriko zela esatea. Askapenik egiazkoena, gizakia etengabean hobeago bilakatzea da. Horretara jotzen du Israelek bere goraka neketsuaz. Horregatik, Testamentu Zaharreko igerletzaren punturik garaienak, hemen ezartzen ditugun Jeremiaren eta Ezekielen pasarteetan datzate:

> «Badatoz egunak, dio Jahvek, elkargo berri bat eginen bait dut nik orduan Israelgo etxearekin eta Judako etxearekin».
> «Erraietara sartuko diot legea eta bihotzean idatziko eta ni izango naute beren Jainkoa eta horik izango ditut nere herri» (Jr 31,31.33).
> «Bihotz berri bat emango dizuet eta izpiritu berri bat jarriko dut zuen baitan; kenduko dizuet harrizko bihotz hori eta haragizko bihotza emango dizuet» (Ez 36,26).

Izpiritua 38

Testamentu Zahar osoa jatorrizko indar bizi batek zeharkatzen du, dinamismo bizi bortitz* bezain garaiak. Gizadia baitan. han eta hemen sorturiko beste mugimendu gogatsuetan* ere, bada horrelakorik. Baina, Israelen, bere lohikeria eta argalkeriak gorabehera, hots hori, hurbilago, garbiago, bortitzago izan ohi da. Bizi-arnasa horrek badu izen bat: Izpiritua. Jahveren Izpiritua norbaitengana datorrenean, norbait hori bere buruaren gain altxarazten du.

Haseran, Izpirituaren etorrera hori lehen mailan gertatu ohi zen. Jahveren Izpirituak, Sansonengana etorri zenean, borrokarako indartu zuen hau.

Norbait Jainkoaren Izpirituak betetzean, garai eta tokiko kulturari dagozkion fenomenuak ageri ohi dira: extasia, dantza... Funtsezkoena ez datza fenomenu horietan. Hain zuzen, kultur maila aurreratuagoan galdu egiten dira. Profeta klasikoak, esate baterako, ez dute extasirik ezagutzen. Ez dute gainezkaldirik*. Ez dira mundutik at joaten; baizik eta askatasun osoz barne-biltzen dira. Izpirituaren eragina gero eta garbiago bihurtuz doa. Gero eta izakera ohiturazkoago egiten da (*149-150, 255*).

---

bortitz: sendo, gogor. **gogatsuetan:** kementsuetan. **gainezkaldi:** arrobamiento, revissement.

Bihar egunerako, Izpiritua gainean kokatu zaion errege espero da (Is. 11, 2); herriak berak ere hartuko du Izpiritu hori (Jl 3, 1-2). Izpirituaren dohainik nagusienak, Jesusen bitartez etorriko dira; besteren artean, Mendekoste* eguneko gertakariek adiarazten dutenez.

Liburu Sainduak Izpirituaren lana dira **39**

Baina, guztia arimatzen duen oldar* eta bizi berotasun bezala, Testamentu Zaharrean ere ari zen, bai, Izpiritua. Bera dago gertaeretan, Berak izpiratzen ditu hitzak. Bera da Bibliaren sor arazlea. Eskuetan hartzen dugun liburua, Testamentu Zaharra, Izpiritu Sainduaren lana da.

Ez dezagun uste izan, ordea, autoreek Izpirituaren esanera idatzi dutenik, edota Izpirituak, herriaren bizitza eta fedearekin zerikusirik ez zuten pentsamenduak izpiratu dizkienik. Bibliako idazleek nork bere idazkeraz adierazten dutena, Israelen fedea da; nork bere nortasunaren eta nork bere garaiko mundu-ikuskeraren arabera idazten du. Liburu sainduak une berezi-berezietan agertzen dira. Izpirituz beteriko gertaera-*multzo* baten barnean. Bi gauza hauk ezin hartu dira bata bestea gabe: liburuak Izpirituak izpiratu ditu, eta Izpirituaren eraginak Israelen historia guztia kutsatzen du.

Horrez gero, nola hartu Biblia: alde batetik Jainkoaren egintza bezala eta bestetik gizakiena bezala? Ez; guztia eta erabat Jainkoaren egintza da; eta guztia eta erabat gizakiena. Musikarekin gertatzen dena bera: guztia eta erabat pianoari dagokio, eta guztia eta erabat pianojoleari. Jainkoaren Izpirituak diharduenean, gizakia ez da alde batera gelditzen; aldiz, arras nor bere buruaren jabe bilakatzen da.

Bibliaren esanahi izpirituala **40**

Gauza bera esaten ahal da Testamentu Berriko idazkiez. Hona zerk damaion Biblia osoari bere batasuna: Izpiritu berak arimatua izateak. Testamentu Zaharrean, oraino basati eta garbi-garbian ageri da. Eta Biblia osoa, alderik alde, begiratu batean ikus lezakeenak, Testamentu Zaharrean ere sumatzen du Izpirituak Berrian egingo duena. Testamentu Zaharrean bertan sumatzen dira Berrira jotzen duen Izpirituaren asmoa eta joera. Esate baterako, etsaiaren kontrako borroka irakurtzean, badakigu, Kristok borroka ho-

Mendekoste: pentekoste. **oldar:** indar, saka, eragite.

ri gaitzaren kontrako borroka bihurtuko duela. Opari, lepo egindako* bildotsa irakurtzean, alderik alde zulaturiko Kristoren gorputza gogoemanen dugu. Egiptoren esklabutzapetik gizakia askatzea gogoematean, honetaz jabetuko gara: bekatuaren ahalgetasunetik* gizakia askatzea hildo berdinean dagoela. Hona beraz: kontakizun zaharrak salbazio berriaren sinbolu bilakatzen dira.

Horrela irakurri behar dira Izkribu Sainduak: Biblia osoa arnasten* duen Izpirituak, bere sakontasun osoan irakurtzeko bidea damaizu. «Biblia guztia bere baitan* ahaideturik dago». Beraz hitzez-hitzezko esanahiaz gain, Bibliako kontakizunek —Izkribu Sainduak berauen osotasunean hartuz gero— esanahi sakonago bat, mami izpiritual bat dute: Kristoren eta Kristogan dugun gure bizitzaren agintza dira.

Testamentu Zaharreko autorea, gehienean, ez zen horretaz jabetu. Baina, Israel herriaren intuizio orokorrean* partekide* zen: jakinaren gainean zen, Jainkoak bere agerkundea agerkunde berri batez burutuko zuela. Horrela, izkribu batetan isilpean zetorren esanahi izpirituala ez zitzaion guztiz arrotz autoreari (*134*). Jesusek berak eta apostoluek irakatsi digute kontakizun zaharrak Kristorengan dugun geure bizitzaren sinbolu bezala irakurtzen.

Testamentu Zaharretik Berriratze honek Kristo poz berriaz ezaguerazten digu. Denbora berean, Israel herriak bizi zuen gorabidea, geure egiten dugu. Behin eta berriro Kristorengana itzultzen gara; bestela, bere jite* berezi-berezi hori galdu eginen bait luke guretzat. Testamentu Zaharrari esker, Berriaren egiazko berritasuna dastatzen ahal dugu. Kontakizun zaharren zakartasun eta gordintasunek beraiek ere, badute gaurregun beren esanahia. Hau lasaitasuna haien letraren gain altxa gintezkeela konturatzean; honela bait diokegu: zorionez, Izpirituaren asmoa besterik zen (*262*). Josueren guda irakurri eta, badakigu, hondo-hondoan arazoa, Jesusek egin duen eta harekin batera egiteko eskatzen zaigun borroka dela: Izpirituaren fruitu diren maitasunaren, pozaren eta bakearen aldeko borroka (*63, 134, 156, 362, 403*).

Fede bizitzaren mailak *(37)* 41

Zer uste dugu? Orduko gizon-emakumeak baino handiago garela? Ez horixe! Izan ere, egia baldin bada haik baino maila aurreratuagoan bizi garela, emana zaigulako da. Eta axola dena, nornahirentzat,

lepo egindako: hildako. **ahalgetasun:** ezin, indargabetasun. **arnasten:** hatsematen. **baitan:** barnean. **orokorrean:** jeneralean, guztietikoa.. **partekide:** partizipazioa duena. **jite:** tankera, izaera.

norbera aurkitzen deneko maila ez baino nork bere aurrerapen giroan bizi duen fede, leialtasun eta ontasun maila da.

Israelen historiaren aro bakoitza, zein bere erara, ona da. Har ditzagun labur-labur, banan-banan.

Dabidenganaino, eta honen garaian ere bai, esan genezake, Jainkoa lurtar aberastasun emailetzat hartu ohi zela: esne eta eztia darizkion agindutako lurraldearen emailetzat (*21-22*). Hara heltzeko eta hari eusteko, Jahveri leial izan behar zitzaion eta herrikideekin* zintzo. Besteak, etsaiak, bazter ematen ziren. Jarrera hau, *Epaileak* liburuan ageri da nabarien: kementasun bulartsuko* eta erlijio bizkorreko ageri diren Epaileenean.

Igerleen garaian, Elkargoa lurtar aberastasunei horrela lotzea utzi egiten da apurka-apurka (*23-25, 26-27*). Behar dena, garai horretan, Jahveri, denagatik, leial izatea da. Besterekiko axola areagotuz* doa. Jahveren zerbitzari izateak, zapalduarekiko, alargunarekiko eta umezurtzarekiko on izatea esan nahi du. Aldi berean, gainerako herrietan ere, jende kontzientziaduna topatu ohi da. «Ongi bizitzea», hondo-hondoan, aberats eta ahaltsu izatean ez baino zentzu oneko izatean datza*.

Herbestealdiaren ondoren, gizon hoberenek, gizon-emakumeekiko eta, horrenbestez, Jainkoarekiko harreman hestuagoa bizi dute (*26-27*). Norberaren ezinaz jabetuago dira; horrela, nork bere burua besteren antzeko dakus*: besteak ere, bi begiz, bi belarriz, bihotz batez horniturik daudela jabetzen dira. Hona zer dioen *Jakinduria* liburuak:

> «Ez-ikusi egiten diezu gizonen bekatuei, damu daitezen. Izaki oro maite duzu, eta ez diozu desgusturik egin duzun ezeri; ba, ezeri ikusezinik bazenio ez zenukeen sortuko.
> Nolatan jarrai zezakeen izaten ezerk zure gogoaren kontra?
> Nolatan gorde zezakeen izaterik zuk izatera deitu ezik?
> Zuk ordea kontuz begiratzen diezu gauza guztiei, zureak bait dira denak, Jauna, bizitzaren adiskide horrenak» (Jk 11,23-26).

Norberaren eskasia horrek, sarritan, Salbatzaile baten gogo sakona sor arazten du. Beraz, hiru maila bereiz genitzake: herriaren guztiekiko leialtasuna eta on-giroa (Epaileak), norberaren kontzientziaren araberako bizitza (Profetak), Jainkoak bidaliko duen Askatzailearen zain guztiekin bat egotea (herbestealdi ondoko aroa). Jakina, aro bakoitzari, Jainkoaren zerbitzari leial izateko aukera dagokio.

Gure mundu kristau honetan, hiru maila edo aro horiek badute nola-halako gaurkotasun bat. Bada zenbait biziaro, zenbait kultur maila, zenbait gizatalde, kristau fedea, nolarebait esan, erosotasunean ez bada, bizi ez dezakeena (Jainkoa onginahiezko zaio gure familiari, gure herriari). Beste zenbaiti, burubide zuzena ukaitea, norberaren kontzientziari egokitzea, zaio axolazko. Beste zenbaiti, azkenik, gizon-emakume guztiekiko irekitasun jarrera zaio interesgarri. Hiru alderdi horik, nolarebait elkarrekin nahasirik, gizaki bakoitzarengan

---

herrikideekin: herritarrekin. **bulartsu:** sendo. **areagotuz:** handituz. **datza:** dago. **dakus:** ikusten du.

ere bizi ohi dira. Bizimaila horietan bakoitzean ongi bizi zaitezke; baina, beti ere —Israelgo hondar txikiak egin zuen esperientziaren arabera— nork bere atzetik itsas-ontziak errez, hurrengo mailara jo behar duela jakinez. Hori egin ezean, han itoko da, aurkitzen den maila hartan.

Hiru maila hauk, munduko beste pentsakera eta ideologia eta erlijio handietan ere ageri dira. Bata bestea baino aurrerago dago. Ezin neurtzen ahal dituzu zeharo* berdin. Berezkuntza hau egiten dugu giza jokabide desberdinen artean: talde hestu bati lotzen den erlijioa; norberaren kontzientzia eta besterekiko ontasunaren hedapena*; besterekin bizi zarelako sentitzea eta salbatzaile baten zain egotea. Hauxe uste dugu: maila horietan gora, gizadi osoa Kristoruntz doala.

Kristo jaio den herrian, Israelen alegia, eboluzio hori tankera berean burutu da, Jainkoaren eta munduaren arteko erlazioaz zuen ikusmodu garbi eta egokiari esker (*407-408*). Atzera-eta-aurrera, ezker-eskuinetara, eta itsumustuka ibiliz, baina beti ere bila eta bila jarraituz, gizadi osoa da aurrera doana. Izpirituari leial zaion orotan, Jainkoaren giza-aurpegiarekin —ohartuz nahiz oharkabean— halako nabasitasun* bat lortzen da. Hain zuzen, Jainkoaren giza-aurpegi horixe nahi genuke agerian ipini.

---

zeharo: erabat, oso-osorik. **hedapena:** handitzea, zabaltzea. **nabasitasun:** irekitasun, etxekotasun.

Hirugarren zatia

Gizasemea

Argiaren aitor egin* zuena

«Ebanjelio» hitza 42

Jaulkitzera* goazen gertaerok, kontatu zituztenek, «Euangelion» edo ebanjelio izenpean eman zizkiguten haseratik. «Berrion», «albiste pozgarri», «alaitasun mezu», esan nahi du hitz horrek; eskutitzaren antzeko bat: lur jota legokeen pertsona baten tristura bapatean pozbetea bihur araziko lukeen eskutitz bat bezala.

Izan ere, «euangelion» edo ebanjelio hitza, gorabehera aski ilunetan agertzen da lehenik. Babiloniako herbestealdia jasaiten* ari direnei zuzentzen zaie lehenik (*24*). Hebertarrak gatibu zeuden arrotzen artean. Arras urrun ziren, basamortuaz beste alderdian; Jerusalen hondakin* zegoen. Baina, urte askoren buruan, egoera politikoa atzerriraturiko herriaren alde bihurtzen da. Ziro-k, pertsiar inperioaren fundatzaileak, bere askapen gudateari ekiten dio babiloniar inperioa zehar. Isaiaren eskolako profeta batek ikuskizun bat daduka: Jainkoa Jerusalena bidean dakus bere herriarekin basamortuan zehar. Profetak bere barruan, ahots bat dantzu*, dioela:

> «Presta basamortuan bide bat Jahverentzat.
> Egin estepan bide zuzen bat gure Jainkoarentzat.
> Bete bedi menditarte oro,
> berdin bedi mendi eta muino oro...» (Is 40,3-5).

Izpirituriko oihu horrek, aitzinako ekialdeko idurizko mintzaera ederrean, hauxe adierazi nahi du: Jainkoak, bere handitasunean, bere herriaren bidelagun izan nahi duela, basamortuan zehar, Jerusaleneruntz, aitzina Egiptotik irtetean* egin zuenez.

Ametsetan bezala, aitzindari bat bidaltzen du profetak Jerusalena, herbestetuen aurrelari. Mendi gailur batetara igo behar du hiriko hondakinak begiemateko*.

---

aitor egin: dar testimonio, rendre témoignage. **jaulkitzera:** ematera, azaltzera. **jasaiten:** sufritzen. **hondakin:** ruina, ruine. **dantzu:** entzuten du. **irtetzean:** jalgitzean. **begiemateko:** ikusteko.

«Igo zaitez mendi garai batetara,
Sionentzat berri pozgarria dakartzun hori;
egin oihu indarrez
Jerusaleni berri pozgarria dakarkiozun horrek» (Is 40,9).

Hona non dugun ebanjelio edo berrion edo mezu pozgarri hitzaren jatorria. Hondakin gorrien artean poz irrintzia entzuten da. Poz-oihu, alegia:

«Ahaltsu dator Jahve Jauna...
Ardizain dabilen artzainaren antzo,
besoan daramatza bildotsak...
Ba nik, Jahve zure Jainkoak,
nik heldu dizut zure eskuineko eskutik...» (Is 40,10-11;41,13).

Agintza horik ez dira sekula erabat bete Testamentu Zaharrean. Egia da, Jainkoak Israel herria eskuin eskutik erabili duela, eta gorde, beste edozein herrirentzat galbide izanen zen arriskutatik. Halaz guztiz, Israel herriak bazekien, azken osakuntza* baten, bere atseginaldi osoaren, Jainkoaren erreinuaren azken etorreraren zain egon behar zuela. Erreinu hori berandutzen ari zen; horregatik, herria atsekabez zegoen: eskutitz baten, berri on baten, profeta baten, pozaren mezulari* baten zain tristurak jota dagoen gizaki baten antzera.

Joan Bataiatzailea 43

Halako Joan bat, izengoitiz* Bataiatzailea, azaltzen da lau ebanjelioen haseran. Basamortuan agertzen da; horrela, basamortuko grazialdia gogorazten du: Babiloniatik itzultzea, Egiptotik aldegitea.

Erromako inperatore Tiberio-ren 15. urtean hasten da Joan predikatzen, hots, 27ko urria eta 28ko iraila bitartean (behar bada, 28 eta 29 bitartean). Bere janaria eta jantzia soil-soilak zituen, eta zuzenean lurrak emanak. Puntu horiek badute beren esanahia. Elia gogorazten dute. Itsaso Hilaren bazter arrokatsuan eman zuen bere predikua. Oraindik orain, hantxe aurkitu da esku-izkribu bilgu* sail bat, toki berean bizi izandako erlijioso elkarterenak zirenak. Ezin esan da, noski, Joan Bataiatzaileak elkarte haiekin harremanik ez zuenik.

Jainkoaren erreinua hurbil dago 44

Baina Joanek, askapen eta grazialdia oihukatu baino gehiago egiten du. Grazialdi berria iragartzen du, aurreko guz-

osakuntza: betekuntza, konplimendu. **mezulari:** mandatari, mensajero, messager. **izengoiti:** sobrenombre, surnom. **bilgu:** rollo, rouleau.

tien betekuntza dena. Egiptoko eta Babiloniako irteerak, irudi besterik ez ziren, zantzu* besterik ez, orain gertatzera doanaren aldean. Egiaz, orain dator Jainkoa. Joan, basamortuan ari den oihu da, gure Jainkoarentzat bideak zuzentzeko hoska* ari dena. Gaur atondu behar den bidea ez bait da, urtebete barruan burutu beharreko mendibidea, gizakiaren baitako bidea baizik, bide iraunkorra. Bide *honi konbertsioa* deritza, onbideratzea.

«Zuzen zaitezte!». Hori da Joanen oihua. Hitzez-hitz hau dio: «Bihur ezazue zeuron gogoa»; zuen pentsakera bestelako bihur bedi, berri bilaka bedi. Bihurtze hitz hau bitara har daiteke oker; bata agiriko penitentzia soilak bezala hartuz, eta bestea, barne jarrera berri bat bezala bakarrik hartuz. Baina egiaz, konbertsio hitzak hainbaterainoko barne aldaketa adierazten du, zeren agiriko bizitza guztia aldaturik gertatzen bait da. Luka sainduarengan, Joan Bataiatzaileak zenbait adibide ematen du: jantzi asko duzunean, ezer ez dutenekin banatzea: zenbait profesiotan gauza normaltzat hartu ohi den agintekeriari kontra egitea (Lk 3,10-14).

Joanena, poz mezua da. Izan ere, Jainkoak aginduriko grazialdia iragartzen du. Baina, denbora berean, guztiz garrantzizkoa da; gizakiak, datorren graziari, «baietz» bezala «ezetz» esan bait diezaioke. Joan etsirik dago, datorrenak «erorikoa ala salbazioa» dakarkeela askorentzat. Datorrenaren agerraldia iduri honetaz adierazten du: arbolaren zuztarra* agerian dagoela, dio, eta haizkora altxatua lehen kolpea emateko. Datorrena, eskuan sardea duena da, eta lastoa erretzeko sua bizturik dadukana. Hark, suz eta Izpiritu Sainduz bataiatuko du (Mt 3,11). Joanek, Testamentu Zaharreko giroan bizi bait zen, su hori, onentzat su garbitzaile bezala ezezik, gaiztoentzat su epaile bezala hartzen zuen. Joanek mundu osoaren epailea iragartzen* du.

«Bataio» beldurgarri horretarako prestatzekotan, urezko bataioa ematen du: hartzen dutenak garbitzeko; Joanen bataio honek, konbertsiorako duten gogoa agertzeko bidea damaie. Datorrenarekiko irekitasun seinalea da; ez du, Kristau bataioak bezala, Jainkoaren erreinurako sarrera bera ematen (*63*).

«Joan Bataiatzailearen egunetatik gaurdaino indarka darabilte zeruko erreinua, eta indarkariek* eskuratuko dute» (Mt 11,12).

Esaera adigaitz* hau alde askotatik har daiteke: «indarkari» hitzak, edo gaiztoak adierazten ditu, Jainkoaren erreinuari kalte egin nahi diotenak, edota onak adierazten ditu,

zantzu: seinale. **hoska:** oihuka. **zuztarra:** sustraia. **iragartzen:** aldarrikatzen. **indarkariek:** indarra egiten dutenek. **adigaitz:** ulergaitz.

erreinura sartzeko bezain azkar direnak. Testua ez dago argiegi. Dena den, dudarik ez da, edozein kasutan, Joanekin gertaera gogor, beldurgarri bat hasia dela. Horretan berezten da Joan Testamentu Zaharreko beste idurietatik. Honela hotsegiten du: Jainkoaren erreinua *guztiz hurbil* dago. Horregatik, esan daiteke, Joan Bataiatzailea Testamentu Berriari datxekola: «Joanganaino heltzen dira Legea eta profetak...». (Lk 16,16).

Testamentu Berriari, bidegurutze nagusi-nagusian dagoena bezala datxeko; bi aro arteko ate-muga da: zahar-berrien artekoa. Kristorengana daraman bidean dagoena da.

Eta ez da, oraingo honetarako, histori une batetarako, oraindanik iragana den unerako bakarrik balio duena, ez; betirako balio duena baizik. Joanek hotsegiten zuen konbertsioa, iraulketa da, iragartzen zuen erreinurako hartu behar den bidea.

Horrez gero, Joan ez da, Jesus egiazko argia agertu dela eta, albora utz dezakegun pertsona. Egun-egungo dugu; gutako bakoitzari premiazko zaion prestaerara deitzen bait gaitu. Horixe da Elizari, urtean lau astez Bataiatzailearen predikua entzutera ematera eragiten dion arrazoina: abendu aldi osoan, alegia.

Abendua 45

Abendu hitza, jatorriz, «etorrera nagusia» esan nahi duen latinezko hitza da. Abenduaren 25a aurreko 4. igandetik abenduaren 25era, Elizak Kristoren etorreraren oroitzapena dagi*: Jauna dator

Liturgiaz oroitzapen bat egitea ez da sekula oroipen huts. Oraino ere egiaz guri dagozkigun gertakariak ohi dira jokuan (*275*); haien oroitzapena egiteak, haik berriro *bizitzea* esan nahi du. Baina, definizio hori ez da osoa; oroipenezko zirimoniatzat har bait daiteke: esaterako, hildakoen oroipen bezala, aspaldi gertaturiko gauzak irudipenez berriro biziz. Baina, liturgi ospakizunak gertaera bir-bizitzen du, irudipenez eta gogoz ezezik, izatez eta egitez. Izan ere, liturgian oroitzapen eginez ospatzen den gertakaria, *Jainkoak gizon-emakumeekin izan zuen topaketa** *berezia izan* bait zen. Eta gertakari horren muina, grazia, gertakaria ospatzen dutenengan berritzeko prest dago Jainkoa. Horrela, aitzina beren bihotza Jaunari ireki zioten testiguek bizi zuten topaketa bera bizi dezakete orain kristauek. Are: orduan gorputz hutsez bizi zuenak baino sakonkiago bizi dugu orain; esate baterako, Joanen predikua bidenabar entzun zuenak baino sakonkiago.

---

dagi: egiten du. **topaketa:** aurkitze.

Horrela bada, Abendua ospatzea, Jainkoaren etorreraren zain egotea da, Jainkoarengana bihurtzen gaituen konbertsio minez bizitzea. Orduan esperientzia hau egin ohi dugu: Jainkoa gure ilunpera gero eta hurbilago sartzen dela.

Horregatik, aro horretarako, franko irakurgai hautatu du Elizak, Israelgo beilari* diren profetetarik hartuz (*26,35*). Isaiaren liburua erabiltzen da gehienbat; bilduma hau, honen profeziak direla bide joan-etorri handikoena, mesiatar pasartez xit aberatsa da. Egundokoa da Isaiaren fedea, ustea, Jainkoak bere Gantzutua* eta bere Salbamendua bidaliko dituelakoaz; fede horrek, oraindaino zahartu ez diren hitzak aterarazten dizkio; egun ere Jainkoaren irrika adierazten dutenak: «Ezazue bihotz, ez beldur izan! Begira, hona zuen Jainkoa!». Abenduko liturgiak darabiltzan hiru irudietarik bat dugu Isaia. *Rorate coeli desuper* (Zeruek intzez, hodeiek euriz, isur bezate zintzoa) kantua ere, Isaiaren liburutik hartua dugu.

Hiru pertsonaia* handi horietarik bigarrenaz mintzatuak gara, Joan Bataiatzaileaz alegia. Kristau herria, irudipenez, Jordan hibai bazterrera doa. Eta berriz ere, bere jaieraren neurrian, itxaropen pozgarrizko giroa bizi du; orobat, garai guztietarako baliozko penitentzi dei latzak gogoratzen ditu.

Azkenik, Abendu garaian, prestaera gizatar eta soilenari dagozkion pasarteak irakur arazten dizkigu liturgiak: halako irrikaz esperu zen Salbatzailearen amak bere semearen etorrera nola bizi izan zuen. Gorputzez, fedez, Bibliak esaten digun bezala (Lk 1,45) eta *Magnificat*-en mesiatar pozez bizi izan zuen.

Hiru pertsonaia hauek, oraino agertu ez den Norbait adiarazten digute. Nork bere bihozkeraz bizi du itxaroaldi hori: profetak atsekabezko irrikaminez; ama gazteak esperantza pozgarriz. Abenduko liturgiari sentimendu desberdin horik guztiak darizkio: batean atsekabea, bestean poza adierazten du.

Abendua esatean, Kristoren etorrera oro aditzen dugu: lehengoa, histori une batetan mundura sartu zenekoa da; orobat, ordea, gaur eta hemen, gure gizatar elkartera datorrenekoa. Eta hau ezin har dezakegu Kristoren bigarren etorreratik, munduaren azkenean egingo duen behin betirako agerpenetik etenik. Hain zuzen, Abenduko lehen igandea, azken etorrera hori gogora araziz hasten da.

Jesusen jatorria

Inor ohartzeke*, egun batez, Joanek bataiatzen zituenen artean agertu zen aspaldidanik espero zena.

Nor da? Nondik dator?

---

beilari: vigía, veilleur. **gantzutua:** igurtzia, ungido, oint. **pertsonaia:** personaje, personnage. **ohartzeke:** ohartu gabe.

Galilear mintzaeraz mintzo zen noski; jatorriz galilearra bait zen, iparraldeko judutar probintzia hartakoa, erdi jentil eta judutarren artean eder handirik ez zuen Galileakoa. Bere «aberria», mendixka batzuetatik zintzilik zegoen herrixka zuen: Nazaret. «Nazaretetik ezer onik atera ahal daiteke?», galdetzen du batek hartaz hitzegiten entzutean (Jn 1,46). Hogei eta hamarren bat urtekoa da (Lk 3,23). Haren izena ere ez da hain nabarmena: *Jehoshua;* guk *Jesus* bezala ematen duguna.

Haurtzaroko kontakizunak 46

Nor da Jesus hau? (*114-118*).

Lehen kristau predikua, Testamentu Berriko idazki maila zaharrenean aurkitzen duguna, ez da mintzo Jesusen haurtzaroaz. Ez dakar haren bizitzarik ere. Haren bizitzako gailurra* aurkezten* digu: heriotza, eta Jainkoak nola atera duen heriotzaren atzaparretatik: biztuera. Jainkotiar gertakari honek itzalean uzten du gainerako guztia. Guztien gain hotsegiten dena, beraz, hauxe da: Jesus bizi dela.

Geroago Jesusen bizitza eta hitzak hotsegiten direnean, harekiko fedean oinarriturik egiten da. Eta azkenean, haren haurtzaroa kontatzean (sorbururuntz, ur goiti igotzen da): ez da kontatzen haurtzaroa «Jesusen bizitza» batetarako dokumentuak jasotzeko asmoz, jendearen jakinmina asetzeko asmoz. Noski, haurtzaroko kontakizun horik oroitzapen historikoei loturik egiten dira (Mt 1-2; Lk 1-2). Baina, kontakizun horien entzuleak, Jesus bizi dela sinesten dutenak dira; ezaguna dute otoitzez eta beren bizitzaz; idazleen funtsezko asmoa, beraz, Jesusen gure arteko agerkundearen garrantzia aldarrikatzea da: Jainkoaren agintzak betetzen hasiak zirela, argia bizi-bizi sartua zela gure artera. Haurtzaroko kontakizunak, egiaz «ebanjelio» dira, hots, «berrion».

Horrez gero, historiazko xehetasun handirik ez dugu Jesusen haurtzaroaz. Ondikotz ote hori? Egia esan, bada gure baitan horren hutsunerik nabari duenik; hala adierazten du, iragan garaian Jesusen haurtzaroaz kontakizunak asmatzeko izan den beharrak (Jesus haurra buztinezko hegaztiñoak egiten iharduten zela; eskuz jo, eta hegaka hasten zirela...). Hutsune hori bérori nabari dugu gure aro honetan, historiazko adierazpen bat datorrenean, xehetasun konkretuak nahi izaten dituenean. Maitasunak eragindako jakinmina da. Jauna hobekiago ezagutu nahia.

---

gailurra: gain-gaina. **aurkezten:** erakusten.

Baina hori ote da bide egokia, nahi dena lortzeko? Zein da bide egokiagoa Kristo biziaren misterioak bizitzeko: mila zertzelada* pilatzea, ala fedez beteriko ebanjelioko kontakizunak? Dudarik ez da. Haurtzaroko ebanjelioak, Mateok eta Lukak idatziak, berenez* dira «berrion»; beren sinpletasunaz, garbi-garbi ematen dute Jaunaren agerkundearen egiazko handitasuna; hainbateraino da hori horrela, Elizaren liturgi jaien ardatz bilakatu bait dira: Eguberriak, Epifania, Kandelaria.

Liburu honetan Jesusen bizitzaz hitzegitean, ebanjelioen hildoari* zintzo eutsi ustetan dihardugu. Ez dugu biografiarik egin nahi ebanjelioko testuetan oinarrituz; ez diegu ebanjelioei hildako baten berririk eskatu nahi. Argi-argi mintzo den ebanjelioari berari utziko diogu hitzegiten: bizi den Norbaiten mezua dakarkigunari.

Gizonaren semea 47

Jesusen jatorriaz diharduten kontakizunek, berariz* aldarrikatzen dute Jesusi buruz bai giza jatorria, bai Jainkozkoa: giza semetza eta jainkozko semetza. Jesusen jainkotasunaren eta gizatasunaren batasuna (*52-54*) —kristau gogoetak geroago Kaltzedoniako kontzilioaren formuletan ezagutuko duena (*beherago mintzatuko gara horretaz*)—, Mateoren, Markoren, Lukaren eta Joanen lehen orrialdeetatik dator adierazia.

Mateok eta Lukak, Kristok gizadiarekin dituen loturak aldarrikatzen dituzte; egin ere, egin daitekeen biribilkien* egiten dute: jatorburu* zerrenda emanez (Mt 1.1-17; Lk 3, 23-38). Bere ebanjelioa horrela hasten duen Mateo irakurriz, batez ere, zerrenda horrek dagizun zirrara sumatzen duzu. «Jesukristoren genealogia» edota, greziar hitza zuzenzuzen euskaratuz «Hasera liburua» hitzez hasten da.

Genealogia edo jatorri zerrenda neurri bereko hiru zatiz osatua dago. Horien lotura literarioa garrantzizkoagoa da damaizkiguten berriak baino. Aitzin-solas* bat da; zenbait puntu adierazgarriri indarra damaiona. Dabid-gandiko genealogia ez da gauza argia, Mateo eta Luka ez bait datoz bat. Beharbada, zailtasun hori, nonbait lebirato legearen araberako ezkontzaren bat ezarriz aska daiteke (Dt 25,6). Dudarik gabe, autoreen asmoari hestuago lotuko gatzaizkio, Lukak beste jatorri bat, Adanena alegia, eman nahi digula gogoematen*

zertzelada: xehetasun. **berenez:** berez, bere aldetik. **hildoari:** arrastoari. **berariz:** agerian. **biribilkien:** *el más solemne.* **jatorburu:** arbaso. **gogoematen:** pentsatzen.

badugu. Horrela, nonbait, Jesus gizadi osoari dagokiola agertu nahi izan du.

Mateoren jatorri-zerrendan, gainera, lau emakume aipatzen dira: Thamar, Rahab, Rut eta Uriaren emaztea. Zer dela eta lau horik? Agian, laurak atzerritar zirelako; horrela Mateok dagiena, Lukak Adanganaino joz dagiena bera izango litzateke: Jesus gizadi osoari dagokiola adierazi. Edota, Mateok horik aipatu, lauetatik hiru Bibliak bekatu bizitzan edo bekatubidezko zereginean azaltzen dituelako aipatzen ote ditu? Daitekeena da. Dena den, hor daude, emakume bekatari, gizon bekatari askoren artean: Jesus gizadi bekatari batetatik datorrelako seinale. Jatorri-zerrendak Joxerekin amaitzen dira. Honen bitartez, Jesus gizadiari loturik agertzen digute. Gizon humil hau Salbamenduaren egunsentian agertzen den hau, «Jahveren behartsu» hau da, legearen arabera, Jesus Israel herriarekin kateatzen duen kate-maila: «patriarketan azkena».

Jainkoaren seme 48

Jesusen giza jatorria bezala, haren jainkozko jatorria ere ematen dute ebanjelioek.

Testamentu zaharreko zenbait pertsonaiaz*, otoitzaren fruitu izan zela esaten zaigu: gogo bizi baten ondoren, otoitz eta Jainkoaren agintzaren ondoren, ordurarte agor ziren senar-emazteek fruitua dakarte azkenean. Horrela jaio ziren Israelen arbasoak, Isaak eta Jakob; horrela Sanson eta Samuel; horrela Akaz-en etxeko haurra, garai txarrean ere Jainkoa leial zelako ezagugarri izan zena. Horrela Joan Bataiatzailea ere. Kontakizun hauek, guraso guztiek esperientziaz ezagutzen duten gauza argitzen dute: hondo-hondoan, Jainkoa dela gizaki berria ematen duena (beti ere «bakarra» den gizakia). Gurasoek, haurra «egin» baino areago, dohain bezala «hartu» egiten dute; egunoroko mintzaeraz familia «ukan du», esan ohi da, eta ez da esaten «sortu du».

Jainkoak[1] Israeli agindutako ume guztien artean, Jesus da agintzaren fruitu handiena. Jesus mundura datorrenean, herri osoa da haren jaiotze eske ari dena; historia luze batek agindua zen (*30*). Beste inor ezbezala, bera da agintzaren seme. Gizadi osoak irrika sakonenaz eskatzen duena. Graziatik sortu zen oso-osorik, promesatik oso-osorik: «Izpiritu Sainduaren egitez ernea». Jainkoak gizon-emakumeei egindako dohainen dohaina.

1 Ik. *Eraskina*: «Jainkoak Israeli...» 536 or.

pertsonaia: personaje, personnage.

Horixe da Mateo eta Luka ebanjelariek adierazia, Jesus gizon baten nahitik jaioa ez dela iragartzean. Jaiotza hori, beste edozein giza semerena baino areago, giza ahaltasunen gain mugagabeki dagoela aldarrikatzen dute. Horra kredoko sineskai* honen esanahi sakona: «Maria Birjinagandik jaio». Ez da ezer gizadian, deus ez giza ugalkortasunean*, hura erne dezakeenik; aldiz, harengandik bait da giza ugalkortasun oro, gure arrazaren etorkizun guztia: harengan bait da gauza oro kreatua. Agindutako haur hau, gizadiak ez dio inori zor, Jainkoaren Izpirituari besteri. Ez du bere jatorria, ez odolean, ez haragi irritsetan*, ez gizakiaren nahian, Jainkoarenean baizik; neurri gabeko gaindegitik*, azken gabeko urrunetik*.

Mateo **49**

Hori guztia, Mateok eta Lukak soil-soil kontatzen digute, eta Jesusen berritasuna adieraziz. Hona zer irakurtzen dugun Mateorengan:

> «Honela izan zen Jesukristoren sorkundea. Kristoren ama Maria Joxerekin ezkontzeko hitz-emanda zegoen; eta biak elkartu baino lehen, haurdun gertatu zen Maria Izpiritu Sainduagandik. Joxe haren senarrak, zintzoa bait zen eta ez bait zuen Maria salatu nahi, isilik uztea erabaki zuen. Asmo honekin zebilela, Jaunaren Aingerua agertu zitzaion ametsetan, eta esan zion: Joxe, Dabiden seme, ez eduki beldurrik Maria zure emaztea zereganatzeko; honengan sortu dena Izpiritu Sainduagandikoa da eta» (Mt 1,18-20).

Luka **50**

Gainera, ebanjelari finenaren, hots, Lukaren pasarte eder hau ere badugu: Iragarkundearen* kontakizuna (Lk 1, 26-38); Jainkoak egindakoen hausnarketa*. Testu honek argi-argitan ipintzen du Kristoren etorrerak munduaren historiarako duen garrantzia.

Jainkoaren mezulari bezala, Gabriel izendatzen du Lukak: Danielen liburuan, munduaren azkena iragartzen duen aingerua. Lukak mezulari hori aipatzeak, Jainkoaren urrikia* agertzera doaneko garaia heldu dela esan nahi du, beraz. Aingeruaren mezuak berak, berriz, Jainkoak lehendik egindako agintzen ukitu asko du. Agurrak berak, Testamentu Zaharrean hain gauza arrunta den salbamenduaren ziurtasuna adierazten du: «Agur, graziaz betea». Herri bakoitzak du agurtzeko era berezia. Gure artean, «agur» edo «egun on!» esanez agurtzen dugu elkar. Greziarrek, «Poz zaitez!» esa-

sineskai: artículo de fe, article de foi. **giza ugalkortasun:** fecundidad humana, fécondité humaine. **irritsetan:** nahian. **gaindegi:** altura, hauteur. **urrunetik:** urrutitik. **Iragarkundea:** *anunciación, annonciation.* **hausnarketa:** pentsaketa. **urrikia:** errukia.

nez egin ohi zuten. Hori da Lukak ezarri duena. Hitzez-hitz honela dakar: «Poz zaitez, graziaz bete hori!» Diosal* hau, greziarren artean ohi zutena baino zerbait gehiago da. Profetek iragarritakoaren oihartzuna ageri zaigu hor; Sofoniak idatziriko honena, esate baterako:

«Siongo alaba, egizu algara pozez!
Egizu irrintzi alaitasunez, Israel!
Poz eta ekin goraka bihotzez,
Jerusalengo alaba horrek!...
Jahve duzu *Israelgo errege zure erdian...*» *(So 3,14-15).*

Eta beste honena ere:

«Siongo alaba, Poz zaitez ekinahalean;
Egizu algara alai, Jerusalengo alaba horrek!
Horra non *datorkizun zure Errege*
zintzo eta garaile...! (Za 9,9).

Dei-oihu hauk «Siongo alaba»ri zuzentzen zaizkio*: Israel herriari, alegia (Jerusaleni bereziki). Israel herria irudimenezko neska gazte batez itxuratzen bait da askotan.

Poz-oihu horiek, beren betekuntza, Lukaren pasartean, irudimenezko neskatxa batengan ez baino neska bizi batengan lortzen dute: herri osoaren izenean datorrenagan. Mariaren bidez, Israel herria da haren mezua jasotzen duena: Jainkoak bere herriari Errege, Mesia bidaltzen dio.

Eta Mariak aingeruari: «Nola gertatuko da hori, ordea; nik ez bait dut gizonik ezagutzen?» (Lk 1,34). Galde honek, mezuaren bigarren zatirako bide ematen dio: «Izpiritu Saindua jaitsiko da zure gain, eta Goi-goikoaren indarrak bilduko zaitu bere itzalpean» (Lk 1,35). «Bilduko zaitu bere itzalpean» delako adierazpen hori Testamentu Zaharretik hartua izan da. Jainkoaren presentziaren irudi zen hodei argitsua ekar dezake gogora *(145)*: basamortuan Itun Kutxaren gain eta Jerusalengo tenpluaren gain jaisten zena. (Ex 40, 34-35; Zenb 9,15; 10,34; 2 Kro 7,2). Bada Testamentu Zaharreko beste aipamenik ere Lukaren orrialde bakar honetan.

Jaunaren Ama *(48)* 51

Gogoeman dezagun une batez Jainkoak hainbat gauza egin zion andra gazte hori *(53,57)*. Aro zaharra amaitu eta berria hasten duen hori. Zain zegoen Israel herriaren irudi garbiena den Maria, Kristo onartzen duen Elizaren irudi-eredu* bilakatzen da *(61, 131, 153, 163)*. Ez du hartu predikatzeko mandaturik Joan Bataiatzaileak eta apostoluek bezala. Maria ez da hotsegile ofiziala. Markok, batez ere Jesusen ageriko

diosal: agur. **zaizkio:** jakoz. **irudi-eredu:** etsenpluzko irudi.

predikua ematen duelarik, ez du axola berezirik agertzen bere ebanjelioan Mariarekiko. Aldiz, Mateo, Luka eta Joan, gero eta jabetzenago* dira Mariaren zereginaz. Hau ez datza Kristorekiko amatasun soilean (ikus Lk 8,19-21). Maria, oso-osorik dago gertakariei loturik (*216, 397*). «Arduraz gordetzen zituen» salbamendu egintzak, «eta bere bihotzean hausnartzen* zituen» (Lk 2, 19.51). «Sinetsi egin du» (Lk 1,45). *Prius mente concepit quam ventre:* bere erraietan baino lehen bere gogoan ĕrne zuen Kristo. Kristoren misterioan duen leku aparta eta nagusiagatik Elizan ematen zaion kultua, benetan Ebanjelioaren araberakoa da.

Jesus bere lehen-semea zuen. Ebanjelioek ez dioskute Jesusen ondoren beste seme-alabarik ukan zuenik. Jesusen «anai-arrebez» mintzatzeak (Mt 13,55-56) ez du ezer esan nahi, berez, alde horretatik. Izan ere, heberkeraz eta arameoz, «anaia» edo «arreba» hitzez ahaide urrunagoak ere adierazten bait dira. Egun ere, halaxe egiten da Nazareten. Ebanjelioan bertan ageri da, «Jesusen anai-arrebak» ez direla nahitaez Joxeren eta Mariaren seme-alaba; Mateok (13,55) «Jesusen anaia» deitzen dituen Jakuek eta Joxek, Mateoren beraren arabera (27,56) beste Maria bat dute ama. Itxura guztien arabera, bigarren aldian aipatzen dituen Jakue eta Joxe lehenbizikoak berak izan ez balira, Mateok adiaraziko zuen noski nolarebait. Jn 19, 27ren arabera bereziki, sinesgaitz gertatzen da, Mariak Jesus beste seme-alabarik ukan zuelakoa. Kontutan hartzekoa da, kristau ikonografian inoiz ez dela irudikatu* Ama Birjina seme-alaba askoz inguraturik; Erreforman ere ez[2].

Elizak martxoaren 25ean ospatzen du Mariari egindako iragarkundea*, Eguberriak baino bederatzi hilabete aurretik. Ohitura da ere, egunean hiru bider *Angelus* errezatzea, ezkilak* jotzen duenean: goizean, eguerdian eta arratsean. Gizon eginiko Jainko Semearen misterioa gogoratzen dugu otoitz honetan.

Hitza haragi egin zen *(30)* 52

Konturatu[3] ote zen Maria, berak haur-egina zehazki nor zen jakiteraino? Seguraski, ez; zeren biztuera hasi bait zen Jesus nor zen argi eta garbi ipintzen. Orduz gero, bai, laster idatzi ahal izan zen honelako goratzarrerik (*416*):

> «Bera da Jainko ikusezinaren irudi,
> sorkari* guztietan lehena;
> zeren Harengan izan bait ziren sortuak gauza guztiak (Kol [1,15-16).

2 Ik. *Eraskina*: «Mariaren betiko...» 537 or.
3 Ik. *Eraskina*: «Konturatu ote zen...» 537 or.

jabetzenago: konturatuagotuz, gero eta gehiago konturatuz. **hausnartzen:** pentsatzen. **irudikatu:** irudiz eman. **iragarkundea:** anunciación, annonciation. **ezkilak:** kanpaiak. **sorkari:** criatura, créature.

edo kantika hau bezalakorik:

> «Izatez Jainko bazen ere,
> ez zuen ardura handiegirik agertu
> Jainkoarekin zuen berdintasuna gordetzen;
> ostera baizik, soildu eta ezereztu egin zuen bere burua,
> esklabu izaera hartuz: eta gizon egin zen» (Flp 2,6-7).

Testamentu Berriko testu hauk, ebanjelioak berak baino *lehenago* idatzi ziren. Ez dira testu bakarrak. Geroagoko pasartetan ere mintzatu ohi da Jainkoaren baitako Jesusen jatorriaren misterioaz. Esate baterako, Joan sainduaren ebanjelioaren haseran:

> «Haseran bazen Hitza,
> eta Hitza Jainkoagan zen,
> eta Hitza Jainkoa zen.
> Haseran Jainkoagan zen Hori» (Jn 1,1-2).

Jaio zena, bazen «hasera-haseran»; bazen Genesiaren lehen bertsoak aipatzen duen «hastapenean»:

> «Horren bidez egin zen dena;
> eta hori gabe ez da ezer egin» (Jn 1,3).
> «Harengatik eta harentzat izan zen dena sortua» (Kol 1,16).

Hona beraz zer aldarrikatzen duen Testamentu Berriak: gure munduan jaio den Jesus hori, munduaren hastapen-hastapenean ihardunean ari zela. Horixe adierazten du Joanek damaion izenak: Hitza. Hitz honek beste adierazpen hau dakar burura Kreazioaren kontakizunean hainbat bider datorrena: «Jainkoak esan zuen». Sainduen eta profeten bidez Israel herria sortu zuen Jainkoaren Hitza gogora arazten digu (*29, 31*). Jainkoaren Jakinduria biziemailea gogora arazten digu: «Guztiahaldunaren aintzaren isuri guztiz garbia» (horregatik, honela dio Hebertarren epistolak [1,3]: «Jainkoaren aintzaren distira da»).

Jainkoaren ardura horretaz, zentzu bizia zuen Testamentu Zaharrak ere. Guregana bihurtzen den Jainkoa, lurrean gure arteko bat bezala agertu zena da. Jainkoa ez da urruneko: «Eta haragi egin zen Hitza» (Jn 1,14).

Errealitate hau hausnar lezanak, zur eta lur gelditu behar luke. Gizon eginiko Jainkoaren Semearen misterio honen sorburuan ez dagoke arrazoin bat besterik: maitasuna bakarrik da horretarako gauza.

> «Zeren maite ere,
> bere seme bakarra emateraino maite izan du Jainkoak
> mundua» (Jn 3,16).

Jainkoaren beraren irudi 53

Jainkozko misterioaren handia! Gizakia doi-doi ausartzen bait da sinestera. Hori sakontasuna! Agian, hobekiago jabe-

tuko gara sakontasun horretaz, hori txikartzekotan* gizakiak egin izan dituen entseguak* —gureak alegia— lerroz-lerro jartzetik hasten bagara. Bai bait da gure baitan joera bat, misterio hori bere handitasunean hartzetik apartatzen edo gaituena. Kristautasunaren lehen mendeetatik hasten da joera hori. Hiru bider hartu behar izan zuen hitza Elizak, misterio hori bere osotasun eta sakontasun osoan gordetzeko.

Zein da, beraz, Gizakunde misterioa txikartzera eragiten digun joera hori?

Beharbada, honela adiaraz genezake. Geure gogoetan eta, baita, Testamentu Zaharraren nola-halako aditzean oinarriturik, Jainkoaz, Jainkoaren izate ikusezinaz, ahalmenaz, hurbil-ezinaz, ideia bat taxutu dugu. Ideia hori, nahiezta ere, Jesusekin alderatzen* dugu, eta honela diogu: ez, Jesus hori ez daiteke Jainko izan.

Jainkoa[4] nor den egiaz jakingo bagenu bezala! (*17-18*). Jainkoaz eratzen dugun ideia Jainkoari guztiz balegokio bezala! Jesusen bidez bakarrik dakigu nor den Jainkoa. Jesus ez dugu ezagutzen guk Jainkoari buruz dugun ideiatik; aldiz, Jesusen bidez ezagutzen dugu Jainkoa. Jesus azaltzean ukan dugu Jainkoaren agerkundearen egiazko adiarazpen bakarra (*60, 414*).

K.o. 300. urte inguruan, aipatu dugun joera hori Alexandriako apaiz zen Arrioren dotrinan hezur-mamitu zen. Bereziki gizakiak landuriko Jainkoaren ideia bat eta Jesus, munduan agertu bezala, ipintzen zituen buruz-buru. Eta konklusio hau ateratzen zuen: Jesus ez da Jainko; egia da Kreatura garaia* dela, baina, funtsean*, Kreatura da.

Elizaren lehen batzar nagusi orokorra, 325ean Nizea-n egina, arrianismoa gaitzesteko* bildu zen. Hauxe aldarrikatu zuen: Jesusengan egiaz Jainkoa agertu dela lurrean, pertsona bezala; eta pertsona hori Jainkoaren Semea dela.

Nizeako kontzilioak antolaturiko fede-aitorpena da Ebanjelio ondoren esaten edo kantatzen dugun «kredoa» (*265*): «Jainkoagandik Jainko, Argitik argi, egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko; sortua, ez egina, Aitaren izate berekoa».

«Sortua, ez egina»! Bada Jainkoagan egiazko jatorri bat, egiazko jaiotze bat, kreazioa ez dena (*416-417*).

Horrela, Aitarengandik dator Semea.

Bazen, ordea, oraino, erantzunik gabe gelditutako korapilorik. Gizakiak, bere gisara edo, antolatu duen ideia, Jesu-

4 Ik. *Eraskina*: «Jainkoa nor den...» 553 or.

txikartzekotan: txikitzekotan. **entseguak:** ahaleginak. **alderatzen:** gonbaratzen. **garaia:** handi-handia. **funtsean:** *mamian, oinarrian.* **gaitzesteko:** *kondenatzeko.*

kristorengan agertu den Jainkoaren egiazko irudiarekin ezin bateratu du: zail gertatzen zaio behintzat bateratzea.

Zailtasun hori da 400. urte inguruan agertzen den teoria baten sustraia. Teoria horrek dioena, hauxe da: zeruko Jainkoaren Semea eta Jesus gizakia bi pertsona direla. Noski, badute bien artean erlazio hestu bat, baina izan, bi pertsona dira. Teoria honek, «garbi» eutsi nahi zion Jainkoaren ikusmodu bati. Teoria hau, V. mendean bizi izan zen Nestorioren pentsakeratzat hartzen da.

Ez dugu, alabaina, hain urrunera joan beharrik, teoria hori aurkitzeko. Egun berton gertatzen da horrelakorik, Kristo hartzeko dugun moduan; batez ere, nolabaiteko jarrera zientifikoa hartzen dutenengan. Batetik, «Jainkoaren Semea» dela sinesten dugu; baina, fede horrek ez du batere indarrik ukan ohi, Jesus bera gogoematean*. Orain bi mila urte inguruko *rabbi* bezala hartu ohi dugu. Gizon handi batetaz bezala mintzo ohi gara hartaz. Jesusen *giza bizitzan* ez dugu ikusten Jainkoaren Semearik; ez dugu ikusten harengan betiko argiaren distirarik.

Joera honi aurre emanez, Efesoko kontzilioak (431) honako hau deklaratu zuen: Jesus, bere giza natura eta bere Jainkozko natura desberdinak dituelarik ere, pertsona bakar dela. Jesus gizonarengan Jainkoa topatzen dugu. Kristoren misterio hau indarrez adieraztekotan, Mariari «Theotokos--Jainkoaren Ama» izena ezarri zion kontzilioak.

Halaz guztiz, bazuen gizakiak oraino beste bide bat jainkotasuna oker hartzeko. Efesoko kontzilio garaian monofisismoak erakusten zuen bidea da. Joera haren aldezlariek*, tartean monje asko zirelarik, errespetu handiz ezagutzen zuten Kristoren batasuna; baina, haien pentsamoldea honetara zetorren: Jesusek jainkozko natura bakarrik zuela esatera. Ez zen egiazko gizakia Jesusen gizatasunean agertzen zena. Jainkoaren Semeak gizon itxura egiten zuen; egiaz ez zen gizon. Jainkoa, gizon itxuran zebilen lurrean.

Horrelako okerrik bada gaurregun ere Kristoz ohi dugun ikusmoduan. Batez ere, jainkozaleen arriskua da hori. Hain barneraino biltzen dira horik Kristoren jainkotasun giroan, non ez bait dute Harengan jainkotasun hori besterik ikusten. Esate baterako, Jesus haurraz dagoen zenbait adiarazpenetan haur *itxura hutsa egiten zuela* ematen du. Jesusek, adiarazpen horien arabera, giza bizitza bizi duelako *itxura* egiten du. Baina, hazi, ez da hazten gu bezala. Ez du pentsatzen, ez du sentitzen gutako batek bezala. Guztiz heldua litzateke; gizartean, gizatasun itxura hutsa harturik ibiliko litzateke.

---

gogoematean: pentsatzean. **aldezlariek:** aldekoek.

Kristoren jainkotasunaren aldeko kontzilioaren (Nizeakoaren) ondoren, Kristoren batasunaren aldekoaren (Efesokoaren) ondoren, Kristoren gizatasunari hirugarren kontzilio bat zor zitzaion, monofisismoaren aurka. Hala bildu zen eliz-batzarra Kaltzedonian, 451an, Efesokotik hogei urtetara. Testu bikain eta behin-betirako batetan, honela deklaratu zuen: Kristoren pertsona bakarrean, bi naturak, jainkozkoak eta gizonezkoak, oso-osorik dirautela*. Egiazko Jainkoa egiazko gizon batengan agertzen da. Gizon horrengan, Jesusengan alegia, Jainkoaren handitasuna, on eta hurbil, urrikibera*, gaitzaren kontrako agertzèn da: Jesus bera bezala. Gure pentsamoldeak atzera gelditzen dira. Jaio, hil eta biztu zen, eta bere Izpiritu Sainduaz Elizan bizi den Jesusek esaten digu nolakoa den Jainkoa.

Utikan* gure larriak* ere! «Bere odola isurtzeraino», gure alde gaitzaren aurka borrokatzen den Jesusengan, Jainkoaren misterioaren hondoraino garamatzan bidea aurkitzen dugu (*413*). Kristoren giza bihotza, Jainkoaren bihotza da.

Gizakiaren arazoa dago hemen tartean 54

Jesusen lur honetako agerkundeari modu bakarrean eta berri-berrian dagokiona, aipatu ditugun eta Erreformaren fundatzaileek ere oso-osorik onartzen zituzten hiru kontzilioetako formuletan, okertzeko arriskutik gorde ahal izan da. Kontzilio horik nahasmendu eta giza etsaigo handienen artean egin ziren. Halaz guztiz, Jainkoak gizadia beste maila batetara jaso zuen haien bidez.

Horren argibidetzat, aski da xehetasun koxkor hau gogoan hartzea: hizkuntz azterketak hauxe adierazten du: gure «pertsona» kontzetua, bere esanahi sakonenean, ez dela garbi agertu, kontzilio horien bidez ez bada.

Erromatarrek ezagutzen zuten «pertsona» hitza; eskuko* zen herritarra adierazteko erabiltzen zuten lege hitza zen. Horrez gero, esklabua ez zen «pertsona». Greziarrek, «indibidu» edo gizabanako hitza ezagutzen zuten: giza natura orokorraren hezur-mamitze autonomua adiarazten zuen. Baina, gizaki bakoitza, errealitate bakar bezala, ordaingabeko* bezala, azkengabeko baliodun bezala —guk, «giza pertsona» hitzez agertzen duguna—, kontzilio hauen garaian bakarrik azaldu zen argi eta garbi; Jainkoaren Semea gizon egin zelako, gizaki guztiak azkengabeko baliodun bilakatu ziren. Horrela hazi zen gizakiak, gizaki elbarriak* berak, gizartearentzat baliogabe dirudien gizakiak berak dituen duintasunaren eta eskubideen ardura. Lagun hurkoa pertsonatzat hartuz gero, esklabutzak, giza mailan, galdua zuen

dirautela: irauten dutela. **urrikibera:** errukior. **utikan:** kanpora, utz. **larriak:** helduak. **eskuko:** libro. **ordaingabeko:** trukatu ezina. **elbarri:** ezindu.

bere indarra; ekonomi eta gizarte mailan indargabetua izan baino lehen galdu ere (*172,180,37,40-41*). Mende asko behar da igaro, egia horrek gizadia kutsa dezan baino lehen (*179-180,194,227*). Ezin kontura gintezke, zer zitekeen gizadia Kristo gabe; ez da kristaurik, ez humanistarik, ez eta marxistarik, hori jakin lezakeenik. Esan ohi da, ba, kristautasunak bi mila urtez ez duela ezer aldarazi. Nola jakin genezake hori? Inor ez da gauza, Jainkoaren agerkundea munduarentzat zer izan den jakiteko, erabat bederen.

Horretaz artegintzan zerbait ageri da. Gizadiaren artea hain ongi ezagutzen duen André Malraux-ek, bera kristau ez izanik ere, horixe ohar arazten digu. Erromatar artegintzan ageri diren aurpegi guztien gain —hala dakus Malraux-ek— «natura» ageri da; Erdi Aroko giza irudien aurpegia, aldiz, «biografia» bat da. «Eta arte gotikoak utzi dizkigun aho ederrenak, bizitza baten aztarrenak* dira».

Ez ote gabiltza, ordea, gogoeta hauekin haritik kanpora, Gizakundea* alde batetara utzita? Ez horixe. Aldiz, gizon eginiko Jainkoaren misterioa, gizatar egiten den gizakiaren misterioarekin harreman hestuan dagoela adierazten digu horrek guztiak. Jainkoak nahi duen bezalako gizakiaren misterioarekin, alegia. Hobeto esan, gizakiaren jainkotzearekin; hala esan ohi zen kontzilio nagusien garaian. Jainkoa egiazko gizon, gu egiaz jainkozko egitearren egin zen gizon. Gizakundea, zinez, gizakiari dagokio.

Dogmak ez dira hitz hutsak, balioak baizik... gure ikusmira izpirituala zabalagotzen duten balioak (*267, 285*). Kristoz ihardun ziren lehen hiru kontzilio nagusiek, ahalik bide zabalena ireki besterik ez zuten egin. Ez dute deus ukatzen. Gizakiarengandik datozen ukapenak ukatu besterik ez dagite. Ebanjelioan datorren misterioa esplikatzen eta argitzen dute (*302, 375*).

Jesusen jaiotzearen ospakuntza 55

Ez dakigu ziur zein egunetan jaio zen Jesus. Haseran, ez zen halako ardurarik Eguberriak egun jakinean ospatzeko. Bakar-bakarrik, Bazko jaia ospatzen zen, Kristoren misterio osoaren oroitzapena*. Baina, III. mendean, Jesusen jaiotzeaz jai berezi bat egiteko gogoa azaldu zen. Hemen ere, Ebanjelioko kontakizunei buruz topatu dugun gauza berarekin aurkitzen gara: lehenengo, Kristo gizon helduaren misterio nagusiak, eta ondoren, ur-gora egiteko* gogoa, eta txikitako gertaerak gogoematekoa.

aztarrenak: hatzak, seinaleak. **gizakundea:** gizon egitea. **oroitzapena:** gogorapena. **ur-gora egiteko:** behetik-gora joateko.

Jesusen jaiotze eguna ezagutzen ez zelarik, aukera osoa zuen Elizak egunik adiarazgarriena* hautatzeko. Berez bezala, eguna luzatzen hasten deneko urte aroa aukeratu zen. Aitzina-aitzinatik, abenduaren 25a eta urtarrilaren 6a dira Jesusen lehen agerpen jai egunak. Jentil jaien ordezko bilakatu ziren horrela; baina, hau bigarren mailako arazoa da. Aukera horren arrazoina, askoz sinpleagoa da, eta ulerterrazagoa. Gure munduan argi berria datorren garai berean, inoiz itzaliko ez den argi berriaren etorrera ospatzen da. Argi izpirituala da. Horregatik, gutxi axola dio, naturaren sinbolu hori, dela gure hiriak beti argitan ditugulako, dela hego hemisferioan urtearoak berdinak direlako, erdi galdua nahiz arras galdua izateak. Kristau fedeak atsegin du, noski, natura, eta gogotik darraio haren ritmoari; baina, ez da naturaren erlijio, ez da urtearoen joan-etorrian oinarrituriko kultua; beti egun-egungo diren egintza historikoetan oinarritua da (*30, 33, 138, 157, 164*).

Jesusen jaiotzea gertaera historikoa da. Gertaera horretatik kontatzen dugu giza kondaira osoa: dela Kristoren aurrekoa (K.a.), dela Kristoren ondorengoa (K.o.). Lehen urtea, Jesusen jaiotze urtea da. Egundoko asmazioa hauxe! Horren arabera aldatu zuen kronologia zaharra (Erroma hiria eraiki zenetik kontatzen zuena) Dionisio Txikarrak*, VI. mendeko monjeak. Honek, oinarritzat, Lukaren berria hartzen du: «Eta Jesusek, agertzen hasi zenean, hogei eta hamarren bat urte zituen» (Lk 3,23); baina, ez zen kezkatu zenbaki horren zehazgabetasunaz*. Horregatik, hain zuzen, lau-zazpiren bat urtez okertu da. Ez da joan-etorri handiko arazoa. Kristo zenbait urtez lehenago jaioa izan arren, *anno Domini* edo *Jaunaren urtean* delako esakuna* bere indar guztian darrai: Jesusekin aro berri bat da hasia.

Jainkoaren etorreraren gertaera historikoa guztiz hurbil darrai gure artean, liturgiaz (*275*). Horregatik, kapitulu hau, Kristoren etorreraz egin ohi dugun gure urteroko ospakizunaren arabera idatziko dugu. Liturgiak aukera ederra damaigu horretarako; abenduaren 25etik otsailaren 2ra kontakizun nagusien guztiak ospatzen bait ditu.

Urteko gaurik luzeenean, Jesusen jaiotzearen oroitzapena dagi Elizak. Egin ere, meza hiru bider emanez egiten du oroitzapen hori: gauerdian, egunsentian eta egunez. Meza bakoitzerako otoitz eta kantu desberdinak antolatuak ditu. Ohitura hau Jerusalendik datorkigu. Lehenengo, Belenen egin ohi zuten beila* kristauek; egunsentian heltzen ziren Jerusalenera; gero, egunez, Jerusalengo katedralera biltzen ziren. Egun ere, Eguberrietako liturgia hiru mezaz ospatzen da.

Kristauak gauerdirako bildu direnerako, lurbiran zabalduriko elkarte kontenplariek* Eguberri gaueko gaualdi* luzeak errezatuak dituzte: bi ordu, salmuak kantatuz, irakurgaiak (Isaiarena, Leon Aita sainduarena, Gregorio sainduare-

adiarazgarriena: esanahi handienekoa. **txikarrak:** txikiak. **zehatzgabetasunaz:** gutxi gorabehera izateaz. **esakuna:** esana. **beila:** vigilia, vigile. **kontenplalari:** contemplativo, contemplatif. **gaualdi:** maitines, matines.

na, Anbrosio sainduarena, Agustin sainduarena) irakurriz[5] (*248*). Mirespen irrintzi luzèa! Horrela prestatu da Eliza kontenplaria; bienbitartean, gutako gehienak ere, nor bere etxean, jaia prestatzen ari gara. Batetik, profeziak betetzen direneko gaua da; bestetik, Maria eta Joxe haurraren jaiotzerako prestatzen direnekoa.

Gauerdiko meza, Semearen betidaniko jaiotzea aldarrikatzen duen kantuz hasten da:

> «Jaunak esan dit: nire seme zara zu, neuk sortu zaitut gaur».
>
> «Agertu da Jainkoaren grazia, gizonen osasun bidea» (Tt 2,11).

Ondoren, hitzaren liturgia bere gailurrera iristen da, jaiotzea soil-soilik kontatuz: herritarren zenbaketa* batetarako, Maria eta Joxe Belenera doaz, Dabiden jatorriaren hirira:

> «Han zeudela, semea ukaiteko egunak bete zitzaizkion Mariari. Eta bere lehen semea egin ondoren, zapitan* bildu zuen eta ganbela* batetan jarri, ostatuan ez bait zuten lekurik ukan» (Lk 2,6-7).

Sehaskatzat ganbela bat du. Horrela agertu da Argia. Behartsu bat bezala, etzateko tokirik ez duen behartsu bezala. Jaio deneko hiriak ongi azaltzen du haurraren handitasuna: Belen, errege hiria: egun hartan, behinola* Dabidi eginiko agintzak han betetzen ziren.

Ebanjelioak badakar aingeru agerpen bat ere: Jainkoaren aintzaren distira bizia da. Honela kontatzen digu Lukak aingeruen kantua:

> «Aintza goietan Jainkoari,
> eta bakea lurrean haren gogoko diren gizonei» (Lk 2,14).

Lehen, «gogo oneko gizon-emakumeei» esan ohi genuen; baina, Ebanjelioak hau esan nahi du: Jainkoak gogoko dituen gizon-emakumeak; Jainkoari atsegingarri zaizkionak. Horretatik dator oraingo itzulpena: «haren (Jainkoaren) gogoko gizonei». Jainkoarèn onginahia, haren atsegina, inor bazter uzten ez duena: horixe da gau honetako gai nagusia:

> «Hona zer den Haren maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatea, baizik berak izan gaitu gu maite, eta bere semea bidali du gure bekatuen ordain oparitan*» (Jn 4,10).

Jaiotzearen kontakizunari homilia darraio; ospatzen den jaiaz mintzatuz. Ondoren, Jaunaren afaria dator.

Egunsentiko meza, argiari buruzko testuz baterik dago. Bigarren irakurgaia, berriro ere, Titori eginiko kartatik har-

5 *Kristau Bidea* liburu hau Holandan argitara eman zenetik, zenbait berrikuntza gertatu da Liturgi arloan. Hori dela eta, liburu honetan ematen den hainbat aipamen ez da oraingo Liturgian xuxen-xuxen horrela agertzen; hala nola, lehen urteoro berdinak ziren mezatako irakurgaiak, hiru urtez behin berritzen dira orain (A, B, C urteak direla bide); sakramendu ritu batzu ere berritu eta aberastu dira... Euskarazko meza liburu egoki eta gaurkotu baten faltaz, ezinezko gertatu zaigu irakurleari kasu bakoitzean nora jo adiaraztea.

zenbaketa: censo, recensement. **zapitan:** xatarretan. **ganbela:** atalako. **behinola:** behin batean. **ordain opari:** propiciación.

tua dugu. Jainkoaren ontasunaz mintzo da, Jainkoaren onginahiaz, Jainkoaren aurrea-hartzeaz: «Guk egin izan genitzakeen zintzotasun obrengatik ez baino bere urrikiaren urriki hutsez salbatu gintuen» (Tt 3,4-7).

Meza honetako ebanjelioak Lukaren kontakizunari darraio; gauerdiko mezan moztu zen une beretik hartuz, Jainkoak lehenik nortzu aukeratu dituen kontatzen du: haurra ikustera datozen artzain pobre batzu. Artzainak, garai hartan, behartsu izateaz gainera, mespretxatuak ziren (57). Hèrri osoaren ordezkari dira hemen, aingeruak esan zuenez: «Ez beldur izan; hona: poz handi bat iragartzen dizuet (berrion bat, ebanjèlioa!), herri guztiarentzat izanen dena» (Lk 2,10). Osasuna* etorkizun ez, baizik «gaurregun» aintzatsu bihurtzen den une beretik, Ebanjelioarentzat balioak azpikoz gora jarri dira. Handikiak ez, eta bai xumeak dira herriaren ordezkari.

Jesusen jaiotzearen kontakizuna, egunsentiko mezako ebanjelioarekin bukatzen da.

Eguneko meza da, berez, Eguberritako meza. Une honetan aldarrikatu nahi ditu Elizak hitzik handienak Semearen betiko jaiotzeaz. Sarrerako kantua, honela hasten da xalo-xalo: «Haur bat jaio zaigu»; baina behingoan* honela darrai: «Aginpidea bere sorbaldan du. Haren izena, aholku handiko Aingeru» (Is 9,5). Bigarren irakurgaia, Hebertarren epistolaren hasera bikaina da (Heb 1,1-12). Eta ebanjeliotzat, Joan sainduaren ebanjelioaren hasera hartzen da:

«Haseran bazen Hitza,
eta Hitza Jainkoagan zen,
eta Hitza Jainkoa zen.
Haseran Jainkoagan zen Hori.
Horren bidez egin zen dena;
eta horı gabe ez da ezer egin
Izaki guztien bizitza zen Hori,
eta bizitza zen gizonen argia,
eta argiak argi egiten du ilunpetan
eta ilunpeek ez zioten Horri antzik eman...

Hitza zen benetako argia,
gizon oro argitzen duena;
mundura etorri zen.
Munduan zen,
eta Horretxen bidez egina da mundua,
eta munduak ez zuen ezagutu.
Bere etxera etorri zen,
eta beretarrek ez zuten etxean hartu.
Baina hartu zuten guztiei,
Horren izenean sinesten dutenei,
Jainkoaren seme egiteko eskubidea eman zien.
Bera, berriz, Jainkoak sortu zuen,
ez odolek,

---

osasuna: salbazioa. **behingoan:** berehala.

ez haragiaren gogok,
ez gizonaren nahik.
Eta haragi egin zen Hitza,
eta gure artean bizi izan zen.
Eta geuk ikusi dugu horren aintza,
Seme bakarra denez bere Aitagandik duen aintza,
graziaz eta egiaz betea» (Jn 1,1-5.9-14).

Hain gora igotzen da Elizaren liturgia, Eguberritako misterioa ospatzekotan. Geure bihotza eta arima osoz eskuhartuz* gero, Eguberriko graziaz beteko gara: Jesus haurrarengan ezagutzen dugun Kristo osoarekin topo egitea* izanen den graziaz (*42, 275*).

Jaia familian eta beste lagunarteetan darrai. Jaiotzea, Eguberri kantak (norberak abestuak nahiz irratiz eta diskaz entzunak), Eguberriko zuhaitz apainduak, ezkilak: hori guztia da Eguberri jaiari beste ezeri ezbezalako giro berezia damaiona, bai famili barruan bai kalean.

Abenduaren 25a, sinesgabeentzat, negu-sarreraren jaia da; udazkeneko lanaldiaren ondoko atsedenaldia, familiako goxotasuna bizi ohi den garaia. Kristauentzat ere badute Eguberriek asmo hori. Bi alderdi horietatik datorkio Eguberritako jaiari tirabira berezi hori; Asisko Frantziskok berak ere bizi zuena, eta poeta modernu askok aipatzen duena. Eguberriak, alde batetik, pobretasunaren jai dira: geure ingurumari itxitik ateratzen gaituena, maitasunaren jaia; eta bestetik, Eguberriak, hain zuzen, ugaritasunaren jai dira: famili giroan ospatzen duguna, barnetasun jaia eta, horrela ere, maitasunaren jaia. Kristauak hauxe ukanen du, beti, bere eginkizuna: bere famili ingurumariko ez den lagun hurko guztiengana irekitzea. Horrela bakarrik ukanen du gure Eguberri ospakizunak zerikusiren bat Jesusen jokabidearekin: guk ulertu ezineko moduan, bere Aitaren egoitza* uzten bait du, gure artean bizitzera etortzeko.

Jaiotzetik zortzi egunetara, haurra erdaindu* egiten dute, Lukak dioenez. Gertakari hau, Eguberritik aste betera ospatzen du Elizak[6], guretzat Urte Berria hasten den egunean. Legearen araberako erdainkuntzak Jesus herritartu egiten du Israelen.

Jaio aurretik ezarria zuen izena hartzen du Haurrak une horretan: *Jesus*, hau da, «Jahvek salbatu egiten du». Izen hori bera zeraman Israel herria agindutako lurraldera sar erazi zuenak: *Josue*.

6 Zortziurreneko igande honetan, erdainkuntza ez baino «Jainkoaren Ama Maria»ren jaia ospatzen dugu Liturgi egutegi berrian.

eskuhartuz: parte hartuz. **topo egitea:** elkarganatzea. **egoitza:** etxea, bizilekua. **erdaindu:** ebaki, circuncidar, circoncire.

Jaunaren epifania, agerpena 56

Ez da horrenbestez amaitua Eguberri aroa. Hona beste puntu garai* bat: urtarrilaren 6ko liturgia. Aitzina, gurean Eguberriak ainako garrantzia zuen. Gertakari handia da jai honetan ospatzen duguna: Jaunaren agerpena, *Epifania.*

Ikuspegi horretatik, gure salbamĕnduko hiru urrats bateratu dira: Ekialdetik etorritako magoen adorazioa, Jordan hibaiko Jesusen bataioa eta Kanako ezteiak. Hiru misterio horietan hasten da agertzen Kristoren aintza.

Lehen irakurgai bezala, Isaiaren liburuko pasarte pozgarrienetako bat hartu da: «Jaiki zaitez, distira ezazu, Jerusalen! Etorri bait da zure argia, eta Jaunaren aintza zeure gainean duzu» (Is 60,1-6). Jahvek, bere argia distiraziko du Jerusalenen, eta hori ikustean, jentil herriak haruntz bidean ipiniko dira. Hain zuzen, Jesusen bidez, Jainkoak bere salbazioa agertu du Jerusalenen, Palestinan.

Aipatu ditugun hiru misterioetarik, lehenengoari heltzen dio egun honetako ebanjelioak. Mateoren ebanjelioaren hasera aldean irakurtzen dugun pasartea da: Jesusen lehen agerpena judutar ez direnei, Jesusen etorrera Israelen mugapeko ez direnei ere badagokiela adiarazten du lehen ezagugarri honek. Zeruko izar baten eta judutar profezia baten gidaripean, Ekialdetik (Pertsiatik, Babiloniatik, Arabiatik?) etorririko mago batzuk, haurra eta honen ama aurkitzen dituzte, eta errege bati bezala dagiote omenaldi. Katakunba aroaz gero baliatu dira Kristauak ikuskari honetaz, Jesus mundu guztiari agertu zaiola adierazteko. Sarritan, Epifania jai hau «Errege eguna» bezala ezagutu ohi da.

Magoen kontakizunak jarraipen bat badu: Belengo haurren sarraskia* eta Jesusen Egiptora ihes egitea. Eguberri jai ondoan, berehala, abenduaren 28an, haurtxo horien heriotza ospatzen du Elizak: gaitza ezagutzeke eta egiteke, beren odola Jesusengatik eman zutenena. Haur Errugabeen* jaia da.

Egiptora ihes joateak hau esan nahi zuen: Jesusek, bere itzulian, aitzina Egiptotik atera zen herriaren bideari ekinen ziola. Mateok honela gogora arazten digu: «Jaunak Profetaren bidez hotsegina gerta zedin: Egiptotik deitu dut neure Semea» (Mt 2,15). Jesus da Semeetan Semea; Israel herria bera baino areago. Harengatik eta harengan aterako da herria, erabat eta betirako, esklabutzaren lurraldetik.

Jesus lehenengo aldiz Jerusalenen 57

Lukak, bere aldĕtik, badu oraino Jesusen bide egite bat kontatzeko: Jauna lehen aldiz Jerusalenera igotzen da. Ger-

garai: nagusi. **sarraskia:** hiltketa. **errugabeen:** hobengabeen.

takari hau, otsailaren 2an ospatzen du Elizak. Elkar aurkitzearen (Hypapànte, diote Ekialdean) jaia da, edo Kandelaria eguna. Jesusen jaiotzetik berrogei egunetara, gurasoek Jerusalenera jotzen dute, legea betetzekotan. Mariak garbikuntza legea bete behar zuen; Jesus, lehen-seme zelako, Jainkoari eskainiko zioten (gurasoek «bir-erosi» egiten zuten berehala beren lehen-semea; behartsuek, Joxek eta Mariak bezala, usapal* biko eskaintza bat aski izaten zuten).

Jai honek dituen esanahi desberdinetatik, liturgiak, batez ere, bat hartzen du. Egungo exegeten iritziz, Lukarentzat ere giharra* zena, hain zuzen: agintzarien hiri den Jerusalenek, bere besoetan hartzen duela bere Salbatzailea lehen aldiz. Oraingo honetan, Ekialdeko liturgia erromatarra ezbezalako joritasunez* datorkigu: «Apain ezazu, Sion, zeure egoitza! Har ezazu Kristo Errege! Besarka ezazu, zeruko atea den Maria! Honek bait dakar bere besoetan aintzaren Errege, argi berria!» Horrela kantatzen zaie Haurrari eta honen Amari.

Lehen irakurgaia, Malakiaren pasarte bat da (3, 1-4). Garbitzekotan, bere tenplora datorren Jainkoaz mintzo zaigu. Ebanjelioa, Lukarena da, gertaera kontatuz (Lk 2,22-40).

Bada hemen esanahi handiko xehetasun bat: hemen ere, beste behin, Jesusi Jerusalenen harrera dagiotenak, erlijio buruzagiak ez baino agure bat eta emakume zahar bat dira. Dudarik gabe, «Jahveren behartsuen» ordezkari* dira, «Israelen pozaldia» egonarriz* itxaron dutenetariko (*25,48,55, 67*).

Simeon eta Ana deritzate. Simeonek goratzarre* bati ekiten dio Haur honen ohorez: «Herriak argitzeko argi, eta zure herri Israelen aintza». Judua eta jentila, biak deitzen ditu Jainkoak. Berriro, Jesusen egintza osoa dator sinbolizaturik haren bizitzako lehen gertakarietako batetan. Eta haur horrek hogei eta hamar urte geroago Jerusaleni buruz isuriko dituen negar-malkoak ere bai (Lk 19,41-44). Simeon, ama gazteari goraldiaz mintzo bazaio, askoren erorikoa ere iragartzen* dio (*70*). Haur hori, gizakiaren pentsamendu izkutuenak agerian ipiniko dituen ezagugarria da (*116*). Mariarentzat, bere Semearen etorkizun horrek hauxe esan nahi du: oinazezko ezpata batek alderik alde zulatuko diola bihotza (*120,131*).

---

usapal: tórtola, tourterelle. **giharra:** ginarria, muina. **joritasunez:** aberastasunez. **egoitza:** bizilekua. **ordezkari:** representante, représentant. **egonarriz:** pazientziaz. **goratzarre:** gorespen. **iragartzen:** aldarrikatzen.

Nazareten hazten da Jesus 58

Nazareten eman zuen Jesusek bere gaztaroa. Joxe harotza zen (Mt 13,35). Jesus ere, lanbide berean ari izana zen (Mk 6,3). Horrela bada, hogei eta hamar urte inguru arte, lanera beharturik daudenen bizikera egin zuen, eta familia arruntean bizi zen.

Orain mende bat, gure arbasoek gogotik hausnartzen zuten Nazareteko familiaren bizitza. Hauxe zitzaien hunkigarri: dudarik gabe, Nazareten izan behar zuen elkar bizitza bikaina: ongi konponduz, elkar maitatuz eta meneko* izanez. Horregatik, 1892an, «Familia Saindua» izeneko jaia eraiki zuen Elizak, Epifania ondoko lehen igandean ospatzeko[7].

Baina, Jesusek, bere isileko bizitzaz, eredutza* baino zerbait bikainagorik utzi digu. Herri koxkor horretako bere bizitzaz, Jainkoa nor den agertu digu, eta nola diharduen. Nazareteko bizitzaren esanahia hauxe da: Jainkoaren Semea, gurea bezalako bizitza arruntaz agertu zaigula. Prehistoriako ehiztarietatik hasi eta gaurko hiritar nahiz landatar gizon-emakumeetarainoko bizikeraz agertu zaigula: dela gurasoenaz, dela ikaslearenaz, dela etxekoandrearenaz. Lanaren zama* eta poza sentitzen dituguneko familiako nahiz taldeko bizikeraz. Itxuraz, historia «egiteko» balio ez duen bizikeraz agertzen zaigula Jainkoaren Semea. Horrelako bizikeran agertzen da Jesus. Eta horrela, berriro ere, hobekiago dakusagu Jainkoa nor den. Errealitate soilenean agertu nahi duena da; betidanik, gure bizitza arruntean izkutaturik, gure izatean eskuhartu duena; inor txundierazten* ez duen eta aztarrenik* utziko ez duen gure bizitzan «guztiz hurbileko» bezala agertzen dena da. Nazareten mezua hauxe da: Jainkoa geurea dugula, geure lanean, geure famili bizitzan. Horixe da Familia Sainduaren bizitza isilaren jaiak adierazi nahi diguna.

Jesus bigarren aldiz Jerusalenen 59

Jesusen Nazareteko bizitzaz inolako berririk ez dugu. Hauxe bai, halaz guztiz; Lukaren ebanjelioak jaso digun gertakari hau, alegia: Jesus, hamabi urteko dela, Jerusalenera doa bere gurasoekin, Bazko jairako; inori ezer esateke*, Tenploan gelditzen da; hiru egunen buruan, irakasleen artean aurkitzen dute gurasoek; irakasleak zur eta lur zeuden haren erantzunen argiaz; Mariak, berriz, ama batek bezala egiten dio

7 Eguberri ondoko igandez ospatzen da Liturgi egutegi berriaren arabera.

meneko: esaneko. **eredutza:** etsenplua. **zama:** pixua. **txundiarazten:** harriarazten. **aztarrenik:** hatzik, seinalerik. **esateke:** esan gabe.

demanda: «Seme, zergatik egin diguzu, ba, hori? Atsekabez beterik ibili gara hor zure bila zure aita eta ni» (Lk 2,48).

Jesusek, «aita» hitza Mariaren ezpainetatik jasorik, Aitarenetan egon behar zuela berak erantzun zion. «Aita» hitzaz, Jainkoa esan nahi du. Gurasoek ezin ulertu izan diote. Eta Mariak, ongi gorde zuen hitz hori bere bihotzean.

Zer esan nahi ote du gorabehera honek? Hori aurkitzeko, Lukak zergatik kontatzen duen jakin behar da (*56, 83, 119*). Lehen ohar arazi dugunez, ebanjelari honentzat, joan-etorri handiko gauza da Jesus *Jerusalenen* agertzea. Jainkoak agindua zuen, gizon-emakumeei hiri horretan agertuko zitzaiela. Lehen agerpena, Jesus Tenplora aurkeztean* gertatu zen. Orduan Jesus ez zen hitzegiteko gauza; Simeonen eta Anaren ahoz, Jerusalen mintzatu zen orduan; Jerusalenek aurkitu zuen, lehenik, bere Jauna. Oraingo pasarte honetan, alabaina, Jesus da mintzo dena. Oraingo honetan, Jauna da Jerusalen lehenik aurkitzen duena. Jainkoak bere herriari eginiko agintzak geure begiz ari gara nola betetzen diren ikusten.

Jesusen haurtzaroko kontakizunak, agintzak bete direla ikusaraziz amaitzearren, gertaera soil hori kontatzen du Lukak. Probintziako gazte bat, Nazareteko herritar bat, bapatean hiriburuan agertzen da, Jainkoaren hirian, eta bere izate osoaz Jerusalen bere etxea duela sentitzen du. Liluratu egiten da Jesus bere Aita Jainkoaren handitasunari horrela begiratzeaz, eta, lehenengoz, bere bizitzako eginkizuna sumatzen du, bere gurasoez ahazteraino.

Gazte argi batek bere deia aurkitzen du. Horra nola sartzen den Jainkoa bere tenplora. Bai harrigarriro betetzen direla iragarpenak*, bai giza tankeran! Haziz doan gizon batetan azaltzen zaigu Jainkoa. «Eta Jesus haziz zihoan jakitez, adinez eta graziaz Jainkoaren eta gizonen aurrean» (Lk 2,52).

Jesusen jakitatea 60

Galde[8] hauxe datorkigu hemen: Nola gerta daiteke, Jesus, alde batetik Jainkoaren Seme izatea eta, horrez gero, gauza oro jakitea, eta bestetik eta aldi berean, gizon izatea eta, horrez gero, jakitatean haziz joatea? Azken kapituluan egina dugun galde bera; baina oraingoan zehazkiago Jesusen kontzientziari buruz (*53*).

Honetan ere kontuz ibili behar dugu Jesus ezagutu baino lehen Jainkoa oso-osorik ezaguna izango bagenu bezala,

8 Ik. *Eraskina:* «Galde hauxe datorkigu...» 553 or.

aurkeztean: presentatzean. **iragarpenak:** profeziak.

gure giza burutapenetatik mintza ez gaitezen. Jesus ez dago hor Jainkoa ezagutzen dutela uste dutenentzat, Jainkoaren bila dabiltzanentzat baizik. Jesus gizonagana bakarrik zuzen genezake guk geure begirada. Hari begira bakarrik, antzeman geniezaioke Harengan goiagertu zaigun Jainkoaren zerbaiti. Guk irudika genezakeen handiena baino handiagoa da Jainkoa (*414*).

Jainkoaren kontzientzia, geure giza ahalmenez irudika genezakeen «kontzientzia absolutu» oro baino askoz biziago eta samurragoa da. Jesusen jakitatean, giza jakitatean (esate baterako, beste edozein gizakiri bezala, mundua aurkezten zitzaioneko jakitatean), Jainkoarekin duen berdintasuna islatzen* da nolarebait. Jesusengan, Jainkoa eskuerara* jarri zaigu.

Bataioa eta tentaldia

Ebanjelioek, espero zitekeenez, Jesusen ageriko bizitzaren hasera, bapatean Jesusen zereginaren muina argitan emateko gisan* dakarte.

Testamentu Zaharrak, Jainkoaren gizonen batetaz mintzo delarik, Jainkoaren deia dakar sarritan haren historiaren hastapenean. Ageriko irudi bikainez —almendrondoaren adarra loretan (Jr 1,11), errege aretoa* aldare gaina sutan zuela (Is 6,1-7)— hondo-hondoko esperientzia biziak adierazten dira (*33, 34, 355*).

Tradizioak, joan-etorri handikotzat ematen duen gertakari bat dakarkigu aitzina-aitzinatik; ebanjelioaren arabera, Jesusen ekintzari hasera damaion gertakaria: Joanen eskutik Jordanen hartu zuen bataioa, alegia. Elizak Epifani jaiez ospatzen dituen gure salbamenduko hastapen egintzetan bigarrena da.

Ageriko irudiz, hitzez inola ere adieraz ez daitekeen errealitatea damaigute* hor ebanjelioek. Aitaren eta Semearen arteko harremana eta Izpirituaren indarra dira hor adierazten direnak. Harreman hori, Testamentu Zaharreko hitzez ematen da: «Zu zara nire seme maitea, zuregan dadukat neure atsegina» (Mk 1,11). Jahveren morroinaren irudia gogorazten digu pasarte horrek, «morroin pairakariarena*». Isaiaren liburuak kantu askotan dakarren morroinaren irudia (*229-230*). Hona zer irakurtzen dugun: «Hona ene Zerbitzaria, ene arimaren atseginak dituena» (Is 42,1). «Jahvek, berriz, horri gaineratu dizkio gu guztion gaiztakeriak» (Is 53,6).

Islatzen: dis'iratzen. **eskuerara:** eskumenera. **gisan:** eran. **damaigute:** ematen digute. **pairakaria:** sufritzailea.

Bataioa, beraz, Kristoren zerbitzuaren, «menpekotasunaren» eta heriotzaren ezagugarri da. Aurrerago, bi bider erabiliko du Jèsusek «bataio» hitza, ezarriko dioten oinazeaz mintzatzean (Mk 10,38; Lk 12,50) (*192*). Seme kutunak* bere burua, bere gogoz, zerbitzari, xume, bere gain bekatuak daramatzan bildots bihurtzen du. Horra Jesusen deia (*192*).

«Zeruak urratzen ikusi zituen, eta Izpiritua uso tankeran Jesusen gainera jaisten» (Mk 1,10). Jahveren morroinaren kantika ere berdintsu jarraitzen da: «Horretxen gain jarri dut neure izpiritua» (Is 42,1).

Aitzina, Jainkoaren gizonek, indar arrotz bezala senti ohi zuten Izpirituaren eragina (*38*). Jesusen ekintzak, aldiz, erabat besterik adierazten digu: Jesusentzat, Izpirituz beterik egotea berezko gauza dela ageri da; esate baterako, Izpirituaren beharrik ez balu bezala edo (hipotesi hau, jakina, ez dezakegu ontzat eman). Egokiago litzateke esatea, Jesusek Izpiritua ez dadukala osakai* arrotz* bezala, berari dagokion eta berea duen Izpiritu bezala baizik.

> «Jainkoak bidali duenak, berriz, Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurri gabe ematen bait dio izpiritua Jainkoak» (Jn 3,34).

Izpirituzko bataio honetaz esanahi berria hartzen du Joanen urezko bataioak: gerora fededunek hartuko duten Izpiritu bataioaren ezagugarri bihurtzen da (*187, 197*). Horixe kantatzen du Ekialdeko liturgiak Epifani bezperan: «Egun Jaunak lepagaina makurtzen du aitzindariaren esku aurrean; egun bataiatzen du Joanek Jordango uretan; egun murgilarazten ditu uretan Jaunak gizon-emakumeen bekatuak; egun, goitik, Jainkoaren Seme kutuna delako aitorpena hartzen du; egun, Jauna bera dator ura saindutzera; Jordango uretan murgiltzen da, ez, noski, bera garbikuntza* premian delako; baina guregatik dagi bere buruan jaiotze berria».

Zitekeena zitzaigukeen, Jesusi bere zeregina haintzat hartzeak zekarzkiokeen gora-beherak kontutan ez hartzea. Baina, ebanjelioek horretarako bidea moztu egin digute: Jesusek bere eginkizunaren aurka jasan* duen zenbait tentaldi kontatzen bait digute.

> «Bera ere, bekatua salbu, gu bezalaxe izan bait da gauza guztietan frogatua» (Heb 4,15).

Tentaldia, ekintza bete-betean ari dela datorkio. Esate baterako, Jesusek lehen aldiz agertzen du nolako heriotzaz hil behar duen eta heriotzazko bere azken bataioa iragartzen du:

> «Orduan Kepak aparte hartu, eta erreparuak jartzen hasi zitzaion esanez: Jainkoak gorde zaitzala, Jauna! Ez, zuk ez

kutunak: maite-maiteak. **osakai:** elementu. **arrotz:** kanpotiko. **garbikuntza:** purificación, **jasan:** sufritu.

duzu holakorik izango! Jesusek orduan, itzuliz, esan zion Kepari: Alde nigandik, Satan, eragozpen zara eta niretzako. Jainkoarenak ez baino gizonenak bait dira zure pentsamenduak» (Mt 16,22-23).

Giza asmo zuzenez ziharduen Kepak; horretantxe zetzan, hain zuzen, Jesusentzat pozoina*; bere bataioaren aurka zetorkiona, Etsaiaren, Satanaren tentaldia (*77, 402*).

Ebanjelioak basamortuko tentaldiez mintzo zaizkigu. Adierazten zaizkigun tokia, deabruaren irudia eta hiru tentaldiak, zinezko* ala sinbolubidezko izateak, ez dio ez ezer eransten*, ez ezer kentzen Kristoren misterio honi. Baina, tentaldiak basamortuko gertakari bezala agertzea, oso esanahi handikoa da. Basamortua, Jainkoa aurkitzen duzun eta tentaldia aurkitzen duzun tokia da. Israel herriak aitzina egin zuen basamortu bidea berritzen du Jesusek. Basamortuan herriak tentaldia jasan behar izan zuen, eta amor* eman zion. Jesusek berez eusten dio deabruaren kontra; Izpiritua ere berez duen bezala. Bere ezezkoa, Israelen basamortuko historiatik harturiko hiru esaeraz ematen dio (Dt 8,3; 6,13). Herria, aitzina, (eta harekin batera gizadi osoa) bere eginkizunaz ahantzi egin zen eta, Jainkoaz ere ahantzirik, Egiptoko eltzekarien* amets zen; Jesusek, aldiz, Jainkoaren ahoari darion* hitz oro ere bizitzarako zaiola gizakiari, aitortzen du. Herriak Jainkoa zirikatzen du ezagugarri edo seinale bat eskatuz; Jesusek ez du erakutsi nahi egundoko ikuskaririk. Herriak mundutar sasi-jainkoak gurtu* zituen; Jesusek, bere aurrean ahospeztekotan* deabruak eskaintzen dion mundu honetako aginteari uko egiten dio.

Norberaren onerako mirari bat egitea; ageriko ikuskari izugarri bat Jainkoari eskatzea; lurreko nagusigoa eskuratzea: horra Jesusek albora* eman zituen hiru bideak. Arrakastaren* bila dabilenari bapatean burura datozkion hiru bide dira. Jesusek, alabaina, bazekien, balioak behekoz gora ematera etorria zela. «Gizakiari atsegin zaiona», Kepari esan zionez, munduak aintza bezala eta jakinduriatzat hartzen duena, bazter eman behar zuela bazekien. Bazekien bere bataioak zer esan nahi zuen: meneko izatea, oro eramatea, xume, zerbitzari izatea, eta heriotzaraino izatea gainera. Hitz batez, arrakasta ez baino zerbitzua. Nahi horri leial izatean zuen bere poza. Ordurarte ezbezalako poz berria zen hura lurrean. Eta hona: aingeruak hurbildu zitzaizkion zerbitzari.

Zerbaitengatik irakur arazten digu Elizak Garizuma haseran Jesusen tentaldiak kontatzen dizkigun eta Jesusen zerbitzu sena adierazten digun pasarte hori. Pasarte horrekin

pozoina: veneno, poison. **zinezko:** benetako. **eransten:** eratxekitzen. **amor eman:** onartu. **eltzekarien:** lapikokoen. **darion:** irtetzen zaion. **gurtu:** adoratu. **ahospeztekotan:** belaunikatzekotan. **albora:** bazterrera. **arrakasta:** éxito, réussit.

hasten dugu geure berrogeialdia edo garizuma (*121*), geure baitan kristau bizitzako jarrera jatorra berritzekotan egiten duguna.

Jainkoaren Erreinua

Kana 61

Galilea probintziaren bazterrean agertu zuen Jesusek lehenengoz bere aintza. Nola gertatu zen, Joan sainduak kontatzen digu, Nazaret ondoko Kana herrixkan egin ziren ezteien berri damaigularik. Jesusek, garbikuntza riturako zegoen ura, ardo bikain bihurtzen du. Mesiatar pozaren lehen sinbolubidezko ezagugarria zen: Jesusen heriotza-biztuera *orduan* zaharraren ordain berria, uraren ordain ardoa emanen zuen mesiatar pozarena. Joan ebanjelariak, gainera, ezagugarri hori eskatu zuena Maria izan zela jakin arazten digu. Badirudi, aurrenetik Jesusek ez diola men* egin nahi: Jesusen Ordua (azkena) erabakitzea, Mariari ez baino Aitari dagokiola esanez. Halaz guztiz, eskaria bete egiten du. Dudarik gabe, Joanek zerbaitengatik idatzi ditu xehetasun hauk guztiak; batez ere, Jesusek aipatzen duen Ordu horretan Maria han zegoela esango bait du (Jn 19,26) (*131*).

Urtarrilaren 6an, Jaunaren Epifani jaian ospatzen den hirugarren egintza salbatzailea, Kanako ezteietako gertakari hauxe da. Kontakizun hori Epifani ondoko 2. igandean irakurri ohi da[9].

Argi handi bat 62

Galilea izan zen Jesusen mezua lehenik entzun zuena. Mugaldeko probintzia hau, aitzina, Isaiaren garaian, asiriarrek harmaz hartu eta porrokatu* egin zuten. Profetak, halaz guztiz, Jainkoaren graziarekiko fedeaz argiturik, etorkizun argitsua iragarri* zion. Profezia hura egia bilakatu zen, lur mutur honek berriona inork baino lehen entzuteko zoria ukan zuenean. Hain zuzen, Jesus, bertakotzekotan*, Kafarnaunera joan zela esan ondoren, honela darrai Mateok:

> «Zabulon-go lurra eta Neftali-ko lurra,
> Jordan-atzeko itsas bidea,
> Jentilen Galilea!

9 Mezatako Irakurgai banaketa berrian, C urtean Irakurri ohi da, urtean zeharreko 2. Igandez.

men egin: obeditu. **porrokatu:** desegin. **iragarri:** aldarrikatu. **bertakotu:** establecerse, s'établir.

Argi handia ikusi du
ilunpetan zetzan herriak;
eta heriotze ilunetan zeudenei
argia biztu zaie» (Mt 4,14-16).

Ezteietan darion ardo, ilunpetan argi dagien argi: horrela dakusate ebanjelariek Jesus Galilean agertzen.

Horrela bada, Jesusek orduan iragartzen duen mezua, esakun* batez labur daiteke: *Zeruetako Erreinua*: «Geroztik predikatzen eta esaten hasi zen: Egizue penitentzia, bertan da eta zeruetako erreinua» (Mt 4,17).

Zer esan nahi du «zeruetako erreinu»ak 63

Beste hiru ebanjelariek baieztatzen dutenez, «Jainkoaren erreinua» esan zuen Jesusek, esatez. Mateok bakarrik idazten du beti «zeruetako erreinua». Horrela idatziz, rabbinoen ohiturari darraio; hauek, errespetuz edo, «zeruetako» hitza erabiltzen bait zuten «Jainkoaren» izenaren ordez.

Jainkoaren erreinuaz dihardugu, beraz. Ez dezagun har erreinu hori, Jainkoa errege litzatekeeneko *lurralde* bezala, Jainkoaren *erregetza* bezala baizik. *Jainkoaren erregetza* esatea, beraz, zuzena litzateke ideia hori itzultzeko. Erreinua, Jesusen aditzaileentzat, bizitasunez beteriko hitza zen. Bapatean hartzen zuten haren esanahia, gaixoak edo gudan dabilenak, *sendakuntza* edo *bake* hitzen esanahia azaldu beharrik ez duen bezalaxe. Erreinua, mundu guztiak amesten zuen gauza zen (*23-25, 30, 164*). Testamentu Zaharretik zetorren hitza zen, eta Jainkoa mundu honetako Jaun dela sinesten duen fedea eta, egunen batetan, galdekizun garratzez beteriko bizitza honetako zuzengabekeria eta mixeria oro kentzekotan, agertuko zelako fedea adierazten zien *erreinu* hitzak (*119*). Itxaropen irrikatsuaren* muina horixe zuten.

Urteren buruan, alabaina, itxaropen hori molde desberdinetan agertu zen, eta ez ziren beti hain garbiak. Zenbaitek, esate baterako, harmatara joko zuen hitz hori entzun orduko. Jainkoaren erreinuak, horrelakoarentzat, jentilei buruzko garaipena esan nahi zuen, nazio itzarketa*, Jainkoa errege lukeen Estatu bat ezartzea. Beste zenbaitentzat, Erreinuaren etorrera, Jainkoaren eskuhartzea zitekeen: zerutar indarrak astindu* eta mundu berri bat sor araz zezakeena. Munduaren hondamenaren egun zehatza iragartzeari eman ohi zioten. Asmamen gaindizka ohi ziren halakoen zehaztapenak. Hauen joerari apokaliptikoa deritza.

---

esakun: esaldi, frase. **irrikatsua:** gutiziatsua. **itzarketa:** levantamiento, soulèvement. **astindu:** inarrosi.

Pentsamolde horik honetatik datoz: profetek erabili ohi dituzten irudiak, sarritan, arras materialki eta hitzez hitz interpretatzetik (*40*). Horrela, profetek aurkezten zuten moduan «irekia» zen etorkizun hura, beste hauen kasuan zehatz, mugaturiko, nazionalista edo apokaliptiko bilakatzen zen. Gainera, halako duda-muda bat agertu ohi zen Jainkoaren erreinuaren etorreraren muinari buruz, itxaropenaren gardentasuna* lausotuz; hondo-hondoan erresumina* zuten eragile.

Jesusengan agertzen da Jainkoaren erreinua 64

Giro horretan eman zuen aditzera Jesusek bere lehen deia: «Bihotz-berri zaitezte, konberti, Jainkoaren erreinua gertu dago eta». Ongi aditzen zen «Erreinu» hitzak esan nahi zuena. Nola hartzen ote zuen, ordea, Jesusek hitz hori? Ez zen ageri, ez ezpatarik zorrotik ateratzen, ez zerutik izarrik erortzen! Hauxe zen Jesusen predikuak zekarren lehen gauza harrigarria: ez da gertatzen beste munduko gauzarik!

Egunik ere ez du agertu nahi. «Zaudete ba erne: ez dakizue eta noiz etorriko den zuen Jauna» (Mt 24,42). Horrela, gaur berton ere zenbaitek duen isuria* gaitzetsi* nahi du: munduaren azken eguna eman nahi izatea. Noizko hori hain zehatz ematea, eragile zaio beharbada fedeari, eta itxuraz, ageriko errealitate ziur eta mugigaitz baten arreta* ukanez, indar gehiago ematen zaio. Jesusek, alabaina, gauza sakonago bat adierazi nahi zuen.

Aldebat eman ditu, baita garai hartan hain gauza arrunta ziren irudimenez beteriko kontakizunak ere. Bai, berak ere erakutsiko du mundu osora hedatzen* dela Jainkoaren ardura; baina, Jesusentzat, munduaren azkena eta Erreinuaren hasera ez dira batera datozen gauzak. Gainera, Jesusek, munduaren azkenaz duen irudipena soila da, garai haietako irudi apokaliptikoen aldean. Jesusen mezuaren mamia ez da ageriko gertaeraren bat, Jainkoa errege izango dela baizik.

Horrenbestez, Jesusen mezuaren zati harrigarrienera gatoz. Jainkoaren erreinua dagoeneko* hasia dela dio. Erreinua gizartean dago. Baina non? Jesusen presentzian eta egiteetan.

> «Eta bere ikasleengana bihurturik bakarrean esan zien: Zorionekoak, zuek ikusten duzuena ikusten duten begiak. Benetan esaten dizuet: Profeta eta errege askok nahi izan zuten zuek ikusten duzuena ikusi, eta ez zuten ikusterik izan, eta zuek entzuten duzuena entzun, eta ez zuten entzuterik izan» (Lk 10,23-24).
>
> «Eta zorionekoa, nigan okerrerako biderik hartzen ez duena» (Mt 11,6).

gardentasuna: garbitasuna. **erresumina:** resentimiento, ressentiment. **isuria:** joera. **gaitzetsi:** kondenatu. **arreta:** arta, ardura. **hedatzen:** zabaltzen. **dagoeneko:** honez gero.

Haseran, bere buruaren misterioaz oso gutxi mintzo zen; Jainkoaren erreinuaz bakarrik mintzatu zen. Hala ere, ezin izkutatzen ahal zuen* erreinu hura han zegoela, bera han zelako.

Ikusle apokaliptikoak beraien kanpoko gauzez mintzatzen ziren bitartean, Jesusek berak dakar Erreinua. Erreinua Jesusek ez du urruneko* ikuskizun. Erreinuaren bihotzean dago Jesus, beste erreinu baten aurkako borrokan nahasia.

> «Baina baldin Jainkoaren behatzez botatzen baditut nik deabruak, heldua duzue Jainkoaren erreinua» (Lk 11,20).

Hala ere, ez da beste munduko gauzarik gertatzen. Noizkoaren èske datozkionei, Jesusek erantzuten die: «Jainkoaren erreinua ez dator inor konturatzeko moduan, eta esaterik ere ez da izango: «hona hemen» edo «hara han». Zeren egon ere, zeuron artean bait dago Jainkoaren Erreinua» (Lk 17,20-21). Ez herri asaldaketarik, ez ezagugarririk edo seinalerik ere zeruan, baizik eta egun egunorokoenean, gizon-emakumeen bizitza soilenèan izkutatzen den Jainkoaren misterioaren izpi bat besterik ez da Jainkoaren Erreinua.

Parabolak 65

Parabolaz edo gonbarazioz mintzo da Jesus haseran. Xedetzat* egiaren bat argitzea duten kontakizunak dira. Lege irakasleek ère erabiltzen zituzten orduan. Jesusek, ordea, era oso berriz erabiltzen ditu (*116*). Testuren bat argitzeko baliatu ohi ziren lege irakasleak parabolez. Jesusen parabolek mezua bera dakarte. Egunoroko bizitzatik hartutako historioak kontatzen zituen eta nornahik uler zitzakeenak; berri-berri eta laino-laino gertatu ohi ziren. Inoiz, kontaturiko gertakariak hain bitxi ziren, non gertatu, ez bait ziren inoiz gertatzen; esate baterako, jendea ezteietara gonbidatu, eta inor ez etortzea.

«Zuen arteko nor...?» Hori bezain era soil, bapateko eta zuzenez hasten ditu, sarritan, parabolak Jesusek. Kontakizun bat hasteko era hori Jesusen berezitasun da. Jesusen garaiko rabbino bat bakarrik ez da horrelako formularik erabili zuenik.

> «Eta holakoxe parabola askoren bidez egiten zien hitz, *haiek ulertzeko eran*» (Mk 4,33).

Hala ere, baldintza* bat beharrezkoa da parabola hauk aditzeko. Zenbaiten amaieran* honela dio Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun dezala». Barne jarrera bat behar da, nork bere burua eskaintzeko, bizitza aldatzeko; izkutuko

---

izkutatzen ahal zuen: izkuta zezakeen. **urruneko:** urrutiko. **xedetzat:** helburutzat. **baldintza:** kondizio. **amaieran:** bukaeran.

mezua atzemateko* zentzu bat, belarri bat. Horrelako jarrerarik ez lukeenak, historio hutsa jasoko luke. Parabola bat ez ulertzeko, kanpotik gabiltzala esan nahi du. Adibide izan behar lukeena, gaitzespen* seinale bihurtzen da. Horixe esan nahi du Mk 4,10-13 pasarteak*; pasarte hori, kapitulu bereko 33. bertsikuluarekin batera irakurri behar litzateke.

Zeruetako erreinu izkutuaren parabolak 66

Ez genuke harritu behar, Jesusen zenbait parabola zeruetako erreinua ustekabea dela erakusteko direla ikustean: izkutua dela, alegia.

> «Orantzaren* antzekoa da zeruetako erreinua. Hartu zuen emakume batek, eta hiru lakari irinetan nahasi zuen, dena hazi arte» (Mt 13,33).

Beste parabola bat proposatu zien:

> «Mostaza haziaren antzeko da zeruetako erreinua. Hartu zuen gizon batek, eta bere soroan erein zuen. Izan, hazi guztietan txikiena da hori. Baina hazten denean baratze landare guztiak baino handiago da, eta zuhaitz egiten da, eta etortzen dira zeruko hegaztiak eta haren adarretan bizi dira» (Mt 13,31-32).

Egunoro izadian* ikusten dugun haseraren eta bukaeraren arteko alde harrigarriak, bide egokia damaio Jesusi, itxuraz ezdeusa* den Jainkoaren erreinuaren hasera esplikatzeko. Berez haziz doan haziaren parabola laburrak ere, Jainkoaren erreinua zein astiro* hazten den azaltzen du; halaber*, ordea, nola gertatzen den gizakien gainetik erreinuaren hedatze, hazte eta handitze hori.

> «Eta esaten zuen: zera bezalakoa da Jainkoaren erreinua: Gizon batek hazia botatzen du bere soroan. Hura lo egon, itzarrik egon, gau izan egun izan, ernez eta haziz doa hazia, gizona batere konturatzeke. Ekarri ere, berez bait dakar lurrak fruitua: lehenengo gari belarra, gero galburua eta gari alea* galburu barruan. Eta fruitua heldu bezain laster, igitaiez ekiten dio, gari ebakitzeko sasoia heldu dela eta» (Mk 4,26-29).

Parabola hauk, dudarik gabe, buruari eraginez, «hau ote da gero Jainkoaren erreinua?» galdezka ziharduen jendeari emandako erantzunak ziren. Hor ageri dira Jesusek bataiokoan bere gain hartu zuenaren ondorioak: ez da axolazkoa* inor bete gabe liluratzen duen ageriko arrakasta, eta bai hotsandirik gabeko eta egunoroko egite txikiak. Erreinua bera ere morroin antzean dator (Ikus «Bataioa eta Tentaldia» izeneko kapitulua).

---

atzemateko: ulertzeko. **gaitzespen:** kondenazio. **pasarteak:** testu zatiak. **orantza:** altxagarria, legamia. **izadian:** munduan. **ezdeusa:** hutsa. **astiro:** emeki, poliki. **halaber:** balta ... ere. **alea:** bihia. **axolazkoa:** garrantzitsua, inportantea.

Hori guztia mendiko hitzaldiaren haseran ageri da garbien (*99*), Jesusek Galileako mendixka batetan eginikoan, Mateoren ebanjelioak Jesusen esaera asko biltzen dituen hartan:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak,
berena bait dute zeruetako Erreinua.
Zorionekoak otzanak*,
horietxek jasoko bait dute lurra ondaretan.
Zorionekoak atsekabetuak,
kontsolatuak izango bait dira.
Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri direnak,
aseak izango bait dira.
Zorionekoak urrikitsuak,
urrikia iritsiko bait dute.
Zorionekoak bihotz garbiak,
Jainkoa ikusiko bait dute.
Zorionekoak bakezaleak,
Jainkoaren seme deituko bait dituzte.
Zorionekoak zuzentasunagatik pertsegituak,
berena izango bait dute Zeruetako Erreinua» (Mt 5,3-10).

«Zortzi zorionbide» hauekin ez digu Jesusek zortzi gizaki mota eman nahi izan, ez. Giza sail bat bakarraz ari da. Ez da erraza giza sail hori zehaztea. Ez litzateke zuzena zorionbide horietan talde sozial bat ikustea: ezeren jabe ez direnak, esate baterako. Hain zuzen, Mateok honela esaten du: «*gogozko* behartsuak»; arazoa ez bait datza ezer ez edukitzean, norberaren joeran baizik (*354*). Bestalde, ez litzateke ere zuzena, zorionbide horietan, nola-halako norbere buruaren ukapena eta bake-maitasuna lortu dituztenak bakarrik ikustea. Arazoa ez da, beraz, ez gizarte maila jakin batena, ez eta bertute sail batena.

Zertan datza bèraz? Agian, honela marraz* genitzake Jesusek zorioneko deitzen dituen horik: munduarengandik ezin ezer espero, eta guztia Jainkoarengandik espero dutenak; modu batetara edo bestera, munduak goitik-behera ikusten dituenak, baina, inolako gorrotorik gabe, oso-osoan Jainkoari irekitzen zaizkionak. Hitz batez esateko, Jesusek bataiokoan leporatu zuen bizitzaren antzekoa daramatenak: zerbitzu eta besterenganako maitasun bizitza. «Munduaren» burubide guztiak azpikoz gora ematen dituen jarrera da. Horrela bada, zorioneko, berak hautatu duen bizikera bera bizi dutenak deitzen ditu Jesusek zorioneko. Horiena da jarrera jatorra Jainkoarèn erreinuaren zain egoteko (*25*), eta nork bere lurreko bizitzan bertan hura hartzeko ere bai; sarritan hain atsekabezko den lurreko bizitzan alegia. Jainkoak poztuko eta beteko ditu; bere seme-alaba egingo ditu.

---

zorionbideak: bienaventuranzas, béatitudes. **otzanak:** eztiak. **marraz:** marraztu, describir, décrire.

«Zorioneko» horik, sarritan, behartsuak izanen dira, sarritan bertute handiko jendea. Baina, hor dugu zorionekoen artean tenploan, atze-atzean, otoitzean ari zen publikanu edo zergalaria ere (Lk 18,9-14); ez behartsu, ez eta bertutedun ez zen bat; baina bere ezerezaren ustez, zuzentasunaren gose-egarri zen; berriztatu irrikaz bizi zen. Zorionbideek erakusten dutena ez da asmo konkretu bat, gertakari eder eta dinamiko hau baizik: Jainkoa beti bertan dela eta izango dela, deitzen eta espero dutenentzat. Hortxe dago, hain zuzen, gakoa*: hortxe ageri da zein desberdinak diren Jainkoaren eta gure irizpideak*, arrakastaz* eta xuri egiteaz*, handitasunaz eta apalduraz, pozaz eta atsekabeaz iriztean*.

Baziren garai hartan Palestinan jende bertutedunen talde jakin-jakin batzu: beren burua Israelgo «hondar» garbitzat zutenak. Eta izan ere, hala ziren nolarebait, legearekiko eta fedearekiko beren leialtasunez. Fariseuak (= bereiziak) ziren jende mota horretako talde bat. Jesus ez zaio atxekitzen* inongo talderi: aldiz, bera da jende oro beragana erakartzen duena. Israelgo ardi galduen atzetik doa. Ez da fariseurik aldez aurretik bidea hertsirik* duenik; baina Jesusen herritar bihurtu nahi badu, zorionbideek dakarten gizaki mota horretara aldatu beharko du. Hori zorakeria! «Azken izango bait dira aurreneko asko, eta azken asko aurreneko» (Mk 10,31). «Eta zorionekoa nigan okerrerako biderik hartzen ez duena» (Mt 11,6). Eta egitez, fariseu eta lege irakasle gehienak urrun gelditu ziren, jende xumea* Jesusi multzoka zetorkion bitartean.

Jesusek ez du mugarik 68

Jesusen mezuaren aurrean ezagun zitzaigun muga asko galtzen da. Hona hemen bat: askotan agertzen du Jainkoaren onginahia samariarrekiko, egiazko fedea aitortzen ez zuen eta Judea eta Galilea tartean bizi zen herriarekiko, alegia. Jesusek hori egin, samariarren zisma eta judaismoa maila berean ipintzeke* egiten du (Ikus Jn 4,22).

Jesusek ez du Palestinatik landa* hitzik egin; baina (Mateoren ebanjelioan) ehuntari* arrotzarekin topo egitean, ekialdetik eta mendebaldetik Abrahanen, Isaaken eta Jakoben mahaikide asko etorriko dela esaten du Jesusek. Horrez gero, Israelen mugarenak ere egin du. Salbamendua, egia esan, Judutarren artean hasten da, bai; baina, Erreinurako herria nazio guztietarik bilduko da (*56*). Hau zorakeria, berriro ere!

gakoa: clave, clef. **irizpide:** criterio, jugement. **arrakasta:** éxito, succès. **xuri egite:** fracaso, échec. **iriztean:** juzgatzean. **atxekitzen:** lotzen. **hertsirik:** itxirik. **xumea:** txikia. **ipintzeke:** ipini gabe. **landa:** kanpora. **ehuntari:** centurión.

Baina, hesi edo muga galtzerik handiena, eta lekukoak beren onetik ateratzen dituena, beste hau da: ageriko bekatariekin Jesus harremanetan ibiltzea. «Gizon zintzo» etsitako* horietakoren batek, fariseu batek, bere mahainera Jesus gonbidatzean, honek ez du ukatzen (Lk 7,36); baina, erromatar soldatapeko zergalariren batek, estafari, laguntzaile eta saltzaileren batek, hots, publikanuren batek, gonbidatzean ere, ez du ukatzen Jesusek. Are, bera da halakoren etxera bere burua gonbidatzen duena (Lk 19,5-6). Maisu bat bekatarien mahaikide, alajaina...! Ez zen inoiz horrelakorik ikusi!

Jesusen konportamendu hau ohitura hertsien arbuio* huts bezala hartzea, axalkeria litzateke benetan. Are gutxiago zuen beste asmo hau Jesusek: lagunkiro ihardun bekatariekin, baina berorien bekatuan uzteko. Bekatariak mixerian bizi ziren, eta Jesusek Jainkoaren erreinua zekarkien. Haiekin mahainera jartzeak, Erreinuaren zatitxo bat berekin zutela adierazi nahi zien. Elkarrekin egindako otorduak, mesiatar pozaren aroa, Jainkoarekiko elkartasuna adierazten zuen sinbolubidez, Jesusen ikusteko moduan. Horixe agertuko zuen, betirako, bere Azken Afarikoan; baina bere bizitzan zehar egindako otorduek ere gauza bera adierazten zuten beraien erara. (Ikus «Azken Afaria» kapituluaren sarrera).

Gertakari guzti hauei bake sakon bat darie. Jainkoaren Erreinuaren etorrera nola burutzen ari den adierazten dute (eta nortzu diren zorioneko deitzen dituen gizaki* horik). Hona pasarte horietako bat, guztia poz-iturri:

> «Jerikora sarturik, herrian zehar zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, Publikanuen buru egiten zuena, eta gizon aberatsa bera. Nahi zuen ba haretxek Jesus nor ote zen ikusi; baina halako jendetzarekin ezin zuen, txikia bait zen oso gorputzez. Aurretik korrika joanez, sikomoro-arbola batetara igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar zuen eta. Bertara heldu zenean, begiak jaso eta esan zion Jesusek: Zakeo, jaitsi zaitez agudo, zure etxean geratu behar dut eta gaur. Eta arineketan* jaitsiz, etxean hartu zuen pozarren. Hura ikustean marmarrari ekin zioten denek, esanez: bai, bekatari baten etxera sartu da hori ere ostatu hartzera! Zakeok orduan zutik aurrean jarriz esan zion Jaunari: Hona, Jauna, behartsuei ematen diet ditudan ondasun guztien erdia; eta inori ezer kendu badiot, lau halako ordainduko diot. Eta Jesusek esan zion: Bai, osasuna etorri zaio benetan gaur etxe honi, Abrahanen seme bait da hauxe ere. Zeren, etorri ere, galdutakoa bilatzera eta salbatzera etorri bait da Gizonaren Semea» (Lk 19,1-10).

---

etsitako: ustetako. **arbuio:** baztertze. **gizaki:** gizaseme eta emakume. **arineketan:** lasterka.

Jainkoaren erreinuaren etorrera Jainkoaren grazian dago. Geure burua erabat eman diezaiogun eskatzen du grazia honek. Nola, ordea?

> «Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duenik, ez da hartara sartuko» (Mk 10,15).

Ez da haurraren lainotasuna* hemen eskatzen dena, irudimen erromantiko batek inoiz nahi lukeenez, ez; Jesusek gogoan duena, xumetasuna* da, dohainak eta on-eginak xalo-xalo hartzeko joera eta, orobat, beti berritatik hasten jakiteko humiltasuna. Hona zer dioen Jesusek Nikodemori, Joanen ebanjelioan: «Goitik jaio ezik, ez dezake inork Jainkoaren erreinurik ikus» (Jn 3,3). Zortzi zorionbideetan ikusten genuen jarrera bera da.

Horrela, haur bihurtzen direnek, hartzeko prest daudenek eta beren burua erabat eskaintzen dutenek, Jainkoaren pozetan parte dute. Uko dagienak, huts egiten du poz hori. Askotan dakar ebanjelioak, beren pasatako jokabideari lotu eta Jainkoari bidea hersten diotenak pozik gabe bizi direla. Hona, esate baterako, Jesusen otorduak direla eta (Lk 19,7) edo Jesusen sendaketen bistan (Mk 3,6), «marmar» ari direnak, eta haurrek tenploan goratzen dutenean haserretzen direnak (Mt 21,15). Orobat hamaikagarren ordu aurreko langileak (Mt 20,11), eta seme hondatzailearen anaia zaharrena! «Beharrezkoa zen gaur jai egin eta poztea: zeren galdua zen zure anaia hori biztu egin bait da; eta galdurik zen hori aurkitu egin bait da» (Lk 15,32).

Erreinuko poza, zoriona beren balioan ez, eta bai Jainkoaren grazian ipintzen dutenen poza da. Asko eman zaiela dakitenen poza. Horregatik, mesiatar pozari eginiko ukorik handienaren etsenplua, parabola honetan dadukagu: zorpeko* bati bere hartzekodunak* egundoko zorra barkatzen dio, Palestina osoan inork ez zuen hainbateko dirutza (miloika eta miloika). Kalera orduko, zorpeko horrek berak lepazintzurretik heltzen dio berë lagun bati, bera bezalako morroin bati, zenbait libera zor zion bati: Jainkoak egin dion barkapenaz, barkapenaren pozaz ahantzi, eta «nork bereari eutsi* nahi dioten» horietako batek bezala, gogoz erasotzen dio besteari. Besteri ez barkatzea, dio Jesusek, geure hutsaz, eskaintzen zaigun barkapenaz, eta pozaz jaramonik* ez egitea da.

---

lainotasun: inocencia, innocence. **zorpeko:** deudor, débiteur. **hartzekodun:** acreedor, créancier. **eutsi:** atxeki. **jaramonik:** kasorik.

Jesusen mezua ardura bizikoa da. Hor dago hazi ereilearen parabola (Mt 13, 3-23). Erreinua aurkitzen duena lur harritsua ala lur ona da. Are: norbait, lehenik, lur on ager daiteke; gero, ordea, «Mundu honetako ardura-kezkek eta aberastasunen lilurak ito egiten dute hitza» (Mt 13,22). «Sar *zaitezte ate hestutik; ate handia eta bide zabala bait dira* hondamendira daramatenak, eta asko ere asko dira bertatik sartzen direnak» (Mt 7,13).

Izugarria da oharpena. Jesus ez da hemen zenbat salbatzen diren esaten ari. Hobekiago, hau azpimarratu* nahi du: askok ez duela bere burua eman nahi, edota haserako gogoberoa epeltzen uzten duela; horrela, pozari ere uko dagio*, eta, agian* bere betiko pozari. Meharra* da bidea.

Ez litzateke luzeegi komentatu behar parabola hau; bere seriotasun izugarria galdu eginen luke. Gainera, geure buruaz pentsatu behar genuke «gizadiaz» baino gehiago. Hori dela esan daiteke Jesusen gogoa ere Lukaren 13,23 pasartean, honela galdetzen diotenean: «Jauna, gutxi ahal dira salbatzen direnak?». Gizadi osoari buruzko galdeari erantzunez, oharkizun* bat dagie han inguruan dituenei: «Saia zaitezte ate *hestutik sartzen; izan ere, —hona neuk esan— askok nahi* izango du sartu, eta sartzerik ez». Bakoitzak saiatu behar du ate honetatik sartzen. Gizakiak egiaz bere esku duena da. Salbatuen kopuruaz*, ez gara irizteko* gauza.

Erreinuak merezi du guztia beragatik ematea:

> «Soroan gordetako altxorraren antzeko da zeruetako erreinua. Aurkitzen du gizon batek eta izkutatu egiten du berriro; gero pozik baino pozikago joan, dituenak denak saldu, *eta erosi egiten du soroa*» (Mt 13,44).

Mezu bera berritzen du Jesusek Mendiko Hitzaldian; baina, azken kasu honetan hain ardurazko eta premiatsu aurkezten du, non betierea* hurbil-hurbileko gertatzen bait da.

> «Zeure eskuineko begia okerrerako bide baduzu, atera eta bota ezazu zeuregandik; hobe bait duzu zeure gorputz atal bat galtzea, zeure gorputz osoz ifernuratua izatea baino. Eta eskuineko eskua baduzu okerrerako bide, ebaki eta bota ezazu zeuregandik; hobe bait duzu zeure gorputz atal bat galtzea, zeure gorputz osoz ifernuratua izatea baino» (Mt 5,29-30).

Konta ezin ahalako deiez aholkatzen* gaitu Jesusek erne egotera:

> «Eduki lotuta zeuron gerriak eta bizturik zeuron argiak, eta izan zaitezte, ezteietatik Jauna noiz etorriko zain dauden

azpimarratu: finkatu. **dagio:** egiten dio. **agian:** beharbada. **meharra:** hestua. **oharkizun:** ohar. **kopuru:** número, nombre. **irizteko:** iritzia emateko. **betierea:** betikotasuna. **aholkatzen:** kontseilu ematen.

gizonen antzekoak, etorri eta jo bezain azkar atea zabal diezaiozuen. Zorionekoak horratio, Jaunak, datorrenean, zain aurkitzen dituen morroinak*. Benetan esaten dizuet: mantala gerrian lotuz, morroinak mahainean jarri arazi, eta berak zerbitzatuko ditu bata eta bestea» (Lk 12,35-37).

Nolako egintzak eskatzen dituen, Mateok, 25, 31-46 pasartean ematen du ikustera. Pasarte honen arabera, gizakia betirako salbatu ala galdu, honetatik dator: Jesusek dioen bezala, «ene senide* hauetako txikienari» on egin dion ala ez (*121*).

Erreinua orain eta mundu honetan 71

Erreinuak, handien eta jainkozkoen delarik ere, ez du loturarik galtzen orainaldiarekin, lurrarekin. Betierea burutzen ari gara orainaldian. Erreinuaren ordua gaur da; gaur bait da Kristoren presentziaren unea. Baina, Erreinuaren handitzeaz mintzo den parabola askotan ikusi dugu: Erreinua aurrera doa eta haren eragina* areagotzen* ari da.

«Benetan esaten dizuet: badela hemen daudenen artean zenbait, Jainkoaren erreinua indarrean etortzen ikusi arte, heriotzerik dastatuko* ez duena» (Mk 9,1). Jainkoak Jesus hilen artetik biztuz eta haren Izpiritua gizakiei emanez bere nagusitza erakutsiko duen une apartaz* mintzo da pasarte hori. Orduan aro berri bat hasiko da, Jainkoaren erreinua lurrean hedatzen ikusiko duena. Horretarako hautatzen ditu Jesusek bere dizipuluak: «Ez beldurrik ukan, artaldetxo horrek, atsegin izan zaio eta zuen Aitari erreinua zuei ematea» (Lk 12,32). Bere dizipuluei «Zeruetako erreinuko giltzak» uzteraino heldu da Jesus. Hitz batean esanik, bere erreinuari mundu honetan zutik iraunarazteko, herri bat eratzen du. «Ene Eliza» izenaz deitzen dio herri horri (*113*). Baina, Eliza ez da oraino* Erreinua; erreinuaren «ernemin eta hastapen* da lurrean. Halaz guztiz, emeki-emeki* haziz doala, Erreinu horren gorakuntza irrikatzen* du, aintzaldian, bere Erregeri batuko zaioneko ordua ahal guztiz itxaronez eta gogo sutsuz eskatuz» (Batikano II. Kontzilioa, *Elizari buruzko kostituzioa*, 5. zenb.).

«Gero izango da azkena: Nagusitasun, Aginte eta Ahalmen oro desegin ondoren, bere Erregetza Jainko Aitari itzul diezaionean. Beharrezko bait da hura errege izatea, arik eta bere etsai denak bere oinazpira ditzaino. Heriotzea izango da azken-azkenik deuseztutako* etsaia: zeren, jarri ere, gauzak den denak jarri bait zizkion harek oinazpian. Gauza oro menperaturik dagoela dioenean, bistan dago noski, hor ez

morroin: mutil. **senide:** haurride. **eragina:** bultzada. **areagotzen:** handiagotzen. **dastatu:** probatu. **apartaz:** handiaz. **oraino:** oraindik. **hastapen:** hasera. **emeki-emeki:** poliki-poliki. **irrikatzen:** gutiziatzen. **deuseztatutako:** ezereztaturiko.

dela kontatu behar gauza guztiak menperatu dituena Bera. Gauza guztiak bere menpean ukan ditzanean, berriz, Semea bera menperatuko zaio orduan, gauza denak Semearen menpe jarri dituen Hari, guztietan Jainkoa dena izan dadin» (*1 Kor* 15,24-28).

Galileako mendixketan soil-soil eta maitasunez hasi zena, maitasun bakar eta zabal bilakatuko da, bizi den oro bateratuz.

Jainkoaren erreinua onartzeak, maitasun eskuhartzea esan nahi du. Erreinua sinesteak, Aitaren pozaren baitako gizaki guztien batasun hilezkor hori sinestea esan nahi du.

Jesus hotsegiten du Elizak 72

Erreinuari buruzko alderdi guztiak kapitulu honetan ezin esan. Horrela, esate baterako, ez gara Aitaz mintzatu, Jesusen pentsamenduaren bihotz, Jesusen izpiritua argitzen duen eguzki Aita delarik ere.

Penagarri ote da hainbeste gauza aldebat utzi izatea? Ez: izan ere, liburu honetan, askotan mintzatuko bait gara oraino Jainkoaren Erreinuaz. Esan daiteke, orrialde bakoitzaren asmoa horixe dela.

Halere, «Jainkoaren erreinua» esakuna*, ez dugu erabiliko Jesusek egin zuen bezain sarritan. Elizak berak, buru-burutik*, ez du gehiegitan erabili. Zergatik ote? Zenbaiten erantzuna, hauxe duzu: Eliza Elizaz gehiegi mintzo delako. Baina ez da hori egiazko arrazoina. Beste hau baizik: Jesusen goraldi eta aintzak egun argitan ipini zuela Jesus nor zen. Maisu humil hori, Erreinuaren hotsegile ezezik, Errege da. Erreinuaren berriemaile ezezik, Jauna da (*117*). Bai, «bera da Erreinua!» (Origene). Hura ikusten duenak Aita ikusten du. Horregatik, Jesus hotsegitea, Aita hotsegitea da, Aitaren Erreinua hotsegitea. Hori egiten ahalegintzen da Eliza. Jesus hotsegitean, Jainkoaren erreinua hotsegiten du.

Gauza egokia da, behin eta berriro Galileara itzultzea, han hitza entzutekotan. Horixe dagi Elizak; arras sarritan, igandeko ebanjelio bezala, zeruetako erreinuaren paraboletakoren bat hartzen du. Eta egunoro, kristau familietan gogo hau agertzen da otoitzean: «Etor bedi zure Erreinua».

Ezagupideak*

Profeziak betetzen *(37)* 73

Bere hitzez eta bere ezagupideez (mirariez, seinaleez) azaldu du Jesusek Erreinua. «Baina baldin Jainkoaren beha-

esakuna: expresión, expression. **buru-burutik:** hasera-haseratik. **ezagupideak:** seinaleak, signos, signes.

tzez botatzen baditut nik deabruak, heldua duzue Jainkoaren erreinua» (Lk 11,20). Joan Bataiatzaileak bere presondegitik Jesusen mesiatasunaz galdetzera bidali zituenean, honela erantzun zien Jesusek:

> «Joan eta jakin arazi Joani zer ikusten eta entzuten ari zareten: Ikusi egiten dute itsuek, gorrek entzun, ibili egiten dira errenak*, lepradunak garbitu, hilak biztu, eta Berriona ematen zaie behartsuei. Eta zorionekoa, nigan okerrerako biderik hartzen ez duena» (Mt 11,4-6).

> «Esan bihotz ahulei:
> eutsi, ez ikara!
> Ikus hor zuen Jainkoa!
> hor dator mendekua*,
> Jainkoaren ordaina da,
> Bera dator zuek salbatzera!
> Orduan zabalduko dira itsuen begiak,
> eta gorren belarriak irekiko.
> Oreinak* bezala egingo du errenak salto,
> eta irrintzika ekingo dio mutuaren mihiak.
> Urak jalkiko dira basamortuan
> eta uraldiak etze-lurrean*» (Is 35,4-6).

Jesusek dagitzan* seinaleek, agindutako bidalia bezala, Jainkoaren poza dakarrena bezala azaltzen dute, beraz, Jesus. Agian, profetek aditzera ematen zutenaren ondoan, mirari horik ez dira hain arranditsu* agertu; aldiz, nabasitasun* ukitua nabari zaie. Joan Bataiatzaileak, dudarik gabe, sardea eskuan zuela ikusi uste zuen Mesia, sutan bataiatuko zuen munduaren epaile bezala. Baina, mintzo denean bezala, mirarietan ere, Jesus bere ustekabeko berezitasunez ageri da: harritzeko moduan, hurbil eta maitekor ageri da. Ezagupide horik ez dira horrenbestez mirari kaxkarrago. Ostera* baizik. Horregatixe dira giza mixeriaren alde agertzen den Jainkoaren handitasunaren ezagugarri berezi-bereziak.

Miraria zer den 74

Ongi[10] deritzagu, Bibliak «miraria»z zer aditzen duen une batez aztertzeari. Liburu Sainduentzat, mirarian gizakiak beti Jainkoa dakus ihardunean. Esate baterako, hona zer dioen salmu batek izarrez: «Zeruek, Jauna, zure mirariak iragartzen* dituzte» (Sal 89,6). Baina, «mirari» eta «harrigarri» hitzak, Jainkoaren indar salbatzailea bereziki adiarazten duten gertakariak adiarazteko erabiltzen ditu Bibliak. Testamentu Berrian, gauza onik, harrigarririk, gertatzen da Kristorekin erlazionaturik; harrigarri zaizkie testiguei, eta esa-

10 Ik. *Eraskina*: «Ongi deritzagu...» 555 or.

erren: maingu. **mendeku:** bengantza. **oren:** ciervo, cerf. **etze-lur:** tierra baldía, terre vague. **dagitzan:** egiten dituen. **arranditsu:** zaratatsu, ospatu. **nabasitasun:** barnekoitasun. **ostera:** alderantziz, beste aldera. **iragartzen:** hotsegiten.

nahi bat daramate beren baitan*. «Mirari», «seinale», «egintza», «indar», izenak eman ohi zaizkie.

Izadia eta honen legeak hobekiago ezagutzen ditugu gaur; horrez gero, ez dago zertan harriturik galdekizun hau egiten badugu: ezagupide horik «naturaren legeez kanpo» gertatzen ote dira? Galde hori, aurreko paragrafoak azaldu duenez, ez da Bibliak bizi duena. Gure artean ere gero eta indargabeagotuz doa. Izan ere, zer dakigu guk ezagupide horietan nabari den kreazio berriaren eta naturaren legeen arteko erlazioaz?

Esan dezakegun gauza bakarra, hauxe da: egundoko* indarrak hasi direla gizakiaren alde —salbamendurako eta hauzirako*—, eta beti ere Kristo tartean delarik. Ez dadukagu zertan pentsatu, Jainkoak hor apeta hutsez eta kanpotikako indar bezala diharduenik; Jainkoak bere kreazioari bere bidea moztuko balio bezala. Ez. Ostera baizik; miraria ez doa Kreazioko indarren aurka; aldiz, burutzeko bidea damaie, miragarriro burutzeko eman ere, kreazioak bizi duen itxaropenezko «erdiminetan» (Erm 8,22). «Nire Aita lanean ari da oraindik, eta lanean jarraituko dut nik ere» (Jn 5,17).

Arrazoin guzti hauengatik, ez gaitezen mintzo «naturaren legeez kanpo» delako horretaz. Hobe litzateke esatea, mirariak honetaz jaberazten* duela gizakia: dela beragan, dela munduan, buruak eman ezbezalako gauzak gertatzen direla. Hona nondik datorkion harridura gizakiari: bere egiazko helburua munduak nolarebait ikusaraztetik. Mirarian hauxe sumatzen du fededunak: bere lana hasia duen kreazio berria, Berbiztua itsatsia* zaion kreazioa.

Jesusen mirariak: berekoitasunik eza, soiltasuna, onginahia 75

Ebanjelioetan datozen mirariek jatortasun bizia, berria dute, eta konklusio bat bakarra dagokigu: Jesusek eginak direla zinez*.

Exegetak harriarazten dituen lehen puntua, mirariak hain gutxi izatea da. Ebanjelioetan, garaiko biografia askotan ezbezala, parterik nagusiena ez datza mirarietan.

Beste berezitasun harrigarria, seinale horietan Jesusek duen berekoitasun-eza* da. Zerbait esanak gara alderdi horretatik basamortuko tentaldiei buruz. Jesusek, orduan, uko dagio bere onerako litzatekeen mirariari, edo ikuskari arran-

baitan: barnean. **egundoko:** ikaragarrizko. **hauzirako:** juiziorako. **apeta:** nahikeria, capricho, caprice. **jaberazten:** konturarazten. **itsatsia:** lotua. **zinez:** egitan. **berekoitasun-eza:** desinterés, désintéressement.

ditsu litzatekeenari. (Ikus «Bataioa eta Tentaldia» kapitulua). Ez dagi miraririk, bat bakarrik ez, bere onerako. Eta Jesusen nekaldian, mirarienak egina du, erabat egina gainera.

Arreta beraz egin dio uko mirariak har lezakeen arranditasun* nahiz handikeria kutsuari (*372*). Alderatu besterik ez dago Jesusen ihardunbidea* eta azti*, mirarigile eta izkutuko zientzizaleena; Jesusen konportamenduak, bere soiltasunez, bere sinpletasunez eta duintasunez* txundiarazten* gaitu. Lohi piska batez edo beste holakoez baliatzean ere, dena laulau gertatzen da. Mirariak ez dira ikusleei zuzenduriko ikuskizun*; pertsonari zuzentzen zaizkio.

Gogoeman dezagun ere zein aisa burutzen dituen Jesusek bere mirariak: ez hipnosiarik, ez eta zirimoniarik, ez eta prestaketa nahasirik, ez eta laguntzaile talderik; hitz soil bat aski du, aginte osoz, inoiz urrundik esana. Mirari hauetan, Jainkoaren ekintza kreatzailearen atsedena, patxara, ageri da.

Jesusek mirariak egiteko duen ahalmenean, ez da ageri inongo aztikeri kutsu txikienik ere; aztikeriak Jainkoaz baliatu nahi bait luke zenbait esku-jokuren bidez, baina nork bere burua eskaintzeke, Jainkoarekiko harreman pertsonalik gabe. Jesusek bere mirariak egitean otoitz dagi: «Eskerrak, Aita, entzun nauzulako» (Jn 11,41). Jesus, Semea izanik, Aitarekin harreman pertsonalean bizi da, lankide* zaio Aitari eta ez du eskatu beharrik. «Banekien nik beti entzuten nauzuna; baina hemen inguruan dudan jende honengatik esan dut» (Jn 11,42).

Jesusen mirariak, honen mandatuaren* ezagugarri dira; horretatik ezin atera daiteke, ordea, miraria egitean gizakiaren ardurarik ez duenik. Mirariz sendatzen edo duen gizakia ez da gauza bat, ez da halabeharrez* eskura letorkiokeen zerbait. Bere mirariak, *urrikiak** *hunkiturik* egiten ditu (Lk 7,13). Berezitasun hori ezagupideari* berez dagokion elementua da: Jainkoaren laguntza pertsonala eta zinezkoa* dela adierazten du, gaixotasun baten sendakuntza bera ere Jainkoaren salbazio-egintza dela.

Jesusen ezagupideetan, zigorketa bat bakarrik ere ez dakusagu. Puntu hori kontutan hartzekoa da Testamentu Zaharrarekin gonbaratuz gero. Han, Testamentu Zaharrean, mirariak Jainkoaren «hauzia» burutzen duela dakusagu zenbait kontakizunetan. Jesusengan ez da horrelako kasu bat bakarrik ere (*411*). «Trumoisemeek*» zerutik sua jaitsi arazteko eskatzen diotenean, Jesusek aurre damaie eta zorrotz eraso-

arranditasun: handitasun. **ihardunbidea:** jokabidea. **azti:** mago, magicien. **duintasun:** dignidad, dignité. **txundiarazten:** harriarazten. **ikuskizun:** espectáculo, representation. **lankide:** colaborador, collaborateur. **mandatuaren:** misioaren. **halabeharrez:** kasualitatez. **urrikiak:** errukiak. **ezagupidea:** ezagugarria, zinua. **zinezkoa:** benetakoa, auténtico, authentique. **trumoi-semeek:** ortzi-semeek.

tzen (Lk 9,55). Iharturiko pikondoarena (Mk 11,12-14.20), berriz, ez da zigorketa, oharkizuna* baizik. Mirari horren ordez, Lukaren ebanjelioak parabola bat dakar (Lk 13,6-9), Jainkoak zein urrikibera, zein eramankor itxoiten* dakien adierazten diguna.

Sendaketak 76

Sendaketak dira, batez ere, Jesusen mirariak. Sendatzeko ahalmenez, heriotzea garaitzeko ahalmenez horniturik nahi izan zuen Jainkoak bere Bidalia. Horixe ageri da, argi eta garbi, hildako baten biztuera dakarten hiru kontakizunetan. Zein baino zein ederrago dira hiru kontakizun horik (Mk 5,21-43; Lk 7,11-17; Jn 11). Gaixotasunaren eta heriotzearen kontrako borroka hori, Jesusentzat, gaitzaren borroka da gainera, etsaiaren kontrakoa.

Erabat makurturiko emakume batetaz, Satanak lotua dagoela dio (ur askara joan ezin daitekeen abere lotua bezala, Lk 13,15-16). Zauri sakonagoak sendatzera etorri zen Jesus (*402*). Gorputzez sendatuak, egun batetan edo bestetan hil eginen ziren. Gizakia heriotzea baino haruntzago daraman sendakuntzarako dihardu Jesusek: bekatuaren sendakuntzarako; honi buruz, gorputz sendaketa seinale bat da (*81*). Horixe. Erreinuak borroka esan nahi du, gaitzaren kontrako borroka.

Deabruen jaurtiketa* 77

Borroka hori, argiago ageri da oraino Jesusen beste mirari mota honetan.

Jesusek sarritan topatzen ditu «deabruak zeduzkaten» gizakiak. Ebanjelioan, «deabrudun» hitzak ez du bekatari esan nahi; besterendua* den pertsona baizik, norbera ez dena, keinuka nahiz hitzez zorakeria izugarriena agertzen duena. Ebanjelioak zenbait deabrudun gaixo bezala dakar; Mateok (17,15), esate baterako, han deabrudunak epilepsia duela dio. Gaixo eta deabrudun izatea ez dira ebanjelioarentzat guretzat bezain gauza desberdin. Bietan Etsaiaren lana sumatzen du Jesusek: *nola bizkar hezur okertuarengan* (Lk 13,16), hala «hilobietan eta mendietan» (Mk 5,5) bizi zen deabrudun bakartiaren garrasietan. Baina, azken honetan, zuzenago erasotzen dio Jesusek gaitzari: gorputzean ez baino gogoan* dago gaitza. Mixeria horretatik ateratzen duen Jesusen indarra, Erreinuaren ezagugarri argienetako bat da.

Jesus Satanari buruz, nortasunez hornituriko indar batetaz bezala mintzo da. Ebanjelioek zenbait deabrudunen deihadarrak jaso dizkigute; honela deitzen dute Jesus: «Jainkoaren Saindua» (Mk 1,24)

---

oharkizun: aviso, avertissement. **itxoiten:** igurikatzen. **jaurtiketa:** botatzea. **besterendua:** allenatua. **gogoan:** izpirituan.

edo «Goi-goiko Jainkoaren Seme» (Mk 5,7). Zeintzu dira hemen ihardunean ari diren indarrak? Ez dakigu.

Behin batetan Jesusek bere handitasuna argi-argi azaldu zuen: deabrudun gizagajo bat askatu ondoren, indar gaiztoa («soila», dio Markok) zerritalde batetara bidaltzen du Jesusek. Zerriak itsasora murgiltzen dira. Horrela, gertaera honek borrokaren bortizkeria* damaigu aditzera. Egiazko ezagupidea, alabaina, uretara murgiltzen diren zerriak ez baino beste hau da: «Eta Jesusengana etorriz (gerasatarrak), hantxe ikusi zuten deabruduna eserita, jantzirik eta bere ezagueran» (Mk 5,15). Gizakia sendatua: horra egiazko ezagupidea.

Izadiarekiko mirariak 78

Azkenik, naturari buruzko mirariak ditugu. Ez dira ematen indar froga izugarri bezala, pertsona jakin batzuen onerako seinale bezala baizik, eta gertatu ere, halakoen giro-ingurumari ezagunean gertatzen dira. Ekaitza baretzeak, Jesusi darraizkionen segurantza adiarazten du. Mirarizko arrantza, alferrezko neke askoren ondoko dohain ustekabea da eta, denbora berean, giza arrantzale bilakatzeko mandatua. Ogi-ugalketa, aseturiko gosea da; berebat*, ordea, Joanek berehala iragartzen duen hartan, bikainago agertzen den mesiatar otorduaren irudi: Jesusen haragia jateak eta odola edateak (Jn 6) agertzen duenaren irudi alegia.

Predikuaren zerbitzura 79

Mirariak zirela eta, jendea atzetik zebilkion batetan, honela esan zuen Jesusek: «Goazen beste nonbaitera, inguruko hauzoetara, horietan ere hitzegin dezadan: etorri ere horretarakoxe egin naiz eta» (Mk 1,38).

Jesusen eginkizunik nagusiena predikua da. Prediku hori «Jona profetaren ezagugarria» da (ikus Lk 11,29). Predikuarekin zerikusirik ez duen mirariric ez du egiten Jesusek. Esate baterako, jendeak bere bihotza hesten* dionean, ez da mirariric Jesusengan (honela gertatu zen Jesusen herritarrekin Nazareten, honela fariseuekin, honela Heroderekin). Eta «sinets* iezadazue... sinets nere egiteengatik bederen» (Jn 14,11) dioela irakurtzen badugu ere, badakusagu, ez duela uste handirik ipintzen, mirariengatik bakarrik sinesten dutenengan (Jn 2,23-24). Aberats gaiztoaren anaiez mintzoki*, hona zer dioen:

«Moiseri eta Profetei kasorik egiten ez badiete, inor hilen artetik biztuta ere, ez dira horik komentzituko» (Lk 16,31).

bortizkeria: indarkeria. **berebat:** baita ere. **hesten:** ixten. **sinets:** sinetsi, sinestu. **mintzoki:** mintzatuz.

Fedea eta mirariak 80

Horrela bada, mirariaren aurretik badago fede izpirik. Fede hori sendotu eta indartu egiten du mirariak.

Batzutan fede trinko bat eskatzen du Jesusek aldez aurretik. Harrigarri egingo zaigu, beharbada, hori. Horrelako egoera batetan sortu zen otoitz hau: «Sinesten dut, Jauna; lagun fede urriko hau» (Mk 9,24). Gaineratian, aldez aurretik fedea behar izateak ez du esan nahi fedeak miraria burutzen duenik, zenbait sendatzaile sektak sartu nahi ligukeenez. Fedea, uste osoa, beharrezko lehen baldintza dira; baina Jainkoa da sendatzen duena. Hain zuzen, ez da beharrezko gaixoak berak sinets dezan. Markoren kontakizunean (9,24), fededuna, gaixoaren aita dela irakurtzen dugu. Miraria fede trinkotasunaren arazo, edota fede beraren emari* balitz, miraria gaixoaren trebetasunaren fruitu izanen litzateke, eta ez erreinuaren ezagugarri.

Miraria Jainkoaren egintza da; askapen sakonago bat adierazten du: Erreinua onartzea.

Ezagupideak 81

Jesusen ezagupideak, predikuari dagozkionak, beren baitan zer esanik badutenak dira. «Hitzaren, Jainko Hitzaren egintzak berak hitz dira» (Agustin saindua).

Horrela, egun batez elbarri* bat sendatu zuen Jesusek, bekatuen barkapenaren ezagugarri, berak hala dioenez (Mt 9, 6-7). Kasu honetan, Jesusek ikusezina badezakeela frogatu ezezik, ikusezinaren ezagugarri bat ematen du: bere ohatzea* sorbaldan, etxera sendaturik bihurtzen den gizonak barkapena ezaguarazten du, heriotzea baino haruntzagora doan sendakuntza (*262*). Horregatik marrazten zuten, lehen kristauek beren hildakoen hilobietan, katakunbetan, gizakia ohatzea sorbaldan zuela: betiko pozaren ezagugarri den bataioak ematen duen barkapenaren sinbolu zen.

Izan ere, sakramenduak, Kristoren ezagupideen jarraipen egiazkoenak dira (*198-201*). Joanen ebanjelioak ardura handia du honekiko (*124*). Hain zuzen, Joanen ebanjelioa, mende erdi bat baino gehiagotik, Jauna sakramenduetan nabari zuen kristau elkarte batetan idatzi bait zen. Honela bada, ogi ugalketak, esate baterako (Jn 6), eukaristia janari bezala adierazten du, eta itsu jaiotakoaren sendakuntzak (Jn 9), bataioa argitzapen bezala (*157*).

---

emari: fruitu. **elbarri:** parlesiatu. **ohatzea:** camilla, lit.

Sakramenduak, beste edozein errealitate baino areago, Jesusen ezagupideen jarraikiak* direla esan dugu; halere, Kristok, bere lurreko mirariak ere, Elizan, ezagupide bezala iraun dezaten nahi izan du. «Jaunak haiekin zihardueN, eta Hitza mirariez sendotzen zuen»; horrela amaitzen da Markoren ebanjelioa. Elizaren bizitzan, miraria hain fenomenu «normala» da, ez bait da inor ere kanonizatzen, haren arartekotasunez* bi mirari gutxienik gertatu ezik: mirari horiek, halako pertsonaren bitartez Jaunak bereziki zihardueLa ezaguarazten digute.

Baina, Jesusen Elizaren ekintzaz, lurreko Haren bizitzaz esana bera berriztatu behar dugu: Jesusen emaririk* funtsezkoena* ez datza gutxi batzu bakarrik hunkitzen dituzten mirarietan. Hona funtsezkoena: Jesusen hitza, haren eukaristia, haren barkapena eta gainerako sakramenduak, hots, guztien eskuar* dauden Kristoren ezagupideak.

Jaunak otoitz egiten irakasten digu

Gogoeman dezagun orain bere pentsamendu osoaren eguzki zuen bere Aitarekin dituen otoitz harremanak (ikus «Kristauaren otoitza» kapitulua).

Otoitz gizona da Jesus. Ez da mugatzen otoitz mota bakarrera. Gizakiak Jainkoarekin harremanetan hasteko ohi duen otoitz mota osoa aurkitzen dugu Jesusengan. Judutar liturgiaren agindu guztiak betetzen zituen bere dizipuluekin (Mt 26,30). Eta sinagogako kultuan partehartzen zuenean, bat zegien besteekin salmuz eta otoitzez. Ez da inon ageri, hutsegiten zuenik horretan. Bere herriarekin batera aurkitzen zuen bere Aita.

Behin batez, berak ekin ziola esaten digu ebanjelioak Testamentu Zaharreko salmu bati; itxura denez, amairaino otoitz egin zuen gainera (Mk 15,34).

Baina, Kristok, jatortasuna bera delarik, batez ere, bere baitako hitzez dagi otoitz. Otoitz mota hau da bereziena. Haren paraboletan nabari dugun ezetasunak*, Jesusen otoitza zein zuzen-zuzeneko eta sinple izanen den adiarazten digu (*65*). Konfiantza osoz zuzentzen zaio bere Aitari (ikus, esate baterako, Lk 10,21). Dudarik gabe, bakardadera joaten zen gauetan ere honela zihardueN bere Aitarekin: «Mendira joan zen otoitz egitera» (Lk 6,12).

Jesusek, noski, hitzik gabe ere otoitz egin zuen; baina hori ez da ageri ebanjelioetan.

---

jarraikia: segida. **arartekotasun:** bitartekotasun. **emari:** fruitu. **funtsezkoena:** oinarrizkoena. **eskuar:** esku-menean. **ezetasun:** frescor, fraîcheur.

Jesusen otoitza ez dago gizakiengandik etena 82

Gogoeman dezagun gauza bat: Jesusen otoitza, haren mandatuarekin erlazionaturik aipatzen dute beti ebanjelioek. Basamortura joatea bera, halaxe ageri da. Izpirituaren eraginpean dagien «bakarraldi» hori, haren eginkizunerako prestaketa bezala azaltzen zaigu. Beranduago, ogi ugalketa baten ondoren, jendeak bereganatu egin nahi du Jesus, «mundu honetako» Mesia egitearren, eta bera bakardadera doa ihes; gertaera honek ere esanahi bera du. Bakardadera badoa, Aitarekin batera bere eginpidea* zuzen bideratzeko da. Apostoluak hautatu aurreko gaua otoitzean ematen du: bere laguntzaileetako bakoitza Aitak emana du bere otoitzean. Bere mirariak ere, otoitzean eskatzen ditu; Aitarekiko erlazio pertsonal bati esker burutzen ditu. Markok, Jesusen bizitzan otoitzak duen garrantzia ezin garbiago azaltzen duen pasarte labur bat damaigu.

> «Goizean goiz, artean eguna zabaldu baino lehen, jaiki, irten eta leku bakarti batetara joan zen: eta otoitzean ari zen han. Kepa berriz bila joan zitzaion bere lagunekin. Eta aurkitutakoan, esaten diote: Zure bila dabil jende guztia. Eta Jesusek erantzun zien: Goazen beste nonbaitera, inguruko hauzoetara, horietan ere hitz egin dezadan: etorri ere hortarakoxe egin naiz eta» (Mk 1,35-38).

Maitasunez egindako obra on oro ere otoitz dela dakien gaurko gizakia harritu egiten da jokabide hauen aurrean. Jesus otoitzera erretiratzen dela ikusten du! Garbi ageri da hemen, Jainkoarekiko elkarrizketa utzita bere asti *osoa*, lanari, egunoroko eginbeharrari, etxeari, karitatezko egiteei, damaion gizakiaren errua (*251*).

Baina, gainera, zergatik otoitz egin behar dugun adierazten digu pasarte honek. Gau osoko otoitzaldi horren ondoren, garbiago ikusi zuen Jesusek zertan zetzan bere egiazko eginkizuna, gizakiekiko bere zerbitzua; horrenbestez, beste alde batetara jo zuen. Gure ihardunbidearen* jomuga markatzen duen orratza otoitzaz zuzentzen dugu.

Besterentzat ere indarbide da otoitza: «Simon, Simon, zuen eske ibili da gero Satana, garia bezala galbahe* zaitzaten. Nik, ordea, zure alde erregutu dut, fedeak huts egin ez diezazun» (Lk 22, 31-32).

Mendiko antzaldaketa* 83

Horrela bada, Jesusen ihardunbide guztiak otoitzaren ukitua darama. Behin, ebanjelioek Aitarekiko Jesusen harre-

eginpidea: eginkizuna. **ihardunbide:** zeregin. **galbahe:** galbahetu, astindu. **Antzaldaketa:** transfiguración, transfiguration.

manen distira bizi-bizi azaltzen digute. Mendi batetan otoitzean ari delarik, ahots bat entzuten da, laino argitsu bat agertzen, Jesusen aurpegia eta jantziak argiz distiratsu ageri dira. Sinbolu hauek, ikusezina ikusgarri dagigute, Aita Semearen ikusgarri Izpirituaren bitartez. Hauxe du Semeak bere bataioaren, bere deiaren esperientzia. Une batez ukigarri gertatzen da Aitaren eta Semearen arteko maitasun bizia eta mundua.

Baina zerua agertzen den une berean, lurreko eginkizuna azaltzen da, hurbil-hurbil: Jesus, atsekabealdia berak baino lehen jasan duten bi profetekin, hots, Moise eta Eliarekin, bere «irteera»z («exodo»az, dio ebanjelioak, hots, heriotzeaz) mintzo da; «Jerusalenen burutzekoa zenaz» (Lk 9,31) (*119*).

Horrez gêro, Jesusek, otoitz egitekotan, ez du bizitzari, bere eginkizunari, ihes egin beharrik; aldiz, otoitza ere bere eginkizun du.

Jesusen lurreko bizitzako azken otoitzak 84

Azken Afarikoan bere burua Jesusen bularrean atsedendu zuen dizipuluak, une berezi hartan Jesusek egin zuen otoitza dakarkigu bere ebanjelioan. Oroitzapen horik, Jesusen Izpirituak gogora arazi zizkionak, Joanen ebanjelioaren 17. kapituluan irakur ditzakegu. Jesusek Eliza osoaren alde dagio otoitz bere Aitari. «Apaiz otoitza» izenez ezagutzen dena da. Aitarekiko elkarrizketa sutsu horretan, Jesusen aintzaldi osoa berezi-berezi azaltzen da. Guri agertuki*, Jesusen izate guztia dakusagu hor.

Baina Jesusen otoitz hunkigarriena, Oliamendiko deihadarra da: «Abba, aitta, guztia dezakezu zuk; ken ezazu, ba, kaliza hau niregandik; hala ere ez nire gogoa eta bai zeurea!» (Mk 14,36)

Aitaren eskutik egin zuen Jesusek bere bidea, herri berriaren aurrean herritar bezala. Otoitzaren bidez, bere bizitza handitasunez beteriko bizitza bihurtu du.

«Abba» hitza 85

Bada hitz bat Jesusen hitzetan beste guztien laburpen dena: *Abba*. Jesusek Jainkoari damaion izena da. *Aitta* esan nahi du. Giza hitz honek, Aitaren eta Semearen arteko maitasun sakona adierazten du. Eta Jainkoa sinple delako, nabasitasun* eta sinpletasun misterio sakona da maitasun hori. Hain zuzen, *Abba* izenak, *Aita* izenak berak baino nabasitasun handiagoa adierazten du. Haur hitz bat da, ahoari dariz-

izkutu: gorde. **senide:** haurride. **agertuki:** agertuz. **nabasitasun:** barnekoitasun.

kion lehen soinuetarik: aitta, abba (*317*). Arameotar hitz hau, gainera, diminutibu bat da. Horrelaxe deitzen du Jainkoa Jesusek. Eta guri ere, halaxe irakatsi digu, *Abba* aitta esaten. Hala egin du bere lurreko bizitzan zehar; baina horretan darrai, bere Izpirituaz, bere biztuera ondoan ere.

«Zeren, jakin ere, ez bait dakigu zer eskatu, behar den bezala otoitz egiteko; Izpirituak, ordea, berak erregutzen du gure alde halako intziri-modu esanezineko batzuen bitartez». «Semeordekoen izpiritua jaso duzue zuek, *Abba!* Aitta, deitzeko eskubide ematen diguna. Ba Izpirituak berak aitortzen dio gure izpirituari, eta testigu bezala aitortu ere, Jainkoaren seme garela gu» (Erm 8,26.15-16). Testu hauk lehen kristau elkarteez mintzo zaizkigu, Izpirituaren eraginez otoitz zegitenez; extasiaraino iritsiz otoitz egin ere inoiz (*149*). Eta han entzun ohi zen greziar hizkuntzakoengan arameotar hitz hau: *Abba!*

Arestian* aipatu ditugun Paulo apostoluaren esaera zail horik ulertzekotan, berauen muinera, berauen bihotzera jo behar dugu: *Abba* hitzera. Jainkoari *Aitta* izena eman, eta hain samurkiro eman ere! Jesusen Izpiritua zen Pauloren garaiko kristauei hartara eragiten ziena. Egun ere, Elizan, Jesusen Izpiritua da horretara eragiten diguna.

Testamentu Zaharrean ere bada pasarterik, Jainkoari, handikiro, aita izena damaionik. Herriaren, hautatu duen erregeren, gizaki jainkozaleen Aita. Baina, Kristok Jainkoaz dakarkigun agerkundea, berri-berria eta hurbil-hurbilekoa da; Jainkoaren erreinuaz damaigun predikua bezainbat. Jainkoaz, bere ikuspegiz, Semearenaz, mintzo da. Semea Aitari zuzentzen zaionez, nabasiki* eta eten gabean alegia, guk ere berdin egiteko eskubidea hartu dugu: Semearekin batera Aitari hitzegitekoa. Hori, inondik ere, Testamentu Zaharrak Aita izenaz ulertzen zuenaren gaindi dagoen gauza da.

Aitaz mintzatzeko moduak garbi agertzen du hori: Jesus Aitari gu baino lotura samurragoaz datxeko*. Hain zuzen, Jesusi ez diozu entzungo *Gure Aita* esaten (guri otoitz egiten erakustea denean ez bada); beti, *nere Aita eta zuen Aita* entzungo diozu. Jainkoa, gurea ezbezala da Jesusen Aita (*118, 52-54*). Jesusek bere semetasuna ez du kanpotik hartua. Jatorriz dagokiona du (*413-417*). Guretzat, aldiz, Jainkoaren seme-alabatasuna, Jesusen bidez datorkiguna da. Zeruetako erreinuaren etorrera da hori.

Aita hitza, guri dagokigunez, Jesusek nola aditzen duen zehazki jakin nahi badugu, ez dugu ebanjelioko orririk hunkigarriena irakurri besterik: Aita urrikitsuaren* parabola.

arestian: lehentxoago. **nabasiki:** era barnekoian. **datxeko:** atxekitzen, lotzen zaio. **urrikitsu:** errukitsu.

«Seme hondatzailearen parabola» izenez ezagutzen da aitzinatik kontakizun hori; baina, esan behar da, ez dela hori deitura zuzena: lehen pertsonaia* aita bait da Parabola horretan, Jainkoa agertzen du Jesusek, ulertu nahi duen ororentzat (Lk 15, 11-32).

Hona beraz: Jainkoaren deitura bezala, hain gerezko* zaigun izena hartzen du: aita. Aitaren irudi okerra daramanak, bide luzea egin beharko du, Jainkoarengana hurbildu, eta, bihotz askez (*240*), hari honela hitzegin ahal izateko: «Jaso duzuen izpiritua ez da esklabu izpiritua, berriro beldurraren menpean erortzeko; baizik eta seme ordekoen izpiritua jaso duzue zuek, *Abba!*, Aita, deitzeko eskubide ematen diguna» (Erm 8,15). Baina, Semea gizaki eta gure anaia delako, gutako bakoitzak Jesus, gure anaia, bidean topatzen du; horrela, Jainkoaren misterioa ukitzen ahal du maitasunean. Bestalde, Jainkoaren aitatasuna ezagutzen zail egiten zaiona, biziago jabetuko da, Jesusen bidez, Aita bakarrarekiko bere semetzakoaz*.

Usteona eta iraupena otoitzean 86

Jesusek, gizakia Aitarengana hurbil daitekeela adierazten digu: gizakia, den bezalaxe, profanu eta arrunta, egunoroko bere gogo eta premiaz (*89*). Ondo aski daki Aitak zenbat gauza arrunten premian garen. Hain zuzen, Jesusek otoitzean kottorra moduan ez hitzegiteko esaten digu; jentilek hala dagitela (Mt 6,7-8); bestalde, ordea, lehiaz eskatzeko esaten digu, bihotz kokildu* gabe. Jainkoa asper arazteraino, esanen litzateke esan nahi duela Jesusek. Ez dirudi gehiegi esatea denik; irakur, izan ere, Lukaren 11, 5-13 pasartea: gauerdian ogi eske datorren adiskidearena; orobat Luka 18, 1-7 pasartea ere: asper gabe, behin eta berriro, bere epailearengana doan alargunaren parabola.

Bi aholkuok buruz-buru daudela dirudi: ez gehiegi hitzegin eta hitzegin asko. Baina, Jesusen asmoa gogoemanez* gero, biak batera datoz: Jainkoarekin aita batekin bezala jokatu. Batetik, Jainkoak ez du zure eskabidea entzungo, hitz eder piloari legokiokeen sari bezala —jentilek uste ez zuten bezala dagi Jainkoak: Jainkoaren grazia gizakiaren ahaleginaren neurriko bezala hartzen bait zuten—; bestetik, ordea, mugonez* eta txarrez nekagarri gakizkion nahi du Jainkoak. Bi aholkuak, horrez gero, mugagabeko konfiantza eman nahi digute.

---

pertsonaia: personaje, personnage. **gerezko:** propio nuestro, propre nôtre. **semetzakoaz:** seme izateaz. **kokildu:** beldurtu. **gogoemanez:** pentsatuz. **mugonez:** oportunamente, opportunément.

Hona beste aholkua: otoitzerako norberaren gelara baztertzea. Hau ere, Jainkoaren aitatasunean oinarritzen da: «Eta zure Aitak, izkutuan ere ikusten duenak, saria emango dizu» (Mt 6,6).

Jesusek garrantzi berezia ezagutzen dio anai-arrebek, elkarrekin, batera egin ohi duten otoitzari:

«Era berean hona nik benetan esan: zuetako bik lurgainean elkar hartu balezate edozer eskatzeko, eman egingo dizue nire zeruko Aitak. Zeren bi-hiru nire izenean bildurik badaude, hantxe naute ni ere beren artean» (Mt 19-20).

Nabasitasuna*, prestutasuna eta ernetasuna otoitzean 87

Jesusek Jainkoarekiko adierazten digun nabasitasunak zerikusirik ez du lotsagabekeriarekin. Gure harremanak zeruetan dagoen Aitarekin ditugu, Jainko sainduarekin, inolako kutsurik, ez eta gezurrik jasaiten ahal ez duenarekin. Otoitza, noski, Jesusek hartzen duenez, jende bilariren* arazoa da, jende premiatsurena*. Baina, orobat, Aitaren aurrean zurikeria guztiak bazter emateko eskatzen digu. «Neri "Jauna, Jauna" esanez ez baino zeruetako nire Aitaren borondatea eginez sartzen da Zeruetako Erreinura» (Mt 7, 21).

«Horra ba: zure oparia aldarean eskaintzerakoan, baldin bururatzen bazaizu baduela zure senideak zerbait zure kontra, utz zeure oparia aldare gainean bai, eta zoaz aurrena zeure senidearekin adiskidetzera; gero etorri eta orduan eskainiko duzu zeure oparia» (Mt 5,23-24).

Horregatik esaten ere digu Jesusek: «Egon erne eta egin otoitz». Zerikusi handia du Harentzat otoitzak ernetasunarekin, lastertasunarekin, Jainkoaren etorrera itxarotearekin.

«Begira gēro zeuron buruei, zuen bihotzak tripazainkeria, mozkorkeria eta bizitzako arduratan motel ez daitezen. Ez zaitzatela gero Egun hark, sareak legez* ustekabe azpian harrapa; lurbira osoan bizi diren guzti guztiei eroriko bait zaie gainera. Zaudete ba erne, eta egin otoitz uneoro, datorrena datorrela, zernahiri ihes egin ahal diezaiozuen, eta Gizonaren Semearen aurrean lasai agertzeko era ukan dezazuen» (Lk 21, 34-36).

Edota Getsemaniko baratzeko bere otoitzean Jesusek esan zuen bezala: «Zaudete erne eta egin otoitz tentaldian eror ez zaitezten» (Mk 14, 38).

Jainkoaren etorreraren zain, espero bizi eta ernean egote hori, hor dator Gure Aita otoitzean ere: «Saindu izan be-

nabasitasuna: irekitasuna. **bilari:** bilatzaile. **premiatsu:** behartsu. **legez:** bezala.

di zure Izena». Bere aintza eta ahalmena azal ditzala eskatzen zaio hor Jainkoari. Ez diėzaiogun garrantzirik ken eskari honi; izan ere, gure munduan eta gure bizitzan ager dadila eskatzen diogu Jainkoari. Hori bera esan nahi du beste eskari honek ere: «Etor bedi zure erreinua».

«Barka gure zorrak» 88

Beldur itzalgarriz beteriko itxaropen jarrera horrek esplikatzen ditu, giza problema alderantzizko tankeran dakarten Jesusen hitzak: «Jainkoa Aita bada, nola bide eman diezaioke hainbat gaitzi?» Gizadiak Jainkoari kontuak eskatzeko darabilen galde bera, Jesusek kontu eskatzailearen kontra zuzentzen du. Hala dakusagu, Jesusek ageriko bi ezbeharren aurrean duen erreazioan:

> «Une hartan berean norbaitzu etorri, eta galilearrei gertatutakoaren berri eman zioten: alegia, horien odola beroren opalgaien odolarekin nahasi zuela Pilatok eta esanez. Jesusek hitza hartu, eta esan zien: Eta zer, galilearrok holako zoria eraman behar izan dutelako, beste galilearrak baino bekatariago zirela uste ahal duzue? Ez ba, hona neuk esan: baina penitentziarik egiten ez baduzue, berdin-berdin hondatuĸo zarete zuek ere denok. Edota Siloeko dorreak erortzekoan azpian lehertu zituen hemezortzi haik, Jerusalenen bizi ziren beste gizonak baino bekatariago zirela uste ahal duzue? Ez ba, hona neuk esan: baina baldin eta penitentziarik egiten ez baduzue, berdin-berdin hondatuko zarete zuek ere denok» (Lk 13,1-5).

Jesus, horrela, Testamentu Zaharreko pentsakera bati kontrajartzen zaio: halakoaren arabera, izan ere, norbaiti gerta lekiokeen zoritxar edo ixtripua*, errudun zelako seinale bait zen. Ez da hori Testamentu Berriaren pentsamodua; noizbait utziko ahal dugu, beraz, Testamentu Zaharrekoa. Baina, denbora berean, hauxe ageri da Jesusen jarreratik: gizakia, gizaki denez, ez duela berak jotzen errugabe. «Barka gure zorrak» esanez irakasten digu otoitz egiten. Jesusentzat, parabolako gizon hori bezalakoak gara, bere nagusiak hamar mila talentu (miloiak eta miloiak) barkatu dizkiona bezalakoak (Mt 18, 23-27).

Jakina, sufrimenak sor arazten dituen korapilo guztiak ez dira horrenbestez askatuak (*410*). Beherago, liburu honetan, gai horretaz ebanjelioak dakarren mezua emanen dugu: Jainkoak ez die bide ematen gaitzari eta sufrimenari (*417*), lasai eta minsor* geldituz; kontra dagie berak. Hemen, halere, Jesusen hitzek garrantzirik handieneko puntu bat garbitzen dute: Jainkoaren aurrean dagokigun postura. Jainkoari

---

ixtripua: ezbeharra. **minsor:** impasible, impassible.

ez baino geure buruari behar dizkiogu kontuak eskatu. Jainkoak bere jarrera, gu bekatariokiko dituen maitasunaz eta eramanpenaz agertzen digu. Jesusen bizitza guztia eta nekaldia dira maitasun horren agerpen. Gu guztiontzat oharkizun* den parabola honek ere, gauza bera agertzen du:

> «Honako parabola hau jarri zien orduan: Pikondo bat zedukan gizon batek bere mahastian aldatua. Etorri zitzaion fruitu bila eta ez zion aurkitu. Eta mahasti zainari esan zion orduan: Hiru urte izango dira piko bila arbola honetara natorrela, eta ez diot aurkitzen batere. Jo eta ebaki ezazu, zertarako lurra alferrik galtzen eduki? Baina mahasti zainak erantzun zion: Jauna, utz ezazu aurtengoz, inguruan aitzurtu eta simaurturik* jarriko dut eta fruitua ekarriko du beharbada datorren urtean. Ez badakar, berriz, ebaki eginen duzu» (Lk 13,6-9).

Jo atea, eta irekiko zaizue *(412-413)* 89

Gure beste galdekizun* bati ere, ustekabeko erantzuna damaio Jesusek. Entzunak ez diren otoitzei buruzkoa: «Otoitz egin dut eta ez dut deus iritsi». Honela dio Jesusek xalo-xalo: «Otoitzean ezer eskatzen duzuenean, zaudete ziur lortu* duzuelakoan, eta jasoko duzue» (Mk 11, 24). Mateorengan, formula, paradoxa txikiagoa da: «Otoitzean sinesmenez zernahi eskatzen duzuela ere, lortuko duzue» (Mt 21, 22). Gauza bera diote bi testuek: ezazue uste, zuen otoitza entzunen dela. Jesusek ez du beste erantzunik ematen.

Horregatik, otoitzerako deia benetan konprenitu duena, ez da isilduko berehala entzuna ez bada, baizik eta ari-eta-ari otoitz egingo du. Behin eta berriro eska dezagula esaten digu Jesusek: «Eska eta emango zaizue; bila eta aurkituko duzue; jo eta irekiko zaizue» (Lk 11, 9).

Eska, bila, uste osoz atea jo. Horrela ihardunez gero, Jainkoarekiko halako harremanetara heltzen da gizakia, non, bapatean, bere otoitza beste otoitz sakon eta funtsezko* honi bat egiten bait zaio: «Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere». Jainkoaren nahia, gauza zerutarra, bikaina da. Baina:

> «...Nola zerua lurretik gora urruntzen* den, ba hainbestexe daude nire bideak zuen bideen goitik, eta nire pentsamenduak zuen pentsamenduen gainetik» (Is 55,9).

Bai. Zenbait bider ez dakusagu, ez Jainkoak entzuten digunik, ez eta nola. Izan ere, eskatuaren arabera entzunak izan arren, betetzea gure eskaria baino maila garaiagoan gertatu ohi bait da sarritan. Ez da adibide argiagorik, Oliamen-

oharkizun: oharpen, ohar. **simaurtu:** ongarriztatu. **galdekizun:** galde. **lortu:** erdietsi. **funtsezko:** oinarrizko. **urruntzen:** urrutiratzen.

dian Jesusena baino. Aitari, bere oinazea urruntzeko eskatzen dio. Horixe otoitz gizatarra, bizia. Baina, zer? Oinazea, gurutzea gainera datorkio. Eta egia esatekotan, Jainkoak entzun du Jesusen erregua; baina, azkengabeki gaindituz entzun dio. Jesusen biztueratik urte askotara, hala adiaraziko du *Hebertarren epistolak:*

> «Horrek ere, bere bizitzako egunetan, deihadar handiz eta negarmalkoka egin zizkion otoitz-eskariak heriotzetik eta salba zezakeen Hari, eta entzuna izan zen bere eraspen eta jainkozaletasunari eskerrak. Eta Seme eta guzti izan arren, gorriak ikusi ondoren, obeditzen ikasi zuen» (Heb 5,7-8).

Ostiral sainduko nekalditik askatzeko eskatu zion Jesusek, eta eman, Bazko goiza eman zion! Eta baratzeko otoitzean bertan eskari hau esaten zuen tarteka: Ez bedi egin nire nahia, zurea baizik! Hona gauzarik bikainena: Jainkoaren nahia; gauza zerutarra, erabatekoa*. Eta Jesusen agintza honetaz pozten ahal gara: «Eska, eta hartuko duzue». Jainkoaren erantzunaren etsenplurik bikainena, maila garaiagoan eta ustekabean emana, Jesusek ekarririko Jainkoaren erreinua da. Erreinuak, besteren artean, fariseuen otoitza betetzen zuen: «Etor bedi Jainkoaren erreinua!» Etorri, eskaturiko Erreinua etorri zen, baina haiek uste zuten baino zerutarrago, sakonago, sinpleago, giza bihotzetik hurbilago. Eta, horregatik, ez zuten ezagutu.

Otoitz egiteko ezezik, otoitzaren betekuntza sumatu ahal izateko, nahitaezkoa da gero eta fede handiagoa. Itsukeri tankera gaitzenak gertatu ohi dira gizartean. Inoiz, itxura guztien arabera, gure egunoroko ogiaren eskaria betea dela esan dezakegularik, ateraldi hau botatzeko trebe gara: «Nere otoitz guztia alferrik egin dut!» Entzuna izan zarela sumatzeko, fedea behar duzu. Alderdi honetatik gerta daiteke, zeure burua beti itsukeriaz beterik ikustea.

Jesusek, bere izenean eskatzeko esaten digu (Jn 16, 24). Honetara dator hori: Jesusen arartekotasunaz* otoitz egin behar diogula Aitari, geure anaia bitarteko emanez. Baina, hau ere esan nahi du: Jesusek bezala otoitz egitea, Jesusen Izpirituaren arabera, hots, hitz hauk erantsiz: «Ez bedi egin nire nahia, zurea baizik»: Otoitz mota hori ez da bapatean ikasten; bizitza osorako lana duzu hori.

Bere burua Jesusen bular gainean etzan zuen apostoluak eta beste hirurogei eta hamar urte Jesusen Izpirituaren arabera bizi izan zenak, honela laburtzen du guzti hau: «Ziurtasun hauxe dugu guk Jainkoarengan, alegia guk zeredozer eskatzekoan Harek nahi duen eran egiten baldin badugu, entzun egingo digula. Eskatzen diogun edozertan entzuten

---

erabatekoa: behin eta betikoa. **arartekotasun:** bitartekotasun.

digula dakigunez gero, berriz, eskatu diogunaren jabe garena ere badakigu noski» (1 Jn 5, 14-15).

Eta dohainik nagusiena, izpiritu ona dela esaten digu Jesusek:

> «Ba ote da gero aitarik zuen artean, bere semeak ogia eska baliezaio harri bat emango liokeenik? Edota arraina eska baliezaio, suge bat emango lioke ba arrainaren ordez? Eta arraultza bat eska baliezaio, arrubirik* emango ote lioke gero? Eta zuek, gaiztoak zaretelarik, zeuron semeei gauza onak ematen jakin baldin badakizue, zenbat areago ez ote die ba zeruko zuen Aitak Izpiritu Saindua emango, honen eske *doazkionei*? (Lk 11,11-13).

Gure Aita 90

Lehen esaniko guztia, Jesusek erakutsi zigun otoitzean laburtua dago: «Honela otoitz egingo duzue, ba, zuek:

> «Gure Aita, zeruetan zarena:
> Saindu izan bedi zure Izena,
> etor bedi zure erreinua,
> egin bedi zure nahia,
> zeruan bezala lurrean ere.
> Emaiguzu gaur
> egun honetako ogia:
> barka gure zorrak,
> guk ere geure zordunei
> barkatzen diegunez gero;
> eta ez gu tentaldira eraman,
> baina atera gaitzazu gaitzetik».

Horrela dio testuak Mateoren arabera, 6, 9-13etan. Azkenean beste esaldi bat eransten* diote oraino Ekialdeko liturgiek eta protestanteek[11]. Bukaera liturgiko hori, aitzina-aitzinako delarik ere, ez dagokio Bibliari, beranduko kodize batzuei erantsi bazitzaien ere. Arrazoin honengatik, kako artean jartzen dute protestanteek, Liburu Sainduetan jasotzen dutenean. Oso esakun zoragarria da, eta honela dio:

> «Zeurea bait duzu Erregetza;
> zeureak ospe eta indarra,
> orain eta beti. Amen».

Ekialdeko kristauek, doxologia berbera erabiltzen dute, baina hiru jainko-pertsonak aipatuz:

> «Zeurea bait duzu Erregetza;
> zeureak ospe eta indarra,
> Aita, Seme eta Izpiritu Saindua,
> orain eta beti, gizaldi eta gizaldietan. Amen».

11 Eraskin hau gure mezakoan ere ezarri da, *Gure Aita*-ren ondorengo otoitzari ematen diogun erantzun bezala.

arrubi: escorpión, scorpion. **eransten:** eratxekitzen.

Gure Aita-ren zati batzu, garaiko judutar otoitz-formulen antzekoak dira. Baina, Jesusek ekarri duen Jainkoaren erreinua, garai hartan espero zuten ezbezalakoa denez, *Gure Aita* ere, oro har*, beste otoitzak ezbezalakoa da. Lehen puntu harrigarria, ohi ezbezalako tankera soila* du: ez sarrera luzerik —orduan ezinbesteko* zena—, ez eta konklusio handirik, ikusi dugunez. Beste berezitasun bat: Jainkoaren Izenari, erreinuari, nahiari buruzko hiru eskabideak; nazionalismo ororen gaindi gertatzen dira eta lehen tokian datoz, gure buruaren aldeko eskarien aurretik. Eta hauk, beren errealismo praktikoz nabarmentzen dira, egunoroko bizitza kontutan bait dute.

Horrela bada, otoitz honek, bere soiltasunean, jainkozko etorkizun izugarria eta gizonaren oraingo errealitate egunorokoa, bateratzen ditu (*116*). Trinkoegia, aberatsegia da, presaka adierazi ahal izateko. Hemen ere, katolikoak asko ikas lezake Erreformagandik.

Kapitulu hau amaitzeko, hona *Gure Aita*-z ebanjelioak berak dakarren azalpena. Laburra da, eta mamitsua. «Beraz, zuek gizonei beren hutsak barkatzen baldin badizkiezue, zeuroi ere barkatuko dizkizue gaiztekeriak zuen Aita zerutarrak. Zuek gizonei barkatzen ez baldin badizkiezue, ordea, zeuroi ere ez dizkizue zeuron gaiztakeriak barkatuko zuen Aita zerutarrak» (Mt 6, 14-15) (*381*).

Kristok, esaneko izanez, Aitaren nahia erakusten digu

Nahi bakar bat 92

Hamabi urte zituela, bere ingurumaria harriarazi zuen Jesusek, bere baitan zeraman grina honetaz: «Ez ahal zenekiten ba neure Aitaren gauzetan egon behar dudala nik» (Lk 2, 49) (*59*). Horrela aurkezten du ebanjelioak Jesus lehenengoz hizketan azaltzen digunetik. Aitak nahi duena betetzen du gizon bezala. Aitaren eta honen Seme bakarraren, Jainkoarengandik jaiotako Jainkoaren, Argiarengandik jaiotako Argiaren arteko batasun hertsia, giza bizitza batetan agerian gertatu da (*52-54, 118, 414-417*).

Eta giza bizitza hori esanekotasuna* izan da. Honela adierazten du hori Hebertarrei zuzenduriko epistolak:

oro har: bataz beste. **soil:** simple. **ezinbesteko:** beharrezko. **esanekotasuna:** obedientzia.

> «Horregatik esan zuen Kristok mundu honetara sartzekoan: «Zuk ez duzu, ez oparirik ez eskaintzarik nahi izan: baina gorputz bat moldatu didazu. Bekatuen ordainetan, ez erreopariek ez opariek eman dizute atseginik.
> Orduan esan nuen: Hona ba, liburu bildua nitaz ari denez gero, hona non natorrer)ainko, zure borondatea egitera» (Heb 10,5-7).

Bere bizitza osoa eskatzen zion zeregin horrek; halaz guztiz, ez zitzaion egin, ez ilun, ez eta gogor ere. Aldiz, pozgarri zitzaion. Bikain adierazten digu hori Joan sainduak Jesusen eta Samariar emakumearen arteko elkarrizketan, Jakoben putzuaren ondokoan. Jesusek emakume baten begiak argitara eta egiara ireki berriak ditu; orduantxe

> «arren egiten zioten ikasleek esanez: Rabbi, jan ezazu ba! Baina Jesusek esan zien: Zuek ez dakizuen janari dut nik nere jateko. Elkarri esaten zioten orduan ikasleek: Inork eman ote dio ba jaten? Jesusek esan zien: Nire janari, bidali nauenaren borondatea egitea da eta haren lana osatzea» (Jn 4,31-34).

Jesusen beraren «izpiritubidea*» hitz batez eman nahi balitz, ezin hautatzen ahal litzateke honako hitz hauk baino egokiagorik: *Jainkoaren nahia.* Bere «deia» Jordan hibaian, *zerbitzua* du; bere predikuaren ardatza *Jainkoaren erreinua* du. Haren otoitzaren mamiak honela dio: egin bedi *zure nahia.* Honek guztiak hauxe esan nahi du: esanekotasun osoosoa.

Bizitza horrek harritu egiten gaitu. Giza duintasunari* ezinbesteko zaion gauza asko, badirudi, bikainena den gizon horrengan ez dela burutzen*. Are*; gizon hori benetan handia dela esan ote genezakeen duda ere badatorkigu. Ez ote da gero Jesusen bizitza, mugatuegi, hertsiegi*, aldebateko? Izan ere, Jesusek ez du dirurik egin, ez da ezkondu, ez du seme-alabarik ukan, eta gizakiak duen dohainik handiena, norberaren nahia, alegia, beste Baten nahiarekin bateratu du erabat.

Egiaz, alabaina*, Jesusen bizitza zabal-zabal eta aberatsa ageri da. Berak, ezer ere ez zuelarik, ez sitsak*, ez herdoiak jan ez ditzakeen aberastasunak ekarri zituen mundura. Bera, ez emazterik, ez haurrik ez zuelarik, hurbiltzen zitzaion ororentzat senide eta biziemaile zen. Beste baten nahia bere nahi egin zuen; baina nor hura baino eskukoagorik* lurra lur denetik?

Gizadiaren begitan, inori burura dakiokeen baino bizitza sakonagoa egin zuen; Jainkoaren nahira eginiko bizitza mundu honetan egin daitekeen bizitza aberatsen, zabalen, sinpleena bezala agertzen da. Horretan datza Jainkoaren erreinua.

---

izpiritubidea: espiritualidad, spiritualité. **duintasun:** dignidad, dignité. **burutzen:** betetzen. **are:** oraindik gehiago. **hertsiegi:** hestuegi. **alabaina:** halere. **sitsak:** pipiak. **eskukoago:** libreago.

Esanekotasun berberaz bizitzeko eskatzen digu Jesusek: «Egizue penitèntzia, eta sinets Berrionari » (Mk 1,15).

Sinestea da lehen gauza (ikus «Predikuz dator fedea» eta «Fedea» kapituluak). Poz mezuaren ezaguerara garamatzana, geure buruaren erabateko konpromisoa da, geure baitatik atera arazten gaituen jarrera. Horri deritza fedea. Ikusia dugu, Jesusen mirariak federako bide gerta daitezkeela (*80*); denbora berean, alabaina, honetaz jabetu gara: mirari horik *ez daudela zerbait garrantzizkoago eta mamitsuago den* honekin etenik: Jesusen hitzarekin alegia; Joanen ebanjelioan (6. kapituluan), Jesusek apostoluei, haiek ere bestek bezala utzi egin behar ote duten galdegiten die. Eta Kepak, guztien izenean, honela erantzuten dio: «Jauna, eta norengana joango gara ba? Betiko bizitzako hitzak dituzu zuk eta» (Jn 6,68). Noranahi jo, adimenduz eta den guztiz ere, gizakiak ez dezake topa Kristoren hitzean hainbat egiarik. Baina, Jesusen hitzak ez daitezke har etenik. Jesusen nortasunaren bakuntasun* eta handitasuna bete-betean adierazten dituzte hitz horiek; liluratzen duen jainkozko aginpidea* ez, eta bai gizakiari bere buruaz jabetzen laguntzen diona (*117*). Azkenik, ezin berez daitezke hiru alderdi horik (Jesusen mirariak, Jesusen hitzak eta Jesusen nortasuna) eta Joan Sainduaren ebanjelioak agerian ipintzen duen beste puntu hau: Aitaren Testigutza alegia. Behin batetan, diosku Joanek, bere lekukoez* galdegin zioten Jesusi, eta honela erantzun zien:

> «Zuek berriz zeuron Legean duzue idatzirik: bi lagunen aitorpenak balio duela. Nik neure burua aitortzen dut, bai, baina bidali nauen Aitak ere aitortzen nau. Orduan galdetu zioten: Non duzu ba zuk aita? Jesusek erantzun zien: Zuek ez ni ezagutzen nauzue eta ez nire Aitarik ezagutzen duzue. Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete» (Jn 8,17-19).

Jesus benetan ezagutzen duena, Jesusi benetan bere burua ematen diona, era berean barne aitorpen baten jabe da. Bizitzara eta egiara daraman bide zuzena aurkitu duela jakinarazten dio barnean Aitak. Jesusengana daraman bidea ez doa adimenaren kontra; baina azkeneko pausoa usteonak edo konfiantzak ematen du. Hau ere, ordea, ez da bururik gabe egiten. Baina arrazoinketa hotza ezbezalako ezaguera da (*237-238*). Hondorago doana. Izan ere, arrazoinaren analisi lana, bikainena delarik ere, ez da gauzarik sakonena, ez da gizakiaren «muina», ez eta giza ezagumenarena* ere.

---

bakuntasun: sencillez, simplicité. **aginpidea:** lege-nagusigoa. **lekuko:** testigu. **ezagumena:** ezagutzeko ahalmena.

Gizakiaren bilgunea 94

Bada guregan, adimena baino sakonago, sentimena baino geureago, kontzientzipea baino gizatarrago den maila bat. Gure izatearen bi alderdi nagusiek, ezaguerak eta maitasunak, bat egiten duteneko puntua da. Egiaren bilaketa eta onaren bilaketa, bat datoz maila horretan. Hor, jatorrizko batasun horretan, ezaguera ez da argitasun hotz bat, maitasuna ez da grina itsua. Ezaguera, maitasunez betea da; maitasunak begiak ditu.

Maitatzen duguneko, geure kontzientzia dagoeneko, zorion sakon eta garbia suma dezakeguneko, gu benetan geu, norbait, gareneko puntua: «hi» bizia, «ni» bizia gareneko geure izatearen puntua da hori.

Maila sakon honi mintzo zaio Jesus fedea eskatzen digunean. Gure ezagumena, egi grinaren eta on grinaren jatorrizko batasun horrek gidatzen du. Geure-geure ustea dugu, erabat ona den errealitatea erabat egia ere badela. Baietz esatea, Jaunari egiaz baietz esatea, balio irizpen* bat da; bete-betean eta zuzen-zuzenean konprometitzen gaituena.

Horrekin ez dugu zapuzten* arrazoimena. Hau esan nahi dugu: arrazoimenak ez diharduela bakarrik, ez diharduela etenik bezala (*184-186,374*). Norberaren izate osoari itsatsirik darrai.

Ez genuke batasun hori «sentimendu» izenez izendatu behar; hitz hori mila erreazio adierazteko erabili ohi bait da, hain sakon eta hain erdiko ez den mila erreazio izendatzeko alegia. «Intuizio» hitzak ere, usaian ematen zaion adieran, besterik adierazten du. «Kontzientzia» hitza, ordea, egokiagoa dugu. «Ontasun nahiak berez daraman ezaguera»: definizio luzeegi eta zailegia da. «Nork bere burua erabat eskaintzea»: *landuegia da hau, halako oinarrizko gauza bat adierazteko.* Horrez gero, gure arbasoek bibliako kontzetua adierazteko erabili zuten izen bikainera joko dugu: *fedea.* Fedeak, bere jatorrizko sustraiak dioenez, usteona adierazten du, baina orobat inori agertzen zaion leialtasuna ere bai. Zenbait hizkuntzatan fedea eta maitasuna hitzek erro berdina dute (ingelesez *love* = maitasuna, eta *belief* = fedea; alemanez *lieben* = maitatu, eta *glauben* = sinetsi; holandesez *geloof* = fedea, eta *liefde* = maitasuna).

Fedea ez dago adimenezko dohainei loturik 95

Jainkoak gizakiaren hondo-hondoenari eman ohi dion fedea ez dago adimen argitasunari loturik; filosofia ezbezala da. Hain zuzen, federako bide bakarra adimena balitz, jende argi eta eskolatuak aisago topatuko luke Jainkoa, eta eskola eta argitasun txikiagoko jendea laino ilunean ibiliko litzateke, bere bizitzaren azken helburua aurkitu ezinik. Baina ez; giza-ahalmenei baino hestuago barne-jarrerari datxekon ezagu-

irizpen: juicio, jugement. **zapuzten:** baztertzen.

menaz aurkitzen da Jainkoa. «Ordu berean, Izpiritu Sainduaren eraginaz pozturik, hauxe esan zuen: Bedeinkatu egiten zaitut, Aita, zeru-lurren Jaun hori, gauza hauk jakintsu eta burutsuei gorde eta txikitxoei agertu dizkiezulako».

Jakina, mendebaldeko antitesi honek ez du esan nahi Aitak buru argiak zapuztu egin dituenik, baina hauxe adierazten du: gai honetan, adimen soilak indar txikia duela. Korintotarrei eginiko lehen epistolaren aurren bi kapituluak, fedeak egin ohi duen bide horretaz mintzo dira.

> «Non da jakintsua? Non gizon eskolatua? Non da mundu honetako gizon arrazoizalea? Jainkoak ez du ba erokeriatzat jo mundu honetako jakinduria? Bai, eta jakinduriaren bitartez munduak ez bait du Jainkoaren jakinduriatan Jainkorik ezagutu, gogoak eman dio Jainkoari erokeriazko hizkera modu baten bidez sinestunak salbatzea» (1 Kor 1,20-21).
>
> «Ba Jainkoaren erokeria gizonak baino bikainago da; eta Jainkoaren ahuleria gizonak baino ahaltsuago» (1 Kor 1,25).
>
> «Eta munduan izenik gabe, kaxkar eta arbuiagarri dena, horixe hautatu du Jainkoak; ezertxo ere ez dena aukeratu du, ezer badena ezerezteko: inoren haragiak Jainkoaren aurrean zertan harroturik eduki ez dezan» (1 Kor 1,28-29).
>
> «Hala ere, jakinduriaz hitz egiten dugu gizon osatuen artean; ez, ordea, mundu honetako jakinduriaz...; alderantziz, guk gure ihardunetan darabilgun jakinduria Jainkoarena da, jakinduria misteriotsu bat, izkutua, mendeak baino aurreagotik gure gloriatarako Jainkoak jarririk zedukana» (1 Kor 2,6-7).

Sinesgabea 96

Frogarria* da fedea mundu osoarentzat.

> «Sinesten ez duena kondenaturik dago... Eta hona zer den epaia: etorri dela argia mundura eta nahiago izan dutela gizonek ilunpea argia baino: txarrak bait ziren haien egiteak. Ba okerra egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez da argitara jartzen, bere egiteak agerian jartzeko beldurrez. Egiatan diharduena, ordea, argitan jartzen da, bere egiteak Jainkoarengan eginak direla ager dadin» (Jn 3,18-21).

Tankera honetako testu zorrotzak, Joanen izkribuetan topatzen ditugu batipat; argitasun izugarriz hauxe adiarazten digute: lur honetan den gauzarik handienarekiko axolagabekeria edo mespretxua ez dela zigorrik gabe geldituko. Berrionean zehar, «munduko kezkaren» gaitzespena (Mt 13,22), axolagabekeriarena, bizitza gezurtiarena, harrokeriarena, nabari dugu; horrek guztiak hainbat jende urruntzen bait du Kristorengandik, kontzientzia txar bat sor araziz. Ez da edozer gauza Jesusek eskatzen duena!

---

frogarria: piedra de toque; pierre de touche.

> «Jende talde handiak zihoazten Jesusekin, eta haiengana bihurturik esan zien: Inor neregana badator, bere aita, eta ama, eta emaztea, eta semeak, eta anaiak, eta arrebak, ete bere burua ere gorrotatu gabe, ez daiteke nere ikasle izan. Eta bere gurutzea harturik nere ondoren ez datorrenik, ez daiteke nere ikasle izan» (Lk 14,25-27).

Ondo asko zekien Jesusek zein gauza zaila den fedea; ongi ageri da hori ereilearen parabolan, hainbat hazi galtzen dela adiarazten duelarik. Eta Lukarengan datorren esaldi batek ere, berorren testuingurutik at harturik, hori bera adiarazten du:

> «Baina eta Gizonaren Semea datorrenean, aurkituko ote du gero federik lur gainean?» (Lk 18,8).
> «Eta Gaiztakeria handi eta handiago egiten denean, hoztu egingo da gehienen maitasuna» (Mt 24,12).

Sinesten ez duen edozein kondenatua dagoela esan nahi ote du honek? (*186,239-240*). Berez, ez. Hitz sinesgabeen azpian, federako prest dagoen bihotz bat dago, agian; Elizan egiaz Kristo aurkitzeko bidea falta izan zaio bakarrik (*337*). Beharbada, oraino ez da halakoaren barne historiara Kristoren mezua sartu.

Pertsona batek ezin jakin du gauza bat ere erabat, ez gauza on bat, ez txar bat. Horregatik, ezin hautsi dugu inorekiko geure harremana, ez geure tarterikoekin duguna, ez ingurukoekin duguna, Kristoren Eliza utzi duela eta. Iritzi zuzena eman genezakeela uste izan arren, ez genuke horretarako eskubiderik. Izan ere, nor gara bekaturik gabe? Bestalde, ezin etsi genezake norbait Kristoren aurretik urrun dagoenik, berau ezagutzeke* igarotzen ikustean. Halako pertsonak ez sinesteko dituen arrazoin guztiak ezagutzen ditugula uste izan arren, ez dugu inongo ziurtasunik, halakoa Jainkoak nahi lukeen tokian dagoela uste izateko. Horretaz errezeloren bat ukan dezakegu, baina inori ez dagokio horretaz iriztea. Geure esku dugun gauza bakarra, ahal dugun neurrian elkar maitatzea da.

Legearen gain Jesusek duen agintea 97

Jesus, fedea eskatzen duenean, harriarazteko moduko aginpidez mintzo da; Jainkoaren nahiaren araberako bizitzaz mintzo denean, aginpide berdinaz mintzo da (*117*). Jesusengan, Jainkoa bera, legegilea bera, ageri da hurbil-hurbil. Hain zuzen, larunbatari buruzko ohitura xehe guztiak zapuztu egiten ditu. Eta hori, gizatasun handiko argudioz egiten du (ikus Mk 2,27). Horrela, arbasoen tradizioa aldatu egin zuen.

Baina, bi bider, Biblia bera aldatuz dakusagu*. Lehenengoz, garbiari eta satsuari* buruzko arauak aldatuz. Legeak, gizakia «garbi» nahiz «satsu» egiten zuen mila egintza

ezagutzeke: ezagutu gabe. **dakusagu:** ikusten dugu. **satsuari:** zikinari.

eta janari aipatzen zuen. *Lebitiko* liburua, batez ere, horrelako aginduz josia dago, eta tradizioak areagotu egin zituen horrelako arauak:

> «Jende taldeari berriro hots eginez esaten zion: Entzun neri denok, eta jaso ondo gogoan. Kanpoan ez dago ezer gizonarengana sartuz hau zikin dezakeenik; baina gizonarengandik ateratzen denak, horrek zikintzen du gizona. Belarriak entzuteko dituenak entzun dezala! Gizataldea utzirik etxera sartu zenean, parabolakoa galdetu zioten ikasleek. Eta berak esan zien: Zer, horren burumotelak ahal zarete ba zuek ere? Ez ahal duzue ikusten gizonarengana sartzen den ezerk ez dezakeela gizonik zikin? Sartzen zaiona ez zaiola bihotzera sartzen, urdailara baino, eta hortik zikindegira doala? (Horrela janari guztiak jotzen zituen garbitzat). Eta aurrera ekin zion esanez: Gizonarengandik ateratzen denak, horrek egiten du gizona zikin. Zeren, etorri ere, barrenetik, gizonen bihotzetik bait datoz asmo gaiztoak: lizunkeriak, lapurretak, giza-hilketak, ezkontz-urratzeak, diru-goseak, gaiztakeriak, maltzurkeriak, gordinkeriak, bekaizkeriak, famagabetzeak, harrokeriak, burugabekeriak. Barrenetik datoz gauza txar hauk denak, eta hauek zikintzen dute gizona» (Mk 7,14-23).

Argi eta garbi erakusten du Jesusek ezkontzaren esanahi sakonagoa (*324*). Testamentu Zaharrean, nahikoa erraza zitzaion senarrari ezkon-legea haustea:

> «Fariseuek, ondoratu eta zirika antzean, galdetu zioten: Zilegi ahal du gizonak emaztea uztea? Jesusek erantzun zien: Zer agindu dizue Moisek? Eta esan zioten: Ba zaputzageria idatzi eta uzteko eskubidea eman zuen Moisek. Jesusek erantzun zien orduan: Bai, zuen izaera egoskorrarengatik idatzi zizuen hark agindu hori; baina kreazioaren haseran gizon eta emakume egin zituen Jainkoak. Beraz, aita eta ama utziko ditu gizonak, eta haragi bat baino ez dute egingo biek. Horregatik, bi ez baino haragi bakar dira harrez gero. Jainkoak lotu zuena, berriz, ez dezala gizonek aska. Etxera itzulitakoan gai hartaz beraz galdetu zioten berriro ikasleek. Eta Jesusek esan zien: Bere emaztea utziz beste batekin ezkontzen denak, ezkontza urratzen du lehenengoaren kontra. Eta emazteak ere, bere senarra utziz beste batekin ezkon badadi, ezkontza urratuko du berak ere» (Mk 10,2-13).

Horretaz dizipuluen txundidura* dakar Mateok:

> «Senar-emazte arteko kontuak hola izatekotan, ez dakar onik ezkontzeak» (Mt 19,10).

Legearekiko zintzotasuna 98

Guztitara, ordurarteko legea onartu egiten du Jesusek. Komeni da, hau begi bistatik ez galtzea. Oker genbiltzake, Jesus iraultzaile itsu bezala, ezarritako ordena iraultzeko asmo hutseko bezala ikusiko bagenu. «Ez uste gero, Legea edo Pro-

txundidura: harridura, harritzea.

fetak kentzera etorri naizenik. Kentzera ez baino betetzera etorri naiz ni» (Mt 5,17). Desobedientziari eta anarkiari «ezetz» dasaie* Jesusek, eta «baietz» Jainkoaren legeari (*306-308*).

Legea sakonagotu 99

Bestetik, ordea, hautsi egiten du Jesusek lege hori zenbait puntutan. «Entzuna duzue aitzinakoei esan zitzaiela... hona, berriz, nik esan», sei bider errepikatzen da mendiko hitzaldian (*308-310,67*).

Jesusek Legeari dagizkion* aldaketa horiek guztiek barne kutsua damaiote* azaleko arau denari (ageriko aginduari bere indarra kentzeke* gainera). Aldaketa horik guztiak honetara bil daitezke: «Hori ezezik... hau ere bai...» Giza hilketa ezezik horretarako asmoa ere bai, gorroto hitza ere bai. Adulterioa ezezik, begiratu okerra eta hori baiesten duen pentsamendua ere bai. Legearen kontrako dibortza ezezik, beste edozein dibortza ere bai. Joera bera aurkitzen dugu gainerako eskakizunetan: egia inolako zinik gabe esatea, mendekuari uko egitea; azkenik, Jainkoaren eguzkia eta euria bezala, bat ere bazter uzteke, gizon-emakume guztiengana isurtzen den maitasunez maitatzeko eskatzen zaigu; geure arerioa* bera ere maitatuz (Mt 5,43-48).

Jesusen entzuleak zur eta lur gelditzen ziren (Mt 7,28). Jesusen mintzairak berak —labur, hunkigarri, izugarri, bizigarri— sumarazten zuen zera hau: Jainkoa hemen dago, gure artean.

Mendiko hitzaldiaren eskakizunak* ez dira zehatz-mehatz formulaturiko lege edo agindu (*313*) (agindua eman ahala ihespide bat berehala ematen dizun horietakoa alegia*). Izan ere, norberaren eta gizarteko bizitza gidatzen eta arautzen duen araurik gabe bizi ez badaiteke ere, agindu soila ez da aski gizakia on egiteko. Mendiko Hitzaldian, legedi inpertsonala ez baino Norbait, pertsona Bizi bat da topatzen duguna. Gizakia, Jainkoaren nahi argi eta garbiarekin aurkitzen da aurrez-aurre.

Lehen erreazioa, poza eta harridura da, eta hauxe ateratzen zaigu: Bai, halaxe da! Hartu beharreko bidea da. Horretan datza bizia, ontasuna; horixe da Jainkoaren erreinua.

Berehalaxe datorkigu, ordea, galdea: Ba ote daiteke hau? Esate baterako, posible ote da Jaunak dioen hau?: «Gaizkileari ez gogorrik egin» (Mt 5,39a). Eta gure erantzuna: Ez,

dasaie: esaten die. **dagizkion:** egiten dizkion, deutsozan. **damaiote:** ematen diote. **kentzeke:** kendu gabe. **arerioa:** etsaia. **eskakizunak:** eskabideak. **alegia:** esan nahi da.

hori ezinezkoa da! Eskakizun hori ezin bete daiteke erabat. Horregatik, ez daiteke legetzat ezar. Halere, Jainkoaren nahiak eta Erreinuaren pozak dei hori gero eta buruagotuz joatea eskatzen dute, heroismoraino, nor bere buruaz ahazteraino. Hori nola egin, ez dugu inoiz ere zehatz-mehatz jakingo (*245*).

Horregatik eskatzen dugu: «Etor bedi zure erreinua», eta: «Egin bedi zure nahia». Aginduak nola lurrean hala zeruan betetzeko ahala eman diezagula; ebanjelioaren eskakizun horiek, legamiak irina bezala, mundua «hazi», antzaldaraz* dezaten. Elizak, bere aginduak lege bezala definitzen ez dituelarik, zera agertu nahi digu: Mendiko Hitzaldia ez dela hartu behar legedi bat bait litzan. Ez da legerik beste masaila eskaintzera behartzen zaituenik, ez eta zin egitea eragozten dizunik. Baina, bai urrikarria, ongi zehazturiko aginduak betetze hutsez, Kristoren eta honen Elizaren eskakizunak bete dituelakoan legokeen gizona. Mendiko Hitzaldiko eskakizunek zutik diraute beti, gure arteko nornahirentzat; ez pentsa aukerabidezko zerbait direnik; aldiz, haietaz kontuak eskatuko zaizkigu. Gizadi osoari dagokio Jesusek, Mateok dioenez, «bere dizipuluentzat» egin zuen hitzaldia.

Hauxe esan nahi du Mateok: Begira; dakartzadan hitz hauk Eliza osoari doazkio. Hona bada: Mendiko Hitzaldia ez da hartu behar, jadanik* hamar aginduak betetzen dituztenentzat goi mailako eskola bide balitz bezala. Ez. Ez doakie «sainduei», mundu guztiari baizik. Orobat doakio, oraino hamar aginduak betetzera heldu ez denari ere. Guztioi dagokigu izpirituz Galileako mendira jotzeko deia; belarretan Jesusen inguruan jarri eta, berak agertzen digun Jainkoaren nahia entzuteko deia; eta geurok eskuhartuz Jainkoaren erreinua «burutu» dadila, gure baitan egiazko bilaka dadila eskatzeko deia, guztioi dagokigu.

Baina hein* batetan bederen bete ezineko diren aginduak hartzea ez ote da gero gauza etsigarri? Bai, hala izanen litzateke, Mendiko Hitzaldia ongi mugaturiko legez egina balitz; honelakoz esate baterako: honeraino egin behar duzu, eta aski duzu! Baina, besterik da arazoa. Hitzaldi horrek ahal bezain urrun joateko eskatzen digu, geure burua erabat konprometituz. Zera esan nahi du horrek: orduan egon gintezkeela ziur; Jainkoak, izan ere, gehiago begiratzen dio bihotzaren eskaintzari, ageriko arrakastari* baino. Bestalde, gainera, halako eskaintzak, halako konpromisoak, egintzatan, eta egintza hobeagotan, agertu nahi izaten du.

Horrela, bada, behin eta berriro hasi behar izateak, bihotzeror arazi edo larriarazi ordez, humiltasunera eragin behar

---

antzaldaraz: antza-alda-arazi. **aukerabidezko:** aukerazko. **jadanik:** dagoeneko, orain arte ere. **hein:** neurri. **arrakasta:** éxito, succés.

digu; Jesusek honako hitz hauetan adiarazten duen poza dakarren humiltasunera:

> «Holaxe ba zuek ere; zuei agindutako guztia egiten duzuenean, esan: morroin ezerez gizajo batzu besterik ez gara; behar genuena besterik ez dugu egin» (Lk 17,10).

Hauzia* eta saria 100

Esan berria dugun guztiak ez du esan nahi hauzirik izango ez denik (*70*). Aitzitik* baizik. Alabaina, hauzi hori, Jainkoak gure bihotzari begira dagiena* da (*313*). Hauzi hori, lege betetze soilari dagokiona baino zorrotzagoa da. Baina, lagun hurkoaren maitasunez egiaz ahalegintzen denak, uste osoa ukan dezake; izan ere, bere bihotzak gaitzetsiko balu ere, Jainkoa giza bihotza baino handiago da (ikus 1 Jn 3,20).

Esandako hau ez doa ere sariaren kontra (*244, 402-404*). Deihadar honekin amaitzen ditu Jesusek zorionbideak: «Poz eta alai zaitezte, handi ere handia bait duzue zuen saria zeruan» (Mt 5,12). Sari hau ez da ongi kalkulaturiko ordaina (*131*). Jainkoa ez da gizakiarekin lan tratua dagien ugazaba*. Ez du sekula gutxi ematen, jakina; aitzitik, merezi baino askoz gehiago ematea zaio gogoko (hain zuzen, horretaz ziren kexu seme hondatzailearen anaia zaharrena, eta hamaikagarren ordu aurreko langileak). Jainkoaren saria ez da jornala edo soldata. Bere maitasunean hartzen gaitu. Maitasun hori da «zeruko altxorra» (ikus Mt 6,19-21).

> «Zorionekoak benetan, Jaunak, etortzen denean, zain aurkitzen dituen morroinak. Benetan esaten dizuet: mantala gerrian lotuz, morroinak mahainean jar arazi eta, berak zerbituko die batari eta besteari» (Lk 12,37).

Inork ez daki zenbat merezimenduren jabe egin den. Horregatik, ez du inork begia irabazitan bakarrik duelarik bizi behar, maitasunez baizik. Horregatik, hamar aginduak betetzeaz bakarrik ez baino Mendiko Hitzaldiaren eskakizunak, geure bizitzan, geure familian, geure lanean mamitzeaz arduratu behar dugu; jakinaren gainean, eskakizun* horiek gure lasaitasuna astindu eginen dutela, baina orobat pozez beteko gaituztela.

Mendiko Hitzaldia, Mateoren 5-7 kapituluetan topatuko duzu.

Agindurik nagusiena 101

(Ikus «Maitasuna» eta «Lagun hurkoarekiko maitasuna, fede misterio» kapituluak) (*150, 311-313, 335, 417*).

---

hauzia: juicio, jugement. **aitzitik:** kontrakoz. **dagiena:** egiten duena. **ugazaba:** nagusia. **eskakizun:** exigencia, exigence.

Lege-maisu batek honela galdetu zion behin batez Jesusi:

> «Maisua, zein dugu agindurik nagusiena Legean? Jesusek esan zion: Maita zeure Jainko Jauna bihotz osoz, gogo betez eta adimen osoz. Hau da nagusiena eta lehenengo agindua. Honetxen antzeko da bigarrena ere: Maita zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe. Bi agindu hauetxetara biltzen dira Legea dena eta Profetak» (Mt 22,36-40).

Testamentu Zaharreko bi pasarteak elkarbatu eta Legearen muin egitean, bere agindurik berritzaileena eraikitzen du Jaunak. Alde guztietara isurtzen den maitasuna eskatzen du: Jainkoarekikoa eta gizakiekikoa; jakina, maitalea bera ere gizakia da. Aginduak, nork bere burua ere maite duela ematen du oinarritzat. Egiaz, maitasuna alde guztietara isurtzen da.

«Bihotz osoz, gogo betez eta adimen osoz» esaerak, giza-bizitzako gauzarik nagusienaz ari garela adiarazten du. Lehen maitasuna adierazteko erabiliko genituzkeen hitzak hautatzen ditu hor Jesusek. Izan ere, Jainkoa —Testamentu Zaharreko pasarte zorrotz batek hala azaltzen du— Jainko espatsua bait da. Horren maite gaitu, itzulian gure maitasuna nahi bait du. «Bizi da Jauna»! (Sal 18,47). Jainkoarengana itzuli nahi ez lukeenak, Aitaren irudia errainu* huts eginen luke, eta ezin atxeki*, ez maita lezake bere lagun hurkoa, berau den bezala, beronen izate hondoenean.

Beste lilurakeria, lehengoa bezain engainagarria, lehen aginduaren alde bigarrenaz ez axolatzea litzateke. Orduan, Jainkoa ere ezin atxekia litzateke:

> «Norbaitek badio: Maite dut Jainkoa, baina bitartean gorroto badu bere senidea, gezurtia da holako hori. Begiz ikusten duen senidea maite ez duenak, nola maita dezake ikusten ez duen Jainkoa?» (1 Jn 4, 20).

Zer bada? Nolarebait esateko, lagun hurkoa bera ez baino Jainkoa bakarrik behar ote dugu kontutan? Inola ere ez! Jesusen dotrinan, lagun hurkoa ez da itzal garden* bat, ez eta Jainkoarenganako gure maitasuna agertzeko tresna egoki bat. Lagun hurkoa norbait da, pertsona bat, bere premiak dituen, bere nortasuna duen «hi» bat. Horixe da Jesusentzat Nain-go alarguna; horrelaxe «urriki izan zen hartaz». Horrelaxe da samariarrarentzat ere zauritu hura. Samariar honetaz ere, «urrikitu egin zela» esaten du Ebanjelioak. Eta kontakizun horren ardatza, zorigaiztoko zauritua da; historio guztia hari buruz ari da. Esanen litzateke, hurbiltzen eta gero urruntzen zaion samariarraren pausoak entzuten ditugula.

Jesusek bere ondora hartuko ditu zeruan, Jesusi egiten ziotela pentsatu gabe ere, arrotzei ostatu eman izan dietenak,

---

errainu: itzal. **atxeki:** heldu. **garden:** garbi.

gaixoei ikusaldi egin dietenak. Izan ere, hori guztia Berari egina bezala hartzen bait du: «neri egin didazue»; eta hori, hain zuzen, lagun hurkoa nor denez, pertsona denez maitatu izan delako. Jainkoa gizon-emakumeengan dago, gure kidekoengan. Jainkoak egiten ditu benetan gizon-emakume. Bere lagun hurkoaz egiazko maitasunez maitemintzen dena, Jainkoaz maitemintzen da (*311*).

Zeure burua bezala 102

«Maita ezazu zeure lagun hurkoa zeure burua bezala» delako hau, Lebitikotik hartu zuen Jesusek. Eta horrekin, geure burua lagun hurkoaren lekuan nolatan ipini behar dugun adiarazten digu. Horri buruz, honela idatzi du idazle batek: «Lagun hurkoa maitatzeko agindua adiarazteko, hain erabil erraza den, eta denbora berean halako indarra eta betikotasuna nabari zaizkion «zeure burua bezala» delako horren ordez besteren bat hartu izan balitz, lagun hurkoarekiko aginduak ez zukeen menperatuko norberaren buruarekiko maitasuna. «Zeure burua bezala» delako hori ezin oker eta iraul daiteke. Betikotasunaren joera duelarik, bihotz barne hondoraino sartzen bait da, gizakiak bere burua maite duen punturaino. Maitasun berekoiari* ez dio inongo atxakia biderik, ez ihespide txikienik uzten. Horixe da gauza harrigarria! Mila eztabaida egiten ahal litzateke lagun hurkoa nola maitatu arazoaz, eta beti ukanen luke norberarekiko maitasunak atxakiarik eta ihespiderik... edota gaia erabat aztertua ez delako, edota kasuren bat ahantzi delako, edota punturen bat behar hainbateko zehaztasunez formulatua edo adiarazia izan ez delako. Baina, ez da borrokalaririk, «zeure burua bezala» delako agindu honek norberarekiko maitasunari heltzen dion bezain hestu hel diezaiokeenik».

Eta Jesusek darabilen «hurko» izenaz, hona zer dioen autore berak: «Bai, urrutira, mundu guztiak ezagutzen du bere lagun hurkoa. Baina, urrutira, irudikeria besterik ez da hurkoa; izenak dioenez, hurbil-hurbilekoa bait da, geure ondokoa, lehen etorria, gizaki oro. Urrutira, errainua besterik ez da lagun hurkoa; amets baten antzera, gizakiaren aurretik igaro eta itzaltzen den burutapen hutsa. Aldiz, ez ginen konturatu, une berean geure ondo-ondotik igaro zen gizakia geure hurkoa genuela».

Idazle protestante honen —Kierkegaard-en— hitz sakon hauetatik ez dugu atera behar maitasunak pozik ez duenik. Paulo sainduaren ustez, «urrikirik gabe» (Erm 1,31) zen mun-

barekoi: egoísta, égoïste.

duan, agindu honek poza eta bakea adierazten zituen, gizakiaren barnearen berrikuntza; gaur hain gauza normal iruditzen zaigu hau. Mundu berri bat bizi dugu (*180*).

Maitasuna 103

Orduko munduan, kristau maitasuna zabaldu, izen berriz zabaldu zen: Testamentu Zaharraren grezierazko itzulpenari harturiko izenez. Grezierazko Biblia horrek, hizkuntza arruntak ezbezala, sarritan erabiltzen zuen izenez. Kristau maitasunari «agape» deritza. Izen hori, inondik ere, garai hartan erabiliegi eta esanahi txarreko zen beste baten ordez hartu zuten lehen kristauek: «eros» izenaren ordez. Hain zuzen, «eros» izen hori, zentzukeria* berekoi* hutsaren adiaraz erabiltzen bait zen; gaur bertan «maitasun» hitza behe mailako zenbait pelikuletan erabili ohi den esanahiz. Horregatik, «eros» hitza ez da ageri behin bakarrik ere Testamentu Berrian. Honek, «agape»ren, maitasun askatzailearen berriona hotsegiten du.

Halere, ezin atera daiteke, zerutar agape horrek lurtar maitasunaren inongo antzik ez duenik. Greziar «agape» hitzez edozein maitasun mota adiaraz daiteke; bere burua erabat eskaintzen duen altruismoa ezezik, elkar maite dutenek batak bestearekiko sentitzen duten erakarpena ere bai. Testamentu Berriak esanahi honetan ere erabiltzen du. Bai biziki, esate baterako, adiarazten dutela aitak eta seme hondatzaileak, batak bestearekiko sentitzen duten joera!

Horrela bada, kristau maitasuna, garbia, bihotz zabala eta askatzailea izateak ez du esan nahi, bi pertsonen arteko elkarrenganako joerarik ezagutzen ez duenik (*317-318, 335-336*). Aitzitik, Kristok predikatzen duen maitasunak oso gizatar dirudi. Lurtar maitasun mota oro bereganatu eta goratu egiten du.

Jainkoaren eguzki eta euria bezala 104

Jesusek maitasun hau, etsaiak ere maitatzeko dioenean aldatzen eta goratzen du gehienik (*131*):

> «Hona berriz nik esan: Maita zuen etsaiak, eta erregutu* pertsegitzen zaituztetenen alde: horrela izango zarete zeruetako zuen Aitaren seme. Ba Harek ere, zintzo eta gaiztoen gain azalarazten du bere eguzkia, eta zintzo eta gaiztoen gain eginarazten du bere euria. Zeren, zeurok maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zein sari irabaziko duzue ba? Publikanoek berek ere ez dute ba beste horrenbeste egiten? Eta zuen senideei bakarrik egiten badiezue agur, zer egiten

zentzukeria: sensualidad, sensualité. **berekoi:** egoísta, égoiste. **erregutu:** otoitzegin

duzue horretan apartekorik? Jentilek berek ere ez dute ba horixe bera egiten? Zaitezte ba guztizkoak, zeruko zuen Aita guztizkoa den bezalaxe» (Mt 5,44-48).

Berezkuntzarik gabe, guztientzat eguzkia distira arazten eta euria eginarazten duen Jainkoa bera ipintzen digute lerro horiek adibidetzat. Horrela, Jesusentzat, maitasunaren hondo-hondoko sustraia* ez datza gizakiarekiko edo munduarekiko nola-halako ikusmolde batetan, izate ororen sustrai eta oinarrian baizik: Jainkoarengan. Maitasuna Jainkoaren erreinuaren osakai* da. «Jainkoa maitasun delako» (1 Jn 4,8) (*417*).

Bere Eliza biltzen du Gantzutuak*

Herri berri bat 105

(Ikus «Artzain apaizgoa» kapitulua)

Nola ikusi ote du Jesusek Erreinuaren etorrera? Gizabanakoen* saindutze bezala ote? Batak bestearekiko loturarik gabe, banaka-banaka deiturikoen saindutze bezala ote?

Giza erara jokatu zuen Jesusek gizonen artean. Eta gizakia gizartean bizitzekoa da. Gizakia besteren premian* da beti. Horregatik, Jainkoak Testamentu Zaharrean egin zuena egiten du Jesusek ere. Herri bat moldatu du.

Haseran, sail koxkor bat bakarrik izan zen promesa handi baten jabe: «Ez ikaratu, ene artaldetxo, atsegin izan zaio zuen Aitari erreinua zuei ematea eta» (Lk 12,32). Astiro-astiro* eratzen ari da gizonen artean Jainkoaren erreinua.

Seinale asko da, Jesus, herri hori aldez aurretik asmotan izan ezezik, aldez aurretik horretaz arduratu zela adierazteko. Jakina, ezin pentsa daiteke, bere heriotza ordurako erakunde plan zehatzik uzten zuenik. Maisu eta profeta bezala, gizakiaren bihotza nahi du. Baina, aurrekoa bezain uste itxuragabea litzateke, Jesus, airean lebilkeen eta bere hitza esker-eskuin zabalduz, inolako elkarterik egiteko asmorik gabe ari litzatekeen profeta bezala hartzea. Ez. Herri berri bat sortu du, eta gizadi osoa deitu du herri horretara. Hor, ez arrazak, ez jatorriak ez du konturik. Gure eskasiaz jabetzeaz eta Jainkoaren Erreinuari irekitzeko prest egotea: horra axolazko dena (*67-69*).

Apostoluen hezketa 106

Jesusek elkarte batetan pentsatzen zuelako seinalerik garbiena, ikasleen eraketa da. Rabbi orok bildu ohi zuen be-

sustrai: erro. **osakai:** elementu. **gantzutuak:** Igurtziak (Kristok). **gizabanako:** nor bakoitza. **premian:** beharrean. **astiro-astiro:** emeki-emeki.

re ingurura dizipulu talde bat. Baina, Jesus bera maisu arrunta ez zenez, apostoluek moldatzen zuten taldea ere ez zen edozein modutakoa (*116*). Rabbien dizipuluek beraiek hautatzen zuten beren maisua; harekin egiten zituzten Legearen interpretazioaren hasi-masiak, eta azkenik, beraiek ere maisugora* igotzen ziren. Jesusen dizipuluak biltzeko moduan, aitzitik, gauza nabarmen bat ageri da. Ez dute dizipuluek maisua hautatzen; honek «deitzen ditu nahi dituenak» (Mk 3,13). Eta gainera, bere aginpidez*, eta atzerapiderik uzten ez duelarik. (Lan interesgarria litzateke, ebanjelioek dakartzaten dei-pasarte guztiak bildu eta bata bestearekin gonbaratzea).

Deitzean, gainera, dena eskatzen dio Jesusek bere dizipuluari:

> «Aurrera zihoaztela, bidean esan zion norbaitek: «Zu nora zoazen, haraxe jarraituko natzaizu ni ere». Jesusek erantzun zion: «Azariek badituzte beren zuloak eta zeruko txoriek ere bai beren kabiak: baina Gizonaren Semeak ez daduka burua non jarririk». Beste bati berriz esan zion: «Zatoz nire ondoren». Eta harek erantzun zion: «Jauna, utzidazu lehenengo joanda nere aitari lur ematen». Baina Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hilak hobiratzen; Zu berriz zoaz Jainkoaren Erreinua zabaltzera». Hurrengo batek esan zion oraindik: «Jarraituko natzaizu ni, Jauna, baina utzidazu lehenengo etxekoei agur egiten». Baina Jesusek erantzun zion: «Goldeari eskua ezarri eta gero atzera begiratzen duenik ez da Jainkoaren Erreinurako gauza» (Lk 9, 57-62).

Ikasle sail zabalago baten hautaketari dagozkion hitz hauk, ez dira guraso eta ahaideenganako axolagabekeria bezala hartu behar. Axolagabekeria horixe da, hain zuzen, Jesusek fariseuei aurpegiratzen diena (Mk 7,9-13); horixe litzateke, gaur bertan, erlijioso elkarte bati baino gehiagori aurpegira lekiokeena. Jesusek adierazi nahi duena —«hildakoetaz» delakoan dagien hitz-jokoan ageri denez—, hauxe da: hasiberria den bizitza arras berria dela. Erreinuaren pozak, norberaren bizitza zaharra uzteko eskatzen dio bakoitzari. Salbamendu historia, irteera* batez hasten da:

> «Jahvek esan zion Abrahani: Irten zaitez zeure lurretik, zeure ahaide artetik eta zeure aitaren etxetik eta zatoz nik erakutsiko dizudan lurrera; eta nazio handi bat egingo dut nik zurekin...» (Gn 12, 1-2).

Jesusen dizipuluek «artaldetxo» bat moldatzen zuten; Jainkoaren erreinuaren izkutuetan eskolatzen ari zena. Batez ere, ordea, hamabiak eskolatzen ditu Jesusek. Bataiatzen irakasten die. Eta hitzari dagokionez, rabbiek beren dizipuluei baino gehiago irakasten die. Rabbiek Legearen interpretazioa irakasten zieten. Jesusek, aldiz, gertaera baten hotsegile* egiten ditu bere apostoluak. Erreinuaren eta Jainkoaren nahiaren etorreraren hotsegile.

---

maisugora: maisu izatera. **aginpide:** autoridad, autorité. **irteera:** jalgitze. **hotsegile:** mezulari.

Eginkizun horri ahalmen handia dagokio. Horrela idazten du Mateok:

> «Eta bere ikasleei hotseginik, eskubide eman zien izpiritu satsuen* gain: hauk haizatu, eta ondoez-gaixotasun guztiak senda zitzaten» (Mt 10,1).

Apostolu izenak berak ere ahalmen handia adiarazten du. «Apostolu» hitza greziar jatorrikoa da, eta «bidalia» esan nahi du. *Shaliach* hebertar hitzaren itzulpena da. Hitz horrek Jesusen garaian, «mezulari» edo «berriemaile» ezezik, «agintedun» edo «mandatari» adierazten zuen. Horrela, apostoluak, rabbi-ikasle baino handiago ziren. Eta beste alde batetik, txikiago dira: ikasle bat rabbi bilaka daiteke; apostolua, aldiz, inoiz ez da Jesus bezalako gertatuko. Jesus, Jauna da, Jaun bakarra. Bidalia ez da inoiz ere bidaltzaile bilakatuko. Apostolua agintedun da; baina Jesusek bakarrik eman dezake agin-te hori.

Apostoluak misiorako eskolatzen ditu 107

Mateo sainduaren 10. kapituluak «apostolutzazko hitzaldia» dakar, Jesusek bere apostoluei damaizkien aholkuak. Hona zati bat:

> «Horra, otso artera bezalaxe bidaltzen zaituztet: izan zaitezte beraz sugeak bezain zuhur, eta usoak bezain xalo. Kontuz ibil gizonekin: ba sanedrinen hauzitegitara eramango zaituztete, eta zigortu egingo beren sinagogetan. Agintari eta erregeen aurrera eramango zaituztete ni naizelakoaz, horiei eta jentilei aitorpena eman diezaiezuen. Salatzen zaituztetenean ez ibil buruhausten zer eta nola hitzegingo ote duzuen: orduantxe bertan emango zaizue zer esana eta. Zeren, orduan, zuek ez baino zuen Aitaren Izpiritua izango bait da zuengan hitzegingo duena. Anaiak anaia salatuko du heriotzarako, eta aitak semea. Gurasoen kontra altxatuko dira semeak, eta heriotza emango diete. Gorroto izango dizuete denek nere izenarengatik; baina azkeneraino irauten duena, hura salbatuko da. Uri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera; eta bigarren horretan ere pertsegitzen bazaituztete, aldegin hirugarren batera. Bai, benetan esaten dizuet: Ez dituzue Israelgo uriak denak iheska igaroko, Gizonaren Semea etortzerako. Ez da ikaslea maisua baino handiago, eta morroina ere ez nagusia baino handiago. Aski du ikasleak bere maisua aina izaten, eta morroinak bere nagusia aina izaten. Etxeko jaunari Beeltzebul hots egin badiote, zer ez ote dute haren etxekoengatik esango? Ez izan ba horien beldurrik! Ez dago ezer estalita agerian jarriko ez denik, ez eta gordeta ere jakitekoa ez denik. Nik ilunetan esaten dizuedana, esan zuek argitan; eta belarrizuloan xuxurruka entzuna, zabaldu deihadarka teilatuetatik. Ez beldurrik ukan gorputza hil, baina arimarik hil ez dezaketen horiei. Beldur, beste hari ukan, gorputz-arimak *gehenna*-ra (ifernura) honda ditzakeen hari: horri izan beldur, horri. Ez ahal dira ba

satsuen: zikinen, lohien.

as (sos) batean bi txori saltzen? Eta hala ere ez da xoriño bat bakarrik lurrera erortzen zuen Aitak nahiezta. Zuek, berriz, buruko ileak ere kontatuak dituzue denak eta! Ez izan ba beldurrik! Xori mordo batek baino gehiago balio duzue eta zuek! Gizonen aurrean inor nire alde ateratzen bada, ni ere horren alde aterako naiz zeruko nere Aitaren aurrean. Baina baldin gizonen aurrean ni inork ukatzen banau, nik ere ukatu egingo dut hori nere zeruko Aitaren aurrean. Ez uste izan ni bakea ekartzera etorri naizenik mundura: bakea ez baino ezpata etorri naiz ni ekartzera, ezpata. Etorri ere kontra jartzera etorri bait naiz ni, kontra: gizona bere aitari, alaba bere amari, eta erraina bere amagiarrebari. Eta gizonaren etsaiak bere etxekoak izango dira. Aita edo ama ni baino maiteago duenik ez da nire dina*. Eta bere gurutzea harturik nire ondoren ez datorrena, ez da nire dina. Bere bizia aurkitu duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galdu duenak, berriz, aurkitu egingo du» (Mt 10, 16-36).

Elizari buruzko hitzaldia 108

Mateo sainduaren ebanjelioko 18. kapituluari, «eliz hitzaldia» deritza, Elizaren bizitzarako aholkuak dakartzalako. Hona pasarte bat:

«Ea zer derizkiozuen. Inork ehun ardi eduki, eta horietakoren bat galtzen bazaio, ez ote litzateke gero, laurogei-ta-hemeretziak mendian utziz, galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzea suertatzen bazaio, benetan esaten dizuet: Poz handiagoa ematen diola bakar horrek, galdu gabeko beste laurogei-ta-hemeretziek baino. Holaxe da; zuen zeruetako Aitak ere ez du nahi txikitxo horietako bakarrik ere gal dadin.

Zure senideak bekatu egiten badu, zoaz eta zentza* ezazu biok bakarrik zaudetela. Aditzen badizu, irabazia duzu senidea. Aditzen ez badizu, berriz, har zeurekin beste lagunen bat edo bi: arazoa bi-hiru testiguren hitzez erabaki dadin. Ez diela horiei ere aditu nahi, esan eliz-elkarteari. Eta elkarteari ere aditu nahi ez badio, eduki ezazu jentil eta publikanutzat.

Benetan esaten dizuet: lurrean lot dezazuena, lotua izango da zeruan ere. Eta lurrean aska dezazuena, askatua izango da zeruan ere» (Mt 18,12-19).

Zerutar ahalmenak gizonen eskutan 109

Aipatu berri dugun pasartearen azken hitzei modu berezian darie* apostoluei emaniko ahalmenaren handia (*151*). «Lotu» eta «askatu» hitzek, zerbait zilegitzat ala ez-zilegitzat ematea esan nahi dute; orobat, ordea, norbait baztertze (eskomikatze) ala adiskidetzat ematea. Beraz, elkarte ororri baitaezpadako zaion agintea da hori: zer den zilegi nahiz debe-

dina: digno. **zentza:** zentzatu. **darie:** ateratzen zaie.

katua definitzea, eta nor datxekon* elkarteari eta nor dagoen etenik deklaratzea.

«*Lot dezazuen guztia*» delako esakunak*, ahalmen xit* handia dela adierazten du. Mateorengan «Jainko» hitzaren ordez «zeru» *hitza dator. Hona bada: apostoluek lotzen nahiz* askatzen duten guztia, Jainkoaren aurrean ere lotua nahiz askatua dago. Hori da ahalmena ematea gizakiari! Osasuna, bizia eta barkapena dakartzan ahalmena da; Joanen ebanjelioak dakarren Jesusen adierazpen batek horixe azaltzen du:

> «Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak ukanen ditu, eta nori lotzen dizkiozuen, lotuak ukanen ditu» (Jn 20, 23).

Berriro itzuliko gara puntu honetara, «Artzain apaizgoa»z mintzatzean.

Ministroaren zerbitzua eta erantzukizuna *(296-297)* 110

Apostoluen ahalmenaren bizigarritasuna ulertzekotan, komeni litzateke eliz hitzaldia oso-osorik irakurtzea (Mateoren ebanjelioko 18. kapitulua). Gainera, kapitulu horretan garbi ageri da, Elizako buruzagiei, Jainkoaren begitan, ez dagokiela kristau arruntei ezbezalako tokirik, ez dagokiela toki garaiagorik*. Aldiz, leporaturiko mandatuak erantzukizun handiagoz zamatu ditu Jaunaren aurrean. Hona nola adierazten duen hori Lukak:

> «Adi ezazue ondo hauxe: Etxeko nagusiak baleki lapurra noiz etortzekoa den, ez lioke inola ere bere etxeko paretarik zulatzen utziko. Zaudete ba ernai zuek ere: usterik gutxiena duzuenean etorriko zaizue eta Gizonaren Semea.
>
> Kepak esan zion orduan: Jauna, guretzat esan duzu parabola hori ala guztientzat?
>
> Jaunak erantzun zion: Nor dela uste duzu ba etxekoei ordu jakinean gari-neurria banatzeko bere familiaren kargu nagusiak utziko duen etxezain leial-burutsua? Zorionekoa bai, Jaunak, datorrenean, era hortan aurkitzen duen morroina. Benaz esaten dizuet: dituen ondasun guztien kargu jarriko du. Delako morroin horrek ordea bere bihotzean balio*: Berandutu egiten da nere Jaun hori etortzen!, eta morroinneskameak jotzen, eta jaten eta edaten eta moskortzen hasiko balitz, batere uste ez duen egunean eta gutxien espero duen unean etorriko zaio nagusia, eta txiki-txiki egingo du, eta desleialen zoria emango dio. Nagusiaren gogoa jakin arren, horrek nahi bezala gauzak prestatzen eta egiten ez dituen morroinak, zigorra franko hartu beharko du. Baina nagusiaren gogoa ezagutu gabe, zigorra merezi duten gauzak egiten baditu, zigorkada gutxi batzu hartuko ditu. Zeren, asko eman izan zaionari, asko eskatuko bait zaio; eta askoren kargua eman izan zaionari, gehiagorena eskatuko bait zaio» (Lk 12,39-48).

---

datxekon: atxikitzen zaion. **esakunak:** fraseak. **txit:** oso. **garaiago:** altuago. **balio:** esango balu.

Hamabi apostolu aukeratu zituen Jesusek. Zenbaki hau, sinbolikoa da. Jainkoaren aitzinako herria hamabi semetatik zetorren bezala, eta hamabi leinuz eratua zen bezala, horrela herri berria ere: hamabi gizonez hasten da. Jesusek berak aipatzen du inoiz bi gertakarien arteko erlazio hori (Mt 19,28).

Merezi du kontuan hartzea: apostoluen artean publikanu izandako bat ageri da, hots, «laguntzaile» (kolaboradore) bat —Mateo—; orobat, «zelote» bat ere ageri da, hots, erromatarren aurkako burrukalari oldarkoi* bat —Simon—; jatorriz etsai bizi ziren beraz biok. Apostoluen artean bazen Galileako zenbait arrantzale ere; Jesusek, «giza-arrantzale» bilakatuko direla esanez deitzen ditu (Mk 1,17). «Arrantzan egiteak» ez du esan nahi hemen hiltzerik, jakina; aldiz, «bizirik uztea», «salbatzea». Garbi ageri da hori Lukarengan: «gizakiak hartuko dituzu» (5,10); nahita erabiltzen du Lukak «hartu» hitza; Testamentu Zaharrean, zenbait pertsona anatematik, hots, heriotzatik gorde egin behar dela adierazten bait da. (Ikus, esate baterako, Josue 6,25). Jesus dizipuluetako batek salduko du. Jesusek bere Elizaren buruzagien erantzukizunari buruz esaten dituen hitzak, beraz, ez ziren hitz-apainkeria bat, premia gorriko baizik.

Kepa 111

Apostoluen artean bizikien nabarmentzen dena, arrantzale bat da, Simon Bar Jona izenekoa, hots, Jonaren semea. Herriko seme oldartsu eta bizi honengan, leialtasun oinarri zindoa* ezarri zuen Jesusek:

> «Simon, Simon, zuen eske ibili da gero Satana, garia bezala galbahe* zaitzaten. Nik, ordea, zure alde erregutu dut fedeak huts egin ez diezazun. Zuk berriz damuturik atzera itzultzen zarenean sendotu zeure anaiak» (Lk 22,31-32).

«Harkaitz» izena damaio Jesusek (grezieraz, «petros»), nahiz eta egun batez koloka egina izan. Jesusen heriotza ondoren, Kepa izan zen «Eliz artaldetxoa» larratzeko hautatua. Puntu honetaz duda biderik ez du uzten *Apostoluen Eginak* delako liburuak.

Mateo eta Joanen ebanjelioek, eta baita Lukarenak ere, pasarte harrigarriak gorde dizkigute Kepaz. Honen bertuteak ez baino Keparen mandatua kontatzen digute: Apostoluen izen-zerrenda guztietan, buruan dator Kepa izena. Lukaren ebanjelioan (5,10), «gizakiak hartuko dituzu» esakuna, Kepari zuzentzen zaio soilki*. Mateoren 16. kapituluak Kepari bakarrik esaten dio (*110*). Irakur dezagun testu hau begi berriz,

---

oldarkoi: resistente, résistant. **zindoa:** sendoa, azkarra. **galbahe:** galbahetu, cribar, cribler. **soilki:** bakarrik.

eta harri* gaitezen gizon bati ematen zaion salbazio ahalmen horretaz. Ondoren, bai, ekin geniezaioke pasarte horri darizkion ondorioak ateratzeari.

> «Jesusek, Filipoko Zesarea aldera heldu zenean, honako galdera hau egin zien bere ikasleei: Nor dela, dio jendeak, Gizonaren Semea? Eta haiek erantzun zioten: Batzuk Joan Bataiatzailea dela diote; beste batzuk, Elia dela; beste batzuk berriz Jeremia edo Profeten artekoren bat omen dela. Orduan esaten die Jesusek: Eta zuek nor naizela diozue ba? Eta Simon Kepak hitza hartu eta esan zion: Zu Kristoa zara, Jainko biziaren Semea. Jesusek berriz erantzun, eta esan zion: Zorionekoa zu, Simon, Joanen seme hori: haragiak eta odolak ez baino nire zeruko Aitak erakutsi dizu hori eta. Hona ba nik esan: Kepa (harria) zara zu, bai, eta harri horretxen gainean jasoko dut nik nere Eliza, eta «Hades»eko (ifernuko) ateek ezin izango dute horren kontra. Zuri emango *dizkizut Zeru-erreinuko giltzak. Zuk lurrean lotzen* duzuna, lotua izango da zeruan ere; eta zuk lurrean askatzen duzuna, askatua izango da zeruan ere» (Mt 16,13-19).

Behin baino gehiagotan hartu nahi izan dira eraskin* bezala Jesusen hitz hauk; Jesusek ezin esan zezakeen horrelakorik, esan ohi zen. Baina testu kritikazko azterketa modernuek hau atera dute: lerro horik, esku-izkribu zaharrenetan ere badatozela. Jakingarriago dena, irudiz josiriko pasarte honetan hainbat semitar elementu topatzen dute azterketa horiek, non esaldi gutxi izango bait litzateke Mateoren ebanjelioan jatorrizko testuari hain ziur legokiokeenik. Horrela, «Zu Harria zara eta harri honen gainean...» delako hitz-jokoa, arameoz bakarrik da guztizkoa*: «Kepha-Kepha...» (Eta, halabeharrez, frantsesez: «Pierre-Pierre»). Grezieraz *Petros-petra* itzuli zen, eta *Petros-petros* ere itzul zitekeen. Baina, «petra» izan zen nahiago; hain zuzen, «petra» hitz horrek, harkaitz zindoa esan nahi bait du, hau da, Jesusek adierazi nahi zuena; «petros» hitzak, berriz, harri kozkor bat adierazten du, harrika egiteko erabiltzen dena. Izen propio bezala, grezieraz «Petros» hautatu da; nonbait, «petra» izen femeninoa gizonezkoari ezartzea itxurazko gauza ez zelako. Gaurregun, protestanteak berak ere, interpretazio zuzenena interpretazio arruntena eta begibistakoena delakoan daude. Biblista protestante sonatu batek, Günther Bornkamm-ek, esate baterako, hona zer dioen: «Kepari eta Elizari buruzko testuaren interpretazioan, teologia katolikoa eta protestantea, iragan* garaitan baino bata bestearen hurbilago daude gaurregun. «Harkaitza» ez da, ez Kristo —Agustinek pentsatzen zuenez, eta haren ondoren Luterok—, ez eta Keparen fedea edo predikuaren ministerioa, Erreformariek nahi zutenez, Kepa bera baizik, Elizaren buruzagi denez».

Zenbaitek, halere, honela galdagiten du: Posible ote da Jesusek esana izatea Elizaz hain garbi diharduen esaldia? Honi buruz, autore protestanteak ez datoz guztiak bat. Hau da ukatzen dutena: Jesusen hitzak Keparen ondorengoentzat ere balio izatea (*303-304*). (Xehetasun gehiagorako, jo beza irakurleak ministerioaz diharduen kapitulura).

---

harri: harritu, txunditu. **eraskin:** eratxikiak. **guztizkoa:** osoa. **iragan:** igarotako.

Testu honi buruz harrotu diren eztabaidek arrisku bat dakarkigute: pasarte hori, argudio* hotz bat bezala hartzeko arriskua, ezezkoa nahiz baiezkoa frogatzeko. Ireki gatzaizkion, beraz, lerro horiei darien indar pozgarriari. «Eliza» (*qahal*) izen hori, Testamentu Zaharrak, basamortuko herria adiarazteko erabiltzen du sarritan. Eta horixe zuen gogoan Jesusek ere: herri berri bat.

«Hades-eko ateak» (heriotza, lurpeko mundua) esatean, gaitzaren ahala esan nahi da. Hau ez zaio, sekula, Jainkoaren Elizari nagusituko.

Zeruak ere baditu bere ateak. Horien giltza ikusezinak Keparen eskuetan daude. Kepak burutzen du Isaia 22, 21--22an adierazten den eskubide guztidun aitaren eginkizuna.

Gero, Mateoren 18. kapituluan apostolu guztiei zuzentzen zaizkien hitzak datoz: «lotu» eta «askatu», hots, zuzen dena eta ez dena erabaki, baztertu eta onartu; eta erabaki, «zeruan» ere, hots, Jainkoaren aurrean, balio izateko moduan (*109*). Testu honek alabaina, Mateoren 16. kapitulu honek, ahalmen hori Kepari bakarrik egozten* dio: ahulari, erdipurdikoari, oldartsuari*; Jesusek mila bider, oraino, zintzelatu eta landu beharko duen harkaitzari. Jauna etengabe bihurtzen da Kepagana; ahulaldietan ere bai: «Jaunak, itzuliz, begiratu egin zion Kepari» (Lk 22,61). Hori, «Zuk, berriz, damuturik atzera itzultzen zarenean, sendotu zure anaiak» (22,32) esan eta, berehala gertatu zen.

Jesusen heriotza ondoren ekartzen du Joanek Keparen hautapena*. Hauxe dario gertaera horri: Elizaren eraikikuntza*, batez ere, Kristoren lurtar bizitzaren ondoko garaiari dagokiola:

> «Gosalondoren Simon Kepari esaten dio Jesusek: Simon, Joanen seme, maite ahal nauzu hauek baino maiteago? Eta erantzuten dio Simonek: Bai, Jauna, zuk badakizu nik maite zaitudana. Jesusek esaten dio: Zaindu nire arkumeak. Eta bigarrenez esaten dio Jesusek: Simon, Joanen seme, maite ahal nauzu? Eta Simonek erantzuten: Bai, Jauna, badakizu zeuk ere nik maite zaitudana. Jesusek esaten dio: Zaindu nere arkumeak. Hirugarren aldiz esaten dio Jesusek: Simon, Joanen seme, maite ahal nauzu? Tristatu egin zen Kepa, hirugarren aldiz «maite ahal nauzu?» galdatu ziolako, eta esaten dio: Jauna, zeuk dakizu dena: zuk badakizu nik maite zaitudana. Jesusek esaten dio: Zaindu nere ardiak» (Jn 21,15-17).

---

argudio: arrazoin. **egozten:** ematen. **oldartsu:** kementsu. **hautapena:** elezioa. **eraikikuntza:** fundación, fondation.

Eliza Jainkoak emana dugu 112

Elkartea egiten duena, Jaunak bere ordezkari, bere mandatari ipini dituenetatik dator. Eliza zertzen* duena, ez da elkarteak *egina*; *emana* du elkarteak. Horixe da agintearen* esanahia Elizan: «Zuei entzuten dizuenak, neri neroni entzuten dit» (Lk 10,16). Artzaingoari* buruzko kapituluan, berriro itzuliko gara puntu honetara (*297-299*). Kristautasunaren poz nagusienetako baten iturria hauxe da: elkarrekin lotzen gaituena, Kristoren dohain bat dugula, eta ez geure egintza soila.

Eliza, zeruetako erreinuaren «sakramendu» 113

Jainkoaren erreinuaz gehiago mintzo da Kristo Elizaz baino (*71*). Errealitate bat bera ala bi adierazten ote dituzte bi hitz horiek?

Jainkoaren erreinuko ezagugarriak, sakramenduak, burutzen direneko elkartea da Eliza; Erreinuko hitza, ebanjelioa, entzuten deneko elkartea; asko eta asko Erreinuko bizitza bizitzen ahalegintzen direneko elkartea; hitz batez, Jainkoaren erreinua entzungarri eta ikusgarri egiten dueneko elkartea. Eliza, Jainkoaren erreinuaren sakramendu dei* daiteke, hots, gizon-emakumeak batasunean biltzen dituen Jainkoaren erreinua: adierazi eta komunikatu batera egiten duen ezagupide edo zinua.

Elkarte honek, ordea, bekatuaren eta gogorkeriaren mixeria ere ezagutzen du (*284-285*). Zeruetako erreinua, sarritan, bere alorrean* hazi ona erein duen gizonaren antzeko da... Nondik datorkio horrez gero belar txar hori guztia? Eliza ez da Erreinuaren gozamena, horren bila dabilena baizik. Borroka horretan honek damaio iraupena: ifernuko ateek menderatuko ez dutelako agintzak*.

Nor da Jesus hau?

«Jesusen bizitza» aztertuz 114

Nola adieraz ote liteke hobekien Jesusen nortasuna, historian ageri zaigunez? Horretarako, lehendabiziko gauza irudikeria oro baztertzea da. Honen entseiu bat, zientzibidezko bilakuntza liberala izan zen, 1800 ingurutik 1920 ingurura; Jesusen bizitza molde berri batez aztertu nahi izan zuen, Elizaren Tradiziotik at; horretara, sarritan, Jesusenganako zi-

zertzen: mamitzen. **agintea:** buruzagitza. **artzaingoa:** artzaintza. **dei:** deitu. **alorrean:** soroan. **agintza:** agintzaria, promesa, promesse.

nezko mirespenak eta egiazko fede bilakariak* bultzatzen zituen; baina, oro har*, ez zuen bere burua irudikeriatik gorde. Hamaika «Jesusen bizitza» agertu zen aro hartan; ebanjelioko datuak, naturaren marrazketa* ederrez eta, batez ere, Jesusen eboluzio psikologikoaren analisi zorrotz eta zoliz* osatzen zituzten autoreek. Gizon handi bat bezala azaltzen zuten Jesus: gaztetan uste handiko maisu bezala hasi, eta etsita edo istilu sutsutan amaitu zen gizon bezala.

Bilakuntza* horren ondorioetako bat, begiak Jesus-gizonarengan ezartzea izan zen. Ondorio bikaina, zeren* ikusi bait dugu, fededunari sarritan zail egiten zaiola dotrina oso-ososorik hartzea: Jesus Jainko *eta* gizon dela irakasten duen dotrina alegia (*53-54*).

Bigarren ondorio baikorra, hauxe da: gaur, mende t'erdi beranduago, entseiu horien ezina eta eskasia ageri da; horrela, Jesus hori zuzenago, ebanjelioak hotsegiten duen bezala, hartzeko bidea urratu digute. Izan ere, gaurregun «Jesusen bizitza» sail hori aztertzean, hauxe ageri zaigu: biografia psikologiko hunkigarri horietan, Jesusen izpiritua ez baino autoreen garaiko izpiritua jaulki* dutela. «Argiaren mendeak», Jesus maisu «argitu» bihurtu zuen, Jainkoaren eta bertutearen irakasle; Erromantizismoak «jeinu* erlijioso» bezala marraztu zuen; Kant-ên giroan, Kantetar moralista bilakatu* da; gizarte borroken tartean, aurrerapen sozialaren aitzindari* egin izan dute, e.a.

Irudi guzti hauk, zaharkiturik, gezurrezko edo aldebateko bezala ageri dira. Mende bat eta erdi zehar luzatu diren entseiu horien ondoren, ebanjelioa ez da aldatu; beraren soiltasun hondakaitz* eta zehatzean (eta, halaz guztiz, adigaitzean*) zutik dirau. Areago*: ebanjelioa bera, orduan hain modernu ziruditen Jesusen irudi haik baino berriago eta harrigarriago ageri da. Eta Nazareteko Jesusi buruzko bilakuntzak, beti, misterio berarekin topo egiten du: Nor da Jesus hau? Noski, bada egun êre, zaharkituriko ikuskera horik «zientifiko» direlakoan zabaltzen diharduenik; baina, egungo Bibli zientzia, inongo Elizari lotu gabea ere, ongi jabeturik dago, irudikeri mota horri ez zaiola kasorik egin behar. Hain zuzen, esku artean ditugun iturriak, pertsonaren hedapen psikologikoa agertzeaz arduratzen den biografia ezbezalakoak bait dira; iturri horik, testigutza*, deia, dira batez ere: oraingo zerbait.

---

bilakariak: bilatzaileak. **oro har:** denetara. **marrazketa:** deskrizio. **zoliz:** barnerakorrez. **bilakuntza:** bilaketa, ikerkuntza. **zeren:** izan ere. **jaulki:** agertu. **jeinu:** genio, genie. **bilakatu:** bihurtu. **aitzindari:** buru. **hondakaitz:** hondatu ezina. **adigaitzean:** ulertzeko zailean. **are:** oraindik gehiago. **testigutza:** lekukotza.

Batez ere, lau izkribuz ezagutzen dugu Jesusen giza eitea*; Izkribu horietako bakoitzak dakar oso-osorik «berri ona», «eu-angelion» oso-osoa.

Eta, hain zuzen, guztien gain «berri» edo mezu direlako, jakin nahi genukeen puntu asko uzten dute erantzunik gabe (*33-34, 46, 157*). Eta hori, izkribu horiek dakarkiguten mezuarekin arazo horiek zerikusirik ez dutelako gertatzen da.

Esate baterako, alferrik joanen zara Jesusen gorputz tankeraz zerbait jakin nahian. Ebanjelioak ez dizu ezer esango horretaz. Gertatuak gertatu diren ordena zehatzean jartzeaz ere ez da arduratzen ebanjelioa, ez eta gertatu direneko lekuaz ere. Esate baterako, izkribu horietan oinarriturik, ezin atera duzu, Jesusen ageriko bizitzak zenbat urte iraun duen: bat, bi ala hiru urte. Ebanjelioak bata bestearekin alderatuz, hau ageri da gainera: alde batetik, Jesusen hitzak arreta handienaz gorde dizkigutela; bestetik, ordea, ebanjelariek nahiko askatasunez dihardutela horik ematean: tartean aldaketak ezarriz, idaztean asmotan zuten giza elkartearen egoerari egokituz.

Karakteristika horik guztiak honi darizkio: ebanjelioak ez direla hildako baten izenean eginiko oroitzapen samurrak. Bizi den norbait aldarrikatzen* dutela baizik; Jesusen dizipuluek haren hitzak ematean darabiltzaten askatasunaren sustraian horixe dago. Bazekiten, Jesus beraiekin zegoela predikuan. Joanen ebanjelioak berariz dio; Izpirituak gogorazten dio kristauari (Jn 14,26; 15,26; 16,13) (*64, 157, 159*). Ez pentsa, ordea, Jesusen Izpiritua Apostoluentzat magnetofono eta dokumendu-pelikularen antzeko zerbait denik. Izpirituak egiten zuena, hauxe zen: gertakarien —sarritan hain zehatz gogarazten ziren gertakarien— esanahi sakona aurkitzen eta elkartearen mintzairan adierazten lagundu.

Gertakizunei dagokienez, ezin hartu dugu Ebanjelioa historia jarraiki bat bezala. Jakina, ebanjelioek Jesusen bizitzaz diotenetan bada nola-halako ordena bat; baina, bestalde, darabiltzaten zenbait hitz —«gero», «berehala»—, idazkerari dagokiona da, eta ezin hartzen ahal duzu hitzez hitz.

Ebanjelioak, batez ere, perikopa antzean idatziak daude, hots, zati labur (perikopa) sail baten antzean; horietako bakoitzean, prisma garden baten antzera, Jesus oso-osorik ageri zaigu. Perikopa horik ez dira, beraz, biografietan gertatzen den bezala, *pertsonaia batetaz mailaka-mailaka egiten* den azalpenaren kate-maila huts; aldiz, bakoitzak oso-osorik

---

eitea: izakera. **aldarrikatzen:** predikatzen.

adierazten du Jauna. Ebanjelioetan Jesus ez zaigu, beraz, agertzen iragan garaietako beste pertsonaiak bezala, heroe nahiz artista. Hauen bizitzaz xehetasun gehiago ukan ohi dugu frankotan. Iragan aldiari dagozkio, ordea. Inork ez die jadanik* hitzegiten. Jesusi dagokionez, èrabat besterik da. Perikopa bakoitzak Jesusekin aurrez aurre ipintzen gaitu: hor dago Jesus oso-osorik, eta deitu egiten gaitu. Horregatik, ebanjelioko pasarte bat ez da literatur zati bat, entzulea ez daiteke hotz-hotz geldi, patxadan eserita eta hankak luzatuta, ez. Aldiz, guri zuzentzen zaigun hitza da, jaikitzera deitzen gaituena.

Eukaristiaren ospakizunean* Elizak ebanjelioari eman ohi dion tokia guztiz egoki dator literatur mota horrekin: aldian aldiko perikopa irakurri ohi da eta zutik entzuten da.

Beherago, ebanjelioen jatorriaz aritzean, berriro ihardungo gara Testamentu Berriaz (*157-159*).

Jesus bere garaiko gizona; guztiz bestelakoa halere 116

Ebanjelioak ez damaio biderik egungo gizakiari Jesusen psikologiaz iharduteko; aldiz, Jesus bera da egungo gizakiari galdetzen eta deitzen diona. Horrenbestez, ez pentsa, Jesusen nortasuna laino artean eta urrun geratzen denik, alderantziz baizik. Nola galde eta dei egin lezake gure artera argi-argi etorri ezik? Horixe da, hain zuzen, ebanjelioarekin harremanetan ipintzen den edonori nabari zaiona: ebanjelioek, kontatzean, bizitasunez marrazten dute, eta itzul-inguruka ibili gabe. Apaiz eta Lege erakusle, fariseu eta publikanu, aberats eta behartsu, osasuntsu eta gaixo, zintzo eta bekatari: horietako bakoitzak Jesusekiko topaketa* nola bizi duen kontatzen digu ebanjelioak: nork bere erara topatzen bait du Jesus.

Gauza harrigarria Jesusengan, hauxe da: marrazten zaigun mundu bizi horretan hezurretaraino nahasirik dabilela, eta bestalde, atxeki* ezineko, erabat bestelako bezala agertzen zaigula.

Jesus, bada, datorren Erreinua iragartzen duena da: *igerle* bat, beraz. «Jesus da hau, Galileako Nazareteko profeta» (Mt 21,11) Baina, beste inongo igerle ezbezalakoa da. Igerle bati hau eskatzen zitzaion beti: bere mezua Jainkoaren deiren baten kontakizunez egiztatzea* eta, batez ere, kasu bakoitzean, sarrera gisako esaldi batez, mezuaren iturria adieraztea: «Honela mintzo da Jahve!» Jesusek ez du horrelakorik:

jadanik: dagoeneko. **ospakizun:** elizkizun. **topaketa:** elkartzea. **atxeki:** ikutu, hartu. **egiztatze:** demostrar, démontrer.

ez du aipatuko sekula berari zuzenduriko goi-deirik; soil-soil, bere izenean mintzo da. Sarritan irakurtzen dugu ebanjelioan Jesusek erabili ohi duen adierazpidea bereizten duen hitz bat; greziar testuak, heberkeraz aipatzen du, itzultzeke*; guk honela itzultzen dugu: «zinez» edo «egiaz»; baina, horrek ez du gauza handirik esan nahi. «Amen» hitzaz ari gara; esana indartzeko, sendotzeko, hitza da. «Bai, horrela da, egia da». Oraino ere, jatorrizko tankera horretan erabili ohi dugu otoitzen azkenean, geure baiezkoa edo bat-etortzea adierazteko.

Baina, Jesusek hitz horri damaion garrantzia berebizikoa da, bakana; esaldiaren amaian ez baino haseran erabiltzen du. Ondoren datorrena baieztatuz hasten da! Gainera, ez da honela jarraitzen: «Honela mintzo da Jauna...», «Nik diozuet...» esanez baizik. Esate baterako: «Benetan esaten dizuet: Jainkoaren Erreinua haur batek bezala hartzen ez duenik, ez da hartara sartuko» (Mk 10,15).

Haserako «amen» hori ez da lotsagabekeriari darion formula; soil-soilik, bidalia izan denak bere misioaz duen uste apal eta lasaia adierazten du: Jainkoaren izenean bere aginpidez mintzatzeko eskubidea duenak alegia. Esaten ahal litzateke, *amen* horrek, Jesus Jainkoaren aldez aurreko nahiarekin bat datorrela adierazten duela.

Jesusek, beraz, profeta baten zeinezkoak* agertzen ditu; orobat, ordea, *maisu* edo «rabbi» batenak ere: dizipuluekin eta beste maisuekin dihardu eztabaidan, bidelari* dabil eta sinagogetan irakasten du. «Rabbi» izatea du, hain zuzen, bere eginpidea. Sarritan ematen zaio titulu hori.

Baina, beste inongo igerle ezbezala ihardun zenez, bere maisutzan ere harrigarri izan zen Jesus. Aldi berean profeta eta maisu izatea bera ere, gauza ikusi gabea zen. Eta irakasteko modua? Rabbi bat, beti, Biblian oinarritzen zen, eta beste maisuen izenean. Jesusengan, Jainkoa da zuzen-zuzenean, arartekorik* gabe, irakasten duena. Biblia bera ere, ikusia dugu, guztizkotu* egiten du Jesusek, bete.

Gainera, lau-lau irakasten du Jesusek; haren irakaspena jasotzeko, ez du inork eskola bereziren beharrik; nornahi jabe* daiteke haren dotrinaz. Jesusen hitzek, gizakia, beronen egoeran ukitzen dute, beronen bizitza arruntean, beronen egunoroko esperientzia eta guzti; ondo ikusi dugu hori, paraboletaz ihardutean (*65*). Jesusen esaldi laburrak ere berehala jasotzekoak dira: hain argi eta garbi bait dira: «Nahikoa du egun bakoitzak bere nekea» (Mt 6,34). «Argia ez da bizten gaitzerupean* jartzeko» (Mt 5,15). Eta Joanen ebanjelioan: «Triste dago emakumea haurra ukaiteko unean, garaia heldu zaiola-

itzultzeke: itzuli gabe. **zeinezkoak:** bereizgarriak. **bidelari:** bidazti. **ararteko:** bitarteko. **guztizkotu:** osotu. **jabe:** jabetu, konturatu. **gaitzerupean:** bajo celemín.

ko. Baina haurra ukan orduko, ahazten zaizkio saminak, gizon bat munduratu delako pozez» (Jn 16,21). «Bene-benetan esaten dizuet: Baldin gari-alea* lurrean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina hiltzen bada, fruitu ugari ematen du» (Jn 12,24). Esakun hauek eta beste askok Jesusen mintzaira berezten dute, sinpletasun eta argitasun giroa sortzen dute bihotzean. Ez da Jesusengan berritxukeriarik, ez irudikeriarik iraganari* buruz, ez eta etorkizunera ihesegin nahirik. «Egon ere, zeuron artean bait dago Jainkoaren Erreinua» (Lk 17,21), eta: «Zorionekoa, nigan okerrerako biderik hartzen ez duena» (Mt 11,6).

Jesusek, harenganatzen den edonor, Jainkoarekin aurrez aurre jartzen du, eta lau-lau eta zuzen-zuzen jarri ere (*91*). Jainkoaren hurbiltasun hori, Jesusek berak dakar. Horixe da Jesusen nortasunari halako aginpide bare* eta berdingabea damaiona.

«Ebanjelioek dakarten ikuskizun* orok, inguratzen zaion pertsonaren arabera, Jesus egoera harrigarrikiro menderatzen adierazten digu. Horren lekuko, hainbat eta hainbat eztabaida eta ihardukitze dugu; horietan, bere etsaien barne-asmoei antzematen bait die Jesusek, korapiloak askatu, galderei erantzun edo etsaiak berak behartu erantzutera. Hizpidea eman diezaioke arerioari; orobat ahoa hetsi arazi (ikus Mt 22,34). Garaitasun* bera topatzen dugu premiatsuekin* aurkitzen denean: indar miresgarriak darizkio Jesusi, gaixoek hestu* inguratzen dute, haien guraso eta adiskideek laguntza eskatzen diote. Sarritan, eskatua eman egiten die; inoiz, ordea, ukatu, edota eskaleari itxoin* erazi eta proban jarri. Sarritan joko du bakardadera (Mk 1,35 eta hurrengoak); baina, sarritanago, han da bera inor baino lehenago, eta prest dago harengan itxaropen guztia ipintzen duten dohakabeentzat (8,5 eta hurrengoak; Lk 19,1 eta hurrengoak), eta askatasun handiz lurreratzen ditu tradizioek eta giza aburuek jasotako muga hestuak. Dizipuluekiko harremanei gauza bera darie. Hitz garai eta nagusikoiaz deitzen ditu (Mk 1,16 eta hurrengoak); baina, orobat, bati baino gehiagori akar* egiten dio eta bere ondoren etortzetik etsi arazten (Lk 9,57 eta hurrengoak; 14,28 eta hurrengoak). Hauxe nabari da beti: nabarmenki bereizten direla Jesusen jarrera eta hartzen duen bidea, eta jendeak Harengandik espero eta norberarentzako nahi duena. Joanek, esate baterako, errege egin nahi lukeen herriari ihes dagiola* kontatzen digu (Jn 6,15). Beti, Jesusenganatze orotan, bereizitasun hau bera nabari dugu, ebanjelioek sarritan gauza harrigarri bezala kontatzen dutena: jendea ezagutu egiten du,

alea: bihia. **iragana:** igarotako garaia. **bare:** ezti. **ikuskizun:** espectáculo, spectacle. **garaitasun:** nagusitasun. **premiatsu:** behartsu. **hestu:** apretado, serré. **itxoin:** iguriki. **akar egin:** demanda egin. **dagiola:** egiten diola.

eta antzeman egiten dio haren pentsamenduari. Horren lekuko, Zebedeoren bi semeak dira: haien handinahiezko asmoen kontra jarri bait zen Jesus (Mk 10,35 eta hurrengoak)».

Aipaturiko testu hori protestante exegeta batena da, *Günther Bornkamn-ena; eta liburu honetan, beste ohar gehiago* ere hartu diogu autore berari.

Jesusen handitasun hori, beste pasarteotan ere agerian dago: Lk 7,36-50; Jn 8,1-11; Mk 10,17-22.

Azken pasarte hau, Jesusek inoiz norbaiti egin ohi dion begiratuz* mintzo zaigu (*111*). Ebanjelioak askotan aipatzen du hori bera. Begiratu hori Jesusen bereizitasuna da. Kontakizunek berez agertzen dute, begiratu hori ez dela, ez hipnotikoa, ez eta sentimendukeriazkoa ere. Erabaki askatzaile baten aurrean ipintzen du Jesusek gizakia; baina nor bere buruaren jabe uzten du.

Jende hauek guztiek, bizi-bizi eta egi-bila, Jesusen inguruan dabiltzenek: bihotz oneko jende jatorrek, bekatariek beren hobenez, deabrudunek, gaixoek beren gaitzez, jakintsuek beren argudioz*: denek, Jesusen aurrean, beren egiazko bihotz-hondoa nabari dute berehala. Eta Jesusek, orduan, beren burua beren kabuz agertzera gonbidatzen ditu.

Aginpidea 117

Jesusen nagusitasun hori, segurantzia garai eta urrakaitz hori, nagusitasun eta segurantzia soil-soil horik, Jesusen keinu eta hitzen bereizgarri diren horik adierazteko, ebanjelariak hitz batetaz baliatzen dira: «aginpide» (exousia) hitzaz. «Ahal oso» hitzez ere itzul daiteke. «Harriturik zeduzkan bere irakatsiez: Irakatsi ere, agintedunak bezala egiten bait zuen, eta ez idazlariek bezala» (Mk 1,22).

Hitz horrek, Jesusen zeinezkorik* garbiena adierazten du. Berezitasun hori, perikopa bakoitzean, esaera bakoitzean, Jesusetaz esaten den orotan nabari da. Horri esker, ebanjelioetan topatzen dugun pertsona, ez da urruneko pertsonaia bat; Jesus, hurbil-hurbileko da, argi-argi, dei bizia.

Ez dezagun irudika Jesusen «aginpide» hori zuhurtasun aristokratiko bezala, ez eta naretasun* hotz bezala ere. Ez horixe. Ahantz ditzagun une batez kisu* zuri edo arrosa koloreko iruditxoak. Zorrotz, oso zorrotz da Jesus deabruak uxatzean! «Eta mehatxuka* esan zion Jesusek: Ixo, eta kanpora gizon horrengandik!» (Mk 1,25). Haserre biziak eragiten

begiratuz: behakoaz. **argudio:** arrazoin. **zeinezkorik:** bereizgarririk. **naretasun:** eztitasun. **kisu:** kare. **mehatxuka:** amenazoz.

dio tenploaren garbikuntzara (ikus Jn 2,15). Den guztiz dihardu bere egintzetan; esate baterako, legenardun batek, laguntza eskatuz, deitzen dionean: «Jesusek berriz erruki hartu zion, eta eskua luzatuz...» (Mk 1,41). Haurtxoekiko gorabehera ere, txit hunkigarria da. Dizipuluen aurka «haserretu egin zen», esaten digu ebanjelioak, eta haurrak «besarkatu eta bedeinkatu egin zituen» (Mk 10,13-16).

Ez genbiltzake zuzen, Jesusen «aginpide» hori, izpiritu gidari aparta baten giza-bereizitasun soil bezala bakarrik hartuko bagenu. Ikusmolde horrek ez lituzke adieraziko ebanjelioak dakartzan datu guztiak. Beste zerbaitetaz mintzo bait dira ebanjelioak, gertakari batetaz: Erreinuaren etorreraz (*72*). Jesusek, bere aurretik gertaturiko guztia, zeruak eta lurrak baino luzaroago iraunen duten hitzez osatu du; zerua eta lurra, hain zuzen, igaro eginen bait dira (Mk 13,31). Jesusen bitartez, Jainkoaren erreinua behin betirako da. Jesusi bere aginpidea, gertakari bakar honetatik datorkio: Jainkoaren eta honen erreinuaren azken agerkundetik.

Denbora berean, ordea, Jesusi bere aginpide hori, Jordan hibaian eta basamortuan, apaltasunari, heriotzarainoko zerbitzuari, xumetasunari, zerbitzuari emana izatetik datorkio. (Ikus «Bataioa eta Tentaldia» kapitulua). Erreinu izkutuko aginpidea zen. Horregatixe du, hain zuzen, aginpide horrek giza bihotza hain sinple, hain sakon ukitzen (*66*).

Jesusen izenak 118

Oraindainokoan, haztamuka bezala ihardun gara, Jesusen nortasuna, ebanjelioek dakazkiguten gertakarietan zehar, arakatu* nahian. Kapitulu honetan, beste bide bati ekinen diogu Jesus nor den adierazteko asmoz. Haserako Elizak, Jesusen garaitasuna adieraztekotan erabili izan dituen izenak banaka banaka aztertuko ditugu.

Zenbait aipatu dugu dagoeneko: lurreko izen propioa, hots, *Jesus*: Jahvek salbatzen du (*45,55*); gero, Jesusen lehen langintzaren izena: *harotza*, gure salbamendurako esanahirik asko baduena.

Hurrena egingo duen langintzaren izena ere aipatu dugu: *Rabbi*, *maisu* (*116*). Bizitzako maisuen *Maisu* da; haren ondoan, inori ez dagokio izen hori. «Eta ez hotsegin zeuron buruari «Maisu»: bakarra bait duzue zuek Maisua: Kristo» (Mt 23,10). Maisu izen hori, otoitzean Jesusi emateko izen egokia da; batez ere, garbi ikusten ez duzunean, eta argitasun eta jakintza premian zarenean.

---

arakatu: aztertu, ikertu.

Zenbaitetan Jesusi profeta izenez deitzen ziotela ikusi dugu. Inoiz bere buruaz berak dioenak, bere burua profeten ondorengo bezala hartzen duela adierazten du; esate baterako, mahastizain hiltzaileen parabolan (Mt 21,33-38) nahiz beste honetan:

> «Baina gaur, bihar eta etzi nere bidean aurrera joan beharra dadukat: Profetarik ez bait daiteke hil Jerusalendik kanpora! Jerusalen, Jerusalen, Profetak hil eta zugana bidalitakoei harrika ematen diezun hori...!» (Lk 13,33-34).

Elizak, frankotan erabiltzen du *Gantzutu* titulua. *Mesia* da izen hori heberkeraz, *Christos* grezieraz (idatzi, XPICTOC idazten da, eta laburpenez, XP (*63*). Mesia izenak, aspaldanik espero zen erregea adierazten zuen, atzerritar eskumenpearen* orde Jainkoarena ekarriko zuena. Arrisku handiko titulua zen; nazionalismo hetsi* baten esperantzaz kutsaturik bait zegoen. Jauna izen hartaz baliatu izan bazen, «errege egin nahiko zuketen» (Jn 6,15). Horregatik, agerian mintzo denean, ez du erabiltzen izen hori. Horren lekuko Markoren ebanjelioa. Halaz guztiz, ebanjelio horrek berak, Jesusek, azkenean, Sanedrinaren aurrean, bere burua Kristotzat ematen duela kontatzen digu (Mk 14,62). «Kristo», ordea, zentzu sakonagoan eta garaiagoan* da: bere erreinua ez du mundu honetakoa.

Beste ebanjelioek ez dute halako isiltasunik gorde Jesusen Mesia tituluaz. Idatziak izan zirenean, izen hori garbiturik zegoen jadanik. Eskuarki* erabili ohi zen kristauen artean Jesusen bizitzaz eta hitzaz ihardutean. Izen horrek, Haren agintzarekiko Jainkoaren leialtasuna adierazten du: Jainkoak bere Mesia bidali du. Orobat, argi eta garbi, Jesusen bizitzak gero eta gehiagoan azaltzen zuena adierazten du, hots, Jainkoaren erreinuak Jesusengan distiratzen duela, Jesus dela erreinuaren ardatza, Jesus bere erreinua mundu honetakoa ez duen errege dela. Jesus nonbait igarotzean entzun ohi zen «Dabiden Seme» izenak ere, gauza bera esan nahi du gutxi gorabehera.

Bere eginkizuna zertan datzan azaltzekotan, Jesusek berak, lurtar erreinu ideiari hain lotua ez zegoen izen bat hautatzen du. Danielen liburutik hartua den izena. Bere profezietarik* batean, liburu honek hauxe dakar: larri dagoen herriak, Salbatzaile bat agertzen dakusala:

> «Eta begira jarri nintzen ni orduan: eta adarrak esaten zituen gauza handien zaratagatik*, neu begira nengoela, hil egin zuten aberea eta haren gorputza desegin eta sugarretara bota zuten. Beste abereei, berriz, agintea kendu zitzaien, baina epe bat hartu zuten, garai eta aro jakin bateraino bizitzeko. Banengoen ba ni gaueko agerpenean begi-

---

eskumenpea: menperapena. **hetsi:** hitxi. **garaiagoan:** goragokoan. **eskuarki:** komunzki. **profezietarik:** profezietatik. **zaratagatik:** arrabotsagatik.

ra, eta hona non datorren zeruko lainoen gainean gizonaren Seme antzeko bat. Aurrera eta aurrera Agurearenganaino joan zen, eta haren aitzineraino* eraman zuten» (Dan 7,11-13).

Zerutiko gizaseme honek, Jainkoaren behin betirako erreinua dakar. Ebanjelioek Gizaseme hitz hori, Jesusek bere buruari damaion izen bezala dakarte. Izen hori ez da, beraz, uste zitekeenez, Jesusen gizatasunari buruzkoa, beraren zerutar jatorriari buruzkoa baizik. «Gizaseme» izena ez da, Jesusek bere burua lau-lau eta den baino tipiago agertzeko darabilena. Aldiz loriazko titulua da; mesiatar errealitatea, hots, Erreinua lurtar mailaz gaindikoa* dela adierazteko darabilen titulua da. Horrēgatik du ematen izen hori «Kristo» izenaren ordez: «Berriro Apaizburuak galdatu eta esan zion: Zu ahal zara Kristoa, Bedeinkatuaren Semea? Jesusek esan zion: Bai neu naiz; eta ikusi ere egingo duzue Gizonaren Semea (Jainko)ahalmenaren eskuinetan jarririk eta zeruko lainoetan etortzen» (Mk 14,61-62). Titulu hau ez da ageri apostoluen eskutitzetan, eta ebanjelioetan, berriz, Jesusen ahoan bakarrik ematen da. Beraz, Jaunak bere buruari ematen zion izena bezala ematen dute dizipuluek. Esanahi arras aberatseko hitza da. Zeren Jesusen garaitasuna* bezala, Mesia horren apaltasuna adierazten bait du: lur honetakoa ez den apaltasuna, baizik gure balio sistimari hankaz gora eragiten diona. Eta hitzaren antolamenduak berak ere, Jesusek gizadiarekin duen batasuna azaltzen du nolarebait. Izan ere, Gizaseme (Ben Adam) semitismo bat da; izatez, soil-soil, hauxe adierazten du: Gizakia. Jesus da Gizakia, Jesus da *Adan.*

«Jainkoaren Seme» izena ere hartzen du Jesusek. Hau ere, Bibliak erabilia zen, Jainkoarekiko gizakiaren nola-halako erlazioa itzultzeko. Baina, Jesus da *Semea*: labur-labur (Mk 13,32). Jesusek Aitarekiko duen atxekidura*, bakarra da, besterenik ezbezalakoa; ikusi dugu hori Jesusen mintzairan: ez du, inoiz, «Gure Aita» esango, «nere Aita eta zuen Aita» baizik (*85*). Mahastizainen parabolan ere, gauza bera nabari dugu: Jesus, Jainkoaren Seme, modu bereizian dela (Mk 12, 1-12). Mahasti jabeak, bere zerbitzariak bidaltzen ditu lehendabizi, profetak; gero, «seme kuttuna» dator (hitz hori, Jordan hibaiko bataioan eta mendiko antzaldakuntzan* entzuna da).

Ezin uka daiteke, «Jainkoaren Seme» hitz hori mesiatar izen bezala ere erabilia izan denik; Testamentu Zaharrean, erregeri, hots, Mesiaren aitzindariari* ere ematen bait zaio inoiz izen hori. Baina, *Mesia* izenak bezalaxe, lurtar mailaz gaindiko esanahia hartzen du titulu honek ere Jesusi ezar-

aitzineraino: aurreraino. **gaindikoa:** goragokoa. **garaitasuna:** nagusitasuna. **atxekidura:** isuria. **antzaldakuntza:** transfiguración, transfiguration. **aitzindari:** aurrezlari.

tzean. Ez da beste izenik, Jesusen nortasuna honek bezain egoki adierazten duenik. Horretan oinarritzen da, azken finean, Jesusen «aginpidea» (*117*). Jainkoaren erreinua zekarrena, atzerritar bat ez baino Semea zen, munduaren Kreazio aurretik Jainkoaren altzoan aintzatsu* zena. Joanen ebanjelioan irakurtzen dugunez: «Bene-benetan esaten dizuet: Abrahan izan aurretik ere banaiz ni» (Jn 8,58). «Zeren, maite ere, bere seme bakarra emateraino maite izan bait du Jainkoak mundua» (Jn 3,16).

Jesusen[12] biztuera aurretik, dudarik gabe, inor ez zen konturatu titulu horren sakontasunaz (*52-54*). Guretzat ere gauza egokia da: ez dezagun berehalakoan pentsa, Jainkoaren baitako misterioa, mundu honetatik urrun legokeena denik (*146-147*). Titulua, horrela, bere esanahiaz hustu egingo genuke; gauza handiegia irudituko litzaiguke. Izen honen esangura garai-garaiaz jabetzekotan, komeni litzaiguke Jesusen ikasleen ahalegina berritzea. Horrela bakarrik aurkituko dugu gizon eginiko Semearen aberastasuna: «obedientzia», «atsegina», «*abba*» eta «Seme kuttuna» bezalako hitzez adierazten dena.

«Seme» izenaren ordez, Joanek «Hitza» eman du (*logos*) (*31*). Hitz hori aipatua dugu jadanik Jesusen jaiotzeaz mintzatzean; orobat, beste izen arranditsu* batzuk ere: «bere aintzaren distira», «bere izatearen aztarna» (Heb 1,3) (*52*).

Testamentu Berrian sarritan deitzen zaio Jesusi *Jauna* (grezieraz *Kyrios*; latinez *Dominus*). Izen hori, fededunek biztuera ondoren eman ziotena da. Enperadoreek, beren burua jainko iritziz, beren buruari deitura hori ematen zioten, eta horrela deitzera behartzen besteak; kristauek, Kristori izen hori bera emanez, enperadoreen hantusteari* egin nahi zioten aurka, eskupetik bezala. Baina, hori baino gehiago da. Testamentu Zaharrak «Jauna» zioenean, beti Jainkoa zuen gogoan. Haserako Elizak ere, jakinaren gainean damaio izen hori Berbiztuari. Berrion osoaren laburpenik laburrena, formula aintzatsu honetan aurkitzen dugu: «Jauna da Jesus» (Erm 10,9; 1 Kor 12,3; Kol 2,6).

Azkenik, badira Testamentu Berrian Jesusi *Jainkoa* izena damaioten pasarte batzu. Jn 1,18an, formula hau aurkitzen dugu: «Jainkoa, Seme bakarra»; Jn 1,1ean, ordea, hau irakurtzen da: «Eta Hitza Jainkoa zen», eta testu honen jatortasuna ezin uka daiteke. Tomak ere honela dio: «Nire Jaun eta nire Jainko!» (Jn 20,28). Itzulpen jatorrenaren arabera, Paulok, Erromatarrei egindako kartan, honela dio: «Kristo, gauza guztien gainetik dagoena, betidaino Jainko be-

12 Ik. *Eraskina*: «Jainkoaren Seme...» 537 or.

aintzatsu: ohoretsu: ospetsu. **arranditsu:** ospatsu. **hantuste:** handiuste, urguilu.

deinkatua. Amen» (Erm 9,5). Eta «Jauna» jainkozko izenaz gain, askotan egozten* dizkio Paulok Jesusi, Erromatarren kartan, Jainkoaren bereizitasunak.

Testamentu Berriak beste izenik ere erabiltzen du Kristoren handitasuna adierazteko. Guztiak fedearen aberastasunari berez darizkionak dira. Hauek, esate baterako: Alfa eta Omega (A eta Ω); kondaira Jesusekin hasten eta amaitzen dela adierazten dute. Orobat laugarren ebanjelioan datorren Joan Bataiatzailearen oihu hau: «Hona hemen munduko bekatua kentzen duen *Jainkoaren Bildotsa*» (Jn 1,29).

Hona, ordea, gauza harrigarria: izen horietan beneragarriena, izen sinpleena, bere izena du, *Jesus* izena alegia. Paulok berak honela idazten du: «Jesusen izenera, belaun oro makur dadin» (Flp 2,10).

Esan dugunari hauxe dario: Bibliak eta Elizak ardura handienaz zaintzen dituztela Jesusen izen handiak. Gure gain dago, izen horik erabiltzean ardura berdina agertzea. Laburpen gisan*, Jesusen pertsonaren misterio osoa biltzen dute.

Bazkoaruntz

Jerusalen 119

Jesusek Jerusalena joateko hartzen duen erabakiak, dudarik gabe, bidegurutze bat markatzen du Haren bizitzan. Lukak, haurtzaroko kontakizunean bertan Jerusalenekiko Jesusen bi topaketa dakartzalarik (*57,59*), testu arranditsu* hau idazten du: «Mundu honetatik jasoa izateko garaia heldu zitzaionean, Jerusalenerako bidea hartu zuen kementsu» (Lk 9,51).

Horrela dio hitzez-hitz ebanjelioak.

Erabaki izugarria adiarazten dute, beraz, hitz hauek (*83*). Hamabi urteko haurrarengan susmo gisan hasi zena, heldutasunera iritsi da gizon larriarengan. Egun batez, Berak «Errege nagusiaren Hiria» deitu zuen hirira doa (Mt 5,35).

Aldez aurretik profetek esan zuten bezala, hiri honetan azalduko da Jainkoaren erreinua:

> «Etorkizunean gertatuko da:
> Jahveren Tenploko mendia, mendien gailurraren gainetik jarriko da, eta muinoak baino gorago altxatuko da. Herrialde guztiek joko dute hara, herri asko ere, asko bilduko dira hara, eta hala esango dute: Zatozte, igo gaitezen Jahveren mendira, goazemazue Jakoben Jainkoaren Tenplora; han erakutsiko dizkigu Hark bere bideak, eta Haren bidezidorrei jarraituko gatzaizkie gu. Siondik etorriko bait da Le-

egozten: ematen. **gisan:** moduan. **arranditsu:** ospatsu, handi.

gea, eta Jerusalendik Jahveren hitza. Herrialdeen gain erabiliko du bere agintea, eta herri askoren hauzimaisu izango da. Eta beren ezpatak urtu araziko dituzte golde hortzak egiteko, eta beren lantzak igitaiak egiteko. Herrialdeek ez dute ezpatarik jasoko batak bestearen kontra, eta ez dira gerragintzan gehiago trebetuko» (Is 2,2-4).

Hauen antzeko irudiz eman zuten aditzera aldez aurretik profetek Jerusalendik aterako zen Jainkoaren erreinua (*30,37*). Baina beraiek ere ez zuten orduan erreinu honek hartuko zuen era konkretuaren berririk. Jesusekin, ordea, garaia bete da. Bideari ekiten dio, Erreinua agertzekotan. Dizipuluek, alabaina, profezien betekuntza lurtar tankeran espero dute. Bidean bihotzetik gainezka darien itxaropen horretaz mintzo dira (Lk 19,11). Eta jakina, Erreinuan berentzat leku garrantzitsua espero dute (Mk 10,37) (*63*).

Jasaitekotan 120

Jesusek badaki, ordea, gauzak guztiz bestela gertatuko direla. Ohore mailak hainbesteraino irrikatzen* zituzten bi dizipuluei honela esaten die: «Gauza ahal zarete zuek nik bataiatua izan behar dudan bataioaz bataiatuak izateko?» (Mk 10,38). Jesusek dioen bataio hau, Jordanen hartu zuenaren burutzea* da: heriotzerainoko zerbitzuarena (*192*). (Ikus «Bataioa eta tentaldia» kapitulua).

Herodek bizia kendu nahi ziola Galilean behin batean adierazi ziotenean, Jesusek honela erantzun zien:

«Joan, bai, eta esan azeri horri: deabru botatzen eta gaixo sendatzen ariko naiz gaur eta bihar, eta hirugarren egunean azkena izango du nereak! Baina gaur, bihar eta etzi nere bidean aurrera joan beharra dadukat: Jerusalendik kanpora ez daiteke Profetarik hil eta» (Lk 13,32-33). Horrenbestez, dizipuluez izu-ikara nagusitu zen:

«Jerusalenerako bidean gora zihoazen. Aurretik zihoakien Jesus, eta harriturik zeuden erabat; ondoren zetozenak, berriz, beldurrak airean zeduzkan. Eta berriro hamabiak bakarrean harturik, zer gertatuko zitzaion esaten hasi zitzaien. Hona, bagoaz Jerusalena, eta Gizonaren Semea Apaizburuen eta Idazlarien eskutan jarria izango da: heriotzara kondenatuko dute, eta jentilen eskutan utziko; eta iseka* egingo diote, eta xistua* botako, eta zigorra emango eta hil egingo dute: baina handik hiru egunetara biztu egingo da» (Mk 10,32-34).

Giza eskuz hilko zen Jesus. Haseratik ukatu zuen askok Jesusengan zen jainkotasuna. Anitzen* erorpenerako eta biztuerarako jarria zegoen Bera, bihotz askoren asmoak ager zitezen (*57,70*).

irrikatzen: gutiziatzen. **burutzea:** osotasuna. **iseka:** trufa. **txistua:** tua. **anitzen:** askoren.

Haren mezuari* bihotza hetsi ziotenak gizatalde desberdinetakoak ziren: herodianoen alderdikoak, legezale zorrotz ziren fariseuak, agintaritza beren esku zuten seduzeoen apaizeria* liberala, «herriko zaharrak» zeritzaten aristokrazia laikoa. Jesusen berri astintzaileari beren bihotzak hertsiz, beren Jainkoaren ahotsa ito egin dute (Jn 8,19). Jainkoaren Izpiritu Sainduaren aurka bekatu egiten dute (Mk 3,28-30), hots*, beren barne konbertsioari bidea hertsi egin diote. Jerusalenen, herriko jende asko ere beren atzetik eraman zuten.

«Jerusalen, Jerusalen, Profetak hil eta zugana bidalitakoei harrika ematen diezun hori! Zenbatetan nahi izan ote ditut zure semeak bildu, oilalokak bere xitaldia hegapean biltzen duen bezalaxe! Eta ez duzue nahi izan» (Lk 13,34). Bere egitekoaren gailurra* hatzematen* duen une berean, Jainkoaren erreinua Jainkoaren hirira bertara dakarrenean, gizon-emakumeen bekatuak (eta ez Juduenak bakarrik) jo eta bota egiten du. Hain aspalditik, hitzeginez, sendatuz, deabruak uxatuz, egiten ari zen gudua, erabateko borroka bilakatzen da Jerusalenen. Gaitzarekin aurrez aurre aurkitzen da. Hatzematen duten unean, honela mintzo da: «Hauxe da zuen garaia eta ilunpearen nagusialdia» (Lk 22,53). Nola ematen dio aurpegia Jesusek borroka horri? Bere eginkizuna betez, Jainkoaren nahia gogotik, esanekotasunez eta maitasunez betez. Bazekien Jesusek, bere Aita, hiltzen den hazitik galburua* bezala, haren gorputz apaldutik Jainkoaren erreinua erne erazteko gai zela (ikus Jn 12,24).

Profetarik ausartenak sumatu ukan ez zuen zerbait aterako zen: heriotzaren garaipena. Garaipen hori, Jesusengan hasi, eta gizadi osora hedatuko zen. Horretarako zihoan Jerusalena. Ondoren-ondorengo gertakaria, honela deitzen dute ebanjelioek: Jesusen «irteera» (Lk 9,31), Jesusen «igoera» (Lk 9,51), Jesusen «bukaera» (Lk 13,32), Jesusen «gorespena» (Jn 13,31), Jesusen «ordua» (Jn 12,23).

Bere garaikoek Jesus zapuztu eta hil ez balute, zer gertatuko ote zen, galdagin lezake norbaitek. Orduan, Erreinua, Jerusalenen, beste modu batetara agertuko zen inola ere. Baina alferrezko gauza da horretan ihardutea. Zeren, Erreinua, izatez, Kristoren oinazezko heriotzaz burutu bait da.

Orduan konturatu zen jendea, Testamentu Zaharra bera Jesusen nekaldiaz mintzo zela. Oinazetan murgildurik eta Jainkoak salbatzen zituelarik marrazten zituen gizakiak adibidez, 17., 22. eta 69. salmuak (*134*). Gainera, bazuen pasarte bat Test. Zaharrak (Isaia 52,13—53,12), besteren bekatuak bere gain hartzen zituena aurkezten zuena (*229*).

---

mezua: mensaje, message. **apaizeria:** apaizen taldea. **hots:** hau da. **gailurra:** gain-gaina. **hatzematen:** lortzen. **galburua:** ogi-burua, gari-burua.

«Gure bekatuengatik zauritu zuten...
Ardi erratuen gisa genbiltzan denok galduta,
bakoitza bere bideari jarraitzen zitzaiola.
Jahvek berriz horri gaineratu dizkio
gu guztion gaiztakeriak.
Gorrienak ikusarazi zizkioten,
baina humilatu egin zen
eta ez zuen ahorik zabaldu (Is 53,5-7).

Juduak ez ziren ausartuko sekula halako hitzak Mesiari buruz esatera; baina Jainkoaren Gantzutua* halako menpetasuneraino iritsi beharrean zela nabaritu zen Jesusengan. Berak dioenez: «Gizonaren Semea ez bait da etorri zerbitua izatera, eta bai zerbitzera eta bere bizia askorengatik ordainetan ematera» (Mk 10,45). («Ordaina» hitz adigaitzaz* berriro ere mintzatuko gara, erospenari buruzko kapituluan) (*229*).

Gogoeman dezagun oraingoz misterio hau soilki: heriotzak berak, Jesus guregana *hurbiltzen* du. Bekatuak zaurituriko gure bizitza, heriotzara daraman gure bizitza, azkeneraino hartu du (*135*). «Ez da maitasun handiagorik, nork bere bizia bere lagunengatik ematea baino» (Jn 15,13) (*229*).

Azken urrats hau ez zitzaion gauza erraza gertatu Jesusi. Bazekien zer gertatuko zitzaion, arrisku handiko ebaketa* bezperan dagoenak bezala... orobat, ordea, sendakuntza harrigarri, izugarri baten bezperan... «Bataio batez dut bataiatu beharra, eta hau larria, bukatu artekoa» (Lk 12,50).

Garizuma 121

Jerusalenen izango diren gertaeratarako, berrogei egunez prestatzen da Eliza. Garai honetan, kristauei bereziki dei egiten zaie konbertsiora, bihotz-berritzera. «Orain da garai egokia, orain osasun eguna» (2 Kor 6,2), irakurtzen dugu garizumako lehen igandean. Hiru igande aurreratzen zaizkio garizumari (*Septuagessima, Sexagessima* eta *Quinquagessima),* aldez aurretik adiaraziz bezala[13]. Hausterre egunez, asteazkenean, hasten da garizuma. Egun horretan, meza aurretik, liturgi buruak errauts piskat ezartzen die kristauei, honela esanez: «Oroit zaitez, gizaki, hauts zarela, eta errautserat* itzuliko zarela». Kasu bakarra da hau, liturgiak, fededuna izen propioz ez eta «senide» izenez ere ez, baizik «gizaki» deituz diharduena.

Hitz horik, Adani eta Ebari haien erorikoaren* ondoan zuzendutako zigor hitzok (Gn 3,19), gure mixeriaren sakona sumarazten digute. Errautsez bekokian eginiko gurutze horrek egia handi bat adie-

13 *Liturgi egutegi berrian ez dira azaltzen igandeok; Eguberri jaien ondoren, urtean zehar*reko lehen igandeak datoz zuzenean.

Gantzutua: olioztatua. **adikaitzaz:** ulergaitzaz. **ebaketa:** operazione. **errautserat:** ceniza, ceindre. **erorikoaren:** erorpenaren.

razten du. Ez dezagun utz axolagabe* sinbolu hori. Sei asteko aroari hasera damaio. Ez da gauzak ahazteko aroa; barne-bilkuntzarako* eta gogaketarako aroa baizik: «Oroit zaitez, gizaki»[14].

Garizuma, gainera, konponketa garaia da, bihotz-berritzeko garaia. Penitentzialdia, zerbitzutik eta maitasunetik aldentzen gaituen ororen aurka geure barne askatasuna zaintzeko garaia.

Garizumako lehen igandean basamortuko zirikaldien* berri ona irakurtzen da; bere eginkizunaren aurkako (erabateko zerbitzu izpirituaren aurkako) zirikaldiak nola garaitzen dituen Jesusek dakar pasarte horrek (Ikus «Bataioa eta tentaldia» kapitulua).

Zer espero ote du Elizak gugandik garizuman? Lehen, askoz ere errazago zen galdera honi bapatean erantzutea. Lege zehatz bat betetzeak, zerbait egiten zenuelako ustea ematen zizun. Egun, ordea, ez dugu hain garbi ikusten zertan datzan baraua*. Lan nekagarria dela, «gorputz-izpiritu» delakoaz ikus modu berria dela, beste munduko ez diren janari modu berriak direla, eta ezin topatu diogu leku bat barauari gure garai honetan. Barauaren legeak hau eskatzen du: barau egunean, ohituraz jan ohi denaren hirutatik bi jatea gutxi gorabehera. Ez da erraza lege hori zehatz ematen, ageri denez. Gainera, hain gutxitan datorrena! Hain zuzen, kristau gutxik hartzen du baraua garizumako eginbehar nagusien bezala. Zer egin, ordea?

Laztasun garaia da garizuma; ez da jaialdia. Ebanjelioak agintzen digun ernaitasunez eta geure buruarekiko egizaletasunez, Jainkoaren erreinua berritu nahi dugu geure baitan*, bere pasiora doan Jaunarekin bat eginik. Bakoitza bere erara entseiatuko da horretan, maitasunak erakusten dionez. Batentzat, garizuma, gutxiago erretzea eta edatea izanen da. Beste batentzat, norberaren lantegiko eta familiako eginbeharrak zorrotz aztertzea, zailtasunerako eramanpen* handiagoa eskuratzea, edota lagun hurkoak nahi duenari arreta handiagoz begiratzea. Egiazko eta egundoko joan-etorriko* baraua, besterentzat dirua ematean datza, edo beste egintzetarako, eta nori berari ongi etorriko litzaiokeen dirua gainera. (Ikus «Jabetza mundu honetan» kapitulua). Aldi berean oharkizun eta dei bezala, garizumako lehenbiziko asteleheneko ebanjelioak honela diosku: «Nire senide txikienari zer egin zenioten, huraxe egin didazue neri ere» (Mt 25,40). (Gai honetaz, ikus «Premian dena laguntzea» delako kapitulua). Otoitzari lehiatsuago ekitea, guztiz garrantzizko da garizuman (*248-249*): on da, norberaren goiz eta arrats otoitzak nola doazen aztertzea, familiako otoitza (otordu aurrekoa, esate baterako) berriztatzea (*253*). Parrokietan penitentzi liturgiak, garizumako hitzaldiak, e.a. antolatu ohi dira (*265*). Urtearo* hau garai egokia da konfesatzera joateko (*382-389*).

14 Beste formula edo pentsabide hau ere badadukagu orain: «Bihozberri zaitez, eta sinets Ebanjelioa».

axolagabe: arinki. **barne-bilkuntzarako:** barnera biltzeko. **zirikaldi:** tentaldi. **baraua:** barura. **baitan:** barnean. **eramanpen:** pazientzia. **joan-etorriko:** garrantziko. **urtearo:** urteko garaia.

On litzateke ere, gure gizarte bizitzan urritasun* handixeagoa agertzea garizuma aldian. Liturgiak berak ere, jai egunak kendu egiten ditu. Zergatik ez utzi geroagorako jai pribatuak ere? Jakina, horrela kalteren bat sor dakioke besteren bati; baina bizikera bati leial atxekiz* egin dezakezun ona askoz handiagoa da.

Liturgiak, garizuman, Bibliako testu aukera bikaina damaigu. Testu horik hiru gai hauei atxekitzen zaizkie: barkapena lortzeko penitentzia (batez ere, lehen astean), bataioazko gogaketa (batez ere, hirugarren eta laugarren asteetan), Kristoren nekaldia* (batez ere, bosgarren eta seigarren asteetan). Bigarren astean ez da gai berezirik.

Bosgarren igandearekin hasten da «pasio garaia»[15]; liturgiaren ardatza, Jesusen pasiorako bidea da. Zerutar aintza gogaraz lezaketen sainduen irudiak zapi morez estaltzen dira. Gurutzea bera ere, aitzinako Elizan aintza eta biztuera gogarazten zituena, zapi morez bildu ohi da. Aste horretako ebanjelioek, Jesusek fariseuekin ukan dituen eztabaida negargarriak dakartzate. Eliza Jesusen borrokari lotzen zaio.

Jerusalengo sarrera eta egonaldia

Lau ebanjelioek kontatzen dutena, hauxe da: agindutako Salbatzaileak, Erreinua ekartzera datorkionean, egiten du agintzarien* hirira bere sarrera: asto baten gainean. Astoa, aitzinako Israelen, printze apalen zamaria zen (Gn 49,11; Ep 5,10; 1 Erg 1,38). Zaldia, errege harro eta borrokarien sinbolu bilakatu* zen (ikus, Is 31,1; 1 Erg 1,5). Horregatik adierazi zuen aldez aurretik Zakaria profetak, etortzekoa zen Mesia, asto baten gainean etorriko zela; zaldia (harrokeria) ezeztatu egin zuen.

> «Siongo alaba, poz zaitez ekinahalean;
> Egizu algara alai, Jerusalengo alaba horrek!
> Horra non datorkizun zure errege:
> zintzo eta garaile dator,
> apal eta asto gainean dator,
> bai, astoaren ume, astotxo baten gainean.
> Berak desegin zituen Efraingo gudari gurdiak
> eta Jerusalengo zaldiak;
> izkutaraziak izango dira gerra arkuak.
> Bakea hotsegingo die lurraldeei.
> Itsasotik itsasora zabalduko da haren agintea,
> eta Errekatik lurraren azken bazterretaraino» (Za 9,9-10).

Jakina, Jesus ez zegoen seinaleok hitzez-hitz betetzera behartua. Garrantzizkoa, profeziaren izpiritua da, mamia:

15 «Pasio garaia» ez baino Garizumaren bosgarren astea deritza orain; «Pasio garaia» Aste saindua da bakarrik.

urritasun: eskastasun. **atxekiz:** lotuz. **nekaldia:** pasionea. **agintzarien:** promesen. **bilakatu:** bihurtu.

soiltasuna eta bakea. Kasu honetan, ordea, Jesusek hitzez hitz betetzen du. Horrela, bere hirira, astagainean doan Erregeren irudia uzten digu betirako, «Dabiden seme» bezala aldarrikatuz, jantziak, adarrak eta belarra lurrean zabaltzen dizkiolarik herriak. Haurrek, geroxeago, eta fariseuak sumin* eraziz, goraipatzen jarraituko dute tenploan.

Jerusalenek, beraz, erantzun die nolarebait Jesusen etorrerari eta Erreinuaren jaiotzeari. Baina, egiazko jaiotzea arras* bestela ageriko da: Jesusen heriotzaz.

Erramu igandea 122

Liturgiak, ebanjelioei jarraituz, aparteko garrantzia damaio gertakari honi. Garizumako seigarren igandean, Bazkoa baino aste bete lehenago, Kristo erregeren ohoretan goratzarreak* kantatuz, elizbira egiten da meza aurretik. Kristauek, adar berdeak dakartzate; apaizak bedeinkatzen ditu, eta elizbirakoan eskuan eraman ohi dira; ondoren, nork bere etxera eramaten ditu. Horrela, Juduek egin zioten maitasunezko eta errespetuzko ongietorriari atxekitzen* gatzaizkio. Adar horik, ur bedeinkatuz zirtatzeko* erabili ohi dira (*200*); gaixoren bati Jauna ematerakoan etxea bedeinkatzeko, adibidez (*393*).

Erramu adarren prozesio ondoren hasten da parterik nagusiena, hots, Meza Saindua. Mezak ez du berriz Jesusen garaipenezko sarrerarik aipatzen, hurbil hurbileko Pasioa baizik. Ebanjelio bezala, Mateo sainduak dakarren Pasioa irakurri ohi da[16]. Inoiz kantatu ere egiten da gregoriano doinu hunkigarriz.

Mehatxu egunak 123

Jesusen Jerusalengo sarreraren eta oliondo baratzeko atzialdi* bitartean, esan asko jartzen dute ebanjelioek Jesusen ahotan: Lege-irakasleekin, saduzeo eta fariseuekin izandako eztabaidak, Israelen hauziari* buruzko parabolak, idazlari* eta fariseuen aurkako akarraldia* eta, azkenik, Jerusalenen porrokaldiaren* iragarpena* (judu herriari, agindutako lurraldeko bizitzaren azkena iragarriz). Azken porrokaldi hori, munduan azkenik gertatuko den hondamendiaren sinbolu egiten du Jesusek; baina, «ez eguna ez ordua» (Mt 24,36) adierazteke* (*399*).

Jesusek, beraz, bere aurretik Jerusalenen hilak izan ziren profetek bezala jokatzen eta hitzegiten du; azken profeta

16 Hiru urtez behin irakurri ohi da orain Mateoren pasioa, A urtean alegia; B urtean Markorena irakurri ohi da, eta Lukarena C urtean.

sumin: haserre. **arras:** oso. **goratzarreak:** gorespenak. **atxekitzen:** lotzen. **zirtatzeko:** ureztatzeko. **mehatxu:** zemai, amenazo. **atzialdi:** arrastatze. **hauzi:** juizio. **idazlari:** eskribau. **akarraldia:** erasialdia, demanda. **iragarpena:** anuntzioa. **porrokaldi:** erorialdi. **adierazteke:** adierazi gabe.

da bera, seme kuttuna (Lk 20,13). Eta beste profetengan baino gehiago, Jesusen bortiztasuna* bera da bere arerioak* berak beraganatzeko azken ahalegina:

> «Ai, aditu izan bazenu zuk ere, aditu, egun honetan bakearen deia! Baina zure begietatik izkutuan dago eta!» (Lk 19,42).

Jerusalenen emandako egunak, gizakiaren baitan dagoen gaitzarekin, Gaitzarekin alegia, Jesusek dagien azken topaketa ikaragarria dira. Jesus ez da aspertzen bereei aholku hau ematen: «Egon erne, egon prest». Joan-etorri* handiko egunak dira; Elizaren bizitza eta gizaki ororena markatzen dituzten egun garrantzitsuenen irudi dira.

Istiluak berehalakoan jotzen du bere gailurra. Harma bakartzat, Jesusek, Aitak esateko ematen dizkion hitzak ditu, Aitak egiteko ematen dizkion agintzak, berari darion aginte bereizi-bereizia, eta gizakiaren bihotzean den unerik hoberenean aurkitzen den Aitaren aitorpena. Fariseuek eta herriko zaharrek indarkeriara jotzen dute... eta Jesus atzitzea* erabakitzen dute.

Jesusen nekaldi aurreko azken egunak (aste sainduko astelehen, astearte eta azteazkena), Profeten pasarte pertsonal eta gogorrenak irakurriz bizi erazten dizkigu liturgiak. Hau, adibidez:

> «Zigorka ari zitzaizkidanen esku utzi nuen bizkarra, eta bizarretik tiraka ari zitzaizkidanen esku nere masailak» (Is 50,6).

Astelehen sainduko ebanjelioak Lazaroren arreba Maria aurkezten digu: alabastrozko ukendu*-ontzi bat, txit garestia, Jesusi oinetara isurtzen alegia. Oharkabe, Jesusen hurbileko hilobirako dihardu horrela egitean, Kristok berak esaten duenez. Astearte sainduz, Pasioa irakurtzen da, Marko sainduaren arabera, eta orobat asteazken sainduz Luka sainduaren arabera[17].

Azken afaria
(Ikus «Eukaristia» kapitulua)

Bere lurreko bizitzako azken arratsean, Jesus bere ikasleekin bildu zen jai-otordu bat egiteko.

Azken agurra egiteko, otordua hautatzen du; aukera hori, Jesusen hitzei eta egintzei ondo dagokiena da. Askotan adiarazi bait du, hain zuzen, Erreinuaren betetasuna hautatuak elkartuko dituen orrits* bezala (Mt 8,11), eta berak gi-

17 Egun hauetan ez da orain pasiorik irakurtzen; horren ordez, Jesusek, norbaitek salduko duela iragartzen duenekoa irakurri ohi da: asteartez Joanen ebanjeliotik, eta asteazkenez Mateorenetik.

bortiztasuna: indarra. **arerioak:** etsaiak. **joan-etorri:** garrantzia. **atzitzea:** bahitzea, harrapatzea. **ukendu:** usainki. **orrits:** janaldi, banquete, festín.

zakiekin dagitzan otorduak, beste haren pozezko aitzin-irudi* dira. Ebanjelioek, azken agurreko afari hori, Bazkoaldiko bazko afari handitzat ematen dute.

Egiptoko irteeraren* oroitzapen* izan nahi zuen judutar Bazkoa, otoitzez, bedeinkapenez, kantuz osaturiko otordu bezala hartu behar da: esker-otoitz den otordu bezala. Alderantziz ere eman daiteke esaldi hori, eta esan: otordu den esker-otoitza.

Ordu hori suharki* irrikatu* du Jesusek. Erreinuan eginen duen betiko ezkon jaia arte, hori izango du azken otordua:

> «Irrika bizitan nengoen nere nekaldi aurretik Bazko hauxe zuekin jateko. Ba egia esan: Bazkorik ez dut gehiago jango Jainkoaren Erreinuan bete dadin arte» (Lk 22, 15-16).

Oin garbiketa 124

Afaria nola hasi zen kontatzen digu Joanek. Jesusek, bere ikasleak xunditurik* zituela, zapi bat gerrian hartu eta, oinak garbitu zizkien, morroin batek bezala. Erreinua nolako zerbitzu izpirituz ezarriko den, argibide garbia (Jn 13,12-17). Bazko otordu honek, horrela, hauxe adierazten du: Erreinua, egunen batez, aintzaz etorriko dela bakarrik ez, eta bai Erreinuaren oinarria zein izango den ere: zerbitzariaren obedientzia alegia (Ikus «Bataioa eta Tentaldia» kapitulua). Joan sainduaren pasarte honek, zeharbidez, afariaren azken aldera argiago agertuko den dohain handia adiarazten du: eukaristia alegia, eskaintza osoa, azkenerainokoa, Kristok gu bere partekide egitea, heriotzarainoko obedientzia eta zerbitzua (*79*).

Saldukeria 125

Itzal izugarri batek lausotu zuen adiskidetasunezko afari hura. Hamabietako bat Jesusen etsaiekin harremanetan dago. Zergatik? Gaitzaren jatorria ilunpean gelditzen da beti (*212,377*). Judaren desleialtasuna ebanjelioek diru gosearekin lotzen dute. Juda ere Jesusen adiskidea zen.

> «Nere etsaiak iraindu* izan banindu,
> jakin izango nuen eramaten.
> Nere kontrarioak zapaldu izan banindu,
> gorde egingo nintzen berarengandik.
> Baina zuk, nere giza lagun,
> nere adiskide, nere kutun min horrek,
> zuk egingo zenidan ba holakorik!

---

aitzin-irudi: prefigura, préfigure. **irteeraren:** jalgitzearen. **oroitzapen:** gogorapen. **suharki:** gogo biziz. **irrikatu:** gutiziatu. **xunditurik:** harriturik. **iraindu:** laidostatu.

Jainkoaren etxean
nire izkutu gozoan partekide zinen horrek!» (Sal 55,13-15).
«Nere adiskideak, nere konfiantza osokoak,
neronen ogia jaten zuenak,
berak eman dit hostikoa» (Sal 41,10).

Jesusen aipamenik* argienek ere ezin eutsi izan zioten Judari. Horrela betetzen ziren Izkribuak. Giza-etsipen tankera urragarri hori marrazten dute salmuek; Jesusen zoria alegia. Oinaze horretan ere bat egin nahi izan zuen gizadiarekin. Judak alde egin zuen. Gaua zen, dio Joanek.

Azken agurreko hitzaldia 126

Arrats hartako giro astuna*, tankera bere-berean ematen digu Joanek. Bere kontakizunean, Jesus aintzaz distiratsu agertzen digu, Jesusi dagokion eta geroago agertuko den aintzaz. Jesus oso-osorik agertzen digu.

Azken agurreko hitzaldian, Joanek bere ebanjelioan, gazte-gaztetan otordu horretan parte hartu eta, bere bizitza guztian zehar, han ikusitako giroa bere buruan irauli izan duenaren oroipena dakarkigu (*157*). Oroitzapen pertsonal horik gainera, Elizaren bizitzaz eta jaiez kutsaturik daude: bere baitan izpirituaren bidez Kristo Aintzatua presente sumatzen duen Elizaren bizitzaz eta jaiez alegia.

Azken agurreko hitzaldi horren muina, maitasuna da: Jesusen eta Aitaren arteko maitasuna, Jesusen eta gure artekoa, Aitaren eta gure artekoa, gu geuron artekoa. Jesusek, bere mezuaren* laburpen bikaina den «apaiz otoitzaz» amaitzen du afaria.

Hau nire gorputza da, zuentzat emana 127

Afarikoan, nola hil behar zuen azaltzen die Jesusek bere dizipuluei. Igerletza burutzen* du. Ahantzi ezineko une horretaz, ebanjelioetakoa bera baino kontakizun zaharrago bat dadukagu. Paulo sainduaren lehendabiziko epistoletako batetan aurkitzen da:

> «Neuk ere jasoa bait dut nik zuei erakutsi dizuedan hau: nola Jesus Jaunak, saldua zen gauean, ogia hartu eta eskerrak eman ondoren zatitu zuen esanez: Hauxe da nire gorputza, zuentzako dena; egizue hauxe nire oroitzapenetan. Berebat afal ondoren, kaliza hartu zuen, esanez: Kaliza hau Testamentu berria da nire odoletan; hemendik edan dezazuen bakoitzean, Jaunaren heriotzea aitortuko duzue bera etorri arte» (1 Kor 11,23-26).

aipamen: alusión, allusion. **astuna:** pisua. **mezu:** mensaje, message. **burutzen:** betetzen.

Gertaera, bere hartan harturik, ez da aparteko keinua: ogi borobil handi bat ebaki ohi zen, mahainkideen artean banatzekotan. Bedeinkapen formularekin batera, bazko otorduaren rituari zegokiona zen. Baina, gauza arras berria, Jesusen hitz hauk ziren: «Hau nire gorputza da». Horretan zetzan gertakariaren esanahi xundigarria. Ogi banatu eta hautsiak, Jesusen gorputz hautsia adierazten zuen. Kristoren heriotzaren ezagugarri zen.

Oraino argiago dira kalizaren gain jaulkitzen* dituen hitzak (kalizak, legearen arabera, ardo gorria zeraman). Bere odola aparte aipatzeak berak, odolezko heriotza adierazten du. Baina, Mateok eta Markok dioskutenez, Jesusek bere odola «isuria izango dela» eransten du. Oparitan, oparigai bezala, lepo* egina izango da (*229*).

Ogi-ardoek, beraz, Jesus nola hilko den adierazten dute. Baina, areago ere bada. Zergatik hilko den ere adierazten dute.

Kaliza bedeinkatzean, «Testamentu berriaz» mintzo da Jesus (27). Jeremia profetak seirehun urte lehenago aipatzen zuen Testamentu berri eta miresgarriari bere ordua heldu zaio, beraz. Eta Testamentu Zaharra abere odolez baieztatua zenez (Ex 24,8), Berria Semearen odolez da baieztatua. Eta odol hau, «askorentzat» isurtzen da. «Askorentzat» hitzak, Jahveren zerbitzari pairakariaren poema dakarkigu burura; honela dio:

> «Bere oinazeen bidez, asko ere asko justifikatuko ditu
> nire Zerbitzariak,
> bere bizkar hartuko ditu haien bekatuak...
> eman ere heriotzari eman bait dio bere burua
> eta gaizkileen artean izan da kontatua;
> nor eta taldeen hutsegiteak bizkarreratu dituena
> eta gaizkileen alde erregutzen zuena» (Is 53,11-12).

«Askoren bekatuen barkaziorako» da oparia (Mt 26,28). «Askok», arameoz, Jesusen hizkuntzan, *guztiak* esan nahi du. Jesusek, ordea, errealitatea argituz bakarrik ez du aski. Zerbait ikus eraziz bakarrik ez du aski. Bere dizipuluei, bere oparian eta bere Testamentuan gorputzez eskuhartzeko bidea eman die. Horregatik, ekintza nagusi hau ez du hasiko, parabolak hasten zituenez, entzutera eta aditzera gonbidatuz; jatera gonbidatzen ditu. «Hartu, eta jan...», eta «Edan guztiok honetatik». Jesusen dei honi erantzutean, Testamentuaren eta hori silatzen duen opariaren ondasunetan eskuhartzen dugu. Hil eta berbiztu den Jesusen gorputzaren ukituak, mundu salbatuarekin ipintzen gaitu harremanetan, Erreinuarekin. «Zatitzen dugun ogia ez ote da Kristoren Gorputzaren hartukizuna?» (1 Kor 10,16).

---

jaulkitzen: isurtzen, esaten. **lepo egin:** opaldu.

Ogi banatuaren eta ardo gorriaren irudi bikain pean, oroitzapen huts bat ez baino errealitate bat proposatzen zaigu: Kristoren gorputz-odolak. (Ez dezagun ahantz, semitar hizkuntza batek «gorputza» dioenean, gizakia oso-osorik esaten duela. Orobat esan behar da «odolaz» ere: bizi indar osoa esan nahi du. Horrez gero, Jesus osoa hartzen dugu).

Bere gorputza janaritzat eta bere odola edaritzat emanez Jesusek dagien maitasunezko keinu garai-garai honetaz, kristau orok ezagutzen dituen esaldi hauk idazten ditu Joanek bere ebanjelioan:

> «Nire haragia, izan ere, benetako jaki bait da,
> eta nire odola benetako edari.
> Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta ni harengan» (Jn 6,55-56).

Jesusek hitz horik esan zituenen —judutar Bazko jai baten inguruan zen (Jn 6,4)— inork ez zuen ulertu zer esan nahi zuen. Jainkoak daki nola ulertu zituen jendeak: oso hitzezhitz behintzat: «Gogorregia da hizkera hau! Entzun ere holakorik!» (Jn 6,60). Eta, orduan, Jaunaren hitzak datoz:

> «Ai, eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute ikusi?... Izpirituak ematen du bizitza, izpirituak; haragiak ez dezake ezer. Nik esan dizkizuedan hitzok izpiritu eta bizitza dira» (Jn 6,62-63).

Afariko gauean argitu zen Jesusek orduan esan nahi izan zuena: Gizasemeari, bere aintzaldiak, izpirituzko bere izateak, gure artean hain barnekoi egoteko bidea damaio, «haren haragia jaten bait dugu».

Baina, azken afarian, aintzatua ote zegoen Jesus jadanik?

Opari eskaintzen zuen jadanik Jaunak bere burua. Orduan bete zuen ekintzak, gertatzeko zegoena aldez aurretik adierazi ezezik, bete, burutu eginen zuen ezagupidez. Bere burua Jesusek egiaz eskaini zuen orduan. Horrela. haren pasioaren aintza beteari zegokion azken afaria bera ere. Jesusen pasioa ospatzen duen otorduak, bere baitan* darama Jesusen bizitzaren oparia.

Jesusek, horrela, askapenaren* aberri egun zaharraren jaia, askapen berriaren oroitzapen bihurtu zuen. Eta bere odolaz salbatzen zuen bazko bildotsaren ordez, bere gorputz-odol salbagarriak damaizkigu jateko. Horrela, bere Elizari, esker-otoitz den otordu bat edo otordu den esker-otoitz bat ematen dio. Eta otordu horretan, bere maitasun handiena agertzen duen egintza uzten du presente eginik.

Otordua, esker-otoitza, oparia: denak batera. Egintzarik arruntenak: ogi-ardoak aurkeztea*, eta hitz sinpleenak: hau nire gorputza da... nire odola... Jesus den eta ematen duen

baitan: barnean. **askapen:** liberación, libération. **aurkeztea:** presentatzea.

ororen bilduma bilakatzen dira guretzat. Kristau batek batera bizi ez ditzakeen hainbat alderdi, hainbat aberastasun: Erreinuaren itxaropena, Jesusen azken agurraren oroitzapena, oparitzat eskainitako haren bizitzaren presentzia, Jainkoak gurekin egindako Testamentua, bekatuen barkapena, eskerotoitza (grezieraz: *eukaristia*), kristauak Elizan elkartzen dituen maitasunaren ezagupidea eta iturria.

Kristauek, Paulorengandik hasita, gogoetarik* asko egin izan dute, esanahi horietaz hein* batetan jabetzeko. Baina, gogoeta hori baino joan-etorri handiagoko gauza bat bada: hitzari Elizak dion esanekotasuna: «Egizue hau...» delako hitzari. Elizak egiaz «hau dagielako», gidatu, janaritu eta eraiki* izan du Eliza azken afariak mendetan zehar, eta gaurdaino. Arrazoinaren lehen itzarkuntzatik*, sei-zazpi urtetatik, gure bizitzako azken ordurarte, Jesusen oparia hurbil-hurbileko gertatzen zaigu. Hura berriz etorri arte.

(Aurrerago, kapitulu oso bat, «Eukaristia», eskainiko diogu misterio honen esanahien aberastasunari eta Elizak ospatzen duen erari).

Ostegun sainduaren ospakuntza* 128

Azken afari egunean, liturgia pozez gainezka agertzea ez da harritzekoa. Ostegun Saindu deritza egun horri.

Goizetik ez da mezarik ematen, katedral elizan ez bada. Meza hori hamabi apaizekin, zazpi diakonurekin eta zazpi subdiakonurekin ematen da. Meza bitartean, urte guztian erabiliko diren olio sainduak nahasten eta bedeinkatzen dira. Diozesiko artzipreste guztiak joan ohi dira egun horretan katedralera olioak jasotzera, arratsean berengana datozkiekeen erretoreei banatzekotan. Ohitura honek, sakramenduen ospakizunean diozesi osoak duen lotura adierazten du (*296*).

Apezpikuak hiru olio mota sagaratzen ditu. Lehendabizi, Krisma saindua, liturgi mailan gorenena, Izpiritu Sainduaren igurtzia* sinbolizatzen duelako; aitzina, argi bat biztu ohi zen hori gordetzen zen tokian. Krismaren sinbolismoa, haseran, berorren usainean datza: gauza oro betetzen duen Izpiritua irudi. Gantzuki* fin eta baliotsuz dago egina, oliba olioarekin nahasturik. Krisma sainduz sagaratu ohi da kristau herria «errege apaiz» (*203*) izateko (1 P 2,9). Horregatik, krisma saindua, bataio ondoko igurtzian erabili ohi da (*190*); orobat sendotzan, gotzainen sagaran (*299*), elizaren sagaran, aldare eta kalizaren sagaran (*202*).

---

gogoeta: reflexión, réfléchissement. **hein:** neurri. **eraiki:** jaso. **itzarkuntzatik:** iratzartzetik. **ospakuntza:** zelebrazio. **igurtzia:** gantzudura. **gantzuki:** igurtzitzeko gaia. **sagaran:** kontsagrazioan.

Apezpikuak, *hurrena, gaixoen olioa* sagaratzen du. Sinbolismoa, hemen, igurtzia erremedio bezala hartzean datza. Olio hau, gaixoen sakramendu edo igurtzian erabili ohi da.

Azkenik, hirugarren olio mota, katekumenuen olioa da. Honen *esanahiaren jatorria, aitzinako atletek, biguintasuna eta indarra lortzekotan*, egin ohi zituzten olio-igurtzietan bilatu behar da. Erabili, bataio aurreko igurtzian (*188*), gotzainak apaiz egin dituenen eskuigurtzian (*299*), bataioko ura sagaratzeko, eliza, aldarea sagaratzeko, erabili ohi da.

Ostegun saindu egunez egiten da aitzinatik olio sainduen sagaratzea; izan ere, bataio eta sendotzaren jai nagusiak, aitzina, Bazko garaian egiten bait ziren.

Azken afariaren oroitzapena ostegun saindu arratsaldez ospatzen du Elizak. Ez da harritzekoa. Eliza bakoitzean meza bat bakarra ematen da. Ez da meza isilik ematen. Afari bakar honetarako denak biltzen dira.

Epistolatzat, eukaristiaz mintzatzen den pasarterik zaharrena hartzen da (1 Kor 11,20-32); ebanjelioak oin garbikuntzaren kontakizuna dakar (Jn 13,1-15): ikusi dugunez (*124*), eukaristiari buruzko alusioa dena. Berehala, Jesusen agindu (*mandatum*) sinbolikoa egitea proposatzen du liturgiak: «Horrela zuek ere, elkarri oinak garbitu behar dizkiozue». Eta bertan diren hamabiei oinak garbitzen dizkie apaizak. Koruak honela abesten du: «Maitasuna den lekuan, Jainkoa da».

Eukaristi otoitzean, hau da, mezako Kanon delakoan, «Berak, hil bezperan» direlako hitzen ondoren, «gaurko egunez» eransten da. «Gaurko egunez» esakun hau, jai handi guztietako liturgian aurkitzen da (*45*). Ameskerietan nahasteko arriskua kendu nahi digu: igarotako gertakarien oroitzapen hutsean gelditzeko arriskua. Hain zuzen, ospatzen dugun gertakari salbatzailea presente dugu geure artean (*275*). Horrenbesteraino da saindu gure liturgia.

Bada zenbait kristau, meza ondoan elizan gelditzen dena, elkarteko liturgiarik gabe, jakina, eta Oliondo Baratzeko Jesusen hil aurreko larria gogoemateko*. Jesusek bere adiskideei honela aurpegian eman zieneko arratsa bait da: «Ez duzue ordubete nirekin erne eman ahal izan?». Ordu saindu hori ez litzateke egin behar atseginen bat sentitzeko, Jaunarekin egoteko baizik, Jaunarekin erne egoteko, modu batera ala bestera. Pentsamendu hau besterik izango ez bagenu ere: «bai luze dela ordubete belauniko»!, erne egote hori, Kristorekiko maitasunaren eta batasunaren adierazpen gerta liteke. Sentimendua ez da garrantzizkoa, iraunkor Jaunaren aurrean egotea baizik.

---

gogoemateko: pentsatzeko.

Getsemani baratzeko otoitza 129

Jesus, otoitz egiten ari zen lekuan bertan atzi* zuten. Olio-baratzean, hiriaren aurrez-aurre zegoen hegiko* patxadako baratzean. Jesusek bazekien gertatzekoa zena, eta izugarri sufritu zuen bere otoitzaldi hartan. Honela esan zien bere dizipuluei: «Hiltzeko bezain triste dadukat arima» (Mk 14,34). «... Eta odol tankerakoa egin zitzaion izerdia, lurreraino erortzen zitzaiola» (Lk 22,44). Jesusen otoitz hura, lurretik atera den bikainena zen, noski: «Abba, Aitta, guztia dezakezu zuk; ken ezazu, ba, kaliza hau niregandik; hala ere ez nire gogoa eta bai zeurea!» (Mk 14,36). Jesus ez zen sekula guretako bat bezala neurri honetan azaldu; «larritua» (Mk 14,33), eta «heriolarrian» (Lk 22,44). Hala ere, Aitaren nahia, Harentzat, kaliza xuxpergarria* da (Lk 22,43). Ikasleak lo zeuden.

Atzitzen dutenean, Jesus lasai dago. Jesusek aukeratu eta maitatu zuen Judak, masaila hestutu* eta musu ematen dio. Unetxo bat aurretik, honela mintzatu zitzaien Jesus bere ikasleei: «Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldira sar ez zaitezten» (Mt 26,41).

Bahikuntza* hau, Ebanjelioek kontatzen duten bezala, izugarria da. Ez dira ageri: Jesus eta dizipuluak alde batetik, eta etsaiak bestetik. Ez. Jesus bakar bakarrik da, eta aurrean etsaiak ditu, bere ikasleetako batek gidaturik. Beste ikasleek hanka egin dute. Batek, itsu-itsuan, ezpataz ematen dio bati; baina, piskat geroxeago, bera izango da honela esango duena: «Ez dut ezagutzen gizon hori!»

Jesusek aitor egiten du bere epaileen* aurrean 130

Jesusek, hauzitegira eramango zituztela adierazi zien bere dizipuluei aldez aurretik, han aho betez aitor egiteko. Lehendabizikoa, ordea, hori egiteko bera da: hauzitegian dago eta aitor egiten du.

Sanedrinaren aurrera daramate, eta apaiz nagusiak honela galdagiten dio: «Zu ahal zara Kristoa, Bedeinkatuaren Semea?» (Mk 14,61). (Azken titulu horrek, Kristoa edo Mesia esan nahi zuen nonbait). Jesusek bazekien, titulu horik, nazionalismoz, lurtar esperantzaz kutsaturik zeudela, eta aitortzen du, bai, bera Kristo dela; baina, bere izentzat inongo nahasmendurik ez zeramana hautatzen du: Gizonaren Semea. Eta honela erantzuten du: «Bai, neu naiz, eta ikusi ere egingo

atzi: hartu. **hegiko:** maldako. **xuxpergarria:** pizgarria. **hestutu:** apretar. **bahikuntza:** detentzio. **epaileen:** juezen.

duzue Gizonaren Semea (Jainko)-ahalmenaren eskuinetan jarririk (Sal 110,1) eta zeruko lainoetan etortzen» (Dn 7,13) (Mk 14,62) (*118*).

Pilato, erromatar gobernariaren aurrean, aitorpen bera egiten du Jesusek. Hona zer irakurtzen dugun Joanen ebanjelioan: «Nire erreinua ez da mundu honetakoa... Honetarakoxe jaio naiz ni, eta honetarakoxe mundura etorri: egiaren lekuko izateko. Egiagandiko denak entzun egiten du nire ahotsa» (Jn 18,36-37).

Pilatok, gizon jakitunak, erantzuten dio: «Zer da, ba, egia?», eta harekin erregetara jostatuko den gudaritalde basati baten eskuetan jartzen du. Lotsagarriro zigortzen dute, purpurazko gain-jantzi bat bizkarrera botatzen, arantzazko koroe bat buru gainean ipintzen, eta kainabera bat eskuetan, errege makilatzat.

Jesusek sanedrinaren aurrean aitor egiten duen bitartean, Kepak ukatu egiten du Jesus. Judak, berriz, bere burua urkatzen du. Azken afarikoan Jesusek egin zion oharkizunak, okerrena dakarkigu burura:

> «Urrikaria*, bai urrikaria, Gizonaren Semea saltzen duen hura; hobe zukeen holako horrek jaio izan ez balitz» (Mt. 26, 24).

Hala ere, ez eta kasu honetan ere, ez dugu ziurtasunik Jainkoaren epaiaz.

Gurutziltzatua 131

Presondegi eta hauzitegitik, urkamendira daramate Jesus, hiritik at*, muino batean dagoen Golgotara.

Zigorbide basatia, Mendebaldetik ikasia eta erromatar inperioak batez ere esklabuei ezarri ohi ziena: horixe izan zen Gizonaren Semeari ezarritako heriotza. Ebanjelariek soil-soil diote. «Eta gurutziltzatu egin zuten» (Mk), «gurutziltzatuz gero» (Mt), «gurutziltzatu egin zuten» (Lk), «gurutziltzatu zuten lekuan» (Jn).

Aitorpenek hauxe azpimarratzen dute: horrela, bi salmu ikaragarri betetzen direla Jesusengan: «Nire Jainko, Jainko nirea, zergatik zabartu* nauzu» (Sal 22), eta: «Jainko nirea, salba nazazu lepo leporaino ditut eta urak!» (Sal 69). Zenbait xehetasunetan ere, bete egiten dira: ozpina ematen zaio edatera, Jesusen soinekoa banatu egiten dute, zigortzaileek barra dagiote eta burua astintzen dute, Jesusek honela oihu egiten du: «Egarri naiz» (Jn 19,28).

---

urrikaria: errukarria. **at:** kanpora. **zabartu:** baztertu.

Baina, xehetasun hauk baino garrantzitsuago dena, salmuek marrazten* duten egoera bete egiten da (*134*): giza mixeriak hondoa jotzen du, baina Jainkoak salbatu egiten du larri horretatik. Jesusek, bere mixerian eta oinazean, berak eman dio hasera bi otoitz horietako bati: 22. salmuari. Agian, osorik errezatu du. Ez dakigu, ordea.

Ebanjelioek, Jesusen beste sei hitz ere aipatzen dituzte; gertakari hau hein batean argitzen duten oihu-intziriak dira. Lukak, Jesusen predikuaren jarraipen eta laburpen diren bi esaldi dakartza. Borreroez* mintzoki*, honela dagi otoitz: «Aita, barkaiezu, ez dakite zertan ari diren eta» (Lk 23,34). Eta haren alboan* gurutziltzatu duten lapurrari, honela hitz egiten dio: «Benetan esaten dizut: nirekin batera izango zara gaur paradisuan» (23,43). Egiaz, Jesus lehenean darrai (*104,100*).

Joanek, berriz, Jesusek, berari eta bere amari honela esaten diela kontatzen digu: «Emakume, horra hor zure semea» (*61*), eta Joani: «Horra hor zure ama. Eta ordudanik, bere etxera hartu zuen ikasleak» (Jn 19,26 eta hurrengoak). Joanen ebanjelioa sinbolu aberastasunez bereizten denez gero, Jesusen hitz hauk ezin hartu ditugu, ordutik bakarrik geratzen zen amarekiko maitasuna adiarazteko bakarrik. Fededunek, «Jesusek maite zuen dizipuluarengan», Eba berria hartzen dute (*57*). Munduan bizitza berri bat jaiotzen den orduan, ama berri bat ematen zaio gizadiari, bizidun guztien ama berria. Erdiminezko* ordua da. Izadiak munduaren azken egunen itxura hartzen du: eguerdi betean iluna.

Jesusek «Egarri naiz» hotsegiten du (*289*).

Hiru orduz hil beharrean egonik, arratsaldeko hiruretan hiltzen da Jesus. Oihu handi bat bota zuen. Ez zen piskana-piskana burua galduz joan; azkeneraino buru-argi iraun zuen: berez eman zuen bere bizia. Azken oihu horretan, salmu baten hitzak esan erazten dizkio Lukak: «Aita, zure eskuetan uzten dut neure izpiritua» (Lk 23,46). Jesusen azken keinuaz gogoratzen da Joan: bere zentzuaren jabe, burua makurtzen du —agian, artean arantzaz koroatua—. «Bete da betetzekoa», Jesusen azken hitz bezala aipatzen du Joanek.

Herio bataioa beterik da azkenean. Honi eskaini zion Jesusek bere burua Jordanen, Jahveren zerbitzari bezala; (ikus «Bataioa eta tentaldia» kapitulua); honen aurrean larritu egin zen; jadanik betea zegoen. Jainkoaren erreinua, haren odolez heldu zen (*229*).

---

marrazten: dibujar, dessiner. **borreroez:** zigortzaileez. **mintzoki:** hitzeginez. **alboan:** saihetsean. **erdiminezko:** haurminezko.

Ebanjelioek, heriotza horren mamia adierazten duten ezagugarriak dakarzkigute: lur-ikara (heriotza horrek mundua dardara arazten du), tenploko oihala urratu egiten da (Testamentu Zaharraren amaia), hildakoak agertzen dira (hau, Mateoren berri adikaitza* da, Testamentu Berriak beste inon agertzen ez duena, baina sinbolubidezko esanahi argia duena: heriotza horren indar bizigarria alegia).

Baina, batez ere, hona une honetatik gizadiaren begietan ageri den ezagupide edo seinalea: gurutzea. Egun sentiko zeruan nabarmentzen* da. Aurrerantzean mundua aldaraziko du (*19*). Artean, inori ez ziezaiokeen burura horrelakorik. Golgota, beldurra emateko moduko hildakoren edo erdi-hildakoren muino zen: buru-hezurtegi. Hala ere, Joan, geroago une horretaz gogoratzean, aintzazko seinalerik ere nabari zela konturatu zen: bildots berri honi, bazko bildotsari bezala, ez zaio hezurrik hausten. Batez ere, hau kontatzen du: Jesusi, aztamakilada batez, saihetsa irekitzen diotela (haren herioaren ageri bezala), eta handik odola eta ura darizkiola; Bibliaren hitzaren arabera: «Ur bizizko errekak jarioko zaizkio erraietatik» (Jn 7,38), eta: «Nire odola, izan ere, benetako edari da» (Jn 6,55). Horixe du Joanek gurutzeko odol eta uraren pasartea ekartzeko arrazoina. Ur-odol horiek, Izpiritua ematen duen bataioa, eta bizia ematen duen eukaristia adierazten dituzte. Orobat, ebanjelio honek, Jesusen azken arnasak*, beraren erabateko eskaintza esan nahi duela adierazten du. Izan ere, Mateok berak baino berarizago*, honela idazten du Joanek: «arnasa eman zuen» (Jn 19,30). Izpiritua da harengandik sortzen hasten den dohaina. Handik hiru egunera, hats egingo* du bere apostoluengana, honela esanez: «Har ezazue Izpiritu Saindua» (Jn 20,22).

Horrela, gurutze gainean bertan garbi azaltzen da Elizaren bizitza osatzen duena: bataioa, Eukaristia, Izpiritu Saindua. Joanek berriro aipatzen ditu bere lehen epistolan: «Hiru dira aitorpen ematen dutenak: Izpiritua, sua eta odola, eta bat datoz hirurok» (1 Jn 5,8). «Bat dira» alegia, hirurak pertsonaren erdi-muinetik datozelako: maitasuna, grazia, salbamendua eta sendakuntza isurtzen dituen Jesusen bihotzetik alegia. Ura, odola, hatsa*. Bataioa, eukaristia, Izpiritua.

Eta gorputz gurutziltzatua —ur biziaren iturria darion tenplo berria (Jn 2,21, Za 13,1)— zintzilika dagoeneko gurutze horren gain-gainean izkribu ohorezko hau irakurtzen

---

adikaitza: ulertzen zaila. **nabarmentzen:** agertzen. **arnasak:** hatsak. **berarizago:** asmo nabarmenagoz. **hats egingo:** arnasa botako. **hatsa:** arnasa.

da: Nazareteko Jesus, Juduen Errege. Giza-ironia gogorrak asmatua, jainkozko ironia bizigarri bihurtu da.

«Inondik ere Jainkoaren Seme zen hau» (Mk 15,39), esan zuen goardia egiten zuen ehuntariak*.

Lepo-eginiko* gaiztaginak, nornahirentzako zen ehortzuloan bota ohi ziren, inolako zirimoniarik eta hiletarik gabe. Arimateako Joxek Pilatorengandik Jesusen gorputza gurutzetik erasteko baimena lortu zuen. Eta harkaitzean zulaturiko hilobian ehortzi zuten.

Ostiral saindua 133

Aitzina-aitzinatik, Jesusen heriotz eguna, eukaristiarik gabeko elizkizunaz berritu ohi du Elizak. Eukaristia osoa, berriro, Bazko gauean egingo da; hartan ospatuko bait da bete-betean Jesusek buruturiko salbamendua.

Egun honen izenak berak, Ostiral Sainduak, agertzen du liturgi ospakizunaren ideia nagusia: dolu handienean poz bat jaiotzen da gertatu zenaren aurrean. Liturkizunaren egitura mezaren antz handikoa da: hitzaren liturgia, otoitz eta guzti, eta, azkenean, komunioa. Bi horien artean, eukaristi eskaintzaren ordez, gurutzearen adorazioa.

Elizkizunaren haseran, apaiza, diakonua eta subdiakonua aldare aurrean ahospezten dira isilik. Gero, Testamentu Zaharreko bi testu irakurtzen dira. Lehendabizi, Os 6,1-6; honetan, Jainkoaren ahalmen bizigarrian duen ustea agertzen du profetak, eta Jainkoagana itzultzeko nahitaezko diren eta Jesusek bete dituen baldintzak adiarazten ditu. Hurrena, Exodo 12,1-11 irakurtzen da: bere odolaz salbatzen duen bildotsaz diharduena[18]. Testamentu Berriko irakurgaitzat, Pasioa hartu ohi da, Joan sainduaren arabera: Jesusen goraldia bizikien adierazten duena. Ondoren, otoitz nagusi zerrenda bat dator. Bihotz-berotasun eta sinpletasun handia darizkie, eta kristauen kontrako eraso-aro haserakoak bide dira[19].

Otoitz horik amaituz gero, gurutzearen gurtzapena* hasten da. Hiru kolpetan eranzten du apaizak gurutzea, eta hiru bider kantatzen du honela, aldioro aurrekoan baino doinu goraxeagoan: «Hona hemen gurutze habea, munduaren Osasuna zintzilik eduki zuena». Eta batzarraren erantzuna:

18 Irakurgaiok, berriak ditugu orain: lehenengoa, Is 52,13—53,12 da (zerbitzari pairakariaren laugarren kantua) eta bigarrena, Heb 4,14-16; 5, 7-9 («Esaneko egin zen eta jarraitzaile guztientzat salbamendu sorburu»).

19 Otoitz hauk berriztatu egin dira, lehen zuten polemika kutsua baztertuz.

ehuntari: centurión, centurion. **lepo-eginiko:** ejecutado, exécuté. **gurtzapena:** adoratzea.

«Atozte, gur dezagun». Gurutzea (guztiz eder eta apaina izan daitekeena) beheratuz, Jauna adoratzen dugu, leporatu duen oinazean, eta irabazi duen aintzan.

Gurtzapen bitartean, inproperio edo Jesusek bere herriari egiten dizkion erasiak abesten dira; kantu hauk, beste antzekorik ezbezalakoak dira erromatar liturgian: hain dira pertsonalak! Azkenik, elkarrekin Gure Aita abestu ondoren, Jaunaren partekide egiten gaituen komunioa hartzen da.

Egun honetako misterioa ospatzeko beste modu bat, «gurutzebidea» egitea da. Liturgi ospakizuna ezbezala, nork bere aldetik egin dezakeena da. Otoizbide hori, arras gizatarra da, eta arras ebanjeliobidezkoa; gurutzebidean Jesusen Pasioari jarraitzen bait zaio urratsez urrats. Halere, gurutzebidea ez da liturgia eta ebanjelioa bezain orokorra; hauek, argiago distira erazten dute Kristoren aintza.

Egun berean, bereziki ospatzen dute Jesusen heriotza kristau erreformariek, Afaria ospatuz.

Ostiral Saindua, kristau guztiek, barne-bildutasun eta esker-on handienaz bizi behar lukete.

Hildakoen erreinura jaitsia*

Bizia iragartzen* duten salmuak 134

Salmuek, profezia gisan, Kristoren Pasioa ezezik, Kristoren askapena eta aintza ere iragartzen dituzte (*35,256*). Salmu berek, Jesusek gurutzean errezatu zuen 22.ak eta 16., 69., 118.ak eta beste askok, batera, sufrimena eta askapena abesten dituzte. «Ez, ni ez naiz hilko, eta biziko naiz, eta Jahveren egintzak abestuko ditut» (Sal 118,17).

Ongi begiratuz gero, badirudi, salmu horik herio zoritik askatzeaz mintzo direla: gaixotasun edo arrisku hilkor batetik askatzeaz. Halako askapena, ordea, Jainkoari eskatzen zitzaion bitarteko egintza bat zen soilki; erabateko heriotzaren zain egiten zen eskabidea. Alabaina, hitz erdika, beste hau ere ageri da denbora berean: harrigarrizko bizi bete baten susmoa. Jainkoa, hor, heriotza aldi batez atzera lezakeen midiku bat baino handiagoa da. Aitzitik, bizitza behin betirako ematen duena da. Baina, Testamentu Zaharrak, ez bait zuen hilezkortasunaz berri garbirik (*8*), ezin adierazi zuen ondo betetasun hori. Salmuetan zehar intuizio sakon bat dabil, salmuek beroiek ongi azal ez dezaketena. Adierazi nahi luketena, erdizka bakarrik azaltzen dute; baina beraien asmo sakona alde guztietatik ageri zaie.

---

jaitsia: jetxia. **iragartzen:** adiarazten.

Intuizio hori, Agerkundea bete denean bakarrik azaldu da argitasun osoz (*40*). Jesusek, Erreinua iragartzen zuten profeziak bete zituen bezala bete zituen askapen salmuak; hau da, Izkribuen esanahi sakona burutuz. Herio zoriko askapena, herio zoria baino haruntzagoko askapen bihurtzen du.

Hildakoen bizitokia *(394-395)* **135**

Jesusek, inork atzera* igaro ez dezakeen atea igaro zuen. Zinez hila da, egiaz hila. Horixe da larunbat sainduari bereziki dagokion Kristoren misterioa. Kredoan, honela aitortzen dugu: «Ifernuetara jaitsi zen».

Gaurregun doi-doi* axolatzen gara formula horretaz; aski baztertua gertatu ohi da. Aisa* da horren arrazoina ikusten. Esakun hori, hain zuzen, gurea ezbezalako mundu-ikuskerari bait dagokio. Juduentzat eta greziar jentilentzat, «hiltzeak» hau esan nahi zuen: «sheol»en, «Hades»en, «lurpeko munduan», «hildakoen erreinuan» izkutatzea. Horixe esan nahi du hemen «ifernu» hitzak. Ez da, beraz, gaiztoak biltzen direneko tokia; guztiak, onak eta gaiztoak, daudeneko tokia baizik. Honela irudikatzen zuten, bada: toki handi bat, baina toki jakin bat bezala, ilunpetan zegoena, gure mundu hau ezbezalakoa erabat, dena han «hila» zegoelako.

Egungo fededunentzat, hilda egotea ez datza horrela toki jakin bati lotua egotean. Hildakoa bada izan, baina non? Ez dakigu; hori da egia.

Ondorioz*, «ifernuetara jaitsi zen» esakuna, gureak ez diren kontzetuz egina dago. Baina, fedearen egia zutik darrai. Hauxe da behar dena: gure mundu-ikuskerari dagokion adierazpen bat bilatu. Horrez gero, bi gauza esan nahi ditu: bata, batez ere Ostiral Sainduari dagokiona, eta bestea, gehienbat, Bazko giroari.

Hauxe da lehenengo egia: Jesus egiaz hila da. «Ifernuetara jaitsi zen» esatean, Jesus bene-benetan hil zela esan nahi da. Egiaz heriotzaren apaldura* jasan* zuela, bizitza honetatik etenik egon zela; ez zela orduan, bere bidean aurrera zihoan mundu honetakoa.

Jesusek, bere buruan egin zuen heriotzaren esperientzia; lasapide gertatzen zaigu hori: heriotzaren leze beltzean beheren jausten garelarik ere, Jesusek, han behean betiko bizitza topatzen dela esaten digu. Testamentu Zaharreko idazleak, sheolean daudenentzat Jainkoa arduratzen ez delakoan zeu-

atzera: berriz. **doi-doi:** apenas. **aisa:** erraz. **ondorioz:** horregatik. **apaldura:** humillazioa. **jasan:** sufritu.

den. Egun aitzitik, heriotzan bertan ere, Jauna gurekin dugula agertu zaigu.

Hori da, «ifernuetara jaitsi zen» esakunaren, hots, larunbat sainduaren lehen esanahia. Bada, ordea, oraino beste alderdi bat. Jesus «bere gurasoengana bildu» delarik, hots, hildakoen taldearekin aurkitu delarik, orain hilik diren eta Jainkoak arduraz ikusten dituen gizon-emakume guztietan pentsatzen du Elizak. Honela irudikatzen* da Jesus lehen kristauen artean: hil orduko, hildako guztiei salbamendua hotsegitera doalarik:

> «Eta (izpiritu) horretxen eraginez joan zen, presondegian zeuden izpiritu beraiei ere predikatzera: alegia lehen hartan, Jainkoaren bihotz-zabaltasuna luza eta luza ari zenean, Noe bere kutxa prestatzen ari zen egunetan, sinetsi nahi izan ez zuten izpirituei...» (1 P 3,19-20).

Hauzia eta salbamendua gizadi osoari zaizkio ardurazko. «Zain dauden» hildakoei salbamendua datorkie. Aitzina, «ifernuetan» zain zeudenei, esan ohi zen. Geroago, «linboan» zain zeudenei, esango da. Egun, zain daudenei, esaten dugu, soil-soilik. Ez dakigu, ez non, ez nola. Eta Liburu Sainduak urri mintzo dira horretaz.

Egun ongi dakigu, gure aurretik datorren gizadia kontaezineko eta guztiz zaharra dela. Horregatik, aipatu dugun fedearen misterio horrek aitzinako kristauentzat beraientzat baino zabalera handiagoa du. Halaz guztiz ere, beraren adierazpenik ikusgarrienak, Bizantzion eta Errusian Kristoren Biztueraz sortu diren ikonoak ditugu agian. Gizon zahar batengana makurturik eta altxatzen laguntzekotan eskuin eskutik heltzen diolarik marrazten dute Kristo. Gizon hori, Adan da, gizadia. Egungo gizon-emakumeentzat ere, bikain adierazten du keinu horrek Bazko misterioa. Jauna, heriotzan sartu orduko, hildakoen gizataldeagana makurtzen da, betiko bizia ematekotan.

Biztu naiz eta hona: zuekin nago ni oraino ere

Historiak Kristoren biztueraz esan dezakeen guztia, hauxe da: dizipuluek aitortu egin dutela. Gure begiek ezin hatzeman* dute biztuera bera. Historilariaren alorretik at dagoen gauza da. Eta Jesusen agerpenak, bere heriotza ondoren, bere adiskide eta dizipuluekin ukan dituen topaketak izan dira bakar bakarrik. Historiak ezin hatzeman du ezer, beraz, lekukotza horik baino haruntzago. Egin dezakeena, hauxe da: lekukotza horik sinesgarri diren ala ez arakatu. Kristauak

---

Irudikatzen: irudiz ematen. **atzeman:** «ikusi».

behintzat hala egin behar du. Ezin «sinetsi du alferretan», ezin sinetsi du bururik gabe (1 Kor 15,2). Azken urratsa*, halaz guztiz, sinestea du (*138-139*).

Ez da Testamentu Berrian testigantza baterakoagorik*, honako hau baino: «Jainkoak bere Semea hilen artetik biztu du» (1 Ts 1,10), eta apostoluek «Jauna ikusi dute» (Jn 20,25). Baieztapen horietan datza izkribu guztien, zaharrenetarik berrienetarainokoen, gailurra*.

Fedearen giltzarria 136

Kristoren Biztuera ez da piskana-piskana zabalduz guztien iritzi izatera iritsi zen zenbaiten aburua. Ez. Haseratik, uste sendoa da hori guztiengan, predikuaren muin eta giltzarri:

> «Labur esan, bai haiek bai guk, hona zer predikatzen dugun, horra zer sinetsi duzuen» (1 Kor 15,11).

Horretan oinarritzen da fedea.

> «Kristo biztu ez bada, berriz, alfer-alferrik da gure predikazioa, eta alferrik zuen fedea...: zeuron bekatuetan zaudete oraindik» (1 Kor 15,14.17).

Biztuerarik ez bada —jarraitzen da Paulo saindua—, gu apostoluok gezurti besterik ez gara, eta zuek iruzurtuak* izan zarete, eta gisa zoroenean gainera. Izan ere,

> «Kristorengan jarri dugun itxaropena bizitza honetarako besterik ez bada, geu gara gizon guztien artean urrikarrienak eta koitaduenak» (1 Kor 15,19).

Halako kasuan, irudimenaren sorkari* litzatekeen Kristotaz ihardun baino nahiago luke Paulok, batera pozik eta triste, honela hotsegiten dutenekin bat egin: «Jan eta edan dezagun, bihar hil egin behar dugu eta» (1 Kor 15,32).

Horixe da lehen testiguen jokamoldea. Ez dira, beren irudimenaren fruitu litzatekeen lilurakeriari atxekitzen* zaizkion beldurti horietarikoak; ez dute eragozpenik errealitateari aurrez aurre begiratzeko. Edozertarako daude prest, beren bizitza gezurraren gainean eraiki baino lehen. Baina, xalotasun* osoz, hauxe besterik ez dezakete esan: «Biztu da hilen artetik Kristo» (1 Kor 15,20).

Biztueraz idatzitako testigutza zaharrena, Paulo sainduarena da; horixe bera ikusi genuen eukaristiaz ere (*127*). Eta oraingo honetan, gainera, lekukotza hori, berak ere hartua duela esaten du. Horrez gero, zaharragoa da oraino tradizioa.

---

urratsa: pausoa. **baterakoagorik:** zabalagorik, guztionagorik. **gailurra:** gain-gaina. **iruzurtuak:** tronpatuak, engainatuak. **sorkari:** fruitu. **atxekitzen:** lotzen. **xalotasun:** lainotasun, sinpletasun.

Horrela, tradizio maila zaharrenera heltzen gara, Testamentu Berriaren oinarrira. Hona zer dioen Paulok:

> «Ba nik ere neuk jasotakoa eman dizuet (jakitera) zuei: alegia, Izkribuek diotenez, gure bekatuengatik hil zela Kristo; hobiratua izan zela, eta Izkribuek dakartenez, hirugarren egunean biztu zela; Kepari agertu zitzaiola eta gero beste hamabiei. Bostehun senideei batera agertu zitzaien geroago —horietako gehienak bizi dira oraindik, zenbait hilak badira ere—. Jakueri agertu zitzaion hurrena, eta geroago apostolu guztiei. Denetan azkena berriz neri agertu zitzaidan, ume galduaren gisako honi» (1 Kor 15,3-8).

Mezu hau, «*Kerigma*» hau, bat dator apostoluen lehen predikuaz *Apostoluen Eginak* liburutik dakigun guztiarekin (*159*).

Pauloren testuari darionez, Jesus, inori baino lehen, Kepari agertu zitzaion. Lukak ere, bidenabar, aipatzen du lehen agerpen hori (Lk 24,34); baina, ebanjelioetan ez da inon ere zabalago ematen berri hori.

Lehen igandeko egunsentia 137

Kontakizun arras sinple eta soilez hasten dira Ebanjelio guztiak: igande goizean emakumeak hilobira doazela esanez. Kontakizun honen zentzua bete-betean aditzeko, funtsezko hitz den kolore izena hartu behar da kontuan: «zuri». Emakumeek (dio Markok) «gizaseme gazte» bat ikusten dute, «aingeru» bat (dio Mateok), hilobi ondoan zutik. Goitik behera zuriz jantzia. «Zuri» kolorea, Jainkoaren aintzaren kolorea da, betekuntza* aldiarena, Jainkoaren erreinu aldiarena, «Jahveren eguna»ren kolorea (*30,37*).

Goiz hartan, larunbat biharamunean, eguzkia igandez, «Jaunaren egunez» (Ap 1,10), munduaren historian lehenengoz atera zenekoan, gizon bat hurbildu zitzaion zenbait emakumeri: munduaren azken aldiko jantzi zuriz zegoen gizon bat. Emakumeak larritu egiten dira.

Markorengan, ikuskizun hori, azken hitzeraino, larritasunez kutsaturik dago. Mateok, aingerua aipatzeaz gainera, berorren etorrera ere, lur-ikara handitan, marrazten du. Lukarengan emakumeak, begiak lurrera dituztela ageri dira; Jainkoa mundu honetara sartzean sorkariari darion jarrera da. Xehetasun hauk guztiak, alabaina, muinaren estalki besterik ez dira; pasarte guztia argitzen duen harri pitxi*, bakezko eta pozezko hitza, beste hau da: «Biztu da!» Pauloren mezua bera: Jauna bizi da!

---

betekuntza: plenitud, plénitude. **pitxi:** baliosa.

Lau ebanjelariek, Biztueraren berriona, kontakizun gisan aurkezten dute. Pasarte horik bata bestearekin gonbaratzean, hauxe nabari da: denak desberdinak dira, eta Pasioaren lau kontakizunak baino desberdinago gainera. Idazleek agerpen desberdinak kontatzen dituzte sarritan, eta gertaera bera kontatzean ere, ez datoz beti bat xehetasunetan.

Bibli zientzia konklusio honetara heldu da: kontakizun horiek, beren azken tankera, aurretik datorkien Pasioaren kontakizuna baino piskat geroxeago hartu izan behar zutela. Bazko mezua bera arras zahar eta funtsezkoa den bitartean, kontakizunak ez dira berehalakoan finkatu*. Aisa da hori ulertzea. Pasioa, gertakari bakarra zen; Bazko gertakariak, aldiz, oso ugari: «Bere Pasio ondoren ere, bizirik agertu zitzaien eta froga garbi-garbiak emanez agertu ere» (Ap Eg 1,3). Ez Paulok, ez ebanjelaririk inork, horik guztiak kontatzeko asmorik ez du. Aukera bat egiten du bakoitzak, eta bazko mezu bakarra hotsegiteko behar denari heltzen dio bakar-bakarrik. Horregatik, Biztueraren kontakizuna ez da hezur-mamitu hain laster tankera *iraunkorrean.* Hain zuzen, tradizio asko sortu dira, puntu askotan bata bestearengandik desberdinak.

Desberdintasun horik nabari dira hilobi hutsari buruzko kontakizunetan. Markok eta Lukak hiru emakume (ez dira berdinak) aipatzen dituzte. Mateo bitaz mintzo da, eta Joan batetaz (honek, halere, Jn 20,2 pasartearen arabera, honela hitzegiten du: ez daki-*gu*...).

Markorenean ere hauxe irakurtzen dugu: «Ez zioten deus esan inori» (Mk 16,8); Mateok, berriz, hauxe idazten du: Lasterka joan ziren ikasleei kontatzera (Mt 28,8). Eta Lukak ez dakar Galileara jotzeko agindurik.

Mateok eta Markok aingeru bat bakarra aipatzen dute; Lukak eta Joanek, bi. Joanengan, bestalde, aingeruak, Magdalako Maria hilobira bigarrenez datorrenean bakarrik azaltzen dira, eta ez dute inolako mezurik komunikatzeko. Mateoren kontakizunean, aingerua harlosaren* gainean jarririk dago; beste hirurenetan, berriz, hilobi barruan.

Mateok, hilobi hutsaren ikuskizunaz gain, emakumeei eginiko beste agerpen bat dakar; inola ere, beste tarteren batetan gertatua.

Hona, beraz: lau kontakizunek ez dute ia elkarren antzik. Halaz guztiz, bat datoz gai nagusienetan: hilobi hutsa, aingeru(-aren) (-en) agerpena eta, batez ere, mezuaren mamia: «Jauna bizi da!». Ezberdintasunek, agian, goiz hartako pozezko zoramena adiarazten digute: heriotza aurkitu uste zuten tokian bizitza topatu bait zuten. Hauxe da gauza ziurra:

finkatu: gorpuztu. **harlosaren:** harri-losaren.

kontakizunek, bere desberdintasun eta guzti, haserako Elizaren ziurtasuna eta egizaletasuna agertzen dituzte; Eliza horrek ez ditu disimulatu nahi izan bere baitako desberdintasunak, gorde baizik, askatasun izpiritu handiz. Desberdintasun guzti hauei dariena, batez ere, Bazko mezuaren batasuna da, eta garrantzia. «Jauna bizi da!»; horixe da kontakizunen mamia. Gainera, ikusi dugunez, Jesusen bizitza osoa mezu bat aurkeztearren idatzi da; kasu honetan ere. gauza bera gertatzen da.

Puntu hau zabalago eman badugu, gure fedearen muina, gure ziurtasunaren oinarria delako izan da. Horrela, Paulo sainduaren esanari garraizkio*: ez hartu fedea pentsatu gabe, ez «sinetsi alferretan».

Agerpenak* 138

Bitartean, ezer ez dugu esan Jesusen agerpenez. Hilobi hutsari buruzko kontakizunak ez digu agertzen Berbiztua bera.

Nola agertuko ote da? Sugarra bezala ote? Garaipen garraisi artean ote? (*44*).

Egun hartan hasi zen poza, ez zen fenomenu arranditsuz* adiarazten. Jainkoak ez du harrigarrikiro eta xundigarrikiro azaldu nahi izan, lau-lau baizik, giza tankeran baizik; xoragarriro, esaten ahal litzateke.

Magdalako Mariak baratze zaina dela uste du. Aski zaio Jesusi, izenez deitzea: «Maria», eta honek bapatean ezagutzen du. Aski zaio Jesusi emazteki sainduei egun onak ematea. Bi dizipuluei bidelagun ondoratzen zaie. Jerusalenen, apostoluen erdian kokatzen da, *ezti-ezti hats egiten die, haiekin arraina* eta eztia jan, eta honela dasaie: «Bakea zuei». Galilean, mendi baten gainean ematen du ikustera bere burua, hurbiltzen da eta hitzegiten die. Kepa eta besteekin gosaltzen du aintzira* ertzean. Paulori ere agertzen zaio; su antzean oraingoan; baina, esaten dituen hitzak arras biguinak ditu: «Neu naiz zuk pertsegitzen duzun Jesus».

Lagun batek bezala pozten du. Topatzen duen jende guztia, jende bihotz-eroria da.

Agerpenen kontakizunek, Jainkoaren iharduerareren eta gizakien, hots, gure ordezkari diren emaztekien, apostoluen, testiguen iharduerareren arteko desberdintasuna agertzen dute lerro artean. Beldur dira, ezina sentitzen dute, eta Jakinduria gabeko eta usterik gabeko bezala, izkutatu egiten dira. Espe-

garraizkio: jarraitzen gatzaizkio. **agerpen:** aparizio. **arranditsuz:** ospatsuz. **aintzira:** lagu.

rantzak huts egin die. «Bazko kontakizun guztiak buruz behera eman beharko lirateke. Goethe-ren *Fausto*-ren esaldi sonatuaz adierazi nahi izatekotan: Jaunaren biztuera ospatu, beraiek ere biztuak direlako ospatzen dute. Baina, bai zera! Dizipuluak ez dira jende berbiztua. Sentitzen dutena —belldurrez eta dardaraz lehendabizi, eta hurrena, pozez eta alaitasunez— hauxe da: Bazko egunean, beraik, dizipuluak, heriotzak jota dabiltza; Gurutziltzatua, Hilobiratua, berriz, bizi da!» (G. BORNKAMM, *Jesus von Nazareth*, Stuttgart 1960, 169. or.).

Horregatik, ezin pentsa daiteke, Biztuera dizipuluen gogoaldiari dariona denik. Ikusketak ezin sortu izan dituzte dizipuluek berek, oharkabean, beren esperantzei gorputz bat ematekotan. Hori atera ahal izatekotan, atzekoz aurrera eman beharko bait lirateke kontakizunak. Izan ere, testuek, dizipuluak inongo itxaropenik gabe gelditu zirela agertzen bait digute. Jesusek bere biztueraz egin zizkien iragarpenak*, berriz, dizipuluek ez zituzten ulertu, ez esan zizkienean, ez eta Jesusen heriotza ondoren ere. Iragarpen horietako baten ondoren, Lukak oharkizun hau dakar:

> «Apostoluek ez zuten gauza hauetatik ezer ulertu, iluna zen benetan hizkera hauxe haientzat eta ez zioten ezeren antzik ematen Jesusek esaten zienari» (Lk 18,34).

Jesusen biztuera giza asmakeria bezala azaldu nahi luketen beste aurreiritzi batzu itxuragabekoago dira oraindik. Apostolu eta dizipuluek, bat eginda eta jakinaren gainean, jendeari ziria sartu ziotelako asmakeria ezin josi da beraien izakerarekin. Eta beste norbaiten, taldetik kanpokoren baten amarrua*, gorputza ohostu* eta apostoluak iruzur* eraz litzakeenaren amarrua, gertakarien gertamoduaren kontra dago. Zeren, ez bait dira biztueraren komentzimendura hilobi hutsaz heldu, agerpenei esker baizik.

Bada beste teoria bat ere: udaberriaren mitoa, hots, birjaiotzen den biziarena sortu zela dioena. Hipotesi hori, besterik gabe haiza* genezake, zeren pentsamodu hori arrotz bait zaio Bibliari (*55*).

Azkenik, Jesus ez zela hil ematea, bai Pasioaren kontakizunaren aurka, bai Jesus bere dizipuluen artean aurkitzeko moduaren aurka doa. Jesus beste izate modu batez da izan aurrerantzean. Jesusen gorputza ez da haren lurtar bizitzaldiko gorputza bezalakoa. Ikusi eta, bapatean, ezin ikusi dute. Atean zehar igarotzen da.

Historiaren bidea, gizon-emakumeen egintzaz ez baino Jainkoaren egintza batez hasten da aldatzen: Jesusen buru

---

Iragarpenak: anuntzioak. **amarrua:** gezurra. **ohostu:** ebatsi, lapurtu. **iruzur:** tronpatu, engainatu. **haiza:** haizatu, uxatu, baztertu.

apaldua jaiki erazi egin du Jainkoak betirako. Jainkoaren erreinua, berri bilakaturiko gizon batengan gertatu da.

Agerpen ikuskorrak, ikusezineko hurbiltasun baten ezagupide 139

Jaunaren agerpenen kontakizunetan, gauza bitxi bat azaltzen zaigu: haseran dizipuluek Jesus ez dute ezagutzen. Bestalde alabaina hura bera dela aurkitzera heltzen dira. Puntu honek badu bere esanahi handia. Lehendabizi noski, Berbiztuaren irudiak ustekabean harrapatzen dituela frogatzen du horrek: kanpotik datorkiela alegia, eta ez beren irudimenetik; tartetxo bat behar dute ezagutzera iristeko. Baina, bada horretan beste gauza sakonago bat: Jesusena berarena, Jesusen berritasuna. Jesus ez da erabat lehengoa bera. Bere agerpenez adierazi nahi duena, ez da, oraino zenbait astez lurrean biziko dela, ez; baizik bere apostoluak eta bere Eliza, bere presentzi modu berri batez eskolatu nahi dituela. Aldakuntza horixe da agerpenek begi aurrean ipini nahi dutena. Jesusek, beti haiekin dagoela adierazi nahi die. Dizipuluek, bapatean, hura beren artean ikusi ahal izateak, Jesus «ateak zehar ibil daitekeela» ez baino beti presente dagoela esan nahi du. Berbiztua gure arteko kreatura berria da. Agerpenak, Jesusen *betiko presentziaren* aztarren isilak dira.

Bere *hitzez* ematen du ezagutzera bere burua, dela Mariari baratzean, dela dizipuluei Afaltokian, mendian, aintzira ertzean. (Ikus «Betiko bizitzako hitzak» kapitulua). Emausko dizipuluen kasua, adibide harrigarria dugu. Ondo-ondoan zihoakien eta ez ziren ezertaz konturatzen; baina, «Ez ahal genuen ba sugarretan bihotza gure barnean harek bidean hitz egiten zigunean eta Izkribu Sainduak adierazten zizkigunean?» (Lk 24,32). Hitzetik ezagutzen dute.

Bere burua ezaguerazteko bigarren bidea, keinu jakin hau da: «ogiaren zatiketa». Jesusek Emausko ikasleekin eukaristiarik ospatu duen ala ez jakiteak garrantzirik ez du. Keinuak, nolanahi, hauxe adierazi nahi du: *eukaristia* (Ikus «Eukaristia» kapitulua) izanen zuela aurrerantzean bere burua ezaguerazteko seinalea. Jesusek jaten dituen ezti eta arrainak gauza bera sinbolizatzen dute. Izan ere, aitzina, eukaristiarekin batera jan ohi ziren bi janari horik. Ezagugarri horiek Jesusen eukaristiako presentzia dakarte burura. Horrez gero, ikusteko gisan agertuz, ikusezineko bere presentzia erakutsi du.

Orobat, hats egiten du dizipuluen gain, eta izpiritua ematen die, etorkizunean Jauna toparaziko diena (*234*). Denbora

berean, agerpenen garaian, Keparen *artzain mandatua* (Ikus «Artzain apaizgoa» kapitulua) eta *bekatuak barkatzeko* (Ikus «Barkapena» kapitulua) apostoluen ahalmenaren berri ematen dute ebanjelioek. Hiru errealitate hauk, Jesusen presentzia iraunkorraren hiru tankera dira.

Fedezko atxekidura 140

Jesus *fedez* ezagutzen da (*93-96, 236-240*); agerpenek ere, horixe bera irakasten digute. Ikusi dugunez, Emausko ikasleek, fedez beren bihotza irekitzen dutenean ezagutzen dute. Gorputzeko begiz ez baino fedearen begiz ezagutzen dute egiaz.

Joanen ebanjelioan, noski, honela irakurtzen dugu: Tomak, oraino «sinesgogor» zelarik ezagutu zuela Jesus. Baina begira dezagun hurbilagotik. Toma ez da Kristori bere burua ematea ukatzen dion gizona, ebanjelioak dakartzan hitz hauk esan dituen apostolua baizik: «Goazen geu ere eta hil gaitezen harekin» (Jn 11,16). Eta agerpen honen kontakizuna, hitz hauekin amaitzen da hain zuzen: «Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak» (Jn 20,29). Hona, beraz, ardurazko den gauza: Jaunari bere burua ematen dion edonork, Jauna hurbil duela sinets dezake, hura ikusi gabe ere. Bestalde, Tomak aitortzen duena, bere begiz ikusten duena ez baino fedearen argiak ezaguerazten diona da. Izan ere, bere begiz ikus dezakeena baino haruntzago bait doa baieztatzen* duena: «Nire Jaun eta Jainkoa».

Izan ere, ez dugu ahantzi behar, kreatura berria dela Jaun berbiztua. Berarekin harremanetan elkartzeko, entzumena eta ikusmena ez dira aski. Kreazio berriko zentzumen berri hau behar da: fedea, gizakiak bere burua erabat Jainkoaren Izpirituari uztea.

Sinesteko prest ez zegoenak, ez zuen Jesus ezagutuko, agertu balitzaio ere. Aberats gaiztoaren parabolak ukitzen du puntu hori hildakoaren senideez mintzoki: «Moiseri eta Profetei kasorik egiten ez badiete, inor hilen artetik biztuta ere, ez dira horik komentzituko» (Lk 16,31). Hemen dago, Jesus fariseuei eta herri osoari zergatik agertu ez zitzaien hauziaren gakoa*. Ez zuten ezagutuko. Eta guri buruz ere, herri guztiari egindako agerpenak ez zitzaizkigun sinesgarriago gertatuko. Jenderia liluratu egin zela esango zen, agerpenak herri osoari egin izan balitzaizkio.

Ideia pozgarria da, begizko testiguei ere fedea eskatzen zaiela jakitea. Horrez gero, ez dira hain urrun haiek Jonaren

baieztatzen: esaten. **gakoa:** korapiloa.

ezagupidea hartzen dugunongandik, hots, lehendabizi predikua eta predikuan hotsegindako Jesusen Biztueraren mezua hartzen ditugunongandik. Begi hotz bat ez da gauza inoiz Kristoren izaera berbiztua egiaz hautemateko; Kristo berbiztua, Kreazio berri izaki. Hori hautemateko*, zerbait osoagorik behar da: gizaki osoa (*95*).

Oraindik beste galde bat egin daiteke: Zergatik ez ote zen Jauna Elizan era ikuskorrean gelditu? Haren izpirituzko presentziaren hurbiltasuna eta orokortasuna azalduko dizkigun Jaunaren Igokunde misterioaz mintzatzean ihardungo gara berriro puntu horretaz (*147, 275*). Kristoren biztuerak gure biztuerari buruz duen esanahiaz, zeru berri eta lur berriaz diharduen kapituluan emango dugu (*395-398*).

Bazko jaia

Biztueraren ikonografia 141

Kristau artea maitakor ihardun da Jesusen bizitza aintzatsuaren* ageriko une batzu ematen: emakumeak hilobiaren ondoan, Magdalakoa baratze loretsuan, Emausko ikasleak, Jesus eta Hamabiak, Tomari egindako agerpena. Aski berandu, Erdi Aroaren azken aldera, hasi ziren artistak ebanjelioek adierazten ez dutena irudikatzen*: Jesus hilobitik irtetzen. Beharbada, ederrago ere izango da, Jesusek, bere adiskideekin elkartzeko egiten dituen agerpenak *marraztea**, goardiak izu-ikaraz lurreratzen dituen Biztuera marraztea baino.

Biztuera aurkezteko modu berezia, hauxe da: Jauna gurutzean, denbora berean, Neke itxuran eta Biztuera itxuran ematea. Bazkoko aintzak kalbarioan bertan distiratzen du.

Batez ere, Europa hegoaldean aurkitzen ditugu Kristo aintzatsuaren irudiak, zauriz betea eta zapi bakar batez jantzia delarik. Xit* ezagunak zaizkigu bere bihotza erakutsiz dagoen Berbiztuaren irudiak. Jn 19,34 pasartetik (Jesusen saihetsa aztamakilaz* zulatua kontatzen digunetik) harturiko gai horrek, ordea, baliozko artelan gutxi sor arazi du (*132*).

Artzain onaren irudia hasera-haseran agertzen da. Kristaudiak ezagutzen duen Kristoren lehen irudia da. Artzain gaztea, oraino bizarrik gabe, Kristoren nortasunaren sinbolu da: denborari lotu gabea eta gizakiak* heriotzetik askatzen dituena.

Azkenik, haserako kristautasunetik, soiltasun eta edertasun handiko sinbolu hau jaso dugu: *Christos* (XPICTOC) hitzaren lehen bi letrak (XP), garaipen koroaz inguraturik, bertara usoak jatera dato-

hautemateko: ulertzeko. **aintzatsu:** ospetsu. **irudikatzen:** irudiz ematen. **marraztea:** describir, décrire. **xit:** oso. **aztamakilaz:** lantzaz. **gizakiak:** gizon-emakumeak.

zelarik (arima fededunen sinbolu dira usoak). Behean, bi goardia lotan. Gai honi, Bazko aldian, ohorezko lekua zor litzaioke agian kristau familietan. Izan ere, jaiotzeak Jesus jaio dela agerian ipintzen badu, ez ote litzaioke zor sinbolu bat Jesusen biztuerari ere?

Jaunak eman zituen ezagupideak* 142

Ezagupide garrantzitsuenak, ordea, artelanak ez baino Jesusek berak emandako ezagupideak dira (*139*): haren hitza, bataioa, bekatuen barkapena, eukaristia eta haren Izpirituaren esperientzia gure artean: Bazko eguneko poza.

Elizak Jaunaren bizkundearen oroitzapena* egitean, ezagupide hauen bidez egiten du.

Gauez ospatzen da Biztuera. Urteko ordurik sainduenak dira. Ez da hau bezain gau egokirik, fededunek gaubeila* egiteko.

Liturgia, gau horretan, ilunpetan hasten da, argi guztiak itzalirik: Jesus geurekin izan ezean, Jainkoaren itxaropenik gabea izango genukeen ilunpea. Eliz-atarian sua egiten da, eta hartatik argizari bat bizten da, argizari handi bat: gure gaua bere argiz argitzen duen Jaunaren sinbolua da. Eliza ilunera eramaten da argizari zuzi handi hori, eta bertan diren kristau guztiek hartatik bizten dute nork bere kandela. Eliz barrua, dena argi da. Nork bere eskuan, bere barnez bilakatu denaren ezagupidea darama: argi garbia alegia; berez ez baino Jesusi esker bilakatu ere.

Kandela guztiak bizturik, diakonuak *Exultet* abesten du: testu eta doinu ezin ederragoz Jaunaren biztuera aldakarrikatzen duen poz-irrintzi luzea.

Liturgia, tankera soilagoan darrai aurrera. Elizan bilduak jarri egiten dira, Liburu Sainduetako zenbait pasarte entzuteko, tartean otoitz eta kantikak ematen direlarik. Liturgiaren parte hau, gaualdi baten adibide-eredua* dugu. Horrela eman ohi zuten gaua aitzinateko kristauek sarritan. Irakurgai guztiak Testamentu Zaharretik hartuak dira. Bete direnetik, Itun Zaharreko hitzak ere, Jesus ezagutzeko bide gertatzen dira, Emausko dizipuluei gertatu zaizkienez. Lehen irakurgaian, kreazio berriko gau honetan, Kreazioaren poema entzuten dugu (Gn 1,1—2,2). Gero Exodoko pasarte bat (14,25—15,1). Jainkoaren Testamentu Zaharreko «egintza harrigarrietan» nagusienaren oroitzapena eginez: Itsas Gorriko pasaia, Egiptoarren herioa, esklabutzaren amaia. Bataioaren

ezagupide: signos, signes. **oroitzapena:** gogorapena. **gaubeila:** vigilia nocturna, vigile nocturne. **eredua:** etsenplua.

irudia da: gure bekatuak uretan galtzen dira eta Jesusek askatu egiten gaitu, Jainkoaren seme-alaba egiteko. Hirugarren irakurgaiak (Is 4,2-6; 5,1-2) Jerusalenen berrikuntza iragartzen* du. Jesusek ekarririko zeruetako erreinuak, gure bihotzetan burutu nahi du iragarpen hori. Azkenik, Moiseren testamentuak (Dt 31,22—32,4), eman zaiguna zintzo gordetzeko eskatzen digu[20].

Ondoren[21] datorrenerako gertutu nahi gaituzte irakurgai horiek: bataiorako. Elizaren hasera-haseratik, argi berriaren gau honetan eman ohi zen bataioa (*189*). Gaur ere, gau horixe da bataiatzeko garai egokiena. Liturgi burua, bataioko ura sagaratzetik hasten da hurrena, eta ondoren, bataiatzeko norbait balitz, katekumenu nahiz haur jaioberri, bataiatu egiten da. Ondoren, elizkizunean diren kristau guztiek, bataioko agintzak berritu egiten dituzte. Kristo argi berriari ematen zaion erantzun pertsonala da hori.

Bataioaren liturgia honetarako sarrera bezala, sainduen letarien lehen partea errezatzen da, eta bigarren partea konklusiotzat ematen[22]. Gizadi salbatu guztiari egiten zaio dei.

Eta azkenean, meza hasten da, arras jaikiro*. Hitzaren liturgia bitartean, Kristorekiko gure biztueraz mintzo den epistolaren (Kol 3,1-4)[23] eta hilobi hutsaren pasartea dakarren ebanjelioaren artean, lehenbiziko *Alleluia* kantatzen da («gora Jahve» esan nahi duen heberkerazko hitza). Hiru bider abesten da, gero eta doinu garaiagoan*; halako poza, bakea, askapena adiarazten du kantu horrek, non «Izpiritu Sainduaren lehen hegalkada*» deitu bait du norbaitek.

Orduan hasten da eukaristia bera. Berbiztuak bere mahainera deitzen gaitu, eta ogi-zatiketan ezagutzen dugu; gau saindu honetako gailurra* da.

Ospakuntza hau, liturgi aro guztiko handiena, pixkana-pixkana orduz aldatu zen: 1000. urtedanik edo, larunbat saindu goizean egin ohi zen. Ez zen, harrez gero, haintzakotzat hartzen. Baina, 1951.ean, zegokion lekura itzuli zen, eta Bazko gauez ospatzen hasi zen. Liturgia horretan parte hartzeak ez du esan nahi, aitzina bezala, gau guztia beilan eman behar denik. Bestalde, badakigu, aitzinatean ere, ez zutela gau guztia elizan igarotzen. Bataiatzen zen bitartean, jendea etxera joan ohi zen jatera.

20 Irakurgaiok aldatu egin dira; Testamentu Zaharretik hauk hauta daitezke (bi gutienik, beti ere): Gn 1,1—2,2; Gn 22,1-18; Ex 14,15—15,1; Is 54, 5-14; Is 55, 1-11; Ba 3,9-15.32—4,4; Ez 36, 16-28.

21 Ondoren *Aintza zeruetan* dator, orain; Bataioa, berriz, Testamentu Berriko irakurgalaren eta homiliaren ondoren.

22 Letariok laburtu egin dira, eta jarraian ematen.

23 Erm 6,3-11 («Kristo berbiztua ez da gehiago hilen») zatia da Liturgi berrituak dakarrena.

iragartzen: berri ematen. **jaikiro:** alai eta nagusi. **garaiagoan:** goragokoan. **hegalkada:** hegan egitea. **gailurra:** une nagusia.

Bazko igandez meza entzuten duenak, Biztuera ospatzen du noski. Baina, misterioaren muina gau honetan dago, Gabon gaua baino sainduago den honetan, zeren betekuntza* hastapena* baino aintzatsuago bait da.

Gaubeila honetan parte hartzen duenak, ez dezake uste, Gabonetako girorik, bihotz-zistadarik sumatuko duenik. Gabonak, bere kantu hunkikorren* altxorra* dela bide, bere berezitasun propioa du. Orobat Bazkoak ere bere sinbolu aberats eta sakonagoei esker, Eguberriak bake eta samurtasun giroz bezala. Bazkoa bake eta poz giroz karakteriza genezake.

Bazko alaitasuna 143

Alaitasuna! Eutsi erraza ez den, ez eta askoz gutxiago ere, barne jarrera hori eskatzen digu Bazkoak. Gure inguruko gauza on eta pozgarriak zirela bide, Ostiral Sainduko giro tristera sartzen zail bazitzaigun, askoz zailago zaigu, inguruan ditugun kezka eta nekeak direla bide, Bazko alaitasun girora sartzen. Horretarako, zeure buruaz ahantzi behar duzu, eta fede sendoa ukan*. Batez ere, kontutan harturik poz hori ihauterietako alaitasuna ezbezalakoa dela; honek, gauza asko ahantz erazten bait dizu, edota alde onetik har arazten. Bazko poza, ordea, argia, gardena* da. Errealitateari aurrez-aurre begiratzen dio; heriotzeari berari ere bai; heriotzea baino haruntzago doan Jesusen bizitzan finkatzen delako. «Non da, heriotze, zure eztena?» (1 Kor 15,55). Alaitasun honen berezitasun aparteko bat bekatuen barkapenari lotua egotea da (*69*). Bataioak —edo «bigarren bataio» den aitortzak— Jesusen barkapena eman die fededunei. «Munduko lekuren batetan alaitasunik baldin bada, bihotz garbikoarena da» (*Kristoren Imitazioa*).

Bazkoak damaigun alaitasuna, munduan den alaitasunik garbiena da. Hori nolarebait adiarazi nahirik, familia ukan berri duen amaren pozarekin gonbaratzen du Jesusek (Jn 16, 21-22). Izpiritu Sainduaren fruitu da. Horrez gero, Jesusek, Bazko egunean eztiki apostoluei hots eginez egin zuen keinuari atxekirik* dago alaitasun hori. Bataioa, hitza, eukaristia bezalaxe, Kristo gure artean dagoenaren ezagupide edo seinale bat da.

Eta Izpirituaren beste edozein dohain bezala, alaitasun hau ere ez dago lurtar eragipenik gabe. Agerkundeak* ez ditu desegiten gauza arruntak; bere egiten ditu. Horregatik, giroa

betekuntza: burutzea. **hastapena:** hasera. **hunkikorren:** xamurren. **altxorra:** aberastasuna. **ukan:** eduki. **gardena:** garbia. **atxekirik:** oraturik, loturik. **agerkunde:** rebelazio.

sortzen duen orok du zerikusiren bat Bazko alaitasun honekin; gorputz osasuna dela, musika dela. Baina, muina, iturritzat Berbiztua bera dadukan bakean dago: «Bakea uzten dizuet..., nik ez dizuet munduak bezala ematen» (Jn 14,27).

Kristau alaitasuna erauzi* ezinekoa da, eta horixe da haren jainkozko jatorriaren seinale. Oinazetan, hestuasunetan*, larritasunetan eta atsekabeetan (*239*) bakeak, ziurtasunak zutik irauten du, muin bezala, bihotz barnean: (*255*) «Eta zuen poz hori inortxok ere ez dizue kenduko» (Jn 16,22) (*404*). Egia da oinazeak hainbateraino hartuta dagoen zenbait garaitan, ezin mintza daitekeela inor alaitasunaz. Baina, orduan ere, bake eta segurantzia izeneko zerbait baduzu. Kezkaren hondoenean, ia suma ezineko bakea han geratu ohi da; dudaren hondo-hondoan halako ia ikusezineko segurantzia bat.

Zenbateraino sumatuko ote dugu bake hori zentzumenetako gauza bezala? Hori, Jainkoaren baitan dago, haren dohainaren baitan. Horregatik, ez duzu garantiarik, Bazko gauean zentzumenetako alaitasunik ukaiteko*. Jainkoaren zenbait zerbitzari handik sumatu ohi du, inoiz, batez ere jai egunetan, zaputzaldi handirik: barne poza urrunduz, duda eta erorialdia dakarkiolarik. Baina, sarriagotan, egiaz Jaunarengana bihurtzen denarentzat, jai handiak pozaldi handi gertatu ohi dira.

Kontuz ordea; ez dezagun jo Bazko beilara (ez eta Gabon gaueko mezatara ere) poz-gordailua* egiteko ustetan; jo dezagun hartara, Jauna topatzekotan. Berari dagokio zer eman erabakitzea.

Bazko igandea 144

Gure igande guztien jatorria, Bazko eguna dugu. Jauna larunbat biharamunean biztu delako, egun hori, beren jai egun bihurtu dute kristauek (ikus «Jaunaren eguna» kapitulua). Ordudanik, igande bakoitzean Biztueraren oroitzapena* egiten dugu. Bazkoa, igandeetan igandea, ospatzeko biderik egokiena ez ote da eukaristia berri batez, komunio berri batez, irakurgai berriz (1 Kor 5,7-8 eta Mk 16,1-7), kantu eta otoitz berriz ospatzea?

Meza saindurako testu berrien hautaketa honi Bazko aste guztian jarraitzen zaio. Aste osoa Bazko jaiaren luzapena da. Aitzina, aste horretako egun bakoitza igande bezala ospatu ohi zen. Bataiatu-berriak beren jantzi zuriz ibili ohi ziren as-

erauzi: suntsitu. **hestuasun:** neke. **ukaiteko:** edukitzeko. **zaputzaldi:** abandono, abandon. **poz-gordailua:** poz-ugaritasun. **oroitzapena:** gogorapena.

te osoan. Hurrengo igandez kendu ohi zituzten. Baina, Bazko alaitasuna ez zen amaitzen Bazko zortzihurrena bukatzen duen *Quasimodo* edo *In albis* igandearekin. Mendekosteraino (Bazko ondoko 50. eguneraino) dihardu liturgiak *Alleluia* etengabean. Ebanjelioak, Artzain Onaz, eta Jesusek gure artean bere Izpirituaren bidez geratzeko egin zuen agintzaz mintzo dira.

Aita Jainkoaren eskuinaldean jarririk dagoena

Bere biztueraz, Jesus Aitarenean dago 145

Non ote zegoen Jesus Bazko ondorengo berrogei egunetan, bere ikasleei agertzen zitzaienean? Palestinako txokoren batetan ote zegoen, bakar-bakarrik, tarteka bere dizipuluei agertzen zitzaielarik? Ez. Jesus Aitarenean zegoen. «Handik», ikuskor eta ukikor bihurtzen zitzaien haiei.

Horrez gero, biztu orduko igo ote da, bada, Jesus zeruetara? Begira, Bazko egun goizean Magdalako Mariarekin egiten duen topaketari. Ez «eusteko»* esaten dio Jesusek. Lehenagoko egoerarenak egin du, lurtar hurbiltasun normala amaitu da. Bere egoitza Aitarenean du. «Igotzeaz» mintzo da.

«Oraindik ez naiz neure Aitarengana igo...» «Zoaz nire senideengana eta esaiezu: neure eta zuen Aitarengana noa igotzera, neure eta zuen Jainkoarengana» (Jn 20,17).

Nahiz eta hitz hauetan puntu ilun asko oraindik gelditu, hauen mezuaren muina garbi dago: Biztea eta Aitarenean egotea bata bestearekin doazenak dira. Testamentu Berriko beste zenbait testuri gauza bera dario: Jauna, bere biztueraz, Aitaren eskuinean dagoela.

Batez ere, Lukaren testu batek argi adierazten du «Aitaren ondoan egote» hori. Ebanjelariak hau kontatzen du: Jauna, azken agurra esan eta bedeinkatu ondoren, ez dela Emausen bezala bapatean izkutatu; zeruetara igoz doa. Gainerako agerpen kontakizunetan, puntu hau azpimarratu* zen: «Ni zuekin egonen naiz»; pasarte honek, berriz, hitz hauk ohar erazten dizkigu: «Aitarengana noa». Baina, Jesus han dago, Aitarenean, bere berbiztetik, eta gure artean dago Igokundearen* ondoren ere.

Igokundearen kontakizuna arras sinplea da. Ez da goraipakuntza arranditsu*, jentil mitoetan edo zenbait antzerki lanetan bezala; hauxe adierazten da soil-soil: nora doan: Aitarengana doa. Apur bat altxatu, eta hodei baten pean izkutatu

eusteko: atxekitzeko. **azpimarratu:** nabarmendu, garrantzia eman. **Igokundea:** zerura Igotzea. **arranditsu:** zaratatsu, ohoretsu.

zen. Hodei horrek Jainkoaren presentzia adierazten du (ikus Lk 9,34-35 eta beste mila pasarte Testamentu Zaharrean) (*50*). Denbora berean, gizonaren semea, azken egunean bihurtzean, etorriko deneko «zeruko hodeiak» idarokitzen* ditu hodei horrek.

Ez dezagun pentsa Ebanjelioak honelakorik adierazi nahi digunik: apostoluen begietatik hodeipean izkutatua izan ondoren, Jesus, atmosferako estalduraz-estaldura* igo zela Aitarengana iritsi arte. Ez. Kristo aintzatuak ez du, guk bezala, haruntz-honuntz ibili beharrik. Bestalde, ez Aita, ez zerua, ez daude «goian». «Gora» bide hori, honengatik hautatu zen: zeru sapaiak, bere argi eta tarteune handiz, ongi baino hobekiago sinbolizatzen duelako Jainkoaren egoitza*. Baina Jesusen Aita ez dago toki jakin bati atxekia* (Jn 4,24).

Toki-itxurapen oro, beraz, baztertu egin behar dugu. Dakiguna hauxe da: Jesus, Jesus gizakia, Aitaren ondoan dagoela; gizakia: bere gorputzez, beraz, baina ez lurtar gorputzez. Zein ote den izakera hori, kreazio berriaren hasera hori? Ez dakigu. Ez gara oraino kreazio berrian erabat bizi. Bizitzaldi horretako izakera ezezaguna zaigu (ikus gai honetaz «Berbiztuko dira» paragrafoa) (*396*). Atxeki gakizkion, beraz, Liburu Sainduetako esakunari*. «Aitaren eskuinean jarririk dago». Hori ere irudi bat da, Aitak ez bait du «eskuinik». Baina gutako nornahi jabetzen da hitz horrek adierazten dituen aintzaz eta maitasunaz.

Hitz bitan esateko, bere biztueraz Aitaren ondoan dago Jesus. Jesusen agerpenen azken kontakizunak, mezu hori, keinu sinboliko batez agertzen du: Igokundeaz. Jesusen oraingo izateari dagokionez... badakigu Aitaren maitasunean bizi dela.

Guztia, harenganuntz haziz doa 146

Jesus, «Guztia betetzeko... igo» dela dio Paulok (Ef 4,10) (*416*). Jesus gizakia, Jainkoaren kreazioaren muina edo erdigunea da. Guztia harengana zuzentzen da; munduan haziz doan oro, munduan haziz doan pertsona oro: dena dakar Beragana. Izan ere, Harengan Jainkoa agertu bait da. Hori guztia, Paulok, goratzarre honetan adierazten du:

> «Bera da Jainko ikusezinaren irudi,
> sorkari* guztietan lehena.
> Zeren harengan izan bait ziren sortuak gauza guztiak,
> zeruetan eta lurrean
> ikus daitezkeenak eta ikusezinak,

idarokitzen: bururatzen, gogoratzen. **estaldura:** maila. **egoitza:** bizilekua. **atxekia:** lotua. **esakuna:** esaldia. **sorkari:** kreatura.

Tronu nahiz Jauntasunak,
Printzipatu nahiz Botereak:
harengatik eta harentzat izan zen dena sortua.
Bera da guztiaren aurretik
eta harengan du guztiak iraupen.
Bera da Gorputzaren Burua ere, Elizarena alegia;
Bera da Hasera,
hilen artean Lehen-jaioa,
(beharrezko bait zen zernahitan nagusitasuna berak edukitzea).
Jainkoaren gogoa izan da holaxe:
Osotasun oro horrengan biltzea
eta horren bitartez izaki denak bere buruarekin adiskidetzea:
bai lurrean, bai zeruetan,
horren gurutzeko odolaren bidez bakeak eginez»
(Kol 1,15-20).

Kristoren presentzia iraunkorra 147

Jesus zeruetara igotzean, ez da gehiago agerian gure begietan; hori dela eta, hona gure galdea: Zergatik ez zuen gelditu behar lurrean, gure artean, ikusteko moduan?

Erantzuna: «Ni joatea komeni zaizue. Ba, ni joaten ez baldin banaiz, ez zaizue Parakletoa etorriko. Ni joaten banaiz, berriz, neronek bidaliko dizuet» (Jn 16,7).

Jesusen giza irudiaren ordain, Parakletoaren presentzia ematen zaigu; Parakletoa, hots, Izpiritu Saindua; guretzat hobekiago dena, Jesusen hitzetan.

Izpirituak, Jesusen giza irudiak egin zezakeen baino barnekiago* lotzen gaitu Jesusekin. Horrela, sakonago sar daiteke Jauna gure baitara; modu orokorragoan* egon daiteke munduan. Horregatik, Jesusen presentzia, Magdalako Mariak nahi zuen bezala, tankera ikuskorrean «eutsiz» ez baino Izpiritua hartuz izanen dugu. Izpiritua, izan ere, Jesusen Izpiritua bait da: «Ez dizue hark bere buruz hitz egingo... niretik hartuko bait du eta zuei emango dizue» (Jn 16,13-14).

Ikuskor dena, begiz ikusten gauza aski erraza da; baina Jesusenganako bidea, bihotz arretatsuak bakarrik aurki dezake. «Zorionekoak bihotz garbiak, Jainkoa ikusiko bait dute» (Mt 5,8).

Jesus ez da bizi ordutik gure artean, gizakien artean, beste gizaki bat bezala; baina egon, gu guztiongan dago. Hori guretzat, mandatua* eta aukera da batera. Guri dagokigu Jainkoa gorestea geure lurtar bizitzaz.

---

barnekiago: barrutikago. **orokorragoan:** zabalagoan, jeneralagoan. **mandatua:** misioa.

Elizaren bizitza osoa, prediku, sakramendu, Izpiritu Saindu, atsekabe eta pozaldi, kementasun eta ahulaldi, bizitza eta heriotza: dena —bere gorabehera eta guzti— Jesusen bizitzaren jarraipen da. Horregatik, ez litzateke egia, Jauna gaur egun ikuskor ez dela esatea. Ikuskor da (*199*), beste modu batetara izatea dela bakarrik. Jesusen izate berbiztua munduan ikusteko moduan gertatzen da gizakiengan. Baina gu zer garen, ez da guztiz agertua; «Kristorekin Jainkoagan gorderik dago zuen bizitza» (Kol 3,3). Gure bizitzak kreazio berrian bere betetasuna iritsi arte, Jesus ez da guztiz agertuko (*194, 235*).

Betekuntza* honetaz, alabaina, ez gaitezen lasterregi has «Jaunaren itzuleraz» mintzatzen; esakun hori ez dator Testamentu Berrian. Jauna ez dator; gure artean bait dago jadanik*. Gertatzen dena, hauxe da: Jesusen presentzia bete egingo dela orduan.

Berrogei egunez, Jesusen agerpenen irudi izan den bazko zuzia*, itzali egiten da ebanjelio ondoren, igokunde jaiko mezatan.

Ondorengo bederatzi egunak, zain-zain igarotzen ditu Elizak: Izpirituaren bidez Jesusen presentzia berriz agertu zain. Bederatzi egun horik, Luka Sainduak dakarrenez, apostoluek Jesusen anaiekin, Galileako zenbait emaztekirekin* eta Mariarekin, otoitzean egin zituztenak dira. Bederatzi egunez otoitzean zain egote horretatik sortu da bederatzi egunez etengabeko otoitzean egoteko ohitura. Bederatzihurrena da. Mendekoste aurrekoa, garrantzitsuena da; Izpiritu Saindua gureganatzeko otoitza da.

Babeslea* bidaliko dizuet

Aginduriko Izpiritua 148

«Inor egarri bada, nigana etor, eta edan dezala. Hura sinesten zutenek hartuko zuten Izpirituaz esan zuen hau» (Jn 7,38-39).

Izpiritu Saindua, ur freskagarria bezala da eta, denbora berean, su kiskalgarria bezala. Heberkeraz, Testamentu Zaharreko hizkuntzaz, «Izpiritu» hitzak, «hatsa» edo «arnasa» ere esan nahi du; orobat «haize» ere.

Ur, su, arnasa, haize: Jainkoaren izpirituak, bera hartzen duenarengan sortzen duen zarrasta adierazteko erabiltzen diren gaiak eta ezagupideak dira.

---

betekuntza: osakuntza. **jadanik:** orain, dagoeneko. **zuzia:** argia. **emazteki:** emakume. **Babeslea:** Begiralea, protector, protecteur.

Testamentu Zaharrak berak erabiltzen zuen «izpiritu» hitza Jainkoaren dohaina adierazteko. Indar kreatzailea, bizitza sortzen duen indarra batez ere. Jainkoaren arnasa, Jainko Izpirituа, deitzen zuen Testamentu Zaharrak. Gainera, Jainko Izpirituaz mintzatu ohi zen, salbamendurako asmoz norbaiti egindako dohain harrigarriren bat adierazteko. Sansonen indarra bera ere, Jainkoaren «izpiritu» deitu ohi da, indar horren bitartez herriari batasunean eusten zaiolako (Ep 13,25; 14,6.19; 15,14). Profetatza dohaina ere, Jahveren izpirituak isuria zen (1 S 10,6; Ez 11,5; Za 7,12). Herriko zaharren jakinduria, zuzen epaitzeko bidea ematen ziena, Jainkoaren izpirituarengandik zetorkien (Zenb 11,17). Errege Jainkoaren izpirituz gantzutzen* da (1 S 16,13). Izpirituaren eragipen* horik, Sansonen kasuan bezala, tankera arras primitibuan agertu ohi ziren sarritan, garaiko giro izpiritualari eta materialari zegokionez. Beti pertsona banakoaren dohain izan ohi ziren, inoiz ez herri osoarena.

Baina, bazen Testamentu Zaharrean itxaropen bat, herri osoari emango zitzaion izpiritu garaiago* eta sakonago baten itxaropena. Egun batez, gizaseme gazte bat joan zitzaion Moiseri, bi gizon iragarketan* ari zirela esanez; eta iragarri, ez zuten Itun etxolan* iragartzen, landako eguzkipean baizik. Josuek honela hotsegin zion:

> «Nire Jaun, Moise, ez iezaiezu holakorik utz! Eta Moisek erantzun zion: Nahiago nuke herri osoa iragarketan hasiko balitz, Jaunak guztiei bere Izpirituа emanda!» (Zenb 11, 26-29).

Eta geroago, Joel profetaren egunetan, larrapote* izurriak datorkeen Jahveren eguna idaroki* zuenean, profetak, egun horretaz mintzoki*, hauzia eta zoritxarra bakarrik ez baino izpirituaren isuri orokorra ere iragarri zuen:

> «Harrez gero
> haragi guztiren gain isuriko dut neure Izpirituа,
> iragarri egingo dute zuen seme-alabek,
> ametsak ukanen dituzte zuen agureek,
> eta ikuskariak ikusiko dituzte zuen mutil gazteek.
> Gizon eta emakume esklabuen gain ere
> neure Izpirituа isuriko dut nik egun haietan.
> ... Sion mendian eta
> Jerusalenen izango da non salbaturik» (Jl 3,1-5).

Herri osoa Jainkoaren Izpirituak bizitua! Guztiei emanen zitzaizkien iragarpenezko ikuskizunetan eta gertakari harrigarrietan pentsatzen zuen Joelek. Ezekielek, aldiz, ondorio arruntago baina sakonagoa barruntatzen* du:

> «Neure izpirituа jarriko dut zuen baitan eta nere legeen arabera ibilaraziko zaituztet, nere ohiturak bete eta jarrai

gantzutzen: igurtzitzen. **eragipen:** eragin. **garaiago:** handiago. **iragarketan:** profetizatzen. **etxola:** tienda. **larrapote:** matxinsalto. **idaroki:** gogoratu. **mintzoki:** hitzegitean. **barruntatzen:** ikusten.

araziko dizkizuet. Bihotz berri bat emango dizuet eta izpiritu berri bat jarriko dizuet barnean...» (Ez 36,27-28).

Eta Jeremiak:

«Elkartasun berri bat, bai! Bere erraietara sartuko diot eta bihotzean idatziko» (Jr 31,31-33).

Hona Izpirituaren lana: barnetik eramanpenez irakatsi, Jainkoaren nahiaz, eztiki eta maitasunez jaberazi.

Ezekielen eta Jeremiaren testu hauekin, Testamentu Zaharreko izpiritu-bidearen gailurra jotzen dugu. Jesusen azken dohaina adierazten dute, Jesusen salbamendu egintzaren garakundea*, Jainkoaren erreinua ezartzekotan dagien azken keinua.

Izpirituaren dohaina 149

Izpiritua ematen du Jesusek. Bere heriotze eroslearen ondoren, Izpiritua dario Jesusi berehalaxe. «Edan dezala nigan sinesten duenak» (Jn 7,38) (*132*). Bataioa sinbolizatzen duen urak, Izpiritua adierazten du era berean. Ura eta Izpiritua «gauza bat bakarra» dira, edo «bat datoz» (1 Jn 5,8). Bazko arratsaldean, bere Izpiritua eman die Jesusek bere apostoluei, hauen gain *hats* eginez. Berariz* dio hori.

Testamentu Berriak, Izpirituaren beste isuri* asko adierazten du haserako Elizan. Batez ere, ordea, Bazko ondorengo berrogei eta hamargarren egunean, gertatu zen lehen isuria azpimarratzen da. Egun hartan, Itun berriaren dohaina, ageri-agerian eman zitzaien apostoluei eta hauen adiskideei. Haize bolara bortitza entzun zen, su-mihiak ikusi ziren, eta apostoluek, gainezkaturik*, hizkuntza arrotzetan* hitzegiteari ekin zioten.

Zer ziren «hizkuntza arrotz» horik? Paulo sainduak korintotarren kartan (1 Kor 12 eta 14) aipatzen duena: extasibidezko hizkuntza ulergaitza, baina isuria, hitzik gabe adierazten zuena? Ala, nork bere hizkuntzara itzuliak bezala ulertzen zituen hitz haik? Ez dakigu; eta egia esan, ez da joan-etorri* handiko gauza. Axolazkoa hauxe da: bapatean batasun handi bat sortzen dela jendearen artean. Lukak apropos izendatzen ditu herri horik guztiak, zerrenda luze bat (*209*). Babelgo kontakizunak zekarren egoera, hizkuntza desberdinez agertzen zen etsaigoa eta nahaspila, Mendekostez aldatu egiten dira. Gizakiek, «bihotz bat eta arima bat» (Ap Eg 4,32) besterik ez dute egiten geroztik (*178, 281, 288, 350, 352*).

garakundea: cénit. **berariz:** garbiki. **isuri:** emanaldi. **gainezkatu:** extasiados, transportés. **arrotz:** kanpoko, ezezagun. **joan-etorri:** garrantzi.

Horditurik* zeudela ematen zuten apostoluek. Jendeak hala zioen, eta Kepak honela ebakitzen du zorrotz:

> «Gizon hauk ez daude hordi zuek uste duzuen bezala. Egunaren hirugarren ordua besterik ez da eta oraindik» (Ap Eg 2,15).

Gertatuak, haatik*, apostoluei jendeak zer zerizkion adierazten digu: beren baitatik ateratako pertsona bezala hartu zituen jendeak. Honela idatziko die Paulok Efesotarrei geroago: «Ez zaitezte ardoz hordi... aitzitik, Izpirituz bete zeuron buruak» (Ef 6,18). Paulok ere, Izpirituaren dohaina ardoaren ondorioarekin gonbaratzen du. Izpirituaren dohainak, gainezka egin erazten zuen eta extasi arazi.

Korintotarren lehen kartak (12. eta 14. kap.) argi izpi bat ematen digu ikustera, haserako Elizan Izpirituak bide eman zien gainezkaldi edo extasi horiei buruz (*38*): doinu arrotzetan agertzen zen poz eta harridura parrastada horri buruz (*255*). Jainkoaren dohain orotan, alabaina, badute beren ukitua, bai herri baten izakerak, bai eta berorren erlijio azturak*; gauza bera esan behar, Korintoko kasuan ere. Horregatik, ezin itsu gintezke dohain arrotz eta harrigarri horik direla eta. Bide okerretik joko bait genuke orduan, honela galdeginez: non da, ordea, egun Izpiritu Saindua?

Izpirituaren dohain arruntak 150

Izpirituaren dohain bereziak: hizkuntzak mintzatzea, profezia, sendakuntzak* eta beste batzu, haserako Elizan baino urriago* dira gaurregun; eta hori, lehen esan bezala, erlijio aztura desberdinak direla bide; halaber, behar bada, zimentarriak ematen dituztenen premiak, etxagintza aurrera daramatenenak ezbezalakoak direlako. Gaurregun, Jainkoaren Izpirituaren fruitu «arruntak» ezagutzen ditugu batipat: adimendu, irakaskintza dohainak, eta dohain praktikoak, zerbitzugintzakoak.

Hain dira arruntak, zeren edonon aurki bait daitezke: sukaldean eta egongelan, eskolan eta lantokian. (Ikus «Bizia oparo ukan dezatela» kapitulutik, «Kristauaren otoitza» kapitulura arte). Eta dohain hauk, hain zuzen, garaienak eta funtsezkoenak dira (*38,255*). Hala dio Paulo sainduak korintotarren lehen epistolako 12. eta 14. kapituluetan, eta, batez ere, 13. kapitulu ezagunean. Adiarazpena*, extasia baino garrantzitsuago da; baliotsuago bait da Elizaren eraikuntzarako* (1 Kor 14,5.19). Maitasuna, hizkuntzak mintzatzea baino hobe

horditurik: mozkorturik. **haatik:** halere. **azturak:** ohiturak. **sendakuntzak:** osakuntzak, curaciones, guérisons. **urriago:** gutxiago. **adiarazpena:** interpretazioa. **eraikuntzarako:** jasotzeko.

da (*101*). «Gizonen eta aingeruen hizkuntzak hitzegiten banekitza ere, maitasunik ez banu, brontze-puska dulundari edo zinbalo dilindari bat besterik ez nintzateke» (1 Kor 13,1). Horrela bada, Izpiritu Saindua, gauza «arruntena den horretan», kristau maitasunean alegia, hor dago; izan ere, munduan ez bait da gauza handiagorik.

Izpiritu Sainduaren egintzaz dakarren adierazpenik garbiena, Galaziakoei egindako epistolan ematen digu Paulok:

> «Izpirituaren fruitua karitatea da, poza, bakea, bihotz-zabaltasuna, laguntzeko prestutasuna, ontasuna, besteengan konfiantza edukitzea, gozotasuna, nork bere burua nagusitzea» (Ga 5,22-23).

Kristau bizitza, isileko leialtasuna, onginahiezko ontasuna (adibidez, bizitza guztia gaixoei eskainiz), eginbeharra isilik egitea (ama batena, adibidez), Jainkoa norberaren bihotza baino handiago delako bekatariaren uste sendoa, eta tentaldian iraupena, zailtasunean dabilen hurkoarekiko laguntasun beroa, Jainkoarekiko egiazko maitasuna, otoitz isileko iraupen sutsua, oinazetan eramanpena*, barru baketsuaren poza: horrela luzatzen ahal genuke Pauloren zerrenda. Horra gaur egun Izpirituaren egintza. (Ikus orobat sendotza sakramenduaz emandako kapitulua) (*205*).

Izpiritu Sainduaren zazpi dohainez mintzo ohi gara eskuarki*. Horren jatorria, Isaiarengan dago (Is 11,1-3); pasarte horretan, profetak, Jahveren Izpiritua Mesiaren gain kokatuko* dela bait dio: jakinduri eta adimen izpiritua, aholku eta indar izpiritua, ezaguera izpiritua, eraspen eta beldur izpiritua.

Guregan, korinkotarrengan bezala, giza faktoreek —ariurriak*, azturek, familiako giroak— badute beren eragina Izpirituaren egintza modurako. Hain zuzen, Izpirituak guregan, gure berezitasunen bidez eta zehar dihardu; Izpiritu Saindua izan badenik ez dakitenengan ere orobat.

Izpiritu Sainduaren dohain bereziak 151

Halaz guztiz, gaurregun ere bada Izpirituaren dohain berezi eta harrigarririk. Haserako Elizan bezala, elkartea eraikitzeko* eta hazi erazteko diren dohain bakanak dira. Izpirituaren lehen dohaina, lehen «karisma», kristau bizitza arrunta delarik ere, «karisma» edo Izpirituaren dohain izena, ez-ohizko dohainei eman ohi zaie batez ere. Egungo karismak, haserako Elizan agertzen zirenak ezbezalakoak dira; premiak

---

eramanpena: pazientzia. **eskuarki:** komunzki, jeneralean. **kokatuko:** jarriko. **ariurria:** jite, izaera. **eraikitzeko:** jasotzeko.

ere hala dira eta. Aipa ditzagun egungo batzu: kristau herriari bihotz-emateko gaitasun harrigarria, irakaspen argitsua (teologia), ikusmira zabaleko agintaritza, zenbait artelanen bizitasuna, hezketa (gurasoen nahiz besteren aldetik) eta, azkenik, kristau bizitza arrunta harrigarrikiro (sainduki) bizitzeko dohaina.

Dohain horik, sarritan, kutsagarri dira, eta pertsona banakoak* baino areago, taldeei eragiten diete. Badira ere, Izpirituari bereziki irekiak diren lekuak; hori, jakina, ez dario lekuari berari, haruntz jotzen duten kristauen fedeari baizik: Belen, Lourdes, Erroma... (*397*).

Kontutan hartzekoa da, Bazko eta Mendekoste egunez, Izpiritua hartu zuten lehenbizikoak, Kepa eta gainerako apostoluak izan zirela, hau da, Elizaren zuzendari izango zirenak (*106*). Izpiritua, guztien gain agintaritza arruntaz baliatzen da; eta inor ez da inoiz ere jabetuko, Elizako erantzupidedunen* bidez, gizon handi nahiz apal izan direlarik ere, lurrean zabaldu izan den maitasun, poz, bake, eramanpen, samurtasun, ontasun, leialtasun, eztitasun eta eraspenaren* handiaz (*296*). Haien eginpidea ere karismak ordenatzeko da: gainerako karismen garbitasuna aztertzea dagokie. Honela dio Paulok:

> «Inork bere burua Profetatzat edo Izpirituak eragindakotzat badaduka, Jaunaren agindua ezagun dezala nik esandako honetan. Hola ezagutzen ez badu, seinale ez dela bera ere halakotzat ezagutua» (1 Kor 14,37-38).

Ordena, Jainkoaren Izpirituaren dohainetarik da: «Jainkoa ez da desordenaren Jainko, eta bai bakearena» (1 Kor 14, 33). Artzaingoak karismen ardura du, eta izpirituak bereizten ditu. Horretarako bide aparta, kontzilioa izan ohi da. Halere, apaiz eta kristau soilen karismak osagarri gertatu ohi zaizkio Elizari. Asisko Frantziskok, esate baterako, diakonu soil zelarik, bide berriak erakutsi zizkion Aita Sainduari.

Jakina, karisma desberdinen artean istilurik* sortu ohi da inoiz. Dohainak banatuak izate hutsak hau dakar: batek besteri falta zaiona ukan* ohi duela, eta alderantziz*. Horregatik, ez-ohizko karismari, gehienetan, nola-halako neke bat darraio. Geure aldetik borondaterik handiena ukanik ere, ez dugu ukaiten bestearekiko, berak eskubide osoz guregandik espero duen adikortasun edo konprentsiorik. Dohain pertsonal oro mugatua da, eta hurkoaren dohainak itzal egin ohi dio. Behar dena, gozo irautea da, mingoztasunari aldegitea eta eramanpenez eustea. Horrela egin ezik, karismaduna etsipenera eror daiteke, edota bere barnera sarturik egoera horren kontra asaldatuko* da. Izpirituarekin bideari ekin, eta

banakoak: bakarrak. **erantzupidedun:** buruzagi. **eraspen:** piedad, piété. **istilu:** eztabaida. **ukan:** eduki. **alderantziz:** kontrakoz, beste aldera. **asaldatuko:** altxako, erreboltatuko.

etenik eta bakarrik geldi. Etengabean egiztatu behar da Jainkoaren dohaina. Hala dio Jesusek: «Egon erne!» Norbaitek bere eginpideari* leial eutsiko ez balio, ezin esango litzateke, halakoaren karisma haseran jatorra ez zenik. Hasera ona izaten ahal zen, eta Jainkoaren herriak oinarri horren gainean eraikitzen* ahal du.

Agian, Izpiritu Saindua, mundu honetan, oso gutxitan aurkitzen zelakoan geunden, eta hona: nonahi topatzen dugu. Hauxe gertatzen zen: bestelako izenez adierazten genuela: kristau maitasun, pertsona karismadun, Elizako artzaingo eta apaizgo. Eta «grazia» hitza aipatzean, Izpiritu Sainduaren egintzaz mintzo gara beti (*234*).

Izpiritu ikusezina 152

Izpiritua mundutik izkutatuko balitz, orduantxe nabariko litzateke haren hutsunea! Eman dezagun, herrialde bat urik gabe geratzen dela; ura zedukan bitartean jendeak ez zuen nabari baina gabe gelditu orduko, dena aldatzen da, eta lur emankorra, elkor* bihurtzen da.

Elizak, Izpiritu Sainduari otoitz egiten dionean, horren antzeko gonbarazioaz baliatzen da. Esate baterako, 104. salmuan, bizi indarra adierazteko, Jainkoaren *hats**, Jainkoaren izpiritu deitzen du. Kreatura biziak izpiritu horretaz bizi dira.

> «Zuk aurpegia estaltzen duzula eta hor dira izuak airean,
> arnasa kentzen badiezu, ez dira deus,
> beren hautsetara bihurtzen dira.
> Zuk hats egitean, sortu egiten dira,
> eta berri-berri jartzen duzu lurraren aurpegia»
> (Sal 104,29-30).

Mendekoste eguneko eta ondorengo garaiko liturgia 153

Liturgia, bere otoitzetan, gutxitan zuzentzen zaio Izpiritu Sainduari zuzenean. Izpiritu Sainduak erakusten digun aurpegia Kristoren aurpegia da. Eliza, beraz, ez zaio mintzo *Izpiritu-ari*; eta bai, hobekiago, *Izpiritu-arengan* mintzo; Jesus gure arteko egiten duen eta *Abba, Aitta* esan erazten digun Izpirituarengan. *Harengana* ere zuzen gaitezke, haatik. Inoiz hala egiten du liturgiak ere, batez ere Mendekoste aroan. Mendekoste igandea poz eta eskabide giroan ospatu ohi da.

Ondoren, urtean zeharreko* aroa dator: aro luze horretan, Eliza, zeruetako erreinuan pentsatuz barne-biltzen da. «Mendekoste ondorengo aroa» da: Abenduraino luzatzen de-

eginpidea: eginkizuna. **eraikitzen:** jasotzen (etxea). **elkor:** agor. **hats:** arnasa. **zeharreko:** barnako.

na. Mezako jantziak berdeak ohi dira; itxaropen lasaiaren kolorea, hain zuzen ere.

Baina, liturgia, hiru misterioren oroitzapena* eginez hasten da; kristau herriaren usterako, Bazko garaian aski jaso gabe geratu diren misterioena. Lehena, Mendekoste ondoko zortzigarren egunean. Jesusek bere salbazio egintzaz agertu diguna, Jainko bat hiru pertsonatan delako misterioa: Aita bidaltzailea Seme bidalia, bien dohain den Izpiritua (*415--417*). Hirutasun xit sainduaren igandea da.

Hurrengo ostegunean, berriro ere, Ostegun Sainduko misterioa ospatzen du Elizak, *Corpus* jaia da: ogi-ardoetan Jauna dagoela (Ikus «Azken Afaria» eta «Eukaristia» kapituluak).

Zortzi egun geroago, ostiralez (*131*), Ostiral Sainduko misterio bat gogoratzen da beste behin: Jesusen Bihotz zulatua (*141*). Bide batez, berbizte misterioa da: horretan Kristok bere baitako gun* distiratsua agertzen digu. Hilaren lehenbiziko ostiralean misterio honen oroitzapena egiteko ohitura bada.

Horrela, beraz, eroskundearen* zenbait misterio berriro ospatzen da. Ihardunbide* hau esanahi handikoa da (*45*). Salbamendua Mendekoste egunean ez dela amaitzen esan nahi du. Aldiz, Izpirituaren etorrerak, Kristo gure arteko bihurtzen du, eta betirako gainera, eta salbamendu misterio guztiekin (*275*).

Izpiritu Sainduak gizakien bizitzan burutzen duen egintza, sainduen jaietan ospatzen du liturgiak (berauen heriotze eguna jaiotze bezala ospatuz) (*165*). Horrela, liturgi aroan zehar, nortasun ezberdineneko pertsonak ospatu ohi dira. Azaroaren batean, Saindu Guztien egunez, Izpirituaren gidaritzapean bizi izan nahi duten guztien jaia egin ohi da (*397*): «ehun eta berrogei eta lau milarena» eta «zenbatu ezineko gizatalde izugarriena», egun bereko epistolak dioenez[24].

Ebanjelioan zorionbideak irakurri ohi dira (*67*).

Kristau arteak, Mendekoste misterioari dagokiolarik, Maria Apostolu taldearen erdian irudikatzen* du. Buruan sugarra duelarik. Jesusen Izpirituak betetzen duen Elizaren irudia da (*51*).

Eliza horretan bizitzeko aukera eman zaigu, Izpiritu Sainduak berotzen eta argitzen duen, eta gizonaren Semeak «bere ondotik joatera» deitzen duen Elizan.

24 Lehen irakurgaiak (Ap 7,24. 9-14) dio hori; bigarrena, 1 Jn 3,1-3 zatia da («Jainkoa den bezala ikusiko dugu»).

oroitzapena: gogorapena. **gun:** muin. **eroskunde:** redención, rédemption. **ihardunbide:** jokabide. **irudikatzen:** irudiz ematen.

Laugarren zatia

Kristoren bidea

Haserako bozkarioa

Izpiritu Sainduaren etorrera eta Keparen* hitzaldia adierazi ondoren, honako hitz hauekin jarraitzen zaio kontakizuna:

> «Beraz haren hitza onartuz, bataiarazi egin ziren. Hiruren bat mila lagun batu zen egun hartan.
>
> Eta hala, tinko jarraitzen zuten Apostoluek irakatsitakoan, fededun elkartzeari, ogi-zatitzeari eta otoitzari leial eutsiz. Izuak jota zeuden denak: asko ere, asko bait ziren apostoluek eginiko mirari eta ezagupideak. Gogo batez, denentzat izaten zuten zedukatena dena. Zituzten sail eta ondasunak salduz, guztien artean banatzen zuten irabazia, nori bere premiaren neurrian emanez. Egunoro-egunoro, bihotz bat eginik, gogotsu eta maiz joaten ziren Tenplora, beren etxeetan egiten zuten ogi-zatitzea, alai eta bihotz xalotasunez beren jatekoa hartuz. Jainkoa goratzen zuten, eta ondo ikusiak ziren herrian. Eta Jaunak egunean baino egunean gehitzen zizkion elkarteari salbatzeko ziren lagunak» (Ap Eg 2,41-47).

Zerutar salbamenduaren etorrera, honelako mintzamolde* soilaz* kontatzen zaigu: Pertsona sailtxo batek, Jerusalenen, zera sinesten du: Jesusengan herioa garaitua izan dela, Izpiritu saindua jaitsi eta bekatua barkatua izan dela. Gertakari handienak —diote— ezarian-ezarian* gertatzen dira. Eta salbamenduak ere honelaxe egin zuen sarrera mundura, poliki-poliki eta zaratarik* gabe.

Apostoluen Eginak liburuko lerro horietan ere, gaurko Eliza bera nabari dugu: herria, bataioa, dotrina, ogi-zatiketa, erlijiozko beldurra (Jainkoa egotez eta egitez tartean dagoelako ustea alegia), Apostoluen agintea, elkarri laguntzea, ondasunen batasuna (gaur molde berriz, esate baterako, diru eske eta pobretasun botoaz biziko litzateke hori), Bozkarioa, kristau ez direnen aldetik halako usteon apurra.

Kepa: Pedro, Pierre. **mintzamolde:** hizkera. **soilaz:** sinpleaz. **ezarian-ezarian:** emeki-emeki. **zarata:** arrabots.

Zinez*, gaur kezkatzen gaituen zenbait prolemarik ez zen orduan. Gutxi ziren fededunak. Egunsentiko hezetasuna zerion* kristau bizitzari. Horregatik, beti izan zaio atsegin Elizari lehen egun haietako Bozkario hura gogoratzea; batez ere, bere berrikuntz alditan; adibidez, XIII. mendean, XVI.ean (*175*) geurean (*177*). Hasera hartako soiltasunak eraginik gabiltza.

Haserako nekeak 155

Haatik*, bai *Apostoluen Eginak* liburuan, bai Pauloren idazkietan, orduan ere nekerik bazela ikusten dugu, barnetik nahiz kanpotik zetorren eragozpenik alegia. Hor ere gaurko gure Eliza nabari dugu. Prolemarik, beti izan du Elizak.

Haseran sortu zen prolemarik garrantzitsuenetakoa* hauxe izan zen: aitzinako agerkundearen, hots, judu erlijioaren aurrean zer-nolako jarrera hartu. Izan ere, Eliza sor-berri harek gero eta garbiako ikusten zuen, bere baitan juduak ez zirenak ere har zitzakeela; judu izanik Kristau egin zirenen maila berean hartu ere, eta judu legea betetzera behartzeke. Prolema honi erantsirik, beste gertaera latz hau bizi zuen haserako Elizak: Israelgo herritar gehienek ez zutela Jesus onartu. Eliza Israelen erroturik zegoelarik ere, Jesus, Maria eta apostoluak israeldar zirelarik ere, judu gehienak ez ziren sartu Kristoren elkartera. Halaz guztiz, Jainkoak lehen deituriko herria zen Israel. Herri honen izateak misterio bat darama bere baitan. Paulo juduak, Erromatarrei eginiko epistolaren 9-11 kapituluetan, misterio honen handia barruntarazten digu. Uste osoa du Paulok, egoera hori salbagarri gertatuko dela, juduentzat beraientzat ere. Jainkoaren deia dute aurrerantzean ere; izan ere, «Jainkoaren dohainak eta Berorren deia betirakoak dira» (Erm 11,29). Herri bezala, beste edozein herri baino hestuago dira hartuak juduak salbamendu historian. Eta Liburu Sainduetatik ezin atera daiteke, inola ere, herri madarikatu edo gaitzetsi bilakatu denik. Batikano II. Kontzilioak argi eta garbi adierazi nahi izan duen puntua da hori.

Lehen mendean, judu zen zenbait kristauk, judu usarioak, erdainkuntza* eta janari aginduak esaterako, bete beharrezkotzat eman nahi zituen guztientzat. Hori zela eta, etena egin zen, mendetan iraunen zuena. Berau izan zen, kondairan zehar Jainkoaren Elizak jasan beharko zituen urraketa (zisma) ugari eta mingarrietan lehena. Dotrinazko desbideratzeaz (herejiaz) ere mintzo zaigu Testamentu Berria.

zinez: benetan. **zerion:** isurtzen zitzaion, iakon. **haatik:** halere. **garrantzitsu:** importante. **erdainkuntza:** ebakitze, circuncisión, circoncision.

Hara, beraz, non ageri zaigun Eliza bilaka eta haztaka bizi eta hazten zela, tentaldiak, eragozpenak eta diferentziak gaindituz, horrela «bihotz askotako asmoak argitan jar daitezen» (Lk 2,35). Horrek ez du esan nahi, Elizatik kanpora bota den kristau nahiz heresiarka oro, bere kontzientzian arrunt errudun izan denik; baina bai harrokeria nahiz lepagogorkeria, desbideratze horietan elementuetarik bat izan zitekeela. Hala uste dute Testamentu Berriko autoreek. Epaiketa* horrek adierazten digu zer-nolako ardura zion Elizak, hasera-haseratik. Apostoluen dotrina garbi-garbi gordetzeari, eta Agerkundea itxuragabetu, murriztu* nahiz alda lezakeenaren kontrako gorrotoa.

Elizak, lur honetakoa ez den mezua lur honetan zaintzea hartu du eginkizun (*302*). Ezin alboratzen ahal du betebehar hori. Jainkoarena den egiari buruz ezin amor eman du. Hori, galgarri litzateke, bai fededunentzat bai fedegabeentzat; Eliza bera ere, ilunpetara eroriko litzateke. Baina bestalde etengabean beharko du egia bir-pentsatu, eta hori tankera* berrian eman, garaian garaikoei egokituz. Jatortasunik eta osotasunik gal ez dezan begiratu bai, baina, bide batez, norberaren garaira irekiz eta honekin pentsatuz. Elizan, Testamentu Berriko idazkiak sortzerakoan, bi joera horik nabari ditugu.

Testamentu Zaharra Eliza sor-berrian 156

Testamentu Zaharra besterik ez zen Eliza sortzerakoan, eta Elizak ez zuen hura zapuztu*. Bestela baizik: ohartu zen, hura bete-betean ulertzeko gisan zegoela bera orduantxe. Bihotza su-garretan (ikus Lk 24,32), Testamentu Zaharra, izkutuan bederen, Jesusi buruz mintzo zela ohartu ziren kristauak (*139-140*). Adibidez, mana egun bateko janari zen Testamentu Zaharrean. Baina, Jesus etorriz gero, mana hura Jesusek emanen zuenaren sinbolu eta prestaera zela ikusi zen: «Zuen gurasoak, mana basamortuan jan eta, hil egin ziren... Ogi honetatik jan dezana betiko biziko da» (Jn 6,49-51). Holatsu Testamentu Zahar osoarekin ere: letra soilaren barnean, Izpiritua bilatzen zen. Testamentu Zaharrean ere testupean baziharduena*, Berrian egun argitan, agerian, gertatu zen (ikus 2 Kor 3). Horregatik dihardu Elizak gaurregun ere Testamentu Zaharra irakurtzen liturgi batzarretan. Mezu zaharra, zahar-berritu egin du Jesusek (*133*); arrazoin berarengatik, salmuak ere errezatzeari jarraitu zaio Eliza sor-berria (*256*).

---

arrunt: osoki. **epaiketa:** jujamendu, juizio. **murriztu:** pobretu. **tankera:** molde. **zapuztu:** baztertu. **baziharduena:** ari zena.

Testamentu Zaharra izan zen Elizaren lehen liburua. Baina, berehala, «gure artean beteriko gauzak» kontatuko zituzten idazkien beharra nabari zen. Halatan izan zuten sorrera lau ebanjelioek *(46,114-116).*

Izan ere, Jesusen bizitzaren berri liburu bakarrak ez digu ematen, paralerroturiko* lau liburuek baizik. Kasu bakarra da hau literatur kondairan. Idazki hauetako bakoitzak berriona (*eu-angelion*) osorik dakar. Horri zor dio bakoitzak ebanjelio izena. Autoreengandik hartu dute izena: Mateo, apostolu eginiko zergalaria*; Marko, jerusalendar ikasle gaztea (honen amaren etxera, Afaria egin zen hartara, hots, Zenakulora, biltzen zen elkartea: Ap Eg 12, 12); Luka, Pauloren lankide, «midiku maitea» (Kol 4,14); eta azkenik, Joan, «Jēsusek maite zuen ikaslea», oso zahar izatera heldu zena.

Aitzina-aitzinatik datorren tradizioak dioenez, Mateo izan zen lehenik idatzi zuena, Palestinan edo Sirian, 50. urte aldera seguraski; baina, gaur duen tankera, beranduagokoa du ebanjelio horrek. Beraz, gaur ditugun ebanjelioetarik zaharrena, Markorena dugu, Erroman 63. urte aldera idatzitakoa. Guri heldu zaigun Mateoren ebanjelioa eta Grezian idatzitako Lukarena, 70-80 urte ingurukoak dira seguraski. Joanena, berriz, 100. urtean edo, izkiriatu zen. Asia Txikian.

Lehenengo hiru ebanjelioak (sinoptiko izenekoak) hitzezhitz lotzen dira zenbaitetan elkarrekin. Batak bestearekin nola-halako loturarik badutela esan nahi du horrek.

Dirudienez, Mateoren lehenengo ebanjelioa begi aurrean zuelarik idatzi zuen berea Markok. Baina aitzina-aitzinako dokumentu batek dioenez, Keparen begizko lekukotza ere kontutan hartu zuen Markok.

Mateoren gaurko ebanjelioa idazterakoan, Mateoren lehenengoa ezezik, Markorèn ebanjelioa ere bazen, eta, gainera, «Jesusen hitzak» izeneko bilduma ere bai (grezieraz, *logia* zeritzaiona).

Luka bera ere, hiru iturri horietaz baliatu zen. Bere ebanjelioaren hitzaurrean, greziar sonatu bati, «Teofilo ospetsuari» eskainitakoan, honela idazten du: «Neronek ere, den-denak haseratik arretaz miatuta gero, bata bestearen ondoren, Teofilo agurgarri horri, zuri idaztea erabaki dut, ikasi dituzunen egi-egia jakin dezazun» (Lk 1,3-4).

Jatorria: etorkia, sorburua. **paralerroturiko:** paralelo. **zergalaria:** inpostu biltzailea.



Iturburu hauetaz gainera, ebanjelari bakoitzak bazuen bere oroitzapenik eta «haseratik begi-begiz ikusi zutenen eta gero Hitzaren zerbitzari izandakoen» (Lk 1,2) ahozko tradizioaren lekukotzarik. Joan Sainduaren ebanjelioari, oso berezia delarik, sinoptikoen ukitu gutxi nabari zaio (*81, 115, 126*). Izpiritu Sainduz Jesusen esperientziaz berrogei eta hamar urte luzetan kutsaturiko begizko testiguaren ageri edo dokumentu berria dugu.

Mezua zaintzen Elizak ematen zuen ardura erakusten digute liburu hauek. Bide batez, ordea, mezu hau tokian tokira egokituz egiten zen ahalegina ere erakusten digute.

Ebanjelari bakoitzak, kristau elkarte jakin bati joan-etorri handieneko zitzaizkion puntuak argitzen ditu. Halatan, bada: juduei ari zaien Mateok, bost hitzaldi handitan biltzen ditu Jesusen hitzak, Moiseren bost liburuen hariari helduz; legelari* berria Jauna dela adieraziz. Markori, berriz, Jesus Mesia eta Jainkoaren seme bezala azaltzea zaio ardura. Luka, greziar eskolatuei ari zaielarik, gertatuen beraien hariari darraio (*Apostoluen Eginak* liburua ere berak idatzi du; asmo berdinaz): behartsu, bekatari eta greziarren artean gutxietsiak* ziren emakumeenganako Jesusen zaletasuna ager arazten du. Halaber, oso maiz ari da Izpiritu Sainduaz eta otoitzaz.

Batzutan, erabiltzen diren hitzek beraiek, halako edo bestelako ebanjelioa, idatzi izan aurretik, zer-nolako elkarteri predikatu zitzaion adierazten digute. Jakina, ardura handiz ahalegindu ziren Jesusen hitzak berauen jatortasunean gordetzen; horretarako, txit lagungarri gertatu zitzaien Maisuaren ritmuzko eta alegiazko mintzaira; hala eta guztiz, Jesusen mezua tradizio bizian ematen zen. Horrek zera esan nahi du; zenbaitetan mezua argitu eta egokitu egin ohi zela (*33--34*). Lehen esan genuenez, Mateok, Jesusen «Jainkoaren erreinua» esaeraren ordez, «zeruetako erreinua» jartzen du *(63)*. Honetan Joan nabarmentzen da gehiena. Jesusen mintzoan, Joanek predikatu zueneko Asia Txikiko hizkera arrunta na-

legelari: lege emaile. **gutxietsiak:** txikitzat hartuak.

bari da. Adibidez, «Jainkoaren erreinua» esaera oso nekez darabil ebanjelio honek. Eskualde honetako jendearentzat seguraski, esanahi eskasekoa zen. Askoz ere aberatsago zitzaizkion «Argia» eta «Bizia» hitzak. Horregatik, Joanek dakartzan Jesusen mintzaldietan noiznahi topatzen* ditugu. Jesusek «Jainkoaren erreinua» esaeraz adierazi nahi zuena, jende hari hitz horiek ulertarazten* ziotela hobekien uste zuen Joanek.

Baina horrek ez du esan nahi, asmakerientzat ate guztiak zabalik gelditzen zirenik, nork bere nahierako* Kristoa sor zezan. Ebanjelariei ardura zaiena ez da, hilean hileko eta astean asteko txostena ematea. Ebanjelioa idaztea dute helburu*. Berriona. Baina, berrion izan dadin, arras garrantzizkoa du egiazki eta benetan zerbait gertatua izatea, hitzak esanak izatea (*55*). Ezer gertatu izan ez balitz, mezurik ere ez zen izango iragartzeko.

Hain zuzen, gertaerei dagokienez, laugarren ebanjelioa zenbaitetan, arras zehatza* dugu. Aitorpen hau (hain berandukoa delarik ere) Joan Apostolu zaharrarena dela esateko... arrazoinetako bat, horixe da. (Jar dezagun adibide bat: ezin ulertu izan zuten luzaroan interpreteek, zer-nolakoa zitekeen «bost atariko urtegia*» [Jn 5,2]. Arkitektura aldetik ezinezko ematen zuen. Horregatik, sinboluren bat izango zela pentsatzen zen. Baina, Jerusalenen egin diren haitzurketei* esker, urtegi bat bilatu da, lauki* zuzenekoa, luzeran galeria batez erdibitua. Beraz, laugarren ebanjelioaren historiazko berria egiztaturik gelditu da).

Baina, inportanteena ez zen zerbait gertatu izana; zer gertatu zen jakitea baizik: Jesusen paregabeko izatea eta ekintza alegia (*33, 262*). Gaurregungo bibli jakintzari esker, badakigu zenbateraino arduratzen ziren honetaz ebanjelariak. Jesus ikusitako testigu asko hiltzen ari zelarik, eta legekeriaz eta fantasiaz ukituriko asmakeriazko obrek ahozko tradizioa kutsatuko* zuten arriskua ageri zelarik, tradizioa bere jatorrizko garbitasunean, hots, Kristoren irudia izan zen bezala finkatzeari* ekin zion Elizak. Horrela sortu ziren ebanjelioak eta Testamentu Berriko beste izkribuak.

Elizaren ardura, Jesusen irudia jator eta fedea oso-osorik zaintzea zen. Kezka horretan, bizia ematen zion Izpiritu biziak gidatu zuen Eliza. Baina Izpiritu Saindua ez zen ihardun Elizaren bizitzatik eta idazleen lanetatik aparte: aitzitik* bizitza eta lan horien barnean zihardu*en*. (Honetaz ikus, «Liburu Sainduak Izpirituaren lana dira» atala) (*39*).

Desberdin direlarik ere, Jesus Jauna bat bera aurkezten

topatzen: kausitzen. **ulertarazten:** enteniarazten. **nahierako:** komenentzizko. **helburu:** xede. **zehatza:** xehea. **urtegia:** piscina, piscine. **haitzurketei:** excavaciones. **lauki:** cuadrado. **kutsatuko:** nahasiko. **finkatze:** indartze. **aitzitik:** kontrakoz. **zihardu*en*:** ari zen.

digute lau ebanjelioek. Lauetako bakoitzean nabari dugun berezitasun berak erakusten digu hori. Bistan da, iturri bat bera izan dutela laurok: Jesus Nazaretarra. (Ebanjelari bakoitzaren estilua eta, estilu horren bidez, Jesusengana nolako indarrez garamatzaten aztertzeko, ikus «Nor da Jesus hau?» kapitulua) (*114-117*).

Lau ebajelioak ez dira iturri bakarra Jesusen berri jakin ahal izateko. Haserako Elizan kartak ere izkiriatu ziren. Hamalau, Paulorenak dira (berak eraginda idatziak bederen*); bat, Jakue* Txikiarena; bi, Keparenak; Joanenak, hiru; Juda Tadeorena bat. Horietaz gainera, azkenik, Joanen idazki profetikoa: Apokalipsia edo «Agerkundea» liburua.

Paulo Saindua 158

Farisaitarra zen Paulo; kulturaz greziar, eta legez erromatar. Esteban lehenen martiria hil zutenean, han zen, bere baietza emanez. Pertsegitzaileen alde Estebanek eginiko otoitza entzuna izan zen. Izan ere, handik laster, Paulori, kristauen atzetik hauk harrapatu nahiz zihoalarik, Jesus agertu zitzaion bapatean, eta pertsegitzaile zena apostolu bihurtu zen. Jentilengana* itzuli zen Paulo, eta judaismoari buruzko kristauen arazoetan zerikusi handia ukan zuen. Honengan ere, argi eta garbi nabari dira prediku ororen bi bereztasunak*: aurrekoengandik hartutako egia leialki gorde, eta egia hori etengabean birpentsatu. Horren kartak giza-dokumentu hunkigarri* dira: Jesusen misioa argitu nahi lukeenarentzat, hondorik gabeko teologi iturri dira; gainera, beren baitan, *Jesusi buruz dugun aitorpenik zaharrena daramate.* Batzuk, ebanjelioak baino zaharrago bait dira. Tesalonikatarrei (gaur Salonika) eginiko bi kartak, 51-52 urtekoak dira; korintotarrei, erromatarrei eta galaziarrei eginikoak, berriz, zerbait geroxeagokoak.

Jesusi buruzko ahozko aitorpenik zaharrena 159

Gauzak horrela, oraindik denbora luze ere ez dela, honako hau atera dute bibli jakintsuek: badela epistola horietan zenbait atal, idazkiak berak baino ere lehenagoko. Jesusen egintza osoa labur-labur biltzen duten pasarteak dira. Dirudienez, Paulo sainduak, ahozko tradiziotik hartu zituen pasarte horik hitzez-hitz; izan ere, Paulorena ezbezalako mintzaira* eta idazkera ageri dira hor. Atalik bikainena, dudarik

bederen: behintzat. **Jakue:** Santiago, Jacques. **jentil:** pagano. **bereztasunak:** características, caractéristiques. **hunkigarri:** bihotz biguingarri. **mintzaira:** hizketa, berbaera.

gabe, Korintotarrei eginiko lehenengoan dago (15,3-5) (*136*); aipa ditzagun beste pasarte batzu ere: Erromatarrei egindako epistola 1,1-4, 1 Ts 1,9-10... eta beste zenbait ere bada. Pasarte labur horiek muina damaigute: Jesusek, bere heriotzaz, hilobiratzeaz eta biztueraz Liburu Sainduak bete dituela, eta gure salbamendurako, Aitaren eskuinaldera eraikia* izan dela.

Aitzina-aitzinako Jesusen misterio osoaren laburpen hori, *Kerygma* deitzen dugu, hots, mandatariaren aldarrikatze edo iragartze. *Apostoluen Eginak* delako liburuan datozen Apostoluen predikuek ere egitura* berbera dute.

Kerygma hau bibli jakintzaz argitzeak badu bere garrantzia*. Izan ere, teoria batek dioenez, kristau fedea mito hutsa litzateke, hil eta biztu egiten den Jainko baten mitoa: Pertsona historiko batengan errorik ez lukeena; gerora asmaturikoa izanen litzateke Nazareteko Jesus hori, teoria horren arabera. Beste teoria batek, aitzitik —hau ere fedegabeek asmatua—, Jesus Nazaretarra zeritzaion gizon baten biografia badela onartzen du; baina, salbamendurako zerikusirik ez dio ezagutzen. Haren bizitza gizonen salbamendurako izan zela esatea, gerora sorturiko asmakizuna litzateke.

Zer frogatzen digu delako *Kerygma* horrek beraz? Hauxe: nola historiazko egintzak hala berorien historiagaindiko salbamendu mamia, fede aitorpenaren giharrari* dagozkionak direla haseratik. Jesus hila eta hobiratua: horra historiazko gertakizunak. «Liburu Sainduen arabera», alabaina, gure salbamendurako biztua eta aintzatua; hona, aldiaren* mugak urratzen dituena. Hastapenetik, kristau mezua bere osotasunean topatzen dugu.

Testamentu Berriro gainerako liburuez, ohar labur batzu besterik ez dugu egingo.

Epistolak unean unekoak dira; horrela, oso egokiak dira haserako Elizaren bizitza, premia eta pentsakera adierazteko. *Apostoluen Eginak* deritzaion liburuak, historia horren zenbait pasarte badamaigu: Jerusalengo elkartetik hasi, eta Eliza orokor* bilakatu* zen arteraino. Apokalipsi edo «Agerkundea» liburuak, ikuskari irudikorrez, hots, sinbolubidez, kondairaren asmoa ematen digu: holako edo halako gertakizun zehatzek baino gehiago (erasoketaz* sarritan hitz erdika ari delarik ere), onaren eta gaitzaren arteko borroka izugarria, gaurregun ere gure artean hor dabilen borroka, ematen digu. Xehetasun guztiez jabetu ez arren, ulergarri eta sentigarri gerta dakizuke liburu hau.

---

eraikia: jasoa. **egitura:** estruktura. **garrantzia:** inportantzia. **giharra:** ginarria, muina. **aldiaren:** tiempo, temps. **orokor:** mundu osoko. **bilakatu:** bihurtu. **erasoketaz:** pertsegizioaz.

Apostoluen belaunaldia*, hasera hutsa baino areago da. Gerokoaren oinarri ere bai. Begizko lekukoak bizi dira oraino; eta Izpiritu Sainduak «Egiaren betera» (Jn 16,13) daramatza apostoluak.

Hortik dator mende horren balio ordaingabea*, sekulan berriratu ezina. Jesusek ekarririko guztia atxekitzen* duen Eliza da. Aro hori amaitzean*, Abrahanekin hasi eta Jesukristorengan burutzen* den Agerkundea osoturik dago, «hitxirik». Dudarik gabe, Eliza, premia berriak sortu ahala, mezua sakonduz joan da, berri itxura hartuz. Baina, sekulan ere ez dio funtsezko gauza berririk erantsi mezu horri. Hortik, Testamentu Berriko liburuek duten garrantzi paregabea *(32)*. 150. urte aldera, sasi-ebanjelio eta sasi-liburuak (apokrifoak) baztertuz, ardura handiz, Testamentu Berriko izkribu hauen zerrenda (kanon delakoa) erabaki zuen Elizak *(259)*.

Elizak badaki, hutsezinezko ziurtasunez jakin ere, hil edo biziko hauzi honetan, Izpiritu Sainduaren gidaritzapean* ihardun dela. Erreformariek ere, honela mugaturiko Testamentu Berria, sinesgarritzat hartzen dute.

Aro honetatik datorkigu, Ezekiel profetaren lehen kapituluan eta Apokalipsiaren laugarrenean agertzen zaizkigun lau animalien sinboluak lau ebanjelioei (ez ebanjelariei) egokitzea. Jesus bakarraren inguruan, Semearen lau ahalmenak*, lau ahotsak. Gaurregun honela banatzen ditugu sinbolu horik: gizona Mateorentzat, lehoia Markorentzat, zezena Lukarentzat, eta Joanentzat, berriz, arranoa.

Beraz, Elizaren oinarri diren izkribuak ezin ordezka* genitzake; baina, Eliza eraiki zutenak, bai. Betirako dira izkribuak; gizakiak hil egiten dira. Gizonen zerbitzuan bizi-bizirik jarraituz, gure artean gelditu nahi izan zuen Jaunak; agintez hornituriko* zerbitzaritza iraunkorrean, ordea, Kepak eta apostoluek besterenganatu egin zuten beren buruzagitza: apezpikuei oso-osorik emanez, eta apaiz eta diakonuei aldez*. Baina, beren eraikitzaile* izatea, besterengana-ezinekoa zuten. Buruzagi hauen zerbitzaritza, zuzendaritzarakoa ezezik, Eukaristian mahainburu egitea, bekatuak barkatzea eta irakastea da. Apaiz agintea da hori, hain zuzen. (Gai honi buruz, ikus «Artzain apaizgoa» kapitulua) *(290-305)*.

---

belaunaldia: gizaldia, jenerazioa. **ordaingabea:** truka ezina. **atxekitzen:** biltzen. **amaitzean:** bururatzean, bukatzean. **burutzen:** osatzen. **gidaritzapean:** buruzagitzapean. **ahalmenak:** indarrak. **agintea:** buruzagitza. **ordezka:** ordezkatu, trukatu, aldatu. **hornituriko:** beteriko. **aldez:** zatika, ez oso-osorik. **eraikitzaile:** fundador.

Berbiztuarekin bat 162

Holaxe egiten du sarrera Elizak kondairan, lurrean Jainkoaren erreinua bizitzeko. Ondo daki, Jesusek maite duela bere erreinua; Eliza Kristoren emaztea da; Horren zain dagoena.

> «Bere burua eman zuen Kristok Elizarengatik... Distirari ikusi nahi bait zuen bere aurrean, distirari, zikinik eta zimurrik gabe, dena saindu eta garbi-garbia» (Ef 5,25-27).

Elizaren eta Kristoren arteko bat izate hau, sakonkiago ager daiteke oraino. Paulok idazten du:

> «Bere haragiari ez dio sekulan inork gorrotorik ukan; ostera baizik, ondo mantentzen eta poliki ere poliki zaintzen du, Kristok ere Elizarekin egiten duen bezala; haren gorputzaren zati gara gu izan ere eta» (Ef 5,29-30).

Izan ere, Izpiritu Sainduz Kristorekin hain loturik sentitzen du Elizak bere burua, non* Paulok Kristoren gorputz deitzen bait du, Kristo Jaunarengandik hartu dituen barneko eta kanpoko dohain guztiekin. Eta Kristoren gorputz irautekotan, eta areago izatekotan, Elizak, kanpo-barne, bere ahobihotzez, egunoro jan-edaten du eukaristia, hots, Kristoren gorputza (*271,284*).

Maria, Elizaren irudi 163

Haserako Elizak bere baitan* zuen Maria. Apostoluen garaian, gero eta gehiago mintzatzen dira Mariaz: Lukak eta Joanek, azken ebanjelioak idatzi zituzten bi ebanjelariok, Jesusen bizitzako une nagusienetan aipatzen dute Horren ama.

Deikundean* bertan, Israel herriaren sinbolu eta ordezko gertatu zen *(50-51)*. Mendekoste egunez han dago Maria, Jainkoaren herri berriaren ezagugarri bezala; haurgintzako oinazeen ondoren, bere oinazeez kezkatzen ez den Emakumea da (Lk 2,35; Jn 19,25) (*131,153*).

Maria da Elizaren irudi; Eliza hori, berriz, gu gara. Alde horretatik Maria senide* dugu. Baina, Eliza ere ama dugu guretako bakoitzak. Horrez gero, Maria, Elizaren irudi delarik, geure ama dugu.

Uste osoz jo genezake harengana, baldin eta hori, Jesukristo bir-aurkitzeko eta atzemateko* laguntzaile badugu (*397*). Hain zuzen, nola Ekialdeko* hala Mendebaldeko Jainko herriaren bizitzak, ongi asko egiztatzen* digu, Maria Jaunarenganako bide izan dela. Jesus honela mintzo zaiola nabari* du kristauak: «Seme, horra hor zure ama». Baina, baita Je-

---

hain ... non: tan ... que, si ... que. **baitan:** (bera)gan, barnean. **Deikundea:** Anuntziazioa. **senide:** haurride. **atzemateko:** geureganatzeko. **ekialde:** sortalde. **egiztatzen:** erakusten. **nabari:** uste.

susen beste hitz haik ere: «Andre, horra hor zure semea». Mariak maite ditu Elizaren seme-alabak. Guk uste baino bikainago da gure salbamendua; guk uste baino gizatarrago* ere, bai, ordea.

Historiak badu bere bidea **164**

Historiara sartzen da Eliza. Noiz arte iraungo duen historia honek? Ez dugu Jesusen erantzunik horretaz. Haseran, gutxi iraungo zuela pentsatu zen. Emaztea urduri* zain zegoen. Baina, Apostoluen bizitzan bertan, kondaira luzatu egingo zela jabetu ziren. Hala eta guztiz, zain zegoen Eliza. Bibliaren azken orrian, bukaeran, hitz hauk irakurtzen dira:

> «Izpirituak eta Emazteak hala diote: Zatoz! Eta entzuten dagoenak ere esan dezala: Zatoz! Egarri dena, datorrela... Agerkunde hauen egiztatzaileak esana da: Bai, laster nator. Zatoz, bai, Jesus Jauna, zatoz!» (Ap 22,17.20).

Egarri eta ziurtasun horik historiaren ardatz eta hezurtza gertatu dira, kondaira ez bait da, ez amairik gabeko berriratze edo betiko itzulinguru, ez gau iluneko hondamendira joan litekeen ezinbesteko bide *(30,33)*. Maitasunean elkartzera doa gizadia *(55)*.

Elizaren historia

311. urtera arte: Elizaren kontrako erasoak **165**

Menturaren hasera zen. Paulok dioenez, mezua zabaltzen hasi zeneko mundu hura, «bihotz eta urrikirik gabe» zen (Erm 1,31). Denbora berean, ordea, zera esan behar da: Jainkoaren bila urduri zebilela mundu hura, haztaka. Bai; zibilizazioari esker, iturritzat Jainkoa duen gizadia aurreratuxea zegoen finezi bidean. Virgilio olerkariarengan *(317)*, (K.a. 19an hil zen) ontasunaz eta Jainkoaz egiazko zaletasuna suma dezakegu. Bestalde, nola-halako politik batasuna ere eginik zegoen, gizakien arteko harremanei bide ematen zitzaielarik: «Erromatar bakea» izeneko politik batasuna alegia.

Gizartearen lehen erantzuna, alabaina, Elizari buruz erasoa izan zen. «Zerbait biribiltzen ari zela» konturatu zen; talde bat moldatzen ari zela; Estatuari buruz leialtasunez jokatzen zuelarik ere, bere agintea Estatuaz kanpotik jasotzen zuen taldea. Halatan, jazarpenak* harrotu zituzten (honela gertatu zen Neronen agintaritzapean, 64. urtean, Erromari sua eman ziotela salatu zituztenean).

---

gizatarrago: gizakiago. **urduri:** kezkati. **erasoa:** pertsegizioa. **jazarpenak:** pertsegizioak, erasoak.

Lehenago Pilatorekin bezala, erromatar legeak, bere finezia eta guzti, poto egin zuen; lekuko, 111-113 urteetako dokumentu laburra dugu. Trajanok Asia Txikiko gobernariari zuzentzen dion eskutitz honek, halako bihotz handiz eta neurritsuz idatzia ematen du. Honela idazten dio Bitiniako (Asia Txiki) gobernari zen Plinius Gazteari:

> «Ene Secundus maite, kristau bezala salatu dizkizutenei buruz hauzia garbitzean, bide egokia hartu duzu. Hain zuzen, horiei buruz ezin erabaki daiteke jokamolde zehatzik. Ez da komeni kristauen bila aritzerik. Salatzen badizkizute, eta salakuntza egiztatuz gero, zigortu egin behar dira; norbaitek kristau denik uka baleza, ordea (eta gure jainkoak gurtuz froga baleza), lehen susmogarria izan balitz ere, ukapena* haintzat hartu behar zaio, barkatuz. Salakuntza* anonimuak ez dira haintzat hartu behar inola ere; zeren eta, jokabide kaxkarra bait da hori, eta gure garairako duin ez dena».

Hain zentzu oneko dirudien eskutitz hau, Pliniusek egindakoari erantzuna zen. Bi hitzetan, honako hau zioen Pliniusek: «Ez dut errurik aurkitzen jende honengan». Hala eta guztiz, zigorra ematen zaie kristauei, beren «kaskagogorkeriarengatik» eta beren «sineskeriarengatik».

Barealdi bakar batzu kenduz gero, hirurehun urtez izan ziren kristauak, arrazoin bat ala besterengatik, odola isurtzeraino jazartuak. Badira martiri-ageriak, zigortzaileen aldetik basakeria izugarriak, eta martirien aldetik, berriz, harrigarrizko ausardia kontatzen dizkigutenak. Katakunbetan, hildakoak ehorzten* zituzteneko lurpeko pasadizu horietan, gehien harritzen gaituen hitza, dudarik gabe, honako hau da: *pax* (bakea) (*81,403*).

100. urte aldera, Erroman basa-piztitara jaurtia* izan zen Antiokiako Inazio apezpikuaren gutun batzu baditugu:

> «Jainkoaren gari naiz, eta basa-piztien hortzez ehoa* izanen naiz, Kristoren ogi garbi bihur nadin... Sua eta gurutzea, eta piztiekiko borroka, nere hezurrak puskatzea, nere gorputz atalak giltzetatik ateratzea, nere gorputz osoa xehetzea*, deabruarengandiko oinaze garratzak, pozik hartuko ditut, Jesukristorengana joan ahal izatekotan. Utz nazazue argi garbia dastatzen; haruntz orduko, egiazko gizaki izango naiz» (Inaziok Erromatarrei).

Martiriekiko antsiz* bizi zen jendea, eta ohorez gurtu ohi ziren. Gainera, ez zituzten hartzen iragan* denborako pertsonaia* garaile bezala, bizirik baleude bezala baizik, paradisuan bizi zirelakoan alegia (*153, 397*). Non eta nola? Hori ez zen axolazko*; Jainkoari erregutzeko eskatzen zieten. Horrela sortu zen sainduen kultua: horien jaiotze berriaz zuten fedetik sortua. Haien heriotz eguna, jaioteguna deitzen zuten.

---

ukapena: ezeztapena. **salakuntza:** akusazio. **ahorzten:** lurperatzen. **jaurti:** jaurtiki, bota. **ehoa:** mollido. **xehetzea:** txikitzea. **antsiz:** inbiriaz. **iragan:** joandako. **pertsonaia:** personaje, personnage. **axolazko:** garrantzizko.

Gizaldi hauetatik hasi ziren lehen idazle ospetsuak agertzen: kristau mezuari buruz beren gogoeta* dagitenen taldea.

200. urte ingurukoak dira hauk: Liongo Ireneo, gnostikoen aurka ebanjelioa aldeztu* zuena; Alexandriako Origene, Izkribuak ezagutzen arras sakona, eta orduko kristau pentsalari ospetsuena; Tertuliano, Kartagoko legegizona, idazkera sutsukoa, gerora Elizaren dotrinatik erro-errotik aldendu zena; Zipriano, kartagotarra, haseran Tertulianoren ikasle izana.

Garai honetako kristau gobernuari dagozkion xehetasunak, «Artzain apaizgoa» deituriko kapituluan aipatuko ditugu (*290-305*).

311. urtetik aurrera: gizarte bizitzan lekua egiten 166

Hiru mendez jazarpenak jasan ondoren, 311an, erromatar inperatore bat kristau egin zen: Kostantino Handia. Lurtar inperio batekin elkartu zen Eliza. Jainko herriaren kondairari asma ezin ahalako ondorioak ekarriko zizkion gertakari horrek.

Lehen begiratuan harritzen gaituena, Kostantinoren bakeaz gero eraiki ziren eliza arranditsuak* ikustea da (oraindik ere bat edo bestek zutik irauten du). Ez dute zerikusirik jentilen tenploekin, barrura sartu gabe herriak gurtzen zituen idoloen egoitza* haiekin. Elizatan, barruari begiratzen zaio batipat; jendalde handiak hartzeko ainako dira: «Arkitektura mailan lehen kreazio demokratikoa». Hain zuzen, Kristoren gorputza, hots, Jainko herria bera da Jainkoaren egoitza: hemen dago Bera.

Erromako harresiz kanpora (*extra muros*) zeuden Paulo sainduaren eta Andre Mari Nagusiaren basilikak, eta Belengo basilika, garai hartako kristau arkitekturaren lekuko dira. Kostantinoplako Sofia saindua, bere kupula zoragarria eta guzti, gerotxoagokoa da: VI. mendearen haserakoa.

Buru arras argikoak izan ziren orduan Kristoren mezua zabaltzeko; eta garaiko jende eskolatuaren goreneko mailara heltzen ziren izkributan. Elizako guraso deitzen zaie idazle horiei.

Ekialdean ospetsuenak, hauk dira: Atanasio, Basilio, Naziantzoko Gregorio, Nisako Gregorio eta Joan Krisostomo; hau, etorri handiko eta xit sonatua. Guztiok jakintsu ziren, eta, bide batez, elkarte handiren buruzagi. Etengabean Jainkoaren herriarekin harremanetan zirelarik, Jainkoaren egintzaz eta izateaz gogoetan zihardute.

---

gogoeta: pentsaketa. **aldeztu:** defendatu. **arranditsuak:** handiak, galantak. **egoitza:** egonleku.

Mendebaldean ere, pentsalari sakonen zirenak, buruzagi eta artzain ziren. Anbrosio gogorra, Origeneri asko zor diona, eta Agustin: «*Aitorkizunak*» deritzaion liburu zoragarrian kontatu digun bere barne bizitza dela bide hain hunkigarri gertatzen zaiguna. Agustinek tradizioaren argiz argituriko prolema askoren artean nagusiena, hauxe da, dudarik gabe: gizakia ezin atera daitekeela bekatutik bere ahalmen hutsez; derrigorrezkoa zaiola alegia, Jainkoaren grazia. Jeronimo, biblilari jakintsu eta mintzaira zorrotzekoa, ez zen izan apezpiku edo Eliz buruzagi; bera bakarrik gizon ospetsu hauen artean. 400. urte inguruan bizi izan ziren hirurok. 500. urte inguruan, berriz, Leon Handi aita saindua, Atilari aurpegi eman ziona; gauza sakonik franko esan zuen Kristoren gizakundeaz. Gregorio Handia, 600. urte aldera aita saindu izan zena; Elizaren lehen mendetako jakinduria bildu zuen bere idazkietan. Gobernari onak bezala, bazekien arazoak aldez aurretik ikusten, eta berak bidali zituen Canterburyko Agustin eta lagunak Ingalaterra ebanjelizatzera.

Gauza bera ziren gizon hauen dotrina eta bizitza; Elizak sainduen ohorea ematen die.

Hauzirik garrantzitsuenak erabakitzeko, kontzilioak egin ziren: hiru nagusienak garai honetan, Jesusen pertsonaz ihardun garenean aipaturikoak dira. Kondairan barrena zebilela, gisa horretako prolemak atera zitzaizkion Elizari. Zismak eta herejiak ere baziren Elizan garai honetan. Kontzilioren batek arbuiaturiko irizpen orok, edo ia orok, bazuen bere talde aldezlari amorratua. Sarritan, gizonen erruz, beharrezko biguntasun faltaz, eta nazioarteko borrokak zirela bide, mindu egin ohi zen hauzia. Arriorena izan zen zismarik gaitzena, hedaduraz eta iraupenaz. Mendetan iraun zuen arrianismoak (*53*).

Erromatar inperioko buruzagiak kristau egin zirenean, Kristoren mezua, erasopean ezezik, bake aldian ere zabal zitekeela ikusi zen.

Baina inperioaren babesa arriskuz beterikoa zen. Ebanjelioaren mezua interpretatzean, parte hartu nahi izaten zuten inperatoreek; kristau ez zirenak gutxietsiak ziren; beste herriren kontra guda egiten zen Kristoren izenean. Bere mezuaren soiltasuna eta katolikotasuna galdu eta, lurtar botere jakin batekin berdintzeko arriskua zuen Elizak.

Hori bai; alderantzizko eraginik ere izan da, Elizak orduko gizarteari asko irakatsi zion onberatasun eta zuhurtasun mailan (*54, 180, 348*). Gainera, nahiz eta arrisku handia izan Kristoren bidea eta laterriaren erakundea berdintzeko, ez zitekeen erabat hori gerta. Guztiek zekiten, bada, erromatar inperioa eta Kristoren erreinua ez zirela gauza bera. Hain

zuzen, erromatar inperioak mendebaldean lur jo zuenean, bere bideari jarraitu zitzaion fedea.

400. urtetik aurrera: Germaniarren artean hedatuz 167

Ebanjelioak, erromatar inperioaren aurka garaile atera ziren germaniarren artean ere erroak bota zituen. 500. urte inguruan bildu ziren Eliza katolikora frankoak. Hauen buruzagiek, lokarri hestuz lotu nahi izan zituzten Eliza eta inperioa; Karlomagno izan zen horietan sonatuena, 800. urte inguruan. Batasun honek ere, nahiz zenbait ondoren on berekin izan, txar asko ekarri zuen; adibidez, bortxaz* eginiko kristautzeak. Baina, oraingo honetan ere, Eliza eta inperioa ez zitezkeen bat beratzat har; besterik ezean, Elizak eta Frankoen inperioak muga berberak ez zituztelako. Irlanda (oso goiz kristau egina) eta Ingalaterra, esate baterako, ez zeuden Frankoen inperio barrutietan; Hego Italia, Espainia zati bat eta Ekialdeko Kristaudi osoa ere, ez. Ondo zekien Karlomagnok, bere menpeko erreinuetan ere, ez zela bera Eliz buruzagi; ez zegoela bera apezpiku eta Aita sainduaren gainetik.

Aita sainduari dagokionez, Karlomagnoren aurreko batek, Erroma eta honen ingurua, Keparen ondorengoei utziak zizkien; aita sainduak, beraz, herri agintea zuen hor. Emaitza horri esker, kristaudiaren bihotz zen zokoa, Erroma alegia, ez da inongo erresumaren* zati izan. Hau ebanjelioaren askatasunari mesedegarri gertatu zaiola, bistan da; baina, bere itzal-uneak ere ukan ditu zenbaitetan.

Eliza ekialdean 168

Erromatar inperioak, «Bizantziotar inperio» izenaz, zutik iraun zuen Ekialdean. Inperio honen mugez kanpora, ekialderuntz eta hegoalderuntz, traba gogorrekin egin zuen topo Berri Onaren predikuak. Hain zuzen, 600. urte inguruan, Mahoma izeneko gizon bat agertu zen Arabiako eremuan*, monoteismo molde sinple eta bizkorra predikatuz: Islamismoa.

Hemen Elizaren historiako galdekizun* mingarrietako batekin egiten dugu topo. Nola esplika daiteke, Kristorekiko fedea lurralde osotan izkutatua izatea? Ipar Afrikan, Agustin sainduaren aberrian, garai batetako kristauen aztarrenik* ere ez da gelditu. Gaur bezala, orduan ere, ez zen gauza erraza mahomatarrak Kristoganatzea. Jainko bakarra aitortzean bat gatozelarik, Jesukristorengan agertu den Jainkoaren gizata-

hedatuz: zabalduz. **bortxaz:** indarkeriaz. **erresuma:** estatu, erreinu. **eremuan:** basamortuan. **galdekizun:** galdera, arazo. **aztarrenik:** hatzik, seinalerik.

sunari buruz berezi gara, eta, horrez gero, lurreko giza eginpidea* interpretatzean ere bai. (Puntu honi buruz, ikus «Islamismoa» eta «Birrerospena» kapituluak: *222, 239*). Ebanjelioaren predikuz, bizantziar Eliza, iparraldera, Errusiara zabaldu zen. Baina askoz geroagoko gertaera da hori (1000. urte ingurukoa).

900-1000: Burdin* aroa **169**

Karlomagnoz, hamargarren mendeko ilunpe aldira sartzen da Mendebaldea. Asiatarren jazarpenek*, Normandoen eta Musulmanen pirateriek, gizarte antolaketa desegiten dute. Aita Saindua izendatzea ere, elkarrekin beti liskarrean* ziren Erromako familien arazo gertatu zen. Sekula ere ez zen Keparen aulkian orduan baino gizon gauza-ezagorik jarri. 900dik 1000ra bitarte horri, burdin aro deritzaio.

Beraz, askok munduaren azkena 1000. urterako iragartzen* bazuen, ez zen Apokalipsiko sinboluzko pasartea (20, 1-10) oker hartu zuelako bakarrik; aurrean ageri zen Mendebaldearen gainbeherak* bazuen zerikusirik. Aurrekoengandik jasoriko ondarea lurrera zihoan; historiarenak egina zuen, beraz. Jauna etortzekoa bide zen berehala.

1000. urtetik aurrera: Hedakuntza* **170**

Agertu zen, bai, Jauna; baina espero ez zuten bezala: udaberri zoragarri bezala. Europari buruz, gisa honetan mintzo da garaiko bat:

> «Bazirudien, mundua, edonon, lehengo jantzi zaharrak erantzi eta, soingaineko zuriz bezala, elizaz jantziz zihoala» (Rudolf Glaber).

Harri zurizko eliza berriak, bizi berri eta sainduzko indarraren adierazpen gertatu ziren. Izpiritu berrıaren eragina nabari zen.

Eraberrikuntza honetan, Cluny-ko beneditar monastegia joan-etorri handikoa izan zen. Frantziako ekialdean 909an eraiki zuten Abatetxe honen helburua, moje bizitza garbia eta izpirituzkoa bizitzea izan zen. Ezagugarrietarik bat, hauxe izan zuen: izpiritu maila herri agintarien menpetik aske gordetzea.

Beraz, frailetxea, aita sainduaren menpean jarri zen, arartekorik* gabe (*348*). «Libertas» hori (askapen hori), hots, herri agintariekiko askatasun horixe zen garai hartako kristau bizitzak ozenkien* eskatzen zuena. Han eta hemen, fun-

eginpide: eginkizuna. **burdin:** burni. **jazarpenek:** erasoek. **liskarrean:** borrokan. **iragartzen:** aldarrikatzen, oihukatzen. **gainbeherak:** porrokatzeak, erortzeak. **hedakuntza:** zabalkuntza. **ararteko:** bitarteko. **ozenkien:** indar handienez.

dazio berriak sortu ziren; horrela, Klunyko kongregazio hura Europa barrena zabaldu zen. Ez zuten politikazko asmorik, baina bizi zuten idealak ondoren politikoak zekartzan nahitaez. Lur honetako boterea* eta Elizaren gobernua elkarrengandik bereizi egin nahi ziren.

Lehen ondorioa, hauxe izan zen: Inperatoreei eta Erromako handizkiei aita saindua izendatzeko zuten eskubidea kentzea. Geroxeago, apezpikuen inbeztidura (inperatore edo erregeek, apezpikuak izendatu ondoren, kargutan ezartzen zituzten) zela eta, sekulako liskar bortitza sortu zen herri agintearekin. Sarritan, izan ere, printzeek herri agintea ematen zieten apezpikuei, nori bere diozesian; eta hori, apezpikuak begibetekoak* zirelako eta ondorengorik gabeak. Eta jakina, sarritan gertatzen zen, apezpikua inperatoreak nahiz erregeak izendatzen zuela. 1122an, horregatik, arrazoinezko zerbait erabaki zen hauzi honetan: Erregeen nagusitasun hori ezeztatu egin zen, baina Estatuaren interesak haintzat hartuz eta, bestalde, apezpikuak, gauza guztien gainetik, Elizgizon dela ahaztu gabe. Aurrerantzean, apezpikuen izendatzea katedral batzarrean eginen zen; batzar horretara inperatoreak ordezko bat bidaltzen zuen.

1054: Ekialde eta Mendebalde arteko etena 171

Nahiz eta herri aginteari buruz libreago egin Eliza, eta aita sainduaren agintea indartu, arriskurik ere bazuen askapen horrek. Ekialdeko Elizan eta Mendebaldekoan nabari zen giro desberdin hura, areagotu* egin zen; izan ere, Ekialdekoa bait zegoen aspalditik Estatuaren eta Elizaren arteko lotura hestu horretan.

Anitzetan*, Erroma eta Bizantzio arteko harremanak larriak izan ziren azken mendeetan. Teologi formulazioak zirela eta (Izpiritu Saindua Aitagandik eta Semeagandik ote datorren), liturgi moldeak zirela eta (ogia legamidun* ala legamigabe behar ote zen), izpirituzko agintea zela eta (zer-nolako agintea duen Erromak), politik egoera eta bi zibilizazio eta bi hizkuntza zirela eta, bien arteko batasuna arazo zail gertatzen zen.

XI. mende honetan sortu zen etena. Zoritxarreko urtea 1054a izan zen. Ekialdeko Elizak dotrina jatorrean iraun du; baliozko ordena edo apaizgintza du; baina Erromako aulkitik aldendua bizi izan da, eta alderantziz ere orobat esan behar.

boterea: agintea. **begibetekoak:** konfiantzazkoak. **areagotu:** handitu. **anitzetan:** sarritan, maiz. **legamidun:** altxatua, fermentado.

1965ean Batikano II. kontzilioaren bukaeran, elkarren arteko adiskidetzearen ezagugarri bezala, batak bestearen gain egotzitako* eskomikua* kendu egin zen (*178*). Jakina, horrekin ez ziren aldatu bataren eta bestearen ikuskera desberdinak; hala eta guztiz, uste dugu, pauso* handia egin dela batasun bidean.

Ekialdeko Elizaren tradizioaren ezagugarrietarik bat, hauxe da: itzal* ikaragarria dio Jainkoaren bikaintasunari. Eliza honen bizitasuna, fineziaz eta onberatasunaz betea, berorren liturgian ageri da. Arras gogoko litzaiguke horren kondairaren aberastasunaz gehiago mintzatzea, baina tokirik ezak galerazten* digu. Gure herriari hurbilagotik datxekon* Elizaren historiaz ihardungo gara.

XII. eta XIII. mendeak: Gailurra*? 172

Mendebaldea, kulturaz ekialdekoa bezain fina ez zelarik ere, bizi-bizi jarraitu zitzaion bere bideari. Ideia berrik eragiten zion. Canterburyko Antselmo artzapezpikuaren* ideia berriek, adibidez. Aurkitu berri zen Aitzinako Greziako zenbait izkribu, Aristotelerenak batipat, kristau sineste eta pentsabidearekin gonbaratu egin behar zen. Garai berean, kristau gurutzatuak* Palestinara doaz, ausardiaz eta idealismoz gainezka, leku sainduetatik musulmanak uxatu nahiz (orduko pentsakerak eraginik). Gurutzadak* ziren.

Abatetxe, eliza eta paregabeko katedralik eraiki zen alde orotan. Lehenik, erromatar artea deritzaion molde gotorrean*; gero, batez ere Frantzian, gotikoaren molde airosoan.

Ebanjeliozko sinpletasun ikusmolde berri bat ere agertu zen. Kristaudia, gizatarrago bilakaturik, Jesusen gizatasunaz jabetu* zen bereziki. Hala Bernardo Saindua eta Asisko Frantzisko saindua. Akinoko Tomaren jakinduria barnekoi eta gardenean*, topo egin zuten arrazoimenak eta fedeak, Mendebaldeko kristauen begi liluratupean. Aristoteleren kategorien bidez mintzatu zen Toma mende orotarako balio izango zuen Kristoren mezuaz. Jaiotzen ari ziren hiri berrietako biztanleak*, giza molde berria taxutzen zutelarik (*54*), beren fedea oso giro berritan hasi ziren bizitzen. Esklabutza ere, ordurako asko gutxitua zena, Gurutzadak zirela bide, kasik erabat suntsitu zen (*179*).

---

egotzitako: botatako. **eskomikua:** Elizatik jaurtitzea, eskomunioa. **pauso:** urrats. **itzal:** errespetu. **galerazten:** eragozten. **datxekon:** atxekitzen zaion, iakon. **gailurra:** hegatzbizkarra. **artzapezpikua:** artzobispua. **gurutzetu:** cruzado. **gurutzada:** cruzada. **gotor:** sendo. **jabetu:** konturatu. **garden:** garbi. **biztanle:** bizilagun.

Hain zuzen, esanen litzateke, XIII. mendea Europan, Kristoren Elizaren historian, graziazko mendea izan zela. Errege bat saindu gertatu zen aro horretan. Erregeen artean bitarteko zuzena izan zelarik, lurralde bat itzultzen du Luis IX.ak zuzentasunak eraginik, eta bere gogoz.

Frantziako errege hori, Luis saindua alegia, gurutzada batetan hil zen; baina, gurutzada hori ez zuen, beste askotan gertatu bezala, harrapakin* nahiz mentura* gogoz berak biztua. Parisen, arantzazko koroaren erlikari* eder bezala eraiki arazi zuen La Sainte-Chapelle delakoa ere, gizon jator honen oroigailu gelditu zaigu.

Mende honetan erabat zabaldu gabe zegoen artean, beranduko Erdi Aroan ageri den eta gaur izugarri deritzaigun zenbait jokamolde. Esate baterako, sorginak erretzea; jokamolde hau, germaniar erresumetan* azaldu zen, batipat; eta 1500dik XVIII. mendean aurrera samarreraino iraun zuen. Orobat, teologia ito arazi zuten logika hestu eta legekeria ere, Erdi Aroaren azken aldera hedatu ziren soilki.

Inkisizioa 173

Hain zuzen, gauza izugarririk gertatu zen mende hauetan. Ikus dezagun horietan okerrena nola agertu zen. Kasik pentsamolde berdineko zen gizartean, bestelako pentsabide bat taxutuz joan zen, eta jende asko ari zen erakartzen* pentsabide hura. Kataroen mugimendua zen, eta Albitarrak ere atxeki zitzaizkion. Horien ustez, Ona (arima garbi-garbiak) arras bekoz-beko edo kontra zegokion gaitzari (gainerako guzti-guztiak alegia); ezkontza eta ugalketa deabruaren asmaketa bezala zeduzkaten; leialtasun zin edo hitza (orduko gizartearen oinarria) ukatu egiten zuten; orobat, sakramenduak, apaizgoa, jaiak, elizak eraikitzea, e.a.

Gizarte osoa atera zen holako mugimenduaren aurka: herria, herri agintea, Eliz buruzagiak; 1200a baino lehenago, behin baino gehiagotan gertatu zen, harrapatutako herejeak, herriak berak, kezka izpirik gabe, «jo eta garbitzea». Testu batek dioenez, «apaizek bigunegi jokatuko ote zuten beldurrez».

400a inguruan, hereje bat hiltzea, barkatu ezineko makurkeriatzat eman zuen Joan Krisostomok (alabaina herejiaren baten hedakuntza galeraztekotan, herejiari mintzabide* edo batzarbidea ukatzea ez zuen gaizki ikusten). 1150a ingu-

harrapakin: botin, butin. **mentura:** aventura, aventure. **erlikari:** erliki ontzi. **erresuma:** estatu. **erakartzen:** bereganatzen. **mintzabide:** hitzegiteko eskubidea.

ruan, Bernardo Saindua ere herio zigorraren aurka atera zen, baina ez herejeak gartzelatzearen aurka. Baina, 1200. urteaz gero (Kataroen arrisku garaia zen) herri aginteak eta Elizarenak bat dagite herejeen kontra, eta bide anker* eta zuzengabekeriazkoetara jotzen dute. Hauzitan* zegoen mugimendua pentsamendu mailakoa zelarik, eta duda-mudan ipintzen zuena bizi-ikusmoldea zelarik, hauzia (bilaketa edo inkisizioa) egin eta hauzia erabakitzen zuena, apezpikua zen edo aita sainduaren hauzitegia*, eta orobat iritzia ematen zuena ere. Herri aginteari zegokion, bai gaitzespen* epaia, bai terreapena* (gehienetan, sutan erretzea). Bistan da, herio gaitzespena, herri aginteari ezezik, Elizari ere bazegokiola. Heresiarkak izpirituzko sasi-diru egiletzat hartzen ziren, eta badakigu, sasi-diruketan zebiltzenak txit gogor zigortzen zirela; are* besteok.

Gainera, edozein hereje betirako galdua zela ematen bait zen, arima hiltzailetzat ematen zen heresiarka.

Agian, horixe da arrazoina, gizaki handirik eta saindurik jokabide honen aurka inoiz ere ez zela altxatu ulertzeko. Akinoko Toma sainduak berak ere, onartu egin zuen Inkisizioa. Galde hau egiten dugu guk: nola joka zezakeen kristau gizarteak iritzi berrikoen aurka, Erromako inperioak kristauen aurka jokatu zuen jokamolde berdinaz? Berriro ere, hauxe ageri da: Elizaren eta gizartearen interesen batasuna (aztertzen ari garen garai honetan hain hestua zena) kaltegarri izan dakiekeela ebanjelioaren mezuak eskatzen dituen onberatasun eta humiltasunari.

Gaitz hori frogatzeko, Inkisizioa baino gehiago ere badugu: Gurutzadak; eta alde askotatik; orobat, «Zaldunen Ordenak». Bata eta bestea, Erdi Aroaren eritasunaren ezagugarri. Horra hor froga, Eliza, Jainkoarengan haziz joan behar lukeen gizartea dela ikusteko. Bestalde, hazte hori ikusten den gauza da. Haro horretan, han eta hemen, elkarte asko sortzen da: gaixoak zaintzeko, borroka eta gerraren aurka iharduteko (*180*). Frantzisko Sainduaren hirugarren ordenakoek (laikoek) ez daramate harmarik: garai hartako gizon batentzat ez zen hori txantxetako* ukapena* edo hildura!

1300-1500: Erdi Aroaren jarraipena 174

Aita sainduaren aginte eta izenak gailurra jo zuten orduan. Kristau erresumek*, Europako naziogaindiko esku horri itzal handia zioten. Honetantxe zegoen arriskua, ordea: be-

anker: basati. **hauzitan:** eztabaidan. **hauzitegi:** tribunal. **gaitzespen:** kondenazio. **terreapena:** hiltzea. **are:** gehiago. **txantxetako:** irri egiteko. **ukapena:** sakrifizioa. **erresumek:** estatuek.

re eskuko* zen Elizak, herri agintea bazterturik, bere gain har zitzakeela hari zegozkion arazoak. Baina, 1300. urteaz gero, fenomenu berri bat azaltzen da: hango eta hemengo Estatuetan kontzientzia nazionala itzartuz* doala. Alemaniarren eskupean galtzear dagoen Erroma utziz, Aita Sainduak bere egoitza Avignon-en finkatzen duenean, Frantziak hurbilago dakusa Elizaren buruzagia. Zoritxarreko gorabeheraz (arras garbia izan ez zen aita sainduaren hautaketa zela etab.), une jakin batetan bi aita saindurekin aurkitu zen Eliza: bata Erroman eta bestea Avignon-en. Berealdiko* zalantza sortzen da kristauen artean. Alde bakoitzean aurkitzen da saindurik. Kontzilio baten bidez ere ez ziren konpondu gauzak; izan ere, batzar honetan aukeratu zuten hirugarren aita saindua ez zen onartua izan alde guztietan. Azkenean, berrogei urtetako duda-muden ondoren, Kostantza-ko kontzilioak (1417) erabaki zuen hauzia; baina hauzi hau ez zen batere mesedegarri izan Mendebaldeko kristaudiarentzat.

Gainontzean aro honetantxe bertan, gizonezko eta emakumezko idazle mistiko ospetsu asko izan zen, eta saindutasun handiz bizi izan zena, gainera.

Erlijiosoen ordenetan bizi laztasun eta sinpletasunerako joerarik nabari zen. Baina, eliz jabetasun askoren aberastasunak eta egituren zaharkitzeak, eliz buruzagi askorengan, epeltasun eta bizikera nasairik ere erakarri zuten. Zenbaitetan, etekin* joria* zuen kargu asko, beroni erantzuteko gauza ez zen zenbait pertsonari ematen zitzaion. Gaurregun eginiko bilakuntzek zera argitu dute: abusu horik ez direla egunoroko ogi; baina, horrelakorik gertatu izate hutsa ez da gaitz makala. Aho betean eskatzen zen erreforma.

Baina ez zen etorri erreformarik. Italian 1400ez gero, aro ospagarria hasi zen: Renazimendu aroa alegia; aita sainduak, sarritan, gehitxo kutsatu ziren humanismo berri honetaz, eta Alpe Mendietatik haruntza egosten ari ziren ezin-egon eta krisiaz axolatzeko ez ziren gauza izan.

XVI. mendea: Bideak banatuz* 175

Orduan erori zen Elizaren gain egundoko zorigaiztoa. Israel herriaren ezeztapenarekin* (*155*), arrianismoarekin (*166*) eta zisma ortodoxoarekin (*171*) batera, kondairan gertatu den urraketarik gogorrenetakoa. Eliza katolikotik at mungimendu

bere eskuko: autonomu. **itzartuz:** biztuz, esnatuz. **berealdiko:** egundoko, ikaragarrizko. **etekin:** mozkin, interes, errenta. **joria:** mardula, handia. **bilakuntzek:** inbestigazioek. **banatuz:** bereiziz. **ezeztapena:** ukapena.

bat sortuz, gizon bat agertu zen Alemanian 1517 inguruan, mintzaera* zorrotz eta profetikoz eta jainkozko sentimendu sakonez betea: Martin Lutero.

Beste batzu ere agertu ziren gerora, ikuspegi pixka bat desberdinez. Nagusienak, hauk izan ziren: Zuinglio, Suizan jaioa, eta Kalbino, frantsesa, gizon zorrotz eta neurritsua, eta Jainkoaren handitasun absolutuaz ukitua[1].

Eliza katolikoa ez da errugabea* arazo horietan. Kristau asko, eta zenbait Eliz-artzain ere, atsegin eta handikeria zale zen, eta Kristoren Elizarekiko axolari buruz hutsegin zuen. Alabaina, nahiz hierarki mailan nahiz herri mailan, bazuen Elizak jakintsu eta saindurik. Hauk izanen dira katoliko elkartearen baitan erreforma burutuko dutenak.

Erasmo, esate baterako, izpirituz beteriko apaiza zen, eta zentzu oneko eta humiltasunezko bidea hotsegiten zuen. Haren neurri zaletasunak ezin eraman izan zion, garai hartan, Luteroren erlijiozko sakontasunari. Gaur, ordea, haren ebanjeliozko jasanberatasuna* har genezake gidaritzat.

Oso bestelakoa izan zen Loiolako Inazio zalduna, Iruiñean oinean zauritua izan zena. 1521. urteaz gero, krisi handiak astindu zuen; baina Jainkoaren Izpirituaz bareturik, mundua begi berriz begiztatzen* ikasi zuen, Jainkoaren argitan. Musulmanei ebanjelioa bortxarik* gabe predikatzea izan zuen bere lehen asmoa. Artean ez zuen Iparraldeko Erreformari buruzko pentsamendurik; eman dezagun, ezagutu bederen, ezagutzen zuela.

Baina, bera bizi zeneko mendeak hiru zereginotara deitzen zuen: 1) Eliza eraberritu; baina, apezpikuak Jainkoak eraikitako buruzagi direla emanez; 2) ahal zen neurrian, eta tokian, banaketaren* haztea galarazi; 3) aurkiberriak ziren lurraldeetan ebanjelioa hotsegin. Loiolako Inazio, ordea, beste askoren arteko bat da. Bada beste izen ospetsurik: Karlo Borromeo Milano-n, eta Nimegan jaiotako Kepa Kanisio.

Elizan, kontzilio baten ametsa nabari zen. Azkenean, Trento-n bildu zen kontzilioa (1545-1563). Kontzilio honek sakonki eta liskar* zalekeriarik gabe eman zuen dotrina katolikoa, Erreformak harroturiko puntuei buruz. Bide batez, Eliza xukundu* egin zuen zenbait abusutatik. Beharbada, eginahal honetan, urruntxo joan zen kontzilioa gauza oro araupidetzeko* arduraz.

1 Erreforma eta erreformari hitzez, Luterok, Kalbinok eta Zuingliok sorturiko XVI. mendeko mugimendu sonatua adiarazi nahi da. «Protestante» izena zabalagoa da: Erreformako elizez gain, nola edo hala, zuzenean edo zeharka, Erreformaren haserako mugimenduarekin zerikusiren bat duten kristau elkarte guztiak adiarazten ditu «protestante» hitzak.

mintzaera: hizketa. **errugabea:** hobengabea. **jasanberatasun:** tolerancia, tolérance. **begiztatzen:** ikusten. **bortxa:** indarkeria. **banaketa:** bereizketa, división. **liskar:** sesio, borroka. **xukundu:** garbitu. **araupidetzeko:** legepean ezartzeko.

Bienbitartean, jatorriz aristokratikoa zen Renazimendua, bere baitan herriaren eta erlijioaren elementu asko zeraman kulturara bideratu zen: Barrokora.

Kultur molde honen garaitzapenezko* itxuragatik hitxi ote zituen zenbait kristauk bere begiak, artean berri-berri ziren natur zientzien sen* positibuaren aurrean? Dena dela, Erroman, 1600 inguruan, Galileo hauzitara* eramana izateak zera adierazten du: gai horik ulertzeko itsukeria izugarria zegoela Elizan. Eta zientziak haintzat ez hartze hori are* penagarriago da; zeren, denbora berean, beste asko —Inazio saindua, adibidez— kristau izakera eta izpiritubide berri baten oinarriak botatzen ari bait zen: Jainkoa topatu, lurtar errealitatean *topatzen ahal delako izpiritualitatea oinarritzen hain zuzen* (saindu honek Cardoner hibai ertzean* ukan zuen ikusketa*). Are penagarriago oraino itsukeria hori: zeren, nola bibliazko tradizioak, hala kristau tradizioak, natur zientzien hedatzeari* bide eman dion ikusmoldea bait darama bere baitan; izan ere, tradizio honen arabera, mundua ez da jainko (horrez gero, ez da eskuratu ezina), baizik Jainkoaren kreazio da (mundua jainkotzea* nahiz deabrutzea* ez da onartzen: Frantzisko sainduak, bere goratzarrean*, eguzkia «aitatzat» ez baino «anaiatzat» hartzen du); bestalde, gauzen ikusmolde horretan, mundua ez da itxura hutsa, errealitatea baizik (*221*), oraino erdiminetan delarik ere; azkenik, mundua ez da izaki garai* baten apetaren arabera dabilen zerbait, baizik bere baloreak eta bere legeak hartu dituen zerbait (*222*).

Hain zuzen, kristau fedea bizi zen munduan eta giroan agertu ziren natur-zientziak; buruak ezin jasan* du hori halabehar* hutsak dakarrenik. Kultura teknikoaren hedapenean nolarebait Kristoren salbamenduaren hedapena dagoela, lehen begiratuan ematen duen baino egia handiagoa da, agian (Ikus «Birrerospena» eta «Mundua eraikitzeko lana» kapituluak) (*227,353-354*).

XVI. mendean, erlijio arkitekturak molde berria agertzen du. Elizatan ez da gehiago ikustea galerazten duen pilarerik. Eliza, inoiz ezbezala, «elkartea biltzen deneko zabalunea»da. Adibidez, *Gesù*-ren eliza, eta Kepa sainduarena; biak Erroman.

Zenbaitetan «Kontrarreforma» deitzen zaio erreforma katolikoari. Baina, deitura hori ez da batere egokia. Eliza, funtsean, ez zen inoren eta ezeren aurka, erreforma zuen bere amets. Hori bai: bere burua defenditu eta besterena ukatu nahian gogor jokatu zuen. Baliozko alderdi asko begi okerrez hartu zuten katolikoek; guztia, katoliko izateari utzi zioten Erreformari haiek erakutsiak zirelako.

---

garaitzapenezko: *triunfante, triomphant.* **sen:** joera. **are:** oraindik. **ikusketa:** visión. **hedatzeari:** zabaltzeari, indartzeari. **jainkotzea:** jainko bihurtzea. **goratzarre:** gores-kantu. **garai:** goren, altu. **jasan:** onartu. **halabehar:** patu, kasualitate.

Hala batetik, nola bestetik, handitu egin dira diferentziak. Baina batzuek eta besteek, Biblia berbera onartzen dugu (*260*), Credo berbera, eta egun, ekumenismo mugimendua bera. Horregatik, gogoz kontra aipatzen ditugu desberdintasunak. Laburki bada ere, aipatu egin behar, ordea.

Agian diferentziarik handiena, honetara adieraz daiteke. Kristaudi katolikoak, Erreformako Elizak baino areago, salbamendua gauza arruntenei* atxekirik* dagoela uste du: ogia aldare gainean, Erroman bilduriko Eliz batzarraren mintzoa, barkapen hitzak. Hainbesteraino bihurtzen da gizon Jainkoa, gaurko Elizan ere!

Errealitate arrunt horietan, jakina, sinetsi nahi duenak soilki aurki dezake Jainkoa. Baina, Berak eskaintzen digunaz ez dugu dudarik: ogia Kristoren gorputz da; absoluzioa, barkapen; Eliza orokorraren* hitza, egia, Jainkoa sentigarri delako sineste hori, beste uste honi loturik dago: munduko errealitatea —gizakia ere bai—, funtsean ona dela. Hain ona ere, non, bekatuak eta ustelkortasunak dakazkigun ilunpea gorabehera, Jainkoa ikusterat ematen bait zaigu errealitate horretan.

Erreforma, aitzitik, uste honetan dabil haseratik: Jainkoa ez dela horrela «ukitzeko» gisan agertzen, ez sakramendu (*198-202*), ez eta gaurko Elizaren irakasgoan* (*238, 330, 380, 381*). Salbamendua gogobidezkoago* dela. Lurreko gauzak ez dira gai, horrenbesteraino bederen, salbamendu baliorik izateko. Jainkoarekiko harreman bidetzat, Liburu Sainduak eta haserako kontzilio nagusien fede aitorpenak hartzen dira; horretaz gain, norberaren barne-esperientziari indar handia ematen zaio.

Bekatuen barkapenaz balia* gintezke, adibide gisan, hori argitzeko (*381-389*). Katolikoak, Jainkoak damaion ageriko eta zentzumenezko* garantia dakusa aitortzan (aitor-entzulea bekatari handi balitz ere). Kristau erreformariak, ostera, barkapenaren ziurtasuna*, nork bere baitan sentitzen duen Jainkoagandiko barne-ezagugarrian* bilatzen du. Hona hemen gauza harrigarria: katolikoak, sarritan, barne-esperientziari hain lotua ez zaiolarik eta gauza normal bezala hartzen duelarik, bake eta lasaitasun handiak sentitu ohi ditu. Aitzitik, ziurtasun hori berariz beren barne-esperientzian bilatzen dutenek, erdizka bakarrik sumatzen dute bake hori. Dena dela, bai kristautasun sakona, Jainkoaren ezagugarriren bat etengabean bilatze horretan!

Erlijioarekiko bi joera desberdinok, gizaki mota desberdinak sortzen dituzte. Erreformak, fede bizitza arreta han-

---

arruntenei: egunerokoel. **atxekirik:** loturik. **orokorra:** osoa. **irakasgoa:** irakaskintza. **gogobidezko:** izpiritual. **zentzumenezko:** sentigarri, sensible. **ziurtasuna:** segurutasuna. **ezagugarri:** signo, signe.

diagoz, erneagoz eramaten eta fede pertsonal bezala irakatsi die bere jarraitzaileei; baina kezkatiago eta, maiz, goibelago ere bihurtu ditu. Eliza katolikoan, berriz, bakea arras gizatar izan daiteke, eta munduko gauzarik naturalena. Baina, horrek, berekin du Jainkoa, gizakiak eta gauzak arinegi hartzeko arriskua ere. Alabaina, esker-beltzeko izango ginateke, sentitzen dugun bake hori, geure gailentasunaren* seinaletzat eta ez Jainkoaren presentziaren ezagugarritzat hartuko bagenu: Jainkoa maitasun, poz eta bake izaki.

Halaz guztiz, kristaudi osoaren alde Erreformako Elizan —beronek alderdirik bereziena duenean ere— hedatzen ari diren ontasunezko eta saindutasunezko aberastasunak neurtzea ezinezko gauza litzateke. Eliza katolikoak ezin zapuzten ahal du Erreformako Eliza.

Bereizten gaituenaz ihardun bagara, Erreformaren arazoa joan-etorri handikoa dela adierazteko izan da. Hor hauzitan dagoen arazoa, hain zuzen, ukitzen gaituen eta muinetaraino aldatzen gaituena da: bekatuari, munduari, Jesukristori, Jainkoari buruzko gure jarrera dago jokoan. Protestante komentzitua bat datorke horretan gurekin. Erreformak ez zion asmakeria bati heldu. Gai honetaz ez dugu guztia esana oraino; zorionez; gainerakoa geroxeagorako uzten dugu; XX. mendeko mugimendu ekumenikoaz mintzatuko garenerako.

Aipatutako urraketa hori gertatu zenean, zutik zegoen iritzi hau: gizarte batek, alegia, puntu nagusienetan bederen, erlijio bakarra ukan* behar zuela. Inkisizioa erreformarien eta berauen aldekoen atzetik ibili zen (*173*). Eliza katolikoaren kondairan tarte iluna izan zen hori (gogora ditzagun Bartolome saindu eguneko hilketak, Frantzian [1572an]; Erreformaren aldetik ere, tarte iluntzat geratu dira kondairan, katolikoen eta beste sektetako protestanteen kontrako sarraskiak*. Guztien odol hura emankor gerta dadila!

Liskar* guztien azpian nabari den ideia, hauxe da: gizarte jakin batek erlijio jakin bat behar duela; eta ideia horrek, beste erabaki bitxi* bat erakarri zuen. Hain zuzen, Erreforma Europan zabalago egin zeneko, Alemanian —eta beste zenbait erresumatan ere— Dekretu hau eman zen: erlijio arazotan, lurraldean agintari zen printzearen erlijioa ezarri behar zela (*cujus regio, illius et religio*) (*348*). Arau* hau onartu nahi ez zuenak herbesteratu egin behar zuen. Hainbesterainoko aldrebeskeriatzat jotzen bait zen gizarte bat berean erlijio hanitz* izatea.

Konponketa bat egitera iritsi aurretik, anaia eta nazio arteko gudarik jasan* beharko zen. Horretan ere, ordea, Estatuen arteko etsaigoek* eta kontrako interesek berena egin zuten, eta sarritan erlijiozko arrazoinek baino areago (gogora ditzagun, adibidez, Gisatarrek eta

gailentasun: nagusitasun. **ukan:** eduki, izan. **sarraskiak:** hilketak. **emankor:** fruitutsu. **liskar:** sesio, borroka. **bitxi:** arraro. **arau:** jokabide, norma. **hanitz:** ugari. **jasan:** sufritu. **etsaigo:** etsaitasun.

Kondetarrek elkarren kontra eman zituzten liskarrak*). Beraz, gertaera hauk, besterik gabe, «erlijiozko gudaketa»tzat ematea, ez da osoro zuzena; halere, erlijio hautaketa Estatuen eskuetan ezartzea, joan-etorri handiko arrazoina izan zen iskanbila horietan, jakina. Mendetan* iraun zuen honako egoera honek zenbait erresumatan: erlijio bat «ofiziala» eta beste bat «hertsatua*». Adibidez, Ingalaterran, Lurralde Beherean, Espainian, Italian, Frantzian, Eskandinabiar Lurraldeetan.

Aro Berria: Mundu guztian zabalduriko erlijioa 176

Gerora, bizi ikusmolde berriak hasi ziren agertzen. 1600dik aurrera eta, batez ere, 1700dik zenbaitek ez zuen inola ere kristau izan nahi; Jainkoa sinesten zuten soil-soilik (deismoa). 1800ez gero, inondik ere Jainkoa onartzen ez duen pentsalari multzoa ezagutzen dugu (ateismoa).

Halatan, gero eta gehiagoan zihoan gizartean pentsabide desberdinik biltzen. Egoera hau antolatzeko, denbora asko behar izan dute Elizak eta Estatuak. Apurka zihoan taxutzen irtenbidea horretarako, Elizaren eta Estatuaren arteko loturak askatuz zihoazen (*348-349*). Bide hori, jakina, ez dago inola ere bekoz-beko Ebanjelioaren mezuarekin. Aldez aurretik Estatuak ez dio laguntzarik ematen erlijioari; baina erlijioa herritar sail baten pentsakera delarik, erlijio horrekin harremanetan hasten da estatua, herritar sail horren ordezkari* bezala.

Hona beraz: azken hiru mendedanik*, Eliza diaspora giroan (*25*) sartzen ari da gero eta gehiagoan, hots, sakabanaketa* giroan; fede bera ez dutenen artean. Denbora berean, mundu guztian barrena zabaldua ikusten dugu Eliza. Fenomenu hau ere berria zen. Izan ere, Ebanjelio mezua, munduko zoko txiki batek bakarrik bait zuen entzuna. Baina, Erdi Aroko sineste batasuna amaitzean, gainerako munduarekin harremanak sortu ziren (Kristobal Colon, Vasco de Gama).

Jende asko aberasteko ametsak eraman zuen mundu berri horretara. Baina, bazen apaizik ere, Ebanjelioa zabaltzeko ahaleginetan. XVI. mendeko gertakari nagusiena, Europako kristaudia* baitan gertatu zen urraketa ez baino egundoko gertakari den hau izan zen: Eliza, azkenean, lur muturreraino hedatzen hasi zela.

Jesusen mezuari mundu berri horietan errotzeko bidea irekitzekotan, beste herrien hizkuntza, jazkera eta ohiturak

mende: siglo, siècle. **hertsatua:** zapaldua. **ordezkari:** representante, représentant. **mendedanik:** mendeetatik. **sakabanaketa:** barreiaketa. **kristaudia:** kristau multzo, herri.

hartzen ziren (*288*). Halaxe egin zuen Indian, esate baterako, De Nobili-k. Haatik, predikari asko ez zen gauza izan kristau denaren eta europar denaren arteko berezketa egiteko. Kristau elkarte berritan, berauen pentsabide eta ihardunbide* berezi ororí aurka egin zioten. Horixe litzateke XVI. eta XVII. mendeetako Asiako «ritu-eztabaida» izenez ezagutzen dugu-na. Europar ikusmoldea atera zen garaile. Hauzia galdu zu-ten misiolariek burua makurtu zuten. Alabaina, joan den mendearen azken aldetik hona, De Nobili-k proposatzen zuen jokamoldearen ukitua nabari zaio fede hedakuntzari.

Eliza azken mendeetan 177

Liburu honen muga artean, ezin pentsa daiteke, azken mendeetako gertakari, joera desberdin eta pertsonaia handiei zor zaienik ematea. Horretarako bibliografia aski bada. Eli-zaren bizitza gizadi osoarenari inoiz ezbezala lotu beharrean gertatzen da. Egoera horrek berekin ditu eragozpen berriak; eta bertute eta betekizun* berririk ere eskatzen du: leialtasu-na hutsegin gabe, jasanbera* izan beharra (*287*); inguruko gi-roari buruz libroago bizi, eta denbora berean, sinesgabeekin elkartuago. Egoera berriak ahalbide berririk ere sortzen du: etengabeko zuzenketarako eta irudipen okerrak uxatuz joa-teko bidea ematen duelarik. Egia esan, bada oraino, Jainkoaz ikusmolde eta erlijioren bat aldezten* duen Estaturik; eta ho-rrela, ikusmodu ofizialeko ez direnak, maila beheragokoan aurkitzen dira gizartean. Munduko eskualde zabal askotan, Jainkorik ez delako ideia irakasten du aginte politikoak. Es-kualde horietan, kristaua zapaldu edo erasoturik* bizi da. Damuz*, ezagutzen da ere, eta gaurreguneraino, jazarle*, hots, sinesgabeen jazarle, katolikoak izatea.

Dena dela, badirudi, gure ludi hau, gizon-emakume guz-tien arteko irekitasun eta harreman bideetara sartu dela (*149, 353*).

Batikano II. kontzilioak, «kristau ez diren erlijioekiko Elizaren harremanei buruzko Deklarazioa»n, azken aldera, Jainkoari eta honen irudira sorturiko gizakiari zor zaien mai-tasunaz mintzo delarik, baieztapen hau dagi: agindu horrek (Jainkoa eta gizakia maitatu beharrak) azpia jaten dio teoria honi:

> «gizakien artean nahiz herrien artean, pertsonaren duin-tasunari dagozkionetan eta horri darizkion eskubideetan berezkuntza ezartzen duen teoria orori. Horrez gero, arraza

ihardunbide: jokabide. **betekizun:** eginkizun. **jasanbera:** tolerante, tolérant. **aldezten:** defendatzen. **erasotu:** pertsegitu. **damuz:** zoritxarrez. **jazarle:** pertsegitzaile.

> nahiz kolorea nahiz klasea nahiz erlijioa dela eta, gizakien artean egin nahi litzatekeen berezkuntza edo zapalkuntza oro, Kristoren izpirituaren kontrakotzat gaitzesten* du Elizak. Ondorioz, kontzilioak, Kepa eta Paulo apostoluen urratsei jarraiki, eskabide zorrotz hau dagie Kristoren dizipuluei: Ukan* dezatela herrien artean jokabide ona (1 P 2,12), ahal baldin bada, eta beren aldetik bizi daitezela baketan, gizon-emakume guztiekin, zeruan dagoen Aitaren seme-alaba egiaz izateko gisan» (ikus Mt 5,45).

Gaurregun inork ez du jotzen beste etxe-teilatuen gainetik elizak eraikitzera; hori bera, diaspora giroaren seinale da. Izan ere, eliza ez bait da gaur herritar guztien kultur leku, txikiagoak nahi dira egin, irekiagoak, eta, halaz guztiz, bilduagoak. Kristo gure etxebizitza artean legami huts izango da. Teologiak, gogoeta gaia, Elizan eta kanpoan bizi direnek egiten dizkioten galdeetan topatzen du (bibliazko exegesia, eboluzioa, gauza profanuen balioa, moral ikuspegi berriak).

Elizaren kondairarako, joan-etorri handiko gertaera da gizarteko komunikabide eta garraiobideen* asmakuntza: telebista eta abiazioa, adibidez; kristau ez dena, nire «lagun hurko» konkretutzat azaltzen dit gertaera horrek. Gaineratikoen usteak ene etxebizitzara bertara aurkezten dizkit, eta etengabean. Kristauak are entzuten du horrela, eta are entzun arazten bere ahotsa.

Mugimendu ekumenikoa 178

1910etik hona, Kristo sinesten dutenengan, azken mendeetako urraketaren kontrako mugimendua nabari da. Elizen Kontseilu Ekumenikoa Amsterdam-en sortu zen, azkenik, 1948an; ordudanik, mugimendu hau (mugimendu ekumenikoa) tankera zehatzagoa hartzen hasia da.

Elizen Kontseilu Ekumenikoak ez du izan nahi Eliza berri bat, gainerakoak bere baitan bil litzakeena, mundu mailako Eliza garai bat; azkenean New Delhin 1961ean onarturiko formularen arabera, zera izan nahi du:

> «Elizen Kontseilu Ekumenikoa zera da: Jesukristo gure Jauna Liburu Sainduen arabera Jainkotzat eta Salbatzailetzat ezagutzen duten, eta Jainko bakarraren, hots, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren aintzarako, guztien dei bakarrari batera erantzuten ahalegintzen diren Elizen senidearteko elkartea».

Kontseiluak zera nahi du: gizadi osoari buruz eginkizun bat bera duten kristau guztiak elkartu: aitorpen*, batasun eta

gaitzesten: kondenatzen. **ukan:** eduki. **garraiobide:** transporte. **aitorpen:** testigutza, lekukotza.

zerbitzu eginkizunean alegia elkartu (martyria, koinonia, diakonia) (*282-283*).

Kontseilu Ekumenikoan, katolikoa ez beste Eliza gehienak daude izena emanik. Haseran, duda-muda asko agertu du Eliza Katolikoak ofizial mailan; batez ere, protestanteekiko harremanetan; Ekialdeko Elizekiko elkarrizketarako ez hainbeste. Baina, esan behar da, beti izan direla, nola bakarka hala taldeka, batasunaren axola ekintzetan aurrera eraman dutenak.

Joan XXIII.ak deitutako kontzilioa hasi zenetik, zehaztuz joan da batasun nahia, eta arrakastabideak* argituz; horixe erakusten digu, 1961ean «Kristau Batasunerako Idazkaritza» delakoa sortzeak. Uste hau biziagotzen ari da: ekumenismoaren aldeko izateak ez dakarrela berez jainkozko egiari buruz axolagabe izatea; baizik eta, hain zuzen, elkartzen gaituen egiarekiko axolatsuago izatea.

Horrela aldarrikatzen* du Batikano II. kontzilioak:

> «Beharrezko gauza da, beren sorburua guztion ondarean* ukan, eta gure senide bereiziengan aurkitzen diren egiazko kristau balioak katolikook pozez ezagutzea eta preziatzea. Kristoren aberastasunak eta haren lekuko* (zenbaitetan odola isurtzeraino) direnen bizitzan diharduen* Kristoren ahala ezagutzea, gauza zuzen eta osasungarria da» (*Ekumenismoaz Dekretua*, 4. zenb.).

Ikusi dugunez, mendetan zehar, mugimendu batek kristaudia kontrako bi aldetara zeraman (*171*). Badirudi, gaur alderantzizko joera ikusten dugula begien aurrean: jobideak* biguntzen ari direla ematen du, eta bata bestetik hurbiltzen, Kristoren harako otoitzaren arabera: «Guztiak bat izan daitezela» (*260*).

Ireki gakizkion, beraz, mugimendu horri, otoitzez, nork bere bizitza zuzenduz eta burubideak berrituz, fede iturriak eta elkarren tradizioak aztertuz, maitagarri litzaizkigukeen moldeak uzteko prest izanez, elkarrizketa jator eta jasankorrez*, erosoegi liratekeen «bide koxkorrak» baztertzen dakien seriotasunez, geure Elizan eta besterenean txikien eta behartsuen dena maitatuz, gizadi guztiaren zerbitzurako guztien indarrak bilduz. Ireki gaitezen, eta berehala nabari izango zaizkigu egiazko kristau senak sortzen dituen berriztapen eta poza.

---

arrakastabideak: irtenbideak. **aldarrikatzen:** oihuztatzen. **ondarea:** patrimonio, patrimoine.
diharduen: ari den. **jobideak:** direcciones, directions. **jasankor:** tolerante, tolérant.

Elizaren historiari eman diogun gainbegiratuan, Eliza eta Estatuaren arteko harremanak kristauen arteko banaketa eta batasuna, e.a. ikusi dugu. Beste zenbait alderdi ez dugu ukitu. Halatan, ez dugu deus esan Kristori bereziki jarraitzeaz, hots, honako ebanjeliozko hitzetan oinarritzen den bizikeraz: «On-ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu duzun guztia eta eman behartsuei... eta zatoz, jarrai Neri» (Mt 19,21); (ikus «Ebanjeliozko Aholkuak» kapitulua). Eman diezaiogun begiratu laster bat alderdi horri.

Mendetan zehar era desberdinetan jarraitu izan zaio ebanjeliozko aholku* horri. Bide hori hartu dutenek, Kristoren ezkongetasuna* ere imitatzeari ekin izan diote. Lehen Elizan, birjinak eta aszetak ziren; gainontzeko kristauen artean bizi ziren. Gerora, Kostantinoren bakea baino lehenago ere bai, basamortura jo zuten bakarren batzuk (Egiptoko Antonio). Laster, elkarrekin bizitzen hasi ziren: bizitza zenobitikoaren hasera izan zen. Elkarrekiko onberatasun* eta obedientzia libroki onartu ziren, lehengo pobretasun eta birjintasunari berez lotuta baleude bezala (Egiptoko Pakomio). Elkar-bizikera honetarako ebanjeliozko jakinduriaz beteriko bizi-arauak* idatzi ziren. Basilio sainduarena Ekialdean hedatu* zen; Benitorena, Mendebaldean. Elkarrekin bizi ziren apaizentzat, Agustin sainduak ere idatzi zuen bizi-arau bat Mendebaldean.

Benitoren urratsei jarraitu zaizkionak mundua ebanjelizatuz nabarmendu dira bereziki; bai eta Europako kultura moldatuz ere, ordea: nola beren nekazari lanaz hala beren jakinduriaz.

Halaz guztiz, kristau elkartearekiko hauen funtsezko laguntza, beste zerbaitetan datza; beren eginkizun nagusitzat ematen duten zerbaitetan: elkarteko otoitzean, Liturgi otoitzean.

Beneditarrak horretantxe berezten dira, XIII. mendean bizi-bizi jaio ziren bi ordenetatik: Anaia Ttipiak (frantziskotarrak) eta Anaia Predikariak (dominikanoak). Hiritan bizi ziren erlijioso berri hauk, zerbitzurik nagusien bezala predikua zutelarik: frantziskotarrak pobretasun bizitzaz batez ere, eta Jainkoaren eta gizakien aurrean sinple izanik, eta, gainera, Jainkoaren hitza predikatuz (*175*); dominikanoak, berriz, ikasketaz eta predikuz (dominikanoa zen Akinoko Toma sainduа) (*172*). Geroago, XVI. mendean, erlijioso bizikera berria

---

aholku: kontseju. **ezkongetasuna:** zelibatua. **onberatasuna:** bihotz-samurtasuna. **bizi-arauak:** erregelak. **hedatu:** zabaldu.

taxutzen* du Loiolako Inazio sainduak: «munduari» lotuagoa; Inaziok «Jesusen Lagundi» izenez sortu zuen ordenak ez du koruko errezorik, ez eta komentu bizikerarik (*175*).

Gaurregun, sortu berriago diren kongregazio eta istituto sekularrak, «munduari» atxekiago nabari ditugu, eta ebanjeliozko aholkuen arabera bizi direlarik. Aipa ditzagun, adibidez, Jesusen Anaia Ttipiak eta Ahizpa Ttipiak, Saharako eremita izan zen Foucauld-eko Karloren jarraitzaileak.

Kondaira honetan, abiada, gehienetan, gizonezkoen esku ageri da; emakumeak ere, alabaina, garaian garaiko izpirituaren araberako elkarteak moldatzen saiatu dira. Agian, XVI. mendeaz gero, atzera samar gelditu dira, eta hori, arrazoin honengatik: nola-halako beregaintasuna* eta askatasuna beren baitan zeramatzaten bi asmobide (Mary Ward-ena eta Mereci-ko Aingeru-rena) burutu ezinik gelditu direlako.

Erlijioso ordena edo kongregazio berriak sortzean, zaharrek aurrera egiten zuten. Beren fundatzaileen lehen izpirituari eutsi diotelako, gehienek zaharkitu* gabe iraun dute: XX. mendeak ezin zapuz* lezake, ez beneditar bakea, ez frantziskotar alaitasuna, ez dominikanoen egizaletasuna, ez eta beste.

Gaurregun Taizé-n (Frantzian) protestante elkarte bat sortu da, nazioartekoa eta ekumenismo izpiritu handikoa.

Sarritan, Kristoren mezua, erlijioso kongregazioren bat bide dela geureganatzen dugu: parrokian dela, eskolan dela, elkarrekiko harremanetan dela. Elkarte horien historia guztiz axolazkoa zaigu, beraz.

Kristodanik mundua gizatarragotuz doa *(37, 39-41)* 180

Oraino ez ditugu argitara atera Elizaren kondairako luze-zabal* guztiak. Horregatik, Kristoren mezuaren kondairan hirugarren hari bat nahi genuke azpimarratu*. Berezten zaila delarik ere, axolazko haria da zinez*.

Kristau fedea, eskukoaren* eta jopuaren artean, herritarraren eta arrotzaren artean, gizonezkoaren eta emakumezkoaren artean ere, gogorkeria eta funtsezko desberdintasuna ezartzen zituen gizartean erne* izan da (*54-55, 102-103, 166 172, 174, 175, 236, 227*). Desberdintasun ideia horri, oinarri guztia kendu egin dio Jesusen dotrinak. Jainkoaren begitan guztiok berdin gara. Paulo sainduak dio: «Geroztik ez da gehiago judurik, ez greziarrik, ez esklabu, ez eskukorik, ez gi-

taxutzen: eratzen. **beregaintasuna:** autonomia. **zaharkitu:** zahartu. **zapuz:** zapuztu, baztertu. **luze-zabal:** *alderdi.* **azpimarratu:** *azpimarkatu, indartu, nabarmendu.* **zinez:** benetan. **eskuko:** libro, burujabe. **erne:** sortu.

zon ez emakumezkorik: bat zarete eta zuek denok Jesukristorengan» (Ga 3,28). Baieztapen* hori bonba epekaria* izan zen: gerora, gaurdainoko guztian lehertuz joanen zena. Esklabutza kentzea ez da bapateko konklusioa izan; Paulo berarentzat ere ez (*269, 284, 288, 311, 322, 348, 352, 361-363, 380*). Baina, Kristodanik, esklabua eta burujabea, gizaki zirenez, arrunt berdinak ziren (ikus Ef 6,5-9). Behartsua eta aberatsa ere bai, berdinak ziren.

> «Egizue kontu sartzen dela zuen batzarrera gizon bat urrezko eraztunez eta jantzi dotorez, eta sartzen dela baita ere gizon pobrexko bat zarpa zahar eginik. Begiratzen diozue jantzi dotorekikoari eta esaten diozue: Zu, jar zaitez honako toki ohoretsu honetan. Pobreari, berriz, esaten diozue: Zu egon hor zutik; edo bestela: eser hor nire oinpeko maila horretan. Horrela ihardutean ez ote zarete gero zeuron gisara iritziak ematen ari, eta pentsamendu gaiztozko epaile bihurtzen?» (Jak 2,3-4).

Baina kondairak berak erakarri behar zuen ondorena. Gorabehera handiz, —ekonomia zer-nolakoa zen, aldeko ala kontrako zen— esklabutza, lehendabizi, biguindu egin zen kristauen artean, gero ezabatu; gauetik goizera ez, alabaina (*54, 172*).

Demokraziaren eta zuzentasun sozialaren aurrerapenak ere badu, inondik ere, zerikusirik Kristoren dotrina horrekin: gizon-emakume guztiok Jainkoarekiko erlazioan, hau da, gure izate sakonenean, funtsean berdin garela bait dio. Jendartean gogorkeria eta basakeria ere arindu egin dira (batez ere, presondegietan, hezketan). Abereekiko ere, gaurko gizakia biguinago bihurtu da. Oraino ere gogorkeriarik eta ankerkeriarik* asko egiten delarik ere, izkutuka egiten da; gaizki dagoela jakinaren gainean (ikus «Biziarekiko errespetua» kapitulua).

Kristau izpirituak, legamiak antzo* landu du gizadia.

Norbaitek, beharbada, esango du: «Eboluzio hori, gizadia pixkana gizatartzen* ari delako seinalea da soil-soilik». Baina, inola ere ez da hori guk diogunaren kontrako. Aurrerabidean doan gizadia, Jesusek nahi duen eta izpiratzen dion bizimoldera jo dezan izan da sortua (*417*).

Alabaina, gogoan izateko da, sarritan, kristau ez direnak ere, berdintasun eta gizatasun handiagoren eragile* bilakatu* direla (*232*). Atzeman duten egiaren bati atxeki* zaizkio buru-belarri. Beraien ahaleginak askotan lasterragotu du eboluzioa. Agian, ordea, giza mailan neurrizko burutzea ez du beti kontutan eduki izan.

Halaz guztiz, kondairan fenomenu harrigarritzat geldituko da hau: mixeriaren aurkako eta gizakien arteko berdin-

baieztapen: afirmazio. **bonba epekaria:** bomba retardada, bombe á retardement. **ankerkeria:** basakeria. **antzo:** bezala. **gizatartzen:** gizonago egiten. **eragile:** mugitzaile. **bilakatu:** bihurtu. **atxeki:** lotu.

tasunaren aldeko borroka, kristau mezuaz kutsaturiko mundu parte honetan bilbatu* dela; Kristo, gizakien bide-lagun bezala hobekiago ezagutua izan den partean alegia.

Jainko herriaren kondairaren beste ikuspegi* bat 181

Gertaera harrigarriak, erlijioso elkarteak, gizatartze pozgarria: horra Jainko mezuaren lur honetako kondairaren hiru hari. Ez dugu uste, horrenbestez historia hori arras adierazia dugunik. Iragan denboran zirriborraturiko* zenbait bidezidor* besterik ez da hori guztia. Ezker-eskuinetara, historilariaren begiari ihes dagion gizon-emakumeen bizitza alorra* hedatzen da; ahaztuxe gelditu ohi diren gizon-emakumeen ontasuna:

«Lautada, lautada luzeren zehar,
aurreruntz egundoko populua» (Aimé Dural).

Agian hestu besterekin, agian gizaki eta abererekin zakar eta gogor, agian jentilen sineskeriari atxekirik, agian mila aurriritzitan gogorturik; baina, beti, gorabehera handiz delarik ere, Kristoren mezua betetzeko asmoz: horrela doa herri bat kondairan zehar.

Otoitzaren aldeko borroka, nor bere buruaz jabetzearen aldekoa, onberatasun suharraren* aldekoa, onuragabeko* maitasunaren aldekoa, ezkon-leialtasunaren, birjintasunaren, bake eta jasanberatasunaren* aldekoa: horixe da, funtsean, Elizaren historia.

Nor da Jainkoaren herriko? Eliza hitzak dituen adierak 182

(Ikus «Jainko Herriaren Apaizgoa» kapitulua)

Nor da herri honetakoa? Giza kontzientzia iratzartzen* duen elkarte katoliko biziaren baitan* Kristo topatu dutenak: horik deitzen ditugu Eliza.

Eta zisman edo okerbidean* bizi direlarik, Kristo topatu dutenak, zer? Ezin ukatu horiei ere *Kristoren Eliza* izenik. Are, haiekin batera moldatzen dugu Eliza, bete-betean.

Gainera, bada beste asko, kristau izenik ukan ez arren, baina bizitzez, eta Jesusen mezuari esker, ontasunera eta maitasunera zuzendua denik. Holakoek, agian, Kristo nor den ez dakitelako, haren izena ukatu egiten dute; alabaina, Kristok sorturiko giroan, hark ekarririko balioetarik asko bizi dituzte (*333*). Adiera zabalagoan bada ere, *Eliza* izena zor diegu agian; izan ere, kondairan zehar Kristoren mezutik zerbai-

bilbatu: desarroilatu. **ikuspegi:** ikusmodu. **zirriborratu:** urratu. **bidezidor:** bidexka. **alorra:** sail. **suharra:** beroa. **onuragabeko:** abantail, probetxu gabeko. **jasanberatasun:** tolerancia, tolérance. **iratzartzen:** esnarazten. **baitan:** barnean. **okerbidean:** egiatik kanpora.

txoren bat zabaltzen duen herri horretakoak bait dira horik ere.

Azkenik, bada, kondairak Kristoren mezuarekin harremanik gabe utzi baina bere kontzientzian eta legetan Jainkoaren hitzari meneko* izan zaionik. Hauk ere ez ditugu baztertu behar munduaren argi den Kristori jarraiki doan herritik, nahiz eta Haren izenik ez entzun. Izan ere, Izpirituak sorrerazten eta ikusten ditu bihotzaren jarrera ona, argitze eta jaiotze berri baten gogo isila: Jesusek ematen dituenak bezalakoak (*193*). (Kristau guztion apaizgoaz hitzegiterakoan emanen ditugun arrazoinetan finkaturik* baiezta dezakegu hori). Hargatik, horiei ere ez litzaieke eliztar izena ukatu nahi; baina, hitza zentzu arrunt zabalean hartzea litzateke hori. Agian, hobe genuke horretara jotzea; *Eliza* hitza, esanahi zabalean, kasu honetan bakarrik erabili behar litzateke: Kristoren mezuarekin bistako lotura historikoa dagoenean (*194*).

Kondairaren muina 183

Ontasun eta jasapen anonimu horik aipatzean, Elizaren historiaren muinera heldu ote gara? Oraino, ez. Barrurago jo dezakegu oraino.

Ontasun joera horren pean, eta pertsona berarengan, bekatuaren eta graziaren historia bilbatzen* da. Hona hondo--hondoan aurkitzen duguna: leialtasun falta (erorialdiak, etenak), gogorkeria (gerrak, inkisizioa, gorrotoak), lilurakeria, koldarkeria*, fede falta, etsipena*: mixeria horiei, Jainkoak, beti eta aldioro, bere graziaz erantzun die. Aspertzeke, bakoitzari bere Izpiritu Saindua emanez hasten da. Horixe da ontasunaren historiaren egiazko maila. Historian ikusi ditugun beste hariak baino areago, bekatuaren eta graziaren arteko kondaira hori da misterioz bildurik datorrena. Milaka bizitzen sekretu, hilobira, Jainkoaren betikotasunera eramanak.

Bekatuaren indarraren eta graziaren ahal handiagoaren kondaira (Ikus «Bekatuaren indarra» eta «Birrerospena» kapituluak). Kristoren bizitza bizitzen saiatzen direnak zerbaitek bereztekotan, beren baitan itsatsirik daramaten errealitate bikoitz hori da: norberaren eskasia eta Jainkoaren aintza (*281*).

---

meneko: obediente. **finkatu:** oinarritu. **bilbatzen:** desarroilatzen. **koldarkeria:** beldurtikeria, txepelkeria. **etsipena:** desesperazioa.

Predikuz dator fedea. Konbertsioa (*93-96*)

Guk asmatua ez den mezua (*236-240*) 184

«Predikuan entzun denetik dator fedea» (Erm 10,17). Ez da norberaren asmaketa. Ez dugu fedea atzematen*, izadia nahiz gizakia gogoeman* hutsez. Ez! Ikusi ez dena entzuten da iragartzen. Kristok Aitari buruz adierazi digunaren iragarpena entzuten da. Eta Elizaren mintzoaz entzun ere.

Egia, sorkari* garenez, Kristorengana zuzenduak gara (*235*). Eta munduko gauza guztiak, gu ere bai, Kristori begira daude. Honela, gure sentimenduak eta pentsamenduak, gure maitasunak, gure giza aurrerapenak: guzti horiek badute beren baitan zerikusi handi bat Kristorekin. Halere, ez gintezke oso-osoan fida*, ez zer garenari, ez eta geure aurrerapenari. Gure sentimendu eta pentsamendua diren kasuetan, Agerkundeak bidea erakusten digu. Ebanjelioak beti dakarkigu ustekabeko zerbait (*311*). Ebanjelioa, geure pentsakera uneoro* aldatzera behartzen gaituen mezua da. Berri bilakatzen gaitu. Horretan datza konbertsioa (*45*).

Gainditu beharreko oztopoak* 185

Gizakiak, federa iritsi nahi badu, oztopo saila igaro behar du (orobat gero ere fedea sakondu nahi badu). Eragozpenetan alderik badago *pertsona batetik bestera*. Dena den, gizartean bada zenbait joera guztiok duguna; adieraz ditzagun oztopo horietarik zenbait.

Gainditu beharreko lehen traba, zera da: nagusitasunerako dugun isuria*, eta gauza oro, geure kidekoak* barne, geure menpean jartzera eragiten diguna. Ez dugu mirespenik, ez eta errespeturik ere. Gauzei eta gizakiei buruz, gizonak bere buruari dagion galdea, bakarra, hauxe da: Zertarako ditut probetxugarri? Horrela, gauzek ez dute gure harridura nahiz begiramena* iratzar lezakeen ezer ere; ez dute gure baitan honelako galderik biztu lezakeen ezer: Nondik datoz? Zer adierazten dute? (*13-14*). Geure kalkuluak egin eta gauza oro aldez aurretik igerri eta antolatu nahi genuke. Horixe litzateke guztia. Ustekabeko den edozeri atea hesten* zaio aldez aurretik (*374-375*).

Eta gizakiarekiko ere, beste hainbeste. Bestea ez dut maitasun eta askatasun sorburu* bait litzan hartzen; ez dut hartzen bere-bere nortasuna duen «nerau» bat bezala; ez dut

atzematen: lortzen, geureganatzen. **gogoeman:** pentsatu. **sorkari:** kreatura. **fida:** fidatu. **uneoro:** une guztietan. **oztopoak:** trabak. **isuria:** joera. **kidekoak:** antzekoak. **begiramena:** errespetua. **hesten:** hixten. **sorburu:** iturri.

hartzen bere-bere bizia duen norbait bezala. Gauza bezala hartzen dut: Probetxugarri eta estimagarri den zerbait bezala begiratzen diot soilki. Gauzak eta gizakiak eskuratu egiten ditut, beraien barne muina ikusi gabe.

Horrelako joerarik, denok dugu zerbait. Batez ere, teknika aro honetan; gauzak aztertzen eta kalkulatzen hain iaioak* garelarik, maila horretan gelditzen gara sarritan. Baina, gure aurrekoak ere, joera beraren azpian gertatu ziren, beren gisara. Nagusitasun ametsa, gogorra eta hotza, sarritan harrokeriari lotua, geure baitan sakon sustraituriko akatsa dugu; eta hori, gure harremanetan adierazten dugun onberatasuna* eta guzti.

Benetan maitatzen duenak, gainditu egiten du oztopo hori. Orduan lagun hurkoa ez litzateke gure zentzuen atsegingai, ez eta neurturiko probetxurako; aldiz, egiaz norbait litzateke: bere sakontasun eta guzti, bere baitan daraman dohain isil eta guzti. Horrez gero, ezin kalkulatu dut guztia, ez eta begiratu batez alderdi guztiak atzeman*. Bestea *den* bezala ezagutzeko, bide bakarra hauxe da: nire buruaz jabetzen utzi besteari, nire ustea bestearengan jarri, besteari sinetsi.

Sinesmenik gabe, maitasunik ere ez. Besterengan sineste hau, ez da beheragoko ezaguera modua, garaiagoa* baizik; lurrean den gauzarik harrigarriena ezagutzeko bide bakarra horixe da; pertsonaren bat ezagutzeko bide bakarra alegia. Psikologiazko deskribapen hotza, esate baterako, zorrotzena delarik ere, atarian geratzen da: ez da heltzen bestea berorren baitan atzematera. Maitasunezko ezagutza, aldiz, bai, heltzen da. Horregatik, «zugan dut ustea» esateak, ez du dudarik adierazten; beste esaldi honetan, hots, «bihar euria egingo duela uste dut» esaldian, ordea, duda azaltzen da. «Zugan sinesten dut» esatea, lur honetan ezagugarrien denarengana hurbiltzea da, eta ezagutzea: ezagutu alegia, beste hori eta beste horrek bere-berea duena, eta inoiz ere berriztuko ez dena. Hona hemen hori ezagutzeko bide bakarra: errespetua, mirespena, maitasuna. Zinezko maitasunak, itsutu ez baino argitu egiten gaitu.

Alabaina, gizona hondoraino maite duena, maitasunaren muin-muinean, honetaz jabetuko da: oraino ez dela heldu hondo-hondoraino. Bata besteari zor gatzaizkio denok.

Nola eta norengatik? Zein da elkartzen gaituen azken muina, izatea damaiguna? Maitasunaren gailur suharrean* iraun ezinak ere, galdekizun hau dakarkigu: nondik datorkigu neurrigabeko eta ase ezineko irrika hori? Gezurra ote da? Ala geure bihotzeko atean deika, guk ezagutzen ditugun guztiak baino handiago den zerbait edo norbait ari ote zaigu?

iaioak: trebeak. **onberatasuna:** bihotz-samurtasuna. **atzeman:** ezagutu, ulertu. **garaiagoa:** bikainagoa. **suharrean:** bizian.

Galde honen aurrean izutu egin gintezke, oztopo baten aurrean bezala. Eta bertan gelditu. Orduan mundu honekiko harridura, itzal eta maitasun hutsaz biziko ginateke, galdekizuna aurrerago eramateke. Ez nuke egingo beste galde hau: eta gure maitasun hori gailurra ez balitz? Maitasun horrek iragartzen* bide digun mugagabetasun eta miresgarritasun hori zinez balitz izan, ez ahal nuke kontuan hartu behar beste hau: agertu ere egin dakigukeela? Zerbait baldin bada izan, zergatik ez zait agertu behar? Zergatik izan behar du ezinezkoa agertzea?

Agerpen honi belarriak hesten dizkiona, izugarrizko ezinari loturik geldituko da.

Baina aditzera ere jar daiteke gizona. Galdezka, bilaka, «ate joka» ihardunez. Besteak, Trazendenteak izan behar lukeenaz, irudi bat taxutzen* du gizakiak. «Filosofoen Jainkoa» barruntatzen da, eta egiaren zati handi bat hasten zara ikusten (*5*). Baina, oraino ez da Kristoren bidea aurkitua. Oztopo baten aurrean aurkitzen gara. Ezin sar zintezke aurrera makurtuz beste. Makurtzeak zera esan nahi du: Jainkoaren hitza arras arrunta, arras gizatar dela eta, ez harritzea, atzera ez jotzea. Jainkoa bera mintzatu zaigu Jesukristorengan, halako giza mintzairaz*. Hori haintzat hartzean datza humiltasuna, konbertsioa.

Halaz guztiz, orduan ere zalantzarik ukan genezake beste azken oztopo baten aurrean. Bai; Jainkoa Jesukristorengan ukitzera, ikustera eta entzutera eman zaigula onartzen dugu. Baina, zail gertatzen zaigu gaur ere hori bera egiten duela onartzea: hain gizatar den kanpoko errealitatez egiten duela onartzea alegia: bere Elizaren sakramendu, hitz, apaizgo eta elkartearen bidez hori bera egiten duela onartzea zail egiten zaigu. Horren aurrean, xunditurik* atzera egitea ez da harritzeko gauza. Halaz guztiz, reazio honek, hein batetan bederen, Jainkoaren dohainerako bidea hetsi egiten digu. Jaunarekiko ukitua, ez da bakarkakoa huts-hutsik, ez eta ikusezina ere. Kristoren gorputz den elkartean bakarrik onar genezake egiaz Jainkoa; ez gure irudimenaren fruitu bezala, eta bai Beste Hori bezala.

Bi bide-orratz ditugu gidari: bata, ikuskorra, hots, Kristoren mezuaren handitzea; bestea, barnekoa, hots, munduak eman ez lezakeen bakea. Batak eta besteak, makurtu nahi lukeenari egiazko atea erakusten dio. Behin barrura sartuz gero, garai* eta zabala irudituko zaio etxea.

Iragartzen: hotsegiten. **taxutzen:** moldatzen. **mintzaira:** hizkera. **xunditu:** harritu. **garai:** altu.

Gurasoek erabakitzen ahal dute seme-alaben erlijioaz? *(195)* 186

Mundu zabalean, asko eta asko, sasoiko* direnean iristen* dira sinèsmenera. Baina gure artean, kasik beti lehenengo predikua beste modu batetan azaltzen da: amaren eskuak gurutzea edo Ama Birjinaren irudia erakustean, edo gurasoenak Eguberritan jaiotza prestatzen, edo sineskaiei buruz haurrak hitzen bat entzutean.

Ez lukeela horrela izan behar esan ohi da zenbaitetan. Haurra ez litzateke inongo erlijiotan hezi behar: sasoiko denean bere hautaketa egin dezala. Bigarren baieztapen hori zuzena da, baina ez lehenengoa. Egia da, sasoiko batek bere kontura egin behar duela hautaketa*. Baina, hori dela eta, gurasoek ez dutela erlijio giroan beren haurtxoa hezi behar, ez da zuzena. Egiaz sinesten duenak berez onartuko du puntu hori.

Lehenengo galdea: nola irudika* dezakezu Kristo, haurrei Aitaz mintzatzea galerazi nahiz? Bestela irakurtzen dugu ebanjelioan: «Niregan sinesten duten haurtxo hauek».

Eta fededunaren sentimendu hau arrazoinezko eta zuzena da. Giza izakeraz pentsatu besterik ez dago. Gizakia, gauza orotan, «animal educandum» da, hots, hezketaz handitzen den izaki biziduna. Gurasoek, beraiek diren eta dadukaten onena opa* diete seme-alabei: beren kultura, beren usteak (adibidez, ez dela bihozgabea izan behar abereekin, hobe dela aske bizitzea tiraniapean baino). Agian, adibiderik jakingarriena, hizkuntzarena da. Eman ditzagun bi haurtxo, bakar-bakarrik, pertsona larrirekin* inongo harremanik gabe: gizatasunezkorik gutxi adieraziko dute. Aitzina hau uste izan zen: horrela, hizkuntza garbia eta ohitura zintzoak agertuko liratekeela. Egiaz, ordea, ez hizkuntzarik, ez pentsamendurik, ez gizabiderik ez litzateke geldituko. Gaur, gero eta gehiago konturatzen gara, haurrak bere gizatasun maila bere aurrekoei zor diela, eta, guztien gain, gurasoei. Horrek esan nahi du, gurasoek, gisa aberatsenean damaietela haurrei beren gizatasun maila. Gauzak horrela, sinesmena aberastasun handien eta egiarik bikainen bezala aitortzen duten gurasoek, eskubide dute eta eginbeharra fede hori emateko. Nork esan lezake honelakorik: hizketan hasteko, hezten hasteko, itxoizu hogei urtetaraino edota hizkuntza jakinen bat eta kultur molde jakinen bat hautatzeko gauza zaitezkeen arte? Akinoko Toma handiak, argi eta garbi erakutsi zuen hau, Erdi Aro gorrian*:

---

sasoiko: adineko. **iristen:** heltzen. **hautaketa:** aukera. **irudika:** irudikatu, asmatu. **opa:** nahi. **larrirekin:** heldurekin. **gorrian:** minean.

Juduek, beren seme-alabak beren erlijioan hazteko, eskubide osoa dutela erakutsi bait zuen.

Esan dugun hori beste era batera esan daiteke. Gurasoek konfiantzako pertsonen eskuetan uzten dituzte beren seme-alabak: aiton-amonen, hauzokoen ardurapean. Jauna estimagarri bazaie, Jainkoa Norbait baldin bada berorientzat, maite baldin badute, haurtxoei ere erakutsiko diete Horri mintzatzen.

Gainera, haurrek gurasoengan ikusten dutena egiten dute. Gurasoak fededun bezala bizi badira (eta hori ez barne bizikeraz bakarrik), seme-alabak bide berean haziko dira, heredatuzko bizitza bezalako eskolarik ez bait dago. Amak nahiz aitak, egitez eta hitzez bere fedea izkutatuko balu ere, ez litzuke aske utziko bere seme-alabak. Orduan ere, bide jakin batetan zehar eraginen bait lieke: kristau fedea joan-etorririk gabeko balioa delako bidetik, edo arras izkutukoa delako bidetik bederen.

Baina gaztetxoa adin helduko egin denean, «konbertsio» orduak jotzen du harentzat. Berez erabaki beharko du, gurasoengandik ondorez jasotakoa* egiaz bereganatu nahi duen ala ez. Hogei urtetako gazte baten usteak ez dezake oinarri hau soilki ukan*: nire gurasoak katoliko ziren (ala, ez ziren). Berberak igaro beharko ditu oztopoak. Erlijio katolikoan hazi den bat, gehienean, sinesgabeko girotik datorrena baino aisago helduko da horretara (*337*). Zenbaitetan, ordea, oztopo ere gerta dakioke hori bera. Ongi etorriko zaio Ebanjelioaren predikuak astinduren bat eman diezaion, berriona «berezko gauza ez dela» ager dakion. Ez bait da, izan ere, berezko gauza Jainkoa gizon bilakatzea, ez eta bere Elizan guri mintzatzea!

Horretan ere, fede katolikoan hazi dena, egoera hobean aurkitzen da nolabait. Horrelakorentzat zenbait aurriritzik indarrik ez du. Bakea ezagutua du. Sarritan mintzatu izan zaio Jainkoari bere haurtzaroan. Zera bezala da: hogei urtetan ez duela lotsarik bere gurasoak besarkatzeko; hauek ere ez bait zuten ukan hura haurtxo zenean.

Horrek guztiak, Jainkoak fedea nola damaigun ikusteko, begiak irekitzen dizkigu (*235-236*). Gizakiari datxekon guztiak bezala, fedeak ere bere gizarte dimentsioa du. Israel herriak, herri bezala sinesten zuen. Baten fedeak bestearenari eragiten dio (ikus Lk 22,32).

Elizak elkarte bezala sinesten du.

Gurasoen eta elkartearen sinesmenak badu zerikusirik haurtxoaren sinesmenean. Horrek ez du esan nahi, inola ere, haurtxoaren sinesmena pertsonala izango ez denik. *Pertso-*

---

jasotakoa: hartua. **ukan:** eduki, izan.

nalki hautatuko du besterengandik *jaso duen* aberastasuna. Hau esan nahi da: sinesmena ez dela gizabanakoaren* arazo. Elizarekin batera sinesten da. Hori onartzeak berak zinezko humiltasun sendoa adierazten du.

Horrez gero, galde hau egiten duenari: gurasoek determinatzen ahal dute beren seme-alaben sinestea?, honela erantzun behar zaio: ez eta bai; ez: gaztetxoak, gizon bilakatzean*, berak zehaztu* behar duelako Kristorekiko jarrera. Ez zara kristau heldu besterik gabe bihurtzen, zeure askatasuna jokuan jartzeke. Alabaina, egia da ere, gurasoen hautaketak baduela zerikusirik seme-alabengan. Ezinbestekoa da hori, eta horrela da; are, Jainkoak hala nahi izan du. Horrelaxe da fedea: gizakiei elkarrekin ematen zaiena.

Gazteren batek bere gurasoen fedea zapuztea, bere erruz, bere lepagogorkeriaz gerta daiteke (*96*); konbertitu nahi ez duelako. Gerta daiteke ere, ordea, arazoa hain argia ez izatea; agian, zenbait gorabehera dela bide, Elizaren aurpegia (eta horrengan Kristorena) ezagun-ezina gertatu da. Giro horretan, denboraldi batetan Elizari bizkar ematea, aberasgarri gerta liteke; adieraz lezake batek alegia, Jainkoa seriosago hartu nahi lukeela. Azkenik, bi arrazoin horik, biak gerta litezke bata bestearekin batera. Baina, hiru kasuetan, komeni da, gurasoek beren seme-alabei, hazi ahala, gero eta askatasun handiagoa eman diezaieten. Sines dezaten aholkua eman diezaiekezu, bortxatu ez (*257*). Seme-alaben erlijio iritziak errespetatzen jakin behar da, bide okerretik dabiltzela jakinik ere. Eta, jakina, etxeko aterik ez diozu hertsiko seme-alabaren bati, fedea utzi duela eta.

Dudarik gabe, arras mingarria izanen da gurasoentzat seme-alabaren bati beren fedea ezin eman izate hori. Agian, bere fedea berriztatzeko aukera topatuko du horretan. Izan ere, ez ote da inoiz ere gertatu, beraiek egiten ez dutena besteri esatea eta agintzea*? Gerta daiteke, beren seme-alabaren batek fedea utzi duela eta, jadanik ez esan, ez agindu ez diezaioketena, beraiek betetzen hastea.

Baina, bai zoriontsu, hazten ari diren seme-alabengan Mendekosteko gertaera berriztatzen dakusaten gurasoak!

Bataioa: ura eta hitza batera

«Bataioa hartzen zuten»... Hitz hauetaz burutzen du *Apostoluen Eginak* liburuak Mendekosteko kontakizuna (Ap

gizabanakoa: indibiduoa. **bilakatzean:** bihurtzean. **zehaztu:** finkatu, konkretatu. **agintzea:** manatzea.

Eg 2,41). Ageriko seinale batez sartzen gara Jainkoaren elkartera, hots, bataioaz

Bataioaren ritua aztertzeko, larrien* bataio ritua hautatzen dugu kapitulu honetan[25]. Honen ondoren mintzatuko gara haurren bataioaz.

Katekumenaduaren hasera 187

Lehen elizkizuna gizona katekumenu bezala onartzea da (hots, bataiogai bezala onartzea). Eliz atarian egin ohi da hori. Hori bera ere ezagugarri bat da berez. Apaizaren estola morea ere beste bat da; oraino bidean zaudela adiarazten du (Abenduko eta Garizumako kolorea da). Ondorengo ohikunak* ere, eta zertzelada* txikienetan ere, esanahiz mamiturik daude. Dena iruditan emana dator: tokia, kolorea, keinua, erabiltzen diren gauzak. Dena mintzo da. Eskola beharrik ez da hor gertatzen denaz jabetzeko.

Liturgi-buruk ongi-etorria egiten dio kristaugaiari, izenez deitzen du eta elkarrizketa hau hasten: «—Zer eskatzen diozu Elizari? —Fedea. —Zer ematen dizu fedeak? —Betiko bizia». Erantzun hunkigarriak hauetxek gizaki hilkor baten ahotan: betiko bizirako premiazkoa eskatzen du! Nahi duena fedea da, guztien gain. Federik *baduelako* doa bataiora, eta, halere, fedea *eskatzen du.* Ebanjelioak dakarren eskabide hura gogorarazten digu horrek: «Sinesten dut, Jauna; lagun fede urriko honi» (Mk 9,24). Zera esan nahi du honek: fedea *hartu* egiten duela gizakiak, dohaina duela, eta ez nork beretikoa.

Berehala datorren adiarazpenean egiteak aipatzen dira, halere: «Betiko bizia lortu nahi baduzu, bete aginduak: Maita zeure Jainko Jauna bihotz osoz, gogo betez eta adimen osoz... eta zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe» (Mt 22,34-40). Ondoren, galde saila dator, kristaugaiaren prestaerari buruz. Hurrena, Jesusek Bazko arratsean eginiko keinua bera dagi apaizak: Arnasa botatzen du katekumenuaren gain, eta Izpiritu Sainduari leku egiteko agintzen dio izpiritu gaiztoari.

Izpiritu[26] gaiztoaren konjuro hori, behin eta berriz, askotan errepikatuko da katekumenadu aldiko liturgikizunetan*. Gizakiaren atzetik dabilen gaitzari askotan agintzen zaio aldegiteko. Beti norbait balitz bezala hitzegiten zaio: deabru izena emanez, alegia (76). Baina, edozein gaitz adiarazten da deabru gaiztoaren izen horren bidez: dela

25 Ritu hori zerbait aldatua denez, birmoldatu egin beharko litzateke adiarazpen oso hau, ritual berriaren arabera; honetara zuzentzen dugu irakurlea.
26 Ik. *Eraskina*: «Izpiritu gaiztoaren...» 521 or.

larrien: helduen. **ohikunak:** ritoak, zirimoniak. **zortzelada:** xehetasun. **liturkizun:** elizkizun.

kristaugaiarengan inoren* bekatuek dagiten gaitza, dela kristaugaiaren beraren joera gaiztoak sorturikoa, dela ordurarte Jainkoari buruz izandako okerbideak sorturikoa (*402*). Aurreko egoera honen alde txarra besterik ez du aipatzen liturgiak; bizi-bizi aipatu ere: Argia ilunaren bekoz-beko* adiarazten du. Seinale edo ezagugarri horrek, hain zuzen, bizitzaren une bat biziki eta trinko* biziarazten bait du. Katekumenuaren borroka, konbertsioa alegia, adiarazten du laburki: Bibliak bezala adiarazi ere, zehatz-mehatz eta sakon, konponketarik gabe. Zera adiarazten du: tentaldi uneak, bide biren arteko aukeratze-, ilunpe-, etsipen uneak (*240*); eta bestetik, Jainkoaren bakea, ontasuna, poza. Hitz bitan: izpiritu gaiztoa haizatu*, eta Izpiritu Saindua onartu.

Aurrera darrai liturgikizunak. Kristaugaiaren gorputza gurutzeaz zinatzen du apaizak (bekokia, belarriak, begiak, sudurra, ahoa, bularra eta sorbalda). Gorputz osoa argitzen du gurutzeak. Gurutzea egitean otoitzak esaten dira, kristaugaiarentzat zerbait onik eskatuz.

Elizak ezin dio kristaugaiari, lehenengo aldiz aurkitzen duen honetan, Eukaristiarik eman; baina berehala nahiz geroxeago egiten den zirimonia batetan, gatza ezartzen dio mihian katekumenuari, ustelkortasunaren kontrako babesa* adiaraziz. Gainera, Jainkoaren gauzek gustu ona hartuko dutela adiarazten du gatzak; ez dira geza izango; «jakinduriaren gatza» da, gauzei gustua damaiena.

Honenbestez, liturgikizuna amaitu da, eta kristaugaia badoa. Horrela hasten da bataiorako bidea; urtetan iraun dezakeena.

Azkenaurreko urratsa* 188

Ondorengo ohikunetan ere bada konjururik; kristaugaiarengan Jainkoak eta deabruak darabilten borroka adiarazten dute konjuru horiek. Bakoitzean, katekumenuaren arduradunek (aita edo ama pontekoek) eta apaizak (bataio emaileak) gurutzeaz zinatzen dute; gaitzari aldegiteko agintzen zaio. Bigarren azterraldiaren (eskrutinioaren) haseran katekumenuak *Gure Aita* errezatzen du lehenik.

Azkenean, bataio aurreko azken azterraldia dator. Elizan sar arazten da kristaugaia; une batez eskerrak ematen dizkio Jainkoari. Ondoren, ozenki eta hots handiz, *Sinesten dut* edo Apostoluen Kredoa eta *Gure Aita* errezatzen ditu (*Aita* deitzen dio Jainkoari) (*85,89*). Honela agertzen du kristau elkartearen eta Jainkoaren aurrean, bataiorako bide horretan bere

inoren: besteren. **bekoz-beko:** aurrez-aurre, kontra. **trinko:** fermuki. **haizatu:** uxatu. **babesa:** geriza. **urratsa:** pausoa.

barnean eta izkutuan gertatu dena. Edonor larriarazteko* moduko urratsa da hori. Baina ageriko aitortza sakramenduaren parte bat da. Ez da soilki Kristo gizakiari zuzentzen zaiolakoa. Elkarrizketa sortzen da, gizakiak erantzun egiten du, baina Eliz elkarte osoak entzuten diolarik.

Ondoren, Kristo da oraino Elizaren ahoz eta eskuz diharduena; beste konjuru baten ondoren, Jesusen keinu bikain hura berritzen du apaizak: bere txistuz gorrari belarriak ukitu zizkionekoa. Ez ahal ziren, bada, Jesusen mirariak, hemen dagien sendakuntza sakonago honen ezagugarri? (*81*). *«Effeta,* hau da, ireki zaitez» (Mk 7,34), esaten du apaizak une berean. Sudurrean ere ukitzen du bataio emaileak, kristauak Kristoren usain gozoa senti dezan.

Azkenik, kristaugaien krisma edo olio sainduz sorbaldan igurtzitzen* du kristaugaia (*128*); Kristauak borrokarako behar duen bizkortasuna adierazten du ritu honek. Elizaren ezagugarri honen bidez, Kristok berberak erantzuten dio katekumenuari, sendo eta tinko jarraitzeko indarra emanez.

Bataioa 189

Baina oraino bataiorik ez da egin. Urtean edozein egunetan eta edozein ordutan har daiteke bataioa. Bada, ordea, gau egokiago bat horretarako: Jesus betiko bizira berbiztu zenekoa, Bazko gaua.

Horregatik, gau horretan, bataioko uraren goratzarrea* kantatzen da eta ur hori bedeinkatzen. Bai, uraz bataiatzen da. Bazko gauean hots handian kantatzen den otoitzak Liburu Sainduak oso-osorik batetik besteraino ikusten ditu, uraren esanahi aberatsa uler araztearren*: Jainkoaren Izpiritu Kreatzailea haserako ur gainean zebilenetik hasi, eta Ugoldea eta Itsas Gorriko uhinak* zehar Jesusen saihetsetik ura irten* zeneraino.

Liturgiak xit luze gogora arazten digu gai hori. Egungo psikologiak ere hauxe aurkitu du: gizaki guztien baitan sakon erroturiko* sinbolua dela ura; natur zientziek ere hauxe agertu dute: lurreko bizi osoa elementu horretatik datorrela. Munduaren lehen aroetan, bizia, gure bizi hau alegia, itsasoan bakarrik zen. Emagintzaren* jakintzak ere hauxe frogatu du: gu, amniosi mintzetan* dagoen uretatik jaiotzen garela, eta ur horrek itsasoko uraren osakaiak dituela. Gure bizia, horrez gero, urari dario.

larriarazteko: beldurrarazteko. **igurtzitzen:** gantzutzen. **goratzarrea:** gorespena. **uler araztearren:** konpreni araztearren. **uhinak:** olatuak. **irten:** jalgi, atera. **erroturiko:** sustraituriko. **emagintzaren jakintza:** obstetricia, obstêtrique. **mintz:** membrana.

Ura, elementu guztietan amatasunezkoena den hori, zerurako jaiotzearen ezagugarri eginkor* bilaka dadin hautatu zuen Jainkoak aldez aurretik. «Izpiritu Sainduak bere misteriozko ahalez ernal dezala, gizakiari bizi berria emateko prestaturik dagoen ur hau; amaren sabel garbi-garbitik bezala, atera dadila iturri saindu honetatik Jainkoaren saindutasunak sorturiko zerutar haurride* saila, eta sorkari* berriaren bizi berrira birjaio dadila» (Bazko Gauean bataio uraren bedeinkapenerako kantua).

Jaiotze berria 190

> «Nola jaio daiteke inor zahartuta gero? Sar ote daiteke ba inor bigarren aldiz amaren sabelera atzera berriz jaiotzeko? Jesusek erantzun zion: Bene-benetan esaten dizut: urez eta Izpirituz berriro jaio ezik, ez daiteke inor Jainkoaren Erreinura sar» (Jn 3,4-5).

Bataiatuak bizi berria hartzen du, «uretatik eta Izpirituarengandik» dariona. Horrez gero, bataioa hartzea, elkarte batetan izena ematea baino askoz handiagoa da. Berriro jaio arazi nahi gaitu Izpiritu Sainduak: berriztatu egin nahi gaitu. (Eta hori, elkartean eta elkarteaz, zeren jaiotzea ez bait da inoiz gertaera bakartia; are gutxiago Jainkoagandiko jaiotzea).

Bataioa bera hartu aurretik, beste behin galdegiten zaio katekumenuari fedeaz. Ondoren, berariz* galdetzen zaio, ea bere nahitara eta askatasun osoz datorren bataiora: «Bataioa nahi ahal duzu?». Eta berehala ura isurtzen zaio, hitz hauk esanez: «Nik bataiatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean» (ik. Mt 28,19). Jaiotzea adiarazten du urak; hitzek, berriz, zer-nolako jaiotzea den adiarazten dute: Izpiritu Saindua guregana datorrela esaten dute, bizi berria ematen digula eta zeruko Aitaren seme-alaba bihurtzen gaituela.

Bataioaren ondoren, berehalaxe, olio sainduz igurtzitzen* dute bataiatu-berria; Izpirituaren ezagugarri da olio horren usain gozoa (*204*).

Izpiritu saindutzaileaz Kristorengan gaude, eta Kristo guregan; saindutzen gaituen graziaz betetzen gara.

Hiru era desberdinez adiaraz daiteke, bada, misterio hau: Izpiritu Saindua hartzen dugula esanez, grazia saindutzailea hartzen dugula (hauxe da graziazko bizia) eta Kristogan bizi garela esanez. Hirurek gauza bera esan nahi dute.

---

eginkor (ezagugarri): eficaz (signo), efficace (signe). **haurride:** senide. **sorkari:** criatura, créature. **berariz:** de propósito, dèliberément. **igurtzitzen:** gantzutzen.

Kristogan bizi: elkar maite dutenak elkarren antzekoago bilakatzen direnez, hondo-hondoko jarrera bera, gogo bera hartzera heltzen direnez, eta, nolarebait esan, bizitza berbera daramatenez, guk ere Kristorekin halaxe —eta maila sakonagoan—. Kristoren bizitza bera bizi dugu. Hori Izpirituak ematen digu: Kristo present bihurtzen bait digu. Horrela Kreakunde* berrian eskuhartzen* hasten gara.

Uretan garbitzea 191

Bataioaz Kristori xertatu* denarengan ez da gehiago bekatuarentzat lekurik. Bataioan darion urak, jaiotza ezezik, garbitzapena ere esan nahi du. Bataioak garbitu egiten ditu bizitzan zehar eginiko bekatuak eta, kristaua Jesusekin lotzen duelarik, bekatuaren sustraia bera, hots, jatorrizko bekatua (ondorengo kapitulu batetan mintzatuko gara honetaz: *198-201*) garaitu egiten du. (Garaitzapen hori ezin banatzen ahal dugu bizitza guztiko borrokatik, hurrengo paragrafoan ikusiko dugunez). Gure bekatuak gorri-minak balira ere, Kristok elurra baino zuriago eginen gaitu (*380-381*). Haren adiskide gara, bada. Garbiturik, bizitza berria hasten dugu. Argiak garaitu egin du iluna. (Horregatik deitzen zaio bataioari «argitze»).

Olio sainduaz igurtzi ondoren, jantzi zuria eta kandela biztua ematen zaizkio bataiatuari (garbitasunaren eta argiaren sinbolu bezala); emate bakoitzean esaldi bikain bat esaten da, bedeinkapena opa* zaiola adiaraziz. Horrenbestez, bataio ohikuna amaitu egiten da.

Bataioa[27] ezin eman daiteke bigarren aldiz: bidertu* ezin hori, bataioak urraezineko «aztarna» ezartzen duela esanez adiarazten da. Behin betirako gara bataiatuak. Jakina, bataio elizkizunean bertan ez duela bataiatu nahi esango lukeena, ez litzateke bataiatua. (Haurren bataioaz geroago mintzatuko gara: *195*).

Uretan ito 192

Gizadiaren sinbolu handi guztiak antzo*, bi adiera ditu urak ere: bata, salbaziozkoa eta bestea, hondamenezkoa. Urak ez du adierazten bizia bakarrik, baizik uholdea ere bai; edatea, garbitzea eta basia* ezezik, itotzea ere bai: hots, «leporaino urak hartua» egotea (69. salmua). Horregatik, kapitulu hau

27 Ik. *Eraskina*: «Bataioak Kristoren...» 554 or.

kreakunde: kreazio. **eskuhartzen:** parte hartzen. **xertatu:** txermendu. **gorri-minak:** gorri-gorriak. **opa:** desiratzen. **bidertu:** berriz egin. **antzo:** antzera, bezala. **basia:** mainu, baño.

bukatu aurretik, bataioaren alde hau ere aztertu beharrean gara.

> «Ala ahaztu egin duzue, Jesukristogan bataiatuak izan garenok, horren heriotzean izan garela denok bataiatuak? Bai ba, bataioaren bidez, horrekintxe batera izan ginen gu horren heriotzean hobiratuak, Kristoa Aitaren aintzarengatik hilen artetik biztu zen bezalaxe, geu ere biziera berri batetan bizi gaitezen» (Erm 6,3-4).

Sinboluaren esanahi hau argiago da, bataioa uretan murgilduz egiten denean, Ekialdeko Elizan bezala. Gizaki zaharkitua, hots, norberekeriak, moralgabekeriak, nagikeriak, ilunak, harrokeriak, egoskorkeriak kateaturik dadukan gizakia, heriotzerako dago. Gizaki zaharra izkutatu egiten da heriotzean, Kristoren heriotzean hil egiten da. Heriotze horrek, ikusi dugunez, bekatuak barkatuak direla esan nahi du lehenik. Baina, bizitza aldatu egiten dela ere esan nahi du.

Misterio honen sakontasunaz jabetzekotan, Jordan hibai ertzera* jo behar dugu, eta gero, Kalbario mendira (*135-136*). Kristok ere bataiatua izan nahi du. Zertarako? Heriotzerako. Jesukristok betebehar bat, eginkizun bat du, eta hori betetzeko Jainkoak sagaratu egiten du bataioaz. Kristoren eginkizuna, izan ere, bere burua suntsitzea* da, zirtzil* bilakatzea, jopu* bilakatzea (*120*), heriotzeraino meneko bihurtzen den norbait izatea (jarrera honen kontrako tentaldia jasan* zuen, hain zuzen ere, Jesusek; tentalariak horren kontrako bidea aurkezten dio, bada: zerbitzuari uko egitekoa). Bi bider damaio «bataio» izena bere etorkizuneko heriotzeari (ikus Mk 10,28; Lk 12,50). Heriotze hori prestutasunaren eta zerbitzuaren gailurra da. Horixe du bere benetako bataioa.

Gauza berbera gertatzen zaigu Kristorengan bataiatuak garenoi. Kristoren bizibidearekin bat dagigula adiarazten dugu: Geure bizitza hartzen dugu bataiotzat: hau da, zerbitzua, sufrimendua eta, azkenik, heriotzea. Geure heriotzea dugu geure egiazko bataio. Geure heriotze horri geure baietza ematen diogu, Jesusek bezala, Jesusekin eta Jesusengan. Izan ere, Jaunak birrerosi eta salbatu gaituela diogunean, ez dugu esan nahi, aurrerantzean* bekaturik eginen ez dugunik, ez eta eraman beharrik ukanen ez dugunik. Hauxe esan nahi dugu bakar-bakarrik: Kristorekin batera, geure burua eta besteak salbatzen lanegin dezakegula; beti *Haren* tankerara* noski. Hona nola azaltzen duen Jesusek bere tankera hori, bere ikasleei galde hau eginez:

> «Gauza ahal zarete zuek, nik edan behar dudan kaliza edateko, edota nik bataiatua izan behar dudan bataioaz bataiatuak izateko?» (Mk 10,38).

---

ertzera: bazterrera. **suntsitzea:** ezereztea. **zirtzil:** kaxkar. **jopu:** esklabu. **jasan:** sufritu. **aurrerantzean:** hemendik goiti. **tankera:** manera.

Jesusen indarrez, haren antzera jokatuz eta oso-osorik haren Izpirituagan garelarik, geure bekatuak garaituko ditugu, besteekiko zerbitzu apalean, bakegile bihurtuz, gogoz behartsu bilakatuz. Eta hori, geure azken zerbitzuraino, heriotzeraino, erabat askatuko gaitueneraino: Jesusen beraren bataioa izan zen hartaraino.

Heriotzeraino sagaratzen gaituelako ideia hori, ez ote da gero beltzegia bataio egun zoriontsurako? Baina ba ahal da atseginbide handiagorik? Izan ere, Jesusekin, heriotzerako den gure bizitza, esanahirik gabeko gertatu ordez, emankor* bihurtuko bait da (*404*). Gizadiaren minak bizitza berrirako erdimin* bihurtu ditu Jainkoak (*289*). Gu murgiltzen gareneko ur hori heriotzearen sinbolu bada, ateratzen gareneko ura berbiztearen eta jaiotzearen ezagugarri da. Horrexegatik ematen da bataioa Bazko gau zoriontsuan.

Herri bat bizitzaz aldatzen 193

Bataioa ez da Jaunaren eta gizabanakoaren arteko elkar ukitze hutsa. Kristorekin elkartu, Elizari atxekiz* egiten dugu: Bataioak harginlanaren harri biziak bata bestearekin lotzen ditu; Kristoren gorputza tankeratzen* du Bataioak.

> «Gorputzak ere, ukan, asko ditu zatiak, baina bakarra da; eta gorputz zatiek ere, hain desberdinak izan arren, gorputz bakar bat besterik ez dute osatzen. Beste horrenbeste da Kristorekin ere. Geu ere Izpiritu bakarrean izan gara denok bataiatuak eta gorputz bat bakarra osatu behar dugu denok: juduek eta greziarrek, gatibu eta libreek, edan ere Izpiritu bat bera edan dugu eta denok» (1 Kor 12,12-13).

Edozein herritako, edozein diru mailatako, edozein jatorritako garelarik eta beste edozein bereizkuntza gora-behera, denoi egiten zaigu ongi-etorri Jesusekin batera zerbitzari izan nahi duen elkarte horretan. Denok batera igarotzen* dugu Itsaso Gorria, denok esaneko deituak bilakatzekotan, geuron gizaki hilkorren bizitza soil hau zerbitzuaren ikurrinpean ipintzekotan. Jainkoaren jende xumearen artean xume bihurtzen gara: Kristo, gure artean xume eta humil bilakatuz, gurekin kidetu* den bezala. Eta orduan... denok batera, zerbitzuzko bizikera horren kontra doazkeen gauza guztiei uko egiten diegu.

Zer esan nahi du honek guztiak? Elkartasun iturri den sakramendu horrek banaketa zuinak* ezarriko ote ditu gizakien artean? Bai, «Nirekin ez dagoena nire kontra dago», esaten du Jesusek. Baina ikus dezagun nondik nora doan muga-

emankor: fruitutsu. **erdimin:** haurmin. **atxekiz:** lotuz, helduz. **tankeratzen:** moldatzen. **igarotzen:** iragaiten. **kidetu:** berdindu. **zuinak:** mugak.

rri hori: alde batetik, heriotzerako den Kristoren bataioa hartu eta beren zerbitzuzko bizitzan burutzen dutenak daude (urezko bataioa hartu ahal izan ez baldin badute ere, gero ikusiko dugunez) eta bestetik, Satanaren tentaketari emanak: indarkeriari, moralgabekeriari, izpiritu epelkeriari emanak (Sakramendua harturik ere betetzen ez dutenak, alderdi honetan daude) (*194-196*). Alde batetik, Izpiritu Sainduaren hitz hau betetzen saiatzen direnak: «Hona hemen ni», eta bestetik, zirikatzailearen hitz honen arabera bizi direnak: «Ez naiz izango zerbitzari».

Banatzailea ote da, beraz, bataioa? Bai noski. Baina ikus dezagun, berriz ere, banakuntzaren* zuinbidea*. Neure baitatik igarotzen da; neu ere banandu egiten nau. Nire alde batek zera dio: «Ez dut zerbituko», eta besteak, berriz, «Hona hemen ni». Izpiritu onak eta izpiritu gaiztoak, biek dute ni baitan beren gudu frentea. Bada, bai, izpiritu gaiztoak erabat azpiraturik dadukala ematen duenik; baina guk ez dugu inor epaitzeko, ez ahalmenik, ez eskubiderik. Nork jakin, itxuraz gorbizi*, berekoi eta galduriko ematen duen hainbatek bere baitan ontasun eta bihotz zabaltasun txinpartarik* ote duen ala ez, eta horrela Jesusekiko ukiturik ba ote duen? Horrelakoetan, Jesusek ez du itzaliko «kea darion metxa hori».

Ikusteko gisan aldarazten ote gaitu bataioak? Sarritan astindu bat sumatzen du bataiatuak: bere burua handi eta garbi sumatzen du. Baina baliteke ere, lehenengotik horrelako aldakuntzarik ez nabaritzea. Horrek ez du axolarik. Ez genezake bataioa soil-soilik har. Hasera da. Norberaren bizitza hori ere ez da hartu behar bakan, testuingurutik at*, Eliza osoaren bizitzaren barnean baizik. Horrela, bai; horrela, mendeetan zehar, ontasun eta bihotz berriak, Izpiritu Sainduak sorturikoak, nortasun biziberrituak, birjaioak: horra lurraren aurpegia egiaz zahar-berritu dutenak. Gure buruari ezinezko zaio, Kristoren bataioa izan ez balitz, zer-nolako gizadi bihotz gogorra eratu zitekeen pentsatzea.

Betidanik irakatsia da katolikoen artean, Eliza katolikotik at bataiatu direnak, egiaz bataiaturik daudela. Hain zuzen ere, eta guztiok gizaki garelakoaz gain, horixe da zentzu ekumenikoaren oinarririk gotorrena* eta sakonena.

Eta besteak? 194

Lehen aipaturiko gai batetara itzuli behar dugu orain. Bataiatuak ez direnen ontasunaz, bihotz zabaltasunaz eta bi-

banakuntzaren: bereizketaren. **zuinbidea:** muga-lerroa. **gorbizi:** hezigaitz, burugogor. **txinparta:** pindar. **at:** kanpora, aparte. **gatorrena:** indartsuena.

zitza onartzeaz mintzatu gara. Zerbitzu izpiritu hori, urezko bataiorik gabe, aski ote da Kristorekin harreman salbagarririk ukaiteko?

Bataiatugabeak, dena dela, jaiotze hutsez dute harremanik Jesusekin (*54*). *Gizaki dira. Jesus bezala. Jesus beren antzeko zaie.* Hauxe da Elizaren iritzia: edozein gizonek, gogo oneko izanez gero, Jesusen birrerospenean* eskuhartzen* duela. Beren bizitzako eginkizuna leial betetzea, azkeneraino zerbitzari izateko gogoa: horra horrelakoen bataioa, Jesusek hartu du horren bizitza; holakoak odol bataioa hartu duela esan ohi da. Gainerantzekotan, gogozko bataioaz mintzo ohi gara, gogo oharkabea izan daitekeelarik ere. «Heriotzeraino esaneko* izatea» hautatu duen oro, bataioaz ukiturik dago. Ez da izkutuko zerbait bakarrik «bataiatugabeen bataio hori», ez. Haiek, bizitza osoan eta heriotzean zehar, duten prestutasuna eta zerbitzu sena* da (*235*).

Ezin atera dezakezu[28] horretatik urezko bataioaren ezagugarri eginkorra* zokora daitekeenik. Seinale horren betebeharra hirukoitza da: damaigun barkapenaren premian garela *adiarazten* digu; Jauna gurekin harremanetan dagoela *aldarrikatzen* du; herri bat berean *elkartzen* gaitu, herri ikuskor eta ukikorrean, Izpiritua eman zaion eta barkapena arian-arian ari deneko herrian elkartu ere.

Ez da, beraz, itxura arazoa. Uste zindoa honetan datza: bataioa osotasun batetako parte delakoan: Kristau aldarrikatze, bizitza baten hautatze, Kristoren barkapenaren bizitasun. Errealitate bat *zerizen* du bataioak, munduan legami* bilakatzen dena. Gainerantzean tankera gabe eta koloka izanen litzatekeena, Kristoren Elizak —batez ere, bataioaz— ageri-agerian diharduelarik, tankeradun eta bizi-bizi bilakatzen da. Kristo sinesten duenak eta bataiorik badela dakienak, ez lezake txikiets* bataio hori.

Kristau-berri baten bataioak, gainera, agerian ematen du Jainkoak besteengan egin nahi duena eta dagoeneko egiten ari dena (*234-235*). Zure haurtxoa bataiatzean, beste askorentzat bataiatzen da. Beste horik, beraiek bataiorik hartuko ez badute ere, bataioa hartzen den gizadi batetan (edo inguru batetan) bizi dira: kristauak bataiatzean, nolarebait esan, haientzat ere bataiatzen dira.

28 Ik. *Eraskina*: «Gogozko bataioaren...» 554 or.

birrerospen: redención, redemption. **eskuhartzen:** parte hartzen. **esaneko:** meneko. **sena:** jitea **eginkor** (ezagugarri): eficaz (signo), eficace (signe). **legami:** altxagarri. **txikiets:** txikietsi, txikitzat hartu.

Eredutzat* larrien bataioa hartu badugu ere (nabarmenena hori delako, hain zuzen), gehienbat ikusten duguna, haurren bataioa izaten da. Elizaren lehen garaietatik dator haurrak bataiatzeko ohitura hori.

Aurreko kapituluan ikusia dugu, gauzarik egokiena eta bidezkoena dela kristau gurasoek beren haurrak kristau bezala hezitzea. Esana dugu ere horren arrazoina (*186*). Ezin harri zintezke, hezketa hori hastapen* sakramenduaz, hots, bataioaz hasten dela eta. Argi eta garbi azaltzen dute horrela gurasoek beren asmoa: beren haurrak Elizan onartuak izatea, alegia, bertan handituz joan daitezen.

Hona hemen, ordea, galde bat: haurrak ez du oraino ezaguerarik; ez da gauza, beraz, ez konbertsiorako, ez eta fedea pertsonalki onartzeko. Horrez gero, nola har lezake bataioa, konbertsioaren eta fedearen ezagugarri delarik?

Bataioa hartzeko modua eta bizitzekoa, bata besteari loturik doaz: larriekiko menekotasunean*. Elkartean eman digu Kristok salbamendua gizakioi, ez bakarka; norbanakoari ez, herri bati baizik. Artaldeak bere arkumeak dituen bezala, hazten ari den herriak ere bere haurrak ditu: duten giza bizitza osoaren aldetik oraino zaharragoei arras atxekirik dauden umetxoak, alegia. Horregatik, ez ditugu haurrak bataiatzen fedea dutelakoz, geurea haiei ematea guztiz zentzuzkoa ikusten dugulakoz baizik. Geure fedean biltzen ditugu haurrak, Elizaren fedean.

Berriro esan dezagun, bataioa ez dela bakandurik* hartu behar, *ez dela bereizi behar taldetik* (*276*). Beren erara, haur bezala noski, baina bene-benetan, Izpiritu sainduz eta graziaz betetzen dira haurrak bataioan; bataioak Kristorengan txertatzen ditu haurrak, eta zerbitzuko bizitzarako sagaratzen: Kristoren bizitzaren antzeko delarik, salbamendu bide den zerbitzuzko bizitzarako sagaratu ere; askapen* den heriotzerako sagaratzen ditu eta azkengabeko bizitzarako.

Hori guztia[29] burutu egin beharko da gero, kristau hezketaren bidez. Ezin bereiz dezakegu sakramendua hezketa horretatik, ez buruz, ez eta egitez. Are gehiago: jakitekoa izanen litzateke, «ohitura delako» bataiatu bai, baina kristauki bizitzeko hezketarik hartzen ez duten haurrei kristau eta eliztar izena eman ote diezaiekegun. Hain zuzen ere, kristau hezketaren garantiaren* bat eskatzen du Elizak.

29 Ik. *Eraskina*: «Hori guztia...» 554 or.

eredu: etsenplu. **hastapen:** hasera. **menekotasun:** obedientzia. **bakandurik:** bereizirik. **askapen:** liberazio. **garantia:** bahi.

Bataioa behar bezala aditzekotan*, hau ere kontutan hartu behar da: haurra gero eta autonomia handiagorako bidean doala. Honetaz geroago mintzatuko gara (*337*). Halako batetan bataiatuak nork bere arazo bihurtu behar du konbertsioa, berez hartu behar du bere erabakia Jabetze hori adiarazteko, haurrak, heldutasunerako bidean, bere bataioko hitza guztien aurrean berritu behar du. Bazko gauean egin ohi du sarritan hori, elizkizunean dauden larriekin* batera, hauek ere beren bataioko hitza berritzen dutenean. Berritze egiazkoena, ordea, geroago eginen du gehienetan, eta sinplekiago eginen. Honelaxe: lagun edo adiskideren baten aurrean bere fedea argi eta garbi aitortuz, edo, isilean, tentaldi bati gogor eginez, bizitza zintzo, zerbitzuzkoa eginez, heriotzea onartuz.

Izen bat ezarri ohi zaio haurrari bataiokoan: sainduren baten izena izan ohi da, haurra saindu horren babespean ematen delarik. Ez ote da hori Kristoren grazia ez dela aski esatea? Ez, noski. Hauxe da guztia: Kristok Eliza bide dela etorri nahi duela gu laguntzera, eta zeruko Eliza ere barne dela.

Haurraren bataioa ez da gurasoen arazo huts, Eliza osoarena baizik. Ait'ama pontekoek* «sartzen» dute haurra. Bataiokoan, haurra daramana ama bera ez denean, haiek dadukate haurtxoa besoetan (edo eskua ezartzen diote gainean). Gurasoen ondoren, Elizaren elkarte zabalagoaren lekuko dira ait'ama pontekoak eta, gurasoekin batera, bataiatuaren kristau hezketaren arduradun dira.

Haur bataiatugabeak 196

Kristauen bataioak gizadi osoari buruz duen esanahiaz gorago esan duguna (*194*), haurren bataioaz ere esan genezake. Haur baten bataioak Jainkoaren urduria* adiarazten du: jaio-berri *oro* dela haren deiaren gai.

Haur jaio-berri guztiak... Bai, eta zer gertatzen zaie, horrez gero, bataiorik gabe hiltzen diren haurrei? (*194*). Esan dugu: bataiatugabe bat salba daiteke, bere giza zeregina leial betetzen badu eta, horrela, oharkabean* bada ere, Kristoren «zerbitzu eginkizunean» parte hartzen badu. Bataiorik gabe hil diren haurrek, alabaina, ez dute oraino ahalmenik halako «bizitzazko bataiorik» hartzeko. Ezaguerarik gabe hil dira. Zer gertatzen zaie haur horiei?

Arazo honetaz, luzaroan zalantzan bizi izan da Eliza. Urezko bataioa beharrezkotzat emanez, bataioaren bakoiztasun alderdia hartzen zen haintzakotzat: soil-soilik hartu ere.

aditzekotan: ulertzekotan. **larri:** heldu. **aita-ama pontekoek:** aitabitxiak eta amabitxiak. **urduria:** nahi bizia. **oharkabean:** konturatu gabe.

Hona nola irekitzen zaion Agustin saindua Jeronimo sainduari gutun batetan: «Haurren oinazeen arazoa aztertzean, sinets iezadazu, larritasun handiak hestutzen nau, eta zer erantzun ez dakidala gelditzen naiz».

400. urte inguruan zen hori. 1.100. urte inguruan, zalantza bera du Anselmok, bihotz handiko harek. Ez du haur bataiatugabeak salbatzeko biderik ikusten; baina honela jarraitzen da: «Neure adimenaren argiaren arabera mintzatu naiz; biribilki ezer baieztatzeke*, ordea, gauzak alde-alde neurtuz baizik, arik eta Jainkoak gauza hoberik agertzen didan arte. Zuetako norbaitek bestela pentsa baleza, ez nuke inoren abururik* zapuztuko, burutsua eta zentzuzkoa agertzen bazait».

Mendetan zehar[30] fedearen ondare zaharretik atera izan ditu Elizak, bilatzen zituen egiztapenak*. Gero eta argiago ikusi du hiru printzipio hauetara jo behar zela hauzi hori erabakitzeko: lehenik, Jainkoak gizaki guztiak salbatu nahi dituela; beraz, haurrak ere bai, hauk ageri bait dira Jainkoaren kuttunen* Ebanjelioan. Hurrena, Jesukristo gizaki guztiengatik jaio eta hil dela. Azkenik, inor ez dela galtzen, norberaren bekatuengatik ezik. Hiru egia hauk gogoan ukanik*, esan daiteke salbatzeko bideren bat izan behar duela bataiorik gabe hiltzen diren haurrentzat. Zein bide, ordea? Ezin jakin. Baina badakigu behintzat, haur horik Kristorengan daudela.

Bataioa ez da bakandu* behar 197

Berriro ere esan dezagun, bataioa ez da bakandu behar, ez da hartu behar arimaren eta Jainkoaren arteko elkar aurkitze bakarkako eta une batekoa bezala. Bataioa inguru oso batetatik bakandurik hartuz gero, mila prolema bitxi sortzen da, Elizaren historian barna ikus daitekeenez. Eskua benetan esku izango bada, gorputzari atxekia izan behar duen bezala, bataioa ere, Kristoren benetako ezagugarri izango bada, Kristok eman digun guztiari atxekirik hartu beharko dugu: gure bizitza eta heriotzeari, gure kristau hezketari, Eliz elkarteari, gizadiari atxekirik, alegia (*192, 195, 194*).

Sakramenduak: Biziaren ezagugarri

Bataioaz mintzatu garenez gero, gogoeta bide bat damaigu honako arazo honek: gisa horretako ezagugarririk badela-

30 Ik. *Eraskina*: «Bataiorik hartu...» 554 or.

baieztatzeke: baieztatu gabe. **aburu:** pentsa molde, iritzi. **egiztapenak:** probak. **kuttunen:** *maitean*. **ukanik:** *edukirik, izanik*. **bakandu:** *osotasunetik, ingurutik bereizi*.

koak, alegia, Kristo gurekin elkartzeko ageriko ezagugarriz baliatzen delakoak. Elizak, guztira, zazpi kontatzen ditu; eta sakramendu deitzen. Horietaz gauza orokorrik eman ote dezakegu?

Gure bizitzako une nagusien sagarapena* 198

Aitzina-aitzinatik, bere bizitzako gertaera nagusienak jai bezala edo esanahiz betetako tankeran ospatu izan ditu gizakiak: jaiotza, heldu-arora heltzea*, ezkontza, heriotzea, gertaera nagusi horietakoak dira. Horietan gizakiak hautsi egiten du egunoroko bizitzaren haria, eta gure bizitzaren egiazko dimentsioak adiarazten dituzten «moldeak» sortzen. Nor garen, edo zer garen: horretaz jabetzen gara. Geure bizia ospatzen dugu horrela.

Gure bizia ospatzeko moldeak dira, hain zuzen, Jesukristok bere Elizari eman dizkion sakramenduak (*284-285*). Horietan gure bizitzako gertaera nagusienek tankera* berezi bat hartzen dute, salbatuak garela eta bizitza berri batetarako sortuak izan garela adiarazteko. Adiarazi, bai, baina zerbait gehixeago ere bai. Sakramenduak ez dira itxura hutsekoak, seinale eginkorrak* baizik; adiarazi ezezik, eman egiten dute salbamendua.

Nolatan baina? Sakramendu horien bidez, salbatzailea hurbileko gertatzen zaigulako. Eta guztien artean nagusiena eta muinekoena den seinale, hau da, Eukaristia, Jesusek berak eratu eta taxutu* zuen, saldua izan zen gau hartan (*124-128, 266-279*). Jesusek, gurekin zegoela adiarazteko eta gurekin benetan bategiteko, giza errealitate hau, hots, elkarteko otordua (giza bizitzako funtsezko unea eta behin eta berriz berritzen dena) hautatu zuen. Hartu zuen, bada, ogia, eta esan: «Hau nire gorputza da».

Baina Jaunak ez dihardu gure artean Eukaristiaz bakarrik, bere presentziaren sakramendurik behinena* hori baldin bada ere. Haur jaio-berria, Elizan onartzen dena, Jesukristorengan bataiatzen da (*187-197*). Kristaua adin heldura heltzen dela adiarazteko, sendotza sakramendua dadukagu (*203-206*). Gizon batek eta emakume batek bizitza osorako elkarri baietza ematea, hitzematea, Kristoren hurbiltasunaren ezagugarri bihurtzen da (*325-326*). Artzaingoa ematea, hots, ordenazioa ere, Kristoren beraren keinua da (*298-299*). Inon ere ez digu ukatzen Jaunak bere presentziaren ezagugarririk, erorialdian eta bekatuan bertan ere ez: orduan hor bait da gu-

sagarapena: kontsagrazioa. **heltzea:** iristea. **tankera:** itxura. **eginkor:** eficaz, efficace. **taxutu:** moldatu. **behinena:** nagusiena, bikainena.

retzat aitortza sakramenduan (*381-389*). Eta gaixorik gaudenean ere, gure bizitza barne-barnetik ukitzen duen errealitate horretan ere, geurekin dugu Jauna oliaduraren* bitartez (*393*).

Jainkoa ageriko 199

Jainkoaren salbabidean seinale horiek duten tokiaz hausnartzean*, honela labur genitzake gauzak. Kristogan Jainkoa ikuskor eta ukikor bihurtu zitzaigun (*147*); Elizan, Kristo —Jainkoa, beraz— ikuskor eta ukikor darrai (*81*); Eliza bera, berriz, ikuskor eta ukikor zaigu zazpi sakramenduetan. Sakramenduak horrez gero, zera ditugu: gaur ukitzen gaituzten Kristoren eskuak eta gaur heltzen zaigun Kristoren mintzoa*. Horietan ukitzen ahal dugu gaur Kristo. Ez ahal dugu, izan ere, zera nabari izan: Bazkoaldiko Jesukristoren agerpenek haren ikuskortasun berria iragartzen* zutela? Hau da, seinaleen bidez ikuskor gertatu zaigula Kristo? (*139*).

Gizakiagan ez da barne errealitaterik azalekorik gabe. Orobat barneko kristau errealitaterik ez, kanpoko ezagugarririk gabe (*194, 235, 175*). Ezagugarriak, giza izakerari dagokiolarik eta ziurtasun bat dakarkiolarik, badu bere lekua gaur ere Kristoren egintzan. Kristo da ageriko seinale horretan diharduena. Bere zerbitzarien gaindi, Kristo da bere Eliza leialaren elkartean diharduena; agian, gizaki bekataria bitarteko delarik.

Sakramenduak, jakina, ez dihardu berez; ez dihardu norberaren barne jarreratik* aparte. Ministruaren saindutasuna ez da ezinbestekoa sakramendu arazoan; baina bai sakramendua hartzen duenaren fedea eta barneko jarrera. Jaunarekin elkartzea da sakramendua, eta elkartzeko bi izaki behar dira. Jauna leiala da: halaxe adiarazten du sakramenduak; baina ez du ihardungo guregan gu gabe.

Seinaleen soiltasuna* 200

Gure bizitzako bidegurutzeetan Jaunarekin ditugun elkar aurkitze horien ezagugarri bezala, egunoroko bizitzako gauza arruntenak hautatu dira: ura, ogia, ardoa, olioa, eskuak ezartzea, baiezkoa ematea, hobena* aitortzea (*189, 191, 273, 279*). Horietan bilakatzen dira ikuskor Jainkoa, Kristo eta Eliza. Jesusek Palestinan bizi izan zuen bizitza bezain hurbileko eta bakun* dugu hori guztia (*75, 116*).

oliadura: gaixoen igurtzia, gantzupena. **hausnartzean:** pentsatzean. **mintzoa:** hitza. **iragartzen:** agertzen. **jarrera:** jokabide, postura. **soiltasuna:** simplicidad, simplicité. **hobena:** bekatua. **bakun:** sencillo, simple.

Gure egunoroko bizitzako elementuak dira, hain zuzen. Berbiztuaren, Kreazio berriaren ezagugarri bihurtzen direnak.

Lurreko gauzekin duten lotura orduan agertuko da: liturgi-buruak ritu ukikorretan eta sarkorretan* burutzen dituenean. Denbora berean, alabaina, esistentzia berria sortzeko duten beren indarra, soil-soil eta lau-lau agertuko da. Errealitate arrunta beste zerbaiten ezagugarri bilakatzen da. Bataioa ez da gorputza txukuntzea*; Eukaristia ez da urdaila* asetzea. Ez; bataiatua garbitu, mundu berrian garbitzen da; Jauna hartzean, mundu berrian jaten du oraindik bertatik kristauak.

Gainera, sakramendu ritua zenbait hitzekin doa beti, esaldi labur eta zehatzez lagundurik; horiek egiaz sakramendu egiten dute. Hitzak ematen dio keinuari beronen tankera eta esanahia; argitu egiten du.

Sakramenduen liturgia ez da izan behin betirako moldatua (*383*). Mendez mende moldatuz etorri da; hein batetan eta zenbaitetan aldakuntzarik ukan dezake. Ageriko seinalea hazi eta zabal daiteke zirimonia adiarazgarriz* edo eta bereiz daiteke ere sakramenduaren guna*. Inoiz edo behin aldakuntzarik gertatzen da. Horretan ezer harrigarririk ez da; formula horik ez bait dira sorginkeriazkoak eta aztikeriarenak (magikoak), letra bat aldatuz gero indarrik ez luketenak.

Leialki gorde ditu Elizak ezagugarri hauk; harturiko gordailua leialki eskualdatzen* da; baina, une berean, zabala da Eliza azaleko horik aldatzean, barneko muina ulergarri eta adiarazgarri egin nahian.

Sinbolu huts? 201

Galde dezake bat edo batek: Sakramendua sinbolu huts ote da? Eukaristia, esaterako, edo eta bataioa, seinale huts ote dira, ala benetan egiten ote dute adiarazten dutena?

Sakramendua bata eta bestea da batera. Esan dezagun hasteko, sakramendua seinale dela. Ogiak zera adiarazten du: gu janaritzeko Jesusen gogoa, Jesusen gure janari izan nahia. Urak, berriz, jaiotze berria adiarazten du. Sakramenduak, sinbolu tankeran Kristoren presentzia (hots, Izpiritua, hau da, grazia) adiarazten duten seinaleak dira.

Baina ez dira hori bakarrik. Adiaraziz, eman egiten dute egiaz adiarazten dutena. Janaritzat harturiko Kristoren gorputza da egiaz Eukaristia (*127*); bataioa, egiaz, jaiotze berria da (*190*). Sakramenduak sinbolu bidez adiarazten duena, benetan ematen du.

---

sarkor: hunkigarri. **txukuntzea:** garbitzea. **urdaila:** estomaka. **adiarazgarriz:** esanahiez betez. **guna:** barrua, muina. **eskualdatu:** transmitir, transmettre.

Sakramentalak 202

Azkenik, hitz labur batzu sakramentalei buruz. Aitzinatik eman izan die Elizak bedeinkapena gizakiei, eta hauek egiten eta erabiltzen dutenari: eginkizun berri bati, etxebizitza bati, lanabes bati, janariei, etab. Bedeinkapena, hots, Elizak Jainkoari eginiko otoitza, joritasuna, grazia, mesedeak eskatuz: otoitz hori ez du egiten nork bere izenean, elkartearen ordezko bezala baizik. Esaterako, familian otordu aurretik mahaina bedeinkatzen baldin bada, aitak edo amak eginen du. Berariz* Eliza osoaren izenean bedeinkapenak emateko (eta sarritan Eliza osorako molde bereko direlarik), apaizak bakarrik izanen dira gai.

Bedeinkatu, bereziki Jainkoaren zerbitzurako litzatekeen gauzaren bat (eliza bat, kanpai bat, kaliza bat, ura, errosario bat) bedeinkatzean, bedeinkapen, sagaratze, edo dedikazio (elizarena) izena eman ohi zaio. Honelakoetan, zera eskatu ohi da bedeinkapen otoitzean: gauza horik erabiliko dituztenen gainera, bedeinkapena ekar dezatela, leku horik Jainkoa aurkitzeko toki gerta daitezela. Gauza arruntetan jainkozkorik sumatzen badugu, horregatik da: Jesusen sakramenduek lurreko gauzak Jainkoaren erreinuarekiko arrotz ez direla agertzen digutelako. Ongi jabetu behar dugu honetaz: sakramentalek ez dute burutzen sakramenduek zertzen duten ainako elkartasun sakon eta ziurrik*. Ez dira ere sakramenduak bezain iraunkor. Beren ondorioa iragankorra* dute sakramentalek. Esan genezake, sakramendu mailan txanpon edo xehekia* direla, sakramendu bizitzako apaindura direla —sarritan interesgarria, hori bai—. Eta tokian tokiko kulturari hertsiki loturik daude.

Gaurregun, Jainkoaren ezagugarriei sentikor gatzaizkie: toki sagaratukoei hainbat nonahikoei. Ura seinale gerta dakigun, aski izanen dugu sukaldeko terreinera* begiratzea, barazkiak uretan igeri eta eguzkiak bertan jotzen duelarik. Edota itsas ertzean lehertzen den olatua begietaratzea. Sakramenduak ditugulako ikusten ahal dugu gure inguru guztian Jainkoaren aintzaren distira.

Agian, laburregi mintzatu gara halako garrantzia* duen sakramenduen gai honetaz. Honengatik da: sakramendu bakoitzaz luze-zabalago mintzatu nahi dugulako; horrela, horietako bakoitza Jaunarekin elkartze berezi bezala azaldu nahi genuke.

---

berariz: de propósito, délibérément. **ziurrik:** segururik. **iragankorra:** pasakorra. **xehekia:** gauza xehea. **terreinera:** kankorrora. **garrantzia:** inportantzia.

Sendotza*

Sendotza sakramenduaren Liturgia[31] 203

Jainkoaren izenean inori eskuak ezartzeak hauxe esan nahi du: Jainkoaren eraginpean eta eskueran ezartzen dela halakoa. Keinu horren bidez ematen zieten Apostoluek Izpiritu Saindua kristauei (Ikus Ap Eg 8,17). Gaur ere, adin heldura doan kristauari, keinu hori bera egiten zaio. *Confirmatio*, hots, *Sendotza* izenak sendo bihurtzea esan nahi du: gotor* bihurtzea. Bataioaren osagarri da sakramendu hau.

Sendotza hartzen duenarengana eskuak luzatuz, honela dio apezpikuak*:

«Jainko ahalguztidun eta betiko,
zuk bir-sor arazi dituzu urez eta Izpiritu Sainduz
zure zerbitzari hauk;
zuk barkatu dizkiezu beren bekatu guztiak:
bidal iezaiezu zerutik zure Izpiritu Saindu pozemailea,
honen zazpi dohain eta guzti. Amen (*150*).
Jakinduriaren eta adimenaren Izpiritu hori. Amen.
Aholkuaren eta sendotasunaren Izpiritu hori. Amen.
Jakintzaren eta maitasunaren Izpiritu hori. Amen.
Bete itzazu zure beldurraren Izpirituz, eta zina itzazu
Kristoren gurutzeaz, betiko bizitzarako».

Orduan, sakramendua hartzen duten guztiak, banan-banan apezpikuagana hurbiltzen dira. Honek, bere eskuak buruan ezartzen dizkielarik, olio edo krisma sainduaz kopetan* igurtzitzen ditu. Izpirituaren usain gozoa adiarazten du olio horrek; «Errege apaizeria, nazio saindua, Jainkoak aukeratutako herria»ren (1 P 2,9) atal oso bezala sagaratzen ditu (*280*).

Ondoren, «Bakea zurekin», esaten dio apezpikuak; eta norberak erantzuten: «Eta zure Izpirituarekin».

Sendotza emateko unerik egokiena, mezakoa da, Eanjelioaren ondoren. Batzarkide guztiek batera «sinesten dut» esanez bukatzen da, eta ondoren Eukaristia egiten. Badu esangura sakonik sendotza eta Eukaristia batean ezartzeak. Aitzinatik, bataioak, sendotzak eta Eukaristiak, hirurek batera, kristau hastapena osatzen dute.

Bataioak eta Sendotzak bat dagite 204

Zer esan nahi du sendotzan Izpiritu Saindua hartzen dugulako horrek? Ez ahal dugu, bada, bataioan hartu?

Batak ez du bestea ukatzen. Bataioan eman zaiguna, sendotzan finkatu egiten da. Bataioa burutu egiten du sendotzak, Mendekoste

31 Rituala berritua eta aberastua izan da, 1971-VIII-15ean. Ik. berau.

sendotza: konfirmazionea. **gotor:** indartsu. **apezpikuak:** gotzainak, obispuak. **kopeta:** bekokia.

berri bat bezala da sendotza. Elizaren lehen aroan, eta gaur oraino Ekialdean, bataioaren ondoren, berehala eman ohi zen sendotza. Jordan hibaitik irtetean*, Izpiritu Sainduak sagaratu zuen Jesus; eta heriotzetik atera orduko, Jesukristok, Izpiritua arnas egin zien Apostoluei; orobat*, bereziki garbitzaile den bataioko ritua amaitu ondoren, Izpiritu Sainduaren poza eta indarra ospatzen dira berriro.

Bi sakramenduak elkarrekin doaz. Hona argibide bat: Mendebaldeko* Elizan bataioa eta sendotza bata bestearen ondoren ematen ez direlarik ere, bataio liturgiaren ondoren sendotzaren antzeko ritu bat sortu da, Izpirituaren dohaina adiarazteko: Krisma sainduz egiten den igurtziketa*, alegia. Igurtzi hori ez da benetako sendotza, baina badu honen antzik* (*190*).

Izpiritu Sainduaren dohaina 205

Sendotzak bereziki ematen duena, hots, Jainkoaren Izpirituaren dohaina zehaztu nahi bagenu, Mendekoste eguneko gertakizuna honera aldatu beharko genuke, Apostoluen Eginetan (2. kap.) datorrenez (*148-153*). Jo beza hara irakurleak.

Oraino beste zerbait erantsi nahi genuke. Egin dezagun kontu, lehenik, sakramendu hau ez dela egintza magiko eta bakana, Jainkoaren Izpiritua bere esku lukeena (*198*). Bataioa bera bezala, ezin adi daiteke sendotza behar bezala, kristauaren giza bizitza osoaren barnean ipini ezik. Dagozkion hezketa eta irakaskintzarik gabe, zirimonia hutsak esanahirik ez luke. Bataioari buruz esana dugunez, galde hauxe egin genezake berriro: Ohitura dela eta, bataioa eta sendotza hartu bai, baina kristau bezala bizitzeko benetako hezketa hartzen ez dutenek, merezi ote dute egiaz kristau eta eliztar izenik?

Beste ohar bat oraino Mendekoste eguneko gertakizunaz. Sendotza zer den jakiteko, kristau helduaren bizitzari zuzen-zuzenean dagozkion Izpiritu Sainduaren dohainetara jo beharko genuke, nor beragandik aterazi eta lekuko izatera eragiten dutenetara.

> «Gizonek zuei zer egitea nahi duzuen, egin zuek ere horixe gizonei» (Mt 7,12).
>
> «Salatzen zaituztetenean, ez ibil buruhausten zer edo nola hitzegingo ote duzuen..., zeren, orduan, zuek ez baino zuen Aitaren Izpiritua izango bait da zuengan hitzegingo duena» (Mt 10,19-20).

Jainkoaren Hitzaren testigutza eta zerbitzua: hauxe da sendotzak kristauari ezartzen dion eginkizuna. Kristaua heldu eta erantzule* bihurtzen du sendotzak, nor beraren giroan.

---

irtetean: ateratzean. **orobat:** berdin. **Mendebalde:** sartalde. **igurtziketa:** gantzuketa. **antzik:** jiterik. **erantzule:** errespontsable.

Gotzainak bakarrik eman dezake sendotza (heriotz zorian, parrokuak, eta hospitalean kapeilauak eman dezake). Badu horrek esangura sakonik. Apezpikua ipini du Jainkoak Izpiritu Sainduaren emaile eta sakramendu emaile propio bezala.

Apezpikuak ematen du bataioaren osagarri den Izpirituaren sakramendua. Eta apezpikua bi edo hiru urtetan behin bakarrik etortzen den tokietan, sendotza sakramendua sailka eman ohi da: ez garai berezi bati, ez adin berezi bati egokitu ezin zaiolarik. Horrela, jakina, ezin eman zaio nahi litzatekeen garrantziarik. Beraz, arrazoin handiagoa, nola gurasoak hala hezitzaile eta apaizak sakramendu hau argitzen saia daitezen, eta liturgikizun arduratsuagoz ospatzera lehia* daitezen. Gehienetan, lehen eskola-mailako haurrek hartzen dute sendotza.

Leku batzutan izen berria ezarri ohi zaio kristauari sendotza hartzean (*196*). Bidezkoago litzateke, sendotzarako katekesian, bataioan hartutako izenaren esanahia sakonduko balitz eta norberaren izeneko sainduaren mezua eta irakatsia aztertuko* balira. Sendotzarako ait' 'ama berriak hautatzeak ere ez du esanahirik; inor izatekotan, bataiokoek izan beharko lukete. Honek, bai, honek badu esanahirik, eta egokia litzateke horrela egitea.

Behin bakarrik hartzen du kristauak sendotza. Askok ahaztua du sakramendu hori hartua duenik ere; edo une hartan gauza handirik ulertu ezaren susmoa du. Baina gogoan izan behar du kristauak, sendotzak norberaren bizitzan hedatuz eta haziz joan behar duela. Behin hartuta gero, Jainkoaren Izpirituaren beraren indarrez hazten da sendotza.

Bekatuaren indarra (*376-379*)

Orain arteko azterketan, gure salbamendua gertaera bezala azaldu dugu: historiaren haseratik Kristorengan pertsonalki xertatu garen bitarteraino, eta kristau hastapenaren* bi sakramenduez, hots, bataioaz eta sendotzaz egin denez. (Kristau hastapeneko hirugarren sakramendua, hots, eukaristia, sakramendurik nagusiena, beranduago aztertuko dugu, kristau bizitzaren osakuntzaz mintza gaitezenean). Orain berriro atzera jo beharrean gara; horrela, gure salbamendua zertan datzan laburki esateko, eta ahalik sakonkien zer den hatzemateko*. Ondorengo bi kapituluetan horretaz mintzatuko gara: lehenik bekatuaz eta, ondoren, birrerospenaz*.

---

lehia: lehiatu, saiatu. **aztertu:** ikertu. **hastapena:** hasera. **atzemateko:** ulertzeko, konprenitzeko. **birrerospen:** redención, redemption.

Bekaturik ez birrerospenik gabe 207

Munduan, inon ez dago bekatu huts-hutsik. Gizadia beti Jesus etortzekoa zenekoa edo etorria deneko gizadia da. Horregatik, atzoko nahiz gaurko gizarte basatienean, gizakiak Jainkoaren Semearen senide ziren.

Haur jaio-berria, oraino bataiatu gabe delarik ere, Kristoren birrerospenaren eragipenean dagoen mundura sartzen da (*194*). Bapatean, Kristoren senide da, Kristoren arrazakide, eta Kristoren adiskidetasunean bizitzera deitua. Adin helduko delarik, moral mailan galduena delarik ere, gaiztoena delarik ere, inor ez da behin betirako zapuzten, inori ez zaio ukatzen Jainko onaren deirik.

Guztien erruduntasuna* 208

Halere kolpetik suma lezake gizakiak, nola bere baitan hala bere inguruko munduan, misteriozko erruduntasun bat. Zorne zorroaren antzera, ia inoren gogoko ez delarik, lehertzen den ezinbesteko hainbat gerra hor dago. Beren buruaz ziur diren kapitalismoaren eta kolonialismoaren harrokeria hor dago. Gorrotoaren pozoina, giza maila artekoa, arraza artekoa hor dago. Gogora dezagun: gure Europa zibilizatu honetan, oraindik orain, sei miloi gizakume lurrun gelatara jaurtiak*, beste arrazakoak zirelako bakarrik.

Elkar maitatzeko dugun gure ezinaren gerekoikeria* ere, gaitz horietakoa dugu. Bizikeraz eta pentsakeraz aldatzeko dugun axolagabekeria ere bai. Guk ere kalte dagiegu besteei. Munduko gaitz ikaragarrian eskuhartzen ari gara gu ere. Eskuak zikin ditugu. «Mundu guztia da errudun Jainkoaren aurrean» (Erm 3,19).

Gizadiaren bilakaerari edo eboluzioari darizkion akats bezala hartu izan dira batzutan mixeria horik. Horregatik, bekatuaz ez baino heldutasunik ezaz mintzatuko dira batzu. Beste zenbaitetan, gaitz guztien sorburutzat psikologiazko okerrak emanen dira. Baina, hestuasunean zaudenean, argibide horik guztiak, hein batetan egiazkoak direlarik ere, biribilegi, artetsuegi*, xinpleegi ageri ohi dira, gizakiak bere baitan nabari duena adiarazi ahal izateko: maita-ezin gorri hori, guztiok gainditu ezineko eta, halere, erru bezala sentitzen dugun ezin hori argitu ahal izateko, alegia.

«Honetaz ohartu nintzen, hain zuzen: giza mailan ez nintzela, inola ere, zintzo (garbi) izateko eta zintzo irauteko gauza.

---

erruduntasuna: errudun izate, culpabilidad, culpabilité. **jaurti:** bota. **gerekoikeria:** egoísmo (nuestro), égoïsme (notre). **artetsuegi:** laioegi.

Neure arreta zerbaitetan ipintzen banuen, beste zerbaiti kenduz zen; hau maitatzekotan, bestea utzi behar nuen (...) Etengabean neure mugekin topo egiten dut; hain zuzen ere, nere asmoa, hots, neretzat gizabide arras garbia eta arras zentzuzkoa dena egia bihurtzeko dudan ahalaren mugekin. Neure kontzientzia moralaren intuizioaren eta neure egiazko portaeraren arteko aldea nabari dut. Ez dut egunik, ez ordurik, ez eta ordu laurdenik, hutsegiteren batetan erori* gabe. Inoiz ez dut aski egiten, eta egiten dudana, ez dut inoiz aski ongi egiten... hutsegitea ezik: honetan bai, honetan badut arrakastarik*, naizena horrela bait naiz. Eta hor diodana, egia da neutaz aina besteetaz. Egun osoan gertatzen naiz errudun, lanean bezala lagun hurkoarekiko harremanetan. Egiaz esan nezake: Ez naiz saindu, ez (saindutasuna giza hutsegite guztien gainetik datzala emanez gero); naizenaz aski izan, neure burua den bezala hartu beste biderik ez dut...; baina, arrazoinbide horrek ez du indarrik, zeren izatez ez bait naiz horrenbestez lasaitzen. Atergabean* sumatzen dut neure burua hutsegin zorian*, eta akats hori nire izateari dariona delarik ere, zoritxar bezala sumatzen dut... eta horrek, nire akatsa nire erru dela adierazten du. Gauza bitxia benetan! Errudun izan, eta ezin ezer egin halere!... Halaz guztiz, nik nahi izana ez delarik ere, horretarako ezer egin dudalarik ere, zoritxar hori neure-neurea dudanaz jabetzen naiz, eta, horrez gero, erru bat denaz, nire portaeran nabarmenegi agertzen dena...» (Anna Blaman).

Kristau ez den baten hitz horien ondoren, aipa ditzagun kristau baten gogoetak:

«Jainkoarik *baldin bada*, eta Jainkoarik badelako, ezbehar izugarri batetan abiatu zen gizadia haseran. Bere Kreatzailearen asmoa hautsirik dabil gizakia. Eta hori ere gertaera bat da, gizakiaren izatea bera bezain egiazkoa. Horregatik, teologian jatorrizko bekatu deritzaiona, munduaren izatea eta Jainkoarena berarena bezain ziurra* da niretzat» (John Henry Newman).

Genesiaren 1-11 kapituluen mezua 209

Genesi[32] liburuaren lehen hamaika kapituluetan eta, batez ere, Erromatarrei Paulo sainduak idatzitako epistolaren bosgarren kapituluan, argi eta garbi mintzo zaigu Liburu saindua jatorrizko bekatuaz. *Genesi* liburuaren lehen 11 kapituluak haseraren kontakizunak dira: Adan, Kain, Noe, Babelgo dorrea. Badakigu, ezin hartzen ahal dugula hori guztia, gertaera historikoak ondozka* eman nahiko balizkigu bezala. Urrunago doa, askoz ere, idazki hori. Sinboluzko kontakizu-

32 Ik. *Eraskina*: «*Genesi* liburua...» 523 or.

erori: jausi. **arrakasta:** exitu. **atergabean:** constantemente. **zorian:** punttuan. **ziurra:** segurua. **ondozka:** bata bestearen ondoren.

nez, gizadiaren historiaren muina ematen digu (etorkizuneko historiarena barne delarik). Adan gizakia da; Kain, egunorokoan aurkitzen duzu; agian, zeure bihotzean ere bai. Noe eta Babelgo dorregileak, geu gara (*352*).

Genesiak, lehen hamaika kapitulu horietan (*29*), Gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremanen elementu funtsezkoenak kontatzen dizkigu. Iragan* garaian bizi izandako pertsonaia historikorik, 12. kapituluan aurkitzen dugu lehenik: Abrahanengandik hasita (*323, 21*). Zein da, horrez gero, lehen hamaika kapituluen adiera* eta mezua?

1. Jainkoak sortzen eta hazi arazten du gizadia, lehen kapituluko kreakundearen poemak eta belaunaldi harrigarriek (hauk ez dira hitzez-hitz hartu behar) adiarazten dutenez.

2. Jainkoaren adiskide izateko sortzen da gizakia. Hori adiarazten du paradisuko kontakizunak (Gn 2).

3. Gizakiaren bekatua da hirugarren funtsezko irakatsia. Esperientzia garratz eta oso norberaren bat dela bide, gizadiaren historiaren betikoa den horretaz jabetzen da herri fededuna. Hain zuzen, lau alditaraino ematen du haserako historiak nola gizona bekaturen batetan erortzen den: galerazitako* fruitua, senidearen hilketa, Noeren garaikoen ustelkeria, Babelgo dorrea eraikitzea. Gure bekatu handien sinbolu dira lau kontakizun horik.

4. Halere, Jainkoak ez du gizakia bakarrik uzten. Israelen bertan harrigarrizko urrikiaren* Jainko bezala agertzen da. Haseraren kontakizunek alderdi hori bera ematen dute argi eta garbi. Gizakia erortzen den bakoitzean, Jainkoak bere graziaz erantzuten dio. Paradisutik gure lehen gurasoak bota zituenean, jantzi egin zituen, eta agintzari* hauxe eman: emakumearen ondorengoak zapaldu eginen du sugearen burua. Jainkoak zinatu* egiten du Kain, inork garbi* ez dezan. Noeren kondairan, salbamendua da oro betetzen duena. Eta Babelgo dorrearen ondoren berehalaxe, Abrahanen historia hasten da, Jainkoaren semeak ekarriko duen berrikuntzari hasera emanez.

Haserako kontakizun horiek betiko mezua osatzen dute, Jainkoarekiko gure bizitzaren elementu sakonenei dagokiena: 1) Kreakundea; 2) hautapena; 3) bekatua; 4) birrerospena.

Erromatarrei egindako epistolaren 5. kapituluaren mezua 210

Jainkoaren mezuaren lau elementu horik argiago bilakatu dira oraino Testamentu Berrian. Bereziki, Paulo sainduak,

Iragan: joandako. **adiera:** esanahia. **galerazitako:** debekatutako. **urriki:** erruki. **agintzari:** promesa, promesse. **zinatu:** markatu. **garbi:** garbitu, hil.

sakontasun osoz, Erromatarrei egindako epistolaren 5. kapituluan azaltzen dizkigu horik. Lehen begiratuan, hau erakutsi nahi duela esanen litzateke: gizaki bakar baten bekatuagatik sartu dela bekatua mundura. Baina, esaldiaren baitako simetria hori, eta *bat* hitza eman-eta-eman bidertze* hori —Paulo saindua bere garaiko mundu ikuskeraren arabera mintzo delarik—, mezuaren muina ez baino idazkera mota besterik ez da. Hona Paulo sainduaren pasarte zail horretan datorren berriona: bekatua da munduan nagusi, eta honekin batera heriotzea; baina Kristok gainezka eman du grazia, birrerospena, eta honekin batera, betiko bizia.

Paradisuaren kontakizuna: mundua nola hasia den ez baino gizakia zer den adiarazten diguna 211

Bibliako zati guztietarik, Paradisukoa dugu gure gogoan bizikien harturikoa. Ez dezagun ahantz, alabaina*, horren ondoren datozen kapituluek ere mezu berdina dakarkigutela; lehen ere esana dugu. Baina Adanen eta Ebaren kondaira horrek bereziki hunkitzen gaitu. Hitz gutxitan, zenbait irudiz, giza zoriaren handitasun osoa eta mixeria osoa daude hor bildurik. Jainkoari buruz gizakiak duen jarrera laburki emateko, Bibliako zati bizi horren parekorik ez da aurkituko. Aitzitik*, gizadiaren sorrera adiarazteko zati horren ordezkorik ematen ahal dugu (eta eman beharko dugu) (*9-12*). Azter dezagun une batez puntu hau: Nola sortu da bekatua munduan?

Aitzina, eta oraindik orain arte ere, mundu ikuskera aldakaitza eta geldia zen: Gauzak orain direna, halaxe izan ziren sortuak. Esistentziaren oinarrizko elementuez ihardun nahi zenean, haserara jotzen zen. Han bilatzen zen haien argibidea.

Gauzen izatea bera argitzeko, Jainkoak *sortu zituela* esan ohi zen. Harotz batek mahain bat egin duela esanen bagenu bezala.

Bekatuaren sorrera agertzeko, gizakiak *bekatu egin* duelakoari heldu ohi zitzaion bereziki.

Gure mundu ikuskera, alabaina, aldatu egin da (*406*). Iragan* aitzinatearekiko gure ezaguera asko zabaldu da; eta mundua aurrerabidean doala adiarazten digu, «haziz», modu batera edo bestera. Gure mundu ikuskera ez da geldia, bizia eta dinamikoa baizik. Horri ondorio hauxe dario: egiazko argibidea ez dagoela munduaren haseran, munduaren bilakaeran* eta amaieran* baizik. *Jainkoak sortu du* esan beharrean,

bidertze: multiplikatu. **alabaina:** ordea. **aitzitik:** kontrakoz, aldez. **iragan:** joandako. **bilakaera:** eboluzioa. **amaieran:** burutzean.

nahiago dugu *Jainkoa sortzen ari da* esan. Giza mintzairaz esateko, Jainkoak kreazioa segundu laurden batez bere eskutik utz baleza, ezereza litzateke. Jainkoak ez dezake bere lana alde batetara utz, harotzak egiten duen bezala. Mundu osoa Jainkoagan da, Jainkoagandik dago esegita*. Jainkoaren eskutan hazten da kreazioa. Munduaren bilakaera osoa Jainkoaren egintza da eta egintza hori osatzen denean argituko da: egintza osoak azalduko du «guztia oso on zela» (Gn 1,31).

Hastapen* arazoak, horrez gero, aitzinakoentzat aina* joan-etorririk ez du guretzat. Gauza bera gertatzen da bekatuaz ere. Axolazkoena* ez da gizakiak *bekatu egin* duelakoa eta bekatuak gizakia *kutsatu egiten* duela. Guk uste baino hurbilago dadukagu Adanen eta Ebaren bekatua: gu geuregan dugu.

Bekatua mundura sartzea 212

Halere bekatuari gagozkiolarik, ezin uzten ahal dugu alde batetara bekatu horren haseraren arazoa. Arazo artegarri* honekiko erantzuna nahi genuke: nondik nora sartu ahal izan da gero erru hori Jainkoaren lanetara? Hastapenak nagi-nagi handitzen ikusten ditugularik ere, haseraren bat beharko zuen bekatuak. Mundu ikuskera aldatu delarik ere, galdekizun horrekiko erantzuna bat bera da; atzo bezala gaur, bekatua giza askatasunarekin loturik bururatzen dugu. Askatasunarekin batera, bekatua ere haziz zihoan gizartean.

Ezinbestekoa ote bekatua munduan horrez gero? Horretaz hauxe bakarrik esan dezakegu: bekatua nola-halako askatasunezko ihardunean egiten da —osterantzean* ez litzateke bekatu izanen— eta askatasunak, egin zena ez egitea posible zela adiarazten du. Alabaina, horrek ez du esan nahi derrigorrez, bekatu guztiei aldegin dakiekeenik. Ez da halabeharrezko gauza halako edo bestelako bekatua egitea; baina, agian, izatez gaitza izatea ezinbestekoa da. Ez dakigu ezer garbi horretaz. Gure gogoari ezinezko zaio gaitzaren haseraz jabetzea. Benetan bekatua egin dugunean, badakigu, geure barnean, bekatu egin dugula. Errudun sentitzen dugu geure burua. Eta, halere, geure buruari galdezka dihardugu: nolatan egin dut gero nik horrelakorik? (*377*). Izan ere, gaitza ez dago erabat konprenitzerik. Zentzugabekeria, itxuragabekeria da. Horregatik, ezin ulertuzkoa bekatuaren historiazko hasera ere.

---

esegita: zintzilika. **hastapen:** hasera. **aina:** bezainbat. **axolazko:** ardurazko, inportante. **artegarri:** kezkagarri. **osterantzean:** bestela.

Gauza ziurra hauxe da: bekatua badela izan. Eta Jainkoaren nahiaren kontra dela. Jainkoak badu, ordea, —hala sinesten dugu— okerretik zuzena ateratzeko ahalik (ikus azken kapitulua).

Bekatua ez da akats hutsa 213

Gaitz horren esistentziaren arazoa sakondu aurretik, esan dezagun berehala egiaz bekatu eta hutsegitea dela; ezin nahas ditzakegu bekatua eta akatsa, hots, eboluziozko munduan gizakia, edozer gauza dagielarik ere, izaki osatugabea, adimen mugatuzkoa eta hezigabeko grinaduna delakoa. Jakina, eremuetan, basoetan eta haitzuloetan bizi zen lehen gizakiari asko falta zitzaion gizaki izateko. Baina bere baitan zeraman «aberetasunaz» erantzi beharrean zen (*11*). Ez zen inondik ere gizaki osatua. Baina, osoa ez izate hura ez zen, berez, bekatu. Noski, bekatua ere lanean ari zen han, grina haiekin hestu kateaturik*, baina bereizi egiten ziren bata bestetik; hain zuzen ere, bekatua, grina horietan, aberezko sen saila ez beste zerbait da eta: hortxe hasten da egiazko hutsegitea.

Haziz doan munduan, gizakiaren errua, sarritan, aurrera egiteari uko egitea izanen da, hain zuzen: geure kontzientziak adiarazten digun aurrerabideari uko egitea, alegia.

Guztiekiko gaitza 214

Berriro Liburu sainduetara itzuliz, ikus dezagun zer dioten gizakiaren bekatuaz beste zenbait tokitan.

Biblia, hein batetan, bekatuaren kondaira da. Genesiaren lehen 11 kapituluei (Gn 1-11), herri aukeratuaren* historia darraie. Herri hori, behin eta berriz, herri burugogor, arnegatu eta emazte salduaren antzeko* (ikus Os 1-3) ezkon nahasle bezala ageri da. Xundigarria* zera da: herria *oso-osoan* ematen dela bekatari bezala. Testamentu Zaharreko beranduagoko zenbait pasartek nor bakoitzaren erantzukizuna azpimarratzen du noski. Baina, hor ere, bekatua herri osoaren arazo delako kontzientzia nabari da.

Jesusek ere, bekatuaren guztiekiko alderdi hori azaltzen du. Adibidez, fariseuei honela damaie aurpegian: «Lur gainean isuri izan den errugabeko odol guztia zuen gain eror dadin...» (Mt 23,35). Hona Joan sainduaren hitzok ere: «Hona hemen munduko bekatua kentzen duen Jainkoaren Bildotsa»

kateaturik: estekaturik. **aukeratua:** hautatua. **antzeko:** iduriko. **xundigarria:** harrigarria.

(Jn 1,29). Hitz horiek, gizadiaren gaitza munduaren mailako bekatu bakartzat hartzen dela adiarazten dute. *Bekatuez* ez baino *bekatuaz* mintzo da Joan.

Orain, guztiok dugun gaitz kidetasun hori aztertu nahi genuke. Horretarako, egiten ditugun bekatuen kutsakortasun* mailak arakatuko* ditugu banan-banan.

Lehenengo, bekatuaren ondorio kaltegarriak datoz. Batak bestea zauritzen ahal dugu, esate baterako.

Izugarria da hori benetan; baina are izugarriago da bekatua kutsakor delakoa, batak bestea lohitu dezakeelakoa, batak besteari gaitza erants diezaiokeelakoa. Etsenplu txarra da; ernetzen ari zen ona itoarazten duena; gainera, gaitza egin daitekeen gauza bezala agertzen du. Etsenplu txar hori eragipen* liluragarriz lagundurik baldin badator, eskandalubide okerrenaren aurrean gaudeke: horretxek aterarazi zion Jesusi beronen deirik gogorrenetariko bat:

> «Niregan sinesten duten txikitxo hauetako bati okerrerako bidea ematen dionak, hobe luke halako horrek, asto errotarri bat lepotik jarrita zintzilika itsasoan behera amilduko balute. Urrikarria mundua, eskandaluak direla eta. Bai!» (Mt 18,6-7).

Bekatuaren kutsakortasuna urrunago doa oraino; giza balioen esangura galaraziz azaltzen da. Familia zeken* batek seme-alaba zekenak sortzen ditu: argi dago hori; gizarte berekoi* batek jende berekoia sortzen; kolonialismoak jende kolonialista, eta arrazakeriak jende arrazakoia* sortzen du.

Talde bereziak aipatu ditugu; baina zabalago begiratzen badugu, mundu osoa hezketa inguru eta giro bezala ikusiko dugu.

Eta Liburu sainduek, hor bekatua dela nagusi adiarazten digute. Egoera horrek gizadi osoan giza balioak iluntzen ditu: bikainenetik, hots, maitasunetik hasita.

Kristori buruz gorbizi* 215

Zorte* hori bere baitan darama gizakiak. Ez du kanpotik oldarka* datorkiona. Egiaz gizakiaren barruan dago: gutako bakoitzarentzat, gizaki izatea, gizakide izate bait da. Jainkoari buruz, funtsezko gogo txarrak darabil gizaki oro, gogo txar hori bere ekintza baino lehenagokoa du eta haren egite guztietan nahasturik dabil; egiazko maitasunarekiko higuina da. Jakina, ez du nahi gaitza gauza orotan. Baina, Kristoren guru-

kutsakortasun: carácter contagioso, caractère contagieux. **arakatu:** aztertu. **eragipen:** influentzi. **zeken:** diru zale. **berekoi:** egoísta, égoïste. **arrazakoia:** arraza zalea. **gorbizi:** burugogor. **zorte:** zori. **oldarka:** bultzaka.

tzeari begiratzean, nork ez luke ikusiko, norberaren bizitza maitasun horren kontra dagoela? Jainkoak bere maitasuna eta bihotza agertzen dituenean, guk «arrastaka» nabari dugu geure burua, epel eta uzkur*. Eutsi* egiten diogu geureari.

Euspen horretan bada satanakeriarik (ikus Mk 8,33). Kezkatzen gaituena ez da Jainkoaren nahia, gizakien nahia baizik. Ez dugu Jainkoa maite nahi, ez eta lagun hurkoa ere, azkeneraino. Ez dugu gura Jainkoaren maitasuna, ez eta paradisua ere; ez gara gauza bestela iharduteko, geurenez*.

Halere, ahalezin* hori ez da errugabe*. Gure askatasuna mugatua da noski. Baina badugu askatasunen bat; hain zuzen ere, eskaintzen zaizkigun jainkozko biziaren, pozaren eta maitasunaren kontra altxatzeko darabilgun askatasuna bera. Bekaturako kidetasun hori enigma bat dugu, gizakiari erabat aditu ezinekoa zaiona. Gaitza, beti, gauza iluna da. Aitzina ere, ez zuen uste gizakiak arras argi ulertzen zuenik. Orduan, argibidea, «giza izatea»ren aldetik bilatzen zen: gorputzezko jatorriz Adan bekatariagandik jasotakoaren aldetik. Baina, bekatuaren guztiekiko* alderdia argitzeko ematen zen argibide hori ez dator Agerkundean, zehatz hitzeginez gero. Gizadiaren egiazko batasuna ez datza, Liburu Sainduen arabera, jatorrian (greziar, jentil nahiz judutar jatorrian), Aita bakarragandiko deian baizik. Honetantxe datza gizonok okerrean dugun elkartasuna ere: dei hori guztiok arbuiatzean*. Semealabatzatik bakarrik ez baino alde guztietatik datorkigu geure bekatu kidetasuna: mila bide eta harremanetatik. Gizakia kutsatzen duen bekatua, ez da historiaren haserako Adanen batek eginikoa; aitzitik*, Adanek, gizakiak, gizaki guztiek egindakoa da. «Munduko bekatua» da. Nereak ere hor tartean dira. Ez naiz besteren bekatuaz kutsaturiko* bildots errugabea. Neuk ere bekatu egiten dut.

Liburu sainduez eta geure esperientziaz ezagutzen dugun giza zori bekatari horri *peccatum originale* izena, hots, jatorrizko bekatu, ondareko, haserako bekatu izena ezarri zitzaion Agustin sainduaren garaian (400. urte inguruan Greziar Elizako gurasoek *herio* hitza erabili ohi zuten: arimaren herioa). Jatorrizko bekatu hau gurasoengandik sortzean datorkigula baieztatzen zenez, haurren jatorrizko bekatuaz mintzatu ohi zen asko. Baina, kutsakortasun hori zabalago hartzen badugu, gizadi osotik datorrenez, gizaki larriaz* mintzatuko gara gehienbat. Jatorrizko bekatua gizadi osoarena da (neu barne naizelarik), bekatu horrek gizaki guztiak ukitzen dituen neurrian. Norberaren bekatu bakoitzean jatorrizko bekatuaren oihartzuna entzuten da, lelo bat bezala.

---

uzkur: ganoragabekoa. **eutsi:** atxeki, lotu. **geurenez:** geure kabuz, indarrez... **ahalezin:** imposibilidad, imposibilité. **guztiekiko:** guztiei dagokien, colectivo. **arbuiatzean:** ukatzean, baztertzean. **aitzitik:** alderantziz, baizik. **kutsaturiko:** zikinduriko. **larriaz:** helduaz.

«Jatorrizko bekatua» ez da beste edozein bekatu bezalakoa. Esan daiteke, nor bakoitzak egiten dituen bekatuetan hezur-mamitzen dela jatorrizko bekatu hori. Inor ez da, beraz, jatorrizko bekatu hutsez epaitua* izanen, norberaren bekatuengatik baizik: hauen bidez onartzen eta finkatzen bait da nolarebait jatorrizko bekatua. (Honela, norberaren bekatuen kontrako burruka hasten du kristauak bere bataioaz: bizitza osorako burruka hasi ere) (*192-193*).

Munduaren bekatua Jesus gurutziltzatzean heldu da bere gailurrera. Hondo-hondorainoko erortzea da: on-ona den bakarrari heriotzea ematen zaio. Jainkoa zapuztu* egiten du gizakiak. Gizadi guztia da errudun horretan. Epaia bete eta mailua manaiatu* zutenak, gutako asko baino ilunago jabetu ziren, agian, beraiek zegitenaz. Gizadi osoak eskuhartu zuen arazo hartan.

Graziaren ahalguztia* 216

Gizonaren aldetik bekaturik handiena izan zen hori, salbamendu gertatu zitzaion Jainkoaren aldetik. Gizonaren ezezko zitalena, baiezko harrigarrien bihurtu zen Jainkoaren ahotan. Horregatik ona gaitza baino indartsuago da, munduan. Bekatua ugari, baina ugariago grazia. Eta horrelako salbatzailea geure artean geure anaia dugularik, ukan dezakegu, bai, usteonik: hasera-haseratik, gizadiaren baitan onak gaitzak baino eginkorrago* diharduelako usterik ukan dezakegu, ona gaitza baino kutsakorrago* dela, alegia.

Ondorio hori bera ateratzen ahal dugu Bibliatik ere. Liburu sainduak, kutsatzen duen bekatuaren historia baldin badira, areago dira ematen den graziaren kondaira. Askotan, geure baitako ona norberaren ona bagenu bezala ihardun ohi gara: *gure-gurea* bait litzan*. Alabaina* jakin dezagun, geure ontasunean ere erdikide* garela, ontasunkide garela, eta ukan dezagun usteon hau: kidetasun hori gaitzaren orokortasuna* baino indartsuago dela (*237, 235, 186*).

Arrazoin honengatik ausartu dira liburu honen egileak —zilegi bekie behin bederen beren buruak aipatzea— berau idaztera. Beren bekatua eta gaiztakeria orrialde hauetan ere azalduko dela dakitelarik ere, uste sendoa dute, gizadiagandik eta Elizagandik datozkien egiaren eta graziaren indarrak eginkorrago ariko direla zuentzat idatziriko orrialde hauetan.

---

epaitua: juzgatua. **zapuztu:** arbuiatu, baztertu. **manaiatu:** erabili. **ahalguztia:** omnipotencia, omnipotence. **eginkor:** eficaz, efficace. **kutsakor:** contagioso, contagieux. **bait litzan:** balitz bezala. **alabaina:** baina. **erdikide:** participante, participant. **orokortasun:** universalidad, universalité.

Gaitzaren indarraren ondoan graziarena garaiago delako du kristau Agerkundeak *Berrion* izena hartzeko eskubidea.

Onaren indarra garaile delakoak dakarkigun poz hori, Elizan pixkana-pixkana* argi bihurtu den egia batetan nabarmentzen* da. Ez Akinoko Tomak, ez eta Bernardo sainduak, ez zezaketen burutik pasa halakorik esan zitekeenik. Baina poliki-poliki atera zuen Elizak Goiagerkunde osoa hausnartuz, azken mendean handikiro dogmatzat eman zuen egia hau: Mariak ez zuela jatorrizko bekaturik ezagutu. Sortzez bekaturik gabea da Maria. Mundu bekatarian bizi izanki, munduaren oinazea jasan du, baina munduaren gaiztakeriak ez du ukitu. Oinazetan gure senide, baina bekatuan ez. Onak arras garaitu du gaitza. Noski, hori guztia, Kristoren birrerospenari* esker.

Kristok guztizko esanekotasunez* bizi izan zuen giza bizitza, emakume batek ere txit bikain bizi izan zuelakoaz, ez dago zertan harriturik (*51*). «Gizon-emakume sortu zituen» (Gn 1,27). Egiazko Adanen alboan* egiazko Eba sortu zuen Jainkoak. Maria Kristoren misteriokide dugu.

Zein da, guzti horretan, fedezko mezua? 217

Zein da, ordea, laburki esanda, kapitulu honetako jainkozko mezua? Liburu sainduek damaigutena bera, hots: 1) Jainkoak sortua dela gizadia; 2) Jainkoaren bizia bereziki bizitzera deitua dela; 3) Gizadia bekataria dela eta ez dela gauza Jainkoaren asmoari erantzuteko; 4) Jainkoak egoera horretatik askatu eta sendatu egin nahi gaituela. Jainkoaren salbamendua zera da: berriztapena, lehengoratzea, osakuntza; Jainkoak osasuna itzultzen digu.

Gure gaurko mundu ikuskeraren arabera azaldu dugu fedezko mezu hau; bilakaerazko eta eboluziozko mundutzat ematen dugun mundu ikuskeraren arabera. Bibliaren idazleak mezua orduko mundu ikuskeraren arabera jaulki* zigun legez*, gure gaurko mundu ikuskeraren arabera azaltzen dugu guk. Egin ote daiteke gero hori? Bai; izan ere, bietan berdinak bait dira: bai fedezko mezua, bai lau elementuak, bai Jainkoak agertu digun bere misterioa.

Ezer aldatu ote du munduan jatorrizko bekatuak? 218

Galde bat, arazo bat gelditzen da oraino argitzeko gutako askorentzat, erlijio irakaskintzan garrantzi handia ukan

pixkana-pixkana: emeki-emeki. **nabarmentzen:** agertzen. **birrerospen:** redención, redemption. **esanekotasun:** menekotasun, obedientzia. **alboan:** ondoan. **jaulki:** agertu, esan. **legez:** bezala.

duena: bekatua baino lehenagoko «jatorrizko zindotasun»ari* buruzko arazoa, alegia.

Akinoko Toma sainduak ere bazioen jadanik: «burutik ongi ez dagoela agertuko luke», aitzina pizti harrapariek* ez zutela harrapatzen liokeenak (halere, gure ikastaroan horrelakorik entzunak gara). Ezerk ez gaitu behartzen bekatuaren aurretik bestelako mundurik zenik pentsatzera. Astalarrik* eta arantzarik beti izan bide da.

Gizakiaz ere beste horrenbeste edo, esan dezakegu. Ez dadukagu zertan idurikatu* paradisuan osotasun eta hilezkortasun zoria zukeen gizakirik. Ikusia dugu zer esan nahi duen paradisuko kontakizunak: historian zehar eta, bereziki, historiaren buruan betetzen den Jainkoaren asmoa, alegia. Historiaren haseraz ezin esan dugu ezer.

Zer adiarazten dute, horrez gero, Jainkoaren madarikazioaren sinbolu horiek: astalarrek eta arantzek, erdiminak*, kopetako izerdiak, ezkon bizitzako tragediak (Gn 3,16-19)? Hauxe adiarazten dute: ezbehar hauk ez direla Jainkoaren asmoaren araberakoak*, ez direla azken asmoaren araberakoak; besterik ere adiarazten dute: mixeria horiek badutela bekatuarekin zerikusirik, alegia. Bekatuak txartu egiten du mundua (*410*). Alferkeria nagusitzean, astalarrez betetzen da soroa eta espondak edo ur-hesiak lehertu egiten dira. Gorrotoa sartzean, uria hondakin pilo bihurtzen da. Areago: mundua zama astun bihurtzen zaio gizadi bekatariari. Bere baitan erreta eta jota dagoenak, dena beltz ikusten du. Astalarra eta arantza gizakiaren bihotzean daude.

Bekatua eta herioa, barkapena eta bizia *(229-230)* 219

Heriotzeaz dugun ikuskera, bereziki, bekatuari loturik dago misteriozko loturaz. Liburu Sainduek, zenbait lekutan, lotura hori adiarazteko, bekatua dela bide sortu dela heriotzea munduan diote (*8-10*). Baina, munduaren hastapena gauza iluna zaigunez, gorputzezko heriotzearen hasera ere halaxe gertatzen zaigu (*212*). Aldiz, salbamendu historia haziz doan arabera nabari duguna, hauxe da: bekatuak bere eztena galdu duen une berean, heriotzeak galdu egin duela berea: Kristoren bizkundeak, barkapena ezezik betiko bizitza ere aldarrikatzen* du. Gizadiaren historiaren garaipena bekatuarekiko garaipen osoaz gain, heriotzearekiko izanen da. Munduan, bekatua norberaren gainetik kentzen ardura ledin

zindotasun: justizia, justice. **pizti harrapari:** animal rapaz, de proie. **astalarrik:** kardorik. **idurikatu:** bururatu. **erdiminak:** haurgintza minak. **araberakoak:** legekoak, berdinak. **aldarrikatzen:** oihukatzen, adiarazten.

edonork entzunen ditu Jesusek lapur onari zuzenduriko hitz hauk: «Gaur berton, nirekin izango zara paradisuan».

Birrerospena*

Aurreko kapituluetan gure mixeria agertu dugu. Oraingo honetan, gure salbamendua iragartzen da. Egia esan, askapen* hori aurrekoan ere barruntatzen* zen. Orain arte ikusi dugun guztia: Testamentu Zaharra, Nazareteko Jesus, Elizaren bizitza: dena, geldi-geldi bilbatzen* ari den eta guk sinesten dugun salbamendu handia da.

Baina kapitulu honetan salbamendua zertan datzan agertzen saiatuko* gara. Itzulinguru* handi bat emanez joango gara, kristautasunetik at gizakiak askapen bila egin dituen ahalegin berezienak ikusiz.

Gizakia larritasunaren eta hestuasunaren aurrean 220

Era batera ala bestera, denok sentitzen dugu bizitzaren larria. Zoriontsu garenean, zoriona galtzeko beldur gara. Zorigabeko bagara... ez dago zer esanik: «Garrantzizkoa ahal da, sendagile jauna?» edo, «txoratu egiten naiz harengan pentsatze hutsaz». «Inork ez nau inoiz maite izan». «Maite izan ote dut inor sekula?» «Nahasirik nabil beti». «Dena oker ateratzen zait». «Gaiztoa naiz». «Zergatik hil behar zuen, nik maite nuen bakarrak?» «Begira nolako mixeria!» «Berebilak* frena zezakeela pentsatze hutsak!».

Ez ahal dugu nork geure modua, larritasun, ezinegon eta kezkatik ateratzeko? Zuhurtasuna, lan gogorra, musika; gertatzen zaigun guztiaren egiazko mamia bila, edo ezertan ez pentsa: bakarrik, «bizi». Bada jarrera baikorrik, ikusmodu zoragarririk: baita, ordea, etsipenezkorik, derrigorrezko desengainuaren gogorra leuntzeko modukorik ere. Edo norberarentzat bizi, eta dena «gorde», zoriona zaintzeko asmoz, edota, aitzitik*, onbera izan, eta besteengana nork bere burua ireki... Zenbatu* ezin ahalako milaka jarrera desberdin: dena, gure giza izakeraren eskasiatik ateratzeko ahalegina.

Askapen prolema honi aterabiderik franko proposatu izan zaio munduan. Bada zenbait salbamendu bide nagusi. Horietan aurkitu du miloika gizakik nork bere tokia eta nork bere antsi sakonenentzako erantzuna. Berezienak, dudarik gabe,

birrerospen: redención, redemption. **askapen:** liberazio. **barruntatzen:** sumatzen. **bilbatzen:** mamitzen, biribiltzen. **saiatuko:** entseiatuko. **itzulinguru:** jirabira, inguru-bide. **berebilak:** autoak. **aitzitik:** ostera, kontrakoz. **zenbatu:** kontatu.

hinduismoa, budismoa eta islamismoa dira, eta Mendebaldeko humanismoa eta marxismoa, eta, azkenik, judaismoa eta Jesusen Eliza.

Horietako bakoitzaz mintzatuko gara apur batetan, bakoitzari galde hauxe zuzenduz: Gizakia oso-osorik salbatzeko gauza ahal zara, ala gure baitako alderdiren bat gelditzen ahal da ase gabe eta *halabeharrari* utzia?

Galde hori, Kristoren fededun garenez dagigu. Baina gure erantzunetan ez dugu kristau federa berariz* joko, erantzun kriteriotzat hori hartuz. Gure giza kondizioan oinarrituta erantzungo da. (Jakina, kristau balioez ukiturik ihardungo dugu: kristau izanik, ezin bait da bestela izan).

Hinduismoa eta Budismoa *(231-232)* 221

Liburu honen bigarren zatian eman dugu budismo eta hinduismoaren zenbait azalpen. Han aztertu genituen erlijio jarrera hauen sakontasuna eta aberastasuna. Biak dira salbamendu bide. Bien oinarrian dagoen esperientzia hauxe da: bizitza oinaze dela (Indiako giza taldeen mixeria gorriaren esperientzia). Baina ez da etsitzen mixeriaren aurrean, halabeharra bait litzan* hartuz. Aitzitik, kontenplazioaren, aszetismoaren edo «zortzi bideen» jirabiran askapena bilatzen da, eginahal kementsuz.

Baina, bestalde, biek daramate beren jarrera horretan halabeharraren* nola-halako ukitu txiki bat. Egia da zutik irauteko eta borrokatatik libro egoteko irakasten dutela; baina, ikusmolde bi horien arabera, mixeriak kendu ezineko fatalitate bezala jarraitzen du munduan. Gizaki garaienen bihotzetan, giza hestuasuna itotzen da noski, baina ez hala munduan. Mundua itxura huts bezala hartzen da. Hortik hain ahalegin eskasa mundua hobetzeko. Eta gizakiak espero duen (edo ez duen) betikotasuna, ez da maitasunean elkartzea, ez eta pertsonaren hedakuntza, nortasunaren desegitea baizik: Orobatasunean* galtzen delarik (*230*).

Hitz batean, edonori errespetua diolarik (indarkeriarik eza), hindutarrak eta budistak etsi egiten du mundu honetako mixeriaren aurrean, aurrerapen* ezaren aurrean; etsi, alegia, gizakiak maitasun pertsonalezko, ohartuzko bizitza betikorik ukanen* ez duelakoaren aurrean.

---

mendebalde: sartalde. **berariz:** nahita. **bait litzan:** balitz bezala. **halabeharra:** fatalitatea. **orobatasun:** el todo, le tout. **aurrerapen:** aitzinamendu. **ukanen:** edukiko, izanen.

Guztiz bestelakoa da islamismoaren pentsakera (*231*). Gizakiaren patua* lur honetan, islamismoaren arabera, ez da itxura huts. Urrikiz eta graziaz betetako norbaiten eskuetan datza; Ala-ren, Jainko bakarraren eskuetan. Jainko bizi eta kontzientziduna, guztiahaldun eta on da Ala. Guztiz bakarra da (bakartia, ez hirukoitza).

Guztia haren esku dago. Hau, kristautasunak irakasten duena bera da. Baina islamismoarentzat —kristau pentsakeran gertatzen ez dena— egia horrek zera esan nahi du: izadian diren gauzek ez dutela inolako autonomiarik. Islamismoaren teologia tradizionalaren arabera, Alak ez die inolako eragimenik (kausalitaterik) ezarri lur honetako berezko legeei, ez eta giza kontzientzian ageri diren on eta gaitzari buruzko legeei ere. Alak berak daramatza, ararterik* gabe eta bere apeta* osoz. Bihar, gauzak bestelakoak izatea nahi baleza hala izango lirateke. Ala-ren nahi hutsaren esku dago hori. Horregatik, bizitza morala ez dario giza kontzientziari; ararterik gabe eta soil-soilik Koran-ari baizik. Ez daiteke ere esan, musulmanak, ez bekatuaz ez graziaz zentzu bizirik duenik (*376*). Aurrez ongi erabakitako zenbait gauza bete: hori da guztia.

Lurrean bizi den gizakiarentzat, Jainko urrikiorra eta onbera sinesteak, poza adierazten du guztien gain. On den norbaitek zuzentzen du dena. Bizitza ez da dena itxura eta oinazea, budistentzat bezala.

Era honetan, islamismoak alaitasun giro bat sor dezake. Munduan, Ala aitortzera eraman dezaten zirikatzen ditu bere jarraitzaileak. Bizikera oso finak loratu izan dira islamismoaren baratzan.

Poz honek bere gailurra betikotasunaren agintzaz lortzen du: betikotasun hori lur honetako bizitzaren jarraiera idealizatu bezala erakusten da.

Halere, islamismoak ere badu halabeharraren* arrastorik. Islamismo izenak berak, «uztea» esan nahi du, eta uzte hori, guk halabeharra deituko genukeen punturaino eramaten du. Ez gizakiei, ez gauzei Alak autonomiarik ez damaiela uste izateak, nork bere zoria hobetzeko axolarik ez ukaitea dakar sarritan. Ala da aberatsa eta pobrea zuzendu ezezik, izaera horretan ezarri dituena: bata behartsu, bestea aberats. Horregatik, musulmanak, nola bere zoria, hala besterena, etsipenez hartu behar duela uste du, jasankortasun* osoz.

---

patua: zoria. **ararterik:** bitartekorik. **apeta:** nahikeria, arbitrariedad. **halabeharra:** fatalitatea. **jasankortasun:** pazientzia.

Ikusmodu honen arabera, Koran-ak —Bibliak ezbezala— gizarte bizitzarako arau konkretuak eta zehatzak ematen ditu. Hori da Alaren nahia. Leku txikia dago aurrerapenarentzat. Indiako erlijioek bezala, islamismoak ere ezer gutxi eragiten dio gizakiari lurreko atsekabezko eta oinazezko bizikera aldatzera.

Halaz guztiz, islamismoa aztertuz, galde hauxe egin genezake: Koran-ean ez ote dago aurrerapenaren oinarri teologiko izan litekeen zerbait? Musulman erresuma askotan dute aztergai galde hori gaurregun. Halaz guztiz, esan daiteke, gaurdainokoan islamismoak agertu duen Jainkoarekiko eta munduarekiko ikusmoldeak, nola-halako halabeharra eraman duela bere baitan.

Humanismoa *(231)* **223**

Azaldu ditugun indiar eta arabiar erlijio horiek, jarraitzailerik ez dute hemen jaiotakoen artean. Mendebaldean ludiari* buruzko ustea sakon erroturik dagoelako ote? Ala beste arrazoinen bat dago horretarako?

Nolanahi ere, kristau ez den filosofia bat sortu da Mendebaldean: mixeria eta oinazearen aurrean jarrera guztiz ezberdina duena: humanismoa. Talde bezala, humanismoak Jainkoaren esistentzia ez du, ez baieztatzen ez ukatzen; baina dudan jartzen du bizitza eraikitzeko Jainkoa oinarri egokia izan daitekeenik. Gizonak egin behar du gizadia on eta zorioneko. Halabeharrari eta mixeriari giza adimenak dituen ahalbide* guztiez eraso behar zaie: zientziaz eta teknikaz. Ez zaitez makur halabeharraren aurrera, musulmana bezala; ez ito zeure ekintzaren eta zeure maitasunaren haztea, hindutarrak eta budistak bezala. Zutik, eta ekin lanari. Badirudi, jarrera kementsu eta baikor honek, halabeharraren aurreko jasankortasun eta etsipen oro haizatu eginen duela.

Baina, humanismo jakintsu eta ekintzaile horren aurrean halabeharra tinko zutitzen da; esan daiteke, mendebaldeko erlijio horien jarraitzaileari baino goragotik begiratzen diola. Izan ere, gizonaren baitatik sortzen den deiari sogor* zaiolarik, norberaago izatera eta bizitzera hotsegiten dion deiari kasorik egiteke, humanistak hauxe irakasten bait du: gizakia gizaki beste ez dela... Betikotasunaren, maitasun osoaren, absolutuaren gogoa mozturik gelditzen da. Islamismoak, budismoak, «haruntzagoko» bideren bat bederen erakusten zuten;

ludia: mundua. **ahalbide:** indar, posibilitate. **sogor:** gor.

humanismoak ez du ezer jakin nahi ihespidea deritzaion horrekin.

Halaz guztiz, gizakiak, zergatik eta zertarako bizi den jakin nahi du (*1-17*). Batez ere, bizitza ederra eta ona denean. Bere burua hil nahi zuen bati atzera eraginez, gau osoa eztabaidan igaro zuen humanistak ere, halaxe. Goizean etxera itzuli zenean, nekatuta zegoen, baina zoriontsu: «Sentitu nuen, dio, norbaiti eskerrak eman beharra. Zuek Jainko deitzen duzuen horri ote?».

Humanistarentzat onaren prolemak zutik darrai. Nondik dator, eta nora doa ona? Heriotzearen desegitera? Unibertsu guztia apeta* hutsa ote da? Nork askatuko gaitu izakera honetatik? Berorrek damaigun baino gehiago eskatzen eta nahi du eta?

Gizakiari gizaki delako ohorea ezaguten dion humanismoak, gizaki huts izatera behartzen du. Gizakia da bere salbamenduaren neurri. Ez da beste itxaropenik: gizadia igoz joango omen delakoa bakar-bakarrik, baina gutako bakoitza etengabean* hilez goazelarik.

Marxismoa 224

Marxismoa, Mendebaldeko humanismoaren molde berezia da. Garbi-garbi, askapen teoria da (*231*). Badu zerikusirik teoria horretan Marxen gurasoak judutar jatorrikoak, hots, oraindik Salbatzailearen zain dagoen herrikoak izateak. Budari bezala, Marxi ere gizakien mixeriak eragiten dio. XIX. mendearen haseran sorturiko industri proletalgoaren mixeria aztoragarria eta lotsagarria izan zuen aztergai Marxek.

Marxek ez du bilatuko askapena, Budak bezala, ez nork bere baretasuna eta nortasuna lortzean, ez eta norbera Absolutuagan urtzean; ez eta geure giza zoria onartze hutsean ere, humanistak dagienez. Marxentzat salbamendua gauzen arteko ordena zehatz batetan datza: hain zuzen ere, gizakiaren eta horien eskulanaren fruituaren arteko jatorrizko harremanera itzultzean: «naturazko bizimoldean», gizakia bere lanaren jabe zen. Gizakia bera hasi zen lan honetan, bertan murgiltzeraino, nolabait esateko. Halaber, bere esku zuen haren gozamena eta erabilkuntza; horrela jabetzen zen bere buruaz. Hala, bere burua ez zion inori saltzen. Baina, kultura modernuan egoera berria sortu da, lan banaketaren eta mekanizazioaren ondorio bezala. Zenbait gizaki egundoko lan tresnaren jabe egiten da, eta beste askok laguntzen dio la-

apeta: capricho, caprice. **etengabean:** gelditu gabe.

nareu bidez, lan tresnei koipea ateratzen. Era honetara, kapitalista aberatsago egiten da. Bereak ditu berak egin ez dituen ondasunak. Ondasunekin nahasten du bere burua; bere buruaren hedapide* gertatzen zaizkio. Nolabait ere, bere burua gauza arrotz egiten zaio. Besterendu edo alienatu egin da.

Langile xurgatua* ere, besterendu egiten da; baina, gisa penagarriagoan. Bere burua bere eskulanean ezartzen du. Lan hori gordeko balu, bere burua gordeko luke. Baina besteri eman beharrean gertatzen da eta, ordainetan, eginiko lanaren balioa baino gutxiago jasotzen du. Horrela, langilea ere besterendu egiten da.

Egoera honetatik ihes egin beharra, xurgaturiko langileriagandik sortzen da. Haiengan daude salbamendua eta etorkizuna. Horien egoera eraman ezina bilakatzen da; izan ere, Marxek aldez aurretik dakusanez, aberats eta pobreen arteko aldea gero eta handiago gertatuko da... arik eta egunen batetan dena lehertu arte: proletalgoak agintea hartu, produzio tresnak sozializatu eta bere diktadura ezarriko duen arte.

Diktadura honi ametsetako gizartea darraikioke, jatorrizko bizimolde hura berriztuz*. Gizakiak bere eskulanaren gozapena* ukanen du. Jatorrizko izadi-gizakien arteko harremana berriztatu eginen da. Nork bere gogotara lan eginen du.

> «Komunista gizartean, nor bere gogoko arloan* ari daitekeenean eta inork arlo bereizirik beretzako bakarrik ez duenean, gizarteak erregulatuko du produzio orokorra eta honela posible egin neretzat, gaur honetan aritzea eta bihar beste horretan. Goizean ihizera joan naiteke, eguerdian arrantzara atera, arratsaldean abereak zain edo jana kritika, baina behin ere ihiztari edo arrantzale edo ganaduzale edo kritikalari izan gabe, gogoak ematen didan heinean ez bada» (KARL MARX, *Die deutsche Ideologie*, 1845).

Izatez nola izango litzatekeen gizarte hori, ez du esaten Marxek. Baina egunsenti berria argituko da. Gizakiak ez du galderik egingo, ez bizitzaz ez heriotzeaz, ez eta Jainkoaz ere. Ez da besterenduko honelako zirtzilkerietan* ihardunez. Pozik eta zoriontsu biziko da, pentsatu ere ez dezakegun eran. Gizaki berria izango da, ez gauzetan ez besterengan besterentzen ez delarik.

Jaiotze berri hori astinaldi baten antzera burutuko da, neketan. Proletalgoak mixeria gorriraino iritsi behako du, iraultza* horretara joko badu. Horregatik, hobekuntza dakarten legeen kontrako da marxismo radikala; beharrezko iraultza atzeratu besterik ez dute egiten eta. Aitzitik*, historiaren bideari bultza egin behar zaio, proletalgoari bere egoeraren

---

hedapide: hedatzeko modu. **xurgatua:** ustiatua, explotado. **berriztu:** berriz eskuratu. **gozapen:** disfrute. **arlo:** sail. **zirtzilkeria:** txikikeria. **iraultza:** erreboluzio. **aitzitik:** kontrakoz.

kontzientzia har araziz, iraultza oihukatuz, klase gorrotoa* biztuz.

Gizakiak gogoz onar dezake prozesu hau; baina, bidea bera ezinbestekoa* da. Gizadiaren eboluzioa bazter ezineko legeri loturik dabil. Arazoa ez datza hemen gizakiaren bekatuan edo ontasunean. Arazoa, historiaren esanahia ezagutzean datza. Proletarioa ez da ez besteak baino hobea, ez saindua; baina, salbamendua sortuko den tokian dago (*241*).

Berriro ere, kapitulu honen muin den galde hartara gatoz: Marxismoak aldarrikatzen duen salbamenduak gainditzen ahal du halabeharra?

Ikusi edo dugun materialismo historiko marxistak, hauxe eskaintzen du: 1) askatasunezko etorkizuna; 2) teoria liluragarria; eta 3) oraintxe berton ekiteko bidea. Gizakiak benetan eta egitez eraso diezaioke halabeharrari.

Baina, garaitzen ote da halabehar hori? Has gaitezen esan berri dugun honetatik: Gizakia, historiaren prozesuan kate maila bat besterik ez da; ez on eta ez txar. Determinismo honek gizakia historiako ajedrezean* peoi huts bihurtzen du. Norberaren berezitasuna orobatasunean* galtzen da. Bere pentsakerari atxekia zaion marxistarentzat «nerau»ak hauxe besterik ez du esan nahi: gizaki bat miloi gizakiren artean.

Egiteetan, horrek hauxe esan nahi du: peoia Orobatasunaren onerako opaldua* izan daitekeela (Ebanjeliozko jarrera ezbezalakoa da hori: nork bere burua Orobatasunaren onerako opaltzea). Ikusmodu larrierazlea da. Gizabanakoa* hain txikiesten duen gizarteak, hura sakrifikatzeraino doanak, bere burua hiltzen du. Horrela, inor ez da seguru. Historiak eska dezake norbait jo eta garbitzea. Histori bidea halabeharrezkoa da eta, marxismoaren arabera, inork ezin diezaioke *ihes egin*. Hemen ere, humanismoaren baieztapenak* zutik darrai: gizakia ez da gizaki beste. Nork aska lezake, horrez gero? Etorkizuneko gizarte ametsetakoak?

Hau egia bihur baledi ere, haiza* ahal lezake halabehar oro? Gizartea bikainago, eta heriotzea mingarriago litzateke. Eta heriotzearen ondoren zer? Iluna. Eta halere, beti aurrean litzateke galde hau: Nondik zorion hori? Zein da horren zentzua? Norengandik dugu? Alda ote liteke gizakia, horrelako galderik egin beharrik ez izateraino?

Holandako sozialista buruzagi handiak, Troelstra-k, honela idatzi zuen 1915ean:

---

gorrotoa: herra. **ezinbestekoa:** nahitanahiezkoa. **ajedreza:** jeu d'échecs. **orobatasuna:** el todo, le tout. **opaldua:** sacrificado, sacrifié. **gizabanakoa:** individuo, individu. **baieztapen:** afirmazio. **haiza:** haizatu, uxatu.

«Materialismo historikoak balio handia ukan lezake munduaren ikuspegi berri baten elementu bezala; baina baliozko mundu ikuskera izateko, oinarri meharregia* du eta metodua, berriz, alderdikoiegia*. Produzio moldeen aldaketek gizartean, Estatuetan, gizarte mailetan eta alderdietan ukan duten eragina argitu du, noski; baina, alde batetik, kosmo mailako fenomenuak eta ondorioak, eta, bestetik, gizakiaren sena eta premia sakonak, haren soziologi eremutik at gelditzen dira. Horregatik, giza arimaren joerak ase gabe uzten ditu materialismo historikoak; alderdi bakar batetik begiratzen dio gizakiari: gizarteko indarren baitan dagoenez, alegia. Erraz bultza lezake nola-halako halabeharretara: zenbait egintza zehatz *soziologi* bidez argitu besterik egiten ez delarik; giza kontzientziari harrigarri zaion zenbait gertaeraren «ezinbestekoa» ezagutzera (*Erkenntnis*) eraman lezake. Luzarora, ezin ase lezake gizonaren *erlijio* egarria».

Dudarik gabe, bada marxismoan erlijioaren antzeko ametsik. Judu-kristau Agerkundetik harturiko zenbait gai badu: etorkizun «sakratua», gauzen haserako egoerara bihurtuz; «sinetsi» egiten den mezua; «herri saindu» dela partidua; «orainaldi» hau «denboraren batasuna» dela; «salbatzaile pairakaria» (proletalgoa). Baina, gai horiei guztiei mami soziologikoa damaie Marxek. Eta ez da nabari* inon ere funtsezko eta hondo-hondoko galdekizunekiko erantzunik.

Gizaki askatua jainkotiar giroan 225

Ikus dezagun orain zer gertatzen den gizakiarekin Jainkoa bera agertzen zaionean. Guk, Jainkoa Jesusengan agertu dela sinesten dugu. Zein ondorio ekarri du agerkunde honek? Garaitu ahal du Jesusek gure giza zoriari darraikion halabeharra?

Jainkoa agertzen denean, gure aldegaitza* agertzen da. Jesusen zintzotasunak eta Aitari dion maitasunak itotzen gaituzten gerekoikeria eta hoztasuna ikus arazten dizkigute. Halabeharra bezala agertzen zaigunaren sustraiak* geure baitan ditugu. Horrela, Jainkoaren agerkundeak ematen digun lehenengo gauza, diagnostiko zuzena da. Kateaturik gaduzkan gaitza, ez da gure buruaz kanpokoa; ez da Ala-ren apetazko* erabakia, ez eta «Karma» gogorra ere[1], ez eta nolabaiteko «giza natura» ere, ez eta historiaren dialektika; horik guztiak kanpotik ezarriak izango genituzke. Ez, guztiok gara erantzule, guztiokiko erantzukizunez, bai, baina halere norberaren erantzukizunez: hona hemen bekatua (*376*). Gizakia ez da «patu» baten menpean utzia; ez da bera baino gorago nahiz beherago legokeen halabeharrari menperatua. Gizakia, bere egiteen bi-

1 *Karma*: egiteen saria eta jaiotzeen jarraipena arautzen duen legea (euskaratzailearen oharra, frantsesetik).

mehar: hestu. **alderdikoi:** parcial, partial. **nabari:** ageri. **aldegaitza:** gonbaratu ezina. **sustraiak:** zuztarrak, erroak. **apetazko:** nahikeriazko.

dez, tarte zabal batetan mugitzen da; gaurregunerako eta betirako dohatsu ala dohakabe egin dezaketen egiteen bidez mugitu ere. Bibliak arras haintzakotzat hartzen du gizakia: duintasunez eta erantzukizunez hornitua*. Adiera honetan, bekatua judu-kristau erlijioan bakarrik agertzen den irakatsia da. Liburu Sainduetatik at, zenbait barrundapen* hutsal besterik ez da ageri (*27*).

Geure aldetik ezin salbatua 226

Baina, erantzukizun horrekin batera, kristau fedeak, gizakia berez bakarrik ezin salba daitekeela dio (*281, 183, 211*).

Gure iturburu den Jainkoarekiko harremana etenik* gertatzen da bekatuaz, eta ezin jasozko zaigu Jainkoa gabe. Horra hor Agerkunde askatzailearen bigarren elementua: gizakia, bera bakarrik, ez da bere salbamenduaren neurria, humanismoak eta marxismoak diotenaren kontra. Ez batak ez besteak, ezin gaitzake libra gizaki huts izatetik. Baina, Jesusek —jaiotze berri, bekatuarekiko garaipen, Jainkoarekiko bizitza, heriotzearekiko askapena dakartzan Izpirituaren dohainez— geure ezinaren gainetik jasotzen gaitu.

Gure burruka bekatuaren eta mixeriaren kontra 227

Jainkoaren iharduketa honek ez digu kentzen ez geure erantzukizuna, ez eta geure burua hazi beharra. Aitzitik, iharduteko*, on izateko, maitatzeko, askatu egin gaitu. Geure gain datorkigu, bekatua, gaitza eta mixeria garaitzea, geure esku dugun ahalbide oroz. Gure Jainkoak ez du inolako halabeharrik onartzen. Ezin etsi dugu bekatuaren nahiz mixeriaren aurrean, errespetatu beharreko halabehar edo Jainkoaren nahia bait litzan. Hain zuzen, Jainkoaren nahia oker horik garaitzea da. Horra hor historian zehar aurreraka doan gizadiari ematen dion zeregina.

Kristaua ez dago humanista edo marxista baino behartugabeago lurraren aurrerapenaz axolatzera* (*180*). Jesusek irakatsi dion maitasunak eta ontasunak guztiak Jainkoagandik datozelako usteak, beste inori baino sustrai barrenagoak bota arazten dizkio kristauari lur honetan: kristauak, duen oroz eta den ainean erasotzen dio mixeriaren indarrari (*353, 361-364*).

Bai, egia da: egitez, kristautasuna, zenbait aldiz, mundu honetako zoriari buruz halabeharrari atxeki* izan zaio. Zeru-

hornitua: betea. **barrundapen:** susmo. **etenik:** hautsirik. **iharduteko:** ekiteko. **axolatzera:** *arduratzera*. **atxeki:** *lotu*.

ra begiratzeak, norberaren bekatuaren aurka ipini* izan du jendea askotan, giza mixeria erabat harturik garaitzera baino gehiago. Aipa dezagun zenbait protestante elkarte zorrotz —baina besterik ere izan da—: luzaroan halabeharrari jarraituz ihardun zena (txertorik* hartzen ez zuelarik, uholdearen aurka ezer ez zegielarik). Alditan nekez aditu* zen gizadia lurra lantzera deitua dagoela. Gaurregun, munduaren ezaguera zorrotzagoa dugularik eta eboluzio ideia sakondu* dugularik, hobekiago dakusagu, bai bekatuaren irakatsiak, bai maitasunarenak, bai erantzukizunarenak, «lurra menperatzera» eragiten digula, hau da, gizatar eta bizigarri bihurtzera. (Kristau kontzientziaren gain beste ideologia batzuek ukan duten zerikusiaz, aurrerago hitzegingo da).

Halere, ikusmodu hori ez da gauza berria. Kristau fedeak beti ukan du zeregin horren berri. Mundua gizakiaren eskuetan ezarri izan du, eta ez, giza nahimen askea* suntsi* lezaketen jainkoen nahiz izpirituen nahiz jainkotiar borondateren baten eskutan (*323*). Horrela, hertsaturiko* ahalmenak askatu egin ditu kristau fedeak. Hori bera egiztatzen duela uste dugu beste alderdi honek ere: naturaren menperatzea, hots, «natur zientziak» eta «teknika» deitzen ditugunak, hain zuzen ere, kristautasunak ukituriko mundu zati honetan gertatzea, ez da halabehar hutsa (*175*). Noiz edo noiz, zientziaren mugimenduaren kontra altxatu den kristaurik izan bada ere, fededunek nahiz fedegabeek sarritan ahantzi izan dute ahalegin hori kristau mundu ikuskeratik sortu dela.

«Nere burua jasotzen didazu» (Sal 3, 4) 228

Baina, zenbait kinka* larritan, aurrerapena asaldagarri* gertatzen zaigu. Bere umea ixtripuz* hilik esku artean dadukanaren aurrean, gogorra da gizadiaren aurrerapena aipatzea. Berbiztu ahal dezakezu haurtxo hori? Badakigu, irakabelarra* gariarekin bezala, aberekeria, gaitza eta molde berriko mixeria asko (gizonaren barnekoak eta psikikoak, adibidez) hazten direla aurrerapenarekin batera. Bada oinazerik eta bekaturik, munduko ahalegin eta aurrerapen guztiek erauzi* ezin dezaketenik: Kristoren berrionak libra ote gaitzazke halabehar horretatik?

Erantzuna hitz batez ematen zaigu (kristautasunaren lehenen eta aitzineneko erantzuna ikusi dugu): ez Budak ez

Ipini: ezarri. **txerto:** bakunazio. **aditu:** konprenitu. **sakondu:** barnatu. **askea:** libroa. **suntsi:** desegin. **hertsaturiko:** zapalduriko. **kinka:** egoera. **asaldagarria:** nahastegarri. **ixtripu:** ezbehar, accidente, accident. **iraka-belarra:** cizaña, ivraie. **erauzi:** kendu.

Mahomak ez Marxek ez eta beste inork egin ez duen zerbait egin zuen Jesusek: hilen artetik biztu zen. Hauxe da liburu honen mezua: Jesus bizi da (*136-140*). Bekatua eta heriotzea garaituak izan dira. Ixtripuz hildako haurra biziko da. Ez Orobatasunean* galdurik, nor beraren biziaz baizik, norberaren maitasunez arnasturik, Jainkoarekin eta gizakiekin elkarturik.

Berbiztuerarik gabe, gure fedeak esanahirik ez luke; biztuerarik gabe, urrikarrienak ginateke, gauzarik funtsezkoenean gezurtiak. Lurrean hasi dena, zeruko aintzan amaituko dela esan nahi du Jesusen berbizkundeak (*254*).

Jesusen heriotzeaz salbatuak 229

Baina[33], oraino ez dugu guztia esan. Kristoren berbizkundeaz bakarrik ez baino haren heriotzeaz ere salbatuak izan garela esaten du Berrionak. Atseginbide berria dugu hori gure oinazetarako eta herio larritasunerako. Baina, nola adi inoren heriotzeak salba dezakeelakoa?

Jainkoak giza bizitza bat sortu zuen: Bere Semearen bizitza. Kreazioari ezarritako helburua bere biziera arruntaz eta arras zerbitzuzkoaz burutuko zuen bizitza hori; Jainkoaren irudi denaren bizitza zen: Semearen bizitza (*52-54*). Maitasunik gabeko mundu honetan, maitasuna izan zen (*119-120*).

Maitasunezko eginpide* hori gogorra zen. Jesusen bizitzak erakusten digu zein gogorra izan zitzaion. Mundu oker honetan, zuzen bizi behar izan zuen; gizarte lepagogorrean, meneko* behar izan zuen; mundu berekoian*, maitasuna izan behar zuen.

Hainbesteraino* zen hori ezinezko, non hil egin bait zuten. Zorakeriaren zorakeria, gaitzaren gaitza izan zen. Eliza haseratik saiatu zen Itun Zaharreko hitzez hori adiarazten. Hor daude bigarren Isaiagan (Deutero-Isaiagan), Jahveren zerbitzariaren abestiak (Is 42,1-9; 49,1-6; 50,4-11; 52,13; 53,12). Abesti hauetan, huts gertatu den bizitza aipatzen zaigu, gero zorion eta ontasun iturri gertatua.

> «Oinaze gizona, eta atsekabearen berri dakiena,
> aurrean ikusitakoan aurpegia bestaldera itzuliz uzten dena,
> mespretxatua, inoren estimaziorik gabea.
> Eta bitartean gure oinaze denak hartu zituen bere gain...
> Zigortutzat eduki genuen guk...
> Gure bekatuengatik zauritu zuten...

33 Ik. *Eraskina*: «Baina oraino...» 538 or.

orobatasuna: el todo, le tout. **eginpide:** betebehar. **meneko:** menpeko. **berekoi:** egoísta. **hainbesteraino ... non:** tan ... que, si ... que.

> Ardi eiratuen gisa genbiltzan denok galduta,
> bakoitza bere bideari jarraitzen zitzaiola.
> Jahvek, berriz, horri gaineratu dizkio
> gu guztion gaiztakeriak.
> ... Oinazearen oinazez leher egin arazi nahi izan zion Jahvek.
> Bekatuaren ordainetan bere bizia ematen baldin bazuen...
> (Is 53,3-6. 10).

Ez dakigu zein pertsonaia historikoz mintzo diren oinaze errugabe eta emankorrari* buruzko poema hauk. Baina, adiarazten dutena, Jesusen heriotze-bizkundean bete zen bete-betean, eta lehenik. Jainkoaren asmo-bidean Kristoren heriotzeari leku bat zegokiola ulertzeko, lagungarri gertatu zitzaizkien apostoluei.

Baina, nolatan salba gaitzakete inoren heriotzeak, oinazeak eta nekeak?

Kontzetu guztiak gainditzen dituen misterio baten aurrean gaude: gure bihotzetan halako oihartzun sakon bat ernetzen badu ere. Geldi gaitezen puntu honetan, beroni dagokionez, askotan oso-osoak ez diren ideietan haziak izan gara eta gutako batzu.

Erdi Aroan eta askoz geroago ere (inoiz, gaurko predikutan ere), *ordainketa* alderdia hartu da gogoan, batez ere: Jesusen heriotzea, ordain opari izango zen. Aita iraindua* izan zen, lege ordena puskatua; beraz, zigorra zor zen. Zigor hori Semearen gain etorri zen. Eta horra hor ordena berriztaturik.

Ikusmolde hori zuzenbide* ideia hestu batetik zetorren, guk gaur onartzen ez dugunetik. Erdi Aroko ikusmoldea zen: makurkeriak edo bekatuak legezko ordena urratu egiten duela, eta zigorrak eta nekeak berrizta dezaketela ordena hori. Gu ere, sarritan, uste horretan gabiltza. Zerbait oker egin duenak, hala dio: «Zigor nazazu, ondo merezia dut eta». Guk, ordea, egungo gizakiok, errua eta gaitza modu pertsonalagoan hartzen ditugu gehienetan. Sumindua eta iraindua, ez da legezko ordena, norbait baizik. Beraz, ordainketa ez da egiten oinaze eta zigorraren bitartez, barkapena eskatuz baizik, eginkizun baikor eta maitasunaren bitartez baizik (*380*).

Biblia ere, bide honetatik doa. Jesusek dakarren askapena ez datza, Bibliaren arabera, lege ordena berritzeko jasaiten dituen nekeetan; gure barkapen bide gertatzen diren Haren zerbitzu-eskaintzan eta bizitza zintzoan baizik. Aitak ez zuen oinazerik eta heriotzerik nahi, giza bizitza on eta bikaina baizik. Bizitza hori, izatez, gurutzeko heriotzean amaitu* izana, gure errua izan da. Jesusek ez du atzera egin etorkizun beltz horren aurrean. Bere heriotzea, obedientzia goreneko bihurtu du. Horrela merezi izan du guretzat barkapena. Alde horretatik esan genezake Haren heriotzea Aitaren nahia izan dela. Zergatik oinazea eta heriotzea, misterio handia da, inongo

---

emankor: fecundo, fécond. **iraindua:** ofentsatua. **zuzenbide:** justizia. **amaitu:** burutu.

gizakik erabat araka* ez lezakeen bezalakoa. Baina, ez ginateke zuzen izango, «Aitak odola isurtzen ikusi nahi zuela» esango bagenu (*219*).

Itun Berriak, esaera bat baino gehiago erabiltzen du erospena adiarazteko. Berezienak hautxek dira: birrerospena, adiskidetzea, justizia, odola, bekatua. Sarritan, legezko ordena odolez berriztatze bezala aditu izan dira. Baina, hori ote adiarazten dutena? Ikus ditzagun banaka.

Jesusek *birrerosi* egin gaitu bere heriotzearen bitartez (*120*). Hitz honek Jainkoak Israel Egiptotik nola *birrerosi* zuen adiarazten digu Baina han ez zen *ordain saririk* eman. «Birrerospen» hitzak, herria berriz ere «Jainkoaren herri» egiten dela esan nahi du. Beste horrenbeste esan behar da Jesusen heriotzeaz ere. Jainkoaren seme-alaba bilakarazten* bait du berriro. Elkargoa* berriztatu egiten da.

Esan ohi da ere, Jesusen heriotzean Jainkoarekiko *adiskidetasun*-era bihurtzen garela. Azter dezagun arretaz esaera hori. Ez da esaten Jainkoa *gurekin* adiskidetzen denik. Arazoa ez datza, Jainko haserretua gurekin adiskidetzean, gizaki bihurria *Jainkoarekin* adiskidetzean baizik. Hemen ere, arazoa elkargoa berriztatzea da.

Berriztatze hori, Jainkoaren *justiziaz* egiten da. Justizia hori, alabaina, ez da, norbaiti buruak eman liezaiokeenez, burdin justizia, hondo-hondorainoko zigorra eska lezakeena; Jainkoaren indar kreatzailea da, gu on eta zuzen egiten gaituena.

Odolaz ere hitzegiten da. Entzun ditzagun Azken Afariko hitzak:

> «Hauxe bait da nire odola, elkargoko odola, bekatuak barkatzeko askorengatik isuria izango dena» (Mt 26,28).

«Odol» hitza garrantzitsua da Jesusen egintza aditu ahal izateko. Sinai-ko elkargoaren odola gogorazten du (*27*): oparigaia Jahveri eskaintzen zitzaion bitartekoan, ordudanik Jainkoarena zen odola herriaren gain isurtzen zen (*127, 272*). Odola, Jainkoak Israeli eginiko dohaina da; Israelek eta Jainkoak odol bat bera, bizitza bat bera. Odol senidegoa*, ia-ia «odolkidegoa*» esango litzateke.

Honela, Jesusen odola, Jainkoari eginiko dohaina baino areago, Jainkoaren dohain da. Jesusek ez dio bere odola zigor eske legokeen Aita bati ematen; guri baizik. Jainkoaren odola gure odol da. Batuta gaude. «Elkargo berria ene odoletan...».

Azkenik, *bekatu* hitza agertzen da Pauloren testu honetan:

---

araka: arakatu, aztertu. **bilakarazten:** bihur arazten. **Elkargoa:** Ituna, Aliantza. **senidegoa:** senidetza, haurridegoa. **odolkidegoa:** consanguinidad, consanguinité.

«Bekaturik ezagutu ez zuena, bekatu egin zuen gugatik, horren bidez gu Jainkoaren zintzotasun bihur gintezen» (2 Kor 5,21).

Testuinguru nahasi honetan ere, ez da esaten, Jainkoak Jesus bekatari «balitz bezala» diharduenik, haren gain zigorra erortzen utziz. Aitzitik*, testu honek hauxe esan nahi du: Jesus, bekatuaz eta heriotzeaz markaturiko gure mundu honetan erabat murgildu* dela. Mundu honen puska bilakatu dela, hor berton bere saindutasuna (bere zuzentasuna) guri ematearren. Egurretik urkaturiko gizon madarikatu bilakatzeraino heldu da, gure bekatuari zegokion madarikazioa haizatzearren*.

Esaera guztiok Jesusen obedientzia adiarazten digute, heriotzeraino zerbitzeko haren prestaera. Ez dute esan nahi, gure ordez zigortua izateko, Aitak Kristoren oinazeen beharrik zuenik. Jainkoak behar zuena, Kristoren bizia zen: gure izeneko maitasun bezala.

Baina, mundu gorbizi* honetan maitasunez bizi nahi duenak ezinarekin egiten du topo*. Horixe da misterio handia: Jainkoaren erreinuak, nahiz guk guztiok, gizakiok, Jainkoa heriotzera galdu, bere bidea egin du. Ez Kristok, ez honen Aitak, ez dute etsi. Bekatu handienari maitasun handiena dario. Jesusen heriotzeak salbatu gaitu.

Horregatik gure uste hau: heriotzea eta zoritxarra ez direla azken hitza, ez direla halabehar iluna, alegia. Ez. Jainkoa horretatik bizia ateratzeko gauza dela adiarazten bait digu. Kristauaren eginkizuna, ahal duen heinean lan egitea eta itxarotea da. Esperantza hau ematen bait zaio: berak ezer ezin lezakeenean ere, herioan eta ezinean bertan ere, Jaunarekiko elkartasuna dela bide, bizia ematen eta hartzen dela.

Laburpena 230

Esan dezagun hitz bitan Jaunak nola salbatu gaituen. Jesusek errotik harrapatzen du gaitza, bekatutik. Eta hori, bere obedientzia heriotzeraino eramateko prest dagoelako egiten du. «Haren zauriek sendatu gaituzte». *Bada* gizon bat ona lurrean. Haren izpirituak guregan luzatu nahi du ontasun hori. Jaiotze berri baten hasikina* burutzen du gizakiarengan. Horrela, gizadia bekatuaren eta mixeriaren kontra burrukan ipintzen du.

Denbora berean, gizaki huts izan beharretik askatzen gaitu. Pottegitea* bera ere ez da aurrerantzean bakarka erama-

aitzitik: kontrakoz. **murgildu:** sartu. **haizatzearren:** uxatzearren. **gorbizi:** rebelde, rebell. **topo:** buruz buru. **hasikina:** hasera, primicia, prémice. **pottegite:** fracaso, échec.

tekoa. Gure Jaun eta gure anaia Kristorekin «murgilduak» garela esan nahi bait du. Oinazea ez da gauza erraz eta ezti bilakatzen; baina, ez da aurrerantzean halabehar bat (*254*). Ahal den neurri osoan kontra egin behar diogu; besterik ezin denean, badakigu oinaze hori erosle dela, salbagarri dela. Indar hori eman dio Jesusek, berak alderik alde jasan duelarik.

Buda-ren irudi bat arretaz aztertu (aurpegi baretasunari oinazerik eza dario), eta bapatean gurutziltzatuaren irudiaren aurrean aurkitzean, agian bigarren hau ezagunago zaizula konturatuko zara: Gizon arrunt baten oinazegailuan* iltzeturik eta oinazez. Neketan dago, hil egiten da. Hori da guk sinesten dugun erospena. Salbatzaileak ez dio ihes egiten *oinazeari aszesiaren bidetik*. Bete-betean *bizi izanez maitasun* iturri bihurtu zuen. Gurutzea saindu bihurtzen du: heriotze ilunetik biztu denak besoak zabal-zabal irekitzen ditu. Berbizkundea, Jesusek halabeharra* garaitu duelakoaren baieztapena da. Berbizkundeaz, santa sekula gizadiak ezagutu duen goreneko sinbolurik jainkozkoena bihurtu da gurutzea. Gurutzeak biziaren erabateko hedakuntza adiarazten du, maitasuna adiarazten du.

Gutariko bakoitza ez da heriotzean galtzen, humanismoak eta marxismoak erakusten duten bezala. Ez gara Orobatasunaren* zurrunbiloan galduko, hinduismoak eta budismoak pentsatu nahi duten bezala. Ez dugu ere eramango lurtar antzeko betiko bizitzarik Jainkoagandik aldendurik, islamismoak nahi lukeen bezala. Aitzitik, oso-osorik guztientzat izanen gara, eta oso-osorik Jainkoarentzat, elkar-maitasunean.

Azkeneko kapituluan, agintza hori Jainkoaren baitako maitasun hirukoitzari nolatan loturik dagoen adiarazten saiatuko gara (*414-417*).

Beste salbamendu bideek beren buruez gainetik ematen dutena, Kristoren egintzatzat hartu behar ote? 231

Oraino ezin hetsi* dugu kapitulu hau. Zerbait esan behar dugu beste erlijio eta salbamen bideei buruz. Berorien irakaspen oinarriak aipatu ditugu, baina bada zerbait gehiago horietan. Beren oinarrizko printzipioekin, munduaz damaiguten azalpenarekin bateratzen zaila den argirik badute honetaz. Liburu honen bigarren zatian ohar arazi dugu hori; labur-labur berriro ukitu nahi genuke arazo hori.

Kristau aroaren haseran arnasa berri bat nabari da hinduismoan, aspaldi samarretik gertutzen ari zena. Jainkoaz

oinazegailu: instrumento de tormento, instrument de torture. **halabeharra:** patua. **baieztapen:** afirmazio, gonfirmapen. **orobatasuna:** el todo, le tout. **hertsi:** itxi.

irudipen zehazgabea* eta askotarikoa* duen erlijio hau, sarritan Jainko bakar baten federa heltzen da. Vishnu eta Shiva, Jainkoaren pertsonifikazio dira, bakoitza leku ezberdinean, Jainko bakar bezala gurtuak direnak.

Hau ez doa oraindik hinduismoaren oinarrizko ikusmoldearen kontra; baina, Jainko bakarraganako eta Jainko bakarragandiko maitasun pertsonalak bihotza biztuko duelakoaz, zer esan? *Bhagavad Civa* poema sonatuk maitasun hori abesten du: munduan dena —gizonaren «nerau» delakoa bera ere bai— lilurapen huts delako ideia maitasun horrekin nola josi, ez da garbi ageri. Maitasun hori ezin esplika daiteke ere, bakoitzaren nortasuna Orobatasunean galtzea eta horrekin nahastea balitz bezala. Ez. Poema bikain horietan, elkarganatzea nabari da. Entzun zer diotsan Tukaram-ek (XVII. mendean) Vishnu-ri:

> «Zuk eskutik eta arrisku gabe naramazu,
> edonon zaude eta, nere ondoan zu.
> Noranahi noalarik ere, zuri heltzen dizut,
> zuk daramazu eta nire zama astuna...
> Itxaropen berria damaidazu hala,
> eta banaramazu mundu berri batetara,
> eta han gizon bakoitzeko adiskide berri bat dazagut,
> eta aurkitzen dudan edonor dut senide.
> Ume zoriontsu bat bezala, ene Jainko, jostatzen dihardut
> zure mundu maitean.
> Horregatik dio orain berriz ere Tukak:
> Edonoraino hedatzen da zure ontasuna».

Alaitasun eta maitasunezko jarrera honek, hinduismoaren printzipioetatik atera ez litekeen horrek, aurki lezake oinarririk Jesusen mezuan. Ezin esan ote dezakegu, Jesusen izpiritua ari dela hor ere nolarebait?

Budismoan ere ikusten da aldaketarik, bide egin ahala. Zein ote da gero salbamendu bide horren helburua? Ez ote, gizakia bere desira* guztitik, hainbat sufriarazten duen maitasunetik ere askatzea? Onginahia on da, dio budismoak, patxara* dakar. Baina, besteren ardura ukaiteak, beste hori dena delako, nirvana-ra heltzea galerazten du.

Halere, Mahayana-ren budismoak (*Gurdi Handiak*) ongi irakasten du besteekiko axola.

Gizon bikaina, aszeta bakartia ez baino predikatu eta besteri bère burua eskaintzen dion *Boddhisattva* da. Boddhisattva hauek benetan nahi dute besteren salbamendua. Nirvana-ra heltzearren, gogo hori ito eta itzali ordez, besteren maitasunaz, gauza itxurati eta badaezpadakoetan murgiltzen dira. Jarrera honek Buda-ren irakatsiak oinarri ez lezakeen bezalako maitasuna adiarazten du. Ez ote horren giltza Jesu-

---

zehazgabea: indeterminado, indéterminé. **askotarikoa:** complejo, complex. **desira:** irrika. **patxara:** trankiltasuna.

sen mezuan: maitasuna norbaitzuen arteko elkarte bezala, Jainkoaren eta gizakiaren arteko harreman bezala, eta gizakien arteko harreman bezala adiarazten duelarik?

Harrigarria da islamismoan maitasuna nola sortu den. Egia da, Koran-ean bertso bakar batzu badirela Jainkoaren eta gizakiaren arteko maitasunaz; baina obedientziazko maitasuna da, ez da elkartasunezkoa edo komuniozkoa. Honelako elkartasunezko maitasunarentzat, ez da oinarririk islamismoan. Jainkoa, horretan atxeki-ezin Hori da.

Baina laster, Erdi Aroan, zenbait jarraitzaile handiren bidez, maitasunaren mistika sartzen da islamismora ere (*354-356*). Al Hallaj-ek, esaterako: bere irakatsiengatik 922an torturatua zelarik, eta hil zorian, bere borreroen alde otoitz zegien. Honako poema hau utzi digu:

> «Ni naiz maite dudan (Jainko) hura,
> nik maite dudan hura, ni da;
> gorputz batean bizi diren bi arima gara;
> ni ikusten banauzue, hura ikusten duzue,
> eta hura ikusten baduzue, biok ikusten gaituzue».

Islamismoaren handi hauek Kristorengana jotzen dute. Bestalde, Cairo-ko islamdar unibertsitateko aldizkariak, 1953-an oraino, islamdar mistikarik ez dagoela baieztatzen* zuen. Islamismoaren irakatsiek ezin dezakete oinarri maitasunaren mistikarik. Gure ustez, Kristoren mezuak badezake, ordea.

Ez ditzagun txikiets* humanismoan eta marxismoan nabari diren kristau balioak, batez ere. Ez dago urrunera jo beharrik, humanismoaren kristau elementuak aurkitzeko. Sarritan modu harrigarrian agertzen dira. Baina, humanismoak berak ezin eman dezake hondo-hondoko arrazoinik. Humanismoaren baitako onari buruzko prolema aipatua dugu, bestetan oinarri egokirik aurki ez dezakeenik.

Marxisten artean, eta hauen teorien kontra, joera hau nabari da jaiotzen: Gizona, zapaldua batez ere, berezko balioz horniturik ikustekoa da, baliodun bezala gizadia bakarrik hartuz, ordea, eta gizabanakoa gizadi horren puska huts bezala. Ez ote genezake hor Izpiritua ikus: bere lepoan ardi bakar preziatua eramatekotan laurogei eta hemeretziak basoan utzi zituenaren Izpiritua, alegia?

Labur esateko, kristautasunetik at dauden erlijio eta filosofietan bada elementurik hari egiaz arrotz zaionik, baina, aldiz*, Kristoren izpirituari oso-osorik dagokionik ere bai.

---

baieztatu: afirmar, affirmer. **txikiets:** txikietsi, txikitzat hartu. **aldiz:** bestalde.

Kristau ez direnak kristauon «ebanjelari» **232**

Baina hori ez da guztia. Badirudi, Kristoren egia eginkor* dela halako edo bestelako filosofiaren nahiz erlijio ezkristauaren muinean bertan (*180*). Sarritan horiek alderdi batzu bizi ohi dituzte bakarrik; baina, batzutan guk baino biziago ere bai, gu lotsarazteko* moduan (*286*). Aipa dezagun, adibidez, hindutarren nork bere burua osorik eskaintzea, budistaren onberatasuna, musulmanaren Jainkoarekiko atxekimendua, humanistak lurreko gauzez duen axola, marxistaren zuzentasun grina eta gizarteko aurrerapenari buruzko axola.

Esan genezake, kristau ez direnek, guri kristauoi, Ebanjeliozko egiaren puskak ipintzen dizkigutela begi aurrean, nolarebait ere. Horregatik esaten dugu gure ebanjelari gertatzen direla!

Melkisedek, Kanaan-go giro politeistan, «Goi-goiko Jainkoa»ren apaiz jentil zena, munduan Jainkoaren eta gizakiarentzat bide onaren bila dabiltzanen eredu izan zitekeen.

Jainkoa da hautatzen gaituena **233**

Galde bat, amaitu* aurretik: Nondik nora Mediterraneo hegiko* eta Europako lurraldeak kristau agerkundea hartzen lehenengoak izatea, eta hain luzaroan haren jabe bakarrak izatea?

Hau ere galdegin genezake: Nondik nora merezi izan du Abrahan-ek lehenik deitua izatea? Zer dela eta, judutarrak herri hautatua? Erantzuna beti berdina da: Jainkoak maitasunez hautatu duelako. Baina, salbamendua *guztientzat* dela jakin behar dugu (*194*). *Elizari* emana ezezik, *Elizaren bidez* ematen da. Kristauak «mendi tontorrean eraikitako herri» izatera deituak dira; eta, horrela, eramanpen handiz hauxe adiaraztera: halabeharra* ezabatu* nahi dutenen, oso-osorik salbatuak izan nahi dutenen, garbi-garbi izan nahi dutenen, azken hitza eta bihotza maitasuna izatea nahi dutenen hondo-hondoko eta goreneko irrika Jesusek bakarrik bete dezakeela (*235*).

Bizia oparo* ukan dezatela

Maitasuna ezaguarazten diguna misterio sakratuz beterikoa da, baina ez da gauza korapilatsua (*374-375*). Horrela aitak eta amak beren haurtxoa arratsean azkenekoz estaltzean:

eginkor: eficaz, efficace. **lotsarazteko:** ahalgetzeko. **amaitu:** burutu. **hegi:** ertz. **halabeharra:** patua, derrigorra. **ezabatu:** guztiz desegin. **oparo:** nasai, ugari.

misterioz beterik dakusate; halere, hurbil eta nabasi* zaie. Orobat* haurtxoarentzat ere. Gurasoek honentzat alderdi ezezagun asko dutelarik ere, ez zaizkio arrotz, hurbileko baizik.

Adibide hau ondoren datozen kapituluen buruan ematen badugu, Jainkoaren atxekiezineko* dohainaz ematen ditugun orrialdeak nahasiegi gerta ez daitezen da. Izan ere, Jainkoaren Izpirituaz, mugagabeki xalo* den horretaz mintzo bait dira: nahasketa ez baino berotasuna isurtzen duen horretaz (*140-150*).

Grazia 234

Jainkoak bere izpiritua opa* digu. Nahi horrek gizadiaren aurrerabide osoan zehar dihardu. Batez ere, Israelgo historian agertzen da; baina Jesusengan agertzen da bete-betean: gu bezala gizaki izanez, bere bizia eta bere Izpiritua eman dituenagan (*132-137*).

Dohain horren aberastasuna Izkribu Sainduetan eta Tradizioan, hanitz hitzez adiarazi izan da; denak zera berberari dagozkio: jainkozko bizia hartzen dugu. Jainkoaren haurride* gara. Kristorengan gaude, Jainkoa guregan bizi da. Kristoren Gorputzaren atal gara, grazia hartzen dugu. Horrela adiarazten da beti, aldioro aurpegi diferentez, Izpiritu Sainduaren presentzia guregan.

Azter dezagun bereziki hitz horietako bat: *grazia.* Erlijio irakaskintzan honela bereizi ohi zen maiz*: batetik, grazia saindutzailea (graziazko bizitza), eta bestetik, grazia laguntzailea (egite bakoitzerako emaniko grazia). Bereizkuntza horri eutsi* nahi izanez gero, grazia bat bera eta bakarra dela kontutan hartu beharko da: Izpiritu bat beraren eta bakarraren presentzia.

Guregana datorren Izpiritua, bizirik da. Horrez gero, ez da zuzena, graziaz gauza inpertsonal bat bait litzan mintzatzea; neur daitekeen gauza bezala: Jainkoaren dohaina —barkagarri bedi esaera— ikusezineko eta berezgaindiko* isurkairen* bat balitz bezala, edota Elizkide izateko txartela edo agiria balitz bezala. Hona zertan datzan grazia: Jesusen eta Aitaren Izpirituaz ezagutua eta berotua izatean.

«Grazia eta bakea zuoi». Agur honetaz hasten dira Itun Berriko gutun gehienak. Berrionean ezagutzen dugun idatziriko esaera zaharrena dugu hauxe: *Gratia vobis eta pax* (1 Ts 1,1).

---

nabasi: barnekoi. **orobat:** berdin. **atxekiezineko:** heldu-ezineko. **xalo:** sinple. **opa:** desiratzen. **haurride:** senide. **maiz:** sarritan, ardura. **eutsi:** atxeki. **berezgaindiko:** sobrenatural, surnaturel. **isurkai:** líquido, liquide.

Liburu Sainduen hizkuntzetan (grezieran eta heberkeran) grazia hitzak adiera ñabar asko du. Esan dezagun lehenik, gure bekatuei Jainkoak damaien erantzuna adiarazten duela: urrikalpena* da, barkapena (*grazia eman*) (*380*).

Une berean, Jainkoaren urririko* dohaina dela adiarazten du; Jainkoak hartu digula aurrea («gratis» = *urririk*).

Azkenik, grazia hitzak hauxe adiarazten du: eder eta on eta maitagarri egin gaituela Jainkoak (*maitagarria*) (*243, 236*).

«Grazia, urririk, maitagarria»: hona hemen grazia hitzaren hiru esanahi, egunoroko bizitzako hiru alorri banan dagozkienak: *grazia edo barkapena*, legebideari; *urririk* esanahia, salerosketa alorrari; *maitagarri* esanahia, gizarte bizitzari. *Grazia* hitzaz, beraz, Jainkoak guretzat egin nahi duen guztia adiarazi nahi litzateke. Hiru adiera horik, berariz* emanak aurki litzake kristauak Testamentu Berrian, Paulo sainduaren epistoletan batipat. Esker beroz, hauxe aldarrikatzen* du, etengabean*, Apostoluak, kristau herriari buruz: 1) bekatutik askatuak garela, 2) gure aldeko merezimendurik gabe, eta 3) horrela, berri eta garbi bilakatu garela. Hori guztia, gartsuki jaulkitzen* du beti ere gaur-gaurko den Erromatarrei eginiko epistolaren zati honetan: lehen zortzi kapituluetan, alegia.

Ez dugu gauza hoberik irakurlearentzat, Epistola horretara bideratzea baino.

Non aurki grazia? 235

Grazia ez da soilki guregan dagoen dohaina, barne-dohaina. Aitzitik, bizitza osoaren matazan* xertatzen* da.

Har dezagun adibide hau: nire emazteak duen grazia, neri grazia gerta dakidake. Hala, grazia izanen litzateke niretzat nire emazte hori, Jainkoaren urririko* maitasun salbatzailearen keinu eta dohain. Edota, beste hau: gurasoak grazia dira niretzat. Horregatik, ez da guztiz zuzena, noiz edo noiz entzun ohi den esaera hau: «Jainkoaren hurrena, neure gurasoei zor diet gehiena». Jainkoa ez da, ez nire gurasoan aurretik, ez albotik. Haien bidez dator, bada, Jainkoaren Izpiritua niregana. Horrelako zerbait adiarazteko, hobe litzateke zera edo esatea: nire gurasoak benetako grazia dira niretzat.

Baina, gizakia ezezik, gauza eta gertaera bat ere gerta dakidake graziaren bide. Diren guztien bidez ihardun daiteke Jainkoaren salbamendua. Bere baitan Izpiritua duenak bere inguruan adiskide beza-

urrikalpena: errukia. **urririko:** debaldeko, dohaneko. **berariz:** espreski, nahita. **aldarrikatzen:** iragartzen, oihukatzen, jakinarazten. **etengabean:** gelditu gabe. **jaulkitzen:** agertzen. **mataza:** trama, trame. **xertatzen:** sartzen.

la topatzen* du. «Badakigu, Jainkoak, bera maite dutenei, beren onerako zuzentzen dizkiela gauza guztiak» (Erm 8,28). Kreazioan on den ezer ez da Kristoren indarretik at gelditzen (*1-41*).

Izpirituaren bide berezia, alabaina*, beste gizakiengan zehar doa (*4, 186, 216*). Bai. Areago oraino: Izpiritua, beti taldean, batera ematen zaigu. Egiaren kontrako norberekoikeria* litzateke, Izpiritu Saindua bakoitzari banaka ematen zaigula uste izatea (*236, 245, 255, 264*). Guztiok batera Izpiritu bat bera dugu. Izpirituak lotu egiten gaitu, batera egon arazten, «Eliza» bilakarazten; Izpirituaz, «Kristorengan» gara; anai-arreba bihurtzen gaitu graziak (*308, 356, 381*). «Bat» izateko jaten dugu batera ogi bera. Fededunok elkartearekin biziz ukan dezakegu Jainkoaren bizia. Beste inola ere ez.

Ageriko Elizatik kanpora ere, oraino Kristo sinesten ez delarik Izpirituak diharduenekoan ere (hots, bere kontzientziaren arabera bizi denarengan, Jainkoarekiko irekitasunean), ezin daiteke gerta gizaki bakartiak eginiko barne-esperientzia hutsik. Hor ere, Izpiritua elkarrekiko maitasuna sendotzen ari da (*194*).

Hurrengo kapituluetan, graziak guregan sortzen duen oinarrizko jarrera* agertuko dugu. Baina ez gatzaizkio jarraituko Mendekosteri buruzko kapituluan aztertu dugun Galaziarren epistolako 5. kapituluari; Korintotarren lehenengo epistolako 13. kapituluaren sailketa gogozkoago zaigu; hau, kristau pentsakeran arras erroturik bait dago. Horrez gero, honetaz mintzatuko gara: fedeaz, itxaropenaz, maitasun edo karitateaz.

Fedea (*93-96; 184-186*)

Sinestea. Zer den eta zer ez 236

Maitasunaz baino sarritanago mintzatzen da Jesus fedeaz. Fedea gu baino handiago denari gure izate osoa ematera garamatzan Izpiritu Sainduaren dohaina dugu, eta haren mezua onestera* garamatzana (*95*). Fedea ez da arrazoinketa lan hutsa; hori, fedea ez baino egiztapen hotza litzateke (*374-375*). Fedea ez datza ere axaleko sentipenean. Ez luke merezi arrazoinketa mailari uzteak, sentipenaren alde. Ez. Fedearen bidez, egiaz eta sakon, zenbait errealitaterekin harremanetan sartzen gara: Israelgo historiarekin, Nazareteko Jesusekin, Elizarekin (*21-183*). Gertakizun hauk denak, aukera baten aurrean jartzen gaituen testigutza* dira. Horri buruz, gure adimenak gogaketari* ekiten dio. Baina, testigatzailea bera zuzentzen zaigu guri: «Egia da arrazoinketarik gabe ezin dai-

topatzen: aurkitzen. **alabaina:** halere. **norberekoikeria:** individualismo, individualisme. **jarrera:** postura. **onestera:** onartzera. **egiztapen:** proba, demostrazio. **testigutza:** lekukotza. **gogaketa:** pentsaketa.

tekeela irits federa; baina egiazki ezagutu nahi baldin baduzu nor naizen, zeure burua erabat *emateko* eskatzen dizut».

Jauzi bat, salto bat da fedea; baina jauzi horrek beragan darama bere zimentarria* eta segurantzia. Neure burua eskaintzean, hantxe nabari dut bizia, hazkuntza, bidea. Matematika legez gauza neurtu ahal balitz, ez litzateke giza esperientzia ez hain jator, ez eta hain bizi izango.

Munduan izan daitekeen ezagutza harrigarriena, beste gizon bat ezagutzea dugu: holatsu gertatzen da fedearekin (*185*). Arrazoinketa ez da aski. Ezkontza onartzen duenak, ez du onartzen, bere ezkon lagunaren hondoak oro sakondu dituelako, harengan sinetsi duelako baizik. Gure bizitzan den eta berau erabat konprometitzen duen gauza handiri dagokion ezagukera da fedea. Horregatik —eta neurri sakonagoan—, agertzen zaigun kreatzailea *fedearen bidez* ezagutzen dugu.

Bada guregan, gure kontzientzia bezain hondo-hondoko ziurtapen* sakon bat: on dela sinestea, alegia. Baliotasuna sakonagoa, eta egiaren ezagutza are sakonagoa.

Geure belarriz Izkribuak entzuten ditugunean, geure eskuz Eliza ukitzen dugunean, geure izatearen hondoenean, geure buruaren muinean, Jainkoa nabari dugu; jakina, hori, izkutu antzean gertatzen da, ez zuzenean eta arartekorik* gabe; gure kontzientziak Jainkoaz zerbait nabaritzen duenean bezalatsu; hala eta guztiz ere, gure bizitza osoa norabidatzen* duen zerbait bezala da, eta beste edozein errealitatek baino sakonagotik hartzen gaitu fedeak. Dei horri ez-entzuna egin diezaiokegu, baita ito ere; hartutako bizikeratik eta gure ideiengatik interpretazio ugarienak eman diezazkiokegu; baina deia, hor dago. Eta gizonak bere barrua baretu ordukoxe edo bizitzazko erabaki bat behar duenean, hor daduka kontzientzia hori, ahots hori, gure izatearen hondoan Jainkoaren arnasa den hori.

Fedeaz mintzatzen gintzaizkizun, Jesusen bizitza kontatzerakoan (*95*). Ikusi genuen, jende apalak ez doazela eskolatuen atzetik; gertakizun honetan dakusagu fedearen handitasuna.

Fedea ez datza arrazoinketaren zorroztasunean, nork bere burua eskaintzean baizik. Emakume batek beste erlijio batetako predikari bati atea zabaltzen dio, eta, «Guk badugu, bai, geure erlijioa» esanez, pozik gelditzen da; horrela fede jatorra adiaraz lezake. Baita, erabat katoliko den lurralde batetan hazitakoek ere, eta sekulan ere beren fede katolikoa egiazko ote den ala ez galdetu ez dutenek ere, eduki dezakete fede xit jatorrik.

---

zimentarria: oinarria. **ziurtapen:** segurantzia. **ararteko:** bitarteko. **norabidatzen:** zuzentzen.

Fedea, Jainko-bizitzaren hartukizun* izatea da. Hartzen den argia, beraz, ez da guregandikoa, Jainkoarena baizik: hutsean* hartzen den Jainkoaren grazia (bestela, ez litzateke grazia izanen) (*234*). Honek ez du esan nahi, dohain hori, gizakiak bere aldetik deus egiteke hartzen duenik: gizonak irekitasuna batez ere zor dio fedeari. Baina, Jainkoak ematen duena, eta gizakiak egiten duena ez dira hainbatekoak, ez eta araberakoak ere. Fede bideak ugari dira: hezketa, elkarrekiko harremanak...

Fedearen dohain honetaz, beste dohainez ere egia dena esan beharra dadukagu: ez zaigula ematen gizakiekiko harremanetatik kanpo (*235*). Fedea, besterekin batera dadukagun aberastasuna da. Denok elkarrekin sinesten dugu.

Sinetsi, beste-*rentzat* ere sinesten da. Gure bihotzak «zergatik guk sinetsi eta besteek ez» galde egiten duenean, erantzun bakarra horixe dugu. Gure aldetik merezimendurik gabe eman zaigunak, badu zeresanik besterentzat, eta mila modutara (*233, 194, 285*).

Jainkoaren goi-agerkundeari* baietz esatea da fedea. Baina, goi-agerkunde hau oker ulertuko genuke, egia biribil eta zuzenen sistima edo xorta handi bezala hartuko bagenu (*302*). Goi-agerkundea, lehenik, argi eta mezu duzu: gure bizitzaz, historiaz, on eta gaizkiaz, heriotzeaz, Jainkoaz berberaz, maitasunaren muga gabeko balioaz... Jainkoaren argia da fedea. Agerkunde hau aldarrikatzerakoan, hitzez baliatu behar da; ordena bat eta haria ere beharrezkoak dira. Baina, ohar gaitezen ez dugula hartu behar Jainkoaren goi-agerkundea, han-hemengo elementu baliotsuz osaturiko egi sistima berriemaile bat bezala: ez da ikasi beharreko gauza sail bat. Agerkundea, Jainkoak gure errealitate honetaz duen ikusmodua da. Fedezko begiz ikustea, Jainkoaren begiz ikustea da.

> «Baina, idatzirik dagoenez, horra zer ari garen gu hotsegiten: ez begik ikusi, ez belarrik entzun, ez giza bihotzek sumatu duena, horixe prestatu du Jainkoak bera maite dutenentzat. Gu geuroi, alabaina, Jainkoak agertu digu Izpirituaren bidez; eta Izpirituak edozer aztertzen du, baita Jainkoaren sakonik sakonenak ere. Gizonen artean, esaterako, nork daki gizonaren berri, beronengan bizi den giza izpirituak ezik? Berebat, Jainkoaren berri ere ez daki inork Jainkoaren Izpirituak bestek. Hartu, berriz, guk ez dugu munduaren izpiriturik hartu, eta bai Jainkoagandik datorren Izpiritua, Jainkoak egin dizkigun dohainak ezagun ditzagun. Horretaz ari gara gu, eta aritu ere ez giza jakinduriak irakatsitako hizkeraz, Izpirituak irakatsitako hizkeraz baino; izpirituzko gauzak izpirituzko hitzen bidez aditzera emanez. Gizon hutsak ez du Jainko Izpirituaren gauzarik onartzen: erokeriatzat bait daduka, eta ezagutu ere ezin du egin, Izpirituaren bidez iritzi* beharrekoa denez gero. Juzgatu berriz gauza oro juz-

hartukizun: parte. **hutsean:** urririk, debalde. **goi-agerkunde:** rebelazio. **iritzi:** juzgatu.

gatzen du gizon izpiritudunak, eta berau ez du beste inork juzgatzen. Ba "nork daki Jaunaren asmoen berri hari irakatsiak ematen hasteko?" Guk ordea Kristoren sena* dadukagu» (1 Kor 2,9-16).

Fedea eginkizun bat da 237

Gure fedeak ez du irauten guk lanari ekin gabe. Fedeaz, axolatu ala arduragabetu egiten da gizona. Hots*, eginkizun da fedea. Jainkoaren goi-agerkundea barruan onartzea, bide luze baten hasera soila da.

Fedea onartzen duenak, sinesten duen baina ikusten ez duen, eta sarritan sentitzen ez duen egiarik sakonena burutu* beharko du. Fedea, beti, gau ilunera jauzi* egitea da. Tentaldiaren lausenguaz* zirikatua denak, gau ilunera egin behar du jauzi, tentaldiari ezetz esanez, eta fedea biztuz; horrela, leialtasuna gorde nahi dien gizonei baietz esaten die, eta orobat Jainkoari ere. Egun batez atergabeko euria ari duela eta, lagun ipurterrez* inguraturik zaudenean eta zeure etxea garrasi eta eztabaida batetan dakusazunean, Izpiritu Sainduagan sinestea eta, horrez gero, besterentzat nahiz zeuretzat on izatea posible dela uste izatea: horixe da fedea. Oinaze zoro bat nagusitzen zaigunean, fede egintza handia behar dugu Jainkoa leial dela sinesteko eta Jesusek oinaze horri esanahi bat damaiola sinesteko (*408-414*).

Fedea, beraz, ez da Elizari behin betirako baietz esan, eta gehiago arduratzeke* bizitzea. Fedea, beti, nola-hala, *oraina*--rekin josia dago. Jainkoa, *gaur*, gu bakarrik ez uzteko ahaltsu dela sinesten dugu; bere esku dituela, gaur, gertakarien joan-etorriak; gaur ere, bere maitasunez hala nahi izanez gero, mirari bat egin dezakeela (*412*).

> «Eta zutik jarriz, haizeari keinatu*, eta itsasoari esan zion: Ixo!, hago geldi! Eta haizea geldituz, barealdi handia egin zen. Gero esan zien: Zergatik izutu zarete ba? ez duzue federik ala?» (Mk 4,39-40) (*81*).

Fedea, Jainkoaren gauzetarako dugun uste eskasarekiko garaipena dugu; gizadiaren aurrerapiderako indar handienetakoa dugu. Nola harrituko gara geure buruaz gaindiko jauzi hori egitera Jesusek hainbat bider* guri dei egiteaz?

Fedea arrazoinezkoa ote? 238

Mesfidantza hori uztea ez da *arrazoimenaz kanpokoa.* Gure adimenak, hain hondoraino jotzeko gauza ez izan arren, ezagun deza-

---

sena: izaera, ariurria. **hots:** hau da. **burutu:** osatu. **jauzi:** salto. **lausengu:** encanto, charme. **ipurterrez:** inokorrez. **arduratzeke:** arduratu gabe. **keinatu:** aurre eman. **bider:** aldiz.

ke, fedea —ikusi dugunez— errealitate garrantzitsuenei dagokien ezaguera dela (*185, 126*). Gainera, fede bideak ez du arrazoimena isiltasun osora behartzen. Berbizkundeari buruzko kapituluan eta liburu honetako beste zenbait orrialdetan, arrazoinketak baduela egiteko bat nabari da. Fedea eta arrazoimena elkarri eskuak emanik doazela esatea, ikuskera katolikoari garbi-garbi dagokion gauza da. Erreformak, lurtar errealitateak salbabide ote diren dudan ipintzen duelarik, fedearen trazendentzia azpimarratzen* du gogotikago (*175, 172*).

Fedearen eta zientziaren arteko erlazioari dagokionez, sasi-prolema asko harrotu izan da (*367-368*); fedetzat fedegaia ez zen zerbait edo zientziazko ziurtasuntzat zientziazkoa ez zen zerbait entzun zelako gertatu zen hori. Agerkundeak ez du, inola ere, izarren bideaz edo munduaren sorreraz erabaki nahi; orobat zientziak: gure bizitza hondo-hondoan zer den edo mundua nondik datorren, ez du esaten. Baina, elkarrekiko borrokak gerta daitezke zientziaren eta fedearen artean, errealitate bat berari buruz bait dihardute; baina itxura hutseko istiluak dira: egia bat bakarra bait da.

Benetako zientziaren alorrean, beroni dagokio beti lehentasuna istiluren bat sortzean (zientziari dagokion ziurtasun mailan; sarritan, beraz, hipotesiaren ziurtasunez). Sinestunek, puntu horretan, batzutan, gauzak beste erara hartu badituzte, goi-agerkundetik bidezko ez ziren ondorioak atera izan dituztelako gertatu da. Horrela, Kreazioaren kontakizunetik, eboluzioa ezina dela atera dute ondorioz: ez dute kontutan hartu, kontakizun horrek olerkibidez ematen duela izadiaren jatorria. Beraz, eboluzioaren ezina ez da Jainkoak adiarazi nahi diguna (*209-211*). Era berean, Testamentu Zaharreko eta Berriko testuak hitzez hitz hartu beharrez, itxura osoa zuten aburuak* onartu izan dira, baina Jainkoaren mezuan ez zetozenak (*33, 157-158*).

Zientzia baino ziurragoa ote fedea? Fedeak eskaintzen digun ziurtasuna bestelakoa da. Horregatik, fedearen ziurtasuna, lurrean ukan dezakegun sakonena eta handiena dugu. Denbora berean, nork bere burua eskaintzeak eta maitatzeak ematen duen ziurtasuna da: zeure burua egozten* diozularik, ezagutzen ez duzun beste harekiko maitasunaren ziurtasuna alegia. Horrela, esateko, zure oinak ez dira zoru* sendoan finkatzen. Fedezko ziurtasunari dagokiona da zalantza eta duda.

Zalantza 239

Norbait bere baitara* itzultzen bada, beti galdegin dezake: ez ote naiz neure burua iruzurtzen*, engainatzen ari? Ez ote naute iruzurtzen? Ziurtasun aldia eta dudaldia txandatuz*

azpimarratzen: nabarmentzen. **aburuak:** iritziak. **egozten:** ematen. **zoru:** zola. **baitara:** barnera. **iruzurtzen:** tronpatzen, engainatzen. **txandatuz:** aldizkotuz.

dabiltza gure bizitzan. Zenbaiten fedea etengabeko barealdian* datza; besterena, gehienbat, zalantzan eta borrokan[1].

Zalantzak, berez, ez du ezer esan nahi fedearen ziurtasunaren aurka. Zalantza gogorra, nork bere burua egozte osoarekin batera gerta daiteke, harkaitza bezain tinko den fedearekin batera (*255*). Hori baino gehiago: fede sendoak, hain zuzen, zalantza handiak iragaiten* ditu sarritan. Zenbat eta osokiago maitatu, zenbat eta osokiago eskaini geure bizitza, hainbat eta sakonago egozten dugu geure «neraua», hainbat eta kementsuago jartzen dugu jokoan geure burua. Fede kezkatua fede *oso-osoa* da artean. Egiazko fedea beti da betea edo osoa. Ezin daiteke erdi fededun eta erdi fedegabe izan. Inork, «bai, nahi dut sinetsi» esaten duenetixe, bete-betean sinesten du. Federik ez du inork utzi, benetan nahi izan ez badu.

«Jauna, sinesten dut, baina lagun nere sinesgogorkeriari», Jesusi oihu egin zion ebanjelioko gizon gizagajoak bazuen federik. Horregatik sendatu zuen Jesusek haren semea. Lisieux-eko Teresak, hogei eta hiru urtez bere komentuan hil aurretik, beldurgarrizko zalantzak jasan* zituen bere fedeaz. Bere fedetik, bere burua eman nahi hura besterik ez zitzaion gelditu: nahi dut sinetsi, zatozkio lagun ene fede urriari. Horrela egin zen saindu neska gazte hura; eta hebertarren Epistolaren 11. kapituluko fededun handien artean bazegokion tokirik. Bere garaikoen, jakintsu eta langileen, fede-krisialdi izugarri hartan, hilabete luzetan eta bi bider, larritasun horixe bizi zuen Teresak maitasunean bere burua Jainkoaren esku utzirik. Zelako bizia ez ote zaie jario oinaze eta eskaintza haiei.

So egiogun* Jesusi berari basamortuko tentaldietan eta gurutzeko etsipenezko deihadarretan. Kristorengan ikusten dugu, inon baino hobekiago, zalantzak ez duela ziurtasunik kentzen. Hain zuzen, tentaldian eta gurutzean burutzen* da haren eskaintza.

Biblia edonon irekitzen dugularik, beren fedea eta ustea krisian dituztenak aurkitzen ditugu: Abrahan (Gn 22); herria basamortuan (Ex 17,3-7); profetak (1 Erg 19; Jr 15,10-21); Jerusalen desegin ondorengo herria (Is 49); gizaki eriak (Sal 22); buruzagiak (Lk 22,31).

Aldi bakoitzak, bere fede krisi berezia ukan ohi du. Elizaren historian, zenbait mendetan, iluna etsipen* itxuran

1 Zalantza hitza, «duda» adiarazteko erabiltzen dugu, fedearen kontrako edozein tentaldi edo zailtasun adiarazteko; ez dugu hartzen, beraz, zenbait erlijiok darabilen esanahian: zeure burua inori egotzi* nahi-eza bezala. Ukapen honen errutasunaz*, ikus «Sinesgabea» izeneko artikulua, liburu honen hirugarren zatian (*96*).

barealdi: reposo, repos. **egotzi:** utzi. **errutasunaz:** hobentasunaz. **iragaiten:** igarotzen, sufritzen. **jasan:** eraman. **so egin:** begiratu. **burutzen:** osatzen. **etsipen:** desesperazio (itxaropen-eza)

agertu ohi zen (*241*). Bazirudien, betirako galdua zegoela kristaua; Jainkoak ez nau salbatzen. Edo bestela, aldi batez, bere baitako larria (eskrupuloa) bizi ohi zuen bat edo batek. Horrela gaurregun gure artean arras zabalduriko duda, hauxe da: Jainkoaren izatea eta Jesusen Izpiritua irudikeria huts bezala ematen direlako susmoa.

Bide ugarienetatik sor daiteke zalantza hori: nola elkartu mundu garratz hau Jainko on batekin? (*408-414*). Edota: aldarrikatzen* den salbamendua ez da niretzat. Edota: Jainkoak ez du hartukizunik* ene esperientzi bizitzan (*1-20*). Jainkoa ez da ezer niretzat. Edota: fededunak bezain ongi edo hobeki bizi dira fedegabeak (*220-233; 284*). Hauen antzeko galdekizunez, Jainkozko goi-agerkundearen argitan, liburu honen beste zati batetan mintzatzen gatzaizkizu. Zalantza alditan zer egin kristauak? Hauxe bakarrik da gure galdea hemen.

Zalantzaldian zer egin dezake kristauak? 240

Aitzina, zalantza baztertzeko, horretan ez pentsatzeko aholkua eman ohi zen. Aholku hau, beharbada, egokia izan zitekeen, inor, esate baterako, bere kondenazioaren ideia mingotsaz zigortuta zegoenean. Egungo egoeran ez dirudi hain mugoneko*. Halere, badu oraino nola-halako alde onik eta, hasteko, protxurik atera genezake aholdu horretatik; zernahi burutazioren jostailu edo ideia hertsiren* baten morroin ez izateko irakasten digu. Oso on da, gainera, zalantzaldian bertan duda garbitu nahian ez hastea; horrelakoetan, dudaren azterketa beste tarte batetarako uzten da: arratsalderako, biharko, datorren hilerako. Eta pentsatutako garaian, arazoa ongi arakatzen* da, arduraz (hala behar izanez gero, luma eskuan duzularik).

Ongi litzateke, arazoaz beste norbaitekin hitzegitea ere: apaizen batekin, adiskideren batekin, irakasleren batekin. Batek, iheska edo arazoa xinpletuz erantzuten dizula eta betetzen ez bazaitu, jo ezazu beste batengana; tamaina horretako arazoak merezi du ahalegin bat (*236*).

Sarritan, dudari darion argitasun eta egi itxura, horixe izan da: itxura, eta ez egia. Ideia batez liluratzen zara; baina, halakoa, errealitate osoarekin gonbaratuz gero, puztukia bezala hustu egiten da. Egiazko argitasun batek fede korapilo bat askatzen lagun zaitzake; inoiz, hau agertzen bait dizu: ez dela Elizaren irakaspen, zuk halakotzat zenedukana. Horre-

aldarrikatzen: oihukatzen, adiarazten. **hartukizun:** parte. **mugoneko:** egoki. **hertsiren:** itxiren. **arakatzen:** ikertzen.

la, Jesukristoren mezu bereziaz hobekiago jabetzen zara. Hain zuzen, esan beharrik ez, pertsona eskolatuekin iharduteaz eta liburu onak irakurtzeaz on handia atera dezakezu.

Halaz guztiz, buruz argitzeak ez dakar berez sendakuntza; fede korapiloak, arrazoin hutsa baino hondoago ukitzen bait gaitu. Oinazearen zorakeriak jota uzten gaitu. Edota, Jainkoa ez da ezer ere niretzat. Eta hamaika horrelako arrazoipide!... Inola ere, fedea argiago ezagutzeak duda horik argitzen ahal lituke, neke horik arintzen ahal; izan ere, Jainkoa gurekin gaitzaren kontra borrokan ari denaz (*408-414*) konturatuko bait ginateke, edota egunoroko gure pozetan dagoela.

Jakitea, alabaina, ez da aski; ez doa hondoraino. Hori, beste zerbait izan daiteke. Gerta daiteke, gure fedea bidetik at* dabilela, bizi ez dugulako, eta «munduko axolakerian, aberastasunetan eta nola-nahiko nahikeria gaiztoetan» (Mk 4,19) murgildurik gabiltzalako.

Apika* geure kontzientziaren aurka erabaki bat hartu dugulako, eta pitinka-pitinka geure sinestea erabat horretara moldatzera iritsi garelako. Edota, Jainkoarekiko gure begiratua* lausotua bide* du barne-zauriren batek, besterengana bihurtzeko gauza izan ez garelako; edo geure aita, e.a. gorroto* dugulako. Pentsamendu hutsak zer eginik ez du horien kontra (*85*).

Zer egin, beraz? Erremedioa, bizitza nork bere fedeari egokitzean datza (*1-15*) eta, horretara heldu ez den heinean, humila izatean (*185*). Zenbaiti, agian, gertakari guztietan Bestea topatzekotan, irekiago eta erneago izatea eskatuko zaio.

Gainera, beste bide bat dadukagu, pentsaketa bera baino bizkorragoa dena: otoitza (*25*). Fedea bera koloka legokeenean ere, norberak sinesten duen Hari erregutzea. Jakina, kontu itxurakeriari, kontu nork bere burua hitz eta otoitz jarioz izkutatu nahiari (Ikus «Kristauaren otoitza» kapitulua). Inoiz, egiten ahal duzun otoitz jator bakarra, hauxe izanen zenuke: «Baldin, Jauna, izan bazara, jakinaraz iezadazu». Otoitzik gabeko hausnarketa* baino hobe da hori, zenbait bider. Hausnartu beharrez, otoitzerako behar litzatekeen isiltasuna ito dezakezu; entzuna izan zintezkeelako burutazioari* biderik ere ez bait diozu ematen.

Baina, batzutan, fede zalantzaren garaipena beste nonbait dagoke. Besterekiko harremanak antolatzea eskatuko lizuke (*312*). Nornahirekin muturka dabilenak, bere burua uste osoz eskaintzeko kemenik ez duenak, gizon bezala bakarrik bizi denak —agian batere errurik gabe—, fedea, askotan, ezi-

at: kanpora. **apika:** beharbada. **begiratua:** behakoa, begirada. **bide:** agian. **gorroto:** hastio. **hausnarketa:** reflexión, réfléchissement. **burutazioa:** pentsamendua.

nezko bèzala aurkituko du. Eta Jainkoa eta Kristo sinetsi arren, fedeari dagozkion berotasuna eta bikaintasuna faltako litzaizkioke halakoari. Egoera horretan, Jainkoagan pentsatzea, nork bere bakardadean jarraitzea litzateke. Horrelakoarentzat hauxe litzateke bidea: topatzen dituen pertsonen axola eta adiskidetasun samurra; horrela iritsiko bait da bizitzari usteona ematera, besteri, Jaunari usteona ematera.

Behin batez, norbaitek zera esan zuen: «Zenbat gizon, hainbat otoizkera». Halatsu esan daiteke fedearen nekeei buruz. Horregatik, ezin eman dugu aholku orokorrik*. Esate baterako, zenbait jendek hobe luke Jainkoarengana bildu ordez, soil-soil bizi eta bere duda-mudei antolabide bat utzi; bestela, obsesioan eror bait daiteke. «Jainkoa izan baldin bada, eta kristautasuna lilurakeria ez bada, fedeak ongi har liezaioke eskua dudari» (H.M.M. Fortmann). Halakoetan, besteekiko zintzo izan besterik ez dago, eta iraupenez irekirik bizi beste otoitzik ez.

«Atea ireki nionean, sekula ez bezala, ataurrean xistuka zegoen». Honela mintzo da ama bat etxera zetorren seme ikasleaz, guk hemen agertu dugun aholkuaren antzekoa apaiz baten ahotik entzun ondoren. Gure Jainkoa, poz eta bakearen Jainkoa da.

Dudaz hainbeste luzatu bagara, dudak ere, bere modura, fedea adiarazten digulako izan da. Fedeari dagokiona da. Baditu bere esanahi eta egitekoa fedeari buruz. Jesusen mezuaz ideia garbiago hartzera behartzen du fededuna. Fededunak are* jakinaren gaineanago uzten du bere burua Jainkoarengan. Fedeari eraskinak* kendu egiten dizkio. Fedea zabalago bihurtzen du, zeren, dudaren iturri diren errealitate eta balio berri asko, Jainkoarekiko arrotz izan ez baino Jainkoagandik datorrela konturatzen bait da bat (*24, 29*). (Ikus nola gertatu zen fenomenu hori Israel Herrian, Babiloniako morrontzapean Herriak bere fedea frogaturik ikusi zuenean: Is 40-55 kapituluetan).

Hitz batez, krisiak, gure Jainkoarekiko harremana sakondu eta berotu egiten du. Harekiko gure historiaren zati bat da fedea.

Esperantza

Fedearen ondoren, beharrezkoa ote itxaropenaz mintzatzea? Bete-betean bizitako fedeak bere baitan darama esperantza. Halere, geure burua fedez Jainkoaren esku uzteari

orokor: guztientzako, jeneral. **are:** oraindik gehiago. **eraskinak:** gaineratikoak.

darion poz alderdia azpimarratzea ez da alferrik izanen. Hain zuzen, hauxe da esperantza: fedearen alderdi bat, Jainkoak mundua maite duela, munduaz arreta guztiz arduratzen dela adiarazten digun fedearen alderdi bat.

Esperantza ez da ustekeria hutsa; ez datza gauza oro arrosa koloreko ikustean. Ez datza honela esatean: «Ez gaitezen kezka; azkenean dena ondo amaituko da». Ez. Honelako gogoeta, izakera alai bati dariona izan daiteke; orobat*, ordea, izakera arin bati dariona ere.

Bizitzari, sakon-sakonean, usteonez begiratu ahal izateak ematen dio esperantzari bere oinarri sendoa. Jainkoaren betikotasuna eta Kristoren Bizkundea dira kristau esperantzaren oinarriak; eta gainera, Jainkoaren ontasuna, gu Jainkoari atxekiak* gatzaizkion bitartean. Honek eskutik utziko ez gaituelako ziurtasuna. Ez ahal da, ba, Jesus guregatik bizi? Baina, usteon hori ez genezake geuk geuregana*. Izpirituaren dohaina da. Hain zuzen, fedeari eta maitasunari bezalaxe, bertute teologala deritza.

Esperantza ez dago buruz-buru, ez zentzu kritiko jatorrarekin, ez eta errealismoarekin. Geure eta munduaren ezinaz dukegun uste zorrotz eta irudikeriarik gabekoarekin ongi uztar daiteke. Bakoitzaren jite eta jarreraren arabera, modu desberdinean agertzen da. Zernahi gertatu arren, bake sakon bezala azalduko da batengan; beste batengan, dena beltz ikusteko lukeen berezko joeraren kontrako agertuko da; beste batengan, suminkeriaren* eta gorrotoaren aurkako. Esperantza norberaren geroa esku onetan dagoela uste izatea baino gehiago da. Mundu osoa ere esku onetan dagoela uste izatea da. Gizaki ororen etorkizunaz axolatzen da Jainkoa.

Gizakiarekiko usteona* 241

Hori da Elizak sinesten duena. Bada, beraz, munduan, gizakiaz usteonik duen herri bat. Inortxori ez zaio ukatzen Jainkoaren grazia. Jazarlea* apostolu bilaka daiteke, biraolaria* saindu; ezjakina bera, usteonez ari dela eman daiteke. Etsaia galdu ez baino geurera sartzera gonbidatu behar dugu: hala, poz handiagoa izanen da zeruan laurogei eta hemeretzi zintzoengatik baino. Hitz batez, *gizaki oro* zorionerako egina dago. Bat ere bazter uzteke. Ez da hori, uste litekeen bezain gauza arrunta. Komunismoa, esate baterako, gizadi osoaren askapen ikusmodua da (*224*); halere, bizien artean,

orobat: baita ere. **atxekiak:** lotuak. **geuregana:** geureganatu, geure egin. **suminkeria:** erremina. **usteon:** konfiantza. **jazarlea:** pertsegitzailea. **biraolaria:** blasfemaria.

askapen horretatik at ematen du zenbait: kapitalista bat ez da sekula proletari bilakatuko; zuzendu ez baino galdu egin behar du bere burua, ez bait da aldatzeko gauza. Komunismoak ez du usteonik gizadi osoarekiko. Kristautasunak, aldiz, ez du inor baztertzen. Edozein komunista bilaka daiteke kristau, eta, sarritan, oso kristau on gainera. Beste maila desberdin bateko kasu bat aipatzeko, ez duzu eskubiderik, borreru makurrenari ere, eskatzen badu, Kristoren Elizako sarrera ukatzeko.

Zenbait humanistak gizakiarengan ezartzen duen usteona gauza pozgarria da (*223*). Baina, biztuera itxaropena falta zaio; halaz guztiz, beraz, eta nolarebait, «esperantzarik gabeko» jendea duzu. Halakoen gizakiarekiko usteona, kristau esperantzari tinkotasuna damaion aingurarik* gabea da: ez du uste gizaki bakoitzari jaiotza berri bat eman diezaiokeen Jesukristoren ontasunean. «Humanismoa»rentzat gizakia bere baitako mugetan mugatua dago; berak eta bere ingurukoek «eskuak zikin» dituztelakoan dagoen humanistak —horixe da filosofo esistentzialista askoren kasua—, ez du esperantzarako arrazoin sendorik. Gizakia zorakeria da, absurdua eta uste bihurrikoa.

Jainkoak zenbait pertsonari aldez aurretik bere grazia ukatu egin diola uste lukeen kristaua heretikoa litzateke; Jainkoari, esan ez duena esan arazten bait dio. Jainkoak inor gaitzerako predestinatzen duela pentsatzea, horrez gero, kristautasunaren aurkakoa da, Jainkoarekiko eta gizakiekiko gure jarrera itxuragabetzen eta lausotzen duena. Egia da, bai, katolikoen artean, askotan, ez dela zuzen hartua izan kasu hau: musulman hildako bat *nola* salba ote zezakeen Jainkoak. Ikuspen hertsia zen; gizaki guztiak zorionerako eginak direlako esperantza lausotzen zuena (*196*). Halaz guztiz, uste honi eutsi izan zaio beti: gizaki orok salbatzeko aina grazia hartzen duela.

Itxaropen hau gero eta zindoagoa izan da Elizan, eta oraindik zindoagotu behar du. Uste hau du gizakiak: hilena ez baino bizien Jainko denarengana doala, eta uste horrek indar handia du gizadiarentzat.

Usteoneko jarrera honi tentaldi hau jartzen zaio buruz buru: etsipenarena, gogoanbeharrarena*. Etsipena, gure bekatuak Jainkoaren maitasuna baino astunago direla uste izatea da. Jainkoak ez gaituela salbatzen, askatzen, diote. Jainkoaren maitasunari buruzko gogoanbehar hori, tentaldi izugarria gerta daiteke. Hori gogo betez onar lezanak, Jainkoa bere jainkotasunean berean ukatuko luke: Jainkoa Maitasun den aldetik ukatuko luke, eta bekatu astunean eroriko

---

aingura: áncora, ancre. **gogoanbeharra:** mesfidantza.

litzateke. Nork esan, ordea, noiz litzatekeen gaixotasunak eragindako etsipena, eta noiz Jainkoak gizakiari luzatzen dion eskuaren ukapena?

Eramanpena **242**

Itxaropenari oso loturik dabil eramanpena edo pazientzia.

Erne egotea da, bihotz bero, baina grina gabe. Erresuminari* eta mingostasunari lekurik eman gabe, lagun hurkoaren ekintzan ageri den ontasun eta egi izpia onartzeko prest egotea da. Egun, bertute premiazkoenetakoa da irizpide desberdinek, erresumin eta minberatasunek elkarrekin topo egiten bait dute, argitan agertzen eta bata bestearekin jotzen. Jainkoarengan dugun esperantzak eman diezaigula eramanpena, inoiz ere geure hesitan ez gelditzeko eta inorentzat geure barnea ez gogortzeko (*176-178*).

Izan ere, Jainkoaren aurpegia, gero eta argiago, gizakiaren etengabeko haztamuka* eta ahaleginean agertzen dela uste bait dugu (*399-404*). Eta hori, guretzat Jainkoaren giza aurpegi den Kristo agertu bitartean. Haren deira, gizadiaren altzoan heldutako bake eta ontasun erreinua agertuko da. Horixe da gure esperantzarik sakonena. Zatoz, Jesus Jauna! Maranatha!

Maitasuna

«Jainkoaren maitasuna isuri da gure bihotzetan Izpiritu Sainduaren bitartez» (Erm 5,5). Jainkoaren maitasuna (*101*). Paulo sainduak Jainkoa-*ganako* maitasuna esan nahi ahal du? Ez. Jainkoa-*gandik* datorren maitasunaz mintzo da Paulo.

Jainkoaren sugarretik txingar* bat ematen zaigu gizakioi. Horregatik, kristauak lehendabizi esan behar duena, «Maitatu egin behar dut» ez baino «maite dut», da. Kristori loturik gaudelako, badugu geure baitan maitasuna. Maitale gara horrenbestez*. Eta hori, inolako geure merezimendurik gabe. Gure esku ez dagoen dohaina dugu, Jainkoaren dohaina (*234*).

Maitasuna nork bere baitan duela aitortzea, fede aitorpen handia da; hauxe bakarrik esan dezakezu horretaz: «Egizu. Sinets ezazu, Jainkoak egiaz honela egin eta bir-egin zaituela, non* egiaz maite bait duzu. Sinets ezazu, eta hala dela ikusiko duzu».

erresumin: erremin, resentimiento, ressentiment. **haztamuka:** tanteo, tâtonnement. **txingar:** pindar. **horrenbestez:** dagoeneko. **non:** que.

Dohain hau aldi berean betebehar bat duzu:

> «Maita zeure Jainko Jauna bihotz-bihotzez, gogo betez eta adimen osoz. Hau da nagusiena eta lehenengo agindua. Honetxen antzeko da bigarrena ere: Maita zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe» (Mt 22,37-39).

Jesusen mezuaren giharra* 243

Jesusen mezuan sakratuena den honetaz hitzegitera goaz. Ezin eman daiteke puntu hori zenbait orrialde soiletan. Gure atal hau zenbait oharkizunetera mugatuko dugu. Izan ere, liburu osoa bait da maitasunaz diharduena*. Jainkoaren erreinuaz gauza bera ohar arazi genuen: liburu osoa zela hartaz ziharduena (72). Berdin esan zitekeen beste zenbait gaiz: fedeaz, Jesusi buruz, Elizaz, Izpiritu Sainduaz, graziaz. Baina, Jainkoaren erreinuaz bakarrik aitortu nahi dugu hori, zeren* hori bait da Jesusen predikuaren giharra; orobat maitasunaz ere: Jesusen agindu nagusia delako. Jainkoaren erreinua eta kristau maitasuna: mezu bat bera da. Jainkoaren erreinua, maitasun erreinua duzu. «Etor bedi zure erreinua», errezatzen duenak, berdintsu erreza dezake: «Betorkigu zure maitasuna». Maitasunaz asko mintzatu gara, batez ere honako kapitulu hauetan: «Kristok, esanako izanez, Aitaren nahia erakusten digu», «Babeslea bidaliko dizuet»; eta «Bigarren agindua lehenaren antzeko da» delako kapituluan maitasunaz mintzatuko gara.

Maita, eta egin nahi duzuna 244

Mintza gaitezen oraindik zertxobait, maitasuna bertuteetan garaiena* dela agertuz. Ez, noski, zuhaitz bat besteren gain ateratzen den bezala. Beste modu arras desberdinez baizik; maitasuna, beste zernahi kualitatetan dago. Iraupena, jakinduria, eratasuna*, onberatasuna, menekotasuna, laguntzailetasuna: bertute horiek ez lukete baliorik, beren baitan maitasuna ukan* ezean, maitasunaren tankera bat izan ezean.

Agustin sainduak, esakun* adiarazkor eta gogor hau idatzi du: «Maita, eta egin nahi duzuna» (*Ama et fac quod vis*). Maite duenak, ona bakarrik maita bait dezake. Maitatzea aski da. Maitatzea, dena duzu.

Agustin sainduak egiazko maitasunaz ziharduen, nor bere baitatik irten arazten duen maitasun emankorraz. Guztiok dakigu zein aisa galtzen duen gure maitasunak bere bikaintasuna. Sarritan, izkutu-izkutuan, geure burua bilatzen bait dugu. Bidean oker ez gaitezen, Kristok bere predikuan eta Elizak berean, beste agindu asko proposatzen dizkigu; ez dira

---

giharra: ginarria, muina. **ziharduena:** ari zena. **zeren:** izan ere. **garaiena:** gorenena. **eratasuna:** neurrizkotasun. **ukan:** eduki. **esakun:** esaldi.

maitasunaren pareko, maitasun garbiaren erakusle baizik. Agindu guztiak, maitasun agindu dira. Igandez eukaristia ospatzeko Elizaren aginduan, Kristoren agindua dadukagu: «Zeure Jauna zeure bihotz osoz maiteko duzu» (*257*); eta ezkon-nahasketaren debekuan, berriz, Jesusen beste agindu hau topatzen dugu: «Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala» (*331*) (Puntu honetaz, ikus beherago bigarren aginduari buruzko kapitulua: *306-314*).

Gainera, beste zehaztasun bat eman du Jesusek egiazko maitasunaz, etsaia ere maitatu egin behar dela esatean (*105*). «Ze, zeurok maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zein sari irabaziko duzue ba? Publikanoek berek ere ez dute ba beste horrenbeste egiten?» (Mt 5,46). Zeruko Aitak, eguzkia onen gain bezala jaiki arazten du gaiztoen gain: «Zaitezte ba guztizkoak*, zeruko zuen Aita guztizkoa den bezalaxe» (Mt 5,48).

Ez da aski, «Jainkoa maitasun da» esatea; «maitasuna Jainkoa da» esan behar da ere. Hain Jainkozkoa bait da maitasuna (*312*). Egiazko maitasunean, Jainkoa han da; Jainkoa jakinean ezagutua ez izan arren Maitasuna bizi den tokian, han dago jainkozko bizia.

Maite duen gizakia, gizakiago bilakatzen da, orain eta betikotasunean. Norbaitek ez du agian hain ziur ikusten hori. Maitasuna? esanen du; zer da hori, beti nor bere buruaz arduratzea baino? Norberaren handitasunaz, sariaz, orain eta gerorako. Ez da —dioke*— guztizko benetako maitasunik, besteren ona bakarrik bilatzen duenik.

Gogoeta hori ez da guztiz zuzena; hona horrek duen egiazkoa: Jainkoa maitasun da; hainbesteraino da Maitasun, maitasunik duen oro Harengana hurbiltzen bait da. Hala da munduaren egitura bikaina. Ezin bestela izan.

Horrek, alabaina, ez du esan nahi, inola ere, maitasuna egiazkoa ez denik. Bere onerako maitatu ote gaitu Jesukristok? Guretzat maitatu gaitu, guretzat bakar-bakarrik. Eta itxura guztia du, saindu asko bere buruaz ahantzi egin zela, eta neurri handiz gainera; jokabide hura beren onerako zutela nahiz zerua irabazteko, horrek ez zuen konturik haientzat sarritan. Jakina, horretaz patxaran pentsatzen jartzean, saria ezinbestekoa agertuko zitzaien (*100*). Baina, hain zuzen, maitasuna, buruzko gogoeta hutsa ez beste zerbait da. Ekintza da, eta nor bere baitatik irtetea. Horregatik, honela idazten du Paulok:

> «Bai, pozik hartuko nuke nik ere neu anatema izatea, Kristorengandik apartatua izatea, haragiz nire senide, nire arrazako direnen onerako balitz» (Erm 9,3).

Ezinezko nahia; baina hor ageri da egiazko maitasunak [illegible] joan nahi lukeen. Sentimendua baino areago, ekintza da. Maitasunak

---

guztizko: oso, erabateko. **dioke:** esanen du agian.

samur, gizatar eta apal izateko, sentimendua ukan behar badu ere, haren jomuga, egiaz ekintza bihurtzea da.

Abestirik Ederrenak liburuan datozen, eta emaztearen eta Jainkoak herriari dion maitasuna abesten duten (*35*), eta Elizak Jesusek ekarritako maitasunaren adiarazle bezala hartzen dituen hitzok, maitasun horretan zein sentimendukeria txikia dagoen ikus arazten digute: «Indartsu da maitasuna, bai, heriotzea bezala» (Ab Ed 8,6) (*323*).

Maitasunaren neurria 245

Baina, ez ote da maitasuna zentzu on pixka batez neurtu beharrean? Ez. Maitasunak ez du zentzu onaren neurri beharrik; zentzu onak, maitasunari bultza egin behar dio, egiaz maitasun izan dadin lagundu (*101-104*).

Zentzu onak ez du neurtzen egiazko maitasunik; konkretatzen lagunduko dio; on izateko modurik egokiena bilatzen saiatuz, lagundu egiten dio maitasunari. Lagun hurkoaren tokian geure burua jartzen laguntzen digu, gauzak lagun hurkoagandik ikusten. Ezina posible bihurtzen laguntzen dio (gorrotoa sakon ezarria dagoenean bakeak egiten, hil-bizian dagoenari laguntza ematen). Zentzu onak, gizakiarentzat zorakeria dena burutzen laguntzen dio maitasunari (besteren ona norberaren onaren aurretik ipintzen). Hori guztia, abiaburutzat* norbera ez baino bestea hartzen delako; bestek opa* duena opa delako (Samariar onak egin zuenez) (*102*).

Norberagandik abiatzen den «zentzu ona», ordea, bestela da: «*Neuk* (eta neure familiak) eskubide osoa dut; *neu* ezin bizi naiteke hau edo hori gabe». Zentzu on horrek ez du hartzen bere gain besteren nahia eta, jakina, alferrik eskatuko diozu inoren alde gauza zail bat egiteko. Honela dio hitzetan: «maitasun zuzena norberagandik hasten da», eta zinez beste honetara dator egintzetan: «maitasun zuzena norberagan gelditzen da». Kristau askoren jokabidea (laguntzeko axolagabekeria, elkarren arteko gorrotoak) burubide* horren ondorio dira. Bekatu larriak.

Norbere baitatik irtetea esan nahi du maitasunak. Horregatik, maitasuna ez dugu erabat geure-geurea. Beldurra ematen digu. Jainkoa maitatzeko, hurkoa maitatzeko, beldur gara. Geure bizitzaren segurantzia arriskuan ikusten dugu.

Mendiko Hitzaldian, oraino salbatuak ez garenontzat, maitasuna nolako zorakeria den agertu digu Jesusek: «Inork

abiaburu: punto de partida, point de départ. **opa:** desiratzen. **burubide:** pentsakera.

eskuineko masailean* jotzen bazaitu, eskain bestea ere» (Mt 5,39b) (*99*). Jesusek ez zuen, ez, erakutsi bere beste masaila, Anasen etxean masailekoa eman ziotenean. Izan ere, Jesusen hitzak ez dira hitzez-hitz hartzekoak, ez bait dakarte hitzez-hitzeko agindurik, joera bat baizik.

> «Eta zeurekin hauzitan soinekoa kendu nahi dizunari, eman soingainekoa ere» (Mt 5,40).

Hau da, txamarra kendu nahi dizunari, emaiozu zeure soingainekoa ere. Eta «norbaitek mila pauso eragiten badizkizu, egizkiozu bi mila» (Mt 5,41). Harrigarri gertatzen zaigu guzti hau; baina hauxe dugu Jesusen mezua. Hona hemen zein hitz erabiltzen dituen Paulo sainduak ere horixe berbera esateko: «Ez zaitzala txarkeriak garai, aitzitik* garai ezazu txarkeria zeuk on eginez» (Erm 12,21).

Okerraren ordez ongia egiten duenak, erabat beste maila batetan jartzen ditu gauzak. Izkutuko indarrez eragiten dio besteari: «Honela eginez, txingar biztuak pilatuko dizkiozu buru gainean» (Erm 12,20). Hori bai dela baretasun giroa sortzea, hori bai litzatekeela nork bere burua eskaintzea!

Guztiok hasi-berri gara maitasun arazoan. Gure gerekoikeria eta zurikeria, gure barne zauriei eta heldugabetasunari darien ezina: horra nondik nora garen oraino ia dena ikasi beharreko. Baina eta, nola ikas maitatzen? Geure burua leher arazterainoko geure ahaleginak, burua indarrez eta tirabiraka behartzea, ez da Ebanjelioak irakasten duena. Maitatzen, nahimena indartuz ikasten dugu, nahimena gogortuz, bai; nahimen gogortasun horrek aske, eskuko, eskaintzarako prest egiten gaituen neurrian. Baina, beste biderik ere bada maitasunerako: alaitasuna, harreman onak, umore ona, eta lehiaketa jatorra bera ere bai (*357*). Gizakia irekitzen duen oro gerta daiteke graziarako bide.

Fedea *elkartean* ematen baldin bazaigu, areago maitasuna (*235*). Maitasunak elkarrekikoa izan behar du. Maitasuna ezin daiteke beti iturri bakarrekoa izan. Ez ote da gero hori aholku txarra; ez ote du nork bere aldetik ahalegin guztia egin behar? Halaz guztiz, egia da, besteren maitasuna, guregana datorren maitasuna, arras lagungarri zaigula. Horrela, suzko ikatzak gure buru gainean pilatzen dira: «Jahveren sugar bat» (Ab Ed 8,6).

Maitasunak beldurtu egiten gaitu, bai; baina maitasuna dugu gure barneko irrikarik* sakonena ere, eta guregan bizi den Izpirituarena. Horregatik, benetan askatzaile da guretzat, gure bizitza maitatzeko bestetarako ez dela jakitea (*417*). Beste gauza guztiak ergelkeria besterik ez dira guretzat maitasunik gabe:

---

masail: uratela, matela. **aitzitik:** kontrakoz. **irrika:** gutizia.

«Gizonen eta aingeruen hizkuntzak hitzegiten banekitza ere, maitasunik ez banu, brontze-puska dulundari edo zinbalo dilindari bat besterik ez nintzateke. Eta profetatza dohaina baneduka, eta izkutuki* guztien berri baneki, eta jakintza oro ezagutuko banu, eta fedea ere osatuaren osatuz mendiak batetik bestera aldatzeko ainakoa banu, baina maitasunik ez, ezertxo ere ez nintzateke. Eta neure ondasun guztiak limosnatan banatuko banitu, eta neure gorputza bera ere sutarako emango banu, baina maitasunik ez banu, ezertarako ere ez nuke hori dena.

«Maitasuna pazientziatsu da, bihotz oneko; ez du inbidirik; ez da handipuzten, ez buruharrotzen; ez da eragabe; ez da bere probetxu bila ibiltzen; ez da ernegatzen, ez du kalterik kontutan hartzen; ez da bidegabekeriaz pozten, egiarekin hartzen du poz; aitzakia bilatzen dio edozeri, dena sinesten du, dena itxaroten, dena sufritzen» (1 Kor 13,1-7).

Kristauaren otoitza

Jaunaren aurrean 246

Gizakia da bere Iturburua eta bere Sustraia duen Harengana zuzentzeko gauza den izaki bakarra. Janaria bilatu eta bere kumeak hartzearekin aski du egaztiak; behia larrean dabil, lo dagi, txekorrak egiten ditu, esnea ematen du, eta hil egiten da, inoiz ere bere Egiarengan pentsatu gabe; gizakia, aldiz, bere jatorriaren misteriora itzul daiteke, adoratuz.

Abereek ere, nolarebait, beren izatearen jatorrizko misterioa goratzen dute: bizitze hutsez. Horixe dagite, olerkari baten begietan, zomorro* txiki hauek: ur barearen gainean haruntz-honuntz korrika lasterrean, landako soro eta belardien artean, Jainkoaren izena idazten dute. Eta salmuak ere honela kantatzen du:

«Zabaltzen duzu iluna, eta gau egiten da,
eta hor sakabanatzen dira basapiztiak;
orru eta marru doaz lehoikumeak ihize bila,
eta Jainkoari eskatzen diote janari (Sal 104,20-21).

Gizakia da, ordea, hori dakiena eta hori kantatzen duena. Gizakia da, gau tropikaleko lehoiaren orroa, bizitzaren kreazioari bizitzak dagion erantzun bezala hartzen duena. Animaliaren oihuak, «animalia arrazoinduna»ren, gizakiaren, ahoan Jainkoaganako oihu bilakatzen dira. Gizakia bakarrik aurkezten zaio Jainkoari bere gogo-bihotzez. Horregatik, moralaren sintesi zahar hura, hamar aginduak alegia (*306*), gizakiaren Jainkoarekiko erlazioaz hiru agindu emanez hasten da.

Ni nauzu Jahve, zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik,
morrontzaren* etxetik atera zaituena.
Ez duzu ni beste jainkorik ukanen.

---

izkutuki: sekretu. **zomorro:** mamutxa. **morrontza:** mutilgoa.

> Ez duzu imajinarik taxutuko*, ez irudirik egingo,
> ez han goian zeruan diren gauzen antzekorik, ez hemen [behean
> lur gainean, nahiz lurpeko uretan diren izakien antzekorik.
> Ez horien aurrean makurtuko zara, ez zerbitzatu egingo [dituzu
> irudi horik, ba ni Jahve, zure Jainko hau, Jainko espatsu* naiz eta...
> Ez duzu Jaunaren izenik alferrik ahotan erabiliko...
> Ezazu gogoan larunbata, eta gorde ezazu saindu» (Ex 20,1-5. 7-8).

Jainkoarentzat astia bilatzera dei egiten zaio gizakiari. Astialdi horretan, ageriko eta egunoroko gauzak aldebat uzten ditu. Eskuak lanetik atseden arazi eta bildu egiten ditu; begiak, egunoroko lana utzi, eta gizakiaren eta gauzen baitan den hondoenera daramatza, sustrairaino. Gorputz guztiak eskuhartzen du Jainkoarengana bihurtze horretan. Zutik, belauniko nahiz jarrita, bere burua eskaintzen duenaren, bere baitatik ateratzen denaren jarrera hartzen du gizakiak. Barne-bilketara eta bere gogapenak hatzematera* jotzen du gizakiak, adi-ezineko misterioari atxekitzekotan. Irudimenak lan txikia egiten du, edo batere ez: Tokia ere aproposa bilatzen da, besterekin batera edo bakardadean.

Elementu hauk guztiak Jainkoa hor dagoenaz jabetzeko lagungarri izan daitezke. Tokiak, jarrerak, pentsamenduek, irudipenek: guzti horiek atera arazten gaituzte egunoroko girotik. Musika, eliza, ingurumariaren isiltasuna, zeru-sabai zabala... Horrela, orobat, sinboluak hartzen ditugu, geure gorputz barnean nahiz kanpoan; eta hori, «neure baitan den nerau garaiena baino garaiago eta neure baitan den nerau hondoena baino hondoago» den haren bilakuntzan murgiltzekotan. Ez dadukagu gure eskuar*. Ez dezakegu geure ahalmenez atzeman. Sinbolu guztiei buruz hauxe esan behar dugu: ez da Hura (*407*). Halere, gure izatea, beronen hondoenean, Harengana zuzendurik dago.

Horrela mintzatzen iraungo bagenu, ez ginateke sekulan kristau otoitzera iritsiko. Giza erlijiotasun soilean geldituko ginateke; are*: erlijio ororen honunztik. Izan ere, erdia bakarrik —eta ez erdi garrantzitsuena— aipatu bait dugu, hots, Jainkoarekin hitzegiteko gure ahalegina. Otoitz egitea, ordea, Jainkoari entzutea da batez ere. Hau da beste erdia, inportanteena: Jainkoa mintzatzen zaigula.

Otoitz bideak 247

Zein hitz zuzentzen ote digu, bada, Jainkoak?

---

taxutuko: landuko. **espatsu:** celoso, jaloux. **atzematera:** eskuratzera, lortzera. **eskuar:** esku-menean. **are:** oraindik.

Lurrekoa eta batera Aitaren Seme den Semearengan, Aitak beraganako bidea egin digu. Hona gure lehen egiteko handiena: Jainkoak Kristogan zein bide, zein sinbolu ematen digun ikusi. Zeintzu dira, bada? Jesukristo adiaraztera ematen diguten errealitate guztiak (*343*): Gure elkarren arteko maitasuna haren Izpirituagan; Haren Izpirituak izpiraturiko Bibliako hitza (*139*); Bataioa eta beste sakramenduak; batez ere, ogi-ardoen dohaina (*192-202*).

Azken hau, Eukaristia, kristau otoitzaren giharra* da. Eukaristian Kristo osoa hartzen dugu: haren gorputza, haren Izpiritu Saindua. Kristoren hitzak, bestalde, Jainkoari nola hitzegin agertzen digu. Oparitzat eskainitako Kristoren gorputza dugu aurkez* genezakeen opari bakarra. Haren Izpiritu Sainduak esaten digu zer esan eta zer eska: horrela, gure baitan Izpiritua ari zaio Jainkoari esan-ezin besteko intziriz erreguka*.

Eta nola bizi, horrez gero, meza? Nola eskuhar egiaz mezatan? Nola otoitz egin otoitzen otoitz den horretan? Hona: Mezaren ospakuntzak eskatzen duena eginez: bildu, entzun, oroitzapena* egin, eskerrak eman, Kristorekin batera geure burua eskain, e.a. Beste kapitulu batetan mintzatuko gara guzti honetaz luze-zabalago (*266-279*).

Baina, bertotik, eukaristiaren berezitasun bat ohar arazi nahi genuke, hots, gure otoitzik bikainena elkartean burutzen dela, eta ez bakardadean (*271, 269*). Eukaristia, hain zuzen, batzar* bait da. Horregatik zenbait eragozpen sortzeaz inor ezin daiteke harri.

Eragozpen hauk bi iturritatik datoz. Lehenengo, elkarrekin errezatu eta kantatzeak nahasi egiten gaitu eta, bigarren, lagunak ez zaizkigu gogoko. Lehenengoari dagokionez, aldarea oso urruti zegoenetik eta liturgia latinez egiten zenetik datorren okerra dela esan daiteke. Orduan meza, nork bere aldetik eta isilean otoitz egiteko hartu ohi zen. Baina halako otoitza, oso ona izanik ere, ez da Eukaristiari dagokiona. Eukaristia ez zen asmatu lagun hurkoaz ahantz arazteko, harekin bat egiten laguntzeko baizik.

Bigarren eragozpena, besteak ezin eraman* ahal izatea da. Irtenbidea ez dago bat besteagandik erabat aldentzean*. Hobe dugu geure burua bestearen tokian ipintzen saiatzea: zergatik ote den eta diharduen horrela jakiteko. Horrela ihardun nahi izanez gero, mezatara joatea eginbehar* latza da; Kristok eskatzen diguna, hain zuzen.

---

giharra: ginarria, muina. **aurkez:** aurkeztu, aurrean jarri. **erreguka:** otoizka. **oroitzapena:** gogorapena. **batzar:** bilkura. **ezin eraman:** ezin jasan. **aldentzean:** urrutiratzean. **eginbehar:** eginkizun.

Hona gauza harrigarria. Otoitzik bikainena, eukaristia alegia, maitasunean elkarrekin topo egitea da denbora berean. Jainkoagana biltzekotan egunoroko eginbeharrak uztean, geure lagun hurkoa, geure emaztea, geure senarra, geure haurrak... aurkitzen ditugu berriz: Horixe da Jesusen mezua. Horregatik, mezaren haseran «Aitortzen diot» esaten dugu, geure bekatua ezagutuz, eta Jainkoari gure axolagabekeria eta etsaigoa hauts ditzan eskatuz.

Liturgiazko otoitza 248

Horrela bada, Eukaristia eta beste sakramenduak ez dira gauza pribatuak. Eliz elkarteari dagozkio.

Eukaristiarekin loturik, bada beste otoitz mota bat ere, Elizak, elkarte denez, antolatua. «Orduak» dira; beste izenez, «ofizioa», Koru otoitza nahiz brebiarioa. «Hori itxurakeriarik gabeko otoitz altxorra!», dio horretaz Guido Gezelle-k. «Ordu» horik, Kristaudiaren lehen urteetan elizan egunoro egin ohi ziren goiz eta arrats otoitzetatik sortu dira. Sakramendu eta ordu kanoniko horiei, batera, *liturgia* edo Elizaren *kultu* deritzate (horien inguruan badira, orobat, bedeinkapenak, ibilaldi on batetarako otoitzak, otordu aurreko eta ondoko otoitzak. Eliza osoarentzat antolatuak eta liturgiari dagozkionak dira horik ere).

Ordu kanonikoen muina gaur ere, goizeko eta arratseko otoitzak dira: gorespenak (*laudes*) eta bezperak Mendeetan zehar, beste osagarririk ere itsasi* zaio otoizbide horri komentu eta katedraletan, hara nola gaualdi edo maitinak (*165-166*): batez ere, Bibliako pasartez eta kristau idazle handiren irakurgaiez osaturik ohi dira (*55*), eta zenbait elkartetan gauez ospatu ohi dira; horietaz gainera, hirugarren, seigarren eta bederatzigarren orduak sartu dira: otoitzaldi laburrak dira, eguzkia jaiki ondoko hirugarren, seigarren eta bederatzigarren orduetan esateko; eta azkenik, arrats otoitza (*completorium*), eguna amaitzerako.

Gorospenak honela antolaturik daude: zenbait gorespen-salmuz hasten dira; ondoren, Liburu Sainduetatik pasarte labur bat; hurrena, goratzarre bat eta Zakariaren kantika (Lk 1,67-69), eta amaitzeko otoitz labur bat.

Eskema zahar honi bizitasun handia dario. Beranduago antolaturiko goiz-otoitz asko jadanik* zaharkiturik dago; gorespenek, aldiz, lehenean diraute. Gauza bera esan daiteke bezperei buruz; egitura berdina dute; baina, salmuak nabasiagoak* dira eta eskabidezkoak. Gorespenak eta bezperak, egunoro errezatzen dituzten apaiz eta erlijiosoentzat ezezik, edozein kristaurentzat dira otoitz bide egoki (*253*).

Itsatsi: eratxiki, erantsi. **jadanik:** dagoeneko, honez gero. **nabasi:** familiar.

Otoitz hauen berezitasun harrigarri bat, besteren artean, hauxe da: doi-doi* daudela gizakiari begira. Hain zuzen, gizakia beronen baitatik aterarazten dute, Jainkoa goratzeko. Esate baterako, Gorespenetan ez da datorren eguneko pentsamendurik, ez eta bezperatan ere igaro den egunekorik. Saindutzen dena, otoitzean ari deneko ordua da, soil-soil.

Otoitzaldi horien beste berezitasuna, berauen ugaritasuna da. Asteko egun bakoitzak ditu salmu diferenteak, eta urteko egun eta aro bakoitzez aldatzen dira Izkribu Sainduetako kapitulua eta azken otoitza.

Otoitz jatorrik egin nahi lukeen talde nahiz pertsona bakarrak aurki *lezake argitasunik egitura eta ugaritasun horretan. Esaterako:* gorespen salmu bat, Jainkoaren hitzetik harturiko esaldi bat, Zakariaren kantikaren zati bat eta norberaren baitako eta hitzezko otoitz bat (salmuez nola balia ikasteko, ikus kapitulu honen amaia) (*256*).

Gorespenen eta bezperen artean, egunoro, Eukaristia ospatu ohi da: liturgiaren gailurra. Asteko Eukaristi ospakuntzarik garrantzitsuena igandekoa da beti. Igande guztiek, batera, urte aro handi bat osatzen dute; aro horretan, gure artean, Jaunaren misterio osoa ematen da, oso-osorik eta bere aberastasun guztian (*275*). Horregatik, igande bakoitzean mezatan irakurgai desberdinak, kantu eta otoitz desberdinak hartu ohi dira, aldioro*, gure salbamenduko gertakari berri bat, Jaunaren alderdi berri bat berritzekotan. Aste egunez ere, eukaristiaren ospakuntza urte aroari egokitu ohi zaio. Orobat gorespenak, bezperak eta gainerako orduak ere.

Horrela, urteko liturgia osoa da gure birrerospenaren misterioa, modu berezi eta handian, gaurkotzen duena; guzti horren gailurra, Bazkoa da, igande guztien igandea. Ez da gai honetaz luzatu beharrik; liturgian geurok hartzen bait dugu parte (*375*).

Bada elkarteko beste otoitz mota bat ere, jatorriz bakarkakoa dena. Liturgiatik hartzen du gauza asko. Honelakoak dira, familian egin ohi den arrats otoitza, edota beharraldi* batetan parrokia batek egin ohi duena.

Bakarka otoitz egin 249

Bada isileko otoitz mota bat ere. Honela mintzo da Jesus horretaz:

> «Baina zu, otoitz egiten duzunean, sar zaitez zeure gelan, hertsi* atea, eta egin otoitz izkutuan dagoen zure Aitari; eta zure Aitak, izkutuan ere ikusten duenak, saria emango dizu» (Mt 6,6).

doi-doi: apenas. **aldioro:** aldi bakoitzean/guztietan. **beharraldi:** premialdi. **hertsi:** hitxi.

Eta berak ere egin zuen otoitz mota hori, basamortuan, basapiztien* artean, mendi batetan.

Guk ere egiten dugu. Bakardadera jotzen dugu, geure izatearen hondo-hondoko misterioa aztertzeko. Lan neketsuzko eguna amaitu ondoren, gizakia «bere baitara biltzen da», «Jainkoagana altxatzen du bere bihotza». Liturgia hainbat dagokio kristau bizitzari otoitz mota hori. Liturgiaren bidez, Elizaren bizia den bizi-indarrez janaritzen da gure otoitza. Norberaren baitatik darion otoitzean, berriz, «Jainkoaren eta nire artean» den harreman pertsonalaren esperientzia bizi dut (jakina, elkartearekin eten gabe). Esperientzia hori izan ezean gure liturgia azal huts litzateke, formalismo huts.

Liturgiaz esana bera esan behar beste otoitz mota honetaz ere: Jainkoa da lehenik mintzo dena. Haren hitzak ukitu gaitu lehenik, fedean hezi eta eskolatu gaituztenen ahoz.

Jainkoaren agerkunde horrek hauxe dakarkigu burura: Jainkoa, gu konturatu ere baino lehenagotik hizketan hasia dela. Mundua, landareak, gizon-emakumeak —gure aita, gure ama eta besteak— Jainkoaren keinu, Jainkoaren hitz dira horik ere (*9-15, 315-318*). Gorago ere jo dezaket: nire izatea bera da neri zuzentzen didan lehen hitza, «Harengan bait dugu geure bizitze, mugitze eta izatea» (Ap Eg 17,28). Hori guztia oso urrun doa: Neure gurasoek ez ninduten «neu» opa izan. Seme bat opa izan zuten, motiko edo neskato. «Neu», Jainkoak bakarrik ezagutu eta opa izan ninduen.

Horregatik, bada, otoitza lehenik honetan datza: Jainkoak gurekin egiten duenaz, fedea bide dela, esker onez jabetzean, hausnartzean. Bigarren mailan dator otoitzaren esanahi hau: gure bihotz osoz erantzun bat ematen ahalegintzea.

Jainkoa handiago da beti 250

Erantzun bat? Mintza ote gintezke, beraz, Jainkoarekin? Norbaitengana bezala zuzen ote gintezke egiaz Harengana?

Munduko errealitateaz esan daitekeen gauzarik sakonena, hauxe da: mundua hondo-hondoan pertsonala dela: elkar maitasuna; horra errealitaterik sakonena. Hastapen misterioaz gizakiok esan genezakeen egiarik funtsezkoena*, hauxe da: hastapen* misterio hori ez dela laino-mendi primitibu bat, ez eta zerbaiten isuria ere; norbait baizik, «Zu» esan diezaiokegun norbait. Horra. Honela adiarazten zuen hori Ars-eko erretoreak: Jainkoarekin jatorren iharduteko modua, gizon

basapizti: basabere. **funtsezkoena:** nagusiena. **hastapen:** hasera.

bat bait litzan* Hari hitzegitea da. Horretarako bidea Kristok urratu digu. Aitari *Abba* izena ematen zion (*85*); haurrek aitari dei egiteko erabiltzen duten izen goxoa da. Are*: Kristogan eskuarrago* egin zaigu oraino Jainkoa. Jainkoaren Semeagan, Jainkoa giza aurpegiz agertzen zaigu (*414-417*).

Halere, esan dezagun era berean, Jainkoa, gizonezko «zu» bat baino, «norbait» bat baino handiago dela. «Norbait» ikusten badugu, alderdi mugatu bat bakarrik nabari diogu. Handik ala hemendik, saihetsetik ala aurretik. Norbait hori mugatua da, gizaki bat. Jainkoa den «zu» hau, aldiz*, aurrean dut alde guztietarik: neure eta besteren izatearen erroetatik. Alde guztietarik ura darion iturria da, eta ni ureztatzen* nauena.

Horregatik, gerta daiteke, zuzenean harengana jo gabe ere, haren aurrean egotea: hitzik gabe, gogoetarik egin gabe, bihotza irekiz, Jainkoaren handitasuna txikartzeko* beldurrez.

Edonor baino handiago da, neurrigabean (*407*); ozeanoa bezain zabala da (neurrigabean zabalago). Orobat* esan behar da Kristori buruz ere, nahiz eta beste era batetara. Kristorengan, Jainkoa guretzat guztiz beste norbait bezala dago. Eta, halere, Bera ere gizona baino handiago da. Kristok ere alde guztietatik ureztatzen, betetzen gaitu. Otoitzean, bada, Kristoren jainkozko eta gizonezko izatearen misterioa nabari dugu (*53*). Egiaz kristau den otoitza, azkenean, egia horren samurtasuna aurkitzera helduko da: munduan, alde guztietatik bidera ateratzen zaiguna, sakon sakonean, *Norbait* da. Inon ere ez dezakegu nabari argiago —hala uste dugu— Nazareteko Jesusen bihotz irekian baino: Jainkoaren Seme bakarrarengan baino (*132*).

Erakutsiguzu, Jauna, otoitz egiten 251

Behin eta berriro datorkigu ezpainetara eskari bera: erakutsiguzu, Jauna, otoitz egiten. Baina, batez ere, gure egun urduri* eta zalapartaritako eskaria da: gure lan, ikusaldi, irrati, egunkari, trafiko, zenbaki, lankide, seme-alaba eta bestek dakarkigun giro zaratatsuan*.

Jauna, nola otoitz egin behar dugu? Ez da egia gure arbasoek baino astirik gabetuago gaudenik otoitz egiteko; eguneko gure lanaldia ez da haiena bezain luzea. Baina gure bizitzako tirabira urduriak garabiltza. Eta ez dugu otoitzerako betarik* aurkitzen.

---

bait litzan: balitz bezala. **are:** oraindik, gainera. **eskuarrago:** eskuratzen errazago. **aldiz:** kontrakoz. **ureztatzen:** bustitzen. **txikartzeko:** ttipitzeko. **orobat:** berdin. **urduri:** grinatsu. **zaratatsu:** arrabotsez bete. **beta:** asti, aukera.

Bada beste zerbait ere. Patxara osoan gabiltzala, edota eliza batera istant batez sartzean, edota geure logelan mintzatzen hasten gatzaizkizunean, Jauna, gure otoitza ez da, sarritan, gure egiazko bizitza. Badirudi, ihesalditxo bat egin nahi genukeela beste mundu batetara. Baina, badakigu, gure egiazko bizitza geure familian, geure lanean, geure gertakarietan, geure herriaren eta munduaren gorabeheretan gertatzen dela. Jauna, erakutsiguzu nola hitzegin behar dizugun, baina geure bizitzarekin zintzo garelarik, eta otoitza alai eta jator delarik.

Honela hotseginen lioke Jainkoari gutako askok. Ez ote daiteke, ba, otoitzik egin egunoroko bizitza arruntean* oinak ezarriz? Ezin ote daiteke otoitz egin, ez bizitzatik etena, baizik Jainkoaren lehen hitzaren, hots, nire izatearen egiazko erantzun litzatekeen otoitzez?

Bai; otoitz horrek izan behar du izan. Horretara garamatzan bidea, honela hasten da: gure lehen erantzuna Jainkoari, garrantzizkoena, gure bizitza bera denaz konturatuz: gure haurrekiko ardura, gure lana, ikasketak, maitasuna, iraupena, eramanpena eta, batez ere, Jainkoaren nahiarekiko obedientzia.

Izan da saindurik, bizitza guztia otoitz dela azpimarratu* duenik. Entzun diezaiogun Jesusi: «Neri, Jauna, Jauna, esanez ez baino zeruetako nire Aitaren borondatea eginez sartzen da Zeruetako Erreinura» (Mt 7,21).

Ongi bizitzen ahalegintzea aski ote da otoitz bezala? Ez da gutxi, noski. Eta bada horrekin gelditu nahi lukeen kristaurik. Egunoroko eginbehar neketsuak ez dio betarik uzten bake eta isiltasun apur batetarako. Ezin egin dute, lasterregia, arinegia, gezurtia dirudien otoitz bat besterik. Horrela, Jainkoaren misterio neurrigabearekin egokiago datorrela iruditzen zaie bizitza jator bat egiten saiatzea, soil-soil. Hori bederen «jatorra» izanen da.

Baina, gizatar eta posible ahal da horretan gelditzea? Jator ote litzateke, norbait egiaz maitatu, eta inoiz ere berorrekin ez hitzegitea? Ba ote daiteke, horrela, obedientziazko eta fedezko bizitzari eustea? Bere bizitzako ordu samingarrienean, oharpen hau dagie Jesusek bere dizipuluei: «Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldira sar ez zaitezten; erne dago, bai, izpiritua; baina gorputza argala da» (Mt 26,41).

Ezin iraun dezakegu, erne egotekotan, behin eta berriro geure baitara bildu gabe. Bestela, gure obedientzia arinkeria bilakatuko litzateke. Jainkoaren presentziaren kontzientzia hustu egingo litzaiguke eta, tentaldian, haren nahiaz ahantzirik* ginateke, eta gutxietsi egingo genuke. Ezin lan egin dai-

arrunt: ordinario, ordinaire. **azpimarratu:** nabarmendu. **ahantzi:** ahaztu.

teke, tarteka geure indarrak berriztatu gabe, ezin heda edo zabal, denbora berean sakontzeke*. Maitasunak ezin iraun dezake agerpiderik gabe. Ikusi dugu: Jesusek ere bakardadera jotzen zuen otoitz egiteko, gaixoekin zetorkion giza taldeari iheska (*82*). Otoitza uztean[34], bazekien bere egitekoa zein zuen: berriona hotsegiten jarraitzea.

Guk ere, eta oraindik arrazoin handiagoz, otoitzaren premia* dugu. Geure bihotzaren hondotik Jainkoarekin hitzegiteko —edo horretan ahalegintzeko— premia. Bestela, eginkizun bat, ez dagokigularik ere, gurea bakarrik delako ustetan erortzeko arriskuan gabiltza. Izan ere, gure lana eta maitasuna diren baino beharrezkoagotzat hartzeko joera bait dugu. Otoitz egiteak hauxe esan nahi du: gauzak gure iritziak baino goragotik hartzea, eta gure izatea, berau eman digunaren argitan ikustea.

Ez dago gure bizitzatik kanpora legokeen otoitzik 252

Hain zuzen, ez dezakegu eten geure otoitza geure egunoroko bizitzatik (*82,286*). Horregatik ez dezagun erlijio modu berezi bat asma, gure egiazko bizitzarekin zerikusirik ez lukeen bat; aldiz, geure otoitza, geure bizitzako gorabeheretan xertatu behar dugu.

Gure bizitzako une guztiak ez dira berdinak. Badira hazialdi batzu, dena ongi doalarik. Badira, orobat, geure burua eroria ikusten duguneko aldiak: ez gaituzte behar bezain haintzakotzat hartzen, edota geure burua zahartzen ikusten dugu, etsirik, gaixo. Batzutan, joan-etorri* handiko erabakiak hartzen dira; bestetan, doi-doi* bizi zara. Jainkoarekiko gure elkarrizketak egoera desberdin guzti horietatik sortu behar du, berez bezala.

Ez dezagun pentsa errazegi, besterik gabe otoitz egokia aterako zaigunik. Ez. Guztiok dugu horretan zer ikasia. Batzutan, honetan gaude: otoitz egin, gogoak ematen digunean bakarrik egingo dugu. Baina, ez da beharrezkoa gogoak ematea. Jainkoaren aurrean barne-biltzen garenean, dela bizi bide baten hautaketaz gogoeta* egiteko, dela dudaldian Jainkoarekin borroka egiteko, dela esker onez dantzan egiteko —egoera horik guztiak gure egiazko bizitzari dagozkionak dira—: holakoetan, agian*, gogorik gabe nahiz gogoz kontra jokatu behar izan dugu haseran. Gauzak axaletik ikusita, otoitzerako gogorik ez dugu. Halaz guztiz otoitzaren eta gure izatearen artean bada kidetasun bat: Otoitza gure bizitzari da-

34 Ik. *Eraskina*: «Bakardadeko otoitz...» 553 or.

sakontzeke: sakondu gabe. **premia:** beharra. **joan-etorri:** garrantzi. **doi-doi:** apenas, justu-justu. **gogoeta:** pentsaketa. **agian:** beharbada.

riona da, premia bati dagokiona, gure baitan xit sakon ezarririko dei bati dagokiona. Badaiteke ere, otoitz egitean, sentimendu mota desberdin eta kontrakoenak sumatzea: nazka, ezin-egona, barne-hutsunea, buru nahasketak, lehorraldia; aldi berean, ordea, badakigu: Iraun egin behar dugu. Otoitz egiten saiatzen den edonork topatuko du otoitz-aldi zailen bat.

Hain zuzen, Jainkoarekiko harremanetan eragozpen horik sortzean, arrisku txikiagoa ukan ohi da, erlijio mundu berezi bat, bizitzarekin etena legokeena, sortzen hasteko.

Otoitzaren eta gure bizitzako egoeraren arteko batasuna hamaika modutara azaltzen da: inoiz, bizitzeaz konformatzen gara; beste batzuetan, eskean ari gara, eskerrak emanez, pozik edo harriturik; zenbaitetan, itxaropenez beterik gaude, edo intziriari* ematen diogu; beste zenbaitetan, ez gara gauza intzirika egiteko ere, oso gogortuta ikusi ohi dugu geure burua; gertatu ohi da ere, Jainkoaren kontrako sentimenduren bat garaitu beharra, gure fedea eta otoitza antzutzen* dituen sentimenduren bat alegia, eta nekeren batetik edo utzi nahi ez genukeen bizikeraren batetik datorkiguna.

Barne-jarrerak, hondo-hondoan, berdina izan behar luke beti: esanekotasuna*. Hortik dator otoitz oro. Orobat eskabidezko otoitza ere (*86,89*). Otoitz mota honetaz, ikus kapituluok: «Nire izenean Aitari eskatzen diozuen guztia» eta «Jainko bizia» (*412,415*). Gorputzaren jarrera otoitzean, gure barne jarreraren adiarazpen da; denbora berean, sortu egiten du: hainbateraino daude lotuta gizakiagan kanpokoa eta barnekoa. Ez da baztertzen jarrera bat bakarrik ere; baina, belaunikatzea eta zutik egotea, beren simetria eta neke arina dutelarik, ernetasunaren eta maitasunaren sinbolu bizi eta eraginkor* dira. Mahain baten aurrean, aulki arrunt batetan jarrita egotea, siloi batetan zangoak gurutzaturik egotea baino egokiago gerta daiteke. Gauaz, loak hartu aurretik ohe gainean etzanik, isiltasunik, otoitzik eta bildutasunik* aurki dezakezu; baina, sarritan, hobe izanen da ohe aurrean arrats otoitzerako belaunikatzea. Ibiliz ere jasotzen ahal duzu zeure bihotza Jainkoaren misteriora. Barne-bildutasuna hainbat gauzari dago lotua! Gauza bat da ziurra: jarrera erosoena ez da beti onena. Honek du kontua: nola topa Jainkoa leialkienik.

Otoitz motak asko dira 253

Otoizbide asko da; adieraz ditzagun zenbait, labur-labur.

Jainkoa maite duena, sarritan bapatean zuzenduko da Harengana, egunez. Batzuk oharkabean biraoka diharduten

intziria: negarra. **antzutzen:** esterilizar, stériliser. **esanekotasuna:** obedientzia. **eraginkor:** eficaz, efficace. **bildutasun:** barnekotasun.

bezala, beste batzuk (agian lehengo beroriek) sarritan eta jakinaren gainean honela diote bihotzean: «Lagun nazazu», edota: «Idazu, arren, nere onetik atera ez nadin», edota: «Eskerrik asko!» Esaera horiek norberaren jarrera oinarrizkoenak, fedea, itxaropena, maitasuna agertzen dituzte. Ekintza gogorrenean, auto nahasketa gorrian, jaialdi baten erdian ere, Jesus batetan Jainkoaren isiltasunik atzematen* duenik bada.

Ostera ere gerta daiteke, ordea. Luzaroan Jainkoarengana zuzentzeke bizi izan denak, oporraldietako atsedenean aurkituko ditu, beharbada, hartarako hitzak.

Barne-biltzea* lortzeko bide erraza eta maiz erabilia, otoitz ezagunen bat esatea da. Ez dezagun gutxiets otoizbide hori. Bizitza gogorra bizi duenarentzat, gerturik dauden otoitzak laguntzaile eta eragile gerta daitezke. Esaterako, nork bere baitan «Gure Aita» edo «Agur Maria» esan dezake. Haseran eta amaian* egin daitezkeen bi gurutze sainduak, bi ate bezala dira: bien artean Jainkoarentzat askatasun tarte bat aurkitzen dugu. Haur txikienek ere tarte horretan patxadan egoten ikasten dute. Garbi dago, ahozko otoitzean ezin gakizkiokeela lot* berehala, jaulkitako* hitz bakoitzari. Hain zuzen, otoitzean hasi aurretik, otordua gertutzen ari ginen agian, haurrak borrokan ari ziren agian. Hitz batean, behar ainako girorik ez genuen otoitzerako. Halaz guztiz, gure jarrerak isiltasuna sortu du, Beste Hori gure artean dagoela adierazi digu: esker onezko jarrera da.

Ahozko otoitz luzeagoak, barne isiltasun biziagoa sortzen du. Orduan, esate baterako, otoitz libururen bat edo salmu batzu erabiltzen ditugu. Honetan ere, ezin hitz guztiak gogoeman. Halere, hitz horiek bake giroa sor arazten dute gure barnean, eta giro horrek Jainkoaren argiari atea irekitzen dio, gure bizitza argitzeko bidea emanez, edota gure bizitza betetzen duten tristura* edo eskerrona esateko bidea emanez.

Beste horrenbeste esan genezake errosarioaz. Hain eder den otoizbide horren hitzen monotoniak berak, Jainkoaren aurrean isilik egin ahal izateko ordu laurden bateko giroa sortzen du. Jakina, ez dago gogotan hartzerik esandako hitz guztiak. Baina, misterioak gogoeman ditzakegu; gogoeman dezakegu ere, halako haur bihurri hura, hauzoan hil zorian dagoen beste hura, otoitzean gogoan ukan nahi dituzun ezkonberriak ere bai.

Goizean goizeko orduak otoitz egiteko aukerako ordu ditugu (*248, 121*). Gure arteko asko zoriontsuago izango ginateke, eta eguna patxadatsuago hartuko genuke, ordu erdi bat

atzematen: sumatzen. **barnebiltzea:** bildutasuna. **amaian:** burutzean, bukaeran. **lot:** lotu. **jaulkitako:** esandako. **tristura:** ilundura.

lehenago jaikiko bagina. Goiztarrak Jainkoa lagun. Otoitza ere halaxe da: laguna.

Baina, egitez, egungo kristau askok ez du goizeko otoitzik egiten. Eta ez da, horrelakoentzat ere eguna Jainkoarekin hastea garrantzizko gauza ez delako. Askorentzat, «egunon» agurra, Jainkoak onartzen duena da: elkarrekiko maitasuna Jaunarengandik dator eta Jaunarengana zuzentzen da. Gainera, agur hitz batzu zuzentzen ahal zaizkio Jainkoari berari ere; horrela, Jainkoaren aurrean luzaroago egoteko astirik dutenekin (edo hartzen dutenekin) gure bihotza elkar daiteke.

> «Gorets Jauna lurbira osoak,
> zerbitza Jauna pozaren pozez;
> joan harengana alaitasunez.
> Jakizue Jainkoa dela Jahve;
> hark egin gaitu, harenak gara:
> haren herri eta haren larretako artalde» (Sal 100,2-3).

Igandeko goiz otoitzak horrela dio.

Asko dira, goizoro, eguna eta eguneko eginkizunak Jainkoari eskaintzen dizkiotenak. Eskaintza hori ona izan daiteke. Baina, ez dugu ahantzi behar, gure egunak eta gure eginkizunak Jainkoarenak izango direla, ez esanagatik, ez eta asmoarengatik ere, baizik geure deia eta geure eginbehar futsezkoena betetzen dugulako.

Goizeko otoitza baino hobekiago egokitzen zaio, sarritan, gure bizimoldeari arratseko otoitza. Iluntzea barnebiltze garaia da: eskerrak emanez, barnean hausnartuz, barkazioa eskatuz, Bibliatik nahiz bestelako liburu batetatik irakurriz. Beren bizitzak elkartu dituzten ezkonduei, zerk galeraz diezaieke elkarrekin Jainkoari otoitz egitea, Jainko beraren begipean ezkondu direnez gero? Gaueko otoitz hori osatzeko, oso egokia deritzagu, aldez gertu dadukagun otoitzen bat esanez egitea (Ebanjelioko zatiren bat edo salmuren bat), eta beste zatiren bat nork berak asmatutako hitzez, bizpahiru hitz besterik izango ez bada ere. Lanaz itorik gabiltzanontzat, izan ere, eginda dauden otoitzak isiltasun giro gertatzen zaizkigu; eta geuron baitatik ateratako hitzek, berriz, otoitz osoa geure otoitz bihurtzen digute.

Goiz eta gaueko otoitzaz gain, otorduetakoa aipatu behar da. Otordu aurretik, jan-edariak bedeinkatzeko eskatzen diogu Jainkoari; ondoren, eskerrak damaizkiogu. Horrela, gure elkarrekiko otorduen eta abereen jan-edarien arteko aldea adierazten dugu. Ez dezagun galtzen utz, gure zabarkeriaz*, ohitura hori gure familian (*121*). Eta galdurik edo utzirik balitz, ezar dezagun berriro. Otoitz horri ezin eman zaio haurren otoitzaren itxurarik. Izan ere, haurrek dagite otoitz gurasoekin, eta ez gurasoek haurrekin.

---

zabarkeriaz: nagikeriaz.

Ikusi dugunez, meza saindua ez da lehenik, nork bere baitako otoitz isila egiteko (*247, 277-278*). Halere, meza garaian badugu isiltasun unerik ere; horietan —beti ere, egia esan, elkartearekin bat— geure bihotza Jainkoarengana geure baitako hitzez jasotzen dugu.

Gogo ihardunak ere, batera, esperientzia harrigarri eta berrikuntza aukera gerta daitezke. Baina, zer da gogo ihardunа? Egun batzuetarako ostatua eskatzen duzu komentu, abatetxe edo gogartetxe berezi batetan; han liburuak, isiltasuna eta Ebanjelioa ongi ezagutzen duen jendea, haruntz doana laguntzeko prest topatzen duzu. Gogo ihardunak egitea, honelakoetan aholkatzen da batipat: norbait bere bizikerak betetzen ez duenean, edota nor bere etorkizanari buruz aukera nagusi baten aurrean dagoenean.

Kontenplazio otoitza 254

Jainkoa gero eta hobeto ezagutu nahi duenak, Hari ezarriko dio bere gogoa. Belaunikatu, otoitz baten hitzak gogoeman*, hitzez-hitz hausnartu (*Gure Aita* dela, Salmuren bat dela), edo Ebanjelioaren lerro batzu nahiz bertuteren bat (pazientzia dela, laguntasuna dela) hausnartu, e.a. Horrela Jainkoarekin mintzo da. Gogoeta horretaz, argia, indarra eta maitasuna ateratzen ditu. Otoizbide horri «meditazio» edo gogoeta deritza. Nork esan otoizbide honi gizadiaren aurrerapenak, lurreko ontasun handitzeak zor diona?

Urte askoz, eguna joan eguna etorri, gogoeta otoitz hori egin dezana («gogoeta otoitzean *saia* dadina», esanen du otoizbide horri atxeki zaionak), halako batean, gogoeta eziñezko bihurtu zaiola konturatuko litzateke. Bere barnera bildu nahi, eta ezin. Eta ez da, otoitzik egin nahi ez duelako. Bihotzak Jainkoaren ondoan egotea eskatzen dio, gauzek duten jainkozko sakontasunaz arreta izatea eskatzen dio. Zenbaitetan lehorraldia* sumatzen du bere baitan: atsekabea eta iluna. Halaz guztiz, zerbaitek bere baitan otoitzean jarraitzeko eskatzen dio (*143*). Hauxe sumatzen du: bera ari baino gehiago, beste norbaitek eragiten diola. Inoiz Jainkoaren bakeak beteko du erabat (*255*). Horrelakoetan, gainez eginik bezala gertatzen da. Jainkoa bere ondoan duela sumatzen du.

Otoitz honetan gogoetari gutxiago zor zaio: atseden otoitza da. Gogoeta otoitzak kontenplaziora jotzen du. Gogoeta otoitzari luzaroan atxeki* zaiona, kontenplaziora helduko da. Maila honetara iritsiz gero ere, zenbaitek gogoetak eta buru-

gogoeman: pentsatu. **lehorraldia:** idor aldia. **atxeki:** eman, lotu.

tazio zehatzak adierazten jarraitu behar duela uste du. Ez da ohartzen halakoa beste otoitz mota batetan dabilela. Arimen zuzendari on batek laguntza handia eman liezaioke halakoari, hestuasun* eta sufrimen askotatik askatuz. Otoitzak atzera ez baino aurrera egin duela azalduko lioke. Ez dago ideiak eta hitzak nahitaez sortzen saiatu beharrik. Gizakia, laino-laino, Jainkoaren aurrean bait dago.

Otoitz mistikoaren bidea 255

Gero eta biziagoa den Jainkoaren hurbiltasun esperientziara daraman bidea ez du burutzen kontenplazio otoitzak. Kontenplazioa, noiz argitasun, noiz iluntasun —maitasun historia orok ditu bere gorabeherak—, gero eta errazago bilaka daiteke. Gero eta indartsuago, hauxe sumatzen du batek: ari dena, norbera ez baino Jainkoa dela. Otoitz mota honi otoitz mistikoa deritza. Ez gaitezen engaina. Izen horrek ez du adierazten nola-halako eta nahasi zerbait, Jainkoaren hurbiltasunaren, ahalaren eta maitasunaren esperientzia bizia baizik. Historiak adiarazten digunez, otoitz mistiko hori, sarritan, asper ezineko ekintza ongileren iturburu gertatu izan da. Horixe dakarkigu Isaiaren VI. kapituluak: Profetaren bizitza osoa eta prediku guztia ematen dituen esperientzia mistikoa kontatzen digu. Lerro horiek, ahantzi* ezineko une bat agertzen digute iruditan, liburu osoaren barne-iturri den unea: Isaia Jainkoaren aurrez-aurre dagoenekoa (*35*). Eta une hori kristau liturgikizun orotan berritzen da; izan ere, nola Ekialdean hala Mendebaldean, Eukaristi otoitz nagusiari, Jainkoaren esperientzia horren oihartzun den Saindu hitz hirukoitzarekin (saindu, saindu, saindu) eman bait zaio hasera (*322*).

Eliz historian zehar, hamaika gizon-emakume saiatu izan da, bizi izan dituen mistikazko esperientziak adieraziz. Batzuengan, Agustin, Gregorio eta Bernardorengan, esate baterako, halako otoizbide garaiek ez zuten ekarri, antza*, bigarren mailako beste fenomenu harrigarririk. Beste batzuek, ordea, Jesusen Teresak eta Gurutzeko Joanek, horrelakorik ezagutu zuten —ikusi ezina eta sentitu ezina bezalakorik—. Horrelako esperientziarik bizi izan duten mistikoek, oso gutxi mintzo dira horrelakoetaz (*149*). Etsirik* daude, funtsezkoa, hots, esperientzia horri berez dagokiona, ez datzala ezagugarri harrigarri horietan; hain zuzen, bigarren mailakotzat eta, inoiz, oztopogarritzat hartzen dituzte gertaera hauk. Dudarik gabe, ezagugarri horik garai eta tokian tokiko kulturari ere lotuak

hestuasun: hestutasun. **ahantzi:** ahaztu. **antza:** dirudienez. **etsirik:** uste osoa izan.

daude. Dena dela, indar harrigarririk ari dela adiarazten digute.

Mistiko handienek otoizbide garaien* bezala adierazten dutena, horrelako fenomenurik gabe agertzen da beti. Gauza arruntena bezala. Teresa sainduak liburu batetan adierazten digunez, arima zazpi gelatako gaztelu bat da (*Las Moradas* deritza liburu horri). Batak bestearen ondoren, beti erdirago garamatzate gela horiek, zazpigarrenera, Jainkoa, hots, Kristo bizi denera heldu arte. Jainkoa egongela guztietan nabari da; baina, gazteluaren erdi-erdira, gazteluaren bihotzera heltzean, Jainkoa norberarèn baitan* dagoelako sentimenduak bake osoz betetzen du mistikoa barne muinetaraino. Lurreko gauzen artean bizi da gizakia; baina miresgarriak gertatzen zaizkio horik: jabetzen bait da, Jainkoa dela gauza guztien bihotz adiaraezina*.

Jainkoarekiko esperientzia mistiko hori bakarkako esperientzia ote da beti? (*235*). Ez da mistikorik, lagun hurkoari maitasun zorrik ez diolakoan dagoenik. Gainera, bizitza mistikoa otoitz giro batetan loratzen da: bide beretik dabiltzan beste batzuen artean, gauza horietaz elkarrekin mintzo direnen artean.

Elkarrekiko extasi esperientziarik oso gutxitan kontatzen da. Halere, Agustin sainduak, bere *Aitorkizunak* liburuan, badakar horrelako bat: Ostian (Erromako itsas portuan), bere amarekin batera ukan zuen Jainkoaren esperientzia bizia.

Iturrietara igoz, Mendekoste inguruko gertakizunetan topatzen* dugu elkarte mailako esperientzia mistikorik (*150-151*). Bazkoaldiko Jesusen agerpenak, arras apartekoak izanik ere, ez dago mistikaren historiatik bereizi beharrik. Berbiztuarekiko harreman bereziki nabarmenak ziren agerpen horik (*138-139*).

Mistika eta saindutasun handia, hau da, daitekeen maitasunik handiena, ez doaz beti elkarrekin. Saindu askok ez du mistikarik ezagutu. Beste asko, berriz, hain saindu ez zena, oso mistiko izan da.

Otoitz mistikoa ez da Eliza katolikoarena bakarrik. Islamismoaren baitako mistikaz, ikus *Birrerospenaz** emandako kapitulua (*231*).

Bukatzeko, galde bat oraino*: mistika bidea irekirik ote jende arruntarentzat ere? Jende asko da, gizon-emakume asko, lehen begiratuan gauza harrigarririk nabari ez duena, ontasun handi bat besterik ez. Baina Jainkoak onar dezake halakoen otoitza, eta helaraz ditzake poz sakon eta garbira; hain zuzen, halakoak mistikaz mintzatzen ahal lirateke* izen hori

garaien: gorenekoen. **baitan:** barnean. **adiaraezina:** esanezina. **topatzen:** aurkitzen. **Birrerospen:** Redención, Redemption. **orain:** oraindik. **mintzatzen ahal lirateke:** mintza litezke.

ezagutuz gero. Dena dela, zer kontu du izenak, mamirik badago?

Sine dolore non vivitur in amore: «Ezin maitasunean bizi sufritu* gabe». Mistikaren gailur argitsuak ezagutzen dituena, zalantzaren eta, ozta-ozta*, etsipenaren ibar ilunak ere zeharkatu beharrean gertatzen da (*239-240*). Eta hain urrun joateke*, otoitz alaitasunaren muino* berdeak ezagutu dituena ere, ordeka* apal, hotz eta lainotsuak dastatu* beharrean gertatu da.

Otoitz egitea ez da patxarako joko polit bat. Maitasunari bere astindua zor zaio (*392*). Ez dugu pentsatu behar, astinaldi horik hain harrigarri direnik. Sarritan, guztiz arruntak dira: soil-soil atsekabea sentitzen dugu otoitzerako (eta halere, une berean, otoitz egin nahi dugu), ingurumariak ez gaitu haintzakotzat hartzen, zalantzak zirikatzen gaitu, edo arras lur jota sumatzen dugu geure burua.

> «Errekazulo ilunetan banabil ere,
> ez naiz ezeren beldur,
> hantxe bait zaitut nere ondoan» (Sal 23,4).

Salmuak 256

Otoizlariaren jarrera ugariak bildurik ikusi nahi lituzkeenak har bitza ehun eta berrogeitamar salmuak (*35*). Batzu Jainkoari zuzenduak dira; besteak Jainkoari buruzko gogoetak*. Intziri*, erregu*, pozaldi eta eskerron dira. Geure usteona aurkitzen dugu haietan, geure segurantzia eta, une berean, geure segurantzirik eza. Eta hori guztia, lehen aldian arrotz eta zahar agertzen den hizkuntzan (salmu zaharrenak orain hiru mila urtekoak dira!). Baina luzeago aztertzean, ia hitz eta irudi guztiak egungo gizakiari ere ezagunak zaizkiola konturatuko gara: laguntzen duen eskua, begira dauden begiak, poza dakarren argia. Gizonek idatzi duten guztian, olerki bilduma irakurriena dugu salmutegia. «Salmuen laguntasuna eta atsegina ukanen ez banitu, neure mixerian hilko nintzateke», esan zuen Joost Van den Vandel olerkariak.

Salmuak Jesus etorri baino lehen eginak ditugu; honek ez du esan nahi, guretzat baliogabeak direnik. Itun Zaharrean bertan ere, haien lehen esanahiak bere aldakuntzak ukan zituen; zabaldu eta sakondu egin zen hori. Jesusengan burutu egin dira salmuak, eta Haren bitartez iristen dituzte beren esanahi eta izate sakonenak (*134, 40*). Orain, Harekin, Haren-

---

sufritu: pairatu. **ozta-ozta:** ia-ia. **joateke:** joan gabe. **muino:** menditxo, gain. **ordeka:** ordoki, lautada. **dastatu:** probatu. **gogoetak:** pentsaketak. **intziri:** lamento. **erregu:** eskabide.

gan, Harenganuntz, Harengatik, Harengan pentsatuz, erreza ditzakegu. Entseia* gaitezen!

Salmuak esatean, gerta dakiguke, bertso batek edo bik bost minutu baino gehiago betetzen gaituela; beste batetan, berriz, segidan esaten ditugu, gelditu gabe. Denboraldi baten ondoren, bakoitzak bereziki gogozkoen zaizkiokeen bost edo sei salmu ukanen ditu; bere hitz bezala bilakatuko* zaizkio, Jainkoagana zuzentzeko.

Salmu asko elkarrekin esatekoak dira; «gu»ka mintzo dira. Eta egunoro, Eliza osoak errezatzen* eta abesten ditu salmuak elkartean. Honek hauxe gogoratzen digu: kristauak ez duela Jainkoagana jotzen gainerakoek bide berean parte hartu gabe (*235*).

Jaunaren eguna

«Lanik egin beharrik eza», jainkozko sentimendu bat da. Horixe da igandearen esanahia. Jai egiteko eguna; gizatarrago gareneko eguna; zergatik lan egiten dugun ikasteko eguna, Jainkoak ematen digunagatik eskerrak emateko eguna. Jainkoaren giroan arnasa hartzeko eguna da igandea. «Larunbata gizonarentzat da, eta ez gizona larunbatarentzat» (Mk 2,27).

Itun Berriko lehen urteetatik, kristauek Berbizkunde eguna aukeratu zuten «Jaunaren egun» bezala. Horrela, larunbat biharamuna, haien batzar egun bilakatu zen, eukaristia ospatzeko egun, eta geroago, orobat*, atseden egun, astialdi* bilakatu zen.

Eukaristi eguna **257**

Gaurregun ere, igandea hori guztia da guretzat. Horregatik kristauak, igandearen bihotz bezala, ordu bat hartzen du eukaristia ospatzeko. Igandeko mezaren garrantziaren ezagugarri, Elizaren agindu bat dugu; askok aitor lezake, noski, eskerronez, hain berezko duen Jainkoarekiko ihardueran agindu horrek eskaini dion laguntza. Astean ordubete ez da luzeegi, inola ere, bere bizia eta zoriona Jainkoagandik datozkiola sinesten duenarentzat. Igandeko mezatara behartzen zaituen *agindu* bat izateak ez du esan nahi, berez, gogoz eta maitasunez joaten ez zarenik (*244*). Agindua, sarritan, gure axolarik ezaren eta ikuspegi hertsiaren* kontrako babespidea* dugu.

entseia: entseiatu, saiatu. **bilakatuko:** bihurtuko. **errezatzen:** erraiten. **orobat:** baita ere. **astialdi:** atseden aldi. **hertsia:** hitxia. **babespide:** defentsa.

Askapide* gertatzen zaio kristauari, bakea emanen dion egintza betetzeko.

Halere, ezin neur daiteke besteren fedea erlijio praktikaren arabera. Gerta dakioke kristau bati, aldi batez, igandearen baliorik ez ikustea eta ez betetzea; horrenbestez ezin ipin dezakegu duda-mudan halakoaren kristautasunaren zintzotasuna. Gerta daiteke, adibidez, gazte batek utzi egin nahi duela ohiturakeria bat; eta mezatara joateko egiazko arrazoinaren bila dabil eta, garbi ikustekotan, zenbait igandez utzi egiten dio mezatara joateari. Gerta daiteke ere, mezatara ez joatea, Jainkoagan usteonik ez duelako eta bere burua Jainkoaren esku uztera ausartzen ez delako (*378*). Hainbat kasu gerta daiteke! Eliza berean bildurik ikusten direnekiko ezin ikusia, gehienetan arrazoin txarra izan ohi da. Zera uste bait da sarriegi: «Ni ez naiz hain gaiztoa; baina horik...!»

Eta zure seme-alabek, kozkortu* samar direnean eta halako batetan, igandean mezatara ez dutela joan nahi esaten dizutenean, zer egin? Galde honen alderdi orokorrena, «Predikuz dator fedea. Konbertsioa» eta «Hezketa: nor bere eskuko izaten laguntzea» direlako kapituluetan aztertu dugu (*186, 337*). Ohar araz iezaiezu patxara osoz, itsu-itsu izan nahi ez duzularik ere, arazoa gogotan hartzen duzula. Une berean ezazu gogoan, Jesukristoganako fedea ukaiteari buruz aske* direla eta ezin ezar daitekeela bortxaz*. Anai-arreba gazteagoak dituztenei, gazteagoez pentsatzeko esan dakieke; eta gehienetan, gogotik eginen dute hori.

Atseden eguna 258

Igandea jai eta atseden eguna dela agertzekotan, «zerbu lan» hitza asmatu zen. Horrela, egun horretan egitea zilegi ez ziren lanak adiarazten ziren. Eta «zerbu lan» horretara nekezko eskulanak biltzen ziren: aitzurrean egitea, burdingintza*, tresna astunen bat erabiltzea, etab. «Zerbu lan» hitza ez zaigu, egun, batere atsegin; baina kontutan hartu beharrekoa hauxe da: astean egun batez lan egitea eragozten* zuen Elizaren agindua, zinez* gizarte-babes zitzaiela esklabuei, morroinei, langileei.

Hain nekezkotzat ematen ez zen lana, marrazki lana, esate baterako, edo kontuak egitea, zilegitzat ematen zen.

Gaurregun, lanbide desberdin guztiok nahasiago hartzen ditugu, eta bata bestearen antzekoagotzat. Gagozkion arau honi: igandeko elkarte giroaren aurka doan oro baztertu egin behar da. Igandeko atsedena, hain zuzen, gizartearena, elkartearena da. Igandea ez da bakar-

askapide: askatasun bide. **kozkortu:** handitu. **aske:** libro. **bortxaz:** indarrez. **burdingintza:** burnigintza. **eragozten:** debekatzen. **zinez:** benetan.

dadean ospatzen, familian baizik, jendartean baizik. Zenbait lorategi lanek, oinetakoak lohiz bete arazten dituenek, igandeko giroa hautsi eginen du; beste batzuk, aldiz, ez. Eta haurrentzat, larrientzat* ezbezalako arauak ezarri beharko dira. Hondo-hondoan, geure zentzu onak eta besterenak markatuko du zilegi denaren eta ez denaren arteko muga.

Besteren zentzu onak? Besteren irizpidea* hartu behar ote dut kontutan? Bai. Zergatik ez, bada? Zentzugabekeriaren bat ezarri nahi ez ligukeen bitartean bederen; badira, izan ere, arazo honetan Testamentu Zaharraren uztarria ezarri nahi luketenak.

Honez gero, igandeari ez dagokiona egin bedi larunbatez.

Igandea, beraz, gure bizitza eta gure zoriona sakonki bizitzeko egun aukerakoa dugu. Goizeko mezaz gain, hitzaren nahiz bataioaren liturgiarik eskain diezaiguke, arratsaldean.

Igandea, egun aukerakoa dugu, baita liburu jator bat irakurtzeko, lagun bat ikusteko, senar-emazteek eta haurrek elkar aurkitzeko, elkarrekin ibilaldiren bat egiteko, etab. Igandez, aitak patxaraz entzun diezaioke bere alabari edo semeari. Edota emazteak arreta handiagoa egin diezaioke bere senarrari. Igandea ez da, nork berarentzat hartzen duen eguna: «Egun hau neurea dut, neurea bakar-bakarrik; ekar honera ene oinetakoak!» Horrela jokatu nahi duenak, zoriona hutsegingo du; guztia atsekabe izango zaio.

Igandea, aldiz, irekiago eta besterekiko arretatsuago* izateko eguna dugu. Astegunak ezbezalako indarra du igandeak; maitasunaz bereziki kutsaturiko eguna. «Maitasuna den lekuan Jainkoa da».

Betiko bizitzako hitzak

Bazkoaldiko agerpenek Jaunak gure artean gelditu nahi duela adiarazten digute (*139*). Horrela, Lukaren Ebanjelioan, bere hitzez esplikatzen ditu Liburu sainduak Jesukristo Berbiztuak. Bere hitzez ere, gure artean gelditu nahi bait du.

Testamentu bietan, Zaharrean eta Berrian, hor ditugu beti gure eskuera*, bai Haren ahots soinua, bai Haren Izpirituaren asmoa (*38-39, 159*).

Hitza, gure artean, Jaunaren ezagugarri eginkor* dugu: utzi dizkigun beste bizi ezagugarriak bezala, hots, sakramenduak bezala (hauk ere osatugabeak, hitzarekin izan ezik) (*198-201*). Horregatik, sarritan, «hitzaren sakramenduaz» mintzo ohi gara.

---

larrientzat: helduentzat, nagusientzat. **irizpide:** kriterio. **arreta:** ardura. **eskuera:** hurbil. **eginkor:** eficaz, efficace.

Beste zazpi sakramenduez esan genuen bezalaxe, Jainkoaren hitza ere Elizaren elkartean topatzen dugu. Hitz hori, beti, elkarteari loturik dago. Gogoeman* dezagun haserako Eliza: bihotz berogarri, lehen lekukoek* eskualdaturiko* Jesusen hitza zuen: «Honela *mintzo zen* Jauna» (*115*). Edo hobekiago, haiek arras bestela hartzen bait zuten hitza: «Honela *mintzo da* Jauna». Bizirik da. Eta esana duena, gaur esan nahi digula gogorazten digu bere Izpirituaz.

Batean eta bestean, prediku hori idazteari ekin zioten. Ahozko aldarrikuntzaz* gain, idazkiak hasi ziren hezur-mamitzen. Elkarteari zegozkionak ziren. Elkartearen baitan garatu* ziren. Eta zenbait urte beranduago, Jesusi buruz idazki sarrastari* eta heretikorik agertzen hasi zenean, Elizak erabaki egin zuen, sinesgarri ziren liburuak eskainiz. Testamentu Berriko «kanon» delakoa edo idazki zerrenda, egun ezagutzen dugunez finkatu* zuen. Hori, 150. urte inguruan gertatu zen (*160*).

Gogotan hartzen badugu, bada horretan gauza bitxi* bat. Aginpidez irakasten eta hitzegiten duen elkarteak, Bibliaz epai bat ematen du, Bibliari zer dagokion eta zer ez dagokion zehaztuz*. Nola dagi* hori? Zein liburu den sinesgarri aztertu duelako ote? —Bai. Tradizio horik arduraz aztertu ditu: horretarako gidari, Elizaren usario biziari eta tradizioari berari darien apostolutar jite* garbia hartu du (*157*). Baina, Elizaren hondo-hondoko ziurtasuna ez datza horretan. Azken irizpidea bere agintea du. Beste era batera esateko, halako joan-etorri* handiko erabakiak hartzean, Jesusen Izpirituak ez diola utziko sinesten du. Elizak, berariz* Eliza denez, batzar nagusiren batez, edo Keparen ondorengoren batez (baina behin ere ez gainerako loturarik gabe) hitzegitean, Jainkoaren Izpirituak ez diola hutsegingo sinesten dugu (*302-305*).

Orain bada, Eliza Izpirituaren izenean mintzo badaiteke, Biblia ez ote da alferrikako gauza? Ez. Elizak ongi daki, —eta Izpirituari jarraituz, hala erabakia du berak— Biblia duela bere zimentarri, bere epaile, bere gidari, izpi batez ere alde batera utz ez dezakeen Jainkoaren hitza.

Zer esan nahi du honek? Biblia dela Elizaren famili liburua. Liburua elkartetik at* hartuz gero, zailtasun handitan erori ohi da. Bizi-ez-biziko lotura hausten da. Erreformaren gaitza horretan datza. Elizari Biblia esplikatzeko berezko eskubidea (hau da, Jainkoaren Izpirituari esker sinesgarri de-

---

gogoeman: pentsa, gogoratu. **lekukoek:** testiguek. **eskualdatu:** transmitir, transmettre. **aldarrikuntzaz:** zabalkuntzaz. **garatu:** heldu. **sarrastari:** zaratatsu. **finkatu:** fijar, fixer. **bitxi:** arraro. **zehaztuz:** mugatuz. **dagi:** egiten du. **jite:** tankera. **joan-etorri:** garrantzi. **berariz:** espreski, bereziki. **at:** kanpora.

lakoa) ukatuz gero, kristauak banatu egin dira Jainkoaren hitza aditzeko eran. Horretatik dator hainbat erlijiokera, bakoitzak bere ulertzeko moldea duelarik.

Jainkoaren Hitza Eliza erreformatuetan 260

Gaiak garamatzalarik, ikus dezagun zelako garrantzia zor zaion Bibliari kristau Erreformatuengan.

1. Eliza katolikotik landa* ere, Bibliari ez zaio kendu indarrik. Jesusen hitz da beti ere, guretzako hitz kontsolagarri. Elizak, katoliko ez diren kristauen bataioa ontzat ematen duen bezalaxe, Jainkoaren hitza ere egiaz entzuten dutela irakasten digu.

2. Gauzak hotz-hotzean aztertuz, gauza bat dakusagu: Erreformak Biblia ez beste zerbait ere hartu duela. Besteren artean, eliz elkarte sail bat (hots, gogo oneko, Kristoren esanaren araberako gizaki sail bat) eta ahoz irakatsiaren zati bat hartu ditu: Erreforma, hain zuzen ere, ez da liburutegi soil bat. Horrelakorik esatea, nahasketa huts bat litzateke. Gazte protestante batek Biblia ez du topatzen*, ez liburutegi batetan, ez eta bidean zehar; ez datorkio ere eskuetara zerutik. Bere aitagandik edo artzainagandik datorkio: hitz batetan, elkarte biziagandik: Bai liburua bera, bai liburuaren ulertzea. Ez du horretan zertan lotsaturik. Alderantziz* baizik. Hauxe esan nahi du horrek: Eliza erreformatuetan, Kristoren hitza ez dagoela bizi eta mintzo den Eliz elkartetik etenik*.

3. Beraz, Erreformako Eliz elkarteak ez dira bizi Kristok eta Izpirituak utzirik, umezurtz bezala. Beti ere, aurreruntz eragiten diete kristau egiari eta ontasunari.

«Senide hauen kristau bizitza, Kristoren sinesmenaz bazkatzen* da, eta bataioaren graziaz eta Jainkoaren hitzaren predikuaz bizkortzen. Kristau bizitza hori, norberaren baitako* otoitzean, Bibliaren hausnartzean, kristau familiaren bizitzan, Jainkoa goresteko liturgi batzarrean, agertzen da» (Batikano II. Kontzilioa, Ekumenismoari buruzko Dekretua, 23. zenb.).

Honek zer esan nahi du? Garrantzizkoa Kristo dela, eta katoliko ala protestante izatea berdin dela? Aburu* hori, sarritan jaulkitzen* du kristau ez den zenbaitek: arazo hau erdizka bakarrik doakion zenbaitek, alegia. Bestelakori ere entzuten zaio hori sarritan: itxuraz bederen*, Bibliaren mezu osoa haintzakotzat hartzen ez duenari, alegia. Horrelako esa-

landa: kanpora. **topatzen:** aurkitzen. **alderantziz:** kontrakoz. **etenik:** bereizita. **bazkatzen:** janaritzen. **baitako:** barneko. **aburu:** pentsakera. **jaulkitzen:** botatzen, azaltzen. **bederen:** behintzat.

nik, gutxiagotan entzunen diegu bihotz-bihotzez Kristori atxeki nahi zaizkion kritauei (protestante nahiz katoliko izan). Kristoren hitzari egiaz adi zaionak eta egiaz haren Izpirituaren arabera bizi nahi duenak, honela dio berekiko: «Bai, guztien gain egia da, Jesukristo bat besterik ez dela». Kristoren hitza entzuten du besteagan. Alabaina, bien arteko alde bat badenaz ohartzen da. Batasuna ezin burutu da etenari begiak hertsiz*, gaindituz baizik. Gai honetaz luzeago mintzatu gara Elizaren historiari buruzko kapituluan (*175*).

4. Badugu oraino* zer esanik. Katolikoen elkartetik at bizi diren kristauek Kristo onartzeak, ez dezake lasai utz elkarte hori. Ezin gintezke egon, ezer gertatu ez balitz bezala, arbola lerden* bat hazten ari delakoan. Zauria, hutsunea hor dago. Kristau bizikera batzu katolikoen elkartetik at ari dira mamitzen. Elizaren zati batzu falta zaizkio, bazter utz ez ditzakeenak. XVI. mendean, Elizak, Lutero bere irakasle eta profeta ezin utzi izan zuen alde batera. Eta hutsune hori areagotu egin da, Elizak zenbait balio gutxietsi izan bait du Erreformak hain joan-etorri handiko ezagutzen zuelako bakarrik: esate baterako, Bibli izpiritualitatea, liturgiako desberdintasuna (tokian tokiko hizkuntza), fede gaietan nolabaiteko norberaren askatasuna eta erantzukizuna*, eta baita musika modu bat ere, protestanteen goratzarretan ikus daitekeenez.

Horrez gero, ez da mingarria, Erreformako Elizei Eliza katolikoaren egia falta izatea bakarrik; Eliza Katolikoak ere galdu egin du: Erreformaren egiak falta zaizkio. «Elizari berari zailago bilakatu zaio bizitzan bertan katolikotasunaren osotasuna bete-betean agertzea» (Batikano II. Kontzilioa, Ekumenismoari buruzko Dekretua, 4. zenb.). Garbi esateko ez dirudi, Eliza Katolikoa Erreformari eskua luzatzeko prest dagoenik. Guztiok elkarrekin haziz joan beharrean gara, Eliza Katoliko, hots. orokor* bateruntz. Ez noski. Kristoren egiaren ardoa urez hotzilduko* lukeen Elizaruntz. Baizik, berezkoak ez dituen tankera eta ikusmoldeak birpentsa litzan Elizaruntz (*178*). Helduko ahal gara noizpait elkarri egia aldarrikatzera* ezezik, batak besteagan hura ikustera ere, batak bestearena onartzera ere.

Badakigu, egia ez dadukagula kutxa batetan, giltzapean. Giroak berrituz doaz beti, eta Elizak, bera bizi deneko munduan Jainkoak duen ikusmoduaren bilaketa ez du inoiz burutzen. Eta beti ere, aro bakoitzean, Biblia bizitasunez beterik ageri da. Katoliko garenez dakiguna, hauxe da: bide zuzenetik goazela. Zuinak* zuzen ezarriak dira. Horixe da, mendez-mende Eliza gidatzen duen Izpirituagan dugun ustea (*302*).

---

hertsiz: hitxiz. **oraino:** oraindik. **lerden:** tente. **erantzukizuna:** errespontsabilitatea. **orokor:** oso, guztiekiko. **hotzildu:** indargabetu. **aldarrikatzera:** oihukatzera. **zuinak:** oinarriak.

Ikusi dugu, beraz, Kristoren hitzaren oihartzuna gure artean bi eratakoa dela: bata, Liburu Sainduen hitz bizia, eta bestea, elkartea bizi deneko Elizaren hitza. Noski, gauza tristea da, gai honi buruz kristauon artean den etenaz* mintzatu behar izana. Baina ezin baztertua dugu atsekabe hori. Jesus bera ere eztabaidan ihardun zen Bibliako arazoei buruz eta bere mandatuak zemaion* aginteari buruz. Baina joanen ahal gara bata besteagandik hurbilagotzen eta gero eta hestuago lan egiten. «Kristau guztien arteko elkar-lanak beren artean orain berton duten batasuna adiarazten du biziki, eta argiago ipintzen du Kristo zerbitzariaren aurpegia» (Batikano II. Kontzilioa, Ekumenismoari buruzko Dekretua, 12. zenb.).

Sektak 261

Oraino ez gara sektei buruz mintzatu. Nola Eliza Katolikotik hala Eliza errefomatuetatik at aurkitzen diren kristau taldeak dira horik. Ez dugu betarik*, mugimendu horietaz behar bezala hitzegiteko. Beraz, nahiago dugu, irakurlea horietaz ongi jabeturik agertu diren liburuetara zuzentzea.

Oharkizun orokor* bezala, sekta desberdinen alderdi nagusienetako bat ekarriko dugu: Biblia arras hertsi* ulertzen dute hitzez hitz (*40*); gainera, Bibliaren mezuaren* alderdi bat edo beste bakarrik hartzen dute gogotan. Beren itxaropena, sarritan, Jaunaren etorrera hurbil eta hotsandikoan* ezartzen dute (*64*). Mugimendu hauen jarraitzaile gehienak jende xehea ditugu. Oso talde txiki izaten dira gehienetan, eta apaizik ez dute: nornahik du hitza; berdinak dira guztiak. Talde batzuek, *Jehovaren lekukoek**, esate baterako, lehendik diren gizarte eta Eliz elkarteen aurkako joera dute.

Jehovaren lekukoez gain, *Zazpigarren egunzale eta etorrerazaleak*, *Mormonak* eta beste ezagutzen ditugu. Kristau izenik ez dagokion beste erlijio mugimendurik ere bada: *Kristau jakintza* deritzana, esate baterako.

Mendekoste mugimendua apartekoa da. Ezin deitzen ahal da, besterik gabe, sekta izenez. Sarritan, Elizen antzekoago diren taldeak dira, eta helburutzat Ebanjelioa zabaltzea eta aholkuak ematea dituzte Zenbaitetan, ekumenismo zaletasunik ere badute, sektei arras falta ohi zaiena.

Beregaineko* sekta hauk guztiak desafio handi bat gertatzen zaizkio Elizari; arinegi albora* ez dezakeena. Eliz elkarteetan sarritan falta zaiena bilatzen dute sekta horietakoek: esate baterako, elkarteko bizitza, kultuan benetan norberak eskuhartzea*, bihotz berotasun han-

etenaz: hausturaz. **zemaion:** ematen zion. **betarik:** astirik, aukerarik. **orokor:** jeneral. **hertsi:** hestu. **mezu:** mensaje, message. **hotsandiko:** zaratatsu. **lekukoek:** testiguek. **beregaineko:** independiente, independant. **albora:** alboratu, baztertu. **eskuhartzea:** parte-hartzea.

dia, hildura* sena*. Norbaitek esana du, sekta hauk, Eliz elkarteei ordaintzeko aurkezten zaizkien kontu-ageri atzeratuak direla. Elizar mendez mende ageri diren ohiturakeriaz eta ikuspegi hertsiaz erreminduriko jendea da. Sekta berrien sortzaileek besteengandik banatzean aurkitzen dute irtenbidea, taldetxoetan. Hori ote da, ordea, bide emankor* eta bizi berria sortzekoa? Erantzunen baten bila, gogoeman* ditzagun une batez erlijioso elkarteak eta beren iturburua Ebanjeliozko aholkuetan* duten taldeak (*179*) (Ikus «Ebanjeliozko Aholkuak» kapitulua). Horietako lagunek elkarrekin eta denak berdin direlarik bizi nahi dute Jainkoaren aurrean. Erlijiosoak ez bait dira ezkontzen, inor ez da bilakatzen erlijiosoen ordenan anaia edo ahizpa jaiotzez edo tradizio batez, dei eta onbideratzez baizik. Horra, beraz: erlijioso elkarteek, zeinek bere izpiritubide* bereziaz, Jaunaren mezuan beti gisa* berrian eta bizian eta elkarte txikietan bizi ahal izateko aukera ematen dute. Jainkoarekiko eta gizakiarekiko uste mugagabeak, molde berezi bat eta bizitzeko aukera topatzen du, elkarte horietan.

Elkarte horiek, kristau guztien egunoroko bizitzaz argiturik, berrituz joanen ahal dira etengabean nork bere aitzinako gaztetasunari eutsiz. Horrela izanen dira Jainkoaren legami Elizaren bizitzan. Horrela izanen dira kristau guztientzat dei, aroan* aroari dagokion eran, Jerusalengo lehen elkartearen prestutasuna eta poza bizitzera deituz.

Hitza, garai guztietako gizakien ogi 262

Jainkoaren hitzaren esanahi orokorraz, Eliz irakasgoak* adiarazten duenez ihardun gara. Oraino galde bat gelditzen da Bibliaren esanahiaz: zein da Jainkoaren hitzaren balioa, niretzat, egun* eta hemen?

Hain da zaharra Biblia! Hain arranditsua* du bere hizkuntza, non urruneko* gauza iruditzen bait zaigu. Nola topa hor egun guri mintzo zaigun eta beti gazte den Jesusen mintzoa?

Hemen ere, gure lehen erantzuna dugu: elkartearen bidez. Batzarrean esplikatzen eta hausnartzen da hitza, ogia zatitzen eta banatzen den bezalaxe. Oraindik orain asmaturiko hitzez, gaurko hitzez, Jainkoaren ahoa mintzo da behin eta berriz. Jesus da Elizan berriro mintzo zaiguna.

Jainkoaren hitzaren azalpen honek, hauxe adiarazi du, esate baterako. Testamentu Zaharra bera Kristoren etorrera gertatzen ari zela; betetasuna han bertan zegoela (tulipanaren tipulan bertan lorea badagoen bezala). Horrez gero, Testa-

hildura: mortifikazio. **sena:** joera. **emankor:** fecundo, fécond. **gogoeman:** pentsatu. **aholku:** kontseju. **izpiritubide:** espiritualidad, spiritualité. **gisa:** era. **aroan:** garaian. **irakasgoa:** magisterio, magistère. **egun:** gaur. **arranditsu:** solemne, solennelle. **urruneko:** urrutiko.

mentu Zaharraren kontakizunak Kristoren egiteen sinbolu bezala har ditzakegu. Jesusek berak, askotan adiarazten du hori. Elizari ere atsegin zaio horrela hitzegitea (xehetasun handiago nahi lukeenak, ikus beza «Bibliaren esanahi izpirituala» deritzan atala).

Horregatik, kapitulu honetan, *Jainkoaren* hitza esateko *Kristoren* hitza esan ahal izan dugu (Ikus «Betiko Bizitzako Hitzak» kapitulua). Kristo etorriz gero, Biblia guztia, Testamentu Zaharra barne, Jesusen hitz bilakatu da. Testamentu Zaharrean urruneko, zahar eta material zena, sakondu egin du Hark Berrian, hurbileko eta izpiritual bihurtu du. Basamortuko manak Kristok gure alde eskainitako gorputza idarokitzen* du; agindutako lurraldeak, egiten digun agintzaria* aldarrikatzen du; brontzezko sugea, gizadia sendatzen duen Jesusen heriotzearen sinbolu gertatzen da. Horrela, predikuak Testamentu Zaharra arakatzen* du, guretzat berri, hots, egungo bihurtzekotan.

Argi eta garbi esan behar da, Testamentu Zaharrari ematen zaion esanahi berri hori, izpiritualizazio bat dela. Beti kontutan hartu ez den gauza da hori. Esate baterako, Testamentu Zaharreko gerrak gureen sinbolutzat eman ohi ziren. Testamentu Berrian, alabaina*, beste borroka honetaz ari gara: ez gure haragiaren eta odolaren aurka dagigunaz, geure baitan eta besterengan «ilunpeko indarren» aurka dagigunaz baizik (*40*). Hondo-hondoan, borroka hau adiarazten dute Testamentu Zaharreko guduek. Zenbaitek, Kan-en eta honen seme nagusi Kanaan-en kontrako madarikazioa, hitzez hitz eta materialki har zitekeela uste izan du. Bibliaz ongi eskolaturiko esklabu merkatari asko, bertso honetaz baliatu izan da: «Madarikatua Kanaan! Bere morroinen morroin izango da» (Gn 9,25). Baina, Testamentu Berriak zioenaz ahantzi* egin ziren: guztiok bekatuaren menpe gaudela, baina guztiok graziaz salbatuak garela; Kristorentzat ez dela ez esklaburik ez eskukorik*, kreatura berri bat baizik. Beraz, Testamentu Berria bide dela, Biblia osoa bilakatzen zaigu Kristoren mezu. Hiltzen duen hitz hutsa izpiritu bilakatzen da (gai honetaz irakur bedi gogoeta zail baina bizi-bizi hau: 2 Kor 3,6-18).

Haatik*, Testamentu Berria bera ere —bitxien* iruditzen zaigularik ere—, etengabean berriztatu behar dugu, egungo eta gure hurbileko bihurtuz. Testamentu Berrian ere, hiltzen duen hitzari atxeki bait gakizkioke. Ebanjelioa hotsegiteak, zati eta lerro bakoitza guri dagokigula agertu behar du. Elbarri bat sendatzen da: zer da hori guretzat, egun? Jesusek berak idarokitzen digu, sendakuntzaren une berean, perlesi

idarokitzen: bururatzen. **agintzaria:** promesa, promesse. **arakatzen:** aztertzen. **alabaina:** halere, ordea. **ahantzi:** ahaztu. **eskuko:** libro. **haatik:** hala ere. **bitxi:** arraro.

sakonena gure baitan sendatu nahi duen bekatua dela. Horretarako etorri da. Gutaz dihardu (*81*).

Bibliako orrialde bakoitzean, goiz edo berandu hauxe aurkitzen dugu: gutaz dihardu, esan dezakegula. Adan, neu naiz; Noeren familia, aintzira* ondoko apostoluak, geurok gara; Jesus bera bezala, Kalbario eta biztuera bidean gara.

Jainkoaren hitzak, horrela, piskana-piskana, geuron bizitzari Jainkoaren begiz begiratzen irakasten digu, sakonera begiratzen: une berean seguru eta arriskuan gara, bekatari eta maitagarri, graziaz beteak.

Baina predikuak ezin hotsegin du indarrez Bibliaren mami sakon hori, une berean aitzinatean* gertaera batzu egiaz gertatu zirela baieztatu* gabe (*33*). Horixe da, hain zuzen, lehen predikua: haserako kerigna (ikus «Jesusi buruzko ahozko aitorpen zaharrena» deritzan kapitulua [*159*]). Kristau fedea ez da mito bat; bestela esan, ez da giza bizitzari buruz egia sakonez beterik litzatekeen ipuin edo kontakizun bat; historia barna gertaturiko gertakizunak dakartza Bibliak. Egun batez gertaera haik gertatu zirelako, guri egiaz dagokigun zerbait adiarazten digu Bibliak. Jainkoa historian agertu delako, adiarazi ezin dugun zerbait hori kontakizunaren hitzetan beraietan dator (*33*). Eta gure interpretazioak Bibliaren beraren tirabira, bizitasuna eta mugimendua zein eta leialago onartu, hain eta argiago agertzen dira aitzinako gertaeretan, hauen gaurko balioa guretzat eta hauen historian gertaturikoak izatea bera (besteri eman ezineko esperientziaren zatia, alegia) (*157*).

Jainkoaren Elizaren ardura Hitzari buruz *(302)* 263

Bistan dago, Bibliaren azalpenaren hitz bakoitzak ez duela Eliza osoaren berarizko* atxekitasuna* eskatzen. Baina, Elizak ardura handia ipintzen du interpretazio ofiziala irakasgoarekin* bat joan dadin. Honako baldintza hauk eskatzen ditu: liturkizun* batetan Jainkoaren hitza aldarrikatu* nahi duenak tokiko gotzainaren baimena ukan behar du (*302*): hau da, toki jakin batetan, apostoluen ondorengo denarena. Gainera, diakonu edo apaiz izan behar du. Halere, kristau batek, mandatu ofizialik gabe, erretorearen erantzukizunpean* prediku bat egitean ez dago lege hausterik. Hierarkiarekiko* eta, horrez gero, Eliza osoarekiko lotura hori babes bat zaio kristau herriari: Jainko Izpirituaren kontrako liratekeen Bibliaren azal-

aintzira: lago. **aitzinatean:** aspaldi. **baieztatu:** egiztatu. **berarizko:** expreso, esprimé. **atxekitasun:** adhesión, adhésion. **irakasgoa:** magisterio, magistère. **liturkizun:** liturgiazko elizkizun. **aldarrikatu:** hotsegin. **erantzukizun:** ardura, erresponsabilitate. **hierarkia:** eliz agintariak.

penetatik gordetzeko babes. Gotzainek arazo honetan egundoko erantzupidea* dute (*297*). Apaizek eta diakonuek emandako azalpenak bide gidari izan behar du, Hitza aldarrikatzeko bide arruntagoetarako: liburuetan, aldizkarietan, ikasaldietan, teologi taldeetan, laikoen artean eta katoliko ez direnekin ukan daitezkeen elkarrizketetan; Biblia bere kontura irakurriz fedean sakondu nahi duenak ere, hura hartu behar du gidaritzat.

Baina, kristau batek, Biblia liturgi girotik at irakurtzen duenean ere, dela familian, dela komentuan, dela batzar batetan, dela bakar-bakarrik, konta dezake Izpiritu Sainduaren laguntzarekin. Mezuaren hildo* nagusiei buruz, fededunak badaki, Izpirituz beterik dagoen Elizaren elkartearekin bat datorrela. Gure egunoroko bizitzarako Jainkoaren hitzak duen esanahiaz, berriz, honetan egon gintezke uste osoz: geure aldetik Biblian bila gabiltzanean, Jesusen Izpirituak argitu eta berotu nahi gaituela, alegia. Ez gintezke beldur izan Jainkoaren hitza geure buruari egokitzeko. Gaur gainditua dugun erlijio irakaspide bat, bilaketa edo azterketa libroaren kontra (mezuaren hildo nagusienak Eliz elkartearen agintearekin kontatu gabe interpretatzearen kontra) hain gogor ihardun zelako, kristau bat baino gehiago dago Jainkoaren hitzaren putzutik ura ateratzera ausartzen ez delarik: bere buruaren kontsolabiderako eta izpirituzko adiera hoberako ere ez bait da ausartzen bere aldetik ulertzen. Baina, uste hau behar dugu: gure ulerpena guztizkoa ez izan arren, hor aurkitzen dugunak indartu eginen gaituela.

Egun, aldizkari eta liburu ederrik asko ari da agertzen, Bibliaz eskolatzeko. Hasera ez da guztiz atsegina izanen; baina, ondorioa sarritan bake handi bat izan ohi da.

Hitza eta elkartea 264

Biblia fedez irakurtzen duenak, elkartea aurkitu egiten du. Hitzaren ondorio nagusienetako bat, hauxe da: elkartu egiten gaitu. Mendekoste egunean bertan, Jesusen Izpirituz (hain zuzen ere, Babelgo dorrearen kontakizunean adiarazten denaren kontrakoz) Kepari atera zitzaion hitzak hiru mila lagun bildu zituen (eta zenbat herritakoak gainera!) (*149*). Elkartzeko indar hori gaurdaino gorde du Jainkoaren hitzak. Kristauok ez dugu entzuten, nork bere baitako*, bihotzeko ahots isila bakarrik; gu guztiongatik batzarrean dagoen Norbaiten ahotsa entzuten dugu (*94, 235*). Eliza osoak, nahiz en-

erantzupide: erantzukizuna, arduratu beharra. **hildo:** bide. **baitako:** barneko.

tzule den parrokiak, elkarrekin liturgia ospatzen duen komentuak, eta arratsean Bibliaren orrialde bat elkarrekin irakurtzen duten senar-emazteèn elkarte txikiak ere: denek dakite, hitzak elkarganatu egiten dituela, Kristorekiko eta elkarrrekiko maitasunean.

Honek ez du esan nahi hitzak berberez* diharduenik. Bada zenbait kristau, hitza aztikeria gisan* erabiltzen duenik; horrelakoei, Biblia aipatuz gero, aski zaie; edota, jendeak Biblia erosten jarraitzen duen bitartean, dena ongi doa.

Baina, ez! Biblia elkartearen liburua da. Horrek hauxe esan nahi du: Hitzak berea egin ahal izateko, elkarte bat behar dela, nabasitasun* bat, giza lotura bat.

Jainkoaren hitza ahotan hartzean, izan behar du elkartasunen bat, batasunen bat. Gertatzen da, bakarrik bizi den zahar batekin elkartzen zaituen solasalditxo* bat, euriaz edo giro onaz delarik ere, Jesusen Izpirituaz beteagoa dela, une hartan bapatean bota zenezakeen Bibliako esaera jatorra baino. «Tontoaren ahoko esanik ez da ondo hartzen, garai egokian ez bait daki esaten» (Es Za 20, 22). Baina badira, zuzen-zuzenean harturiko hitz kontsolagarririk esan dezaketenak ere eta egiaz diotelarik gainera. Une horietan, hitz hori benetan lasaigarri gerta daiteke. Horrela, Jainkoaren hitza kristau askoren ahotan bizi da. Erori eta bere lana egin arte lurrindatzen* ez den euriak bezala, kristaua hazi eta bizi-berritu egiten du.

Aipa ditzagun hemen zirtolariei* buruzko Erasmoren hitzak: «Bada egun zenbait jende, zirtolari agertu nahirik, misterioz beteriko hitzez izkirimiri arinik egin nahi duenik. Jokabide horrek, jendetasunik ezaz gainera, erlijio izpiriturik eza adiarazten du».

Hitzaren liturgia 265

Ezin amaitu dugu kapitulu hau hitzaren liturgiaz zerbait esateke*. Egon, liturgian bait dago hitza elkarteari lotuenik. Bada hitzaren liturgiarik Eukaristiatik at ere: otoitzez, kantuz, irakurgaiez, azalpen edo homiliaz osatu ohi dira horrelako liturgiak; horrela, hurbilago egiten zaigu Jainkoaren hitza (*121*).

Baina kristau guztientzat den Jainkoaren hitzaren liturgia ofiziala, mezaren haseran egiten dena da. Bazko afaria oroitzapen* bat zen, bildotsa jaten zelako, eta Israel Egipto-

berberez: bere indarrez. **gisan:** moduan. **nabasitasun:** elkarrekiko irekitasun. **solasalditxo:** elkarrizketatxo. **lurrindatzen:** lurrin bihurtzen. **zirtolari:** humorista, humoriste. **esateke:** esan gabe. **oroitzapen:** gogorapen, oroitze.

ren eskupetik askatu zeneko historia kontatzen zelako ere bai (ikus «Azken Afaria» kapitulua); orobat* egun: Jainkoak gure artean burutua* gogoratuz, mahain liturgiaren* aurretik hitzaren liturgia egin ohi dugu.

Hitzaren liturgia hori honela egiten da: kantuz eta otoitzez osaturiko sarreraren ondoren, bi irakurgai edo gehiago datoz. Azken irakurgaia, beti, Ebanjelioa izan ohi da eta zutik entzun ohi da («Ebanjelioa» = Berriona) (*115*). Beste irakurgaiak Bibliako beste liburuetatik hartu ohi dira (sarritan apostoluen eskutitzetatik; hortik datorkie «epistola» izena irakurgai horiei). Irakurgaien artean, salmu baten zatiren bat edo beste kantatu edo irakurri ohi da.

Hitzaren bidez eginiko Jainkoaren egintzen oroitzapen hori ez litzateke osoa izanen egintza hori gure artean nola jarraitzen den aurkitu ezean. Horregatik, Ebanjelioaren ondoren, berehala, irakurgaien azalpena izan ohi dugu: sermoia edo homilia.

Hau guztia, irakurgai eta homilia, Eukaristiaren lehen gailurra* da. Orok aditzera deitzen gaitu. Isiltasuna hauts lezakeen guztia (txanpon hotsa, adibidez), une horretan, Eukaristi otoitzaldian bezain arbuiagarri* da. Entzutea lan bat da. Jainkoaren egintzaren oroitzapena egitea eta gu horren baitan aurkitzèa, ez da jasaiten* den gauza bat, datorrena datorrela entzuten den irratiko emanaldi bat bezala. Pazientzia eta fedea behar ditugu. Bestela, predikari iaioren bat bakarrik litzaiguke entzungarri. Behar dena, ordea, hauxe da: homiliari bere zukua* ateratzen jakitea, apaizik arruntena eta etorri txikienekoa baldin bada ere. Zuretzat mintzo da, zure ustez arruntègi bada ere, goregi jotzen badu ere edo lur axalean gelditzen bada ere. Bere belarriak eta bere bihotza irekitzen dituenak, Jauna mintzo zaiola entzuten du.

Igandeetan eta jaiegunetan *kredoa* edo gure fedearen aitorpena kantatzen edo esaten dugu (*53*). Jaunaren hitzari gure erantzuna ematen diogu horrela.

Ondoren, hitzaren liturgiatik mahain liturgiara igarotzeko, herriaren otoitza dator: Jainkoaren aurrean, gizadiaren eta batzarraren premiak aurkezten* dira.

---

orobat: berdin. **burutua:** egindakoa. **mahain liturgia:** Mezaren bigarren partea. **gailurra:** tontorra. **arbuiagarri:** kentzeko. **jasaiten:** sufritzen. **zukua:** mamia. **aurkezten:** agertzen.

Eukaristia

(Ikus «Azken Afaria» kapitulua)

«Ene oroitzapena*» 266

Sarritan gertatu den gauza da: kristau elkarteak, hanarteko* eliza txiki batetik eliza berri handira igarotzean, pozarekin batera tristura sentitu ohi du. Berria ederrago, zabalago eta sendoago da. Inork ez luke nahi kultu leku zaharrera itzultzerik. Haatik*, eliza koxkor hark, agian zurezko txabola zenak, bazuen gauza berezi bat. Ez zen han aberastasun handirik; baina esan zitekeen, han gertatzen zenaz arreta ukaiten errazago zela.

Baina, zer gertatzen da aldarean? Ba, Jaunak berak behin batean egin zuena. Meza sainduaz esan daitezkeen guztietan, horixe da lehen gauza. Elizak, Jaunak egin zuena bera dagi. Saldua izan zen arratsean, hartu zuen ogia bere eskuetan: mahainean zegoen ogia, alegia, Bazko ogia. Eta eskerrak eman eta bedeinkatu ondoren, zatitu egin zuen eta banatu, honela esanez: «Har ezazue eta jan guztiok honetatik. Hau ene gorputza da eta». Era berean, ardoaren kaliza bedeinkatu zuen eta edateko eman zien, esanez: «Har ezazue eta edan guztiok honetatik; hau ene odolaren kaliza da eta. Itun berri eta betikoaren odola, zuentzat eta guztientzat bekatuak barkatzeko isuriko dena».

Elizak gertakari hori berritzean, garrantzizkoena ez datza Kristoren hitzak zehatz-mehatz berriz esatean; Jaunak ez digu aztikeriazko* hitzik utzi. Hain zuzen, Bibliak lau bider dakarzkigu Afariko hitzak, eta lau horietan zerbait aldaturik datoz. Egungo Elizak misterio hau bosgarren hitz molde batez ospatzen du: eta Bibliako lau testuekin bat eginez. Baina esanahia, bost era horietan, bat bera da. Azken Afariaz lehenago hitzeginak gara, *Kristau Bide* honetan. Oraingo honetan, gaurregun Elizan nola ospatzen den azalduko dugu.

Azken Afarikoan Jesusek agindu hauxe eman zuen: «Hau egiten duzuen bakoitzean, egin ene oroitzapenetan». Hitz hauek, behin Jaunak egindakoa, Elizak gaur, egiteko duen arrazoin futsezkoena* ematen digute; Jaunaren oroitzapenetan egiten du, Jaunagan pentsatzeko. Misterio honetarako lehen eskolatzea, horretatik hasten da. Esate baterako, eman dezagun zure seme-alabaren bat lehen komuniorako gertutu behar duzula, edota dotrinakoan zerbait adiarazi behar zaiola, eta galderen bat egiten dizula. Erantzuterakoan, hauxe

oroitzapena: memoria. **hanarteko:** ordura arteko. **haatik:** halere. **aztikeriazko:** magiazko, sorginkeriazko. **funtsezkoena:** nagusiena.

behar duzu buruan: haur batek ez duela gauza guztiak ulertu beharrik komunioa egitera joan ahal izateko. (Kristautasunaren haseran, eta gaur bertan Ekialdeko zenbait Elizatan, amaren besoetan diren haurtxoei eman ohi zaie Jauna). Misterio honen muinera apurka-apurka sartzen da kristaua.

Bai; baina misterio honen lehen ezaguera nondik nora eman haurrari? Soil-soil, Jaunak *egin duena kontatuz* (*124-127*). Apostoluekin egindako Jesusen azken Afariaz, ogiaz, ardoaz, Jesusen heriotzeaz, Haren igande goiz batetako Berbizkundeaz mintzatuz. Apostoluak ere, Afaria ospatzeko eta Jesusen heriotze-bizkundeak hausnartzekotan*, igandeoro biltzen zirela kontatuz. Eta gaur ere, kristauok gauza bera egiten dugula esanez. Horrenbestez, giharra, muina kontatua duzu.

Esanahi ugari 267

Itzul gaitezen berriro larrien* mundura. Egia esan, Jainkoaren misterioaren aurrean, denok, gu ere bai, haur batzu besterik ez gara. Gauzak egiten ditugu, bai; baina bizi dugun misterioaz erabat jabetzeke* bizi gara. Eukaristiaz gogoeta luzeak egin dira, asko hitzegin eta idatzi da; baina, beti, alderdi berriak gelditzen zaizkigu argitzeko. Eukaristia, fedearen misterio nagusienak biltzen direneko erdigunea* dugu. Ez da harritzekoa, beraz, Elizaren historiaren aro bakoitzean, ezin errazago den keinu honetan baliotasun berriak aurkitu izana: kristauen arteko batasuna dela, Aitari egin eskerrak direla, oparia dela, Jesusen prèsentzia dela. Oraino bada noski izkutuko zaigun altxorrik*. Jesus, bere misterio handienean, beti berria da.

Elizak dohain hori banatzeko eta gordetzeko mandatua hartu du. Uste osoa du, Jainkoaren Izpirituak ez diola bidea galtzen utziko. Hain zuzen, mendeetan zehar, Kontzilio asko mintzatu izan da arazo* honetaz (*302*). Elizak ez zuen orduan, egia, behin betirako, zenbait hitzetara mugatzeko asmorik. Hauxe zen egiten zena: garai hartan errakuntza* zehatz eta jakin baten kontra, kristau eta ebanjeliozko balio jakin batzu formula baten bidez zaindu. Halako formularioak ongi ulertzekotan, hauxe ukan behar da beti gogoan: «*Zein kristau balio, zein ebanjeliozko balio zaindu nahi zen halako garaian?* Eta balio horik egungo geure hizkeran ematen saiatu behar dugu.

---

hausnartu: pentsatu. **larrien:** helduen, nagusien. **jabetzeke:** jabetu, konturatu gabe. **erdigune:** muina. **altxor:** ondasun, tesoro, trésor. **arazo:** gai. **errakuntza:** error.

Halako formulazioak noiz eta nola sortu ziren jakitea oso garrantzizko da. Horregatik, fedezko egiaren bat gaurregun orain arte ezbezala adiarazia ikustean eta, batez ere, aitzina lehen mailan ematen ziren alderdiak gaur beste era batera antolatzen direla konturatzean, fededunak ez daduka zertan kezkaturik. Hona adibide bat: Kristau Dotrina zaharrek, «Jesusen egiazko presentzia» ematen dute Eukaristia emateko Kristok zukeen lehen arrazoin bezala. Jesusen heriotzearen oroitzapena horren ondoren zetorrena, gure janari izan nahia, eta laugarrenik, opari bat guri uztekoa. Hori zen, esate baterako, 1910eko Holandako Kristau Dotrinak zekarren arrazoin soila. Aldiz*, 1948koak, egiazko presentzia azkenean ematen zuen. Ez du esan nahi horrek egiazko presentzia ukatzen denik. Ez eta urrutitik ere. Hara: gaur Elizak, alderdi hori aparte hartzeari ez dio lehen hainbateko garrantzirik ematen. Orduan, agian*, beharrezko zen hori, zenbait herejiak egiazko presentzia ukatzen zuelako. Egun, egiazko presentzia aparte hartu ordez, nahiago dugu misterioaren osotasunean hartu. Hau guztia kapitulu honen amaian* argiago geldituko delakoan gaude (*274-276*).

Eukaristi liturgiaren egitura* 268

Sarrerako oharkizun* hauen ondoren, ikus dezagun Eukaristia zer den. Lehenik, esan dezagun zerbait ospakuntzaren egituraz. Eukaristiaren beraren, hots, «mahain liturgiaren» aurretik, beraz, beti Hitzaren liturgia dator (honen aurreko kapituluan aztertu duguna) (*265*). Eukaristiaren liturgia hiru zatiok osatzen dute: eskaintzak, eukaristi otoitz nagusiak (kanonak) eta komunioak.

Baina egiaz, bi zati dira bakarrik; eskaintza Eukaristi otoitzerako gertuera besterik ez bait da. Eskaintzakoan, meza emailea eta Kristau herria, nor bere aldetik ari ohi da, nolarebait esan. Apaizak ogi-ardoak gertutzen ditu, eta eskuak garbitzen. Bitarte horretan, batzarra eskeari begira dago. Hau guztia nahasi samarra da, baina ez da oso gaitza. Hitzaren liturgiari darraion isiltasunaren eta gure arreta zor diogun Eukaristi otoitzaren artean, itxoinalditxo batek bidezkoa dirudi.

Lehen, eskaintzaldi hori Jainkoari geure buruaren eskaintza egiteko une berezi bezala aurkeztu ohi zen. Baina, egiaz, eskaintza hori eukaristi otoitzerako gertuera bat besterik ez da; eukaristi otoitz hori bait da egiazko eskaintza, bai Kristorena eta bai gurea Kristorengan. Une hau norberak, bilduta eta lasai, otoitz egiteko dugu. Oporigaiok aipatzen dituen otoitz batek betetzen du eskaintzatik kanon edo eukaristi otoitzerako bidea.

---

aldiz: kontrakoz. **agian:** beharbada. **amaian:** azkenaldian. **egitura:** estruktura. **oharkizun:** ohar.

Kanon edo eukaristi otoitz hau, agur batez eta abesti batez (prefazioaz) hasten da. Prefazio hori, berriz, «Saindu, saindu, saindua» abestiaz bukatzen da. Azken abesti honek, Isaiaren ikusketa* handia gogoratzen digu (ik. Is 6) (*255*). Ekialdeko eta Mendebaldeko liturgikizun guztietan erabiltzen da abesti hau; guztiok hondo-hondoan behar genukeen jarrera* adiarazten du; sakon-sakoneko begirunea*.

Eukaristi otoitz honek bere baitan, eskerrak ematea, eskaintza eta komuniorako deia daramatza. Erdi-erdian, saldua izan zen arratsean *Jesusek egin zuenaren kontakizuna dator. Kontakizun hori hitzez hitz* hartu da. Eliza honetan dago: une hori ospakuntzaren* gailurra delakoan. Isiltasunik handiena egin ohi du jendeak. Orain zenbait urte, *Aitaren* egin ohi zen une horretan eta bularra jotzen; inondik ere, une horretan zerbait egiteagatik. Gaur, soil-soil, begiak aldareruntz zuzentzen ditugu. Kristau askok, isilean, Bazko ondoko igande arratseko Tomasen hitzok berritzen ditu: «Ene Jaun eta ene Jainko!». Esan litezke ere, Kalbarioan esandako hitzok: «Hau egiaz Jainkoaren semea da!» Edota, isil-isilik egon. Jarrera, beti, hauxe da: Hartaz gogoratzea. Une hau bereziki saindu eta aparta da. Baina Kanon guztia dago saindutasun horrek kutsaturik.

Kanona amaiturik, *Gure Aita* dator, Jaunaren otoitza. Kristoren gorputza jaten eta Kristoren odola edaten den parterako sarrera da; *Komunioa* da, Jaunartzea, hau da, Jaunarekin bat egitea. Honen ondoren, otoitz bat eginda, meza amaitu egiten da, agur batez eta herria bedeinkatuz. Agur horri *missio* edo *missa* zeritzan. Horretatik dator eukaristi liturgia osoari ematen zaion izena: *Missa* edo *Meza.*

Orain arte, gainez gain, Mezaren liturgia nola egiten den azaldu dugu. Xehetasun gehiagorako, ospakuntza bera duzu.

Mezaren zati berezienak ikusteak ez digu, egia esan, gauza handirik agertu. Baina, beren batasunean zer adiarazten digute? Zein da haien funtsezko* tankera, osotasunaren oinarrizko ideia? Batzarra ote da? Ala otordua? Ala beste zerbait? Has gaitezen ikusten eta entzuten dugunetik; saia gaitezen horrela meza zertan datzan, zein den mezaren tankera eta muin berezia ikusten.

Oroitzapenerako bildurik 269

Aurren-aurrenik ikusten duguna hauxe da: bildurik garela. Hori beharrezko gauza da. Zerbait adiarazten du. Elkarrekin bizi, baina barnez hain urrun gaudenok, bildu egiten gara orain, geure buruak Kristok salbatu eta deitu dituen gizon-emakume bezala sumatu eta sentitzeko (*198*). Bestela esa-

ikusketa: visión. **jarrera:** postura. **begirune:** errespeto. **ospakuntza:** zelebrazio (Eukaristi liturgia). **funtsezko:** oinarrizko, muineko.

nik, ez da lan batzar bat, eta bai jai* batzar bat. Kristo bera dugu deitzaile; Aitaren izenean biltzen gaitu. Hamaika bider aurkeztu* zuen Jainkoaren erreinua otordu bat bezala.

Ez da halabeharrezko gauza eukaristia Hitzaren liturgiaz hastea. Entzute hutsak elkartu egiten gaitu. Jainkoaren hitzak bat egiten gaitu (ikus honen aurreko kapitulua) (*264*). Eta irakurgaien aurretik egiten denak ere (elkarrekin otoitz egiteak, elkarrekin kantatzeak, «batak bestea onartzeak eta abestiz agurtzeak») lotura bat sortzen du.

Horrela hastea ez da alferrikako arrandikeria*. Izan ere, «hiriko enparantza* eta kale guztietatik bilduok» batasunean ote gaude Elizara sartze hutsez? Ez ote gara izpirituz, sarritan, otordu handi batetarako zerbitzariek alde guztietatik bildu zituzten «behartsu, elbarri, erren eta itsu» (Lk 14,21) haik bezala, eta «on eta gaizto» (Mt 22,10) haik bezala? (*67-70*). Elkar ez dugu ezagutzen. Ez dugu batak bestearen axolarik*. Aldiz, ezin ikusia dugu: Mundu honetako handikien eta xumeen artean, bi hauzokoren artean, familia berekoen artean ere. Ezin ahantzi ditugu apaizak ere zerrenda honetan.

Horien artean ere, sarritan, minberatzen gaituen gorabeherarik nabari ohi dugu.

Hori ohi da gure egoera Jainkoaren aurrean, kristau herri bezala biltzeko ukan ohi dugun garaian! Halako giza sailak batasunik ukan ote dēzake? Batez ere, batzokia hain hotza delarik; guztiak «zu hor eta ni hemen» bezala bait dabiltza! Ez ote litzateke hobe, ahalik lasterren dena utz, eta nor bere etxera otoitzerako biltzea? Edota, elizan geldi, baina Jainkoari nork bere otoitza isilean zuzentzea?

Ez da hori Jesusen nahia. Mateoren Ebanjelioak, 18. kapituluan, Elizari buruzko Jesusen zenbait hitz dakar. Gure elkartzeari dagokion jarrera ezagutzeko, urre meatz* bat dugu kapitulu hori. Hona: —Nor da nagusiena? Haur bat bezala, xume egiten dena. —Dohakabea eskandalua dakarrena. — Poz handiagoa izanen da galdu eta aurkitutako ardi bakarraz, beste laurogei eta hemeretziez baino. — Nola jokatu bekatu astuna egin duenarekin? Elkarri barkatuz, norberaren bekatua besterena baino handiagoa delako. — Eta kapitulu beraren erdian, Jesusen hitzen arteko harripitxi hau: «Bi edo hiru ene izenean biltzen badira, beren artean nadukate ni» (Mt 18,20).

Jesusek elkarrekin nahi gaitu (*180*). Hain zuzen, kristau elizek elkartasun handia sortu dute beren artean: piskana-piskana, berezkoa dela emateraino. Hain zuzen, Jesusen aurrean

jai: besta. **aurkeztu:** agertu. **arrandikeria:** handikeria. **enparantza:** plaza. **axola:** kezka, ardura. **meatz:** mina.

gure arteko alde* guztiak erori egiten dira. Guztiok Aita beraren seme-alaba egin gaitu. Horregatik, gure kidetasuna* —baina ez berdintasuna: nor bere nortasuna garatzera* deitua bait dago— guztiz berezko iruditzen zaigu Elizan.

Eukaristia esker otoitza da 270

Oraino ez gara mintzatu mezaren zertarako berezi-bereziaz: haren esanahia adiarazten digunaz. Izan ere, batzarturik gaude; baina zer dagigu, zer bizi dugu elkarrekin? Ikus eta entzun dezagun ospakuntza bera.

Haseratik azkeneraino, Aitari egiten zaion otoitza da meza. Ez da halabeharrezko gauza bat; izan ere, mezaren erdikoa, Jesusek *eskerrak emanez* ogia hartu zuela dioten Ebanjelioko hitzak aurkitzen ditugu. Aitzinako kristau garaitik, gaur erabiltzen ez ditugun eukaristi otoitzak heldu zaizkigu; horietan, garbiago adiarazten dira esker otoitza eta gorespena. Gure egungo eukaristi otoitzak (erromatar kanonak)[35], berau ere oso zaharra, eskabidezko eta eskaintzazko otoitz asko ditu noski. Baina, prefazio eta «saindu» goratzarrea ditu aurretik, pozezko kantu bezala; giro berezi bat dario*n otoitz handi horren bihotzean* Azken Afariko kondairaren hitzak datoz; egiaz Jainkoa goretsiz eta Horri eskerrak emanez gaude. Hona, esate baterako, kanonaren amaia: «Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri, Aita Jainko guztiahaldun horri, Izpiritu Sainduarekin batean, ospe eta aintza guztia menderen mendetan». Horregatik, ospakizun hori guztia adiarazteko, grezierazko hitz hau erabili ohi dugu: *Eukaristia*, hots, «esker otoitza».

Esker otoitz honetan, eskea* ere sartzen dugu. Elizaren alde, elizara etorri direnen eta ez direnen alde, hildakoen eta bizi direnen alde, otoitz egiten dugu. Ohitura da ere, meza garaian, Jainkoari eskabide edo asmo bereziren bat zuzentzekoa.

Elkarteko otordua 271

Orain arte, nahi genuena aurkitu dugu: zertarako den meza. Esker otoitz bezala agertu zaigu. Baina bada besterik ere. Mahain baten ingurura bildu gara. Mahain horretan, platera batetan ogia dugu, eta ontzi batetan ardoa. Kanon otoitzean honela esaten zaigu: Har eta *jan*. Eta halaxe egiten dugu geroxeago: jan eta edan. Beraz, otordu batzarra da me-

35 Horretaz kanpo, badira beste hiru eukaristi otoitz ere, Erromak onartuak.

alde: diferentzia. **kidetasuna:** antzekotasuna. **garatzera:** heltzera. **eskea:** galdea.

za. Kristoren gorputza eskaintzen zaigu. Sakramendu honetan Jauna nola dagoen, gero ikusiko dugu (274). Oraingoz hauxe ikusi nahi dugu: otordu batetara deituak garela, eta Kristo bera dela, bai deitzailea, bai janaria. Janari hori, gainera, haren heriotzearen oroitzapen* dugu. Zatituriko ogia, haren gorputza da. Sagaraturiko ardoa, berriz, isuritado haren odola. Biblian, gorputz eta odolak, nola batak hala besteak, gizaki osoa adiarazten dute. Beraz, janez nahiz edanez, Jesus osoa hartzen dugu.

Eukaristiak, otordu denez, hauxe esan nahi du: 1. Jaunak berak bazkatzen* gaituela; 2. Berarekin elkartzen gaituela; 3. Elkarrekin batzen gaituela. Hiru alderdi hauk elkar josirik daude.

Lehenengo alderdia, Joanen Ebanjelioak. 6. kapituluan marrazten* du: «Ene haragia jaten eta ene odola edaten duenak betiko bizitza daduka» (Jn 6,54). Haren bizitzak, haren Izpirituak indartzen gaitu; bizi eta haziarazten gaitu.

6. kapitulu horrek berak, Kristorekiko gure lotura marrazten du: «Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta ni harengan» (Jn 6,56). Hau ere izpirituaren lana da.

Azkenik, otordu honek kristauok elkarrekin batzen gaitu. «Guk bedeinkatzen dugun bedeinkaziozko kaliza, ez ahal da ba Kristoren odoletan partehartzea? Guk zatitzen dugun ogia ez ahal da Kristoren gorputzean partehartzea? Beraz, ogia bakarra denez, guk ere ez dugu gorputz bakar bat besterik egiten; hartu ere, ogi bakar horretantxe hartzen dugu eta denok parte». (1 Kor 10,16-17). Gure batzartzeak, beraz, elkartasunezko lotura berri bat sortzen du. Kristoren gorputza, janez, haren gorputza gertatzen gara — eta are* gorputzago bilakatzen gara (*162*). Hau ere Kristoren Izpirituaren lana duzu.

Beharbada norbaitek galdetuko du: Nola elkar daitezke, jatea eta eskerrak ematea? Bi alderdi hauk ez ote dira uztar* ezinekoak? Ala jan, ala Jainkoa goratu, bai; baina nola biak batera? Azken Afariaz iharduten, ikusi dugu nola bateratzen zituen bi gauzak juduen Bazkoak: afarikoan ematen ziren eskerrak eta abesten zen, morrontzapetik* askatuak izan zirela oroituz. Gauza bera gertatzen da mezatan: eskerrak emateaz batera, otordu bat egiten dugu bekatupetik askatuak garela gogoratuz. Norbaiten ohoretan basoa altxatuz hitza hartzean, eta haren osasunerako, haren etorkizunerako edatean, guk ere horixe egiten dugu. Mezatan gure hitzak zuzentzen dizkioguna, oroitzapenez gogoratzen dugun pozaren azken iturburua da.

---

oroitzapen: oroigarri. **bazkatzen:** mantentzen. **marrazten:** azaltzen. **are:** oraindik ere. **uztar:** uztartu, lotu. **morrontzapetik:** esklabutzatik.

Eukaristia[36], bada, elkarteko otordua eta esker otoitza da. Honekin mezaren esanahi osoa jasoa ote dugu? Begira eta entzun dezagun oraino; horrela, hirugarren alderdi bat nabarituko dugu: zenbait hitzek, eukaristi otoitza barne, opari bat eskaintzen dela adiarazten du. Zer esan nahi du horrek?

Azken Afarikoan, Jesusek, profet egintza bat egin zuen, bere biziaren opariaren aldez aurreko oroitzapen bat bezala. Gurutzeko heriotzea, sinbolubidez egiaz* presente egiten zuen oroitzapena. Puskaturiko ogia Kristoren gorputz puskatua zen. Eta Elizak keinu hori berritzen duenoro* eta horrela Jesusen heriotzea hotsegiten duenoro, Jesusen oparia bera, Kristoren opari bakarra, bere baitan du Elizak.

Opariak eskaini beharra, aitzina-aitzinatik izan du gizakiak: «Abelen garaitik»; Jesusen opari honek, Jainkoaren aurrean lotsarik gabe egoteko bidea damaio gizakiari. Opari honek, behin betirako eratu du Aitaren eta gure arteko adiskidetasuna: adiskidetasun berria, itun berria, testamentu berria *(28)*. Adiskidetasun zaharraren ituna oparien bidez zertu* zen (Sinai mendian, Exodo bitartean). Bizitza baten opariak adiskidetasun berria ekarri du.

Judutarren Bazko afaria, adiskidetasun zaharraren oroitzapena zen. Oroitzapena besterik ez, gainera. Guk, ordea, gure adiskidetasun berriaren oroitzapena egitean ituna sei-latzen duen oparia egiaz gure artean dugu. Gizadiaren behin betirako eskaintzarekin bat egin dezakegu. Ez dugu eskaintzen, ez akerrik ez zezenik, Semea baizik.

> «Beraz ba, zikiro eta idiskoen odolak eta kutsatuak zipriztinkatzeko erabiltzen den errautsak, gorputzeko garbitasuna ematean, kutsatuei saindutasuna ere ematen baldin badiete, zenbat areago ez ote du ba gure kontzientzia bere obra hiletatik garbituko Kristoren odolak, hots, betiko Izpirituaren bidez Jainkoari bere burua errugabeko oparitan eskaini zion Kristoren odolak, Jainko bizia zerbitza dezagun?» (Heb 9, 13-14).

Mezan partehartzen duenak, opari horretan eskuhartzen* du, eta horrela, Jainkoaren eta herriaren artean buruturiko elkargoan* sartzen da. Ez, ordea, Sinai mendian bezala, ostots* eta tximista tartean, ogiaren eta ardoaren soiltasun pozgarrian baizik, esker otoitzez eta senide arteko maitasunez.

Gure eskaintza modua, orduan, arras* berezia da. Oparia, izan ere, egina dago. Zuzen esanda, ez dugu oparigairik aurkezten.

36 Ik. *Eraskina*: «Eukaristia, bada...» 541 or.

egiaz: benetan. **duenoro:** duen bakoitzean/guztietan. **zertu:** mamitu, egin. **eskuhartzen:** partehartzen. **elkargoa:** elkartasuna. **ostots:** trumoi. **arras:** oso.

Guretzat beste opari guztiak amaituak dira. Opari bakarrean eskuhartzen dugu. Eta hori, janez. Otordua eta oparia ez dira bata bestearen aldamenean liretekeen gauzak. Oparia otordu bat dugu; horrek esan nahi duena hauxe da: oparia geure egiteko, hartu eta jan egin behar dugula. «Har ezazue eta jan». Hitz horiekin emana dugu. Geurok eskainia, huraxe eskaintzen zaigu.

Baina, ogi-ardoak, ez ahal dute gure nola-halako eskaintzarik adiarazten? Ez. Eskaintza ez da gertuera bat besterik: zerbait aparte ipintzen dugu eskaintza bakar eta egiazkorako: Kristoren gorputz-odol izan daitezen, alegia.

Horrenbestez adiarazia ote dugu Eukaristiaren ospakuntza berezten duena, Eukaristiaren izaera berezia? Baietz uste dugu.

Esanahi ugari, baina izate bakarra 273

Zehaz* dezagun oraindik. Ikusi ditugun alderdi horik, Eukaristia *osoari* dagozkiola jakin behar dugu: eskaintza, eukaristi otoitza eta komunioa dena batera harturik. Eukaristia guztia da, beraz, otordu; dena da esker otoitz; dena opari. Oroitzapena eta ituna ere meza osoari dagozkionak dira. Bada besterik, orain arte bidenabar aipatu besterik egin ez duguna eta kapitulu honetan geroago aztertuko duguna: horietan guztietan Jesus egiazki hor dela. Eta Jesus hor izateak, otorduari, esker otoitzari eta opariari, beren egiazko sakontasuna ematen die.

Galdekizun* praktiko bat datorkigu hemen: sakramendu honen hainbat esanahik ez ote du nahas-mahas bezalako bat sortzen? Eta guztien aitzin*, beste hau: Jesusek gogoan ukan ote ditu horik guztiak? Azken galdekizun honi baietz erantzun beharko; etsi-etsirik* gara. Sinbolu batek, bizitzako gauza arruntenetan —jan eta edan, gorputz eta odol— errotuago*, eta esanahi gehiago hartzen du. Gainera, uste honetantxe gara: Jesusen Izpirituak ez diola utziko Elizari hutsegiten dohain honi dagozkion alderdiak azaltzean. Bene-benetan uste dugu, Azken Afariko Jesusen keinuari esanahi horik guztiak dagozkiola.

Itzul gaitezen, alabaina, lehengo galdera. Daitekeena ote da hori guztia batera bizitzea? Hainbat alderdi bait dira, eta gainera, haietako bakoitzean honako alderdi desberdinok bait datoz: oroitzapena, ituna, presentzia. Gehiegi dela dirudi! Dena dela, horietako batek bederen gure begi aurrean behar duela beti uste dugu: Jaunak egin duenaren oroitzapenak. Hain berariz* gomendatu bait digu hori!

---

zehaz: zehaztu, mugatu. **galdekizun:** galdetu. **aitzin:** aurretik. **etsi-etsirik:** sines-sinetsita. **errotuago:** sustraituago. **berariz:** nabarmenki.

Baina, Jaunaren oroitzapena egitean, oinarrizko alderdietatik bat edo beste gogora etorriko zaigu gehienetan. Zenbaitek, beti, alderdi jakin bat biziko du (elkarteko otordua nahiz esker otoitza, etab.); beste zenbait, nahiz honetaz, nahiz hartaz, nahiz askotaz batera, arduratuko da: ugaritasuna, alegia. Beste zenbait, azkenik, misterioan murgilduko da. Hori guztia, norberaren aukerapenaren, hezketaren, ospakuntzaren tankeraren baitan dago. Eta bizi zareneko garaiaren baitan.

Egin ditzagun oraino beste galde batzu meza «bizitzeko» gisaz*.

Esan ote daiteke komunioa besterik gabe meza *otordu* bezala bizitzen denik? Ez, nahitaez. Esate baterako, komunioa egin daiteke eskerrak emateko gogoz eta, horrela, meza osoa esker otoitz bezala bizi. Gerta daiteke ere, jaunartzearen bidez bereziki Jesusen heriotze-berbizkundeei atxekitzea. Beste hau ere gerta daiteke: batek, komunio ondoren, besteak gogoan ukaitea bakarrik, Jesusen bidez elkartu zaizkionak alegia, eta horrela batasuna sentitzea, elkartea. (Hau otoizpide zaila izan daiteke, nork bere burua benetan ukatzea eskatzen diguna). Eta bada beste mila bide.

Har dezagun berriro galde bera, baina atzekoz aurrera. Jaunartzen ez duen kristau batek «bizi» ote dezake meza otordu bezala? Bai noski. Izan ere, meza otordu bezala hartzea ez datza jan-edaritan pentsatzean bakarrik; baizik, batzarrean ere bai. Familiako otordu batetan edo bazkari handi batetan, adiskidetasun eta elkartasun giroa, sarritan, jan-edariak bezain garrantzizkoak dira. Horregatik, jaunartzen ez duen kristau bati buruz esan daiteke, meza otordu bezala bizi duela nolarebait. Areago oraindik, zeren* eukaristian janaria Jesus bera bait da. Eukaristian eskuhartzeak, Jauna hartu gabe ere, Jesusekin harremanetan ipintzen gaitu.

Bestalde, ordea, zein eta sakonago hausnartu, hain eta bitxiago dirudi mezatara joan eta ez jaunartzeak. Jesusek, eukaristian asmotan duena, garbi asko esan du :«har ezazue eta jan!» Ez dezagun arinegi eman Kristo hartzeko inor ez garela. Inoiz ez gara izanen horretarako gauza; halaz guztiz, gonbidatu egiten gaitu berak.

Kristo ezagupide* horietan dago 274

Eukaristiaren[37] alderdi bat ukitu gabe dugu oraino, orain arteko guztian hondo-hondoan zebilen puntua bazen ere. Kristoren presentziaz dihardugu*. Azter* dezagun, beraz, sakonagotik mugarik gabeko misterio hori. Eta hasteko, har dezagun ikuspuntu gizatar eta erraz hau.

37 Ik. *Eraskina*: «Kapitulu hau...» 543 or.

gisaz: eraz. **zeren:** izan ere. **ezagupide:** seinale, signo, signe. **dihardugu:** ari gara. **azter:** aztertu, arakatu.

Jesus oraino lurrean zegoelarik, apostoluek Harekin otorduak egiten zituztenean (*68*), haien artean bazen «zerbait apartekorik»: Jesus beren artean zuten. Jesus hil ondoren, bildu egiten ziren apostoluak, Harengatik. Jesus zen haik elkarrekin baturik zeduzkan lokarria. Orduan ere, Jaunak haiekin jaten zuenean bezala, bazen haien artean «zerbait berezirik». Jaunaren presentzi moduren bat. Batez ere, bizturik ikusi zutenean eta bizi zela zekitenean. Batez ere, haren Izpirituaren indarra hartu zutelarik. Batez ere, haren oroitzapena egin behar zutela zekitelako: haren hitzak berrituz, ogia hartuz, Azken Afarikoan egin zuena bera eginez.

Egun ere[38], Eliza biltzen denean, apostoluek Galilean eta Judean Jesusekin batera jan-edaten zutenean bizi zuten Haren presentzia bera bizi du Elizak.

Presentzia hori ogiari loturik dago. Jesusen hitzak adierazten du hori: «Hau ene gorputza da» (*201*). Eta ogiak berak agertzen du: Jesusen presentzia, janari baten antzera, hurbileko eta bizigarri da.

Ogia, horrela, Jesus gure artean dagoelakoaren sinbolu dugu. Egunoroko ogia bizitzarako ogi bihurtu zaigu. Ogia Kristo bihurtu zaigu.

Zer gertatzen da, ordea, ogiarekin? Bere itxura eta gozoa gorde egiten ditu. Eta horrela behar du izan. Bestela, Jesusek gure artean egoteko aukeratu duen ezagupidea galdu eginen litzateke. Zer aldatzen da, beraz?

Erdi Aro aurretik arazo honek ez zuen galderik sortu. Jesusen presentziaren izatea ezagupide horretan zetzala uste zen, besterik gabe.

Erdi Aroan, ordea, arazo honi sakonago ekin zioten. Eta misterioaren adiarazpen bezala, esateko modu hauxe asmatu zuten: ogiaren itxurak («akzidenteak»), hau da, ogiarenetik zentzuez* sumatzen dugunak (koloreak, gozoak, etab.) lehenean dirau; «sustantzia»k, hau da, ogiaren muin-muinak, ogiaren izateak ez du irauten, eta Kristo bera bilakatzen da.

Pentsabide horri egungo pentsamoldearen hildoan* jarraituz, arazo hori honela adiaraz genezake. Gauza material bat gizakiarentzat zer den, horixe du bere zer-izana. Horrela, esate baterako, ogiaren zer-izana, guretzat, gizakiarentzat lurtar janari izatean datza. Mezatako ogian, zer-izan hori beste zerbait bilakatzen da: Jesusen gorputz, betiko bizitzarako janari denez. Heberkeraz, «gorputzak» gizaki osoa esan nahi du. Ogia Jèsus bilakatu da, Jesus da oso-osoan.

38 Ik. *Eraskina*: «Baina, zertan datza...» 544 or.

zentzu: sentido. **hildo:** bide.

Misteriozko presentzia da Jesusen hori. Ezin idurika* dezakegu hori, esate baterako, Jesusen gorputza, kaskartuz, gure ahora sartuko balitz bezala, bere egiazko giza gorputzez Nazareten Mariarenera sartzen zenean bezala. Era berean, ez dezakegu jo beste muturrera: sinbolu hutsez dena adiaraztera, alegia; izan ere, hauxe gertatuko litzateke orduan: Kristo ez genukeela emango egiazki presente bezala. Hobe dugu honela esatea: ogiari egunoroko gizakien ogi izate hori kendu zaiola, eta Aitak eman digun ogi, hots, Jesus bera bilakatu dela.

Jesus liturgi urtean gurekin dago 275

Bere Liturgian, Elizak bere artean du beti, urtean barna misterioen oroitzapena eginez gogoratzen duena (*45, 55, 128, 142, 296*). Jauna biztu egin da. Bere heldutasunera eta osotasunera iritsi da.

Berbiztuak bere bizitza osoa bere baitan bildurik daduka. Beragan du bere iragana*, eta nornahik bere iragana bere aurpegian eta bere gorputzean ezarririk duen baino areago. Bere bizitza, zuzena, zintzoa eta tolesgabea izan bait zuen. Honela, esate baterako: guk ezbezala, bere haurtzaroan izandakoa ez zuen gero ukatu. Jesusen bizitzak, gainera, bere heriotze-berbizkundeaz, lurreko beste gizonek ezbezalako heldutasuna eta batasuna lortu zuen. Jaio-berria, hamabi urteko mutikoa, arotza, irakaslea, hil zorikoa (bere bost zauriz!), Izpiritua bidaltzen duena: une horik guztiak dira bizirik berbiztuagan eta, horrenbestez, Eukaristian. Horixe dugu, urteko jai oro, egungo bezala, oraingo gertaera bezala, «gaurko egun» bat bezala ospatzeko arrazoin sakona. Ez dira, beraz, noizbait gertaturikoaren oroitzapen huts.

Eguberritan, Eukaristiaren bidez, Jaun biztua gure artean dagoenez gero, haren haurtzaroaren zerbait ere geure artean dugu. Horregatik, belaunika gaitezke jaiotzearen aurrean. Horra egiazko kristau ospakizuna. Oroitzapena egiteak, hauxe esan nahi du: aspaldikoa oraingo egitea, geure aurrean ukaitea.

Eukaristiazko presentzia ez dago kristau bizitza osotik bakandurik* 276

Eukaristiazko Jesusen *presentzia* ezin har dezakegu gainerako haren esanahietatik bereizirik: ituna, oroitzapena, esker otoitza, oparia, etab. baztertuz (*195, 252*). Ezin bereizi dugu ere, Kristok gure artean

idurika: idurikatu, iduriz eman. **iragana:** igarotakoa. **bakandu:** bereizi.

egoteko dituen beste presentzi moduetatik: ez dezagun ahantz, Kristo hitzean ere hor dagoela; ez dezagun ahantz, batez ere, Izpiritu Sainduaren bitartez, gizon-emakumeen bihotzetan eta berauen arteko harremanetan hor dagoela Kristo. Aldiz*, esan dezakegu, azken presentzi modu hau dela garrantzizkoena; horren bidez, beste inola baino sartuago bait dago Jesus gure artera, gure bizitzara. (Ikus «Bizia oparo ukan dezatela» kapitulua).

Hona zer dioen, izan ere, Elizak: Izpiritu Saindurik ez duena (graziarik ez duena, barnez Jainkoagandik etenik dagoena), ez dagoela egiaz Kristorekin harremanetan, hartzez Eukaristia hartzen badu ere. Orduan egiten duena, sakrilejio bat da. Beste hau, aldiz, bere baitan Izpiritu Saindua duena, Kristorekin bat eginik dago, jaunartzen ez badu ere. Jesusen asmoa, Jesusen nahia, hauxe da: ez dadila inoiz jaunartzea kristau bizitza osotik eten.

Hori bera da, sarritan hitz hauekin aurkezten zaigun eragozpenaren erantzuna: «Jaunartu, bai, baina ez dut ezer aurreratzen», edota: «Igandeoro doaz mezatara eta jaunartzera, baina ez zaie nabari hobekuntzarik*!». Hau guztia ez ote dator, eukaristia berez diharduen talisman bat bezala hartzetik? Komunioa ez da aztikeria* bat; janari da, bizkorgarri, gidari, zer garen adiarazten eta biziarazten diguna: Kristok deitzen dituen bekatari garela adiarazten diguna. Gure ospakizunetan hain ukikor*, hain eskurakoi* den presentzia horrek, Izpirituaren bidez Jesus gure artean dagoela sentiarazten digu: egiazko Jesus, Jesus gizona, hil eta biztu dena. Ezer ez da airean gelditzen; baizik, gizakioi hain premiatsu zaiguna ematen zaigu: Kristo bera geureganatzen digun sinbolua.

Noiz arte irauten du Eukaristiazko presentziak gure baitan? 277

Ogi-ardopean[39], noiz arte irauten du Kristok gure baitan? Noiz amaitzen da Jesusen eukaristiazko presentzia? — Ogiak bere itxura galtzean. Jakina, ezin jo genezake hemen zientzi mailara; ezin ihardun gara, gauzaren bat zientzibidez ogitzat noiz arte har daitekeen aztertzen. (Bestalde, ogia zientziazko kontzetu ote da?). Askotan bide horretatik *bilatu izan da erantzuna, eta Kristoren presentzia, Komunioa* egin eta ordu laurden batera amaitzen dela pentsatu izan da. Gaur, alabaina, bide errazagotik eta gizatarragotik argitu behar dela uste dugu buruhauste hori: ogia, hor, jateko dago; janez gero, ezin deitzen ahal duzu ogi. Hostia jan orduko ere, ogi itxurarik ez da. Ez da orduan jateko gauza bat. Jana dago. Esate baterako, inork ez luke ogitzat

39 Ik. *Eraskina*: «Mintzo gaitezen...» 545 or.

aldiz: kontrakoz. **hobekuntza:** mejora. **aztikeria:** sorginkeria, magia. **ukikor:** ukitzeko modokua. **eskurakoi:** accesible, accessible.

emango hauts bihurturiko ogi puska. Horrez gero, aldare gainean geldi litezkeen ogi apurretan ez da Kristoren gorputzik. Beraz, gogoan hartzekoa, jendeak ogitzat zer ematen duen da. Hori den bitartean, Jesus han dago. Hitz batean, ogi izena ez daiteke har kontzetu fisiko bezala, kontzetu antropologiko bezala baizik.

Kristoren gorputza hartu orduko, eukaristiazko presentzia, honek egin nahi zuen hura bihurtzen da: Kristoren presentzia biziago gure baitan, Izpirituaren bitartez.

Presentzia horretaz gero eta jabeagotuz joatekotan, meza ondoren apur batez, otoitzean, nor bere baitara biltzea gauza egokia izanen da. Halako gauza handi eta funtsezko baten aurrean egoteko bidea eman zaigunez gero, nola aldegingo genuke presaka? Bankete* baten ondoren ere, jendea ez da berehala sakabanatzen. Beraz, merezi du piska bat luzatzeak. Are gehiago gaurregun: gure bizitzak ez bait digu eskaintzen lasai otoitz egiteko eta hausnartzeko* aukerarik egunean zehar. Meza ondoko otoitzaldia besterik ezbezalako aukera da. Ez duzu orduan zeure burua behartu beharrik zeure baitara isiltasunean biltzeko; amaitu berria den ospakizunari esker, horretarako giroan bait zara. Jauna aurkitu duzu, eta une batez honekin mintzo zara oraino. Agian, Biblia irekitzeko txolarte* egokia duzu: esate baterako, Kristorekiko batasunaz mintzo zaizkigun Joan sainduaren lerroak irakurtzeko (Jn 6,48-71), edota Jesusen agurra (Jn 14-17 kapituluak), edota 34. salmua (aitzinako kristauei hain atsegin zitzaien komunioko abestia), edota 23. salmua (konfiantzaz beteriko salmu hau). Baliteke, une horretan, nork edo nork, *Abestirik Ederrena* liburuak dioena bere baitan gertatu dela sumatzea.

Badirudi, eukaristiazko presentziaren amaitzeaz esan duguna ez datorrela bat, aitzina, eukaristiari buruz gertaturiko mirariekin. Esate baterako, Amsterdam-eko Erdi Aroko ipuin batek honela dio: gaixo batek gora* egin zuela hostia. Errespetoz hau erre nahi izan zutelarik, suaren gainean gelditu zela. Zer esan gaurregun historio horietaz? Lehenik, mirarizko gertakari horik fedea bizitzeko eta adiarazteko modu berezi bati dagozkionak izan daitezkeela. Bigarrenik, mirari hori gertatua izana, ez dela fedezko egia. Gerta daiteke ere, gertaerak irizteko* orduan, eskrupuluek, irudimenak eta, batez ere, begiruneak, errespetuak eta beldurrak beren partea hartua izana. Axolazkoa eta mirari handia, hostia su gainean gelditu izana ez baino Jesus bera gure artean egotea da.

Elizak zeruko ogia zaintzen du 278

Meza amaitu ondoren ere[40], Kristoren gorputza begirune osoz gordetzen da. Horrela, noiznahi eman dakieke gaixoei.

40 Ik. *Eraskina*: «Meza amaitu...» 545 or.

bankete: apairu. **hausnartu:** pentsatu, sakondu. **txolarte:** une. **gora egin:** vomitar, vomir. **irizteko:** juzgatzeko, balioztatzeko.

Gehienetan sagrarioan gorde ohi da, eta hau aldare baten ondoan egon ohi da. Horrela, mezarik eman ez arren, Jauna gurekin gelditzen da. Jaunaren presentziaz esandako guztiak balio du hemen ere: Jauna Elizan guregandik hurbil* dagoelako ezagupide ageria da hori, bere lurreko bizitzan Apostoluengandik zegoen bezain hurbil. Eliza batetara sartzen garenetan, presentzia horretaz begirunez eta eskerronez gogoratu behar genuke. Oso ohitura ona da sartzean eta irtetzean belauniko agur egitea.

Isilean egindako otoitzak —erostera irtetzen den etxekoandreak otoitz egiteko edo eskerrak emateko hartzen dituen hiruzpalau minutuak, adibidez— edo Jauna agerian jartzea edo prozesioa, gure artean iraunkor dagoen Jauna ohoratzeko* bide xit egokiak dira.

Gaurregun dudarik ez dugu, ageriko gurtzarik nagusiena meza dela. Jaunaren presentzia iraunkorrarekiko kultua, gero eta hobeto, norberaren baitako otoitz isilean agertuko da. Baina orduan ere ez dira ahantzi behar Eukaristiaren egitura eta helburua: jateko ogi dela. Horrez gero, gure baitan, Eukaristia oso-osorik ospatzeko gogoa sor arazi behar du. Gainera, ogia hautsi egiten da: Jesusen pasioaren oroigarri da hau, oparia ospatzean gure artean benetan berritzen den gertakizunaren sinbolu.

Eukaristiaren handia eta txikia 279

Gure bizitza honetarako, gauza ederregia ematen du Eukaristiak, gure mundu honetatik kanpora dagoela. Eta nolarebait, hala da. Azken aintzaren zati bat ematen zaigu Eukaristian bertan. Jainkoa hurbil-hurbileko bihurtzen da, eskumeneko*. Lurreko janaria zerutar janari bilakatu da. Lurreko irrika* sakonena, hein batetan burutu egin da ezagupide eta sinbolutan. Hitz batean, etortzekoa den aro bat zirriborraturik dago gure artean dagoeneko*; zerutar gauza bat agertu egin da. Jesusen nekaldia gogoratuz, haren aintzaren partekide egiten gara orain berton, aldez aurretik. Hain zuzen, gure elizak ez dira, areto huts bat bezala zeharka* daitezkeen batzoki*. Kristoren presentzia sainduak leku saindu bihurtu ditu. Gu ogi-ardoetara hurbilagotzen, eta handiago bihurtzen da gure begirunea, eta gure ageriko jarrerak ere horixe agertzen du. Kaliza eta patena —zentzu onak besterik agintzen ez duen bitartean— ez ditzake pertsona sagaratuak bestek uki.

---

hurbil: gertu. **ohoratzeko:** ohorea emateko. **eskumeneko:** eskuarteko. **irrika:** nahi bizia. **dagoeneko:** orain bertan, jadanik. **zeharka:** zeharkatu, igaro. **batzoki:** biltoki.

Saindutasun horrek, ez du handikeria eta arranditasun* beharrik agertzeko (*200*). Jainkoaren saindutasuna, Testamentu Berrian, dena soiltasun eta isiltasun da. Jesusek egin duenak erakusten digu bidea: mahain bat, ogia eta ardoa, beren eginkizun bezala elkar maitatzeko agindua hartu dutenen batzarra. Gure ospakizunaren saindutasunak, mezari gure etxean egin ohi dugun otorduaren antza emateko modukoa behar luke izan. Jakina, Eukaristia egunoroko otordua baino esanahi aberatsagoko dugu. Baina, ospatzeko erak adiarazi behar digu ez dela gure bizitzaz kanpoko zerbait. Jaunak saindu egin dituen bizitza honetako egunoroko gertakarien (elkarrekin egindako otorduen, gure elkarteko bizitzaren, gure eskerrak ematearen, gure otoitzaren) gailurra* dugu Eukaristia.

Jainko herriaren apaizgoa*

Jainkoak bereganaturiko herria 280

> «Zoazte haren ondora, bera da harri bizia, gizonek baztertu arren, baina Jainkoak aukeratu eta estimazio handitan dadukana. Zuek ere, harri bizi zaretenez, presta zaitezte apaizgo saindu baten izpirituzko etxea jasotzeko, Jesukristoren bitartez Jainkoari atsegin zaizkion opariak eskain daitezen. Horregatik dago idatzirik: "Horra non jartzen dudan kantoi harri bat Sionen, harri aukeratu eta baliotsua benetan: hartan ustea jartzen duenari ez zaio damutuko"» (1 P 2,4-6).

Honela mintzo da Keparen lehen gutuna Kristoren jarraitzaileez. Epistola guztia, egia esan, Eliza osoa apaiz delakoaz mintzo da: «apaiz erregeen herria» (2,9).

Bai[41], kristau apaizgoa, lehenik, fededun guztiek batera dadukatena da. Bataioaz eta sendotzako* gantzuketaz* hartzen dute. Apaizgo orokor hori bide dela, Eliza herri berezi bat da munduan «Jainkoarentzat irabazitako herri» (1 P 2,9). Fedeaz beterik, Jainkoak, «ilunpetik bere argi harrigarrira deitu» gaituela guztiok batera ezagutzen du kristauak. Haseran, gizadia eraikitzeko baliorik gabeko bezala, zapuzturiko harri bezala agertu da Kristo. Baina hona non gertatzen den zimentarria. Hari atxekitzen zaionak, gauza guztiek beren tokia aurkitzen duteneko bizitzarako deia jasotzen du, eta gizakiari «egiarekiko esanekotasunean» (1 P 1,22) bere arima saindu egiteko bidea ematen dionaren bizitzarako, hain zuzen

41 Ik. *Eraskina*: «Bai, kristau apaizgoa...» 548 or.

arranditasun: solemnidad, solennité. **gailurra:** une nagusia. **apaizgoa:** apaiz izatea. **sendotza:** confirmación, confirmation. **gantzuketaz:** igurtziaz.

(*182*). Gizakiok elkarren artean hestuen lot gaitzakeen lotura eskuratu dugu: hain zuzen ere, «herri ez» ginenok, «Jainkoaren herri» (1 P 2,10) bilakatu bait gara.

Ez dezagun pentsa, alabaina, patxara osoan gordetzen ahal den zerbait denik: eginkizun bat da; gizakien artean guztiok batera apaiz izatera deituak bait gara.

Baina, nolatan guk, jende arrunta izanik, erantzun diezaiokegu dei horri? Esan dezagun, lehenik, geurenez ez dakigula hori zehatz-mehatz (*193*). Kristau hezketa, mende askoz kristau den gizarte baten egiturak, elizan zabalduriko ebanjelioa, eukaristiaren ospakuntza: horra Jainkoaren Izpirituaren hainbat bide giza izpiritua ukitzeko; gizakiak uste duen baino sakonago ukitu ere. Kristauak normaltzat ematen du beste askorentzat normal ez den gauza asko. Jainkoak damaigun salbamenduaren txinparta*, askotan, ustekabeena dagoenaren eskuek eraman ohi dute.

Geure eskasiaz jabetu 281

Kristauok guztien gain ezagutu behar genukeena —hala eskatzen digute behin eta berriz Ebanjelioak, liturgiak, predikuak— gure eskasia da (*220-233, 183*). Hau da kristauaren lehen eginkizuna munduan: konturatu, alegia, aitzina «urrikirik* ez» zuela lortzen*, eta orain «urrikia lortu» (1 P 2,10) duela. Beste hitz batzuez esateko, kristauak bere esperientziaz egiztatu* behar du eta aldarrikatu* egin behar du hauxe: gizakia ez dela gai berez hainbat gauza harrigarri burutzeko, baina maite gaituenak nola bere argia hala bere indarra damaizkigula* uneoro*. Horra Elizaren lehen saindutasuna; geure ezinaz jabetzea. Saindu handiek, beren argalkeriak ezagutzean, handitu egiten dituzte (gure ustez bederen). Baina, maitasunaren, fedearen eta ontasunaren eskakizunak* ongi baino ongiago ikusi besterik ez dute egiten.

Asegabe hori bizi duena, Elizaren saindutasunaren oinarrian finkaturik dago (*226*). Honela Jainkoari eginiko erabateko eskaintza mamitu egiten da. Horixe da Mendiko Hitzaldiak adiarazten digun eginkizuna, maitasunak adiarazten diguna. Hantustea* mamiz husturik ageri da; harrokeriarenak egin du. Gure eskasiaz jabetzea itxaropen iturri bihurtzen da. Izan ere, horrela, giza hesparru* hertsia gainditzen duten laguntza eta ikuspegia topatzen* bait ditu gizakiak; halaz

txinparta: itxindia, pindarra. **urriki:** erruki. **lortzen:** erdiesten. **egiztatu:** frogatu. **aldarrikatu:** zabaldu. **damaizkigula:** ematen dizkigula. **uneoro:** une guztietan. **eskakizunak:** eskabideak. **hantustea:** handi-ustea. **hesparru:** barruti. **topatzen:** aurkitzen.

guztiz, zeregina gure gain gelditzen da. Babel isilpera bihurtzen da. Egiteko bat aurkezten zaigu: zerbitzua.

Zerbitzua 282

Zerbitzuan datza Jainko herriaren apaizgoa. «Izpirituzko opariak», hots, norberaren bizia eskaintzeko eskatzen zaigu (ik. 1 P 2,5).

> «Ez oparirik, ez eskaintzarik nahi izan duzu:
> Bekatuen ordainetan,
> ez erreopariek ez opariek eman dizute atseginik.
> Orduan esan nuen:
> Hona ba, liburu bildua nitaz ari denez gero,
> hona non natorren,
> Jainko, zure borondatea egitera (Heb 10,5b-7).

Kristoren Izpirituz zerbitzeak, zerbitzari bihurtzeak, ez gaitu kristau triste egiten. Guk egin ohi dugun balioen eraketa, indarra eta ohorea gauza guztien gain ipintzen dituena, gainbehera dator; eta gizakiaren nahi nagusi bati erantzuna emateko gauza izateko askatasuna ematen digu.

Munduko eginkizuna 283

Zerbitzeko izpiritu hori eskatzen zaio kristauari mundu hau eraikitzeko* (*353-354*). Nork bere izakeraren arabera parte hartu behar du zeregin horretan. Idazleak, etxekoandreak, industrilariak, sindikatukoak, midikuak. Hitz batean: munduko lanari herstu atxekirik eta profesio bakoitza zer-nolakotzen duen jakitate positibuaz beterik dauden guztiek damaiete, beren lanaz, munduaren zatiren bat gizakiei eta Jainkoari. Adiera honetan hitzegin genezake profesio bakoitzaren apaizgoaz. Lana asmo onez (Jainkoagana eta gizakiagana zuzenduz) egitea ez da aski. Sarritan, balio iraunkor bakartzat, asmo zuzen hori eman izan da; hori bakarrik (maitasuna bakarrik, alegia) geldituko litzateke betirako; aldiz*, munduko gauza eta balioak itzali eginen lirateke Jainkoak gauza oro berri egin lezanean (*353, 366, 402*).

Gaurregun argiago dakusago materiaren gain gizakiak dagien lanak giza hedapenean* duen eragina, eta, horrez gero, gizakiak maitatzeko duen ahalmenen hedapenean. Zerikusia du, beraz, betikotasunarekin. Horrez gero, mundua eraikitzen lanegitea (maitasunarentzat giroa sortuz), Jainkoak betirako agintzen diguna burutzen lanegitea da. Gainera, pentsatzekoa da, Kreazio berriak ez ote duen bereganatuko gure munduko lana bera, aurrera eramatekotan.

---

eraikitzeko: jasotzeko. **aldiz:** kontrakoz. **hedapen:** zabalpen, hazkunde.

Arrazoin guzti hauengatik, ez da aski asmo zuzenez lanegitea; lana ongi egin, profesio bakoitzaren legeen eta balioen arabera ihardunez* egin behar da. Hain zuzen, Ebanjelioaren predikuak, gauza guztien hondo-hondotik Izpirituak esaten digunarekin elkarrizketan diharduena izan behar du (*236-238*): munduaren ezaguera eta jakitate guztien esperientzia, jakintza eta etika gogoan hartu behar ditu prediku horrek.

Lurra menperatzeko dei horretan, zerbitzu eta maitasun mezuan datza «berriona», hots, gure mundu hau ernaltzen* duen Ebanjelioa (*357*). Zerbitzu ideia hori ezin hartzen ahal dugu hestuegi. Batek, bere nortasuna heziz biziko du agian. Beste batek, aldiz, bere berezitasuna eta beregaintasuna* indartu eta tinkotu beharko ditu; honela, esate baterako, artistak, ia inork egin ez ditzakeen bideak urratzen dituelarik. Lurra eraikitzekotan egiten den lan oro, edozelakoa delarik, gizadiaren zerbitzurako da. Zerbitzua ez datza, ez nork bere burua izkutatzean, ez jasotzean; nork bere burua, oso-osorik, besterentzako ipintzean datza: oso-osorik besteren onerako eskainiz, humilki eta pozik, ahalmen guztiz eta norberaren izate osoz, Jaunaren antzera.

Elizaren saindutasuna 284

Maitasun agindu hau betetzen ez duen kristauak ez du haintzakotzat hartzen bere apaizgoa. Jaunak bere aintza oparoen* ematen duenean gertatzen da makurren aintza berari uko egitea. Gizakia murgilduago* Jainkoaren agerkundean, eta nabarmenago eta txundigarriago gertatzen da gizakiaren epeltasuna eta gogortasuna. Ebanjelioaren maitasun mezua entzuten eta Kristoren gorputza hartzen deneko lurralde eta familietan izan ohi dira negargarrien istiluak eta zuzengabekeriak. Eta zoritxarrez, gertatzen da horrelakorik. Katoliko izeneko lurralde edo familiak, baina eskandalua ematen dutenak, ez dira agian folklorez eta ohituraz ageri ohi diren bezain fededun. Une berean, egia da ere, trakeskeria askoren azpian gizatasun berorik gorde ohi dela, «izen oneko kristaua»ri burutik pasa ere egiten ez zaiona.

Esandakoaz ez genituzke zuritu nahi kristauok egiten ditugun bekatuak. Hauk ageriegi bait daude, eta oztopo gertatzen zaizkio Jaunaren mezuaren zabalkundeari.

Jakina, gauza guztiak bezala, gaitza ona baino errazago agertzen da. Izkutuan ikusten duen Aitak bakarrik ikus de-

ihardunez: ari izanez, ekinez. **ernaltzen:** fecundar, féconder. **beregaintasuna:** autonomia. **oparoen:** ugarien. **murgilduago:** sartuago.

zake «mendi gainean ezarritako hiria»ren ederra. Zein on handia egiten duten, gero, Elizan ezezagun diren horiek! (*180*). Gizarteko giza maila orotako kristau xumeek* egin ere: kristauki bizi nahi duen gizasemeak, inor konturatu gabe lanean ari den emakumeak, haur jainkozaleak, Jesusek zorionbideetan aipatu duen bizikera daraman jende isil horrek guztiak. Oharkabean elkarren ondoan gabiltza. Egunkarietan ez datoz horrelakoak. Xumeena, behartsuena da Eliza eta, beraz, sainduena (*25*). Eliza Katolikoaz Kristoren elkartea dagiena, Erromako Kepa sainduaren basilikaren kupula handia ez baino basilika berorren sabaipean* kanonizatuak izan diren «xumeen» multzoa da. Ezagutzen ez ditugun kontaezin ahalako sainduen ezagugarri dira horik.

Hemen aipatzen dugun saindutasun hau, jakina, ez da gizakiak berez lor* lezakeen moralezko gailentasuna*. Izpirituzko opari horrek, zerbitzaritza horrek, Kristok azkeneraino onartu duen zerbitzuarekin bat dagi, mundu guztira hedatzen den eta egunoro Eukaristian ospatzen den opariarekin bat dagi. Elizan dagoen Kristoren misterio osoak, gizartean herri zerbitzari izatera eragiten dio Elizari. Gai honetaz luze-zabal mintzo nahi bagenu, zer esanik asko izango genuke; sakramenduez, hitzaz, otoitzaz mintzatu beharko genuke; baina, horietaz, liburuaren beste zenbait lekutan mintzo gara (*162-163, 198, 259, 246*).

Egia hotsegin 285

Apaiz eginkizun berezi bat dugu aipatzeko oraindik: egia hotsegitea eta zabaltzea (*302, 205*). Hemen ere, Elizaren lehenengo mezua, zera da: gizakiaren eskasia.

Gizakiaren neurri guztien gainetik dagoen egia aldarrikatzen* du Elizak, Kristogandik, hots, Jainkoaren Hitzagandik datorkigun egia.

Egia hori, alabaina*, ez datza zehatz-mehatz emaniko egi sorta batetan (*236*). Gizadiak bere Sortzaileaz aspalditik barruntatzen* zuena, Jesusen agerkundeak bildu eta argitu egiten du; batez ere, itxuraldatu eta bĕrriztatu egiten du, goitik behera, Kristoren nekaldiaz eta berbizkundeaz (*414*).

Jainkoak bere buruaz egiten digun agerkundeak, geure biziaren muina azaltzeko era egokiak damaizkigu. Ebanjelioaren predikuak, sakramenduek bezalaxe (hauk gure bizitzako

xumeek: txikiek. **sabai:** techo, bóveda. **lor:** lortu, erdietsi. **gailentasuna:** bikaintasuna. **aldarrikatzen:** hotsegiten. **alabaina:** halere. **barruntatzen:** sumatzen.

une nagusienen ospakuntza dira), gizakia zer den agertzen digu, eta egin behar duen bidea.

Har dezagun adibide bat. Eman dezagun, zerako karrikako zerako zenbakian, lehen etxebizitzan familia katoliko bat bizi dela, eta 3. etxebizitzan, berriz, bere burua «erlijiogabeko» aitortzen duena bizi dela. Familia katolikoak baldin kristau tankera ematen badio bere giza bizitza osoari: fedea, barkapena, otoitza, ezkontzaren ospakuntza, lehen komunioa eta azken komunioa biatikorako, horren bizitzako xede dira (*194, 198*). Zer da, ordea, xede hori? Nork bere bizia eta gaitasunak, gizartearekikoak eta berekikoak, ahalik emankorren* bihurtzea; Jainkoari eta, horrez gero, besteei eta norberari pozgarri izateko gisan bizitzea. Aipaturiko familia horrek, kristau bizikera hori eskas bizitzen badu ere, egiturak* bederen baditu: kristau èz den hauzoko familiaren funtsezko giza ametsa adiarazten duten egiturak, alegia.

«Kristau horrek! Har ezazu haintzakotzat zeure nortasuna!». Baina, jakina, nortasun horrek ez du topatuko bere esanahirik, delako familia katoliko horrek fedez eta egitez sinetsi ezean, bere bizitza (eta bere heriotza) jainkozko mezu honen indarrak eraginda bizi ezik. Horrela bakarrik betetzen ahal du delako familia katoliko horrek bere «errege apaizgoa» bere hauzoan.

Eta katoliko ez direnak? *(182)* **286**

Oraino ez dugu esan guztia. Eman dezagun, delako etxe horretan bigarren etxebizitzan kristau protestante batzuk bizi direla. Hein handian, kristau egia bera onartzen dute; alde horretatik, horiek ere «errege apaizgoan» parte hartzen dute, nahiz eta gure ustez Jesusek bere Elizarentzat nahi dituen zenbait osakai* ez onartu (*260*). Baina, egiaz fededun badira, neurri handian eskuhartzen* dute Kristoren egiteetan eta Elizan.

Oraindik urrunago joan gaitezke. Etxe berean, hirugarrengo pisuko familia, «erlijiogabeko» bezala agertzen da; baina, kristauak bizi direneko eta mendetan bizi izan direneko gizartean bizi da. Mila izkutuko bidetatik jasango* du inguru horren eragina, eta kristau fedezko hitzei, moldaketei eta bizikerari darien eragina jasoko du. Familia hori ere, horrez gero, benetan ongi bizi nahi baldin badu, ez da izanen batere loturarik gabe Elizarekin. Esanahi xit zabalean, kristau mezuak ukitu dituenetarikoa da. Eta zenbat bider ez da gertatuko

emankor: fecundo, fécond. **egiturak:** eraikidurak, estrukturak. **osakai:** elementu. **eskuhartzen:** parte hartzen. **jasango:** sufrituko.

bere bizikeraz, nola hauzoko katolikoei hala protestanteei, aurpegian ematen diela? (*182*).

Horrenbestez ez genuke amor eman nahi Jainkoak agertu digun egiari buruz: guztiekin ongi etortzekotan, joera horik guztiak hondo-hondoan gauza bera direla esanez. Hauxe da gure ustea eta asmoa horrela idaztean: kristau egiak Elizatik at* —eta bereziki gurekin bateginda ikusi nahi genituzkeen kristauengan— baduela maila, bide eta adar asko; eta Jesusen ahotsa entzun daiteke horietan ere. Eta Elizaren apaiz eginkizuna da honako hau: bere izatean irauten duelarik, hibai berari loturiko adar horien sorburu izatea (*288*).

Eta katolikoa honetaz ere jabetuko da: besteek ere badutela zer edo zer esateko, badutela kristau egiarik agertzeko. Elizatik kanpora, eta askotan gogo handiz, saiatu izan da jendea zenbait balio burutzen: gizakiaganako maitasuna dela, elkartasun kontzientzia dela, bake zaletasuna dela, munduko gauzen balioez jabetzea dela. Kristau mezuaren oihartzunik badatorkigu gainerako gizakiengandik ere (*232*). Alde honetatik, apaiz dira besteak guretzat.

Jasanberatasuna* 287

Jasanberatasuna ez da katoliko ez direnen ikusmoldeetan ageri diren kristau elementuak errespetatzea bakarrik (*177-178*). Besteren iritzia, kristau joerakoa ez delarik ere, errespetatzea eskatzen du jasanberatasunak. Baita, honez gero, gure ustez, gizakia aberasteko ez baino muskiltzeko* bada ere. Jasanberatasuna zertan datzan adiarazten ez da erraza: ezin ager daiteke egin-eginiko zenbait hitz biribiletan.

Zailtasun hori ez datza hainbat nork beretzat bere iritzia ukaitean. Elizak, fedea askea dela ezagutzen du; horrez gero, ezin bortxa* dezakezula inor federa (*337*). Horrela, bestearen barne askatasuna ontzat emango litzateke. Orobat*, nor bere kontzientziari jarraitu behar zaiola irakasten du Elizak (*309*); hori ere, kontzientziaren askatasuna onartzera dator; katoliko ez denaren barne askatasuna onartzera, alegia. Gakoa honetantxe datza: iritzi bat propaganda bilakatzean* eta ahalik zabalkuntza handiena egiten hasten denean. Gogoemagun*, adibidez, nazien arrazakeria, kristautasunaren oso kontrakoa. Besteren usteari zor zaion errespetua eta guzti, zilegi* da, eta beharrezko, horrelakoetan gaitzespena* gogor agertzea.

Eta *legeaz balia ote daiteke horrelakoetan?* Bai, eta beharrezko litzateke: hedatuz doazen ideiak, kristautasunaren kontrakoak ezezik,

---

at: kanpora. **jasanberatasuna:** tolerancia, tolérance. **muskiltzeko** eskasteko. **bortxatu,** behartu. **orobat:** baita. **bilakatzean:** bihurtzean. **gogoemagun:** gogoeman, pentsa dezagun. **zilegi:** aizu, lícito. **gaitzespena:** kondenazioa.

gizatasunaren kontrakoak eta kriminalak baldin badira. Nork erabaki lezake hori? Erresuma jakin batetako legeek? Hori ontzat ematea iraultzabide ororí ateak herstea litzateke. Nork erabaki behar du, beraz? Behin betirako eta erabateko zuin-bide* zehatzik ezin eman daiteke horretarako.

Honengatik, jasanberatasunak printzipio bezala gelditu behar du; baina, bakoitzean erabiltzea, gizarte biziari dagokion arazoa da.

Elizak, hamar aginduen begirale* delarik, laguntza topatzen du horietan. Baina ez daiteke horietaz balia, besterik gabe, gizakiari zer ez dagokion irakatsiz, gizarteari egi sorta bezala aurkeztuz. (Esate baterako, ez da, ez zilegi ez posible, ateoren bat lehen agindua betetzera behartzea). Eliza bere ahal guztiez aterako da agindu horien alde. Baina, hemen prolema beste hau da: gizarteak ba ahal du eskubiderik, agindu horik gaiztakeria zer den erabakitzeko arau bezala ezartzeko eta, hain zuzen ere, gizartearenak diren lege eta zigorbideez ezarriz?

Gai honi hain luze atxeki bagatzaizkio, jasanberatasunaren mugak teoriaz ezartzen zein lan gaitza den agerian geldi dadin izan da. Horrenbestez, ezin txikietsiko* dugu bertute hori. Besteen ustearekiko begirune* sakon hori xede bezala eduki beharko dugu. Maitasunak, ebanjeliozko indarkeria ezak, besteren berezitasunarekiko eta askatasunarekiko begiruneak eskatzen diguna da (*99, 54*). Esateko, katoliko litzatekeen gizarte batetan, katoliko ez litzatekeen batek joan-etorri handiko karguren bat edukitzea, harropide* behar litzaiguke. Orobat, harro gaitezen, gizarte horretan beste iritzi batzu izan daitezkeelako, iritzi horik zabal daitezkeelako, eta beren aurrez-aurre, Izpirituaren argitasuna eta eramanpena beste eragozpenik aurkitzen ez dutelako.

Zer dela eta misioa? *(220-233)* 288

«Joan, ba, eta egin ikasle gizon guztiak» (Mt 28,19). Jesusen Berriona gizon-emakume guztiei doakie. Jesusek gizataldea sendatu, lagundu egin du, eta jaten eman dio. Jesusek ez du izkutatu egia. Bi zeregin horik eskatzen dizkio Elizari. Egiazki fededun denarentzat, agindu horrek ez du argitasun handiagoren beharrik. Jesus sendagile agertu delako, Eliza ere gertu dago premia den tokira joateko. (Horretan, sarritan, emakumeak dira Kristoren eskuak. Milaka serora eta emakume laiko munduan zehar). Kristok hitzegin duelako, Eliza ere horrera doa egia hotsegitera.

Garai batetan, misiogintza zeregin herstu bezala har arazi zuen arrazoina, hauxe izan zen: jentilak, kristoren egiarik eta indarrik gabe zirela eta, betirako gal zitezkeelako beldu-

zuin-bide: irizpide. **begirale:** zaintzaile. **txikietsi:** kaxkartu. **begirune:** errespetu. **harropide:** harrotzeko arrazoin.

rra (*241*). Gaurregun, uste hauxe dugu (ikus Bataioaz emandako kapitulua): ez dakigula Jainkoak nola epaitzen* dituen Kristoren bidea ezagutu ez dutenak (*194-196*). Kristau ez direnen salbamenduaz ezer gutxi esan dezakegu; Eliza —inondik ere Jainkoaren Izpirituaren gidaritzapean— etsituago* da gaur gai honetaz. Testamentu Berrian «birrerospen» edo «salbamendu» hitzak, askotan eman izan zaion esanahi hestua baino zabalagoa du: norbanakoaren* betiko zoriona «segurtatzea» baino zabalagoa den esanahia du. Hitz hori esanahi aberatsagokoa da. Gizon-emakumeak, Erreinuko pozetan bizi den herri bakarrean batzarturik daudela adiarazten du. Poza, honetatik dator: Jaunaren etorreraren segurantzia ukaitetik eta, izkutuan eta lasaituz, gure egunoroko bizitzan etorrera hori betetzen ari delako ustetik. Gizakiaren salbamendua etorrera horri nork bere burua irekitzean datza.

Horrek eragiten die misiolariei ere urrunera joatera (*19*). Jainkoaren Erreinuari itxura ematen hasten den elkartea eraikitzen dute. Giza irrika* sakonenak bere bide zuzena aurkitzen du; gaitzaren sustraia, hots, maitasunik eza, agerian ezartzen da (*225*); barkapen iturriari barkapena dario, Biztuera aldarrikatzen da, eta baita gauzen hondo-hondoan halabeharra* ez, eta bai maitasuna dagoela ere. Izpiritu bihotzemaile* eta indartzaileak gizakiari aurrera eragiten dio, gero eta bizitza emankorragoan (*230*). Jauna hurbiltzen ari da.

Misiolari horien guztien bizitza, gizadiaren kondairako kapitulu nagusi bat dugu; izkutuan ikusten duen Aitak bakarrik ezagutzen du orain.

Mende askotan, Ebanjelioa predikatzera joateko aginduak zera esan nahi zuen: urrunera joatea, dena uztea. Irtetea, abiatzea*, misiogintzarako garrantzi handiko gauza da. Baina, badu horrek ere bere gakoa; gerta daiteke, kristau mezua hotsegitearekin batera, Europako kultura ezartzen diozula herri bati, eta herri honen izakeraren kontrakoa hain zuzen. Kristau egiten den herri orok dakarkio bere zertxoa Jainkoaren herriari (*176*); aitzina, ezaguna zen hori zenbaitetan; beste zenbaitetan, ordea, ez zen haintzakotzat hartzen.

Halaz guztiz, ez gaitezke ametsetan ihardun*, herri bakoitzak, bere-berea eta egiazko kultura bizia balu bezala. Teknika zibilizazioa bazter guztietara sartzen ari da, eta sarritan* baztertu egiten du kultura zaharra; halaxe egin du Europan bertan Europako kultura zaharraren elementu askorekin. Halaz guztiz, ardura* hau beharko du beti misioak: herri bakoitzaren, familia bakoitzaren eta gizaki bakoitzaren berezitasu-

epaitzen: juzgatzen. **etsituago:** sinetsiago. **norbanakoa:** gizaki bakoitza. **irrika:** gogo desira. **halabeharra:** patua. **bihotzemaile:** berotzaile. **abiatzea:** partitzea. **ihardun:** ari. **sarritan:** usu. **ardura:** arrangura, axola.

nak iratzartzekoa*. Gaurregun bertan, eta mundu honetan bertan ere, Jainkoak ez du utzi nahi bazterrera bere eskuetatik sorturiko inor.

Horregatik, argi agertzen da, herri bakoitzak bere apaiz eta gotzainak ukan behar dituela. Horrela bakarrik izanen da Eliza herri batetan xertatua.

Ikusten den Eliz elkarteari loturik ez egon arren, borondate oneko baldin bada, gizaki askok sentituko du haren indarra. Sarritan, haien biziarekiko ikusmoldean diren elementu kristauenak indartuko dituzte, beren bizi-arau bihurtuz. Kristauak baino gutxiago ez izatearren baldin bada ere.

Kristau misioa funtsezko batasun bide ere gerta daiteke (*149, 180*). Izan ere, Jesus hotsegiten bait du: indarbidea ez baino zerbitzua irakatsi zuen hura; munduko erreinu guztien aurrean ezarria izan zelarik, haiekiko nagusitzari uko egin zion Jesus hura, alegia: «Zoaz hemendik, Satana!»; Jainkoaren erreinua predikatuz, gizakien bihotzak beren senideengana ireki zituen eta irekitzen ditu. Berak esana da: «Nire ahotsa entzungo dute: eta bakarra izango da artaldea, eta bakarra artzaina» (Jn 10,16). Hori esatean, gizaki guztiez dihardu*, zeren «Harek nahi duena da: salba daitezela gizon guztiak, eta hel daitezela egia ezagutzera» (1 Tm 2,4).

Gaurregungo kristauengan Izpiritua iratzartzen ari den ekintza ekumenikoa bereziki da garrantzizko (*178*), eta premiazko eta zail, munduaren bazterrerainoko prediku horretarako.

Eliza herri bakoitzean xertatuz doan neurrian, misiogintza ez da izango nork bere jaioterria uztea, nor bere herrikideen artean legami* izatea baizik; otoitzaz eta ontasunaz, geure eskasia eta, aldi berean, geure ahalmena hotseginez (*176*).

Kristoren nekeak *(286)* 289

Jainkoaren herri izatea ez da batere garaipide* erraza. Jesusek agindu du, bai, ifernuko ateek ez dutela zer eginik Elizaren kontra. Baina, hitz hauk ere berak esanak dira: «Baina eta Gizonaren Sêmea datorrenean, aurkituko ote du gero federik lur gainean?» (Lk 18,8).

Gertatzekoa dena neurri handian galde irekia gelditzen da... guri zuzendurikoa. «Sua ekartzera etorri naiz mundura, eta nola nahi nukeela gero su horixe biztuta balego!» (Lk 12, 49).

Iratzartzekoa: biztekoa. **dihardu:** ari da. **legami:** altxagarri. **garaipide:** triunfo, triomphe.

Ez zaigu erraza izango denik agindu; baina bai bizitza neketatik sortzen dela, Jesusengan berarengan gertatu zenez. Eliza ere, bere nekeen bidez da apaiz.

> «Ba gu geu ere, bizirik gauden arren, heriotzera emanak gaude etengabe Jesusen amoreagatik, gure haragi hilkor honetan ere Jesusen bizitza agerian azal dadin. Horrela heriotzea ari da lanean guregan, eta zuengan bizitza» (2 Kor 4,11-12).

Sufrimena baitezpadako* elementu delakoaz oso etsiturik* dago Paulo, eta horregatik oraino aski eraman* ez duelako sentimendua du; honela idazten du:

> «Poz ematen didate orain zuengatik eramaten ari naizen neke-lanok, eta nere haragitan ari naiz osatzen Kristoren oinazeei falta zaiena, horren gorputza den Elizaren alde» (Kol 1,24).

Kristoren «neke» horik bizi berrirako erdiminak dituzu; nekeak ez dira, horrez gero, irteerarik eta etorkizunik gabeko bide (*131*):

> «Benetan esaten dizuet: negar eta aiene egingo duzue zuek... baina atseginetan aldatuko da zuen tristura hori (*192*). Triste dago emakumea haurra ukaiteko unean, garaia heldu zaiolako. Baina haurra ukan orduko, ahazten zaizkio saminak, gizon bat munduratu delako pozez» (*404*) (Jn 16, 20-21).

Buka dezagun kapitulu hau, Kepa sainduak bere lehenengo epistolan dakartzan hitz pozgarri eta bihotzemaileok* aipatuz:

> «Ene maite-maiteok, ez zaitezte harri zuen artean bazterrak kiskaltzen ari den su horregatik: ohi ezbezalako mireskizunen bat duzuelakoan, zuek frogatzeko da eta izan ere. Harritu ez baino poztu egin behar duzue, poztu; Kristoren oinazeetan parte hartzen duzuen neurrian, Haren aintza agertzen denean zuek ere poz-alaitasunez bete zaitezten. Kristoren izenarengatik iraintzen zaituztetela? zorionekoak zuek, zuengan bait dago orduan aintzaren Izpiritua, Jainkoaren Izpiritua. Ez dezala zuetako inork eraman beharrik ukan gizon hiltzaile, edo lapur, edo gaizkile edo salatari delako. Kristau delako eraman beharrik balu, ordea, ez dadila lotsa; lotsatu, bai zera! Gora dezala Jainkoa izen hori daramalako» (1 P 4, 12-16).

Artzain apaizgoa (*105-111*)

Zerbitzua 290

Elizan daramaten ministerio dela eta, ahalik prestatuen egoteagatik, Jaunaren ordezkari direnak beste edozelako zereginetatik liberatuak dira:

---

baitezpadako: beharrezko. **etsiturik:** sinestuta. **eraman:** jasan, sufritu. **bihotzemaile:** bizgarri.

> «Ba gu ez gara geure buruaren berri zabaltzen ari, Kristo Jesus Jaunaren berri baino. Gu geu zuen zerbitzari baino ez gara, Jesusen amoreagatik. Ba, "ilunetatik distira dadila argia" esan zuen Jainkoa berbera da gure bihotzetan distira egin duena ere, Kristok aurpegian duen Jainko aintzaren ezagupenari distira egin arazteko. Gordailu hau, ordea, buztinezko ontzitan daramagu guk, argi eta garbi geldi dadin Jainkoarena dela ahalmen aparteko hori, eta ez datorrela guregandik» (2 Kor 4,5-7).

Esaera horiez eta antzekoez*, zera adiarazten du Testamentu Berriak: Elizaren artzainak ez direla herrietako erregeak bezala, zerbitzari baizik. Beraz, Jaunak gizakiei Elizaren ardura* ezartzea eta, horrez gero, halako aginte handia ematea, giro horretan aditu behar dira.

Apostolu ministeritza 291

Bere apostoluen artean, Jesus bi hauk batera zen: «zerbitzen zuena» eta talde txiki hartan agintzen zuena. Gisa* berean, bere apostoluak ezarri ditu bere ordezkari bezala, agintez horniturik Jainkoaren herriaren zerbitzari izan daitezen.

Gisa honetako hitzez eman zitzaien beren eginkizuna:

> «Benetan esaten dizuet: lurrean lot dezazuena lotua izango da zeruan ere. Eta lurrean aska dezazuena, askatua zeruan ere» (Mt 18,18).

Lehen ere esan genuen «*lotu eta askatu*» delako horrek bi gauza adiarazten dituela batera: elkarte bat gidatzeko agindua eta arazo edo korapiloak argitzekoa (*109*).

Azken Afarikoan ere gauza bera agintzen die: «Egin hauxe nire oroigarri» (Lk 22,19); eta Bazko egunean, bere agerraldian, Apostoluen gain hots dagielarik agertzen digu Jesus Ebanjelioak: «Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak ukanen ditu» (Jn 20,23).

Zuzen, erakuts, Jaunaren ezagupideak bana: horretan zetzan apostoluen agintea.

Ministeritza eskualdatu* egiten da 292

Testamentu Berrian, beren heriotze ondoan beren artzaingoa ondorengoei emana izan zedin apostoluek zuten arduraz zantzuren* batzu ageri dira. Esate baterako, Paulok, apostolu zenak eta Jaunak berak zuzenean egina gainera, Asia Txikiko Elizen zuzendariei honela esaten die:

---

antzeko: berdintsu. **ardura:** arreta, kargua. **gisa:** era. **eskualdatu:** transmitir, transmettre. **zantzu:** aztarren.

«Orain, berriz, zuek guztion artean Erreinuaren berri zabaltzen ibilita gero, badakit ez duzuela nire aurpegirik berriz ikusiko. Horregatik aitortzen dizuet gaur guztion aurrean: garbi nauzuela ni zuen guztion odoletatik... Har iezaiozue kontu zeuron buruari eta artalde osoari; egin ere, horretxen kontuhartzaile egin bait zaituzte Izpiritu Sainduak, Jainkoaren Eliza zaindu dezazuen» (Ap Eg 20, 25. 28).

Titori honela idazten dio:

«Zeragatik utzi zintudan Kretan, alegia taxutzeko* zeuden gauzak erabat burutu zenitzan, eta neuk esan nizun eran herri bakoitzean presbiteroak (apaizak) jar zenitzan» (Tt 1,5).

Elkarteari emandako zuzendariok Itun Berrian «Zahar» (*prebiteroi*) edo «zaintzaile» (*episkopoi*) deitzen dira. «Zahar» edo «zaintzaile» taldeak zuzentzen zituen kristau elkarteak, diakonuen laguntzaz, baina apostoluen esku gelditzen zen gidaritza nagusia. Timoteori egindako lehenengo epistolako bi zati elkarri alderatuz (bata «zaharraz» singularrean mintzo dena [1 Tm 3,1] eta bestea diakonuez pluralean [1 Tm 3,8] mintzo dena), hauxe atera genezake agian: elkarte haiek monarkiazko (buru bakarreko) gidaritza ezagutzen zutela jadanik, gidari bakarrari *episkopos* zeritzaiolarik*.

Dena den, gauza ziurra da, apostoluen heriotze ondoan, berehala, lehen mendearen amaian*, aginte modu hori badela Elizan (*165*). Horren lekuko, Antiokiako Iñakiren gutunak ditugu; eskualde jakin batetako egoera adiarazten digute, 100. urte ingurukoa. Honela idazten die, esate baterako, Iñakik Esmirnako kristauei: «Obedi denok gotzainari, Jesusek Aitari bezala, eta zaharrei Apostoluei bezala. Begirunea ukan diakonuei, Jainkoaren agindua da eta». Hemen hiru maila bereizten dira, beraz: diakonuak, zaharrak (apaizak) eta *episkopos* bakarra (gotzaina).

Beste bide bat ere badugu haserako Elizan gotzaingoa zer zen argitzeko. Bigarren mendearen azken aldera, apostoluetatik datorren tradizioa aipatzean, gotzain izenen zerrenda jarraian aipatzen da (*165*). Adibidez, «*Heretikoen kontra*» bere liburuan, 180. urte inguruan idatzirikoan, Ireneok, Esmirnako eta Erromako gotzainen zerrenda dakar, apostoluen garaitik bere garairainokoa. Gisa honetako zerrendarik topatzen da, Jerusalengo, Antiokiako eta Alexandriako gotzainei buruz.

Zerrenda horiek aipatzen diren giroko gorabeherek ere (heretikoen kontra mezua garbi gorde nahian aipatzen bait dira) argitasunik badamaigute gotzaingoak tankera hori hartu zueneko historiguneaz. Gidari nagusi bakarra, elkartearen batasunerako garantia zen.

---

taxutzeko: antolatzeko. **zeritzaiolarik:** deitzen zitzaiolarik. **amaian:** bukaeran.

Gizaki biziak Jaunaren ordezkari* 293

Antiokia-ko Inazioren gutunetan, apostoluen ondoren Elizan bizirik darraien artzaingoari buruzko kristau sentimenduak irakurtzen ahal ditugu. Tralia-ko kristauei idazten dielarik, «Kristori bezala meneko* zatzaizkioten» gotzainaz mintzo zaie. Hori ez da gizon baten zerbitzari izatea; eta bai, Elizak elkartearen buru eman duen gizonari obedituz, Jaunarekiko obedientzia bizitzea. «Obeditu denok gotzainari, Jesusek Aitari bezala». Iñakiren hitz horiek adiarazten dute nolakoa den kristauaren jokabidea.

Gotzain bat badelako, Jesukristok zuen jarrera bera kristauarengan ere ager daiteke. Gotzainarekiko obedientzian bizi-bizi agertzen da Jainkoarekiko obedientzia. «Jainkoaren izenean buruzagi izateko» eginkizuna hartu du gotzainak bere artzaingoan. Jainko bizia gizaki biziek egin behar dute present.

Artzainak bere bizia ematen du 294

Artzainek Jesus Mesiaren asmoa bera, hots, Berriona behartsuei zabaldu behar diete. Bidaliak, bere bizia eman duen Jahveren zerbitzaria bezalako bilakatzekotan* dira bidaliak.

Ezin gaitezke hemen has eginkizun hori zenbateraino bete duten arakatzen*, menderen mendetan. Zabal haizatzen dira artzainen hutsegiteak, eta bada arrazoinik horretarako. Baina, astinketa horrek berak, haiengandik hanitz espero dela erakusten du, eta beti erantzun diote nolabait itxaropen horri. Zerbaitengatik dira hainbat, kanonizaturiko gotzainak. Agian eskualde batzutan Nikolas sainduaz den herri tradizioa ez da funsgabea* hain zuzen ere, negua hurbiltzean, ontasuna adiarazteko, gotzain baten irudia hautatu da.

Jaunaren aurrean eskergaiztokoak izango ginateke, apostoluen ondorengoen bitartez munduaren gainera isuri den ontasuna ezagutu nahi ez bagenu.

Artzainak Kristoren bizia ematen du 295

Baina artzainek Kristoren antzera* bizitzeko mandatua hartu duela esateaz, ez dugu guztia esaten artzaingoaz. Ez dugu oraino esan artzaingo sakramendu bat badenik; sakramendu izateak hauxe esan nahi du: Kristo gure artean dagoela sakramenduaren bitartez, artzainen giza maila eskasa balitz

ordezkari: representante, représentant. **meneko:** esaneko. **bilakatzekotan:** bihurtzekotan. **arakatzen:** ikertzen, aztertzen. **funsgabe:** oinarririk gabe. **antzera:** idurira.

ere. Bere baitan, gizakiaren ahalmenen gainetiko mandatua du gotzainak.

Gotzaina, apaiza eta diakonua, beraz, Kristo gure artera dakarren zerbaitez horniturik dira. Gerta daiteke, apaizen batek, ez zerbitzeko zaletasunik, ez eta bizia emateko dohainik ez ukaitea; benetan, negargarri litzateke horixe; halaz guztiz, holakoaren aginpidea* bizigarri litzateke: Eliza bizi arazten duen Kristoren eraginak harengan bait dirau.

Gotzaina 296

Artzain erantzukizuna*, bete-betean ematen zaie gotzainei. Elizan apaizen apaizak dira gotzainak. Honela zioen gotzainen aitzinako sagaratzean kantatu ohi zen abestiak: «Honen hitza eta predikua, giza jakinduriazko hizketa jori* ez, eta bai izpirituaren eta bertutearen agerpen izan daitezela (*151*). Emaiozu, Jauna, zeru Erreinuko giltza, bere aginteaz zuzen balia dadin, baina harrotzeke*; eraikitzeko eman bait zaio, eta ez suntsitzeko*. Berak lurrean lot dezana, zeruan ere lotua dadila; lurrean aska dezana, zeruan ere askatua dadila. Lot ditzan bekatuak, lotuak daitezela, eta barka ditzanak, barkatuak».

Hitz hauek[42], apostoluei emaniko ahalmena (Elizaren eraikitzaile egiten zituenak ez beste guztiak) apezpikuengana eskualdatu direla adiarazten dute (*161*). Hauen eginkizuna ere, Jainkoaren herria bazkatzea* da: gobernatuz, irakatsiz edo eskolatuz eta sakramenduak ospatuz. Hiru eginkizun horik molde desberdinetan eginen dira aro bakoitzean. Dena dela, Kristok gure artean, gizaki bizien erantzukizunez eta agintez egon nahi du.

Noski gotzainaren *gobernua* ez da politik arazoa, izpiritubidezko artzaingoa baizik (*151, 401*). Alde horretatik, gidatzeko aginteaz horniturik* dago. Gotzainak Elizari dagion zerbitzua, egiazko gobernua da. Gidaritzazko erantzukizun hori, zerbitzu bezala hartu behar da; horrek bi gauza adiarazten ditu: inori laguntzeko eta kristau guztiei harrera ona egiteko prest egotea.

Gotzainaren *irakasgoak**, *maisugoak** alegia, honako bi alderdi hauk ditu: zaindaritza batetik, eta sortzapena* bestetik. Fede gordailua zaindu behar du gotzainak; apaizek, hitzez nahiz izkribuz fededunei irakaspen bezala ematen dizkieten

42 Ik. *Eraskina*: «Hitz hauek, Apostoluei...» 548 or.

aginpidea: autoridad, autorité. **erantzukizuna:** errespontsabilitatea. **jori:** ugari. **harrotzeke:** harrotu gabe. **suntsitzeko:** porrokatzeko. **bazkatzea:** elikatzea, mantentzea. **hornitu:** gaitu, jantzi. **irakasgoa:** irakasletza. **maisugoa:** maisutza. **sortzapen:** kreazio.

gauza guztiekiko erantzukizuna dagokio gotzainari. Gaur ere, Paulo sainduak Asia Txikiko gotzainei zuzenduriko hitzetan adiarazten duen ardura* dute gotzainek:

> «Bai, izango dira batzu, eta zuen artetik sortutako gizonak halere, ikasleak beren ondoren eramatearren, dotrina gaiztoak irakatsiko dituztenak» (Ap Eg 20,30).

Irakasgoak (hots, maisugoak) sortzapen alderdia ere badu, ordea (*302*); hain zuzen, aitak, bere gordailutik, gauza zaharrak ezezik berriak ere ateratzen ditu (ik. Mt 13,52). Aro bakoitzak, hain zuzen, korapilo berriak sortzen dizkio Ebanjelioari, eta honek argi berriz argitzen du aro bakoitza.

Sakramendu emaile[43] denez, hona zer dagien gotzainak besteren artean: bere diozesiko olio sainduak sagaratu (*128*), apaizgaiak apaiztu eta sendotza sakramendua eman (*299*) (honen bidez diozesiko kristau guztien bataioa burutu* egiten du). Gainera, haren diozesian, sakramendu ezagugarri guztiak zehatz eta zuzen ematearen erantzukizuna gotzainaren gain dator (*202*).

Gotzainak bidaliak dira 297

Bidezko da gotzainari aita izena ematea: baina, beti ere, Ebanjelioaren argitan aditu behar da hori:

> «Zuek, alabaina, ez utz inork «Rabi» izenez dei zaitzaten; bakarra bait da zuen Maisua, eta zuek anaiak zarete denok. Ez eta "zuen aita" izenik ere ez eman inori lur gainean: bakarra bait duzue zuek Aita, eta zerukoa duzue hura» (Mt 23,8-9).

Ez da sentimendu arazo hutsa. Aitaren aurrean eta Elizan, gotzaina bera ere sinestun* da: lehen komunioa dagien haurtxoa bezala, Jainkoak bete behar duena (*110, 304*).

Gainera[44], bere mandatua eta ahalmenak Jainko herri osoaren altzoan eta izenean hartzen ditu gotzainak. («Jainko herri» esaten duenak, Bibliaren arabera, ez ditu kanpoan uzten, ez gotzainak, ez eta apaizak ere).

Ahalbide* horik gotzainari emateko bidea, demokrazia batetan ikusten duguna ezbezalakoa da. Eta horrek badu bere esanahi sakona, hemen argitu beharrekoa.

Esan dezagun lehenik, gotzainaren *hautatzea*, berez, hamaika gisatara egiten ahal dela (*303*). Esaterako, herriaren aho batezko iritzia jasoz; aitzina egin izan zen bezala.

43 Ik. *Eraskina*: «*Sakramendu emaile...*» 548 or.
44 Ik. *Eraskina*: «Gainera, bere-bere dituen...» 549 or.

ardura: grina, arreta, axola. **burutu:** osatu. **sinestun:** fededun. **ahalbideak:** potestades, pouvoirs.

Baina, ahalbideak berak ez ditu hartzen gotzainak herriaren ordezkari balitz bezala, gehienek eskainita bezala, lehendik hartuak dituzten beste batzuk ematen dizkiotelako baizik. Gotzain batek sagaratzen du gotzaina. (Eta mandatua* damaiona Eliza osoa dela adiaraztekotan, hiru gotzainek ezartzen dizkiote eskuak, sagaratzekoan).

Gotzaingoa* emateko modu honek ez du adiarazi nahi gizakia goitik menperatzen denik. Artzainak *bidaliak* direla esan nahi du. Mandatu hori eta ahalbide horik apostoluen eskuetan ezarriz, Jaunak Jainko herriari eman dizkio mandatu eta ahalbideak. Apostoluek, beraiek bidaltzen zituztenei eman dizkiete ahalbide horik. Horrela, ritu horrek, Jaunak emaniko sakramenduzko mandatu itxura gorde arazten dio gotzaingoari. Ritu horrek sorburuarekiko lotura agertzen du. Gizakiari apaiz herri izatea ez datorkio bere baitatik; mandatu hori Jaunak emana du. Horra artzaingoaren futsezko esanahia Elizan: Jainkoaren herri izatea Jainkoaren dohain da.

Kristoren apaizgoaren, Jainko herriaren apaizgoaren eta artzaingoaren arteko harremana 298

Gogoeta hauekin[45] ez ote dugu bigarren mailara atzeratzen Jainko herri osoaren apaizgoa? (*280*). Zeren, ikusi dugunez, zenbait gizaki bakarrik bait da Jainkoaren eta beste gizakien artean bitarteko.

Baina, ez. Kristau guztien apaizgoaren eta artzainen apaizgoaren arteko harremana beste maila batetakoa da.

Apaizgo bat baino ez dago: Jesukristorena. Apaizgo horretatik hartzen du Jainko herriak. Funtsezkoa*, horrez gero, guztien apaizgoa da.

Apaizgo hori, hitzaz eta sakramenduaz bereganatzen zaio Jainko herriari. Horik hartu, Izpirituak mandatua eman dienengandik, hots, gotzainengandik hartzen ditu. Horrez gero, gotzainak Elizaren buruzagi bihurtzen dituen apaizgoa, zerbitzu bat da: Jainko herriari apaiz herri izatea eta apaiz bezala beti birjaio ahal izatea damaion zerbitzua. Horregatik, gotzainak «Kristoren zerbitzari eta Jainko misterioen banatzaile bezala» (1 Kor 4,1) hartu behar ditugu.

Artzaingoa Elizan Kristoren sakramenduzko ezagupide denez gero (*198-201*), gotzain sagaratzeak sakramendu izan behar du.

45 Ik. *Eraskina*: «Honela bada, Kristoren...» 548 or.

mandatua: egitekoa. **gotzaingoa:** gotzain izatea. **funtsezko:** oinarrizko.

Gotzainen sagaratzea honela egin ohi da: hiru gotzainek eskuak buruan ezartzen dizkiote gotzaingaiari eta otoitz dagite Izpiritu saindua emana dakion. Hori da zirimoniaren muina. Horri, zenbait sinboluzko keinu *(200-201)* eransten* zaio: Krisma sainduaz burua eta eskuak gantzutzea*, gotzain makila eta eraztuna ematea eta Ebanjelio liburu irekia buru gainean ezartzea. Azken keinu hau honetarako da: Jainkoaren hitzetik Izpiritua gotzain berriagana jaitsi dadila eskatzeko.

Apaizak eta diakonuak 299

Gotzaingoaz gainera, bada beste mailarik artzain apaizgoan. Izan ere, gotzainak bere laguntzaileak ditu: apaizak eta diakonuak.

Apaizgintza[46] ere, funtsean*, honetantxe datza: Izpiritu sainduari egiten zaion otoitzean eta eskuak buruan ezartzean. Keinu hau, gotzainak eta present dauden apaiz guztiek egiten dute. Apaizgintzaren muina den erdigune horren inguruan, zirimonia xit adiarazgarriak biltzen dira: olio sainduaz eskuak gantzutzea, kaliza eta patena ematea; eta azkenik, lehen aldiz eta gotzainarekin batera, eukaristiaren buru egiten dute apaiz berriek.

Mezaren bukaeran, gotzainak berriro ezartzen dizkio eskuak apaiz berrietako bakoitzari, honela esanez: «Har Izpiritu saindua. Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak izango ditu; eta nori lotzen dizkiozuen, lotuak izango ditu».

Apaizgintzak[47] apaizari damaizkion eskubideak, mezatan buru egitea eta penitentzi sakramenduan bekatuak barkatzea da (aitortzak entzutea). Hartu duen mandatuaren arabera, prediku eta aginte eginkizunean ere eskuhartzen du. Diozesiren batetakoa edo ia beti nazioarteko den erlijioso ordenaren batetakoa da apaiza.

Apaizei egotziriko* zeregina, gehienetan, diozesiko zati baten, hots, parrokiaren baten ardura izan ohi da. Parrokiaren ardura duen apaizari, erretore edo bikario deritza; erretorearen languntaileei, berriz, erretore-lagun. Apaiz asko, batez ere erlijiosoen artean, parrokiaren bati atxeki* gabe bizi da; eta Jainko herriarekiko zerbitzua beste gisa* batetan bete ohi du. Nola haiek hala hauek, mahasti langile dira; horiekin dituzte harremanik sarrizkoenak kristauek eta kristau ez direnek ere mahasti lanean. Elizak oso gutxi kanonizatu ditu

46 Ik. *Eraskina*: «Apaizgintza, Izpiritu Sainduari...» 548 or.
47 Ik. *Eraskina*: «Apaizgintzak apaizari...» 549 or.

eransten: gaineratzen. **gantzutzea:** igurtzitzea. **funtsean:** mamian. **egotziriko:** emaniko. **atxeki:** lotu. **gisa:** era.

parrokietan ihardun izan diren apaizetatik; baina, maiz topatzen duzu horietakorik nobela ederrenetan; ez ote da hau gizamolde hori kanonizatzeko modu berri bat, graziaren deiari emaniko egiazko kristau erantzuna horietan ezagutuz, herriak berak kanonizatzea?

Aspaldidanik diakonugintza joan-etorri txikikoa izan da: geroxeago hartuko zen apaiz sakramendurako gertuera* besterik ez zen. Diakonugintza, eskuak ezarriz eta Jainkoaren Izpirituari dei eginez burutzen da. *Apostoluen Eginak* liburuak (6,1-6) kontatzen digu eginkizun honen jatorria, Jerusalenen. Behartsuekiko ardura (*diakonia*) beste gizon batzuri egozten diete apostoluek. *Apostoluen Eginak* liburuan (6,8 eta 8,26-40) ageri denez, hitzaren eta bataioaren ministerioan ere bazuten egitekorik diakonu horiek. Hauetxek dira gaurregun diakonuen eginkizunak: lagundu, predikatu eta bataiatu. Batikano II. Kontzilioak bokazio jarraiki* bezala berriztatu du diakonutza.

Gotzaingoak, apaizgoak eta diakonutzak, hiruek batera, sakramendu bat bera osatzen dute, maila desberdinetan. Zirimoniak eder-ederrak dira. Betirako sagaratzen da gizakia. Ezin ezerez* daiteke inoiz sakramendu hau. Zenbait gorabeheragatik, honela sagaraturikoren batek bere artzain eta apaiz lana utziko balu ere, premia gorriren batetan balia liteke hartaz.

Artzaingoa beste kristauen artean 300

Nornahik pentsa dezake, Erreformak beste pentsamolde bat duela artzaingoaz (*175*). Ezin irentsi du, Kristogandik datorkigun salbamendua, sagaraturiko gizakiei halako lur honetako moldez loturik egon daitekeenik. Egia da: Erreformak ere ezagutzen du ministerioa Kristok eraikia* izan dela. Baina, eginkizun hori duen gizakiari Kristoren mandatua ez datorkio gotzainagandik, eta bai Eliz elkarteagandik zuzen-zuzenean.

Erreforman, artzaingoa bizitzeko moldea eta neurria desberdinak dira Eliza batetik bestera. Hitza guk ezbezala aditzen badute ere, lutertarrek badute gotzainik. Kalbinistek, berriz, tokiko predikuaren mandatua duenaren gainetiko hierarki mailarik ez dute onartzen.

Erreformako artzainek, kristauekiko beren zerbitzu zaletasunaz, otoitzaz, irakaskintzaz, liturgi ospakizunaz eta mar-

gertuera: preparazio. **jarraiki:** permanente, permanent. **ezerez:** ezereztu, desegin. **eraikia:** fundado, fondé.

tiritzaz, egia eta ontasun altxorra* eskaini eta eman izan diote munduari, eta ematen diote.

Ingalaterrako Eliza bereziak (hots, Eliza anglikanoak) badu bere gotzaingoa, hein handian gurearen antzekoa.

Aipamen berezia, Sortaldeko Elizei zor diegu, Erromako Keparen aulkiarekin komunio osorik ez dutenei; gotzaingo guztiz zaharra dute, eta apostoluengandik datorkiena.

Apezpiku batzarra eta hutsezina* 301

Orain Kristoren Elizak duen batasunaz mintzatu nahi genuke.

Oraindainokoan, gotzainak bakarka besterik ez ditugu aipatu. Baina gotzainak ez dira gotzain bata besteagandik banaturik. Gotzaina ez da soilki bere diozesiko gidari izpirituala. Eliza osoaren gobernuan ere eskuhartzen* du. Gotzainek, guztiek batera, Eliza osoaren goreneko artzaingoa taxutzen* dute.

Gotzain guztien[48] bilerari kontzilio deritza. Horretan Erromako gotzainari dagokion tokia —eta Kepagandik beragandik datorrena— guztiz berezia da. Laster ukituko dugu puntu hori.

Gotzainak, guztiak batera, Elizaren eta Kristoren egiaren zaintzaile dira. Gotzainengan agertzen da «Jainkoarentzat eskuraturiko herria»ren eta Kristok zapuztuko* ez duenaren hutsezina. Horra zergatik den hutsezin Kontzilioa, Kontzilio bezala mintzo dela berariz* adiarazten duenean.

Egia bizia 302

Hutsezina hitzak[49], agian gogortasuna eta gelditasuna idarokitzen* ditu. Baina, egiazko, zerbait aberats, bizi eta dinamiko adiarazten du: Jainkoaren Izpirituak, alegia, ez diola utziko Elizari hutsegiten egiaren bilakuntzan* (*54, 155, 236, 259, 263, 267, 285, 296, 370, 375*). «Sainduaren igurtzia* (ik. 1 Jn 2,20 eta 27) duen fededunen multzo osoak ez dezake hutsegin fedean» (Batikano II. Kontzilioa, *Elizari buruzko Kostituzio dogmatikoa*, 12. zenb.).

Aitzina, hutsezin hori kontu liburuetan hutsik ez egitea bezala hartu ohi zen, hein batetan: idatzia dago, pentsatu ohi

48 Ik. *Eraskina*: «Gotzainek elkarrekin...» 549 or.
49 Ik. *Eraskina*: «"Hutsezina" hitza...» 546 or.

altxor: tesoro, trésor. **hutsezina:** infalibilidad, infaillibilité. **eskuhartzen:** parte hartzen. **taxutzen:** eratzen. **zapuztu:** baztertu. **berariz:** agerian, espreski. **idarokitzen:** gogora arazten. **bilakuntza:** bilaketa. **igurtzia:** unción, onction.

zen; kito, erabakia dago. Egia harkaitza* bait litzan irudikatu ohi zen eta, harkaitz izan ezean, ez zen bat bera. Ez zen kontutan hartzen, ez garela inoiz egia hutsarekin eta soilarekin aurrez-aurre aurkitzen, beti egiaren adirazpenarekin baizik. Egia bat berak, uneoro* era berrian eta egokian behar du adiarazia izan, bere bizitasuna galduko ez badu bederen*.

Alderdi hau argiago bihurtu da, gaurko bizikera eta pentsakera dela bide; ondorioz, jende asko norabiderik gabe dabil. Aldakaitz uste zuena, arras mugikor* ageri da: egiaz adiarazpen eta egokitze berriak nabari dira. Eta mugimendu horretan aldaezina zein den, Jainkoaren mezuaren* absolutua zein den, bereizteko ez da gauza jende asko.

Halaz guztiz, zutik darrai mezuaren muinak. Pentsabide biziagoan hezi direnek ez dute zailtasunik hura aurkitzeko. Horiek badakite, puntu iraunkor bat ez dela ezinbestean mugikaitz*. Hona adibide* bat: moxal* batentzat puntu iraunkorra ez da ez arbola, ez hesia, ibili dabilen eta mugitzen den bere ama baizik. Are* hobekiago: haurtxo batentzat, ama da puntu iraunkorra; baina bai mugikorra dela, bai bizia! Orain *kanpoan, gero sukaldean, behin pozik, hurrengoan ilunago.* Puntu iraunkorra, hitzaren esanahi sakonenean, gauza bizia eta mugikorra da. Eliz irakaskintza ere, Ebanjelioari eta bere lehenari leial zaion neurrian, ez da sistima hertsi bihurtzen; ahots bizi irauten du. Ebanjeliozko balioak aro berri orotako hizkuntzan ematen ditu. Horrek hauxe esan nahi du: itzulpen oro hobetzen ahal dela.

Gotzainak, Eliza osoari entzuten diotelarik, erromes dabilen Jainko herriarekin batera bila dabiltzelarik, Kristoren argiak hutsik ez diela egingo sinetsiz, ebanjeliozko egiaren irakasle dira. Daramaten eta gu gidatzen gaituen Kristoren argia, aitzinako eta galezineko argia bera da: *lumen Christi!*; aldi berean, Bazko argizariak biztu deneko eta beti berria den gauaren noizkoa idatzirik daraman (*142*) bezala, gotzainak ere idatzia darama bere argiaren sorburua duen Kristoren izena.

Batasuna Keparen ondorengoari esker[50] 303

Halaz guztiz, berez datorkigu hemen galde bat. Hori argitzeak hobekiago jaberaziko* gaitu Kristok Elizari eginiko dohainaz. Honela esan dezakegu: Elizan, gotzainen artean banaketarik sor baledi, norengana jo? Arazo honek Erromako gotzainaren aginpideaz mintzatzera garamatza.

50 Ik. *Eraskina*: «Une honetan...» 550 or.

harkaitza: arroka. **uneoro:** momento guztietan. **bederen:** behintzat. **mugikor:** aldakor. **mezu:** mensaje, message. **mugakaitz:** aldakaitz. **adibide:** etsenplu. **moxal:** pottoka, zaldikume. **are:** oraindik. **jaberazi:** kontura arazi.

Jesusek Kepa eman zuen apostoluen artean lehenengo bezala. Hiru aldiz esaten dio: «Bazka itzazu nire ardiak». Hitz bat hiru bider esatea, aitzinako Ekialdean, baieztapen* sendoena ematea zen. Galileako arrantzale honetaz eta Jaunak eman zion eginkizunaz, mintzatuak gara (*111*).

Keparen artzaingoa ondorengoei emana izan zaie. Apostolua Erroman hil zen, Neron-en garaian, 64. edo 67. urte inguruan. Ondoren, hiri honetaz heldu zaizkigun lehen berriak Antiokiako Iñakik eta Erromako Klementek emanak ditugu. 100. urte inguruan idatziak. Nahiko argi desaigute biok, beste Eliza guztien artean Erromako Elizak ordurako zuen leku berezia. Eta horretan jarraituko da. Haseran, ez zen erakunde berezirik behar izan horretarako. Baina, joan-etorri handiko arazoak harrotzean, Erromako Elizara jo ohi zen.

Nondik nora, ordea, maila berezi hori Erromako Elizari? Politik mailan ere Erroma aministrazioaren hiri nagusia zelako ote? Hipotesi honek ez du egi itxurarik; izan ere, Erromako gotzainaren lehentasunak ez zuen, garai horretan, inolako aministrazio tankerarik. Erromako gotzaina anaiarteko lehena egiten zuena, ez zen Inperio herriko hiriburuaren izena, eta bai Kepaganaino heltzen zen apostoluen elkarte zaharraren izena.

Erromako Eliza honekin elkartuta (komunioan) egotea, Eliza osoari atxekirik egotearen garantia zen.

Erromako gotzainaren eginkizun berezia Keparena bera da: Eliza batasunean zaindu, fede eta bizi batasunean zaindu. Horregatik, Erromako gotzainari gotzain batzarraren buru izatea dagokio. Ez da beste gotzainen gainetik ezarri, besteen artean lehena eta besteen gidari bezala baizik. Era honetan, esan dezakegu, besteen gainetik dagoela: burua gorpuzkide* delarik ere, gorputz osoari gailen zaion bezala. IV. mendeaz gero, Erromako gotzainari *Papa* deritza (laterazko izenez; «aita» esan nahi du; euskaraz *Aita saindu* itzuli dugu). Eliza gobernatzen eta eskolatzen dutenen artean, berari dagokio lehentasuna.

Gerora, Erromako Eliz gobernua guztiz indartsu eta erdiratzaile bilakatu zen, batez ere XIV. mendeaz gero (*174*). Alde onak eta txarrak ukan ditu honek. Badirudi, gaurregun Izpirituak berriro lehengo bidera daramala Eliza: tokian tokiko gotzainei erantzukizun zabalagoa ezagutzera. Aita sainduaren zuzendaritzapean, ordea, beti.

Gaur, azkenik, Aita sainduak hautatzen ditu gotzainak (*297*). Eskua sartzen ahal du edonongo diozesi batetako arazoetara. Eta gainera, gotzainen batek bere eginkizuna ezin

baieztapen: afirmazio. **gorpuzkide:** gorputzaren atal.

bete baleza, aministrari apostoliko bat izenda dezake Aita sainduak.

Gizaldiak zehar, ezagutzen dugun gobernu sistima biribildu da: Aita sainduak bere esku du aginpide nagusia, oso zabala, eta Kuria deritzaion Erromako Kongregazioen laguntzaz betetzen duena. Kongregazio horik Estatu batetako ministerioekin alderatzen* ahal ditugu. Aita sainduaren laguntzaile bereziak Kardinaleak dira. Haseran Kardinale horik, Erromako eta inguruko eliza nagusienetako gotzain, apaiz eta diakonu izan ohi ziren. XI. mendeaz gero, horien esku dago Aita saindua hautatzea. Kardinale taldea gero eta nazioartekoago bilakatzen ari da. Diozesi handi askotako gotzainak egin ohi dira Kardinale. Beste Kardinale askok Erroman bertan dihardu; esaterako, Erromako Kongregazioen buru bezala.

Aita sainduak, Elizaren eta gotzainen batasunaren erantzukizun berezia duelako, irakasgoan* ere esku* handia du. Hutsezineko gotzain batzarraren buru delarik, hutsezina bereziki berari dagokio. Bidea markatzen duen seinalea antzo* da. Ez du esan nahi horrek, Elizarekin bat egin gabe dogmarik eman dezakeenik. Ezin ematen ahal du Eliza osoak sinesten duena baizik. Gotzain katoliko guztiekin aztertzen du; batez ere, Batikano II. az gero antolaturiko sinoduarekin. Baina, Aita sainduarekin elkartuta (komunioan) egotea Elizaren batasun seinale delako, haren (Aita sainduaren) hitzak Izpiritu Sainduaren egiaz beterik dira, hutsezinean eta guztiok onartzera behartuz mintzo dela argi eta garbi adiarazten duenean bederen; baina, hori oso gutxitan gertatu ohi da. Hutsezinaren karisma edo dohain (Izpirituaren dohain) (*151*) hau anaien artean lehenengoa delako dagokio Aita sainduari. Eta beronen fedeaz zer esan? Sinestun bait da (*110*), eta Aita saindu denez ere, Elizan halako aginpide handia hartu duelarik ere, bere fedea Eliz elkartetik hartzen du (*297*).

Baina, Eliz irakasgoak bere zenbait araubide eta ageri hutsezinekotzat jotzen ez badu ere, ezin esan daiteke, horrelakoetan Jainkoaren Izpiritu gabe denik. Itzal handiko mintzoa da horrelakoetan ere, gure arreta guztia merezi duena.

«Ez gabiltza jauntxokeriaz zuen fedea agindu nahirik. Zuen poza lagundu nahirik gabiltza, zuen poza...» (2 Kor. 1,24) **304**

Gogoan hartu behar da, apaiz oro, gotzain oro, lehenik diakonu dela, hau da, zerbitzari. Guztien artean txikiena, guz-

alderatzen: gonbaratzen. **irakasgoa:** irakasletza. **esku:** autoridad, autorité. **antzo:** antzera.

tien zerbitzurako izatea: horixe da apaiz lan guztiaren oinarrizkoa.

Irabazirik gabeko zerbitzaritzarako ez da inoiz izan kristau gehiegirik. Alde horretatik, beraz, ez da apaiza zereginik gabe gelditzeko arriskurik. Bere neurrian, Jaunaren askatasun osoaren jabe gelditu ohi da apaiza Jainko herriari bere burua lotzeko, liberatu eta aske da apaiza; Elizaren ardura hartzeko, bere buruarekiko ardurarik gabe da apaiza.

Arrazoin horregatik, Mendebaldeko Eliza, ezkonge* gelditzera behartzen direnak bakarrik apaiz egitera heldu da (*398*). Gisa* berean, garbi ageri da apaiza ez daitekeela aberats izan. Azken baldintza* hau ez dario inongo lege konkreturi; ezkongetasunak, berriz, ez daduka guztientzako beti lege izan beharrik. Dena dela, ezkongetasuna eta pobretasuna apaizaz kristauak duen ikusmoldearen agerpen dira: Kristo Mesiaren eginkizuna bera duelarik, apaizak iturri bizi izan behar du, bere bizitza osoa eskaintzen duena.

Aldi berean, zerbitzaritza berezirik ez duten kristauei, beren bizitzatik zerbait ematea eskatzen zaie. Beraiei dagokie apaizen premiei erantzutea; zeren* honela mintzo bait da Jauna Ebanjelioaren predikatzaileez: «Irabazi du langileak bere saria» (Mt 10,10). Apaizak beste premiarik ere badu: Kristauen onginahiaren, zorroztasunaren, fedearen eta egizaletasunaren premia, alegia.

Zer-nolakoa izanen da apaizaren bizitza? Inork ez daki aldez aurretik. Esaterako, 1970ean apaiztua, 2000an ere apaiz izanen da. Zer-nola bete beharko ote du orduan bere zerbitzua? Ezin jakin. Eta apaiz bat baino gehiago zuzenduko zaio Jainkoari ordu ilunetan, Jeremia bezala: «Zuk, Jauna, liluratu egin ninduzun, eta nik zer eta, liluratzen utzi egin nizun» (Jr 20,7). (Grezierazko itzulpenak zorrotzago dio oraino: «Atzipetu* nauzu, eta ni atzipetzen utzi dizut nik»).

Apaizgorako deia **305**

Bai, Jainkoak liluratua. Jainkoa da, hondo-hondoan deitzen duena. Nola? Bibliak honelako dei askoren berri ematen digu. Kontakizun horiek, hurbil-hurbiletik eta bizi-bizi, gaur berton ere gizakien barnean eta gaurko erara gertatzen dena kontatzen digute. Liburu sainduek norbaitzuri egindako dei horiei hainbateko lekua emateak zerbait adiarazi nahi du, noski. Gai hori Jainko herriari zer-nola axola zaion adiarazten

ezkonge: célibe, célibataire. **gisa:** era. **baldintza:** kondizio. **zeren:** izan ere. **atzipetu:** engainatu.

digu; agian, herri hori Jainkoari zein maitagarri zaion. Deia ez zaio gizadi osoari bakarrik zuzentzen, eta bai gizon-emakume bereziei ere.

Nola jakin inork deitua dela? Poza ezagutuz: apaiz izateko asmoak norbaitengan poza eta bakea iratzartzen* baditu, balitzateke arrazoin handirik, Jainkoaren deia dela pentsatzeko. Jainkoa ez bait da bihotz nahastaile, bakearen eta pozaren Jainko baizik. Poza ezagutuz esan dugu; izan ere, gerta daiteke, bi poz mota bata bestearen aurka izatea: apaiz ez izateko asmoak poza, eta apaiz izatekoak ere poza. Baina, hauxe sumatuko dugu: bata sakonagoa dela, bakearen egiazko iturri dela. Norberaren hondoenean bakea sumatzea: horra hor zeri begiratu.

Beharbada, biderik gogorrenera* edo zailenera garamatza; beharbada, ez. Dena dela, hauxe izango da funtsezko* jarrera: lasaitasun osoz, erantzun ausarta emateko eta norbere buruaz ahazteko prest egotea: «Jauna, zer nahi duzu nik egitea?».

Baina, egoki litzateke, horrelako gogoetak nork bere barnean ez gordetzea, eta bai, apaiz jator eta burutsuren bat bitarteko dela, Eliz elkartearekin harremanetan jartzea. Delako apaiz horrek ez luke mugatu behar inoren askatasunik, handitu baizik. Jakinaren gainean dago, bada: apaiz izateko baldintza nagusiena, nork bere gogoz hautatzea da.

Elkarteak badu beste egiteko garrantzitsu bat ere deiari buruz. Elizak bere artzain ordezkoen bitartez apaizgaiaren gaitasuna aztertu egiten du eta, gai agertuz gero, mandatua ematen dio. Azken deia, beraz, Kristoren Elizatik dator, eta apaizgintzakoan bertan, hain zuzen.

Deiaren sorburura joz gero, elkartea aurkitzen duzu beti: haurra hazten ari deneko familia, parrokia, eskola, edo, geroago, zenbait harreman (*335*). Harreman horietan honetaz jabetzen ahal zara: zure bizitza besteekiko zerbitzuak eta Jesukristo gure Jaunarekiko adiskidetasunak erabat ase* dezaketela.

Geroago, dei baten jatorria* gogoematean, artean benetako eta baliozko ez zen arrazoipidea aurkitu ohi da askotan. Inork ez dio ekiten bideari ordutik bertatik heldu liratekeen arrazoinez. Asmo haren lehen garbiketa eta argitzea, erabateko «baietza»ren aurreko astinaldian gertatu ohi dira (astinaldi hau ezkongaialdiarekin aldera* daiteke). Baina Jaunaren zerbitzuan emaniko bizitzak, inor heldua denean eta zahartzaroan zehar, arrazoinak sakonagotu egiten ditu, eta egizkoago bihurtzen. Noski, bada batasunik lehen nahiaren eta honen burutzearen artean. Baina, batasun handiena ematen duena Biziduna

iratzartzen: bizten. **gogorrenera:** boztitzenera. **funtsezko:** nagusi. **ase:** bete. **jatorria:** sorburua. **aldera:** alderatu, gonbaratu.

da, Ustekabea, bidelagun bezala hartu zen Jainkoa. Honekin lankide izaten saiatzen da deiari darraikiona: lankide, alegia, Horren kreazioan biziena eta ustekabekoena denaren alde, hau da, gizakien alde.

Bigarren agindua* lehenaren antzeko da

Aurreko kapituluetan Jainkoaren eta geure arteko harremanak aztertu ditugu bereziki; begirunez eta maitasunez beterik, gizakia bere jatorriaren* misterioaren aurrean jarri da.

Ondorengo kapituluen gaia, munduarekiko gure harremana izanen da; begirunez eta maitasunez, gizakia, «Lurra eta berau betetzen duena, lurbira eta bertan bizi direnak» (Sal 24,1) duten misterioaren aurrean jartzen da (*246*).

Bereizketa hau hamar aginduetan aurkitzen da; lehenengo hirurek Jainkoaz dihardute, eta hurrengo zazpiek gizakiaz.

Datozen kapituluak, beraz, zazpi azken aginduez mintzo dira, haien ordena eta banaketa arras kontutan hartzeke*, ordea.

Hamar aginduen jatorria 306

«Agindua» hitzaz zenbait gogoeta eginen dugu lehenik. Agindu bat, askorentzat, kanpotik ezarritako zama astuna da; horregatik, honela dio: «Agindurik ez balitz, beste gisa* batez ihardungo nintzateke». Alabaina, horrela mintzatuz, txikartu* egiten dira aginduak; beren baitako balio guztia ukatu egiten zaie. Jator izateak, bizia zaintzeak, ezkontza bizitzan leial jokatzeak, ez lukete berezko baliorik; Jainkoak ezarririko betebehar huts lirateke, eta horien ordez beste edozein betebehar ezar ziezagukeen. Pentsakera horren hondo-hondoan halamoduzko hezketa topatzen* dugu: ontasuna agindu zorrotzezko sistimara hesitu duen hezketa hertsia*; bizitz giro honen akuilua zera izan da: Kanpotik «hala behar da», pausatzeke* eta behin eta berriz, errepikatzea; eta norberaren irizmenari*, ez hezitzailearenari ez hezigaiarenari lekurik asko ez zitzaiola ematen. Horrela, ez zitekeen inor jabetu, aginduak beren izatez onak direnaz, beren adiarazpen sakonenean gizakiaren eta munduaren izakeran sustraituriko bizi-balioak direnaz (*322-336*).

agindua: manamendua. **jatorria:** hastapena. **hartzeke:** hartu gabe. **gisa:** era. **txikartu:** apaldu, txikiagotu. **topatzen:** aurkitzen, kausitzen. **hertsia:** hestua. **pausatzeke:** gelditu gabe. **irizmena:** iritzia emateko ahalmena.

Ezin atera dezakezu horretatik honelako ondoriorik: «Beraz» aginduak ez datoz Jainkoagandik. Guztiz bestelakoa da egia. Kreazio osoa, bere baitan daramatzan balio eta guzti, Jainkoagandik dator, eta Harenganako bide dugu. Balio hauekin ados bizi baldin bagara, Haren borondatearekin eta aginduarekin ados gara. Gogora dezagun berehala, kontzientziaren argi hori ez dela berez sortu gizakiaren okerbide, arrokeria eta berekoikeriaren errautsetik. Kontzientzia hori Israelgo herrian, Jainkoa gizadiarekin harreman berezietan hasi zenean sortu zen. Sinai mendiko kontakizuna historiaren bide luze baten laburpena da (laburpen bikaina gero; irakur bitez *Exodo* liburuko 20. eta 34. kapituluak) (*26, 32*). Israel herriaren historian eta fedean agertu zen, hain zuzen, Jainkoa berbera eta bere egitez; eta Gizonaren Harekiko jarrera zuzena ere orduantxe hasi zen argiago agertzen, agindu zehatz eta garbitan. Honela bada, gure irrika sakonenaren azalpen dira aginduak eta, aldi berean, gure egiteetan nahasten den gauza gaizto guztiak kritikatu egiten dituzte, Jainkoagandik datorren kritikaz kritikatu ere (*311*).

Aginduak aspaldiko tankera trinkoan formulatuak ditugu. Esate baterako, hona nola dagoen idatzia bat: «Ez duzu hilgo». Horretan, alabaina*, bizitzari zor zaion edozein errespetu modu dator adiarazirik. Gure azalpen honetan, beraz, ez genuke azpimarratu* nahi «legearen gogortasun» alderdia: hori, aro batetako elementua izaki; legearen esanahi sakona eta betirako dena adiaraziko dugu: eskuetako behatzez konta daitezkeen hamar esaera horiek gizadiaren kontzientzia osoa ematen digute, labur-labur.

Aginduak gizartean 307

Hamar aginduetan azaltzen diren balioak, maila eta adin* arras diferentetako kulturetan bizi diren gizartetan bizi-biziak dira. Horregatik, agindu horik azaldu eta egokitu beharra dadukagu. Guztiz sakonak diren balio hauk sinestunentzat interpretatzea Eliz maisutzaren lan berezia da (*296, 302-305*). «Lurrean lot dezazuena, lotua izango da zeruan ere; eta lurrean aska dezazuena, askatua zeruan ere» (Mt. 18,18). Jesusek bere apostoluei egin zien agintzari* honek, haien ondorengoentzat ere balio du. Lotzeak eta askatzeak, hots, elkartea eratzeak eta eraikitzeak, bere baitan darama zilegi eta debeku zer den definitzeko eskua* ere.

alabaina: halere. **azpimarratu:** nabarmendu. **adin:** edade. **agintzari:** promesa, promesse. **eskua:** agintea.

Horretaz mintzatuak gara «Jainkoaren gantzutuak* bere elkartea biltzen du» deritzan kapituluan (*105-113*). Era berean[51], hierarkiaren argibide honek Eliza osoaren sinesmena adiarazten duela argi gelditu zen artzain apaizgoaz* zihardu en kapituluan (*302*). Kontzientziaz ihardutean*, berriro ukituko dugu puntu hori kapitulu honetan. Erregela edo arau orok kontutan eduki behar duen funtsezko balioaz ere, hots, maitasunaz ere mintzatuko gara berriro.

Gogoan eduki behar da arazo hauetan guztietan, aginduen egokitzeak garai jakin batetako gizarte berezi baten seinalea daramala. Betiko eta aldakor diren elementuak nahasian dabiltza. Nahi dugun balioa ez du adiarazten inolako formulaziok bere jatortasun osoan eta behin betirako. Izan ere, onaren eta gaitzaren zentzua berriztatu egiten da etengabean, eta hedatu; era berean, aginduak, betikoak direlarik ere, garai batetan eta bestetan, leku batetan eta bestetan ulertzeko eta bizitzeko modua aldatu egiten da.

Oharpen hauetaz ez dugu ukatu nahi, arazoa egiazko elkarte bat agintez gidatzea denik. Jainkoa agertzen deneko elkartearen erditik, argi bat jaikitzen da, aztamuka* eta aurrera doan gure bizitza gidatzen duelarik. Elkartea da balioak interpretatzen eta adiarazten dituena.

Kontzientzia eta aginduak bat datoz 308

Aginduen interpretazio eta adiarazpen horik ez dira jatorrizko balio-zentzumenarekin zerikusirik gabe, ona bereizteko nork bere baitan daraman zentzumenarekin alegia: kontzientziarekin, esan nahi dugu (*14*). Izan ere, gizakiak badu bere baitan berezko sena, egin behar duena adiarazten diona: hobeto esan, gizakia sen* horixe da.

Aginduak eta kontzientziak balio berdinak azaltzen dituzte. Oker handia izango litzateke, kontzientzia hori gizakiak nork bere arazo duela pentsatzea. Okerra alegia, elkartearekin zerikusirik ez lukeen aztikeriazko* iturri dela pentsatzea! Holako kontzientziak, gizakiak bata besteagandik banatu eginen lituzke, ez litzateke gizatar izanen.

Horregatik, neurri hertsian bakarrik da egia, gaurregun, batzutan, entzuten den hau: «Lehen, aginduei jarraituz bizi zen gizakia (obligazioa zelako egiten zen zerbait); gaurregun kontzientziari jarraituz bizi gara (askatasunez jokatzen du-

51 Ik. *Eraskina:* «Hierarkiaren argibide hauek...» 559 or.

gantzutuak: igurtziak. **apaizgoa:** apaiz izatea. **ihardutean:** mintzatzean. **aztamuka:** itsumandoka. **sen:** zentzu. **aztikeriazko:** sorginkeriazko.

gu)». Izan ere, lehen ez zen jokatzen kontzientziari so egiteke*, eta gaur ez da jokatzen elkarteak ematen duen aginduari jaramonik egin gabe. Kontzientzia eta agindua bereiz ezinak dira. Hau da egia: mende bakoitzean bi elementu horik desberdin balioztatzen dira; baina, hori beste gauza bat da, eta laster luzeago mintzatuko gara horretaz. Hemen, kontzientziaren eta aginduaren arteko batasunaz mintzatuko gara. Ez gaitezela, bada, okerrera eror, «norbera» eta «elkartea», «kontzientzia» eta «agindua» elkarrekin bat etor ezinekoak direla pentsatuz (*186*). Haien arteko aurkakotasuna* baino sakonago eta funtsezkoago* batak bestea balioztatzen duelakoa da. Norbera norberago, eta komunio biziagoa besteekin, irekiago hartzeko eta emateko, baita Jainkoaren gauzak berak hartzeko eta emateko ere (*235*). Orobat* alderantziz* ere: besteengana irekiago, eta norbera norberago (landereak gizakiak baino nortasun kaxkarragoa du eta, horrez gero, elkartasuna ere kaxkarragoa). «Norberetasuna» eta «elkartasuna» ez dira, barne-barnean, josigaitzak*. Kreazio osoa maitasunerako egina bait da.

Agindu on batek eta kontzientzia on batek, batak bestea indartzen dute. Ez da inoren kontzientzia, elkartearen kontzientziarekiko loturarik gabe. Horregatik, *Sirak* liburuko esaerak betiko balioa du:

> «Legea gorroto duena ez da burutsu; gordetzen ez duena, berriz, itsasontzia ekaitzetan bezalaxe hondatuko da» (Si 33,3).

Kontzientzia eta agindua tirabiraka 309

Kontzientziaren[52] eta aginduaren arteko batasun sakon eta funtsezkoa alderdi bat da; baina, ez da bakarra. Hona beste bat: kontzientzia eta agindua tirabiraka dira eta, izan, hala behar dute izan. Legeak bere arau guztiekin, ez ditzake aldez aurretik kasu guztiak gogoan har. Legeak agintzen duena baino honuntzago geratu ala haruntzago joan beharreko kasuak izanen dira. Kontzientzia, une konkretu batetan hoberena zer den jabetzeko gauza delarik ezin daiteke gida kasu konkretu batetan legearen letra hutsez. Zenbaitetan legea baztertu ere egin beharko du, kasu konkretu batetan gizabidezko azken balioak burutzekotan.

Tirabira zuzen batetarako bigarren arrazoina, balioen esanahiaren eboluzioa. Ikusia dugu, onaren eta gaitzaren

52 Ik. *Eraskina*: «Kontzientziaren eta aginduaren...» 559 or.

so egiteke: begiratu gabe. **balioztatzen:** baloratzen. **aurkakotasuna:** etsaigoa. **funtsezkoago:** oinarrizkoago. **orobat:** berdin. **alderantziz:** kontrakoz, bestalde. **josigaitzak:** josi ezinekoak.

zentzua etengabean* ari dela eboluzionatzen eta berriztatzen. Egun batez, balio moral handienen (hots, hondo-hondoan aldagaitz* diren hamar aginduen) agerpiderik hoberena izan zena, ez da hala gertatzen beste aro batetan. Giza kontzientziak legea berriztatzen dihardu beti.

Prolema honek arreta berezia eskatzen du; izan ere, manamenduez*, Jainkoaren elkartean —hots, Elizan— adiaraziak direnez mintzo bait gara; eta, badakigu, elkarte honetan joan-etorri handiko zeregina* du kontzientziak. Hain zuzen, Elizaren ardura, gizadiak bere Jainkoaren aurrean duen jarrera da. «Zuek lurrean lot dezazuena, zeruan ere lotua izanen da» (*110*). Kristau bizitzari funtsezkoa zaio kontzientziari emaniko garrantzia; Elizaren irakatsia da, kontzientzia okerrak ere behartu egiten gaituela. Honela dio Paulo sainduak: «Asmo onik gabe egiten den guztia, berriz, bekatu da» (Erm 14,23). Eta Akinoko Toma sainduak (XIII. mendean) honela idazten du: «Norbaitek, gezurrezkoa dela jakinez, Kristorekiko eta Elizarekiko fedea aitortuko balu, bere kontzientziaren aurka bekatu eginen luke». Eta Newman Kardinaleak (XIX. mendean): «Hau uste izan dut beti: nork bere kontzientziari, okerra delarik ere, jarraitzea dela biderik hoberena argitarako».

Alabaina, pentsalari horiek ongi aski zekiten arazoa ezin konpon daitekeela subjetibitate hutsera joz. Ezin uzten ahal dugu bazterrean egiazko elkartearen kontzientzia den aginduak aurpegiratzen digun desafioa. Erdi Aroko pentsabideak, arras objetibua eta elkartean finkatua zelarik, handikiro ere azpimarratzen* zuen hori. Esate baterako, badirudi, Toma sainduaren ustez, ez daitekeela gizakia kontzientzia okerrera hel, bere aldetik errurik* ukan gabe. Eta Agustin sainduarentzat (IV. mendean) zailago da oraino hori gertatzea. Baina, horrek guztiak ez dio ezer kentzen esan dugunari; Elizaren betirako irakatsia da, nor bere kontzientziari leial izan behar zaiola. «Kontzientziarekiko leialtasunez kristauak gainerako gizon-emakumeekin elkarturik daude, guztiek elkarrekin Egia bilatzekotan», idazten du Batikano II. Kontzilioak (*Eliza aro honetako munduan*, 16. zenb.).

Elizaren ardura*, Jainkoarekiko harremanak dira. Horregatik, haren legeak Estatuarenak ezbezalako dira. Hauen xedea* ordena publikoa da, eta kontzientzi mailan ez dute nahasi nahi. Horrek ez du esan nahi lege horiek kontzientzi mailan behartzen ez zaituztenik. Hauxe bakarrik: alderdi hori ez dagokiola Estatuari (*347*).

---

etengabean: gelditu gabe. **aldagaitz:** alda ezineko. **manamendu:** agindu. **zeregina:** egitekoa. **azpimarratzen:** nabarmentzen. **errurik:** hutsik. **ardura:** arrangura, axola. **xedea:** asmoa, helburua, meta.

Elizaren legeak eta Estatuarenak diferenteak dira. Eta esanmoldeak berak ere, gero eta gehiagoan adiaraziko du berezitasun hori.

Nork bere kontzientzia hezi 310

Arrazoin asko dugu, eta egungo bizigiroan gehiago, norberaren kontzientziaren garrantzia aupatzeko. Pertsona bakoitza, gertaera bakoitza, egoera bakoitza inoiz berrizta* ez daitekeena delako sendimendua haziz eta haziz doa. Aldi berean, aldakuntza garai xit berezian bizi gara: balioen zentzua arras sakonki berritzen ari deneko garaian.

Prolema are biziago bilakatzen da oraino zutik dagoen balio ikusmoldea ikusmolde hertsi egitean, edo zaharkituriko ikusmoldea adiarazten duten aginduak xeheki emanak ageri direnean. Horrelakoetan, nor bere fedezko zentzuari galdegin beharrean aurkitzen da, nor bere onaren zentzuari. (Jakina, ez dezake hori egin bakarka. Nork bere buruari galdegin eta aztertu, Jainkoaren elkartearen baitan eta gizadi osoaren baitan kokatzen delarik galdegiten eta aztertzen ahal du; orduan giza kontzientzian ikusmolde berria taxutzen* nabari ohi da).

Gure garai honek, beraz, zeregin berezi baten aurrean ipintzen gaitu, gure garai honi bereziki dagokion baten aurrean. Alde batetik, elkarteko arduradunek* humiltasunerako eta egiazko obedientziarako deia zuzentzen digute: Kristau izpiriturako eta bakerako behar-beharrezko diren bertute horietarako deia: «Ez uste izan gero Legea edo Profetak kentzera etorri naizenik» (Mt 5,17) (*99*). Bestetik, berriz, hala behar denean, nor bere erabakia hartu beharrean aurkitzen gara Jainkoaren adiskide bezala jokatuz, kontzientzia adoretsu eta baketsuz, eta beste gizaki leial eta zuzenekin bat izanez. Horixe adiarazten zuen Jesusek honela esatean:

> «Ez ahal duzue irakurri zer egin zuen Dabidek bera eta berarekin zirenak gosetu zirenean? Nola Jainkoaren etxera sartu zen eta eskaintz ogiak jan zituen; nahiz eta ogi haiek jatea ez berak eta ez bere lagunek libre eduki, apaizek bakarrik baino?» (Mt 12,3-4).

Ez dezagun ahantz, gainera, Jesusek ez dituela irakasten aginduak beren arteko lotura gabeko lege sail bat bezala, Jainkoak bere apeta* hutsez emaniko agindu bezala. Ez; aginduetan muin* bat badela adiarazten du, sorburu* bat badela, balio guztiei esanahi bat ematen diena. Honela dio, bada: «Bi

berrizta: berriztatu, berriz gertatu. **taxutzen:** eratzen. **arduradun:** buruzagi. **apeta:** capricho, volonté arbitraire. **muin:** mami. **sorburu:** iturria.

agindu hauetxen gakoan daude Lege guztia eta Profetak» (*101*).

Zeintzu dira, gero, bi agindu horik?

> «Maita zeure Jainko Jauna bihotz osoz, gogo betez eta adimen osoz. Hau da nagusiena eta lehenengo agindua. Honetxen antzeko da bigarrena ere: Maita zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe» (Mt 22,37-39).

Legearen sorburua eta amaia maitasuna dira. Honetara biltzen dira hamar aginduak: lehen hirugarrenak eta beste zazpiak. Maitasunak damaie esanahi osoa: Jainkoaganako maitasuna, gizakienganako maitasuna.

Lagun hurkoarekiko maitasuna, fede misterio 311

Beraz, gauza bat da funtsezko*: maitasuna. Jainkotiar eskatimaz* beteriko hitza (*101-104*). Badirudi, hitz horrek gerenez* ezagutzen duguna dakarkigula soilki. Hala uste izaten dugu zenbaitetan; izan ere, hain oharkabeki iharduten garelarik, ez gara konturatzen zenbateraino kutsatu duen gure zentzua bera hogei mendeetan zehar predikaturiko ebanjelioak (*180*). *Teilhard de Chardin*-ek munduko gauza nagusienak indarkeria eta borroka zirela buruak ematen ziolarik, maitasun mandatuaren agerpena misterio baten agerpen bezala agertu zitzaiola idazten du. Agindu horren indarrak handikien harrokeriak eta ahulen erreminak ezereztu egiten ditu. Gure jokabide osoari Jainkoak dagion kritika da maitasuna; sendatzen eta biziarazten gaituen kritika (*306*): funtsean, fede misterio baten agerkundea da, Jainkoa maitasun delako misterioarena. Hain zuzen ere, Jainkoaganako maitasuna eta lagun hurkoaganakoa bereizi ezineko dira.

Lagun hurkoa maitatu, eta Jainkoa baztertu! Jarrera hori hainbateraino da Kristoren mezuaren aurkako, non* ez bait da aipatu ere egiten ebanjelioan. Jainkoaren erreinua bait da Kristoren predikuaren muina eta maitasunez bideratzen gara horretara (*61-72*). Kristoren otoitza, «Gure Aita» alegia, Gure Aitaren izenaz, erreinuaz eta nahiaz mintzo da lehenik. Aita dator gainerako guztien gain argi baino argiago (*90-91*).

Horrek ez gaitu harritu behar. Nola ukan* dezake inork gauzarik handiena maitasuna delako uste sendorik, Jainkoari ateak hersten badizkio? Nola jakinen luke orduan gauzarik handiena agian ez dela nork bere burua zaintzea? Edota, gauza oro ez dela zentzurik gabeko txorakeria? Munduaren hondo-hondoko muina, munduaren zimentarria, hots, Jainkoa,

funtsezko: nagusi, oinarrizko. **eskatimaz:** eskabideaz, galdeaz. **gerenez:** geure kabuz. **hainbateraino ... non:** tanto ... que, tant ... que. **ukan:** eduki.

maitasun dela sinesten duenak bakarrik jakin dezake, arduraz-ko gauza bakarra guretzat maitasuna dela (*417*).

Baina, ez ote da gizakirik, Jainkorik gabe ere egiazko maitasun handirik bizi duenik! Horra prolema korapilatsua; saia gaitezen hau argitzen mailaz maila. Bada jenderik aski bere kidekoekin* atsegin iharduteko biderik egokien bezala maitasuna eta onberatasuna ikusten duenik. Jokabide horrek buruhauste asko kentzen dio. Gauzak hobeto doazkio horrela. Ustemodu hori, daitekeena da Jainkorik gabe ere. Baina batek badaki, horrelakoentzat maitasuna ondoren bat lortzeko bide dela bakarrik eta ondoren hori dela funtsezkoen (izen ona, negozioaren etorkizuna...). Maitasunaz Jesusek dakarren mezua, arras bestelakoa da. Jesusentzat, gauza orok maitasunerako bide izan behar du. Maitasuna da azken helburua, funtsezko gauza bakarra.

Baina, ez ote da jenderik, Jainkoa bazterturik ere, arduraz-ko gauza bakartzat maitasuna hartu behar dela dioenik? Jainkoaren kontrako gorrotoa* ukan, eta horrenbestez besteekin senide* dela eta gizadi osoarekin bat dagiela uste duenik? Nola gerta daiteke, jakinaren gainean maitasunik handiena baztertu eta, horrela, egiazko maitasuna topatzea*? Ezinezko da hori. Honetara letorke hori: elkarrekin bizi,baina maitasunik gabe bizitzera. Eta elkartasuna haustea gertatuko balitz, berriro elkarri itsasteko* egiazko arrazoinik ez ukaitea litzateke. Hitz batean, Babelgo dorrea litzateke.

Eta halere, bada era horretan bizi denik. Jatorriaren Misterioa koloka dagoela irizten dute eta salbamendurako ez duela ezer ere balio; halere, hori ez zaie oztopo* nola-halako elkartasun bat egiteko. Jainkoa baztertzen da, eta lagun hurkoa maitatzen.

Baina, ez. Baztertzen dutena, Jainkoaren txorimalua da. Adibidez, Kreazio indar itsu bat, edo halabehar hotz bat, edo hodei arteko agure barragarri bat, eta nagusi tiranu bat: horrelako zerbait da baztertzen dena. Txorimalu bat, eta ez Jainkoa bera. Eta edonork bere baitan daraman erle xurgatzailearen* senaz*, lurrean garbien dena bilatzen da. Eta lagun hurkoarekiko maitasuna dela konturatzen zara. Egiazko maitasunik benetan topatzen eta bizitzen denean, Jainkoarena den zerbait topatzen eta bizitzen da, Jainkoa urrun dela uste bada ere. Karitatea eta maitasuna badirenean, hantxe da Jainkoa.

Eta ontasuna horrela bizi dutenek, ez ote dute Jainkoa noizpait ere berarizko* fedez ezagutuko? Bai horixe, eta sarritan. Baina, hemen lurrean, ez da beti hala gertatzen. Haien

kideko: lagun, antzeko. **gorrotoa:** herra. **senide:** haurride. **topatzea:** kausitzea, aurkitzea. **itsasteko:** heltzeko, lotzeko. **oztopo:** traba. **xurgatu:** chupar, sucer. **senaz:** zentzuaz. **berarizko:** expreso, exprimé.

hezketa dela bide, Jainkoaren karikatura edo txorimalua oso sustraitua ukan dezakete eta, horregatik, inoiz ere egiazko Jainkoaren, Jainko biziaren irudia ukaitera ez heldu. Halaz guztiz, kreazioaren gailur den gizakiari berari irekitzen zaiolarik, existentziaren hondo-hondoari irekiko zaio gizakia. Maitasunean eta maitasunaren azpian barrundatzen* den misterioari adi-adi egonen zaizkio; adi-adi alegia, existentziaren misterioa hondo-hondoan maitasun misterio ez ote den jakin nahian (*13-15, 374-375*).

Ez da lagun hurkoarekiko egiazko maitasunik, egiazko Jainkoarekiko, Jainko biziarekiko irekitasunik gabe.

Jainkoa ezin aurkitu dugu lagun hurkoa gabe 312

Kontrakoa ere egia da: Jainkoaganako maitasunik ezin daiteke ukan, Harek maitatzen dituen sorkariak*, gizon-emakumeak maitatzen ez badira (*227*). «Begiz ikusten duen senidea maite ez duenak, nola maita dezake ikusten ez duen Jainkoa?» (1 Jn 4,20).

Egiatan gerta daiteke, norbaitek Jainkoa bero-bero maite duela *ematea*, lagun hurkoari gorroto diolarik ere. Gizon honek, edo emakume honek, asko errezatzen du eta gartsuki, eta halere, bere ingurukoekin zital* hutsa da. Orduan, halakoaren otoitza, beharbada, ez da egiazko otoitz: bakar-bakarrik, bere gisako Jainko batekin iharduten* da (*240*), Jainkoak Elizan eta Kreazioan esaten duen hitza entzuteke*. Edota halako hori ez da ematen duen bezain zitala. Agian, izakera haserrekoia eta hertsia du, baina, behar izanez gero, xalo-xalo eta konturik gabe bere burua eskaintzeko lain*da. Agian, kristau ikuskera hertsian hezia izan da; hori dela eta, beharbada ontasunerako zenbait bide ohizko ez du haintzakotzat hartu: poza, esate baterako, eta jatortasuna. Beharbada, ez zituen ongi lotzen bere baitan Kristoren mezua eta giza maitasuna (bien loturaz, ikus gorago eginiko oharrak, «maitasun» hitza Testamentu Berrian aztertu dugun hartan [*101-104*]). Halako axolagabekeria gaitz handia da; eta Jainkoak ez dezala nahi horrelakorik, hezitzaile bilakaturik, ikuskera hain hertsiak beste batzuei ézar diezazkien. Halaz guztiz, Jainkoari gogotik atxekitzeak*, halako gizakien baitan ere, ontasun irmorik* iratzar* dezake. Haintzakotzat hartzeko moduko ontasuna, alegia.

---

barrundatzen: sumatzen. **sorkari:** kreatura. **zital:** gaizto. **iharduten:** solastatzen, aritzen. **entzuteke:** entzun gabe. **lain:** aina; gai. **atxekitze:** lotze. **irmo:** sendo. **iratzar:** iratzarri, esna arazi.

Hildo* honetatik arras luze mintza gintezke eta beharko genuke mintzatu: hainbat bait dira psikologi moduak! Dena dela, gure jokamoldearen arautzat*, honako hau har dezakegu: maitasun bi horik, beti, bata bestearen ezagugarri dira. Horrez gero, Jainkoarekiko gure jarrera egiazkoa den jakiteko, on izan daiteke, besteekiko dugun jarrera zenbaitetan arakatzea*.

Orobat, Jainkoarekiko dugun irekitasunak adiaraziko digu sarritan lagun hurkoarekiko gure maitasuna egiazkoa den ala ez.

Jainkoagana hurbildu nahi duenak, aisago* lortuko du frankotan bere xedea*, bere senidearen bitartez. Alderantziz, bere anaia maitatzeko indarge* sentitzen denak, Jainkoagana hurbilduz, indarra eta argia aurkituko ditu. Bi agindu handi horien batasunak norberaren hedapena eta askapena* adiarazten ditu.

Mugarik gabeko lege 313

Maitasun agindua giza indarrez goragokoa da. Askotan norberaren iraupen sena* eta norberaren ona bilatzea dira gure egite guztien eragile sakonenak, maitasuna baino sakonagoak. Eta, halere, gure lagun hurkoa «geure burua bezala» *maitatu behar dugu; horrez gero, gure iraupen sena hainbateko maitasunez (102).*

Maitasun legea, beraz, mugarik gabeko legea da. Inoiz ez dugu erabat betea izanen. Kristoren Mendiko Predikuaz mintzatzean, zehatz-mehatz azaldu genuen hori; han ikusi genuenez, Jesusen irakaspenak legea gordetzen du, baina, aldi berean, lege hori, «Hona legea, beste zereginik ez da» esatea baino areago zela genioen. Jesusek legea, maitasun arazo bezala ematen du, eta badakigu, maitasunak ez du sekula «aski da» esaten *(99-100)*. Horrela, beraz, legeak lehen ezbezalako itzala eta garrantzia hartu ditu. Ongi adiarazia dator hori azken hauziaz Jesusek damaigun irakatsian (Mt 25, 31-46). Jesusen ondoren, gizon-emakumeen hutsegite oro, maitasunik eza da. Eta ez da ezer larriagorik.

Baina, aldi berean Kristok gizakiaren baitako zerbait egin ditu aginduak. Aurrerantzean, legea ez da zigorra besterik gabe berekin dakarren lege hotza. Norberaren barneko arazo bero bihurtu du legea Jesusek. Gaizki ihardutean, norbaiten eta Norbaiten aurka ari gara. Horregatik, gure zereginak mu-

hildo: bide. **arautzat:** bidetzat. **arakatzea:** aztertzea, ikustea. **aisago:** errazago. **xedea:** asmoa. **indarge:** indarrik gabe. **askapena:** liberazioa. **iraupen sena:** instinto de conservación, instinct de conservation.

garik ez du. Horrek, gure ezina ere kontutan hartzen dela esan nahi du. Edozein hutsegite makurrago da orain; baina beti dukegu berriro hasteko biderik; beti ukanen dugu berriro maitatzen hasteko aukerarik. Baldin eta bideari ekiten badiogu, ordea! Baldin eta maitasun zuzenbidearen gose-egarri bagara, alegia.

> «Munduko ondasunez aberats den batek, bere senidea premian dagoela ikusirik bihotza hetsiko balio, nola egon daiteke ba Jainkoaren maitasunik horrelakorengan? Umetxook, ez dezagun hitz hutsez eta mihiz maita, egitez eta benetan baino» (1 Jn 3,17-18).

Horrek zer esan nahi duen dakien inork ez dezake esan honelakorik: «Nik egin dut egin beharrekoa; nere hurkoarekin zuzena naiz!». Geure zereginari azken muturrik ezin sumatu diogu. Beti gehiago opa* izan beharreko dohaina dugu hori.

Ez nahimenaren indarra, ez asmo sendoenak, ez dira nahikoa maitasuna ernarazteko*. Irekitasuna, errespetua, eskerona eta beste hamaika funtsezko jarrera, nahimenaren kemenarekin, zuzenean bederen, zerikusi handirik ez duena, maitasunaren alorrekoa da orobat. Geure indar guztiez bilatu behar dugu maitasuna; egiazko eta aberats bihurtzekotan, beharrezkoak dira samurtasuna, seriotasuna eta alaitasuna, gogoaren ahalegina eta askatasuna. Maitasunak eginen dituen bideak ezagutzeko, zientzia eta jakinduria, gauza profanu nahiz sagaratu ororen premian* gara. Gure bihotza humil bihurtzen da, bere gogoaren indar guztiz eskatzeko. Horixe da Jainkoaren beraren Izpiritua hartzekotan otoitz egitea: zikin dena garbitzen duen Izpiritua, lehor* dena ureztatzen duena, gogor dena biguintzen* duena, hotz dena berotzen duena, zauritua sendatzen duen Izpiritua hartzekotan, alegia. Horregandik letorkeen indarrik gabe, ez da ezer gizakiarengan, galgarririk* beste ezer ez (*243-244*). Zatoz, Izpiritu Kreatzaile hori!

Eliza munduan 314

«Hain maite izan du Jainkoak mundua». Jainkoak duen bezalako maitasuna eskatzen zaio kristauari: mundu osora zabaltzen duena (*307-308*). Batikanoko II. Kontzilioak, *Eliza egungo munduan* delako kostituzioan, garbi adiarazten du kristauaren eginkizun hori; orrialde zoragarriak ematen ditu, Kristoren dizipulua mundura bultzatuz; eta ez bakarrik igandeko mundura, eta bai, argi eta garbi, astelehenekora ere, hots, lanaren gure mundura, egunoroko bizitzako mundura,

opa: gutiziatu, desiratu. **ernarazi:** jaio arazi. **premian:** beharrean. **lehor:** idor. **biguintzen:** guritzen. **galgarri:** kaltegarri, nocivo, nocif.

beronen balio eta legeen arabera, bilatzen, sufritzen eta bizitzen ari den gizon-emakumeen mundura, unibertsora, alegia, hau aurrera doan heinean. Mundu honetan bizi da gure Jainkoa.

Ondorengo kapituluetan luze-zabalago aztertuko dugu puntu hori, famili eta ezkontz bizitzaz, ebanjeliozko aholkuen* araberako bizitzaz, politik elkartekoaz, besteen bizitzaren errespetuaren araberako bizitzaz, lantegiko bizitzaz, zerbaiten jabe direnen bizitzaz, beste gizakiei laguntzeko den bizitzaz, kultura hartzeko eta atsedenaldiko bizitzaz, egiaren bilakuntzarako den bizitzaz mintza gaitezenean.

Ezkontza eta Familia

Jaiotzea, nork bere jatorria beste gizakiengandik ukaitea da 315

Norbaitek nor naizen galdetzen didanean, bataioko nere izena ezezik, abizena* ere ematen diot. Jaio naizeneko familia aipatzen dut honela. Hain geurea dugu izenean ere, gure ahaideak tartean daude, beraz. Horrek, geure familiari zein herstu loturik gauden adiarazten du. Ilearen kolorea, geure izakera berezia, izatea bera ere, besteei zor dizkiegu. Gizaki izatea, jatorria besteengan ukaitea da, beste batzuen hari-matazan eta bizitzan ehoak* izatea da. Horra hor bi pertsona eta horien gibelean, bi familia. Bi gizakiok elkartu dira eta, halako batetan, ni banintzen izan.

Bai, halako batetan.

Haur bat jaioko zenik, ez zekiten ziur, ez nire aitak, ez nire amak. Ernaldura* gertatu den ala ez, beti da ustekabeko gauza, neurri batetan behintzat. Eta ernalduran bertan, inork bir-egin ezin ditzakeen gisako* bizi indarrak ari dira lanean.

Ondorengo baten sortzea gizakiaren esku dago; baina, sortze honen emaitza* gizakiaren indarren gain dago: hain gainetik ere, non* gurasoek beren seme-alaba beraiek egina bezala ez baino beraiei emana bezala sumatzen bait dute (*48*). 127. salmuak, hots, «Etxea Jaunak ez bada eraikia*, etxegileak alferrik ari dira» esanez hasten denak, Jainkoak ematen dituen seme-alabak kantatzen ditu. «Jainkoak ematen bait die loa bere maiteei; hain zuzen, Jainkoaren dohain dira seme-alabak».

---

aholku: kontseju. **abizena:** deitura. **ehoak:** landuak, josiak. **ernaldura:** fecundación, fécondation. **gisako:** erako, moduko. **emaitza:** fruitua. **hain ... non:** tanto ... que, si ... que. **eraikia:** jasoa

Alabaina*, gai honi buruz, ohar araz daiteke oraino, giza ernaldura guk asmaturiko legeen arabera burutzen ez bada ere, lege horik ezagutzen ahal ditugula eta, nolarebait, geure eskumenpe daduzkagula. Halere, gauza bat, atxeki ezineko gauza miresgarri baten antzera, gure eskuetatik urrun geratzen da: hain zuzen ere, jaioa «ni» neu izatea. Zergatik gertatu zen, bi pertsonen bat-egitetik (halako egunekotik, halako urtekotik, halako hirikotik) jaio zena, hain zuzen ni neu izatea? Zergatik ez zen jaio «ni» hau Kristo baino hamar mila urte lehenago eta Afrika erdiko mendietan? Zergatik ez zen jaio alboko* familian? Zergatik jaio zen, jaio? Noren esku dago hori?

Gizakiaren kreazioa 316

Gizaki bakoitza[53] hain bakana eta berezia denez, horren jatorria gogoematean*, hauxe nabari dugu: Jainkoak dena *kreatu du* esatea baino egiazkoago dela Jainkoa dena *kreatzen ari da* esatea (*406*).

Lehen honela adiarazten zen hori: Jainkoak kreatu du mundua eta Berak eusten dio, baina arima, norbere garaian eta arartekorik* gabe kreatzen du. Azalpide* horrek, ordea, bi gauza hauk uzten ditu ahazturik: Kreazioa, beherekoenetik garaienera doan biziaren handitzea dela eta gorputz-arimak bereizi ezineko direla. Horregatik, hobe dirudi, gauza bera beste gisa batetara adiaraziz, honela esateak: Jainkoaren ahalmen kreatzaileak ematen dio munduari aldi bakoitzean bai izatea, bai haztea. Gizaki berri baten agerpena une xit sagaratua da, ahalmen kreatzailea argitasun bereziz azaltzen bait da. Neure gurasoek, hain zuzen, ez ninduten *ni* neu nahi izan. Nahi zutena, haur bat zen motiko nahiz neskatto. *Ni* neu Jainkoak bakarrik nahi izan ninduen. Jainkoari *zu* esan diezaiokeen *ni* bat; Harekin harremanak ukanen zituen norbait; *ni* hori, gizaditik eta hau bide dela, Jainkoaren eskuz jaikitzen da bizitzara. Giza ondarea* eta Jainkoaren eskua batera ari dira lanbide horretan. Haur bat erditzen* duen giza bikoteak, Jainkoarekin lankide izatea merezi izan du. Elkar-lan hori ez da haurraren jaiotzean bukatzen. Hezketaz osatzen da. Gurasoen bitartez, Jainkoak bazkatzen*, maitatzen eta gidatzen du gizaki berria (*186*). Erantzukizun handia eta pozgarria horixe gurasoentzat.

53 Ik. *Eraskina*: «Gizaki bakoitza...» 522 or.

alabaina: halere. **alboko:** hauzoko. **gogoematean:** pentsatzean. **ararteko:** bitarteko. **azalpide:** espresio, ulerkera. **ondarea:** herencia, héritage. **erditzen:** haurra egiten. **bazkatzen:** mantentzen.

Familia, giza maitasuna ernetzen deneko sukaldea 317

Familia, lehen irribarra agertzen deneko lekua da. Iribarra, animaliak egin ez dezakeen gauza da. Haurrak bere ama ezagutzen du. Gizakiak ere bai gizakia. *Incipe, parve puer, risu cognoscere matrem*: «Has zaitez, haurtxo, irribarrez zeure ama ezagutzen», abesten zuen Virgilius olerkariak (*165*). Familiaren altzoan, gizon-emakume bezala iratzartzen da haurra, eta besteekin dagoela jabetzen da. Zeure aita, ama, *senideak, adiskideak, hauzokoak, aiton-amonak*: familiaren bidez topatzen dituzu. Bestea aurkituz hazten zara gizon-emakume bezala. Gizakia maitasunerako egina izaki.

Lehen «besteak» aita eta ama dira. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hainbateko eragin sakonik sor lezakeen harremanik ez da. Ezin ezeztatu da. Nor bere gurasoen seme-alaba izan ohi da betirako.

Familiaren altzoan hasten duzu Besteaganako bidea ere, beste guztiengan guregana datorren Harenganakoa. Hura, gurasoen bitartez haurra kreatzen eta handiarazten duena, gurasoengan ezagutzen ahal duzu lehenik.

Haurrak ezin du Jainkoa ezagutu laguntzarik gabe, bakarrik. Jostaketan, barrez, negarrez, berarentzat hain handi den bere mundu txiki horretan bere etxean bezala gertatzen da haurtxoa; hor, ontasuna, ahalguztia, eta nonahi izatea, bere aita eta ama ditu. Nork bere gurasoez ukan duen ezagguera moduak, Jainkoarekiko dugun irudia hautsi ezineko gisan moldatzen du. Noski, Jainkoaren irudi hori ez datorkigu gurasoengandik soilki*. Bizitzan zehar maitatzen gaituen edonor izanen dugu Jainkoaren ontasunaren irudi. Hain zuzen ere, gurasoan ezinaz nahiz axolagabekeriaz okertuxe zitekeen alderdi asko zuzendu egiten da gerora. Izan ere, bizirik bait da beti gizakiagan bere aita-amak baino haruntzago*, beste edozein gizaki baino haruntzago bultzatzen dion zerbait. Jainkoa ez bait da, ez aitaren edo amaren, ez eta beste inoren handitze hutsa (*85*). Hondo-hondoan, giza bihotza joeraturik dagoeneko egiazko ontasuna da. Jainkoa, egiazkoena, ziurrena, hobeto ezagutu ahala gure bihotza hobekien aseko duen Beste hori da. Eta ezagutu ere, gure anaia eta gure Jainko den Jesukristogan ezagutuko dugu hobekien (*413*).

Sexualitatea 318

Gizaki izatea, ematean eta hartzean datza beti. Zerbitzari eta zerbitua izan, ekarle eta ekarria izan, maitale eta mai-

soilki: bakarrik. **haruntzago:** urrunago.

tatua izan (*319, 324*). Hori ez den tokian, heriotzea da; hori agertzean, aldiz, bizitza berria, gogoeta berriak eta jokabide berriak sortzen dira (*322, 338, 417*). Gizakiak duen guztia, bakarkako lanetik hasi eta lagun arteko elkarrizketaraino nahiz norbait salbatzeko eginahaleraino, gisa batera edo bestera, ematea eta hartzea da, eta, horrez gero, biziaren eta emankortasunaren* iturri. Ezkondua nahiz ezkongabea, bizia darien harreman horietan eskuhartzen du gizakiak.

Gizonezko ala emakumezko, modu berezian eskuhartzen du gizakiak harreman horretan. «Gizona eta emakumea»: hor ez da, noski, bien arteko bereizitasun erabatekorik; halere, emateko eta hartzeko erak bereziak dira bataren eta bestearengan.

Gizonezkoa eginkorragoa* eta emankorragoa* da; emakumezkoa, berriz, harkorragoa* eta abegikorragoa* da. Ezagugarri horiek norbera osoa kutsatzen dute. Gorputz moldean bertan ere nabari* da hori. Horregatik da hain pozgarri eta zorioneko, gorputzezko hartu-emate hori ere; norbera osoa, hondo-hondoraino, lurrarekiko duen atxekitasun agerikoenaren hondoraino bait dago horretan korapilaturik. Elkarrekiko harreman hori emankor-emankorra eta bizigarri-bizigarria da: giza bizitza berri bat sortzen bait du. Bakoitzak sumatzen du bere baitan ahalmen hori, zoramenez eta ikaraz. Nork geure adimenaz ezagun dezakeguna baino handiagorik egin dezakegu.

Sexualitatea ona da esatearekin, motz geldituko ginateke. (Sexualitate kontzetuaz, hemen, hitz horrek dituen alderdi guztiak biltzen ditugu: nola arimakoak, hala gorputzekoak). Sexualitatea gauza saindua bait da. Gure baitako indar miresgarria da, indar kreatzailea. Baina, aldi berean, beldurgarria. Hain zuzen, sexu irrika gainerako giza balio multzotik bakantzean, eta, batez ere, giza sexualitate osotik ernal indarra bereiztean, aldez aurretik suma ezineko gaitz iturri ikaragarria sor bait daiteke, ordurarte dena samurtasuna* zela ematen zuen horretatik.

Nor bakoitzaren gizatasunaren osoan harturik adiarazten ditu sexualitateak bère ontasuna eta edertasuna. Norberak daki nolatan bilakatzen* den samur gizona edo emakumea maite duen emakume edo gizonarentzat. Bestearen zoramena ikusi eta biztu egiten duzu. Jainkoaren zerbait maitatuagan distiratzen da, eta neurrigabean zeure burua eskaintzera bultzatzen zaitu.

Ez da ameskeria. Begiak egiazko den zerbaitetara irekitzen dira. Gure mundu ikuskeran, guk uste baino sexu joe-

emankortasun: fecundidad, fécondité. **eginkor:** activo, actif. **emankor:** dador, donneur. **harkor:** pasivo, pasif. **abegikor:** errezibikor. **nabari:** ageri. **samurtasuna:** goxotasuna. **bilakatzen:** bihurtzen.

ra handiagoa nahasten da. Helburua eta sorburua, gizonaren eta emakumearen arteko maitasuna dira.

Nork berè burua oso-osorik ematea, betirako ematea da. Ez da, beraz, animalien artean bezala: gorputzez hartu eta eman, eta gero bakoitzak bere aldetik jo, inoiz ere berriz elkar aurkitu gabe. Bestalde, giza sexualitatea, zenbait animalia garairena ezbezalakoa ere bada: aldi batez, umea hazi bitartean elkarrekin bizitzen direnena ezbezalakoa, alegia. Giza sexualitatean, gizonak eta emakumeak hartzen dute parte, oso-osorik bata bestearentzako izan nahi dutenek.

Homosexualitatea 319

Zilegi bekigu maitasunez beste sexukora ez, eta bai norberaren sexukora jotzen dutenez hitz bat edo beste esatea. Erdipurdika bakarrik ezagutzen ditugulako, horrelakoei buruz, gehienean zuzenak ez diren iritziak eman izan dira.

Gizon batek (edo emakume batek) beste sexuarekiko irrika* ukaitea ez dago norberaren baitan. Homosexualitatearen sorburua ezezaguna dugu. Horretarako joera dutenen artean asko dira langile eta jatorrak. Beren bakardadean, adiskidetasuna nahi dute. Baina, egiazko adiskidetasun leiala aurkitzean ere, beren giza ametsak erabat* ezin aserik gertatzen dira. Izan ere, hondo-hondoan hau aurkitzen du homosexualak: giza sexualitateak bere-berezko asekuntza (gorputzei begiratuz ere nabari denez) ezin dezakeela topa* beste sexuan ez bada. Bere burua homosexual ezagutzen duenak on luke norbaiti bere barrena irekitzeko aukera bilatzea: midikuren bati, apaizen bati, pertsona zuhur eta adikorren bati. Eta helduko ahal da, bizitzaren handitasuna emate-hartzean datzala ulertzera* (*318*).

Liburu Sainduak xit gogor mintzo dira haragi harreman homosexualez (Gn 19; Erm 1); baina, kontu egin behar da, kapitulu horik oker ez aditzeko (*324*). Izan ere, ez du gaitzetsi* nahi horrenbestez, bere aldetik errurik* ukan ez, eta bere baitan joera hori nabari lukeena. Gaitzesten duena, moda bilakaturiko eta berenez beste sexuarekiko joera dutenengan ere zabaltzen den homosexualitatezko izurritea* da.

Ezkongaialdia eta maitasuna 320

Ezkontzaz mintzatu aurretik, honetara daraman bideaz hitzegingo dugu.

irrika: tirria, nahi bizia. **erabat:** osoki. **topa:** topatu, aurkitu, kausitu. **ulertzera:** konprenitzera. **gaitzetsi:** kondenatu. **erru:** falta, hoben. **izurrite:** helde, peste.

Bata bestearentzat eginak direlako susmoa, gauza miresgarri honekin hasten da: bata besteaz maiteminduz*. Mutil gazte batek eta nexkatxa batek, aparteko zerbait aurkitzen diote elkarri, tartean ez denak sumatu ere egiten ez duen zerbait. Batak besteari bere burua erabat emateko asmoa sortzen zaie, eta horretarako ausardia ere bai.

Arrazoimenak ezin uler ditzake giza bihotzak ematen dituen arrazoin guztiak; beharrik ere ez. Baina eta betiko nork bere burua beste bakar bati ematea: horrelako erabakiak, norbera osoak hartzekoa izan behar du. Horregatik ezin uzten ahal dira alde batetara arrazoimena eta kontzientzia. Maiteminduak harrapatzen dituen zoramenak, begiak ireki arazten dizkie, eta bestea bakarra dela ikus arazten; baina, gerta daiteke ere, itsu arazten dituela, baldin eta azalekoa eta zentzuetakoa edota erromantiko hutsa bada.

Berezko lehen sentipena egiazko maitasun bihurtzen den ala ez jakiteko ezkongaialdia dago. Biek bakarrik elkarrekin, maitasunezko hitzez eta samurtasunaren agerpideen bidez elkar aurkitzen dute ezkongaiek; baina, nork bere ezkongaia besteekin gonbaratuz, beste gazteekin ibiltzea ere onuragarri zaie horretarako. Hamaika gorabehera ukanen du bakoitzak, familian eta lantokian, lagunaren alderdi onak eta txarrak ezagutu ahal izateko. Piskana-piskana batak bestearen lehenagoko bizitza, joerak eta familia ezagutzen dituzte, eta hori guztia arras beharrezko da nork bere laguna halako aukerari zor zaion sakontasunez hautatu ahal izateko.

Lehenago frankotan gertatzen zenaren kontra, gurasoek aholku zuhurrak ematea aski dute gaurregun, ezkongaiei beren iritzia ezartzeke*. Gazteek guztiz eskuko* behar dute izan, aukera hori, agian beren bizitzako garrantzizkoena, egiteko. Norberari egiaz dagokion aukeratze horretan, maitasuna eta zuhurtasuna beharko dituzte gidari, eta ez interesa (dirua edo karrera), ez eta inoren kontra jokatzea ere (lehen izandako maitale baten aurkakoa edo gurasoen kontrakoa).

Bata bestearentzat direlako ziurtasuna haziz doan neurrian, ezkongaiak hurbilagotuz doaz bata besteari, geroko bizitzako lagun bezala ezezik, geroko senar-emazte bezala ere bai.

Sexualitateak, hitza bere zabaltasun guztian, hots, nola horren izpiritu hala gorputz alderdiak hartzen direlarik, zerikusi handia du ezkongaien maitasunean. Ez da arrak eta emeak batak bestearekiko duten erakarmen hutsa. Benetako giza sexualitatea garatzea* honetantxe datza: «zu, eta zu

maitemindu: amoros izan, enamorarse. **ezartzeke:** ezarri gabe. **eskuko:** libro. **garatzea:** heltzea.

beste inor ez» nahi izatean; eta beste edozein baztertu egiten da mehatxu* bait litzan.

«Zatoz, maite,
zatoz eder hori.
Joan zen negua,
bukatu ziren euriak, akabo denak.
Hasi da kanpoa loratzen,
heldu da xertatzeko sasoia.
Entzun zen usapalaren* kunkurrua gure bazterretan.
Pipitatan dago pikondoa.
Usain gozotan daude mahasti loratuak.
Zatoz ba, maite,
zatoz bai, eder hori!
Usotxo horrek, harkaitz zirrizkuetan*,
malkor pendizetan* kabia duzun horrek,
ager iezadazu, bai ager,
zeure aurpegi hori;
entzun dezadala zure ahotsa:
gozoa bait duzu ahotsa, gozoa,
eta ederra musua*» (Ab Ed 2,10-14).

Ezkongai biek beren etorkizunaren erantzupidea gero eta nabariago ikusten dute. Benetako maitasunak, ezkongaiak «*bien arteko egoismotik*» eta, batez ere, jostaketa hutsean ibiltzetik libratu behar ditu. Izan ere, ezkongaialdian halako jokabidea nagusi bait daiteke gainerako esperientzia guztietarako bidea hetsiz; honen ondorioa, ezkontza egunean elkar ez dutela ezagutzen.

Baina, era berean, ez dira batere lagungarri arazo honetan larritasuna eta tirabira gogorrak. Ezkongaialdiko une bakoitzean zer-nolako maitasunezko agerpideak erabil kontzientzia garbiz erabaki ahal izateko elkarrizketari bidea, maitasunak ematen dio. Maitasunak borondate ona iratzartzen* du; borondatea alegia, bata bestearekin konpontzeko eta, egoera bakoitza kontutan hartuz, zentzuzko zuhurtasuna* zaintzeko. Lege zorrotzek baino areago, asmo horiek determinatzen dute ezkongaialdiko kastitatea; hau bata besteagana hurbiltzean agertzen da, baina ezkontzaldiak duen erabateko elkarbatzera heldu gabe.

Ezkongaialdia behin-behineko* 321

Onena hauxe izango litzateke: ezkontzeko prest daudela nabaritzean, berehalaxe ezkontzea. Baina, une egokien hori aukeratzean bi arrisku izan daitezke.

Alde batetik, goizegi egiten da ezkontza, sarritan; mutila eta neska ez dira heldu oraino beren izpirituzko heldutasunera: batak bestea

mehatxu: zemai, amenazo. **usapal:** tórtola, tourterelle. **zirrizku:** arteka, artesi. **pendizetan:** patarretan, aldapetan. **musua:** begitartea, aurpegia. **iratzartzen:** bizten. **zuhurtasuna:** *prudencia, prudence.* **behin-behineko:** provisional.

serioski eta patxadaz hautatu dutelakoaz ez da aski garantiarik. Horrela gertatzen da, esate baterako, neskatxa haurdun dela eta ezkontza aurreratzen denean (gisa horretan egindako ezkontza irtenbiderik onena balitz bezala).

Bestetik, bizilekuaren zain edo ikasketak amaitu* nahiz, ezkontza eguna atzeratu egiten da: hori ere, ezkontza garai egokienaren oztopo da. Orduan ezkonduen haragizko harremanetan ez hastea izango da zuhurrena. Zeren, lotura bat, Elizak eta Estatuak baieztatua ez den bitartean, behin-behineko bait da harreman hori. Horregatik bi gazteak ezkondu urren direlarik ere, sexuketa ez dagokio horien egoerari. Sexuketak behin betirako batasuna adiarazten du. Ezkongaiak haragiz bat egitean, barne aldakuntza gertatzen da gazteengan. Une horretatik, senar-emazte bezala sentitzen dira, eta lehen sexuketari bigarrena darraio. Eta horra tirabira mingarria: senar-emazte bezala sentitu, eta ezkongabeak direla jakin; eta, bestalde, atzera egitea —batez ere, denboraldi luzearen ondoan— ezin daitekeena da, barne etendura mingarriak jasanez ez bada.

Arrazoinketa horrek guztiak Jainkoaren legea adiarazten du, senar-emazteen elkartasuna ezkonduei bakarrik dagokiela adiarazten duena. Fededun batentzat, Jainkoaren nahi honek arrazoin sakona eta samurra adiarazten du. Hutsegitea gertatuz gero, ez gaitu horrek larritasunean murgilduko*, eta bai kemen berria emango. Bizitzaz dugun intuiziozko ikuskera zabaldu eginen du guregan, «guretzat ez garela» agertuz. Uste horren argiz, batak besteari bihotz ematen* ahal dio ordu beltzetan.

Ezkontza historian zehar 322

Gure lan hau, gizadiaren historian ezkontza zer izan den gogora ekarriz hasiko dugu. Ezkontzaren historia, aurrerapen geldi baten historia da. Piskana, gizon baten eta emakume baten elkartasun bilakatzen da ezkontza. Denbora berean, bata-bestearekiko eskaintza horrek, barne lotura handiagoa ezartzen du senar-emazteen artean, eta gero eta maila berdinagoko lagun bihurtzen dira.

Orobat, beste eboluzio bat ere nabari da argi eta garbi, eta gaur are* argiago: familiak hautsi egiten du leinu edo tribuarekiko lotura, eta elkartetxo autonomu bihurtzen da. Binaka ekiten zaio bideari. Menturabide* honek bi lagunen arteko samurtasuna sakontzeko aukera dakar. Beste eboluziobide bat ere nabari da gaurregun; gurasoek, zenbat seme-

amaitu: bukatu, bururatu. **murgildu:** sartu. **bihotz eman:** kemen edo indar eman. **are:** oraindik. **menturabide:** aventura, aventure.

-alaba ekarri erabakitzea, ez dute uzten orain giza ernalmenaren* indar itsuen esku; beren erantzukizunaz* jabeago dira gaur gurasoak (*332*).

Berezitasun hauek guztiek, gizakiago izateko aukera eta betebeharra* aurkezten dizkiote gaur gizakiari. Halako aurrerapena, garai aitzinakoenetik gaurdainokoa, ezin gertatu izan da Jainkoaren Izpiritua gabe. Baina, eboluzio honi indarra, argia eta eragina eman dizkiona, Testamentu Zaharreko eta Berriko agerkundea da (*333*).

Ikus dezagun zer-nola.

Ezkontza Testamentu Zaharrean 323

Ezkontzaz diharduen testu zaharrenetako eta aipagarrienetako bat *Abestirik Ederrena* deitzen dena da. Liburu honen muina lehen erregeen garaitik dator (*35*). Bi gazteren maitasuna abesten du liburu honek lau-lau, eta mintzaira eder eta maitemindurikoz. Zergatik onartu den liburu hau liburu sakratuen artean? Kritikalari batzuek esaten dutenez, esanahi sakonagoa, hots, Jainkoaren eta Israel herriaren arteko maitasunaren aipamena erantsi baino lehen ere, liburu sakratuen artean zegoen. Beharbada, beste arrazoin honengatik izan zen ezarria Biblian: maitasuna giza errealitate bezala abesten duelako, eta ez ernalmenaren jainko eta jainkosekiko (Baal eta Astarterekiko) nola-halako eskuhartze bezala (*40*). Sexualitatearen esanahia agertzekotan, jentil rituetako giro sakratua, nahasia eta iluna kendu behar zitzaion. Geroago, Jainkoaren beraren zerbait nola azaltzen digun ikusiko dugu. Hemen, hau irakatsi nahi da: sexualitatea gizatarra dela, eta lurtarra; kreazioaren elementu bat dela, Jainko bakarraren eta kreatzailearen dohain bat (*175, 227*).

Kreazioaren kontakizunetan[54] giro horixe bera nabari da. Genesi liburuaren lehen kapituluak, gainera, ernalmena nabarmentzen du (*209*): «Gizon eta emakume sortu zituen... hazi eta ugal* zaitezte». Bigarren kapituluak, berriz, maitasuna nabarmentzen du; gogora ezazu lehen aldiz elkar aurkitu zutenekoa, Adan itzartzean*: orobat*, gizona eta emakumea mota bereko direla erakusten du. Halere, sexu biren arteko berdintasuna osorik ez da ageri oraino kontakizun honetan. Nahiago du ‚noski, ezkontza monogamoa. Hori bera, Testamentu Zaharreko beste zenbait lekutan ere aurkituko dugu; baina, oraino legetzat eman gabe. (Jakina, Eba Adanen saihetsetik moldatua izan delako kontakizuna ez da historiazkoa. Baina, zerbait adiarazi nahi du: emakumea gizonaren mota berdinekoa dela adiarazi nahi du, eta gizona-

54 Ik. *Eraskina*: «Kreazioaren kontakizunetan...» 561 or.

ernalmena: ernetzeko ahalmena. **erantzukizuna:** errespontsabilitatea. **betebeharra:** eginkizuna, egitekoa. **ugal:** ugaldu, ugaritu. **itzartzean:** esnatzean. **orobat:** berdin.

ren maite-kuttuna dela. Gaurregun ere, oraindik, arabe batek edozein adiskide bere «saihets» duela esaten du).

Bekatua eta honen zigorra kontatzen da *Genesi* liburuaren 3. kapituluan, eta ezkonduek ukan* dezaketen trajedia adiarazten du: trajedia hori, gizadiak bizi duen egoera bekatariarekin loturik agertzen du. Emaztea liluragarri bezala ageri da, eta gizona anker bezala. Baina kontakizunak ematen du, baita, uste onerako biderik ere: Jainkoak salbatuko du, eta eraberrituko (estal* daitezen, arropak ematen dizkie, eta sugearen kontrako garaipena agintzen die).

Profetengan eta *Abesterik Ederrena* liburuaren idazleengan, Jahve-ren eta honen herriaren arteko maitasunaren sinbolu bezala azaltzen da ezkontza. Ezkontza bete-betea Israelek nola balioztatzen zuenaren adibide da hori. Eta legeko agindu honen hondoan zelako samurtasuna dagoen adiarazten du:

> «Gizon batek, ezkondu berria denean, ez du gerrara joan beharrik izango, eta ez zaio inor atzetik ibiliko. Etxean egongo da urte betean, kargurik eta bestelakorik gabe, hartu duen andreari poz ematen» (Dt 24,5).

Ezkontza Testamentu Berrian 324

Kristo Jauna ez zen ezkondu; horrek ez du esan nahi ezkontza txikiesten* zuenik. Guztiz bestela baizik. Gizonak emaztea zapuztea* zilegi ote den fariseuek galdegin ziotenean, Harek kreazioko kontakizunean ageri den ikusmodua agertu zien, eta hau erantsi: «Jainkoak lotu zuena ez dezala gizonek aska» (*97*). Eta:

> «Bere emaztea utziz beste batekin ezkontzen denak, ezkontza urratzen du lehenengoaren kontra. Eta emazteak ere, bere senarra utziz beste batekin ezkon badadi, ezkontza urratuko du berak ere» (Mk 10,11-12).

Horrela, ezkonduen arteko lotura hautsezina dela adiarazten die Jesusek. Bi pertsonek, batak besteari nork bere burua ematen dio. Horretarainokoa da elkarrekiko hitzematearen indarra. Jesusek ez dihardu ezkontzaz, honi azaletik begiratuz bakarrik. Urrunago begiratzen du. Bestearentzako, bere buru osoa, barne-barneraino, libro gorde behar du gizakiak. Horregatik zioen honela Jesusek:

> «Jakina duzue aitzinakoei esan zitzaiena: Ez urra ezkontzarik. Hona berriz nik esan: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak, urratu du ezkontza harekin bere bihotzean» (Mt 5, 27-28).

Aukera edo bide handiena eta iraunkorrena eman nahi dio Jesusek maitasunari (*99*).

---

ukan: eduki **estal:** estali, tapatu. **txikiesten:** txikitzat jotzen. **zapuztea:** haizatzea.

Baina, bada gehiago Testamentu Berrian ezkontzaz. Kristok bere Eliza maite duen maitasunarekin gonbaratzen du Efesotarrei egindako epistolak ezkonduen maitasuna. Senaremazteen maitasunaz arras bizi mintzo da epistola hori:

> «Gizonek, bada, beren gorputzak bezalaxe maitatu behar dituzte beren emazteak. Bere andrea maitatzea, nork bere burua maitatzea ez da ba? Bere haragiari ez dio sekula inork gorrotorik ukan; ostera* baizik, ondo mantentzen eta poliki ere poliki zaintzen du. Kristok ere Elizarekin egiten duen bezala» (Ef 5,28-29).

Kristok Eliza bezala! Paulo ongi konprenitzekotan, orain arte eztei mezatarako epistola bakarra zen testu honetan, *bezala* hitz hori gorriz eman behar litzateke. Horrez gero, hau nabari da: Paulo sainduak Profetek darabilten irudi bera darabilela; haiek, izan ere, Israelekiko Jahveren maitasuna ezkon-maitasunarekin gonbaratzen bait zuten; Paulo, alabaina, Jahvez soilki ez, eta bai Kristo gizakiaz ere mintzo da; gonbarazio honek areago hunkitzen gaitu. Gainera, Paulok gonbarazioa atzekoz aurrera ematen du, esangura* sakonagoa emanez. Ez du esaten: Jesusen Elizarekiko maitasuna ezkontzaren antzeko da. Honela dio: ezkontza, Jesusen eta Elizaren arteko elkartasuna bezalakoa da. Zera nagusiena, axola zaiguna alegia, Jainkozko maitasuna da: Kristoren eta gizadiaren emate eta hartzea. Ezkontza hain misterio handia eta saindua izanez, Kristok gizon-emakumeei dien maitasunarekin aldera* bait daiteke. Eta Kristoren eta gizadiaren arteko maitasun hori, Aitaren eta Semearen artekoaren errainu* dela kontutan hartzen badugu —«Aitak ni maite nauen bezala, holaxe maite zaituztet nik ere» (Jn 15,9)—, beste honetaz jabetuko gara: ezkontzako «emate eta hartze» hori Jainkoaren baitan den maitasunaren irudi dela (*318, 417*). Ezkontzak, Jainko kreatzailaren dohain delarik, Jainkoaren izatean adiezineko* den zerbait adierazten du: eman eta maitatu, beste baten baitan norbere burua suntsitzen utzi eta asea izan. Ezkonberriek beren eztei aldian elkarri dasaioten «zoragarri» edo «jainkozko» hitza egiazkoa da; «jainkozko» hitz hori bere zentzu egiazkoenean eta benetakoenean darabilte.

Honek ez du esan nahi, Jainkoaren maitasunaren misterio honetan hartukizunik* ukaiteko era bakarra ezkontza denik. Ez, gizon-emakumeen arteko onberatasun eta maitasun mota oro, emate eta hartze modu oro, misterio horren zati bait da; eta hori, maitasuna garbia den neurrian. Eta garbitasun hori, giza maitasuna Jesusek bere Izpirituaz irakatsi eta eman digun maitasunaren antzeko den neurrian hazten da. Hauxe irakatsi bait digu Jesusek: Jainkoa geure izate guztiz eta lagun

ostera: kontrakoz. **esangura:** esanahi, zentzu. **aldera:** alderatu, gonbaratu. **errainu:** reflejo. **adiezineko:** ulergaitz. **hartukizun:** partizipazio.

hurkoa geure burua bezala maitatzen. Kristoren eta Elizaren arteko maitasuna eta ezkontza gonbaratzea zuzena izatekotan, Kristok irakatsi eta aholkatu* duen maitasuna nork bere familian burutu beharko du hein* batetan bederen. Ezkontidea* norberaren burua bezala maitatu (*230*). Eta maitatu —hauxe izanen da Testamentu Berriak maitasunaz dakarren alderdi berria—, gurutzeak bere baitan duen maitasunez maitatu. Maitasuna, beraz, etsipen* guztien gainetik; leialtasuna gure ezin guztien gainetik: nahiz bestea ezin zeureganatu izan, nahiz poz betea ezin ukan, nahiz maitasuna ezin osatu izan. Leialtasuna eta maitasuna, alegia, nahiz giza begitan zorakeria iduri; halaxe zen Jesusen gurutzeaz ere: giza begietarako, itxaropen orori bidea herstea zen, eta halere, berak erakarri digun salbamendua eta ontasuna. Sineste honek bakarrik bihurtzen du kristau ezkontza Kristok Elizari dion maitasunaren egiazko irudi, «Jaunaren baitan» egiazko ezkontza (1 Kor 7,39). Fedea ukanez gero, ezkontzea ez da bi gizaki bakartiren arteko mentura* larria. Horiekin dago Bera.

Jesusek ez du agintzen dena alaitasun eta pozkario izanen denik. Maitatzen duenari, hauxe eskatzen dio: bere buruaz ahantz dadila, eta ardura* dadila gogatsuago ematen, hartzen baino. «Pozgarriago da ematea, hartzea baino», esan du (Ap Eg 20,35). Ez da, ordea, eskabidetan gelditzen; geuregan dugun haren Izpirituaz, eskabidea bete ahal izateko indarra damaigu (*241*). Eta, gainera, hau agintzen digu: hutsegite orok, ahal ezin orok, neke orok baduela esanahi bat; bide bat dela zoriontasun osorako —giza zorionerako—, Jainkoaren ondoan maitasunak emanen digunerako. Gurutzea, beraz, hormako* apaingarri baino handiago da. Hondo-hondoan, maitatzen saiatzen zarenean, esperantzarik gabeko ezer ez dagoela adiarazten dizu gurutzeak.

Hau ere adiarazten du gurutzeak. Ezkontzaren hautsezineko loturak —giza begiz ikusita txorakeria dela ematen duenean ere— baduela bere esanahi sakona; gurutzeraino joan den Kristoren maitasunaren partehartzaile izatea adiarazten du, hain zuzen. Gurutzean josirik ere, Kristok mundua eta Eliza zapuztu ez dituelako (*230*), «Jaunaren izeneko» ezkontza orok ere Kristo eta Eliza lotzen dituen hautsezineko lotura gordetzen du, gurutze bihur baledi ere.

Fededunen arteko ezkontzan Jesus egoteak ez du galarazten aldez aurretik, ez izaerazko* konpon-ezina, ez ezkontidea hautatzean egindako okerra*, ez seme-alabekiko zailtasunak, ez zainberatasuna*, ez gaixotasuna*, ez asperraldia, ez

aholkatu: sustatu, akontsejatu. **hein:** neurri. **ezkontidea:** ezkon-laguna. **etsipen:** nahigabe. **mentura:** aventura, aventure. **ardura:** arduratu, entseiatu. **horma:** pareta. **izaerazko:** jitezko, ariurrizko. **okerra:** hutsegitea. **zainberatasuna:** nerviosismo, nerviosité. **gaixotasuna:** eritasuna

eta behin betirako elkarrengandik banandu beharra bera. Esan nahi duena, hauxe da: senar-emazte fededunentzat, Bestea beti berekin dutela: indartzen, kontsolatzen, itxaropena ematen, eta ematean hartzean baino zorion handiagoa dagoela oroitarazten duen Kristo, alegia, berekin dutela. Egun dohatsuetan izpiritu hori bizi dezanak, ordu beltzetan itxaropen hori biziko du.

Ezkontza barruan gurutzeak leku bat baduela esaten da; baina, kontu*, baieztapen* hori oker aldetik hartu. Ez du esan nahi, nekearen eta hutsegitearen aurrean etsi egin behar denik; ez. Bere *ahal guztiz, gizakiak familia dohatsu* bat sortzeari ekin behar dio, eta zorionean iraun arazteari. Hondo-hondoan esan nahi duena, hauxe da; familiaren bat porrotegiteak* nahiz ezbeharrak jo baleza ere, halako dohakabeak* ukan dezakeela esanahi bat. Jaunaren gurutzeak duen bezalaxe.

Ikuspegi eta eskubide hauen jira-biran ezarriz, Kristok nabarmenki goratu du ezkontza historian zehar. Mendez mendeko eboluziobidean, giza maitasuna salbatu egin du. Gizonak eta emakumeak, haren argitan, beren egiazko balioak neurtzen ikasi dute. Sexualitatean diharduten hezi gabeko indarren morrontzatik* askatu egin du maitasuna; aldi berean, beti azaltzen diren joera puritanoengatik (*173*), sexualitatearen saindutasunera begiak ireki arazi dizkigu.

Ezkontza sakramendu da 325

Kristok ezkontza zenbateraino saindutu duen ikusteko, hauxe gogoan hartu besterik ez dago: bataiatutako biren arteko batasuna sakramenduzkoa dela (*198*). Horrek hauxe adiarazten du: ezkontza bera sakramendu dela; horretaz bere Izpiritu Saindua emateko baliatzen bait da Kristo.

Zertan datzan sakramendu honen ezagupidea? Pentsa daitekeen gauzarik errazenetako batetan, hots, elkarri egindako agintzan eta agintza horren araberako* bizikeran. Horra sakramendua. Honela bada, sakramenduaren forma ez da ezkontzean erabiltzen den legezko formula, ez eta ezkontzaren liturgia ere; maitasunean eta leialtasunean eta heriotzea arte, bata bestearentzat izateko gogoa da. Senar-emazteak elkarri agertzen dioten maitasuna, samurtasuna, laguntza, bien arteko pentsaketa, graziaren iturri da, Jesusen eta honen Izpirituaren presentzia sortzen duen iturri. Hori da Jainkoaren aurrean egiten den ezkontza.

kontu: kasu. **baieztapen:** afirmazio. **porrotegite:** fracaso. **dohakabeak:** zorigaitzak. **morrontza:** esklabutasuna. **araberako:** según, selon.

Ezkontzako lotura, gizarteak onartu behar du. Hitzematea jendaurrean egin behar da, elkartearen aurrean. Nornahi jabetzen da horretaz. Inork ez du ezkondu nahi txoko batetan, isilean; honela egiteko, arrazoin bereziak behar izaten dira, eta beti mingarriak. Neskatilak egun osoan agertu nahi izaten du ezkonberri bezala, bere familiaren eta adiskideen aurrean, ikusi nahi duten guztien aurrean. Ez eta, inork ez du ezkondu nahi bere ezkontza legeak ezagutua eta babestua izan gabe. Lege ona ez bait doa maitasunaren aurka; hitzemandako maitasunaren lotura, ageriko bizitzan, ezagutzea eta babestea da legearen eginkizuna.

Ezkontzaren ageriko alderdi hori garaian garaikoa izan da historian zehar. Erdi Aroan familian egiten zen ezkontza, garai hartako gizartearen usarioei eta legeei jarraituz. Hala nahi izanez gero, ekar zitekeen apaiz bat ezkontza bedeinka zezan; baina, bedeinkapen honek «sakramental» baten balioa zuen (*202*).

Egiazko sakramendua, elkarren arteko baietza zen, andra-gizon ezkonduen arteko sexu harremanez finkatua*. Trentoko Kontzilioaren ondoren, XVI. mendean (*175*), ageriko lege forma zehatza eman zion ezkontzari Eliz legeak. (Horretan ez da gauza harrigarririk, Eliza sakramenduen zaindari denez gero). Ezkontza, bi testiguren eta andregaiaren herriko erretorearen aurrean egin behar zela agindu zuen. Ordudanik, lege forma hori beharrezko da ezkontza baliozko izan dadin.

Alabaina, ezkontz ospaketa honetan ere, ezkontzari mamia ematen diona, ezkontideen arteko bata-bestearekiko hitza da. Apaizak ez ditu ezkontzen. Beraiek ezkontzen dira, apaizaren aurrean leialtasunezko hitza elkarri ematen diotenean: «bai, nahi dut» esaten dutenean. Ezkontza ospatzeko era egokiena, Meza barruan egitea da. Apaizaren bedeinkapenak, «Jaunaren izenean» eginiko agintza dela erakusten du.

Oraintxe berton aipatu ditugun Trentoko araubideok*, sustraizko eraberritzea ekarri zuten, eta behar-beharrezkoa. Halere, legebide horrek bazituen bere legean kabitzen ez ziren kasuak: herio arriskuan, esate baterako, edo denboraldi luzean apaizik ingura* ez zitekenean: orduan, aski bait zen ezkontza bi testiguren aurrean egitea. Esan dugu, eraberritze hura beharrezko izan zela. Izan ere, garai hartan, ezkontz liburuan ezartzen ez zirelako, nahiz bi testiguren aurrean eginak izan, «isilpeko ezkontzak» barra-barra hedatuak bait ziren, zekartzaten ondorio txar guztiekin: leialtasun falta edota bigamia. Egoera hark behartu zuen Eliza legebide hura ezartzera: ezkontza balioge* gerta ez zedin, ageriko lege-forma zehatzez egin behar zen. Ez dezagun ahantz, Estatuak berak ez zuela garai hartan ezkontz libururik

finkatua: indartua, ratificado, ratifié. **araubideok:** legeok. **ingura:** inguratu, aurkitu. **balioge:** balio gabe.

betetzen. Gaur, ordea, gizarteak ezkontz liburuan ezartzea eskatzen duelarik, esan daiteke, Elizak uzten ahal lukeela bere lege-forma berezia, herri-ezkontza baliozkoa kristau ezkontza bezala emanez: esate baterako, katoliko baten eta katoliko ez den baten arteko ezkontza denean.

Herri ezkontza 327

Elizaren urratsak jarraituz, Estatuak ere ezkontzari buruz legebide on bat eskatu izatea aisa* ulertzen den gauza da. Horrela sortu zen herri-ezkontza. Herrialde batzuetan ezkontzako zirimonia bat besterik ez da egiten, eta Elizan egiten dena onartzen da baliozko herri-ezkontza bezala. Beste batzuetan (Frantzian esate baterako) bi zirimoniak aparte egiten dira. Udaletxean* lehenik herri-ezkontza, eta elizan kristau ezkontza.

Herriaren ordezkari den kargudun baten aurrean eginiko hitzemate hori, ez da legea betetze hutsa, katolikoarentzat berarentzat ere. Berez, baiezkoaren elementu da, nahiz eta, katolikoarentzat, hori, Elizaren ordezkari baten aurrean ematen den «baietzaz» bakarrik osatu. Horregatik, ez litzateke komeni bi «baietz» horien artean tarte handia uztea.

Katoliko ez direnen ezkontza 328

Ezkontzaren formari buruzko Elizaren legegintza, bi ezkontideak, edo bat bederen, katoliko direneko ezkontzei dagokio soil-soilik. Kristau ez direnen ezkontzaz, burubide* honi atxekitzen zaio Eliza, hots: haik lotzen dituen hitzarmena* baliozkoa dela, eta hala izango dela bietatik bat katoliko egingo balitz ere. Baina, azkeneko honetan, besteak katoliko bihurtu denarekin bakean bizi nahi ez balu, Elizaren legeari gagozkiola. «Pauloren pribilejioa» delakora (ikus 1 Kor 7, 12-15) jo lezake katoliko egin denak.

Katoliko ez diren bi kristauren arteko ezkontzak, kristau balioa duela esan beharrik ez dago. Jabe gaitezen honetaz: «Jaunaren izenean» ezkon loturaren bat sortu nahi litzatekeen guztietan, Kristo hantxe dago. Horrez gero, katoliko ez diren bi kristauren lotura ere saindua da, eta sakramenduzkoa. Beraz, hautsezina.

Ezkontza, legearen babesean* 329

Itzul gaitezen[55] berriro ezkontzari buruzko Elizaren legeetara. Legearen xedea, ezkon-eragozpenak* ezartzean bertan ere, ezkontzaren

55 Ik. *Eraskina*: «*Oharra*. Artikulu honi...» 560 or.

aisa: errazki. **udaletxe:** herriko etxe, aiuntamentu. **burubide:** pentsabide. **hitzarmena:** kontratua **babesean:** gerizan. **ezkon-eragozpenak:** ezkon-trabak (impedimentos, empêchements).

balioak agerian zaintzea da. Estatuak eta Elizak, batak eta besteak erabakitzen dituzte eragozpen horik. Elizak badu horretarako eskubide, zeren bere sakramendu bat bait du. Eragozpen horik ezkontzaren izaerari berari darizkionak dira. Hona hemen batzu: Lehendik benetako ezkontza batez ezkondua egotea, gazteegi izatea, indarkeria nahiz beldurra, ahaidetasuna, sexuketa ezina. Eragozpen hauekin ez da egin nahi hauxe besterik: edonork ikus litzakeen eta ezkontzaren handitasunaren kontra doazenak zehazki* aditzera eman.

Ezagutza xeheagoa nahi lukeenak, jo beza gai horietan ari diren jakintsuengana. Hemen hildo nagusi batzu besterik ez dugu eman nahi izan.

Zenbaitetan, dudarik gabe, elkarri ezkontzako hitzematea ez da burutzen, gizatasunaren aldetik, behar litzatekeen balio guztiz. Esate baterako, bi gazteak izpirituz heldu gabe daudenean, libro ez direnean eta beren buruak zertara behartzen dituzten ondo jabetu gabe jokatzen dutenean. Halaz guztiz, ezkondu egin nahi dute. Agian, «larri daudelako»... esaten den bezala. Holakoetan egin dena, egoera bat legepetzea da: bestela, inguruan esames handia sortuko litzatekeelako, eta emaztekia*, batez ere, jasan* eziniko egoeran gertatuko litzatekeelako. Gizartearen uste oneko bezain xinpleak izan ohi diren juizioak, «bere jokabidearen ondorioak» leporatzera* behartzen du orduan mutil gaztea; legez ezkontzera alegia. Ezin frogatzen ahal da, horrelako ezkontzak, ez gurasoek ez eta beste inork behartuta burutzen direnik; eskuarki*, bi gazteek berek hartzen bait dute ezinbesteko bezala gertatu den erabakia. Ondorio guztien jabe egiten dira, gizarteak eraginda bada ere; halere, gehienetan, zinez maite dute biek elkar. Dena den, nork esan lezake, halako ezkontza hori, larrian eginiko hori, nahi baino lehenago eginiko hori, giza balio guztiak haintzakotzat hartu nahi lituzkeen ezkon-ikusmoduari, eta areago, kristau ezkon-ikusmoduari dagokionik? Hots, nork bere bizia konprometitzeari, erantzukizun osoz eta askatasun osoz, eta ezbeharrak eta etsipenak garaitzeko moduko konprometitzeari dagokionik, nork esan lezake? Bada arrazoinik, larrian eginiko ezkontza horik ongi aztertu gabeak izaten direla pentsatzeko, nahiz eta inork ezin esan nahitaez pot* eginen duela halako ezkontzak. Baina, hemen, ezkontza horiek zer-nola txarretan burutzen direla esan nahi dugu: jendearen irizpideak*, praktikan, ezkontzera behartzen ditu bi gazteak.

Elizaren legearen arabera, halako ezkontza ezin emanen da geroago baliogabeko bezala; inork ezin bait du froga* garbirik agertu ezkontza bortxaz* egina izan dela esateko. Hemen sesio* baten aurrean aurkitzen gara (*308-310*): batetik, oinarri zuzenetan oinarrituriko legea, eta bestetik, zenbaitetan, egoera bihurriak dakartzana. Horrela, etendura* tragikoa agertzen da. Elizako ordena publikoaren —eta Elizak, Kristoren lekuko denez, ordena hori, ezkontzari buruz ere, zain-

zehazki: argi eta garbi. **emaztekia:** emakumea. **jasan:** eraman, sufritu. **leporatzera:** bere gain hartzera. **eskuarki:** gehienetan. **pot egin:** fracasar, échouer. **irizpide:** kriterio. **bortxaz:** indarkeriaz. **sesio:** eztabaida. **etendura:** haustura, urradura.

du egin behar du— eta norberaren kontzientziaren artean; azken hitz hau, norberaren interes indibidualetarako ez baino Jainkoaren ahalmen garaia adiarazteko erabiltzen bada bederen. Horrelako sesio baten aurrean aurki litekeena, alferrezko larridura askotatik ateratzen ahal litzateke apaiz adikor* batekin hitzeginez. Beharbada, fededun bat, egiaz pentsatu eta otoitz egin ondoren, ondorio honetara hel* daiteke: lehen ezkontzak ez duela orain lotzen kontzientzian eta, horrez gero, bigarren ezkontza, orduan, ez litzatekeela sasi-ezkontza edo ohaidegoa* izango, beste batzuek, ongi gerta daitekeenez, izen hori emango baliote ere. Orduan, aitzina arinkeriaz eginikoaren ondorioak jasango lituzke. Gainera, beste batzuekin batera, bikaintasun osora heltzen ez den legearen (Elizarena ere ez bait da iristen) zama* ere jasaiten du; baina, sarritan gogorra, itxuratia* eta kristau maitasun gabea den gizartearen epaiaren zama ere bai. Kristauak ez luke gai horretan epaitu behar inoiz; are gutxiago gaitzetsi*; nor den «Kristogan» ezkondua eta nor ez den, hutsezineko ziurtasunez esateko ez bait gara gauza inor ere.

Zailago da oraino, itxuraz askatasun osoz ezkondu, baina geroago okertu direnena: agian, bi ezkontideen erruz, agian elkar ezagutzen beranduegi ikasi dutelako; dena den, beraiek eta baita beraien seme-alabak ere, ezin eramanezko zorian* aurkitzen dira. Hau ez da, beraz, gorago aipatu duguna bezalakoa: hartan, haseran zegoen okerra; hemen, guztien ustearen arabera, ongi hasia zen ezkontza, gerora desegin da horren batasuna.

Honelakoetan, Elizak aitzina-aitzinatik onartzen du elkarrengandik banatzeko eskubidea. Baina, eragozpen* handi bat gelditzen da: nork bere bizia bakarrik egin beharra, ezkontide berririk gabe alegia. Fededun askori, nahiz gainerako bizikeran zintzo bizi, bizimolde hori gogorregi gertatzen zaio, eta bigarrenez ezkontzen da Elizatik kanpora.

Guk, kristauok, zer pentsatu behar dugu biziera horretaz? Dudarik gabe, ezkontzara hobekiago gertatuz, istilu* horietako asko bazter zitekeen; baina, inoiz ere, ez dugu hor tartean dabiltzan horik zorrotz epaitzeko eskubiderik. Komuniotik betirako baztertuak izan behar duten ala ez, hauzi guztia ongi ezagutzen duen batek bakarrik erabaki lezake. Kasu konkretuetan, apaiz zuhur batek, fededun bati gai horretaz bere kontzientzia egiten laguntzeko aina izan behar luke. Halako elkarrizketak argi hauxe ekarri behar lioke fededunari: gertatua gertatu, oraingo egoera horretatik nola bizi. Gure zeregina, beharbada, horixe da: bekatuaren fruitu den etendurazko egoera horretan, geure bizitzari eta geure ardurapean ditugunen bizitzari, eman dezakeen hoberena eman arazi. Gizona urratuta daraman bide horretan, sakramenduak indar eta janari bezala ematen zaizkigu. Norbaiti, gai horretan, norberaren kontzientzia moldatzen leguntzen ahal badio ere, apaizak ez dezake horren ordez erabakirik har. Honetan ere, zutik

adikor: xamur, konprenikor. **hel:** heldu, iritsi. **ohaidegoa:** concubinato, concubinage. **zama:** pixua, karga. **itxuratia:** fartzuntzia. **gaitzetsi:** kondenatu. **zorian:** plantan. **eragozpen:** trabə **istilu:** burruka.

darrai printzipio honek: Kontzientzi ziurtasuna, hondo-hondoan, norberari atxekirik* dago.

Beharbada ez da alferrezko gauza izango ohar hau; esan dugunak ez du adiarazten, Elizaren fedeak ezkontza haustea ontzat eman lezakeenik, eta kasu zail guztietan ezkontza indargabetzat eman behar lukeenik. Elizak, alderantziz, ezkontza, Jainkoaren eta gizon-emakumeen aurrean, hautsezina dela irakasteko eskubidea ezezik, beharra du. Printzipio honetatik hasi behar du ezkontzari buruzko legegintzan, eta halaxe eginen du beti. Eta Kristogan, eta Kristo Elizan dagoela sinesten duenak, ez dezake bazter* Jainkoaren legea, berak, bere aldetik, *bere* legea definitzeko.

Gorago egin ditugun oharrez, hauxe eman nahi genuen aditzera: legegintza finenaz ere, bizitzari egokien moldatzen zaionaz ere, ez garela gauza halako edo bestelako ezkontza egiaz Kristoren izenean egina izan den jakiteko. Legegintzan, bizitza normaletik abiatu beharko dugu. Eta bizitzako inguru normal hori, gero eta zehazkiago, bereziago eta malgukiago* erabili beharko da Elizaren legegintzan. Alabaina, deretxoa eta kontzientzia, legea eta maitasuna, erregela eta fedea ez dira oso bat etorriko lur honetan Eliza erromes dabilen bitartean. Legearen eta kontzientziaren arteko tirabira kontutan edukitzea, kristauak bere-berea du; lekuko*, Kristoren hitzak, eta orobat Paulo sainduaren predikua, egiazko gogo-askatasunaz mintzo denean. Hori ahantziz, fariseukeriaren itxura hartzeko arriskua luke Eliza ofizialak, eta kristauek, aldiz, Kristoren maitasun legea beren nahi hutsaren arabera hartzekoa.

Ez dugu, beraz, duda-mudarik kristau-kristau ezkontzaren hautsezinaz; aldiz*, maitasunez nor bere burua gurutziltzatzera eragiterainoko indarra ezagutzen diogu. Jainkoak lotu duena, ez dezake gizakiak aska. Muga jotzen dute ezkontz modu mingarriez mintzatu gara, ezkontza osagabe* direnez (*97*). Kristau ezkontza benetakoa, «Jaunaren izenean» eginikoa, heriotzeraino maite gaituenaren baitan eginikoa, leialtasunezko lotura hautsezina da, beti, «hoberenerako eta okerrenerako».

Ezkontza mixtoa 330

Katoliko batentzat honetan datza ezkontza mixtoa: katoliko bat katoliko ez den batekin ezkontzean. Jakina, holako kasu desberdin asko gerta daiteke. Ez da gauza bera protestante fededun batekin ezkontzea eta fedegabe batekin ezkontzea. Ez dezagun ahanz, Eliza katolikoaren altzoan bertan ere, maila desberdinetan bizitzen dela sinesmena. Ezkontzen ahal zara «egiazko fededun batekin» nahiz «fedeak gauza handirik esaten ez dion» gazte batekin.

---

atxeki: lotu. **bazter:** baztertu, utzi. **malgukiago:** biguinago, gurikiago. **lekuko:** testigu. **aldiz:** kontrakoz. **osagabe:** imperfecto, imparfait.

Baina, Eliz legearentzat, kristauarentzat nagusiena, Eliza katolikoari atxekitzea* da (*235*). Izan ere, fedeak, elkartean hartzen bait du bere moldea; ebanjelioak nahi duenez, familia soila baino zabalagoa den elkartean. Familia baten sinesmenak, elkartean hartzen du bere tankera: eukaristia, sakramenduak ospatzean, Kristok emandako eginkizun bat ontzat ematean... (*105-110, 269-270, 198-201, 113*). Puntu honetan senar-emazteak bat ez badatoz, nork bere ikusmoduri gorputza edo tankera eman nahi diolarik, batasun sakonago bat opa izateak eraman ezineko tirabira sor dezake. Funtsezko balioak elkarrekin bizi nahi bait dituzte. Horregatik, ezkontza mixtoak hauxe dakar sarritan: funtsezko gauzetan bata besteagandik urrunduz joatea. Beste arrisku handia, fedea ahulduz joatea da.

Alabaina*, gerta daiteke ere, senar-emazteek —batez ere, biak kristau direnean— batak bestearen aburua maitasunez eta eramanpenez errespetatzea. Gerta daiteke, baita ere, bataren fedea bien arteko bizitzaren indar bezala agertzea; honetaz, hona zer dioen Jondoni* Paulok: «Ba saindutua gelditzen da senar fedegabea emaztearen bidez, eta emazte fedegabea gizonaren bitartez» (1 Kor 7,14).

Baina, bada gertakari bat, hau dena lausotzen* eta aldarazten duena eta Elizaren legedia bera ere bai hein* batetan: seme-alabaren baten aurrean aurkitzea alegia. Bi ezkontideak, bakean bizitzeko, antolamendu* batetara iristen ahal dira, beharbada, irtenbide* batetara ere bai. Baina, tartean haurra denean, ezkonduen begiak pertsona bakar eta bizi batetara biltzen dira, eta horrek ez du antolamendurako aukerarik uzten.

Eta soluziorik bilatu behar baldin bada, ezin izanen da erabatekoa*. Azter ditzagun izan daitezkeen bideak. Haurra erlijio katolikoan hezitzeak, hauxe esan nahi du: katoliko ez den ezkontideak bere bizi-ikuskera haurrari komunikatzeari uko egiten diola; baina, horrek ere baditu bere zailtasunak seme-alabentzat. Esan ohi den bezala, seme-alabek beren gisara aukera egin dezaten uztea ere aukerabide berezi bat da gurasoen aldetik (ikus gai honetaz «Predikuz dator fedea. Konbertsioa» kapitulua [*184-186*]). Eta kristau hezketa «orokor»* bat, zer? Zer esan nahi du horrek? Horretarako agintea* eta mandatua hartu duen Eliz elkarte handiago batetiko loturarik gabe hezitzea? (*290-297, 285*). Ebanjelioari obeditzea ote litzateke hori? (*260*). Sarritan, ezkontide katolikoaren iritziz, protestante hezketa on bat izanen litzateke gauzarik onena. Baina, orduan, guraso katolikoak bere fedea ukatzen die bere seme-alabei; honetan, zailtasuna, kontrakoan baino handiagoa da agian, zeren Eliza Katolikoak, praktikan, Protestanteek aitortzen duten guztia onartzen bait du; alderantzizkoa, berriz, ez da egia. Ez dezagun txikitzat har Eliza Katolikoaren orokortasuna*.

Nork bere fedeaz ardura txikia duenean, ezkontza mixtoan ez du ezkuarki* larritasun* handirik sortuko. Larritasun moduko hori, ho-

atxekitzea: lotzea. **alabaina:** halere. **Jondoni:** San, Saint. **lausotzen:** iluntzen. **hein:** neurri. **antolamendu:** konponketa. **irtenbide:** soluzio. **erabateko:** osoa. **orokor:** jeneral. **agintea:** larderia. **orokortasun:** universalidad, universalité. **eskuarki:** gehienetan. **larritasun:** kezka.

beto esan, fedea ahultzearen ondorio izanen da. Baina, gurasoek beren fedea egiaz bizi nahi dutenean, gurasoen konponketaren ondorioak seme-alabek jasango* dituzte.

Egoera zail horri, legegintza korapilatsuz erantzuten dio Elizak. Alde batetik, gizonari zor zaion errespetuak eskatzen du nork bere senar edo emaztea askatasun osoz hautatu ahal izatea, hautatze horrek alde txar asko balitu ere. Bestetik, elkarteak, ezkontzaren aurkako litzatekeena eragozpen bezala definitzeko eskubidea du. Hori eginez ez da sartzen ezkontzaren barrunbera; aitzitik*, eutsi eta zaindu egiten du herriaren aurrean. Ez pertsona bat, ez bi, ez dira giza balio handienetakoren baten jabe. Nork bere tokia du elkarte zabalago batetan. Katoliko ororen ezkontza eliz elkartearen sakramendu delako, elkarte horrek badu zer esanik. Elizak badu eskubiderik, erabakiz edo ukatuz, halako puntu edo egintza bere irakatsiarekin konpon ezina dela ezaguarazteko.

Horik guztiak printzipio orokorrak dira. Baina, zer adiarazten dute ezkontza mixto edo nahasien arazoaz? Hona: alde batetik, nork bere ezkontidea askatasun osoz hautatu ahal izatea ahalik neurri handienean errespetatzen du Elizak; izan ere, horrelako ezkontza erlijiozkoa bedinkatzeko eskatzen dionari ez dio baimenik ukatzen. Bestetik, argi eta garbi adiarazten ditu bere oztopoak, eta batez ere, bere mezuarekin* konponezinekotzat ematen duen honako puntu honi buruz: katoliko baten haurrak Eliza Katolikotik at* hezitzeari buruz. Gaurko Eliz legeak, haurrak erlijio katolikoan hezitzeko eskatzen dio ezkontide katolikoari. Eta katoliko ez den ezkontideari bere eginkizun hori jakinarazi behar dio ezkontide katolikoak, eta hori errespetatzeko prest ahal dagoen galdegin behar zaio. Horretarako prest balego, meza garaian ezkontza egiteko baimena eman dezake gotzainak. Ezkontide ez-katolikoak, bere kontzientzian halako gauzarik ez dezakeela onar esango balu, edota ezkontza Eliza Katolikoan egiteko eragozpenik balego, ez bedi baimenik uka; baina, Fede-Dotrinaren kongregazioari jakinarazi behar zaio. Honela, nork bere laguna aukeratzeko* duen libertatearen balioa errespetatzen da, eta, une berean, Eliza katolikotik at egindako ezkontza Eliza horrek berak onartu izateko bidea irekitzen. Edozeinek dakus, kasu horik muga-mugakoak direla.

Jendea nahasia den eskualde batetan eta erlijio ezberdinekoak harreman herstuagoan direnean, ezkontza mixtoa edo nahasia maizagoko* prolema izanen da. Halaz guztiz, eta hain zuzen horrelako egoeran, behin eta berriz esan behar da, katoliko gogotsu biren arteko ezkontza neurrigabeko dohain dela. Egia esan, gehienetan holakotan hedatzen eta hazten da fedea jatorren eta egokien. Ezkontza mixtoa egin nahi lezanak, ez lezake bere aldeko arrazointzat eman, horrelako ezkontza Elizen arteko batasunerako bide dela. Izan ere, horrelakoetan, aldiz*, ezkontzan bertan ere kristaudiak* bizi duen egoera

---

jasango: eramango, sufrituko. **aitzitik:** kontrakoz. **mezu:** mensaje, message. **at:** kanpora. **aukeratzeko:** hautatzeko. **maizagoko:** sarritanagoko. **aldiz:** kontrakoz. **kristaudiak:** kristau herriak

larria sortzen da; eta haurrarengan berarengan ere bai. Fede desberdineko bi ezkontide kristauk, inork ez bezala jasaiten dute kristaudi osoaren erruari zor zaion banaketa.

Dudarik gabe, bada ezkontza mixtorik, ezkontideen borondate onari eta eramanpenari esker, egiazko eta ebanjeliozko egoerara heldu denik. Baina, ez da on gertatzen denari atzea* ematea: gehienetan, ezkondu aurretik oro ezkontza bikainena bezala ageri zenetan ere, zeregina, behar bezala betetzeko, astunegi ageri ohi da gero. Horregatik, gazteren batek, bere bihotza hunkitu duena, bera bezala katoliko izan dadila, Jainkoari eskatzen dionean, arrazoin osoz dihardu. Bere bizitzaren eta bere familiaren batasuna da jokatzen dena.

Kastitatea *(336)* 331

Ezkontzan ezkontideek elkarri hain osoki elkar ematen diotelarik, elkartzen dituen lokarria heriotzeak bakarrik aska dezake. Beste inorekin sexu harremanik izatea erabateko emaitz* honen aurkako saldukeria* litzateke; baita beste ezkontideak onartuko balu ere, baita beste ezkontzaren bat hautsiko ez balitz ere halako sexuketaz*. Nolanahi ere, senarrarekin nahiz emaztearekin Kristogan eginiko ezkontzaren aurkako desleialtasuna litzateke. Leialtasun hori da, hain zuzen, ezkon-kastitatearen lehenengo moldea.

Nolabait esanez, «bestearen gorputzarekiko eskubidea» damaie ezkontzak senar-emazteei. Baina, sexu bizitza horretara mugatzea eta bestea norbait bezala opa izateke, kastitatea zer den ez jakitea litzateke. Hemen, ezkon-kastitatearen era sakonago eta baitangoagoa* aipatu nahi genuke: senar-emazteek beren ezkon-bizitza beren nor izate osoaz bizi izaten dutela adiarazten duena. Ez da sexualitaterik, ez bestearekiko jarrerarik gabe, ez eta bestea norbait bezala errespetatu gabe, ez eta ezkon-bizitza osotasun osoan hartu gabe, ez eta egun osoan batak besteari azaltzen dizkioten arreta* txiki eta ugariak gabe. Elkar-lanean nekaturiko gorputza, elkarrekiko samurtasunez gozatzen dute senar-emazteek. Sexualitatea maitasun mintzaira* da.

Maitasun emankorra* 332

Ezkontza bere historian ikustean, gizon-emakumeak elkartzera eta elkarrekin bizitzera bultzatzen dituen lehen arrazoina zein ote den galdetu ohi da zenbaitetan. Batak besteari

atzea: gibela. **emaitz:** emari. **saldukeria:** traizio. **sexuketaz:** sexu harremanaz. **baitangoagoa,** barrukoagoa. **arreta:** ardura. **mintzaira:** hizkera. **emankor:** fecundo, fécond.

bere burua emateagatik ote da, ala seme-alabak ukaiteko eta hazteko?

Galde honek hertsiki baturik dauden eta egon behar duten bi gauza banatzen ditu. Emankortasuna maitasunari berez darion zera da (*318*); bestela esanik, maitasuna —beste giza balioen barnean ere bai— bizi emaile da beti. Ezkondu gabeko baten ontasuna, haurrik gabeko senar-emazteen bizitza: horik ere emankor dira beren gisara: Maitasunak, bere izate hutsez, bizia sor arazten du.

Horik horrela, sexu maitasunaren berezitasuna, honetan datza; bere izatez, emankortasun berezi eta garai bati loturik dagoela: gizaki berri baten sortzaile izatean. Helburu hori ezkon-maitasunari hain hertsi dariolarik, Elizak ez du ematen baliozkotzat seme-alabarik ez ukaitea ezkontzeko baldintza* bezala eman lezaketenen ezkon-hitza. Honek ez du esan nahi, jakina, sexu harremanak, zuzenean ugalketara* eratua izan ezean, esanahirik ez lukeenik (*333*). Inork ez du pentsatzen horrelakorik. Honek zera esan nahi du: haurra ez dela alboratzen berariz* ezkon-bizitzako asmobide osotik.

Zenbat haur familian? 333

Giza ugalketa ez da familiari halabehar hutsez datorkion zoria. Gurasoek jakinaren gaineko maitasunez dakartzate bizitzara seme-alabak. Zenbat haur ekarri erabakitzekoan, hamaika gora-behera hartu behar du gogoan bikoteak: osasuna, bizilekua, nortasuna, etab. Beraiek ez beste inork ez dezake hor erabakirik har.

Noski, gauzak zabalago ikusiz, familiarekiko berarekiko eta munduarekiko erantzukizuna gogoan hartu gabe haurrak ez ugaltzea da egokiena. Halaz guztiz, ez dezagun pentsa, erantzukizun hori neur daitekeenik, zenbat seme-alaba eduki, buruz eta bakoitzaren egoera konkretua ezagutu gabe erabakiz. Kontutan hartu behar da, izan ere, munduan sortzen den bizitza berri bat ez dela, guztien gain, mehatxua*. Bizitza berri ororen aurrean, gure lehen jarrerak pozezkoa izan behar du. «Nahi» izan ez den haurra bera ere, ustekabean jaio dena ere, gogoz hartu behar dugu, gauza garen ainako kristau jasapen eta pozez.

Baina, esan dezagun beste behin ere, honek ez du ezer esaten seme-alaben kopuruaz*. Hain zuzen hondo-hondoan garrantzia duen gauza, hauxe da: maitasunezko famili bizitzarako aukera eman lezakeen egoera sortzea. Zelako zoritan

baldintza: kondizio. **ugalketa:** ernalketa. **berariz:** zuzenean, nahita. **mehatxua:** zemaia, amenazoa. **kopurua:** nonbrea, numeroa.

burutzen ahal du halako familia bereziak elkarren arteko maitasuna eta gizartearekiko maitasuna erarik bikainenean (zelako haur kopuru bikainenaz)? Maitasun emankorrenez bizitzeko ahalegin horrek, berekoikeria oro uxatzen duelarik, hauzokoak hartu duen ezbezalako erabakia hartzera bultzatuko du halako familia berezi hori. Erabaki hori hartzean, nork bere eskuko* izan behar du.

Mundu guztiak dakien bezala, gaurregun haurren kontrolbide batzu badira. Guztiak honetantxe datoz bat: haurdun gelditzeke*, sexu harremanak ukaiteko bidea ematean.

Batikano II. Kontzilioak[56], gai honi buruzko kapituluan, «Eliza egungo munduan» delako kostituzioan, ez du ezer erabaki kontrolbide horietako bakoitzaz. Kontzilioaren ikuspuntua, orain 30 urte baino gehiago Pio XI.ak eta, gero, honen ondorengoek kontutan hartu zutena ezbezalakoa da. Puntu honetan, eta garbi-garbi, eboluzio bat nabari* da Elizaren barnean; Elizatik at ere nabari den eboluzioa.

Gaurregun, hain zuzen, hobeki ezagutzen ditugu gizakiaren sorrera inguratzen duten gora-beherak. Ezaguera horrek askatasun handiagoa damaio gizakiari bere ernalmena* neurtzean. Bestalde, sexualitateaz ere, beste ikusmodu bat ari da sortzen: sexualitatea, berez, balio bezala ematen duen ikusmodua; sexualitatea eta ugalkortasuna*, bitarteko bat jomugara ordenapeturiko bezala bakarrik ez, eta bai izaki bizi baten baitan elkarturiko bi balio bezala hartzen dira batez ere. Aitzina sexualitatea balio berezi bezala ezagutzen ez zela esatea itxuragabekeria litzateke; agian, gaurregun baino sakonkiago eta gizakoiago bizi ohi zen, sarritan, balio hori. Nork esan lezake? Hemen, ordea, jabetze berezi honetaz mintzo gara: sexualitatea eta ugalkortasuna giza baliotarikoak direla jabetu gara; argitasun biziago hau, azken kontzilioak dioenez, ez da gertatu Jainkoaren Izpiritua gabe, eta argitasun biziago horrek egiaz aberas dezake gure bizitza.

Berdinak ote dira[57] kristau batentzat jaiotzeen kontrolbide guztiak? Kontzilioak ez dio erantzunik eman galde honi: Ezkon-bikote bakoitzaren kontzientziaren baitan uzten du hori, eskabide hau eginez: maitasunean eta ezkontzan beren agerpidea aurkitu behar luketen norberaren balio nagusiek halako kontrolbideetan tokirik ba ote duten ala ez azter* dezatela. «Ezkon-maitasuna eta bizitza berria sortzea elkartu behar direnean, jokabidearen moralitatea ez dago asmo on hutsaren eta norberaren arrazoin hutsen baitan; baizik eta,

56 Ik. *Eraskina*: «Batikano II. Kontzilioak...» 562 or.
57 Ik. *Eraskina*· «Berdinak ote dira...» 562 or.

eskuko: libro. **gelditzeke:** gelditu gabe. **nabari:** ageri. **ernalmena:** ernal ahalmena. **azter:** aztertu, ikertu.

moralitatea irizpide objetibuz erabaki behar da, pertsonari eta honen jokabideari dagokienez, egiazko maitasun giroan bata bestearekiko eskaintzaren eta giza mailako ugalketaren esanahi osoa errespeta dezaten irizpidez» («Eliza egungo munduan» delako artzain kostituzioa, 51. zenb.). Zuhurtasunak, midiku batengana jotzea eskatzen du, honelako arazoetan, pertsona batetik bestera desberdin diren gora-behera guztiak kontutan hartzen ahal dituen midiku batengana. Ongi aztertu ondoren, hark esan lezake, midikutzaren aldetik, bakoitzean biderik hoberena zein den.

Ez midikuari ez apaizari, ez dagokie honetan kontzientziazko azken epaia* ematea; baina, bizitzari zor diogun errespetuak hauxe eskatzen digu: ez dezagula hauta* osasunari nahiz afektibitateari gaitz larririk ekar liezaiokeen iharduerarik*.

Ohora* itzazu aita eta ama 334

Gizonak bata besteari atxekirik daudela ikusteko, jaiotzeari so* egin besterik ez dago. Gure giza izaerari dagokion gauza da menekotasun hori. Nork bere bizia *hartu* egiten du.

Gure nortasun handiena eta guzti, gure nahimen azkarrena eta guzti, guztiok zor dugun obedientzia edo esanekotasuna, horretantxe oinarritzen da. Haurrak bere aldetik ikasten du obeditzea gauza zuzena eta kontzientziari dagokiona dela. Hain zuzen, honela dio laugarren aginduak: ohora itzazu aita eta ama. Gizakiak ez du sumatzen premia hori, guztien gain, desafio bat bezala, bake eta zorion bezala baizik. Noski, sesio eta muturkeriarik sortzen da, eta horrelakoetan aipatu ohi da bĕrariz* obedientzia. Baina, hitz hori aipatzen ez denean eta gauza oro mokokeriarik gabe gertatzean, esanekotasun guztiz normalaren aurrean gaude, berezkoa denaren eta famili bizitza garatzen* laguntzen duenaren aurrean. «Hobeago da obedientzia maiteago izatea, desobedientziari beldur ukaitea baino» (Salesko Frantzisko sainduak).

Beti ere neure bizia hartua dudalako eta oraino ere hartzen dudalako, era batera edo bestera, nire bizitzako aro guztietan du leku bat obedientziak (*292, 347*). Hori ezagutzea askapen* dut: egia bait da.

Bizitzan, ordea, gure maitasunezko, agintezko eta menpekotasunezko harreman guztiak ezinaz, tiraniaz eta idurikortasunaz* kutsaturik datoz. Txiki-txikitandik gainera. Beldu-

epaia: jujamendua, juizioa. **hauta:** hautatu, aukeratu. **iharduera:** jokabide. **ohora:** ohoratu, hondratu. **so egin:** begiratu. **berariz:** bereziki, espreski. **garatzen:** heltzen. **askapen:** liberazio. **idurikortasuna:** mesfidantza.

rra ez da batere on agintariarentzat: «Zer da aginpide beldurgarri bat baino okerragorik? —Agintari beldurtua».

Bada oihaneko senik ere: indar nahia. Arrazoin guzti hauengatik, aginpideak, giza balio guztiek bezalaxe, bir-erosia izatea eskatzen du. Bat, errespetua (familian, gizartean, Elizan, bere esperientziagatik nahiz aginpideagatik) edo ederrespena* (aldizkarietan, irratian eta telebistan, literaturan, hizketa joriagatik, ausarpenagatik* edo buru argitasunagatik) ezartzen duelarik ere, «jauntxokerian» eror liteke; joera hori askapen beharrean izanen da. Kristok egiten du hori, gauza guztiek besteen zerbitzurako izan behar dutela irakatsiz (*124*). Ez noski sasi-zerbitzua: ez, bestea nagiarazten duen zerbitzu eta, ontasunaz baliatuz, bestea izpirituz gure eskumenpean ezartzen duen zerbitzu; baizik, norberari bere buruaz jabetzen eta bere burua lantzen laguntzen dion zerbitzu. «Agintzen duena, egin bedi zerbitzari bezala» (Lk 22,26).

Jesusek aginteari buruz zuen jokamoldeaz dihardugunez gero, Efesotarrei eginiko epistolan Paulo sainduak harrotzen duen arazo bati erantzuten ahal diogu. Honela dio Apostoluak: «Ba gizona da andrearen buru, Kristo Elizaren buru den bezalaxe» (Ef 5,23). Senarrari, familian, emaztearen gainetik, lehentasuna dagokiola irakasten ote du S. Paulok hemen? Gauza hestu-hestu hartuz gero, ez.

Lehen esan genuen bezala, testu guzti honetan, «bezala» hitza hartu behar da kontutan (*324*). Gizarte konkretu batetan mintzo da Paulo, egitez familiako buru senarra deneko gizartean (gurean ere, izatez, halaxe da). Baina Pauloren mezua ez da hori; aldiz, senar-emazteen arteko harremanak definitu nahi ditu: Kristoren eta Elizaren artekoak bezalakoak izan behar dute, dio. Horrez gero, Apostoluak kontutan duena, maitasuna da, batak besteari nork bere burua eskaintzea; ez da arduratzen familiako aginpide arazoaz. Agintariaren eta menpekoen harreman honek, gizarteak edozein modutan finkatzen duelarik ere, Kristoren Izpirituz kutsaturikoa izan behar du: zerbitzu eta maitasun Izpirituz kutsaturikoa. Horra Pauloren irakatsia.

Hezketa, maitatzen irakastea *(101-104, 363)* 335

Hezitzea zerbitzu bat da. Haurrez ez arduratzea, nork bere burua bilatzea da. Haurrak, norberaren irudi hutsak egin daitezkeen zerbait bezala hartzea, nork bere burua bilatzea da. Haur bakoitzak bere nortasuna du; gizaki berezi da. Gi-

ederrespena: amirazioa. **ausarpena:** audacia, audace.

zaki *berri* bat da, eta ez bere gurasoen irudi huts. Bizitza berri honen zerbitzeko daudela pentsatu behar dute gurasoek, askatasun osoz hazten utziz.

Hezketa zerbitzu bat da, baina egiaz gidatuz, eta ez gauza guztietan amor emanez. Horrela, haurra ez bait litzateke bere buruaren jabe bihurtuko, bere buruaren esklabu baizik.

Nor bera bilakatu, hazi, maitasunaren agindu askatzailera joz hazten da eta nor bera bihurtzen (*101*): Jainkoarekiko, Sortzailearekiko maitasunera, eta gainerako gizon-emakumeekiko maitasunera joz, alegia. Horretan haurraren amak zerikusi handia du, inondik ere. Ama bera saiatzen da haurrari beronen bizia noren esku dagoen adiarazten. Larriekin* batera otoitz egiten irakasten dio haurrari (*253*). Eguberritako jaiotzeaz eta gurutzeaz haurrak egiten dizkion galdeei erantzuten saiatzen da. Piskana-piskana eta zuhurki, ona eta gaitza banatzen irakasten hasten zaio. Baina irakas lekiokeen guztia baino joan-etorri* handiagokoa da familiako bizi-giroa: familian haurrak ikusten duen egiazko fedea, familian batak besteari dioten maitasuna.

Gurasoek, beren ezina, beste gauza guztietan baino areago, haurren hezketa lanean nabari* dute, nahi gabe ere berekin daramaten gaitza ikusten dutenean (*215*); jatorrizko bekatuaren egoera bezalakoa da hori. Baina kristau gurasoek badakite, garraiatzen* duten eroskundea*, bekatua baino indartsuago dela: fedea, esperantza, maitasuna bait dakarzkiote haurrari, beren bizitzak atergabean aldarazten dituen legamia*

Horrelako zerbait nabari dugu haurra lagun hurkoarekiko maitasunean hezitzean. Gurasoen berekoikeria —nor dago horretatik libro?— haurrei eransten* zaiela agerian badago, are egiazkoago da gurasoek, beren adikortasunez*, beren jasapenez* eta bata bestearekiko, seme-alabekiko eta gainerako jendearekiko zerbitzaritzaz, beren ontasuna ere eransten dietela (*352*). Maitasunerako hezketa, honetara biltzen ahal litzateke agian: haurrari besteren pozaz ere pozten irakastea (*391*).

Hori ikasi baldin badute, orobat luza diezaiokete eskua ezbeharrean dagoenari. Horrela, hezketak, haurragan, bere bizitza osoa gizadiaren eta Jainko erreinuaren zerbitzuan ipintzeko deia bera ere sor lezake (*305*). Zorionekoak, inolako bortxarik* gabe, beren seme-alaben bizitzarako horrelako deiarentzat beren bihotza irekirik duten gurasoak.

---

larri: heldu. **joan-etorri:** garrantzi. **nabari:** sumatu, ikusi. **garraiatu:** eraman. **eroskunde:** redentzio. **legamia:** altxagarria. **eransten:** ematen. **adikortasun:** xamurtasun, konprentsio. **jasapen:** eramanpen. **bortxa:** indarkeria.

Maitasunean hezitzeak, haurra sexualitate heldura gidatzea ere esan nahi du. Sexu hezketa hau —hitzaren esanahi zabalenean harturik— ez dagokio edozeini, haurraren hezketa osoa beren gain dutenei baizik, hots, aitari eta amari. Honetan ere, famili giroa ezinbestekoa* da. Gurasoen artean harreman bihozkoienak ageri direnean, eta seme-alabek gurasoen maitasun beroa berez bezala agertzen ikusten dutenean sexu hezketaren elementurik nagusiena ezarririk dago: gazteek, orduan, gizonaren eta emakumearen arteko maitasuna berezko gauza bezala nabari dute.

Aldiz*, arras bestalde gertatzen dira gauzak familia tabuz beterik bizi dadin edo sexualitatea ukatu nahi lezan familia itxuratian: giza maitasun osotik eten egiten bait du horrek sexualitatea. Horrela, haurrak gurasoengan alderdi «miresgarria» besterik ez du ikusten, izpirituzko harremana bakarrik; gorputz maitasunaz, berriz, adimen maila hutseko ezaguera hotz bat besterik ez du jasotzen hoberenean ere: noizpait bapatean eta gertuerarik gabe eginen da ezagutza hori, une labur batetan eta gogoaren kontra bezala.

Haur bat kastitatean hezi nahi baldin bada eta sexualitateari garrantzi handiegia eta bihurria ez ematen erakutsi nahi bazaio, bere gurasoengan nabari behar du eredua*, eta bere begiz ikusi jarraipidea*, hau da, gurasoen elkarrekiko maitasuna, baretsua eta errespetuz betea; eta hauk elkarrekiko axolan eta maitasun beroan berez agertzen dira famili bizitza osoan.

Gurasoen bizitza bera, elkarren arteko hartze eta emate hori, ezkon-maitasunaren ispilu* izanen da haurrarentzat; eta geroago, beren arteko erlazio baitangokoak* —hartze-emate mota hau ere— gurasoek kontatzean, haurrak ez du erasan* gogorregirik jasango. Aldez aurretik giro hori bizi izan dezan haurrari, piskat koxkortu* orduko, laino-laino azaltzen ahal zaio kastitatearen esanahia, ezkontzan on eta eder denarekiko begirune bezala agertuz.

Holako giro batetan, bake giro horretan, haur txikiak bere gorputza ezagutzen dueneko jokua ez dute hartuko gurasoek, gizon heldu baten iharduera* bezala; eginen dutena, hauxe izanen da: larriegi hestutu gabe, arreta handiegia kenarazi eginen diote haurrari, beste gauza batzuetara zuzenduz eta, horrela, berez bezala hezi kastitatean.

Haurraren inguruan beste haurtxoren bat jaiotzen baldin bada, arazo horretaz jakin minik gabe gel dadin eta kalean jakin nahian ibil ez dadin, horren berririk eman dakioke lasai-lasai, patxaran gelditzeko behar duen neurrian. Eta hamar urte inguruan, ar-emezkoaren zergatiaz galdezka denean, gurasoen arteko maitasunetik haria hartuz erantzuten ahal zaio, alferrikako biologiazko xehetasunetan

---

ezinbesteko: beharrezko. **aldiz:** kontrakoz, bestalde. **eredua:** modelo, modèle. **jarraipidea:** etsenplua. **ispilu:** mirail. **baitangokoak:** barrenagokoak. **erasan:** astindu. **koxkortu:** handitu. **iharduera:** jokabide.

ibili gabe. Pubertarora* heldu aurretxotik, eder den orora oso irekia da oraino eta oso jakin min: gehiago azaldu beharko zaio aita-amatasunaz eta gogotik eginen du beste galderik ere.

Aro hori, hamabi urte ingurukoa, haurrak galde asko egiten ditueneko hori da garai egokia, xehetasun gehiagoz eskolatzeko, lehen abagunea* berez etorri ordukoxe. Geroxeago, hain zuzen, pubertaroa hasi orduko, sexualitatea afektibitate osoz bizi du; sexualitateaz dakiena norberaren esperientzia biziegia bilakatzen zaio, hartaz askatasunez galdegiten jarraitu ahal izateko. Bere baitan hersten da, bere mundu koxkorrean bizi da eta ez zaio hain gauza erraza, are gutxiago kanpotik behartzen denean, konfiantza osoko elkarrizketarik edukitzen. Horregatik, bere baitan biziko duen esperientzia horretarako gertuta egon behar du; bestela, dudarik gabe, beste nonbait entzungo edo ikusiko du.

Gauzak diren bezala ikusten dituztela ederki agertzen dute gurasoek, beren seme-alabek, laster beren gorputzean ukanen dituzten aldakuntzetara gertutzen dituztenean. Honetaz ohartzen dira horik: bakarkako sexu atseginketaz* —hori da arazo zaila; agian gurasoentzat gaztetxoarentzat baino zailago— larritasun txikiko adin horretan larritasun handiegirik gabeko elkarrizketa izaten ahal dutela. Jakina, elkarrizketa horrek ez du libratuko geroxeago zenbait zailtasun ukaitetik; baina kentzen ahal dizkio bederen alferrikako kezka asko eta errudun izatearen zentzu handia. Gainera, gurasoek konprenituko dutelako ziurtasun baketsua ukanen du. Gaztetxo egitean, bakarkako atsegina ez du hartuko, berehala eta guztien gain, bekatu bezala. Gaztetxoak bere adin hunkiberan* eta aldakorrean, askatasun txikiegia ukan ohi du gehienean besterik gabe bekatuaz hitzegin ahal izateko. Bestalde, heldua ere, bakarkako atseginkeriatan erortzean, aitzina uste zen baino gehiagotan gertatzen da askatasun faltan. Ez da ahantzi* behar, gora-behera horik gehienetan haurraren bizitza markatzen duten tirabira afektibuen ondorenak direla: besteekiko harremanetan hutsegin duelako, astialdirik ez duelako, eskolan neurbide* txarrak ukaiteaz kezkaturik dagoelako, etab. Gaztetxoak aisa* onartuko du bere hutsaldiez bere gurasoekin hitzegitea, adikor* aurkituko dituelako ustetan. Aldiz, bere sexu prolemaz, handi nahiz txikiaz (eta urte askoz luza daitekeenaz) nahiago izanen du isiltzea; dena dela, berez hasiko balitz hartaz mintzatzen, gurasoek egin behar dutena, haren kontzientzia baretzea* da. Batez ere, seme-alabarengan nabari dituzten alderdi onak mahain gaineratuko dituzte: bizitzari buruz haren jokabidean ageri diren joera zuzenak, alegia. Bere gurasoen onginahiaz lagundurik eta apaiz burutsuren baten gidaritza hurbilagoz, gaztetxoak, bere bizitzako aro berekoien horretan bertan ere, maila guztietan bere gogo berekoiak gainditzeko gogoa sentituko du, eta horrez gero, bere gorputz esperientzietan ere, haur tankerako itxikerian ezin

---

pubertaro: pubertad, puberté. **abagunea:** parada, egokiera. **atseginketa:** satisfazio. **hunkibera:** sentibera. **ahantzi:** ahaztu. **neurbide:** nota. **aisa:** erraz. **adikor:** xamur, konprenikor. **baretzea:** trankiltzea.

gera daitekeela. Bere baitan, sexualitatea maitasun hizkuntza dela sumatzen hasten da. Bere familian bata besteari elkarrekiko arduraz loturik ikusten zuelako, eta hori bata bestearekiko laguntzaz agertzen zelako, txikitatik ikasi du, nortasun osoz, gorputzez eta arimaz, besterentzako bizitzea on dela.

Esan duguna ez da mutikoentzat bakarrik. Bada neskatorik ere, goiz edo berandu, bakarkako atseginketara jotzen duenik. Baina, neskatxengan bakarkako atseginketaren eta gorputz haztearen arteko erlazioa ez da hain zuzenekoa. Horregatik ez litzateke ukitu behar puntu hau, neskatxari, gertutzeko asmotan, hilabetekoaren berri ematean. Neskatxa asko eta asko da, inolako sexu sentipen gisakorik sentitzen ez duenik, edo sentipen arras zehaztu gaberik sentitzen duenik; eta askori bakarkako atseginketa ezezagun zaio. Ez sentipena sentitzen duena, ez ezagutzen ez duena, ez da izpiritu «anormala». Bata eta bestea, helduz doazela, osasun oneko bilaka* daiteke.

Agian luze-zabalera handiegia eman diogu gai honi, Berrionaren predikuak eskatzen duen baino handiagoa. Dena den, sexu hezketaz hastapen* jatorrak badu zerikusirik Berrionarekin. Hemen emandakoa lehen bide-urratze bezala har bedi, eta xehetasun handiagoren bila liburu onetarako bultzagarri bezala: Elkar aditzea, maitasuna, elkartasuna... gure solas* hori, bati baino gehiagori, ametsa irudituko zaio; baina har bedi gogoan gure asmoa: asmo eragile eta osagarria eman nahi genuen, jakinaren gainean, gure egiteak beti bidé erdian geratzen direla.

Hezketa: nor bere eskuko* izaten laguntzea *(195)* 337

Behar duen maitasun eta segurantzia guztia eskaintzen dizkiote gurasoek haurrari. Baina halako batetan, gutxien uste denean, bere bidea urratzen hasten da gaztetxoa, bere aldetik bere jokabidea finkatu* nahian, eta, orobat, bere erlijio ikusmoldea ere. Aro horrek, etsipenik, elkar ez aditzerik, atsekaberik, bakartasunik erakar dezake, eta bientzat erakarri ere: gurasoentzat eta seme-alabentzat. Kristau mezuak ez du esan nahi sesioak* bazter daitezkeenik, baina jarrera emankor* hau idarokitzen* du: elkarrizketari ez uztea eta besteren zailtasunak agian gureak baino gogorrago direla apalki ezagutzea. Garai horretan, fede hezketarako, haurrari bitartean eman izan zaion erlijio heziera onuragarri* bezain garrantzizkoak dira gurasoen axola, irekitasuna eta adiskidetasuna; izan ere, ordurarte harturiko erlijio hezierari gogor egiten bait dio gaztetxoak aldi batez. Agertzen ez badu ere, atsegin handiz ikusten ditu gurasoak beren fedea gogoz bizitzen bera zenbait debozio betetzera behartzen ez dutelarik.

Aro honetan haurra, bere gurasoen bizitzan mamiturik nabari dituen giza balioekiko xit sentibera da; oso hunkitzen dute gurasoen

bilaka: bilakatu, bihurtu. **hastapen:** hasera. **solas:** hizketa. **nor bere eskuko:** independiente, indépendant. **finkatu:** sendotu. **sesioak:** eztabaidak, istiluak. **emankor:** fruitutsu. **idarokitzen:** gogorarazten. **onuragarri:** probetxuzko.

ontasun eta leialtasunak, gurasoen bihozberatasun eta esker onak, gurasoen erantzukizun zentzu eta lanerako garrak (*365*). Erlijio hoztasuna bizi duen aro horretan, bertute horiek laguntza handia damaiote gizon eta kristau heldu eginez joateko.

Bai gauza onuragarria, horrela, familia ireki eta txeratsuan* hazia izatea; adiskideei ere ateak irekiak ditu; laster, neska-mutikoei, lasai-lasai elkar aurkitzeko bidea emango die, atsedena hartzekotan eta beren eginkizun gogozkoenetan partehartzekotan. Irekitasun horren bidez, seme-alabei gizarte zentzua oparo* emateko aukera dute gurasoek, eta gurasoekiko edo zenbait adiskiderekiko bihotz-lotura hestuegiei bidea mozteko. Giro horrek, batera babestua eta irekia delarik, beste guraso presturen ikusmodua eta juzgatzeko modua ezagutzeko aukera damaie gurasoei; horrela, kriterio edo irizpide hestuegi eta erabatekoetatik* zaindu egiten ditu. Malgutasun* jator bat eta erlatibutasun zentzu piskat dagoenean, bihotza bakean bizi ohi da, eta alferrezko tupustak* aisa baztertzen dira.

Nortasun oso eta jatorreko gizakiak honelako familietatik atera ohi dira: behartuta bezala sortutako harreman praktiko hutsen ordez, konfiantzak eta elkarrekiko aditzeak sortutako harremanak bizi dituzten familietatik. Horixe da, geroago gazteen familien zoriona segurtatuko duen oinarria; horrelakoengan egiazko maitasunak zuztar sendoak bota ditu, haurtzarotik ezagutu eta ikasi dutelako. Oroitzapen hori ez da xahutuko* gurasoen etxea uztean ere.

Aitarentzat eta amarentzat beste garai bat hasten da orduan (*391*). Berriro biak bakarrik dira. Horrela bakarrik aurkitzen du bere betetasuna ezkontzak, ezkontideen bizitzaren arrago* denak. Senar-emazteak inoiz baino areago dira ezkontide (ezkon-kide). Inoiz ez dira izan oraindainokoan hain herstu bat eta elkarrekin.

Beharbada, haiengandik, errealitate zentzu berri baten eredutza* espero dugu; gogoz isilperatzen denaren eredutza, ontasun eta irekitasun eredutza. Isilperatzen denak ere badu jainkozko zeran parterik: hau da, gauza orotan hain nahasirik dagoenaren urruntasun eta isiltasun miresgarrian. Kristauari ez zaio amaitzen behin ere bere eginkizuna.

Azkenean, ezkontide batek azken atsedenera eramango du bestea, eta bakarrik geldituko da. Bizitzako gora-beherak direla eta, askotan, zaharrak beste giro berri bat bilatu beharko du. Bakea eta patxara, batez ere, bihotzez besteekin eta Jainkoarekin loturik darraienari dagozkio.

---

txeratsua: hospitalario, hospitaliere. **oparo:** nasaiki, ugari. **erabateko:** absolutu. **malgutasun:** biguintasun. **tupustak:** istiluak. **xahutuko:** suntsituko, galduko. **arrago:** crisol, creuset. **eredutza:** etsenplua.

Ebanjeliozko aholkuak (*179*)

Gorputz eta arima, gizakia ezkontzarako egina da. Halaz guztiz, zenbait, arras jakinaren gainean, ezkonge* gelditzen da, eta bizikera horretan pozez beterik bizi da. Hori, «Zeruetako Erreinuagatik» (Mt 19,12) egiten du.

Gizonak, mundu honetako zenbait gauza, bere gauza bezala har dezake. Bere norbait izateak eskatzen dion beregaintasuna* ukaiteko horren beharra du. Zenbaitek, haatik*, inolako jabetzarik ez ukaitea erabakitzen du.

Gizon bat heldutasunera, bere baitatik joka dezakeelako heltzen da. Zenbaitek, haatik, esaneko* izango dela agintzen du askatasun osoz.

Hiru giza balio hauei uko egiten dienak, Jesusen jarraipideari eta aholkuari jarraitzeagatik egiten du (*92*). Horregatik deitzen ditugu ebanjeliozko hiru aholkuak. «Erlijioso» izena, beren bizitza betirako aholku horietatik bideratzen dutenei ematen zaie.

Erreinuaren izenean birjintasuna 338

Ezkon-loturarik gabeko bizitza ez da maitasunik gabea (*318*). Alderantziz* baizik. Bizikera hori hautatzeko arrazoin bakarra maitasuna da.

Ez da ere gorputzik gabeko bizikera. Gizonezkoak ez du zaindu beharreko emazterik, ez du seme-alabarik; emakumezkoak ez du senarrik, ez eta seme-alabarik ere bere sabelean. Baina gorputza sexu batasunerako ez beste gauza askotarako da. Ontasunaren lekuko* izateko da, egia adiarazteko, gizakiaren baitan denaren ezagugarri mila modutan izateko da, jende askorenganatzen den zerbitzuaren abiaburu* izateko da; horrela ere, gorputza emankor ageri da. Hitz batean, Jainkoaren hurbilean egoteko da: «Gorputza... Jaunarentzako da, eta Jauna gorputzarentzat. Eta Jauna biztuarazi zuen Jainkoak gu ere biztuaraziko gaitu bere ahalmenaren bidez. Ez ahal dakizue zuen gorputzak Kristoren zati direna?» (1 Kor 6,13-15). Hitz hauek, ezkongetzaz* ez baino haragikeriari uko egiteari buruz mintzo direlarik, gure gorputzaren azken jomuga sexualitatea ez dela esaten digute. Horrez gero, birjintasunak, Jainkoaren izenean aukeratua denean, ez dio ukorik egiten gorputzari, hondo-hondoan.

---

ezkonge: ezkondu gabe, célibe, célibataire. **beregaintasun:** independencia, indépendance. **haatik:** halere. **esaneko:** meneko, obediente. **alderantziz:** bestalde, kontrara. **lekuko:** testigu. **abiaburu:** hasera. **ezkongetza:** zelibatua.

Baina, dena den, esanen du norbaitek, ezkontzari egiten zaio uko. Gizonak egiten duen hazia, zain dagoen emakumearen sabela, beste bati eman zekiokeen bihotza: hori guztia alferrik galtzen da, beraz? Ez, hori guztia ez da alferrik galtzen, baizik gizon nahiz emakume heldua osatzen duen osotasunari itsasten* zaio. Izan ere, egitez, ezkon esperientziari uko egiten bazaio ere, ez zaio uko egiten gizonezko nahiz emakumezko nortasunari. Ahizpa* gaixozain nahiz ahizpa irakasle batek, bere eginkizuna emakume gisan beteko du. Misiolariak, berriz, gizon gisan. Sexualitateaz gorputzaren aldetik baliatu ezean ere, sexualitateak bizirik behar du iraun norbait egiazko gizon nahiz egiazko emakume izan dadin; horrela bakarrik ukanen ditu gizonezko nahiz emakumezko horrek pertsona helduari dagozkion balioa eta ontasuna. Horrela hartuz gero, inolako gorputz nahiz bihotz ahalmenik ez da gelditzen alferrik. Zerbait esan nahi du Kristo oso-osorik gizon izateak. Gizonezko bezala ekarri dio gizadiari Berriona.

Zeruko Erreinuaren maitasunagatik ezkontzen ez direnak, prestutasun osoan bizi izaten saiatzen dira, lanean eta otoitzean; horrela, besteek, askatasunik ez dutelako, iritsi* ezin duten emankortasuna iristekotan. Horien bihotza askorengana dago irekirik eta modu askotara. Horiengan eta horien bitartez topatzen du jende askok Bakar Hura, Iraunkor Hura, Leial Hura. Horrela ageri da zertaraino duten premiazkoa fedea beren bizitzan. Izan ere, nola ukan daiteke askorekiko maitasuna, nork bere bihotza bakar bati emateke*?

Ezeren jabe ez izatea 339

Ebanjeliozko bigarren aholkuak nork berarentzat ezer eduki gabe bizitzea eskatzen du. Jabe, elkartea da orduan, ez norbera. Horrek ez du esan nahi, gizonak lurreko gauzekiko lotura guztiak hausten dituenik, txarrak balira bezala. Nolarebait, aldiz, kreazio guztiarekin lotura hestuan ikusi ohi dugu geure burua. Gauza bat geurea denik esan ez dezakegunean, mundu guztia dugu geure etxe. Asisko Frantzisko sainduak, jabego osoa utzi zuelarik, kreazioko gauza guztiak bere «anaia» eta bere «arreba» deitzen zituen. Kepak honela dasaio* Jesusi egun batez: «Horra ba: guk dena utzi dugu, eta zuri jarraitu gatzaizkizu; Jesusek erantzun zion: Benetan esaten dizuet: Ez da inortxo ere, bere etxea, edo senideak, edo ama, edo aita, edo semeak, edo sailak nigatik eta nire Ebanjelioagatik utzita, beste ehun halako etxe, eta anaia, eta arre-

itsasten: lotzen. **ahizpa:** serora. **iritsi:** erdietsi, lortu. **emateke:** eman gabe. **dasaio:** esaten dio.

ba, eta ama, eta seme, eta sail pertsekuzioekin batera oraingo aldi honetan hartuko ez dituenik, eta betiko bizitza geroko aldian» (Mk 10, 29-30). Testu bikain honetan, gauza oro utzi duenak, lur honetan bertan zenbat hartzen duen adiarazten digu Jesusek. Ez, noski, hartaz patxara osoan goza dadin. Izan ere, Jainkoak etengabean eskaintzen duen dohaina da, erasopean* uneoro berritzen duena. Ondasun horretaz baliatzen ahal zara; baina ez duzu haren jabetzarik. Izatez, bizikera hori, gehienetan, honela moldatu ohi da: norberarentzat ezer edukitzeke*, gauzen jabegoa* elkarteari dagokio, eta elkartean norberarena. Horrela, norbera gauzetatik etenik biziko da. Elkarteak ere ondasunetatik etenik bizi behar luke. Horretarako, beti, neurriari eutsi behar dio. Besteentzat lan egiteko behar denaz beste ezertaz ez da baliatuko. Horrela bizi izan zen Jesus. Gainezkakoa behartsuei dagokie.

Obedientzia 340

Ebanjeliozko hirugarren aholkuak nork bere nahiari uko egitea eskatzen du, besteren esana eginez (*92*). Asmo osoz nahi bakar bat bilatzen da: Aitarena. Jesusek bete duena. Egia da, noski, kristau on orok egin nahi duela Aitaren nahia. Baina anaiak eta ahizpak elkartean pobretasun eta birjintasun aholkuak betetzeari eman zitzaizkionean, elkartearen zuzendariaren aginduak Jainkoaren nahiaren agerpide* zehatz eta bizi bezala hartzen hasi ziren. Agindu horik beteko zirela agintzen zen zin* eginez, horrela norberaren bizitza Kristorenaren ahalik antzekoena egitekotan.

Zin hori eginez ez dio inork norberaren kontzientziari uko egiten. Ezinezko litzateke hori, jakina (*307-309*). Agindu bat betetzeak bekatua dakarrenean, ezin obeditu da; erlijioso araudiek*, hain zahar direnek, garbi adiarazten dute puntu hori, eta asmo garbiz zapuzten* dute honako esaera hau: «Agindua agindu da». Norberaren ekimenari* ere ez zaio uko egiten; ez eta norberaren kritika zentzuari ere. Uko egiten zaio, bai, beharbada, norberaren asmoak aurrera eramateari, baldin nagusiak, menpekoarena ezagutu ondoren, beste bat hautatzen badu. Honelako bizikerak zailtasun handiak ditu; batez ere, nagusiek beren zeregina ongi hartzen ez dutenean, xehetasunetan xeheegiak direnean, norberaren ekimenari tokirik uzten ez diotenean... Hitz batean, nagusiek, bestelako agintariengan aurkitzen diren akats guztiak bereganatzen di-

erasopean: pertsekuziopean. **edukitzeke:** eduki gabe. **jabego:** jabetza, propiedad, propriété. **agerpide:** manifestación, manifestation. **zin:** boto. **araudiek:** lege sortek. **zapuzten:** baztertzen. **ekimena:** iniciativa, iniciative.

tuztenean. Halaxe ere, erlijiosoak ez daude oztopo* horiei begira. Badakite, obedientziak barrenean misterio handi bat daramala. Kristoren obedientzian partehartzea esan nahi duela badakite, eta Kristo Aitaren nahi askotan ilunari, baina beti argitzaileari, izan zitzaiola meneko. Erlijiosoek ezagutza osoz eta gogotik onarturiko obedientzia, lurrean, bake iturri oparoa* izan dute.

Bizitza oso-osorik eskaini 341

Ebanjeliozko aholkuen jarraitzeak, norberaren burua bizitza guztirako beste Baten eskuetan ipintzea esan nahi du. Hiru botoz edo zinez ematen zaio horretarako hitza. Izaera horri darion bizitza giza esperientzia arras berezia da. Hori azaltzeko adibide bat badu Paulo sainduak. Kristogatik ezkontza uzten duenaz mintzo delarik, halakoa Jaunari «banaketarik gabe» eta «kezkarik gabe» sagaratzen ahal zaiola esaten du (1 Kor 7,32-35). Esperientzia hori, Paulok bere iritzi bezala ematen duen hori, gaurdainoko beste kristau askoren esperientziak baieztatzen* du.

Aholku horiei jarraitzera deituak izan ez direnentzat, galde hauxe sortzen da hemen: eta gu, orduan, banatuak ahal gara? Ezkontzea, jabe izatea, eskuko* izatea, gaitz ahal da? — Ez horixe; kristau fedearentzat hori guztia giza heldutasunerako bide da, Jainkoaganako bide. Maitasunezko lehen musua, norberak irabazitako lehen jornalaren poza, norberak harturiko joan-etorri handiko erabakiaren duda-muda: hori guztia gerta daiteke Jainkoarekin elkartzeko bide. Baina, halere, gu bekatari garelako, akatsik badaramate guzti horiek beren baitan, beti ere. Gure maitasunak ez du behin ere bestea osorik atzematen*; sarritan berekoi gertatu ohi da, eta horrela, Kristogandik aldendu egiten da. Zerbaiten jabe garenean, ez gara beti Jainkoaren esku-zabaltasunaz gogoratzen (are gutxiago jokatzen haren arabera [*355*]). Geure nahia, zenbaitetan, buruz-buru ipintzen zaio Jainkoaren nahiari. Hitz batean, Jainkoaganako bide horik —dena dela, hala bait dira— ez dira guztiz garbi jatorrizko bekatuagatik. Ez garamatzate Jainkoagana zuzen-zuzenean eta behaztoporik* gabe (*207-219*). Hori dela eta, Jainkoak, bere Elizaren bidez, dei berezia zuzentzen dio zenbaiti, norberaren bizitza guztia harengana (Jainkoagana) zuzentzeko eskatuz, bizitza osoa haren eskuetan ipintzeko eskatuz, ahalik xaloen eta zuzenen. Horrek ez du esan nahi, berehala, une berean, «banaketarik gabe» *direnik*! Hain zuzen, halakoen eginkizuna, etengabean «banaketarik gabe» *bilakatzea** da. Beren bizitzako eginkizun den banaketarik gabeko batasun hori beren bizitzan mamitzen duten neurrian, Kristoren soiltasun eta askatasunean partehartzen ari dira. Esanen litzateke

oztopo: traba. **oparoa:** aberatsa, ugaria. **baieztatzen:** indartzen, gonfirmatzen. **eskuko:** norberegain, libro. **atzematen:** iristen. **behaztopo:** traba. **bilakatzea:** bihurtzea.

zenbaitetan, besteek askotan galduak dituzten gaztaroko* zantzuei* eutsi egiten dietela beste hauek. Ez dut esan nahi noski umekeriaren antzeko zerbait —hori komentuan bezalaxe ezkonduengan aurkitzen bada ere zenbait aldiz—, nolabaiteko hantuste* falta baizik, nolabaiteko zuzentasun bat, banaketarik gabe norberaren burua eskaintzea.

Eskuko* iraun kreazio berrirako 342

Banaketarik gabe norberaren burua eskaintzeaz gain, Paulo sainduak beste arrazoin bat ukitzen du: «Badoa mundu honen itxura» (1 Kor 7,31). Paulok, orduan, munduaren azkena berehala helduko zela uste zuen. Munduaren azkena atzeratzen ari dela eta, arrazoin hori leuntzera behartuak gara, baina hark ez du baliorik galtzen. Ebanjeliozko aholkuek, bizitza, ahalik zuzenen, azkenean iraunkor izango denera zuzentzeko deia egiten digute: Jainkoarekiko eta lagun hurkoarekiko maitasunera, Jainkoaren erreinura, Aitaren nahira (*404*). Egia da, errealitate iraunkor horretara, ezkontzaz ere, geure jabe izanez ere, norberaren nahiaren jabe izanez ere zuzentzen dela gizakia. Lurreko balio horien bidez dagi hori gizakiak. Erlijiosoari, balio handiko gauza horiei buruz, bere burua aske* gordetzeko eskatzen zaio, haietan, muin preziatu bezala, betikotasunerako aginduta dagoenari adi izatekotan.

Erlijiosoa ere, jakina, lurtarra da, lurreko zeregina eta lurreko bihotza ditu. Hain zuzen, norberaren familiaren eta norberaren jabetzaren balio horik utziz, modu xit berezian hurbil dakioke, bai kreazio osoari, bai gizadiari — gogora ditzagun, adibidez, Asisko Frantzisko, Paulo edo Jauna bera. Baina, hurbiltasun hori gora-behera, edo, hobeto, hurbiltasun horregatik, ebanjeliozko aholkuen araberako bizikerari, beste guztiak baino areago kreazio berrian iraunen dutenetatik, poz bat dario; alde orotan, Jainkoak betirako agindua duena burutzen saiatzen da. Horregatik, erlijiosoen elkarte horik, beren hitza ondorio guztiekin eta beste fededunengandik bereizteke* bizitzen dutenean, hondo-hondoan, dela ezkontzan, dela gauzen jabetzan, dela norberaren nahian, gizakiari benetan axola zaionaren ezagugarri edo seinale gerta daitezke. Hauxe adiarazten dute: gauza horiek ez dezaketela giza bihotza ase, «Jaunarengan» bizi ez badira, hots: norberaz ahaztea den maitasunean, gurutzearekiko sinestean eta biztuerareen esperantzan bizi ez badira.

Ebanjeliozko aholkuak bizitzekotan, zenbaitek bazter uzten ditu Jainkoaganako bide arruntak. Horrenbestez, bide horiei dagokien grazia ere utzi egiten du. Arrisku bat leporatzen dute holakoek. Inor on eta saindu bihur dezaketen ardura eta pozari uko egiten diete. Horrek, ezkonduek erlijiosoei buruz zeregin bat dutela esan nahi du. Beren

gaztaro: gaztetako aro. **zantzuei:** markei. **hantuste:** handi uste. **eskuko:** libro. **aske:** libro, eskuko. **bereizteke:** bereizi, apartatu gabe.

honetan jatortasunez, zuhurtasunez eta jasamenez, kristauen lur honetako bizitza azaltzen dute. Erlijiosoak horren beharrean dira, ezkonduak erlijiosoenaren premian bezala. Bizitz mota batetako pozaldi eta atsekabeak ezagutzea, atsegin eta laguntza bizgarri* da beste bizitz mota daramatenentzat.

Kristoren antzeko izan 343

Ebanjeliozko aholkuei jarraitzeko hirugarren arrazoina ez du aipatzen Paulo sainduak. Baina, aipatu gabean, garbi ageri da Ebanjelioko berrionean zehar. Arrazoin hori Kristo ezkonge* delakoa da. Hark, gizon bikain zenak, benetan oso-osoa zenak, banaketarik gabe zenak, ezkondu gabe bizi nahi izan zuen, ondasunik gabe. Ez noski, ezkontzea edo zerbaiten jabe izatea bekatutzat jotzen zuelako; haren mezua, horrela, bekatua nagusi den munduan, garbiago helduko zitzaigulako baizik (*92,228*). Jainkoaren goi-jauntasunaz mintzo zaigun mezua, alegia. Kristoren ondoren joateko, beste batzu ere «Jainkoaren erreinuagatik eunuko» bihurtzen dira. Eta Izpirituaren bitartez Jauna beti gurekin dugularik, halako bizikera bizi daitekeena da (*147, 235*). Aukera* hori egin dutenek badakite nori eskaini dioten beren bihotza

Fedea 344

Eman ditugun arrazoinek sinesten dutenentzat bakarrik dute indarrik. Federik gabe, bizikera hori zorakeria litzateke; amets hutsetara nahiz ezerezera jotzea litzateke. Sarritan hor dago fedea, dohatsu eta berezko gauza bezala. «Jahverren behartsu» (*25*) izatearen esperientziak, Jainkoaren seme edo alaba izatearenak, Jesusen senide*, on-egiteko beste zeregin orotatik liberatua, fedea predikatzeko banaketarik gabe izatearenak: horretxek bihurtzen du bizikera hori gizatasun sakoneko eta bikaineko bizitza. Orobat, horretxek adiarazten dizu zure etxagintza ez dela area* gainean egindakoa.

Jakina, zenbait gora-beheratan, zenbait arotan, eragozpenik sor daiteke. Hemen ere, beste edozein bizikeratan bezala, potegiterik* gerta daiteke, dela norberaren faltaz, dela besterenaz, dela gora-beheren batez. Horrelakoetan, ezagugarri edo seinalea, giza begitan, esanahi txikiagokoa da. Baina halere, hunkikor izaten dena, fedea da. Nolarebait, bi aldiz gertatu ohi da hunkikor; halakoak bere burua bizitzara deitua sentitzen bait du. Fedeak, usteonak eta maitasunak sutan jarraitzen dute hainbat potegiteren errautsaren* azpian. Eta sarritan ageri ohi da, halako norbaiten edo elkarteren baten bizi-

bizgarri: eragile, bultzatzaile. **ezkonge:** ezkondugabe. **aukera:** hautapen. **senide:** haurride **area:** hondarra, arena. **potegite:** hutsegite. **errauts:** ceniza, ceindre.

tzan, ilunaldiren baten ondoren poz eta bizitasun berriak sortzen direla. Eta hori, leialki eutsi izan zaion fedeari esker.

Sinesmenaren seinale hunkigarriena, agian, giza begitan zerbitzu apaleko zeregina burutzen duten elkarteetan topatzen* dugu: ahizpa eta anaien elkarteetan, eta apaiz elkarteetako laikoengan. Lanbide hori, garbi ageri da, ez dute hartzen Jainkoaren maitasunez ez bada, eta pozik irauten dute hartan (*55*). Beste hainbeste esan behar da egiteko nagusitzat otoitza duten komunitateez. Duten fedeak ematen dio mamia haien bizikerari (*254-256*).

Hiru ebanjeliozko aholkuek batasun bat dute. Bizikera berezi zehatz bat definitzen dute, eta hirurok elkarri eusten diote. Honek ez du esan nahi, hirurok beti elkarrekin izan behar dutenik; baina hiruetatik bati jarraitzen zaionak, ukanen du besteak ere bere bizitzan xertatzeko gogorik.

Apaizaren ezkongetasuna *(304)* 345

Aitzinako ohitura da Elizan, gotzaingaia ezkonge izatekoa eta hala irautekoa. Mendebaldeko* Elizan hori bera gertatzen da apaizari buruz ere; Ekialdeko* Elizan, gizon ezkondu batek har dezake apaizgoaren* sakramendua, baina, behin apaiz eginez gero, ez du inork ezkontzeko eskubiderik. Aipatua dugu apaizgoaren eta zelibatuaren arteko lotura horren *oinarrian dagoen asmoa*: Elizaren gidari izateak bereziki eskatzen du prestutasuna elkartearen zerbitzari izateko eta elkartean bizitzeko. Zelibatuaren eta apaizgoaren arteko lotura hori esanahiz beterik dago. Alabaina horrek ez du esan nahi bestela izan ez daitekeenik. Ekialdeko Elizako apaiz ezkonduak eta artzain protestanteak bikainak dira sarritan.

Maiz entzuten da, apaiz batek, ezkonge* delako, ez dezakeela eman aholkurik ezkonduen bizitzan. Baina, badirudi, gertatuak horren aurka mintzo direla: jende asko, prolema horietaz, apaizekin mintzo ohi bait da; hain zuzen, hainbat elkarrizketaren bidez apaiz askok esperientzia handia lortu du gai horretan (Eta gainera, ez ahal da egia, psikologoak esate baterako, senar-emazteei aholkuak emateko, bere ezkontza bizitzara ez baino bere ikasketaz eta esperientziaz bildurikora jotzen duela? Egiaz bere-bere dituenetan gizaki batek ez du beste inoren antzik).

Erlijiosoak eta apaizak, hezketan ere, sarritan, xit trebe ageri ohi dira (*335-337, 362-364*). Hezketa lanean eman di-

topatzen: aurkitzen, kausitzen. **mendebaldeko:** sartaldeko. **ekialdeko:** sortaldeko. **apaizgoa:** apaiz izate. **ezkonge:** célibe, célibataire.

tuzten hainbat urteri esker, hertsitu* ez badira bederen, askotan gurasoak gauza ez diren moduan uler ditzakete haurrak.

Diozesiar apaizek obedientzi promesa egin ohi diote gotzainari; baina pobretasun botorik ez. Izatez, ordea, kristau herri osoak bezala, ongi asko dakusate, sakramenduen ministro eta hitzaren predikari diren partetik, halako neurritasun bat komeni zaiela. Zenbaitetan, pobretasunean bizi dira, berenik ezer ez duten erlijioso askorena baino handiagoan.

Elkarrekin Jainkoaren aurrean **346**

Jainkoaren herria, emazte on bezala, Jaunaren zain dago. Bila dabil, Jaunaren bila, diozesi bakoitzean, parrokia bakoitzean, komentu bakoitzean, familia bakoitzean. Eta Jaunak maite du bere emaztea, eta honen atzetik dabil. Senar-emazteak, beren elkarrekiko maitasunean, misterio horren irudi dira (*324*). Baina, gainera, modu berezian, misterio horretan xertaturik dira, zeren beren maitasunez, bestearengan, elkarbatzen* dituen Hura bilatzen bait dute. Erlijiosoak, Kristoren eta Elizaren arteko maitasun misterio horretan oso-osoan eta zuzen-zuzenean eskuhar dezaten izan dira hautatuak. Hori, daitekeen gauza da anaia edo ahizpen elkarteetan, Jainkoaren Hitzaz emaniko kapituluan aipatu dugunez.

Apaizgorako deiaz agertu ditugun puntuak, erlijioso bizitzarako deiaz ere esan daitezke (*305*): Kristok inor erakartzean ixurtzen dituen poza eta bakea; erlijioso-gaia onartuz, elkarteak baieztatu* egiten duen deia; honen arrazoinak etengabean sakontzea. Elizaren historiari buruzko kapituluan ere aipatu dugu horrelako elkartèen ugaritasun aberatsa (*179*).

Eliza eta Estatua

Jainko herria mundu honetan bizi da. Ez da mundu honetakoa. Azken esaldi hau egia da, «mundu» hitza Bibliako esanahi honetan hartuz gero, hots: «mundu» hitzaz, gizadia, Jainkoagandik saihesturik den heinean, Jainkoarentzat kritikagai den heinean adiarazten bada.

Baina «mundu» hitzak beste esanahi bat ere badu. Lehengoa bezala, hau ere Biblian dator. Gainera, gaur guk ematen diogunari hurbilago zaio bigarren esanahi hau: Mundua, Jaunak elkartua izateko dena, «Jainkoak hainbat maite izan duen mundua», «mundua eta munduko jendetza guztia», Jaunari

hertsitu: itxi. **elkarbatzen:** elkarrekin lotzen. **baieztatu:** gonfirmatu.

dagokiona, bizia duen oro maite duenari dagokiona. Esanahi honetan, Jainkoaren herria mundu honetakoa da, eta honetakoa izan behar du, gero eta honetakoagoa.

Jainko herriaren apaizgoari buruzko kapituluan ere esan genuen (*380-383*), kristau eginkizunak eta lurtar eginkizunak gauza bat besterik ez dutela burutzen. Ikusi genuen, Jainko herriak gizadia zerbitu behar duela, bere laguntza eta testigantzaz*. Prolema nagusiak, gosearena, bakearena, zientziarena, ez dira gertatzen Elizaren ezjakinean edo Elizatik at* (*178*). Eliza, hain zuzen, bere mandatua dela bide, herstu nahasirik dago arazo horietan.

Ondorengo kapituluetan, munduko geure bizitza, geure familiar haruntzkoa bera ere, argitzeko, ebanjeliotik datozkigun argia eta mandatua azaltzen saiatuko gara. Jakina, gaingiroki* ihardungo* gara, zeren bizitza xehea hesparru* horietan hainbat zientziari eta hainbat gora-beherari atxekirik bait dago.

Lehen kapituluan, hain mota desberdinetako bi elkarteren arteko erlazioaz ihardungo gara: hau da, Eliza eta gizartea. Kristaua, erdibi-ezinekoa denez, biei atxekitzen zaie.

Leialtasuna 347

Gizon-emakumeok elkarrekin bizi gara: hizkuntzak, adiskidetasunak, etniazko ahaidetasunak, ohiturak, menpekotasunak eta erantzukizunak bata besteari lotzen gaituzten gizarte batetan. Gizarte horren erakunde behinena* Estatua da.

Gizarte eratuarekiko, hots, Estatuarekiko gure jarrera Liburu Sainduen arabera, hitz hauek biltzen dute: leialtasuna, lankidetasuna eta obedientzia. «Denek egin behar diete men aginpidea dadukaten agintariei. Ba aginpiderik ez da Jainkoagandik izan ezik, eta direnak Jainkoak jarriak dira» (Erm 13,1).

Zer esan nahi dute Pauloren hitz hauek?

Gizartearen legeekiko obedientzia (harremanetan, eskubideetan, erantzukizunetan, trafikoan...) Jainkoarekiko betebeharra da. Honekin ez da esan nahi, agintariak Jainkoak izendatuak direnik. Baina Jainkoak honelaxe egin du gizakia; eta hau ez da hazten gurasoen menpean bakarrik (*334*); baizik eta, bizi ere, halako edo bestelako nazioarekiko eta honek hautaturiko agintearekiko leialtasunean bizi da. Hortik datoz ordena, bakea eta zoriona: Jainkoaren Izpirituaren araberako hiru gauza.

---

testigutza: lekukotza, testimonioa. **at:** kanpora. **gaingiroki:** azaletik. **ihardungo:** ariko, mintzatuko. **hesparru:** barruti. **behinena:** nagusiena.

Aberriari zor diogun zerbitzuak geure buruaren ukapenik eska diezaguke. Hondamen, izurrite edo gudatean, nazioko indar guztiak mugiarazi ohi dira (*352*). Zenbaitek bere bizia ematen du. Orduan inoiz baino elkartuago sentitzen gara.

Bake garaian, betebehar handienetako bat zergak ordaintzea da. Zenbaitek aisa* ihesegiten dio gai honetan bere bete-beharrari; horrela, pobreago diren alogeratuak* zamatzen* ditu; hauen ondasunak eta eman beharreko zergak erraz kontrolatzen bait dira. Zerga ordainketa egin beharrekoa da; eta Estatuak agintzen duen gisan egin ere. Honela dio Paulo sainduak:

«Gainera, obeditu behar da, ez zigorraren beldurrez bakarrik, kontzientziagatik baizik. Kontribuzioak ere ez dituzue ba horrexegatik pagatzen? Ba izan ere kargudunak dira Jainkoaren partetik eginkizun horixe betetzeko jarriak» (Erm 13,5-6). (Azken esaldi hau behar bezala hartzeko, ikus bedi Erm 13,1 testuaren ondoren esan duguna).

Elizaren eta Estatuaren arteko tirabira 348

Dena ongi dabilenean, Eliza eta Estatua bakean bizi ohi dira. Nor bere alorraz arduratzen da, eta bestearena errespetatzen du.

Baina tirabira gogorrik ere sor daiteke. Hori gertatu ohi da, esaterako Estatuaren baitan dena menperatu nahia, totalitario agertu nahia jaiotzen denean. Halakoak ez du onartuko bere eskumenpe ez legokeen indarrik. Orobat* Elizan: Estatua eskumenpe jartzeko joera sor daiteke Elizan. Europa kristauaren historian alderdi berezi hau ageri da: izpirituzko aginpidea eta lurtar aginpidea ez direla, inoiz ere, esku bakar baten pean bildurik egon erabat. Beti izan da bikoiztasun hau, tirabira hau, «polaritate» hau: alde batetik, Eliza bere seme-alabak beregaineko* Estatuen atal* zituelarik; bestetik, Estatuak, beren herritarrak Eliza zabalago bati ere obeditzen ziotelarik (*166-176*). Egoera horrek, munduko beste inolako txokotan ezbezalako askatasuna sortu du Europako historian. Jakina, askatasun horrek arriskurik eta murrizterik* asko jasan* izan du; baina ez da inoiz erabat galdu, teokrazia itogarriari nahiz gobernu totalitarioari toki emateko.

Elizaren zeregina, tirabira hori jasaitea da; alegia, bere ahalegin guztia egin behar du bere jasangaizkeriaz* Estatua ez menperatzeko; baina, ebanjeliozko balioak Estatuak arriskutan ipintzen dituenean, bere profetatza baztertu gabe. Izan ere, gai horretan malguegi* bihurtuz, bekatuan parte hartuko luke Elizak. Horixe gertatzen da, ezarritako ordenari hestuegi atxekitzen zaionean, Estatuaren eta baztertuen ar-

aisa: erraz. **alogeratu:** jornalari. **zamatzen:** kalte egiten. **orobat:** berdin. **beregaineko:** independiente, indépendant. **atal:** menbro. **murrizte:** mozte, kaxkartze. **jasan:** sufritu. eraman. **jasangaizkeria:** jasanezina, tolerantziarik eza. **malguegi:** biguinegi.

teko burrukan, ezarritako agintearen aldea hautatzen duenean. Baztertuek arrazoin osoa ez balute ere, Elizak ez ditzake zapuz*.

Aipatu dugun «polaritate»ari buruz, zenbait erresumatan, hau egozten* zaie katolikoei: ez direla nor bere herritar oso-osoan. Ez ahal duzue —esaten zaie— atzerritar agintari baten agintea onartzen, ba? —Ez, horixe. Atzerritar agintariren aginterik ez. Orduan, katoliko ez den zenbait, «Batikanoaz» mintzo da. Hain zuzen, Batikanoa, buruzagi politikotzat Aita Saindua duen erresuma txiki bat da. (Aldi berean, Batikanoa mendi koxkor bat da, Kepa sainduaren basilika eraikia* dagoenekoa; hortik datorkio azken kontzilioari Batikano II. Kontzilio izena [*166*]). Baina ez da erresuma politiko hori Elizaren muina. Eliza, mundu guztian zabalduriko Jainkoaren herria da, izpirituzko buruzagitzat Aita Sainduarekin batera gotzainak dituen elkartea. Aginpide hori, Kristorena bezala, ez da politikoa. Fedeari eta kontzientziari zuzentzen zaien deian datza aginpide hori. Eta gerta daiteke, hain zuzen, katoliko bat Estatuari «ez» esatera behartua egotea. Horrenbestez ez dagio saldukeriarik* bere herriari. Katoliko ez denak ere, kontzientziako arrazoinen batengatik, esan diezaioke «ez» inoiz Estatuari (*309*). Ezezko horrek, egia esan, katolikoengan, zenbaitetan, taldearen ezezkoaren itxura hartzen du. Baina, orduan ere, ezin esan daiteke bere herria saltzen duenik. Hain zuzen, gizartearen onerako ematen bait du ezezkoa. Jarrera hori, Lear erregeren alaba gazteenaren jarrerarekin alderatuko nuke: alaba gazteenak, beste bi ahizpek ezbezala, ez zion esan nahi izan aitari bere geroko senarra baino maiteago zuenik; baina, garaia iristean, bera izan zen, eta ez beste bi ahizpa lausengariak*, errege zaharrari lagundu zuena.

Egia esan, Elizak ez dio sendoegi eutsi jarrera honi; aldiz*, nahikoa axolatu ez ote den gaude. (Ezagutu beharra da ere, hierarkia, bere bizikeran eta gidaritzan, izkutatu urren zeuden indarbide material bati eta kultura «profanu» bati atxekirik gelditu izan dela, Estatuek, beren aldetik, beste jokabide bat iritsia zuten bitartean [*352*]). Historiaren zentzurik eza hunkigarri da, baina ez da hori garrantzizkoena. Elizaren zeregin nagusia hauxe izan da: jendearen kontzientzia, piskana-piskana, Kristoren mezuaz kutsatuz joatea. Horretan dihardu, gero eta garbiago (*180*).

Nork bere eginkizuna 349

Badirudi, gero eta garbiago ari garela bereizten Elizaren eta Estatuaren zereginak (*176*). Horrela, Elizak gero eta Estatu itxura txikiago eta izpiritu indar itxura handiago ukanen du (horrek ez du esan nahi ikusezina izan behar duenik); Estatuak, aldiz, halako eta beste-

zapuz: zapuztu, baztertu. **egozten:** gainera botatzen. **eraikia:** jasoa. **saldukeria:** traizio. **lausengari:** zuri, adulador, adulateur. **aldiz:** kontrakoz.

lako ideologia zabaltzera gero eta nekezago joko du. Erakunde mailan, horrez gero, Elizaren eta Estatuaren artean bereizketa dago.

Banaketa honek ez du esan nahi, bi elkarteon artean loturarik izango ez denik. Izan ere, batekoak eta bestekoak, gizaki berak dira, erdibi ez daitezkeenak, bata profanu eta bestea fededun bezala.

Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa honi buruz, galde bat gelditzen zaigu oraino. Eman dezagun, erresuma bat, ehunetik ehun, katoliko dela; orduan batasun edo elkartasun osoa posible izanen ote litzateke? Ez; orduan ere ez. Elizari, beti, Agerkundearen mandatua dagokio, eta hori, Estatuarena ezbezalakoa da. Horregatik, Estatutik bereizita eutsi behar dio bere buruari. Eta erabat katoliko litzatekeen erresuma batetan norbaitek Eliza utziko balu, Estatuak askatasun osoa behar luke halakoa hirigizon ezagutzeko, eskubide guztiak dituela, gainerakoek bezala.

Gizaki guztien batasuna 350

Gaurregun, gizon guztien batasuna egituretan ari da agertzen. Joera hori hasi-berria da oraino, eta oztopo* eta ezinik asko aurkitzen du. Eliza ez daiteke axolagabe geldi horren aurrean, joera hori kristau mezuaren harikoa izaki*. Eginpidetzat* gizon-emakumeen batasuna eta asmotzat bakea hartu dituelarik, batasuna on dela sinesten du. Banaketak bekatuaren usaina darama (Babelgo dorrea); batasunak, berriz, graziarena (Mendekoste) (*149*). Horregatik azpimarratu du azken kontzilioak, maila guztietan, nazioarteko lankidetza*. Hain gogoko zaigun bakerako bide bezala aurkezten digu hori (*Eliza egungo munduan*, 83-90 zenb.). Bakeaz, hurrengo kapituluaren azkenean mintzatuko gara.

Biziarekiko errespetua

Bizia ezin miresgarriago iruditzen zaigu.

Landare baten bizia bera ere harrigarri gertatzen zaigu; eta areago animaliarena; animalia gure bizitzari hurbilago bait zaio. Animaliak sentitu egiten du. Animalia izakietan mota garaiagoa* da, eta argiago adiarazten du giza irudia munduan. Horregatik animaliekiko gure jarrera, gizon-emakumeekiko gure maitasunaren isla* da. Ez da zilegi animalia arrazoinik gabe hiltzea; ez eta sufriaraztea ere; eta hori, animaliagatiko beraganako maitasunez; horrela bakarrik egingo bait du gizona gizonago halako jarrerak.

---

oztopo: traba, eragozpen. **izaki:** izanik. **eginpidetzat:** egitekotzat. **lankidetza:** cooperación, coopération. **garaiago:** gorenago, altuago. **isla:** distira.

Halaz guztiz, animaliekiko gure jarreran ez dugu ahantzi behar, haien zentzumena guk askotan uste duguna ezbezalakoa dela; haien sentipenek ez dute batasunik, bata bestearen ondokoak dira; ez dira haietaz gu bezala jabetzen. Geure zentzumenaren berezitasun asko ezartzen diegu animaliei. Animaliari bizia kentzeari buruz, oharpen bat: animalia ez da «ni» bat, ez da nor bat. Horregatik, animaliak ez du gizakiak bezalako erabateko baliorik (*180*). Horregatik, hala beharrean, gizakien asmoetarako, hil daiteke animalia; baina, inoiz ez alferrik, eta ahalik gutxien sufriarazi behar zaio.

Gai honetan, gero eta gizatartze handiagoa nabari daiteke; eta horrek bere baitan Jainkoaren Izpiritua darama. «Zintzoak badu ardura bere animalientzat; gaiztoaren barrua, alabaina, ankerra* da» (Es Za 12,10).

Ez duzu inor hilko 351

Biziarekiko gure errespetua, guztien gain, giza biziarekiko errespetuan azaltzen da (*354*).

Bizitzari kaltegarri zaion guztia baztertzen du gizakiak: hotza, bero galda*, bustia, haize satsua*. Midiku zientziek higiene-bideak hobeagotu egin dituzte. Gure bizia luzeagotu egin da. Gaitz askoren erremedioa topatu* dugu. Aurrerakuntza hau guztia gauza ona da. Jesusen mirariek egiztatzen duten bezala, Jainkoa, izan ere, bizitzaren alde dago. Osasuna Jainkoaren dohaina da.

Itxura atsegineko izatea, jan-edan osasungarriz arduratzea, jantzi egokiz janztea, etxebizitza erosoa ukaitea, nork bere burua oreka* zezenean zaintzea: hori guztia da biziaz arduratzea. Gainera, egiaz askaturik sentituko duzu zeure burua, joan-etorri handieneko gauza, bizia bera dela ezagutuz gero. Honela dio Jesusek berak, inongo itzulinguru rik* gabe: «Ez ahal du biziak janariak baino gehiago balio, eta gorputzak jantziak baino?» (Mt 6,25).

Biziarekiko ardura hondo-hondoraino sarturik dadukagu. Jainkoak bezalaxe, gizonak —gizonaren barnean den atalik onenak— bizi den oro maite du. Horixe esan nahi du *ez duzu inor hilko* delako aginduak. Horrek, inor ez hiltzea ezezik, biziarekiko ardurabide oro adiarazten du. Zauri oro baztertzeko ardura adiarazten du: gaiztakeriaz eginiko gaitzetik hasi eta axolagabekeriak edo astakeriak ekar lezaketen kalte guztietaraino; gainera, geurontzat nahiz besterentzat bizia atsekabeago bihur lezakeen edozeren kontrako borroka esan nahi du: giroaren kutsadura*, zikinkeria, trafikoaren legeak haustea, jan-edari

ankerra: gaiztoa. **galda:** astuna. **satsua:** zikina. **topatu:** aurkitu. **oreka:** plomu, equilibrio, équilibre. **itzulinguru:** rodeo, detour. **kutsadura:** zikinketa, poluzioa.

txarrak saltzea, lan gogorregia (bizitza aurrera ateratzekotan, norberaren eta familiaren bizia galtzen da). Lanerako alferkeria ere, alabaina, joan daiteke biziaren kontra: norberarena eta besterena maila behereegian eta mixerian edukitzen bait da hartara. Gehiegi edateak ere gizakia hondatu egiten du. Batez ere, drogak dira kaltegarri; haseran, badirudi bizigarri direla, baina gerora, ondorio bezala, premia* hestua uzten dute. Ez dezagun jo horietara, dastatzeko ere, ez eta ikusmiran* ere.

Zaratak* kirio* asko desegin du; baina ezin dugu aldendu geuregandik. Begiak itxi ditzakegu, entzumena ez.

Beste gauza kaltegarri asko azal liteke. Bada psikologi mailan kaltegarri denik: hiltzen duen hitza, horrek daraman irainaz*, Jesusek hilketarekin gonbaratzen du (Mt 5,22). Izan ere, «ez duzu inor hilko» agindua honela sakonagotzen du: «Ez diozu inori gorrotorik* ukanen» (97). Geure indar hutsez ezin betetzen ahal dugun zeregina da hori.

Bekatu guztietan itsusiena, nazkagarriena*, agian, bekaizkeria* da: besteren ona ezin eramana. Egiaz, biziaren kontrako bekatua da.

Gorputzez argal edo gaixo zaudenean —edo areago, agian psikologiz argal edo gaixo zaudenean—, sendagile on batengana jotzea, biziarekiko ardurak eskatzen duen gauza da. Halaz guztiz, giza zentzuari dagokiona da arazo honetan nola-halako askatasunari eustea: ez dadila, alegia, inor midikutara joatera behartua izan, nahi ez badu. Orobat, ez zaude beharturik, gaixo etsitako baten bizia mugarik gabe luzatzera. Batez ere, honela iraun arazten ari zaren bizia landare bizikera hutsa denean eta inolako gizatasun alderdirik agertzen ez duenean, ohituraz gaindiko sendagarriak aplikatzeari uzten ahal diozu, naturari bere bidea egiten utziz.

Baina, bestalde, bizia ezin kentzen ahal diozu inori nahita (hil zorian daudenei edo burutik eginda daudenei bizia kendu [*eutanasia*] edo nork bere burua hil, egin ez daitekeena da). Bizia Jainkoagandik hartu dugu, eta ezin kentzen ahal dugu, geure gogoak emandakoan. Nork bere burua hiltzera bultzatzen duen arrazoina, beti, biziak balio eta esanahi guztia galdu dituelakoa izaten da. Arrazoin hori ez dezake onar kristau fedeak (*230*); bizi orotan bait du ustea, eta ernalkuntza* unetik uste ere. Abortua bera ere, biziaren kontrako bekatua da. Nork bere burua hiltzea, sarritan, bat tirabira hestuan dagoenean gertatu ohi da. Ezin neur genezake halakoaren okerregitea. Askotan hutsegite hori beste batzuei ere egotz dakieke, zeren*, jakinaren gainean edo axolagabekeriaz, norbait gizartetik edo lagunartetik erauzi* egiten bait dute.

Halaz guztiz[58], mutur-muturrekorik gerta daiteke: inor, bere kontzientziarekiko leialtasun osoz, muga-mugako erabakia hartzera behar-

58 Ik. *Eraskina*: «*Oharra*. Esaldi hau...» 560 or.

premia: behar. **ikusmira:** kuriositate. **zaratak:** arrabotsak. **kirio:** nerbio. **iraina:** laidoa. **gorroto:** herra. **nazkagarriena:** okaztagarriena. **bekaizkeria:** inbiria. **ernalkuntza:** generación, génération. **zeren:** izan ere. **erauzi:** kendu.

tua egon daiteke. Zer egin, esate baterako, izen asko dakizkielarik, makilapean besteak salatuko dituela dakienak? Beti gertatzen da horrelako muga-mugako kasurik. Horrelakoetan, bere kontzientziaren arabera, norberak bilatu eta bete behar du aginduaren hondo-hondoko mamia.

Herio zigorra. Gudua 352

Aitzinatik, norbait hiltzea bi kasutan hartu izan da zilegitzat*: defentsa zuzena (gudua ere hemen sartzen zen) eta herio zigorra.

Nik, nahita, norbait mehatxatzen* banuen —jazarle* zuzengabearen eta jazartuaren artean aukera egin behar bazen—, norbait horrek ni hiltzeko eskubide zukeen. Printzipio horretatik atera izan da gerra denborako borrokaren legezkotasuna. Herio zigorrari dagokionez, berriz, honen aldeko arrazoinbide ohizkoa, printzipio honetantxe finkatu ohi zen: aginteak, gizartean, gizabanakoak beretzat har ez ditzakeen ahalmenak dituelakoan. Ahalmen horrek ez damaio eskubiderik errugabe* bat hiltzeko, erruduna hiltzeko baizik. Herio zigorrak, bere baitan, zigor elementua darama.

Kristau ahal da hori dena? Kristok ez zuen bereziki ezeztatu, ez gerlarik, ez herio zigorrik; bestela Berrionak argi eta garbi emango zuen debeku hori. Halaz guztiz, honek ez du esan nahi, inola ere, bi jokabide horik «kristau» direnik. Horiekin ere, esklabutzarekin bezala gertatzen da; Testamentu Berriak ez bait zuen bereziki ezeztatu (*54, 172*). Kristok ez zuen egin egituren aldaketarik; ez moral mailan, ez mentalitate mailan, ez erakunde mailan, gizartea ez zegoen horretarako heldurik. Baina izpiritu bat xertatu zuen munduan: hari esker eboluzioari bidea ireki zion (*190-191*). Guri dagokigu gure eginahal guztiz eta gero eta hobeto Jesusen dotrina konkretatzea, lege eta egitura gero eta urrikaltsuago eta zuzenagotan finkatuz. Hain zuzen, Jesusek, guztiok, Aitaren aurrean berdinak garela aldarrikatzen* bait du, eta beste masaila* eskaintzeko eta geure etsaiak ere maitatzeko eskatzen bait digu.

Agian, Eliza ondoegi konpondu izan da sarritan ezarririko ordena ofizialarekin (*348*), eta ez du kemenik aski ukan, gerra eta zigorbidea, zitekeen aina, kristau hildotik* aurrera eramateko.

---

zilegi: aizu, lícito. **mahatxatu:** amenazatu. **jazarle:** pertsegitzaile. **errugabe:** hobengabe. **aldarrikatzen:** erakusten. **masaila:** matela. **hildo:** bide.

Beharbada, garaia litzateke, zigor araudia*, esate baterako, kristauago liratekeen printzipioen arabera eraberritzeko. Kristau jokabidea litzateke, nekeari zigor kutsua ahalik gehien kentzea. Baina, kontu* horrela beste muturrera joan. «Zigortzean», gutxienik, serioski hartu ohi zen gaizkilea, bere egintzen jabe bezala; baina «artamendu*» hutsera jartzean, «gaixo» huts bihurtuko genuke. Horrek, orduan, eskubiderik gabeko gizaki bihurtzea ekarriko luke laster asko.

Hurrena, hor dago gerra tzar hori. Legezko defentsaren printzipioa ez daiteke har azken hitz bezala. Gure fedeak bake gogoz jantzirik behar du. Gero eta kementsuago saiatu behar luke saiatu kristau pentsakerak, gerraren legezkotasuna definitzeko gero eta muga hestuagoen bila. Joan XXIII. aita sainduarenak bezalako hitzak praktikan jartzen hasi behar genuke: «Zuzentasunak, zuhurtasunak, gizadiaren zentzuak, horrez gero, harmagintza geldiaraztea eskatzen dute; batera eta nork berė aldetik neurri berean, erresuma guztietan den harmatza gutxituz joatea eskatzen dute, harma atomikoa erabat baztertzea; azkenik, harma-gabetzea, horretarako guztiek bat eginez eta benetako kontrolbidez egiztatuz» (*Pacem in terris*, 3. partea).

Erabateko gerra atomikoa, gainerako guda motekin alderatuz*, oraindainokoan ezagutu ez den mailako izurritea* da. Harma atomikoaren, defentsazko litzatekeenaren beraren, legezkotasunari buruz, harma hori benetan (hots, alderdi guztietan) izkutatu egin behar dela erantzun beharko litzateke; horretarako ahalegin lehiatsuak egin beharko lirateke, gutxienik ere.

«Argi eta garbi dago, beraz, gure ahal guztiz, erresuma guztiek beren baietza ematen dutelarik, gerra oro eragotzia* izango den une hori gertutzen saiatu behar dugula. Horrek, jakina, aginte publiko orokor* baten egitura eskatzen du, guztiek ontzat emana, guztiei segurantzia, zuzentasunaren errespetua eta eskubideen bahidura edo garantia eskainiko lizkiekeena... Bienbitartean, ez ditzagun ahantz*, gerraren arriskua aldentzeko egin izan diren eta egiten diren eginahalak» (BatikanoII.a, *Eliza egungo munduan*, 82. zenb.).

Zientzia positibuei atxekitzen zaizkien eta mundu guztian mintzaera bera darabilten bilakarien* gogoeta objetibuak eginen du, agian, zerbait bata-bestearekiko usteona* iratzartzen*. Usteon horixe izanen da bakearen egiazko oinarri bakarra, *Pacem in terris* entziklikak dioenez. Alabaina, egun batez gerraren zorakeria ikusi dutenen eta halakoari aurrea hartzekotan erakundeak egiten ari direnen eginahal lehiatsua eta aurrelaritza, premiazko zaizkigu gure kontzientzia etengabean astintzeko* eta iratzartzeko. Arrazoin bidezko kontzientziaren

zigor araudi: código penal. **kontu:** kasu. **artamendu:** tratamendu. **alderatuz:** gonbaratuz. **izurrite:** kalte, gaitza. **eragotzia:** debekatua. **orokor:** guztiekiko. **ahantz:** ahantzi, ahaztu. **bilakari:** investigador, chercheur. **usteon:** konfiantza. **iratzartzen:** bizten. **astintzeko:** inarrosteko.

ihardespen edo objezioari bide bat eman behar zaio. Honela dio kontzilioak: «Gainera, bidezko dirudi, kontzientziako arrazoinez harmarik hartu nahi ez dutenei legeak bide bat eman diezaien, beste tankera batetan herria laguntzeko prest baldin badaude behintzat» (*Eliza egungo munduan*, 79. zenb.). Kontzilioak ez dio inori ezarri nahi jokamolde hori; baizik, norberari bere iritzira erabaki dezan uzten dio. Horregatik, bakearen alde militar bezala dihardutenentzat ere badu zenbait hitz: «Aberriaren alde militar bezala dihardutenek ere, har bezate beren burua herrien segurantziaren eta askatasunaren zerbitzari bezala; eginkizun hori jator betez, egiaz bakearen alde jokatzen dute» (*Eliza egungo munduan*, 79. zenb.). Kontzilioak, bakearen alde lehiatzen diren Estatu agintariak aupatzen ditu bereziki: «Beren goi-goi mailako karguen ardura handiz akiturik*, baina erantzukizun handien ezaguerak bultzaturik, izua* dioten gerra baztertzen saiatzen direnen eta, halaz guztiz, gauzek beren izatean duten korapilotasuna ahantzi ezin dutenen borondate onari eutsi egin behar zaio» (*Eliza egungo munduan*, 82. zenb.).

Bibliako lehen orrialdeetako kontakizun handiak giza bizitza osoaren sinbolu dira (*29, 209-212*): desobedientzia (Adan) anai-hiltzailea (Kain), hondamendian onik ateratzea (Noe), egintza handietan sakabanaketa (Babelgo dorrea). Horrek guztiak egundoko hedatasuna* hartzen du gaurregun arrisku atomikoa dela bide. Jainkozko kontakizun hauetan datorren mezuaren argitan, gaurregungo zoritxarren sustrai* sakonena gure bekatuetan datza, eta egiazko erremedioa, horrez gero, bekatuarekiko, gorrotoarekiko eta fidakaiztasunarekiko askapenean datza (*227*). Ekintza honetan Kristorekin diharduena, gizadiarentzat bere burua hiltzea litzatekeen istilua* aldentzen sakonki laguntzen ari da. «Izan ere, Estatu agintariak, nor beraren erresumako guztien onaren eta, denbora berean, on orokorraren eragile direnak, arras daude gizartearen irizpidearen eta sentikeraren baitan. Alferrik ariko dira bakea egin nahian, etsai sentimenduek, mespretxu* eta fidakaitz sentimenduek, arraza gorrotoak eta aldez aurreko ideologi jarrerek, gizon-emakumeak banatzen eta buruz-buru ipintzen dituzten bitartean. Horregatik, guztiz larri eta ezinbesteko dira buruak hezitzea eta berritzea, eta herritarren irizpideari* joera berria ematea. Hezketa lanean, batez ere gazteekin, ari direnek, edota herriaren irizpidea moldatzen dutenek, oso joan-etorri handikotzat har bezate guztien buruak bakezko sentimendu berrietara zuzentzea (*335, 373*). Guztiok geure bihotzak aldatu egin behar ditugu, gizakia aurrera eramateko mundu osoak eta guztiok batera egin ditzakegun zereginak kontutan harturik.

---

akitu: nekatu. **izua:** beldurra. **hedatasuna:** zabaleroa. **sustrai:** erro. **fidakaiztasun:** deskonfiantza. **istilua:** burruka. **mespretxu:** gutxiespen, menosprecio, mépris. **irizpide:** kriterio.

Ez diezaiogula iruzurrik* egin geure buruari sasi-esperantzaz. Hain zuzen, etsaigoak eta gorrotoak aldendurik, etorkizunerako bake orokor bat sendo dezaketen itun* sendo eta jatorrak egin ezean, orain berton arrisku latzean dagoen gizadia, zientzia miresgarri baten jabe izan arren, ordu dohakabera heltzeko kinkan* aurkituko da: heriotzearen bake beldurgarria beste bakerik izango ez den ordura heltzeko kinkan, alegia» (*Eliza egungo munduan*, 82. zenb.).

Egoeraren larriaz jabeturik, baina, aldi berean gizadiaren ahalbidearekiko* kristau esperantzaz beterik (*241, 149*), uste hau azaltzen du kontzilioak: ekonomi eta gizarte mailako nazioarteko elkar-laguntza (mixeriaren aurkako borrokan mundu osoaren batasuna) dela bakea erakarriko duen bide nagusia. (Ikus *Eliza egungo munduan*, 83-90. zenb.).

Mundua eraikitzeko lana (*283*)

Gizaki bakoitzaren historia, gizakiak berak egindako lanaren historia da. Eskolako nekeak nahiz asperraldiak kontatzen dizkigu historiak, helduen lanbidearen seriotasuna, erlojuari zeharka egindako begiratuak, astelehen goizeko biharamona, egoera apalegiaren mikaztasuna*, erantzukizun handiegiren baten astuna, etxea aurrera eramatearen nekeak. Era berean, historia honek ondo egindako lanbidearen atsegina, irabazitako soldata on baten poza eta, hondo-hondoan, zerbait egiten ari zarelako susmoa kontatzen dizkizu. Eskola, lantegi eta sendiko* lanaz zerbait sor arazten dugu, gure lanik gabe sortuko ez zen zerbait, hain zuzen: hau da, munduan biziari eutsi, zoriona handitu, ezbeharrak aldendu. Mundu osoa bizitoki jatorrago bihur dadin, bulego* eta lantegietan, eskola eta sukaldeetan, gaixoetxe eta kalean, lan banaketa besterik ez da gizartea.

Usteoneko ikuspegia 353

Gure bizitzan, zenbaitetan —esaterako, hazten ari diren seme-alabekin gurasoak, patxaran, dohatsu direnean, edota lanen bati azken ukitua ematean— bapatean konturatzen gara gure lana munduaren osaketarako dela, hots, kreazioan Jainkoaren lankide garela. Horrela, kristau mezuak* lanaz ematen digun lehen puntuaz jabetzen gara. Jainkoak ez du mundua sortua; sortzen ari da, eta gu bitarteko garela sortu ere (*406*). Baso* bat Jainkoaren kreazio litzateke, baina hiri bat ez; hori gezurra da. Aldiz*, hiria, ia areago da Jainkoaren

iruzur: engainio. **itun:** akordio. **kinkan:** zorian, unean. **ahalbide:** posibilitate. **mikaztasuna:** garraztasuna. **sendi:** familia. **bulego:** ofizina. **mezu:** mensaje, message. **baso:** oihan. **aldiz:** bestalde, kontrakoz.

kreazio; izan ere, Jainkoaren sorkari* garaienak, gizakiak alegia, hirigintzan agertu bait du bere burua. Gizakiak egina, Jainkoak kreatua da. Kristauak, jakina, ez du beti horretan pentsatzen egon beharrik; baina ideia horrek ematen dio oinarria gure lanegin beharrari, Jainkoaren nahiaren araberako lana egiten ari garenean, dela geure lanbidean, dela geure familian.

Kristau pentsaerak lanaren bigarren balio bat ere aurkitzen ahal du*: gizakiak elkartzen dituela lanak. Besteekin eskuz lan egiteak elkartasun eta harremanak bereziki hestutzen ditu; lanbide bakoitzak bere erara. Senar-emazteek, bat eginik, familiaren alde lan egiteak, senar-emazteek osatzen duten gizarte txiki horrentzat, badu garrantzi handi eta berezirik. Lanak, besterentzat egiten delako ere, elkartu egiten ditu gizakiak. Senarra emaztearentzat eta emaztea senarrarentzat ari dira lanean; okina*, ogia jaten dugun guztiontzat; arkitektua eta igeltseruak, bizilagun berrientzat, kaiako gizonak, ezagutzen ez dituzten askorentzat. Gure gizarte osoa zerbitzu sistima bat da, eta gu tartean gaude hor. Sarri* ez dakigu zeinentzat ari garen lanean, eta beharbada, bost axola ere guri zeinentzat ari garen. Halaz guztiz, lan elkartasun horrek batasun zentzua sortzen du gure baitan, guk uste baino handiagoa beharbada, gure bizitzan hondo-hondoan dagoena. Geure etxean orduko unetxo batez geldituko bagina, hormei eta leihoei begira, gauzak eskuetan hartuz, eta artean lur azpian edo beste edonon zirenetik gauza horik landu dituzten langileez pentsatuz, egundoko ezezagun saila agertuko litzaiguke irudimenera. Gauza txikienak ere, liburu edo erloju batek ere, giza senideren* lana azaltzen digu, zenbaitetan bi edo hiru kontinentetan banaturiko gizon-emakumerena. Milaka eta milakak egin du lan gure etxeko tresnerian. Era berean, gure lana beste askoren bizitzarako da. Egiazki, giza lana gizarteko batasun eta elkartasunerako da.

Hirugarren puntu bat dario oraindik kristau mezuari: lanak kristauari esperantzaz beteriko ikuspegia ematen dio betikotasunari buruz (*283*). Izan ere, gure lanak gizakiago izateko bidea ematen die beste gizakiei, eta horrela, beren bizitzan maitasun handiagoa ahal izateko bidea. Geure maitasunaren hedakuntza* betikotasunera daramagu. Hain zuzen, mundu hau eraikitzen dagigun lanak, jarraipena du kreazio berrian. Eta nork daki, gorputzaren biztueraren ondoren, mundu berriak ez ote duen ukanen gaur giza lanak dagien gauza hoberenaren aztarrenik*, eraberrituta. Gure lanak betikotasun balioa du.

---

sorkari: kreatura. **aurkitzen ahal du:** aurki dezake. **okina:** egi egilea. **sarri:** maiz. **senide:** haurride. **hedakuntza:** handitzea, zabaltzea. **aztarren:** hatz, seinale.

Ez dugu oraino lanari buruz kristau mezuaren mami osoa argitu. Orain arte agertu ditugun hiru alderdi horik, alderdi pozgarri dira. Baina egunoroko esperientzia arruntenean, hauxe topatzen* dugu: lanaren gogorra, gogaitza*, morrointza, nekea, ezin aditua, pottegitea*. Eginkizun den mundu honen akatsak direla eta (munduaren bekatua dela bide areagoturiko* akatsak eta, horrenbestez, sufrimen iturri direnak), kristauak badaki, lana zama ere badela. Bibliak dioen bezala: «Zeure bekokiko izerdiz janen duzu ogia» (Gn 3,19) (*218*). Lana gogor izan daiteke, aspergarri, zapaltzaile; izpiritua hiltzen du, gogorkeriari eta iskanbilei* bidea ematen die, apaldu egiten du gizakia, norberaren burua galarazi, norberaren gorputza hondatu; eta hori guztia, mila era berritara. Beraz, giza bizitzako edozein balio bezalaxe, salbatu beharrean da lana ere.

Salbamendu hori lortu dela adiarazten digu kristau mezuak. Gure Egile eta Birreroslea isilean ari deneko hiru aldetan dakus gizakiak buruturik salbamendu hori: bere ahalmenez gero eta jabeagotzean, areagotzen ari den batasunean eta sufrimenean zehar datorren Jaunaren berbizkundean.

Bai, eta hauxe da lehen puntua: giza lana gizatar bilakatu, Jainkoak Kreazioan ezarri dituen eta gizakiak topatzen dituen gaitasunei esker bilakatzen da. Erosotasunean, lasaitasunean, teknikazko trebetasunean aurreratzea (hau da, lana gizatar egitean aurreratzea), egiazki salbazioa da. Bai, bizitzeko pozaren aldeko da Jauna, osasunaren aldeko, nekeen arintzearen aldeko (*351*); Jesusen mirariek ere horixe adiarazten dute: sendatu egiten du, nekerik gabe janaritzen du jendetza bakardadean, haren hitzaren eraginez apostoluek aisa* egiten dute arrantzan (*73*). Osasuna, jana eta lasaitasuna damaizkigun teknika Jainkoaren nahia betetzen ari da.

Kristau mezuaren muinari hurbilagotik dagokiona, bigarren alderdi hau da: lana salbatzen duen, zamarik gogorrena arin bihurtzen duen maitasuna: norberaren familiarekiko maitasuna, lanbide eta lantoki berekoen arteko lagunartea eta elkartasuna, lanean helburu duzun gizartearekiko erantzukizuna eta laguntzeko zaletasuna.

Zuzentasunaren eskakizunez*, «Jabetza mundu honetan» eta «Premian denari laguntzea» izeneko kapituluetan ihardungo* gara (*355-364*). Hemen adiarazi nahi duguna, hauxe da: Berrionari hain nabarmen darion ontasun eta maitasun man-

---

topatzen: aurkitzen, kausitzen. **gogaitza:** nagikeria, utzikeria. **pottegitea:** huts egitea. **areagotu:** handiagotu. **iskanbilei:** kalapitei. **aisa:** erraz. **erantzukizuna:** errespontsabilitatea. **eskakizun:** exigencia, exigence. **ihardungo:** ariko, mintzatuko.

datua ez dela zentzu hutsetako zerbait. Jakina, ez du horrek esan nahi, inola ere, zuzentasun handiago baten alde eta aginte oker baten aurka burruka dagiten taldeak debekatuak direnik. Honela hartu behar da: familian, lantegian eta gizartean, maitasuna eta ontasuna direla lana salbatzen dutenak (*245*). Familian, elkar adituz eta lagunduz; lantegian, leialtasun eta elkartasunez; gizartean, interes iskanbila* guztiak gora-behera, bakoitza norbait bezala hartzen etengabe arduratuz. Gizartetik ezin baztertu ahal da inolako giza talderik, ez eta inor betirako etsaitzat ematerik ere ez dago. Gai honi buruz garbi hitzegiten digu Berrionak: lur honetako gure elkar-bizitza eta lana askatzeko bide bakarra, gorrotoa ez baino maitasuna da, inor zapuzten* ez duen maitasuna (*241*). Oso urrunera garamatzan eginkizuna da hori; baina, gizaki bakoitzak eta giza talde bakoitzak kontutan hartu beharrekoa, ez sentipenkeriaz, eta bai gogotan. Horrela, bide horretatik geure gizartean bertan geure begiz aurrerapenik ikusiko dugula itxaron dezakegu.

Ikusi ditugun askatasun era bi hauek, gizona lanean tinkatzen* dute. Baina lanak sortzen dituen erosotasun handiagorik eta bizikera gizatarragorik ezagutzen ez dituztenentzat, Ebanjelioak ez ote du zeresanik? Aurrerapidea xit nagia*, giza bizia baino nagiagoa dutenentzat, lana kaltegarri eta hondatzaile dutenentzat, beren bizitza pottegiten ikusten dutenentzat, Ebanjelioak ez ote du itxaropenik? Zorigaiztoko horiek, atseginbide bakarra, beraiek biziko ez duten etorkizunean pentsatzea izanen ote dute? Marxismoak, hain zuzen, ez du beste argitasunik eskaintzen. Biharamon zoragarri horien urruneko etorkizunak baduke* esanahirik bihoztunentzat*. Baina hori ez da aski. Hauxe esan nahiko luke horrek: gizaki bakarra, bere bakarrean, garrantzirik gabea dela; horren bizitza hutsalena* izango litzateke; axolazkoa gizadi osoa da (*54*).

Kristau fedeak badaki, noski, gizadi osoa dela garrantzia duena; baina badaki ere gizarte horretan ez dela inor garrantzi gaberik. Uste du gizon bizidun bakoitzak, giza begietan pottegindako bezala ageri denak ere, bere balioa duela, bere baitan poza eta bakea dituela (*229, 415-417*). Hauxe sinesten bait du: bere burua ezereztuz eta frakasoan zehar lortu duela Jaunak bizitza, nola berarentzat hala besteontzat. Horregatik, kristauak hauxe uste du: giza frakasoa, lehertuko bagintu ere, ez dela esperantzarik gabea. Gure etxeko gurutzeak badu, gure lanari buruz, bere esanahia. Nahiz eta lana aspergarri, zapaltzaile, ilun eta gogor izan, nahiz eta lanak amets ditugun lasaitasunetik, lagunartetik eta maitasunetik ezer gutxi eskaini, halaz guztiz iluntasun eta gogorkeria horiek ere

iskanbila: burruka. **zapuzten:** baztertzen. **tinkatzen:** indartzen. **nagia:** geldia. **baduke:** badu agian. **bihoztun:** kementsu. **hutsalena:** ezdeusena, baliogabekoena.

poz eta bakerik eman diezagukete; horra gurutzearen esanahia. Jaunak agindua bait dugu, behartsu orok, atsekabetu orok, erasotu* orok, Kristorekin batera, poza jasoko duela, bai berarentzat, bai besterentzat, geroago ezezik*, orain berton ere bai (*67*).

Gurutze salbatzaile honetan dugun fedeak ez dezake motel* lana alde guztietatik askatzeko eta salbatzeko gure ahalegina (*228*). Batez ere jokuan besteren ona dagoenean, ez gintezke axolagabe geldi. Izan ere, hiru hauk batera bait doaz: aurrerapidea, elkarrekiko ontasuna eta Jesukristo frakasotik berbizten delako fedea. Hirurak batera bakarrik izan daitezke gure mundu honetako lanari kristautasunak ekar diezaiokeen askapena*.

Jabetza mundu honetan

Ezer ez duena, besteren menpe dago erabat*. Gizon guztiok, ordea, hein* batetan geure buruaren jabe eta aske* izateko eskubidea dugu. Horregatik, denok behar dugu zerbaiten jabe izan. Gauza batzuetaz askatasun osoz baliatzeko bidea zor zaio edonori; horrela, gauza horiek gure txokoa osatzen dute.

On da bakoitzari zerbait berea bezala ematea. Erosotasuna handitzea Jainkoagandik dator. Horrela, gizakiak bere bizitza hedatzeko aukera handiagoa aurkitzen du. Eta, Jainkoa biziaren aldeko da.

Jabetza eta bekatua 355

Baina gauza bat hobeago, eta izugarriago da berorren gaiztotzea*. Edukitzearen gaiztotzeak deabrukeria berezia du. Dadukazunaren morroin bihurtzen zara. Besterena baino handiagotzat hartzen duzu zeure burua, dagizunagatik ez, dadukazunagatik baizik. Atarian tente zaudela, automobilan jarririk zaudela, etxea bezain handi, automobila bezain handi ikusten duzu zeure burua. Besteak baino gizonago izan nahi duzu, hobea izanez ez, gehiago edukiz baizik. Mundua erraz abiatzen den bide okerretako bat duzu hori. Gutxi-asko, guztiok dugu horretatik zerbait, eta haurtzarotik bertatik gainera; «izen onekoek» ere bai. Horretantxe datza «munduko bekatuaren» ate zabalena. Horixe da Jainkoaren erreinuaren etorreraren kontrako oztoporik* handienetakoa (*67,341*).

erasotu: pertsegitu. **ezezik:** ez bakarrik. **motel:** moteldu, indar gabetu. **askapena:** liberazioa, salbazioa. **erabat:** oso-osorik. **hein:** neurri. **aske:** libro. **gaiztotze:** txartze, usteltze. **oztopo:** traba.

Jabetzaren salbatzea 356

Garbi dago, gure edukitzeak ere, gure jabe izateak ere, salbatua izan behar duela. Horretarako bidea, jabetza hori soziala dela jakitea izanen da. Izan ere, ezeren jabe izatea ez da «neuretzat bakarrik edukitzea»; «guztiekin, besterekin» lotzen nau jabe izateak (*235*). Gizakiok beste abereengandik bereizten gaituenak, honetan ere balio du; gu geu, geuregaineko* eta une berean besterekin bat izanen gara, halabeharrez* ezezik, geure baitan ezarririko dei sakonaren indarrez baino. Bi alderdi horik topatzen ditugu geure jabegoan*. Berez, nere gauzez nere gisara balia naitekeela adiarazten du. Baina, era berean, bada *nola-halako menpekotasunik*. Erabat nirea, nirea bakarrik litzatekeen gauzarik ez da. Jabegoaz aitzinako Erroman ematen zen definizioa, *jus utendi et abutendi* («gauzez baliatzeko eta abusatzeko eskubidea»), jentila zen, ez kristaua. Ez dut eskubiderik nere pianoa goreneko bizitzako leihotik behera botatzeko, gogoak hala eman didalako bakarrik. Zergatik ez? Tresna horretaz beste norbait balia zitekeelako.

Banaketa zuzena 357

Guzti hau zuzentasunaren* arazoa dugu. Eta ez bakarrik «zuzentasun trukatzailearena», hots, sal-erosketan nori berea emateko agintzen duenaren arazoa, zuzentasun banatzailearena* baizik.

Zuzentasun honek munduko aberastasun guztiak zentzuz banatzeko agintzen digu. Gizadia, dena batera da munduaren jabe. Eta gizon emakumeok balio berdintsuko garenez —Kristodanik hobeto ezagutzen dugu hori—, lurreko ondasunak ere berdintsuago banatzeko eskubidea ageri da. Bat aberats eta beste bat mixeria gorrian bizitzea, ezin onar daitekeena da. Mundu alde bat oso aberats eta beste bat mixerian, ezin daiteke onar. Egoera hori aldatzea zuzentasunaren arazoa dugu.

Eginkizun luzea da hori. Arazo hori ez dute oraino legeek kontutan hartu; ezer gutxi, hartu badute ere. Zuzentasun banatzailea, beraz, neurri xit mugatuan dago legez antolaturik (*361*). Zuzentasun banatzaileari buruzko eskakizunez* jabetzeak eta horik bete ahal izateak indartu egin behar lukete. Sarritan, hain zuzen, kontzientzia hartze edo jabetze hori premiatsuen gizarte giroan indartu ohi da. Orduan be-

geuregaineko: independiente, indépendant. **halabeharrez:** derrigorrez, premian. **jabegoa:** jabetza, propiedad, propriété. **zuzentasuna:** justizia. **banatzaile:** distributivo, distributif. **eskakizun:** exigencia, exigence.

ren eskubide aldeko borrokari ekiten diote premiatsuek. Horren argibidetzat aberastasun gosea eman ohi du zenbaitek. Halaz guztiz, esan behar da, ondasunetan eskuhartze* egokiagoa bilatzea, hondo-hondoan, gizatasunean eskuhartze egokiagoa bilatzea dela. Arazoa ez datza edukitzean, nork bere gizatasuna onartua izatean baizik: ondasunetan eskuhartzeak horixe adiarazi behar du (*361-363*).

Gizarteko borroka ez doa kristau mezuaren kontra (*245, 283*). Baina jabetzari buruzko eskubideak lortzeko, zapalketa eta indarra behar-beharrezko direneko gizartea, ez da gizarte; are nekezago salbaturiko gizarte. Banaketa zuzenago bat moldatu nahi denean, indar sakonago bat ere ari da tartean: izkutuan beharbada, baina bizirik borroka horretan guztian: hau da, delako banaketa hori benetan gauza zuzena delako ideia. Bata eta bestea poztu egiten dira nolarebait eboluzio horretaz. Maitasuna agertzen da horrela. Izan ere, ekonomi mailan, banaketa zuzenagoaz adiarazten da maitasuna.

Mendiko Hitzaldiaren izpiritua 358

Borrokazko gizartean, elkarrekiko onginahi hori, poz hori eta maitasun hori, nekez eta apurka-apurka lortzen dira; ezin iraun dezakete Mendiko Hitzaldiaren, hots, Jesusen zorionbideen* arnasarik, izpiriturik gabe (*67,98-99*). Mezu horrek, jabetza orotatik nork bere burua askatzea eskatzen du, gogoz pobre izatea, nork bere zoriona edukitzean ez baino eskaintzean bilatzea. Hori, gure nahi hondokoenari dagokiona da, baina, orobat*, gure joera geurenezkoenekin buruz-buru dagoena. Beti ere, jabetasun gogoaren menpera erortzeko arriskutan gara. Horregatik, gizarteak lurreko ondasunez goza dezan behar dugun arreta, ez da lehenik besteren gutiziaren* kontrakoa, norberarenaren kontrakoa baizik.

Ez da gauza erraza, norberaren eskubideen aldeko borroka eta behartsuak eta erasotuak* dohatsutzat ematen dituzten zorionbideen muina bateratzea. Bada tirabira bat bien artean; tirabira horri kementsuki eustea dagokio kristauari. Orduan, esate baterako, zuzentzat eta legezkotzat emango du bere eskubideen aldeko zenbaiten borroka; eta holakoak aginpidea hartzea bera ere bai; hondo-hondoan, orduan, etsaiagan den gauza hoberenaz poztu eginen gara.

Bestalde, agintari zuzenaren alde borroka dagien kristauak, lortu aginpidea, itxuraz bere kontrako duen beste ho-

eskuhartze: partehartze, partizipazio. **zorionbide:** bienaventuranza, béatitude. **orobat:** baita ere. **gutizia:** codicia, cupidité. **erasotu:** pertsegitu.

netara zuzendu beharrekoa dela izan behar du gogoan: zerbitzura, alegia. Elkarrekiko zerbitzuan heltzen ahal da kristau gizartea, salbaturiko gizartea.

Alderdi hori azpimarratzekotan*, Jesus behartsu eta zerbitzari bizi izan da. Zenbaitek bide horretatik ahalik orpoz-orpoen* jarraitzeko deia jaso du.

Eskuak garbi ote ditugu? 359

Zerbait gehiago badugu oraindik esateko. Banaketazko* zuzentasuna helduz doala esan dugu. Ez ote du esan nahi horrek, nola-hala bada ere, zuzengabekeriazko egoerak bizi ditugula oraindik. Bada alderik guk bizi dugun aisatasunaren* eta beste erresuma askok bizi duen bizikeraren artean. Sistima zuzenago bat sortzeak urteak, mendeak eskatzen ditu. Egin behar duguna, sistima zuzenagoa opa* izatea da, eta haren alde eginahalak egitea. Bienbitartean, alabaina*, zuzena ez den egoeran bizi beharko dugu.

Hona hemen Jesusen esaera bat eskuak erabat garbi ez lituzkeen jendearentzat (eta herrientzat): «Bildu zuek ere adiskideak okerrezko diruaz» (Lk 16,9). Esaera hori dakarren parabolak ez digu aholkatzen*, inola ere, okerbidez irabazitako diruz aberastekorik, eta bai, gizabanako* bezala, Eliza bezala horrelako dirurik bagenu, ahal dugun onik handiena egiten erabiltzeko, eta inongo hantusterik* gabe (*362-363*).

Lapurreta 360

Kapitulu hau amaitzeko*, hitz bat oraino zuzentasun trukatzailearen kontrako makurkeriez. Horietakoak dira lapurreta, sal-erosketako izkutatze eta azpikeria; eta beste norbaiti zerbait hondatzea, zorrak ez ordaintzea, topaturiko eta erabiltzeko harturiko gauzak (liburuak, esate baterako) ez itzultzea, ordainduriko orduak alferrik galtzea, beste bati eragindako lan orduak (adiskidetasunez ez denean) ez ordaintzea, besteren ideiak lapurtzea, etab. Jakina, hori bera esan behar da elkarte baten ondasunei buruz, eta orobat ondasunen jabea ezagutzen ez denean ere.

Geure gutizia* azpiratu nahi badugu, aipaturiko jokabide horien kontra saiatu behar dugu lehenik. Esku lapurra higuingarri* da. Aldiz, puntu horietan zintzo dena handitzat eman ohi da.

---

azpimarratu: nabarmendu. **orpoz-orpo:** urratsez-urrats. **banaketazko:** distributivo, distributif. **aisatasun:** erraztasun. **opa:** nahi, desiratu. **alabaina:** halere. **aholkatzen:** akontsejatzen. **gizabanako:** norbera, individuo, individu. **hantuste:** handiuste. **amaitzeko:** bukatzeko. **gutizia:** nahi bizia, codicia, cupidité. **higuingarri:** nazkagarri.

Behar gorrian dagoenak —goseak hiltzeko zoria halakotzat eman izan da aitzinatik— berea ez duen zerbait har dezake, jabearen baimenik gabe ere. Izan ere, lurra guztiona izanik, bakoitzak oinarrizko eskubidea du bizitzeko behar dituen ondasunak bilatzeko. «Behar gorrian aurkitzen denak, berriz, eskubide osoa du, premiazko gauzak besterenetik bereganatzeko» (*Eliza egungo munduan* kostituzioa, 69. zenb.).

Premian* dena laguntzea (*101-104*)

Gizakiaren eskubideak 361

Premian dagoen lagun hurkoari buruz, maitasunezko lehen eginkizun nagusia, legez dagokionaz kezkatzea da. Gizakiaren eskubideak, legeetan eta erakundeetan, oso eskas agertzen dira oraino (ik. aurreko kapitulua) (*357*). Alderdi horretatik, maitasuna zuzentasunaren aurretik doana da: maitasunak aurkitzen duena, lege eta zuzentasun-gai bihurtzen da gerora.

O.N.U. delakoa, mundu mailan arduratu da giza eskubideen arazo honetaz. Joan XXIII. Aita sainduak honela dio arazo beraz: «O.N.U.k buruturiko lanik nagusienetakoa, *giza eskubideen Ageri unibertsala* izan da. Nazio Batuen Batzar nagusian, 1948ko abenduaren 10ean onarturikoa... Badakigu, Ageri horren zenbait punturen kontrakorik agertu dela eta arrazoinez izan dela zapuztua*. Halaz guztiz, Ageri hori, mundu mailako erakunde juridiko-politiko baten antolaketarako* lehen urrats bezala jotzen dugu. Ageri horrek, gizaki guztiei, inor bereizi gabe, giza nortasuna ezagutzen die; gizabanako orori, askatasun osoan egiaren bila saiatzeko eskubidea, moralitate arauak betetzekoa, zuzentasun eskakizunei erantzutekoa, giza nortasunarèn araberako bizikera eskatzekoa, eta horiei loturik doazen beste eskubideak eskatzeko eskubidea ezagutzen dio... Helduko ahal da laster garaia, Erakunde horrek gizakiaren eskubideak benetan zainduko dituenekoa: gure giza nortasunetik bertatik zuzen-zuzenean datozen eskubideak, alegia, eta horrez gero, guztionak, hautsezinak eta utzezinak diren eskubideak» (*Pacem in terris*, 4. partea).

Guk ere, nor bere tokian eta bere ahalaren neurrian, lagun hurkoaren eskubideen ardura ukan behar dugu. Horra guretzat ere, maitasunaren lehen eskakizuna.

premian: beharrean. **zapuztua:** baztertua. **antolaketa:** organizazio.

Gutxiago duenari ematea 362

Aldi berean, ordea, gizarteko zoria behar lukeen bezalakoa ez denean, premian dagoena laguntzera behartuak gara (*359*). Sarritan agintzen digu hori Ebanjelioak. Amairik* izanen ez duen zeregina dugu hori; gauza guztiak ez bait dira inoiz legetan hezur-mamituko. Ustekabekorik eta espero ez zenuen egoerarik beti agertuko zaizu. Hain zuzen, maitasuna beti izanen da ezinbestekoa, diren lege eta eskubideak etengabean zuzentzen saiatzeko.

Baina zenbat eman? 363

Gure ondasunetatik zati bat ematea gauza ona da. Ebanjelioa, norberaren pobretasunetik (*Mk* 12,41-44), norberaren lanetik (*Ef* 4,28), norberaren aberastasunetatik (Lk 8,3 eta 18,22), okerbidez lorturiko aberastasunetatik beretatik (Lk 16,9) eman beharrekoaz mintzo zaigu. Inork jakin gabe (Mt 6,3) eta pozik (2 Kor 9,7) emateko esaten du. Ematen dena ez da neurri berdinekoa: saritua izanen den «baso bat ur fresko»tik (Mt 10,42) «nere ondasun guztien erdia»raino (Lk 19,8) izan daiteke, eta grazia gainezka denean, «dudan guztia» emateraino ere bai (Lk 18,22). Hor dugu Joan Bataialariaren aholkua ere: bikoitz* ditugun gauzak ematea (Lk 3,11). Eta samariar onak, benetan laguntzekotan behar den guztia ematen du; gainera, bere aldetik, laguntzeko, asti ederra galtzen du, eta arduratsu eskaintzen du bere burua (Lk 10,30-37).

Ebanjelioak, beraz, ez digu arau jakinik ezartzen. Ez digu esaten inon ere, gure eman beharra geure bizimaila aldatzeke* gordetzeaz neur daikeenik. Ez da batere gaitzik limosna* eginez pobreago bihurtzean. Bai dohatsuak, besteren osasuna, besteren oporraldia*, besteren erosotasuna direla eta, automobil merkeagoz edo batere gabe bizi *direnak, lujoko jantzi gutxiago dutenak, beren oporraldiak etxetik* hurbilago ematen dituztenak, beren haurrentzat jostailu merkeagoak erosten dituztenak. Dohatsuak, beren gurasoengandik ondare bezala berenezko* esku zabaltasun hori jasotzen duten haurrak (*335*). Jakitekoa litzateke, beren seme-alabei jarraibide* hori ematen ez dieten gurasoek ez ote dieten ukatzen gizakiaren egiazko elementu bikain bat.

Ematea inoiz ere amaitzen ez den gauza da. Ez ahal digu esan, izan ere, Jesusek, lagun hurkoa geure burua bezala maitatu behar dugula? Mugarik inoiz ikusten ez diogun eginpidea* dugu hori (*102*).

Hain zuzen, zenbait kristauk dena utzi beharra sentitzen du, gizon-emakumeetan behartsuenaren antzeko, Jesusen antzeko bilakatzekotan*. Susmo horrek, ordea, badu arriskurik. Hain zuzen, gure zentzu

---

amairik: bukaerarik. **bikoitz:** doble(zka). **aldatzeke:** aldatu gabe. **limosna:** amoina. **oporraldia:** bakantza. **berenezko:** espontáneo, spontané. **jarraibide:** etsenplu. **eginpidea:** eginkizuna. **bilakatzekotan:** bihurtzekotan.

onak eta gure familiarekiko erantzukizunak uxatu egiten du amets hori, burutu ezineko bezala; arrazoin osoz uxatu ere; baina, sarritan, hori uxatu ondoren, ezer egin gabe gelditzen gara.

Horregatik, orain berton *zerbait* eman behar dugulako usteak garrantzi handia du. Jesusek ere, maitasunaren agindua aldarrikatu ondoren, horixe bera adiarazten digu: maitasunaren agindua azaldu bezain laster, biharamonean bere bideari jarraitu behar zitzaion samariar onaren benetako laguntza ematen digu adibidetzat. Horrelako laguntza baten ondoren, bada noski bazterretan arindu beharreko gaitzik asko. Dena egiterik ez dadukagula ikusiz, «zerbitzari hutsal*» garenaz jabetzen gara.

Gure gizarte honetan, emateko bide egokiena, dirubiltzeak antolatzen dituztenen lagun nahiz erakundeen bidez ematea dugu. Horrelaxe moztuko dizkiegu hegoak* egokien ziri-sartzaileei. Dirubiltzea kristau bizitzan funtsezko elementu bat da. Paulo sainduak Korintotarrei eginiko bigarren epistolan bi kapitulu (8.a eta 9.a) eskaini dizkio puntu horri. Honetaz ere, munduko batasunaz eta bakeaz egin genuenez, Batikano II. Kontzilioaren *Eliza egungo munduan* delako Kostituzioa aholkatzen diogu irakurleari, 83. zenbakitik 90.era (*350, 353*).

Behartsuei gainetikoa* ematekotan, txanpon guztiak kontatzen hasiko bagina, ez genuke Jesusen asmoaren berririk. Izan ere, Jesus, maitasunaren maitasunez usaiki* garestia* alferrik galdu duen Betaniako Mariaren alde atera bait da (ik. Jn 12,7-8). Nork bere jokamoldea asmatu beharko du. Batek berezkoago izango du ematea, besteak burutsuago. Baina, beti, mugarik gabeko bide baten aurrean aurkituko garelarik ere, egiazko kristau izatekotan, berton geure buruak lotu beharrean izango gara.

Nork bere bizia eman 364

Emateaz esan genezakeen guztia koloka geldituko litzateke honako hau ahantziz gero: besteri eman geniezaiokeen lehen eta azken dohaina, geure bizia da. Gauza batek bakarrik bete ditzake gure senideak: geure burua emateak. Besteak maitatzeak, alegia, geure inguruan besterentzat izateak. Ez pentsa jarrera horrek munduko premiekin zerikusirik ez duenik. Jakina, badu zerikusirik hurbil-hurbileko munduko premiekin; orobat guretzat urrunekoen* den munduko premiekin. Inork ez du ezagutzen mundu honetan ontasunak egiten duen bidea. Aurrerapenerako bidetan den erresuma batetara bere gogoz doanak, atzean beste batzu utzi ditu: beren ontasunez hunkitu dutenak eta erabaki hori hartzera eragin diotenak.

hutsal: ezdeus. **hegoak:** hegalak. **gainetikoa:** soberazkoa. **usaiki:** usaitzeko gauza. **garestia:** karioa. **urrunekoen:** urrutikoen.

Geure ingurumariarekiko ontasunak, mugarik gabeko zeregin baten aurrean eta mila ahalbideren* aurrean ipintzen gaitu: Norbait geurera gonbidatu edo bakardadean dagoena ikustera joan, ama bat edo hauzokoak lagundu, dohan* laguntzaren bat eman, besteren bati berotasun eta axola apur bat eskaintzekotan norberaren alferkeria, zakarkeria, gogorkeria edo beldurra astindu*. Bai berotasun handia nabari ohi dela zenbaitengan: edozertarako prest aurkitzen duzu beti, gauza normalena bait litzan. Aitzitik* beste batzuk, nekez, baina «karitatea praktikatu» egiten dute nolabait. Halere, hauek ere onik asko egiten dute sarritan. Itxurati agertuarren, sarritan benetan ari direnak ohi dira.

Jendetasunak* eta gizatasunak badute zerikusirik maitasunarekin. Esan ohi da, Asisko Frantziskok Jainkoaren «jendetasuna» antzeratu* nahi zuela: egunoro on eta gaiztoentzat eguzkia atera arazten duenarena.

Gregorio Aita sainduak dio, Jesusen oinak igurtzi* zituen emakumearen jokamoldea besteren alde guk egin dezakegunaren irudi dela. Ez da emakumea oinak bere malkoz busti hutsean (*zaletasunean*) gelditzen; eta bere ile-adatsez lehortu* egiten dizkio (*benetako laguntza*). Baina, horrela egina ez zen osoa izango, ondoren egin zuena egin izan ez balu, hots, Jaunaren oinak besarkatu (*maitasuna*) ez balitu. Bestela, izan ere, hauxe gerta zitekeen: «arintzen dugun premia bera zama* bihurtzen zaigula, eta eskuak beharrezkoa luzatzen duen bitartean, bihotza epeldu egiten dela maitasunean» (Iraileko lauarotako ostiraleko gaualdiak).

Hau guztia betetzen saiatzen denak —beraz, inori kalterik ez egiteaz aski ez duenak, eta beharra dagoen tokitan egiazko laguntza eskaintzeko gertu dagoenak— egunetik egunera premia berriak aurkituko ditu. Eta, ez gizon bezala, ez eta kristau bezala, nahikoa egiten ez duelako susmoa ukanen du. Ez du hain erraz honelakorik esango: «A, ni ona naiz guztiekin!». Bere axolagabekeriaz nahiz zekenkeriaz* dagien gaitzetik askatu eta salbatu beharra nabariko du (*208*). Areago oraindik: konturatu gabe, duen gaitzetik askatu beharra sentituko du. Izan ere, bekatuak gure barnean uste baino sakonago botatzen bait ditu bere erroak*. Edo, gauza bera beste era baikorragoan* esateko: Jainkoak gure bihotza, bururatu ez zaigun moduan ireki dezake (*226*). Gure ezinak, lurra joarazi ez baino gure indarra behar den tokian bila arazi behar digu: geuregan ez, eta bai Jainkoaren Izpirituagan: Honek ez

ahalbide: posibilitate. **dohan:** debalde. **astindu:** inarrosi. **aitzitik:** aldiz, kontrakoz. **jendetasuna:** cortesía, courtoisie. **antzeratu:** imitatu. **igurtzi:** gantzutu. **lehortu:** xukatu. **zama:** pisu. **zekenkeria:** ximurkeria. **erroak:** sustraiak. **baikorrago:** optimistago.

bait digu eskaturiko ontasuna ukatuko, bera ontasunaren Izpiritua delako (*241*).

Elkarrekin bizitzeko atsegin hutsez

«Lana gauza serioa da; baina, astialdia*, jolasa eta artea, horik ez!» «Lanerako bizi gara». «Lana, atsegina baino lehenagoko da». Egia ote hori guztia? Lan emankorrean* ematen ditugun orduak (edota hartarako gertutzen gaituen eskolan ematen ditugunak), besteak baino inportanteago ote dira? Gutako gutxi izango da iritzi horretako. Alderantzizkoa* emango litzateke egiatzat. Arratsaren zain bizi gara, larunbata edo oporraldiak* etorri zain. Bizitzeko egiten dugu lan. «Lanik gabe» gaudenean, orduan bai bizi garela! Lanik gabe garenean, egiazko giza bizitza egosten da. Lanak eta oporraldiak, biek batera betetzen dute gure bizitza. Astialdia, jolasa, atsedena: horien beharrean gara egiazko giza bizitza bizitzekotan. Orduan elkarrekin, arrazoin interesaturik gabe aurkitzen gara, elkarrekin egoteko atsegin hutsez. Horrela, geure gisara bizitzeko aukera ukaiten dugu, geure lanbideak ezartzen digun mugetatik aldi batez bederen* ateratzeko bidea. Gu geu bilakatzen gara. Hezketa parte handi bat astialdietan burutzen da. Senar-emazteei, neska-mutilei, guraso-seme-alabei, elkarrekin egoteko aukera damaie astialdiak. Maitatzeko garaia eskaintzen digu astialdiak.

Zer egin astialdietan? 365

Astialdia luzatuz doa. Aurrerantzean ez da mugatuko larunbatera bakarrik. Biderik ematen zaigu guztioi, geure astialdiak betetzeko. Telebista da bide horietako bat, eta indar handienetakoa. Miloika lagun dardarazten ditu futbol partidu bakarrak, antzerki bakarrak, gertakari bakarrak. Inoiz, horren ondorio bikaina, egiazko batasuna izan daiteke. Baina, astialdia horrela betetzeak, inor murriztu ere egin dezake: aitak seme-alaba txikiak dagiena bera dagi, trebeak traketsak dagiena bera, buru zorrotzak irudimen motelekoak dagiena bera. Horregatik, gure astialdietan bestelako ihardunbiderik* ukan beharko dugu: nekea, ardura, jatortasuna, trebetasuna eta kreatibitatea eskatzen duten jokabideetara jo beharko dugu: dela kiroletara, dela artesaugintzara, dela soinujotzera, dela gai zirraragarriren* bat aztertzera*, dela bildumaren bat has-

astialdi: ocio, désoeuvrement. **emankor:** productivo, productif. **alderantzizko:** kontrako. **oporraldiak:** bakantzak. **bederen:** behintzat. **ihardunbide:** eginkizun. **zirraragarri:** berogarri. **aztertzera:** ikertzera. **bilduma:** kolezio.

tera, dela elkarteren batetan erantzukizunen bat hartzera, etab. Halako ekintzabideak, gainera, beharrezkoak dira semealaben aldetik ere. Izan ere, gurasoak, beren atsegin hutsez, inguruaz arduraturik nabari baldin baditu (*337*), haurrak ere berez ikasten du mundua ezagutzen, horren aurrean harritzen eta bere ezagutza horretan pozten. Leloa ez baino ume argia izanen da. Horrelako giroan bizi denak, eta horrela bakarrik, ukanen du buru zorrotza, telebistak eta jenderiaren bestelako komunikabideek emanen digutenaz bere iritzia emateko; horrela bakarrik neurtuko du egiazko neurrian horien balioa.

Artea eta jakintzak 366

Gizadiaren kondairan zehar ihardunbide aske* eta desinteresatuak artea eta jakintza ere sor arazi ditu. Dantza, kanta eta kontu zaharrenak, Santimamiñe hartzuloko pinturak, landare eta izarrez gizadiak ukan zituen lehen jakintza distirak: hori guztia ere bide horretatik gizakiak egin duen ahaleginaren lekuko* da; bizibeharrak arnasa* hartzeko tartetxoa utzi dioneko, munduaren hondo-hondoko ordena argitzeari ekin dio, bere erara taxutu egin nahi izan du. Horrela, gizakia bere agerpide eta pentsabide berriak agertuz joan da; horrela, animaliarena ezbezalako gizakiaren berezitasuna handituz zihoalarik. Nola ordena eta edertasuna, hala desordena eta itsuskeria azaldu nahi ditu, dela musikaz, dela hitzez, dela dantzaz, dela kolorez, dela marrazkiz. Lanari buruz esandakoa, berdin esan daiteke jakintza eta arteari buruz ere (*283, 353*): gizaki biziengan duten eraginez, maitasunari eragiten diote, eta maitasunak betikotasunari eragiten dio. Hemen ere galde dezakegu: artegintzatik eta jakintzatik betikotasunerako gelditzen den gauza bakarra maitasun uzta* hori ote da? Ala, gaur gure lur honetan arteak eta jakintzak ematen duten forma horretatik ere geldituko ote da ezer «zeru berri» eta «lur berri»etan? Izan ere, gizakiaren gauza hoberena ustelgaitz* berbiztuko bada, zergatik ez du gertatu behar beste horrenbeste gizakiaren kreazio horietatik hoberenarekin?

Jakintzaren eta artearen berezko balioa 367

Ezin eman dugu muga zehatzik arte-jakintzak eta lana bereizteko. Beste horrenbeste gertatzen zaigu artea eta jakintza batetik, eta erlijioa bestetik bereiztekoan. Horrez gero, artea eta jakintza lan

aske: libro. **lekuko:** testigu. **arnasa:** hatsa. **uzta:** fruitu, cosecha, récolte. **ustelgaitz:** incorruptible.

emankorrari* eta erlijioari ordenapeturikotzat* eman behar ote ditugu? Ez; egia eta ederra berenez* dira balio. Berenez dira Jainkoaren oihartzun. Horregatik, jakintzak eta arteak beren lege bereziak dituzte. Hain zuzen, artea eta jakintzak lantzea, produziogintzarekin eta Jainkoari eskainitako agerikо kultuarekin ere, harreman hestuan da. Baina artegintzaren eta jakintzaren goreneko agerpideetan azaltzen dira garbienik alor bakoitzaren lege bereziak. Lege horik, nahasketa oro baztertuz, burutzen badira, ezin egon daitezke buruz-buru fedeak irakasten digunarekin. Izan ere, jakintzak egiatzat frogatzen duena, ezin daiteke fedearen kontrako izan (*328*). Eta benetako arteak, artea delako hain zuzen ere, benetako edertasuna eta egia jatorra agertzen ditu, eta horrexegatik ezin izan gauza txarra eta gaiztoa.

Halere, artea jakintza baino gogorrago lotzen zaio horretan ari denari. Korapilo asko darraizkio* arazo horri. Artistaren eginkizuna apaizarenarekin aldera* genezake. Egiazko artistak, munduan edertasuna eta egia jaulkitzeko* dohaina du. Hori ezin du egin bere buruan zehar ez bada; halaz guztiz, azaltzen dituen balio eta egintzak bere buruaz gaindikoak ditu. Horretan da apaizarekin gonbarakor. Apaizak ere, bere buruaz gainetik dagoen zerbait komunikatzen bait du (*280-292*). Eta nahiz erdipurdikoa* edo gaiztoa izan, apaizak salbamendua komunikatzen du, bai; baina, salbamendua zikindua bezala aurkitzen da apaizaren gaiztakeriaz, hau ere agertzen delako. Era berean, egiazko artistak, bere obraren bihotz eta egia den Jainkoaren edertasuna komunikatzen du. Gezurra adiaraztean, izan den bezala egiten du. Sexu sasikeria adiarazten badu, gizakia bere osotasunean marrazten du, eta ez errealitatetik kanporaturiko irudi liluragarri eta itxurakoi bezala.

Artelan batetan artista bera azaltzen da, bere begiratu zorrotz eta aztertzailez, aldez aurretik hartua ez duen mezu eta guzti. Aldi berean, ordea, gizaki bat da artista, eta bere errua, bere koldarkeria* eta bere kaxkarkeria ere erants diezaizkioke artelanari, hau zikinduz. Edota, bere egiaz eta ontasunaz, bere artelanari aparteko indar ongilea eman diezaioke. Arte-lanbidearen autonomia eta bizitzarekin duen batasuna hestu nahasirik daude.

Pertsona heldu eta eskolatuak aisa* bereziko ditu bi alderdi horik. Gaztea eta gai horretan hain ikasia ez denari zailago gertatuko zaio horretaz jabetzea. Honelakoak, edertasunaren eta gizatasunaren aire garbia irentsiz batera, ur zikinean zurruta bat egiten du. Batez ere gazteentzat, giza agerpideen mundua era horretan ezagutzea, xit kaltegarri izan daiteke. Egiazki, eragozpena ez dator lehenik, gazteok nabari eta gordetzen dutenetik (nahiz okerra izan), beren harmena* berri-berri dutenean hartzea ukatzen zaienetik baizik. Gai honetan, hezitzaileak —guraso eta irakasle—, ezin lasaitzen ahal dira «babespideak*» emateaz. Askoz ere garrantzizkoago da, nola gazteei hala

emankor: productivo, productif. **ordenapetu:** subordinado, subordiné. **berenez:** beren kabuz. **darraizkio:** jarraitzen zaizkio. **aldera:** alderatu, gonbaratu. **jaulkitzeko:** isurtzeko. **erdipurdikoa:** nolahalakoa. **koldarkeria:** cobardía, couardise. **aisa:** errazki. **harmen:** hartzeko ahalmen. **babespideak:** defentsak.

nork bere buruari, *ongi irakurtzen, ongi ikusten irakastea*. Artistak ez zaizkio ematen herriari, haien ondotik haik ezagutzeke* igaro* dadin.

Jesus eta kultura **368**

Ebanjelioa oso gutxi mintzo da kulturaz. Jesusek artea eta jakintza ez ditu ez onartzen, ez ukatzen. Baina bide bazterreko loreak aipatzen ditu, artez ehunduriko* Salomon-en jantziak baino ederrago iruditzen zaizkionak.

Haren ikasleek tenpluaren arkitektura ederresten* duten une berean, Jesusek tenplu beraren hondamena du gogoan. Halaz guztiz, bere parabolak hain erraz eta egokiak dituelarik, munduko literaturan artista handienen artean jarri ohi dute Jesus (*65, 116*). Gizaki bezala, kultura sakonenetik markatu dutenetakoa da. Baina, berez hitzegin du. Ez zaio atxeki* bereziki ez jakintzari, ez eta arte modu bati; eta aholkatu* ere ez du ezer bereziki aholkatu. Jesusengan guztia, mundura bakea ekarriko zuen legamiaz* bakarrik zegoen kutsatua: Jainkoaren Erreinuaz, alegia. Xumearekiko eta zerbitzuarekiko Jainkoak duen zaletasunak liluratzen zuen, eta horrixe eskaini zion bere bizitza osoa (*67-68*). Jesusentzat, horixe zen aurki daitekeen edertasunik nagusiena, egiarik handiena. Horregatik, gizon batzu deitzen eta hautatzen ditu, xinpletasun grinatsu horretan bereziki parte ukan dezaten. Xinpletasun hori, sarritan, ebanjeliozko aholkuen araberako bizitza da (*305, 341*).

Egiaren bila (*302*)

Hitza gure egiterik garrantzizkoenetakoa da. Hizkuntzak gure bizitza garden* bihur dezake (*26*). Aldatu ere, alda dezake. Gizakien arteko harreman biziena hizkuntzaren bidez egiten da. Maitasuna hitzez agertzen da. Hizkuntza dohain bat da, guk uste baino handiagoa: berorren indarra ikaragarriago, eta eztiago berorren gozotasuna.

Bonba atomikoa leher araz dezakeen indar bakarra —eta bonba sortu duena ere— gizonaren hitza da. Alderantziz ere, lehertzea galeraz, hitzak bakarrik galeraz dezake. Eta hitzak norbait zoriontsu egin dezake, eta muinetaraino berotu. Hitzeginez bete zuen Kristok bere eginkizuna. Jainkoaren Hitza

ezagutzeke: ezagutu gabe. **igaro:** pasa. **ehundu:** josi. **ederresten:** edertzat hartzen. **atxeki:** lotu. **aholkatu:** kontsellatu, akontsejatu. **legamiaz:** altxagarriaz. **garden:** argi.

deritzaio, hain zuzen (*31*). Hizkuntzak misterio handi bat izkutatzen du bere baitan.

Solasa, ongi edo gaizki hitzeginez 369

Solasa da giza hizkuntza ororen oinarri; maite dituzunekin berriketan egotea, mila gauza aipatuz. Bizitzaren hondo-hondoko musika goxoa. Solasean batak bestea ezagutzen ikasten dugu, zurikeriarik gabe.

Kottorraren antzera, besteri hizketa egiteko tarterik uzteke* mintzo denak, zerbait desegiten du. Bada emakume berritsurik, bere familia bere hitz-jarioz itotzen duenik. Norbaiti, bere burua adiarazten, azaltzen uztea, zeure adiketaz* horretara eragitea: horixe duzu, aldiz*, zoriona zabal dezakeen jarrera.

Komeni da, noiz edo noiz, solasa ez beste zerbait egitea, elkarrekin gaudenean. Sakontzen ahal da arazoren bat, esaten ahal da inoiz atera ez den gairen bat. Horrela, itxurakeriarik gabe, puntu handiren batetaz hitzegiten ahal da; Jainkoaz beraz ere bai.

Beti, arinkerietan, alferrikako hitzetan aritzea: horixe da askoren errua*. Baina hizkuntza ez dugu hartu horretarako (*264*).

Hizkuntzari esker on egin daiteke: norbaiti bihotzemanez, estimua azalduz, edo leialki zentzaraziz* (Mt 18, 15). Noiz edo noiz, hitz zorrotzak ere egoki jaulkiak izan daitezke, inori egoera beltz batetaz jabearazteko gisakoak izanez gero (Mt 23).

Baina, inor hitzez zauritzea edo lurjota uztea, gauza okerra da; orobat* lausenguz* mintzatzea. Harma bat guztiz zorrotza, isiltasuna da: norbaiti ez-entzuna egitea, norbaiti buruz hura ez balitz bezala jokatzea, isiltasun hilgarria, hiltzen duen isiltasuna da. Zenbaitetan, etxe berean edo elkarte berean bizi den bati buruz horrela hestea*, bekatu larria izan daiteke (edo gaixotasun seinalea).

Norbaitetaz gaizki èsaka aritzea: horra bereziki gauza larria. Horrela, guztioi atsegin zaigun zerbait hausten da, guztioi zor zaigun zerbait: hots, besteren aldetik estimatuak izatea, besteren aurrean izen ona edukitzea. Bai laster konturatzen garela guregatik ipuinen bat zabaldu denean! Inguruan isiltasuna nabari ohi dugu, hutsunea; begietan mesfidantza*

uzteke: utzi gabe. **adiketaz:** entzuteaz. **aldiz:** ordea. **errua:** hobena. **zentzarazi:** zentzu onera ekarri. **orobat:** berdin. **lausengu:** adulación, adulation. **herstea:** histea. **mesfidantza:** errezeloa.

ikusten dugu. Zabaldutako gaitza egin baldin bada, gaizki--esana* da; horri darion kaltea, konpon ezinekoa izan ohi da, sarritan. Norbaitetaz zabalduriko gaitza gezurra baldin bada, beztura* da: astuntasun* bereziko zuzengabekeria.

Eta nolatan babes* geure burua mihi gaiztotik?

Alderantzizko jokabidea ongilea da; norbaiten alde onak azaltzen dira. Aipatzen denarentzat eta entzuten dutenentzat aberasgarri da horrelakoa. Norbaitetaz ongi hitzegitea kreatzaile da.

Egi zaletasuna 370

Egia ezaguaraztea da hitzaren aintza eta handitasuna. Egia esateak handitzen du gizakia. Nork ez du miresten, beti egia dioena, fidagarri dena? Berritsua ez, datorkion guztia kontatzen duena ez, hiztuna ez, baizik hitzeko gizona hartzen dugu kontutan. Egia esateak badu bere esanahia: fidagarri izatea da, elkarren arteko usteonari* kalterik ez egitea da. Hori ezinezko litzateke norberaren baitako jarrera bat ukan ezik: egizaletasuna ukan ezik. Egiazki pentsatzea, bihozkaden aurreiritziari tokirik ez egitea da, ustekeria berekoiei edo buruberokeriari amor ez ematea; zenbait talderen snobismoaren atzetik ez ibiltzea, edota gordezalekeria itsuari ez jarraitzea; gure pentsakeran errealitateari beronen aukera ematea da.

Oso-osoa izatea da. Mugarik gabeko zeregina horixe! Kristau fede jatorrena, itxuraldaturik* gerta daiteke sarriegi, aipatu ditugun gaitz horietako batez.

Egizaletasunari dagokiona da, nork bere burua argal eta on egiteko ahul aitortzea ere. Geure burua horrela apaltasunez ezagutzean, beste gizakiekin batuago gertatzen gara. Jatortasun horren kontra farisaikeria dago: nork bere burua goregi ikustea (*67*). Horixe da, Jainkoaren laguntza onartzea eragozten* diguten oztoporik nagusienetako bat.

Nork bereari gogor eustea, sarritan, benetan kaltegarri da. «Arrazoin ukaiteak» ez du esan nahi beti egizale izatea. Aldiz, humore onak, zenbaitetan, sorginkeriaz bezala eta isil-isilean ager arazten du egia. Bihotza lasaitzen du eta gauzak zein bere mailan ikusarazten ditu.

Gezurra 371

Gezurra egiaren kontra dago. Dena itxuraldatu egiten du. Ez da fidatzekoa gezurra esaten duena. Egia ala gezurra esan, besteagan ukan dezakegun konfiantza, usteona, dago jokutan.

---

gaizki-esan: maledicencia, médisance. **beztura:** calumnia, calomnie. **astuntasun:** pisu. **babes:** babestu, libratu. **usteon:** konfiantza. **ezik:** gabe. **itxuraldatu:** transformar, transformer. **eragozten:** debekatzen.

Gauzak korapilagotu egiten dira elkarrekiko konfiantzarekin oso lotuta dagoen beste honako bertute hau gogoan hartu behar denean: zuhurtasuna, alegia. Jakina, ez dugu ongi ikusten, lagun hurko baten edo norberaren arazoak hirugarren bati kontatzea: ez da kalean zabaltzen etxean gertatzen den guztia. Guztiok dugu nork bere barneko bizitzarako eskubidea. Esate baterako, hor dago profesio isilpea*. Bere lanbidea dela eta, beste baten bizitza pribatuan hartukizun* duena, midikua esate baterako, profesio isilpera beharturik dago. Jakin duenaz ezin daiteke mintza, arazoan hartukizunik ez dutenekin. Apaizak ezin konta diezaioke inori aitortzan entzuna. Isiltasun hori gordetzean, elkarren arteko konfiantza dago jokutan. Jakiteko eskubiderik ez dezanari zerbait izkutatzen dionak, itzala* irabazten du. Beraganako usteona iratzartzen* du.

Gerta daiteke, zerbait ezagutzeko arriskua dagoela. Esate baterako, norbaitek galde maltzur eta lotsagabea egitean. Orduan, gerta daiteke, gezurrezko erantzunaz bakarrik eutsi diezaiokezula izkutuari eta, horrela, konfiantzari. Eman dezagun midiku bati halakoren bat etorri ote zaion galdetzen diotela. Midikuak zeharka erantzungo balu, argi ageriko litzateke, delako hura ikustera etorri zaiola. Horrelakoetan, midikuak «ez» esan dezake, eta hala esan behar du. Horrelakorik hamaika eratara gerta daiteke.

Erantzun hau elkarrekiko konfiantzaren kontra ahal dago? Ez horixe. Bada eskubiderik besteri zerbait izkutatzeko; hizkera moduetan sartzen den gauza da hori, guztiek onarturiko aldez aurreko itun bat bezala da, eta elkarren arteko usteonari kalterik egiten ez diona. Kalte egin, gezurrak egiten dio kalte. Horrez gero, aipaturiko horretan ez dago gezurrik.

Jakina, honek ez du esan nahi egiarekin nahi bezala joka dezakegunik; zera esan nahi du: hitza argi eta garbi erabiltze hutsa ez dela egizaletasunaren giza irizpidea*. Irizpidea, hain zuzen, batak bestearekiko duen usteona da.

Aztikeria*, horoskopoa, etab. 372

Esan dezagun hitz bat edo beste errealitatearekin harremanik ukaiteko beste bide batzuetaz: ez da gure zentzuen, ez adimenaren ez eta gure kontzientziaren bidea; irudimena..., norbait begira dadukagulako susmoa, besteren baten pentsamendua urrunetik ezagutzea (telepatia), etorkizuna aurrez ikustea, aztikeriak, izarren eraginaren adiarazpena* (astrologia), eskuko arrastoen adiarazpena: horra hor beste zenbait bide. Zerrenda horretan, gertaera harrigarrien sail bat eman dugu, oso desberdinak beren artean; baina, guztiek zerbait berdinik badute: hau da, zientziek ez ditzaketela, ez atxeki*, ez argi. Zientziatik

isilpea: sekretua. **hartukizun:** parte. **itzala:** errespetua. **iratzartzen:** bizten, sortzen. **irizpide:** kriterio **aztikeria:** adibinazioa. **adiarazpen:** interpretazio. **atxeki:** harrapatu.

at* dauden esperientziak dira; susmo hau sortzen dute gizakiagan: Kreazioa —eta hartatik atzematen* duguna ere— kontrola dezakeguna baino aberatsagoa dela. Alor horik guztiak aztertu gabe daude oraino.

Bienbitartean, fenomenu horiek, oso zehatz sortzen ahal dute misterioaren zentzua. Bizitzaren izkutua estaltzen duen oihala erdi-irekiko balitz bezala. Etorkizun ezezaguna, nolarebait, zeure eskuetan bazenu bezala.

Bada misterioak, etorkizunak gizonengan sortzen duen zirrara edo eragin horretaz ongi baliatzen denik, eta irabazi ederrik ateratzen duenik, zenbaitetan azpijoko hutsez, beste batzutan halako benetako ahalmen berezia baina handi-puzturik*, duenik. Baina bada ere ahalmen bereziz horniturik* dagoenik eta, zintzotasun osoz, bere dohainak gizartearen onerako ipintzen dituenik.

Kapitulu honetan aztertzen dugun egi zaletasunak ez digu uzten, beldur hutsez eta aldez aurretik eta aztertzeko nekerik hartzeke*, fenomenu horik ukatzen; baina, bestalde, bide horretatik bizitzaren azken izkutua aurki genezakeelako buruberokeria utzarazten digu.

Fedearen irakatsia hauxe da: Jainkoak ez duela Giza Semea baino handiagorik agertu: obedientziaren eta maitasunaren bidean aurrea hartu diguna baino handiagorik, alegia (*151*). Bizitzarako bidea, ilunabarreko misterioek ez, eta bai hain arruntak diren ontasun eta maitasunean estaltzen den izkutukiak* adiarazten digu; izkutukia ez du txikitzen egunsentiak*, ez itzaltzen eguerdiko eguzkiak. Eta zerk emanen digu harremanik egiazkoena bizitzarekin? Ez noski azpijokoak, betidaniko halabeharra* argituz; baizik, kreatzaileak guri emaniko askatasunaz gure egitekoak betez. Jesus ez da aztia*. Egiten dituen mirariek indar harrigarria adiarazten dute noski Jesusengan (*74-81*); baina mirari nagusia Berak bere bizia jokotan jartzea du. Ez du misterio itxurarik egiten; bera da misterioz betea. Eta Jesusen ahalmenaren ezagupideak*, hots, sakramenduak, ez dira beste mundu bati zeharka bezala eginiko begiratu isila, fedezko elkarganatzea baizik; ez dira aztikeriazko harreman automatikoak, giza bihotzari eta bizitzari egun argitan eginiko deia baizik. Ebanjeliotik datorkigun edozeri darion izpiritua da. Egiazko misterioak eskatzen diguna, geure burua da.

Berriro esan, oharpen hauekin ez ditugu ukatu nahi fenomenu berezi horik; ez dugu ukatu nahi, horien bidez kreazioko enigma asko argi daitekeenik. Baztertu nahi duguna, geure baitan koka daitekeen sentipen okerra da, hots: bide horretatik gauzen hondo-hondoa atzeman genezakeela uste izatea, alegia. Hain zuzen, bide nagusienaren ordezkorik, Jainkoak beraganako bide bezala urratu digunaren ordezkorik ez dugu aurkituko. Bide nagusia, gizaki aske eta graziaz beterikoak bere burua osorik eskaintzean eta maitasunean datza (*415*).

---

at: kanpora. **atzematen:** geureganatzen. **handi-puztu:** handitu. **hornitu:** jantzi, aberastu. **hartzeke:** hartu gabe. **izkutukiak:** sekretuak. **egunsentiak:** argi-hasteak. **halabeharra:** patua. **aztia:** sorgina, mago. **ezagupide:** seinale.

Prentsa, irrati eta telebistan lan egiten dutenak dira bereziki deituak egia zabaltzera. Gizonak, gauzak diren bezala jakiteko duen eskubideari laguntzeko daude eta. Beren lanak indar handia damaie besteren gain. Amairik gabeko zeregina aurkezten zaie: Ebanjelioaren arabera zerbitzuzko etika gero eta indartsuagotzea, haien lanbideari bereziki dagokionez, kanpotik ikusiz behin ere erabat uler ezin badaiteke ere (*352*).

Gaurregunean, eman ohi den sailkako zabalkundearen edo publizitatearen bereizketa bat egiten jakin ahal izatekotan, hezitzen saiatzea nahitaezkoa da, bai gurasoentzat, bai haurrentzat.

Irakaskintzan dihardutenek* ere, haurtegitik unibertsitateraino, egiaren zerbitzuan dihardute, pentsamenaren eta bizitzaren bidez. Berauen bidez eta irakas-gaiak emateko moduaren bidez, Kristoren mezutik zerbait sartuko da. Zuzenean ez dute hotsegingo Ebanjeliorik, gehienetan behintzat; baina, Ebanjeliotik datorren balioen neurtzeko neurria erabiliko dute. Lehen ere, honen aurreko kapituluan, hitzeginak gara zientziaz eta arteaz (*366*).

Misterioa ez da asmakizun 374

Egia bilatzen eta iragartzen* duenak, hori argi ikusten, aditzen eta atzematen arduratzen da (*184-186*). Fenomenuez jabetzen, egundoko aurrerapena egin du gaurregungo kulturak. Euria, ekaitza, elektrizitatea, nukleo zatitxoak, zelulak, psikismoaren egitura, lege soziologikoak: fenomenu horik guztiak bilakatu dira eskuerago* gure adimenarentzat, eta une berean gure ekintzarako. Izan ere, mundua ezagutzeak, mundua eskuratzeko ahalmena ematen digu: aldez aurretik eguraldia ezagutzea, teknika, midiku eta psikologi artamendua* soziologi mailako asmoak, esate baterako. Hain zuzen, nola irakaskintzan hala gizarte bizitzan, kalkulagarri eta baliagarri diren guztietaz kezkatzen da jendea. Alor horretan bederen arrakastarik nabari bait dugu. Eta pentsamolde hori pentsakera positibuarekin batera doa: nortasun egoki eta osoko pertsonak egiten lagun dezakeen pentsakera horrekin, lagun hurkoarekiko eta Jainkoarekiko jatortasuna lortzen lagun dezakeenarekin. Halaz guztiz, gauza oro argi eta garbi ikusi nahiak beste ikuspegi oro baztertzen duenean, hauxe ageri

dihardutenok: ari direnok. **iragartzen:** zabaltzen. **eskuerago:** meneanago. **artamendu:** tratamiento, traitement

ohi da: giza izpiritua hesitu egiten dela, eta ez dela arduratzen gauza kalkulagarri eta baliagarriez baizik. Arrisku hori guztiona da nolabait. Gauza orotan den misterioaren kontzientzia, bizitzaren aurrean liluratzea, gauza hutsal* bezala, atzera uzten dira. Jarrera zientzizalea, halakoa dela ez dago zalantzarik. Newton-ek, fisikaren sortzaile handiak, bere lana haurraren itsasertzeko lanarekin alderatzen* zuen: haurra, bere aurrean itsaso ikaragarria orroaka duen bitartean, maskor* eta harkoskoekin jostatzen da. Hartarainoko intuizioa zuen Newton-ek, bere lana Jainkoaren misterio azkengabean burutzen ari zelakoaz! Zientzia positibuak eta teknika ez daude, ezinbestean, misterio horren kontzientziarekin buruz-buru. Alderantziz baizik.

Baina, benetan, guregan misterioen ezagumena kaxkartu egin da, sarritan. Fedearen irakaskintzak berak jasan* du kaxkartze hori. Joan den mendean misterio hitzari ematen hasi zitzaion esanahi hestuari begiratu besterik ez dago. Agian, buruan dugu oraino geure eskolako garaian jasota. «Fedearen misterioa», sarritan, honako ikusmodu honetan adiarazten zen: badira Jainkoak agerturiko zenbait egia, gure adimenak oraino aditzen ez dituenak, baina geroago aditzera emanen zaizkionak. Horrela, fedearen misterioak estalki baten atzean izkutatzen diren arrasto bilakatzen ziren; gure bihotza estalki hori irekitzean lasaituko litzateke, eta gauza oro argi-argi ikustean. Ikusmodu horrek, misterioa asmakizun huts bihurtzen zuen, argitu gabeko prolema, azken azalpen edo emaitza lortu bitartean arnasarik* hartzen utziko ez ligukeen amaitu gabeko buruhauste huts bihurtzen zuen. Asmakizun eta prolemak (sarritan izkutuki edo misterio deitu ohi direnak) arrazoinketaren arrazoinketaz eta iraupenaren iraupenaz argi daitezke, beraz; horrela, izarretarainoko tartea, materiaren egitura, hilketa baten gorabeherak, enplegatu baten buru-argitasuna, isilkoi eta bakarti den batek bere baitan daraman isil-gordea. Baina, misterio handia arras* bestelako gauza da.

Non bilatuko ote genuke misterio hori? Geure baitan* dago, geure etxean. Nire inguruko gauzak: gizakiak, abereak, landareak, gauzak berak misterio dira: horien izateari maila sakonagoan begiratzen diodan neurrian handituz doan misterio. Neure pentsamena, neure *nerau*-a*, neure zentzumena, besteren bizia: zera horik guztiak nire gain daudenak dira, eta zientziaren batek, zera horien alderdiren bat argitzen duen neurrian, miresgarritasun hainbat handiagoa sortzen du guregan errealitate horrek: badelako eta halakoa delako. Eta

hutsal: ezdeus. **alderatzen:** gonbaratzen. **maskor:** concha, coquille. **jasan:** kaltea eraman. **arnasa:** hats. **arras:** oso. **baitan:** barnean. **neraua:** ni neroni, el yo, l'ego.

zerbait batasun bizi bezala agertzenago, eta hobetoago agertzen du misterio bat.

Baina, zer esan nahi du horrek guztiak guretzat? Egun osoan, lantegi batetan, aministrazio batetan, zuzendaritza batetan lanean dagienak kalkulagarri bezala topatzen du errealitatea; tartean prolema korapilotsuak aurkitu arren, gauza atzemankor* bezala aurkitzen du. Baina bere etxera etorri, eta emaztea agurtu eta musu ematen dionean, bada bien artean neurtu eta kalkula ezin daitekeen zerbait. Eta zenbat eta isil-gorde txikiago batak bestearekiko, zenbat eta elkartuago, hainbat handiago izanen da misterioa. Bada hor marrazki batetan eman ez daitekeen zerbait: norbait bizia, alegia. Larriarazten ote ditu horrek, ala arroztasun zentzua iratzartzen* ote du horrek haiengan? Ez eta pentsatu ere; dena hainbat ohizkoago da, hainbat nabasiago*: pentsa ezin bezala. Ez zaie bururatzen honelakorik: «Zu niretzat misterio handi bat zara»; gauza arras errazak esaten dizkiote elkarri: «Bai polita zarela!», edota: «Bai nekatua ematen duzula», edota: «Bai berandu zatozela». Senar-emazteak ez dute astirik galtzen bestea *nerau* bizi bat dela pentsatzen eta aurkitzen. Izan ere, *nerau* bizi hori hor dago, nire ondoan, edozer aldatzen duen berotasun bezala: dena etxeko, nabasi gertatzen da. Norbaitek guretzat isil-gorderen bat edukitzeak kezkarazi egiten gaitu; aldiz, guretzat bera isil-gorde izateak bakea ematen digu, eta zorioneko egiten gaitu. Gu baino handiago dena aurkitzen dugu, geure jomuga dugun huraxe.

Fedearen misterioak, gauza bakoitzean eta nor bakoitzean agertzen den adiaraezina* esateko ematen zaizkigun adiarazpide* dira. Horrela, fededunak, izatearen misterioa onginahiezko eta segurantziazko misterioa dela ezagun dezake (*31*), gureganaino isuri nahi den bizi eta argitasun misterioa dela, Aitaren, Semearen eta Izpirituaren misterioa dela (*415-416*). (Azken esaera honetan, fedearen lau misterio handiak idarokitzen* dira: Trinitatea, Gizakundea, Grazia, Jainkoa ikustea). Zertarako eginak garen, haretxen aurrean aurkitzen gara; agerkunde hori argiago, eta haren isil-gordea misteriozkoago gertatuko zaigu. *Misterio* hitzak, azaleko eta zeharkako begiratuari adiezineko zaion zerbait adiarazten du, adiezineko barne sakona. Esanahi horretan, familia bakoitzak du bere bizitza isila, bere misterioa. Halako isil-gorde sakona, halako misterioa topatzean, Jainkoagan izkutuan dagoenaren susmoa sortzen zaigu, Jainkoaren bizitza isilarena, geure etxea haren ondoan bakarrik aurkituko dugulako ustetan bizi-bizi irrikatzen* dugun bakearena.

---

atzemankor: eskurakor. **iratzartzen:** bizten, sortzen. **nabasiago:** irekiago, argiago. **adiarazezin:** esanezin. **adiarazpide:** expresión. **idarokitzen:** adiarazten. **irrikatzen.** desiratzen, gutiziatzen.

Gure adimena gauza guztiak argitzen saiatzeko egin da; horretan pottegin* gabe irautera behartuak gaude. Behartuak gaude misterioari buruz ere. Alabaina, honen azken helburuaz eta jomuga sakonenaz, gure izpiritua ederrespenerako* eta adoraziorako egina da (*95*): garen osoaz, geuregan dugun maitasun eta ontasun ahalmen osoz, gure gainetik dagoena ederrespenez adoratzeko (*375*). Ahalmen hori gal bageneza, gure gizatasuna, arrazoinketa zorrotzenak eta guzti, kaxkartua eta murriztua litzateke. Prolema zailenik argituko genuke eta probetxurik aterako ere bai; baina, guztiz erraz denarengan ez ginateke lasai eta aisa aurkituko. Bizi-iturria urrunean geldituko litzateke. Hain zuzen, gaurregun psikologiazko gaixotasunik asko ageri da: hezketan, gizartean eta erlijio bizitzan argitasun eta probetxua bilatzetik datorren gaixotasuna da. Izan ere, horrelako jokamoldean, adimena eten egiten da norberaren osoaren osotik. Nahimena ere eten egiten da, beregaineko* bihurtzekotan. Eta ikasi, agian asko ikasiko da; baina, nagusi izateko eta irabazteko; asmoa ona ala txarra den, axolarik ez. Horrela, bizi bai, bizi gara; baina egiazki bizi gabe; sustraituak gara, baina sustrairik gabe; maitasunik gabe maite dugu; on egin, bihotzak parte hartzeko egiten dugu; erlijioarenak bete, geure burua erabat eskaini gabe betetzen ditugu. Bere bizitzan misterioa onartzen dakienak bakarrik jakiten du ederresten, hunkitzen uzten, ematen, zerbitzen, konfiantza ematen, sinesten. Halakoak bakarrik topatzen du bizi-iturria.

«Egiagandikoa denak entzun egiten du nire ahotsa» (Jn 18, 37) 375

Inork ez du jo misterio honetara garamatzaten gauzetara Jesusek hainbat (*65*). Ikustun izanik itsu ez izateko, entzunda sogor* ez izateko eskatzen digu. Zenbat bider ez ote du esan honako hau? «Entzumenik duenak entzun dezala»; «Gaur haren ahotsa aditzean, ez ezazue zeuen bihotza gogor» (Sal 95,8). Fedeak erakusten digunez, Jesusengan agertu zaigu Jainkoaren misterioa (*53*). Kaltzedoniako Kontzilioak esaera dogmatiko zehatzetan adiarazten du hori, asmakizun bat aurkeztu nahian ez baino misterio bat argitu gogoz. Kristoren bidez, egiaz geure etxera, geure egiazko aberrira heltzen gara; Kristorengan, izan ere, Jainkoaren misterioa eta kreazioaren misterioa topatzen bait ditugu. Egiaz geure arteko eta egiaz Jainkoaren seme da Jesus; horra dogmaren esanahia. Adimenak,

pottegin: etsi, gelditu. **ederrespen:** amirazio. **beregaineko:** independiente, indépendant. **sogor:** gor.

bere gisara utzita, burura ez dezakeena, fedeak ematen dio gizaki osoari ongi egokitzen zaiona. Ahalmen bakar batek ez baino arima osoak, gure adimen osoak eta ahalmen guztiek jasotzen dute Kristo onartzeko, Kristori *bai* esateko eragina. Giza Semearengan hauxe atzemateN* dugu: lurrean eta gizonarengan esanezineko dena ez dela, hondo-hondoan, zerbait, Norbait baizik. Izan ere, Giza Semearen Izpirituak hotsegin arazten digu: «*Abba*, Aitta!» (*250*).

Horregatik, egiaren bilakuntzak, humiltasuna ere eskatzen du; orobat, fedea, esperantza eta maitasuna, norberaren otoitza eta elkarteko liturgia: Eliz liturgiaren urte-aroa ospatzean, munduaren misterioa bizitzeko era ematen zaigu, hots: Jainkoaren semea gure artean dagoelakoa (*275*). Liturgi ospakuntzan bildurik daudenentzat, egia guztiz hurbil dago.

Kristauaren hutsegina. Bekatua

Honen aurreko kapituluetan kristauaren zereginaz mintzatu gara. Zeregin hori betetzeak, kristau bakoitzaren historia betetzen du, argiaren bila doan bizitza baten historia; orobat, ordea, halakoaren hutsegiteen historia ere. Gure artean nork ez du bere bizitzan bere eskasiaren esperientzia ukan? Ez ote dugu hori guztiok sentitzen? Ez gara behar bezalakoak. Eta hori, gure fedea eskasa delako, gure esperantza kamutsa delako, gure maitasuna hotzegia delako.

«Bekatuaren indarra» delako kapituluan (*207-219*), gizadiaren elkarteko bekatua, jatorrizko bekatua deitzen dena, aztertu dugu. Ondorengo orrialde hauetan ere gure eskasiaz ihardungo* gara. Baina, oraingoan, norberaren mailan hartuko dugu.

Bai Ebanjelioak bai gure bizitzak, Jesusen beharra erakusten digu, gu eskolatzeko ezezik, gu salbatzeko ere bai. Jesus Jainkoaren Agerkundea da; eta noiz gerta liteke horrela, barkatzaile bezala agertzen den uneetan baino areago? Ebanjelioa barkapen hitzez beterik dago: teilatutik behera jaisten den elbarriarena* (*81*), Jesusen oinetan usaikia* isurtzen duen emaztekiarena*, gurutzeko lapurrena, eta beste hamaika horrelako... Guzti horien barruenean, norberaren egiazko mixeria, hots, bekatua aurkitzen du Jesusek. Eta Testamendu Berriko lehen hitzetatik, Jesusen herio garratza guk eginiko gaitzari loturik azaltzen da (ik. 1 Kor 15,3) (*159*).

---

atzemateN: aurkitzen. **ihardungo:** ariko, mintzatuko. **elbarria:** parlesiatua. **usaikia:** ukendua. **emazteki:** emakume.

Zer da bekatua? *(27)* **376**

Gizakiaren okerrik handiena ez da, marxismoak irakasten duenaren kontra (*224*), halabehar* hutsaren jokoaren baitan egotea. Ez. Kristau agerkundeak gaitzaz dioenez, okerrik handiena, hondo-hondoan, izaki askearen* nahimen gaiztoa da. Ez datza ere gaitz nagusia, budismoak dioenez (ik. *Budismoa* kapitulua), arrazoinketaz eta lehiaketaz* zuzen litekeen kreatura askearen akatsean; gaitzaren muina, Jainkoagandik saihesten* den eta bere egoera berritzeko gauza ez den gizakiaren etsaigoan datza. Gaitz nagusia ez datza ere, islamismoak adiarazten duen goi-lege hotz bat haustean (*222*); aldiz, Norbaiten maitasunari uko egitean datza. Azkenik —*humanismoaren* kontra (*223*)—, gaitza ez datza gizakiaren aurkako makurkeria hutsean; betiere, gure Kreatzailearen eta Askatzailearen kontrako iraina* da. Hori guztia dator *bekatu* izeneko kristau kontzetuan. Inongo gizakik erabat ordain* ez dezakeen moduan, giza eta Jainko maitasuna nork bere gogoz haustea da. Aipatu dugu, lau ikusmolde horiek zertan ipintzen duten gaitza: eboluziobidean akats huts bat, gizakiaren jarrera okerra baina gizakiak berak bere ahal hutsez zuzentzen ahal duena, lege hauste huts bat, edo, azkenik, gizakiaren kontrako hutsa; iritzi horik ez dira gezurrezkoak. Bekatuak, bere baitan, halabeharra eta ezina daramatza; aldi berean, ordea, nork bere burua gainditzea eskatzen du. Bestearen kontrako gaitza du bere baitan; aldi berean, ordea, Jainkoaren legea haustea da (*313*). Halaz guztiz, bekatuaren mamia ez du adiarazten puntu horietako ezerk. Bekatuaren mamia, besteren eta Bestearen maitasunari uko egitean datza; egiaz bekatu den edozerk darama horrelako uko egitea.

Gaitzaren misterioa *(410-413)* **377**

Izugarria dirudi guzti horrek. Bekatua, egiaz, hala da: gauza izugarria. Bibliaren irakatsiak —batez ere, betiko gaitzespenaz* Jesusek dioenak (*70*)— gaitzaren handitasunaz zalantzarik ez du uzten. Zerbaitegatik amaitzen da *Gure Aita* eskabide honekin: «libra gaitzazu gaitzetik».

Bekatu dagienak*, Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasunarekin buruz-buru dagoen zerbait iritsi nahi du (*379*). Modu batera ala bestera, maitasunaren ordena hausten du. Horrek ez du esan nahi, gaitza gaitzagatik bilatzen duenik.

---

halabehar: zori, patu. **aske:** libro. **lehiaketa:** saiatze, enpeinu. **saihesten:** urruntzen. **iraina:** laidoa. **ordain:** ordaindu, pagatu. **gaitzespen:** kondenazio. **dagienak:** egiten duenak.

Bekatu orotan, berez gaitz ez den zerbait ere bilatzen da. Beste bati zuzengabekeriarik egiten diona, edo zokoratzen duena, esate baterako, bere bizitzarako bizileku eta askatasun handiagoren bila dabil; eta hori, berez, ez da gauza okerra. Baina hori, inoren bizileku eta eskubideen bizkarretik iritsi nahi du, eta horretan datza okerra. Beste baten senarrarekin bizi denak, beste batzuen eskubide eta on handienaren aurka dihardu, eta bere kontzientziarekin buruz-buru*; ez du gaitza gaitzagatik opa. Halaz guztiz, bekatu dagi.

Bekatuan ona eta gaitza nahasian egote horrek bultzatzen gaitu sarritan bekatariari zuribide* bat aurkitzera, horrela jokatzeari arrazoin bat aurkitzera. Nahasketa hori, maiz, atxakia bat izan ohi da. Eta halere, hortxe ageri da bekatuaren ustelkortasuna ere: gauza on eta egiazko batetaz, Jainkoarena den gauza batetaz gaizki baliatzean. Guregan edo besterengan den onaz baliatuz bakarrik egin daiteke bekaturik. Norberaren ona bilatu ohi da, baina gauza guztiak kontutan hartzeke, Jainkoa kontutan hartzeke.

Agustin sainduak azterketa fin hauxe utzi digu (itzulpenean «arima»ren ordez «gizakia» idatzi dugu): «Bere ahala maite duen gizakia, orokortasunetik, guztiei dagokienetik, berari bakarrik dagokionera lerratzen* da. Horren errua harrokerian datza, «bekatuaren hasera» (Si 10,15) deituriko indar bereizgarrian. Izan ere, gizakia, Jainkoa gidari bezala eduki izan balu, Jainkoaren legeak bikain zuzendua izan zitekeen kreatura guztiei baturik; baina guztiei dagokiena baino gehiago eduki nahiak eta bere legeaz zuzendu nahiak, gauza bereziren atzetik ibiltzera bultzatu zuten; eta hori, guztiei dagokiena baino haruntzagoko gauza handiagorik ez delako izan da. Horrela, gehiagoren jabe izan nahirik, egitez murrizturik gelditu da» (*De Trinitate* XII, 14).

Nola iristen* da, gero, gizakia bekatura? (*212-213*). Ez ote da hori zorakeria bat, itsukeria bat? Ezagutza osoz egiten ote da bekatua? Gogo-gogoz? Hain adiezina* bait da bekatua, eta itxuragabea! Halere, hor dagoela nabari dugu. Zerbaitek, gure kristau esperientzian, gugandik kanpoko gertaeren okerbidea baino izugarriagoa dela bekatua adiarazten digu. Zerbaitek gure baitan badaki, bekatuan, geure ustearen aurka (jakinaren gainean, beraz) eta geure joeraren aurka (askatasunez, beraz) bide gaiztoa hartzen dugula, Jainkoaren maitasunetik urruntzen gaituena. Nahi duzun bezain handia izango da indarkeria... baina bekatua hor dago, hor.

Halere, bekatua ez da behin ere ezer gardena* izango: bekatu adikorra*, kontraesana* izanen litzateke. Bekatua zorakeria da, iluntasuna. Zeure bekatuaz, larriturik, honela dio-

buruz-buru: kontra. **zuribide:** atxakia. **lerratzen:** irristatzen. **murriztu:** kaxkartu. **iristen:** heltzen. **adiezina:** ulerrezina. **gardena:** argi eta garbia. **adikor:** comprensible, compréhensible. **kontraesan:** kontradizio.

zu: «Baina... nola heldu naiz ni honetara? Ezerk ez ninduen behartzen!». Ona adikor da, «argia», «*ordenan dagoena*»; besterekin eta Jainkoarekin bakean bizi arazten gaitu. Bekatua ez dago «ordenan»; ordenatik at joaten da, desordena sortzen du eta bakea hausten bekatuak. Horregatik ez da egiten gaitza ona bezain ezaguera eta kontzientzia handiaz. *Nerau*-a bakar-bakarrik gelditzen da. Bekatua hesparru* hertsia da; handik ezin ihesegin da. Egiazko aitortzak bakarrik askatzen ahal zaitu hartatik: ni neu naiz bekatu egin dudana!

Bai, nik neuk egin dut, baina ez nik neuk bakarrik. Besteren bekatuaz kutsatua naiz. «Bekatuaren indarra» delako kapituluan horretaz mintzatuak gara (*207-219*). Munduaren bekatua dela bide, onak ezezik, munduko gaitzak ere badu eraginik guregan. Norberaren bekatuan munduaren gaitza azaltzen da; baina une berean —egiazko bekatua baldin bada behintzat— gurea den gaitza ere bai (Geroago ere ihardungo gara gaitzaren misterioaz, azken kapituluan) (*408-414*).

Bekatu larriak eta arinagoak 378

Bekatua larriago ala arinago da. Ezagueraren eta barne-askatasunaren neurrian, desberdina izan ohi da adin* batetik bestera, egoera batetik bestera, gizaki batengandik bestearengana. Gainera, egiteak berak ez dira garrantzi berekoak. Ukabilkada bat ematea, berez, hilketa baino arinago da.

Kristautasunaren[59] lehen mendeetan ez zen landuriko zerrendarik, bekatu larriak eta arinagoak bereiziz. Jakina, denek zekiten bekatu batzu beste batzu baino larriago zirela. Guztiz zorrotz hartzen ziren apostasia (idolatria edo sasigurtza), hilketa eta adulterioa, ageriko* eskandalu zirenez (*383*). Gainerantzean, ez zen markatzen halako muga zehatzik bekatu «handi» eta «txiki»ren artean. Ordutik zenbait mendetara sortu ziren bekatu zerrendak, aitortzarako lagungarri, Komunio aurretik aitortu behar zirenak aipatuz. Egite haiek, beren mamian hartuz gero, Jainkoarekiko etsaigo handia adiarazten zuten, eta erruduna* ez zen Elizaren elkartasunerako gauzatzat jotzen. Halakoa, bere baitan, Jainkoagandik etenik bezala jotzen zen; gaitzespena* merezi zuen halakoak.

Bereizketa hestu horrek, «hiltzaile» eta «barkagarri» (bekatu «astun» eta «arin») diren bekatuen arteko horrek, egundoko zerikusia ukan du herrien hezketan, gizadiaren eti-

59 Ik. *Eraskina*: «Biblian maiz...» 560 or.

hesparru: barruti. **adin:** edade. **ageriko:** jendaurreko, publiko. **errudun:** hobendun, bekatari. **gaitzespen:** kondenazio.

kazko aurrerapenean*. Bereizketa horrek, bekatuaren larritasuna adiarazten digu, Bibliak izkutatzen ez digun larritasuna.

Bereizketa legekoiegia eta zehatzegia egin nahiak ere, ordea, bere alde txarrak baditu. Gerta daiteke, itsu-itsuan egite edo gertaera hutsari egiten zaiola kaso, eta bihotz jarrera ez dela gogoan hartzen; halere, Jesusek dioenez, bihotzean aurkitzen da gaitz ororen egiazko sorburua (ik. Mk 7,14-23) (*97*).

Hain hertsi mugatzeari, beste desegokitasun bat dario, aipatu dugunarekin lotua dagoena: bekatu arazoan, egite soilak, mugatu eta bata bestearen ondoren ipin zitezkeenak hartzen ziren kontutan; ez zen, inola ere, hain kontu handitan hartzen barne-jarrera, hau egite sail batetan eta giza ihardunbide* osoan azaldu ohi denez. Igandeko meza hutsegitea, esan beharreko bekatu zen; baina, horren sorburua nahiz ondorio zen axolagabekeria hotza, ia aipatu ere ez (*244, 257*).

Hitz batean, esan dugunak hauxe adiarazi nahi du: ez daitekeela erabaki hain zehatz, ez daitekeela esan halako egite hura bekatu astuna denik ala ez. Noski, zenbait kanpoko egite, ezagupide garbi da, barne-jarrera xit okertua dela ezagutzeko. Elizak, egite bat bekatu astuna dela dioenean, giza eta kristau balio bat jokoan eta arriskuan dago. Zenbait gauza garbi ageri da gaizto bezala, eta edonork berez ikusten du hori gaizki dagoela. Esate baterako, hilketa, adulterioa, beztura* larria, norbait lagundu ordez hiltzen uztea, etab. Baina, orduan ere, hondo-hondoan, barne-jarrerak determinatzen du egintzaren erruduntasuna*.

Jainkoagandik saihestua* 379

Gaitza astunki egiteak barne-jarrera bat darama berarekin: lagun hurkoagan eta geure kontzientzian topatzen* dugun Jainko horrengandik geure burua urruntzea; Jainkoarekiko eten larria. Hori ez da gertatzen gorrotorik dagoenean bakarrik; leialtasunerako eta maitasunerako oinarrizko den zerbait ukatzen dugunean ere bai. Horrela, senarrak emazteari zauri larria egin, gorrotoaz bakarrik ez baino leialtasunik ezaz ere, bien arteko maitasunaren balio funtsezko* bat urratzen duenean ere egiten dio (*377*).

Horrelako bekaturik ez da hain aisa egiten. Bekatu astuna ez da zirtzilkeria* bat. Huskeria bat bekatu larritzat hartzen duenak bekatu larria huskeriatzat hartuko du. Liguori-

aurrerapen: aintzinamendu. **ihardunbide:** jokabide. **beztura:** calumnia, calomnie. **erruduntasun:** hobenduntasun. **saihestua:** urrundua. **topatzen:** aurkitzen. **funtsezko:** nagusi. **zirtzilkeria:** huskeria.

-ko Alfontso sainduak bere gisara adiarazten du hori: elefante bat etxera sartzen bazaizu, laster konturatzen zara! Ez da egiten bekatu astunik ustekabean. Baina, alderantziz*, zurikeria handi batek eragozten* ahal digu gure baitako egiazko gaitz bat ikusten. Esate baterako, mila puntu txikiz axola handienaz ardura gaitezke, kristau balio handia den ontasuna aldamenera utziz. Jesusek dioen bezala, eltxoa* iragazten* da, eta gamelua irensten (ik. Mt 23,24).

Mateorenean (25, 31-46) ongi azaltzen du Jesusek gakoa* zertan datzan; hitz horiei beldur diegu.

Bekatu astunean bizi dena, Jainkoaren etsai ahal da? eta, egoera horretan hilko balitz, betirako galdua ote litzateke?

Bai[60]. Gogozko etenean, gogozko axolagabekeria osoan bihotz-gogortzen dena, Jainkoaren etsai bezala bizi da. Eta heriotzeraino eta heriotzean bere gogozko haustura horri eusten badio, betiko gogorkeriazko egoeran finkatzen* da, ifernuan (*401*).

Baina itzul gaitezen berriro gorago esan dugunera: egiazko bekatua, guztien gain, jarrera* bat da. Egite soil batek, berak bakarrik, ezin erabakitzen ahal du norberaren jokabide osoa. Agian bekatu izugarriren bat egin dugu; eta egiaz bekatu astuntzat hartzen dugu — barne desleialtasunagatik ere bai. Eta halere, badaiteke, Jainkoak gure jarreran zen alde ona kontutan hartzea, eta guk geure burua baino urrikaltsuago epaitzea* Hark gu.

Baina eman dezagun norbait gogortua dagoela gaitzean, Jainkoaren etsai oso bezala bizi dela, egiaz ifernua merezi duela; halaz guztiz, orduan ere, bizi den bitartean, bada itxaropenerako biderik. Gizakia saihestu da, bai, ontasunetik eta graziatik. Baina, Jainkoa hura itzuli zain dago, bihurtu zain, humildu zain, damutu zain. Ez da aspertzen aukera eskainiz (ikus Jr 1,2-3).

Horregatik nahiago dugu «bekatu hiltzaile» hitza ez erabil. «Hitzaile» hitzak behin-betirakoegi, barkagaitzegi egiten du bekatua. Hobekiago, bekatu astun edo larri deitzen dugu: gaitz larri bat ere ez da heriotzea, honetara hel* badaiteke ere.

Eta egitez, bekatu astunak betiko bihotz gogortasunerako bidetan ipintzen du gizakia. Horregatik arras arriskutsua da Jainkoaren ontasunaren kontrako bidetan bizitzea. Gogoeman* dezagun hori; bizitzako kezkek ez gaitzatela saihestu pentsamendu horretatik. Zerbaitegatik esan zuen Jesusek, eta

60 Ik. *Eraskina*: «Bekatu astuna...» 561 or.

alderantziz: bestalde. **eragozten:** trabatzen. **eltxo:** ulitxo. **iragazten:** calar, filtrar, filtrer. **gakoa:** korapiloa. **finkatzen:** gogortzen. **jarrera:** postura. **epaitzea:** juzgatzea. **hel:** heldu, iritsi. **gogoeman:** pentsatu.

birresaten du Elizak: «Zuei esaten dizuedan hau, guztiei esaten diet: Zaudete erne!» (Mk 13, 37).

Barkapena

Jaunak, bazkoaldiko emaitz bezala, bere barkatzeko ahalmena eman dio Elizari. Berbizkunde egunean Jesusek apostoluen gain nola hatsegin* zuen eta zer esan zien kontatzen digu Joan sainduak:

> «Har ezazue Izpiritu Saindua. Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak ukanen ditu, eta nori lotzen dizkiozuen, lotuak ukanen ditu» (Jn 20, 22-23).

Izpiritu Sainduaren bitartez, Jesus gure artean bizi da. Izpiritu berorren bitartez heltzen zaigu barkapena. Oraino adiarazgarriago, Mendekoste* ondoko asteartean Liturgiak honela dio Izpirituaz: «Bera da bekatu guztien barkapena».

Izpirituak ematen duena eta Izpiritua bera, beti gure artean dago (*150-153*). Barkapena, beraz, gure artean dago. Gure bizitza guztiak daraman barkapenaren marka (*184-235*). Bai. Gizarteko gure bizitza osoak darama marka hori. Kristauok eta kristau ez direnak Ebanjelioari eta Elizari darien barkapen girotan hain girotuak gaudelarik, ez gara gauza beste inola izan daitekeenik pentsatzeko ere. Urriki* girotan bizi gara; berezko bezala ageri zaigun girotan. Izan ere, Testamentu Zahar eta Berriak etengabean hotsegiten digute Jainkoaren urrikia: gure baitan errotuenik* dugun gaitza ere barkatzen digula esanez. Barkapen usteak hain barneraino kutsatzen gaituelarik, katolikoengan batez ere (*175*), hain bikaina ez den zerbait gertatzen da agian: hau da, gaitzaren handitasunak ez gaituela hunkitzen. Protestanteek (eta kristau ez direnek) biziago sentitzen dituzte, zenbait bider, gaitzaren handitasuna eta ordainezina.

On litzateke Jainkoak barkatzen digunean gertatzen denaz gu ere jabetzea.

Barkapenaren alderdi nagusia: ordainketa 380

Kristoren eroskundeak gure bekatuak egiazki hondatzen dituela sinesten dugu. Barkapenak ez du esan nahi, beraz, geure gaiztakerian jarraitzen dugunik eta Jainkoak, Kristogatik, gure bekatuei buruz begiak hesten dituenik. Ez. Barkapenak gizaberritu egiten gaitu, berri bihurtzen gaitu.

Baina hona galde bat, sarritan arinegi haizatzen duguna. Bekatuak kaltea egiten du. Guri eta besteri. Har dezagun ho-

hatsegin: arnasegin. **Mendekoste:** Pentekoste. **urriki:** erruki. **errotuen:** sustraituen.

nelako bat: norbaitek, bere ipuinez, beste bati beronen izen ona kendu dio, eta itzul ezineko moduan kendu ere. Elizak bekatu hori barkatuko dio, Kristoren izenean. Baina kalteak hortxe dirau*. Izen ona hondatua gelditu da. Bekatua lanean ari da oraindik. Orduan, bekatua egiazki barkatua gelditu dela esan ahal dezakegu? Bekatuaren muina, bai, hots, Jainkoaren eta lagun hurkoaren kontrako gogortasuna, bai. Jainkoaren Izpirituaren egitez gizona aldatu egin da. Berriro jarri da bide zuzenean.

Eta horretatik hasten da bekatuaren ondorioen kentzea ere; izan ere, damuak eta barkapenak eskatzen duten lehen baldintza, gaitzaren ordainketa hastea da. Zenbaitetan, lapurreta denean esate baterako, zuzenketa oso-osorik egin daiteke. Egoera garratz batetan, lehenago aipaturikoan, esate baterako, zuzenketa hori ezinezkoa da; errudun damutua, halakoetan, okerrak zuzentzen beste modu batetara saiatuko da: adibidez, egintza onen bat eginez. Damuak, gaitzaren ordaingarri, sufritzeko gogoa ere sor arazten du gizakiaren bihotzean: penitentzia egiteko gogoa, alegia. Elizaren tradizioak izen bat eman die gauza guzti hauei: egindako kaltearen ordainketa, egintza onak, penitentzia, heriotze ondoko garbikuntza, osorik ordaindu gabeko gaitzen ordainketa garbitokian.

(Iragan* mendetan[61], zenbait bider, neke jakin baten ordez egintza on probetxugarri bat egin zitekeen; Jerusalena erromes joan ordez, esate baterako, bidelarientzat* zubi bat egin [*180*]. Aitzinagoko ohitura baten arabera, martiri baten nekea, Elizak ezarririko zigorraren parte baten ordain izan zitekeen. Bi ohitura hauk dira indulgentzien sorburuan. Penitentziaren ordez egintza on bat egin —eta beranduago, osatu gabe geldituriko zigorraren ordez ere bai—, eta bien arteko aldea «sainduen merezien altxorretik*» betetzen zen. Elizak Jainkoari hartatik hartzeko eskubidea eskatzen zion. Egite horik zaharkiturik* daude; baina, beren baitan zeramaten fedea gordetzekoa da: Eliza, Kristoren barkapenaren aberastasunak ahalik ugarien isurtzen saiatzen da; eta guk, geure aldetik, zerbait onik eginez agertzen dugu geure borondate ona).

Gaitzaren ordainketarik baliotsuena, bizitza bera da, honen bukaera, hots, heriotzea eta guzti: horrela «Jesus bataiatua izan deneko bataio beraz bait gara bataiatuak» (*192*). Jesusen aldamenean gurutziltzaturiko lapurrak ere, horrela ordaindu du bere bizitzako bekatua, Kristoren ahalmen hutsaz.

61 Ik. *Eraskina*: «Egite horik...» 555 or.

dirau: irauten du. **Iragan:** iragandako, igarotako, joandako. **bidelari:** bidazti, viajero, voyageur. **altxor:** gordailu, tesoro, trésor. **zaharkitu:** zahartu.

Ez da pentsatu behar, beraz, arinegi, Elizak emaniko barkapenak, denak eta bapatean, eta besterik gabe, guztia konpontzen duenik. Barkapena ez da norberaren zama kentze hutsa, eta geure arima arintzea bakarrik. Graziara bihurtzen gara noski; baina horrek geure bekatutik eta besterenetik jaiotzen den gaitzaren kontra, eta Kristorekin batera, borrokan parte hartzen dugula esan nahi du.

Aldi berean, gure buru-bihotzek ez lukete behin ere ahantzi behar honako zera nagusi hau: Jesusi esker, ona gaitza baino indartsuago dela. Barkapena —gure ordainketa lanak eskatzen dituena— egiaz askapen da, erospen, berriztapen*, bir-kreazio (*193*). Urtetan luzatuko da aldaketa, eta zenbait bider guk uste ez bezala izango da. Esate baterako, uste genuen, gure aurrerapena gure haserrekoikeria kentzean izanen zela; baina, egitez, hazi gara, bai, eta, agian ustekabean, humiltasunean eta samurtasunean aurreratu dugu; haserre bolarak*, berriz, hor agertzen dira bizi-bizi. Jesusen barkapenari esker, ona gaitzaren gain dago; uste horrek zainduko gaitu gure bizitza osoa bekatuaren eta hutsegiteen zamapean makurturik bizitzetik. Jainkoaren Izpirituarekin bizi bagara eta berorrekin lanegiten badugu, gure bizitza alaitasunez, bakez eta lasaitasunez beterik izango da, Jainkoaren Izpiritua barkapenaren Izpiritu bait da.

Eliza, barkapen bide 381

Eliz elkartea, gizon-emakumeei Jainkoak damaien barkapena zera bizia gertatzen den lekua da. Kristok bere Elizari, bekatuak barkatzeko mandatua eta ahalmena eman dizkio. «Elizago» egiten gaituen oro, Jaunarengan baturiko «elkarteago» egiten gaituen oro da barkapen iturri (*235*). Gorago aipatu ditugun kalteak ordaintzekotan eginiko ahaleginek, «batuago» bihurtzen gaituzte; horregatik, barkapen bide dira. Senar-emazteek nahiz bi lagunek, adiskidetzean, Jesus beren artean dute, eta bere barkapen Izpiritua ematen die Jesusek. Izan ere, adiskidetze horrek Eliz elkartea egiten bait du. (Jesusen izena ezagutzen ez dutenen artean ere [*194*], uste dugu, egiazko adiskidetze zuzen batek Jesusen Izpirituaren araberako elkartasun piskat sortzen duela). Hautsitako elkarte bat horrela bir-elkartzea ikaragarri nekeza izan daiteke. Baina, dena dela, ezin pentsa daiteke Jainkoagandiko barkapenik elkarrekiko barkapenik gabe. Jesusek garbi esaten du hori Mendiko Hitzaldian (*91*). Geure oparia aldare aurrean utzi, eta lehenik senidearekin bakezkoak egiteko esaten digu (ik.

berriztapen: renovación, rénovation. **bolarak:** aldiak.

Mt 5, 23-24). Gainera, Aitari gure zorrak barkatzeko erregutzen* diogu, guk geure zordunei barkatzen diegun bezala. Bestalde, meza haserako barkapen otcitz laburrean, gure bekatuak guztien aurrean aitortzen ditugu, eta batak besteari. Liturgian Ebanjelioko hitzak batera entzuteak bekatuak barkatzen ditu. Arras garbitzaile dena, Eukaristian partehartzea da; hori bait da elkartearen sakramendu bikainena. Eta Eliz elkartera sar arazten gaituen sakramenduak, hots, bataioak, gure bekatuetatik garbitzen gaituen basia* adiaraztea eta izatea, ez da harritzekoa (*180*).

Penitentzi sakramendua 382

Baina gure kristau bizitzan barkapenaren ezagupidea penitentzi sakramendua da, aitortza alegia. Ez da penitentzi sakramendurik, elkarrekiko adiskidetzea gertatzen ez bada, eta Elizan diren beste barkapen bideekin batera ez bada. Penitentzi sakramendua, barkapenaren bide gailurra* da.

Zergatik, ordea, ezagupide hau? Sakramenduek, gure bizitzako une handi guztiei tankera ematen dietelako: jaiotzeari, hazteari, senar-emazteen batasunari, otorduari, gaixotasunari. Bekatua ere, une horietakoa da. Horregatik, hor ere, Jaunak bere hurbiltasun handiaren ezagupidea ematen digu. Ezagupide horretan gurekin elkartu nahi du, gu sendatzeko gauza denez.

Aitortzea gauza ona baldin bada, honexegatik da lehenik: Jaunak bere izenean barkapen hitza esateko eskubidea Elizari eman diolako. Aitortu *ahal izatea* grazia bat, mesede bat dugu.

Elkarrekiko barkapenaz gain, Jainkoarekiko gure adiskidetzeari tankera berezi eta ageria ematen diogu: badu esanahirik, beraz. Izan ere, nola edo hala hutsegiten dugun bakoitzean, gure Kreatzaile eta Salbatzaile dena ere iraindu* egiten dugu. Horregatik da hain garrantzizkoa, Jainkoari barkapen berezia eskatzea, eta bereziki lortzea.

Jainkoarekiko eta lagun hurkoarekiko harremanak lardaskatu* egin ditugu geure bekatuaz. Harreman horik geure aldetik berriztatzeko ez gara gauza (*214, 226*). Hona beste arrazoin bat aitortzarako. Izan ere, penitentzi sakramenduak, barkatzaile eta sendagile den Jainkoaren ahalmena ere ezaguarazten eta gureganatzen bait digu.

erregutzen: eskatzen. **basia:** mainua, baño. **gailurra:** gorena. **iraindu:** laidostatu. **lardaskatu:** nahasi.

Adiskidetze hori *Elizaren* sakramendu batek egiten du. Zerbait esan nahi du horrek. Hain zuzen, bekatu astunak, grazi elkartearekin ere, hots, Elizarekin ere, urraketa* sortzen du. Eta hain astuna ez den bekatuak ere, kalte dagio elkarte horri; geure aldetik, bekatuaz, saindutasun eskasagoko bihurtzen bait dugu. Barkapenak, grazi elkarte horrekin berriro barne adiskidetasunera itzultzen garela esan nahi du. Hain zuzen ere, sakramendu honen lehen esanahia hauxe da: Izpirituaren elkartearekin, hots, Elizarekin batasuna berriztatzea.

Arrazoin hauk guztiak, norbaitek gaitz astun bat egin duela dakienean balio dute batipat*; hutsegite horrek Elizarekiko batasuna eta Jainkoarekiko adiskidetasuna hautsi bait ditu, eta Komunioa eragotzia* zaio (*384*). Ez daiteke hurbil Jaunaren mahainera, berarizko* formaz —hots, aitortzaz— adiskidetu bitartean.

Horrez gero, kristau elkarteak ezinbesteko* eginkizuna du kristau barkapenean. Berari eman zaio horretarako ahalmena: «Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak ukanen ditu» (Jn 20, 23). Mandatu hori dela eta, apostoluak eta hauen ondorengoak, Izpiritu Sainduz bereziki beterik daude, besteren alde (eta ez norberaren alde; apaiz batek ezin eman dio barkapenik bere buruari). Penitentzi sakramenduaren emaileak, gotzainak eta apaizak dira (*292-295*).

Penitentzi sakramenduaren eboluzioa 383

Sakramendu honen ageriko forma oso desberdina izan da historian zehar (*200*). Sakramendu honena baino argibide hoberik ez dago, Kristok sakramenduak ez zituela zehatz-mehatz antolatu* egiztatzeko. Elizari utzi dio eginkizun hori, sakramenduaren tankera fededunen gorabeheratara eta premiatara* egoki zezan.

Lehen mendetan, aitortzera ez zen hain maiz jotzen; eta gaurregun baino zorrotzago jokatu ohi zen prenitentzi sakramenduan. Hiru bekatu aitortu ohi ziren bakarrik: apostasia edo idolatria, hilketa eta adulterioa (geroago, lapurreta ere bai) (*378*), agerian eginak zirenean eta, horrela, eskandalu bide gertatu izan zirenean. Gainerako bekatuak elkarren arteko adiskidetzeaz barkatzen ziren, otoitzaz, norberaren ordainketaz*, egite onen bidez, etab. Baina aipaturiko hiru bekatuetatik bat agerian egin zuena, gotzainari aitortu beharrean izaten zen, eta orduan ofizialki hartzen zuen penitentzigile izena. Ageriko penitentzia onartu behar zuen, eta ez zuen Eukaristiarako eskubiderik ukaiten. Barkapena beranduago eman ohi zitzaion, Ostegun sainduz. (Beraz,

urraketa: haustura. **batipat:** batez ere. **eragotzia:** debekatua. **berarizko:** explícito, explicite. **ezinbesteko:** beharrezko. **antolatu:** eratu. **premiatara:** beharretara. **ordainketa:** expiación, expiation.

aurrenik penitentzia egin ohi zen; barkapena, ondoren). Barkapen hori bizitza osoan behin bakarrik har zitekeen. Norbait bigarren aldiz bekatuan erortzea, aurreko konbertsioa egiazkoa izan ez zenaren seinale ohi zen. Penitentziaren eta barkapenaren ondoren, sarritan beste penitentzia bat gelditu ohi zen betetzeko.

600. urte inguruan, ekialdeko eta Irlandako monjeen eraginez, izkutuko bekatuak ere *aitortzeko ohitura sortu zen*. Barkapena, bekatuak aitortu orduko eman ohi zen; ez zen ematen, ez agerian ez egun berezitan. Horrela, penitentzia barkapenaren ondoren eman ohi zen, eta ez zen agerikoa; nork bere aldetik bete ohi zuen. Gainera, penitentzi sakramendua bizitzan behin baino gehiagotan har zitekeen. Barkapen sakramenduaren tankera «berri» honek betiko kristau egia bat adiarazten du: hiltzaileak eta adulteroak ez dira bekatari bakarrak; guztiok gara bekatari. Tankera berri horrek aurrerapena dela ematen du. Gaur ere, Kristoren Bazko garaiko emaitz* hori, Elizan tankera horretan hartzen dugu.

Sarri aitortu behar ote? 384

Elizaren hainbat jaiegun edo norberaren bizitzako hainbat gertaera, sakramendu hau hartzeko une egokia da (*121*): Bazko eguna, Eguberriak, ezkontzarako nahiz jai batetarako gertuera*, garrantzizko lan baten hasera. (Zenbait katedral handiren egilek grazi bizitzan lan egitea erabakia zuen. Ez ote luke esanahirik horrek gaurregun gizartea egiten dihardutenentzat*?). Aitortza, bereziki, une apartekotarako zaigu emana: bekatu zentzua biziki sartua dugunerako, batipat bekatu astunean bizi garenerako. Bekatuan gogortu nahi ez badugu, benetako aitortza, garratza baina askatzailea (eta hori ezinezkoa izanen da egindako kaltea ordaintzeko asmorik gabe), izanen da gure damuaren eta Jainkoaren barkapenaren ezagugarririk garbiena. Bekatu astuna egin duenari, Elizak Komunioa eragozten* dio (eragotzi, alegia, Kristorekiko eta Elizarekiko elkartasun agerian parte hartzea), aitortu bitartean. Agindu horrek zutik dirau, nahiz eta barneko eta ageriko konbertsioak berak Kristorekiko eta Elizarekiko adiskidetzea hasia ukan. Izan ere, Kristoren Elizaren sakramenduaz osatu behar bait da adiskidetze hori (*198-201*).

Askori gogoko zaio penitentzi sakramendua sarritan hartzea. Larritasunagatik edo eskrupuluengatik bada hori, hobe du sarritan ez aitortzea. Jokabide horrek Kristo barkatzaile bezala aurkitzeko gogoa adiarazten badu, ordea, sarritako aitortza xit ebanjelioaren araberakoa izan daiteke. Baina, ezin behar* daiteke inor horretara, ez erlijiosoen elkarteak ere. Gaur batez ere, hobekiago bait dakigu Elizan beste mila barkapen bide badela.

---

emaitz: erregalu. **gertuera:** prestaera. **dihardutenentzat:** ari direnentzat. **eragozten:** debekatzen. **behar:** behartu, obligatu.

Sakramendu hau osatzen dutenak hiru hauetxek dira: damuzko aitorpena, barkapena eta aitorleak emandako penitentzia. Tankera honek[62] aldaketa asko ukan lezake.

Esate baterako, nork bere bekatua, elkarteko liturgikizun batetan aitor lezake. Era hau bereziki ari da zabaltzen gaurregun. Alderdi on asko du. Elkartean eginiko gertuerak, bekatuaz lukeen ikusmodu hertsi* eta gezurrezkotik aska lezake kristaua, agian haurtzaroan jasotako ikusmodu hertsitik. Gainera, elkarteko penitentziak, bakarkako aitortzan hain egoki aitor ezin litezkeen bekatuak esateko bidea eman liezaioke: adibidez, munduko mixeriaren aurrean guztion arteko ezina. Gainditu ezineko gaitz horretan ukan genazekeen partea barkatzeko eskatzen diogu Jainkoari, eta aukera* etortzean guk geuk ordainduko dugula agintzen diogu.

Elkarteko penitentzi liturgikizun horik otoitz batez amai* daitezke: horretan, apaizak, batzarturiko* fededun guztientzat barkapena eskatuko luke. Dena dela, ezin har daiteke hori penitentzi sakramendutzat. Halaz guztiz, elkarteko penitentzi liturgikizun hori beste tankera batetan antola* daiteke: bakoitzari bere bekatuak bakarka esateko bidea emanez, alegia, eta hartara, sakramenduzko barkapena hartzeko aukera ere duelarik.

Beste tankera bat, guztiz bestelakoa, hauxe izan daiteke: aitortza, hitzaspertu* luze bat bezala, edozein gela edo lekutan egiten da; ondoren, apaizak penitentzia bat ezartzen du, eta Jesusen izenean barkapena ematen.

Gaurdainoko usarioa, bi horien artekoa da: nor bere aldetik prestatzen da, eta isilean bekatuak esaten ditu; ondoren, apaizak, labur-labur, aholku* batzu ematen dizkio, eta barkapena; eta guztia elizan (aitortegian). Era honetan, aitorketa-penitentzia-barkapena bata bestearen ondoren gertatzen dira.

Aitorketa (bekatuak esatea) 386

Geure bekatuak apaizari aitortzen dizkiogu. Eta hau ez da behin ere gauza erraza izan. Bekatuen aitorketa horretan, bizitzan oso gutxitan gertatzen zaiguna gertatzen zaigu: nori jarraiturik ez dugula, haren antzera jokatu ahal izateko. Hori dela eta, kristau asko, bizitza osorako, txikitan ikasitako aitorketa erarekin gelditzen da, eta bata bestearen ondoren bekatu zerrenda baten xehetasunak emanez egiten du bere aitorketa. Baina, esan beharra dago, askoz ere hobea dela,

62 Sakramendu honen ritua berriturik eta aberasturik dadukagu orain; ik. rituala.

hertsi: hestu. **aukera:** beta, parada, okasioa. **amai:** amaitu, bukatu. **batzartu:** elkartu. **antola:** antolatu, eratu. **hitzaspertu:** konbertsazio. **aholku:** kontseju.

hitz gutxitan funtsezko* jarrera erruduna eta zenbait hutsegite larriren agertzea. Beste zehaztasunik gabe, aitorketa «bekatu egin dut» esanez bakarrik egitea ez litzateke aski. Izan ere, aitorketa nork bere gaitza agertzea bait da.

Baina, zertarako aitortu? Ez ote litzateke aski izango isilean Jainkoari otoitz bat egitea? Barkapen iturri den Elizarekin adiskidetuz bakarrik adiskide gaitezke Jainkoarekin. Jaunak Elizaren buruzagiei eman nahi izan die barkatzeko ahalmena. Eta gure bihotzak ere, bere izaeraz, norbaiti esan behar dio bere errua, une berean aitorketa horrek larriarazten badu ere, eta atzera joarazten.

Aitorketarakoan ez da beharrezko bekatu guztiak esatea. Noski, gaitz astuna esan beharra dago; handika adiaraziko da, xehetasunetara jaitsi gabe. Zenbaitetan, aitortu nahi litzatekeena ezin adiarazi* ohi da. Baina apaizari hitz egokirik ez duzula aurkitzen esatea bera, aitorketaren hasera da. Orduan, uste baino errazago gertatu ohi da aitorketa bera.

Aitor-entzuleak[63] ez du entzute hutsera mugatu behar bere egitekoa. Nolarebait, gainera, «epaile» da: epaia emateko eskua* du. Batipat, ez du bete behar bere eginkizuna, aitortzaileak* aitortu nahi ez dituen xehetasunei buruz galdeginez. Aitortzaileari dagokio hori. Halere, aitor entzuleak badaki aukeraz baliatzen zenbait ikusmodu oker zuzentzeko; esate baterako, norbait uste honetan egon daiteke: Jainkoak garbitasunari eta igandeko mezari besteri ez diola begiratzen; horrelakoetan, aitor-entzuleak, zuhurtasunez, Ebanjelioak eskatzen dituen ontasun, zerbitzu, otoitz bideetatik bultza dezake aitortzailea. Horrela, arindu eta askatu egiten du kristaua. Aitor-entzulea aukeratzean*, eskubide osoa dugu zorrotz jokatzeko, eta, dagokiguna aurkitu bitartean, bila aritzeko.

Penitentzia 387

Gure aitorketa entzun ondoren, aitor-entzuleak penitentzia bat ezartzen digu. Gehienetan, arina izaten da, eta erruarekin proportziorik ez duena; izan ere, Kristoren gainezkako grazia sinesten bait dugu. Kristo da, eta ez gu, gure bekatuen ordaina eman duena. (Ik. gaitzaren ondainketaz gorago esana). Halere, penitentzia ez genuke itxurakeria huts bihurtu behar. Hiru «Agur Maria» ezartzea, ez dirudi penitentzia egokia denik. Gaizki-esaka ibili dela aitortzen duenari, esate baterako, penitentzia hau ezar dakioke: bere esanaz biztutako susmo txarra ken lezakeen zerbait esatea; isileko adulterioa egin balitz, atzipeturiko* emakumeari poz handiren bat ematea. Aitorketari legokiokeen Bibliako zatiren bat irakurtzea ere ezar daiteke penitentzia be-

63 Ik. *Eraskina*: «Aitor-entzulearen egitekoa...» 555 or.

funtsezko: oinarrizko. **adiarazi:** jakinarazi. **eskua:** ahalmena. **aitortzaileak:** aitor egileak. **aukeratzean:** hautatzean. **atzipetu:** tronpatu, engainatu.

zala (Mendiko Hitzaldia irakurtzea, adibidez). Zenbaitetan, aitorleak hauxe uste izango du: ez dakiokeela bekatariari, ez gauza handirik eska, ez esan. Horrelakoetan, aitortza ezdeus* samar azalduko da, gure egunoroko bizitza bekatariaren antzeko. Baina aitorketa mota hori ez litzateke hartu behar gauza egoki edo egokiena bezala. Aitortza ez daiteke ohiturakeria bilaka.

Barkapena edo absoluzioa 388

Barkapena edo absoluzioa hitz hauekin ematen da: «Nik barkatzen dizkizut zure bekatuak, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Amen». Jesusen hitzak erabiltzea baino ez da hori: «Nori bekatuak barkatzen dizkiozuen, barkatuak ukanen ditu» (Jn 20, 23). Horregatik, aginpidez* esaten du apaizak: «*Neuk* barkatzen dizkizut zure bekatuak». Garbi dago, inork ez duela horrelako ahalmenik berez. Apaizaren ahoz Jainkoaren Izpiritu Sainduak hitzegiten du (*299*).

Damua 389

Penitentzi Sakramenduak ez du batere esanahirik damurik ez duenarentzat, barne-barnetik aldatzen ez denarentzat. Kristo etorri denetik, damua zer den badakigu. Damua, lozorro morala baino handiago da, larria baino handiago, bihotz zimikoa* baino handiago, atsekabea baino handiago, gauza doilor* bat egin izanaren zentzua baino handiago (*313*). Jainkoaren maitasuna itsusitu duzulako ustea da: inola ere ez dagokidan gauza bat hondatu dut (*276*). Maite nauen Norbait iraindu* dut. Hutsegite batetaz atsekabe daiteke gizakia, fededun izateke* ere. Damuak, alabaina*, fedea eskatzen du, barkapenaren itxaropena du bere baitan, Jainkoaren urrikiaren* zentzua, Jainko Elizaren sakramenduen bidez adiskidetzeko gogoa.

Bekatuen kontrako gure borroka, itxuraz fruiturik gabe, oso luzatzeak, ez du esan nahi damua egiazko ez denik. Agian, poliki-poliki, aldaketa bat ari da mamitzen gure baitan: graziaren garaira eramanen gaituena; aldaketa bat, alegia, oraino bururatzen ere ez zaigun bertutetara garamatzana. Pottegite* eta guzti, pentsa dezagun Jaunak ez duela itzaliko argi erdi-itzalia, ez duela hautsiko kainabera zartatua*.

Egindako gaitzaren gain onaren indarra dagoela esan du Jesusek. Simon fariseuak bere etxera bazkaltzera deitu zuen batetan gertatu zen:

---

ezdeus: hutsal. **aginpide:** autoridad, autorité. **bihotz zimiko:** remordimiento. **doilor:** itsusi. **iraindu:** laidostatu. **izateke:** izan gabe. **alabaina:** halere. **urriki:** erruki. **pottegite:** hutsegite. **zartatua:** kraskatua.

«Fariseu batek bazkaltzera deitu zuen Jesus. Sartu zen fariseuaren etxera eta mahainean jarri zen. Eta hara non agertzen den emakume bat, herriko bekatari bat. Jakin zuen Jesus fariseuaren etxean zena, eta ukendu gozozko alabastro ontzi bat eraman zuen. Eta atzekaldean, Jesusen oinetan jarririk, negar batean hasi zitzaion bere malkoz oinak bustitzen; gero bere buruko ilez xukatzen zizkion, musuz betetzen zituen eta ukenduz igurtzitzen. Hori ikustean, hala zioen bere artean deitu zuen fariseuak: Gizon honek, profeta balitz, jakingo luke nor eta ze emakume den ukitzen ari zaion hori: nola bekatari bat den. Jesusek hitza hartu eta esan zion: Simon, badut ba nik zertxobait zuri esateko. —Esan, esan, Maisu, erantzun zion harek. —Hara: bi zordun zituen diru aurreratzaile batek: bostehun denari zor zizkion batak, eta berrogeitamar besteak. Baina nola ordaindurik ez zedukatela eta, biei barkatu zien zorra. Biotan nork izango ote du hura maiteago? Simonek erantzun zion: —Gehiena barkatu dionak, nire ustez, noski. —Arrazoin duzu, esan zion Jesusek. Eta emakumeari begira jarriz esan zion Simoni: —Ikusten duzu emakume hau? Zure etxera sartu naiz, eta ez didazu oinetara garbitzeko urik eman: honek malkoz busti dizkit oinak, eta bere ilez xukatu. Zuk ez didazu musurik eman: hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu ere egin nere oinei musuka. Zuk ez didazu olioz bururik gantzutu*: eta honek ukendu gozoz igurtzi dizkit oinak. Horra ba nik esan: barkatuta dituela bekatuak, bai, bere bekatu ugariak, maitatu ere oso maitatu du eta. Emakumeari esan zion gero: Barkaturik dituzu zeure bekatuak. Entzun bazuten entzun, han hasi ziren mahainean zeuden lagunak esaten: Nor baino nor dugula gero hau, bekatuak ere barkatzeko? Baina Jesusek esan zion emakumeari: Zure fedeak salbatu zaitu, zoaz bakean!» (Lk 7, 36-50).

---

gantzutu: igurtzi.

Bosgarren zatia

Bide bururaino

Azken jomuga*

Itxaropen erauzezina* 390

Inork ez du sekula ez aurkitu, ez eman, nahiko maitasunik, ez nahiko egiarik, askatasunik, edertasunik, ontasunik, pozik. Gure bizitza tira-biran dago beti, «bihar» berri baten zain. Gizakiak ez du azkenik. Horixe da, gure bizitzari hondohondotik aurrerapen orotara* bultzatzen diona. Aurreraka bizi gara, azken jomugaruntz.

Hau harritzekoa! Bada itxaropenik: Gizarte gizakoiago baten itxaropena, Estatu salbatzaile baten itxaropena, edo, soil-soil, etorkizun argitsu baten itxaropena. Gauza harrigarria! Zeren, ezinbestean, bakoitzak aurrean duena, zulo beltz eta beldurgarria bait da: heriotzea hain zuzen.

Eta halere —geroko bizitzarik sinesten ez dutenengan ere, itxaropena larritasun bihurtzen dutenengan ere—, gizaki guztien bizitza aurrerapen ustez eta esperantzaz kutsaturik dago. Bizitza, pentsakera baino gogorrago da. Erauzi ezineko asmoak berotzen gaitu, geure pentsakeran baino lehen geure ihardunean*.

Halere, hil beharraren ezinbesteko* ziurtasunak neurri berean jotzen gaitu. Piskana-piskana, ahamenka* bezala, heriotzea dakarkigu bizitzak. Etsipen garratz bat, maitasun epeldu bat, bakardadea, haginetako min bat, gaixotasun bat: heriotzearen aldez aurreko beste hainbeste ezagugarri dira, heriotzearen hasera (*404*); Uztaileko amaraunak* udazkenaren adiarazle diren bezalaxe.

Bizitza gainbehera 391

Zahartzaroa da heriotzearen aztarnarik* ageriena. Orduan gure bizitza lurreruntz makurtzen da beldurgarriro. Gorputza

jomuga: helburua. **erauzezina:** kenezina, deseginezina. **orotara:** guztietara. **ihardunean:** jokabidean. **ezinbesteko:** derrigorrezko. **ahamenka:** por bocados, par bouchées. **amaraun:** armiarma-sare. **aztarna:** seinale.

ahuldu egiten da, burua ere bai; lagunartea gero eta zailago bihurtzen da. Zaharra ez da haintzakotzat hartzen. Bere burua ase, bete duela esan ez dezakeelarik, azkenaren aurrean aurkitzen da. Hain zuzen, bizitza sakonago ezagutzen, sakonago ulertzen, sakonago gozatzen hasten zarenean, hartatik baztertua ikusten duzu zeure burua.

Bizitzaren ilunabarrak egiteko gogor bat dakarkio gizonari (*337*). Gainera, nola-halako heldutasunaren garaia da. Urteek, hain zuzen, buruberokeria orotatik, talde edo ideologiarèn bati itsu-itsuan atxekitzetik libra dezakete zaharra —baina ez da hala gertatzen beti, alajaina!—, gauza guztien hondo-hondoan oinarri nagusia, hots, gizakia bera, aurkitzeko. Kristo, orduan, ideologia baten aitzindari* ez baino gizakiaren salbatzaile bihurtzen da: beronen barne-barneko mixeria eta guzti. Maitasunez da salbatzaile Kristo. Heldutasun horrek, bere begiratuaren berotasun horrek ematen dio zaharrari beste inork ezbezalako kemena eta itxaropena zabaltzeko ahalmena. Joan XXIII. zaharra aita saindu hautatu zutenean, etsipen intziria atera zitzaion askori; baina laster aldatu zen beste aldera, aita saindu zaharraren gizatasunari zerion bakeaz jabetzean.

Zahartzaroaren handitasuna ez da agertzen, sarritan, tarteka-marteka besterik, urteek dakartzaten kezka handi eta txikiren, eta indarrak galtzearen artean. Baina ez dute horrelako handitasunik ukanen, norberaren zoriona besteren zorionean aurkitzen ikasi dutenek ezik (*335*). Besteak, ondoren biziko direnak dira horrelakoentzat pozaren eta zorionaren iturri.

Horrela bizi direnak beren baitatik* atera egiten dira; bestela esanda: egiaz handi bilakatzen dira. («Hildurak» inoiz esanahirik baldin badu, hementxe du: bizitzaren betea, besterengan bizitze hau adiarazteko). Ez dute jauntxokeriarik, ez dira lehen mailan jartzen, baina bake iturri dira. Urteek halako izpiritua sor arazi ahal izatea seinale bat da: bizitza, heriotze ondoren, ezerez* hotzera ez baino maitasun berora doalako seinalea.

Gaixotasuna 392

Gaixotasuna da bizitzak duen beste etsai bat. Sarritan, gaitzak jota, biziaren bidetik bazterturik dakusagu geure burua. Badirudi, gure bizitza osatzen duen guztia, gauzekiko nahiz gizon-emakumeekiko lotura, iheska doakigula (*239-240*).

aitzindari: buru, aurrezlari. **baitatik:** barrutik. **ezerez:** ezdeus.

Orobat* Jainkoarekiko harremana ere (*255*). Jainkoarekiko genuen ikusmoldea, bizitza lasai eta osasuntsuari zegokiona zen. Baina, orain, osasunik ez denean, Jainkoak berak ere aldegin baligu bezala iruditzen zaigu. Oso bazterturik ikusten du batek bere burua. Sineste huts-hutsetik, soiletik, bizi da gizakia, orduan.

Haatik*, gaixotasunak, hain zuzen norbait ohizko bizikeratik at ipintzen duelako, zenbaitentzat gauza eta jende ikuskera berria erakar dezake, Jainkoarekiko jarrera* berria, alegia.

Gaixoak ikertzea* maizegi ahazten zaigu. Nonbait, bada guregan, Ebanjelioak (Mt 25, 36-43) halako garrantzia ematen dion ikertzekoa egite horren kontrako zerbait. Eta harritzekoa da, inoiz, edo ia inoiz, ez garela aitortzen adiskide gaixo bati ikusirik ez egiteaz, edo ikusi hori sarritan atzeratzeaz.

Inondik ere, halako batetan, «gaixotasun hau heriotzerako dut agian» pentsatzea, esperientzia berria izan behar du bakoitzarentzat.

Gaixoen sakramendua 393

Kristok, giza bizitzako une nagusi guztiak sagaratzen ditu (*198*); gaixotasun larrirako ere sakramendu bat utzi digu. Lehen, azken-igurtzi edo azken-oliadura* izena eman ohi zitzaion sarritan; gaur, gaixoen sakramendu edo oliadura deitzen dugu.

Gaixotasunak bizia arriskutan jartzen duenean, komeni da apaiza deitzea, gaixoari oliadura eman diezaion. Sarritan, gaixoa larriarazteko beldurrez, luzamendu* handiegitan ibiltzen da jendea gaixoari sakramenduak hartu beharko lituzkeela esateko. Alabaina, oliadura hartzeak ez du esan nahi gaixoa nahitaez hil zorian dagoenik; arrisku bat dago, agian oso txikia. Sakramendua hartu duen gaixoak, sarritan indarrak berritzen zaizkiola sumatzen du. Heriotzerako prestaera, bizitzarako prestaera gerta daiteke.

Bizirik ateratzeko itxaropenik ez dagoelarik ere, ez da on luzamendu handiegitan ibiltzea. Gehienetan, sakramendua jakinaren gainean eta ezagutza osoz hartzeko aukera ematen zaiolarik, on handia egin ohi zaio gaixoari. Bakea eta atsedena ekarri ohi dizkio sakramenduak. Familiakoak —esan beharrik ez dago— inguruan ukanen ditu gaixoak une horretan.

---

orobat: berdin. **haatik:** halere. **jarrera:** actitud, actitude. **ikertzea:** ikustea, bisitatzea. **oliadura:** olioz igurtzitzea. **luzamendu:** atzeratze.

Sakramendu hau, Jakueren epistolan adiarazten da:

> «Gaixotu egin dela zuetako norbait? Dei ditzala Elizako presbiteroak, eta haiek, Jaunaren izenean olioz igurtzi ondoren, egin dezatela otoitz gaixoaren gain. Fedezko otoitzak salbatu egingo du gaixotua, eta Jaunak jaiki araziko du. Eta bekaturik balu, barkatu egingo zaio» (Jak 5, 14-16).

Sakramendu honen ageriko ezagupidea ere oso erraza da (*200*). Gaixoari, betazalak, belarriak, sudurra, ahoa, ezpainak, eskuak eta oinak —ezinbestean, bekokia* bakarrik— igurtzitzen dizkio apaizak, bakoitzean honela dioelarik: «Igurtzi saindu honen bidez, eta bere erruki samurrez, barka biezazkizu Jaunak ikustez, (entzutez, usaituz, ahogozoz eta janez, ikutuz, ibiliz) egin dituzun hutsegite guztiak». Gaixoen olioz egiten da igurtzi hori: honetarako dago bereziki bedeinkatua.

Etxekoek gaixoaren gelan mahain bat (edo mahain mutur bat) presta dezakete oihal zuriz estalirik, eta gurutze bat eta bi kandela biztuta gainean, eta erramu bedeinkatu bat ur bedeinkatuz, eta ur piskat. Gainerakoa apaizak ekartzen du[64].

Igurtzi hau gaixoen sakramendua da egiaz. Ez zaio inori ematen, gaixo egoteke*, heriotze arriskuan badago ere (epaiz* heriotzera galdua den bati, adibidez). Honelakoetan, Jaunarekin elkartzearen seinale, aitortza eta jaunartzea dira.

Sakramendu orok bezala, oliadurak ere Eukaristia hartzera bideratzen du gaixoa; beraz, oliaduraren ondoren gaixoaren jaunartzea dator. Ondorengo egunetan ere jaunartuko balu, on litzateke familiakoak gaixoaren inguruan izatea. Bizitzako azken jaunartzeari «bideko» (*viatico*) deritza: biderako janari.

Heriotzea *(135, 192)* 394

Hil zorian den batek besteri eman diezaizkiokeen dohain preziatuenak, bere maitasunaren, bere esperantzaren ezagugarriak dira. Bere familiak eta bere adiskideek eman diezaioketen guztia ere, maitasunaren eta esperantzaren seinaleak dira. Beren hitzaz adiaraziko dute hori, edo soil-soil, leialki ondoan egonez. Heriotzea hurbil denean, bertan diren familiarrek, «hil zorian direnentzat» izeneko otoitzak egin ditzakete; parte bat bederen. Ahal balitz, apaizari ere hotsegin diezaiokete, beraiekin otoitzegin dezan. Azken arnasa ematean, delako otoitz horren amaia* esan daiteke. «Etor, Jainkoaren sainduak; atera bidera, Jaunaren aingeruak: Har ezazue honen arima, eraman Goi-goikoaren aurrera».

64 1972-XI-30eko ritual berrian arras aberastua izan da ritu hau.

bekokia: kopeta. **egoteke:** egon gabe. **epaiz:** jujamenduz, juizioz. **amaia:** bukaera, hondarra.

Itxaropenezko hitz horiekin egiten diete agur kristauek beren hildakoei. Guk lurrean ezagutu eta maitatu genuen lagun hura ez da orain mugitzen, ez du hitzik ere egiten; gorpu* dago. Gorputzaren itxura ez da aldatzen denbora batez: itxura hutsa da, aldi batez bakarrik irauten du. Gizakia lurrera itzultzen da, udazkeneko hosto baten antzera, abere bat bezalaxe (*8*).

Misterio eraman ezina; aldioro asaldarazten* gaituena. Arrotz zaigu heriotzea.

Heriotzea osoa da. Hiltzen dena, besoak, hankak, enborra, burua ezezik, lurtar gizaki osoa da.

Geroko bizitzarik onar ez dezaketenek arrazoina dute puntu honetantxe: heriotzea, gizon osoaren, guk ezagutzen genuen horren azkena dela.

Gure bihotzak begirune handia dio heriotzeari. Isildu egiten gara haren aurrean. Heriotzeak isilean darrai. Marxistak berak ere, izpiritua gorputz zelulen emaitz-ondoko* dela dioelarik ere, ez du nolanahi gorpua zulora botatzen. Heriotzea ohoretu egiten du. Ateka* beltz horren aurrean errespetuzko beldurrak hartzen gaitu, misterio baten aurrean bezala. Gogoeta sakon hori gizadi osoarena da.

Liburu Sainduak eta Jainkoaren ahalmena 395

Orain, misterio honetaz Kristok ekarri digun berri ona *adiarazi aurretik, galde jator bat eginez hasiko gara.* Gizakiaz, benetan, ez ote da ezer ere gelditzen? Pertsona zeharo* itzaltzen ote da? Maitasuna eta adimena, bizitza osoaren fruitu direnak, bapatean galdu egiten ote dira gizakia hiltzean? Ez; haren beroak eta argiak ihardunean* jarraitzen dute besterengan.

Miragarria da, nola hildako batek ukan dezakeen eraginik. Bizitza zuzen bat baino kreatzaileagorik ez da. Halako bizitzak gizadian darrai, izen baten edo aurpegi baten oroitzapena galdu bada ere. Gaurko gaztetxo honengan bizirik dirau bere amonari ondo egin zionaren bizitzak. Milaka eta milaka hildakoren burutapen* eta maitasunak bizirik irauten dute egungo gizadian. Hildakoak gure artean bizi dira.

Baina, esango du norbaitek, hor ez da lagun hura bera. Eta halaz guztiz, hildakoa guk sarritan uste baino norberago bizi da horrela. Zer dugu geureagorik, geure maitasunaren beroa eta geure adimenaren argia baino?

---

gorpu: gorputz hil. **asaldarazten:** erreboltatu arazten. **emaitz-ondoko:** subproducto, sous-produit. **ateka:** brecha, bréche. **zeharo:** erabat, osoki. **ihardunean:** lanean. **burutapen:** ideia.

Esan dugun hori, Nazarēteko Jesusen bizitzak modu berezian adiarazten du. Haren heriotze eta hilobiratzeak ez zuten ito haren izpiritua. Aldiz, giza bihotza iratzartzen* eta berriztatzen duten haren maitasuna, haren hitza, haren indarra, ihardunean ari dira, beti ere, munduan (*147*). Haren eragina, egungo pertsona sonatuenarena baino sakonagoa eta luze-zabalagoa da. Esanen litzateke, haren heriotzea ez dela kontutan hartzeko gauza. Gure aiton-amonen gurasoak guztiz ilun irudikatzen* ditugun bitartean, Jesusen nortasuna argi agertzen zaio gaur berton gizadiari.

Baina, esan dezake batek, besterengan diharduen eragin hori oso norbaitena delarik ere, ez da gizakia bizi dena. Hildakoaren «nerau»a* ezeztatu* egin ote da ba?

Begira diezaiogun berriro Jesukristori. Jesus ez dugu miresten aspaldiko norbait bezala, Rembrandt edo Madame Curie bezala (*115*). Jesusi hitz egiten diogu, eta maitatu egiten dugu. Liturgian haren oroitzapena* egitean, berbera dago gure artean (*174-175*). Hortxe ezagutzen dugu bizi dela, hitzaren esanahi bizienean bizi ere. Horregatik da hain sakona haren eragina gizadiarengan: bere Izpirituaz bera dago tartean. Gurekin dago, guri aholku* emanez, guri eutsiz, gu zuzper araziz.

Liburu honetan, agertzen dugun ebanjelioaren muina horixe da: Kristo berbiztu delako fedea. Berriona sinesten duenak ezin dezake honelakorik esan: hildakoen artetik inor ez da itzuli. Jauna bere heriotze ondoren azaldu egin dela sinesten dugu. Ezerezte misterioaren erdi-erdian, hots, heriotzearen erdi-erdian, Jainkoa azaldu egin da. Horra gure esperantzaren zimentarria: bizitza heriotzea baino gogorrago da (*159*). Eta ez Kristorentzat bakarrik, hildakoen artetik lehenjaioarentzat bakarrik. Kristok bere bezala ezagun ditzan guztiak joanen zaizkio ondoren. Gizakia ez da, animaliaren antzera, hondamenerako egina.

Jesusek, bere berbizkundearen bitartez erakutsi duena, hitzez ere adiarazi du. Berbiztea ukatzen zuten saduzeoen galde bati erantzunez, Liburu Sainduen sakontasun osoaren muina bezala den arrazoinbide bat aurkezten du. Agian, urteoro entzun izan da testu hori, horren esanahiaz jabetzeke, eta bapatean *ikusi* egiten duzu, aditu.

> «Hilen biztuera dela eta, ez ahal duzue irakurri zer aitortu zuen Jainkoak esanez: Abrahan, Isaak eta Jakoben Jainkoa naiz ni? Beraz Jainkoa ez da hildakoena, biziena baino» (Mt 22, 31-32).

---

iratzartzen: esna arazten. **irudikatzen:** irudiz ematen. **«nerau»a:** el yo, le moi. **ezeztatu:** desegin, ezereztu. **oroitzapena:** oroigarria. **aholku:** kontseilu.

Hitz hauen bidez Jainkoak, norbait horrek, gizakiarekin, norbait dènez, egiten duen elkargoa* dakarkigu begi aurrera.

Jainkoak. Bere izenez deitzen dituen gizakiekin elkargoa egitea merezi duela ikusten badu; Jainkoak, gizakien historian partehartzea eta haiekin adiskidetasunez elkartzea (*27*) merezi duela ikusten badu, nola jasan* dezake berak, Bizia denak, bizitza horik guztiak, bakoitza berezia delarik, heriotzean itzal daitezen? (*249*). Ez; Jainkoak ez zituen ezerezetik sortu, ez eta beren izenez deitu, gero berriro, gauza hutsak bezala, ezerezean izkuta zitezèn. Bizien Jainkoa da, ez hilena! Israelen Jainkoa eta Jesusena sinesteak hauxe esan nahi du: gizaki bakoitza, norbera, betiko bizitzara deitua dela sinestea.

Eta Jainkoak halako onginahia ager diezagukeenik eta hain garrantzizkotzat har gaitzakeenik ezin asmatu badugu, ireki dezagun geure bihotza Kristok egin berria zuen erasiara*:

> Jesusek erantzun zien: Oker zaudete, ez Liburu Saindurik eta ez Jainkoaren ahalmenik ezagutzen duzue eta» (Mt 22, 29).

Ezer ere ezinezko ez zaion Haren ahalmenean dugun fedeak ematen digu, hondo-hondoan, bizitzarako eginak garelako ustea.

Berbiztuko dira[65] 396

Hau da agindurik dadukaguna. Heriotze ondoko bizitza «nolakoa» izanen den aztertzen badugu, Biblian hauxe nabari dugu: Liburu Sainduak hildako gizaki osoaren, gorputz-arimen biztueraz mintzo direla.

Baina, berbizte hori ez ote da geroago gertatzekoa? Eta, horrez gero, non da guk maite genuen hildakoa heriotze ondoan bertan? Biblia ez da mintzo arazo honetaz. Ez du bere asmoa, beste bizitza «nolakoa» izanen den xeheki adiaraztea. Asmotan duena, Jainkoak hildakoak beregana deituko dituela irakastea da. Gizakia, bere heriotze ondoan, Jainkoarenean nola izango den ez du garbitzen. Haatik, uxaezineko jakin mina du gizakiak.

Oraindik orain arte, prolema horren argibidea, besterik gabe, «gorputza» eta «arima» bereiziz aurkitu uste zen. Honela idurikatzen* ziren gauzak: heriotze ondoren, arimak bizirik jarraituko luke, baina gorputzik gabe, hau galdu egingo litzatekeelarik; azken hauzikoan, barreiatua* zen gorputza

65 Ik. *Eraskina*: «*Guztien biztueraren zain...*» 556 or.

elkargoa: ituna. **jasan:** eraman, sufritu. **erasia:** reproche, récrimination. **idurikatzen:** ikusten. **barreiatua:** sakabanatua.

bildua izango litzateke. Adiarazpen argi horren bidez, Bibliak dioena argitu nahi **zen.**

Bibliako datuak berak azaldu nahi ditugu hemen; haatik, aski* bestela eginen dugu guk, berehalaxe agertuko ditugun arrazoinengatik. Ez da horretan fede aldakuntzarik, sineskai* berak beste era batetara ematea baizik. Zergatik, ordea? Bibliak arima, inolako gorputzezkorik gabe, inongo gorputz atxekidurarik gabe hartzen ez duelako. Gaurregun ere, ezin asma dezakegu arima gorputzik gabe. Izan ere, gure izateak hain harreman hertsia du berè gorputzarekin, ezin bait dugu idurikatu «nerau» berezirik, nola-hala gorputzari atxekia ez litzatekeenik (*5-6*).

Har ditzagun, beraz, Bibliako hitzak aurreiritzirik gabe. Zer dio, bada? Jesusetaz hau dago idatzia: «Berbiztu egin da». Beste hildakoez, berriz: «Berbiztuko dira» (1 Kor 15,22). «Loak hartu ditu» (1 Kor 15,6). Jesusek gurutzean lapur onari egindako agintzaria ere ezagutzen dugu: «Gaur berton nirekin izango zara paradisuan» (Lk 22,43). Paulok, «Jaunarekin bizitzera joatea» (2 Kor 5,8) ere badakar.

Jesusek erabiltzen du, noiz edo noiz, «arima» hitza: «Ez beldurrik ukan, gorputza hil eta arima ezin hil dezaketen horiei» (Mt 10,28). Baina, Jesusentzat, «arima» ez da airean lebilkeen* izpiritua, gorputzetik etena. Aldiz*, Bibliako beste leku askotan bezala, bizia adiarazten du, gizaki osoaren erdi-muin bizia, gorputz-izpirituzkoa. Jaunak esan nahi duena hauxe da: gizakiaren zerbait, haren izatea bera zertzen* duena, salba daitekeela heriotze ondoan. «Zerbait» hori, ez da gelditzen den gorpua. Baina Jesusek ez du esaten, zerbait hori gorputz berriren batekiko atxekidurarik gabe denik. Bibliaren hizkerak ez du ezagutzen gorputzik gabeko arimarik.

Horrez gero, nola aditu behar ditugu Bibliako hitzak? «Gaurdanik», esaten du; baina ez du esaten hori gorputzik gabeko nola-halako izate batez. Une berean, honela dio: «Berbiztuko dira». Zein da, beraz, haren mezua gure hildakoez? Hauxe: «gaur» berton zerbait hasia dela, eta horretan baduela parte gorputzak. *Heriotze ondoko izatea, beraz, gorputz berriaren zerbait da.* Berbizten den gorputz hori ez da osatzen lurrean desegindako molekulez (geroago esango dugu zerbait gai honetaz). Gizaki berri bat hasten da itzartzen* (*399*).

Gainerakoan, isildu egin behar. Hori «nola» gertatuko den ez dakigu. Ez eta ez dakigu nolako lotura dagoen «berbiztuerarako bide» horren eta gu orain bizi gareneko denbora eta espazioaren artean. Batera, «egungo egunaz» eta etorki-

---

aski: franko. **sineskai:** sinesteko gai. **lebilkeen:** ibiliko litzatekeen. **aldiz:** kontrakoz. **zertzen:** mamitzen. **itzartzen:** esnatzen, sortzen.

zunaz mintzatu behar dugu. Inor ez da gauza, hori garbi ikusteko, eta ongi da Jainkoaren agindu bikain hori geure marrazki eta irudietara ezin mugatu izatea. Behar duguna, biztuera esperantza sendoz bizitzen ikastea da; baina, une berean, biztuera hori «nola» izango den ezjakinean. Baina nola mintza gintezke biztueraz? Atxeki gakizkien Bibliako hitzei: «Loak hartu ditu». «Berbiztuko dira». «Jaunarekin bizitzera joan dira». Zain daude. Berbizten ari dira. Jainkoarekin bizitzen hasiak dira. Esaera hauek Jainkoak agertzen digun albistea adiarazten dute. Horrela adiarazten ahal diegu hori geure haurrei.

Sainduen elkartasuna **397**

Baina, ez ote genezake aurrerago jo? Bizitza berri hori zer den eta gure hildakoak nola idurika genitzakeen egokien adiaraztekotan, ez ote gintezke Agerkundean aurkitzen saia? Bila dezagun, eta Agerkundeak ez garamatzala mundu arrotz* eta urruneko batetara aurkituko dugu horrela. Geure mundura garamatza. Izan ere, nola agertzen digu Jainkoak modu bikainenean bere agintzarien* betekuntza? Jesusen bazko aldiko agerpenez eta Berbiztua gure artean izanez (*137-138*) Jesus, zuzpertzen eta atsegintzen duen adiskide bezala agertzen da, eta ordudanik, halako adiskide bezala gelditzen da gizon-emakumeen artean (*147*): indar berri eta bake, gizakoitasun eta maitasun bezala. Bazko goizetik ihardunean ari den Berbiztuaren eragin* hori dugu betiko bizitzaren adibiderik egokiena. Hori bera da Jaunagan loak hartu dituen guztien egoeraren adibidea. Norbaitek, heriotze ondoan, hemen behean egiten iharduten duen onari arretatsu begiratuz, berorren bizitza berriaz zerbait argitzen dugu.

Amets eta iduripen guztiek baino areago, nork bere burua Jainkoari eta maitasunari eskaintzeak dakarren giza heldutasunak emanen digu argitasunen bat betiko bizitzaz. Berbiztua, berari darionetik ezagutzen dugu; halatsu saia gintezke maitagarri zaizkigunak ezagutzen. Teresa txikiak, bere zerualdia lurrera arros-euria jaurtiz igaroko zuela esan zuen. Azken mendeko neskatilla bat bezala mintzo da horrela hitzegitean. Baina, bere gisara, kristau egia handi bat adiarazten du. Norbait hil eta gero, hemen behean ihardunean* ari den ona: horra gure hildakoek Jaunagan duten bizitza ulertzeko seinalerik bikainena.

arrotz: kanpotar. **agintzari:** promesa, promesse. **eragin:** indar. **ihardunean:** lanean.

Honela, hil diren guztiak: Apostoluak, martiriak, sainduak, gogo oneko gizon-emakume guztiak, giza elkarteko eta Eliz elkarteko dira (*165*). Elizak, haik Jainkoagan bizi direla ezagutzen du, baina lotura batez gurekin baturik daudela.

Leku berezi bat dagokio Mariari elkarte horretan (*51*). Esan dezagun haseratik, ez dugula ezer asmatu nahi, gertaerak eman baizik, ageriko gertaerak. Maria, beste inor ezbezala —Kristo ez beste inor ezbezala— kristauen artean dago, nola ekialdekoen hala mendebaldekoen artean. Etxetan ere bai. Aurrean dugu ikonoetan bere begi handi eta biziekin, irudietan bere aurpegi barez*; areago oraino, berari eginiko otoitza Jainkoak entzuten duelako ziurtasunez, berari gure hitzak zuzentzean. Halaber —baina hau gehigarrizko mesedea da, ez beharrezkoa— Maria aurrean dugu, zenbait tokitan agertzen delako, ondoren toki berean ebanjelioaren ezagugarriak agertzen direlarik: bakea, eriak sendatzea, konbertsioak (Lourdes-en, esate baterako [*151*]). Elizaren buruzagiek ezagutu izan dute zenbaitetan, toki horietan gertatua sinesgarri dela, hutsezinekoa dela esan gabe, ordea. Handiago dena, Eliza osoak sinesten du Ama Birjina zeruratua izan dela, eta bereziki aitortzen du Maria, gorputz eta arima, biztu* dela. Gainerako hildakoez, biztuera bidean daudela bakarrik esaten ahal dugu; baina, Mariaz, aintzatua dela aitortzen dugu. Baina haren aintza (Kristorena berarena bezala) ez da osoa izanen, gizadi osoa batua izan dadin arte.

Kristo gure Jaunak gure artean bizi du bere berbizkundea, eta munduaren bizitzan bere indarra eta eragina agertuz egiten du hori; gauza bera esaten ahal dugu Mariaren aintzatze* edo zeruratzeaz. Honek, Maria munduan beste inongo emakume bat ezbezala dagoela esan nahi du. Kleopatraz, gehienik, gogoratu egiten zara; Mariari, *dei* egiten diozu. Maria emakume guztien artean hurbilen, bertakoen da. Kristo berbiztua eta Maria zeruratua —gizadiaren egiazko Adan eta egiazko Eba— ez ditugu bilatu behar guregandik urrun; airea ez da arimez beteriko antzoki* handi bat eta Kristoren eta Mariaren jarlekuak hor.

Ez; berriro esanda, zera horik ezin ikusi ditugu denboraren eta espazioaren arabera. Baina, Kristoren eta Mariaren hurbiltasuna, lurrean Kristoren Izpirituaz bizirik, eta otoitzean haiengana joz suma genezake.

Beste hainbeste esan behar da beste hildakoez. Saindu eta zoriontsu handi batzu biziago nabari* ohi ditugu gure artean. Horien berbiztea aurreratuago dagoela esan nahi ote du horrek?

---

bare: ezti. **biztu:** berbiztu. **aintzatze:** glorificación, glorification. **antzoki:** teatro leku. **nabari:** ikusi

Hona orain giza bihotzak oso gogokoa duen galde bat. Egin ote genezake zer edo zer hildakoen alde?

Elizari —eta Eliza, gu gara— hildakoen alde lehenik ateratzen zaiona, otoitz egitea da. Gorpu bati agur egiterakoan, otoitz biziko giroa sortzen da: gehienetan, lurra ematerakoan; inoiz, gorpua erretzerakoan. Kristauek beren hildakoei, eukaristiaren opariz egin ohi diete agurra, Kristoren gurutzeko heriotzearen oroitzapena alegia. Prefazio hitzei, batera, gizatar samurtasuna eta jainkozko baieztapena* darizkie «... Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Beronengan argi egin bait digu biztuera zoriontsuaren itxaropenak; eta nahitanahiez hil beharrak goibeltzen gaituenok, gero hilezkor izango garen hitzak pozten gaitu. Zure zintzoei bizia kendu ez baino aldatu egiten bait zaie; eta lurreko bizileku hau hondatzean, betiko bizilekua gertatzen zaie zeruan».

Galduz doa, tamalez*, ohitura on bat; ahaide, adiskide eta auzokoek beraiek gorpua hilobira eramatekoa. Hilobi ondoan egiten diren azken otoitz eta irakurgaiak kontsolagarri zaizkie gelditzen direnei eta lurra emanez Jainkoari otoitz dagiotenei.

Hildakoen alde otoitz egitea aspaldiko ohitura du Elizak. Zer balio du, ordea, ohitura horrek? Zertarako otoitz egin? Honengatik: nahiz Jainkoaren grazian hil, oraino nahiko etsaigorik*, gogo txarrik aski, axolagabekeriarik aski badelako hildakoagan. (Gure arteko bakoitza, crain ezagutzen dugun bezalako aurkitu nahi ote genuke paradisuan?).

Hainbat eta hainbat[66] da gutako bakoitzagan aldatu beharreko, garbitu beharreko eta berekoikeriatik* askatu beharreko! Hori, heriotzeak burutzen* du. Hiltzea, gaitzari buruz ere hiltzea da. Kristogan gertatu zen heriotzezko bataioa da urezko bataioa burutzen duena (*191-192*). Heriotze honen alderantzia* —hauxe da Elizaren sinestea— garbikuntza gerta daiteke, Jainkoaren argitara erabat eta behin betirako bihurtzea. Zein luze irauten otè duen garbikuntza horrek? Berriro esan dezagun: hori, ezin neurtzen ahal da denboraz. Ezin ematen ahal dugu, ez egunik, ez lekurik. Baina, geure giza ikusmoduari gagozkiola, bada denboraldi bat, norbait geure «hildako» bezala jotzen dugunekoa. Bitarte horretan geure otoitzez laguntzen dugu. Zenbat hilabete edo urtez? Ezin esango luke inork. Bizitzak erabakitzen du hori.

66 Ik. *Eraskina*: «Hainbat eta hainbat...» 558 or.

garbikuntza: purificación, purification. **baieztapena:** baiezkoa. **tamalez:** zoritxarrez. **etsaigo:** etsai izate. **berekoikeria:** egoísmo. **burutzen:** osatzen, betetzen. **alderantzia:** kontrakoa, bestaldea.

Aitzina, misterioa ahalik adiarazgarrien egiteko gogoak eraginda, irudi eta antzerki* asko sortu zen. «Garbikuntza» hori «garbi-*tokian*» idurikatu ohi zen. Tokia, sua, denboraldia, arimari deika zetorkion aingerua: hori guztia idurikatu ohi zen; mirikuaren itxoin-gela bezain zehatz-mehatz idurikatu ohi zen. Iduripen haiek ikusgaitzaren* susmoa ematen ahal zioten jendeari, eta hildakoen alde otoitz bizirik eragiten ere bai.

Misterio hori[67] egoki idurikatzekotan, haserako Elizaren soiltasunera* jo beharko genuke, eta garbikuntza, heriotzeari datxekon alderdi bat bezala hartu. Garbikuntza ez genuke hartu behar «azken helburu» bereizi bezala. Ez litzateke hitzez-hitz hartu behar, ez eta bereiziegi ere. Batipat, Biblia horretaz ozta-ozta mintzo delako. Makabetarren bigarren liburuak (12, 43-46), gudatean eroritako eta biztueraren zain zeuden gudarien bekatuentzat Judak eskainitako oparia erakusten digu. Opari hori, biztuera sinesten delako ezagugarri bezala aipatu ohi da. Jokabide hori, heriotzean aurretik joan zaizkigunen biztuera sinesten dugunontzat ere guztiz legezkoa da.

Eliza Erreformatuek ez dute hildakoen alde otoitz berezirik egiten. Hildakoa Jainkoagan dagoelako itxaropen biziak betetzen du, haien iritzirako, gure otoitzaren lekua. Haien eta gure arteko alde hori ez da ematen duen bezain handia, agian. Ez dute bereziki otoitzik egiten hildakoaren alde, baina hobiratzea otoitzez inguratzen dute.

Eukaristi otoitzean, mezaren Kanonean alegia, bada tarte bat gure hildakoak gogoratzeko. Horrela, Eliz elkarteak ospatzen duen gurutzeko oparian badute beren partea hildakoek. Hildakoen oroitzapena* egin ondoren, honela jarraitzen du apaizak: «Hauei eta Kristorengan atseden duten guztiei eman, Jauna, zeruan poza, argia eta bakea». Azaroaren bia, gure hildakoen alde bereziki otoitz egiten dugun eguna da.

Elkarrekin bizitzeko eginak gara; horregatik, Jesusek, munduaren azkenaz mintzatzean, gizadiaren azkena adiarazi nahi du. Azken hori nola gertatuko den, ez dakigu. Kristok, gertaera horren zer-nolakoak, handitasuna eta larritasuna, profetei harturiko hitzez adiarazten ditu: hodei, aingeru, izadiko hondamendi*, gudate, gezur, eraso*. Irakur, adibidez, Mateo saindurenean 24. kapitulua.

Beharbada, on izango da, liburu honetan sarritan berritu beharko litzatekeena zehaztea. Dotrina honek, fedeko egia bi-

67 Ik. *Eraskina*: «Misterio hori...» 558 or.

antzerki: teatro. **ikusgaitz:** ikusezin. **soiltasun:** sobriedad, sobriété. **oroitzapena:** gogorapena. **hondamendi:** porrokatze. **eraso:** pertsegizio.

ziak argi eta garbi eman nahi ditu. Baina, Biblia bera kementsuago*, biziago, egiazkoago izanen da. Liburu sainduak ireki orduko, itsutzen gaituen sugar bizia nabari da, fedearen argi bizia, giza jakintzarena, Jainkoaren agerkundearena, Jesusen beraren hitzen sua (*115-116*). Sarritan, Bibliak ez du gauzen azalpenik ematen, ez ditu analizatzen (*33-34*). Guztiak batera biltzen ditu. Biblian, bizitzan bezala, bata bestearekin doaz gauzak.

Horixe bera gertatzen da munduaren azkenaz Bibliak dakartzan irudietan. Bikain azaltzen dituzte irudi horiek aro guztietako izurrite* eta mixeria, gudate larritasuna eta eguzki sistimaren hondamendiak berak ere. Eta orduan, axanpa* horretan, berrion hauxe dator: Jainkoak ez duela gizadia zapuzten*. «Holakoak gertatzen hasten direnean, jar tente, eta jaso burua, aurki da eta zuen askatasuna» (Lk 21,28). Horra zer adiarazi nahi dieten aro guztietako gizon-emakumeei profeten, ebanjelioen, Apokalipsiaren ikuskizun ikaragarri horiek. Munduaren azkena zehatz-mehatz nola gertatuko den emateko asmorik ez du Bibliak; bakarrik, historiaren bidea eta amaiera adiarazi nahi dizkigu, historia horren barruan Jainkoa hor dela suma* arazi nahi digu. Mende guztietako porrokaldietarako*, bonba atomikoaren larritasunerako ere, lasaipide da hori.

Jesusek. gora-behera guztietan, harengana itzulirik bizi behar dugula erakasten digu (*123*); erne izan behar dugula; fedez (Lk 18,8) eta maitasunez (Mt 24,12). Garairik ez du zehazten. Baina, Biblian hainbat bider datorren aitorpenak —hots: historiak, osotasunean harturik, esanahi bat eta helburu bat badituelakoak— hauxe agertzen du: historia hori bera, erabat harturik, beteko dela (*28-30*); Jainkoak Historia horri buruz, Kristoren bizitzari buruz egin duena eginen duela (*262*).

Orduan, gizaki guztiak biztuko dira Jesusen antzera. Horixe izango da jaiotze berriaren bukaera. Bibliak irudi ederrez azaltzen du nola irtengo diren lurretik hildakoak. Ez dugu esan nahi, heriotzeko orduan gure gorputza osatzen zuten molekulak berriro elkarri itsatsiko* zaizkionik. Arazoa ez datza lurtar gorputz hau berriz taxutzean* (Gainera, zer dira «gure molekulak»? Etengabean aldatzen ari dira. Haurraren gorputza osatzen zuten osakaietarik*, ozta-ozta aurkitzen dugu zerbait gizaki helduarenean). Gure gorputz izpirituzkoaren heldutasuna da hemen dagokiguna. Gai honetaz, oparo* eta irudi biziz idazten du Paulo Apostoluak Korintotarrei egindako lehenengo epistolan (15, 31-50). Paulok adiarazten digu, ez

kementsu: indartsu. **izurrite:** hondamen. **axanpa:** hestuasun, angustia, angoisse. **zapuzten:** baztertzen. **suma:** sumatu, sentitu. **porrokaldi:** erorialdi. **itsatsiko:** lotuko. **taxutzean:** eratzean, organizatzean. **osakai:** elementu. **oparo:** ugari.

dugula uste izan behar, berbiztea haragi eta odol ustelkorretara itzultzea denik. Oraingo gure gorputz hau egiazkoaren itzal bat besterik ez da.

> «Ustelkorra erein eta ustelezina biztu; lotsagarria erein eta gloriazkoa biztu; argaltasunezkoa erein eta kementsua biztu; animaliazko gorputza erein eta izpirituzko gorputza biztu» (1 Kor 15, 42-44).

Ez da, beraz, oraingo gorputz fisiko hau orduan biziko dena, «Kreazio berrikoa» baizik. Hilobitik ateratzen diren gorputzen bibliazko irudiak hauxe esan nahi du: gu geurok biziko garela gero ere. Batera, gu geu eta bestelako izanik. Jesus bezalaxe; biztuera ondoan, lehengoa bait zen eta, halaz guztiz, bestelakoa; hain zuzen, Apostoluek bazekiten Jauna zela, eta halere ez zuten ezagutu bapatean (*139*).

Azken Hauzia* *(70)* 400

Gizadia osatua eta berbiztua dadinean, dena argi-argi azalduko da. Horixe izanen da Jainkoaren Erreinua. Bihotzeko gogoak egun argitan agertuko dira. Gure mundu honetan, aurpegi alai batek bihotz pozoitsu bat izkuta dezake. Baina, Jainkoaren etorreran, norbera den bezala azalduko da. Horra hauzia. Lurrean bereizi ezineko diren ale ona eta iraka*, argi eta garbi agertuko dira. Zeruetako erreinua, arrainez betetako sare baten antzekoa da, dio Jesusek; onak bildu, eta txarrak kanpora botatzen dira. Bai, heldutasunak hauzia esan nahi du. Zer adiarazten da horretaz? Hauxe: graziaren aurka gogortu ez den orok ikusiko du Kristorekin harremanetan dagoela, Kristoren antzeko dela. «Atozte nire Aitaren bedeinkatuok». Baina norberaren bihotza graziari eta Jainkoaren deiari hertsi diezaienak, ez du Kristoren antzik, ez du Kristorekin harremanik. Salbatzaile bakarragandik etenik* dago. «Alde niregandik, madarikatuok». Horra hauzia: Kristorekin elkarturik (agian, izen hori inoiz entzun gabea balu ere) edo etsaiturik, hau da, Kristogandik aparte (izen hori mihi* puntan edukia balitz ere). Kristoren Izpirituarekin, ontasunean, fedean eta zerbitzuan bat eginik, ala Izpiritu berari muzin* eginik. Jesus, bera dena delako, epailea da: imanak bezalatsu, kideko zaiona erakarri*, eta kontrako zaiona zapuztu eginen du.

Hauzi hori[68] heriotzean bertan hasten da (*396*). Esan dugu lehen, heriotzean hasten dela berbiztea; berdin esan behar

68 Ik. *Eraskina*: «Hauzi hori...» 557 or.

hauzia: erabakia, juizio. **pozoitsu:** benenotsu. **iraka:** cizaña, ivraie. **hertsi:** hitsi. **etenik:** bereizirik. **mihi:** mingain. **muzin:** zaputz. **erakarri:** bereganatu.

dugu hauziaz ere: orduan hasten dela. Baina berriro esan dezagun: hauzi hori gure denbora honetatik at* gertatzen dela. Horrez gero, heriotze orduko hauzitik (norberaren hauzitik) azken eguneko hauzira (guztion hauzira), bitarteko epe hori adiarazteko darabilgun *denbora* hitza, ez dugu hartu behar eman ohi diogun esanahian. Ez dakigu inola ere zer izango den; horrek ez du garrantzirik; izan ere, azkenean, gure hauzia Epaile* bakar eta beraren esku bait dago.

Gaitzespena* 401

Badaiteke, dio Jesusek, norbait betirako galdua gertatzea. «Betiko zigorra» (Mt 25,48): «Zigor» hitz hori oker har daiteke, gaitzetsiak ixtripuren* bat edo zuzengabekeriaren* bat jasango* balu bezala, giza hauzitegi batetan norbait gaitzestean gerta daitekeenez. «Betiko bekatu» hitzak hobekiago adiaraziko digu gaitzespen hori bera. Giza bihotza betirako gogortu da bere gogorkeria hotzean. Jainkoak, maitasunak, ontasunak, Kristok, elkarteak ez du inongo indarrik halakoarengan. Halaz guztiz, gauza guzti horietarako sortu du Jainkoak. Bekatuak, azkeneraino doanak alegia, erabateko koloka sortzen du (*379*). Norbera erabateko bakardadean uzten du: besterekin harremanik gabe, Jainkoarekin harremanik gabe. Horixe da zigorra, «bigarren heriotzea» (Ap 20,14).

Hitz beldurgarriz baliatzen da Biblia hori adiarazteko: *ilun, hortz karraska, negarra, sua.* Jakina, *ezin hartzen ahal* dira hitz horik beren esanahi gorrian. Halere, ongi adiarazten dute irudi horiek, nork bere bizitzaren helburua* hutsegite izugarria.

Zenbaitetan pentsatu ohi dugu: ifernua ezin daiteke Jainkoaren maitasunarekin batu. Baina, hain zuzen, Jainkoaren maitasun handi eta sutsuena izan dutenek sinetsi izan dute ifernua. Jesusek berak, esate baterako. Ifernuan zenbat direnik ez du Jesusek esaten; baina, hautatuak* eta gaitzetsiak* zenbat diren galdegin zioten batetan, seriotasun handienaz, «bizitzara daraman bide hestua» hartzeko esan zien. Hitz horien arabera, egin bitza nork bere kontuak (*70*). Kristoren oharra grazia bat dugu.

Sainduek ere sinetsi zuten ifernua, Jainkoaren maitasunaren eta urrikiaren kontrakoa denik pentsatzeke.

Gogortzen denarentzat, Jainkoaren maitasunaren samurtasun beroa bihotz-zimikozko eta atsekabe garratzezko betiko

at: kanpora. **Epaile:** Juez, Juje. **gaitzespena:** kondenazioa. **ixtripu:** ezbehar. **zuzengabekeria:** injustizia. **jasango:** sufrituko, eramango. **helburua:** jomuga. **hautatuak:** aukeratuak. **gaitzetsiak:** kondenatuak.

su bilakatzen da. Azken hauziaren irudietan, Erdi Aroko katedraletako irudigileek honela ematen dute gaitzespen keinua*: Jesusek bere bost zauriak erakusten dituela. Keinu hori, hitzik gabe mintzo da: Begira zer egin dudan. Zer gehiago egin nezakeen?

Lisieux-eko Teresak ere, Jainkoaren zuzentasunean bilatzen zuen erantzuna: ifernuan ez da inor, berak nahita ez bada. Gizakia bera jartzen da egoera horretan, bere gogoz. Ez gaitezen, beraz, arriska, ulertzen ez duguna judikatzen*. Ezin hasiko gara geure gogorako Jainkoa taxutzen. Sines dezagun Jainkoa bere Semeagan agertu den bezala. Jesusengan, Aitaren maitasuna noraino doan ikusten dugu; halaz guztiz, ohar hauxe, Jesusi berari entzuten diogu jaulkitzen*:

> «Ez beldurrik ukan gorputza hil, baina arimarik hil ez dezaketen horiei. Beldur, beste hari ukan, gorputz-arimak *gehena*-ra honda ditzakeen hari» (Mt 10, 28).

Gaitzespen hori haurrei izkutatu beharrik ez dago. Baina ez da eskubiderik honelako zemairik* egiteko: beroriek berehalakoan ifernura joaterik balute bezala agertuz. Jesusen oharra, gizaki helduei doakie, beren bihotza gogortzen dutenei. Eta asmo bat besterik ez du, salbatzeko asmoa: gaitzari gorrotoa* hartzeko deia da, gizakia on egiten duen guztia maitatzeko deia; Jesukristogan, bizitzara daraman Bidean, uste osoa ipintzeko deia.

Kreazio berria 402

> «Ez begik ikusi, ez belarrik entzun, ez giza bihotzek sumatu duena, horixe prestatu du Jainkoak bera maite dutenentzat» (1 Kor 2, 9).

Paulo sainduaren hitz hauk askotan aipatzen dira, Jainkoagan ukanen dugun zoriona adiarazteko. Halaz guztiz, hitz horik hemen beheko fedeaz mintzo dira lehenik (*236*). Bakea, barkapena eta Kristorekiko atxekidura sakona: horra hor paradisuaren hasera. Betiko poza, bizitza honetako gaitz eta larritasunen artean bertan ageri da. Poz hori, gizakiaren kreazioaz gero Jainkoak asmotan duen paradisuan garatuko* da: «Mundua mundu denetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua» (Mt 25, 34).

Lurreko gizadia bakarra ote da Jainkoaren maitasun honetara deitua? Ala, deituak ote dira gure denbora eta espaziotik at diren beste izakiren batzu ere? Eta agian, gure denbora eta espazioan izanik, beste planetaren batetan bizi diren izakiak ere bai?

---

keinua: seinalea. **judikatzen:** juzgatzen. **jaulkitzen:** ematen. **zemai:** mehatxu, amenazo. **gorrotoa:** herra. **garatu:** burutu, heldu.

Aingeruei buruz[69] sarritan mintzo da Biblia. Mandatari* edo indar dira, Jainkoak bidaliak, «Jainkoaren zerbitzuan dauden izpiritu» (Heb 1, 14), Bibliak sarritan giza itxuran aurkezten* dituenak. Mundu kreatuan lankide ditugun ontasun indar azkar horiek, agerian ipintzen dute Jainkoaren ontasuna. Aingeru horik, Bibliak munduaz duen ikusmodu hutsetik ote datoz, ala Agerkundearen mamikoak dira? Nolanahi ere, Jesukristoren baitan dugun salbamendu historian nahasturik agertzen dizkigu Bibliak. Eta horietaz dioen guztiak egia bikain hau aldarrikatzen du: Jainkoa mila gisa desberdinetan arduratzen dela gutaz. Aingeru bakoitzaren izenak berak adiarazten du hori: Gabriel: «Jainkoaren indar»; Rafael: «Jainkoaren sendagai»; Mikel: «Nor Jainkoa aina?» (Deabruaz gauza bera esaten ahal dugu, baina alderantziz*. Aurka jartzen den indarra da, Etsaia. Baina ez da Jainkoaren pareko; ez da, ez sorburu ez ahaltsu, Jainkoa bezala; Bibliak bereziki esaten du hori [*408*]. Deabru horixe da Gaitz izugarria, zenbaitetan gizadian ikusten duguna; gizabanako* bakoitzaren ahalmenen gain dagoen gaiztakeria, makurkeria; eta galde hau eginarazten diguna: zein indar ari da hemen lanean? giza ahalmen hutsa ote da? [*76*] [Ikus «Bataioa eta tentaldia» kapitulua]).

Beste planetatan liratekeen izakiez, ez dakigu zer esan. Izaki horik badiren izan ala ez, aingeruez esan dugunez, azkenari buruzko irakatsia ez da aldatzen funtsean*: Jainkoa bere sorkari* maiteekin bat izanen da.

«Zeru berri bat eta lur berri bat ikusi nituen gero» (Ap 21, 1).

Aldiaren betetasuna gogoematean*, bizi izan diren miloika gizon-emakumeak datozkigu irudimenera. Pozez begiratzen diegu, baina agian bihotz-galduxe ere bai: hori jendearen emana! Itxura gabeko gauza iruditzen zaigu. Baina hori, gure oroimena eta kezka, mugatuak ditugulako gertatzen zaigu. Gizatalde handi bat aurkitzeak edo ezagutzeak nekatu egiten gaitu, eta harreman sakona, kopuruaren handiaren arabera txikitzen da. Akats hori gure lurtar egoerari datxeko. Baina lur honetan bertan hauxe ikusten dugu: giza hedatasuna* askorekiko irekitasun eta ontasunean agertzen dela. Bada gizakirik, jende askorekiko ardura bizirik ukan dezakeenik; bienbitartean, beste askok ezin du ukan hainbestekorik bakar batekin ere. Sinesten eta Jesukristogan buruturik* ikusten dugunez, kreazio berrian ez zifrak ez izen gabeko jendetzak galaraz ez dezakeen maitasuna izanen da (*249*). Hori, be-

69 Ik. *Eraskina*: «Aingeruei buruz...» «521 or.

mandatari: mensajero, messager. **aurkezten:** agertzen. **alderantziz:** atzekoz aurrera, kontrakoz. **gizabanako:** gizaki, individuo, individu. **funtsean:** mamian. **sorkari:** kreatura. **gogoematean:** pentsatzean. **hedatasuna:** desarrollo, épanouissement. **burutu:** konplitu.

reziki, Jainkoaren beraren maitasunari dagokio. Jainkoarentzat, inor ez da zenbaki bat.

> «Garaitzen duenari mana izkutu batetik emango diot; bai, mana izkutua eta harri zuri bat, jasotzen duenak beste inork ezagutzen ez duen izen berri bat markaturik daraman harri bat» (Ap 2, 17). «Santutegirik ez nuen ikusi berton; Jauna bait da izan ere hango santutegi, bai Jainko Guztiahalduna eta Bildotsa» (Ap 21, 22).

Bera Neurrigabea, Bakuna, beti Berria, orotan oro izango da. Ezin esan: halako batasun batek garaituko du ugaritasun nahasia. Bakoitzagan eta guztiengan izanen den Jainkoa, argi eta bizi-indar izanen da; ez tenplu, ez eliza beharrik ukanen da aurrerantzean Hura aurkitzeko.

Betiko bizitzaz[70] luzeen diharduten Bibliako orrialdeak, Apokalipsian daude. Liburu honetan lehen kristauek zuten esperantza suharra* aurkitzen ahal dugu; hor sukartzen ahal du gureak ere, esaera bakoitza bereziki ulertzen ibiltzeke. Apokalipsiko testu horik, Israelentzat etortzekoa zen salbamendua paradisu giroko irudi harrigarrietan kontatzen zuten Profeten hitzen oihartzun dira; hauxe da nagusiena: Jainkoa bere urrikiz gure artean dagoela. Esate baterako, Isaiaren liburuaren azkeneko lerro batzu ditugu buruan.

Liburu Sainduek indarturik, gogoeman ditzagun geure inguruko mundua eta geure bizitza bera, Jainkoaren eskuetan, egin zaigun agintzaria antzematen saiatuz. Bereziki, geure burua bir-kreaturik, dohatsu, misterio handi batetan bildurik nabari dugun unea gogoeman dezagun. Musika dela. Udaberria dela. Arratsean, argituriko hiri bat dela. Amak malkoak* txukatzen dizkion haurraren lasaitasuna dela. Senar-emazte arteko maitasuna dela. Otoitzean aurkitzen ditugun bakea eta bizkortasuna direla. Arrisku batetatik ateratzea dela. Familiarteko otorduaren giza beroa dela.

Bibliak darabiltzan irudiek hauxe adiarazten digute: gizakiarekiko Jainkoak duen errespetua, eta nola nahi duen gizakiak bere nortasuna lor dezan. Berehala zetorkion martiritzaren ondoko garaiari begira, honela idazten zuen Antiokiako Inazio sainduak (*165*): «Orduan izango naiz noizbait ere, gizon». Gizakia gizaki izatea nahi du Jainkoak. Jainkoaren iharduera* guztia markatzen duen berezitasun horrek ez ote digu adiarazten gure lurtar bizitzak eta gure lurtar lanak beren eragina badutela kreazio berriari buruz? Nolanahi ere, fedeak irakasten diguna da, munduan heldutako maitasunaren uzta bildua izanen dela. Baina ez ote zaigu zilegi barrundatzea*, lurrean haziz joan diren kreatibitatea, egia, edertasuna, elkartzeak eta esperientziak, Jainkoaren betikotasunean ere garatuz* joanen direla?

70 Ik. *Eraskina*: «Jainkoa "den bezala"...» 558 or.

suharra: gartsua. **malkoak:** negarrak. **iharduera:** jokabidea. **barruntatzea:** barnatzea, aztertzea. **garatuz:** helduz.

Garai honetako gizakiok, geure eskuz buruturiko munduaren aurrerapena Jainkoaren egintza kreatzaile dela sinetsirik* (*283*), gure historiako bizitza eta lana, kreazio berrian, hondatuak ez baino berriztatuak izanen direlakoan gaude. Mozart-ek musika egin duelakoa, inork ez dezake gure historiatik bazter. Nere hauzokoak hunkitu egin nauelakoa, neronek norbait lagundu dudalakoa edo berak lagundu nauelakoa: ezin ezezta* dezake inork. Are arrazoin handiagoz, neure senarraren emazte, neure seme-alaben ama izan naizelakoa. Jesusen esanaren arabera, zeruan ez da haurgintzarik* izanen, ez eta ezkontzerik. Alabaina, horrek ez du esan nahi, maitasunak, lurrean ezkonduak zirenen artean, iraungo ez duenik, eta haziko ez denik. Ebanjelioa maitasun senidekoiaren* alde ageri da; horrek honetarako bide ematen digu: gurasoen eta seme-alaben arteko maitasuna, eta gizon-emakume guztien artekoa, senidekoiago izanen direla. Horixe da, hain zuzen, mundu honetan bertan ikusten duguna, seme-alabak hazten direnean.

Zer esan berbiztuen adinaz*? Ez dakigu ezer ere. Honetan ere, halaz guztiz, honetara makurtuko ginateke: giza adin bakoitzeko edertasunik ez dela galduko pentsatzera. Agian, —zioen norbaitek— nolarebait, zoriontsuen izan gineneko adinean aurkituko gara, edota maitasun garbienari leialkien atxeki gintzaizkioneko adinean. Edota, adin kontu hori ez ote da burutapen lurrekoiegia? Argi eta garbi esateko, ez dakigu. «Ehun urteko izanez hiltzea, gazte hiltzea izanen da» dio Isaiak bere ikusketa profetikoan (Is 65, 20). Baina zer izanen da mundu berri horretan? Gizakia ez bait da berriz hiltzen. Nork esan diezaguke hori? Ez genuke galdegin ere egin behar, Isaiaren 65. kapituluko olerkariak bezala, pozteko bestetarako.

Jainkoaren Agerkunde osoaren mezua da hauxe: Jainkoagan izatea, maitatzea dela; maita eta eman dezakeen gizakiaren garatzea dela. Sainduak lurrean bizi direlakoa (*397*), beraiei darienetik ageri da hobekien: orobat kreazio berrian, gizakia, nor bere burua ematean, eskaintzean, eta maitasunean garatzen den izakia da. Topatuko ote dugu berriro, kreazio berrian, kreatzeko geure gogo eta premiarik? Ezin jakin dugu. Baina, asma ezinekoa ote da bizitza berri horretan kreatzeko poz xit handiren bat ukanen dugula? Izan ere, bizitza hori, izatez Kreatzaile denak ematen bait digu.

Batez ere, pentsa ez daitekeena, Jainkoaren agintzak aurrean ipintzen diguna aspergarri izango dela da. Erdi Aroko kontakizun batek kontatzen du monje batek behin galde hau egiten zuela: Nola daiteke gero betikotasuna? Pentsamendu hauetan murgildurik, basora joan omen zen, eta urretxindorra kantari ari zen zuhaitz baten ondoan eseri. Zoraturik zegoen xoria kantari entzuten. Ordubete (hala uste berak)

sinetsirik: uste izanik. **ezezta:** ezeztatu, gezurtatu. **haurgintza:** sortze. **senidekoi:** fraternal, fraternel. **adinaz:** edadeaz.

ondoren komenturatu zenean, ez zuen inork ezagutzen. Bere izena eman zuen, baita bere Abatarena ere; baina inork ez zekien halakoren berri. Azkenean, komentuko kronikara jo zuten; hala jabetu ziren gertatutakoaz: monjea irten zenetik, mila urte iraganak ziren; urretxindorrari entzuten egon zen bitarte hartan, gelditu egin zen denbora.

Egungo gizakiak ere ezagutzen du horrelakorik. Ez du ordu konturik zenbait unetan: maitasun eta ederrespen* bizi-ko unetan alegia. Betikotasuna dastatzen* du aldez aurretik. Amairik gabeko bakea.

Jainkoaren betiko leialtasuna Biblia osoan agertzen da *(395)* 403

Betiko bizitzaz ihardun garenean, Jainkoagan ukanen dugun etorkizuna bereziki darabilten Bibliako kapituluetan tinkatu gara. Baina bada kreazio berriari buruz Biblia aztertzeko beste era bat: Jainkoak, gizakiarekin duen iharduera* osoan, bere betiko asmoa agertzen diola konprenitzekoa. Eliz gurasoek, Biblia irakurtzeko modu hori *esanahi anagogiko* izenaz ezagutzen zuten (gorago doana, hots, zerutar gauzetara eta azken heldutasunera doana) *(40-41)*.

Liburu Sainduen mami izpiritualaren tankera jakin bat da hori; honako uste honetan oinarritzen da: Jainkoa historia barna gizakiarentzat izan dena, ez da guretzat gaurregun bakarrik (hori ohiturazko mami izpiritualak berak adiarazten diguna da), baizik betirako izanen da. Ikuspegi honetatik hartuz gero, Itsas Gorri-ko kontakizunak zera esan nahi du: ez bakarrik aitzina Israel egiptoarren uztarpetik* askatua izan zela, ez eta gaurregungo izakeran Jesusek dakarkigun askapena bakarrik, eta bai heriotzeaz eskuratuko dugun betiko askapena ere. Har dezagun beste etsenplu bat Testamentu Berrian: Jesusek itsuaren begiak ukitzen ditueneko hura. Horrek hauxe adiarazten du: aitzinako gizon baten sendakuntza; eta, gainera, gaurregungo fedezko argitzea; baina, gainera, Jainkoak guretzat, betirako, argi eta sendakuntza izan nahi duela.

Biblian Jainkoaren agintzaria ikusteko modu honetan, beste edozelakotan baino zehaztapen* eskasagoa nabari dugu. Baina, hain zuzen, horretantxe datza Liburu Sainduen indar eragilea, gu, hitzez-hitzeko esanahitik izpirituzkora jasotzeko. Esan ezina isildu egiten du. Ikusten dugun gauza bakarra, Je-

ederrespen: amirazio. **dastatzen:** gustatzen. **tinkatu:** oinarritu. **iharduera:** jokabide. **uztarpe:** menpe. **zehaztapen:** deskrizio.

susek itsuari begiak irekitzen dizkiola; ez da irteten irudi horretatik; gorde egiten da irudia, eta Jainkoaren baitako betiko esperantzaren ezagugarri bilakatzen* da. Holakorik topatzen* dugu katakunbetan, lehen kristauen hilobietan, zirriborraturik*: Jainkoaren betiko leialtasunaren sinbolu txikiak dira.

Biblia horrela irakur dezanak eta bere bihotza pozez eta esperantzaz bete, zeruko zorionaren osakai* funtsezkoenetako bat nabariko du: *askapena**. Izan ere, Bibliak adiarazten duen distira guztia ilun-zolan nabarmentzen bait da beti. Larritasun eta morrontzan askapena nabarmentzen da, sufrimenean baretasuna, Jainkoak nola xukatzen* dituen malkoak. Bai bikain datxekola hori guztia Ostiral Saindu, Golgota egun ondoko pozaldiari: Bazko aldiko agerpenen pozaldiari! Hauk dira, batez ere, paradisua gogorarazten diguten ezagupideak. Horra Jesus, gure izenean, lehenengo askatua; kreazio berriko lehen semea. Baina Eroslea* ere, Jesus bera da: askatzailea, Jainkoaren izenean. Eta bai gizatar gisan gertatzen dela hori guztia! Nor bere izenaz deitzen ditu bere adiskideak. Adeitasun* eta samurtasun horik agintzariz beterik ageri dira. Ez; salbamendua ez datza giza nortasuna betikotasun osorako lotan uztean; aldiz, bizien Jainkoaren argitan giza nortasuna loratu eginen da (*230, 416*).

Itxaropen betean bizi 404

Hau guztia etorkizunari bakarrik ote dagokio? Paulo sainduak hauxe ohar arazten digu: bataioaz beraz Kristorekin, Berbiztuarekin, bat egiten hasiak garela, eta horrela dagoeneko*, nolarebait, hilak eta biztuak garela (*189-190, 279*).

> «Goiko gauzak bila, goikoak, ez hemen lurrekoak; hilda bait zaudete zuek, hilda, eta geroztik Kristorekin Jainkoagan gorderik dago zuen bizitza» (Kol 3, 2-3).

Kristorekin hilik garelarik, bizitza berria jaio da guregan; uste hori arras zuzpergarri zaigu. Gure baitan jaiotzen dena, heriotzea baino azkarragoa den bizitza da, heriotzeari darion bizitza. Hori bera esaten ahal dugu egunoroko gure bizitza betean etengabe erasotzen digun heriotze «txiki» oroz: etsipenaz, pottegiteaz, gaitzaldiaz, banatu beharraz. Egunoroko horiotze hori bera ere, Kristoren izpirituz hartzen bada, itxaropenez beterik dago. Jainkoaren ahalmenaz, gure zoritxar bakoitzak berbizte hazi bat darama bere baitan, izkutuko ernalkortasun* bat, geurontzat eta besterentzat.

---

bilakatzen: bihurtzen. **topatzen:** aurkitzen. **zirriborratu:** marraztu. **osakai:** elementu. **askapen:** liberación, libération. **xukatzen:** lehortzen. **Eroslea:** Redentor, Redempteur. **adeitasun:** deferencia, attention. **dagoeneko:** honez gero, jadanik. **ernalkortasun:** fecundidad, fecondité.

Kreazio berria geuregan daramagu orain ere (*338*); burutapen hori, gure kontzientzian, zoriona eta usteona darizkion argi bat bezala sor daiteke. Orobat, ordea, Izpirituak emana dugun geure saindutasunarekiko poz-harridura bezala sor daiteke. Eta saindutasun hori gure gorputzari ere badagokio. Hona zer dioen Paulo Sainduak geure burua lizunkeriatik begiratzeko* dasaigunean:

> «Alde, alde lizunkeriatatik! Gizonak egin dezakeen beste edozein bekatu haren gorputzetik kanpora gelditzen da; baina lizunkeria egiten duenak bere gorputzaren kontra egiten du bekatu. Ala ez dakizue zuengan bizi den Izpiritu Sainduaren tenplo duzuela zuen gorputza?» (1 Kor 6, 18-19).

Aintzazko gure bizitza dagoeneko hasia dela sinesteak, ez lioke munduari beronen izakera mundutarra kendu behar. Ez digu lurreko geure bizitzaz axolagabe* izatera eragin behar, ez eta munduko gauzei iheseginez bizitzera ere. Bestela, hain zuzen, Jainkoaren mezuaren egiazko esanahia huts eginen genuke, zeren gure izateari beronen garrantzia eta seriotasuna ezagutzen bait dizkio (*283*); orobat, esperantzaz beterik agertzen du. Honela dio mezu horrek: bizitzak badu esanahi bat, Jainkoaren eskuetan dago, eta egiten dugun oro, garrantzizko da, nola mundu honetarako, hala mundu berrirako. Horra Paulo sainduaren hitz hauen esanahi sakona: «Irrika itzazue goiko gauzak». Paulo sainduak, horrela, hauxe esan nahi du: gure bizitza etorkizun batetara iraekia dagoela, ederra dela gure bizitza hau, usteonez behar diogula aurpegi eman (*343*). Inoiz, atseden eta bakealdi zenbaitetan, uste sakon honen aurrean aurkitzen gara: kreazioa aintzan garatzeko* egina delako ustearen aurrean. Une horietan ez dugu ez ezer eta ez inor gogoratu beharrik izaten —gorago egiten genuenez—, guretzat Jainkoaren agintzariaren sinbolu izan daitezen edo. Beren izate hutsez mintzo zaizkigu gauzak eta gizonak: Jainkoak, guregan hasia burutu egingo du (*402*). Mahain gaineko loreak, hiriko kaleak, maitearen eskuak, hil zorian denaren kemena, misiolariaren fedea, haurtxoaren axola-eza, on den oro, bere izate hutsez, mintzatzen hasten zaigu: adiaraz ezineko helburua dugula esanez, gure itxaropena ustel ezina dela, eta ezerezaren gaindi Jainkoagan finkatua eta segurtatua dagoela adiaraziz.

Beste une batzuetan, berriz, arruntago direnetan alegia, esperantza horren ordez, alferrik ezer gertatzen ez delako ustea izango da. Eta huskeriaren edo larritasunaren zentzuak inguratzen duenean ere, kemen iturria den esperantza gelditzen zaio fededunari (*143*). Jesusen Pasioaren kontakizunetan,

---

begiratzeko: zaintzeko. **axolagabe:** ardura gabe. **garatzeko:** heltzeko, osatzeko.

esperantza hori ez zela itzalia dakusagu, Jesusek honela hotsegiten zuenean bertan: «Ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»

Paulok erromatarrei idazten die:

> «Egia esan, nire ustez oraingo neke-lanok ez dira ezertxo ere, gero guregan azaldu behar duen gloriaren ondoan. Ba izadia bera ere itxaroten eta irrika batean dago Jainkoaren semea noiz baino noiz agertuko zaion. Ba ezerezaren eta etsipenaren azpian jarria izan bada ere —ez da bere gogoz jarria izan, menpean jarri duenak hala nahi izan duelako baizik—, itxaropena ukan du beti ere: askatua izango dela bera ere ustelkeriaren morrontzatik, Jainko semeen gloriazko askatasunera sartzeko. Ba ondo asko dakigu, aiene eta intziri, erdiminetan dagoela izadi osoa egun horretaraino. Eta ez izadia bakarrik; gu geu ere, Izpirituaren hasikinak* gurekin ditugunok ere, intziri batean bait gaude gure barrenean gure gorputza noiz salbatuko zain. Izan ere itxaropenetakoa bait da gure salbazioa, itxaropenetakoa. Ba itxaroten dena ikustea, ez da itxaroten egotea. Zeren, batek ikusten badu gauza ikusi, nola egongo da ba oraindik horren itxaropenetan? Baina ikusten ez duguna itxarotea, gogoz eta iraupenez itxarotea da hori» (Erm 8, 18-25).

Jainkoa

Argi hurbil-ezinean bizi dena 405

Bada kristaurik, Bibliaren iluntasunagatik Jainkoari eskerrak eman dizkionik (*374*). Esate baterako, Avilako Teresak, ulertzeko zailegia zaion laterazko Biblia utzi, eta bere jatorrizko hizkuntza hartzen du; halere, ordea, testu ulergaitz* asko topatzen zuen. Orduan, eskerrak damaizkio Jainkoari. Bere hizkuntzan ere Jainkoa ezin atxekia, ezin aditua, ezin inguratua izatea, Jainkoaren misterio handiaren ezagugarri bilakatzen da. Ez nuke konpreni nezakeen Jainkoa sinetsiko, esan beharko genuke Graham Green-ekin.

Ez da giza hitzik, Biblian bertan ere ez, Jainkoa zer den esan dezakeenik. Inon ere ez da Biblian argitasun erosorik*: Job-en liburuaren borroka ilunean agertzen zaigula edo ebanjelioen goiz-argitan, misterioa ez da inoiz erauzten*; aldiz, handitu egiten da.

Ehunka bil daitezke Bibliako orrialdeetan Jainkoari ezartzen zaizkion izenak. Jainkoaren *gaindikotasuna* adiarazten dute: «Inor ingura ezin daitekeen argitan bizi dena» (1 Tm 6, 16); Jainkoaren gurekiko *ardura*: «Orduan Jahve Jainkoak gizona moldatu zuen lurreko hautsez» (Gn 2, 7); Jainkoaren *eskakizun zorrotza*: «Gure Jainkoa su erretzaile da» (Heb 12,

hasikinak: primicias, prémices. **laterazko:** latinezko. **ulergaitz:** konprenigaitz. **eroso:** erraz. **erauzten:** suntsitzen.

29); Jainkoaren *ahalmen bizigarria:* «Zuk zuzentzen didazu burua» (Sal 3, 4); Jainkoaren *maitasuna*: «Korrika semearengana joan zen, eta besarkatu egin zuen» (Lk 15, 20).

Hitz guztiok motelak dira: haatik, indar handi bat darie. Bibliak Jainkoaz dioena, dena batera hartuz gero, nola-halako argitasun bat ageri da. Ez, noski, Jainkoa adigarri* legigukeen* argitasunik; baina, bai, norabide* hobeagoan ipintzen gaituen argitasuna. Horixe bait da Jainkoak Israeli eginiko Agerkundearen zati bat: giza pentsamenduan bertan aurkitzen den Jainkoaren ideia atera egiten du gezurrezko bideetatik, eta Jainkoak bere burua ikustera ematen dueneko bidera zuzentzen du. Argitzen dena, mundu honek Jainkoarekiko duen harremana da lehenik (Ikus «Jainkoaren Izpiritua mundu osoan» kapitulua).

«Berak egin gaitu» (Sal 100) *(249, 353, 283)* 406

Israelen lehen erlijio esperientzia, hauxe da: Jainkoa, bere goi-ahalmenetik, bere herriaz arduratzen dela (*28*). Jainko Salbatzaile da. Diren guztiak Jainko Salbatzaile horrengandik datozela gogoematera eta ohartzera, oso geroago heltzen* da herria: mundu zabalago bat aurkitzen duenean; Jainko Kreatzaile da: halaxe adiarazten du, ederki asko, kreazioaren èresiak* Genesiaren lehen kapituluan (*29*).

Zein eta zabalagoa agertu mundua eta hedatuagoa* da Jainkoarekiko gure ideia. Nebulosek eta argi-urteek, mikrobioek eta nukleoaren zatitxoek, kontzientziaren eta subkontzientziaren sakontasunek, aurrerapenek, piskana-piskana agertzen zaigun biziaren eboluzioak: horrek guztiak, egunetik egunera, hazi egiten du guregan Jainkoaren adi-ezineko ahalmen kreatzailearen ideia. Bereziki, eboluzioa gogoan hartzen dugularik, Jainkoaren distiraren ikuskizun berrira iristen gara (*9-13*). Munduaren «bilbakuntza*» hori gure begien aurrean doa hedatuz, eta horren esperientzia dugu geure bizitzan. Hori dela eta, beti hotsegina izan den, baina arreta txikiz hartua izan den egia batek, biziago hunkitzen gaitu; alegia, «Jainkoak sortzen du mundua» delako esaera zuzenago da ohiturazko beste esaera hau baino: «Jainkoak sortu du mundua». Gizona moldatzen agertzen digun Bibliako Kreatzailearen irudi ederrak ez gaitzala eraman, Jainkoak ondoren mundua bere gisara* utz zezakeela pentsatzera (*404*). Kreatzea ez da zerbait egitea, guk geure lan gizatarrak egiten di-

adigarri: ulergarri. **legigukeen:** egingo ligukeen. **norabide:** orientación. **heltzen:** iristen. **eresi:** poema, poème. **hedatuagoa:** zabalagoa. **bilbakuntza:** eboluzioa. **gisara:** erara.

tugun bezala. Zurginak*, errediza* bat egin eta alde egiten du, eta armarioa hor dago; olerkaria, bere obra egin eta hil egiten da, eta haren eresiak badirau. Jainkoak bere ahalmen kreatzailea une bakar batez gordeko balu —barkagarri bekigu honela mintzatzea—, ez litzateke aurrerantzean ezer ere izanen. Aldiz, «Jainkoa kreatzaile da» esatean, diren guztiak orain berton Hari atxekirik daudela esaten dugu. Jainkoa Kreatzaile bezala zer den ulertzeko, haserari baino areago, orainari eta etorkizunari begiratu behar zaie. Jainkoa orain ari da bere obra amaitzen* (*209-211*).

Bibliaren haseran (Gn 1, 1) datorren «haseran» hitza eta Joan sainduaren ebanjelioaren haseran (1, 1) aurkitzen dena, ez da hartu behar, denbora hutsaren hasera bezala, ordenaren eta izatearen hasera bezala baizik. «Haseran» horrek hauxe esan nahi du: «jatorrian», «iturburuan»; gauza guztietan Jainkoa dela lehena aldarrikatzen du; Ruysbroek-ek dioen bezala, gauza ororen kausa, iturburua eta jatorria Jainkoa da.

«Zerua lurretik urrun den beste». Jainkoaren gaindikotasuna (trazendentzia) 407

Eta haseratik, hots, gizakiak Jainkoa goreneko ahalmen salbatzaile bezala besterik ezagutzen ez zuen garaitik, Bibliak hauxe aldarrikatzen du: Jainkoa bera ez dela mundu honetakoa. Lehenengoz, orduantxe ematen da zuzen Jainkoak munduarekin duen harremana. Jainkoa ez da suntsitzen munduarekin nahasiz. «Trazendentzia» edo gaindikotasun hitzak horixe adiarazi nahi du. Jainkoa gaindikoa da; kreazioaren gain dago, kreazioa ez beste da.

Giza gogoetak, batzutan, Jainkoaren gaindikotasuna ukatzera jotzen du. Joera horri panteismoa deritza. Zenbait panteista teoriak mundua jainkozko ahalmen bezala ematen du; guztiok, Jainkoa eta mundua elkarrekin hain hestu lotzen dituztelarik, ez dute Jainko *Bat* bezala, *Bakun** bezala ikusten, ez eta bere baitan gu gabe denik eta guregandik bereizia denik. Ez da okerra panteismoak ezagutzen duena, ezagutzen ez duena baizik. Panteismoak mundu hau Jainkoaz betea dagoela irakasten du, eta ongi da, horretaz gero eta jabeagotuz joatea. Baina panteismoak ukatu egiten du Kreazioari buruz Jainkoa beregaineko* delako misterioa. Bibliako agerkundeak, lehen orrialdeetatik zuzentzen du oker hori.

---

zurginak: arotzak. **errediza:** mueble, meuble. **amaitzen:** burutzen, osatzen. **bakun:** simple. **beregaineko:** independiente, indépendant.

Jainkoaren gorentasun hori, batasun hori, trazendentzia hori, guztiz Beste izate hori, adiaraz-ezina da. Kreazioak Jainkoa zer den suma arazten digu, baina badakigu ere sorkari* ororen erabat gainetik dagoela. Hiri baten edertasuna, haur nahiz zuhaitz batena, Jainkoaren bikaintasun liluragarriaren ondoan txingar bat besterik ez da. Gizonik onenaren saindutasun eta ontasuna, Jainkoaren argi eta maitasunaren erainu motel besterik ez dira. Halere, Hartaz mintzatzeko, hitzen beharrean gara. Horrela, gure lurtar hitzak erabiltzen ditugu; baina «neurrigabe» izenlaguna* erantsiz: egia neurrigabea, maitasun neurrigabea, nortasun neurrigabea. Halaz guztiz, hitz horik (egia, edertasun, maitasun eta nortasun) lurrean ezagutzen dugunetik hartutako hitzak dira beti. Eta erabiltzen ditugunean, beti, mugaturiko zerbait dugu gogoan. Horregatik, giza izpirituak gainditu* egin behar ditu kontzetu horik, Jainkoa guk pentsatzen duguna ez beste zerbait dela jakinik. Horregatik, esan behar dugu ere, Jainkoa ez dela norbait, ez dela maitasun, ez dela egia (*250*). Ezeztapen* honekin gure hitzak hautsi egin nahi ditugu, horien mugatasuna neurrigabetasunera irekirik. Honela, hitzak berberak izan arren, esanahi garaiagoz* bete nahi ditugu; orduan ere behin eta berriro, etengabe, garbitu beharko ditugula jakinez. Hain zuzen, Jainkoaz gogoetaka ari dena, ez da inoiz geldituko; bilaketa horrek harriduraz harridura eramango du Jainkoaren neurrigabetasunera.

«Israel, ene semea!» Jainkoaren imanentzia 408

Biblia ez da mintzo Jainko hurbilgaitzaz, trazendenteaz bakarrik. Hori baino berezikiago Jainkoa hurbilekoa dugula aldarrikatzen du. Jainkoa «ez dago gutako bakoitzagandik urruti. Harengan bizi bait gara, ibili bait gabiltza eta izan ere harengan gara» (Ap Eg 17, 27-28). Jainkoaren ahalmena eta maitasuna dira munduaren euskarri*. Jainkoa gauza guztietan egote honi imanentzia deitzen zaio. Hurbiltasun honen sakontasuna, Jainkoaren trazendentzia hurbilgaitza bezala, giza izpirituak atxeki dezakeenaren gaindi dago. Eta gaur munduaren gure ezaguera haziz doalarik, Jainkoaren presentzia horretaz dugun ideia ere, gaurregunari dagokion jitea* hartzen ari da. Aitzina, joera hauxe zebilen: gertaera baten lurtar sorburua ezagutzen ez zenean, Jainkoari egozten* zitzaion. Ezagutzen zen, bai, Jainkoaren eskua diren guztietara iristen dela; baina, sarritan, Jainkoaren presentzia, ohituraz kanpoko

sorkari: kreatura. **izenlagun:** adjetivo, adjectif. **gainditu:** gainezkatu, superatu. **ezeztapen:** ukapen, negazio. **garaiagoz:** goragokoz. **euskarri:** sistengu. **jitea:** tankera. **egozten:** eransten.

eta esplika-ezineko zerbait gertatzean nabari ohi zen; esate baterako, ekaitz edo izurriteren bat sortzean edo bapatean izkutatzean. Jainkoa, batez ere, gauzak beren bide arruntetik irtetzean sumatu ohi zen. Honela, adibidez, egiazkoago ikusi ohi zen Jainkoa gaixoari emandako bedeinkapenean, mirikuaren trebetasunean baino. Guk, aldiz, Jainkoaren eskua mirikuaren zientzian ikusteko joera handiagoa dugu; ez noski, Jainkoa mirikuaren aldamenean edo belarrira zerbait esanez balego bezala, baizik bere nortasuna galtzen ez duen mirikuagan dagoelarik (*406*). Sorkari bat bere baitan «norbaitago», eta Jainkoa harengan eragileago. Jainkoa ihardunean* ariz, sorkaria ez da bazterrean gelditzen; baizik, sorkariari —eta batez ere gizakiari— bere burua heltzen eta osatzen uzten dio (*73-74, 235*).

Bibliak, Jainkoaren imanentzi ideia hau ez du landu filosofi aldetik. Izpiritu bat nabari dugu ordea orrialde bakoitzean: gora-behera guztietan zuekin nauzue, esaten digularik. Ikusi dugu gorago: Testamentu Zaharrean bertan, fededunek lehenik sumatzen duten gauza, hauxe da· Jainkoa guztiz hurbil dagoela, gu laguntzeko prest. Agertu, guztiz hurbileko eta tarteko bezala agertzen da haseratik; eta hala darrai. Babiloniako herbestealdian*, Israel herria, gero eta hobekiago jabetzen hasten da, zein handia den Jainkoa: «Itsasoren batetan ur tantan bat besterik ez dira herriak Jainkoarentzat» (Is 40, 15); eta orduantxe esaten dio Jainkoak Israeli:

> «Ba nik, Jahve zure Jainkoak, nik heldu dizut zure eskuinetik eta esan: Ez eduki beldurrik, laguntzera natorkizu eta. Ez ukan beldurrik, Jakob, ene har txiki horrek, Israel xomorrotxo horrek. Neu natorkizu laguntzera, dio Jahvek, eta Israelgo Saindua da zure askatzailea» (Is 41, 13-14).

Eta guri ere, gutako inorengandik ez dagoela urrun esaten ari zaigu etengabean*. Harrigarriena ez da sorkari guztiekiko Jainkoaren trazendentzia, eta bai gauza txikienaz ere duen bere ardura

Agerkundeak* gidatzen du gure bilakuntza* 409

Aipatu ditugun kontzetu-bide bi horiek, Jainkoaren agerkundeak bere garbitasun osoan distiratzen duen argitara gidatzen gaituzte (Ikus «Jainkoaren Izpiritua mundu osoan» kapitulua). Jainkoa mundutik bereizia, eta Jainkoa munduaren bihotz; Jainkoa gizakiari buruz beregaineko*, eta Jainkoa gizakiarekin elkarturik.

---

ihardunean: lanean. **herbestealdi:** desterru. **etengabean:** gelditu gabe. **Agerkunde:** Revelación, Révélation. **bilakuntza:** búsqueda, recherche. **beregaineko:** independiente, indépendant.

Trazendentzia eta imanentzia, biak batera doaz Jainkoagan; halako misterio baten aurrean, giza adimenak bere ezina ezagutu behar du. Baina, fededunaren begietan, agerkunde horrek Jainkoaren handitasuna azaltzen du. Jainkoa munduan suntsitzea (panteismoa), ala guregandik arras urruneko* bezala hartzea (deismoa): horra hor bi irtenbide, gure adimenak aisago onartuko lituzkeenak; baina, aldi berean xit urruneko eta arras hurbil izateak, agerkundeari tirabira bat, irekitasun bat eta kontzetu egokitasun bat ematen dizkio, gure baitan uste hauxe sor araziz: Jainkoa dela hemen mintzo dena. Gure pentsamenaren gaindi* dagoen misterio adigaitz horretan, bihotza zabaldu egiten zaigu. Bakea aurkitzen dugu. Jainko horrentzat egina bait da gure bihotza (*374-375*).

Job gizakia Jainkoarekin eztabaidan 410

Oraino, alabaina, ez da hori Agerkundearen azken hitza Jainkoari buruz. Job-en galdea kezkagarri zaigu: nondik nora, gero, gaitza, gauza guztiak Jainko onagandik datozela egia baldin bada?

Agerkunde osoak aldarrikatzen du, eta bortizkien* aldarrikatu ere, gaitza ez datorrela Jainkoa bezain errotiko* eta ahaltsu litzatekeen ilunpeko inolako ahalmenetik (*402*). Ez da ezer Bibliaren irakatsiaren kontrakoago, mundua bi indar berdinetan banatzea baino, Jainkoa eta gaitza kontrako bi indar berdintsu bezala hartzea baino. Izan ere, bere baitan inolako ilunik ez duelarik, Jainkoa da sorburu bakarra.

Baina, honela, zorrotzago gertatzen zaigu geure galdea: nondik nora gaitza? Baldin bere sorrera ahalmen gaizto eta betiko batetan ez badu, Jainkoa izan beharko du gaitzak bere sorburu*; baina, nola liteke hori? Bera, betidanik on dena, gaitzaren sorburu? Biblia osoak, Jainkoa, gaitzaren kausa ez baino etsai dela agertzen digu. Aldi berean, Bibliak begiak ireki arazten dizkigu, eta gaiztakeriaren eta oinazearen iturri nagusia non bilatu ikusarazten digu: bere ontasuna hondatzen duen izaki askearen* askatasunean alegia. Lurrean gaitzik sakonēna bekatua dela agertzen digu Bibliak (Irakur, arazo honi buruz, «Bekatuaren indarra» delako kapitulua) (*207-219*).

Baina, bestalde, topatzen dugu sufrimenik eta oinazerik, bekatuarekin lotua dela esan ez dezakegunik; hain zuzen, halakoak, «bilakaeratik*» datozela, mundua haziz joatetik datozela ikusten dugu. Mixeriak, hestu elkarloturiko bi sustrai hauk ditu: munduaren eboluzioa eta bekatua. Horrez gero, be-

urruneko: urrutiko. **gaindi:** gainetik. **bortizkien:** indarrik handienaz. **errotiko:** sustraiko. **sorburu:** iturri. **aske:** libro. **bilakaera:** eboluzio.

katuari egotzi* ezin diogun nekerik eta zoritxarrik badela esan behar dugu. Eta gaitz hori, beraz, Jainkoagandik ote letorke? Gainera, gizakiak egindako bekatua bera ere, har ote daiteke, diren guztiak bere esku* dituenarekin zerikusirik ez lukeen zerbait bezala?

Galdekizun horiei heldu aurretik, komeni da beste honetaz jabetzea: *gauza bakoitzari buruz* eta *gertaera bakoitzari buruz*, bakoitza bereiziki harturik, kasu bakoitzean eta oso-osorik Jainkoagandik datorrela diogunean, fedearen argiz dakiguna baino gehiago esaten dugu. Geure erara asmatzen dugu Jainkoaren guztiahala; irudika* dezakegun gauza oro bata besteari erantsiz, honela esaten dugu: hori guztia egitean datza Jainkoaren guztiahala. Baina, orduan, zeru goietan robot bat jartzea litzateke. Eta horrela konturatzen gara zer utzi duen Jainkoak kontutan hartu gabe: horra, diogu, mundua mixeriaz beterik dagoelako arrazoina.

Baina, nondik atera dezakegu, Jainkoa neurrigabean guztiahaldun, guri irudimenak emandako gisan dela, hain zuzen, guztiahaldun? Agian, izan ere, Jainkoa guztiahaldun, guk irudika dezakegun baino gisa ulergaitzagoan, miresgarriagoan —gisa guztiahaltsuagoan— bait da guztiahaldun.

Jainkoaren agerkundetik abiatuz, gure fedeak badaki gauza oro, bere osotasunean, Jainkoagandik datorrela. Baina, gertaera bereizi bakoitza oso-osoan Jainkoagandik datorrela esatea beste gauza bat da. Izan ere, gizakiek eta gauzek ere badute, bada, berena den ekintza: nolarebait, beren bidetik doaz; eta zorigaiztokoa izan daitekeen bidetik gainera; aparte hartuz gero, osotasunaren aurka doan bidetik alegia; lanean diharduten jende eta gauzentzat osagarri ez den ekintza da orduan (hau esan nahi da: diharduten pertsonek eta gauzek ez dutela betetzen beren lekua, eta ez dutela jokatzen osotasunean erabat on bilakatzeko* moduan). Hori dela eta, beren maila berezian, ez dira erabat Jainkoaz beterik. Horregatik, zoritxarren bat, porrokaldiren bat, hilketaren bat dela eta, ezin esaten ahal da honelakorik: hori Jainkoagandik dator, Jainkoaren nahia da. Oinazea eta gaitza, holako direnez, osoaren aurkako dira, Jainkoaren asmoaren aurkako. Hain zuzen ere, Jainkoa ez denarekin daude loturik. (Ez da gauza erraza gaitzari buruzko gogoeta, zeren gaitzaren izatea onarena ezbezalakoa bait da, eta ezin neur daitezke biak neurri berberaz. Gaitzak ez daduka berez izaterik. Gaitza onari nahasirik da beti. Gaitza beti *gauza onen usteldura* da. Hor dago, bada, urratu edo ebaki bat bezala, urratu edo ebaki bat zera osoan egon daitekeen bezain urri) (377).

---

egotzi: erantsi. **esku:** gain, ardurapean. **irudika:** asma. **bilakatzeko:** bihurtzeko.

Gauza txarrak, besterik gabe, Jainkoari egotzi ezin baldin bazaizkio ere, fedeaz badakigu, Jainkoa aski ahaltsu dela gaitzetik ona ateratzeko eta gaitza onera, hots, osotasunera eramateko. Horik horrela direlarik, uste honetan egoten ahal gara: oinaze betean ere, eta hain zuzen, larriduran bertan ere «ez da xoriño bat bakarrik lurrera erortzen zuen Aitak nahiezta. Zuek, berriz, zuen buruko ileak ere kontatuak dituzue!» (Mt 10, 29-30). Horixe da fedearen irakatsia. Dena Jainkoaren eskuetan dago. Berak gidatuko du nor bakoitza eta gauza bakoitza ona den osora, eta hori, gaitza eta guzti, eta gaitzaz baliatuz gainera. Gaitzak, beraz, badu bere lekua osotasunari buruz. Baina, Jainkoa «orduan» gaitzaren kausa dela esan bageneza, urrunegi joanen ginateke. Ditugunik hoberenetan on-guztizko bezala ezagutu dugun hori, ez genezake ipin guregan mixerableen denaren hildoan. Hain zuzen ere, Jainkoa, neke eta gaitz ororen aurkako bait da.

On eta maitagarri bezala sumatzen dugunarekin ez da berdin gertatzen. Gauzak eta gizakiak, bakoitzari dagokionez direla ikusten dugunean, hau da, Jainkoaren munduarekin eta Jainkoaren asmoekin bat datozenean, Jainkoa ezagutzen dugu, eta eskerrak ematen dizkiogu gauzarik txikienetan: berari alegia, «bizi diren guztien Adiskidea»ri (Jk 11, 26).

«Ez duzu gorrotatzen* zerorrek egindako ezer» 411

Biblia zehar jarrai genezake Jainkoaren agerkunde hori gero eta handiago bilakatzen; gero eta garbiago eginez doa, eta esaera zaharretara bihurtzen da, halakoak berriztatu gogoz. Noski, testu guztiek nahi dute Jainkoa Erosle eta salbamendu iturri bezala agertu; baina, hasera batetan, Jainkoa agertzeko moduari, antz hauxe hartzen diogu; Jainkoa besterentzat, hots, etsaientzat, gaizpide* balitz bezala agertzen dela. Honela irakurtzen ahal dugu, esate baterako: «Jainkoak Faraonen bihotza gogortu zuen» (Ex 10, 20). Beste zenbaitetan esaera zuzenagoa da: «Faraon-en bihotza gogortu egin zen» (Ex 9, 35).

Beste hainbeste ikus daiteke Job-en liburuko lehen eta bigarren kapituluetan. Behin batez, honela dio: «Jainkoak eman zuen, Jainkoak hartu du»; halaz guztiz, kontakizun berak hauxe idarokitzen* du: gaitz-indar bat dela «hartu duena». 2 S 24,1 eta Kron 21,1 testuak alderatzea esanahi handikoa da.

Ohar horik kontutan hartuz gero, hobeto uler daitezke honoko honen antzeko hitzak: «Jahve da hil eta biziarazten duena... Jahve da pobretasuna eta aberastasuna ematen dituena» (1 S 2, 6-7). Esakun* hauetan datorren egiazko mezua ez da, Jainkoa gaitzaren iturri dela-

gorrotatzen: hastiatzen. **gaizpide:** galbide. **idarokitzen:** gogorarazten. **esakun:** esaera.

koa. Beste hau baizik: mundua, osorik harturik eta salbatzekotan, Jainkoak bere eskuetan dadukala baieztatzen da zabal-zabal eta dudarik gabe. Duen batasunean harturik, 1 S 2,1-10 testuan datorren eresiak*, argi eta garbi, mezu horixe bera azaltzen du, tankera zaharrean bada ere.

Testamentu Berrian, Jaunaren hitz eta egite guztiek: parabolek, sendaketek eta gure mihian* ezartzen duen «Aita» hitzak, askoz ere garbiago agertzen digute berrion hau (*88-89, 85, 103*). Galdegiogun gai honi buruz Testamentu Berriari. Hauxe ikusten dugu: Aitak eguzkia zintzoen eta gaiztoen gain ateratzen duela; baina ez du esaten, inoiz ere, Jainkoak hondamenik bidaltzen duenik gizakia zigortzekotan. Jerusalenen porrokaldia* adiaraztean ere, ez du hori Jesusek bereziki adiarazten Jainkoak bidalitako zigor bezala. Testamentu Berria arazo honetaz mintzo denean, Testamentu Zaharrean baino argiago ageri da, gaitza dela bere burua zigortzen duena. Egia da, Testamentu Berriak, adibide eta gonbarazio bezala, badakarrela Testamentu Zaharrari harturiko lurtar zigorrik (esateko, 1 Kor 10, 1-11 eta 2 P 2, 1-10); baina, Testamentu Berrian, betiko gaitzespenaren* irudi bezala aurkezten dira. Itun Berriak oso gogor azaltzen du gaitzespen hori (*70*): «Gorputza eta arima gehenara bota ditzakeen Hari beldur ukan» (Mt 10, 28). Baina, ikusi genuen, gaitzespen hori, ez da Jainkoak kanpotik ezar liezagukeen zigorra; gizakiak bere baitan burutzen* duen gogorkeria da; Jainkoa, aldiz, gizakia salbatzeko beti prest dagoena da. «Ez diozu desgusturik egin duzun ezeri» (Jk 11, 24) (*400-401*).

Agian, ohar arazi beharrekoa da, Testamentu Berrian badela zenbait esaera, oker har litekeenik (hitzen arabera, ez mamiaren arabera). *Gure Aita*-n, esate baterako, honela otoitz egiten dugu: «Ez gu tentaldira eraman». Jainkoa ote da tentaldira garamatzana? Norbaitek horrela har lezake, agian. Beharbada, okerbide hori uxatzekotan eransten* du Mateok: «baina atera gaitzazu gaitzetik». Tentaldia gaitzetik dator, eta ez Jainkoagandik.

Biblia osoak, osorik harturik, irakasten du, gero eta argi biziagoz eta oker hartu ezineko moduan, inolako gaitzik ez datorrela Jainkoagandik; ona bakarrik dator Harengandik.

«Nire izenean Aitari eskatzen diozuten guztia» 412

Baina, galde dezake norbaitek, gizakiek eta gauzek, zoritxarreko gerta daitekeen eta Jainkoari egotz* ez dakiokeen beren ekintza berezia baldin badute, Jainkoak ba ote dezake eraginik ukan delako ekintza horri buruz? Izpiritu ona hartzeko otoitz egiteak ba ote, gero, esanahirik?

eresi: canto, chant. **mihian:** mingainean. **porrokaldia:** txantzea, erorialdia. **gaitzespen:** kondenazio. **burutzen:** betetzen, osatzen. **eransten:** gaineratzen. **egotz:** egotzi, erantsi.

Eta sarriago egin ohi den beste otoitz honek, gaixotasunak eta ezbeharrak izkutatzea eskatuz egiten denak, ba ote du esanahirik? Jainkoak eskuhar* ote dezake gertaera hauetan, nahas* ote daiteke horietan, eta izadiko legeak geldiaraz ote ditzake? Ekin diezaiogun azken puntu honi, lehenik. Inork ez digu esaten, gure otoitza entzun ahal izateko, Jainkoa lurtar gauzak baztertu beharrean aurkitzen denik. Horretaz ez dakigu ezer. Ez dakigu Jainkoak sorturiko munduan zenbat indar ari den ihardunean* (*74*). Ezin iritsi gara Kreazioa bere sakontasunean aztertzera. Hainbat gutxiago dezakegu hori, zeren Jesukristo biztu delako fedeak ziurtasun* hauxe ematen bait digu: Jainkoa mundu hau amaitzen* ari dela, Kreazio berri bat sor arazten.

Kreazioa, bere osotasunean harturik, gure oharmenez* atzeman* dezakegun baino hedatuago*, sakonago eta aberatsago da. Eta hona, fedearen argiz, gure otoitzaz esan dezakeguna: otoitz dagigunean, Berbiztuak kreazioan ari duen ekintzara irekitzen gara (*80-90*). Kreazio berriko indar berriei irekitzen gatzaizkie. Indar berri horik ez doaz munduaren aurka; baizik, hain zuzen, munduago bihurtzen dute, salbamenduzko eta ontasunezko bere egiazko zeregina hobekiago burutzen laguntzen diote. Horrela, gure artean Kristoren ahalmenaren kontra aurki litezkeen hesiak kentzen ditugu; hain zuzen, kreazioak zerbait argiago azaltzen digu bere azken esanahia. Orobat gertatzen da sendakuntza batetan, edo giro on bat dela eta. Otoitz egin daiteke, beraz, gauza horik eskatuz. Eta gertatu eginen dira, Kristoren misterioari, hemen eta gaur eta horrela, agertzea komeni bazaio. Ebanjelioan, Elizaren historian zehar eta geuron bizitzan bertan entzunak izan diren eskariek, hauxe agertzen digute: fedearen arrokan* gogor oinarrituriko otoitza, Jainkoak entzun egiten duela (*89*).

«Larrialdian berarekin izango nau» (Sal 91) 413

Baina galdeak, gero eta zorrotzago datozkigu. Izan ere, nola komeni liezaioke Kristoren misterioari sufrimen* bat halako batetan ezereztua izatea, eta beste halako batetan ez? Nola, honako ama gazte hau bere seme-alabatxoen artean hiltzea? Ez ote zezakeen Jainkoak halako zoritxarra galaraz?

Lazaro hil zenean, galde hori bera egiten zuen jendeak:

> «Itsuaren begiak zabaltzeko gauza izan den horrek, ezin ahal zuen gizon horren heriotzea ere galarazi?» (Jn 11,37).

eskuhar: eskuhartu, parte hartu. **nahas:** nahasi. nahastu. **ihardunean:** lanean. **ziurtasun:** segurantzia. **amaitzen:** burutzen, osatzen. **oharmenez:** zentzuen bidez. **atzeman:** iritsi, lortu. **hedatuago:** zabalago. **arrokan:** harkaitzean. **sufrimen:** pairamen.

Zer erantzuten du Jaunak? Jesusek, garrantzi handiagoko den zerbait uzten du barruntatzen*· Jainkoaren aintza (Jn 11, 4) eta, gizakien aldetik, fedea sakonagotzea (Jn 11,42). Baina, ez da Jesusen hitza bakarrik Jainkoaz zerbait erakusteko; *ikus dezagun zer dagien. Bizia ematen du*, eta Lazaro hil izan ez balitz baino poz, aintza eta fede handiagoa. Sufrimena onartu egiten da, eta azken bakearen onerako ipintzen. Gehiago ikusten dugu oraino; geure kontzientziatik kendu behar ez genukeen alderdi bat da; hain zuzen, Jaunak negar egiten du. Jainkoaren garaipena, sufrimenari buruz, ez datza gauzek beren hartan jarrai dezaten uztea, norbera lasai eta minsor geratuz.

Baina, esanen da, Jesusek Jainkoaren aintza Lazaroren biziaren bizkar agertzen du. Lazaro, izan ere, egitan hil baizen egun hartan! Horri erantzuteko, begiraiogun Jainko Semeari berari Olio mendian. Dizipuluetako batek bere ezpata hartu nahi du: horrelaxe hartzen ditugu guk indarra eta salbamendua. Jesusek esaten dio:

> «Zer uste duzu, ezin hots egin diezaiokedala nere Aitari, ala? Eta oraintxe bertan emango lidake harek hamabi aingeru-talde baino gehiago».

Gainera, honela jarraitzen du Jesusek:

> «Baina eta nola bete orduan Izkribu Sainduak? horiek dakartenez hau hola izatea komeni bait da?» (Mt 26, 53-54).

Asmo bat bada, osotasun bat, askoz ere handiagoa eta aintzatsuagoa; asmo horren ondoan, Jainkoaren eskuhartze* hori ez legoke bere lekuan, tokiz kanpo legoke. Baina hori ez da Jesusek lasai-lasai ikusten eta onartzen duen gauza. Aldiz, bere odolezko izerdia kostatu zaio Jesusi hori guztia. Bere haragian eraman behar izan zuen mixeriaren garratza. Horra Jesusen ahalguztiaren irudia: adiskide batez negar egin, bere heriotzearen aurreko larritasunaz odolezko izerdia ixuri.

Izan ote zitekeen beste nolabait? Ez ote zen hobe izango bide errazagoren bat? Nork jakin? Ziurtasun osoz esan dezakegun gauza bakarra, hauxe da: Jainkoak ez duela gaitza patxara osoan jasaiten*, besoak bildurik, nolarebait esateko. Ikusezinaren irudi den Jesusengan, Jainkoa ikusten dugu, den bezala. Sufrimenaren eta gaitzaren aurka odoleraino doanean ere, Jesusen hitzek badute beren indarra: «Ni ikusi nauenak Aita ere ikusi du» (Jn 14,9).

«Jainkoak bidea ematen dio gaitzari» delako esaera hau zuzena da, Jainkoak gaitzetik ona atera dezakeela adiarazi nahi badu; baina, ez du esaten nola gerta daitekeen eta, alde horretatik, okerbidè gertatzen da. Hobeago eta egokiago da esatea: Jainkoa gaitzaren aurka ari da, gaitzetik salbatu egi-

barruntatzen: aditzen, ulertzen. **minsor:** impasible, impassible. **eskuhartze:** parte hartze. **jasaiten:** eramaten.

ten gaitu. Horra Jainkoak dagiena. Borroka horretan parte hartzera deitzen gaitu. Gure maitasunean bertan eta gure lanean, Jainkoak sufrimenaren eta gaitzaren aurka dihardu.

Guk pentsatzen dugunetik oso bestelakoa da Jainkoa *(18)* 414

Gauza egokia ote zen, hemen, liburuaren amaian*, gaitzaz ihardutea? Ez ote zen toki egokiagorik horretarako lehenago. azken kapitulu hau argiz distiratsu geldi zedin? Ez; zeren, hain zuzen, gaitzaren galdeari erantzunez bait garamatza Jainkoak bere egiazko argira; Jesusek bekatuaren eta heriotzearen aurka dagien borrokan agertzen digu neurrigabean bere misterioaren muina. Gure indar hutsetan utzirik, Jainkoa ahalmen, maitasun eta egia bezala neurrigabez ikusiko genuke noski, baina, aski* lurrintsu eta lainotsu. Aldiz, Jainkoaren indarra, bere goi mailan, gurekin hiltzen den eta horrela heriotzea garaitzen duen Jesusen ahultasunean agertzen da *(229)*. Jainkoaren edertasuna itsusikeria gogaikarri* bezala ager daiteke. «Zigortutzat eduki genuen» (Is 53, 4). Jainkoaren saindutasuna ez datza ukiezineko eta neurrigabeki bereizia izatean bakarrik; eta bai, bekatariekin dabilen eta barne-berritu nahi dituenei amor damaien Jesusengan ere agertzen da *(68)*. Jesusengan, Jainkoaren egia ez da jakintza zabal eta hotza; maitasunarekin eta konfiantzarekin bat dagien berotasunez beterik dago Jainkoaren egia. (Horregatik, Jainkoa ezin aurki daiteke jakite hotz hutsez; norberaren burua oso-osoan eskaintzen duen jarrera suharra* behar da horretarako, fedea alegia *(93-95)*. Jainkoa alde guztietan dago; horrek ez du esan nahi, mundua, bere luze-zabalean, era berdinean betetzen duenik, gurekin bizi dela baizik, gure poz eta atsekabeetan: «Bi-hiru nire izenean biltzen diren lekuan. hantxe naute neu ere beren artean» (Mt 18, 20) *(142, 146-147)*.

Jainkoaren egiazko agerkunden, nabasi*, samur, adiskide, eta, halere, heriotzea bezain maitasun azkarrez beterik ageri zaigu. Jainkoaren misterioaren atzetik, guk beti gorago edota sakonagora jotzen dugun bitartean, berak gidatu gaitu bere aurrera, bizitza guztiz arruntetan, poz arruntez eta sufrimen arruntez beterikoetan.

Jainko bizia 415

Otoitzean[71] misterio horretan murgiltzen dena, gure bizitza osoa betiko maitasunean xertaturik dagoenaz jabetzen

71 Ik. *Eraskina:* «Otoitzean misterio...» 552 or.

amaian: azkenean, hondarrean. **aski:** nahiko. **gogaikarri:** repugnante, répugnant. **suharra:** kementsua. **nabasi:** barnekoi.

hasten da. Jesusek Aitagana garamatzalako, eta bi Horien Izpiritu Sainduak betetzen gaituelako, inoiz ere agortuko ez den maitasunean gaude bildurik. Jainkoaren familia garelako, aintzarik sakonena azaltzen da gure begietan.

Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren misterio hau hitz gutxitan aditzera ematen hastean, kezka sortzen zaigu. Kezka, alegia, zeren bai bait dakigu, Jainkoa ezagutzeko, ezin dugula utzi haren agerkundeak eramaten gaitueneko lekua, hots, egunoroko bizitza, geure gizarteko ingurumaria. Ez dugu toki garai-garaietara* igo beharrik; bestela, gure irudimenak, Jainkoaren irudi bezala, elkarri josiriko hiru hesparrutza* hartuko lituzke. Edota gure pentsamena, «bat» eta «hiru» zenbakiak elkarretaratzen hasiko bait litzateke eta, horrela, agerkunde honek Biblian duen aberastasunaren albotik* igaroko litzateke. Bibliak, misterio honetaz mintzo denean, ez du behin ere «hiru» hitza aipatzen; ez eta fede sinboluek ere. Ez dezagun atera horretatik, hitz hori erabili behar ez denik.

Baina, gutxienik, jakinaren gainean egoteko oharkizun bat dugu hori: ez dezagula jo lasterregi esaera labur baten bila, bere baitan misterio guztiak daramatzan misterioa azaldu nahirik.

Gaurko erlijio irakasketak, Semeagana zuzentzen du lehenik umeen arreta: Aitaz nola mintzo den eta Aita nola maite duen adiaraziz. Mendekoste jaian, Aitak eta Semeak bidaltzen duten Izpiritua aipatzen da; eta dotrina urte askoz eman ondoren bakarrik aipatzen zaizkie «Hirutasun saindu» hitzok.

Baina, misterio honetaz, Bibliak dagien moduan mintzatzea ere kezkagarri zaigu. Dena Aitaz, Semeaz eta Izpiritu Sainduaz mintzo den liburu honen amaian misterio horretaz zenbait orrialdetako «ihardunaldi*» bat emanez, misterio hori oso hautsirik utziko genuke. Aldiz, hobe litzateke, Nazaret-eko Jesusetaz, Aitaren nahia bere-egiteaz, haren nekaldiaz, Jainkoaren baitako haren aintzaz esana duguna berriro berritzea (*92, 118*). Jesusen zoriak*, Aitaren eta berorren arteko betiko maitasuna adiarazten du, eta darama bere baitan. Aitak eta Semeak, Izpiritua bidaltzen dute mundura, Aitarekin bat den Izpiritua (1 Kor 2, 10), Semearekin bat dena (2 Kor 3, 17). Aitaren eta Semearen arteko maitasuna den Izpiritua: halaxe irakasten du Jesusen gain jaisten den usoak, ahots hau entzuten delarik: «Zu zara ene Seme kuttuna» (Mk 1, 10) (ikus «Bataioa eta tentaldia» kapitulua). Aita, Semea eta Izpiritu Saindua pertsona desberdin bezala agertzen dizkigu Bibliak, eta, une berean, jainkozko bat bezala; eta hain bizi dakar ho-

garai-garaietara: gorenetara. **hesparrutza:** barrutitza. **albotik:** ertzetik. **ihardunaldi:** solas. **zori:** destino, destinée.

ri, zeren* Jainko bakarra hiru pertsonatan aitortzeko bidea ematen **bait digu.**

«Gauza guztiak harengan sortuak bait dira» 416

Hori guztia *bizi-bizi* nabarituko dugu, Kristorekin bizitzen saiatzean. Kristoren eta Aitaren Izpiritua lagun, Kristorekin bizitzeko gauza bihur gaitezenean, honetaz jabetuko gara: gure bizitza, ezdeusena* izanik ere, Aitagandik datorrela eta Jesukristorekin batera Aitagana itzultzen dela. Bera, Semea, «Kreazio osoko lehen-semea» da (Kol 1, 15). Bera eta kreazioa bereizi ezinekoak dira. Ezin antzeman diogu batari bestea gabe. Semea Jainkoagan da sortua; horregatik, gizon-emakumeen mundua ere —eta orobat* gizaki bakoitza—, harengan eta harengatik, lehen sorburu den Jainkoagandik dator. Horrela. maitasun bakar eta hirukoitzak, «zergatik da kreazio osoa?» delako galdeari erantzuteko argia damaigu (*315-316*). Mundua honegatik izan da sortua: Jainkoaren baitan bertan «sortze» hori badelako, Lehen semeaganako maitasun-Izpiritu hori badelako. Horra arrazoina. «Harengan du guztiak iraupen» (Kol 1, 17); harengan, Semeagan. «Harengatik eta harentzat izan zen dena sortua» (Kol 1, 16). Saia gaitezen munduaren neur ezineko luze-zabalak neurtzen. Murgil* gaitezen materiaren egitura txikienetan. Zuzen dezagun geure arreta gauza miresgarriagoetara: hau da, kontzientzia ukaiteko gauza den giza izpiritura, maitasunerako eta samurtasunerako gai den giza bihotzera. Natur zientzien arabera ere, zeruko argi distiratsuzko izarrak baino miresgarriago eta aberatsago den gizakia azter dezagun. Herri txiki batetako enparantzan jostatzen ari den haurtxoa ere misterioz beterik dago. Eguzkia baino zera arruntago ematen du; halere, eguzkia ezagutzeko gauza da bera eta eguzkitan pozik ibiltzeko; bienbitartean, eguzkia ez da gauza, ez haurtxoa ezagutzeko, ez hura ikusteaz pozteko. Bata biziduna da, bestea ez. Haurtxoaren begirik ez balitz, eguzkia ezin izanen litzateke urrezko bola. Giza bihotzik ez balitz, eguzkia ezin izanen litzateke eder. Maitasunik agertzen ez zaionean, negar egin dezake haurtxoak; izarrak ez daki maitasuna zer den. Gizakia, zerusabaiko izar argi-distirak baino aberatsago eta beteago da.

Zabal ditzagun, bada, geure begiak diren gauza guztietara. Zabal diezaiogun geure bihotza honako mezu honi: «Mundua berak eta berarentzat egina da». Bera da Jainkoagandik Lehen-semea, sorkari guztietan Lehen-jaioa. Hitzik gabe, kreazioak zuzentzen dizkigun hitz guztietan hortxe dago be-

hain ... zeren: tan ... que, si ... que. **ezdeusena:** ezerezena, hutsalena. **orobat:** berdin. **murgil:** murgildu, sartu.

ra: bera, Jainkoaren jatorrizko Hitza, Jainkoaren Hitza. Hitz hori, Bizi-Hitz hori, gizon egin dela eta gure artean gelditu dela sinesten dugu (*31*). Haren bitartez eta harengan den kreazioan, kreazio hau biziena den tokian agertu da, ilunpea lodiena, oinazea handiena den tokian; baina, orobat, argia sakonena, bizitza bikainena, maitasuna egiazko maitasun izan daitekeen tokian, hots, gizadian agertu da.

Bera da Gizonaren Semea. Horrela, gurekin harremanetan hasi nahi du. Horregatik «Bera da Eliz gorputzaren buru; Bera da hasera» (Kol 1, 18). Gure bihotza zabaltzen badiogu, gure Jatorriarekin, gure Sorburuarekin elkartasunean bizi ahal izateko gauza eginen gaitu (*374*).

Jainkoaren bizitzarekin eta bizitzan gertatzen den gure bizitza! Hori misterio esanezineko eta atxekigaitza*! Burura dezakegun baino misterio zabalago, orokorrago eta halaz guztiz, ez gaitu zanpatzen*. Aldiz, biziarazi egiten gaitu. Jainkoa, hain zuzen, «nere burua jasotzen didana» da (Sal 3,4). Jainko biziaren seme-alaba gara, «hilen artetik Lehen-jaioa»ren senide* (Kol 1,18) (*396*). Horrela, Agerkunde osoak, eta, batez ere, Agerkunde horren muina den Jesusek, norberari eta guztioi digun maitasun bere-bereari buruz, hauxe idarokitzen* digu: Jainkoak ez gaituela suntsituko, esanezineko baina edozein kontzientzia erauzia* litzatekeeneko «nirbana» batetan. (Ikus «Budismoa» kapitulua). Gizakia bere irudira sortua du; haren maitasunetik hartua dugun nortasuna, galdu ez baino garatzeko* gisan, gaur geure familian, geure haurren hezketan, geure eginkizuna betetzean, geure pozetan, geure nekeetan zehar, geure heriotzean eta heriotzetik haruntza.

Jainkoa maitasuna da 417

Zergatik zuzentzen du Jainkoak kreazioa, hain zuzen, honetara: gizakiaren heldutasunera*, alegia? Fedeak Jainkoaren bizitzaz dasaigunak argitzen ahal digu hori. Jainko bakar eta hirukoitzaren maitasun misterioan hasten da azaltzen gizakiari dagokion funtsezko* galdekizunaren erantzuna: Zergatik gara garen bezalako: ezagutzeko, familia ukaiteko, maitatzeko gai? (*101-104*). Ezin mintzatu gure giza mintzairaz ez bada; hala eta guztiz, azken zergatikoaz* zur eta lur eginik, ezin etsi isilik. «Ezagutu», «maitatu», «familia ukan»: nola sortu ahal izan da ideia hori? Ez da sortu halabeharrez*. Zerbait baldin bada, Jainkoa maitasun delako da. Jainkoa ez da Ala urrikaltsu* baina bakartia (*222*). Jainkoaren misterioa

atxekigaitza: ulergaitza. **zanpatzen:** zapaltzen. **senide:** haurride. **idarokitzen:** gogoratzen. **erauzia:** desegina. **garatzeko:** heltzeko. **heldutasun:** osotasun. **funtsezko:** oinarrizko. **zergatikoa:** arrazoina. **halabeharrez:** derrigorrez. **urrikaltsu:** errukitsu.

ez da bakartasun misterio, elkartasun eta kreazio misterio baizik; ezagutzea, maitatzea, ematea eta hartzea: hona hemen Jainkoaren izaera. Horra zergatik garen gu garenak. Izatea, gizakiarentzat, Jainkoaren izatean eskuhartzea* da, hots: maitasunean eskuhartzea.

Gure egunoroko bizitzan, inoiz ilun, inoiz zorigaiztoko, inoiz arras nahasi ere bai, gure arreta osoa betetzen duten mila gauzatan pentsatu behar duguneko hartan: horra Jainkoagandik datorkigun eta argitzen gaituen argia: maitasuna. Gure bidean gidari behar dugun argia da, gure bizitzako egiazko helburua hutsegin nahi ez badugu bederen:

> «Umetxook, ez dezagun hitz hutsez eta mihiz* maita, egitez eta benetan baino. Honetan antzemango diogu egiarenak garen ala ez... Munduko ondasunez aberats den batek, bere senidea premian dagoela ikusirik, bihotza hitsiko balio, nola egon daiteke ba Jainkoaren maitasunik horrelakorengan?» (1 Jn 3, 18-19. 17).

Pozik asko amaituko genuke liburu hau, gure gaia azken hitz eder batetara bilduz, edota saindutegi batetako pinturei azken ixipukada* emanen litzaiekeen moduan, honela esanez: horra Jainkoa! Ezin, ordea. Jainkoa bera, irudi eta ikonoetatik jaitsi, eta gure laguntzaren premian denarengan izkutatzen da, eta honela dio: hona ni hemen! Lurreko xumeengan izkutatzen da, honela esateko: hemen bilatu behar nauzue! Jainkoarekin bizi nahi duena, azken baten aitzinean* ez baino edozein egun berrirena bezalako hasera berri baten aurrean gertatzen da. Berrionak damaizkigun bizi hitz guztiek, gure biderako bizi ezagupide guztiek, hauxe diote: «Maita ezazu zeure Jainko Jauna bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, adimen osoz, eta zeure lagun hurkoa —lehenengoaren antzeko agindua—, zeure burua bezalaxe».

Agindu harrigarri honen aurrean, nork ez du bere burua argaltzat* joko? Nork ez du bere burua erruan aurkitzen, okerregi Jainkoaren aurrean, bai nork bere baitan, bai talde bezala ere, familia bezala, herri bezala, Eliza bezala, gizadi bezala? Halaz guztiz, ez da bizitzarako beste biderik, maitasuna baino. Maitasunetik at, ez dago Jainko bakar-hirukoitzaren izpiritua aurkitzeko biderik Ekin diezaiogun, beraz, gizonaren Semearekin batera, bidezidor* hestu horri; orduan, gorago aipaturiko Joanen hitzen ondoren datozen beste hauk, guri ere egoki datozkigunaz konturatuko gara:

> «Eta gure bihotza Jainkoaren aurrean
> lasai-lasai geldituko da;
> gure bihotzak errudun garela esaten badigu ere,
> *Jainkoa gure bihotza baino handiago bait da*»
> (1 Jn 3, 19-20)

---

eskuhartzea: parte izatea. **mihiz:** mingainez. **ixipukada:** pincelada, coup de pinceau. **aitzinean:** aurrean. **argaltzat:** ahultzat. **bidezidor:** bidexka.

«Kristau Bidea»ri Eraskina

Kardinale Batzordeak adiarazi eta aginduriko bideei jarraituz aldatu eta erantsiriko zenbait zati

Holandako Kristau Ikasbidearen gorabeherak

Urte luzetan zehar eta jakintsu askoren artean landuriko liburu hau 1966an agertu zen. Haseratik kaleratu arte, Holandako apezpikuen babesa ukan zuen, eta kaleratu ere Alfrink Kardinalearen baimenaz kaleratu zen. Liburuaren izenburuak berak argi ematen zuen gaiaren mamia: Kristau Ikasbide berria. Helduentzako fedearen aldarrikapena.

Berehalako arrakasta handia ukan zuen herrialde ezberdinetako kristauen artean. Holandan bertan 400.000 ale saldu ziren bi urteren buruan, 1967an agertu zen ingelesezko itzulpena; 1968an alemanez eta frantsesez argitara zen; 1969an, berriz, gaztelaniaz, katalanez eta italieraz.

Baina arrakasta eta zabalpen hau ez zen gorabehera eta istilurik gabe gertatu. Argitara eta handik aste gutxitara biztu ziren, hain zuzen ere, eztabaidak liburu honen inguruan. 1968.eko azaroan Holandako kristau talde batek gutun bat idatzi zion Aita sainduari Kristau Ikasbidearen zenbait punturen azalpena okertzat salatuz; hala nola: Ama Birjinaren birjintasuna, jatorrizko bekatua, eukaristia, protestantismoaren ikuskera, haurren mugaketa, arimaren sorkundea, izpiritualtasuna eta hilezkortasuna, aingeruen izatea.

Berehala eratu zen batzorde bat, liburua aztertzeko asmoz. Holandako apezpikuen aldetik hiru ordezkarik (V. Bless, E. Schillebeeckx, P. Schoonenberg) eta Kontzilio Kongregazioaren aldetik beste hiruk (E. Dhanis, J. Visser, B. Lemeer) osatzen zuten batzordea. Hamalau puntutan banatu ziren batzorde honek aztertu eta argitu beharrekoak. Horien artean zeuden, baita, Aita sainduaren lehentasuna eta mirarien benetakotasuna ere. Garai hartan Aita sainduaren gutun bat hartu zuen Alfrink Kardinaleak, honako hiru puntu hauk bereziki argitu beharrekoak zirela esanez: Jesusen birjintasunezko jaiotzea, Kristoren heriotzearen ordain eta opal balioa eta aingeruen eta deabruen izatea.

Batzordeak, ordea, ez zuen ezer argitzerik ukan, ez eta Kristau Ikasbidearen testu aldakuntzarik ematerik ere, batzordea bera osatzen zuten lagunak ez bait ziren bat etorri.

Sei Kardinalek osaturiko Batzorde bat eratzen da orduan; eta honek erantzun bat eman arte, Kristau Ikasbidearen itzulpen berriak debekatu egin ziren. Kardinaleen Batzordeak, berriz, ordezko teologarien Batzordea izendatu zuen, liburua azter zezan eta ateratzen zituen argitasunak eta ondorioak Kardinaleen Batzordeari berari erakus ziezaizkion.

Teologarion Batzordearen azterketaren emana eskuetan zuelarik, eta debekuaren kontra ere, Holandako Kristau Ikasbidea zabaltzen ari zela ikusirik, 1968.eko abenduan Kardinaleen Batzordeak bere Deklarazioa *eman zuen, Ikasbidearen zenbait punturen azalpena aldabeharrekotzat joz.*

Kardinaleek hautaturiko teologarien batzordea lau lagun hauek osatzen zuten: H. Fortmann eta A. Mulders, Holandako apezpikuen aldetik; E. Dhanis eta J. Visser, Erromaren aldetik. Baina azken aldakuntzak egiteko, Dhanis eta Visser bakarrik gelditu ziren, Mulders-ek utzia bait zuen batzordea, eta Fortmann hil egin bait zen bitartean (1968.eko maiatzean).

Honela burutu ziren, bada, orain euskaraz ematen ditugun Holandako Kristau Ikasbidearen *testu aldaketok. Hauekin batera Kardinaleen* Deklarazioa *bera ematen dugu zatika. Beste hizkuntzetan bezala, eraskin eran ematen dugu guzti hau. Gaztelaniazko argitalpenerako, Espainiako Apezpiku Konferentziaren orduko Lehendakari zen Morcillo Artzapezpiku jaunak agertu zuen bezala, eraskin honetako testu aldaketak bat datoz, mamimamian, Kardinaleen Batzordeak egindako oharrekin (ik.* Suplemento al Nuevo Catecismo para adultos *liburuxka, 3. or.). (Euskal edizio prestatzailearen oharra).*

I. Kreazioa

DEKLARAZIOA (AAS 60 [1968] 687). Bizileku dugun mundu agiriko honetaz gainera, Jainkoak, aingeru deritzaien izpiritu hutsen mundu bat ere sortu duela adiarazi behar du *Dotrinak* (ik. Batikano I. Kontzilioa, *Dei Filius* Kostituzioa, 1. Kapit.; gainera, gizaki bakoitzaren arima, izpirituala izanik (ik. Batikano II. Kontzilioa, *Gaudium et spes* kostituzioa, 14. zenb.), Jainkoak zuzen-zuzenean sortua dela adiarazi behar du (ik. *Humani Generis* entziklika, AAS 42 [1950] 575).

I. Aingeru eta deabru izpiritu hutsak badira izan

1. *Testu zaharra*, 402 paragrafoa: («Aingeruei buruz... Giza ahalmen hutsa ote da?)».

Testu berria

Arimaren kreazioa

Aingeruei buruz sarritan mintzo da Biblia. Mandatari* edo indar dira, Jainkoak bidaliak, «Jainkoaren zerbitzuan dauden izpiritu» (Heb 1,14), Bibliak sarritan giza itxuran aurkezten* dituenak. Jainkoaren ontasuna haragitzen dute. Jainkoak sorturiko izaki* izpirituala dira, guri laguntzeko eginak. Testamentu Zaharreko liburuetan gero eta areago* azaltzen den aingeruen irudiak sortzen dituen arazoak, eta aingeruei buruzko dotrinaren aurrerapen historikoari dagozkion prolemak, exegeta eta teologilariek ez dituzte oraindik nahi hainbat argitu. Baina, aingeruak badirela —deabruak bezala—, dotrina katolikoan, egiatzat emandako gauza da. Laterano IV. Kontzilioak horren berri ematen digu, jadanik*. Misteriozko izaki horik, Kristogan dugun gure salbamendu historian, beti nahasturik ageri dira. Horietaz esaten den guztiak egia bikain hau aldarrikatzen* du: Jainkoa mila gisa desberdinetan arduratzen dela gutaz. Aingeru bakoitzaren izenak berak adiarazten du hori: Gabriel: «Jainkoaren indar»; Rafael: «Jainkoaren sendagai»; Mikel: «Nor Jainkoa aina?» Horretan, kreaziozko maila desberdinen artean aurkitzen den lotura izkutua zerbait ikusten dugu. (Satan-i eta beste deabruei buruz —Jainkoak santutasunean sortu, baina, zoritxarrez, haren kontra altxatuei buruz— dakigunak, lotura berbera agertzen digu, baina alderantziz*. Izpiritu gaiztoen asaldapena* gizadiarentzat gaizbide bilakatu da. Horrela, gure mundu honetan ikusten dugun gaitz izugarria. Zenbaitetan gizabanako* bakoitzaren ahalmenen gain dagoena; eta galde hau eginarazten diguna: Zein indar ari da lanean hemen? Giza ahalmen hutsa ote da?

2. *Testu zaharra*, 187 paragrafoa: «Izpiritu gaiztoaren konjuro hori... Baina, edozein gaitz adiarazten da...»

Testu berria

Izpiritu gaiztoaren konjuro hori, behin eta berriz, askotan errepikatuko da katekumenadu aldiko liturgikizunetan*. Gizakiaren atzetik dabilen gaitzari askotan agintzen zaio aldegiteko. Beti, norbait balitz bezala hitzegiten zaio: deabru izena emanez, alegia. Ebanjelioan Satan-en eta deabruen irudia aurkitua dugu, eta aingeruez mintzatzean, berriro mintzatuko

---

mandatari: mezulari. **aurkezten:** azaltzen. **izaki:** ser. **areago:** gehiago. **jadanik:** dagoeneko. **aldarrikatzen:** oihukatzen, zabaltzen. **alderantziz:** kontrakoz. **asaldapena:** rebelioa. **gizabanako:** individuo, individu. **liturgikizun:** liturgi ospakizun.

gara horretaz. Konjuro zirimonia honetan, katekumenua, «deabrudun» bezala ez, baizik hain ageriko ez den Jainkoaren eta Kristoren etsaiaren eraginari menperaturik eta kutsaturik* hartzen da. Gizakiaren barruan den edozein gaitz adiarazten da...

II. Giza arima zuzen-zuzenean kreatua

Testu zaharra, 316 paragrafoa: «*Gizakiaren kreazioa*» deritzaiona.

Testu berria

Gizaki bakoitza hain bakana eta berezia denez, horren jatorria gogoematean*, Jainkoa, unibertsoari eusten eta aurrera eragiten, «oraino ere lanean ari dela» (Jn 5,17), bereziki ezagutu beharrean gaude. Mundu sortua, hazten ari den errealitatea da, eta Jainkoaren ahalmen kreatzaileak damaizkio, etengabean, izatea eta ekintza. Biziaren gertueran eta aurrerapenean, Jainkoaren indar eragileak mugiturik doa aurrera mundua.

Baina, gizaki berri baten agerpena une xit sagaratua da, ahalmen kreatzailea argitasun bereziz azaltzen bait da. Neure gurasoek, hain zuzen, ez ninduten *ni* neu nahi izan. Nahi zutena, haur bat zen, motiko nahiz neskatto. *Ni* neu Jainkoak bakarrik nahi izan ninduen. Oraindik gehiago: pertsona nahi izan ninduen, gorputz batetan haragituriko izpiritu; Jainkoari *zu* esan diezaiokeen *ni* bat nahi izan ninduen.

Pertsona bakoitza, gurasoek arima hartzeko lain den gorputza egitean sortzen da; arima eskatzen duen gorputza egitean. Gainerantzean, arimaren izatea Jainkoari bakarrik dagokio. Gurasoek, gorputza erabat eta zuzen-zuzenean ematen dutelarik, arima ere zeharka* eta hein batetan bederen ematen dute, gorputza dela bide: arimarentzat egina bait da eta eskatu egiten du arima gorputzak.

Teologilariek, nahiz eta batetik bestera alderen bat izan, horrela esplikatzen dute ohituraz dotrina katolikoa, giza arima zuzen-zuzenean kreatua delakoari buruz. Dotrina honen arabera, ez dago eragozpenik, aita-amek, haur bat egitean, gorputz-arimen jaiotzan Jainkoarekin partehartzen dutela esateko; baina, kontutan eduki behar da, eskuhartze hori ez dela berdina gorputzari dagokionean eta arimari dagokionean. Nolanahi ere, esan daiteke, gurasoek giza izaera ematen dietela seme-alabei; pertsona osoaren guraso direla eta, nolarebait, beren burua ezagutzen dutela gurasoek seme-alabengan. Bestalde, Jainkoarekiko elkar-lan hori ez da haurraren jaiotzean bukatzen, baizik hezketaz jarraitzen eta osatzen da. Gurasoen bitartez, Jainkoak bazkatzen, maitatzen eta gidatzen du gizaki berria. Garrantzizko eta pozezko erantzukizuna!

II. Jatorrizko bekatua

DEKLARAZIOA (ikus AAS 60 [1968] 687 eta hurrengoak). Nahiz eta gizadiaren sorrerari eta berorren aurrerapen geldiari buruzko prolemek, gaur egun, jatorrizko bekatuaren inguruan zailtasun berriak sortu, jadanik historiaren haseran Jainkoaren aurka jaiki zen gizakiaz Elizak duen irakaspena leial adiarazi behar da *Dotrina berrian*, (ikus Batikano II. Kontzilioa, *Gaudium et spes* kostituzioa, 13. eta 22. zenb.); geroztik, alegia, berarentzat eta bere ondorengoentzat, sortzean harturiko saindutasuna eta zuzentasuna galdu egin zituela, eta giza naturaren ugalketa* bide zela, ondorengo guztiei egiazko bekatu-bizitza eman ziela. Uxa* bitez beste adiarazpenak ere, jatorrizko bekatuaz giza atal berri bakoitza honela kutsatzen dela diotenak: bekatua nagusi deneko giza elkartearen eraginera jaiotzetik menperatua dagoelako, eta horrela jadanik, nolarebait, bekatu-bidean ezarria dagoelako.

---

kutsaturik: contagiado, contaminé. **gogoematean:** pentsatzean. **zeharka:** indirectamente, indirectement. **ugalketa:** ugaritzea. **uxa:** uxatu, kendu.

Testu zaharra, 209-219 paragrafoak: «Genesiaren 1-11 kapituluen mezua» delakotik, «Bekatua eta herioa, barkapena eta bizia» delakora (hau ere barne).

Testu berria

Genesiaren 1-11 kapituluen mezua

Genesi liburua, gaitzaren misteriozko errealitateaz mintzo* zaigu. Hirugarren kapitulua mintzo zaigu garbien horretaz; hau, lehenengo hamaika kapituluen kontestuan irakurri behar da: hastapen kondairaren kontestuan. Kapitulu horik ez dira hartu behar historiko bezala, gaur egun historiazko zientzia hartu ohi dugun zentzuan, ez eta greziar eta erromatar historilarien idazkien antzera ere. Aldiz*, esanahi sinbolikoa dute. Horrela harturik, Adan gizakia da; Kain, egunorokoan aurkitzen duzu, agian, zeure bihotzean ere bai; Noe eta Babelgo dorregileak, geu gara. Gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremanen elementu funtsezkoenak aurkitzen ditugu kapitulu hauetan.

Halere, honekin ez dago dena esana. Kontakizun zahar hauetarik gehienek, gure giza izaeraren alderdi jakinak esplikatu edo argitu nahi dituzte, gertaera primitibuez baliaturik (kontakizun etiologikoak dira). Horixe gertatzen da, hain zuzen, Adan eta Ebaren erorialdiaren kontakizunarekin. Giza ikuspegi soilez harturik, pasarte hau, entsegu* apal eta koloka bezala ager dakiguke. Xeheki ez bada ere, gizadiaren historia erlijiosoaren hasera tragikoaz zerbait, alderdi nagusienak, adiarazteko, kontakizun horretaz baliatu da Jainkoa.

Lehen hamaika kapituluen ondoren, Genesi liburua, Abrahanekin, Israel herriaren sorreraz ziren tradizio zaharrak kontatzen hasten da; nahiz eta *oraino greziar eta erromatar idazleek burutzen duten bezalako historia* ez izan, horretatik gertuago daude kontakizun hauk.

Zein da, horrez gero, lehen hamaika kapituluen adiera* eta mezua?

1. Jainkoak sortzen eta hazi arazten du gizadia, lehen kapituluko kreakundearen poemak eta belaunaldi harrigarriak (hauk ez dira hitzez-hitz hartu behar) adiarazten dutenez.

2. Jainkoaren adiskide izateko sortzen da gizakia. Hori adiarazten du paradisuko kontakizunak (Gn 2).

3. Gizakiaren bekatua da hirugarren funtsezko irakatsia. Esperientzia garratz eta oso norberaren bat dela bide, gizadiaren historiaren betikoa den horretaz jabetzen da herri fededuna. Hain zuzen, lau alditaraino ematen du haserako historiak nola gizona bekaturen batetan erortzen den: galerazitako* fruitua, senidearen hilketa, Noeren garaikoen ustelkeria, Babelgo dorrea eraikitzea. Gure bekatu handien sinbolu dira lau kontakizun horik.

4. Halere, Jainkoak ez du gizakia bakarrik uzten. Israelen bertan harrigarrizko urrikiaren* Jainko bezala agertzen da. Haseraren kontakizunek alderdi hori bera ematen dute argi eta garbi. Gizakia erortzen den bakoitzean, Jainkoak bere graziaz erantzuten dio. Paradisutik gure lehen gurasoak bota zituenean, jantzi egin zituen, eta agintzari* hauxe eman: emakumearen ondorengoak zapaldu eginen du sugearen burua. Jainkoak zinatu* egiten du Kain, inork garbi* ez dezan. Noeren kondairan, salbamendua da oro betetzen duena. Eta Babelgo dorrearen ondoren, berehalaxe, Abrahanen historia hasten da, Jainkoaren semeak ekarriko duen berrikuntzari hasera emanez.

5. Azkenik, paradisuko kondairarekin Jainkoak adiarazi ziguna, zera da: gizadiak hasera-haseran dagoeneko, bekatuaren zorigaiztoko bidean

mintzo: hitzegin. **aldiz:** kontrakoz. **entsegu:** intento. **adiera:** esanahia. **galerazitako:** debekatutako. **urrikia:** errukia. **agintzari:** agintza, promesa, promesse. **zinatu:** markatu. **garbi:** garbitu, hil.

sartuz, ondorio astuneko urratsak eman zituela; halere, ordea, ez zitzaiola itxi salbamendu bidea. Hau horrela dela, gure exegesia oso motz eta koloka geldituko litzateke, Genesiaren kondaira bakarrarekin. Honek aztarna bat ematen digu. Baina, zein neurritan du aztarna honek egiazko mezu baten balioa? Erantzuna, ondorengo agerpenak emango digu: batez ere Testamentu Berrikoak, eta beti Izpiritu Sainduaren laguntza duen Elizaren dotrinak.

Erromaterrei egindako epistolaren 5. kapituluaren mezua

Testamentu Berrian argi ikusten da, aipaturiko lehen lau puntuak Jainkoaren mezuan aurkitzen direla. Hirugarrenari buruz, bekatuari buruz alegia, gaitz horren handitasuna ez digu ezerk ezaguarazten munduan Jainkoaren Semeak «bekatuen barkaziorako» (Mt 26,28) bere buruarekin egin nahi izan zuen opariak bezain ondo. Jainkoaren Bildotsa munduko bekatua kentzera etorri zen (ik. Jn 1,29).

Zer erakusten digu Testamentu Berriak bosgarren puntuaz? Erromatarrei egindako eskutitzaren bosgarren kapituluan, Paulo Sainduak, berriro nabarmen arazten du jatorrizko bekatua, honen ondorioak gehiago zehaztuz. Pasarte oso zaila da, eta horren exegesia oraino heltzeke* dago. Haatik*, zenbait puntu ziur da. Trentoko kontzilioak (5. saioaldia, 2. eta 4. kanonak) Paulo sainduak hau irakatsi zuela adiarazi zuen: gizaki oro, jaiotzean, bekatu egoeran aurkitzen dela, Adanen bekatuari darion bekatu egoeran, alegia. Exegeta katolikoek dotrina hori pasarte osoan (Er 5,12-21) aurkitzen dute; baina, batez ere, ondorengo bertsikulu hauetan: «Horregatik, gizon bakar baten bidez sartu zen bekatua mundura, eta bekatuaren bidez, heriotza; eta horrela, heriotza gizaki guztiengana iritsi da, guztiek egin zuten eta bekatu...» (Erm 5,12); eta aurrerago: «Ba, gizon bakar baten menekotasun ezagatik gizadia bekatari gertatu zen bezala, orobat bakarraren menekotasunagatik gertatuko da zindotua* gizadia» (5,19).

«Gizon bakar batek» delako esaera, askotan eta sistimatikoki erabiltzeak adiarazten ote du Adan pertsona dela? Paulok, Genesiak dakarren Adan bekataria du buruan; ez zaio bururatzen pertsona bakarra ote zen ala ez. Hori bera gertatzen zaie Trentoko kontzilioko gurasoei. Gure egoera ez da berdina. Paleontologiak eta genetikak —nahiz eta baieztatu ez duten haseran, bizitzaren eboluzioaz etorriz, giza izaki asko izan zenik—, poligenismoaren (hau da, haseran izaki asko zela) arazoa planteatu dute. Zeintzu izango ote dira gero hurbil batetan zientzia horien konklusioak? Hala beharrez gero, pentsa ote dezakegu, Bibliako Adanek, haseran, giza multzo bat adiarazten digula? Geroago ihardungo gara prolema horretaz. Dena dela, Batikano II.a, Bibliari eta tradizioari jarraituz, «Adan»ez eta «Adanen bekatuarengatik erori diren»ez mintzo da behin eta berriz (*Gaudium et spes*, 22. zenb.; *Lumen gentium*, 2. zenb.); Paulo VI. Aita Saindua ere antzeko mintzaeraz baliatu da (*Fede aitorpena*, 1968ko ekainak 30); guk ere, hori bera erabiliko dugu. Jakina, Ebaren irudia Adanenarekin batera doa; honetaz ere geroago hitzegingo dugu.

Epistola beraren 6. eta 7. kapituluetan (Erm 6,12 eta hurrengoetan; 7,7.14-20), Paulo ere gure baitan izkutuan diharduen gaitzerako grinaz mintzo da, eta dudarik gabe, Adanen erorialdiarekin duen loturagatik, «bekatu» izena damaio grina horri: «Bekatutik dator eta bekatura garamatza» (Trento-ko kontzilioa, 5. saioaldia 5. kanona).

Erromatarrei zuzendutako kartan, Kristo goraipatzea du, batez ere, asmotan Paulok, Adanek kutsaturiko bekatutik salbatzen gaituen Kristo. Adanen bekatua aski izan zen haren ondorengo guztiak bekatari egiteko (Erm 5,12.14); hauek, gainera, Adanen asaldapenari* beren bekatu propioen multzoa eransten diote (Erm 5,16). «Baina, bekatua ugaritu zen tokian,

heltzeke: heldu gabe. **haatik:** halere. **zindotua:** zintzotua. **kutsaturiko:** contagiado, contaminé. **asaldapen:** rebelio.

askoz areago* ugaritu zen grazia» (Erm 5,20). Paulok, heriotzea ere, jatorriz, bekatuari loturik dagoela esaten du (Erm 5,12; 6,34); halere, Kristok ekartzen digun zindokuntzak* bizia bihurtzen digu: (Erm 5,18.21): «Adanengan denak hiltzen diren bezala, era berean izango dira denak bizira deituak Kristogan» (1 Kor 15,22).

Paradisuaren zehaztapena* eta erortzearen kontakizuna

Zuzen ditzagun berriz ere gure begiak lurtar paradisuaren zehaztapenera eta han gertatu zen dramaren kontakizunera. Guztien oroitzapenean hobekien tinkatu* den Bibliako pasarteetako bat duzu hori. Adan eta Ebaren kontakizuna bizi-bizia dela ezagutu beharrean gara. Gure giza izaeraren zoritxar eta zorion guztia, hor aurkitzen dugu eta irudi gutxitara bildurik. Jainkoari buruz gizakiak duen jarrera* laburki emateko, testu honen parekorik ez duzu aurkituko.

Egia da lurreko bizitza —baita gizakiarena ere— gorantzako eboluzio bezala hartzen ikasita geundela. Eta gertatzen dena, giza bizitzaren aurrerapenak hastapen oso apalak ukan dituela. Hasera-hasera ondorengo aroa zibilizazio eta kulturaren heltze xit geldia izan zen. Ehundaka mila urte! Gero, zenbait milaka urtez honuntz, lurreko zenbait eskualde pribilejiatutan zibilizazioak izugarrizko aurrerapena egin du. Gaurregun, teknik aurrerapenak abiada bizian ari dira ludi guztia aldatzen, eta planeta arteko aurkikundeen* aroa hasi da. Hau dena jakinik, historiaren haserako paradisu labur baten kondairak ba ote du sentidurik guretzat? Eta, batez ere, gure jatorriaren hastapen apal eta aitzinakoetan eginiko bekatuari garrantzirik eman behar ote diogu?

Lehenik, esan ditzagun hitz batzu paradisuko «urre aroaz» (jatorrizko zuzentasunaren eta hilezkortasunaren arazoak gerorako utziz). Dudarik gabe, lurtar paradisuaren zehaztapena, xinple samarra gertatzen da, sei eguneko kreazioaren kontakizuna bera bezala; nahiz eta dakartzan irudi biziak, giza duintasun* zentzuaren eta larunbata betetzearen irakaspena ederrak izan.

Akinoko Toma sainduak ere bazioen jadanik: «burutik ongo ez dagoela agertuko luke», aitzina pizti harrapariek* ez zutela harrapatzen liokeenak (halere, gure ikastaroan horrelakorik entzunak gara). Ezerk ez gaitu behartzen bekatuaren aurretik bestelako mundurik zenik pentsatzera. Astalarrik* eta arantzarik beti izan bide da. Baina, egia dena, bekatuak ere gure inguruko mundura gaitza sartzen duela. Alferkeria nagusitzean, astalarrez betetzen da soroa eta espondak edo ur-hesiak lehertu egiten dira. Gorrotoa sartzean, uria hondakin pilo bihurtzen da. Areago: mundua zama astun bihurtzen zaio gizadi bakatariari. Bere baitan erreta eta jota dagoenak, dena beltz ikusten du. Astalarra eta arantza gizakiaren bihotzean daude. Begira: paradisua galtzearen zehaztapena, hortxe hasten zaigu zerbait erakusten.

Baina, kontakizun horretan, gauzarik jakingarriena, Adan eta Ebak Jainkoarekin duten harreman nabasia* da. Alderdi primitibu eta antropomorfiko asko ageri da hemen ere; baina, badute beren eginkizuna: gizona Jainkoarekin adiskidetasunean bizitzera deitua dela idarokitzen* dute. Dei hori, herri hautatuaren historian argiago azaltzen zaigu oraino, eta Ebanjelioan bete-betean adiarazia dago. Gizakia harrigarriro berezgaindi* goratzea da, kreatura huts izatetik Jainkoaren seme-alaba izatera aldatzea. Giza familiaren dei hau, gure arrazaren egunsentian hasi bide zen noski; inondik ere, apurka-apurka. Hori handitasuna itxura apaletan! Edengo kondairak, ahal den neurrian, gizadiari bere izatearen udaberrian, Jainkoak eginiko deia adiarazten du.

---

areago: gehiago. **zindokuntzak:** justifikazioak. **zehaztapena:** deskrizioa. **tinkatu:** itsatsi. **jarrera:** postura, actitud. **aurkinkunde:** deskubrimendu. **duintasun:** dignidad. **pizti harrapari:** animal rapaz, de proie. **astalarrik:** kardorik. **nabasi:** familiar. **idarokitzen:** aditzera ematen. **berezgaindi:** sobrenaturalmente, surnaturellement.

Paulo sainduak, lehen bekatuaren zentzua, Genesiak baino biziago eta xehekiago nabarmentzen du. Baina, esan beharrekoa da, Testamentu Zaharra jadanik, eta gero oso bereziki Paulo saindua, behin eta berriz mintzo direla gizon-emakumeen bekatuen multzoaz. Testamentu Zaharra, alde batera, bekatuaren historia da. Genesiaren lehenengo hamaika kapituluen kondairari herri hautatuaren historiak darraikio; edozein garaitan buru gogor, apostata eta «ezkon nahasle» azaltzen den herriaren historiak. Oseak, emazte zinausle* batekin alderatzen du (Os 1-3). Erromakoei eginiko kartaren lehen hiru kapituluetan, Paulok lehendabizi jentil-herrien gaiztakeria, eta gero judutarrena kontatzen digu, hitz beltzenez, honela amaituz*: «...inork kexatzerik ukan ez dezan eta mundu guztia errudun aurki dadin Jainkoaren aurrean» (Erm 3,19). Eta, ez ote zen hori bera Jesusen ikusmodua ere, Satan «mundu honetako jaun» deitzean? (Jn 12,31; 16,11).

Biblian, beraz, hauxe ikusten dugu: gizadiak, hasera-haserako asaldapena neurriz gain baieztatzen duela. Eta horrek —Adan itxuragabeki handitu gabe eta, aitzina, giza irudimena gizaki primitibuaren ekialdeko mitoa edo zerutar gizakiaren mito agnostikoa asmatzera eraman zuen bidea hartu gabe— hauxe ikus arazten digu: lehen bekatuari, gizadi osoaren bekatu guztiekin duen zerikusiagatik, egundoko garrantzia ezagun geniezaiokeela.

Oraingoz, puntu hori aipatu besterik ez; jatorrizko bekatuaz eta munduaren bekatuaz diharduen pasartean, berriro ukitu beharko dugu puntu hori.

Bekatua mundura sartzea

Baina, nola sortu zen haserako bekatua?, galdetzen diogu geure buruari; nola gizadiak geroztik egin duen bekatu sail guztia? Ez lirateke bekatu, askatasunez eginak ez balira; eta askatasunak, bekaturik ez egitea ere zitekeen gauza zela esan nahi du. Dudarik gabe, gure gorputz-naturaren grina apalengatik*, jatorrizko zuzentasuna galdu ondoren batez ere, bekatuaren bidea erraztu egin da. Eta halere, Kristoren grazia salbatzailea lanean ari zen gizadi erorian Salbatzailea bera etorri baino lehenagotik. Gure galdeak zutik darrai: nola sortu zan haserako bekatua?; nola gizakiak geroztik eginiko bekatu sail guztia?

Jainkoaren aldetik begiratuki*, pentsa genezake, Kristok salbamendua ekarriko zigula kontutan hartuaz eman zitzaiola bekatuari bidea. Gizon-emakumeon aldetik begiratuki; gure askatasunetik datorrena bezala hartu behar da bekatua: Ezin dezakegu inoiz aukera libro bat osoki espli-ka, eta aukera txarra denean gutxiago. Benetan bekatua egin dugunean, badakigu, geure barnean, bekatu egin dugula. Errudun sentitzen dugu geure burua. Eta, halere, geure buruari galdezka dihardugu: nolatan egin dut gero nik horrelakorik? Izan ere, gaitza ez dago erabat konprenitzerik. Zentzugabekeria, itxuragabekeria da. Are ulergaitzago* izanen da guretzat munduaren historian ukan zuen hastapena*. Eta giza familiaren kontaezin ahalako bekatuak ere enigma dira.

Zertan datza jatorrizko bekatua?

Hasera haietan, eginiko bekatuak eta ondorengo hutsegite saila nahasgarri bazaizkigu ere, bekatuaren misterioa zabalagoa da. Bekatuaren misterioaren gailurra, Elizak «jatorrizko bekatua» deitzen duenean datza: Adanek bere baitara ezezik, ondorengo guztiengana sartutako bekatua.

Ikusi dugunez, Paulo saindua beste gizaki guztiok bekatari egin gintuen Adanen bekatuaz mintzo da. Trentoko kontzilioak, Adanen bekatua

zinausle: infiel, infidèle. **amaitu:** burutu, bukatu. **apal:** beheko. **begiratuki:** begiratuz. **ulergaitzago:** ulerrezinago. **hastapena:** hasera.

giza natura berriztatuz —giza arrazaren segidaz— eskualdatzen* dela zehaztu* zuen, eta gutako bakoitzagan dela izan (5. saioaldian, 2. eta 3. kanonetan). Batikano II. kontzilioa, «Adanen seme-alabez» mintzo da, «lehen *bekatuaz itxuragabeturiko Jainkoaren antzaz*» (*Gaudium et spes*, 22. zenb.) biluzirik direnez, eta Paulo VI.ak oraindik orain, itxuragabetze hori ondarez* zabaltzen dela eta bakoitzaren bekatu propioa dela gogora arazi digu (*Fede aitorpena*, 1968ko ekainak 30). Gure asmoa dotrina hori onartzekoa da, eta ahal bezainbatean esplikazio bat ematekoa; badakigu, ordea, egia hori misteriozko izanen dela beti.

Greziar Elizako gurasoak ez dira mintzo, ia behin ere, Adanen ondorengoei ondarez erantsiriko «bekatuaz»; ostera, «heriotzeaz» eta «ustelduraz» mintzo zaizkigu. Baina ondarezko bekatuaz, guraso latinoak (batez ere, Agustin sainduaz gerokoak) bezain berariz* mintzo ez badira ere, ez dago inola ere bi tradizioak elkartu ezinik.

«Bekatua» izen erlijiosoa da; lehenik, moralki gaiztoa den *egintza*-ri («bekatu aktualari») ematen zaion izena eta, gainera, bekatu *egoera*-ri («bekatu habitualari»). Hau, bekatu egintzaren makurkeriak nola-hala irautean datza. Egintza honekin, bere gogoz, bizkarra ematen dio gizakiak maitatu behar lukeen Jainkoari; bere baitan, aldendu egiten da Jainkoagandik. *Eliza egungo munduan* delako kostituzioak, nork bere askatasunaz abusatzea bezala esplikatzen du arazo hori: Jainkoaren aurka zutituz, nork bere helburuak Hura gabe iristeko asmoa dela esaten digu (13. zenb«). «Zure kontra, zure kontra bakarrik egin dut bekatu», dio salmugileak (Sal 51,6). Bekatu bizitza, berriz, honetan datza: egindako bekaturen baten ondorioz, bihotz hondoenean, haseran gogoz egindako Jainkoagandiko urruntzean. Isaiak dioenez: «Gu guztiok gara hobendun» (Is 64,6). Eta egoera honek, gizonaren bihotz gogorra Jainkoak bereganatzen dueino* irauten du: «Ken zeure aurpegia nire bekatuetatik eta desegin nire hoben guztiak. Sor nigan, ene Jainko, bihotz garbi» (Sal 51,11-12). Bekatu bizitza, egiazko bekatu da, nahiz eratorrizko* zentzuan izan.

Adanen bekatua, ondarez-ondare eskualdatua delarik, bekatu egoera besterik ez daiteke izan: Jainkoagandik gogoz urruntzearen iraupena. Hemen gertatzen dena —eta honetan datza misterioa— zera da: lehen bekatariak bizi zuen urruntze bizitza hura, haren ondorengoetan luzatzen eta berritzen dela. Denak bekatu honekin jaiotzen dira: «...Adanen bekatuagatik eroriak...» (Batikano II.a, *Lumen gentium*, 2. zenb.). Esan dezagun berehala, benetako bekatu dela, esanahi hestuan ez bada ere (analogiazko zentzuan da bekatu teologoek dioten bezala). Trentoko kontzilioa, bekatu hau adiarazteko, «arimaren herio»az mintzo da (5. saioaldian, 2. kanona); horrela, «grazi bizitza eta jainkozko semetzakoa*» galtzea aipatzen du (6. saioaldia, 4. kapit.); guk —Paulo sainduari jarraiki (Erm 8,15)— semetzako izpiritua galtzea esango dugu. Grazia saindutzailea eta karitatea galtzea esatea bezala da.

Kontzilioa, «saindutasuna eta zuzentasuna» galtzeaz ere mintzo da (5. saioaldia, 1. eta 2. kap.). Pasarte hori semetzako izpiritua galtzeaz ezezik geroago (saioaldi berean, 5. kanonean) berariz aztertuko duen osotasun dohaina galtzeaz ere mintzo dela ematen du. Bi dohain hauei —semetzako izpirituari eta osotasun dohainari, alegia— guk, eta beste teologilari askok, «jatorrizko zuzentasuna» deitzen diegu. Teologo gehienen iritziz, osotasun dohain hura honetan zetzan: semetzako lehen grazia hark zentzuzko joeretan zuen eraginean. Jatorrizko bekatuak erabat galtzen du jatorrizko zuzentasuna.

Osotasun dohaina, honela esplika dezakegu apur bat gehiago: gizakiaren zentzuzko joerak semetzako izpirituaren eskakizunei* nola-hala egokitzea dela esanez. Joera horiek esaneko* eta baikor erantzunen liokete

eskualdatzen: transmitir, transmettre. **zehaztu:** mugatu, konkretatu. **ondarez:** herentziaz. **berariz:** espreski. **dueino:** duen arte. **eratorrizko:** derivado, derivé. **semetzakoa:** seme ordetza. **eskakizun:** esijentzi. **esaneko:** dócil.

kontzientziaren deiari. Dohain horretaz horniturik, gizakiak barne batasuna ukanen* zukeen, koloka anarkiko orotatik libre izanen zen, graziaren eta arrazoiaren gidaritzapean egongo zen. Batikano II. kontzilioak, jatorrizko osotasun dohainik gabeko gizakiaren egoera hitz neurritsuz eta hunkigarriz* adiarazten digu: «Jainkozko agerkundeak dasaiguna, esperientziarekin bat dator. Izan ere, gizakiak bere bihotza aztertzean, gaitzerako bere baitan duen joera egiztatzen* du, eta jatorria beren kreatzaile sainduagan ukan ez dezaketen gaitz askotan murgildua* ikusten du bere burua... Gaitzaren erasoak menderatzeko, bera bakarrik ez dela gauza sentitzen du gizakiak, bere burua kateaz josirik bezala ikusteraino» (*Gaudium et spes*, 13. zenb.).

Ulerterraz da, gure lehen gurasoengan, bekatua egin ondoren, semetzako izpiritua hondaturik gelditzea. Jainkoarekiko seme-maitasun jarrera, halako izpirituri dagokiona, ez datorke bat bekatuarekin. Osotasun dohaina galtzea ere arras ulerterraz da; dohain hori, semetzako graziak zentzumenean* duen distira bait da.

Azalpen honetan, jatorrizko bekatuari buruzko dotrina tradizionalaren elementu orokorrak ikus daitezkeela esango da; baina, hain zuzen, dotrina tradizionai horrek sortzen du arazo zorrotzik asko. Lehenik, nola eskualda zitekeen ondarez jatorrizko zuzentasunaren galtze hori? Eta, gabezia* hori, nola gerta daiteke bekatu, jaiotzen den gizaki bakoitzean? Bestalde, zer harreman dago jatorrizko bekatuaren eta gizakien bekatuen artean? Zein erlijiozko balio aurki dezakegu kristau mezuaren puntu ilun honetan? Hurrengo bi artikuluetan, galde horiei erantzuna ematen saiatuko gara.

Jatorrizko bekatua nola eskualdatzen den

Orain arte, Elizaren irakasgoaren dotrina berritu dugu, gutxi edo gehiago zabalduz. Halaz guztiz, dotrina horrek sortzen dituen zailtasunei erantzutekotan, batez ere iritzi libroen mailara jo beharko dugu. Zailtasunak, desberdinak dira, zahar eta berri. Ez da hau horik aztertzen hasteko lekua. Aurkezten* dugun askabidea*, iritzi onargarrietan dago oinarritua, eta gerora zabal daitekeena da, eta berriro egoki daitekeena.

1. Nola eskualda daiteke belaunez-belaun* jatorrizko zuzentasunaren galtze hori, ondarez-ondare? Jatorrizko zuzentasuna ere berdin eskualda zitekeela adierazteaz, aisa erantzunen diogu galde hori. Horregatik, lehenik, zuzentasun horren eskualdatzeaz mintzatuko gara eta, gero, haren galtzearen eskualdatzeaz.

Jatorrizko zuzentasuna ondarez-ondare eskualdatua izan ahal zedin, beharrezko eta nahikoa zen, Jainkoak Adani emana izatea: ez aberastasun pertsonal soil bezala, baizik ezin konta ahalako ondorengotan luzatzeko egina zen Adanen naturaren aberastasun bezala. Eman dezagun, beraz, jatorrizko zuzentasuna gisa horretan eman zitzaiola Adani. Horrela izatera —eta errugabetasuna ez zela galdu emanez—, haur-egiteak, ondarez-ondare, jatorrizko zuzentasunaz aberasturik giza naturaren eskualdatzea ekarriko zukeen.

Peguy-k zioenez, «berezgaindikoa* haragizko ere bada». Jainkoak, miresgarriro, gizakia bere kreaturazko izaeraz gain ipini* nahi izan zuen, eta bere seme-alaba bihurtu. Gizakia izpiritu haragitua da, ugaltzeko eta, horrela, lur guztia betetzeko egina: «Erne eta ugal* zaitezte» (Gn 1,28). Ez ote gauza harrigarria halako jasokuntza*, ugaltzean bere naturarekin batera hura ere eskualda zezakeenez gero? Beren errugabetasunean

---

ukanen: edukiko, izango. **hunkigarriz:** conmovedor. **egiztatzen:** konprobatzen. **murgildua:** sartua. **zentzumen:** zentzuzko ahalmen. **gabezia:** privación, privation. **aurkezten:** agertzen. **askabide:** soluzio. **belaunez-belaun:** belaunaldiz-belaunaldi. **berezgaindikoa:** sobrenatural, surnaturel. **ipini:** ezarri. **ugal:** ugaldu, multiplikatu. **jasokuntza:** elevación.

Iraunen zuketen guraso eta ondorengoen zehar, bizia ematea, graziaren eskualdatze sakramendu izanen zen orduan.

Baina, Adanek, ondorengoei emateko hartua zuen zuzentasuna, galdu egin zuen; eta ordudanik, ez zen gauza bere ondorengoei zuzentasun hura komunikatzeko. Aurrerantzean, harek eta haren ondorengoek, jatorrizko zuzentasunik gabeko natura bakarrik eman zezaketen.

2. Ikus dezagun orain jatorrizko zuzentasun-eza nola gerta dakiokeen bekatu bizitza pertsona bakoitzari.

Aisa konpreni daiteke, Adanentzat, jatorrizko zuzentasuna galtzea bekatu bizitza gertatu izatea. Badakigu, lehen zuzentasunak semetzako izpiritua zekarrela eta, honekin, jatorrizko osotasuna zedukala, eta dohain horik galdu egin zituela gizakiak haserako asaldapena zela bide. Galera hura, asaldapen haren oihartzun iraunkor bezala geratu zen Adanengan: Jainkoari bizkarra ematearen, Jainkoagandik urruntzearen oihartzun iraunkor bezala. Horixe da, hain zuzen, bekatu bizitza; lehentxoago, haseran gogoz egindako Jainkoagandiko urruntzearen iraupen bezala adiarazten genuena.

Baina, Adanen ondorengoengan, nola izan daiteke bekatu bizitzarik jatorrizko zuzentasun-eza? Galde honen erantzuna beste puntu honi loturik dago: zuzentasunik-eza hori ondarez-ondare eskualdatu delakoari. Izaki biziek, beren ugalketaz, joera hau dute: nork bere burua izaki bizi berrietan berritzekoa, norberaren antzeko liratekeenetan. Izaki berri horik norberaren *jarraipen* dira, eta, denbora berean, norberaren *berrikuntza*. Haur-egiteak, beraz, jarraitzea eta berriztatzea esan nahi du; horrek, ondarez-ondare eskualdaturiko ororentzat balio du, dela giza naturarentzat, honen tasun eta guzti, dela honen jainkozko aberastasunarentzat, dela aberastasunik-ezarentzat.

Horri hauxe dario: jatorrizko zuzentasun-ezak, Adanen seme-alabengan, haseran Jainkoarekiko gogozko urruntzea izan zena eta haseran Adanen ohizko* bekatu izan zena *luzatzen* duela edota, gauza bera dena, urruntze haren iraupena burutzen duela. Horrela bada, Adanen ondorengoengan ere, jatorrizko zuzentasunik-ezak ohizko bekatua edo *bekatu egoera* zertzen du, hein batetan. Gainera, pertsona bakoitzean jatorrizko zuzentasunik-eza, giza naturarekin batean eta modu berdinean *berritzen* dela ikusten da. Honek zera esan nahi du: Adanengan, honen asaldapen pertsonalagatik jatorriz gogozkoa izan zen bekatu bizitza hura ondorengoengan ez dela gogozko, hauena ez den asaldapenaz baizik, lehen bekakatariaren asaldapenaz baizik. Horregatik, jatorrizko bekatua zentzu xit murriztuan bakarrik da guregan *bekatu bizitza*.

Jainko zuzenak, ordudanik, azken zoriona, Jainko seme-alaben zoria, giza neurri osoaz gain dagoena, ukatzen ahal zion Adanen ondare guztiari; baina, jatorrizko bekatua zela eta bakarrik, uka ez ziezaiokeena, giza naturaren neurriko azken zoria zen. Egitez, Jainkoak, beti ere bere esku-lan gaituenak, ez du gurekin zorrotz jokatu nahi izan; eta bere Semearen bitartez, Jainko seme-alaben zorionera, miresgarriro berriztaturiko zorionera, deitzen gaitu.

Gizakiak, Kristoren graziaz berritua denean, semetzako izpiritua hartzen du. Grazia honek erabat zindotzen* du. «Kristo Jesusengan direnentzat ez da honez gero inolako gaitzespenik*» (Erm 8,1). Hala eta guztiz ere, ez du bereganatzen jatorrizko zuzentasunik, hau da, semetzako izpirituari loturiko jatorrizko osotasun dohainik. Dohain hau, bekaturik tartean izan ez balitz bakarrik har zitekeen ondarez-ondare. Adanek ukan zuen jatorrizko zuzentasuna betirako galdu zen. Horregatik, Elizak honela irakasten du: «Gurasoek, nahiz saindu izan, beren seme-alabei ezin eman diezaiekete saindutasunik». Areago: Bizitza naturala ematea herio bide da (grazi mailan); haren bitartez bait datorkio haurrari jatorrizko bekatua.

ohizko: habitual, habituel. **zindotzen:** zintzo egiten. **gaitzespen:** kondenazio

Baina, beren esku dute haurrak Elizari aurkeztea, bataio-basian* bir-sortuak izan daitezen» (Pio XII.a, *Casti connubii*, AAS 22 [1930] 544 eta hurrengoetan).

Jatorrizko bekatua eta munduaren bekatua

«Munduaren bekatua» adiarazpena*, Joan sainduaren ebanjeliotik hartzen dugu (Jn 1,29), gizakiek egindako bekatuak adiarazteko. Biblia, jatorrizko bekatuaz gainera, —eta oraindik areago— munduaren bekatuaz mintzo zaigu. Paulo saindua, Erromakoei eginiko kartan, gizadiaren bi zorigaitz handi hauetaz mintzo zaigu. Lehen hiru kapituluetan gizakien bekatu multzoaz ari zaigu; bosgarren kapituluan, Adanek egin eta gizon guztioi eskualdaturiko bekatuaren misterioa gogoematen du: Gizakien bekatu multzoaz eta hauen astuntasunaz ari ginela, aipatu genuen munduaren bekatua ere. Orain, haren *elkarte-dimentsioa* zehaztatuko dugu, eta jatorrizko bekatuarekin duen harremana xehekiago xedatuko*.

Gizakien bekatuek eta bekatu-giroak, elkarrekiko duten eraginari deitzen diogu munduaren bekatuaren elkarte-dimentsioa: alde batetik, neurri batetan bederen*, bekatuak bekatuzko giroaren eraginez egiten dira; beste aldetik, bekatu horik giro horren sortzaile gertatzen dira, beste bekatu berriri bide emanez. Gure bekatuen kutsakortasun* mailak banaka-banaka arakatuz*, bekatuaren dimentsio hori argitzen saiatuko gara.

Bai izugarria, bekatua kutsakor delako ideia, geure bekatuaz besteak zauri ditzakegulakoa, gaitza lepora diezaiekegulakoa! Etsenplu txarrez ito arazi egiten da ernetzen ari zen ona; gainera, gaitza egin daitekeen gauza bezala agertzen da. Eta etsenplu txarra eragipen liluragarriz lagundurik baldin badator eskandalobide okerrenaren aurrean gaudeke: horretxek aterarazi zion Jesusi beronen deirik gogorrenetako bat: «Niregan sinesten duten txikitxo hauetako bati okerrerako bidea ematen dionak, hobe luke halako horrek, asto errotari bat lepotik jarrita zintzilika itsasoan behera amilduko balute. Urrikarria mundua, eskandaluak direla eta. Bai!» (Mt 18,6-7).

Bekatuaren kutsakortasuna urrunago doa oraino; giza balioen esangura galaraziz azaltzen da. Familia zeken* batek seme-alaba zekenak sortzen ditu: argi dago hori; gizarte berekoi* batek jende berekoia sortzen; kolonialismoak jende kolonialista, eta arrazakeriak jende arrazakoia* sortzen du.

Talde bereziak aipatu ditugu; baina zabalago begiratzen badugu, mundu osoa hezketa inguru eta giro bezala ikusiko dugu.

Eta Liburu sainduek, hor bekatua dela nagusi adiarazten digute. Egoera horrek gizadi osoan giza balioak iluntzen ditu: bikainenetik, hots, maitasunetik hasita.

Munduaren bekatua, banakako eta taldeko berekoikeriaren* garaipena da; edonora barreiatzen* da ugolde bat bezala; gizarte errealitate bat da. Nola ez pentsa bekatu honen eta jatorrizko bekatuaren artean lokarri hestu bat badagoela? Ukitzeko moduko gauza da ia. Zertan datza lotura hori?

Jatorrizko bekatuaz gaitzaren kontrako borrokarako ahulduak gertatzen gara izan ere, denok; Kristok bir-sortu dituenak ere, osotasun dohainaren faltan gelditzen gara. Hala eta guztiz, ez litzateke zuzena izango, munduaren bekatuaren kausa guztia jatorrizko bekatuan ipintzea, bekatua beti gogozko bait da, eta ezin muga* daiteke erabat aldez aurrekoetara. Bestalde, Batikano II. Kontzilioak gogoratzen digunez, «betiereko Aitak ez zituen gizonak, Adanen bekatuagatik eroriak, bere eskutik utzi; aitzitik*, Kristo Birrerosleari begira, beti eman zien laguntza» (*Lumen gentium*, 2. zenb.).

---

basia: baño. **adierazpena:** espresio. **xedatuko:** mugatuko. **bederen:** behintzat. **kutsakortasun:** contagiosidad. **arakatuz:** ikertuz. **zeken:** diru zale. **berekoi:** egoísta. **arrazakoia:** arraza zalea. **berekoikeria:** egoísmo. **barreiatzen:** zabaltzen. **muga:** mugatu, erreduzitu. **aitzitik:** baizik eta.

Horrela bada, munduaren bekatua ez da, besterik gabe, Adanen bekatuaren nahitanahiezko ondorioa.

Baina, munduaren bekatuaren eta jatorrizko bekatuaren artean, beste lotura bat ere gerta daiteke. Giza familiaren eta salbamendu asmoaren batasuna dela eta, pentsa daiteke, Jainkoak betidanik munduko ordena bat nahi izan eta aldez aurretik ikusi duela: horren arabera, Adanen bekatuari eta honen eskualdatzeari bide ematea, denbora berean munduaren bekatuari bide eman zitzaiolako izan bide zen; orobat* alderantziz* ere: munduaren bekatuari bide ematea, Adanen bekatuari ere bide eman zitzaiolako izan zen. Bestalde, ez ote die Jainkoak biei bide eman, Kristoren graziaren garaipena hainbat handiago gerta zedin, bekatu tankera* guztiak suntzituz*?

Ikuspegi honetan, jatorrizko bekatua sinesteak, munduko bekatuazko esperientziari, bekatua oraino hedatuago delako ziurtasuna eransten dio. Gizaki guztiak Jainkoagandik aldendurik* jaiotzen dira; hemen ez da errugabe edo zintzorik. Jaiotzetik, denak Salbatzailearen beharrean dira. Jatorrizko bekatuaren erlijio balio sakona, honetan datza: salbamendu mailan «galdurik zegoena bilatzera eta salbatzera» (Lk 19,10) etorri zenari zenbat zor diogun adiaraztean.

Elizak, dogma-aurrerapen geldi batetan, agerkunde osotik hauxe atera du: Mariak ez zuela jatorrizko bekaturik ezagutu, eta XIX. mendean handikiro aldarrikatu du hori. Jainkoak, bere Semearen amak inoiz ere bekaturik ez egitea nahi izan du, eta jaio ere, inolako kutsurik gabe jaio zedila. *Bekatua nagusi zen mundu honetan biziz, mundu honetako oinazeak* zauritu zuen, bai, Maria, baina gaiztakeriak ez. Honek ez du esan nahi, Mariak birrerospen* beharrik ukan ez zuenik. Hura ere Kristoren merezimenduz salbatu zen, nahiz eta haren kasua erabat bakarra izan, bekatu orotatik errotik babestua* izan zelako.

Osotasuna eta hilezkortasuna

Itzul gaitezen orain lehen aurkitu ditugun bi gaietara: jatorrizko osotasun dohainera eta haserako hilezkortasunera.

1. *Osotasunari* dagokionez, bekatu egin aurretik gizakiagan nola aurkitzen zen ikusiko dugu; paleontologiak ematen digun gizakiaren irudiari dagokiokeen tankerako ikusmodua ematen saiatuko gara, gainera.

Zientzia honen aurkikundeak* gogoan harturik (primateen eboluzio bidean gizakiaren agertzearen garaia gora-behera), esan daiteke, gizakia belaunaldi askoren zehar gizakiagotuz joan dela. Inondik ere, mailaka ikasiko zuen, bere zentzumenaz ezezik, bere adimenduaz ere baliatzen; bere adimenduan zetzan argi berri hura desarroilatzen. Aurrerapen motel harek bazukeen antzik* —arras azaletik bazen ere— gaurregun haurrengan zenbait urtez bilbatzen ikusten dugunarekin: beren hezitzaileen gidaritzapean eta hezketa giro arras eragilean haurrek egiten dutenarekin alegia. Ikusmolde honekin ongi ote dator gizakiak hasera-haseran jatorrizko osotasuna ukan duelakoa?

Bai; izan ere, zitekeena zen, dohain honen eragina, haseran, xit mugatua izatea. Lehen esana dugunez, osotasun dohainaren zeregina, hauxe da: zentzumenezko joerei kontzientziaren esana sotilki* jarrai araztea. Kontzientziak, berriz, balio moral eta erlijiosoei buruz dadukagun ikusmolde edo iritzien arabera taxutzen du bere eskabidea. Gizakiak bere errugabetasuna gorde* izan balu, balio horiei buruz, bere adimenduaz ezezik, seme-alabatzako izpirituaz eta egoera bakoitzari zegozkion berezgaindiko hatsez ere argitua izanen zen (berezgaindiko hats hori, haatik*, zaratatsu ez bai-

orobat: baita. **alderantziz:** kontrara. **tankera:** mota. **suntsitu:** desegin. **aldendu:** bereizi. **birrerospen:** redentzio. **babestua:** begiratua, gordea. **aurkikunde:** deskubrimendu. **antzik:** elterik. **sotilki:** dócilmente, docilement. **gorde:** eratxeki. **berezgaindiko:** sobrenatural, surnaturel. **haatik:** halere.

no laino-laino idurikatu* behar dugu). Dena den, horrela ere, haseran, balio moral eta erlijioso sinple eta hasimasizkoak* ezagutu zituen, eta gerora haziz joateko gisan. Horrela, bada, bizitza morala saindua izan zitekeen; baina, gizaki arras primitiburi zegokiokeen saindutasuna izanen zen: jatorrizko osotasunak zabalero txikiko eragina ukanen bait zuen.

Dohain horren *bizitasuna* ere, mugatua izanen zen haseran. Ez dugu pentsatu beharrik, gure zentzumenezko joeretan osotasunak sorturiko eskurakoitasuna* arras guztizkoa izango zenik. Haseran, hasimasizko eskurakoitasuna* izanen zen, gerora askoz biziagoa bilaka* zitekeena.

Osotasunaren dohainak sorturiko barne-kidetasun hasi berria, bekatuak hondatu egin zuen. Hori dela eta, bizitza moral eta erlijiosoaren aurrerapidea* —inoiz falta izan ez den Kristoren grazia tartean zelarik ere— dramatikoago izan da, eta desbideratze negargarrietara makurtuago. Baina, hori beste gauza bat da. Oraingoz aski dugu hau azaldu izana: jatorrizko osotasun dohainak ez gaitu behartzen, Adan eboluziobidezko ikuspegiz kanpo hartzera.

2. Jatorrizko hilezkortasuna osotasuna bera baino itxuragabeago iduri dakiguke. Baina, arazo honek sortzen dituen zailtasunentzat, erantzun asegarririk bada. Guztia, hobeto konprenitzen saiatzea da, eta ez, baztertzea; izan ere, Paulok berariz* dasaigu: «Gizon bakar baten bidez sartu zen bekatua mundura, eta bekatuaren bidez heriotza» (Erm 5,12; ik. 6,23). Batzuk pentsatzen duten bezala, Paulok, gorputzeko heriotzeaz izpiritu heriotzea adiarazi nahi badu ere, bistan dago, lehendabizi gogoan duena, gorputz-heriotzea dela. Heriotzea bekatuaren ondorio bezala ematen duen Pauloren dotrina, haren kristologian oso garrantzizko puntua da: haren kristologian, Kristoren heriotze-biztuerek bekatutik eta heriotzetik libratzen bait gaituzte. Kartago-ko (418) eta Orange-ko (529) Kontzilioek dotrina hau hartu dute. Ez da harritzekoa, Batikano II. Kontzilioa, *Eliza egungo munduan* delako kostituzioan, «bekatuaren ondorioz historiara sartu zen gorputz-heriotzeaz» mintzatua izana (18. zenb.). Paulo VI. Aita Sainduak ere, bere *Fede aitorpena* delakoan (1968ko ekainaren 30ean), «gizakiak ez gaitza eta ez heriotzea ezagutzen ez zituen» garaiko zuzentasun eta saindutasun egoera aipatzen du.

Baina, nola idurika dezakegu haserako hilezkortasun hura? Giza gorputza organismo bizi sail handi bati lotua dago; organismo horik denak jaiotze, ugaltze eta hiltze legepean daude. Gizakiak ere jaio eta ugaldu egin behar zuen: «erne eta ugal zaitezte, eta bete ezazue lurra» (Gn 1,28). Bere bizitzaren bihurgunean heriotzera jotzea galaraz* ziezaiokeen dohain harrigarriren baten jabe izanen ote zen? Gaixotasun eta herio-ixtripuetatik* jarein* zezakeen dohainen bat izanen ote zen? Teologilari sail handi batek, Akinoko Tomak horien artean, honela pentsatu zuen: jatorrizko zuzentasunak halako ahala zuela materiarengan, gorputza hilezkor egiten bait zuen. Horrek, gizakiaren munduko xertaketan* aldaketa handia ekarriko zukeen. Izpirituaren eta materiaren arteko, eta munduaren eta gizakiaren arteko harremanei buruzko ikusmodu hori interesgarri zaigu. Baina, gozatu ote zuen, egiaz, Adanek halako egoeraz, gero galdu egin zuelarik? Ala, aski ote litzateke pentsatzea, gizadia, bekaturik egin ez balu, halako hilezkortasunezko dohainez, heriotzetik libratu izanen zela, baina, egitez, bekatu egin aurretik, ez zuela izan halako aldakuntzarik? Agerkundeak* ez digu ematen horretaz inongo argitasunik. Aski dugu sinestea, heriotzea gizadian «bekatuaren ordain» (Erm 6,23) dela.

Bi irakaspenok, honela har ditzakegu. Bere gogortasuna eta guzti, heriotzea gizakiak berezkoa du. Baina, Jainkoaren semetzako* graziak, gizakia, hain berezgaindi* jaso zuen, non* gizadia, grazia horri erantzun izan

---

idurikatu: imajinatu. **hasimasizko:** elemental, élémentaire. **eskurakoitasun:** docilidad. **bilaka:** bilakatu, bihurtu. **aurrerapide:** desarrollo, hazkuntza. **berariz:** espreski. **galaraz:** galarazi, debekatu. **ixtripu:** accidente, accident. **jarein:** begiratu, gorde, libratu. **xertaketa:** inserción, insertion. **agerkunde:** rebelazio. **semetzako:** filiación, filiation. **berezgaindi:** sobrenaturalmente, surnaturellement. **hain ... non:** tan ... que.

balio, Jainkoaren begitan heriotzetik libro geldituko bait zen. Kasu honetan, Toma sainduak pentsatzen zuenaren arabera, gizakia hilezkortasun dohainez aldatua izan zitekeen. Baina, ez bekaturik ez eta heriotzerik izango ez zen kasuan, Jainkoak bere arduran zein ordena izango ote zuen pentsatzen ez jartzea hobe dugu. Jainkoaren jakituriaren eta ahalmenaren neurrigabeko bideak izkutuko gertatzen zaizkio gure adimenduari.

Betieretik Jainkoak aurrez ikusi eta hautatu zuen munduaren ordenan, jatorrizko zuzentasunaz gizakiak ukanen zukeen duintasuna*, historiaren *haseran bertan galdu zen. Horregatik, lehenengo gizonari hilezkortasun* dohaina, funtsezko kualitate bezala ezartzea, alferrikako gauza izanen zen.

Egokiago litzateke, jatorrizko zuzentasun graziarekin batera, hilezkortasun agintzaria* eman zitzaiola esatea. Bekatuaz hilezkortasuna erabat galdu zuen. Bekatua mundura sartu zen, eta bekatuarekin heriotzea (ikus Erm 5,12).

Adani buruz

Uki ditzagun orain zenbait galdekizun darien bi puntu. Lehenengoa, Adanen eta Ebaren kidetasunari* dagokio; bigarrena, poligenismo hipotesiari. Bata axalekoa da, bestea zaila eta gaitza.

1. Leporatu izan zaigun bekatuaren kausa den Adani buruz, Paulo sainduaren dotrina azaltzean, Eba kideturik zuela ohar arazi dugu. Nola interpretatu behar dugu, ordea, kidetasun hori? Elkarrekin buruturiko bekatu-egintzan ote datza soiki, ala baita beraientzat eta beren ondorengo guztientzat jatorrizko zuzentasuna galtzean ere?

Paulo sainduak, jatorrizko bekatuaren iturburu* bezala, Adan bakarrik aipatu zuen; orobat Elizaren tradizioak ere, eta gu ere horien bideari jarraituko gatzaizkio.

Gure hitzegiteko modua, Ebaren irudia ahaztuko bagenu bezala har dezake norbaitek; baina, Eba, nolarebait, baztertu nahi bagenu bezala ere bai. Inork ez du ukatu inoiz Ebak bekatu egin zuenik. Baina, teologo eskolastiko gehienek, berarentzat eta bere ondorengoentzat jatorrizko zuzentasuna galdu zuena, Adan bakarrik zela uste izan zuten, eta hori, jatorrizko zuzentasuna besterenganatu* behar zukeena Adan bakarrik omen zelako. Jakin behar da, teoria hori (hein* batetan) gaur baztertua dagoen biologiazko pentsamoldean zegoela oinarritua: uste zuten, bada, ugalketan emakumea elementu arras pasibua zela, eta gizona zela giza natura ekintzakor* ematen zuena.

Egungo teologo asko iritzi honetakoa da: Adanek eta Ebak jatorrizko zuzentasuna, beren ondorengoei ematekotan hartu zutela. Lehen esan dugun bezala, errugabetasuna galdu izan ez balute, beren seme-alabei bizia ematea, jatorrizko zuzentasuna ematearen sakramendu bezala izango zen. Biek elkarrekin buruturiko bekatuak —eta berdin gertatuko zen bietako batek bakarrik bekatu egin bazuen ere—, gizadiarentzat hainbateko zorionbide gertatu izango zen jatorrizko zuzentasuna ematea, ezinezkoa egin zuen.

Beste ohar txiki bat oraindik. Jatorrizko bekatua ondarez-ondare eskualdatzeari buruz, Toma sainduak, noizpait, hau baieztatu* zuen: Adan erori izan ez balitz, gerora bekatu eginen zutenek, nork bere ondorengoei ezarri izango ziela jatorrizko bekatua. Ideia hau, agian*, poligenismo hipotesiak kristau pentsamenduari planteatzen dizkion prolemetarako sarrera gisa har genezake.

2. Ekin diezaiogun orain bigarren arazoari: poligenismoari. Monogenismoa esatean, giza arraza sailaren abiapuntuan* bikote bakar bat ipin-

---

duintasuna: dignidadea. **agintzaria:** promesa. **kidetasun:** antzekotasun. **iturburu:** origen. **besterenganatu:** eskualdatu, transmitir, transmettre. **hein:** neurri. **ekintzakor:** aktibuki. **baieztatu:** afirmar, affirmer. **agian:** beharbada. **abiapuntu:** hasera.

tzen dugu. Poligenismoa esatean, berriz, arraza sailaren abiapuntuan gizatalde bat edo gehiago ipintzen ditugu. Ez paleontologiak ez eta genetikak, ez dute oraindik poligenismoaren hipotesia egiztatu*, eta hau ez du zientifiko batek ere ukatzen. Baina, biologia aldetik —honelako arazo batetan, haatik*, berari dagozkion filosofiazko eta teologiazko loturekin harturik, alderdi hori eskasa gertatzen da— zientifiko askok du poligenismorako joerarik.

Bestalde, ikusi dugu, Paulo sainduaren formulazioak, Elizaren tradizioarenak, bereziki Trentoko eta Batikano II. Kontzilioenak, monogenismoaren araberakoak* dira. Formulazio horiek, era batera edo bestera, agerkunde egia adiarazten dutela, arras gauza garbia da. Horregatik ezin bazter* daitezke arinegi. Baina, arazoak ezin har daitezke hestuegi ere, agian bereiz* daitekeen zerbait sinesteari ezinbestean lotu nahirik. Inoiz, zientzia poligenismoa egiatzat ematera iritsiko* balitz, ondorio hau atera beharko genuke: fedezko egia, ordura arte monogenista itxuran adiarazia, monogenista esanahitik, estalki batetik bezala, erantzia beharko lukeela izan. Agerkundearen egia oso-osorik geratuko litzateke. Baina, bereizketa hori, daitekeen gauza ote da?

Azken urteotan teologo batzu hori egin ote daitekeen bila ibili dira; horretarako, poligenismoa delakoatik abiaturik, jatorrizko bekatuaren misterioa modu askotara esplikatzeari ekin diote. Egoki izango da teoria horietako bat labur-labur ematea, fededunei monogenista teoria uztera eragitekotan ez, baizik arazo honi buruz gaurregun planteatzen zaizkien galdekizun askoren aurrean haien fedea lasaitzekotan.

Horrela, «Adan eta Eba», lehen giza talde bezala (edota talde sail bezala; honek ez du ezer aldatzen) hartzen ahal lirateke. Talde horretako —adandar talde deitzen ahal genukeeneko— atal edo pertsona bakoitzak jatorrizko zuzentasuna hartuko zukeen. Zuzentasun hori besterenganatzeko, giza bikote bat behar izango zela onartzen da; bata eta bestea, errugabe geratutakoak. Nola idurika* orduan gizadiaren erorketa «Adanengan»?

Pentsa liteke. adandar talde barruan bekatua arras arin zabaldu zela; hain arin, non lehen belaunaldian jadanik* ez bait zen bikote bat bakarrik ere izanen, bere ondorengoei jatorrizko zuzentasuna emateko gauza izan zitekeenik. Baina, bekatua hain arin zabaltzearen hipotesi honek zailtasun asko sortzen du. Horregatik, arazoa beste modu batetara idurika liteke: adandar taldea belaunaldi sail batek osatzen bide zuen; sail guzti horren kopurua*, gizadiak gerora ukanen zuen zabaleroaren aldean, oso txikia izanen zen. Etsenplu txarrak ekarriko zukeen hondamena, eta gero eta pertsona gehiagok galduko zukeen jatorrizko zuzentasuna: dela beraiek bekatu egin zutelako, dela haien gurasoak jadanik kutsaturik zeudelako. Azkenean, ez zen geldituko bikote bat bakarrik ere, bere ondorengoei haserako saindutasuna emateko gauza zitekeenik.

Bi hipotesi hauetan teoria tradizionaleko «Adan bekataria» eroritako adandar taldearen irudi izanen litzateke; zehatzago esanda, gero eta bikote kopuru handiagoren irudi; ezkontideetako baten bekatu-egoera zela eta, beren ondorengoei jatorrizko zuzentasunik gabeko giza natura bakarrik emateko lain ziren bikoteen irudi. Ikusmodu hau benetan iluna da; baina, guk munduaren bekatuaz dugun esperientzia ez da argiagoa. Eta esateko, ez da itxuragabea.

Gero, adandar taldearen, hau da, «Adan bekatariaren» ondorengoak jatorrizko bekatuaz jaioko ziren; denek «Adanengan bekatu egingo zuketen». Puntu honetan ez da prolema handiagorik. Baina, gerta zitekeen, adandar taldean batzuren-batzu errugabe gelditzea. Ez ote litzateke hori, Paulo sainduaren eta Trentoko kontzilioaren irakatsien aurka? Izan ere, horiek diotenez, Adanen bekatua gizaki guztietara zabaltzen da. Esan liteke, irakas-

egiztatu: demostratu. **haatik:** halere. **araberakoak:** según, selon. **bazter:** baztertu, utzi. **bereiz:** separar. **iritsiko:** helduko. **idurika:** idurikatu, iduriz eman, representar. **jadanik:** dagoeneko. **kopurua:** numeroa, nonbrea.

pen horik *Adan bekataria*-ren ondorengoei bakarrik dagozkiela. Baina, hemen, hainbatasuna* ez litzateke izango *Adan bekataria*-ren ondorengoekin —bekatuaz bata bestearen ondoren kutsaturiko bikoteekin—, ondorengo horien aurreko adandar taldekideekin baizik. Halako pertsona horik, nahiz eta errugabe izan, heriotzeari menderaturik egonen ziren; Jainkoak ez bait zuen heriotzetik libratu nahiko bekatuaz kutsatzen ari zen gizadiko inor.

Teoria hau bat ote dator, gero, agerkundearen egiarekin? Teologiaren gaurregueneko egoerari begiratuz, ez du ematen galde honi ziur-ziur erantzuteri dagoenik. Eliza ikusmolde monogenistari atxekitzen zaio, eta hori da jarrerarik zuhurrena. Jakinaren gainean da, Adani eta Ebari buruzko formula tradizionalek, eta Adanengan eroritako gizadiari buruzkoek, nahiz hitzez-hitz hartu beharrekoak ez izan, haren (Elizaren) ardurapean ipinia izan den salbamendu-historiaren egiarik badutela beren baitan. Aldiz, formulazio poligenistaz ez dezake beste horrenbeste esan. Horregatik eusten die formulazio tradizionalei, eta horretan jarraitzeko eskatzen du, fedearentzat garantia segurua horretan bakarrik dagoelako. Baina, horrela iharduten, Elizak ez ditu begiak hesten zientziazko aurkikundeek sortzen dituzten arazoen aurrean. *Humani generis* entziklikaren (Dz.-Sch. 3897) irakatsien esanahia hori dela ematen du; Batikano II. Kontzilioaren eta Paulo VI. Aita Sainduaren dotrina ere hildo* beretik dabil: formula tradizionalez baliatu dira (ikus, erromatarrei eginiko kartaren 5. kapituluaren esanahiaz esan duguna). Halere, Elizak eskubide osoa ezagutzen die teologoei bai beren bilaketetan jarraitzeko, bai eta izadi-zientzietan dihardutenekin elkarrizketan segitzeko.

Jatorrizko bekatuaren misterioa Elizaren dotrinan

Elizaren dotrina, jatorrizko bekatuaz eta munduaren bekatuaz eman dugun azalpenarer muina dena, funtsean* Bibliaren mezua* besterik ez da: Tradizioaren aurrerapenaz argiago eta zehatzago egin den eta zenbait deklarazioz aberastu egin den mezua. Lehen, Bibliaren mezua eman dugu aditzera. Orain, labur-labur, Elizaren dotrina adiarazten saiatuko gara; horretarako, gure azalpen osotik bereizi eginen dugu: gure azalpenean beste gogoeta* askorekin nahasturik bait dator.

Gizadia ‚Jainkoaren eskutik errugabe atera zena eta Jainkoaren seme-alabatzakora goratua izan zena, bekatari bihurtu da. Historiaren hastapenetan hasi zen Jainkoaren kontrako asaldapena; gure lehen gurasoen asaldapena da. Asaldapen hori ez zen izan soilki bekatu sail baten abiapuntu; baizik eta, nola Adanentzat hala guretzat, jatorrizko zuzentasuna galtzea izan zen, hau da, osotasun dohainarekin hartuko zukeen seme-alabatzako izpirituaren galtzea.

Horrela bada, Adanek jatorrizko zuzentasuna, bere ondorengoei giza bizitza soilarekin batera ematekotan hartu zuen. Baina, bere bekatuaz haserako jasokuntza horretatik eroria delarik, berea bezalako giza natura eroria bakarrik eman die. Adan bezala, gu Jainkoagandik urruntzen gaituen barne-apaldura* hau eta, Adanengan gogozko urruntzea izan zenaren jarraipen gertatzen dena, guregan bekatu egoera gertatzen da.

Gizaki eroria, Kristorekin lotzen duen bataioaz (gogozko bataioaz behinik behin) *birsortua izanik ere, bekatuaren kontrako borrokarako, barrendik* ahuldua gertatzen da; ez bait du bir-eskuratu osotasun dohaina. Horregatik, Kristoren grazia salbatzailea bilatu behar du etengabe; eta, behar izanez gero, sakramenduak hartuz eta otoitz apalez, barkapena berriro iritsi*.

Kristoren grazia eta guzti, gizadiaren historia, hein handi batetan, behin eta berrizko asaldapena da. Jatorrizko bekatuak eta munduaren bekatuak, biek batean, bekatuaren misterioa osatzen dute. Jatorrizko beka-

hainbatasuna: berdintasuna, equivalencia, équivalence. **hildo:** bide. **funtsean:** oinarrian. **mezu:** mensaje, message. **gogoeta:** burutapen, pentsamendu. **barne-apaldura:** postración interna. **iritsi:** erdietsi.

tuagatik, eta munduaren bekatua darraiola, Jainkoak heriotzeari gizadian nagusi izateko bidea ematen dio: heriotzea bekatuaren ordaina da.

Drama hau guztia azkenean, Jainkoak bere Seme gure Salbatzaileagan azaldu digun maitasunaren garaipen bilakatzen da. Bera da artzain ona; Bera da, bere ludiko egonaldiaz, historia gal ezineko argiz distirarazi duena, Bera da bildots lepo-egina*, bere odolaz gizakiaren bekatua kendu duena. Bera da gure senide* errugabea eta adoragarria; harengan poztuko dira hautatuak sekula guztian Aitaren aurrean.

III. Jesus Maria Birjinagandik sortua

DEKLARAZIOA (ik AAS 60 [1968] 688). Argi eta garbi aldarrikatu* behar da, Hitz haragituaren Ama xit sainduak birjintasun ohoreaz gozatu zuela beti; orobat*, argi eman behar da Jesusen birjintasunezko sortzea: gizakunde* misterioari arras komenigarri zitzaiona; horrez gero, ez bedi biderik eman gertaera hori bazter uzteko —Biblian oinarrituriko Elizaren tradizioaren aurka—, bakar-bakarrik esanahi sinbolikoa gorde nahirik; esate baterako, Jainkoak bere Semea bidaliz egin zigun dohaina.

I. Birjintasunezko sortzearen misterioa

Testu zaharra, 48 paragrafoa: «Jainkoak Israeli agindutako ume guztien artean... *neurri gabeko gaindegitik, azken gabeko urrunetik*».

Testu berria

Jainkoak Israeli agindutako ume guztien artean, Jesus da agintzaren* fruitu handiena. Jesus mundura datorrenean, herri osoa da haren jaiotza eske ari dena; historia luze batek agindua zen. Beste inor ezbezala, bera da agintzaren seme. Gizadiaren *irrika sakona harekin ase zen.* Arrazoin beragatik, betekuntza* hori beste edozein haur mundura etortzeak dituen posibilitateen gain dagoen gauza da. Ez da ezer, ez gizadiaren baitan, ez giza emankortasunean*, giza emankortasun oro eta gure arrazaren desarroilo oro darizkiona sor dezakeenik; dena hark egina bait da.

Jesus ematean Jainkoak gizon-emakumeei egin dien erregali handiaren *misterio hori, Mateo sainduak eta Luka sainduak, nork bere Ebanjelioan,* aurkezten* diguten Jesusen birjintasunezko sortzearen gertaeran —orobat misterioz beterikoan— nabari dezakegu: Jesus ernetzean gizonezkoak ez du parterik ukan, baizik Izpiritu Sainduaren egintzaz ernea izan zen, eta jaio, bere Semearen Ama izateko Jainkoak graziaz bete eta hautatu zuen emakume gazte batengandik jaio zen. Ebanjelioaren irakaspen hau aitzinateko fede-aitorpen guztiek jaso zuten, eta orobat, Eliz-gurasoen* eta Eliz-irakasgoaren* tradizio etengabeak ere. Hain zuzen, Irakasgo horren gidaritzapean, guztiok aitortzen dugu, Jesus «Izpiritu Sainduaren egitez eta graziaz ernea izan, eta Maria Birjinagandik jaio» zela.

Jainkoaren Amak aparteko eskuhartzea* ukan zuen gizakunde misterioan: hor ageri da, beti ere bere Semearen menpean, Ama birjinak gure *eroskundean* ukan duen zeregin berezi-bereziaren arrazoina.*

Gertakizun hau aztertzen dugunoro, gure salbamendu misterioa aldarrikatzen duten Ebanjelioen ideia nagusia begien aurrean behar dugu. Eta horrela, gertakizun hau, beti, bere orain-oraingo zentzu salbatzailean gogoeman* behar dugu. Gauza egokiagorik ez, Jainkoaren Semea mundu honetara etortzean, bere bihotza Jainkoari birjintasunean eskainia zion ama

lepo egina: lepamoztua. **senide:** haurride. **aldarrikatu:** oihukatu, zabaldu. **orobat:** berdin, baita ere. **gizakunde:** gizon egite. **agintza:** promesa. **betekuntza:** konplimendu. **emankortasun:** fecundidad, fécondité. **aurkezten:** presentatzen. **Eliz-guraso:** Padres de la Iglesia, Pères de l'Eglise. **Eliz-irakasgo:** Magisterio eclesiástico, Magistère de l'Eglise. **eskuhartzea:** partehartzea. **eroskunde:** redentzio. **gogoeman:** pentsatu.

baten *fiat* humilaz onartua izatea baino. Bestalde, Jesus betidanik Jainkoaren seme bakar da eta gizon bezala ere, beste inor ezbezala lotuko zitzaion seme-loturaz bere Aitari; horregatik, gauza egokia zitzaion, hitzaren esanahi betean bederen*, Jainkoa beste aitarik ez ukaitea. Jainko Semearen gizakundea sinesten duenak, ez du ezinezkorik ukanen, Emmanuelen sarrera munduan, jainkozko misterio horren araberako gertakizun harrigarriz lagundua izan dela sinesteko.

Behin edo behin hau ohar arazi da: esate baterako, Jaunaren heriotzea eta biztuera ia orrialde bakoitzean aldarrikatzen diren bitartean, birjintasunezko sortzea bi bider baizik ez dela aipatzen Testamentu Berri guztian. Horri honela erantzungo diogu: egiaz, heriotzea eta biztuera dira berrionaren muina. Ikusi dugunez, Testamentu Berriak Jesusen bizitzako lehen urteak mezuaren* muin horren baitan kontatzen ditu. Baina kontutan hartzekoa da, urte horietaz mintzo zaizkigun Bibliako bi testu bakar horiek Jaunaren birjintasunezko sortzea aipatzen dutela; birjintasunezko sortzea, hain zuzen, haurtzaroari buruzko ebanjelio kontakizunen erdipuntu bezala ageri da.

II. Mariaren bizitza guztiko birjintasunaz

Testu zaharra, 51 paragrafoa: «Jn 19,27ren arabera bereziki, sinesgaitz gertatzen da, Mariak Jesus beste seme-alabarik ukan zuelakoa».

Eraskina

Mariaren betiko birjintasuna Elizaren tradizioak baieztatua da, eta irakasgoak* fedezko egia bezala ematen du.

III. Ohar osagarria

Mariaren misterioaz ari garenez gero, bi aldaketa aurkeztu nahi ditugu, Mariak bere Seme adoragarriaren handitasunaz zuen ezaguerari buruz.

1. *Testu zaharra*, 52 paragrafoa: «Konturatu ote zen Maria, berak haur-egina zehazki nor zen jakiteraino? Seguraski, ez; zeren biztuera hasi bait zen Jesus nor zen argi eta garbi ipintzen».

Testu berria

Konturatu ote zen Maria, berak haur-egina zehazki nor zen jakiteraino? Mariak bazuen jadanik* nola-halako susmo bat ume haren nortasunaz; gero, Mariaren fedea argituz eta sakonduz joan zen. Jesusen biztuerak, Mariari ere, argitasun berria ekarriko zion noski.

2. *Testu zaharra*, 118 paragrafoa: «Jesusen biztuera aurretik... "Seme kuttuna" bezalako hitzez adiarazten dena».

Testu berria

«Jainkoaren Seme» tituluaren sakontasun hondogabekoa* argitzeko, beharrezkoa zen Jesusen biztuera: apostoluentzat eta Mariarentzat ere bai, nahiz horik, jadanik, neurri desberdinean, handitasun hartaz nolarebait jakinaren gainean egon. Guretzat ere gauza egokia da: ez dezagun berehalakoan pentsa, Jainkoaren baitako misterioa, mundu honetatik urrun dagokeena denik. Titulua, horrela, bere esanahiaz hustu egingo genuke; gauza handiegia irudituko litzaiguke. Hobeago litzateke, harreman horretara mailaka-mailaka sartzea, dizipuluek egin zuten bezala, Jesusen bizitza, heriotzea eta biztuera zehar. Horrela bakarrik aurkituko dugu gizon eginiko Semearen misterioaren aberastasuna: «obedientzia», «atsegina», «*abba*» eta «Seme kuttuna» bezalako hitzez adiarazten dena.

---

bederen: behintzat. **mezu:** mensaje, message. **irakasgoak:** magisterio, magistère. **jadanik:** ordurako. **hondogabeko:** zolagabeko.

IV. Jesukristo gure Jaunak eskainitako ordain-saria

DEKLARAZIOA (ik AAS 60 [1968] 688). Hala-hola ibili gabe, gure fedeak Kristoren ordainketaz* ematen digun dotrinaren elementuak agertu egin behar dira. Hainbesteraino maitatu zituen Jainkoak bekatariak, bere Semea bera bidali bait zuen mundura gu berarekin adiskidetzekotan (ik. 2 Kor 5,19). Agustin sainduak dioenez: «Bekatua zela eta, etsai ginenok... baina jadanik maite gaituen Jainkoarekin bakezkoak eginak gara» (*In Joannis Evangelium*, tr. CX 6 zenb.). Jesus, beraz, senide* askotan lehen sortua (ik. Erm 8,29), gure bekatuengatik hil zen (ik. 1 Kor 15,3). Saindu, errugabe, garbi-garbi (ik. Heb 7,26): ez zuen jasan, ez, Aitak ezarririko zigorrik, baizik eta bere gogoz eta bere Aitarekiko seme-maitasunez esaneko bihurtuz (ik. Flp 2,8), bere senide bekatariengatik eta haientzat bitarteko izanik (ik. 1 Tm 2,5), gizon-emakumeentzat bekatuaren ordain zen heriotzea onartu zuen (ik. Erm 6,23; Batik. II. Kontzilioa, *Gaudium et spes* kostituzioa, 18 zenb.). Bere heriotze xit sainduaz, Jainkoaren begietan munduaren bekatuak gainezka ordaindu zituelarik, Jainkoaren grazia gizadiari itzultzea lortu zuen; gizadi horren jainkozko Buruan merezitako on bat bezala lortu ere (ik., esate baterako, Heb 10,5-10; Trentoko Kontzilioa, VI. saioaldia, *De justificatione* Dekretoa, 3. eta 7. kap. 10. kanona).

Testu zaharra, 229 paragrafoa: «Jesusen heriotzeaz salbatuak» delakoa, eta 230, «Laburpena» deritzaionaren lehen partea «... Indar hori eman dio Jesusek, berak alderik alde jasan duelarik» dioeneraino.

Testu berria

Jesusen heriotzeaz salbatuak

Baina, oraino ez dugu guztia esan. Kristoren berbizkundeaz bakarrik ez baino haren heriotzeaz ere salbatuak izan garela esaten du Berrionak. Atseginbide berria dugu hori gure oinazetarako eta herio larritasunerako. Baina, nola adi inoren heriotzeak salba dezakeelakoa?

Jainkoak —Paulok esaten digu— gure bekatuzko haragiaren antzeko* haragian, hau da, gizadi bekatariaren haragia bezalako haragi hilkorrean, bere Semea bidali digu (ikus Erm 8,3). «On eginez iragan zedin» (Ap Eg 10,38) bidali zuen, bere Aitaren begietan Aitaren atsegin bezala (Mk 1,11) bizi zedin, Aitaren irudiaren lurtar bizitza bezala, Aitaren altzoan den Seme bakarraren lurtar bizitza bezala (Jn 1,18). Maitasunik gabeko mundu honetan maitasuna izan zen.

Maitasunezko eginpide* hori gogorra zen. Jesusen bizitzak erakusten digu zein gogorra izan zitzaion. Mundu oker honetan, zuzen bizi behar izan zuen; gizarte lepagogorrean, meneko* behar izan zuen; mundu berekoian, maitasuna izan behar zuen. Gainera, profetek iragarririko eta herriak gartsuki espero zuen Salbatzaile bezala onartua izatea lortu behar zuen.

Ez zuen iritsi ahal izan. Berak zekarren salbamendua garaiegia zen; gizakiak lurrari atxekirik* zeuden, salbazio nazionalista espero zuten, aintza eta lurtar aberastasun irrikatan bizi ziren; horregatik, Jesusen salbamenbideak ustegetu* egin zituen. Eta hil egin zuten. Drama lotsagarri horretan, gaitzaren zorakeriaren zorakeria horretan, Elizak, Testamentu Zaharreko zenbait testuren argitan, misterio sakon bat ikusi du. Hor daude bigarren Isaiagan (Deutero-Isaiagan), Jahveren zerbitzariaren abestiak (Is 42,1-9; 49,1-6; 50,4-11; 52,13; 53,12). Abesti hauetan, huts gertatu den bizitza aipatzen zaigu, gero zorion eta ontasun iturri gertatua.

> Oinaze gizona, eta atsekabearen berri dakiena,
> aurrean ikusitakoan aurpegia bestaldera itzuliz uzten dena,
> mespretxatua inoren estimaziorik gabea.
> Eta bitartean gure oinaze denak hartu zituen bere gain...
> Zigortutzat eduki genuen guk...

---

ordainketa: reparación, réparation. **senide:** haurride. **antzeko:** iduriko. **eginpide:** betebehar. **meneko:** menpeko. **atxeki:** lotu. **ustegetu:** desilusionar, désillusionner.

Gure bekatuengatik zauritu zuten
Ardi erratuen gisa genbiltzan denok galduta,
bakoitza bere bideari jarraitzen zitzaiola.
Jahvek, berriz, horri gaineratu dizkio
gu guztion gaiztakeriak.
... Oinazearen oinazez leher egin arazi nahi izan zion Jahvek.
Bekatuaren ordainetan bere bizia ematen baldin bazuen...»
(Is 53,3-6.10).

Ez dakigu zein pertsonaia historikoz mintzo diren oinaze errugabe eta emankorrari* buruzko poema hauk. Dena den, lehen asmoz adiarazten dutena, gainditu* egiten dute. Adiarazi, bete-betean Jesusen herio-bizkundean bakarrik bete zen misterioa adiarazten dute, eta Jainkoaren asmobidean Kristoren heriotzeari leku bat zegokiola ulertzeko, lagungarri gertatu zitzaizkien apostoluei.

Baina, nolatan salba gaitzakete inoren heriotzeak, oinazeak eta nekeak?

Kontzetu guztiak gainditzen dituen misterio baten aurrean gaude: gure bihotzetan halako oihartzun sakon bat ernetzen badu ere. Geldi gaitezen puntu honetan, beroni dagokionez, askotan oso-osoak ez diren ideiatan haziak gara eta gutako batzu.

Erdi Arotik teologiak eta predikazioak *ordainketa** ideia nabarmen arazi dute. Ordainketa, zuzen ulerturik, fede mezuaren parte bat dugu; Kristok «bere oinaze xit sainduen bitartez... gugatik Aita Jainkoari ordaina eskaini ziola» erakusten digu Trentoko Kontzilioak (6. saioaldia, 7. kapit.). Baina, gertatzen dena, zera da: maiz asko ideia hori oker hartua, edo gutxienik, desegoki adiarazia izan dela.

Jainkoa ez zen gizadi bekatariari begira errege hasarretua bezala, bere sua ezinbestean hustu behar zukeena bezala. Kastigu bat merezi genuela bakarrik pentsatu zuen; baina, aldi berean, bere Semearen bitartez gu askatzea eta berarekin bakeatzea erabaki zuen.

Gizakiaren bekatua bere Semearen bitartez ordaintzeko Jainkoaren erabakia, maitasun urriaren seinale ez baino mugagabekoaren seinale da. Jainkoak ez dio gizakiari barkapenaren erremusinatxo* soil bat eman nahi izan, baizik, askoz ere grazia handiagoa den bere Semearen etorreraren mesedea* egin dio. Kristo gure anaia da, eta beronen bizitza agurgarri eta sainduak ordaindu egin ditu gure bekatuak Aitaren aurrean. Orain, gure Salbatzaileaganako ustez eta humil-humil, Aitagana jo* dezakegu; eta harrotasun sainduz pozten ahal gara «senide askotan lehen sortua» denagan (Erm 8,29). Gainera, Jainkoaren Semeak, gurekiko Jainkoak duen gainezkako maitasuna adiarazi digu. Maite duenak gogotik eskaintzen eta ematen du bere burua maite dituenen alde. Bazirudikeen, hurbil-ezineko argitan den Jainkoak, ez zezakeela ager bere maitasuna agertu duen bezala. Baina, horrelaxe agertu du bere Seme Jesusengan.

Ez dezagun pentsa, inola ere, Aitak Jesusi zigor bat ezarri dionik. Nola zitekeen Jainkoak zigortua errugabetan errugabe zena? Baina, heriotzea, Jainkoak gizadiari saindutasunean eusten ez zion bitartean, gizadiaren neurriko gauza zen; «bekatuaren ordaina heriotzea bait da» (Erm 6,23). Jainkoaren Semea, haragitzean eta gu bezala gizon hilkor bihurtzean, gure senide gertatu da. Bere erreinua predikatzeak eta bere mandatuaren testigutzak* erakarritako heriotzea, bere gogoz onartu zuen. Onartze apal honen bitartez eta Aitaren aurrean gizaki bekatarien ordezkari bezala, gure gauza-eza aitortu nahi izan zion, eta gugatik barkazioa eskatu. Horrela, Jainkoaren begietan bekatua ordaindu egin du, eta bekatarientzat, betiko bizitzara daraman grazia merezi. Heriotzearen onartze saindu hau,

emankor: fruitutsu. **gainditu:** superar. **ordainketa:** reparación, réparation. **erremusinatxo:** limosnatxo, amoinatxo. **mesede:** fabore. **jo:** acudir, se vendre à. **testigutza:** lekukotasuna.

Aitaren nahiaren arabera zen: Kristo «heriotzeraino esaneko*» (Flp 2,8) izan zen.

Itun Berriak, esaera bat baino gehiago erabiltzen du erospena adiarazteko. Berezienak hauetxek dira: birrerospena, adiskidetzea, justizia, odola, bekatua. Bakoitza ondo konprenitzea komeni da.

Jesusek *birrerosi* egin gaitu bere heriotzearen bitartez. Hitz honek Jainkoak Israel Egiptotik nola *birrerosi* zuen adiarazten digu. Erospen hori, esklabutzatik askatzea izan zen; baina ordainketa saririk ordaintzeke; herria, berriro, «Jainkoaren herri» bilakatu zen. Baina, Kristok gu erosteaz, zenbaitetan sari bat ematea aipatu ohi da; esate baterako, Paulo sainduak, gure «(Kristoren) odolaren bidezko birrerospena» (Ef 1,7) aipatzen duenean; (ikus Kol 1,14 ere). Hori ulertzen den gauza da; izan ere, lan neketsuz eramaten gaitu Jesusek Jainkoagana: bere pasio eta heriotzea leporatuz. Horrela *berriztatu zen Jainkoarekiko elkargoa**.

Esan ohi da ere, Jesusen heriotzean Jainkoarekiko *adiskidetasun*-era bihurtzen garela. Azter dezagun arretaz esaera hori. Ez da esaten Jainkoa *gurekin* adiskidetzen denik. Arazoa ez datza, Jainko haserretua gurekin adiskidetzean, gizon bihurria *Jainkoarekin* adiskidetzean baizik. Hemen ere, arazoa elkargoa berriztatzea da.

Berriztatze hori, Paulok dioenez, Jainkoaren justiziak egiten du. Ez da zigortzen edo zigorra eskatzen duen justizia, bere saindutasuna, bere justizia ematen digun Jainkoaren ahalmen saindutzailea baizik (Erm 3,21). Horrek ez du esan nahi, Jesusek Jainkoari eskainitako opariak (guri salbazioa irabazi zigunak) Aitaren aurrean egundoko* balioa ukan ez duenik. Paulo sainduak dioenez, Kristok «gu maite izan eta bere burua guregatik eman zion Jainkoari usain gozozko eskaintza eta opari bezala» (Ef 5,2).

Odolaz ere hitzegiten da. Entzun ditzagun Azken Afariko hitzak: «Hauxe bait da nire odola, elkargoko odola, bekatuak barkatzeko askorengatik isuria izango dena» (Mt 26,28).

«Odol» hitza garrantzitsu da Jesusen egintza aditu ahal izateko. Sinai-ko elkargoaren odola gogora arazten du. Oparigaia Jahveri eskaintzen zitzaion bitartekoan, ordudanik Jainkoarena zen odola herriaren gain isurtzen zen. Horrela, Jainkoari eskainitako odola, Jainkoak Israeli egindako dohain* gertatzen zen: odol senidegoa*, ia-ia «odolkidegoa»* esango litzateke.

Jesusen odola ere, horrela eskaintzen zaio Jainkoari. Baina, eskaintza hau ez da materialkiegi hartu behar. Odolak, lehen aipatu dugun heriotzearen onartze sainduaren bitartez bakarrik du baliorik. Kristoren odola gure alde eskainia izan zen, eta eukaristiazko otorduan ematen zaigu edatera. Oparigai sainduak, Jainkoak onarturikoak eta Jainkoagan aintzatuak, bere antzeko egiten gaitu, gu Jainkoarenak egiteko. Batuta gaude. «Elkargo berria ene odolean...».

Azkenik, *bekatu* hitza agertzen da Pauloren testu honetan:

«Bekaturik ezagutu ez zuena, bekatu egin zuen gugatik, horren bidez gu Jainkoaren zintzotasun bihur gintezen» (2 Kor 5,21).

Testuinguru nahasi honetan ere, ez da esaten, Jainkoak Jesus bekatari «balitz bezala» diharduenik, haren gain zigorra erortzen utziz. Aitzitik*, testu honek hauxe esan nahi du: Jesus, bekatuez eta heriotzeaz markaturiko gure mundu honetan erabat murgildu* dela. Mundu honen puska bilakatu dela, hor berton bere saindutasuna (bere zuzentasuna) guri ematearren. Egurretik urkaturiko gizon madarikatu bilakatzeraino heldu da, gure bekatuari zegokion madarikazioa haizatzearren*.

Esaera guztiok Jesusen obedientzia adiarazten digute, heriotzeraino zerbitzeko haren prestaera. Ez dute esaten, inola ere, Aita, gure ordez, Je-

esaneko: obediente. **ordaintzeke:** pagatu gabe. **elkargoa:** aliantza, ituna. **egundoko:** oso handi. **dohain:** erregali. **senidegoa:** senidetza. **odolkidegoa:** consanguinidad. **aitzitik:** kontrakoz. **murgildu:** sartu. **haizatzearren:** uxatzearren.

sus zigortu beharrean zenik. Jainkoak nahi zuena, Jesusen Aitarekiko eta gurekiko maitasuna zen, eta maitasun horren adiarazpenik handiena, hauxe da: «ez da maitasun handiagorik, nork bere bizitza bere lagunengatik ematea baino» (Jn 15,13).

Birrerospen* irakatsiaren bitartez badakigu bekatua, heriotzea eta frakasoa ez direla azken hitza; Jainkoa horretatik bizia ateratzeko gauza dela adiarazten bait digu. Kristauaren eginkizuna, ahal duen heinean lan egitea eta itxarotea da. Esperantza hau ematen bait zaio: berak ezer ezin lezakeenean ere, herioan eta ezinean bertan ere, Jaunarekiko elkartasuna dela bide, bizia ematen eta hartzen dela.

Laburpena

Esan dezagun hitz bitan Jaunak nola salbatu gaituen. Jesusek errotik harrapatzen du gaitza, bekatutik. Eta hori, bere obedientzia heriotzeraino eramateko prest dagoelako egiten du. «Haren zauriek sendatu gaituzte».

Jainkoak hainbesteraino maite izan du gizaki eroria, bere Semea bidali bait du mundura berarekin bakeatzearren (ik. 2 Kor 5,19). Jesusek, senide askoren artean lehen semeak (ik. Erm 8,29), heriotzeraino esaneko iraun du (ik Flp 2,8). Saindu, errugabe, garbi (ik. Heb 7,26) —ez Aitak zigortua—; heriotzea, bekatuaren ordaina (ik. Erm 6,23), bere gogoz eta bere senideen bitarteko bezala onartu zuen (ik. 1 Tm 2,5). Horrela, gizakien irainak* Jainkoaren aurrean ordaindu zituen, eta bere Jainkozko Buruagan gizakien okerra ordaindu zuen gizadiarentzat, eta berriro grazia merezi zuen.

V. Gurutzeko oparia, Eukaristi oparian betikotua

DEKLARAZIOA (ik. ASS 60 [1968] 688 eta hurrengoak). Argi azaldu behar da, Jesusek bere Aitari gure okerrak ordaintzeko bere burua eskaini ziola, oparigai saindu bezala, eta Aitak atseginez hartu zuela. Kristok, izan ere, «gu maite izan, eta bere burua guregatik eman zion Jainkoari usain gozozko eskaintza eta opari bezala» (Ef 5,2).

Gurutzeko oparia, Elizan, Eukaristi Oparian betikotzen* da (ik. Batik. II. Kontzilioa, *Sacrosanctum Concilium* Kost., 49. zenb.). Egitez, Mezatan Jesusek, apaiz nagusi bezala, *bere burua eskaintzen dio Aitari apaizek dagiten eta kristau guztiak elkartzen zaizkion* sagaraketan*. Ospakuntza* hori, batera, opari eta otordu da. Opari-eskaintza komunioaz burutzen da: komunioan, Jainkoari eskainitako oparigaia jan-edari bezala hartzen bait da, fededunak harekin bat-egitekotan, eta bata bestearekin maitasunean elkartzekotan (ik. 1 Kor 10,7).

Testu zaharra, 272 paragrafoa: «*Itun Berria nire odoletan*» izenekoa.

Testu berria

Eukaristia, bada, elkarteko otordua eta esker otoitza da. Honekin mezaren esanahi osoa jasoa ote dugu? Begira eta entzun dezagun oraino; horrela, hirugarren alderdi bat nabarituko dugu: zenbait hitzek, eukaristi otoitza barna, opari bat eskaintzen dela adiarazten du. Zer esan nahi du horrek?

Azken Afarikoan, Jesusek, profet egintza bat egin zuen, bere biziaren opariaren aldez aurreko oroitzapen bat bezala. Kalbarioko oparigaia benetan presente bihurtzen zuen oroitzapena*. Puskaturiko ogia Kristoren gorputza zen; kalizako ardoa, berriz, guretzat isuritako Kristoren odola. Horrela, «gure Salbatzaileak bere gorputz-odolen eukaristiazko oparia sortu zuen; bera etorri arte, gurutzeko oparia mendez-mende betikotuko zuena» (Batik. II. Kontz., *Liturgia sainduari buruzko kostituzioa*, 47. zenb.). Eta Elizak keinu hori berritzen duenoro* eta horrela Jesusen heriotzea hotsegiten

birrerospen: redentzio. **irainak:** laidoak. **betikotzen:** perpetuar. **sagaraketa:** kontsagrazio. **ospakuntza:** zelebrazio. **oroitzapen:** memorial. **duenoro:** duen bakoitzean.

duenoro, Jesusen oparia bera, Kristoren opari bakarra, bere baitan du Elizak.

Opariak eskaini beharra, aitzina-aitzinatik izan du gizakiak: «Abelen garaitik»; Jesusen opari honek, Jainkoaren aurrean lotsarik gabe egoteko bidea damaio gizakiari. Opari honek, behin betirako eratu du Aitaren eta gure arteko adiskidetasuna: adiskidetasun berria, itun berria, testamentu berria. Adiskidetasun zaharraren ituna oparien bidez zertu* zen (Sinai mendian Exodo bitartean). Bizitza baten opariak adiskidetasun berria ekarri du.

Judutarren Bazko afaria, adiskidetasun zaharraren oroitzapena zen. Oroitzapena besterik ez, gainera. Guk, ordea, gure adiskidetasun berriaren oroitzapena egitean, ituna zigilatzen* duen oparia egiaz gure artean dugu. Gizadiaren behin betirako eskaintzarekin bat egin dezakegu. Ez dugu eskaintzen, ez akerrik ez zezenik, Semea baizik.

> «Beraz, zikiro eta idiskoen odolak eta kutsatuak zipriztinkatzeko erabiltzen den errautsak, gorputzeko garbitasuna ematean, kutsatuei saindutasuna ere ematen baldin badiete, zenbat areago ez ote du ba gure kontzientzia bere obra hiletatik garbituko Kristoren odolak, hots: betiko izpirituaren bidez Jainkoari bere burua errugabeko oparitan eskaini zion Kristoren odolak, Jainko bizia zerbitza dezagun?» (Heb 9,13-14).

Mezan partehartzen duenak, opari horretan eskuhartzen* du, eta horrela, Jainkoaren eta herriaren artean buruturiko elkargoan* sartzen da. Ez, ordea, Sinai mendian bezala, ostots* eta tximista tartean, otordu erlijioso baten alaitasun eta bozkario soilean baizik. Mezatan, Kristok berak, «gurutzean buruturiko oparia, odolik isuri gabe betikotzen du, eta apaizen zerbitzugintzaz*, bere burua Jainkoari eskaintzen dio munduaren salbamendurako» (Rituen Kongregazioaren azalpena, *De cultu mysterii eucharistici*, AAS 59 [1967] 541). Fededunak apaizarekin elkartzen dira, honen bitartez eta honekin batean, eta Jaunarekin, «eskergintzazko*, bakezko, erreguzko eta gorespenezko» oparia ospatzeko *(ibid.)*. Apaltasun izpirituz, oparigai sakratuarekin batera beren buruak eskaintzen dituzte, mendeen erregeri, Jainko hilezkor, ikusezin, bakarrari ohore eta aintza oro emana izan dakion menderen mendetan» (1 Tm 1,17).

Oparien eskaintzari buruz, eskaintza izenaz adiarazten dugun prestaerari (ogi-ardoak prestatzeari), oraino Jesusen odolaren opari ez direlarik, ez litzaioke garrantzi handiegirik eman behar. Oparia, eukaristi otoitzez, Jesusen azken afariko hitzez, eta komunioaz burutuko da. Bai, komunioa ere tarteko dela; izan ere, Jaunak «har ezazue eta jan» hitzez adiarazi ziguna betetzean osatzen dugu eukaristi opariko gure eskuhartzea. Jainkoari eskaintzen diogun oparigai saindua, Jainkoak guri eskainitako opari gertatzen da komunioan, «zeruko egiazko ogia» (Jn 6,32). Eukaristi ospakizunean, «eskaintza eta komunioa misterio berberaren parte dira, elkarrekin oso hestu lotuak daude» (Rituen Kongregazioa, *De cultu mysterii eucharistici*, AAS 59 [1967] 541).

Oharra. Ik. orobat lehentxeago, IV. *Jesukristo gure Jaunak eskainitako ordain-saria*; batez ere, pasarte hau: «Odolaz ere hitzegiten da... ene odoletan».

VI. Egiazko presentzia eta Eukaristiazko aldakuntza

DEKLARAZIOA (ik. AAS 60 [1968] 689). *Kristau Bidea*-n duda-mudarik gabe baieztatu* behar da hau: ogi-ardoak, sagaratzearen* ondoren Kristoren gorputz-odolak berberak direla presente aldare gainean, jainkozko aldare horretara behar bezala hurbiltzen direnak Kristo

zertu: mamitu, egin. **zigilatzen:** seilatzen. **eskuhartzen:** partehartzen. **elkargoa:** elkartasuna. **ostots:** trumoi. **zerbitzugintza:** zerbitzua. **eskergintza:** eskerrak ematea. **baieztatu:** afirmar, affirmer. **sagaratze:** kontsagrazio.

Jaunaz gogo-janarituak* izan daitezen. Gainera, azaldu behar da ere, ogi-ardoen itxurak, hau da, ageriko errealitateak lehenean diren bitartean, han gertatzen da izkutuan*, arras misteriotsu, Kristoren gizatasuna bera, haren jainkozko pertsonari baturik.

Elizan «trasustantziaketa» deituraz* ezagutzen den aldakuntza harrigarri horren ondoren, ogi-ardoen itxura, komunioan komunikatzekoak diren graziaren eta maitasunaren iturri den Kristo berbera bere baitan* duelako eta adiarazten duelako, esanahi berriz eta helburu* berriz hornitzen* da: trasustantziaketa burutu* delako, hain zuzen. (ik. Paulo VI.aren *Mysterium fidei entziklika,* AAS 57 [1965] 766. or.; *Schreiben der deutschen Bischöfe an alle, die von der Kirche mit der Glaubensverkündigung beauftragt sind,* 43-47 zenb.).

I. Egiazko presentzia

Testu zaharra, 274 paragrafoa: «Kristo ezagupide horietan dago» delakoaren lehen zatia.

Testu berria

Kristoren presentzia eukaristi ezagugarrietan

Kapitulu hau ezin dugu amaitu, misterio handiaz berariz* mintzatu aurretik; orain arte esandakoan zeharbidez* emana badator ere, oraino ez bait da hori adiarazi. Jesusen sakramenduzko presentziaz dihardugu, eta ogi-ardoak haren gorputz-odol bihurtzeaz. Jarrai gakizkion, beraz, gure bilaketari*, eukaristi misterioaren alor mugagabea arakatuz*.

Jesus oraino lurrean zegoelarik, apostoluek Maisuarekin otorduak egiten zituztenean, gorputzez ikusteko moduan zegoen haien artean. Baina, guztia ez zegoen horretan; haien artean bazen «zerbait apartekorik». Jainko Semearen presentzia zerbait handi zen haientzat. Maisuaren ekintza eta kanpoko presentziarekin batera, harekin egiaz lotzen zituen barne-presentziaren sentimendua sortzen zen haiengan. Jaunaren eta Izpiritu Sainduaren ekintzaren fruitu zen. Barne-presentzia honetaz mintzo da Paulo saindua, Efesokoei izkiriatzen dienean: «... zuen barnean haren Izpirituaren egitez sendotuak: Kristo fedearen bidez, zuen bihotzean bizi dadin...» (Ef 3,16-17); horretaz ari zen Jesus ere, honela esan zuenean: «Bi-hiru nire izenean biltzen diren lekuan, hantxe naute neu ere beren artean» (Mt 18,20); Jesusek hitzegitean, Emausko ikasleen bihotzak berotu zituen presentzia da (ik. Lk 24,32).

Jesus hil eta biztu ondoren, ikasleak haren maitasunez biltzen zirenean, Jesus bera zen batasunean eusten zien lokarri misteriotsu eta eragilea*. Haien artean zen oraino ere «zerbait» hura, Jaunak haien ondoan jaten zuenean sentitzen zuten «zerbait» hura. Are* gehiago, non Jesus biztuaren agertuei esker, ziur bait zeuden Jesus bizi zela. Are gehiago, non Mendekoste egunez gainezka hartu bait zuten Izpiritu Sainduaren indarra.

Ikasleek bazekiten ere, aintza handitan biztua zen beren Jaunaren guztizko* opariaren oroitzapena ospatu behar zutela, ogi-ardoak hartuz, eta harek azken afarikoan esan hitzak birresanez. Bazekiten, beren aurrean zedukaten hura, bere errealitate sakonenean, ez zela ez ogi eta ez ardo, Jaunaren gorputza baino, duintasunez* hartzekoa zena (ikus 1 Kor 11,27).

Horrela bada, Elizan etengabe berritua izan den azken afariko oroitzapenaren ospakizunean, Jesusen presentzia misteriotsu bat gertatzen da eukaristi ezagugarrien pean. Jesusen hitzak birresan ondoren, aldare gainean dagoena, ikus eta senti daitekeenez («akzidente»en edo itxuraren arabera, Elizak esaten duenez), ogia da, eta ardoa. Baina, ogi-ardoen errealitate sakon eta ikusezina, «sustantzia» alegia, Kristoren gorputz-odol bihurtu da. Elizak orain zehatzago* adiarazten du hori, esatean: aldaketa honengatik, —Jesusen gorputz-odolak Jesusen gizatasun saindu, aintzatu eta biziemailea— eukaristi ezagugarrietan daudela, beren egite eta eraginkortasunez* ezezik, berer errealitatez ere bai.

---

gogo-janarituak: izpirituz janarituak. **izkutuan:** gordean. **deituraz:** izenez. **baitan:** barruan. **helburu:** finalitate. **hornitzen:** aberasten. **burutu:** egin, osatu. **berariz:** espreski. **zeharbidez:** indirectamente, indirectement. **bilaketa:** búsqueda, recherche. **arakatu:** ikertu. **eragile:** aktibu. **are** ... **non:** tanto ... que, autant ... autant. **guztizko:** supremo. **duintasun:** dignidad, dignité. **zehatzago:** xehetasun, argi gehiagoz. **eraginkortasun:** eficacia, efficacitté.

Zertarako dago Jesus honela presente? Komunio rituaren bidez —Sakramenduzko otorduaren bidez—, janari horrek sinbolizatzen duena gure baitan burutzeko, hau da, Kristo bera den bizi-ogiz gure gogo-janaritzea burutzeko. Janari saindu horrek damaigun indarrez, Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean gure bihotzetan bizi den Jesukristo Jaunarekin dugun batasuna hazi egiten da fedean eta maitasunean.

Beraz, hona Eukaristian ere, Jesusek dizipuluen artean zuen presentzia bikoitz haren antzeko zerbait: Jesusek apostoluekin jatean eta hitzegitean, presentzia bikoitza ukaiten zuten apostoluek, barne eta kanpoko presentzia. Alde hau dago, ordea, Eukaristiako eta lurtar bizitzaldiko Jesusen presentzian: lurtar bizitzaldian Jauna ikusteko moduan ageri zela; eukaristi sakramenduan, berriz, Jaunaren presentzia aldare gainean ikusezina da eta sinesmen-begiz ikus daiteke bakarrik. Kasu bietan, kanpoko presentzia, dohain misteriotsu eta preziatua den barne presentziara dago ordenatua.

Komunioa baino lehen ere, Eukaristia bera ospatu baino lehen ere, Jauna fededunen bihotzean bizi da. Bera da, apaizen bidez, ogi-ardoak bere gorputz-odol bihurtzen direneko eukaristi oparia burutzen ari dena. Jesus da apaizetan apaiza; meza ematen duen apaiza, Jesusen zerbitzari bat besterik ez da. Baina, nahiz honengan nahiz fededunengan, Jaunaren gizatasun aintzatua* ez dago presente bere izatez, bere eraginez bakarrik baizik. Gure aldare gainean, ogi-itxurapean, bai dagoela modu arras misteriotsuz Jaunaren gizatasuna bera (beraren jainkozko pertsona eta guzti). Horregatik, Trentoko Kontzilioak irakasten duen bezala, Jainkoari zor zaion gurtza* bera eman diezaiokegu eta behar diogu aldareko sakramendu sainduari. Fedez argituta, Jaun biztuaren aurrean Toma apostoluak bezala esan dezakegu: «Ene Jaun ete ene Jainko»; halaber*, «Jauna, ni ez naiz nor».

II. Eukaristiazko aldakuntza

Testu zaharra, 274 paragrafoa: «Kristo ezagupide horietan dago» delakoaren bigarren zatia

Testu berria

Baina, zertan datza ogian gertatzen den aldaketa? Esan dugu, ogiaren errealitate agerikoak (ikusten eta ukitzen denak, fisikoarentzat eta kimikoarentzat aztergarri denak) ez duela aldakuntzarik jasaiten*. Esan dugu ere, Jesusen ordezkari bezala, apaizak egiten duen sagaratzeaz, ogi zena Kristoren gorputz bihurtzen dela. Aldakuntza misteriotsu honetaz ezer gehiago esan ote daiteke, apika*?

Erdi Aroa baino lehen ihardun ziren arazo* honetaz, honen muina zehazkiago determinatzeko asmorik gabe bazen ere. Erdi Aroan zehar, esplikazio bilakuntzan aurrerago joan ziren. Trentoko Kontzilioak halako azalpen muina jaso egin zuen, eta muin hura fede-misterioaren zati gertatu zen (adiarazten zen errealitateari buruzkoa zenez bederen*, nahiz eta hala izan erabilitako formulazioari buruz). Gure zentzumena* ez da gauza gorputzezko errealitate bati dagokion guztia atzemateko*. Ogi-ardoen errealitate agiriko eta, gutxi-asko, aldakorrean, zerbait sakonagorik eta iraunkorragorik agertzen da; gure aurrean ikusteko moduan zerbait atzeman, eta «hau ogi da» diogunean, gure adimenduak (nola-hala bederen) asmoz-jotzen eta gogoematen duena, errealitate sakon horixe da.

Ogi-ardoen errealitate hori —ez fenomenuzkoa—, apaizak esandako Kristoren hitzen indarrez, Kristoren gizatasunaren errealitatea bera bihurtzen da (Kristoren haragi-odolen errealitate sakona).

---

aintzatua: aintzatara igoa. **gurtza:** adorazioa. **halaber:** baita. **jasaiten:** sofritzen. **apika:** agian, beharbada. **arazo:** prolema. **bederen:** behintzat. **zentzumena:** zentzuen ahalmena. **atzeman:** hartu, ulertu.

Horregatik, egi-egiaz esaten ahal dugu: «Hona hemen Jainkoaren bildotsa», eta orobat*: «Kristoren gorputza». Aipaturiko errealitate sakon hori (ogiarena eta ardoarena, eta Kristoren gorputz-odolena), Trentoko Kontzilioak «sustantzia» deitu zuen. Horregatik, eukaristiazko aldakuntzari Kontzilioak «trasustantziaketa» izena ematen dio, eta ogiaren eta ardoaren «akzidenteak» (eraskinak) bakarrik gelditzen direla dio.

Esan dugunak ez du misterioa *esplikatzen*; baina, bai, haren esanahia, hein batetan, zehazten*. Misterioa ez da biluzten; Jainkoak gure adimendua neurrigabean gainditzen* du. Baina, garrantzitsua da, maitasunezko misterio baten aurrean aurkitzen garela jakitea. Misterio honen bidez, fededunen elkarterik den tokian, nonahi delarik ere, Eliza bere Jaunaren opariari batu dakioke, lurrean betikotu* denari alegia. Misterio honen bidez, otordu bati darion tankera* gizakoiaz, Jaunaren gorputza hartzen ahal dugu gure arimaren janari. Jainkoak, halako gisa hunkigarrian* agertu nahi izan digu bere maitasuna.

Egungo teologian, ogi-ardo sagaratuei buruz, zentzu* eta helburu* aldakuntza jasaiten* dutela esan ohi da sarritan. Paulo VI.aren *Mysterium fidei* entziklikak aldaketa bikoitz horretaz mintzatzea ontzat ematen du; baina aldakuntza bikoitz hori, beti, ogi-ardoak Kristoren gorputz-odol bihurtu direlakoaren ondorio* bezala ematekotan. Bihurtze horri esker, eukaristi ezagugarriek, beren baitan, Jesus dadukate, biziaren ogia; horrela, ezagugarri horiek gure janari dugun gogo-janaria* adiarazten (esanahi aldakuntza edo «transignifikazioa») eta egiten dute (helburu aldakuntza edo «transfinalizazioa») (ik. Paulo VI.a, *Mysterium fidei* entziklika, AAS 57 [1965] 766).

III. Eukaristiazko presentziaren iraupena

1. *Testu zaharra*, 277 paragrafoa: «Ogi-ardopean, noiz arte... gure baitan, Izpirituaren bitartez».

Testu berria

Mintzo gaitezen orain iritzi ezberdinak sor ditzakeen arazo txiki batetaz. Noiz arte irauten du Kristok eukaristian? Ogiaren errealitate agirikoa, «antz-irudiak*», usteldu bitartean. Zenbait garaitan, hori egiztatzeko* zientziara jo izan da: irtenbidea*, zientziaz frogaturiko kimikazko errealitate mailan bilatu nahi izan zen. Baina, «antz-irudi» horik esanahi zientziazkoan hartu behar ote dira gero? Ez ote da hobe, irizpide* arruntaz eta egunoroko esperientzi mailan ogi bezala zer hartzen den galdetzea? Irizpide honen arabera erabakiko dugu eukaristiazko presentziaren iraupenaz. Dena den, egia hauxe da: eukaristian Kristoren gorputza hartu, Jaunaren gure baitako bizitza eta Harekiko gure maitasun lotura komunio sainduak hazi ditzan, hartzen dugu.

2. *Testu zaharra*, 278 paragrafoa: «Meza amaitu ondoren ere... ohoratzeko bide xit egokiak dira».

Testu berria

Meza amaitu ondoren ere, Kristoren gorputza begirune osoz gordetzen da. Horrela, noiznahi eman dakieke gaixoei. Gehienetan sagrarioan gorde ohi da, eta hau aldare baten ondoan egon ohi da. Horrela, mezarik eman ez arren, Jauna gurekin gelditzen da. Jaunaren presentziaz esandako guztiak balio du hemen ere. Jesusen gizatasunaren beraren presentzia misteriotsu eta izkutua da hor gertatzen dena. Eliza batetara sartzen garenetan, presentzia horretaz begirunez eta eskerronez gogoratu behar genuke. Oso ohitura ona da sartzean eta irtetzean belauniko agur egitea.

---

orobat: berdin. **zehazten:** finkatzen, xehetzen. **gainditzen:** superatzen. **betikotu:** perpetuado. **tankera:** molde. **hunkigarri:** conmovedor. **zentzu:** esanahi. **helburu:** finalitate. **jasaiten:** sufritzen. **ondorio:** konklusio. **gogo-janaria:** izpiritu janaria. **antz-irudi:** apariencia, apparence. **egiztatzeko:** frogatzeko. **irtenbide:** aterabide. **irizpide:** kriterio.

Isilean egindako otoitzak —erostera irtetzen den etxekoandreak otoitz egiteko edo eskerrak emateko hartzen dituen hiruzpalau minutuak, adibidez— edo Jauna agerian jartzea edo prozesioa, gure artean iraunkor dagoen Jauna ohoratzeko* bide xit egokiak dira.

VII. Elizaren hutsezina* eta misterioen ezagugarritasuna*

DEKLARAZIOA (ik. AAS 60 [1968] 689). Adiaraz bedi argi *Dotrinan*, bere hutsezinak Elizari, betiko bilaketa* batetan, bidea gaitzetik gorde ezezik, zaindu behar duen eta beti zentzu beraz esplikatu behar duen fede-dotrinan, egia damaiola (ik. Batik. I. Kontzilioa, *Dei Filius* kostituzioa, 4. kap., eta Batik. II. Kontzilioa, *Dei Verbum* kostituzioa, 2. kap.) «Fedea ez da bilaketa hutsa, eta bai batez ere ziurtasuna*» (Paulo VI.a, *Ad episcoporum Synodum* hitzaldia (AAS 59 [1967] 966). Ez bekie eman biderik *Dotrinan*, inola ere, irakurleei, giza adimendua agerkunde misterioaren hitz —edo kontzetu— adiarazpen hutsei atxekitzen* zaielako susmorik; saia bedi, aldiz*, irakurleak honetaz jabe arazten: giza adimenduak, bere kontzetuz eta, Paulo sainduak dioenez (1 Kor 13, 12), «ispiluan* bezalako isladura* iluntsuz» bada ere, egiaz irudika* eta atzeman* ditzakeela agerkunde misterioak.

Testu zaharra, 302 paragrafoa: «Egia bizia» deritzana.

Testu berria

Egia eta dinamismoa

«Hutsezina» hitza, lehen begiratu batetan, ukakor* bezala agertzen da, baina errealitate baikor bat adiarazten du: batek egia duelako eta komunikatzen duelako garantia adiarazten du. Berez ez du desarroilorik idarokitzen*; baina, desarroiloa, gizakiek duten egia ororen bereizgarri* da. Hutsezin hitzak, Elizari dagokionez, hauxe esan nahi du: Elizak, zaintzeko emana zaion fede gordailua* (ikus 1 Tm 6,20) zintzo gordeko duela eta, Izpiritu Sainduaren gidaritzapean, gero eta sakonagotuz joanen dela mezua inoiz ere okertzeke* (ikus Jn 16,13). «Sainduaren igurtzia* duen fededunen multzo osoak ez dezake hutsegin bere fedean, eta bere tasun* berezi hori herri osoaren fedearen berezgaindiko* zentzuz azaltzen du, "Gotzainengandik hasi eta azken kristauaganaino", fede eta haztura mailan baiezko orokorra ematean» (Batik. II. Kontzilioa, *Lumen Gentium* kostituzioa, 12. zenb.). Alabaina* zertan datza Jainko herria egiaren betetasunera* gero eta gehiagoan joatea? Agerkundearen mezua hain* aberatsa da, non kontaezin ahala alderdi bait ditu, eta haietarik askok izkutuan dirau oraingoz. Halere, Kristok bere emazte duen Elizari ezagutzera eman nahi dizkio; baina, Eliza bera aurkituz joan dadila nahi izan du Kristok. Bestalde, kontutan hartu behar da, agerkundearen egiarekiko gure harremana, giza adiarazpidez* egiten dela. Hein batetan bederen, aldakor diren hitz eta formulez baliatzen gara. Orobat*, irudi eta kontzetuez. Azken hauek, ukakor moduan eta erdizka bada ere, arras egitan atzeman dezakete misterioa, eta beren balioa gorde egiten dute aro eta kultura desberdinen artean. Baina, kontzetu adiarazpen horiek elementu galkorrik* ere ukan dezakete, aro jakin batetako mundu-ikuskerari dagokionik alegia.

Ez da batere harritzekoa, beraz, zenbait bider* teologoek, egia adiarazia, batetik, eta beronen zenbait espresio, bestetik, bereiztea. Bereizketa hori bera egiten zuen Joan XXIII. Aita Sainduak ere, fede-gordailuaren*, hots, kristau mezuan datozen egia guztien bildumaren* eta horik adiarazteko moduaren arteko aldeaz mintzatzean (Kontzilioari hasera emateko hi-

ohoratzeko: ohorea emateko. **hutsezina:** infalibilidad, infaillibilité. **ezagugarritasun:** cognoscibilidad. **bilaketa:** búsqueda, recherche. **ziurtasun:** segurtasun. **atxekitzen:** lotzen. **aldiz:** kontrakoz. **ispilu:** mirail. **isladura:** distira. **irudika:** iradikatu, irudiz eman. **atzeman:** lortu, ulertu. **ukakor:** negatibu. **idarokitzen:** aditzera ematen. **bereizgarri:** característico, caractéristique. **gordailu:** altxor, tesoro, trésor. **okertzeke:** okertu gabe. **igurtzia:** gantzudura. **tasun:** kualitate. **berezgaindiko:** sobrenatural, surnaturel. **haztura:** ohitura, usadio. **alabaina:** ordea. **betetasun:** plenitud, plénitude. **hain ... non:** tan ... que, si ... que. **adiarazpide:** espresio. **orobat:** baita. **galkor:** caduco, périssable. **bider:** aldiz. **fede-gordailu:** fede-altxor. **bilduma:** kolezio.

tzaldia, AAS 54 [1962] 92). Azkenik, esan dezagun, agerkundearen egia aurkeztu*, garaian garaiko gizon-emakumeen izpirituak, norberaren mentalitatearen arabera, norberaren ezaguera eta prolemen arabera hartzeko moduan aurkeztu behar dela.

Guzti honek esan nahi du: Elizak egiten duen Kristoren mezuaren oihukatzeak*, eta horretaz teologoek eta eliz-artzainek ematen dituzten azalpenek, ez dutela taxutzen* sistima gogor eta hertsirik*, errealitate mugikor* bat baizik. Ez gaitu nahas arazi behar horrek. Haurtxo batentzat, ama da puntu iraunkorra; baina, bai dinamikoa eta bizia dela!, orain kanpoan, gero sukaldean, behin pozik, hurrengoan ilunago. Puntu iraunkorra, hitzaren esanahi sakonenean, gauza bizia eta mugikorra da. Horrela gertatzen da kristau-mezua oihukatzearekin ere; aldatzen eta berriztatzen den zerbait da, baina horren mamia* beti bat bera da.

Gaurregun, teologi pentsakera biziki jabetua dago dinamismo honetaz eta horrek ezartzen duen berrikuntza beharraz. Bada premiazko aldaketen beldur denik; baina, bada ere, aldaezina den egia gutxiesteko* arriskutan sartzen denik, edo mugimenduarena alderakoiegi* goratzen duenik. Paulo VI.ak, bi mutur horien tarteko jarrera* hartu du; horrela, apezpikuen sinodoaren hastapenean* (1967ko irailaren 29an), hauxe jakinarazi zuen: «fedea ez da bilaketa hutsa, eta bai batez ere ziurtasuna».

Betirako dirauen Kristoren hitza entzunez, Eliza martxan dago egia bat beraren ezaguera berrituaruntz. Eta hauxe da Kristoren argi zahar eta aldaezina*: *Lumen Christi!*; bazko zuziak* bezala, argitzen duen gauaren urtegunak*, beti berriak, berarengan ezarririk daramatzana.

VIII. Apaizgo ministeriala eta Elizaren aginpidea*

DEKLARAZIOA (ikus AAS 60 [1968] 690). Ez da eman behar, Eliz-gizonen apaizgo ministerialaren bikaintasuna gutxietsi egiten delako susmo biderik; apaizgo horrek eta kristauaren apaizgo arruntak Kristoren apaizgoarekin duten harremanaren aldea, ez da zenbatekoa* bakarrik, eta bai izatezkoa ere (ik. Batik. II. Kontzilioa, *Lumen gentium* kostituzioa, 10. zenb.; *De cultu mysterii eucharistici* adiarazpena, AAS 59 [1967] 11. zenb. 548 or.). Saia* bedi, apaizen ministerioaz iharduten, Jainkoaren eta gizakien artean duten bitartekotza* argiago ematen: Jainkoaren hitzaren predikuan, kristau elkartea egitean eta sakramenduak ematean betetzen duten bitartekotasuna ezezik, batez ere Eliza osoaren izenean eukaristi oparia eskaintzean betetzen dutena ere (ik Batik. II. Kontzilioa, *Lumen gentium* kostituzioa, eta *Presbyterorum ordinis* dekretoa 2. eta 13. zenb.).

Gainera, uste honetara heldu gara; *Dotrinak* argi eta garbi ezagutu behar duela, irakasgoa* eta agintea, Elizan, Aita Sainduari eta honekin hierarkiazko elkartasunean baturik dauden gotzainei, zuzen-zuzenean eman zaizkiela, eta ez lehendabizi Jainko herriari, bitartekori bezala. Horrez gero, gotzain aginpidea ez da Jainko herriak emandako mandatua*, fededun elkarte osoaren onerako Jainkoagandik harturiko mandatua baizik.

Argiago azaldu behar da ere, Aita Sainduak eta apezpikuek harturiko irakasgoa ez dela mugatzen kristau elkarte guztiak sinesten duena biltzera eta baieztatzera. Egitez, Egiaren Izpirituak eragiten eta eusten dio Jainko herriari, eliz irakasgoa gidari duela, Jainkoaren hitzari hutsegiterik* gabe atxekitzen*; baina, irakasgoari dagokio, berez eta aginpidez, fede gordailua gorde, esplikatu eta begiratzea*. Horrela burutuko* da bat-etortze harrigarri bat apezpikuen eta kristauen artean eskualdaturiko* fedea buruz sakontzen, hitzez aitortzen eta egitez agertzen (ik. Batik. II. Kontzilioa, *Lumen gentium*, 11. zenb. eta *Dei Verbum*, 10. zenb.). Tradizio saindua eta Biblia —Jainkoaren hitzaren gordailu saindu bakarra zertzen* dutenak— eta Elizaren irakasgoa hain* daude bateginik, non batak bestea gabe ezin bait dezakete iraun (ik. Batik. II. Kontzilioa, *Dei Verbum*, 10. zenb.).

Azkenik, Aita Sainduak Eliza gidatzeko duen ahalmena, argi eta garbi, aginpide oso, handien eta orokor bezala adiarazi behar da; horretaz, askatasunez balia daiteke beti Eliza osoaren Artzaina (ik. Batik. II. Kontzilioa, *Lumen gentium*, 22. zenb.).

---

aurkeztu: presentatu. **oihukatze:** aldarrikatze, zabaltze. **taxutzen:** eratzen, moldatzen. **hertsi:** hitsi. **mugikor:** aldakor. **mamia:** muina. **gutxiesteko:** gutxitzat hartzeko. **alderakoi:** partzial. **jarrera:** postura. **hastapen:** hasera. **aldaezina:** inmutable, immuable. **zuziak:** argizari-kandela handiak. **urtegunak:** fecha, date. **apaizgoa:** apaiz izate. **aginpidea:** autoridad, autorité. **zenbatekoa:** gradutakoa. **saia:** saiatu, entseiatu. **bitartekotza:** mediación, médiation. **irakasgoa:** magisterio, magistère. **mandatua:** egitekoa. **hutsegite:** fallo, erreur. **atxekitzen:** lotzen. **begiratzea:** defendatzea. **burutu:** egin, bukatu. **eskualdaturiko:** transmitido, transmis. **zertzen:** egiten. **hain ... non:** tan ... que, si ... que.

I. Kristauen apaizgoa eta apaizgo ministeriala

1. *Testu zaharra*, 280 paragrafoa: «Bai, kristau apaizgoa... (1 P 2,10) bilakatu bait gara».

Testu berria

Bai, kristau apaizgoa, egiazko zentzuan, fededun elkarte osoari dagokio, eta bataioan eta sendotzan* hartzen da. Apaizgo orokor hori dela bide, Eliza herri bereizi bat da munduan, «Jainkoarentzat irabazitako herri» (1 P 2,9).

2. *Testu zaharra*, 298 paragrafoa: «Gogoeta hauekin ez ote dugu bigarren mailara... (1 Kor 4,1) hartu behar ditugu».

Testu berria

Honela bada, Kristoren bitartekotza berberaren haragitze den artzainen bitartekotza, bakar batzuei bakarrik dagokie. Jainko-herriaren apaizgo orokorrak ezer galtzen ote du horrekin?

Kristau guztien apaizgoaren eta apezpiku eta apaizen hierarkiazko apaizgoaren arteko harremanak ez dira horrela hartu behar. Biek Kristoren apaizgotik hartzen dute; baina, Batikano II. Kontzilioak irakasten duenez (*Lumen gentium*, 10. zenb.), bada bien artean izatezko alde bat. Hierarkiazko apaizgoa duintasunez* garaiago* da; baina, horrek ez dio kentzen zerbitzu bat izatea. Apezpiku eta apaizek, fededunei, beti, apaiz-herri izateko eta birjaiotzeko* bidea damaiete. Kristoren eta honen herriaren zerbitzurako daude; Jainko misterioen banatzaile dira.

II. Apaizgo ministeriala edo hierarkiazkoa

1. *Testu zaharra*, 296 paragrafoa: «Hitz hauek, apostoluei emaniko... eta agintez egon nahi du».

Testu berria

Hitz hauek, apostoluei emaniko ahalmenak (jakina, Elizaren eraikitzaile egiten zituenak ez beste guztiak) apezpikuengana eskualdatu* direla adierazten dute. Apezpikuei dagokie, beraz, Jainko herria larratzeko* ahalmena, hura gidatuz eta eskolatuz eta Eukaristia ospatuz (ik. *Lumen gentium*, 26. zenb.) eta sakramenduak emanez. Eginkizun hauk betetzeko modua, arras ezberdina izanen da denboraren joan-etorrian. Honela egon nahi du Kristok gure giroan: gizaki biziei emandako agintean.

2. *Testu zaharra*, 296 paragrafoa: «*Sakramendu emaile* denez... gotzainaren gain dator».

Testu berria

Sakramendu emaile denez bere eginkizuna —apaizek ere egiten dituzten beste eginkizunez gainera— honela betetzen du: apaizgaiak apaiztu eta sendotza sakramendua eman (honen bidez, diozesiko kristau guztien bataioa burutu* egiten du). Gainera, haren diozesian, sakramendu ezagugarri guztiak zehatz eta zuzen ematearen erantzukizuna* gotzainaren gain dator.

3. *Testu zaharra*, 299 paragrafoa: «Apaizgintza ere, funtsean... eukaristiaren buru egiten dute apaiz berriek».

Testu berria

Apaizgintza, Izpiritu Sainduari otoitz bat egitean eta apezpikuaren esku-ezarketan datza. Bertan diren apaiz guztiek ere eskuhartzen* dute esku-

---

sendotza: gonfirmazioa. **duintasun:** dignidad, dignité. **garaiago:** gorago. **birjaiotzeko:** berriz jaiotzeko. **eskualdatu:** transmitir, transmettre. **larratzeko:** mantentzeko. **burutu:** osatu, bukatu. **erantzukizuna:** errespontsabilitatea. **eskuhartzen:** partehartzen.

-ezarketa horretan. Horrekin, sinbolubidez, apaizgoaren batasuna adiarazi nahi da. Apaizgintzaren funtsezko elementuak biltzen dituen erdigune horren inguruan, zirimonia xit adiarazgarriak biltzen dira: olio sainduaz eskuak gantzutzea, kaliza eta patena ematea, eta lehen aldiz gotzainarekin batera eukaristia ospatzea.

4. *Testu zaharra*, 299 paragrafoa: «Apaizgintzak apaizari... prediku eta aginte eginkizunean ere eskuhartzen du».

Testu berria

Apaizgintzak apaizari damaizkion ahalmenak, eukaristi oparia ospatzea eta penitentzi sakramenduan bekatuak barkatzea da (aitortzak entzutea). Emana izan zaion mandatuaren arabera, prediku eta aginte eginkizunean ere eskuhartzen du.

III. Gidatzeko eta irakasteko ahalmena

1. *Testu zaharra*, 297 paragrafoa: «Gainera, bere mandatua eta ahalmenak... Jainkoaren herri izatea Jainkoaren dohain da».

Testu berria

Gainera bere-bere dituen mandatua eta ahalmenak, Jainko-herriaren altzoan eta honen onerako hartzen ditu gotzainak. «Jainko Herri» esaten duenak, Bibliaren arabera, ez ditu kanpoan uzten, ez gotzainak, ez eta apaizak ere.

Ahalbide horik gotzainari emateko bidea, demokrazia batetan ikusten duguna ezbezalakoa da. Eta horrek badu bere esanahi sakona, hemen argitu beharrekoa.

Esan dezagun lehenik, gotzainaren *hautatzea*, berez, hamaika gisatara egiten ahal dela. Esaterako, herriaren aho batezko iritzia jasoz; aitzina egin izan zen bezala.

Baina, ahalbideak berak ez ditu hartzen gotzainak herriaren ordezkari balitz bezala, gehienek eskainita bezala, lehendik hartuak dituzten beste batzuk ematen dizkiotelako baizik. Apezpiku batek beste apezpiku batengandik hartzen du bere sagarakuntza*. Sagaratzailearekin batera beste apezpiku batek edo gehiagok hautatuari* eskuak ezartzeko ohituran, apezpiku taldearen batasun adiarazpena (kolegialitate edo elkargoa) ikus dezakegu.

Apezpiku batek bestea sagaratzeko moduak, honako hau ipintzen du agerian: ez ditzakeela inork, ez artzain mandatu, ez eta ahalmenak ere, bere eskuz har. Apostoluek bezala, apezpikuek ere Jaunagandik hartzen dituzte beren kargua eta agintea; baina, Kristoren nahiaz, apezpikuek kargu eta aginte horik apostolu jarraipenez eskualdatuta* hartzen dituzte. Gotzain baten sagaratzeak, gotzain ahalmenak jatorria Jainkoagan duela agertzen digu: Jainkoaren dohain da; eta bere betebeharra, Jainkoaren herria biltzea, janaritzea eta hezitzea du.

2. *Testu zaharra*, 301 paragrafoa: «Gotzain guztien bilerari... berariz adiarazten duenean».

Testu berria

Gotzainek elkarrekin —Keparen ondorengoari elkarturik— Kristoren egia gordetzen dute Elizan. Beraiek, gidatu behar duten Jainko herri osoarekin batera, egiaren Izpirituaren eragina* hartzen dute. Kontzilioa hutsezina* da, berariz* aldaezineko* irakaspena emateko asmoa duela adiarazten duenean.

---

sagarakuntza: kontsagrazioa. **hautatu:** aukeratu. **eskualdatuta:** transmitido, transmis. **eragina:** influjo, moción. **hutsezina:** infalible, infaillible. **berariz:** espreski. **aldaezineko:** inmutable, immuable.

IV. Keparen ondorengoaren aginpidea

3. *Testu zaharra,* 303 paragrafoa: «Batasuna Keparen ondorengoari esker» deritzaiona.

Testu berria

Une honetan, arazo arras gizakoi bat planteatu behar dugu, Kristok Elizari eginiko dohainez hobekiago jaberaz gaitzakeena. Hau da galdea: Elizan, gotzainen artean banaketarik sor baledi, norengana jo? Arazo honek Erromako gotzainaren aginpideaz mintzatzera garamatza.

Keparen artzaingoa ondorengoei emana izan zaie. Apostolua Erroman hil zen, Neron-en garaian, 64. edo 67. urte inguruan. Ondoren, hiri honetaz heldu zaizkigun lehen berriak Antiokiako Inaziok eta Erromako Klementek emanak ditugu, 100. urte inguruan idatziak. Nahiko argi dasaigute biok, beste Eliza guztien artean Erromako Elizak ordurako zuen leku berezia. Eta horretan jarraituko da. Haseran, ez zen erakunde berezirik behar izan horretarako. Baina, joan-etorri handiko arazoak harrotzean, Erromako Elizara jo ohi zen.

Nondik nora, ordea, maila berezi hori Erromako Elizari? Politik mailan ere Erroma aministrazioaren hiri nagusia zelako ote? Soil-soilik historia aldetik begiratuta ere, gauza honek ez du egi itxurarik; izan ere, Erromako gotzainaren lehentasunak ez zuen, garai horretan, inolako aministrazio tankerarik. Erromako gotzaina anaiarteko lehena egiten zuena, ez zen Inperioherriko hiriburuaren izena, eta bai Kepaganaino heltzen zen apostoluen elkarte zaharraren izena.

IV. mendeaz gero, Erromako gotzainari *papa* edo «aita» deritza; baina, garai hartan, bazen izen hori ematen zitzaion beste apezpikurik; geroago hasi zen Erromako gotzainaren izen berezi bezala hartzen. Erromako Elizarekiko elkartasuna, Eliza osoaren elkartasunaren garantiatzat hartzen zen.

Erromako apezpikuaren eginkizun berezia, Keparena bera da: Eliza batasunean zaindu, Elizaren fede eta bizi batasuna zaindu; eginkizun hori da Aita sainduak «Kristoren ordezkari eta Eliza osoaren artzain» bezala (Batikano II. Kontzilioa, *Lumen Gentium*, 22. zenb.) duen «ahalmen oso, garaien eta orokorraren» sustraia.

Ahalmen honek beste apezpikuena sendotu egiten du, inola ere haiena gutxitzeke* eta haik aita sainduaren ordezko soil bihurtzeke. Honekin ez dugu esan nahi, aita sainduaren egitekoa apezpiku elkartasuna zuzentzea denik, bera tarteko izateke; bera ere elkartekide* da, eta une berean elkartearen buru.

Mendetan zehar, Kepari emandako eta honen ondorengoei eskualdaturiko* gotzain-burutzaren kontzientzia gero eta zehatzago taxutuz joan da; uste hori oraino zehatzago bilakatu da Batikano I. eta II. Kontzilioen bitartean. Kargua betetzeari dagokionez, berriz, historiako gorabehera desberdinen arabera, tankera askotarikoa izan da. Horrela, batez ere XIV. mendeaz gero, «zentralizazio» edo «bateratze» joera suma* dezakegu Elizan, horren alde on eta txarrekin. Gisa* berean azken kontzilioaz gero berezitasun hau nabari dugu: apezpikuak gero eta gehiago ari direla eskuhartzen* Eliza orokorraren zerbitzuan; gotzainen sinodo bat eraiki da, gotzain batzarren zeregina handiago bihurtuz doa, diozesi buruari ahalmen handiagoak eman zaizkio. Guzti honek, Izpiritu sainduaren eragina sentiarazten digu; Izpiritu Sainduak garamatza, izan ere, Eliza orokorraren behar-beharrezko batasunaren eta apezpikuen erantzukizun zentzu berriaren eta tokiko Elizek dituzten izpiritu aberastasun berezien arteko konponbide berrietara.

---

gutxitzeke: gutxitu gabe. **elkartekide:** elkarteko lagun. **eskualdaturiko:** transmitido, transmis. **suma:** sumatu, antzeman. **gisa:** era. **eskuhartzen:** partehartzen.

Egun, aita saindua da —azken hitzez bederen— apezpikuak izendatzen dituena edo hautaketa* berariz* ontzat ematen duena. Eskua sartzen ahal du edonongo diozesi batetako arazoetan, hala beharrez gero. Eta gainera gotzainen batek bere eginkizuna ezin bete baleza, aministrari apostoliko bat izenda dezake Aita sainduak.

Gizaldiak zehar, ezagutzen dugun gobernu sistima biribildu da: Aita sainduak bere esku du aginpide nagusia, oso zabala, eta Kuria deritzaien Erromako Kongregazioen laguntzaz betetzen duena. Kongregazio horik Estatu batetako ministerioekin alderatzen* ahal ditugu. Aita sainduaren laguntzaile bereziak Kardinaleak dira. Haseran Kardinale horik, Erromako eta inguruko eliza nagusienetako gotzain, apaiz eta diakonu izan ohi ziren. XI. mendeaz gero, horien esku dago Aita saindua hautatzea. Kardinale taldea gero eta nazioartekoago bilakatzen ari da. Diozesi handi askotako gotzainak egin ohi dira Kardinale. Beste Kardinale askok Erroman bertan dihardu; esaterako, Erromako Kongregazioen buru bezala.

Aita sainduari, bere bateratzaile betebeharretik maisu betebeharra eta hutsezinaren karisma datozkio. «Hutsezin hau, apezpiku batzarraren buru den erromatar apezpikuari, bere eginbideagatik dagokio, fedean sendotu behar dituen kristau guztien artzain eta maisu garai* bezala, fede edo moral dotrina behin-betirakotzat ematean» (Batik. II. Kontzilioa, *Lumen gentium* kostituzioa, 25. zenb.). Honek ez du esan nahi, inola ere, Elizarekin batere loturarik gabe, bere kabuz*, dogmarik aldarrika dezakeenik. Aita sainduak egiten duena hauxe da: Elizak Kristogandik eta apostoluengadik hartu duen agerpenaren mamia aldarrikatu eta hotsegin. Izan ere, «irakasgoa* ez dago Jainkoaren hitzaren gainetik; ostera*, horren zerbitzari da, emana izan zaiona bakarrik irakatsiz; Jainkoaren mandatuz eta Izpiritu sainduaa lagun duelarik, bihotzez entzuten du, zehatz gordetzen eta leial adiarazten» (Batik. II. Kontzilioa, *Dei Verbum* kostituzioa, 10. zenb.). Eliza osoaren bere maisu eginkizunean ari delarik, Aita saindua Elizaren fedearekin harremanetan dago beti, eta bereziki apezpiku eginkizunean anaia dituenekin; orobat*, bestalde, eliztar guztiek aita sainduarekin elkarturik sinesten dute Dotrina bat Eliza osoari zinezkotzat proposatzeko asmoa argi eta garbi adiarazten duenean —oso gutxitan gertatu ohi da hori—, aita sainduaren erabakia Jainkoaren Izpirituaren egiaz beterik dago, eta hori onartzea, kristaua Kristoren Elizarekin erabateko* elkartasunean dagoelako ezagugarri da.

Eliz irakasgoak ematen dituen araubide eta ageri askok ez du ukaiten hutsezinezko baliorik; horrek ez du esan nahi, Jainkoaren Izpirituari zor ez zaizkionik. Guretzat, itzal eta balio handiko mintzoa da; fededunei, buru-bihotzeko harrera zuhur eta itzalezkoa (*assensus religiosus*) eskatzen dien hitza, eta irakasgoaren asmoaren neurrikoa. Asmo hori honela ikus daiteke: edo argitara emaniko dokumenduaren tankeratik edo irakaspen bat berari ematen zaion indarretik, irakasteko erabiltzen diren formuletatik (Ik. Batik. II. Kontzilioa, *Lumen Gentium*, 25. zeb.).

IX. Teologia dogmatikoko zenbait puntu

DEKLARAZIOA (Ik. AAS 60 [1968] 690 or. eta hurrengoak). Jainkoagan diren pertsonez Trinitate xit sainduari egokiago zaion gisan* mintzatu behar da; Trinitate hori kristauek fedearen begiz kontenplatzen bait dute, eta seme-alaben maitasunez maitatzen: salbamendu ekonomiako gertaeretan agertzen denez ezezik, betierean* bere baitan* denez eta egunen batetan ikustea espero dugunez.

Zenbait kasutan, sakramenduen eraginaz ere zehaztasun handiagoz hitzegin behar da. Kontu egin bedi ere, mirariei* buruz kristau Ikasbideari honelakorik esan arazteko: alegia, Jainkoak mirariak, mundu kreatuaren indarrek egin ditzaketen egintzen haritik apartatzen

hautaketa: elezioa. **berariz:** espreski. **alderatzen ahal ditugu:** aldera, gonbara ditzakegu. **garai:** goiko. **kabuz:** kontura. **irakasgoa:** magisterio, magistère. **ostera:** aldiz, kontrakoz. **orobat:** berdin. **zinezkotzat:** benetakotzat. **erabateko:** total, oso. **gisan:** eran. **betiere:** eternitate. **bere baitan:** beragan. **mirari:** mirakulu.

ez diren neurrian egin ditzakeela. Azkenik, mintza bedi zintzoen arimez itzul-ingururik* gabe: aski garbituak izan ondoren, Jainkoa begiz-begi dakusatela, Eliza bidelaria* Jaunaren etorrera aintzatsuaren eta biztueraren zain dagoen bitartean. (Ik. Batik. II. Kontzilioa, *Lumen Gentium* Kostituzioa, 49. eta 51. zenb.).

I. Trinitate xit sainduaren misterioaz ezagutzen duguna

Testu zaharra, 415 paragrafoa: «Jainko bizia» izenekoa.

Testu berria

Jainko bizia

Otoitzean misterio horretan murgiltzen dena, gure bizitza osoa betiko maitasunean xertaturik dagoelakoaz jabetzen hasten da. Jesusek Aitagana garamatzalako, eta bi Horien Izpiritu Sainduak betetzen gaituelako, inoiz ere agortuko ez den maitasunean gaude bildurik. Jainkoaren familia izatea eman zaigunez gero, Haren jainkozko aintzaren sakontasuna ere agertu zaigu.

Ez gara ausartzen, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren batasun misterio hau hitz gutxitan aditzera ematen. Duda-mudan gara; beldur bait gara, atxeki ezineko sakontasuna aztertu nahi izatean, gure irudimenak, Jainkoaren irudi bezala, elkarri josiriko hiru hesparrutza hartuko ote dituen; edota gure pentsamena, «bat» eta «hiru» zenbakiak elkarretaratzen hasiko ote den eta, horrela, agerkunde honek Biblian duen aberastasunaren albotik igaroko ote garen.

Mundu honetatik hasita eta berak ipini gaituen salbamendu kondairatik, kontenplatu behar dugu beti Jainkoa. Baina, Paulo sainduak dioenez, «edozer, baita Jainkoaren sakonik sakonenak ere, aztertzen» dituen (1 Kor 2, 10) Izpiritu saindua hartu dugu. Horregatik, on da, fedez gure begiak Jesukristo gure Jaunaren Aitagana altxatzea, mende guztiak baino lehen Jainkoagan jaio, eta Jainkoaren bihotza agertzeko lurrera etorri zen Semearen Aitagana, eta Elizan bizi den eta Aitarekin eta Semearekin batera gure arimetako arrotz den Izpiritu Sainduagana ere. On zaigu, hiru pertsonatan bakarra den Jainkoagana begiak jasotzea, betiko maitasun harremanezko misterio hori ahospez adoratzeko, eta misterio berean egiten zaigun fede eta maitasun batasunerako deia entzuteko: «Bat izan daitezela —eskatzen dio Jesusek Aitari— gu bat garen bezala... bat bakarrean burutuak izan daitezela» (Jn 17,22-23). Gure kristau bizitza osoa, gure bataiotik hasita, Jainkoaren zinuz markatua dago, eta Jainkoa Aita, Semea eta Izpiritu Saindua da. «Aitaren» egitean, Jainkozko hiru pertsonekiko gure lotura aitortzen dugu. Eta fedean aurrera goaz, arik eta hiru pertsonetan bakarra den Jainkoa ikus eta betiraune guztian haren maitasunean iraun dezaguino.

Gaurko erlijio irakasketak, Semeagana zuzentzen du lehenik umeen arreta: Aitaz nola mintzo den eta Aita nola maite duen adiaraziz. Mendekoste jaian, Aitak eta Semeak bidaltzen duten Izpiritua aipatzen da; eta dotrina urte askoz eman ondoren bakarrik aipatzen zaizkie «Hirutasun saindu» hitzok. Geroago, «Trinitate xit saindua» delako adiarazpena erabiltzen da erlijio irakasketan.

Misterio harrigarri honetaz esan ditugunak, xit gaingiroki emanak dira. Baina, liburu honen amaian orrialde gehiagoko «ihardunaldia» egiteak, bi harkaitz hauetako batekin behaztopatzeko arriskua ukanen luke: edota Trinitate xit Sainduaren dotrina, agerkundearen salbamendu historiatik etenegi uztearekin, edota, orrialde orotan Aitaz, Semeaz eta Izpiritu Sainduaz mintza zaigun liburuan esanak bir-esatearekin. Ez gara itzuliko berriro lehen esandakoetara: ez gara mintzatuko Nazareteko Jesusi buruz, ez Aitaren

itzul-inguru: rodeo, detour. **bidelaria:** bidean dabilena. **hesparrutza:** barrutitza. **betiraune:** eternitate. **dezaguino:** dezagun arte. **adiarazpena:** espresioa. **amaia:** bukaera. **behaztopatu:** tropezar, chocar. **orotan:** guztietan.

nahiarekiko Horren menpekotasunaz, ez Horren sufrimenduez, ez Jainkoagan ukan duen goraldiaz, ez Horren bizitzak Aitaren eta Semearen arteko maitasuna adiarazten duen eraz. Mundua berritzekotan eta Eliza biziaraztekotan, Izpiritu Saindua bidaltzen duten Aitaz eta Semeaz esandako guztia ere ez dugu birresango.

Bibliaren mezuak Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren arteko berezkuntza, eta une berean Horien batasun adoragarria, hain argi eta garbi erakusten digu, non Elizak Kredoan hau aitor arazten bait digu: «Sinesten dut Jainko bat bakarra, Aita guztiahalduna... Jesukristo haren Seme bakarra... Izpiritu Saindua, Jaun eta Biziemailea».

II. Jainkoaz eta Jesukristoz ezagutzen duguna

Testu zaharrak, 53 paragrafoa: «Jainkoa nor den... egiazko adiarazpen bakarra»; «Jaio, hil eta biztu zen... nolakoa den Jainkoa».

Testu berriak

Jainkoa nor den eta, batez ere, haren bihotza nolakoa den egiaz jakingo bagenu bezala! Hau ongi jakitera, bakar-bakarrik Jesusen bidez hel gintezke. Bera da, Jainkoaz, ezaguera berritua, erabat zinezkoa eta segurua, saindua eta semetzazkoa ekarri diguna. Mundu honetara etorriz, Jainkozko agerpena bete egin du.

Benetako Jainkoa benetako gizon batengan aurkezten da. Gizon honengan, Jesusengan, Jainkoaren handitasuna Jesus bera bezain on eta hurbil agertzen zaigu; Jesus bera bezain urrikaltsu eta gaitzaren kontrako. Nor da Jainkoa? Testamentu Zaharrak jadanik Jainkoaren tasunik ederrenak aurkituak zituen, edo, gutxienez, erdikusten ditu; Paulo sainduak eta Elizak irakasten digutenez, Kreaziotik hasita hel daiteke Jainkoa ezagutzera. Baina, Jainkoa modu berdingabean Jesukristogan ezagutzen dugu, jaio, hil, berbiztu eta, bere Izpiritu Sainduaz, Elizan bizi den Jesukristogan.

III. Jesusen kontzientzia

1. *Testu zaharrak,* 59 eta 251 paragrafoak: «...eta bere izate osoaz... Gazte argi batek bere deia aurkitzen du». «Otoitza uztean, bazekien bere egitekoa zein zuen: berriona hotsegiten jarraitzea».

Testu berriak

Eta bere izate osoaz sentitzen du (Jesus haurrak Jerusalenen) hura bere etxea duela. Jainkoaren handitasunari, bere Aitari, horrela begiratzeaz hartaraino liluratzen da Jesus, non bere gurasoetaz ahantzi egiten dela ematen bait du. Gertaera horrek, gazte argi batek bere deia zein den konturatzean sentitzean duenaren antzik badu.

Bakardadeko otoitz honetan, ikasbide bat ematen digularik, Jesusek bere egitekoaren zentzua bizi egiten du, eta hura betetzeko, Berriona hotsegiten jarraitzea alegia, indarberritu egiten du.

2. *Testu zaharra,* 60 paragrafoa: «Galde hauxe datorkigu... Jainkoa eskuerara jarri zaigu».

Testu berria:

Galde hauxe datorkigu hemen: nola gerta daiteke, Jesus, alde batetik Jainkoaren Seme izatea eta, horrez gero, gauza oro jakitea, eta bestetik eta aldi berean, gizon izatea eta, horrez gero, jakitatean haziz joatea; misterio handi baten aurrean aurkitzen gara. Bere giza kontzientzia-

---

hain ... non: tan ... que, si ... que. **urrikaltsu:** errukitsu. **hartaraino ... non:** tanto ... que.

ren behe-estaldura batetan (honela mintzo bagintezke behintzat) Jesus aberastuz joan zen, beste gizon guztiak bezala, mailaz-maila errealitatea ezagutuz zihoan eran. Kontzientzi maila honetan, Jesus, gu bezala, mundura itzulirik zegoen, hitzez, irudiz eta giza kontzetuz baliatzen zelarik. Baina, denbora berean, behe-estaldura harek, Jainkoaren Seme zen aldetik Jesusek zuen jakitatea betikor eta mugagabearen argi distira hartzen zuen; orobat. Aitarekin zuzen-zuzenean harremanetan zegoen haren giza arimaren gain-gainetik zerion argiz argitua zen.

Eragimen honek, Jainko Salbatzaileari Jainkoaren isilgordeak giza mintzairan adiarazteko bidea ematen zion, «betiko bizitzako hitzez» (Jn, 6,68) guri mintzatzeko bidea. Jesusen hitz-egiteetan Jainkoaren misterioa eskurakoi egin zaigu: «Jainkorik ez du sekula inork ikusi. Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak, horretxek eman digu haren berri» (Jn 1, 18); «Ni ikusi nauenak Aita ere ikusi du» (Jn 14,9).

IV. Bataio sakramendua

Testu zaharrak, 191, 194, 195, 196 paragrafoak: «Bataioa ezin eman daiteke bigarren aldiz... ez litzateke bataiatua»; «Ezin atera dezakezu horretatik... barkapena arian-arian ari deneko herria elkartu ere»; «Hori guztia burutu egin beharko da... Kristau hezketaren garantiaren bat eskatzen du Elizak»; «Mendetan zehar... haur horik Kristorengan daudela».

Testu berriak

1. Bataioak Kristoren apaizgoan nola-halako eskuhartze iraunkorra damaigu (aurrerago mintzatuko gara kristauen apaizgo orokorraz); horren antzeko zerbait gertatzen da sendotzarekin ere eta, bereziki, apaizgintza sakramenduarekin. Horregatik esaten da, sakramendu hauek «aztarna» edo marka ezartzen dutela. Bataiatu, sendotu, apaiztu behin betirako egiten da gizakia. Sakramendu hauk ezin dira berritu. Jakina, bataiorik ez luke hartuko, zirimonia bitartean, berariz, bataioa ez hartzeko asmoa lukeenak. Haurren bataioaz geroago mintzatuko gara.

2. Gogozko bataioaren balioa dela eta, ezin atera dezakegu, urezko bataioaren ezagugarri eginkorra zokora daitekeenik. Seinale horren betebeharra hirukoitza da: damaigun barkapenaren premian garela *adiarazten* digu; Jauna gurekin harremanetan dagoela *aldarrikatzen* du; herri bat berean *elkartzen* gaitu, herri ikuskor eta ukikorrean, herri horretan bizi den Izpiritu Sainduaren bidez birjaio araziz.

3. Hori guztia burutu egin beharko da gero, kristau hezketaren bidez. Ezin bereiz dezakezu sakramendua hezketa horretatik, ez buruz, ez eta egitez. Gainera, jakitekoa izanen litzateke, «ohitura delako» bataiatu bai, baina ondoren kristau hezketa arrastorik hartu ez duten haurrei, zenbaterainо *eman ote diezaiekegun kristau izena. Elizak kristau hezketaren* garantiaren bat eskatzen du.

4. Bataiorik hartu gabeko haurrei dagokienez, honetaz konturatu da Eliza poliki-poliki: salbatzeko bataioa beharrezko delako printzipioaren ondoan, badela beste egiarik ere, kontutan hartu beharrekorik. Jainkoaren onginahiak gizon-emakume guztiak besarkatzen ditu. Jainkoak gizaki guztiak salbatu nahi ditu, eta haurrak ez daude jainkozko nahi horretatik at. Kristo gizaki guztiengatik hil zen. Linboarekiko Elizaren irakatsi klasikoaren arabera, bataiatu gabe hiltzen diren haurrak ez dira zorigaiztoko behintzat. Baina, hartua ez luketen bataioaren grazia ez ote litzaieke beste bideren batetik iritsiko, Jainkoaren seme-alaben zorionaren atea irekiz? Bada teologilaririk arazo hori aztertzen ari denik, eta zenbait hipotesi za-

betikor: eterno. **eragimen:** influencia, influence. **isilgorde:** sekretu. **eskurakoi:** accesible, accessible. **apaizgoa:** apaiz izatea. **eskuhartze:** partehartze. **berritu:** berriz egin.

baldu duenik. Horretaz ager daitezkeen usteek ez dute makalogotu behar gugan, haur guztiak bataia daitezen arduratzea. Ziur dakiguna, bataiorik gabe hildako haurrak ez direla gelditzen salbatzailearen ardurarik gabe, ez eta Horren maitasunetik eta ahalmenetik at.

V. Penitentzi sakramendua

1. *Testu zaharra,* 386 paragrafoa: «Aitor-entzuleak ez du... bultza dezake aitortzailea»

Testu berria:

Aitor-entzulearen egitekoa ez da entzute hutsera mugatzen. Nolarebait, gainera, epaile eginkizuna betetzen du, eta galde ere, galde dezake. Azken betebehar hau, honetara zuzenduko du: aitortzen denari, bere bekatu astunak azaltzeko duen betebeharra betetzen laguntzera. Gainera, aukera ona ukanen du horrela zenbait ikusmodu oker ere zuzentzeko; esate baterako, norbait uste honetan egon daiteke: Jainkoak garbitasunari eta igandeko mezari besteri ez diola begiratzen; horrelakoetan, aitor-entzuleak, zuhurtasunez Ebanjelioak eskatzen dituen ontasun, zerbitzu, otoitz bideetatik bultza dezake aitortzailea.

2. *Testu zaharra.* Ezar dezagun paragrafo honetan zuzenketa txiki bat indulgentziei buruz. 380 paragrafoa: «Egite horik zeharkiturik... geure borondate ona».

Testu berria

Egite horik berez on dira, baina okerbideratzaile gerta daitezke. Oraindik orain, aita sainduak, horien esanahia eta aplikazioa, argi eta garbi erabaki zituen. Ikus dezagun beren baitan daramaten sen erlijioso sakona: Eliza, Kristoren barkapenaren aberastasunak ahalik ugarien isurtzen saiatzen da; eta guk, geure aldetik, zerbait onik eginez agertzen dugu geure borondate ona. Ahalegin neketsua utzarazi ordez, hartara eragiten gaituzte indulgentziek (ik. Paulo VI., *Indulgentziei buruzko Kostituzioa,* AAS 59 [1967] 5-24).

VI. Miraria* zer den

Testu zaharra, 74 paragrafoa: «Miraria zer den» izenekoa.

Testu berria

Miraria zer da?

Ongi deritzagu, Bibliak «mirariaz» zer aditzen duen une batez aztertzeari. Liburu Sainduentzat, mirarian beti Jainkoa dager ihardunean. Jainkoaren ihardun hori, kreazioko egintza harrigarrietan ikus daiteke. Hona zer dioen salmu batek izarrez: «Zeruek, Jauna, zure mirariak iragartzen dituzte» (Sal 89, 6). Baina, «mirari» eta «harrigarri» hitzak, Jainkoaren indar salbatzailea bereziki adiarazten duten gertakariak adiarazteko erabiltzen ditu Bibliak.

Testamentu Berrian, gauza onik, harrigarririk gertatzen da, Kristorekin erlazionaturik; harrigarri zaizkie testiguei, eta esanahi bat daramate beren baitan. «Mirari», «seinale», «egintza», «indar», izenak eman ohi zaizkie.

Azken bi hitzok Jainkoaren eskua idarokitzen dute: gizakiaren eta izadiaren indarren gain dagoen ahalmena.

Izadia eta honen legeak hobekiago ezagutzen ditugu gaur; horrez gero, ez dago zertan harriturik galdekizun hau egiten badugu: ezagupide

---

berariz: argi eta garbi. **ezagugarri:** signo, signe. **eginkor:** eficaz, efficace. **at:** kanpo. **ziur:** seguru. **sen:** carácter. **ahalegin:** enpeinu. **mirari:** mirakulu. **iragartzen:** berriematen. **idarokitzen:** aditzera ematen. **izadia:** natura.

horik «naturaren legeez kanpo» gertatzen ote dira, naturazko eta giza indarren gaindi? Prolematika hau berariz Biblian aurkitzen ez den arren, ez zaio guztiz arrotz hartan esaten denari, ikusi berria dugunez.

Izadi indarretara muga ez litezkeen Jesusen mirarizko ekintza guztiak Ebanjelioetatik erauzi nahi izatea handi samarra litzateke benetan. Munduan, beharrik eta Jainkoak nahita ezezik, mirariz ere gertatzen dira gauzak, hau da, kausa kreatuen berezko indarren gaindi dauden gauzak ere gertatzen dira. Mirarietan handiena, Jesusen berbizkundea da; Kristoren gorputza hilobiari erauzia izan zitzaion eta aintzatua izan zen, eta Jainkoak hala emanda, bere lekukoei agertu zitzaien (ik. Ap Eg 10,40).

Mirariak, Jainkoaren aldetik begiratuta, ez dira aparteko ekintzak; soilki, aparteko eginak dira: mundua eusten eta mugiarazten duen Jainkoaren betiko ekintzaren aparteko eginak. «Nire Aita, dio Jesusek, lanean ari da oraindik» (Jn 5, 17). Nahiz eta mirariek izadi indarrak gainditu, baliteke Jainkoa haietaz baliatzea, beren indarrez gain jasotzen dituelarik, miraria egiteko. Jainkoaren eskuhartze harrigarriak ez du ordenabidea deuseztatzen; miraria ez da Jainkoaren apeta hutsezko egintza; graziazko ordenabidearen zerbitzuan dago: ordenabide hori indartzen duen kreazioaren ordenabide osoan sartzen da.

Gainera, izadi indarrak gainditzen dituelako, mirariak harremen hestua du graziarekin, Jainko seme-alaben mailara jasotzen gaituen graziarekin, eta orobat, Nazareteko Jesusen gizatasunaren aparteko jasokuntzarekin: gure artean bizi zen Jainko Semearen (Jn 1, 14) gizatasunetik zetorkion jasokuntzarekin alegia.

Miraria, gainera, kreazio berriaren, zeru eta lur berrien, Jesus berbiztean sartu zenekoaren, eta guk harengatik espero dugunaren aldarrikatzea da, eta hasikin bezala nolarebait jadanik burutzea. Mirariak ez du hausten izadi legerik, gainditu baizik; denbora berean, «intzirika» eta «antsika» dagoen kreazioaren alderuntz doa (ik. Erm 8,22).

Mirariaren aurrean, gizakia zur eta lur geratzen da; izan ere, honen bidez, munduak bere zentzurik sakonen eta misteriotsuena agertzen bait dio: munduan gertatzen da, Jesusek, gure Salbatzaileak, ekarri eta agertu duen giza bekatariaren erospen eta berrikuntza.

VII. Bizitzaren misterioa heriotzearen ondoren

Testu zaharra, 39€ paragrafoa: «Berbiztuko dira» izenekoa.

Testu berria

Guztien biztueraren zain

Arestian, agindua izan zaigun bizitzaz mintzatu gara, baina gehiago xehetu gabe. Heriotze ondoko bizitza nolakoa izanen den planteatzean, Biblian hauxe nabari dugu: Liburu Sainduak hildako gizaki osoaren, gorputz-arimen biztueraz mintzo direla.

Alabaina, biztuera hau, Elizak espero duen Jesukristo gure Jaunaren etorrera aintzatsuarekin elkarlotuta dago. Horrez gero, non da guk maite genuen hildakoa heriotze ondoan bertan? Galde honi Bibliak ez dio erantzun zehatzik ematen, han-hemenka barreiatuak dauden argibide batzu baizik. Bibliak ez du bere asmoa, beste bizitza nolakoa izanen den xeheki adiaraztea.

Har ditzagun, beraz, Bibliako hitzak aurre-iritzirik gabe. Zer dio, bada? Jesusi buruz hauxe dago idatzia: «Berbiztu egin da». Beste hildakoez,

bereziz: espreski. **erauzi:** kendu. **berezko:** berez dituenak. **lekuko:** testigu. **eskuhartze:** partehartze, intervención. **deuseztatzen:** desegiten. **apeta:** kapritxo. **gainditzen:** superatzen. **jasokuntza:** elevación. **aldarrikatze:** oihukatze, hotsegite. **hasikin:** primicia,

berriz: «Berbiztuko dira» (1 Kor 15,22). «Loak hartu ditu» (1 Kor 15,6). Jesusek erabiltzen du, noiz edo noiz, «arima» hitza: «Ez beldurrik ukan gorputza hil eta arima ezin hil dezaketen horiei» (Mt 10, 28). Jaunak esan nahi duena, hauxe da: gizakiaren «zerbait», haren izatea bera zertzen duena, salba daitekeela heriotze ondoan. «Zerbait» hori ez da lurtar gorputza; hori mundu honetan geratzen da hilotz. Ez da ere, gorputz itxituratik askatua litzatekeen izpiritu huts bat. Gizonaren bizi-muina da, gorputz batetan bizitzeko egina izan dena, baina gorputz hilkorretik banaturik ere bizi daitekeena.

Hor dugu Jesusek lapur onari gurutzean egin agintzaria ere: Gaur berton nirekin izango zara paradisuan» (Lk 23,43). Paulo saindua, «gorputzetik atera eta Jaunarekin bizitzera joateko» (2 Kor 5,8) irrikaz mintzo da. Filipotarrei izkiriatzen dienez, berak ere, «joan eta Kristorekin egotea irrikatzen du» (Flp 1,23). *Jakinduria* liburuak, jadanik, honela zioen hildakoen zoriaz: «Zintzoen arimak Jainkoaren eskuetan dagoz... Zoroen begitan, hilak ematen dute... haien esperantza hilezkortasunez betea dago. *Probaldi labur baten ondoren badeinkapenez aseak izango dira*» (Jk 3, 1-5).

Testu hauek eta beste batzuk, Jaunaren etorrera aurretik, aukeratuek ukanen duten goraldia besterik gabe ukatzeko bidea eragotzi egiten digute. Orain zein egoeratan aurkitzen diren? «Zorinekoak bihotz garbiak, Jainkoa ikusiko bait dute», esan zuen Jesusek (Mt 5,8), eta Paulo eta Joan apostoluak honela idatzi zuten: «Orduan aurrez aurre ikusiko dugu... (Jainkoak) ezagutzen nauen osotasunez» osoki ezagutuko dut (1 Kor 13,12); «den bezala ikusiko dugu» (1 Jn 3,2). Berehala ukaiten ote dute hildakoek (behar duten garbitasuna behin lortuz gero, eta honetaz geroago mintzatuko gara) Jainkoa ikusteko zoria?

Eliz tradizioak, haseran, ez du deus esaten puntu honetaz; ondoren, zalantza-malantzaldi luze bat izan zen. Baina, Benedikto XII.a Aita sainduak *Benedictus Deus* kostituzioa emanez gero, azken hitza emana du Elizak. Eliz irakasgoak, fede gordailuaz interpretazio jatorra duenak, hau irakasten du: hildakoek, aski garbituak izan direlarik, «Jaunaren etorrera» *baino lehenago*, «Jainkoaren beraren, bat eta hirukoitzaren, den bezalakoaren ikuste argiaz» gozatzen dutela (Batik. II. Kontzilioa, *Lumen Gentium,* 49. zenb.). Horregatik, ez da hau erabateko goraldia; hau, Jauna datorrenean (parusian) gertatuko bait da, guztien eraberritzean (ik. Ap 21, 5); horren hasikin Jesus eta honen Ama saindua dira. Orduan, Jesukristo gure Jaunak antzaldatu egingo du gure izate apal honetako gorputza, bere aintzazko izatearen gorputzaren arabera taxutuz, gauza guztiak bere menpean ezartzeko duen ahalmenaren eginkortasunez» (Flp 3,21).

Oharra. Bada beste pasarte bat (397 par.), aurreko hori bezalatsu zuzendu behar dena. Zera esan behar da soilki: hildakoek Maria ezik *biztueraren agintzaria* dutela, eta haietatik batzuk, besteek baino bizi seinale gehiago ematen badute (fededunei egin mesedeengatik, alegia), *Kristo berbiztuari sakonkiago batuta daudelako* izanen dela noski.

VIII. Hauzia* eta azken garbikuntza

1. *Testu zaharra,* 400 paragrafoa: «Hauzi hori... esku bait dago».

Testu berria

Hauzi hori ez ahal da, bada, hil eta berehala erabakitzen? Halaxe da; baina hori gure denbora honetatik at gertatzen da. Giza historiaren amairako Jaunaren etorrerak eta biztuera orokorrak, lehen hauziaren burutzea

prémice. **jadanik:** orain bertan. **arestian:** lehentxeago, oixtian. **xehetu:** detailatu. **aintzatsu:** glorioso. **zehatz:** konkretu, detailatu. **barreiatu:** sakabanatu.

adiaraziko dute. Mateo sainduaren Ebanjelioak, Jesusek azken hauziaz egin zuen zehaztapena damaigu (Mt 25, 31-46); Joan sainduaren Ebanjelioan aukeratuentzat izanen den «bizitzarako biztueraz», eta zapuztuentzat izanen den «ifernurako biztueraz» mintzo zaigu Jesus (Jn 5, 29). Norberaren heriotzearen (norberaren hauziarekin batera) eta Jaunaren etorreraren arteko (guztien hauziarekin batera) epeak ukanen duen iraupenaz mintzatzean, hitz-urri behar dugu izan; gure denbora gainditzen duen iraupena bait dago hor jokoan: zer den ez dakiguna. Epaia bat bera izanen da, eta Epaile xit zuzenak emanen du.

2. *Testu zaharrak*, 398 paragrafoa: «Hainbat eta hainbat da... behin betirako bihurtzea». «Misterio hori egoki... ozta-ozta mintzo delako».

Testu berriak

a) Hainbat eta hainbat da gutako bakoitzagan aldatu beharreko, garbitu beharreko eta berekoikeriatik askatu beharreko! Garbiketa honen hasera heriotzea berbera da. Hiltzeak, bekatuari ere hiltzea izan behar du. Kristogan hiltzearen bataioa da heriotzea, ur-bataioa osatzen duena. Baina, heriotzearen ondoan —hauxe da Elizaren sinestea—, bada azken garbiketa batetarako aukera: garbitokia; horretan, Jainkoaren argitarako erabateko eta behin-betirako konbertsioa burutzen da.

b) Misterio hori egoki irudikatzekotan, haserako Elizaren soiltasunera jo beharko genuke. Hauxe gordeko dugu: garbikuntza heriotzeari datxekon alderdi bat delarik ere, heriotze ondoan osatzen dela. Soiltasun hau hainbat komenigarriago da, zeren Biblia ozta-ozta mintzo bait da arazo horretaz

IX. Jainkoa ikustearen misterioa

Testu zaharra, 402 paragrafoa: «Betiko bizitzaz luzeen diharduten Bibliako orrialdeak, Apokalipsian daude».

Testu berria (testu berri hau, aipatu berri dugun esaldiaren aurretik erantsi behar da).

Jainkoa «den bezala» (1 Jn 3,2) ikusiko dugula esaten digu Bibliak. Gure gogo-bihotzetan agintzari hau aztertzean, honako sentimendu honek eraso gaitzake, hots, Jainkoa den sinpletasun, maitasun eta argitasun itsasoan urtuta gertatuko garela. Haatik, kristau mezuak besterik irakasten du: giza pertsona, Jainkoa zuzen-zuzenean eta adiaraz ezineko gisan ikustera hartua denean, ez dela desegiten.

Misterio honi buruz ematen duen azalpenean, Jainkoak agertua batere gutxitzeke ematen saiatzen da Eliza, ardurarik handienaz. Izkritura Sainduak gidaritzat dituela, alde batetik hautatuak ez direla Jainkoagan irentsiak esaten du; baina, bestalde, hau aitortzen du: Jainkoak, gizakia bere sinpletasunean harturik, bakoitzari Jainkoa «aurpegiz-aurpegi» ezagutzeko bidea egiten diola. Hondogabeko misterioa da, graziazko misteroa; gure bihotzaren irrika biziari ematen zaion erantzun ezinesan ahalakoa.

---

hilotz: gorpu, gorputz hila. **egin:** egindako. **agintzaria:** promesa, promesse. **jadanik:** ordurako. **goraldia:** aintzatzea. **eragotzi:** debekatu. **deus:** ezer. **gordailuaz:** altxorraz. **hirukoitza:** triple. **hasikin:** primicia, prémice. **hauzia:** juizioa. **at:** kanpo. **orokorrak:** guztienak.

X. Teologia moraleko zenbait puntu

DEKLARAZIOA (ik. AAS 60 [1968] 619). Lege moralez mintzatzean, uxa* beza *Dotrinak*, bere testuan, iluntasun oro; lege horik ezagun eta adiaraz bait ditzakegu, eta halako* moduz, non beti eta gorabehera guztietan gure kontzientzia haiei loturik bait dago. Utz bitez bazterrerat, ezkontzaren hautsezina* behar bezain haintzakotzat hartzen ez duten kontzientzi arazoen irtenbideak*. Arrazoin osoa du *Kristau Ikasbidea*-k hondo-hondoko giza jarrerari* garrantzi handia ematean; baina, kontu egin beza, jarrera hori egiteetatik etenegi* ez aurkezteko. Ezkontzaren moralari buruzko adiarazpenean, Batikano II. Kontzilioaren eta apostolutar Aulkiaren irakatsi guztiei leialago eutsi behar zaie.

I. Lege moral orokorrak*

1. *Testu zaharra,* 307 paragrafoa: «Era berean, hierarkiaren argibide honek... Elkartea da balioak intepretatzen eta adiarazten dituena».

Testu berria:

Hierarkiaren argibide hauek, Jainko herriaren fedearen gidari eta zutikai den Izpiritu Sainduarekin bat, nolatan norabidetzen duten kristauen kontzientzia morala, *Artzain apaizgoa* delako kapituluan ematen da, eta gainera, kontzientziaz diharduen kapitulu honetan ere ihardungo gara horretaz. Erregela edo arau orok kontutan eduki behar duen funtsezko balioaz ere, hots, maitasunaz ere mintzatuko gara.

Arazo guzti honetan, joanetorri handiko gauza da, lege moralen adiarazpen eta egokitzeak, garai jakin batetako gizarte berezi baten seinalez josirik joan ohi direla jakitea. Lege horietan, balio desberdineko elemenduak nahasten dira: betiko balio direnak batzu, eta historiazko gorabeherei dagozkienak beste batzu. Gertatzen da ere, ohiturazko formulazioak ez duela, aldi batez gero, adiarazitako balioa bere jatortasun osoan azaltzen. Halere, lege moralez aplikabide berriak aurkitzen badira ere, lege horien esanahiak aldakaitz irauten du.

Horregatixe, elkarte orotan beharrezko gertatzen da aginte eginkorra. Jainkoaren agerkundetik bizi den Eliz elkartean, gure ihardunbidea gero eta gehiagoan gidatzen duen argi bat jaikitzen da. Bere arauak ematekoan, Elizak beti lege moral orokorretan xurgatu beharko du. Baina, garbi dago, eliz arau horiek lege haiekin duten lotura ez dela beti hestura berekoa. Badira, «ordena ona» deitzen dugunaren barruan erortzen diren arauak, eta, horrez gero, aldakor direnak. Beste batzu, berezko legeak gorabehera berezi eta aldakorrei zuzenago aplikatzean datzate. Eta badira, azkenik, lege moral orokorren interpretazio ahalik garbien direnak ere.

2. *Testu zaharra,* 309 paragrafoa: «Kontzientziaren eta aginduaren arteko batasun... harunizago joan beharreko kasuak izanen dira».

Testu berria

Kontzientziaren eta aginduaren arteko jatorrizko eta hondo-hondoko batasunaz mintzatzean, elementu bakar bat aztertu dugu. Baina, bada beste bat ere: legearen eta kontzientziaren artean badela eta behar dela halako tirabira bat. Legeak, bere arau guztiekin, ez ditzake aldez aurretik kasu guztiak gogoan har. Bada, noski, inoiz ere salbuespenik jasaiten ez duen *moduko Jainkoaren legerik: hain izaera erabatekoak izanik. Halaz ere,* zenbait kasutan, legearen formulazio orokorra hain hala-hola emana datorrelako, gerta daiteke, arauak adiarazia baino gehiago nahiz gutxiago egin beharra izatea. Are bidezkoago gerta daiteke hori, jokoan dagoena

zehaztapena: deskrizioa. **zapuztu:** baztertu, utzi. **hitz-urri:** hitzetan motz. **berekoikeria:** egoísmo. **soiltasun:** sobriedad, sobriété. **hainbat** ... **-ago** ... **zeren:** tanto más ... cuanto que. **eraso:** pertsegitu. **haatik:** baina. **gutxitzeke:** gutxitu gabe. **hondogabeko:** amaigabeko.

giza legea denean; ez bait da legegilerik (eliztarra bera ere ez) kasu eta gorabehera konkretu guztiak aldez aurretik kontutan har ditzakeenik.

3. *Testu zaharra,* 351 paragrafoa: «Halaz guztiz, mutur-muturrekorik... aginduaren hondo-hondoko mamia».

Oharra. Esaldi hau erabat kendu beharrekotzat jotzen du Kardinale Batzordeak.

II. Ezkon hautsezinaz*

Testu zaharra, 329 paragrafoa: «Ezkontza legearen babespean» deritzana.

Oharra. Artikulu honi dagokionez, Kardinaleen Batzordeak, *Dotrinaren* testua zuzentzeko eman txostenean, honela deklaratu zuen: komeni zela «bi ezkon kasuez emaniko soluziobidea erabat kentzea». Pasarte honetaz beraz dihardu 1968ko urriaren 15eko Deklarazioa-k ere, dioelarik, «utz bitez bazterrerat, ezkontzaren hautsezina behar bezain haintzakotzat hartzen ez duten kontzientzi arazoen irtenbideak» (ik. *Deklarazioa*-ren aipamena, *Teologia moraleko zenbait puntu* delako tituluaren azpian).

Puntu honetaz, pasarte hori kentzeko eskabidea aipatzea aski bedi; halere, lehen aipaturiko *Txosten*-ean datorren oharkizun hau ere ekar dezagun: «Halaz guztiz, Dotrinak ezkontzako kasu bi horik gorde nahi balitu, artzaibidezko argibidea, Elizaren moral moldetik atera gabe proposatu beharko luke. Zenbait kasutan, indargabeko ezkontzaz loturik zeudenak, aurrerantzean elkar-adiskidetasun soileko bizitza egiteko prest egonen dira. Hori egiazko asmoa balute eta eskandalurako arriskua behar hainbatean moztuko, sakramentuetarako bidea irekitzen ahal litzaieke. Bestela, asmo hori hartu ezean, Elizaren otoitz bizitzan partehar dezakete, lagun hurkoarekin zuzentasunez eta maitasunez ihardunez; jakinaren gainean, ez dela hori gauza gutxi Jesus Jaunak hotsegindako salbazio asmotan».

III. Bekatu astunak eta arinagoak, barne jarrera* eta agiriko egiteak

1. *Testu zaharra,* 378 paragrafoa: «Kristautasunaren lehen mendeetan... gaitzespena merezi zuen halakoak».

Testu berria

Biblian maiz aurkitzen ditugu bekatuen zehaztapenak; Jainkoaren begietan bekatuak duen belzkeria eta gizakiari dakarzkion ondorioak kontatzen dituzten oharkizunez horniturik joan ohi dira. Hor dadukagu, esate baterako, haurrei eman gaizpideaz Jesusek egin zuen gaitzespena, gaiztakeria arras handitzar jotzen duelarik (Mt 18,6; Mt 17,2). Jesusek berak adiarazi zigun, lagun hurkoaren aurkako bekatua dela «deabruarentzat eta honen aingeruentzat prestaturik dagoen betiko sutara» (Mt 24, 41) delako kondenazioa gure gain ekartzen duena. Joan saindua, lagun hurkoaganako maitasunaren aurkako bekatuaz behin eta berriz mintzo da, bekatu honek Jainkoaren maitasunetik aldentzen gaituela eta (ik. 1 Jn 3,17). Paulo sainduak, gizakia Jainko erreinutik at uzten duten bekatu zerrenda osoak dakartza (1 Kor 6, 9-11; Gal 5, 9-21). Zerrenda horik, lehen kristauak ezagutzen eta gordetzen bazituzten ere, ez zituzten erabili, artean, penitentziaren praktikan.

Apostasia (idolatria edo sasigurtza), hilketa eta adulterioa, arras goiz, gaiztakeria handiko ageriko eskandalutzat hartuak ziren eta, berriro Elizarekin adiskidetzekotan, penitentzi aldi luzea eskatzen zen.

---

uxa: uxatu baztertu. **halako moduz, non:** de tal manera que. **hautsezina:** indisolubilidad, indissolubilité. **irtenbide:** soluzio. **jarrera:** postura. **etenegi:** hautsiegi. **orokorrak:** unibertsalak. **zutikai:** zutik eusten duena. **norabidetzen:** gidatzen. **joanetorri:** garrantzi, inportantzi. **aldakaitz:** aldaezin. **eginkor:** benetako, eficaz, efficace. **xurgatu:** edan, hartu. **hestura:** hestutasun. **aldakor:** aldatzen direnak. **salbuespen:** ezepzio. **izanki:** direlarik.

Zenbait mende geroago, bakarkako aitortza Elizan arras zabaldu zenean, bekatu «hiltzaile» eta «bakargarri»en zerrenda zehatzagoak antolatu ziren aitor-entzuleen eskutarako. Zerrenda haiek egiteko bikoitza zuten: ezarri beharreko penitentzia erabaki eta komunio aurretik aitortu beharreko bekatuak zeintzu ziren agertu. Halako bekatuak, bere hartan harturik, Jainkoagandik urruntzen zuten egiteak ziren, eta, orduz gero, kristaua ez zen dina* Elizaren komuniorako.

2. *Testu zaharra*, 379 paragrafoa: «Bai. Gogozko etenean... ipintzen du gizakia».

Testu berria

Bekatu astuna, esan dugunez, Jainkoarekin haustea da: honekin ditugun maitasunezko harremanetan, behar-beharrezko zerbaitetan jakinaren gainean esaneko* ez izatea. Nahitanahiez Jainkoaren adiskidetasunetik at uzten du gizakia, «Jainkoaren haserrepeko» (Ef 2, 3) bihurtzen duelarik, eta Jainko bizitzaz, grazia saindutzaileaz, eta Izpiritu Sainduaren bizikidetasunaz erantzi egiten du bekataria; azkenik, gogo heriotzea da. Horregatik, halakoari bekatu hiltzaile izena eman zitzaion. Gizakiak bere gogozko haustura horri gogor eusten badio, eta heriotzeraino horretan irauten badu, betiko gogorkeriazko egoeran finkatzen da: Jainkoarekiko betiko adiskidetasun-eza, etsaigoa, ifernua.

Baina itzul gaitezen berriro gorago esan dugunera: egiazko bekatua, guztien gain, jarrera* bat da. Egite soil batek, berak bakarrik, ezin erabakitzen ahal du norberaren jokabide osoa. Agian bekatu izugarriren bat egin dugu; eta arrazoin osoz bekatu astuntzat hartzen dugu — barne-desleialtasunagatik ere bai. Eta halere, badaiteke, Jainkoak gure jarreran zen alde ona kontutan hartzea, eta bir-adiskidetasunerako bidea guk geuk baino urrikaltsuago epaitzea Hark.

Baina eman dezagun norbait gogortua dagoela gaitzean, Jainkoaren etsai oso bizi dela, egiaz ifernua merezi duela; halaz guztiz, orduan ere, bizi den bitartean, bada itxaropenerako biderik. Gizakia saihestu da, bai, ontasunetik eta graziatik. Baina, Jainkoa hura itzuli zain dago, bihurtu zain, humildu zain, damutu zain. Ez da aspertzen aukera eskaintzen (Ik. Jer 1,2-3). Horregatik «bekatu hiltzailea» esatean, ez dugu hartu behar behin-betirakotzat eta barkaezinekotzat.

Baina, egia dena, bekatu astunak betiko bihotz gogortasunerako bidetan ipintzen duela gizakia.

IV. Ezkon bizitzaz.

1. *Testu zaharra*, 323 paragrafoa: «Kreazioaren kontakizuten giro horixe bera... baina oraino legetzat eman gabe».

Testu berria

Kreazioaren kontakizunetan giro horixe bera nabari da. Genesi liburuaren lehen kapituluak, gainera, ernalmena nabarmentzen du: «Gizon eta emakume sortu zituen... hazi eta ugal* zaitezte». Bigarren kapituluak, berriz, maitasuna nabarmentzen du; gogora ezazu lehen aldiz elkar aurkitu zutenekoa, Adan itzartzean; orobat, gizona eta emakumea mota bereko direla erakusten du. Han, gizon bakar batetaz eta emakume bakar batetaz mintzatzen da, biek haragi bakar bat egiten dutelarik. Kristoren irakatsiaren argitan (Mt 19,4-7), kapituluok hauxe ikus arazten digute: Kreatzaileak, lehen asmoz, ezkontza monogamikoa zuela asmotan. Bibliak, asmo hori patriarka zaharretan lausoturik agertzen digu; baina, Jainkoak mono-

hautsezina: indisolubilidad, indissolubilité. **aipamena:** cita, citation. **argibidea:** soluziobidea. **maiz:** sarritan, ardura. **zehaztapenak:** deskrizioak. **gaizpidea:** eskandalua. **gaitzespena:** kondenazioa. **at:** kanpo.

gamia hori gero eta garbiago ikustera darama bere herria; eta Jesusek, Jainkoaren herri berriari aldarrikatu* egiten dio.

2. *Testu zaharra*, 333 paragrafoa: «Batikano II. Kontzilioak... Elizatik at ere nabari den eboluzioa».

Testu berria

Batikano II. Kontzilioak, gai horri buruzko kapituluan, *Eliza egungo munduan* delako kostituzioan, ez du ezer erabaki kontrolbide horietako bakoitzaz: beraz, ez du berariz* berritzen, orain hogei eta hamarren bat urte Pio XI.ak handikiro oihukatu* eta haren ondorengoa atxeki* zitzaion doktrina. Horrek ez du esan nahi, haatik*, Elizak bere doktrina zuzendu egin duenik, edota bere ikuspegia aldatu duenik. Kontzilioak hitzegin ez bazuen, honengatik izan zen: Paulo VI.ak, gai horrekiko eztabaidaketa zehatzagoa* egitarautik* kentzeko agindu zuelako; hain zuzen, batzorde bereziak —prolemaren alderdi berri batzu aztertzekotan Aita sainduak eraikiak*— ez bait zuen artean bere lana amaitua.

Dudarik gabe, gure egunotan, bai Elizaren barruan bai Elizatik kanpo, giza sexu bizitzari buruz irizpide eboluzio handia nabari da.

3. *Testu zaharra*, 333 paragrafoa: «Berdinak ote dira... ekar liezaiokeen iharduerarik».

Testu berria

Berdinak ote dira kristau batentzat jaiotzeen kontrolbide guztiak? Kontzilioak ez dio erantzunik eman galde honi: Ezkon-bikote bakoitzaren kontzientziaren baitan* uzten du hori, eskabide hau eginez: maitasunean eta ezkontzan bere agerpidea aurkitu behar luketen balio nagusiek halako kontrolbideetan tokirik ba ote duten ala ez azter* dezatela. «Ezkontzako maitasuna eta bizitza berria sortzea elkartu behar direnean, jokabidearen moralitatea ez dago asmo on hutsaren eta norberaren arrazoin hutsen baitan; baizik eta, moralitatea irizpide objetibuz erabaki behar da, pertsonari eta honen jokabideari dagokienez, egiazko maitasun giroan bata bestearekiko eskaintzaren eta giza mailako ugalketaren* esanahi osoa errespeta dezaten irizpidez» (*Eliza egungo munduan* kostituzioa, 51. zenb.).

«Iritzi hau taxutzea —dio Kontzilioak— hondo-hondoan, senar-emazteei beraiei dagokie, beren ihardunbidean, eta Jainkoaren aurrean; har bezate kontutan senar-emazteek, ezin dezaketela joka gogoak eman ahala, baizik kontzientziari atxeki behar zaizkiola: Ebanjelioaren argitan Jainkoaren legea jator interpretatzen duen Elizaren irakasgoari* meneko* izanez, Jainkoaren lege berari egokitu behar zaion kontzientziari atxeki alegia. Jainkoaren lege horrek, zentzu osoan agertzen du ezkon maitasuna, babestu egiten du eta berorren egiazko giza osotasunera bultzatzen (*ibid.*, 50. zenb.).

Zuhurtasunak, midiku batengana jotzea eskatzen du, honelako arazoetan, pertsona batetik bestera desberdin diren gorabehera guztiak kontutan hartzen ahal dituen midiku batengana. Bizitzari zor diogun errespetuak hauxe eskatzen digu: moralbidez zilegi* den muga barruan, ez dezagula hauta* osasunari nahiz afektibitateari gaitz larririk ekar liezaiokeen iharduerarik*.

Oharra. Zuzenketa hauetan *Humanae Vitae* entziklikaren irakatsien aipamenik egiten ez bada, artean agertu ez zelako da. 1968ko azaroaren 30ean argitara zen Kardinaleen Batzordearen *Deklarazioan*, hauxe esaten da: «Ezkontzako moralari buruzko adiarazpenean, Batikano II. Kontzilioaren eta apostolutar Aulkiaren irakatsi guztiei leialago eutsi behar zaie».

---

dina: gauza, gai. **esaneko:** obediente. **jarrera:** postura. **ugal:** ugaldu, ugaritu. **aldarrikatu:** hotsegin. **berariz:** espreski. **oihukatu:** aldarrikatu, hotsegin. **atxeki:** lotu. **haatik:** halere. **zehatzagoa:** konkretuagoa. **egitarautik:** programatik. **eraikiak:** eratuak, eginak. **baitan:** -rengan. **azter:** aztertu, ikertu. **ugalketa:** procreación. **irakasgoa:** magisterio, magistère. **meneko:** obediente. **zilegi:** aizu, lícito. **hauta:** hautatu, aukeratu. **iharduera:** ekintza. **joanetorri:** garrantzi.

Azken oharra

Kardinaleen Batzordearen Deklarazio-ko testuak, *Kristau Ikasbide* honi egin beharreko zuzenketekin batera eman ondoren, egoki izango da, delako *Deklarazioan*, Holandako Dotrina-ren alderdi onak ezagutuz, datorren azken oharra ipintzea:

Egin diren oharrak gorabehera eta joanetorri txikikoak ez direlarik ere, Dotrina Berria-**ren zatirik handiena, honen artzain, liturgi eta Bibli kutsu goragarria eta guzti, bere hartan gelditzen da. Ohar horiek ez dute ezer** Dotrina-**ren autoreek ukan duten asmoaren aurka alegia. Dituen kualitate handi horiek beraiek eskatzen diote, beti Elizaren irakatsia emateko, inongo itzalez lausotu gabe. (AAS 60 [1968] 691).**

abagune = parada, egokiera
abegikor = harrera oneko, txeratsu
abeltzain = ganaduzain, aziendazain
abendu = adviento, advent
abiaburu = haspuru, punto de partida, point de départ
ablatu = partitu, aldendu
ablzen = deitura
aburu = iritzi
adeitasun = begiramen, begirune
adiarazezin = esanezin, azaldu ezin
adiarazi = azaldu
adiarazpen = interpretazio
adibide = etsenplu
adiera = esanahi
adiezin = ulertezin, konprenigaitz
adigaitz = adiezin
adikor = konprenikor, xamur
adin = edade
aditu = ulertu, konprenitu
ageriko = jendaurreko, público, public
Agerkunde = Revelación, Révélation
agerpen = aparizio
agerpide = manifestación, manifestation
agian = beharbada, menturaz
agindu = manu; manatu, prometatu
aginpide = lege eskuharmen, jurisdicción, jurisdiction
agintaritza = agintarigoa, agintedunaren ofizioa
aginte = poder, pouvoir, autoridad, autorité
agintza = agintzari
agintzari = promesa, promesse
ahalbide = posibilitate
ahalezin = ezposibilitate
ahalge = indargabe; lotsati
ahalguzti = omnipotencia, omnipotence
ahalmen = poder, pouvoir, indar
ahamenka = a bocados, par bouchées
ahantzi = ahaztu
ahizpa = emakumezkoaren «arreba»; serora, moja
aholkari: kontseilu emaile.
aholkatu: kontseilatu, kontseilua eman.
aholku = kontseilu, kontseju
ahospeztu = ahoz behera etzan; belaunikatu
aingura = áncora, ancla, ancre
aintza = ohore, izen handi
aintzira = lago, lac
aipamen = aipu, alusión, allusion; cita, citation
aisa = errazki
aita-ama pontekoak = aitabitxi-amabitxiak
aitor egin = dar testimonio, rendre témoignage.
aitor-entzule = apaiz kofesore
aitorketa = *bekatuen agerpena*
«Aitorkizunak» = norbaitek aitortutakoak edo aitortzekoak («Agustin Deunaren Aitorkizunak»)
aitorpen = testigantza, temoignage; kofesio (fede-)
aitortza = kofesio sakramendu
aitortzaile = kofesatzen den norbait (aitor-entzule ≠ aitortzaile)
aitzin = aurre
aitzinate = antigoale
aitzindari = aurrezlari, buru
aitzin-irudi = prefigura, préfigure
aitzin-solas = hitzaurre
aitzitik = ostera, alderantziz, aldiz
akarraldi = errita, erasialdi, demanda
akasdun, akastun = akatsik edo hutsunerik duena
akitu = nekatu
alabaina = ordea, halere
albiste = berri, noticia, nouvelle
albitar = albigense, albigeois
albo = bazter, ondo, saihets
alboratu = baztertu
aldaezin, aldaezineko = kanbiaezin, inmutable, inmuable
aldagaitz = aldaezin
aldarazi = kanbia arazi
aldarrikatu = zabaldu, hotsegin, oihukatu

aldendu = ondotik joan edo kendu; bereizi
alderantziz = kontrakoz, bestaldetik
alderatu = gonbaratu
alderdikoi = parcial, partial
aldez = zatika, ez osorik
aldezlari = aldeko
aldeztu = defendatu, alde ihardun
aldiko bekatu = pecado actual, péché actuel
aldikortasun = temporalidad, temporalité
aldioro = unean unean, aldi bakoitz guztietan
aldiz = ostera, ordea, bestalde
ale = bihi
alegia = erran nahi baita, hau da, hots
alogera = soldata
alor = sail, soro
altxor = gordailu, tesoro, trésor
amai = bukaera, amaiera, azken
amaitu = bukatu, finitu
amaraun = armiarma-sare
amarru = maltzurkeria, zalukeria
aministrari apostoliko = administrador apostólico, administrateur apostolique
aministrazio zentro = centro administrativo, centre administratif
amor eman = makurtu, laga
Anaia Ttipiak = Hermanos Menores, Frères Mineurs
anitz = asko
anker = krudel, bihotz gogor
antolaketa, antolamendu = eraketa, organizazio, erakunde
antolatu = eratu
antz = jite
antzaldaketa = transfiguración, transfiguration
antzaldarazi = antzirudia kanbia arazi
antzeman = ezagutu, igerri, asmatu
antzerki = teatro lan
antzirudi(ak) = apariencia, apparence; especies, espèces
antzo = antzera, bezala, legez
antzoki = teatro leku
apaizeria = clero, clergé
apaizgo(a) = sacerdocio, sacerdoce
apaizgintza = ordenación sacerdotal, ordination sacerdotale
apal = xume, beheko, humil
apaldura: humilazio
aparta = berebiziko
apeta = aldarte, capricho, caprice
apezpiku = gotzain, obispu
apezpiku batzar = colegio episcopal, collége épiscopal
apika = beharbada
apostoluen segida = sucesión apostólica, succession apostolique
arabera = gisara, modura
arakatu = aztertu, ikertu
ararte = bitarte
arartekotasun = bitartekotasun; mediación, médiation
arau = norma, norme
araubide = lege
araudi = arau bilduma
araupidetu = legepera eraman, legepean ezarri
arazo = gai; problema, problème
arbaso = norberaren jatorri aurrekoa
arbuiatu = zapuztu, baztertu, zokoratu
arbuio = zapuzketa
ardura = axola, arreta, arrengura
arduratu = axolatu, entseiatu
are = gainera, oraindik gehiago
are ... non = tanto ... que, autant ... autant
area = hondar
areago = gehiago, haratago
areagotu = handiagotu, gehiagotu
arerio = etsai
arestian = lehentxoago
argal = ahul
argitzapen = iluminación, illumination
argudio = arrazoiketa
ariketa = ejerzizio, iharduketa
arineketan = lasterka
ariurri = izaera, jite
arlo = arazo; sail
arnasa = hats
aro = garai
artamendu = tratamendu
artega = urduri, kezkati
artetsu = laio
artzain = pastor (sacerdote), pasteur (prêtre)
artzaingo(a) = misión pastoral, mission pastorale
artzapezpiku = arzobispo, archevêque
arrago = sukatilu, crisol, creuset
arrakasta = éxito, succès
arrandikeria = handikeria
arranditsu = solemne, solennelle
arras = oso, erabat
arrazakoi = arrazista, arraza zale
arreta = arta, ardura
arrotz = kanpotar, ezezagun
arrubi = escorpión, scorpion
arrunt = ohizko, egunoroko; oso, arras
asaldapen = matxinada, errebolta, altxamendu
asaldatu = altxatu, erreboltatu
asekuntza = betekada
askapen = liberación, libération; salbazio
askapide = libertate bide; soluzio, konponbide
aske = libro, eskuko
aski = franko, nahiko
astalarre = gardabera, kardu
askotariko = complejo, complexe
astialdi = txolarte, atsedenaldi
astindu = inarrosi
astiro = emeki, poliki
astun = pisu
at = kanpo, aparte
atal = menbro
atalarri = umbral, seuil
ateka = brecha, bréche
atseginketa = satisfacción
atxekaitz = ulerkaitz, konpreniezin
atxeki = harrapatu, heldu, oratu, lotu
atxekidura, atxekitasun = ixuri, adhesión, adhésion
atze = gibel
atzeman = ezagutu, ulertu; heldu
atzemankor = eskurakor
atzitu = hartu, bahitu
atzipetu = tronpatu, engainatu
aukera = egokiera, parada
aukeratu = hautatu
aurka = kontra
aurkakotasun = etsaigo(a)
aurkeztu = presentatu, erakutsi
aurkikunde, aurkikuntza = deskubrimendu

aurrerantzean = aitzinerakoan, hemendik goiti
aurrerapen = aitzinamendu
aurrerapide = hazkuntza, desarrollo, développement
ausardi = audacia, audace
axanpa = zinkurin, intziri
axola = ardura, kezka
axolazko = garrantzizko, inportante
azaldu = agertu
azalpide = esanbide, espresio
azpimarratu = nabarmendu, azpimarkatu, subrayar, souligner
aztamakila = lantza
aztamuka = itsumandoka
aztarna = aztarren
aztarren = seinale, hatz
aztertu = arakatu, behatu, ikertu
azterraldi = galdeketa (bataio aurrekoa), escrutinio, scrutin
azti = mago, magicien
aztikeria = magia, magie
aztura = ohitura

babes = geriza
babesle = begirale, protector, protecteur
babespide = aterpe, segurtasun, defentsa
babestu = begiratu, gorde
badaezpadako = zalantzazko, dudazko
bahidura = garantía, garantie
bahikuntza = detención, détention
baieztatu = afirmar, affirmer; gonfirmatu
baikor = optimista, optimiste
baitan = (gizona)-gan, barnean
baitango = barneko, barruko
baitezpadako = beharrezko, nahitaezko
bakandu = ingurunetik bereizi, osotasunetik bereizi
bakun = sencillo, simple
baldintza = kondizio
baldintzapetu = condicionar, conditionner
baliatu = servirse de, se servir de
balioge = baliorik gabe
balioztapen = balio judizio, juicio de valor, jugement de valeur
balioztatu = baloratu
banaketa = partiketa; división, division
banaketazko = distributivo, distributif
banako = bakar; individuo, individu
banatu = bereizi; partitu; bakoitzari berea eman
bankete = apairu
barau = barur
bare = ezti
barealdi = reposo, repos
barkapen = barkazio, perdón; absolución, absolution
barne-bilkuntza = recogimiento, recueillement
barnebildu = recogerse, se recueillir
barreiadura = sakabanaketa
barru = barne
barrundapen = susmo
basapizti = basabere
basia = baño, mainu
baso = oihan
batzartu = bildu; elkartu
batzoki = biltoki, bilkura leku
bazkatu = mantendu, elikatu
bederen = behintzat, behinepehin
begibeteko = konfiantzazko
begieman = begiz jo, ikusi
begirale = zaintzaile
begiramen = begirune, errespetu
begiratu = begiz jo; zaindu; behakoa, begirada
begiztatu = begiz jo
beharraldi = premialdi
behartu = bortxatu; obligatu
behaztopo = oztopo; traba
behin-behineko = provisional, provisoire
behinen = nagusien, bikainen
behingoan = berehala
behinola = behin batean
beila = gaualdi, vigilia, vigile
beilari = gau-zelatari; gau-emaile; vigia, veilleur
bekaizkeria = inbiria
bekoki = kopeta
bekoz-beko = aurrez aurre; kontra
belaunaldi = gizaldi, jenerazio
belaunez belaun = gizaldiz gizaldi
berariz = nahita; espreski; batez ere
berarizko = berezi; nahia
berberez = bere ekimenez edo erabakiz
Berbizkunde (Kristoren -) = Resurrección, Résurrection
berealdiko = egundoko, sekulako
berebat = baita
berebil = auto, oto
bere eskuko = autonomu
beregaineko = independiente, indépendant
beregaintasun = autonomía, autonomie; independencia, indépendance
bereizi = aparteko; separar
berekoi = egoísta, égoïste
berekoitasun-eza = desinterés, désintéressement
berenez = berez, beren aldetik; naturalmente, naturellement
berenezko = berezko, espontáneo, spontané; natural, naturel
berezgaindiko = sobrenatural, surnaturel
berezitu = caracterizar, caractériser
berezketa = selezio; hautabide
berezkotasun = espontaneidad, spontanéité; naturalidad, naturalité
bereztasun = característica, caractéristique
berrion = mezu, mensaje, message
berriztapen = renovación, rénovation
berriztatu = berriz gertatu; renovar, renouver
bertakotu = lekukotu
bertute teologalak = virtudes teologales; vertus théologales
berriztu = berriz egin, birregin
besterendu = alienatu
besterenganatu = eskualdatu, ondorengoenganatu
beta = asti, aukera
betebehar = eginkizun, egiteko
betekuntza = konplimendu, osakuntza
betetasun = osotasun, plenitud, plénitude
betiere = betikotasun
betikor = eterno, éternel
betiraun = betikotasun
beztura = calumnia, calomnie
bide = nonbait, agian
bidelari = bidazti, viajero, voyageur
bider = aldiz
bidertu = multiplikatu, berriz egin
bidetako = viático, viatique
bidezidor = bidexka
biguindu = guritu

bihotz eman = bultzatu, kemen edo indar eman
bihotzemaile = berotzaile, bizgarri
bihotz-zimiko = kontzientzi kezka, bihotz arra, remordimiento, remords
bihoztun = kementsu
bikoitz = doble
bilakaera = eboluzio
bilakarazi = bihur arazi
bilakari = bilatzaile, investigador, chercheur
bilakatu = bihurtu, eboluzionatu
bilaketa, bilakuntza = búsqueda, recherche
bilari = bilatzaile
bilduma = kolezio, sorta
bilduma = kolezio, sorta
bildutasun = bildumendu, biltasun, barneratasun
bilgu = rollo, rouleau
biraolari = blasfemari
biribilki = solemnemente, solennellement
birjaio = berriz jaio
birreraikuntza = restauración, restauration
birrerospen = redención, rédemption
bitartekotza = mediación, médiation
bitxi = arraro
bizantziar = bizantino, byzantin
bizi-arau = erregela
biziera (grazi -) = estado (de gracia), état (de grace)
biziki = indar handiz
bizikidetasun = inhabitación, inhabitation
bizikidetza = inhabitación, inhabitation
biztanle = bizilagun
bolara = aldi
borrero = zigortzaile
bortizkeria = indarkeria
bortizki = indar handiz
bortitz = sendo, gogor
bortxa = indarkeria; coacción, contrainte
botere = aginte
bulartsu = sendo
bulego = ofizina, idazkola
burdin = burni
burdingintza = burnigintza
burubide = pentsakera; kontseilu; jokabide
buru-burutik = hasera-haseratik
burutapen = ideia
burutazio = pentsamendu
burutu = osatu, bete, konplitu
buruzagi = gidari, nagusi
buruz-buru = kontra, aurrez-aurre

dagoeneko = honetaz gero, jadanik
damuz = zoritxarrez
dastatu = probatu, ahogozatu
deihadar = deadar, dei
Deikunde = Anunziazio
desira = irrika
deus = ezer
deuseztatu = ezereztu, desegin
diakonutza = diaconado, diaconat
dina = digno; gauza, gai
diosala = agur
dohain = erregali
dohakabe = zorigaitz; zorigaiztoko
dohan = debalde, urrurik
dohatasun = gratuidad, gratuité, debaldetasun.
dohatsu = zoriontsu
doi-doi = ozta-ozta, juxtu-juxtu
doilor = bilau; zeken
duenoro = duen bakoitzean/guztietan
duintasun = dignidad, dignité

ebaketa = operazione
ebanjelari = ebanjelista
ebanjeliozko aholku = consejo evangélico, conseil évangélique
ederrespen = amirazio, admiración, admiration
ederretsi = edertzat jo
edesti = historia, kondaira
egiaz = benetan
egikor = benetako
eginbehar = eginkizun, egiteko
eginkor = activo, actif; eficaz, efficace
eginpide = behebehar, eginkizun, egiteko
egintza = hecho
egitarau = programa, programme
egitura = estructura, structure
egiztapen = proba; frogantza
egiztatu = frogatu; demostrar, démontrer
egoitza = bizileku, egonleku
egoki = ongi
egonarri = pazientzia
egotzi = gainera bota, erantsi
egun = gaur
egundoko = izugarri, sekulako
egungotu = gaurkotu
egunsenti = argi-haste
ehoa = molido, landua
ehortzi = lurperatu, lur eman
ehundu = ehuna egin; tejer, tisser
ehuntari = centurión
eite = izakera
Ekialde = Sortalde, Oriente, Orient
Ekialde Hurbil = Oriente Próximo, Proche-Orient
ekinezko (eskuhartze) = (participación) activa
ekintzakor = aktibu
ekimen = iniciativa, iniciative
elbarri = ezindu, herbaldu, hebaindu
eliz elkarte = comunidad eclesial, communauté ecclésiale
eliz guraso = Padres de la Iglesia, Pères de l'Eglise
eliz irakasgo(a) = magisterio de la Iglesia, magistère de l'Eglise
eliztartu = incorporar(se) a la Iglesia, (s')incorporer a l'Eglise
elizkidetze = incorporar(se) a la Iglesia, (s')incorporer à l'Eglise
elkarbatu = elkarrekin lotu
elkargo(a) = elkarte
elkartasun = comunión
elkarte = comunidad, communauté
elkartekide = elkarteko lagun
elkor = agor, idor
eltxo = ulitxo
emaitz = emari, dohain
eltzekari = barazki; barazkiz egindako lapikokoa
emaitz-ondoko = subproducto, sous-produit
emankor = fruitutsu, fecundo, fécond
emari = fruitu
emazteki = emakume
emeki-emeki = polliki-polliki
enparantza = plaza
enparau = gainerako
entsegu = ahalegin
entseiatu = saiatu

epai, epaiketa = jujamendu, juizio
erabat = arras, oso-osorik
erabateko = absolutu, oso, behin betiko
eragile = mugitzaile, aktibu
eragimen = eragiteko indar, influencia, influence
eragin, eragipen = indar, bultzada
eragingarri = estímulo, stimulation
eraginkor = eficaz, efficace
eragotzi = trabatu, debekatu
eragozpen = traba, enbarazo
eraiki = jaso, edificar, édifier
eraikikuntza = jasokuntza, fundación, fondation
erakarri = bereganatu, atraer, attirer
erakutsi = mostrar, montrer
eraman = jasan, sufritu
eramanpen = pazientzia; jasapen
erantzunbehar = errespontsabilitate
erantzukizun = errespontsabilitate
erantzule = *errespontsable*
erantzupide = ardurakizun
erasan = eraso
erasia = esames; reproche, récrimination
eraskin = zerbaiti eransten zaiona
eraso = pertsegitu
eraspen = piedad, piété; devoción, dévotion
eratasun = neurrizkotasun
eratorrizko = derivado, dérivé
eratu = moldatu
erauzi = kendu, suntsitu, desegin
erdaindu = ebaki; circuncidar, circoncire
erdainkuntza = ebakitze; circuncisión, circoncision
erdi aro = edad media, moyen âge
erdietsi = iritsi, lortu
erdigune = muina; centro, centre
erdikide = panticipante, participant
erdimin = haurmin, haurgintza mina
erdi(tu) = haurra egin
eredu = etsenplu; modelo, modèle
eredutza = condición de modelo, condition de modèle
eremu = basamortu
eresi = canto, chant; poema, poème
erlikari = erliki ontzi
ernal-bide = generazio-prozeso
ernaldu = ernaritu, fecundar, féconder
ernaldura, ernalkuntza = fecundación, fécondation, generación, génération
ernalkortasun = fecundidad, fécondité
ernalmen = ernal ahalmen
erne = sortu
eroapen = jasankortasun, pazientzia.
erori = jausi
eroritasun = derrotismo; postración, postration
Erosle = Redentor, Rédempteur
eroskunde = redentzio, redención, rédemption
eroso = erraz
erosta = lamentación, ahiene, deitore
errainu = itzal; rayo de sol, rayon de soleil
errakuntza = error
errauts = ceniza, ceindre
errediza = mueble, meuble
erregu = eskabide
erregutu = eskatu, otoitzegin
erremusina = limosna, amoina
erren = maingu, cojo, boiteux
erresuma = estatu
erresumin = erremin, resentimiento, ressentiment
erretore = párroco, curé
erretore-lagun = coadjutor, vicaire (coadjuteur)
errezatu = erregutu, otoitzegin
erro = sustrai
erromatar kongregazio = congregación *romana, congrégation romaine*
errotu = sustraitu
erru = falta, huts, hoben
erruduntasun = culpabilidad, culpabilité
errumes = eskale
ertz = bazter
esakun = esaldi, esaera
esaneko = *meneko, manu-oneko,* manaiakor
esanekotasun = menekotasun; obedientzia
esangura = esanahi, zentzu
esegi = zintzilik jarri
eseri = jarri
eskakizun = eskabide, exigencia, exigence
eskatima = eskabide, galde
eske = galde
eskergintza = eskerrak emate, acción de gracias, action de grâces
eskomiku = Elizatik jaurtitze
eskualdatu = transmitir, transmettre
eskualde = región
eskuar = esku-menean, eskuratzen erraz
eskuarki = gehienetan, komunzki, jeneralean
eskuera = hurbil, menean; eskumen, *jurisdicción, jurisdiction*
eskuharmen = partaidetasun, partizipazio
eskuhartu = partehartu
esku-izkribu = manuscrito, manuscrit
eskumende = ocupación, occupation
eskuko = autonomu, libro, burujabe
eskurakoi = accesible, accessible; dócil, docile
esku-sartze = intervención, intervention
espatsu = jelos, bekaizkor, celoso, jaloux
estafari = estafador, esoroc
etekin = mozkin; probetxu; producto, produit
eten = haustura; bereizi, hautsi
etendura = urradura, haustura
etengabean = gelditu gabe, hautsigabean, constantemente, constamment
etsaigo(a) = areriotasun, etsaitasun
etsikeria = eroritasun, derrotismo
etsimendu = etsipen, resignación, résignation; desesperazio
etxola = oihal-txabola
etzelarre = landu gabeko lurra, terreno baldío, terrain vague
etze-lur = baldío (terreno), vague (terrain)
euskarri = sostengu
ezabatu = guztiz kendu, desegin
ezagugarri = zinu, signo, signe
ezagugarri eginkor = signo eficaz, signe efficace
ezagugarritasun = cognoscibilidad
ezagumen = ezagutzeko ahalmen
ezagupide = seinale, zinu
ezantsia = kezkarik-eza

ezarian = emeki, poliki
ezbezala = distintamente, distinctement
ezdeus = hutsal, ezerez
ezereztu = desegin
ezetasun = frescor, fraîcheur
ezezik = ez bakarrik
ezeztatu = gezurtatu, ezetza eman, ezerezetu
ezinbesteko = beharrezko, nahitaezko
ezinesan = inefable, ineffable
ezkila = kanpaia
ezkon-eragozpen = ezkon-traba, impedimento matrimonial, empêchement de mariage
ezkonge = ezkondu gabe, célibe, célibataire
ezkongetasun = zelibatu, celibato, célibat
ezkontide = ezkon-lagun

fede aitorpen = confesión de fe, confession de foi
fede altxor = tesoro de la fe, trésor de foi
fidakaiztasun = deskonfiantza, mesfidantza
finkatu = oinarritu, sustraitu
frankotan = sarritan, maiz
frogarri = piedra de toque, pierre de touche
frogatu = probar
funskabe = oinarririk gabe
funts = oinarri, arrazoin
funtsean = mamian, oinarrian

gabezia = eskastasun, privación, privation
gaindegi = goitasun, altura, hauteur
gaindi = zehar, gainetik
gaindikotasun = trazendentzia
gainditu = gainezkatu, gain hartu
gaingiroki = azaletik
gaitza, gaizkia = mal moral
gaitzeru = celemín
gaitzespen = kondenazio
gaitzetsi = kondenatu, arbuiatu
gaixoen sakramendu = oliadura
gaixotasun = gaitza
gaizki-esan = maledicencia, médisance
gaizpide = galbide
galbahetu = cribar, cribler
galburu = ogi-buru
galde = itaun; eske
galdaketa = itaunketa
galdekizun = itaun, galde
galga = eustaga
galkor = perecedero, périssable
gantzupen, gantzuketa = igurtzi, unción, onction
gantzuki = igurtzitzeko zerbait
gantzutu = olioztatu
garai = altu, goren
garaipen, garaitzapen = victoria, victoire
garaitasun = nagusitasun
garatu = burutu, heldu
garatxo = berruga, verrue
garbikuntza, garbitzapen = purificación, purification
garesti = kario
gari = ogi
garraiatu = eraman, transportar, transporter
garraiobide = transporte
garrantzi = inportantzia
gatibualdi = cautividad, captivité
gatzatu = mamitu, burutu
gaualdi = maitines, matines
gaubeila = vigilia nocturna, vigile nocturne
gaurkotu = actualizar, actualiser
geldikor = sedentario, sédentaire; estático, statique
gerenez = geure kabuz
gertaera = gertakari
gertatu = jazo
gertu = prest
gertuera = prestaera, preparazio
geuregaineko = independiente, indépendant
gezi = flecha, flèche
gibel = atze
gidaritza = buruzagitza
gidatu = guiar
gihar = ginarri, muln
gisa = era, modu
gizabanako = gizaki, individuo, individu
gizaki = gizaseme eta emakume, ser humano, être humain
gizakunde = gizon egite, encarnación, incarnation
gizaseme = varón, homme (masculin)
gizatar = humano, humain
gizatarkuntza = humanización, humanisation
gizatartu = gizona gizonagotu
gizatiar = humanista, humaniste
gizondu = hominizar, hominiser
gobernari = gobernador, gouverneur
gogaketa = pentsaketa, meditazio
gogo = izpiritu; ganas, désir
gogoeman = pentsatu, reflexionar, réfléchir
gogoeta = pentsaketa, reflexión, réfléchissement
gogorzale = violento, violent
goi-agerkunde = rebelazio
goiagertu = agertu, revelar, revéler
gonbaratu = alderatu
gonbidatu = norberera deitu
gorakari = goraka doana
goratzarre = gorespen
gorpu = gorputz hil
gorpuzkide = gorputzaren atal
gorroto = hastio, herra
gotor = indartsu, sendo
gotzain = obispu, évêque
gotzaineria = gotzain taldea
gotzaingo(a) = gotzain izate
graziazko biziera, egoera = estado de gracia, état de grâce
guna = barrua, muina
gurtu = adoratu
gurtzapen = adorazio
gurutzada = cruzada, croisade
gurutzatu = cruzado, croisé
gutizia = codicia, cupidité, nahi bizia
gutiziatu = desiratu, irrikatu
gutxietsi = txikitzat hartu edo eduki

guztizko = erabateko, oso-oso; supremo, suprême

haatik = halere
hainbatasun = berdintasun; equivalencia, équivalence
haizatu = uxatu
halabehar = patu, fatalidad, fatalité
halabeharrez = derriorrez
halaber = berdin
hanarteko = ordurarteko
handi-puztu = handitu
hanpatu = harrotu, gehitu
hantuste = handiuste, hantura
haragitu = gizon egin
harkor = hartzeko, acogedor, accueillant
harmen = hartzeko ahalmen
hartzekodun = acreedor, créancier
hartukizun = parte, partizipazio
harrapakin = botín, butin
harreman = erlazio
harresi = murru
hasikin = hasera; primicia, prémices
hasimasizko = elemental, élémentaire
hastapen = hasera
hats = arnasa
hats-egin = arnasegin, arnasa bota
haurgintza = haur izate, erdialdi
haurride = senide
hauskor = puskatzen eta apurtzen erraz dena
hausnarketa = reflexión, réfléchissement
hausnartu = pentsatu; gogartu
hautaketa, hautapen = aukera; elezio
hauteman = hartu, ulertu
hautsezin = indisolubilidad, indissolubilité
hauzi = eztabaida; arazo; judizio
hauzitegi = tribunal
hazta-haztaka = a tientas, à tàtons
haztamuka = tanteo, tâtonnement; a tientas, à tàtons
haztura = ohitura, usadio
hedakuntza, hedapen = zabalkuntza, handitze, hazkunde
hedatasun = zabalero, luze-zabal
hedatu = zabaldu; indar hartu
hegaka = hegaldaka
hegi = malda; ezkiria
hegoak = hegalak
hein = neurri, portzentaia
helburu = jomuga, xede
heldu = oratu, iritsi
heldutasun = osotasun, betetasun
helkor = asequible, accessible
helpide = dirección, adresse
heltzaro = madurez, maturité
herbestealdi = desterru; gatibualdi
heretiko = hereje, hérétique
heriotze = herio
hertsatu = zapaldu; behartu, bortxatu
hertsi = hitxi; zentzu h.=sentido estricto
herrikide = herritar
hesparru = barruti, eremu
hezketa = educación, éducation
hierarkia = eliz agintariak
higuingarri = nazkagarri
hildo = bide, arrasto, erreten
hildura = mortifikazio
hilotz = gorpu, gorputz hila
hiri-biztanle = hiritar, ciudadano, citoyen
hirigizon = herritar, hiritar, ciudadano, citoyen
hirukoitz = triple
hitzarmen = kontrato; compromiso, compromis
hitzaspertu = konbertsazio, elkarrizketa, solasaldi
hitz-urri = hitzetan motz
hizpide = eztabaidan arrazoin; eztabaida
hobekuntza = mejora, amélioration
hoben = erru; bekatu
hondakaitz = hondatu ezina
hondakin = erauskin, ruina, ruine
hondogabeko = *zolagabeko, amaigabeko*
hondamendi = porrokatze
hondar = resto, reste
horditu = mozkortu
hornitu = gaitu; jantzi, aberastu, apaindu
horma = pareta
hoska = oihuka
hots = hau da
hotsandiko = zaratatsu
hotsegile = mezulari, mezu-emaile
hotsegin = iragarri; alde aurretik adiarazi
hotzildu = indargabetu; epeldu; hotz-beroa gozatu
hunkibera = sentibera
hunkigarri = bihotz biguingarri
hunkikor = xamur
hunkitu = commover, émouvoir
hurbil = gertu
hutsal = ezteus, baliogabeko
hutsean = urrurik, debalde, dohan
hutsezin = infalibilidad, infaillibilité

ibilkari = *nómada, nomade*
idaroki = sugerir, suggerer
idazlari = eskriba
idurikatu = iduriz eman; antzeko izan; imitatu
idurikortasun = mesfidantza
igaro = iragan, pasa
Igokunde = Ascensión
igorri = bidali
igurtzi = gantzudura; unción, onction
igurtziketa = gantzuketa
iharduera = jokabide
ihardun = jokabide; ari izan; mintzatu
ihardunaldi = solasaldi; jokaldi
ihardunbide = jokabide, zeregin
ikertu = ikusi, bisitatu
ikur = signo, signe, zinu
ikusezin = invisible
ikusgaitz = ikusiezin
ikuskari = visión (objeto de), vision (sujet de)
ikusketa = *visión* (acto), vision (acte)
ikuskizun = espectáculo, spectacle
ikuskor = visible
ikusmira = kuriositate
ikuspegi = ikusmodu
ikuspen = begirada
inguratu = aurkitu
intziri = negar-zotin
ipini = ezarri
iragan = igaro, pasa, igarotakoa; sufritu
iragankor = pasakor
iragarri = profetizatu; anunciar, annoncer

iragazi = calar, filtrar, filtrer
iraindu = laidostatu, ofentsatu
iraka = cizaña, ivraie
irakasgo(a) = irakasletza; magisterio, magistère
irakatsi = enseñar, instruir
iratzarri = biztu, esnatu, esnarazi
iraultza = erreboluzio
iraunkor = permanente, habitual, habituel
iraupen sen = instinto de conservación, instinct de conservation
iritsi = erdietsi, lortu
iritzi = iritzia eman, juzgatu, balioztatu
irizmen = iritzia emateko ahalmen
irizpen = judizio
irizpide = kriterio; pentsatzeko manera
irmo = gogor, sendo
irrika = gogo, desira, gutizia
irrits = nahi, gogo; handinahi
irten = jalgi, atera
irtenbide = soluzio
irudikatu = asmatu, irudimenera ekarri, irudiz eman
iruzur = azpikeria, engainio
iruzurtu = tronpatu, engainatu
iseka = trufa
isilgorde = sekretu
isilpe = sekretu, profesio - = secreto profesional, secret professionnel.
iskanbila = kalapita
isla = distira; perfil, profil
isladura = distira
isopukada = pincelada, coup de pinceau
ispilu = mirail
istilu = burruka, eztabaida
isuri = joera
isurkai = likuido, liquide
itaunketa = galdeketa
itsatsi = lotu, erantsi
itun = akordio, testamento; alianza, alliance
iturburu = jatorburu; origen
itxoin = iguriki
itxuraldatu = transformar, transformer
itxurati = fartzuntzi
itxuratu = idurikatu
itzal = errespetu
itzarketa, itzarkuntza = esnatze; altxamendu
Itzulinguru = inguru bide, rodeo, detour
ixtripu = accidente, accident, ezbehar
izadi = mundu
izaera = jite
izaera (grazi -) = estado (de gracia), état (de grâce)
izaki = izanik
izate = esistentzia
izengoiti = sobrenombre, surnom
izenlagun = adjetivo, adjectif
izkribu sainduak = libros sagrados, livres sacrés
izkutuki = sekretu
izpiratu = inspirado, inspiré
izpiritubide = espiritualidad, spiritualité
izu = beldur
izularri = larritasun
izurrite = peste

jabegoa = jabetza, propiedad, propriété
jabetu = konturatu; apropiarse
jadanik = dagoeneko, honez gero, orain, ordurako, orain arte ere
jai = besta
jaitsi = jetxi
Jakue = Santiago, Jacques
jaramon = kaso; axola
jarein = libratu, askatu
jarraikia = segida
jarraipide = etsenplu
jarrera = postura, actitud, attitude
jasan = eraman, sufritu; tolerar, tolerer
jasanbera = tolerante, tolérant
jasangaizkeria = jasanezina, tolerantziarik eza
jasankor = tolerante, tolérant
jasapen = eramanpen
jasokuntza = elevación
jator (interpretazio) = (interpretación) auténtica, (interprétation) authentique
jatorri = sorburu, iturburu
jaulki = fruituak erori / jausi; aitortu
jaurti(ki) = bota
jausi = erori
jauzi = salto egin
jazarle = erasotzaile, pertsegitzaile
jazarpen = pertsekuzio, erasoaldi
jeinu = genio, génie
jendetasun = cortesía, courtoisie
jentil = pagano
jite = tankera, izaera, ariurri
jo = abiatu; acudir, se vendre à
joan-etorri = garrantzi, inportantzia; bidaia
jobide = dirección, direction
jolas = josteta
jomuga = helburu, xede; meta, but
Jondoni = San(to), saindua
jopu = esklabu
jopu-lan = trabajo servil, travail servile

K.a. = Kristo aurreko
K.o. = Kristo ondoko
kabuz = kontura
kardinale batzar = colegio cardenalicio
kateatu = estekatu
katekumenadu = katekumenu aldi, kristaugai aldi
kazetari = periodista, journaliste
keinu = seinale
kementsu = indartsu
Kepa = Pedro, Pierre
kideko = lagun, antzeko
kidetasun = antzekotasun, hurbiltasun
kinka = egoera, zori, une
kirio = nerbio
kisu = kare, cal, chaux
kohete = fusée
kokatu = jarri
kokildu = beldurtu
koldarkeria = beldurtikeria; txepelkeria
kontenplalari = contemplativo, contemplatif
kontraekintza = erreazio, reacción, réaction
kontraesan = kontradizio
kontzientzi objezio = objeción de conciencia, objection de conscience
kontzientzipe = subconsciente, subconscient
kopeta = bekokia
kopuru = número, nombre
kordoka = zalantza; kezka

kreakunde = kreazio
kreatzaile = sortzaile
kristaudi = kristau multzo/herri
kutsatu = contagiar, contaminer

lagun hurko = prójimo, prochain
lainotasun = xalotasun, inocencia, innocence
landa = kanpora
landatar = campesino
lankide = colaborador, collaborateur
lankidetza = *cooperación, coopération*
larrapote = matxinsalto
larratu = alatu, apacentar, paître
larrialdi = axanpa, desolación, désolation
latera = latin
lauki = cuadro, tableau; cuadrado, carré
lausengari = zuri, adulador, adulateur
lausengu = encanto, charme; adulación, adulation
lauso = laino
lausotu = ilundu
legami = altxagarri, orantza
legelari = lege gizon
legez = bezala
legezkotasun = legitimidad, légitimité
lehentasun = primado, primauté
lehiatu = saiatu
lehor = idor
lehorraldi = idorraldi
lehortu = sikatu
leinu = linaje, tribu
lekuko = testigu
lepo egin = opaldu; ejecuter, exécuter
lerden = tente
lerratu = *irristatu*
libro = aske
lilurakeria = espejismo, mirage
limosna = amoina
liskar = sesio, borroka
liturgi buru = *celebrante, célébrant*
liturgikizun = liturgi elizkizun
liturgi ospakizun = celebración litúrgica, célébration liturgique
lortu = erdietsi
lotsarazi = ahalgetu
ludi = mundu
Lurralde Behereak = Países Bajos
lurrindatu = lurrin bihurtu
lurtar = terrestre
luzamendu = atzerapen

maisugoa = maisu izatea, maisutza
maitemindu = amoros izan, enamoratu
maiz = sarritan, ardura
malgu = biguin, guri
malko = nigar-xorta
manaiatu = erabili
manamendu = agindu
mandatari = mensajero, messager, mezulari
mandatu = misio
margotu = koloretu
marrazketa, marraztapen = *deskrizio; dibujo, dessin*
marraztu = describir; dibujar, dessiner
masaila = matel
maskor = concha, coquille
mataza = madeja, écheveau; embrollo, embrovillement
matxinada = errebolta
mehar = hestu
mehatxu = zemai, amenazo
mehatz = mina
mende = siglo, siècle
mendebalde = sartalde, occidente, occident
mendekoste = pentekoste
mendeku = mengantza
men egin = obeditu
menekotasun = obedientzia
mentura = aventura, aventure
mesfidantza = errezelo
mespretxu = gutiespen, menosprecio, mépris
mezu = mensaje, message
mezulari = mandatari
mihi = mingain
mikaztasun = *garraztasun*
minsor = impasible, impassible
mintz = membrana, membrane
mintzaira = hizkera, berbaera; hizkuntza
mintzamolde = hizkera
mintzo izan = hitz egin, berbaegin
mintzoki = mintzatuz
mirakulu = mirari
moldatu = eratu
morroin = mutil
morrontza = *esklabutasun; mutilgo(a)*
moxal = pottoka
mugagabe = azkengabe; infinito, infini
mugikaitz = aldagaitz; inmóvil, immobile
mugoneko = egoki; oportuno, opportun
mugonez = oportunamente, opportunément
muino = menditxo, gain
mundu ikuskera = cosmovisión
murriztu = probretu, moztu, kaxkartu
musu = *aurpegi, begitarte*
muzin = zaputz

nabaritu = sumatu
nabasi = ireki, argi, barnekoi, familiako
nabasitasun = elkarrekiko irekitasun; barnekoitasun
nagi = geldi, zabar
naretasun = eztitasun, baretasun
narriotu = alferrik galdu; desagaratu, profanar, profaner
natura = izadia; naturaleza, nature
nazkagarri = okaztagarri
nekaldi = pasio
neke araudi = zigor araudi, código penal, code pénal
neraua = el yo, le moi, l'Ego
norabidatu = zuzendu, gidatu, norabidean ezarri
norabide = *orientación*
norbanako = gizaki bakoitza, individuo, individu
norberekeria = individualismo, individualisme; egoísmo, égoïsme

odolkidego(a) = consanguinidad, consanguinité
ogi zatiketa = fracción del pan, fraction du pain
ohaidego(a) = concubinato, concubinage
oharkabe(an) = konturatu gabe
oharkizun = oharpen, ohar
oharmen = zentzumen; zentzuen bidez ohartzeko ahalmena
ohartuki = konturatuz

ohatze = cama, lit
ohikun = zirimonia, rito, rite
ohituzko (?) bekatu = pecado habitual, péché habituel
ohoratu = ohorea eman, hondratu
ohostu = ebatsi, lapurtu
oihan = baso
oihukatu = proclamar, proclamer
oinaze asto = potro de tortura, chevalet de torture
oinazegailu = instrumento de tortura, instrument de torture
okin = ogi egile
olatu = uhin
oldar = grina, saka; impulso, élan
oldarkoi = impulsivo
oldartsu = kementsu
olerkari = poeta, poète
olerki = poesia, poésie
oliadura = gaixoen igurtzi, oiioz igurtzitze
onberatasun = bihotz-samurtasun
onbideratu = konbertitu
ondare = herencia, héritage; patrimonio, patrimoine
ondorio = konklusio
onetsi = onartu, on iritzi
ondozka = bata bestearen ondoren
oneritzi = onartu
onuragabe = abantaila gabe, probetxu gabe
onuragarri = probetxuzko
opa (izan) = eskaini; desiratu
opaldu = sacrificar, sacrifier
oparigai (opalgai) = víctima, victime
oparo = ugari, aberats
oporraldi = bakantza
oraingotu = actualizar, actualiser
oraikuntza = actualización, actualisation
oraino = oraindik
orantza = altxagarri, legami
ordaingabe = truka ezin, irreemplazable, irremplaçable
ordainketa = reparación, réparation
ordain opari = ofrenda de reparación, offrande de réparation
ordeka = ordoki, lautada, llanada
ordenapetu = subordinado, subordiné
ordezkari = representante, représentant
ordezkatu = trukatu, aldatu
orein = ciervo, cerf
oreka = plomu, equilibrio, équilibre
oro = guztiak
orobat = berdin, baita ere
orobatasuna = totalidad, totalité; el todo, le tout
orohar = bataz beste, denetara
oroitzapen = gogorapen
orokor = jeneral, orokiko
orokortasun = universalidad, universalité
orpoz-orpo = urratsez-urrats
orrits = festín, festin
osagabe = imperfecto, imparfait
osagarri = elementu, élément
osakai = elementu, élément
osakuntza = betekuntza, konplimendu
osasun = salbazio
oski = zeru ertz, zeru bazter
ospakuntza = zelebrazio
ostera = aldiz, kontrakoz, alderantziz
osterantzean = bestela
osteko = ondorengo
ostots = trumoi
otzan = ezti, bare
ozen = bizi, entzutetsu
ozta-ozta = ia-ia, juxtu-juxtu
oztopo = traba, eragozpen

pairakari = sufritzaile, jasaile
panpina = muñeca, poupée
paralerro = paralelo
partekide = partaide, parte duena
pasarte = irakur-zati
patu = zori
patxara = trankiltasuna
pausatu = gelditu
pauso = urrats
pena araudi = código penal, code pénal
pentze = larre
pertsonaia = personaje, personnage
pilpiraka = palpitando, en battant le coeur
piskana-piskana = emeki-emeki
pitxi = joya, bijou; polit
pizgarri = eragile, zirikatzaile
piztia harrapari = animal rapaz, animal de proie
planto egin = gelditu
porrokaldi: erorialdi, jausialdi
porrokatu = desegin, suntsitu
porrotegin = fracasar, échouer
potegin = fracasar, échouer
pozoin = veneno, poison
pozointsu = venenoso, vénéneux
prediku = sermoi
premia = beharrizan
premiatsu = behartsu; beharrezko
prestutasun = bondad, probidad, nobleza, bonté, probité, noblesse
profesio isilpe = secreto profesional, secret professionnel
pubertaro = pubertad, puberté

sabai = techo, bóveda
sagaraketa, sagarapen = sagarakuntza, kontsagrazio
sagaratu = consagrar, consacrer
saiatu = entseiatu
saihestu = baztertu, urrundu
saindutu = santu egin
sakabanatu = barreiatu
sakaildu = birrindu; zauritu
sakon = barna; profundo, profond
salakuntza = akusazio
salbamendu = salbazio
salbuespen = excepción, exception
saldukeria = traizio
samur = biguin
samurtasun = goxotasun
sarbide = iniciación, initiation
sarkor = hunkigarri
sarraski = hilketa
sarri = maiz
sasoiko = adineko, osasuntsu
satsu = zikin, lohi
segida (apostolu -) = sucesión apostólica)
semetza = filiación, filiation
sen = izaera; instinto, instinct, joera; zentzu
sendakuntza = osakuntza, curación, guérisson
sendi = familia
sendotza = konfirmazionea, confirmation
senide = haurride

senidegoa = senidetza, haurridego(a)
senidekoi = fraternal, fraternel
sesio = eztabaida, istilu
sexu-joezin = impotencia sexual, impotence sexuelle
sexuketa = sexu harremana
sinestun = fededun
sineskai = sinesteko gai, artículo de fe, article de foi
sineskizun = creencia
sits = polilla, teigue
so egin = begiratu
sogor = gor
soil = simple
soilki = bakarrik
soiltasun = simplicidad, simplicité, sobriedad, sobriété
solas, solasaldi = hizketa
sorburu = iturburu, jatorburu
sorkari = fruitu; kreatura, criatura, créature
sotil = dócil, docile; airoso, aisé
sufrimen = pairamen
sufritu = pairatu
suhar = bero, kementsu
suharki = gogo biziz
sumatu = sentitu
sumin = haserre
suminkeria = erremin
suntsitu = desegin, ezereztu
sustagarri = kemengarri
sustrai = zuztar, erro

tamalez = *zoritxarrez*
tankera = itxura, molde, manera
tasun = kualitate
taxuketa = moldaketa
taxutu = antolatu, eratu
terreapen = hilketa
testigantza = lekukotza; testimonio, témoignage
testigu = lekuko
testigutza = lekukotza, testigantza
testuinguru = contexto, contexte
tinkatu = oinarritu
topaketa = aurkitze, kausitze
topatu = elkartu; aurkitu, kausitu
topo egin = elkar topatu
trinko = bete, hirmo, tinko
tristura = ilundura, tristezia
txandatu = *aldizkotu*
txantxetako = irrizko
txeratsu = harrera oneko
txertatu = txermendu
txerto = bakunazio
txikar = txiki
txikietsi = txikitzat hartu, jo; mespretxatu
txingar = pindar
txinparta = pindar
txolarte = une, asti; aukera
txosten = informe, rapport
txistu = tu, crachat
txit = oso, arras, arrunt
txukundu = garbitu, apaindu
txundiarazi = harriarazi
txundidura = harridura
txundigarri = harrigarri
tzar = handi, galant

udaletxe = herriko etxe, aiuntamendu
ugaldu = ugaritu
ugalkortasun = ernalmen, fecundidad, fécondité
ugazaba = nagusi, patroin
uhin = olatu
uholde = diluvio, déluge
ukan = eduki, izan (trans.)
ukakor = negatibu
ukapen = ezeztapen; ukazio; sakrifizio
ukendu = usaiki
ukitu = ikutu; zirraratu
ulergaitz = konprenigaitz
ulerterraz = kroprenierraz
ulertu = konprenitu
uneoro = une guztietan/bakoitzean
urdail = eskomaka, estomagu
urduri = grinatsu; ezinegon
ureztatu = busti; asperjar, asperger
urlia eta sendia = «hau» eta «hura», zutano y mengano, un tel et un tel
urtarril = ilbeltza, enero, janvier
urtearo = *urteko aldietatik bat*
urtegi = piscina, piscine
urtegun = fecha, date
urraketa = haustura
urrats = pauso
urri = gutxi, eskas
urrikaldu = erruki izan
urriki = erruki
urririk = debalde, dohan
urritasun = eskastasun
urrun = urruti
urrundu = urrutiratu
usaiki = ukendu
usapal = tórtola, tourterelle
usario = ohitura
ustegetu = desilusionar, désillusionner
ustelgaitz = incorruptible
usteon = konfiantza
utikan = *kanpora!*
uzkur = isil-triste; errezelati, beldurti
uzta = fruitu, cosecha, récolte
uztarpe = menpe
uztartu = elkarrekin lotu

xalo = simple
xalotasun = lainotasun, sinpletasun
xautu = suntsitu; agortu, akitu
xedatu = mugatu; gidatu
xede = asmo, helburu, jomuga
xehekeria = gauza xehea, menudencia, petitesse
xehetu = txikitu
xertaketa = injerto, greffe; insersión, insertion
xume = txiki; apal
xukatu = lehortu
xumetasun = txikitasun; apaltasun
xunditu = harritu
xurgatu = edoski; ustiatu, aprobetxatu, explotar
xuspergarri = pizgarri

zabarkeria = nagikeria
zaharkitu = zahartu
zainberatasun = nerviosismo, nervosité
zama = pixu, karga
zanpatu = zapaldu
zantzu = aztarna, seinale
zapi = xatar
zapitxo = oihaltxo
zaputzaldi = abandono, abandon
zapuztu = haizatu, arbuiatu
zarata = arrabotsa
zartadura = haustura, pitzadura
zeharbidez = indirectamente, indirectement
zeharka, zeharretara = indirectamente, indirectement
zeharkatu = igaro, zulatu

zeharo = erabat, oso-osorik, arras
zehatz = xehe, konkretu
zehazgabe = indeterminado, indéterminé
zehazki (ro) = xehetasun guztiz
zehaztapen = descripción, description; determinación, détermination
zehaztu = finkatu, konkretatu, mugatu
zeken = diru zale, zingor, lukur, zikoitz
zekenkeria = lukurreria
zekor = aratxe (arra)
zemai = mehatxu, amenazo
zenbaketa = censo, recensement
zenbatu = kontatu
zentzatu = zentzu onera etorri
zentzu = sen, adimendu; burubide
zentzukeria = sensualidad, sensualité
zentzumen = zentzuzko ahalmen
zentzuzko, zentzumenezko = sensible
zerbitzatu = serbitu
zerbitzu = serbizio
zergalari = inpostu biltzaile
zergati (ko) = arrazoin
zeregin = egiteko
zeren = izan ere
zertarako = xede, helburu
zertu = mamitu, egin
zertzelada = xehetasun, detalle, détail
zigor araudi = código penal
zilegi = aizu, lícito
zimentarri = oinarri, funts
zin = boto
zinatu = «aitaren» egin; zinua ezarri
zinausle = infiel, infidèle
zindo = sendo; sano, sain
zindokuntza = justifikazio, zintzogintza
zindotasun = justizia; justice
zindotu = zintzo egin
zinez = benetan, egitan
zinezko = benetako, jator
zinezko partehartze = participación activa
zintzo = justo, juste
zintzotu = justificar, justifier
zinu = signo, signe (sacramental)
ziri = engainio
zirikaldi = tentaldi
zirimonia = rituzko egitada
zirtatu = ureztatu
zirtzil = kaxkar, exkax
zirraragarri = hunkigarri
zirrarazle = izugarri, hunkigarri
zirriborratu = zehaztasunik gabe adiarazi edo marraztu
zirrizkitu = arteka, artesi
zital = gaizto
ziurtapen = segurantzi
ziur = seguru; cierto
zoli = bizkor, begi argiko
zori = patu, destino, destin
zorian = aukera-aukeran, une-unean
zorionbideak = las bienaventuranzas, les béatitudes
zorpeko = deudor, debiteur
zorte = zori
zoru = zola
zuhurtasun = zuhurtzia, prudentzia
zuin = muga, esbozo, ébanche
zuin-bide = muga-lerro
zuku = mami; zumo, suc
zurgin = arotz
zuribide = atxakia
zutikai = zutik eusten duena
zuzenbide = justizia
zuzengabekeria = injustizia
zuzentasun = justizia
zuzi = antorcha, flambeau; argizari-kandela handia

Gaien aurkibidea

Hitz bakoitzak ondotik daraman zenbakiak gai hori aztertzen deneko **paragrafoa** *adierazten du; baina etzana denean,* **orrialdea.**

Abba: Jesusek nola erabiltzen duen: 85.
abendua: 45.
Abrahan: 22, 28, 186, 233.
— -en deia: 21, 28, 106, 233.
Adan eta Eba, eta hastapen garaietako beste kontakizunak: 29, 135, 209-219, 322-323.
adbentista: ik. zazpigarren egunzale eta etorrerazaleak.
afaria (azken -): *165,* 266.
agapeak: ik. otorduak, maitasuna.
agerkundea: *37,* 184, 225-232, 236, 285, 302, 306, 310, 408, 414.
ik. orobat dogma, Hitza (Jainkoaren -).
agindua: ik. legea, dekalogoa.
aginduak: ik. dekalogoa.
agintzariak (Jainkoaren -): 30, 100, 394-404.
aginpidea
— apostoluen -: 109-110, 290--291.
— - Eliz elkartean: 263, 292-305, 307.
— Estatuaren -: 247-248.
— - familian: 334.
— Jesusen -: 117.
Agustin saindua: 20, 166, 179, 196, 215, 244, 255, 309.
aingeruak: 402.
aita-ama pontekoak: 195, 206.
aita saindua: 111, 167, 303.
aitortza: 121, 143, 386.
ik. orobat: penitentzia (sakramendua).
alaitasuna: ik. poza.
amen: Jesusek nola erabiltzen duen: 116.
amodioa: ik. maitasuna.
apaizak: 299, 345.
apaizgoa
— Jainko herriaren -: 280-289, 298, 301-302.
— Kristoren -: *229, 298.*
— - ministeriala: ik. ministeritza (artzain -).
apezpikuak: 292-302.
apezpiku batzarra: 301.
apostoluak: 106-107, 290-294.
— -en hezketa: 106-107.

ardura (Jainkoaren -): ik. Jainkoa eta Gaitza.
arkitektura (elizen -): 166, 172, 175, 177.
artea: 266-267.
arrats otoitza (*completorium*): ik. otoitza (liturgiazko -).
arrianismoa: 53, 167.
askatasuna: 6, 225, 377.
astialdia: nola erabil: 365.
azken aldiak
— ezezagun zaizkigu: 63.
— Jesusek Jerusalenen hondamendiarekin eta aldi guztietako mixeriarekin batera iragarriak: 123, 399.
azkengabea: ik. mugagabea.
aztikeria: *29*, 75, 205, 264, 372.

bakea: 143, 165, 350, 352.
barkapena: 191, *462*, 380-389.
barkapenak: ik. induljentziak.
barreiadura: ik. diaspora.
bataioa
— aita-ama pontekoak: 195, 206.
— -ko hitzaren berriztapena: 195.
— ez da bakandu behar -, ez norberaren bizitzatik, ez eliz elkartetik, ez gizaditik: 197.
— gogozko -: 194.
— haurren -: 195-197.
— Jesusen -: *95*, 120, 192.
— Joanen -: 44, *95*.
— kristauen -: 187-197.
— ik. orobat: liturgia (bataioaren -), sakramenduak.
bazkoa: 142-144.
bedeinkapena (mahainarena): 121, 253.
bederatziurrena (Mendekosteko -): 147.
behartsuak (Jahveren -): 25, 47, 55, 57, 67.
begirunea: ik. errespetoa.
bekaizkeria: 351.
bekatua
— bakoitzaren -: 376-379.
— bekatuaren agerpen: 27, 225.
— betirako - (gaitzespena): 401.
— -k eragiten duen gaitza: 380.
— - gizadian: 183, 207-219, 229.
— jatorrizko -: 207-219.
berbizkundea
— gure -: 228, 395-404.
— Kristoren -: 136-144, 228.
berezitasuna (Israelen -)
— - bekatuaren agerkundean: 27.
— - historia osoan: 33.
— - historiografian: 30.
— - mesianismoan: 30.
— - monoteismoan eta Jainko herriarekiko leialtasunean: *37*, 22-23, 30, 405-409.
berezitasuna (Jesusen -)
— - bere apostoluen hezketan: 106, 114, 116-117.
— - bere mirariengatik: 75.
— - bere paraboletan: 65.
— - «Gure Aita»n: 90-91.
berezitasuna: Jesusen agerkundearen - munduan: 225-232, 410-417.
berriona: ik. ebanjelioa.
bezperak: ik. otoitza (liturgiazko -).
beztura: 369.
biatikoa: 393.
Biblia
— bere burua esplika ahal dezake -k?: 264-265.
— -ren esanahi anagogikoa: 403.
— -ren esanahi izpirituala: 40, 134, 156, 356, 262-263, 403.
— -ren kanona: 32-33, 160, 259.
— -ren zahartasuna: 36.
— Elizaren famili liburua: 259.
— - Erreforman: 260.
— - Israelen: 32-40.
— - Israelen jatorburu: Testamentu Zaharra: 32.
— - iturburua, haserako Eliza

sorberrian: Testamentu Berria: 156-157.
— - Jainko Izpirituak izpiratua: 39, 157.
— Dotrina hau baino hobeto mintzo da - Jainkoaz: 399.
— -ko literatur moten gaurkotasuna: 33-34.
— literatur motak -n: 33-34, 46, 115, 157, 399, 412.
— misterioz betea, Jainkoa bezala: 405.
— oinarri iraunkor: 160.
— posible ahal da -ren interpretapen pribatua: 263-264.
— Testamentu Zaharreko liburuen adiarazpen laburra: 35.
— ik. orobat: Ebanjelioak, Hitza (Jainkoaren -), agerkundea.
bidaliak: ik. apostoluak.
bihozberritzea: ik. konbertsioa.
bikarioa (parrokoa): ik. erretorea.
bikarioa (koadjutorea): ik erretore-laguna.
birreroskundea: 220-232, 324, 354-359.
— bekatua baino are gehiago: 183, 207, 216, 380.
— Kristoren egintzaz (sintesia): 216-229.
bokazioa: ik. deia.
bozkarioa: ik. poza.
budismoa: *33*, 221, 231.

damua: 389.
deabrua: *95*. 76-77, 187-188, 402.
deia
— Abrahanen -: 21, 28, 106, 233.
— Elizaren -: 233, 280-285.
— gizaki bakoitzaren -: 283, 305, 335.
— Israelen -: *37*.
— Jesus ez da mintzatzen bere -n oinarrituz, bere buruan baizik: 116.
— Jesusen - zerbitzurako: *95*.
— profeten -: 33, *95*, 255.
dekalogoa: 28, *246*, *306*.
demokrazia: 180, 297.
desira mugagabea: ik. irrika mugagabea.
desleialtasunak (Elizaren -): 167, 173, 181, 284.
diakonuak: 299.
diaspora: 25, 176.
dogma: 54, 267, 302.
dohainak (Izpirituaren -): ik. karismak.
duda: 140, 239-240.

ebanjelioa
— -ren jatorria: 157-158.
— - hitzaren esanahia: 42.
— lau -en sinboluak: 160.
— literatur mota berezia: 46, 115.
— ik. orobat: biblia.
ebanjeliozko aholkuak: 92, 179, 338-346.
eboluzioa: *9-13*, *146*, *211*, *406-408*. ik. orobat: gizona, gizadia, gizatasuna.
egia: 370.
egintza onak: 212, 361-364.
eguberriak: 55.
ekumenismoa (liburu honetan funtsezkoena, kristau guztiena da): 178, 194, 288.
Eliz Gurasoak: 166.
Eliza
— - barkapena da: 381.
— ekialdeko -: 168-171.
— - eta bataioa: 193-197.
— - eta Estatua: 347-350.
— - eta Estatua historian: 166-177.
— Jainkoaren apaiz herri: 280-289.
— Jesusek eraikia: 105-113.
— - munduan: 346.
— nola egiten gara eliztar? Hitzaren esanahi desberdinak: 182.

— «Eliza» hitza Biblian azaltzen den bezala erabiltzen dugu, hots: singularrean nahiz pluralean, leku elkarteak izendatzeko. Ez diegu «Eliza» izen hori ukatzen katoliko ez diren elkarteei: 182.
elizakoak: ik. biatikoa, oliadura (gaixoen -).
epaia: ik. hauzia.
Epifania: 56.
ik. orobat: liturgia (Epifaniako -).
eramanpena: 288.
erasoa: ik. jazarpena.
erlijio primitibuak: *29.*
erlijiosoak: ik. ebanjeliozko aholkuak.
erlijiosoen elkarteak: ik. ebanjeliozko aholkuak.
eros (maitasun erotikoa): 318, 336.
Erreforma
— bataioa -n: 193.
— Biblia -n: 260.
— ebanjeliozko aholkuak -n: 179.
— -ren jatorria: 175.
— ezkontza -n: 328.
— katolizismoari buruzko iritzi desberdinak: 175.
— ministeritza -n: 300.
— ik. orobat: ekumenismoa.
Erregeak (ekialdeko -): ik. Epifania.
Erreinua (Jainkoaren -)
— burutua: 399-403.
— - eta Eliza: 113.
— - Jesus bera da: 72.
— Jesusek ekarria: 63-72.
— Jesusen heriotzeaz eraikia: 120.
— Joanek hotsegina: 44.
— liburu honek osorik -ren inguruan dihardu: 243.
errespetoa (Jainkoaren izenarekiko -): 118.
erretorea: 299.
erretore-laguna: 299.
erretretak: ik. gogojardunak.
errosarioa: 253.
errua: ik. bekatua.
esanekotasuna: ik. obedientzia.
eskasia (giza -): 226-228, 281, 364.
eskubideak (giza -): 361.
esperantza: 241-242, 390, 404.
estasia: 38, 150, 255.
Estatua: 347-350.
Eukaristia: 127, 139, 247-248, 266--279, 393.
ik. orobat: liturgia (eukaristiaren -).
eutanasia: 351.
ezkongaialdia: 320-322.
ezkongetasuna: 92, 304, 318, 324, 338, 345.
— Jesusen -: 124.
— Zeruetako Erreinuagatik -: 304, 338, 345.
ezkontza: 97, 315-337.
ik. orobat aurkibide orokorra.

familia: 315-337.
fariseismoa: 370.
fariseuak: 67.
fedea
— Berbiztua onartzeko beharrekoa da -: 236.
— bertute eta eginkizun da -: 237, 344.
— dohan emaniko grazia da -: 236.
— dudak -n: 239-240.
— elkartekoa da -: 186, 195, 236.
— - eta ezagutza sakonagoa: 94, 236.
— - eta mirariak: 80.
— - ez da sistima, mezu eta argia baizik: 236.
— - aurreko urratsak: 185.
— - aditzea: 95, 238.
— -ren arrazoinezkotasuna: 238.
— -ren ukapena: 96, 311.
— gurasoek erabakitzen ahal dute seme-alaben -?: 186.

— *Jesusen eta Elizaren ageriko* aitorpenak eta Aitak gure barnean egiten duenak eragina: 93.
— ik. orobat: dogma.
fededuna: ik. kristaua.
filantropia: ik. egintza onak.
Frantzisko (Asisko -) saindua: 55, 172, 173, 175, 179, 339, 364.

gaitza: ik. bekatua, mixeria.
gaitzespena: ik. bekatua (betirako -), ifernua.
gaixoak bisitatu: 392.
gaizkiesana: ik. beztura.
garbikuntza: 398.
garbitokia: ik. garbikuntza.
Garizuma: 121.
gerra: ik. gudua.
gezurra: 371.
gizadia
— -ren gero eta batasun handiagoa: 350.
— -ren hedadura: 135, 402-404.
— -ren jatorria eta eboluzioa: 10.
— inor ere ez da gaitzetsia: *303.*
— izakiak beste planetetan.
gizakundea (Jaunaren -) (hiru Kontzilio handien irakatsiak): 53-54.
— «Jainko Seme» titulua: 118.
— Jesusen jakitatea: 60, 117.
gizarte borroka: 254, 356-357.
gizatasuna
— -ren hazkundea Israelen: 37-40, 322-323.
— -ren hazkundea Israelen eta beste herrietan: 40-41.
— -ren hazkundea Kristoren agerkundeari esker: 54, 175, 180, 324.
gizona
— etorkizuneko -: 13, 165, 394-404.
— -k galdetu egiten du: 1-2, 410-417.
— *-ren jatorria:* 3-7, 9, 315, 416-417.
Gizonaren Semea: 118, 130.
gogaketa: ik. meditazioa.
gogo mugagabea: ik. irrika mugagabea.
gogojardunak: 253.
gorespenak: ik. otoitza (liturgiazko -).
gotzainak: ik. apezpikuak.
gozamena: ik. poza.
grazia: 183, 234-235.
— gizonari elkartean emana: 235.
gudua: 40, 252.
— - eta Eliza: 252.
gurasoak: ik. ezkontza.
Gurea Aita: 90-91, 188.
gurutze bidea: 133.
guztiahalmena (Jainkoaren -): 395, 410-417.

halabeharra: 220-224.
haurra: Jainkoaren Erreinua -ren antzera hartu behar da: 69.
haurrak, bataiatzeke hilak: 196.
hautaketa: ik. deia.
hauzia: 70, 100, 400-401.
hezketa: 317, 335-337, 352, 365-368.
herio zigorra: 252.
heriotzea: 8, *29,* 134-135, 192, 219, 229-230, 380, 394-397.
higienea: 351.
hildura: 391.
ik. orobat: zerbitzua.
hinduismoa: *32,* 221, 230.
historia (Elizaren -): 165-182.
Hitza (Jainkoaren -): 26, 31, 139, 259-265.
— - gizon egin zen: 53-55, 414-417.
— -ren Liturgia: 265.
— ik. orobat: biblia.
hitzemana: ik. agintzariak.
homosexualitatea: 319.
horoskopoa: ik. aztikeria.
humanismoa: *36,* 223, 231.

humorea: 370.
hutsegiteak (Elizaren -): ik. desleialtasunak (Elizaren -).
hutsezina
— Aita Sainduaren -: 303.
— apezpiku batzarraren -: 301.
— Jainko herriaren -: 301.

ifernua: 70, 401.
igandea: 144, 257-258.
Igokundea: 145-147.
imanentzia (Jainkoaren -): 408.
induljentziak: 380.
inkisizioa: 173, 175.
irrika mugagabea: 14, 390.
Islamismoa: *35*, 168, 222, 231-232.
Israel: 21-41.
ik. orobat: Juduak, berezitasuna (Israelen -).
istiluak: ik. tirabirak.
itxaropena: ik. esperantza.
izena (bataioko -): 195.
Izkribu Sainduak: ik. Biblia.
Izkritura: ik. Biblia.
Izpiritua (Jainkoaren -)
— Israelen -: 37-38.
— Jesusen heriotzeaz emana: 132.
— -k Jesusen presentzia segurtatzen du: 147-152, 190, 204-205, 234.
— - Jesusengan: *95*.
— - munduan: *37*.
Izpiritu Saindua: ik. Izpiritua (Jainkoaren -), Jainkoa.

jabegoa: 339, 355-364.
Jainkoa
— Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren misterioa: 415-417.
— arrazoinaren bidez -gana: 15.
— - eta gaitza: 17-19, 88, 187, 218-219, 410-417.
— - ez da gizonak irudikatzen duen bezalakoa: 18, 53, 60, 250, 311, 405, 414-417.
— -ren urruntasuna, ausentzia: 237.
— Jesusek «Abba» deitua: 85.
— -k munduaren enigmari damaion erantzuna: ik. mundua.
— Nazareteko Jesusengan agertua: ik. Jesus Nazaretekoa.
jaiotzea: 9, 28, 249, 315-317.
— jaiotze berria: 190, 399, 404.
— jaiotze kontrolbidea: 333.
jakituria (Jainkoaren -): 31, 52.
jasanberatasuna: 287.
jatorria: 9-10, 33, 47, 316.
jazarpenak
— kristauek eragin -: 173, 177.
— kristauen kontrako -: 165, 177.
Jehobaren lekukoak: 261.
jendetasuna: 364.
Jerusalen
— -en hondamena: 123.
— Jesus behin betirako doa -era: 119.
— Jesusen bigarren igoaldia -era: 59.
— Jesusen lehen igoaldia -era: 57.
— judaismoaren erdigune: 25.
— konkista aurretik: 22.
— konkista ondoren: 23.
Jesus Nazaretekoa: ik. kapitulu aurkibidea, bereziki «Nor da Jesus hau?» kapitulua: 114-118.
— ik. orobat: gizakundea, Hitza (Jainkoaren -), Semea (Jainkoaren -).
Jesusen senideak: 51.
juduak: 25, 155.
justizia: 356-358, 361-363.

kalumnia: ik. beztura.
Kanisio (Pedro -) saindua: 175.
kanon
— Bibliaren -: ik. Biblia.
— mezatako -: 268.
kardinaleak: 303.

karismak: 151.
kastitatea: 320, 331, 336.
Kepa saindua: 111, 303.
kerygma: 159.
koadjutorea (bikarioa): ik. erretore laguna.
komentu bizitza: ik. ebanjeliozko aholkuak.
Komunismoa: ik. Marxismoa.
konbertsioa: 40, 44, 184-186, 187, 193.
kondenazioa: ik. gaitzespena, ifernua.
kontenplazioa: 254-255.
kontrolbidea (jaiotzeen -): ik. jaiotze kontrolbidea.
kontzientzia morala: *18*, 286, 308--310, 376-379.
kontzientzi objetore: 352.
Kontzilioa
— Batikano II. -: 171, 314.
— Efesoko -: 53.
— Kaltzedoniako -: 53.
— Nizeako -: 53.
— Trentoko -: 175.
— zer da Kontzilioa?: 301.
kreazioa: 211, 316, 406-407, 416--417.
— - berria: 74, 146, 190, 276, 353, 368, 402-404.
kristaua
— Elizan artzaingo zereginik gabea: ik. apaizgoa (Jainko herriaren -).
— Elizaren baitan eginkizun bereziren bat duenez: ik. apaizgoa (Jainko herriaren -).
kultura: 365-368.
kuria: 303.

laiko: ik. kristaua.
lana: 4, 8, 58, 353-354.
laudeak (gorespenak): ik. otoitza (liturgiazko -).
legea
— baliorik funtsezkoenen adiarazpena da, Jesusek hobetua: 97-104, 309-310, 313.
— Estatuaren -: 287, 309, 327, 329, 347.
— - eta kontzientzia: 308-310, 329, 340, 348, 351.
— Israelen -: 31.
Liburu sainduak: ik. Biblia.
literatur motak: ik. Biblia, ebanjelioa.
liturgia
— abenduko -: 45.
— aste sainduko lehen egunetako -: 123.
— bataioaren -: 187-192.
— bazko gaueko -: 142-144.
— eguberrietako -: 55.
— epifaniako (Errege eguneko) -: 56.
— erramu igandeko -: 122.
— Eukaristiaren -: 266-274.
— ezkontzaren -: 325-326.
— gaixoen oliaduraren -: 393.
— garizumako -: 121.
— Mendekoste eta «urtean zehar»eko -: 123.
— ordenak ematearen -: 299.
— ostegun sainduko -: 128.
— ostiral sainduko -: 133.
— sakramenduen -: 198-202.
— sendotzaren -: 203.
— zer da liturgi ospakuntza: 45, 198, 275.
liturgi aroa: 248, 275.
liturgi kultua: 265.

magia: ik. aztikeria.
maitasuna
— agindurik nagusiena da: 101, *306*, 310.
— - eta gorbizitasuna: 389, 391.
— - eta justizi zentzua: 254, 359.
— etsaienganako -: 104, 254.
— - ez dago norberaren gogoaren baitan bakarrik: 313-314.
— ezkon - eta erotikoa: 318--325, 331-337.

— gure izatearen sorburua da: 315-318, 416-417.
— Jainkoa eta lagun hurkoaganako -, gauza bera bezala: 101, 310-311.
— Jainko Izpirituaren dohain: 150, *306*.
— Jainkoa - da: 417.
— kristau eta gizatar - bat-bera dira: 103, 313.
— lagun hurkoaganako -, nor delako: 102.
— -erako hezi: 235-237, 252.
— neurrigabeko -: 99, 102, 245, 313, 363, 417.
— norberaren onerako maita?: 244, 311.
manamendua: ik. legea, dekalogoa.
Maria
— Elizaren irudia: 153, 163.
— Jaunaren Ama: 51, 53.
— Jesusen birjintasunezko jaiotzea: 47-49.
— Kana-n: 61.
— -ren oinazea: 59, 131.
— sortzez garbia: 216.
— zerura jasoa: 397.
Marxismoa: 20, *36*, 224, 231-232.
meditazioa: 254.
Mendekoste: 149-153.
mendekoste mugimendua: 261.
Mendiko Hitzaldia: 67, 99, 245, 313, 358.
meza: ik. Eukaristia.
ministeritza (artzain -): 139, 151, 161, 290-305.
mirakulu: ik. mirariak.
mirariak
— - Elizan: 81.
— Jesusen -: 75-80.
— -en izaera: 74.
— - Testamentu Zaharrean: 33.
misioak
— - eta herri bakoitzaren izaera berezia: 176, 288-289.
— -en zergatia: 288.
misterioa, ez asmakizun edo prolema: 374.
mistika: 255.
mixeria
— - ezkontzan: 324.
— - lanean: 254.
— munduko -: 7-8, 17-18, 88, 220, 399, 410-413.
monastegi bizitza: ik. ebanjeliozko aholkuak.
monoteismoa: ik berezitasuna (Israelen -).
mormonak: 261.
mortifikazioa: ik. hildura.
Mugagabea
— -ren agerkundea: 374, 407, 414-417.
— -ren irrika dugu: 14.
mundua: 4-13, 283, 314, 416.
— -ren enigmari Jainkoak damaion erantzuna: 18-19, 220-232, 410.
— ik. orobat: gizona, gizakia, kreazioa.

narkotikoak: 351.

obedientzia: *95*, 92, 292, 334, 340.
odola: 127, 229, 272.
oliadura (gaixoen -): 393.
Olio sainduak: 128, 188, 203, 299, 393.
oinazeak: ik. sufrimenduak.
onbideratzea: ik. konbertsioa.
ordainketa, bekatuagatik: 380, 387-389.
otoitza
— abegi eta irekitasun jarrera: 246.
— entzuna: 89, 412.
— errosarioa: 253.
— Eukaristi - nagusia: 247.
— goizeko eta arratsaldeko -: 121, 248, 253.
— «Gure Aita»: 90-91, 188.
— iraupenezko -: 86.
— Jesusen -: 82-85.

— Kontenplaziozko : 254.
— libro eta bakarka izpiratua: 249-255.
— liturgiazko -: 248.
— meditaziozko -: 254.
— - mistikoa: 255.
— zer da -?: 246.
— ik. orobat: liturgia.
otorduak
— Bazko -: 124-128, 271.
— Jesusen -, Erreinuaren ezagugarri: 68.

pairamenak: ik. sufrimenduak.
paradisua: 131, 165, 209-211, 218.
patua: ik. halabeharra.
Paulo saindua: 158.
Pauloren pribilejioa: 328.
pazientzia: ik. eramanpena.
penitentzia (sakramendua): 382-389.
pertsekuzioa: ik. jazarpena.
politeismoa: *30.*
poza: 69, 143, 154, 305, 406.
presentzia
— Jainkoaren -: 31, 199, 408, 413.
— Kristoren -: 139-140, 147-151, 161, 198, 274-278, 294-295.
— ik. orobat: Izpiritua (Jainkoaren -).
profetak: 24, 35-37, 41, 42, 116, 118, 255.
profeziak: 63, 73, *163,* 134, 148, 402.
proiezioa: 20, 23.
protestanteak: ik. Erreforma.
publizitatea: 252, 372.

sainduak: 153, *165,* 244, 281, 284, 397.
sakramenduak: 81, 197-202, 393.
ik. orobat: bataioa, sendotza, Eukaristia, ezkontza, apaizgoa, aitortza, oliadura (gaixoen -).
sakramentalak: 202.
salmuak: 131, 134, 256.
sekretua
— aitortzako -: 371.
— - profesionala: 371.
sektak: 261.
sekularra: ik kristaua.
Semea (Jainkoaren -): 118, 415-416.
ik. orobat: Jesus Nazaretekoa, Hitza (Jainkoaren -), gizakundea, Jainkoa (- ez da gizonak irudikatzen duen bezalakoa).
sendotza: 303-306.
ik. orobat: liturgia (sendotzaren -).
sexualitatea: 318, 336.
sinbolua: 201.
sinestuna: ik. kristaua.
soiltasuna
— Izpirituaren -: 150, *292.*
— Jesusen mirarien -: 75.
— sakramendu ezagupideen -: 127, 199-200, 273, 279.
sorgin erreketa: 172.
sozial borroka: ik. gizarte borroka.
sufrimenduak
— Kristoren bitartez birrerosle gertatzen dira: 229-230, 354.
— Kristoren -: 19, 119, 133. 155, 165, 168-178, 413.
— -ren kontra ahalegindu behar dugu: 227, 324, 351--352, 354.
— ik. orobat: mixeria.
suizidioa: 351.

tentaldia: *95,* 129, 239-240, 241.
tirabirak
— *artearen eta moralaren arteko* -: 366-367.
— legearen eta kontzientziaren arteko -: 309, 329-330, 348.
— maitasunaren, eta justiziaren aldeko borrokaren arteko -: 254, 357-359.
— zientziaren eta fedearen arteko -: 238.

tolerantzia: ik. jasanberatasuna.
Toma (Akinoko -) saindua: *37*, 33, 172, 179, 186, 216, 218, 309.
trazendentzia (Jainkoaren -): 407.

unibertsismoa (txinatar -): *34*.

zahartzaroa: 337, 391.
zalantza: ik. duda.
zazpigarren egunzale eta etorrerazaleak: 261.
zelibatoa: ik. ezkongetasuna.
zerbitzua
— Kristoren -: *95*, 92, 124, 192.
— Kristoren Izpirituz: 124, 192, 282-284, 290, 358.
zergak: 347.
zerua: ik. biztuera, kreazio berria, agintzariak (Jainkoaren -).
Zeruratzea: ik. Igokundea.
zientzia: 238, 368.
zismak: 155, 166-171.
zoria: ik. halabeharra.
zoriona: 3, 402.
zortea: ik. halabeharra.
zuzentasuna: ik. justizia.

Aurkibidea

ARGITALDARIAREN OHARRA ... IX
LIBURUAREN ESKEMA ... XIII
NOLA ERABIL LIBURU HAU ... XIV
EUSKAL «KRISTAU IKASBIDEEN» HISTORIA LABURRA ... XVII
AURKIBIDEA ... XXV

KRISTAU BIDEA

Lehen zatia

Gizakiaren izatea: Misterioa ... 1

Gizakia bere buruari galdezka ... 3
1. Gauzak berenez nabari ez direnean ... 4
2. Egiten dugun eta ez dugun guztiak galde hori darama eta galde horrekiko erantzuna ... 5

Gizakiaren handitasuna eta mixeria ... 6
3. Besterekin bizi gara ... 6
4. Munduan bizi gara ... 6
5. Munduaren zatitxo bat gara ... 7
6. Askatasun gora ... 7
7. Gizakiaren mixeria ... 7
8. Gauza orok bere sasoia du ... 8

Munduaren eboluzioa ... 10
9. Nire jatorria ... 10
10. Gure jatorria ... 11
11. Eboluzioa ... 11
12. Munduaren eboluzioa ... 12
13. Gizakiaren geroa ... 13

Ase ezineko egarria ... 14
14. Ba ote da ezer ase nazakeenik? ... 14

Gure kontzientziaren deia ... 18

Mugagabearen deia ... 19
15. Arrazoinez ezagutzekoa ... 19
16. Bizitzari atxeki deia ... 20

Gaitza munduan ... 20
17. Mugatuak ezezik, hauskor ere bai ... 20
18. Absolutua bidera irtengo ahal zaigu! ... 22

Berak azaldu digun mezua ... 22
19. Jainkoaren Hitza ... 22
20. Zeuretzat egin gaituzu ... 24

Bigarren zatia
Kristoganako bidea ... 27

A. Herrien bidea ... 29

Lehen erlijioak ... 29
Iraganeko zibilizazio nagusiak ... 30
Hinduismoa ... 32
Budismoa ... 33
Txinatar unibertsismoa ... 34
Islamismoa ... 35
Humanismoa eta marxismoa ... 36
Jainkoaren izpiritua mundu osoan ... 37

B. Israelen bidea ... 38

Jainkoak eginiko mirariak ... 39
21. Herbertarren artzain aroa (K.a. 1800-1200 gutxi gorabehera) ... 39
22. Bertakotzearen aroa (K.a. 1200-1000 gutxi gorabehera). 39
23. Ekialdeko monarkia zaharraren aroa (K.a. 1000-587 inguruan) ... 40
24. Herbestealdia (K.a. 587-539) ... 41
25. Judaismo aroa (gutxi gorabehera, K.a. 500. urtetik) ... 42

Jainkoaren Hitza ... 42
26. Agertzen duen hitza ... 42
27. Elkargoa (Ituna) ... 43
28. Hitza Israelen kondaira osoan ... 43
29. Hastapen garaien kontakizunak ... 44
30. Israelen hiru fenomenu bereziak ... 45
Mesianismoa ... 45
Kondairaren bidea ... 45
Monoteismoa ... 45
31. Jainkoaren hurbiltasunaren esperientzia ... 46
Hitza ... 46
Legea ... 46
Jakinduria ... 47

Liburu Sainduak ... 49
32. Nola sortu zen Biblia? ... 49
33. Literatur motak. Noraino hartu hitzez-hitz Bibliako kontakizunak ... 51
34 Bibliako Literatur motak gaur ere mintzo zaizkigu ... 57
35. Testamentu Zaharreko liburuak ... 57
Pentateukoa ... 57
Kondaira liburuak ... 58
Olerki eta jakinduri liburuak ... 59
Profetak ... 60
36. Biblia ez da ereduzko liburua ... 61
37. Ontasunean goraka ... 62

38. Izpiritua ... 63
39. Liburu Sainduak Izpirituaren lana dira ... 64
40. Bibliaren esanahi izpirituala ... 64
41. Fede bizitzaren mailak ... 65

Hirugarren zatia
Gizasemea ... 69

Argiaren aitor egin zuena ... 71
42. «Ebanjelio» hitza ... 71
43. Joan Bataiatzailea ... 72
44. Jainkoaren erreinua hurbil dago ... 72
45. Abendua ... 74

Jesusen jatorria ... 75
46. Haurtzaroko kontakizunak ... 76
47. Gizonaren semea ... 77
48. Jainkoaren seme ... 78
49. Mateo ... 79
50. Luka ... 79
51. Jaunaren ama ... 80
52. Hitza haragi egin zen ... 81
53. Jainkoaren beraren irudi ... 82
54. Gizakiaren arazoa dago hemen tartean ... 85
55. Jesusen jaiotzaren ospakuntza ... 86
56. Jaunaren epifania, agerpena ... 91
57. Jesus lehenengo aldiz Jerusalenen ... 91
58. Nazareten hazten da Jesus ... 93
59. Jesus bigarren aldiz Jerusalenen ... 93
60. Jesusen *jakitatea* ... 94

Bataioa eta tentaldia ... 95
Jainkoaren Erreinua ... 98
61. Kana ... 98
62. Argi handi bat ... 98
63. Zer esan nahi du «zeruetako erreinu»ak ... 99
64. Jesusengan agertzen da Jainkoaren erreinua ... 100
65. Parabolak ... 101
66. Zeruetako erreinu izkutuaren parabolak ... 102
67. Zortzi zorionbideak ... 103
68. Jesusek ez du *mugarik* ... 104
69. Alaitasuna ... 106
70. Hauzia ... 107
71. Erreinua orain eta mundu honetan ... 108
72. Jesus hotsegiten du Elizak ... 109

Ezagupideak ... 109
73. Profeziak betetzen ... 109
74. Miraria zer den ... 110
75. Jesusen mirariak: berekoitasunik eza, soiltasuna, onginahia ... 111
76. *Sendaketak* ... 113
77. Deabruen jaurtiketa ... 113
78. Izadiarekiko mirariak ... 114
79. Predikuaren zerbitzura ... 114
80. Fedea eta mirariak ... 115
81. Ezagupideak ... 115

Jaunak otoitz egiten irakasten digu ... 116
82. Jesusen otoitza ez dago gizakiengandik etena ... 117
83. Mendiko antzaldaketa ... 117

84. Jesusen lurreko bizitzako azken otoitzak 118
85. «Abba» hitza 118
86. Usteona eta iraupena otoitzean 120
87. Nabasitasuna, prestutasuna eta ernetasuna otoitzean ... 121
88. «Barka gure zorrak» 122
89. Jo atea, eta irekiko zaizue 123
90. Gure Aita 125
91. «Gure Aita»ren jatortasuna 126

Kristok, esaneko izanez, Aitaren nahia erakusten digu 126
92. Nahi bakar bat 126
93. Fedea 128
94. Gizakiaren bilgunea 129
95. Fedea ez dago adimenezko dohainei loturik 129
96. Sinesgabea 130
97. Legearen gain Jesusek duen agintea 131
98. Legearekiko zintzotasuna 132
99. Legea sakonagotu 133
100. Hauzia eta saria 135
101. Agindurik nagusiena 135
102. Zeure burua bezala 137
103. Maitasuna 138
104. Jainkoaren eguzki eta euria bezala 138

Bere Eliza biltzen du Gantzutuak 139
105. Herri berri bat 139
106. Apostoluen hezketa 139
107. Apostoluak misiorako eskolatzen ditu 141
108. Elizari buruzko hitzaldia 142
109. Zerutar ahalmenak gizonen eskutan 142
110. Ministroaren zerbitzua eta erantzukizuna 143
111. Kepa 144
112. Eliza Jainkoak emana dugu 147
113. Eliza, zeruetako erreinuaren «sakramendu» 147

Nor da Jesus hau? 147
114. «Jesusen bizitza» aztertuz 147
115. Biografia arrunt bat baino areago dira ebanjelioak ... 149
116. Jesus bere garaiko gizona 150
117. Aginpidea 153
118. Jesusen izenak 154

Bazkoaruntz 158
119. Jerusalen 158
120. Jasaitekotan 159
121. Garizuma 161

Jerusalengo sarrera eta egonaldia 163
122. Erramu igandea 164
123. Mehatxu egunak 164

Azken afaria 165
124. Oin garbiketa 166
125. Saldukeria 166
126. Azken agurreko hitzaldia 167
127. Hau nire gorputza da, zuentzat emana 167
128. Ostegun sainduaren ospakuntza 170

Zintzoaren heriotza 172
129. Getsemani baratzeko otoitza 172
130. Jesusek aitor egiten du bere epaileen aurrean 172
131. Gurutziltzatua 173
132. Gurutzearen aintza 175
133. Ostiral saindua 176

Hildakoen erreinura jaitsia ... 177
134. Bizia iragartzen duten salmuak ... 177
135. Hildakoen bizitokia ... 178
Biztu naiz eta hona: zuekin nago ni oraino ere ... 179
136. Fedearen giltzarria ... 180
137. Lehen igandeko egunsentia ... 181
138. Agerpenak ... 183
139. Agerpen ikuskorrak, ikusezineko hurbiltasun baten ezagupide ... 185
140. Fedezko atxekidura ... 186
Bazko jaia ... 187
141. Biztueraren ikonografia ... 187
142. Jaunak eman zituen ezagupideak ... 188
143. Bazko alaitasuna ... 190
144. Bazko igandea ... 191
Aita Jainkoaren eskuinaldean jarririk dagoena ... 192
145. Bere biztueraz, Jesus Aitarenean dago ... 192
146. Guztia, harenganuntz haziz doa ... 193
147. Kristoren presentzia iraunkorra ... 194
Babeslea bidaliko dizuet ... 195
148. Aginduriko Izpiritua ... 195
149. Izpirituaren dohaina ... 197
150. Izpirituaren dohain arruntak ... 198
151. Izpiritu Sainduaren dohain bereziak ... 199
152. Izpiritu ikusezina ... 201
153. Mendekoste eguneko eta ondorengo garaiko liturgia ... 201

Laugarren zatia
Kristoren bidea ... 203

Eliza sor-berria ... 205
154. Haserako bozkarioa ... 205
155. Haserako nekeak ... 206
156. Testamentu Zaharra Eliza sor-berrian ... 207
157. Ebanjelioen jatorria ... 208
158. Paulo Saindua ... 211
159. Jesusi buruzko ahozko aitorpenik zaharrena ... 211
160. Biblia, behin betirako oinarria ... 213
161. Apaiz agintea ... 213
162. Berbiztuarekin bat ... 214
163. Maria, Elizaren irudi ... 214
164. Historiak badu bere bidea ... 215
Elizaren historia ... 215
165. 311. urtera arte: Elizaren kontrako erasoak ... 215
166. 311. urtetik aurrera: gizarte bizitzan lekua egiten ... 217
167. 400. urtetik aurrera: Germaniarren artean hedatuz ... 219
168. Eliza ekaldean ... 219
169. 900-1000: Burdin aroa ... 220
170. 1.000. urtetik aurrera: Hedakuntza ... 220
171. 1054: Ekalde eta Mendebalde arteko etena ... 221
172. XII. eta XIII. mendeak: Gailurra? ... 222
173. Inkisizioa ... 223
174. 1300-1500: Erdi Aroaren jarraipena ... 224
175. XVI. mendea: Bideak banatuz ... 225
176. Aro Berria: Mundu guztian zabalduriko erlijioa ... 230
177. Eliza azken mendeetan ... 231
178. Mugimendu ekumenikoa ... 232

179. Elizaren kondairaren laburpen gisako zerbait: erlijioso elkarteak ... 234
180. Kristodanik mundua gizatarragotuz doa ... 235
181. Jainko herriaren kondairaren beste ikuspegi bat ... 237
182. Nor da Jainkoaren herriko? Eliza hitzak dituen adierak. 237
183. Kondairaren muina ... 238

Predikuz dator fedea. Konbertsioa ... 239
184. Guk asmatua ez den mezua ... 239
185. *Gainditu beharreko oztopoak* ... 239
186. Gurasoek erabakitzen ahal dute seme-alaben erlijioaz 242

Bataioa: ura eta hitza batera ... 244
187. Katekumenaduaren hasera ... 245
188. Azkenaurreko urratsa ... 246
189. Bataioa ... 247
190. Jaiotza berria ... 248
191. Uretan garbitzea ... 249
192. Uretan ito ... 249
193. Herri bat bizitzaz aldatzen ... 251
194. Eta besteak? ... 252
195. Haurtxoen bataioa ... 254
196. Haur bataiatugabeak ... 255
197. Bataioa ez da bakandu behar ... 256

Sakramenduak: Biziaren ezagugarri ... 256
198. *Gure bizitzako une nagusien sagarapena* ... 257
199. Jainkoa ageriko ... 258
200. Seinaleen soiltasuna ... 258
201. Sinbolu huts? ... 259
202. Sakramentalak ... 260

Sendotza ... 261
203. Sendotza sakramenduaren liturgia ... 261
204. Bataioak eta Sendotzak bat dagite ... 261
205. Izpiritu Sainduaren dohaina ... 262
206. Zenbait xehetasun ... 263

Bekatuaren indarra ... 263
207. Bekaturik ez birrerospenik gabe ... 264
208. Guztien erruduntasuna ... 264
209. Genesiaren 1-11 kapituluen mezua ... 265
210. Erromatarrei egindako epistolaren 5. kapituluaren mezua ... 266
211. Paradisuaren kontakizuna: mundua nola hasia den ez baino gizakia zer den adiarazten diguna ... 267
212. Bekatua mundura sartzea ... 268
213. Bekatua ez da akats hutsa ... 269
214. Guztiekiko gaitza ... 269
215. Kristori buruz gorbizi ... 270
216. Graziaren ahalguztia ... 272
217. *Zein da, guzti horretan, fedezko mezua?* ... 273
218. Ezer aldatu ote du munduan jatorrizko bekatuak? ... 273
219. Bekatua eta herioa, barkapena eta bizia ... 274

Birrerospena ... 275
220. Gizakia larritasunaren eta hestuasunaren aurrean ... 275
221. Hinduismoa eta Budismoa ... 276
222. Islamismoa ... 277
223. Humanismoa ... 278
224. Marxismoa ... 279
225. Gizaki askatua jainkotiar giroan ... 282
226. Gure aldetik ezin salbatua ... 283

227. Gure burruka bekatuaren eta mixeriaren kontra 283
228. «Nere burua jasotzen didazu» (Sal 3,4) 284
229. Jesusen heriotzeaz salbatuak 285
230. Laburpena 288
231. Beste salbamendu bideak beren buruez gainetik ematen dutena, Kristoren egintzatzat hartu behar ote? 289
232. Kristau ez direnak Kristoren «ebanjelari» 292
233. Jainkoa da hautatzen gaituena 292

Bizia oparo ukan dezatela 292
234. Grazia 293
235. Non aurki grazia? 294

Fedea 295
236. Sinestea. Zer den eta zer ez 295
237. Fedea eginkizun bat da 298
238. Fedea arrazoinezkoa ote? 298
239. Zalantza 299
240. Zalantzaldian zer egin dezake kristauak? 301

Esperantza 303
241. Gizakiarekiko usteona 304
242. Eramanpena 306

Maitasuna 306
243. Jesusen mezuaren giharra 307
244. Maita, eta egin nahi duzuna 307
245. Maitasunaren neurria 309

Kristauaren otoitza 311
246. Jaunaren aurrean 311
247. Otoitz bideak 312
248. Liturgiazko otoitza 314
249. Bakarka otoitzegin 315
250. Jainkoa handiago da beti 316
251. Erakutsiguzu, Jauna, otoitz egiten 317
252. Ez dago gure bizitzatik kanpora legokeen otoitzik 319
253. *Otoitz motak asko dira* 320
254. Kontenplazio otoitza 323
255. Otoitz mistikoaren bidea 324
256. Salmuak 326

Jaunaren eguna 327
257. Eukaristi eguna 327
258. Atseden eguna 328

Betiko bizitzako hitzak 329
259. Famili liburua 330
260. Jainkoaren Hitza Eliza erreformatuetan 331
261. Sektak 333
262. Hitza, garai guztietako gizakien ogi 334
263. Jainkoaren Elizaren ardura Hitzari buruz 336
264. Hitza eta elkartea 337
265. Hitzaren liturgia 338

Eukaristia 340
266. «Ene oroitzapena» 340
267. Esanahi ugari 341
268. Eukaristi liturgiaren egitura 342
269. Oroitzapenerako bildurik 343
270. Eukaristia esker otoitza da 345
271. Elkarteko otordua 345
272. «Itun berria nire odoletan» 347
273. Esanahi ugari, baina izate bakarra 348

274. Kristo ezagupide horietan dago 349
275. Jesus liturgi urtean gurekin dago 351
276. Eukaristiazko presentzia ez dago kristau bizitza osotik bakandurik 351
277. Noiz arte irauten du Eukaristiazko presentziak gure baitan? 352
278. Elizak zeruko ogia zaintzen du 353
279. Eukaristiaren handia eta txikia 354

Jainko herriaren apaizgoa 355
280. Jainkoak bereganaturiko herria 355
281. Geure eskasiaz jabetu 356
282. Zerbitzua 357
283. Munduko eginkizuna 357
284. Elizaren saindutasuna 358
285. Egia hotsegin 359
286. Eta katoliko ez direnak? 360
287. Jasanberatasuna 361
288. Zer dela eta misioa? 362
289. Kristoren nekeak 364

Artzain apaizgoa 365
290. Zerbitzua 365
291. Apostolu ministeritza 366
292. Ministeritza eskualdatu egiten da 366
293. Gizaki biziak Jaunaren ordezkari 368
294. Artzainak bere bizia ematen du 368
295. Artzainak Kristoren bizia ematen du 368
296. Gotzaina 369
297. Gotzainak bidaliak dira 370
298. Kristoren apaizgoaren, Jainko herriaren apaizgoaren eta artzaingoaren arteko harremana 371
299. Apaizak eta diakonuak 372
300. Artzaingoa beste kristauen artean 373
301. Apezpiku batzarra eta hutsezina 374
302. Egia bizia 374
303. Batasuna Keparen ondorengoari esker 375
304. «Ez gabiltza jauntxokeriaz zuen fedea agindu nahirik. Zuen pozari lagundu nahirik gabiltza, zuen pozari...» (2 Kor 1, 24) 377
305. Apaizgorako deia 378

Bigarren agindua lehenaren antzeko da 380
306. Hamar aginduen jatorria 380
307. Aginduak gizartean 381
308. Kontzientzia eta aginduak bat datoz 382
309. Kontzientzia eta agindua tirabiraka 383
310. Nork bere kontzientzia hezi 385
311. Lagun hurkoarekiko maitasuna, fede misterioa 386
312. Jainkoa ezin aurkitu dugu lagun hurkoa gabe 388
313. Mugarik gabeko lege 389
314. Eliza munduan 390

Ezkontza eta Familia 391
315. Jaiotza, nork bere jatorria beste gizakiengandik ukaitea da 391
316. Gizakiaren kreazioa 392
317. Familia giza maitasuna ernetzen deneko sukaldea ... 393
318. Sexualitatea 393
319. Homosexualitatea 395
320. Ezkongaialdia eta maitasuna 395
321. Ezkongaialdia behin-behineko 397

322. Ezkontza historian zehar ... 398
323. Ezkontza Testamentu Zaharrean ... 399
324. Ezkontza Testamentu Berrian ... 400
325. Ezkontza sakramendu da ... 403
326. Ezkontza, ageriko gertaera ... 404
327. Herri ezkontza ... 405
328. Katoliko ez direnen ezkontza ... 405
329. Ezkontza, legearen babesean ... 405
330. Ezkontza mixtoa ... 408
331. Kastitatea ... 411
332. Maitasun emankorra ... 411
333. Zenbat haur familian? ... 412
334. Ohora itzazu aita eta ama ... 414
335. Hezketa, maitatzen irakastea ... 415
336. Hezketa: gure haurrak gizon-emakume egitea ... 417
337. Hezketa: nor bere eskuko izaten laguntzea ... 419

Ebanjeliozko aholkuak ... 421
338. Erreinuaren izenean birjintasuna ... 421
339. Ezeren jabe ez izatea ... 422
340. Obedientzia ... 423
341. Bizitza oso-osorik eskaini ... 424
342. Eskuko iraun kreazio berrirako ... 425
343. Kristoren antzeko izan ... 426
344. Fedea ... 426
345. Apaizen ezkongetasuna ... 427
346. Elkarrekin Jainkoaren aurrean ... 428

Eliza eta Estatua ... 428
347. Leialtasuna ... 429
348. Elizaren eta Estatuaren arteko tirabira ... 430
349. Nork bere eginkizuna ... 431
350. Gizaki guztien batasuna ... 432

Biziarekiko errespetua ... 432
351. Ez duzu inor hilko ... 433
352. Herio zigorra. Gudua ... 435

Mundua eraikitzeko lana ... 438
353. Usteoneko ikuspegia ... 438
354. Uztarpetik askatuak ... 440

Jabetza mundu honetan ... 442
355. Jabetza eta bekatua ... 442
356. Jabetzaren salbatzea ... 443
357. Banaketa zuzena ... 443
358. Mendiko Hitzaldiaren izpiritua ... 444
359. Eskuak garbi ote ditugu? ... 445
360. Lapurreta ... 445

Premian dena laguntzea ... 446
361. Gizakiaren eskubideak ... 446
362. Gutxiago duenari ematea ... 447
363. Baina zenbat eman? ... 447
364. Nork bere bizia eman ... 448

Elkarrekin bizitzeko atsegin hutsez ... 450
365. Zer egin astialdietan? ... 450
366. Artea eta jakintzak ... 451
367. Jakintzaren eta artearen berezko balioa ... 451
368. Jesus eta kultura ... 453

Egiaren bila ... 453
369. Solasa, ongi edo gaizki hitzeginez ... 454

370. Egi zaletasuna ... 455
371. Gezurra ... 455
372. Aztikeria, horoskopoa, etab. ... 456
373. Hitzaren zerbitzua ... 458
374. Misterioa ez da asmakizun ... 458
375. «Egiagandikoa denak entzun egiten du nire ahotsa» (Jn 18, 37) ... 461

Kristauaren hutsegina. Bekatua ... 462
376. Zer da bekatua? ... 463
377. Gaitzaren misterioa ... 463
378. Bekatu larriak eta arinagoak ... 465
379. Jainkoagandik saihestua ... 466

Barkapena ... 468
380. Barkapenaren alderdi nagusia: ordainketa ... 468
381. Eliza, barkapen bide ... 470
382. Penitentzi sakramendua ... 471
383. Penitentzi sakramenduaren eboluzioa ... 472
384. Sarri aitortu behar ote? ... 473
385. Penitentzi sakramenduaren tankera ... 474
386. Aitorketa (bekatuak esatea) ... 474
387. Penitentzia ... 475
388. Barkapena edo absoluzioa ... 476
389. Damua ... 476

Bosgarren zatia
Bide bururaino ... 479

Azken jomuga ... 481
390. Itxaropen erauzezina ... 481
391. Bizitza gainbehera ... 481
392. Gaixotasuna ... 482
393. Gaixoen sakramendua ... 483
394. Heriotzea ... 484
395. Liburu Sainduak eta Jainkoaren ahalmena ... 485
396. Berbiztuko dira ... 487
397. Sainduen elkartasuna ... 489
398. Zer egin dezakegu hildakoen alde? Garbikuntza ... 491
399. Biztuera azken egunean ... 492
400. Azken Hauzia ... 494
401. Gaitzespena ... 495
402. Kreazio berria ... 496
403. Jainkoaren betiko leialtasuna Biblia osoan agertzen da. 500
404. Itxaropen betean bizi ... 501

Jainkoa ... 503
405. Argi hurbil-ezinean bizi dena ... 503
406. «Berak egin gaitu» (Sal 100) ... 504
407. «Zerua lurretik urrun den beste». Jainkoaren gaindikotasuna (trazendentzia) ... 505
408. «Israel, ene seme!» Jainkoaren imanentzia ... 506
409. Agerkundeak gidatzen du gure bilakuntza ... 507
410. Job gizakia Jainkoarekin eztabaidan ... 508
411. «Ez duzu gorrotatzen zerorrek egindako ezer» ... 510
412. «Nire izenean Aitari eskatzen diozuten guztia» ... 511
413. «Larrialdian berarekin izango nau» (Sal 91) ... 512
414. Guk pentsatzen dugunetik oso bestelakoa da Jainkoa. 514
415. Jainko bizia ... 515
416. «Gauza guztiak harengan sortuak bait dira» ... 516
417. Jainkoa maitasuna da ... 517

Aurkibide xehea 597

«Kristau Bidea»ri Eraskina 519

Holandako Kristau Ikasbidearen gorabeherak 520

I. Kreazioa 521
I. Aingeru eta deabru izpiritu hutsak badira izan 521
II. Giza arima zuzen-zuzenean kreatua 522

II. Jatorrizko bekatua 522

III. Jesus Maria Birjinagandik sortua 536
I. Birjintasunezko sortzearen misterioa 536
II. Mariaren bizitza guztiko birjintasunaz 537
III. Ohar osagarria 537

IV. Jesukristo gure Jaunak eskainitako ordain-saria 538

V. Gurutzeko oparia, Eukaristi oparian betikotua 541

VI. Egiazko presentzia eta eukaristiazko aldakuntza 542
I. Egiazko presentzia 543
II. Eukaristiazko aldakuntza 544
III. Eukaristiazko presentziaren iraupena 545

VII. Elizaren hutsezina eta misterioen ezagugarritasuna 546

VIII. Apaizgo ministeriala eta Elizaren aginpidea 547
I. Kristauen apaizgoa eta apaizgo ministeriala 548
II. Apaizgo ministeriala edo hierarkiazkoa 548
III. Gidatzeko eta irakasteko ahalmena 549
IV. Keparen ondorengoaren aginpidea 550

IX. Teologia dogmatikoko zenbait puntu 551
I. Trinitate xit sainduaren misterioaz ezagutzen duguna. 552
II Jainkoaz eta Jesukristoz ezagutzen duguna 553
III. Jesusen kontzientzia 553
IV. Bataio sakramendua 554
V. Penitentzi sakramendua 555
VI. Miraria zer den 555
VII. Bizitzaren misterioa heriotzearen ondoren 556
VIII. Hauzia eta azken garbikuntza 557
IX. Jainkoa ikustearen misterioa 558

X. Teologia moraleko zenbait puntu 559
I. Lege moral orokorrak 559
II. Ezkon hautsezinaz 560
III. Bekatu astun eta arinagoak, barne jarrera eta kanpoko egiteak 560
IV. Ezkon bizitzaz 561

Azken oharra 563

HIZTEGIA 565
GAIEN AURKIBIDEA 577
AURKIBIDE XEHEA 587